

EUSKAL GRAMATIKARI ETA
LITERATURARI BURUZKO IKERKETAK
XXI. MENDEAREN ATARIAN

EUSKAL GRAMATIKARI ETA
LITERATURARI BURUZKO IKERKETAK
XXI. MENDEAREN ATARIAN



EUSKAL GRAMATIKARI ETA
LITERATURARI BURUZKO IKERKETAK
XXI. MENDEAREN ATARIAN

EUSKAL GRAMATIKARI ETA
LITERATURARI BURUZKO IKERKETAK
XXI. MENDEAREN ATARIAN

GRAMATIKA GAIAK

iker - 14 (I)

P. Lafitteren sortzearen mendemugako biltzarra

Baionako fakultatean
2001eko irailaren 20eta 21ean.

EUSKAL GRAMATIKARI ETA LITERATURARI BURUZKO IKERKETAK XXI. MENDEAREN ATARIAN

Gramatika gaiak

IKER 14 (I)



**EUSKALTZAINDIA /
Real Academia de la Lengua Vasca /
Académie de la Langue Basque**

BILBO

2003

P. Lafitteren sortzearen mendemugako biltzarra

Baionako Fakultatean
2001eko irailaren 20 eta 21ean

Euskaltzaindiaren XV. Biltzarra

EUSKAL GRAMATIKARI ETA LITERATURARI
BURUZKO IKERKETAK
XXI. MENDEAREN ATARIAN

Gramatika gaiak

Argitaratzaileak: J. M. Makatzaga & B. Oyharçabal

EUSKALARI ETA HUSKAL: TRUFUN BURUZKOA HANIKETA GEMIA
CENTRE OF RESEARCHES FOR THE LANGUAGE OF THE TEXTS BASQUE
BASQUE TEXT AND LANGUAGE STUDY CENTER

LIVRE 5478



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



Akitaniako Kultura Ekintzarako Herrialde Zuzendaritza (DRAC)
Direction Régionale de l'Action culturelle en Aquitaine



Akitaniako Herrialeko Kontseilua
Conseil Régional d'Aquitaine



Eusko Jaurlaritza
Gobierno Vasco



Pirinio Atlantikoetako Kontseilu orokorra
Conseil Général des Pyrénées-Atlantiques

Euskadi-Akitaniaren arteko Lankidetzako Fondoak Lafitteren Mendemugako Biltzarraren antolakuntza lagundu du.
L'organisation du congrès du centenaire de la naissance de P. Lafitte a bénéficié du financement du Fonds de Coopération Aquitaine-Euskadi.

© Euskaltzaindia / R.A.L.V. / H.L.B.
Plaza Barria, 15 – 48005 BILBO
E. posta: info@euskaltzaindia.net

I.S.B.N.: • Obra osoarena: 84-95438-13-5
• Liburuki honetakoa: 84-95438-11-9

Legezko Gordailua: BI-1699-03

Fotokonposizioa: Ikur, S.A.
Cuevas de Ekain, 3, 1º – 48005 BILBO

Rontegui, S.A.L. Grafikagintza
Avda. Ribera de Erandio, 4 – 48950 ERANDIO (Bizkaia)

AURKIBIDEA

**P. Lafitteren sortzearen mendemuga
Euskaltzaindiaren XV. Biltzarra
2001.eko irailaren 20-21ean
Baiona**

Gramatika gaiak

Aitzin hitza *XI*

GRAMATIKA GAIAK

Desanbiguazio morfologikoa, azterketa sintaktikoaren lehen urratsak eta aplikazioak murriztapen gramatikaren eredu konputazionala jarraituz, <i>Itziar Aduriz, Jose Mari Arriola eta Arantza Diaz de Ilarraza</i>	<i>3</i>
Euskal aditz mailegatuen erregimena: hurbilketa, <i>Xabier Alberdi Larizgoitia</i>	<i>37</i>
Baterakuntzan oinarritutako euskararen analizatzailea oinarritzko PATR gramatika, <i>Itziar Aldezabal, Koldo Gojenola eta Kepa Sarasola</i>	<i>61</i>
Erretorika gramatikaren gainetik: Hiriart-Urruti adibidetzat, <i>Xabier Alzibar</i>	<i>81</i>
Aditz ditransitiboaren barne-egitura, <i>Eurídice Arregi eta Javier Ormazabal</i>	<i>119</i>
Oharrak determinatzaileen inguruan: oro-k dioena, <i>Xabier Artiagoitia</i>	<i>137</i>
Euskararen sistema fonologikoaren jabekuntzari buruzko oharrak, <i>Andoni Barreña</i>	<i>161</i>
Antipasiboaren lekua oraiko zubereran, <i>Battittu Coyos</i>	<i>181</i>

Eskumaldera bazterturiko perpaus osagarriak, <i>Andolin Eguzkitza</i>	195
Moduzko adberbioak eta adberbioen arteko hurrenkeraz, <i>Arantzazu Elordieta Alzibar</i>	207
Nori berea: nor bere egiturak euskaraz, <i>Ricardo Etxepare</i>	233
Itsasaldeko solezismoa, datiboaren lekualdatzearen argipean, <i>Beatriz Fernández eta Marijose Ezeizabarrena</i>	255
-En eta -ko atzizkiez berriro, <i>Patxi Goenaga</i>	279
Euskal kasu lokatiboak hizkuntzalaritza kognitiboaren ikuspuntu- tik, <i>Iraide Ibarretxe-Antuñano</i>	305
Agramatismoaren sintomak euskaraz, <i>Itziar Laka</i>	323
Ezezko perpausetako fokoak (galdegaiak eta ukagaiak), <i>Jon Ortiz de Urbina</i>	343
<i>Kor</i> atzizkiaz, <i>Beñat Oyharçabal</i>	357
Antipasiboak euskaraz, <i>Rudolf P.G. de Rijk</i>	385
Towards a theoretical treatment of left-dislocated subordinate clauses, <i>Georges Rebuschi</i>	395
'Izen + egin' predikatuak euskaraz, <i>Sonia Rodriguez eta Fernando García Murga</i>	417
Euskararen eta hizkuntza erromanikoen foko egituren arteko zen- bait paralelotasunez, <i>Myriam Uribe-Etxebarria</i>	437

AITZIN HITZA

Hogeigarren mendean euskalaritzak izan dituen zerbitzari baliosenen artean, P. Lafitte (1901-1885), hogeita hamasei urtez euskaltzain izan zena, bereziki aipatzekoa da, Iparraldean oroz gainetik. Horregatik, Euskaltzaindiak jakin zuelarik *IKER* Baionako Ikerketa Guneak, 2001ean, Lafitteren sortzearen mendemuga kari, euskal literaturari eta gramatikari buruzko nazio-arteko biltzar bat Baionan antolatu nahi zuela, berehala proposatu zuen bi erakundeek elkarrekin antola zezaten biltzar hura. Urte hartan berean Bilbon, Azkue eta Urkixoren omenez egitekoa baitzen Euskaltzaindiaren XV. Biltzarra, honen osagarri izan zitekeen P. Lafitteren omenez, Baionan bi egunez egin nahi zen hau.¹ Erran gabe doa, *IKER*ek gogo onez onartu zuela elkarlankidetzaz hau, bi erakundeek 2000.ean izenpetu lankidetzarako hitzarmena mamitzen zuena. Horren ondotik, biltzarraren antolatzeko eta gero han aurkeztu idazlanen bi liburukitan biltzeko, eskuz esku lanean ari izan dira, alde batetik, *IKER*en izenean, A. Arkotxa (literatura sailean) eta B. Oyharçabal (gramatika sailean), eta, beste aldetik, Euskaltzaindiaren izenean, Literatura Ikerketa Batzordeak izendatu arduraduna, L. Otaegi, eta Gramatika Batzordeko idazkaria, J. M. Makatzaga.

Lafitteren sortzearen mendemugako biltzar horren helburua zen Lafittek euskalaritzan gehienik landu zituen bi lan sail nagusietako espezialisten biltzea, bai gramatikalariak, eta bai euskal letren historiaren aztertzaileak ere. Xedea, hitz batean, hogeita batgarren mendearen hastapen honetan, euskal gramatikaren eta euskal literaturaren historiaren ikerketetan gauzak zertan

¹ Baionako biltzarraren ondotik, hirugarren egun batean, Uztaritzen, beste jardunaldi bat izan zen, Euskaltzaindiaren Iparraldeko ordezkariak P. Charrittonen eskutik antolatua, P. Lafitteren bizia eta nortasuna, aipatu eta azertu zituena; ikus *Euskera* 2001-2 eta hartarik atera separata berezia.

ziren erakustea zen, bai eta bidenabar ikersail horietako egoeraren marraztatzea ere. Hala dio biltzarraren izenburuak ere: *Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian*.

2001eko irailaren 20 eta 21ean egin izan da biltzarra, Baionako fakultatean, segur lehen aldia baitzen Iparraldean maila eta hedadura horretako biltzar bat antolatzen zutela euskararen eta euskal letren ikertzaileek. Biltzar hartako egitarauari behatzen zaiolarik, bi puntu badira azpimarratu behar direnak eta, gure ustez, euskalaritzaren aitzinamenduaren ondorio diren neurrian, pozgarriri ere direnak:

- lehenbizikorik, ikertzaile belaunaldi berri baten agertzea;
- bigarrenekorik, biltzarkideek bi batzar aretotan paraleloki bildu behar izatea, batzuek literatura gaien lantzeko, eta besteek, berriz, gramatikari buruzkoak.

Lehenbiziko puntua denaz bezain batean, aski da ikustea zenbat ikertzaile diren liburu honetan beren lanak agerrarazi dituztenak, *iker-2* aurreko omenaldi liburuko egileen artean agertzen ez zirenak –berrogeita hiru parte hartzaileetan, bostetarik lauren kasua da– gehienak garai hartan gazteegi izanez. Ez da dudarik, azken hogeitaz denbora ez dela alferrik pasatu eta unibertsitatean euskalari belaunaldi berri bat formatua izan dela. Ereintza horren fruituak ageri dira hemen.

Bigarren puntua ere, beste modu batean, berriztatze honen erakusgarri da, zeren ez baita dudarik biltzarkideak *paraleloki* bildu behar izateak euskalaritzaren alorrean azken bi hamarkadetan gertatu aldaketa sakon bat adierazten duela. Alabaina, lehen aldia zen euskalaritzako gisa horretako biltzar batean literatura ikertzaileak eta gramatikalariak, elkarretarik bereiz, zein bere alde, elkarretaritzen zirela elkarri beren lanen berri emateko. Ez da hori parte hartzaileen kopuruagatik bakarrik gertatu, baina bi alor horietan azken urteetan egin diren aurreramenen ondorioz ere, ezinezko bihurtu baita ikertzaileentzat gaur egun bi sailetan manera jarraiki batean aritzea. Dakigunaz, duela ez aspaldi oraino, orotan eskas baitziren langileak, euskalariak, bai Mitxeleñaren garaikoak, bai, areago, Lafitteren edo Azkueren belaunaldikoak, orotan aritzera behartuak ziren. Parte handi batean euskalaritzaren gibelamenduaren ondorioa zen hori, eta igurika zitekeen (beldur izatekoa ere gisa batez jakitate eremuen zatikatze etengabearen alderdi txarrak kontuan hartzen baditugu) euskara unibertsitatean sartzearekin eta hari buruzko ikerketak aitzina joatearekin eremu desberdinetako ikerketariak ere elkarrenganik urrunduko zirela. Hain zuzen hala gertatu da.

Horra zergatik bi liburukitan ateratzen diren biltzar hartako aktak, batean gramatikari buruzkoak, eta bestean literaturari buruzkoak, biltzen direlarik. Liburuki honetan gramatika lanak biltzen dira, hogeita bat orotara, mende berriaren hastapen honetan garatzen ari diren ikuspegi desberdinetako ikerbideak eskaintzen dituztenak. Izan ere, azken urteotako aldaketen ekarrietarik bat hauxe izan da : gramatika gaien lantzeko ikuspegi berriak agertu direla, hala nola, usaiako ikerketa deskriptiboen edo formalagokoen ondoan, hizkuntza patologiari, hizkuntzaren barne-garapenari, edo hizkuntzen ikerbide informatikoei dagozkienak.

Eskerrak bihurtu nahi dizkiegu biltzar haren antolatzaera eta liburu honen osatzaera lagundu duten guztiei, bai parte hartu duten txosten egileei, bai eta egitaraua finantzatu duten erakunde publikoei ere, izan daitezten mugaz alde batekoak (Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorra, eta Akitaniako Eskualdeko Kontseilua, eta DRAC, Kultura Ekintzarako Akitaniako Zuzendaritza), nola beste aldekoak (Eusko Jaurlaritza).

J. Haritschelhar,
euskaltzainburua

B. Oyharçabal,
*IKER*eko (UMR 5478) zuzendaria

GRAMATIKA GAIK

DESANBIGUAZIO MORFOLOGIKOA, AZTERKETA SINTAKTIKOAREN LEHEN URRATSAK ETA APLIKAZIOAK MURRIZTAPEN GRAMATIKAREN EREDU KONPUTAZIONALA JARRAITUZ

*I. Aduriz
J. M. Arriola
A. Diaz de Ilarraza*

1. SARRERA

Linguistika konputazionala diziplinarteko arloa da eta adimen artifizialeko ikerkuntzarekin badu harremanik. Bi motibazio nagusi ditu: teknologikoa eta linguistikoa. Lehenengoari dagokionean, konputazio-sistema adimentsuak garatzea du helburu, hala nola, datu-baseei hizkuntza naturalez galdetzeko interfazeak, itzulpen automatikorako sistemak, testuen analisirako *parse*rrak, ahotsaren tratamendurako tresnak, etab. Bigarrenean, alderdi linguistikoari erreparatzen zaio, eta gizakiok hizkuntza naturalaren bidez komunikatzen garenez, komunikazio-tresna horren ulermen sakonagoa erdietsi nahi da. Bi arrazoi nagusi hauek kontuan harturik, linguistika konputazionalaren xedea, honako hau da: hizkuntz ulermenaren eta sorkuntzaren teoria konputazional ulergarri, taxutu eta linguistikoki motibatua eraikitzea.

Lengoaia Naturalaren Prozesamenduaz (LNP) hitz egiten da Linguistika konputazionalaren arloan, lengoaia naturalaren tratamendu automatikoaz aritzerakoan.

Lengoaia naturalaren tratamendu automatikoari ekiteko analisi sintaktikoa edota *arsinga* ezinbesteko urratsa da. Zaila da, oinarritzat analisi sintak-

tiko sendorik ez duten aplikazio konputazional aurreratuetan pentsatzea. Horrela bada, 70. eta 80. hamarkadetan LNParsekiko interesa areagotu egin zen, eta zehazki alderdi sintaktikoari zegokiona.

Euskararen sintaxiaren tratamendu automatikorako bi hurbilpen nagusi landu dira IXA¹ taldearen baitan: batean, baterakuntza-formalismoak hartu dira oinarritzat, eta, bestean, Murriztapen Gramatikaren bideari ekin zaio. Hain zuzen ere, txosten honetan ildo horretatik sintaxiaren eremuan egindako oinarritzko lanak eta aplikazioak izango ditugu mintzagai.

2. ANALIZATZAILEAK EDOTA PARSERRAK

Esaldi bat sintaktikoki analizatzen denean, egituraren bat esleitzen zaio. Egitura horrek esaldiko osagai linguistikoak errepresentatzen ditu, eta beraien arteko harreman gramatikalak azalarazten ditu. Lan hori guztia modu mekanikoan gauzatzeko duten algoritmoak *parser* izenarekin ere ezagutzen dira. Beraz, *parser* edota analizatzaile sintaktikoa esan dezakegu. Bestalde, *parsing* terminoaren bitartez analisi sintaktikoari egiten zaio erreferentzia.

Ondoren sintaxiaren prozesamenduan dauden joera nagusien ikuspegi orokorra aurkeztuko dugu, gure hurbilpenean aukeraturiko formalismoa bera hobeki ulertzearen.

2.1. *Deskribapen linguistikoetan oinarritutako analizatzaileak*

Deskribapen hauek teoria gramatikaletan dute oinarria, esate baterako: *Lexical Functional Grammar* (LFG), *Generalized Structure Grammar* (GPSG), *Head Phrase Structure Grammar* (HPSG), *Government and Binding* (GB), etab. Linguistikoki interesgarrienak diren esaldiez arduratzen dira batez ere, eta ez horrenbeste testu errealez. Lantzen dituzten errepresentazio-ereduak handinahikoak izaten dira normalean. Honelako deskribapenetan oinarritutako *parser*rek kale egingo dute, maiz, egunkarietan edo testu teknikoetan aurki daitezkeen esaldien aurrean. Beste arazo bat da ezagutzen dituzten esaldietarako hainbat interpretazio ematen dituztela anbiguotasunarengatik, eta hauetako zein den egokiena erabakitzeke geratzen dela.

¹ <http://ixa.ehu.es>

Hala ere, esan beharra dago badirela aplikazioak testu errealei begira garatutakoak, eta oinarri gisa honelako teoriak hartu izan dituztenak. Esaterako, *Xerox Linguistic Environment / delakoak* (XLE) (Kaplan eta Newman, 1997) erraztasunak ematen ditu LFGn oinarritutako estaldura zabal-eko gramatikak eraikitzeke, informazio lexikala eta morfologikoa kanpoko iturrietatik eskuratuz.

2.2. Probabilitatean oinarritutako teknikak

Hurbilpen probabilistikoan (Black et al., 1993), aurreko joeran gramatikariek egiten zituzten lanak modu automatikoan egiten dira. Hurbilpen honek indar handia hartu du azken hamarkadan. Sinplifikatzearren estatistika hutsa erabiltzen dute. Hala ere, ez da egia osoa aldez aurretik ezagutza linguistiko oinarritzorik ez dagoenik. Kontua da, gramatikak garatzeko orduan eskuzko lan gramatikal minimoa egiten dela. Hau da, ezagumendu linguistikoa probabilitateen bidez ateratzen da etiketaturiko corpusetatik abiatuz (corpus hauei *treebank* edo *parser bank* deitzen zaie). Estrategia hori jarraituz, sistema probabilistiko gehienetan azaleko analisisa egiten da, etiketatzailetan adibidez: hitz bakoitzaren kategoria sintaktikoa igarri behar da. Ildo horri jarraituz etiketatzailerek nolabaiteko muga gaindiezinak dituzte. Esaterako, %95-97 inguruko neurriak (Voutilainen, 1994; Brill eta Wu, 1998) agertu dira zenbait hizkuntzatarako. Sintaxi osoari begira, zenbaki horiek onartu ezinak dira, esaldi askotan errore bat egotea suposatuko lukeelako. Estatistika hutsa erabiltzeak arazoak izan ditu testuinguru mugatueta gertatzen ez diren fenomenoak tratatzeko. Eta, bestalde, teknika horien bidez erdietsitako analisisiek beste oztopo bat dute, emaitzak horiek linguistikoki interpretatzea ez baita erraza.

2.3. Probabilitateetan eta gramatikan oinarrituriko hurbilpenak konbinatzen dituztenak

Linguistek idatzitako gramatiketan, maila altuko gertaera linguistikoak deskribatu dira gehienbat, sintagmak zein esaldi osoak konbinatzeko, baina arreta gutxiago eskaini zaio esaldi errealetan agertzen den zenbait fenomenori, egitura jakin baten maiztasuna kasu. Horregatik metodo probabilistikoak eta ezagutza linguistikoa lotzeko saioak egin dira, bakoitzaren abantailak biltzeko asmoz. Oro har, hurbilpen honetan gramatikaren erregelak linguistek idazten dituzte, baina hauen aplikazioa ezagutza estatistikoan oinarritzen da.

Ezagutza estatistiko hau etiketaturiko corpus handietatik atera da. *Parsinga* lan bikoitza legez ulertuko dute:

- 1) *Parse*rrak posible diren aukera guztiak emango ditu.
- 2) Aukeretak zein den hoberena edo egokiena erabakiko dute.

Adibidez *IBM/Lancaster Approach* (Black et al., 1993).

Hurrengo puntuan ikusiko dugu zehatzago probabilitateak eta gramatikak baliatzen dituen CG formalismoa.

2.3.1 *Constraint Grammar (CG) formalismoaren filosofia*

Formalismo hau desanbiguazioan, morfologikoan zein sintaktikoan oinarritzen da. Desanbiguazio-prozesu hori murriztapen-erregela multzo baten bitartez egiten da, zeinak, ondoren azalduko diren beste elementu batzuekin batera, gramatika osatzen duten.

80. hamarkadan Fred Karlsson-ek sortua da eta hona hemen gramatikaren printzipio nagusiak (Karlsson et al., 1995)²:

- CG formalismoa hizkuntzarekiko independentea da, analisi morfologikoan oinarritzen da eta helburua edozein testu analizatzea du.
- Erregelaren bidez, analisi morfologikoaren eta funtzio sintaktikoen desanbiguazioa aurrera eramaten ditu CGk. Erregela horiek, testuinguru jakin batean zuzenak/egokiak ez diren ahalik eta interpretazio³ gehienak kentzen dituzte. Horregatik esaten da murriztailea dela.

Formalismoaren filosofia azaltzen duten sententzia nagusiak hauek dira:

- 1) Helburua: analizatzailearen helbururik behinena anbiguotasuna ebaztea da, forma baten interpretazioen artean, analisi zuzenak/egokiak aukeratzea. Honekin batera, aurretik morfologikoki analizatutako testu baten analisi sintaktiko azalekoa ematea da helburua.
- 2) *Parser*rei zuzendutako gramatiken helburua (eta CG horietako bat da) ez da esaldien gramatikaltasuna adieraztea, analisi guztiei irtenbide bat ematea baizik, ahalik eta interpretazio oker/ez-egoki gehienak kentzea. Aztertze dagoen testuko elementu orori emango dio irtenbideren bat; alde horretatik sendoa dela esango dugu.

² Liburu honetan azaltzen den eskema jarraitu dugu CGPren (Constraint Grammar Parser) ezaugarri nagusiak aipatzeko.

³ Hitz-forma baten analisi morfologiko posible bakoitzari *interpretazio* deitzen zaio.

- 3) Hizkuntzarekiko eta programazio-kodeketarekiko independentea da.
- 4) Gramatika eta lexikoak testu-motari egokitzen ahal zaizkio.
- 6) Gramatikaren oinarria murriztapen-erregelak osatzen dute, baina ezaugarri probabilistikoa duten elementuak ere erabiltzen dira; erregelak irtenbide egoki bat ematen ez dutenean, gramatikari sendotasuna emanez.
- 7) Analisi morfologikoa eta lexikoa dira oinarri eta mami.
- 8) Hiru zatitan laburbil daiteke gramatikaren zeregina:
 - testuinguruari lotutako desanbiguazio morfosintaktikoa;
 - esaldi barruko eta perpausen arteko mugen esleipena;
 - azaleko funtzio sintaktikoen esleipena.
- 9) CG murriztailea da, anbigutasun morfologikoa eta sintaktikoa ebaztea duelako helburu. Hau da, testuinguru jakin bati ez dago(z)kion analisia(k) ebaztea.
- 10) Anbigutasuna hitz mailan adierazten da. Beraz, analisi-unitatea hitza da
- 11) Analisi sintaktikoak hitz bakoitzari funtzio bat esleituko dio: lehenik datu-basetik funtzio sintaktikorik gabe datozen hitzak osatuko dira eta ondoren desanbiguazio sintaktikoari ekingo zaio. Halaber, hitzen arteko erlazioaren berri ere emango du. Hala ere, analisia azalekoa eta lineala da, hau da, arbolarik edo egitura hierarkikorik ez da zuzenean sortzen.
- 12) Erregelaren oinarriak hauexek dira: gramatikaren eta corpusen azterketek ematen duten informazioa.
- 13) Abstrakzio teorikoari dagokionez, berriz, CGP osatzen duten erregelak maila baxuagoa dela esan daiteke, sintaxi formalaz aritzen diren beste teoriaren erregelarekin konparatzen badugu; esate baterako: Government and Binding teoriarekin edota Generalized Phrase Structural Grammar-ekoekin (GPSG).
- 14) Erregelak bata bestearekiko independenteak dira.
- 15) Aurreprozesua oso inportantea da. Zer lan egin behar du aurreprozesadoreak? tokenizazioa, hots, item-ezagutzailea⁴, paragrafoen mugen esleipena, hitz anitzeko unitateen ezagutzea, etab.
- 16) SGMLko kodeketa estandarra erabil daiteke erregelatan.

⁴ Tokenizazioa token edo item ezagutzea da. Hau da, analizatzaile morfologikoak sarrera gisa erabiliko dituen unitateetan bereiztea da. Unitate horiek, esate baterako, lexikoak eta puntuazio-markak izan daitezke.

3. EUSKARARAKO DESANBIGUAZIO GRAMATIKA: EUSMG


Aipatu ezaugarri orokorrak kontuan harturik, euskararen tratamendu sintaktikoari ekiteko CG formalismoa aukeratu dugu. Erabakiaren egokitasuna teorikoki frogatua gelditu bada ere, euskararako egin dugun aplikazioa ikusiko dugu ondoren. Honetan, printzipio orokorrak jarraitu baditugu ere, erabaki partikular batzuk hartu behar izan baititugu.

Gramatika honek sei atal dauzka eta *parserrak* atal guztiak bertan daudela egiaztatzen du, hutsik badaude ere (*NIL* markarekin).

Atalen zehaztapenak azalduko ditugu segidan. Aurretik, ordea, III.1 irudian gramatikaren arkitektura modu argiagoan ikusten ahal da:

III.1 irudia

MG analizatzaileraren arkitektura.



3.1. *Esaldiak mozten dituzten puntuazio-marken definizioa*

Puntuekin batera, puntu eta koma, galdera-ikurra, etab. izango dira hemen definituko direnak: DELIMITERS = "<\$.>" "<\$;>" "<\$?>" "<\$!>".

3.2. *Ezaugarri-multzoen deklarazioa*

Erregelen testuinguruak adierazteko elementu gramatikalak erabiltzen

dira (kategoria, kasua, mugatasuna, etab.). Askotan antzeko ezaugarriak dituzten elementuak multzoka daitezke eta erregeletan erabili ahal izateko aurretik definitu behar dira. Multzo horiek atal honetan definitzen dira.

3.3. *Funtzio sintaktikoen islapen-erregelak (morphosyntactic mappings)*

Islapenaren funtzioa informazioa gehitzearena da. Normalean ezaugarri morfologiko eta sintaktikoen arteko harremanak islapen-erregelen bidez adierazten dira. Islapenak interpretazio morfologiko bati funtzio sintaktiko bat esleitzen dio. Datu-basetik ez datozen funtzio sintaktikoak esleitzeko erabiliko dira. 83 islapen-erregela daude gramatikan.

Islapen-erregelek honako formatua dute:

<eragilea, etiketa sintaktikoa, TARGET hitza, helburu-hitza (adibidean letra larriz markatua), IF hitza, testuinguruko baldintzak>

- MAP (@-JADNAG) TARGET (ADI) IF (0 BURU) (1 ADL);

Adibidea: Basoan biziaz aberetu EGIN dira

Posizioa zenbaki baten bitartez adierazten da (ik. beherago desanbiguatzeko erregelak azaltzean honi buruz esaten dena). Zenbakia positiboa edo negatiboa izan daiteke, eskuina edo ezkerra adierazteko. "0" posizioa berriz, aztertzen ari garen hitzari berari egiten dio erreferentzia.

Hau guztia ikusita, honela parafrasea daiteke goian jarri dugun islapen-erregela: *islatu @-JADNAG funtzio sintaktikoa ADI(tz) ezaugarria duten formei, baldin eta forma bera burutua bada eta eskuinetara aditz laguntzailerik badu.*

3.4. *Perpausen arteko mugen esleipena*

Goian azaldu diren islapen-erregelen bidez eramaten da aurrera perpausen arteko mugen esleipena. MUGA hitza da agintzen den kasuan esleitzen den ezaugarria.

3.5. *Desanbiguatzeko erregelak*

Erregela-mota bera erabiltzen da desanbiguazio morfosintaktiko nahiz sintaktikorako. Erregelek fenomeno orokorrak eta partikularrak tratatzen dituzte. Eredu hauez osatuak daude:

<(domeinua) eragiketa, helburu-interpretazioa, IF hitza, tratatzen ari den hitzaren baldintzak, testuinguruko baldintzak>

Ikus ditzagun elementuok adibide honetan:

- (1) REMOVE (ADI) IF (0 ADJ) (NOT -2 DET)(-1 ZERO) (1 DET)

Adibidea: Bizitoki JAKIN bat ez zutela ...

Erregela hau horrela parafrasea daiteke:

Ezabatu aditzaren interpretazioa, baldin eta tratatzen ari garen forma adjektiboa ere bada eta ezkerretara, bi hitzetara, ez badu determinatzailerik; ezkerretara hitz batera morfema gabeko elementurik badu eta eskuinetara, posizio batera, determinatzailerik badu.

Desanbiguazio-erregelak ataletan bana daitezke ziurtasun-mailaren arabera. Euskararako egin dugun gramatikan lau atal bereizi dira: lehenengoak erregela morfosintaktiko ziurrenak jasotzen ditu; bigarrenak, ziurtasun-maila txikiagoko erregela morfosintaktikoak; hirugarrenak, ordea, erregela sintaktiko ziurrak jasotzen ditu eta laugarrenak, azkenik, erregela sintaktiko ez-ziurrak eta oro har, behin behinekoak direnak. Gainera, ataletan banatze honek nolabaiteko ordena jartzen du gramatikan, bestela, horrenbeste erregelarekin nekez lortuko litzatekeena (Sánchez, 1997).

Euskararako gramatikan 1.113 desanbiguazio-erregela daude: lehenengo sekzioan 672; bigarrenean 45; hirugarrenean 289 eta laugarrenean 107.

3.6. END

Azken atala da eta END hitzak osatzen du.

4. EUSMG-REN OINARRIAK ETA ITURRIAK

4.1. Euskararen Datu-Base Lexikala: EDBL

Prozesadore morfologikoaren muina den lexikoa datu-base batean antolatuta dago, EDBLn (Alegria et al., 1997). Ezinbestekoa da eskala errealeko proiektu aplikatu bati ekitean datu linguistikoak datu-base batean taxuz egituratuak izatea.

Hasieran, bi mailatako formalismoaren bidez morfologia tratatzeko sortu bazen ere, EDBL gaur egun euskararen tratamendu automatikorako datu-base lexiko orokorra da, Lengoaia Naturalaren Prozesamenduaren arlo askotan funtsezko ezagumendu-oinarria den aldetik. Horrexegatik, mota guztietako informazioa biltzen da bertan: morfologikoa eta sintaktikoa, semantikoa oraindik ez badago ere (adieren arteko banaketa, alegia), homografo-identifikatzaileak egoteak nolabaiteko hurbilpena adierazten du (Agirre et al., 1994; Aduriz et al., 1998).

Hala ere, inportanteena informazio lexikala da. Laurogei hamar mila sarreratik gora ditu orain EDBLk (80.000 inguru) eta kopuru horri arrazoizkoa deritzogu, izan ere beste hizkuntzetako aplikazioetan erabiltzen diren lexikoekin konparatzen badugu sarrera-kopuru antzerakoekin lan egiten dutela konturatuko gara.

EDBL osatzeko erabili den deskripzio lexikografiko-linguistikoari gagozkiola, estandar lexikografikoen eta arau linguistikoen aginduetara makurtu garelara esan behar da, aplikazio konputazionalak ekar ditzakeen eskakizunetara baino. Orokorra den aldetik, datu-basea aplikazio bat baino gehiagotara zuzenduta dago, eta beraz, ezin makur gaitezke bakoitzak eskatzen duen berezitasunetara⁵.

Sarrera bakoitzari dagokion informazioa eremuetan biltzen da, esate baterako: forma kanonikoa, bi mailatako forma (morfologian erabiliko den ereduari egokituia), itsats dakizkiokkeen morfemei buruzko informazioa (jarraitze-klasea), homografo identifikadorea, iturburua, adibidea(k), etab.

4.2. *Corpusak*

CG formalismoa korrante enpirikoaren barruan kokatzen da, analizatzaile honen oinarritzko puntuetako bat corpus errealekiko joera izanik (Karlsson et al., 1995:17). Joera hori bi puntutan zehaztu daiteke: corpusak, gramatikarekin batera, informazio linguistikoaren iturri dira, desanbiguazio-erregelen sorkuntza-prozesuan batez ere; eta bestetik, aplikazioetarako eta tresnetarako probaleku ezinbestekoak dira, sistemen zehaztasuna neurtzeko.

⁵ Gure kasuan, datu-basetik murriz zitekeen anbiguotasuna, potentzialki anbiguo izango diren formei kategoria jakin bat ezarritik, homografo diren adjektibo/izenen kasuan, esate baterako (ENGCn ingelesezko bertsioan egin duten bezala: ik. Karlsson et al. (1995:94-95)).

Goian aipatutako erabilerez gain, hurbilpen estatistikoetan derrigorrezko tresna bilakatu dira. Esate baterako, etiketatze-lanetan erabiltzen diren eredu markoviarretan eta Bayes-en ereduetan, corpusak ezagumendu-iturri gisa erabiltzen dira.

Euskaltzaindiaren bermea duten bi corpus daude euskaraz, historikoa –Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)– eta egungo euskararen corpus erreferentziala (XX. mendea) –Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa (EEBS⁶)– eta biak Euskaltzaindiko lexiko-finkapenerako proiektuaren barruan kokatzen dira⁷.

EEBS (Urkia eta Sagarna, 1991) idatzizkoaren gaineko corpus estatistikoa da, eta testu-motei begira, orekatua⁸. Urtero eguneratzen da corpus hau eta egun 4.657.165 inguru hitz lematizatu ditu.

Guk EEBS corpus orekatuaren zati batzuk erabili ditugu gure lanerako. Erregelak egiteko prozesuan zati bat erabili dugu eta beste bat erregelen zehaztasuna neurtzeko.

Ikusten denez, euskaraz (eta euskara bezalako hizkuntza minorizatu eta minoritarioentzat) oso corpus gutxi dago eskura. Ingeleserako, berriz, baliabide ugari daude: Brown Corpus edo Penn Treebank modukoak. Corpusaren tamaina oso garrantzizkoa da, izan ere, gertaera linguistikoen deskribapen zabala izateko, handia behar du derrigorrez. Horrela, corpusak ugaltzen direnean, berauetan oinarritutako ikerketok sakontasunean eta zehaztasunean irabaziko dute.

4.3. *Analizatzaile morfologikoa*

CG formalismoaren filosofiaren oinarritzko puntuei buruz aritu garenean, hauxe esaten genuen: *analisi morfologikoa eta lexikoa dira oinarri eta*

⁶ EEBS corpusa UZEIn lantzen ari dira. UZEI eta Donostiako Informatika Fakultatearen arteko harremana IXA taldearen hasieratik dago linguistika konputazionalako ikerketaren barruan. Egun, Corpus horren izena hau da: "XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa"

⁷ "Si bien ambos corpus recogen documentos escritos, la gran diferencia radica en que el histórico recoge obras completas, exhaustivamente despojadas, mientras que el actual es estadístico: interesa más la variedad léxica que la calidad de las obras. De ahí el nombre de la referencia, ya que muestra el euskera que se utiliza hoy." (Urkia eta Sagarna, 1991).

⁸ "Corpusen artean ondoko sailkapen sinplea egin daiteke: Orekatua/ez-orekatua: Orekatuetan testu-moten artean halako oreka bat bilatzen da, testu-mota berezituari dagozkien ezaugarri partikularretatik aldenduz. Horretarako, iturburu desberdinetatik testu-zati txiki samar anitz, esanguratsiak eta aberasgarriak biltzen dira, teknika estatistikoak erabiliz." (Alegria, 1995).

mami. EUSMGren analisi morfoloikoa analizatzaileak ematen du, eta lexikoa EDBL datu-basean dago bildua.

EDBL datu-basearen ezaugarriak ikusi ditugu aurreko puntuan. Ikus dezagun orain analizatzailearenak.

Euskararen morfologiaren tratamendu konputazionalari ekin zitzaionean, ereduaren artean euskararen ezaugarriak adierazteko gehien balio zezaketen artean bilatu zen. Aukera bat baino gehiago zegoen orduan (ikus Alegria (1995) eta Urkia (1997)) eta proba batzuen ondoren, azkenik Koskenniemi-*ren* bi mailatako morfologia (Koskenniemi, 1983).

Bi mailatako ereduaren ezaugarri garrantzizkoenak aipatuko ditugu orain laburki Alegriaren eta Urkiaren lanetan oinarrituta (Alegria, 1995; Urkia, 1997): a) eredu orokorra da, edozein hizkuntzetan aplikatzen ahal dena, eza gutza linguistikoa eta algoritmikoa bereizten dituelako; b) hitzen analisi morfoloikorako zein sintesirako balio du; c) azaleko eta sakoneko sistema lexikoak ongi bereizita daude, horregatik ez dago alomorfoak erabili beharrik; d) fonologia sortzaileko berridazketa erregelen ordeztu erregela paraleloak erabiltzen ditu, sistema kontzeptualki zein konputazionalki errazago bihurtuz.

Bi mailatako formalismoaren osagai garrantzitsuak lexiko-sistema, morfotaktika eta erregela morfofonologikoak dira.

Aipatzekoak diren beste puntu batzuk, analizatzailearen sendotasuna eta malgutasuna dira, Koskenniemi-*ren* bi mailatako morfologiaren sistemari egin zitzaizkion hiru hobekuntzen ondorio direnak. Batetik, erabiltzailearen lexikoa integratzeko aukera eman zen; bestetik, analizatzaileari sendotasuna emateko, bi mailatako eredu bera erabiliz, forma ez-estandarrek tratatu ziren, dagokion estandarri lotua dagoena⁹; eta lexikorik gabeko analisisia fonologiarako ez ezik, testuen analisisirako ere erabili zen.

Izan ere, analizatzaileak ezagutzen duen hitz bakoitzerako, aurretik daukan informazio guztia ekartzen du bueltan, morfema bakoitza zatitua agertzen dela. Askotan, gainera, ambigua den analisi-multzo bat osatzen da, adibide honetan ikusten den bezala:

```
((forma "bide")
((analisi 1)
((lema "bide")((SAR bide)(KAT IZE)(AZP ARR))))
((analisi 2)
((lema "bide")((SAR bide)(KAT PRT)(MDL ZIU))))
```

⁹ Bi mailatako ereduari jarraituz egin den euskararen morfologiaren deskribapen orokorra euskara estandarri dagokio. Gerora egin zen forma ez-estandarren deskribapen hau.

((analisi 3)
((lema "bide"))((SAR bide)(KAT IZE)(AZP ARR)))
((morf "0"))((SAR 0)(KAT DEK)(KAS ABS)(MUG MG)(FS1 @OBJ)(FS2 @SUBJ)(FS3 @PRED))))

Analisi-aukera bakoitzean, informazio morfoloikoa (kategoria, azpikategoria, kasu-mugatasuna, ...), eta sintaktikoa ere ager daitezke (funtzio sintaktikoak). Hauetako funtzio sintaktiko batzuk hasieratik daude definituta datu-basean; beste batzuk, ordea, islapen-erregelen bidez esleitzen dira, aurre-rago ikusiko dugun bezala.

Ikusten denez, hizkuntzaren deskripzioan datza bueltan etorriko den anbiguotasunaren izaera, deskripzio horretan hartutako erabaki eta irizpide jakin batzuen ondorio baita. Deskribapen linguistikoak baldintzatzen du, erremediorik gabe, ondorengo emaitza. Horregatik, bai analizatzailearen definizioan, eta bai datu-baseko lexikoa lantzerakoan, fin jokatzea komeni da.

Beraz, analizatzaile morfoloikokoaren emaitzaren gainean egingo dugu lan. Hori izango da gure lanaren oinarria edo sarrera, testu bat analizatu ondoren azaleratzen delako anbiguotasunaren arazoa.

5. ANBIGUOTASUNAREN AZTERKETA

5.1 Aztergaia mugatuz

Hizkuntzaren edozein eremutan *anbiguotasunak* komunikazioaren alterazioa ekartzen du berarekin, izan ere, horrelakoetan, esaldi bat, hitz bat, etab. modu batean baino gehiagotan interpretatzen ahal denean gertatzen da. Izatez da hizkuntza anbiguo.

"Que la ambigüedad es connatural al lenguaje común – lo que llamamos lengua a secas– en cualquiera de sus variadísimas especies es un hecho tan conocido que no hace falta apelar a refinadas técnicas dialécticas y retóricas para traer a los incrédulos al buen camino. (...). La ambigüedad es, sin lugar a dudas, uno de los universales más patentes del lenguaje natural (...)." (Michelena, 1972).

Gai honi buruz asko idatzi da, dudarik gabe, eta ikuspuntu diferenteetatik planteatu da arazoa. Izan ere, oso eremu zabala denez, mota askotako alterazio linguistikoak egon daitezke definizio horren barruan.

Alderdi konputazionaletik, *parsing*, edo analisi sintaktikoarekin lotzen da arazoa gehienbat. Aurretik egindako analisi morfolo­giko-morfosintaktikotik datorren informazioak sortzen duen anbiguotasuna da tratatzen dena.

Hizkuntzaren azterketan anbiguotasunaren arazoa eremu guztietan agertzen ahal bazaigu ere, are latz eta korapilatsuago bihurtzen da ordenadore bidezko azterketetan. Izan ere, aurretik ordenadorean pilatutako informazio guztia (lexikoa nahiz morfosintaktikoa) prozesatu, eta ematen digu inongo mugarik gabe, askotan pentsatu ezinezko emaitzak sortuz¹⁰. Honek egiten du anbiguotasuna LPNeko arazo nagusietako bat izatea, batez ere analisi sintaktikoaren mailan.

Gure aztergaia, beraz, alderdi konputazionalean sortzen den anbiguotasunaren eremuan kokatzen da eta bestelako bereizketetan sartu aurretik, azaleko sintaxiaren esparruan mugituko garela esan beharra dago. Horrek baldintzatuko du anbiguotasuna tratatzeko modua, inondik ere hurbilpen teori­koak egiten duenarekin konpara ezin daitekeena.

Horrela, anbiguotasun semantiko eta pragmatikoa alde batera utziko ditugu eta gure aztergaia anbiguotasun gramatikal lokala izango litzateke (morfolo­gikoa ere deitua) eta konkretuki, morfosintaxiari eta funtzio sintaktikoen alorrei dagokiena. Beti ere kontuan hartuz hitz mailan mugitzen garela (zuriunetik zuriunera doan segida), eta berau desanbiguatzeko testuinguru hurbila hartzen dugula aintzakotzat. Horrela, kategoria mailako anbiguotasunak tratatuko ditugu (*omen* hitza partikula, izen arrunta eta aditza izan daitekeelako), morfosintaxi mailakoak (*etxeak* forma absolutibo mugatu plurala eta ergatibo singularra izan daitekeelako) eta sintaxi mailakoak ere, *etxeak* hitza subjektu, objektu eta predikatibo izan daitekeelako.

Batek baino gehiagok pentsa dezake forma horiek testuinguru jakinetan ez direla anbiguo. Hori da hain zuzen ere gramatika honen egin beharra, alegia, testuinguru jakinetan dagokion kategoria, kasua edo funtzioa aukeratzea. Pentsatu behar da formak modu isolatuan analizatzen direla, testuingurua kontuan hartu gabe eta urrats honetan desanbiguazioa egin behar da, testuingurua kontuan hartuta.

¹⁰ Nork pentsatuko luke lehenengo kolpetik, aditaz gain *zituen* forma *zitu* izenaren genitibo plurala dela?

5.2. Anbiguotasun-motak

Guretzat maila honetan anbiguotasuna nola ulertzen den ikusi ondoren, anbiguotasun morfosintaktikoa lau multzotan sailkatzea proposatzen dugu:

1. Kategoriala: adjektibo eta adberbioen artean dagoen anbiguotasuna; aditzoin, adjektibo eta adberbioen artekoa (adibidez *bizkor* formak lau analisi ditu: lehenengo analisisian adberbioa dugu, bigarren eta laugarrenak adjektiboak dira eta hirugarrena aditzoina); aditz laguntzaileen eta trinkoen artekoa; etab.
2. Deklinabide-atzizkiei dagokiena: absolutibo mugatu plurala eta ergatibo mugatu singularraren artean dagoen anbiguotasuna adibide bat litzateke; *-ko* atzizkiaren anbiguotasuna: leku-genitiboa, deskribatzailea, banatzailea; etab.
3. Mendeko atzizki/aurrizkien ingurukoa: *-la* atzizkiaren edo *bait*-aurrizkiaren arteko balioen arteko anbiguotasuna sartuko litzateke multzo honetan, esate baterako.
4. Aditzen aspektu eta modu-denborari dagokiona: adibidez, zenbait aditzetan, aditzoinaren eta partizipioaren arteko anbiguotasuna aurkituko dugu hemen (*egon, joan*, etab.).

5.3. Erabilitako metodologia


Desanbiguzioa aurrera eramateko urratsez arituko gara metodologiari eskainitako atal honetan.

Gure helburua desanbiguzio orokorra egitea da edozein testu tratatu ahal izateko. Horregatik, anbiguotasunaren arazoaren azterketa orokorra egin dugu, fenomeno linguistiko nabarmenenak kontuan hartuz. Lan honetan lehenengo iturria analizatzaile morfologikoa dugu, EDBLrekin batera. Bi iturri horietatik lehenengo anbiguotasun-multzoak ateratzen dira.

Ondoren, multzo horien benetako agerpenaren berri emateko helburuarekin, corpusaren gaineko azterketak egiten dira, eta ondorioz arazo bakoitzaren tamaina eta garrantzi erreala ezagutzen da.

Grafikoki azaltzeko, hau da anbiguotasuna detektatzeko jarraitzen den prozeduraren eskema:

V.1 irudia Anbiguotasuna detektatzeko prozesua.




Beraz, testu errealen gaineko azterketak egitea, anbiguotasunaren eman-kortasuna aztertzeko oso baliagarria izateaz gain, fenomenoaren orokortasuna ikusteko ere garrantzitsua izango da. Era berean, gero erregeletara itzuliko diren testuinguruaren ezaugarriak ere azaltzen hasten dira.

Ondoren, corpusaren eskuzko desanbiguazioa egiten da. Eskuz desanbiguatutako corpusa prest dagoelarik, aurretik detektatutako anbiguotasun-arazoak konpontzeko desanbiguazio-erregelak sortzen dira. Erregelak osatzeko prozesuan, 14.000 hitzeko corpus bat erabili da. Behin eta berriro probatzen dira erregelak, erroreak konponduz eta informazioa gehituz, hau da birfinduz, testuak zuzen desanbiguatuak egon arte.

Irudi honetan ikusiko dugu desanbiguatze-prozesua:

V.2 irudia Desanbiguazio-prozesua



5.4. Anbiguotasunaren neurketa

Deskribatu berri dugun anbiguotasun morfosintaktikoak, estatistikoki zer tamaina hartzen duen ikusiko dugu ondoren. Bi multzotan bereziko ditugu datuok: alde batetik anbiguotasun kategorialari dagozkion kopuruak eskainiko ditugu, eta ondoren, analizatzaile morfosintaktikoak ematen duen gaintzeko informazio guztia kontuan hartuko da emaitzak ateratzeko. Hau da, deskripzioan zehaztu diren beste hiru anbiguotasun-motak ere sartuz (morfe-ma ez-askeena, menderagailuak barne eta aditzena).

Horretarako, 14.000 testu-hitzeko corpusa hartu dugu oinarri gisa. Benetako corpus librea denez, forma estandarrez gain, hitz ezezagunak agertzen dira testuetan (EDBLn sartuta ez daudenak¹¹), baita forma estandarren aldaerak ere

¹¹ "Analizatzen ez diren hitzen erdian ingurua ez dira ezagutzen dagozkion lexikoan ez dagoelako (...). Lexikoan ez egotearen arrazoiak desberdinak izan arren, (...) askotan ezin da edo oso zaila gertatzen da lema guzti horiek lexiko orokorrean egotea, testuaren edota idazlearen erabilpen espezifikoak baitira askotan." (Alegria, 1995).

(forma dialektalak, esate baterako) (Alegria, 1995; Ezeiza, 1997). Analizatzaileak forma guztiei ematen die irtenbideren bat: analisi estandarren bidez, aldaeren analisiaren bidez eta lexikorik gabeko analisiaren bidez (Ezeiza, 1997).

V.3 taula
Anbigutasunaren neurketa

	Anb. kategoriala	Anb. Morfosintaktiko osoa
Estandarrak	%46.34	%80.09
Aldaerak	%32.89	%81.25
Lexikorik gabe	%57.95	%95.88
Batez beste	%37.80	%65.75

Taulan ikus daitekeenez, forma ez-estandarren interpretazio-kopurua erabilera estandarrena baino handiagoa da.

Anbigutasun kategorialean 20 etiketa sartzen dira: 17 orokor eta beste hiru etiketa, elipsia bezalako kasu bereziak etiketatzeko. Hori dela eta, testuan aurkitzen diren hitzen %37.80 anbigua da, hau da, hitz bakoitzak analisi-lerro bat izan beharrean bat eta erdi baino gehixeago ditu.

Anbigutasun morfosintaktiko osoa kontuan hartzen badugu, ordea, kopurua bikoiztu egiten da, hitzen %65.75a anbiguo izatera iritsiz, hau da, forma bakoitzak 2,81 interpretazio ditu. Izan ere, analizatzailearen informazio osoa dago hemen, kasua, numeroa, mugatasuna, aditzen kasuan modua, denbora, etab.

Anbigutasun kategoriala eta morfosintaktiko osoaren arteko diferentzia handi hau ez da bakarrik euskararen kasuan gertatzen. Oro har, hizkuntza eranskarietan eta flexiboetan, morfologia aberatsagoa dutenez, kategoriala ez den anbigutasun-mota hau gehiago gertatzen da, ingelesa edo gaztelania bezalako hizkuntzetan baino.

Euskaraz anbigutasun morfosintaktikoaren arazoa handia dela garbiago ikusten da beste hizkuntza batzuetako datuekin konparatzen badugu (Karlsson et al., 1995:23). Esate baterako, finlandieraz %11,2koa da. Suedieraz, hebraieraz bezala, handiagoa da, %60a bietan. Espainolak %43 ingurukoa du eta ingelesak %35ekoa¹².

¹² Zaila da beste hizkuntzetan dagoen anbigutasunarekin konparatzea, kasu bakoitzean oinarritzko etiketak erabat desberdinak erabiltzen direlako eta oinarri-testuak ere izaera desberdinekoak dira. Erabat konparagarriak izango lirakeen datuak erkatzeko, oinarri-testuak eta etiketa-sistema antzekoa erabili beharko lirakeke (Márquez, 1999).

6. ERREGELA MORFOLOGIKOAK ETA SINTAKTIKOAK

Hizketa bizian, anbiguotasun baten aurrean, hiztunak (eta hartzaileak) baditu bideak sortzen diren anbiguotasunak hausteko, hala nola, azentuazioa, testuingurua, etab. Hizketa bizian ditugun baliabide horien zeregina egitera datoz erregela hauek, eta guk hiztunok mekanikoki egiten dugun mezuen desanbiguazioa egitera.

Zer ulertzen dugu *desanbiguazio* hitzarekin? Forma batek eduki ditzakeen ulertzeko aukeren artean bat, egokia, hartzea:

"In Constraint Grammar, disambiguation does not mean "bring out all alternatives" but rather "pick the appropriate alternative(s) by discarding one or more inappropriate ones". The Constraint Grammar notion of morphological disambiguation is functionally similar to the notion "homograph separation" (...)." (Karlsson et al., 1995).

Helburu horretan erabiltzen diren desanbiguazio-erregelok gramatika batean antolatuta daude. Gramatikaren diseinuari buruzko xehetasunak hala nola erregelen sintaxiari buruzkoak, gorago aztertu ditugu. Ondoren, beraz, ez dugu gramatika bere gordinen azalduko¹³.

Honekin batera, murriztapen-erregelak gramatika-erregelen ondorio direnez, anbiguotasun-kasu bakoitzean, erregela-multzo batetik eratortzen diren gramatika-erregelen antzeko printzipioak eratorriko ditugu.

6.1. Erregelak eta printzipioak

Gramatikaren atalean 1.113 erregela daude. Horiek guztiak kontuan harturik idatzi dira printzipio teorikoak. Gehienetan erregelak orokorrak izango dira, anbiguotasun-talde osoari erreferentzia eginez. Beste batzuetan, ordea, partikularrak izango dira, anbiguotasun-talde horretako hitz konkretuei erreferentzia egiten baitiete.

Desanbiguazio-erregelen aurkezpena adibide batekin egingo dugu: printzipio nagusi bat azalduko dugu eta ondoren, printzipio teoriko horri dagozkion erregelatik bat ikusiko dugu. Erregelarekin batera, honen adibidea¹⁴ agertuko da.

¹³ (Aduriz, 2000) tesi-txostenean gramatika osoa azalduta dago.

¹⁴ Erregelen adibideak corpus errealeatik ateratakoak dira kasurik gehienetan.

Goian 5.2. puntuan ikusitako anbiguotasunaren adibide bat konpontzeko erregela jarriko dugu ondoren: *bizkor* forma, *bizkortu* aditzaren aditzoin izan daiteke, adjektibo eta adberbio. Hori tratatzen duen printzipio teorikoa hau dugu:

*Aditzoinek, perifrasieta, *edin eta *ezan (ADL1) motako aditz laguntzaileak hartzen dituzte ondoan, ezker-eskuin, esaldi-motaren arabera. Partizipioek berriz, izan eta *edun motakoak hartzen dituzte.*

Honi dagokion erregeletako bat honakoa dugu:

- SELECT (ADOIN) IF (0 ADJ-ADB) (1C ADL1);

Adibidea: azkar BIZKOR zaitezen

Erregela hau aplikatu ondoren, *bizkor* bezalako formak, alegia, anbiguotasun hori dutenak, adjektiboaren eta adberbioaren interpretazioak ezabatu ondoren, aditzoinaren analisiarekin geldituko dira.

6.2. Emaitzak

VI.1 taulak desanbiguzio kategorialaren emaitzak erakusten dizkigu. Datuok ateratzeko, probetarako eta erregelak egiteko aurretik erabili ez den 10.000 hitzetako corpusa hartu dugu oinarritzat:

VI.1 taula
Desanbiguzio kategorialaren emaitzak

	Hitzeko analisiak	Anbiguotasuna	Interpretazio zuzeneko hitzak
Sarreran	1.50	%37.80	%100
Irteeran	1.18	%14.12	%99.12

Hurrengo taulak, ordea, desanbiguzio morfosintaktiko osoaren datuak erakusten dizkigu, oinarri-corpus bera erabiliz:

VI.2 taula
Desanbiguazio morfosintaktiko osoaren emaitzak

	Hitzeko analisiak	Anbiguotasuna	Interpretazio zuzeneko hitzak
Sarreran	2.81	%65.75	%100
Irteeran	1.76	%33.28	%97.51

Datuok erakusten digute desanbiguazio-gramatikaren sendotasuna eta ahalmena testu errealak tratatzerakoan. Desanbiguazio morfosintaktikoan, ia erdiraino jaitsi da anbiguotasun-tasa: sarreran %65.75etik %33.28ra. Hau da, sarreran hitzeko 2.81 analisi egotetik 1.76 egotera. Desanbiguazio-prozesu honetan, interpretazio zuzenak %97.51etan mantendu dira.

Desanbiguazio-kategorialeko datuak are hobek dira. Anbiguotasuna, 1.50 analisi hitzeko izatetik, ia bat izatera pasa gara (1.18). Ehunekotan emanda, sarrerako anbiguotasuna %37.80koa bada, irteerakoa %14.12koan gelditzen da. Gainera, %99.12ko interpretazio zuzenak mantentzen dira.

Errore-tasa anbiguotasun kategorialean erabat onargarria dela iruditzen zaigu (0.8). Handiagoa da anbiguotasun morfosintaktiko osoa kontuan hartzen badugu. Izan ere, badakigu forma ez-estandarren agerpenak asko igotzen duela anbiguotasun-tasa eta gramatika hizkuntza estandarerako idatzia egoteak, askotan erroreak eginarazten ditu.

Bestalde, desanbiguatu gabe geratzen den ehuneko hori, neurri handi batean informazio eskasiarengatik (azpikategorizazioaren gaia) geratuko litzateke. Horri gehitu behar zaizkio morfosintaxitiki inola ere desanbiguatu ezin diren kasuak, semantikoak edo pragmatikoak direlako.

Ezin ahantz daiteke, bestetik, sarrerako anbiguotasuna egiten den deskripzio linguistikoaren baitan dagoela. Lan honen oinarri den datu-basea etengabe eguneratzen denez, askotan ez datoz bat gehitzen den anbiguotasuna eta hori desanbiguatzeko egin behar den ahalegina. Testu, deskripzio eta arazo errealekin lan egiten honek etengabeko eguneratzea dakar berarekin. Honek garbi uzten du gure lanaren ziklikotasuna eta datuetara gehiegi makurtu ezina.

7. ANALISI SINTAKTIKOA

Analisi morfosintaktikoari dagokion urratsa egin ondoren, analisi sintaktikoaren atala azalduko dugu ondokoan. Atal horrek bi pauso nagusi ditu:

lehenengoan, hitz-forma orori posible dituen funtzio-etiketa¹⁵ sintaktiko guztiak esleitzen zaizkio. Funtzio-etiketa sintaktikoak hitzei esleitzen zaizkie ezaugarri morfologikoak esleitu zaizkien modu berean. Ondorengoan, anbigutasun sintaktikoen ebazpena burutuko da. Funtzio sintaktikoak adierazteko funtzio-etiketa sintaktikoak erabiltzen dira. Eta funtzio-etiketa sintaktiko bat baino gehiago agertzen denean hitz batean, orduan anbigutasun sintaktikoaz hitz egingo da. Adibidez:

Txakurrak (@OBJ @SUBJ)

Estrategia nagusia anbigutasuna murriztea da, aurreko puntuan azaldu-tako bera alegia. Horretarako, testuinguruan oinarritutako murriztapen sintaktikoak baliatzen dira. Murriztapen-erregela sintaktikoen aplikatzearen helburua hitz bakoitza funtzio-etiketa sintaktiko bakarrarekin eta zuzenarekin uztea izango da. Hala ere, esan beharra dago ebatzi ezin daitezkeen anbigutasun sintaktikoen kasuan murriztapen-erregelek anbigutasuna bere horretan utzi behar dutela. Esaterako, ondoko esaldian letra-molde beltzez nabarmentzen ditugun hitzak desanbiguatzeke geratu beharko lirateke: "Txakurrak (@OBJ @SUBJ) egunkariak (@OBJ @SUBJ) ahoan zekartzan".

7.1. *Desanbiguatze sintaktikoa*

Erregela sintaktikoen xedea hitz-forma bakoitza funtzio-etiketa sintaktiko bakarrarekin uztea da. Hori erdiesteko erregela sintaktikoak ditugu, aurreko desanbiguatze-erregelen funtzionamendu berdina dutenak. Desberdintasuna izango da ezaugarri morfosintaktikoen artean erabaki beharrean, funtzio-etiketa sintaktikoekin lan egiten dutela. Hala ere, erregela multzo hauek, morfologikoak eta sintaktikoak, elkarrekin badute harremanik. Hain zuzen ere, desanbiguatze morfosintaktikoa burutu ondoren aplikatzen baitira murriztapen-erregela sintaktikoak.

Murriztapen-erregela sintaktikoek tratatu beharreko funtzio-etiketa sintaktikoak (Aduriz, 2000) tesi laneko eranskinean ikus daitezke. Edozein modutan, funtzio-etiketa sintaktikoek CG formalismoaren filosofia jarraitzen dute, hau da, funtzio-etiketadun dependentzia-sintaxia¹⁶ (*functionally labelled dependency syntax*) dugu oinarri. CG formalismoa jarraituz esaldian hitzek

¹⁵ Funtzio-etiketa sintaktikoek @ ikurra daramate aurretik

dituzten funtzio sintaktikoak eta beraien arteko interdependentziak adieraziko ditugu. Hala ere, analisi sintaktikoaren emaitzak ez du sintagma-egitura espliziturik, ez baitugu zehazten sintagma tipoko osagaien hierakiarik. Hori dela eta, analisi-estrategia hau azaleko sintaxiaren baitan kokatzen da (*shallow syntax* edota *partial parsing* gisa ere ezaguna da). Eta analisi hori beti hartu ahal izango da analisi sakonago bat egiteko abiapuntu eta laguntzat. Orokorrean azaleko sintaxiaren terminoa erabiltzen da ohiko *parserren* irteerako analisiak bezain osoak ez diren analisisiez aritzerakoan.

Aipatu ditugun hitzen arteko azaleko interdependentzia horiek adierazteko funtzio-etiketa sintaktikoak bi motatakoak dira: modifikatzaile edota beren buruarekiko noranzkoa adierazten dituztenak, eta nagusiak. Modifikatzaile-etiketek beren burua zein noranzkotan dagoen adierazten dute. Adibidez, @IZLG> etiketa izango dugu bere eskuinetara dagoen izen bat modifikatzen duten izenlagunentzat, eta etiketa honek adierazten du modifikatzen duen burua eskuinetara dagoela (*mendiko* (@IZLG>) *tontorretik* (@ADLG)). Funtzio sintaktiko nagusiek, hots, buruei dagozkien etiketek, perpauseko osagai tipikoak errepresentatzen dituzte, hala nola: subjektua, objektua, zehar objektua, etab. Oro har, funtzio hauek gramatika tradizionaletik oso gertu daudela esan genezake. Funtzio-etiketa sintaktikoei buruzko kontsiderazio orokor horien ondorik, funtzio-etiketa sintaktikoak lau multzotan bil daitezkeela esan beharra dago: funtzio-etiketa sintaktiko nagusiak, izen-sintagma barruko dependentzia sintaktikoak adierazteko funtzio-etiketak, aditzen funtzio sintaktikoak, eta, azkenik bestelako funtzio sintaktikoak.

Gorago ikusi dugun bezala, erregela morfologiko eta sintaktikoen arteko harreman estua kontuan izanik, funtsezkoa izango da desanbiguatze morfologikoan eginiko lana ondorengo urratsean funtzio sintaktiko zuzena hautatu ahal izateko.

Ondoren aipatuko duguna, anbiguotasun sintaktikoaren arazo bat da: absolutibo singularrak, pluralak eta mugagabeak, subjektu, objektu eta predikatibo funtzioak izan ditzakete. Anbiguotasun-arazo honen aurrean desanbiguatze-erregela bat baino gehiago sortu da. Adibidez:

- REMOVE (@OBJ)(OC ABS)(NOT *-1 NORK)*-1 (NR_HU)) (1 (PUNT_PUNT));
- # Adibidea: Eta bertan agortu zen haren ODOL-JARIOA.

¹⁶ Azterketa gramatikaletan tradizio luzea du dependentzia sintaktikoaren kontzeptuak aro grekolinotik. Hurbilagoko formalizazioak teoria sintaktikoan aipatzerakoan, Tésniere (1959), Hays (1964) eta Mel'cuk (1988) aipa daitezke, besteak beste, dependentzia-sintaxiaren suspertzaile gisa arlo teorikoan.

Erregela hau horrela parafrasea daiteke: *Forma anbigua ez da objektua izango, esaldi horretan nor saileko aditza egonik (NR_HU), nor motako laguntzailerik ez badago (NORK) eta forma anbiguoaren eskuinetara puntua badago, hau da, esaldia bertan bukatzen bada.*

7.2. Oinarrizko egitura sintaktikoen ezagutzea

Lehenago aipatu dugun azaleko analisitik abiatuz, areago jo dugu zenbait oinarrizko egitura sintaktiko edota zati (sintagmak eta aditz-kateak) ezagutzeko lana burutuz. Zati¹⁷ horiek funtzio sintaktikoen etiketek adierazten dituzten harreman sintaktikoei esker ezagutuko dira. Harreman sintaktiko horiek inplizituak dira, eta oinarrizko egitura sintaktiko horiek ezagutzerakotan agerian uzten ditugu.

Egitura sintagmatikorik adierazita ez egon arren, deskribapen linguistiko horretan inplizituki daude adieraziak elementuen arteko harremanak, eta informazio horretan oinarrituz aditz-kateak eta sintagmak atzeman ditzakegu. Horretarako, hitz-forma ororen anbiguotasun morfosintaktikoa zein sintaktikoa ebatzita egotea komeni da, zatien osaketa burutu ahal izateko. Horregatik, murriztapen sintaktikoen aplikazioaren ondorik geratzen diren etiketa sintaktikoetan oinarritzen gara. Batez ere, etiketa sintaktiko nagusi eta modifikatzaileen arteko bereizketan dago gakoa urrats honi ekiterakoan. Hori dela eta, funtzio sintaktiko nagusi eta modifikatzaileei erreparatuz dagoen anbiguotasuna txikia izatea komeni da.

Baldintza horiek kontuan izanda, lehendabizi, aditz-kateen osaketarako erregelak definitu ditugu, eta aditz-kateak bereiztu ondorik, hauen inguruan dauden sintagmak ezagutu ditugu batik bat (Arriola et al., 1999; Arriola, 2000). Aditz-kateak definitzeko aditzen funtzio sintaktikoak eta aditz-kateko partetzat hartu ditugun modalitatea eta egiatasuna adierazten duten partikulak baliatu ditugu. Elementu horietan oinarrituta, aditz-kate jarraiak eta gehienez ere hiru osagai dituzten aditz-kate ezjarraiak ezagutu ditugu.

Sintagmei dagokienean, sintagma-etiketa esleitzeko arau nagusia honako hau da: elementuak lotzen joatea harik eta funtzio sintaktiko nagusidun bat

¹⁷ Lanean bereizi ditugun zatiak edota *chunk*ak sintagmak eta aditz-kateak dira. Oro har, azaleko sintaxiko lanetan esaldia *chunk*etan banatzen dela esaten da. *Chunk* terminoa Abney (1997)-ren arabera honela definitzen da: gune edo buru baten inguruan osatzen den zentzu sintaktikoa duten elementuen segida.

aurkitu arte. Hau da, modifikatzaileek ezin dute beraiek bakarrik sintagmarik osatu; modifikatzaile direnez, beti beste elementuren bati eragiten diote. Modifikatua den elementuari modifikatzailearen burua ere esaten zaio, eta funtzio sintaktiko nagusidun etiketa duenez, sintagma bukaera etiketa edota elementu bakarreko sintagmaren etiketa har dezakete.

Aditz-kateekin zein sintagmekin, zati horiek ezagutu ahal izateko, horien hasierak, bukaerak eta elementu bakarrekoak ezagutzeko etiketak¹⁸ baliatu ditugu. Adibidez:

VII.1 Irudia

Zatiak ezagutu ahal izateko etiketak dituen adibidea

```
"<Haurgintzaren>" %SIH
    "haurgintza" IZE ARR DEK GEN MG AORG HAS_MAI @IZLG>
    "haurgintza" IZE ARR DEK GEN NUMS MUGM AORG HAS_MAI @IZLG>
"<nekeak>" %SIB
    "neke" IZE ARR DEK ERG NUMS MUGM @SUBJ
"<ez>" %ADIKATHAS
    "ez" ADB ADO @ADLG
"<du>"
    "*edun" ADL A1 NOR_NORK NR_HU NK_HU @+JADLAG
"<abaildu>" %ADIKATBU
    "abail" ADI SIN ASP PART DA-DU NOTDEK @-JADNAG
"<$.>"
    PUNT_PUNT
```

Goiko adibide horretan ezarri diren zatiak ezagutzeko etiketei esker bi oinarritzko zati ezagutu ahal ditugu: *Haurgintzaren nekeak* eta *ez du abaildu*.

¹⁸ Azaleko analisietan azaltzen diren zatiak ezagutzeko etiketen esanahia: %ADIKATHAS: osagai bat baino gehiagoko aditz-kate bateko lehenengo elementuari esleitzen diogun etiketa; %ADIKATBU: osagai bat baino gehiagoko aditz-kate bateko azken elementuari esleitzen diogun etiketa; %ADIKAT: elementu batez osaturiko aditz-katea; %ADIKATETEN: aditz-kate ezjarrai baten bigarren osagaia; %ADIKATETENBU: aditz-kate ezjarrai baten azken elementua; %SIH: sintagma-hasiera; %SIB: sintagma-bukaera eta %SINT: hitz bakarreko sintagma.

8. APLIKAZIOAK: EUSKAL HIZTEGIKO ADIBIDEEN AZTERKETA

Landu dugun azaleko sintaxia aplikatzerakoan Euskal Hiztegiko (Euskal Hiztegia, EH) aditzen adibideetan aditz bakoitzak inguruan dituen sintagmak eta aditz-kateak bereizi nahi ditugu. Baina, horiek aditzaren argumentu diren ala ez linguistak erabaki beharko du. Aplikazio honek bi motibazio nagusi izan ditu: (1) existitzen diren baliabide lexikalen berrerabilpena, eta (2) aditzen argumentu-egitura zehazten laguntzeko bideak eskaintzea, eta ahal den heinean azaleko argumentu-egitura erdiestea analizatzaile sintaktikoetan integratzeko. Adibideen autoritatea kontuan izanik, uste dugu hauetan gordetzen den informazioa baliagarria izan daitekeela oinarritzko informazioa erdiesteko edota corpusetan aurrerantzean azterketa sakonagoak gidatzeko.

Azter zitezkeen adibideen artean, aditzena aukeratzearen arrazoi nagusiak honako hauek dira:

- Eskura daitekeen informazioari erreparatuz: argumentu-egituraren berri jaso nahi dugu, informazio hau oso inportantea izango baita hurrengo aplikazioetarako, bereziki analisi sintaktikorako.
- Analisi zuzenduagoa egiteko aukera: hiztegian aditzei egokitzen zaien informazioen artean, zein tipotako laguntzaile-mota hartzen duen esaten digun informazioa dagoelako (da, du, da-du, dio, ...) eta, honetaz gain, aditza bertan dagoelako segurantza.
- Corpus orokorrarekin alderatuz: arestian esan bezala, adibideak corpus berezitu gisa har ditzakegu corpusetik atereak direlako, eta maiztasun txikiko aditzak aztertu nahi ditugunean corpus handietara jo beharrik gabe, adibideetan bertan aurki genezake aditz hauei buruzko oinarritzko informazioa. Eta, gainera, aukeratuak izateak corpus orokorrekoek ez duten autoritatea ematen die, nolabait. Esan beharra dago, ordea, corpusetan oinarritzeak maiztasuna kontuan hartzeko ematen duen aukera ezin izango dugula baliatu. Corpusek hiztegiko adibideek ez bezala, estatistika baliatzeko aukera ematen dute. Hala ere, ez da kontua bakarrik estatistikoki esanguratsuak diren esaldien azterketa egitea. Esaldi guztiak dira interesgarri aditz baten portaera aztertzeko, ez bakarrik maizen gertatzen direnak. Bestalde, jakina da aditzek portaera desberdina izan dezaketela domeinuaren arabera (Jensen, 1991; Basili et al., 1993).

Hiztegiko adibideen aldeko arrazoi horiek kontuan izanik, azterketaren abiapuntua da hiztegiko adibideak lagungarri gertatuko direla aditzen oinarritzko azpikategorizaziorako. Hala ere, erabilera jatorraren gordailuaren

aurrean egon arren, ez dakigu zenbateraino izango garen kapaz gure azaleko sintaxiaren bidez informazio hori guztia jasotzeko.

Azaleko sintaxia garatzerakoan eta adibideen gainean aplikatzerakoan, azterketaren arrakastaren alde izan ditugun ezaugarrien artean, honako hauek azpimarratuko genituzke:


- %98,65 ez da anbiguo aditz-kateen eta sintagmen osaketarako darabilgun irizpidearekiko. Edota, bestela esanda, %1,35ean gertatzen da nagusi/modifikatzaile anbiguotasuna.
- Esaldien luzera (6,44 hitz ditugu esaldiko), beraz, esaldi ezkonplexuak espero ditugu.
- Eta hiztegian azaltzen den laguntzaile-mota txertatu dugula aditzen analisi morfologikoan.

Gogora dezagun aplikazioaren helburu nagusia, aztertzen ari garen adibideetako aditz-sarrereren inguruan dauden sintagmak eta aditz-kateak aditzen azterketarako baliagarri irizten diegun ezaugarriekin jasotzea dela. Beraz, zati horiei dagozkien etiketak gaizki esleituta azaltzen diren adibideak baztertuak izango dira. Hau dela eta, 13.089 adibidetatik (2.929 aditzi dagozkienak), 11.616ri (2.833 aditzi dagozkienak) aplikatuko zaizkie estandarizatzeko urratsa (hots, *Standar Generalized Markup Language* estandarren arabera moldatuko dira adibideak) eta ondorengo galdeketa-sistemarena. Azken urrats hauetatik at geratzen diren adibideak (1.473) eskuz aztertu beharko dira.

Adibideetarik jasoko ditugun ezaugarriak, gain-gainek bada ere, ikusi ondorik eta adibideak multzokatzeko irizpideak aurkeztuko ditugu. Lehenengo erabakia izan zen, adibideen analisiak, testu huts direnak, egitura aberatsago batera egokitzeko xedearekin zuhaitz-egitura batean gordetzea. Hau da, adibideak eta adibideen analisiaren emaitzetatik interesatzen zaigun informazioa zuhaitz modura errepresentatu ditugu. Eta, zuhaitz horren antolamendua definitzeko adibide-zuhaitzaren ezaugarri-egitura definitu dugu (ikus Arriola et al., 1999; Arriola, 2000). Bestalde, adibideak multzokatzeko irizpide nagusia adiera-ikurrarena izango dugu (adiera-multzoa, ñabardura, etab. barne). Hain zuzen ere, ikur hauen arabera laguntzaile-mota (zuhaitzean "azpikategoria" gisa azaltzen dena) aldatu egin baitaiteke. Ikus dezagun grafikoki, aditzen adibideak errerepresentatzeko zuhaitzean nola antolatzen ditugun adibideok:

VIII.1 irudia

Adibideen antolamendua erakusten duen zuhaitza



Adibideen antolamendu orokor horri eta SGMLratze urratsari esker, adibideen analisisen corpora, testu huts dena, egitura aberatsago batera egokitu dugu. Hartara, bertan jasotzen den informazioa modu errazago batez ustiatzeko.

Ustiapenaren emaitza gisa, aditz bakoitzeko azaleko patroien multzoa jaso dugu automatikoki, eta multzo horietako bakoitzean ditugun aditzen adibideak identifikatzeko gako bat definitu dugu. Ikus dezagun adibide baten bidez, gako horretan jasotzen den informazio-mota. Adibidez: *bultzatu-A0.-DU-2*:

- aditz-partizipioa: aztergai dugun aditzaren partizipioa. Adib. *bultzatu*.
- adiera-ikurra: zein adiera, azpiadiera edota ñabardurari dagozkion aditz horren adibideak. Adib. *A0*
- laguntzaile-mota: hiztegian duen laguntzaile-mota: DA, DU, DIO, ZAIO, DA-DU. Adib. *DU*
- adibide-zenbakia: aditz horren zenbatgarren adibidea den. Adib. *2*.

Adibidez hona hemen *bultzatu* aditzerako jaso ditugun azaleko patroiak:

bultzatu, bultza, bultzatzen.

bultzatu-A0.-DU-1	DU.@SUBJ_ERG-@OBJ_ABS.
bultzatu-A0.-DU-2	DU.@OBJ_ABS.MP+
bultzatu-A0.-DU-3	DU.@ADLG.
bultzatu-A0.-DU-4	DU.@SUBJ_ABS-@OBJ_ABS @PRED_ABS.MP-
bultzatu-A0.-DU-5	DU.@OBJ_ABS-@OBJ_ABS-@ADLG_ABZ-@OBJ_ABS-@OBJ_ABS-@ADLG.MP+
bultzatu-N1.-DU-1	DU.@SUBJ_ERG.MP+
bultzatu-N1.-DU-2	DU.@OBJ_ABS.
bultzatu-N1.-DU-3	DU.@SUBJ_ERG-@ADLG_ALA.
bultzatu-N1.-DU-4	DU.@SUBJ_ERG-@OBJ_ABS.MP-MP+
bultzatu-N1.-DU-5	DU.@ADLG_ABZ-@OBJ_ABS.
bultzatu-N1.-DU-6	DU.@OBJ_ABS.

Aditz bakoitzerako ematen dugun azaleko patroi horretan lehenbizi hiztegian duen laguntzaile-mota azaltzen da, eta jarraian funtzio sintaktiko/kasu bikoteak¹⁹; eta adibide horretan bestelako aditz-katerik azaltzen baldin bada, MP ikurraren bidez adierazten dugu (+ mendekoa / - ez-mendekoa izan den ala ez).

Aditzen sailkapenean eman ditugun azaleko patroi horien ebaluazioa egitea oso garrantzitsua da patroi horien fidagarritasuna neurtzeko. Horretarako, ausaz hartutako lagin bateko aditz bakarreko adibideen gaineko patroi bakoitzeko aztertu zen ea funtzio sintaktiko/kasuei erreparatuz, zenbat kasutan asmatzen zen eta zenbatetan huts egiten zen patroia osatzen duen funtzio sintaktiko/kasua. Baina, horretaz gain eskuz analizatutako laginean agertzen ez diren, eta analisi automatikoaren bidez markatzen diren funtzio sintaktikoen berri ere ematen dugu. Ebaluazioaren emaitzak, sailkatze automatikoa eta eskuzkoa erkatzearen ondorio dira. Eta hastapeneko ebaluatze horretan erdietsitako emaitza zehatzak (Arriola, 2000) lagin txiki bati dagozkionak direnez ezin dira orokortu, baina joera gisa ezaugarri hauek azpimarratuko genituzke:

- Oro har, ikus daiteke patroian subjektuak edo objektuak bakarrik hartzen duenean parte, asmatze-tasa txikiagoa izaten dela beste funtzio batekin konbinatzen direnean baino.

¹⁹ Funtzio sintaktikoak eta kasuak azpimarra batez lotzen dira. Eta funtzio sintaktiko/kasu bikoteak bereizteko marratxo baliatu dugu.

- Zehar objektuak parte hartzen duen patroiak fidagarriagoak dira.

Edozein modutan ere, etorkizunera begira ebaluazio-sistema sendoagoa lantzearen premia nabari geratu da.

9. ADITZ-KATEEN ETA SINTAGMEN OSAKETAREN EBALUAZIOA

Azaleko sintaxiaren atala aplikatzerakoan, aditzen sailkapenerako urrats oso garrantzitsua eman dugu. Hau da, sarrerako aditz-katearen inguruan dauden sintagma eta bestelako aditz-kateak esplizituki adierazi ditugu zatiak markatzeko etiketen bidez. Urrats horren ondoren, ditugun adibide guztietatik (13.089), 400 adibideko lagina osatu dugu ausaz. Lagin honen gainean eskuzko azterketa burutu dugu bi ezaugarri erraparatuz nagusiki:

- 1) Esleituriko aditz-kate nahiz sintagma-kate etiketak ongi esleituta dauden.
- 2) Aditz-kate nahiz sintagma etiketa behar duen elementuren bat etiketarik gabe dagoen. Kate-etiketa behar duten elementuak aurreko puntuetan ikusi ditugun sintagma eta aditz-kateak osatzeko parte hartzen duten elementuak dira. Beraz, bigarren puntu honetan etiketatzeke azaltzen diren zenbait elementu ez ditugu aintzat hartuko ebaluaziorako. Hau da, elementu horiek ezin dira ebaluatu, ez baitugu elementu horiek zati gisa etiketatzeke erregularik garatu. Beste batzuen artean, honako elementu hauek geratuko lirатеke garaturiko etiketatze-erregelatik kanpo: lokailuak, juntagailuak, erlatibozkoak, hitz anitzeko unitate lexikalak, etab. Horrez gain, argi gera bedi ezagutzen ditugun kateak, definitu ditugun aditz-kate ezjarriak salbu, kate jarriak izango direla.

Lehenengo puntuari dagokionez, 84 adibide baztertu behar ditugu horietan sintagma edota aditz-kateren bat gaizki osatuak baitaude. Beraz, %79 ongi etiketaturik daudela esan genezake. Gaizki etiketatze horren arrazoi nagusiak, honako hauek dira:

- Adibideetan geratzen den anbiguotasuna. Zatiak markatzeko estrategia funtzio sintaktikoetan oinarritzen denez, funtzio sintaktikoen anbiguotasuna izango dugu arazo-iturri. Baina, anbiguotasun guztiek ez dute eraginik zatiak markatzeko urratsean. Anbiguotasun kaltegarria izango dugu hitz batean funtzio sintaktiko nagusi bat eta funtzio sintaktiko ez-nagusi bat ditugunean. Lehenago aipatu dugunez, anbiguotasun hori oso txikia da, ehuneko bira ere ez baita iristen.

- Desanbiguatzeko erroak. Atal honetan, funtzio sintaktiko desegokiak hautatzerakoan suertatzen direnak hartuko ditugu kontuan. Hauek baitira zatiak osatzeko urratsari eragiten diotenak.
- Hitz ezezagunen arazoa. Hitz ezezagunak ditugu EDBLn sarrerarik ez duten hitzak. Hitz hauek ere analizatu egiten dira lexikorik gabeko lematizazioari esker. Kontua da, honelakoetan analisi zuzena asmatzea zailago suertatzen dela.
- Sintagma koordinatuak. Hauetarako baditugu zenbait erregela, baina gehienetan halako egituretan akatsak aurkitzen ditugu. Beraz, erregela horiek birfindu eta hobetu egin beharko dira.
- Postposizio-egiturak. Zenbait postposizio landuak baditugu ere, atal hau gehiago osatu beharra dugu, horietako asko ez baitugu ezagutzen, eta oso garrantzitsua izan daitekeelakoan baikaude aditzen portaera aztertzeke.
- Deskribapen sintaktikorako etiketa-multzoan aurreikusteke dauden egiturak. Esate baterako, *-ik ...-ena (Arbolarik ederrena ...)* moduko egiturak harrapatzeke deskribapen sintaktikorako baliau dugun etiketa-multzoan aldaketak egin beharko lirateke.

Lotzeke geratzen diren elementuak batez ere postposizio-egiturak, sintagma koordinatuak eta aditz-kate ezjarraituak ditugu. Hauek atzemateke baditugu zenbait erregela, baina azaldu zaizkigun kasu hauek harrapatzeke hobetu egin beharko lirateke. Dena dela, gure xedea batez ere kate jarraituak ezagutzean datza.

10. ONDORIOAK

Azaleko sintaxiaren bidetik, euskararen murriztapen-gramatika garatu dugu, testu errealeko hitzen desanbiguazioa lortzeko. Gramatika horren ekarpen nagusiak anbiguotasun morfosintaktikoaren azterketa sistematikoa eta desanbiguazio morfosintaktikorako zein sintaktikorako erregelen zehaztapena dira.

Horrez gain, aditzen sailkapenak erdiesten laguntzeko, azaleko sintaxia aplikatu dugu EHko aditzen adibideen gainean, aditz-kateak eta hauen inguruan dauden sintagmak ezagutzuz. Azaleko analisi horretatik analisi sakonago batera jauzia egiteko azpikategorizazioaren informazioa ezinbestekotzat jotzen dugu, besteak beste.

Nolabait, "gurpil zoro" batean gaudela dirudi. Hau da, batetik, azpikategorizazioaren informazioa erdiesteko sintaxiaren alorra sendotu beharra ikusten dugu, eta bestetik, hori hobetzeko ezinbestekotzat jotzen dugu azpikategorizazioaren informazioa.

Bestalde, aurreko atalean aurkezturiko arazo horiekin topo egin arren, eta, lortu dugun informazioa azalekoa izan arren, uste dugu informazio hori lagungarri izan daitekeela bai analisi sintaktikoan aurrera egiteko bai aditzen azterketan aurrera egiteko. Horretarako, lorturiko informazioa lexikoian integratu beharko litzateke gure tresna sintaktikoetan aplikatu ahal izateko.

BIBLIOGRAFIA

ABNEY S. 1997. *Corpus-Based Methods in Language and Speech Processing*, Steve Young and Gerrit Bloothoof (Eds.).

ADURIZ I. 2000. *EUSMG: Morfologiatik syntaxira Murriztapen Gramatika erabiliz*. Doktoretza-tesia, Euskal Filologia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea.

ADURIZ I., ALDEZABAL I., ALEGRIA I., ARTOLA X., EZEIZA N., URIZAR R. 1996. "EUSLEM: A lemmatiser/tagger for Basque". *Proceedings of EURALEX '96*. Göteborg, Sweden, Part 1, 17-26.

ADURIZ I., ALDEZABAL I., ANSA O., ARTOLA X., DÍAZ DE ILARRAZA A., INSAUSTI J. M. 1998. "EDBL: a Multi-Purposed Lexical Support for the Treatment of Basque". *Proceedings of the First International Conference on Language Resources and Evaluation (LREC'98)*, Granada.

AGIRRE E., ARREGI X., ARRIOLA J. M., ARTOLA X., INSAUSTI J. 1994. *Euskararen Datu-Base Lexikala (EDBL)*. Barne-txostena UPV/ EHU / LSI / TR8-94.

ALEGRIA I. 1995. *Euskal morfologiaren tratamendu automatikorako tresnak*. Doktoretza-tesia, Lengoaia eta Sistema Informatikoak Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea.

ALEGRIA I., ARTOLA X., SARASOLA K. 1997. "Hizkuntzaren tratamendu automatikoa". *Jakin* 102, 61-82.

ARRIOLA J. M. 2000. *Euskal hiztegia-ren azterketa eta egituratzea eza-gutza lexikalaren eskuratze automatikoari begira*. Doktoretza-tesia, Euskal Filologia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea.

ARRIOLA J.M., ARTOLA X., MARITXALAR A., SOROA A. 1999. "A Methodology for the Analysis of Verb Usage Examples in a Context of Lexical Knowledge Acquisition from Dictionary Entries". *Proceedings of the LINC*. 1-7. Bergen, Norvegia.

BASILII R., PAZIENZA M.T., VELARDI P. 1993. Acquisition of Selectional Patterns in Sublanguages. *Machine Translation*, vol. 8, 175-201.

BLACK E., GARSIDE R., LEECH G. 1993. *Statistically-Driven Computer Grammars of English: The IBM / Lancaster Approach*. Black, Garside & Leech (eds.), Rodopi, Amsterdam.

BRILL E. eta WU J. 1998. Classifier Combination for Improved Lexical Disambiguation. *COLING-ACL'98*, Montreal.

EZEIZA N. 1997. *EUSLEM, euskararako lematizatzaile/etiketatzaile baten diseinua eta implementazioa*. Tesina-txostena, Lengoaia eta Sistema Informatikoak Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea.

HAYS D. C. 1964. "Dependency theory: a formalism and some observations". *Language* 40, 511-525.

JENSEN K. 1991. *A Broad-Coverage Natural Language Analysis System*, in M. Tomita (ed.), *Current Issues in Parsing Technology*, Kluwer.

KAPLAN R.M. eta NEWMAN P.S. 1997. Lexical Resource Reconciliation in the Xerox Linguistic Environment. *Proc. of a Workshop on Computational Environments for Grammar Development and Linguistic Engineering*, Madrid.

KARLSSON F., VOUTILAINEN A., HEIKKILA J., ANTTILA A. 1995. *Constraint Grammar: A Language-independent System for Parsing Unrestricted Text*. Mouton de Gruyter, Berlin.

KOSKENNIEMI K. 1983. *Two-level Morphology: A general Computational Model for Word-Form Recognition and Production*. Phd. thesis, University of Helsinki.

MÀRQUEZ L. 1999. *Part-of-Speech Tagging: A Machine Learning Approach based on Decision Trees*. Doktoretza-tesia, Departament de Llenguatges i Sistemes Informàtics, Universitat Politècnica de Catalunya.

MEL'CUK I. A. 1988. *Dependency Syntax: Theory and Practice*. State University of New York Press.

MICHELENA L. 1972. "De la ambigüedad sintáctica". *Revista Española de Lingüística*. 1972-2, Madrid, 237-247.

SÁNCHEZ F. 1997. *Análisis morfosintáctico y desanbiguación en castellano*. Doktoretza-tesia, Departamento de Lingüística, Lenguas Modernas, Lógica y Filosofía de la Ciencia. Universidad Autónoma de Madrid.

TESNIÈRE, L. 1959/1966. *Eléments de Syntaxe Structurale*, 2. arg. Errebisatua, Paris, Klincksieck.

URKIA M. eta SAGARNA A. 1991. "Terminología y Lexicografía Asistida por Ordenador. La experiencia de UZEI". *Actas del VII congreso de la SPLN*. Donostia. (Urkia, 1998).

URKIA M. 1997. *Euskal Morfologiaren Tratamendu Automatikorantz*. Doktoretza-tesia, Euskal Filologia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea.

VOUTILAINEN A. 1994. *Designing a Parsing Grammar*. Publications of the Department of General Linguistics, 22. University of Helsinki.

EUSKAL ADITZ MAILEGATUEN ERREGIMENA: HURBILKETA

X. Alberdi Larizgoitia

1. SARRERA

Artikulu honen helburu nagusia euskal aditz mailegatuen erregimenaren inguruko hipotesi edo uste bat gezurtatzea da. Nahiko hedaturik dagoen uste horren arabera, oro har, erdal jatorriko aditzak *du* aditz gisa mailegatzeko ditugu euskaraz, eta horren ondorioz gero eta gehiago dira euskal aditz inergatiboak (argumentu bakarra izan arren *du* laguntzailea eskatzen dutenak, hala nola *dudatu, erregutu, funtzionatu...*).

Bigarren helburua honako galdera honi erantzutea da: abiaburuko hipotesi hori –inergatiboen aldeko erabateko joera aldeztu duena– aldeztu edo gezurtatuta geratzen bada, zein dira albo-erdaretatik aditzak mailegatzeko hitz euskaldunak baliatzen dituen estrategia edo jokaera nagusiak? Alegia, ba al dago nolabaiteko indar edo irizpide gidaririk euskarazko aditz mailegatuen laguntzailea (*da, du*) hautatzerakoan?

Metodologiari dagokionez, Hiztegi Batuko aditz mailegatuak –ez guztiz guztiak, hala ere, ezpada etimologia agerikoa dutenak– hartu ditut oinarritzat. Gero, datu horiek beste hiztegi eta corpus batzuetako adibide eta emaitzekin osatu ditut (Sarasolaren *Euskal Hiztegia*, Euskaltzaindiaren *Orotariko Euskal Hiztegiaren Testu Corpua*, *Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa*). Hala ere, leku faltaz adibide gutxi eskaini ditut laburpen honetan.

Ikuspegi teorikoari dagokionez, alde batetik ezinbestekoa zen erdal aditzen sailkapena –bereziki inakusatibo eta inergatiboena– begien aurrean izatea. Horretarako, Mendikoetxea-ren (1999) azterketa hartu dut oinarri; hala

ere, espazio faltaz, ez dut hemen eskaini ikerlan horren laburpenik. Beste alde batetik, horrekin batera Levin eta Rappaport-en (1995) lana ere izan dut gidari, haien ikerketa ezinbestekoa baita inakusatibotasunaren inguruko edozein hurbilketatarako.

Artikulu honetan ikerlan zabalago baten muina-edo aurkituko du irakurleak. Adibide franko eta atal batzuk kendu behar izan ditudan arren, esperantza dut laburpen hau bere horretan ulergarri gertatuko dela irakurlearentzat.

2. INAKUSATIBOTASUNA ETA EUSKAL ADITZEN TIPOLOGIA

Aditzen tipologia edo sailkapen bat baino gehiago erabili izan dira hizkuntzalaritzan, baina atal honetan batik bat sintaxiaren eremuko ikerketetan baliatu izan den eta finkatuz joan den sailkapen jakin bati buruz arituko gara. Sailkapen horretako termino batzuk (iragankorra, iragangaitza, etab.) tradizio gramatikal zaharrekoak dira, beste batzuk (inakusatiboa, inergatiboa, etab.), ostera, gramatika sortzailetik datoz¹. Funtsean, sailkapen berria ohiko tipologiaren bikoiztasuna (iragankorrek/iragangaitzak) fintzera eta zehaztera dator.

Atal honetan aditz-sail bakoitzaren definizio erabilgarri bat eskaintzen saiatuko gara.

IRAGANKORRAK

Bi argumentu dituztenak baino ez ditugu aditz iragankortzat hartuko (*irakin* edo *iraun* modukoak bazter utziaz, beraz); eta zehatzago mintzatuz (Gràcia, 2000: 8), osagarri zuzenaren funtzio sintaktikoa duen izen-sintagma bat gobernatzen dutenak joko ditugu iragankortzat. Euskaraz, aditz iragankorrek kasu absolutiboa ezartzen dio bere objektuari eta ergatiboa bere subjektuari, eta objektuak A(ditza)ren ahizpa den adabegian sortua izan behar du. Aditz iragankorren artean sailkatuko ditugu, orobat, 'erabilera absolutua' zilegi dutenak (*jan, edan, ikasi, estudiantu...*), alegia, ageriko objekturik-objektu jakin edo prototipikorik- gabeko egiturak onartzen dituztenak (*Peruk ganez ikasten du*). Beraz, hauen modukoak hartuko ditugu iragankortzat: *erail, esan, maitatu, kezkatu, ikasi, estudiantu...*

¹ Ik. Gràcia et alii (2000: 8).

INERGATIBOAK

Deitura hau aditz iragangaitzen azpisail bat izendatzeko erabiltzen da, eta zehazki kanpoko argumentua (gehienetan agentea edo esperimantatzailea) duten iragangaitzak dira. Aditz inergatiboen argumentu bakarra subjektu sintaktikoa eta subjektu nozionala da aldi berean. Gehienetan jarduerak edo prozesuak adierazten dituzte eta agentedunak izan ohi dira. Euskaraz –terminologiaren desegokitasuna gorabehera– honako hauek ditugu inergatiboak: beren subjektuari kasu ergatiboa ezartzen dioten iragangaitzak (*irakin, irautn, bidaiatu, dudatu, alde egin...*).

INAKUSATIBOAK / ERGATIBOAK

Inakusatiboak honako hauek dira: subjektu gisa daukaten argumentu bakarra barneko argumentuaren posizioan sortua dutenak; bestela esan, kanpoko argumenturik ez duten aditz iragangaitzak. Aditz inakusatiboen azaleko subjektua subjektu eratorria da, objektuaren posiziotik etorria: barneko argumentua da, beraz. Subjektu sintaktikoaren eginkizuna betetzen duen argumentua objektu nozionala da maila semantikoan. Euskaraz aditz inakusatibok kasu absolutiboa ezartzen diote beren subjektuari.

Puntu honetara iritsita, terminologiaren inguruko ohar bat egin beharrean gaude. Hizkuntzalari askoren lanetan (Perlmutter, 1978; Levin eta Rappaport, 1995...) ‘inergatibo’/‘inakusatibo’ deiturak erabiltzen dira iragangaitzen bi motak izendatzeko. Beste autore batzuek (Burzio, 1981 eta 1986) ‘inergatibo’ /‘ergatibo’ terminoak baliatzen dituzte aurkaritza bera aurkezteko; hau da, ‘inakusatibo’ terminoaren ordez ‘ergatibo’ erabiltzen dute. Baten batzuek (Campos, 1999; de Miguel, 1992), azkenik, ‘intrantsitibo’/‘inakusatibo’ bikotea darabilte aditz iragangaitzen bi azpisaili deitzeko; alegia, ‘inergatibo’ terminoaren ordez ‘intrantsitibo’ (edo ‘intrantsitibo garbi’) izendapena nahiago dute.

Lan honetan oro har ‘inergatibo’/‘inakusatibo’ deiturez baliatu gara iragangaitz-mota nagusi biak izendatzeko. Hala ere, hirugarren atalean ‘inakusatibo’ terminoa zentzu murriztuago batean erabiliko dugu; alegia, ‘inakusatibo garbiak’/‘ergatiboak’ termino-bikoteaz baliatuko gara inakusatiboen artean bereizkuntza egiteko: horrela, aldaera iragankorra dutenei (*apurtu da/du, sartu da/du, normalizatu da/du...*) ‘ergatiboak’ deituko diegu, eta halako alternantziarik ez dutenei (*jaio da/*du, erori da/*du, egon da/*du, existitu da/*du...*) ‘inakusatibo garbiak’.

² Gràcia et alii (2000) lanean ‘inakusatibo’ (*egon, etorri...*) eta ‘ergatibo’ (*sartu, jarri...*) termino soilak proposatzen dira bi azpisailak bereizteko.

(1) Aditz inakusatibo ‘garbiak’: a. erori (<i>da/*du</i>) b. jaio (<i>da/*du</i>) c. egon (<i>da/*du</i>) d. heldu (<i>da/*du</i>) e. igo (<i>da/*du</i>)	(2) Aditz ergatiboak: a. sartu (<i>da/du</i>) b. apurtu (<i>da/du</i>) c. bainatu (<i>da/du</i>) d. ireki (<i>da/du</i>) e. hedatu (<i>da/du</i>)
--	--

3. EUSKAL ADITZ MAILEGATUEN ERREGIMENA: ERDAL ADITZEN TRATAERA

Maileguzko euskal aditzak sailkatzean irizpide formaletik abiatuko gara. Gauzak horrela, *Hiztegi Batua*-n bezala, hiru aditz-mota hauek hartuko ditugu abiapuntutzat: a) *du* aditzak; b) *da/du* aditzak; c) *da* aditzak.

Bestalde, Mendikoetxeak (1999) eta Levin eta Rappaport-ek (1995) erdal egitura inakusatiboez eskaini duten ikuspegi teorikoaz baliatuko gara erkaketak egiteko eta azalpenak emateko.

3.1. *DU* erregimena soilik duten aditz mailegatuak (a. *adoratu, bisitatu...*; b. *estudiatu, eskribitu...*; c. *abdikatu, abortatu...*).

Azpiatal honetan *du* erregimena soilik duten aditz mailegatuak aztertuko ditugu. Gorago azaldu den moduan, alde batetik, *du* motako aditz guztiak ez dira iragankorrak; bestetik, azpiatal honetan iragankorrak diren aditz batzuk falta dira, *da/du* alternantzia onartzen dutenak, hain zuzen. Gauzak horrela, azpiatal honetako aditzak hiru azpisailetan banatu ditugu:

- a) *Du* erregimena soilik duten iragankorrak: *adoratu, bisitatu, fabrikatu, estimatu, kantatu, kobratu...*
- b) Iragankorrak izanik ere, erabilera absolutua –iragankorra/inergatiboa alternantzia– onartzen dutenak: *estudiatu, eskribitu...*
- c) Inergatiboak: *abdikatu, abortatu, abusatu, bidaiatu...*

1.1.1. Du erregimena soilik duten iragankorrak: *adoratu, bisitatu, fabrikatu...*

DU ERREGIMENA SOILIK DUTEN MAILEGU IRAGANKORRAK

abandonatu	deseatu	esportatu
abisatu (<i>Ipar.</i>)	desenkusatu 1	estandarizatu
absolbitu	desinfektatu	esterilizatu
adjudikatu	desiratu	estimatu
administratu	deskribatu	estreinatu
adoratu	desobeditu	estudiatu
aglutinatu	desordenatu	etsaminatu
akabatu	despeditu 2 (“kaleratu”)	?favoratu
amortizatu	desterratu	fabrikatu
analizatu	destilatu	fidatu 2
?apailatu	determinatu	filmatu
apartatu	diktatu	formalizatu
aplikatu	diskriminatu	formulatu
aprobetxatu	doblatu	fotografiatu
apuntatu	drainatu	frijitu
arnegatu (<i>fedea</i>)	ebanjelizatu	fundatu
artxibatu	endredatu	fusilatu
aseguratu	engainatu	gaztigatu 2 (“zigortu”)
atrapatu	entenditu	gillotinatu
autorizatu	erlazionatu	governatu 1
baloratu	erratu	gomendatu 1
baltsamatu	errebelatu 2	gomitatu
bernizatu	erreferatu	gonbidatu
bernuzatu	erreformatu	grabatu
bisitatu	?errefusatu	gurutzefikatu
bonbardatu	erregalatu	heredatu
bordatu	erremediatu	hidratatu
brodatu	erreparatu 1	hipotekatu
dedikatu 2	errepikatu	identifikatu
deduzitu	errespetatu	imajinatu
defendatu	errezatu	imitatu
defenditu	errezibitu	inauguratu
definitu	eskarniatu	inportatu
deklaratu 2	eskribitu	inposatu
dekoratu	esleitu	inprimatu
deportatu	esplikatu	instalatu
desarmatu	esplotatu (“ustiatu”)	interpretatu

intsentsatu	kontsultatu	pintatu
izkiriatu	kontsumitu	pipatu
jujatu	kopiatu	pisatu
juzgatu	koplatu	plagiatu
kabitu 2	kreatu	planteatu
kalibratu	kritikatu	plantxatu
kalifikatu	kromatu	polikopiatu
?kalitu	laboratu	polimerizatu
kalkatu	letreiatu	polinizatu
kalkulatu	libratu 1	populatu
kanonizatu	lisatu	praktikatu
kantatu	lixibatu	predikatu
kapitalizatu	lorifikatu	prentsatu
?karesatu	manatu	presentatu
kardatu	maneatu 2, 3	probatu
?kartzelatu	maneiatu	produzitu
kastigatu	martirizatu	profanatu
katalizatu	masakratu	profetizatu
katalogatu	mastekatu	profitatu
kausatu	mespretxatu	programatu
?kitatu	metrailatu	proiektatu
koblatu	molestatu	promestu
kobratu	monopolizatu	prometatu
kolektibizatu	muntatu	proposatu
kolonizatu	?musikatu 1	publikatu
?koloratu	nazionalizatu	purgatu
konbidatu	neutralizatu	pusatu
konbinatu	obratu	saneatu
konektatu	ofenditu	seduzitu
konfirmatu 1 [<i>h. berretsi</i>]	ofentsatu	segatu
konfiskatu	ordenatu 1 (“antolatu”)	seinalatu
konfitatu	organizatu	sentitu 1
konparatu	orkestratu	setiatu
konposatu	pagatu	sinatu
konprenitu	paratu	sinplifikatu
kontatu	partitu 1	sintetizatu
kontrolatu	patentatu	?soberatu 2
kontsakratu	pausatu 2	sobratu 2
?kontseilatu	pentsatu	sokorritu
kontsideratu	pertsegitu	soldatu

solfeatu	tormentatu	xukatu
sostengatu	torturatu	zentralizatu
sozializatu	tragatu	zentsuratu
sufritu	transkibatu	zimendatu
tapizatu	transmititu	zirkunzidatu
tentatu	tratatu	zitzatu
tindatu	trazatu	zundatu
tiranizatu	urbanizatu	zurrratu
tiratu	urkatu	

Semantikari bagagozkio, *du* erregimena soilik duten aditz iragankor gehienak ez dira kausatiboak.

Sintaxiari dagokionez, alboko erdaretan aditz hauek ez dute erabilera pronominalik, edo, behintzat, adiera hori ez du bereganatu euskarak: gazt. *adorar*, *avisar*, *apuntar*, *amortizar*, *analizar*, *archivar*, *exportar*, *estrenar*...(**adorarse*, **avisarse* ...)

Esan bezala, batzuetan euskarak bereganatu duen adiera baino ez da jaso *HB*-n. Horixe gertatzen da *aprobetxatu* aditzaren kasuan: *HB*-n *du* erregimena eman zaio, horixe delako gehien mailegatu den adiera; baina beheko adibidean ikus daitekeenez, ez dira falta erabilera pronominala (gazt. *aprovecharse*) mailegatu duten adibideak.

- (3) APROBETXATU: Zer nai dezu, Jauna, nigandik? O! Badakit, Zuk zer nai-zun! Ni zure odolaz *aprobetxatu*, ta nik Zu amatzea. (OEHtc: Cardaberaz, *San Ignacioren ejerzizioak*, 64).

Beste batzuetan, aldiz, *HB*-n *du* erregimenarekin soilik ageri diren aditz mailegatu batzuek onartu egiten dute alternantzia kausatiboa, eta beraz horrelakoei *da/du* alternantzia egokitu beharko litzaieke:

- (4) AGLUTINATU: [EH: *da/du* ad.] (erabilera pronominala: gazt. *aglutinarse*)

3.1.2. *Iragankorren erabilera absolutua: iragankorra/inergatiboa alternantzia (estudiatu, eskribitu...).*

Gorago azaldu den moduan, berez iragankorrak diren aditz mailegatu batzuek –objektu prototipikoa izan ohi dutenek – zenbaitetan egitura inergatiboa ere onartzen dute.

IRAGANKORREN ERABILERA ABSOLUTUA:

aprobetxatu	laboratu
apuntatu 1 “keinatu, destatu (arma bat)”	meditatu
desobeditu	pagatu
diktatu	pipatu
errezatu	predikatu
eskribitu	segatu
estimatu	sentitu
estudiatu	sinatu
izkiriatu	sufritu
kantatu	tiratu 1 “jaurti”
kobratu	tiratu 2 “nork beregana erakarri”

Hona hemen pare bat adibide, erabilera absolutuaren erakusgarri:

DIKTATU: Ikasleentzat ez da lagungarria hitzez hitz *diktatzea*; prozedura honek, izan ere, testa baliogabetu egiten du (*EEBS*: 1968-1990; Euskara Batua; Saiakera-liburuak; U. Larramendi; Orria=0049; Paragrafoa=007;).

ERREZATU: Musulmanek egunean bost aldiz *errezatzen dute*, etxean edo meskitan (*EEBS*: 1991; Euskara Batua; Ikasliburuak; J. Ossa; Orria=0040; Paragrafoa=032).

3.1.3. Du *motako irangaitzak: inergatiboak* (abdikatu, abortatu, abusatu...)

Urte asko ez direla Ibon Sarasolak (1977: 79), gaur egungo euskaran aditz inergatiboen alde sumatzen zuen joera ikusirik, honako iragarpen moduko hau egin zuen euskal morfologia-sistemaren geroaz edo bilakaeraz:

- (5) Volviendo a los verbos de tipo *iraun*, *irakin*, su número aparte de ser importante, aumenta continuamente. Ya nos hemos referido anteriormente a que verbos formados a base de nombre más verbos como *egin*, etc., están pasando a la misma situación. Por otra parte, los dobles de procedencia románica de verbos como *jarraiki* ‘seguir’, *desagertu* ‘desaparecer’, es decir, *segitu*, *desaparezitu*, poseen la misma característica de falta de objeto. Así tenemos *Jonek Mikeli segitu dio* frente a *Jon Mikeli jarraikitu zaio* ‘Juan ha seguido a Miguel’, y *Jonek desagertitu du* frente a *Jon desagertu da* ‘Juan ha desaparecido’. Parece así que

³ Honako ohar hau dakar: “Leemos en Juan Bautista Aguirre, escritor vasco fallecido en 1823, en el primer tomo de sus *Eracusaldia*, pag. 41, *saltatu da*, donde actualmente la mayoría de vascos diría, *saltatu du*, *salto egin du* ‘ha saltado’.”

existe una tendencia en vasco actual a sentir todos los verbos (menos los que designan rigurosamente un estado) como transitivos, es decir, necesitados de elemento ergativo. Esta tendencia se realiza más fácilmente en préstamos, al no sentirse el peso de la tradición lingüística. En consecuencia no sería, quizás, excesivamente aventurado establecer la previsión de que podría llegar el día en el que el sujeto de todos los verbos vascos presentara la marca de ergativo, y la división transitivo/intransitivo se realizara según tuviera o no sentido para un verbo determinado la noción de objeto. Estaríamos así, utilizando la terminología de Fillmore (1968, 14), ante el paso de un sistema “ergativo” (como el vasco actual) a un sistema “acusativo” (sistema indoeuropeo).

Hain zuzen ere, azpiatal honetan Sarasolak salatzen zuen inergatiboen aldeko joera hori zertan den argitu eta zehaztu nahi dugu.

Hasteko, ikus dezagun zein diren euskarak inergatibo gisa jaso dituen aditz mailegatuak. Hona hemen, *Hiztegi Batua*-n ageri diren eta –adieraren batean bederen– aditz inergatibo modura jokatzen diren mailegatuak behin-behineko zerrenda⁴:

(6) ADITZ INERGATIBO MAILEGATUEN ZERRENDA:

abdikatu	erratu (?)
abortatu	erregutu
abusatu	erreinatu
arnegatu	erreparatu 2 “ohartu”
bidaiatu	eskiatu
blasfematu (?)	esperimentatu “esperimentua egin”
bogatu	faltatu 1 “huts egin”
deklaratu	funtzionatu
desertatu	komuniatu
dudatu	korritu
emigratu	kurritu
ernegatu 1 “arnegatu”	kotizatu

⁴ Merezi du azpimarratzea *HB*-k maileguzko sarrera banaka batzuetan (*bidaiatu*, *eskiatu*, *funtzionatu*) baizik ez digula ohartarazten aditzen izaera inergatiboaz (‘*nor* kasurik gabea’ oharra dela medio, hain zuzen ere). Beraz, informazio sintaktiko hori gutxitan ematen zaigunez, ez da erraza maileguzko aditz inergatibo guztien zerrenda ematea. Bestalde, batzuetan aditz mailegatu bat adiera jakin batean baizik ez da jokatzen inergatibo gisa: *deklaratu* aditza, esaterako, zuzenbideko adiera teknikoan (“deklarazioa eman/egin”: *hiru lagunek deklaratu zuten atzo epaitegian*) bakarrik har daiteke inergatibotzat.

manifestatu *Ipar*. “manifestazioan parte hartu”
 profetizatu (?)
 protestatu 2 “arbuioa adierazi”
 segitu
 topatu 2 “topa egin”
 toreatu
 trafikatu
 tratatu 2 “harremanak izan”
 zirkulatu

Badirudi maileguzko aditz iragangaitz inergatiboen azpisaila predika-
 tuaren izaera agentedunari lotua dagoela. Bestalde, Levin eta Rappaport-en
 (1995) proposamenaren arabera, aditz agentedunek (inergatiboek) barne-kausali-
 tateko aditzen azpimultzo bat osatzen dutela gogorarazi behar da (7)⁵.

(7) BARNEKO KAUSA DUTEN GERTAKARIAK (Mendikoetxea, 1999: 1597)

AGENTEDUNAK (INERGATIBOAK)	AGENTEGABEAK
<i>jugar, reír, hablar...</i>	a) erreakzio fisiko edo emotiboa: <i>temblar</i> . b) “jarioa”: <i>brillar, chirriar, apestar, emanar...</i> (inergatiboak) c) barne kausalitateko egoera-aldaketa: <i>florecer, envejecer</i> (inakusatiboak).

⁵ Inakusatibotzat hartu ohi diren aditzetariko askok egoera-aldaketa edo leku-aldaketa adierazten dute. Aditzok gertakari kausatiboak adierazten dituzte eta bitarikoak izan daitezke: batzuen esanahian ‘kanpoko kausa’ (1b) eta besteen esanahian ‘barneko kausa’ (2) adierazten dela esango dugu. Horrela, {*Juan/el viento/la llave*} *abrió la ventana* (1a) egitura iragankorraren aldamenen, *La ventana se abrió* (1b) egitura inakusatiboa dugu: pentsa daiteke (1b) perpausean —(1a) egituran bezalatsu— kanpoko kausa bat dagoela, aditzak adierazten duen prozesuaren eragiletzat har daitekeena, nahiz eta (1b) modukoetan kausa hori adierazi gabe geratzen den. Hurrengo adibidean (*El rosál floreció*), ostera, ‘barneko kausa’ duen gertakari bat adierazten da (2): aditzak adierazten duen prozesua (“florecer”) subjektu sintaktikoaren berezko ezaugarrirei esker gauzatzen da; loratu, horretarako behar diren ezaugarriak dituzten izakiak bakarrik loratu daitezke, nahiz eta prozesua abian jartzen duten kanpoko kausak (udaberria, ongariak) beharrezkoak izan.

- (1) a. Kanpoko kausa (egitura iragankorra): {*Juan/el viento/la llave*} *abrió la ventana*
 b. Kanpoko kausa (egitura inakusatiboa): *La ventana se abrió*.
- (2) Barneko kausa (egitura inakusatiboa): *El rosál floreció*.

(6)-ko zerrendan ageri diren aditz inergatibo mailegatu gehienak (*abdikatu, abortatu, abusatu, arnegatu, bidaiatu, blasfematu, bogatu, deklaratu, desertatu, dudatu, emigratu...*) agentedun tipikoak dira: gertakari horietako gehienak izaki baten borondateari loturik daude eta izaki batek kontrolatuak; maizenik izaki hori [+gizakia] ezaugarri duna, edo gutxienik [+biziduna] izan ohi da.

Beraz, alde batetik badirudi agentetasuna (alegia, predikatua agenteduna izatea) ezaugarri semantiko pisuduna dela erdarazko aditz iragangaitzak mailegatu eta haien euskarazko erregimena erabakitzerakoan. Badirudi ezaugarri horrexen arabera erabakitzen dela guztiz etxekotu gabe dauden baina hizkuntza mintzatuan batik bat sarritan erabiltzen ditugun aditz mailegatu batzuk, hala nola, *almortzatu, bozkatu/botatu, debutatu, dimititu, erreakzionatu, insistitu, kolaboratu, meriendatu...*

Beste alde batetik, (6)-ko aditz mailegatu banaka batzuk (*funtzionatu, kotizatu, zirkulatu*) ez dira agentedunak, eta horientzat bestelako azalpena behar dugu. Hain zuzen ere, hor sartzen da jokoan barne-kausaltateko aditzen gramatikalizazio desberdinaren hipotesia (Mendikoetxea, 1999: 1602-1605; Levin, 1995: 136, 146). *Funtzionatu, kotizatu, zirkulatu* predikatuek barne-kausa duten gertakariak adierazten dituzte: *makina horrek funtzionatzen du* esaten denean, nolabait interpretatzen da makina horrek propietate edo ezaugarri bereziren bat duela makina ibiltzea eragiten duena, hau da, argumentuaren beraren propietateren bat jotzen da gertakariaren eragiletzat. Badirudi, beraz, bigarren nozio hori ere –barne-kausaren nozioa, alegia– jokoan sartzen dela aditz mailegatu iragangaitz batzuen erregimena erabakitzerakoan: alegia, barne-kausaltateko predikatu batzuk inergatibo gisa mailegatzeko euskarak. Indar edo joera horixe nabaritzen bide da, batez ere hizkuntza mintzatukoak diren adibide hauetan eta antzerakoetan: *autoak ez du arrankatzen, pilotak txarto botatu du...*

Predikatuen agentetasuna eta barne-kausaltateko predikatuak inergatibo modura gramatikalizatzeko aukera edo joera aipatu ditugu irizpide semantikoaren artean. Baina gure ustez, horiezaz gain, irizpide sintaktiko lagungarri bat aipatu behar dugu, hizkuntza mailegu-emaileari dagokiona. Gure hipotesia honako hau da: gaztelaniaz edo frantsesez *se* klitikorik ez duten aditz iragangaitzak (edo aditz horien *se* klitikorik gabeko erabilerak edo adierak) baino ez dira euskaraz inergatibo modura mailegatuak izateko hautagaiak (gzt. *abdicar, abortar, abusar, renegar, viajar, blasfemar, bogar, declarar, desertar, dudar, emigrar...*), baina ez *se* klitikodunak (gzt. *atreverse, burlarse, descuidarse, divertirse, fiarse, quejarse, conformarse...*). Badirudi aldameneko erdaretan *se* klitikoaren agerpena egitura inakusatiboaren edota bihurkariaren ezaugarria dela eta kausatibotasunaren adierazpenari lotua dagoela (Mendikoetxea, 1999: 1603). Bada, horrelako guztiak euskaraz *da* aditz gisa mailegatzeko joera dago: *atrebitu da, burlatu da, deskuidatu da...* (infra 3.3).

Arazoak, zalantzak eta gorabeherak beste nonbaitetik datoz euskaraz: Sarasolak aipatzen duen *saltatu da* (tradizioko erabilera) / *saltatu du* (gaurko joera) adibidearen tankerakoak dira arazo-iturri. Izan ere, *saltatu*-ren erdarazko baliokideak (gazt. *saltar*, fr. *sauter*, ingl. *jump*) aditz inergatiboen adibideztat edo sail horren erakusgarritzat aipatu ohi dira. Hona hemen gaur eguneko euskararen erregimen-gorabeherak eta zalantzak sortzen dituzten aditz mai-legatu batzuk:

- (8) a. DANTZATU (*HB: da/du ad.: arratsalde osoan dantzatu naiz (ez *dantzatu dut); aurrekua dantzatu dut; makila dantzatu dut.*).
- b. DESKANTSATU (*HB: 1 da ad. h. atsedeen hartu. 2 Ipar. da/du ad. h. lasaitu.*).
- c. KOMULGATU, KOMEKATU (*HB: da ad.*) # KOMUNIATU (*HB: du ad; EH: lehen da.*).
- d. OLGATU (*HB: da/du ad.*).
- e. SALTATU (*HB: da ad. 'salto egin'*).
- f. NABIGATU (*HB: da/du ad.*).
- g. PASEATU (*HB: da/du ad.: karrozan paseatu ziren; bere astoa paseatzen du.*).

Perlmutter-ek ohartarazi zuen moduan (1978: 164), zalantza gehien sortzen dutenak mugimenduzko aditzak dira: goiko zerrendan, besteak beste, *saltatu*, *nabigatu* eta *paseatu*. Italiarazko datuetan oinarrituz Mendikoetxeak egiten duen azterketaren arabera (1999: 1606-1607), mugitzeko modua adierazten duten aditz agentedunak (*correr*, *saltar*, *navegar*, *pasear*) inergatiboak lirateke gaztelaniaz. Baina euskaraz gorabehera handiak daude aditz horien lehengo eta gaurko erabileran.

Hasteko, *EH*-k argitzen duenez, *nabigatu* aditza *da* edo *du* da, eta ez *da/du*. Bikoiztasun hori bat dator hiztegi berean beste zenbait aditzentzat (*apelatu*, *komuniatu*, *emigratu*, *eskatu*, *itsastatu*) berresten den *da* > *du* bilakaerarekin. Beraz, *nabigatu*-ri *HB*-n jarri zaion *da/du* erregimena ez da alternantzia kausatiboa duten aditzena (alegia, ez da *animatu da/du* bezalakoa), erregimen aldetiko zalantzari dagokiona baizik.

Saltatu eta *paseatu* aditzei dagokienez, alde batetik ez dago dudarik literatura-tradizioaren pisua *da* erregimenaren alde makurtzen dela, nabarmenki gainera. Bide batez, *paseatu* aditza tradizioan *da* aditz modura erabiltzeko arrazoietakoa bat gaztelaniazko erabilera pronominala izan liteke (ik. *DRAE*, 'pasear'). Baina beste alde batetik, Sarasolak berak dioenez eta *EEBS*-ko datuek baieztatzen dutenez, ezin da ukatu gaurko hitzun askok aditz horiek inergatibotzat jotzen dituztela. Bi aditz hauetan *HB*-k tradizioari eutsi nahi izan dio, baina inergatiboen aldeko bilakaera hori –Sarasolak *apelatu*, *komu-*

niatu, *emigratu*, *eskatu* eta *itsastatu* aditzetan baieztatua— ez dirudi gaurko edo azken aldi honetako joera berria denik⁶.

Komuniatu (*du*) # *komulgatu* (*da*) bikoiztasuna ere interesgarria da: beharbada *komulgatu da* hautuaren aldeko arrazoi bat gaztelaniaz lehenago *comulgar* aditza pronominal gisa erabili izana dateke (ik. *DRAE*, ‘*comulgar*’). Bestalde, Mendibururen adibide honetan ikus daitekeenez, lehenago erabileran alternantzia kausatiboa onartzen zuen *komulgatu* aditzak, gaztelaniaz bezalatsu:

- (9) Eta Jangoiko berak biztu zuen S, *Eloi, *komulga zezan* ilzeko beldurrez horduraño *komulgatu etzen* eri gaiso bat. (*OEHtc*: Mendiburu, *Idazlan argiragabeak*, 1. lib., 188).

Olgatu aditzari dagokionez, tradizioko erabileran inakusatiboa da nagusiki (*da* aditza). Azpimarratzeko da gaztelaniazko *holgar* aditzak erabilera pronominala izan duela adiera batzuetan (*DRAE*-ren arabera, “alegrarse de una cosa” eta “divertirse, entretenerse con gusto en una cosa” adieretan). *EH*-k eta *HB*-k— *da/du* alternantzia ematen diote, adibide batean oinarriturik (*Leengo eguneko zure berbaldijak guztiz asko olgau ninduban*. *OEHtc*: Uriarte, *Euskal Dialoak*, 3). Uste dut erabilera hori markatua dela eta aditzak berez ez duela alternantzia kausatiborik. Gaurko hitzun batzuek, ostera, tradizioa ahaztuta, inergatibo gisa jokarazten dute aditz hau. Eta antzeko zerbait gertatzen da *deskantsatu* aditzarekin.

Beraz, (8)-ko aditzak, batzuetan jatorrizko hizkuntzan erabilera pronominala izan zutelako edo beste arrazoiren batengatik, gehienbat *da* aditz gisa interpretatu dira euskararen literatura-tradizioan. Gaurko hitzun askok, aldiz, horrelako aditzak inergatibotzat hartzen dituzte. Nire ustez, inergatiboen aldeko gaurko joera ez da orokorra: gaur egun erdal hizkuntzan erabilera pronominalik ez duten eta agenteduntzat har daitezkeen predikatuetara mugatzen da gehienbat joera hori (*saltatu*, *olgatu*, *dantzatu*, *paseatu*).

Ondorioz, *entrenar(se)* bezalako aditz batekin, esate baterako, euskal hitzunak ez luke zalantza-izpirik izan behar, alternantzia kausatiboaren arabera jokutzen delako (10). Beraz, geureganatzekotan, horrelako aditz bat *da/du* aditza litzateke euskaraz (11). Hala ere, hitzun elebidun horrek gaztelaniaz *Los jugadores entrenan* (eta ez *se entrenan*) esaten ohituta badago—gaur

⁶ Leizarraga-n ageri den zerbait da: “Begira zaitetze, Baldin hire anaiek hire kontra *saltatu badu*, reprehendi ezak hura, eta baldin emenda badadin barkha iezok.” (*OEHtc*: Leizarraga, *Testament berria*, 139).

egun maiz entzuten denez (Torrego, 1998: 22, 38-39)–, zalantzak izango ditu agian aditz hori mailegatzera (12)⁷.

- (10) a. El profesor *entrena* a los alumnos.
b. Los alumnos *se entrenan*.
c. Hugo Sánchez *entrenó* solo durante una hora (Arauz kanpoko erabilera: ->... *se entrenó*...).
- (11) a. Irakasleak bere ikasleak *entrenatu* ditu.
b. Ikasleak eskolan *entrenatzen* dira.
- (12) a. Gogor *entrenatu* naiz jokatu ahal izateko.
b. ?Gogor *entrenatu dut* jokatu ahal izateko.

Bestalde, esan bezala, ez dirudi erdal aditz iragangaitz eta agentedunak⁸ inergatibotzat hartzeko joera hori atzo goizekoa denik: batetik, hor ditugu berrikitan gauzatu ez diren *da > du* bilakaerak (*apelatu, komuniatu, emigratu, itsastatu*); bestetik, maileguzko aditz inergatiboen zerrendari erreparatuz gero, konturatuko gara horietako gehienak (*abusatu, arnegatu/ernegatu, blasfematu, erratu, erregutu, erreinatu, erreparatu, faltatu 1, komuniatu, korritu*...) aspaldi sartuak edo etxekotuak dituela euskarak.

Hona hemen, aditz inergatiboen adibide batzuk:

ABDIKATU [EH: 1977, *nart.*]: Erakundea, beraz, jaiotzen da, Isabel II.a tronutik bota ondoren eta Amadeo de Saboya-k *abdikatu* ondoren, ... (EEBS: 1991; Euskara Batua; Saiakera-liburuak; Artistak 1995; Orria=0024; Paragrafoa=002; *abdikatu*).

BLASFEMATU [EH: 1571; *zah.*]: Kaifas'ek itz oiek aditutakoan, soñekoak urratu zituen, eta deadar egin zuen: *Blasfematu du*; añenekoa bota du. (OEHTc: Lardizabal, *Testamentu zarreko edo berriko kondaira*, 447).

DEKLARATU [HB: 1. epaiketaren inguruko adierarekin batez ere] Era berean, enpresako beste hiru buruk Durangoko Hirugarren Epaitegian *deklaratu zuten* atzo. (EEBS: 1991; Sailkatu gabeak; Egunkariak; Egunk 1991; Orria=0008; Paragrafoa=005).

⁷ “Asko gara, baina titular izateko *entrenatzen dut*” esaldia irakurri dugu egunotan *Euskaldunon Egunkaria*-n (2001-IX-13, 31. or.). Areago, aditz batzuen laguntzaile-motari buruzko artikulu batean Aintzane Arrietak (2001: 19) *du* erregimena ematen dio *entrenaturri, eboluzionatu*-rekin batera jarritz.

⁸ Batzuetan agentedunak ez diren iragangaitz batzuk ere inergatibo gisa mailegatzten dira (AGUANTATU: *Han geratuko dira, aguantatzen duen arte. TARDATU: Asko tardatu zuen*): horrelakoetan argumentua gizakia edo biziduna izaten da; baina ekintza kontrolatzen ez duena, esperimentatzailea alegia.

3.2. DA/DU aditz mailegatuak (*alfabetatu, animatu...; defendatu...*)

Hona hemen, *Hiztegi Batua*-n *da/du* alternantzia duten aditz mailegatuak:

DA/DU ADITZ MAILEGATUAK

abiatu	gorde	mudatu
alfabetatu	gozatu	normalizatu
altxatu	helenizatu	obligatu
animatu	immunizatu	ordenatu 2
armatu	industrializatu	orientatu
arrimatu	informatu	oxidatu
bainatu	ionizatu	oxigenatu
beztitu	jirotu	palatalizatu
borratu	juntatu	penatu
debaluatu	justifikatu	perfekzionatu
degeneratu	kanbiatu	plegatu
deklinatu	kargatu	presatu
desengainatu	konbertitu	profesionalizatu
despeditu 1 (“agur egin”)	kondenatu	sakrifikatu
disolbatu <i>Kim.</i>	kondentsatu	salbatu
entretenu	konfesatu	santifikatu
errendatu	konfirmatu 2 <i>Erl.</i>	sentitu
errenditu	konplitu	sikatu
erretiratu	kontentatu	sosegatu
espantatu	kontserbatu	tapatu
esposatu	kontsolatu	tatuatu
estonatu	konzentratu	trabatu
formaldu	koordinatu	transformatu
formatu	kurbatu	traumatizatu
fosildu	makillatu	tronpatu
funditu	maneatu 1 ‘atundu’	umiliatu
gastatu	mantendu	zibilizatu
	matrikulatu	

3.2.1. Alternantzia kausatiboa: iragankorra/ergatiboa aurkaritza (*sikatu du / sikatu da*).

Alternantzia kausatiboa duten aditzak iragankorrak dira, eta semantika-ren aldetik kausatiboak dira:

- (13) KAUSATIBOA: a. Mirenek zorua *sikatu du*.
 b. <Mirenek eragin du> zorua *sikatu da* (berez).
 c. Zorua *sikatu da* (aldaera antikausatiboa edo ergatiboa: “berez”).

Berez aditz iragankorrek dira, kanpoko kausa dutenak; eta haien aldaera inakusatiboa (13c) deskausatibizatze-prozesu baten ondorioz sortua da: aldaera inakusatiboan adierazi gabe uzten da subjektu nozionala, alegia predikatuak adierazten duen gertakaria gauzatzea eragin duen kanpoko kausa.

Bestalde, aditz kausatibo batzuek bakarrik onartzen dute aldaera inakusatiboa, alegia, berez edo agente baten nahitako parte-hartzerik gabe gauzatu daitekeen gertakizuna adierazten dutenak: *akabatu* bezalako kausatiboek, esaterako, ez dute alternantzia kausatiborik (**Otsoak akabatu dira (berez)*), azpigertakari kausatiboa ondo zehaztua dutelako. Bestela esanda, egitura lexiko-kontzeptualean azpigertakari kausatiboa zehaztu gabe duten aditz kausatibok dira aldaera inakusatiboa onartzen dutenak (Mendikoetxea, 1999: 1591).

Sintaxiari dagokionez, aldameneko erdaretan alternantzia kausatiboa duten aditzek bereizgarri garbia dute: izenordain klitikoa (*alzar/alzarse, animar/animarse, arrimar/arrimarse, borrar/borrarse...*). Alternantzia kausatiboa duten aditz-bikote horiek direla eta, honako azalpen argigarri hau ematen digu Torrego-k (1998: 21):

- (14) En efecto, si tomamos como referencia los casos de 3.1.1 es evidente que los verbos *dormir, levantar, separar* no significan lo mismo con el pronombre que sin él. Así, en

Juan durmió al niño

hay un significado *factitivo* parecido al de “Juan hizo que el niño durmiera”. No es éste el significado de “Juan se durmió”, pues no es desglosable en *”Juan hizo que Juan se durmiera” o en *”Juan se hizo dormir”. Eso quiere decir que una posible estructura profunda de *Juan se durmió* nunca podría ser la de “Juan durmió a Juan”: por tanto, difícilmente podríamos considerar a *se* (al pronombre) con función nominal de ‘c. directo’, pues no es equivalente a *lo*, ya que en *Juan lo durmió* aparece el primer significado de *dormir*. Una vez más, el significado como control es necesario para valorar los resultados de una conmutación. La conclusión parece clara: en nuestra lengua hay un verbo *dormir* y un verbo *dormirse*; un verbo *levantar* y un verbo *levantarse*; un verbo *separar* y un verbo *separarse*, etc. Y en los diccionarios deberían aparecer como entradas diferentes.

Bukatu baino lehen, zenbait ohar egin beharrean gaude. Hasteko, *da/du* alternantzia duten euskal aditz mailegatu gehienen pareko erdarazko aditzek

erabilera pronominala duten arren, hori ez da ezinbesteko baldintza. Zenbaitetan euskararen barnean garatzen dira halako alternantziak: *deliberatu*, *deskantsatu 2 (Ipar)*, *ernegatu*, *eskarmentatu*, *finitu*, *pasatu*... aditzen erabilera inakusatiboek ez dute parean erdarazko erabilera pronominalik (gazt. **deliberarse*¹⁰, **renegarse*, **escarmentarse*...).

HB-n *da/du* erregimena duten aditz batzuen kasuan, ez da bete alternantzia kausatiboari dagokion deskausatibizatze-prozesua, alderantzizko zer-bait baizik. Alegia, batzuk aditz inakusatiboak dira izatez, eta zenbaitetan iragankor gisa erabiltzen dira: *abiatu*, *paseatu*, *dantzatu*... tankerakoak, erabilera iragankor markatua duten iragangaitzak dira eta ez deskausatibizatu edo iragangaitz bihurtu diren iragankorrak.

Nabigatu aditza *da/du* erregimenarekin markatua dator *HB*-n, baina *da* edo *du* aditza da, eta ez du alternantzia kausatiborik.

3.2.2. Iragankorrak/bihurkariak aurkaritza: *obligatu du / obligatu da*.

HB-n *da/du* marka bikoitaz horniturik ageri diren zenbait aditzen kasuan alternantzia ez da gertatzen aditz kausatiboaren eta aldaera inkoatiboaren artean, aditz iragankorraren eta bihurkariaren artean baino: *armatu*, *beztitu*, *makillatu*, *obligatu*... Izan ere, kontuan hartu behar da euskaraz aditz batzuen balio bihurkaria *da* laguntzailearen bitartez lortzen dela (ik. Etxepare):

- (15) DA/DU?: ‘IRAGANKORRA/BIHURKARIA’ (DU > DA) ALTERNANTZIA
- ARMATU
 - BEZTITU
 - MAKILLATU
 - OBLIGATU: *Obligatu gara* urtean behin konfesatzera (EH: ‘obligatu’).

Alde horretatik, komeni da argitzea *HB*-n *du* erregimena soilik duten aditz batzuek (hala nola, *abandonatu*, *gobernatu*, *libratu*, *defendatu*, *engainatu*, *juzgatu*, *konparatu*, *sentitu*...) onartu egiten dutela *du/da* alternantzia, baina balio bihurkaria adierazteko:

- (16) ‘IRAGANKORRA > BIHURKARIA’ ALTERNANTZIA:
- ABANDONATU
 - GOBERNATU
 - LIBRATU,

¹⁰ Baina *deliberatu*-k “decidir” adiera hartu du euskaraz, eta gaztelaniazko aditz horrek badu erabilera pronominalik (*decidirse*).

- d. DEFENDATU,
- e. ENGAINATU,
- f. JUZGATU,
- g. KONPARATU,
- h. SENTITU...

3.3. *DA* erregimena soilik duten aditz mailegatuak: inakusatibo “garbiak” (*burlatu, konformatu...*).

Hiztegi Batua-n *da* erregimenarekin soilik ageri diren aditz mailegatu batzuk:

abusatu 2 (<i>Ipar.</i> “jostatu”)	katigatu
ailegatu	kexatu
antsiatu	komekatu
atrebitu	komulgatu
atrofiatu	konfederatu
biziatu	konformatu
burlatu	kostumatu
dedikatu	libratu 2 (<i>Lgart.</i> “kaka egin”)
deskantsatu	manifestatu 1 (<i>Heg</i>)
deskuidatu	mutinatu
dibertitu	paratu
dibortziatu	partitu
dutxatu	pasatu 2 (“gertatu”)
errabiatu	pausatu
eskapatu	portatu
espezializatu	prezatu 2 (“harrotu”)
existitu	saltatu
faltatu 2 (“falta izan”)	soberatu
federatu	sobratu
fidatu	tokatu
gobernatu 2 (“jokatu”)	trabailatu
herratu	usatu
interesatu	zeinatu
kabitu	
kanpatu	

Oro har, ‘gainerako’ irangaitzak –alternantzia kausatiborik ez dutenak eta agenteduntzat hartzen ez direnak– mailegatzten dira euskaraz *da* erregimen bakarrekin.

Semantikaren aldetik, haien argumentu bakarra tema da nahiz eta subjektu sintaktikoa izan (17a), eta ez dute alternantzia kausatiborik onartzen (17b):

- (17) a. Mikel [TEMA] horretara atrebitu da.
b. *Maisuak Mikel horretara atrebitu du.

Sintaxiari bagagozkio, *da* aditz mailegatu gehienak erdaraz erabilera pronominala dutenak dira: edo berezko pronominalak dira erdaraz (18); edo bestela, erabilera pronominala da euskaraz (gehien) mailegatu dena (19).

- (18) BEREZKO PRONOMINALA EDO ADIERA PRONOMINALA:
a. AMOTINARSE / *amotinar → mutinatu (*da*)
b. ATREVERSE /*atrever → atrebitu (*da*)
c. QUEJARSE /*quejar → kexatu (*da*)
d. CONFORMARSE # conformar → konformatu (*da*)
e. FIARSE # fiar → fidatu (*da*)
f. ANSIARSE # ansiar → antsiatu (*da*)
g. PORTARSE # portar → portatu (*da*)
h. SIGNARSE /* signar → zeinatu (*da*)

- (19) ERABILERA PRONOMINALA MAILEGATZEN DA (GEHIEN):
a. descuidar/DESCUIDARSE → deskuidatu (*da*)
b. divertir/DIVERTIRSE → dibertitu (*da*)
c. divorciar/DIVORCIARSE → dibortziatu (*da*)
d. interesar/INTERESARSE → interesatu (*da*)
e. ocupar/OCUPARSE → okupatu (*da*: “aritu” adiera)
f. dedicar/dedicarse → dedikatu (*da*: “aritu”; “arduratu”)

Zenbait kasutan erdarazko erabilera pronominal bihurkaria da euskaraz (*HB*-n behintzat) jaso dena (20), baina berez aditza iragankorra da:

- (20) ERABILERA PRONOMINAL BIHURKARIA:
a. duchar/DUCHARSE → dutxatu (*da*)
b. federar/FEDERARSE → federatu (*da*)
c. confederar/CONFEDERARSE → konfederatu (*da*)

Existentzia- eta agertze-aditzak ere —albo-erdaretan inakusatibotzat jotzen direnak— *da* aditz gisa mailegaten dira:

- (21) EXISTENTZIA- ETA AGERTZE-ADITZAK:
a. EXISTITU
b. FALTATU 2 (“FALTA IZAN”)
c. KABITU
d. PASATU 2 (“GERTATU”)
e. SOBERATU

- f. SOBRATU
- g. SUERTATU

Abiapuntua edo helmuga adierazten duten mugimenduzko aditz batzuk euskaraz ere inakusatibo gisa erabiltzen dira:

- (22) MUGIMENDUZKO ADITZ BATZUK:
- a. AILEGATU
 - b. PARTITU
 - c. HERRATU
 - d. ESKAPATU

Hala ere, gorago azaldu den moduan, zalantza handiak sortzen dira mugitzeko era edo modua adierazten duten aditzak mailegatzekoan:

- (23) MUGITZEKO ERA EDO MODUA: GORABEHERAK
- a. KORRITU (Inergatiboa: *du*)
 - b. SALTATU (*da*), baina gorabeherak gaurko euskaran (*du?*).
 - c. PASEATU (*da*), baina gorabeherak gaurko euskaran (*du?*).

Bestalde, *HB*-n *da* erregimenarekin bakarrik ageri diren aditz batzuk *da/du* aditzak dira izatez:

- (24) *HB*-KO OKERRAK?: $DA > DA/DU$
- a. ATROFIATU (*EH: da/du*).
 - b. BIZIATU (*EH: da/du*).
 - c. BURLATU
 - d. ERRABIATU (*EH: da/du*).
 - e. GOBERNATU (*EH: du*, “zuzendu...”; *da*, “jokatu, portatu”).
 - f. ?LIBRATU (1 *du* “atera, askatu”; 2 *da* *Lgart.* “kaka egin”)
 - g. PARATU (1 *du* “jarri, prestatu”; 2 *da* “jarri”).
 - h. PAUSATU (1 *da* “atseden hartu, hil; jarri”; 2 *du* “jarri, ipini”).
 - i. PREZATU (1 *du* “balioetsi”; 2 *da* “harrotu”).

Bukatzeko, azalpen errazik ez duten kasu batzuk aipatu behar dira (ik. 3.1.3):

- (25)
- a. DESKANTSATU (*da*)
 - b. KOMEKATU /KOMULGATU (*da*)
 - c. TRABAILATU (*da: Ipar. Zab.*)

4. ONDORIOAK

Erregimenari bagagozkio, albo-erdaretatik aditzak mailegatzeko garaian honako joera edo estrategia nagusi hauek nabari dira gaur eguneko euskaran:

1. Erdaraz iragankor diren aditzak, oro har, iragankor gisa (*du* aditz gisa) jokarazten dira euskaraz (*adoratu, bisitatu, fabrikatu...*; *estudiatu, eskribitu...*; *alfabetatu, animatu...*; *defendatu...*). Maileguzko euskal aditzen ondarean ugari dira aditz iragankorrak; izan ere, multzorik zabalena osatzen dute horrelako aditzek. Alde horretatik ez dirudi gaurko hiztunak batere zalantzarik duenik horrelako aditzen erregimena hautatzerakoan.

Iragankor batzuek —objektuari murriztapen semantiko zorrotzak ezartzen dizkiotenek— erabilera absolutua edo egitura inergatiboa ere onartzen dute (*gauzez ikasten du*), gaztelaniaz eta frantsesez gertatzen den antzera.

Albo-erdaretan bezalaxe, iragankor horietako askok alternantzia kausatiboa onartzen dute, euskaraz *du/da* jokoaren bidez gauzatua. Eta zenbaitek (*abandonatu, gobernatu, libratu, defendatu, engainatu, juzgatu, konparatu, sentitu...*) balio bihurkaria adierazten dute *du* > *da* alternantziaren bidez.

2. Aditz iragangaitzak mailegatzekoan, ostera, erregimena hautatu beharra gertatzen da. Iragangaitz batzuk (*bidaiatu, bogatu, desertatu, dudatu, emigratu, erreinatu, eskiatu...*) inergatibotzat hartzen dira euskaraz; alegia, *du* erregimenaren arabera jokatzeko dira. Beste iragangaitz batzuk (*atrebitu, kexatu, konformatu, fidatu, portatu, dibertitu...*), ostera, inakusatibotzat jotzen dira; alegia, *da* erregimena egokitzen zaie. Beraz, argumentu bakarreko aditzekin, iragankorrekin ez bezala, maiz gertatzen dira erregimen aldetiko zalantzak eta gorabeherak, bai tradizioan bai gaurko erabileran.

3. Dena dela, aditz iragangaitzen hautu horretan gaur eguneko euskaran aditz inergatiboen aldeko joera erabatekoa dela aldeztu duen hipotesia (Sarasola, 1977: 79) neurri batean bakarrik geratzen da baieztatuta gure azterketan. Alde batetik, egia da erdarazko aditz iragangaitz batzuk *du* aditz gisa geureganatu ohi ditugula euskaraz (*bidaiatu, eskiatu, korritu...*). Baina trataera edo jokaera hori ez da orokorra, bi aldagaik baldintzatua baizik: a) semantikaren aldetik jokaera inergatiboa agentetasuna agerian duten aditzek (*abdikatu, abortatu, abusatu, arnegatu, bidaiatu, blasfematu, bogatu, deklaratu, desertatu, dudatu, emigratu...*) edota barne-kausaltateko gertakizuna adierazten duten aditz zenbaiti (*funtzionatu, kotizatu, zirkulatu*) loturik ageri zaigu gehienbat; b) sintaxiaren aldetik jokaera inergatiboa albo-erdaretan *se* klitikorik ez duten aditz iragangaitzetara mugatzen da. Beraz, inergatiboen aldeko joera *se* klitikorik gabeko erdal aditz iragangaitz agentedunetara mugatzen da batik bat: horrelakoetan ageri da garbien inergatiboen aldeko joera berria (*saltatu du, deskantsatu du, dantzatu du, olgatu du...*), tradizioko erabilera inakusatibo ohikoari (*saltatu da, deskantsatu da, dantzatu da, olgatu da...*) bizkarra ematen diona.

4. Dena dela, maileguzko inergatiboen multzoa nahiko txikia da, eta edozein kasutan beste multzoak baino txikiagoa: maileguzko aditz ergatiboena (*da* aditzena) baino urriagoa eta alternantzia kausatiboa onartzen duten maileguzko aditzena (*du/da* aditzena) baino askozaz urriagoa. Bestalde, maileguzko inergatiboen aldeko joera gaur egungo aldakuntza berria baino areago, aspalditik datorren (cf. *EH, da > du: apelatu, emigratu, komuniatu, eskatu, itsastatu*) eta gure garaian indartuz joan den joera dela uste dugu. Izan ere, inergatibo mailegatuetakoa asko aspaldi bereganatu zituen euskarak (*abusatu, arnegatu, blasfematu, bogatu, desertatu, dudatu, emigratu, erregutu, erreinatu, erreparatu, faltatu 1, komuniatu, korritu, protestatu, segitu, toreatu, trafikatu*).

5. Esan bezala, gaztelaniaz edo frantsesez *se* klitikorik ez duten aditz iragangaitz agentedunak dira gehienbat inergatibo gisa mailegatuak izateko hautagaiak. Multzo horretakotzat har litezkeen zenbait aditzekin (*saltatu, deskantsatu, dantzatu, olgatu, komulgatu...*) gaurko erabileran *da > du* bilakaera baieztatu dugun arren, multzo txiki horretatik kanpo ez dago duda-izpirik. Esate baterako, jokaera inergatiboa pentsaezina da albo-erdaretan *se* klitiko berezkoa duten aditzak (gazt. *amotinarse, atreverse, quejarse...*) edota aditzen adiera klitikodunak (gazt. *conformarse, fiarse, portarse, signarse, descuidarse, divertirse, interesarse, ocuparse, dedicarse, ducharse...*) mailegatzean. Era berean, jokaera inergatiboa nekez gertatzen da existentzia- edota agerpen-aditz gehienak (gazt. *existir, faltar, caber, pasar, sobrar...*) mailegatzean. Beraz, gure iritziz, euskararen azterketa gaztelaniazko aditz inakusatiboen azterketa (Mendikoetxea, 1999) berrestera dator: euskal aditz mailegatuetan ageri diren erregimen aldetiko jokaerak, oro har, bat datoz gaztelaniarentzat proposatu den sailkapenarekin; euskararen azterketak bereziki albo-erdaretako *se* klitikoaren azterketa baieztatzen du, hiztun euskaldun elebidunak ere ezaugarri sintaktiko horixe hartzen baitu egitura inakusatiboaren bereizgarritzat.

BIBLIOGRAFIA

ARRIETA, A. 2001. "Lagundu laguntzaileei", *Administrazioa Euskaraz*, 32 zenbakia, 19. or.

BOSQUE, I., DEMONTE, V. 1999. *Gramática descriptiva de la lengua española*, 3 lib., Madril: Espasa Calpe.

BURZIO, L. 1981. *Intransitive Verbs and Italian Auxiliaries*, Doctoral Dissertation, MIT Cambridge, Massachusetts.

—1986. *Italian Syntax. A Government-Binding Approach*, Dordrecht, Kluwer.

CAMPOS, H., 1999, “Transitividad e intransitividad”, Ignacio Bosque eta Violeta Demonte, *Gramática descriptiva de la lengua española*, 2. lib., 1519-1574.

ETXEPARE, R. Argitarabidean. “Valency and Argument Structure in the Basque Verb”, in Ignacio Hualde & Jon Ortiz de Urbina, *A Grammar of Basque*, Berlin: Mouton de Gruyter.

EUSKALTZAINDIA. 1993. *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*, Bilbo: Euskaltzaindia.

GRÀCIA, LL., CABRÉ, M^a. T., VARELA, S., AZKARATE, M. et alii, 2000. *Configuración morfológica y estructura argumental: léxico y diccionario*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

GRIMSHAW, J.B. 1990. *Argument Structure*, Cambridge, Massachusetts: MIT Press.

LAFITTE, P. 1944. *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*, (aipamenak hirugarren argitaraldiari dagozkio: Donostia, Elkar, 1979).

LEVIN, B. 1983. *On the Nature of Ergativity*, Doctoral dissertation, MIT Cambridge, Massachusetts.

LEVIN, B., RAPPAPORT, M. 1995. *Unaccusativity at the Syntax-Lexical Semantics Interface*, Cambridge, Massachusetts: MIT Press.

MENDIKOETXEA, A. 1999. “Construcciones inacusativas y pasivas”, in Ignacio Bosque eta Violeta Demonte, *Gramática descriptiva de la lengua española*, 2. lib., 1575-1629.

MIGUEL, E. DE. 1992. *El aspecto en la sintaxis del español: perfectividad e impersonalidad*, Madril: Ediciones de la Universidad Autónoma de Madrid.

PERLMUTTER, D. M. 1978. “Impersonal Passives and the Unaccusative Hypothesis”. In *Proceedings of the Fourth Annual Meeting of the Berkeley Linguistics Society*, 157-89. Berkeley: Berkeley Linguistics Society, University of California.

SARASOLA, I. 1977. “Sobre la bipartición inicial en el análisis en constituyentes”, *ASJU*, XI, 51-90.

VAN VALIN, R. D. 1988. “Semantic parameters of split intransitivity”, *Language*, 66, 221-260.

TORREGO, E. 1989. "Unergative-unaccusative alternations in Spanish", *MIT Working Papers in Linguistics*, 10, MIT, Cambridge, Mass., 253-272.

—1998. *Valores gramaticales del 'se'*, Madril: Arco Libros.

VENDLER, Z. 1967. *Linguistics in Philosophy*, Ithaca (Nueva York), Cornell University Press.

VAN VOORST, J. 1988. *Event Structure*, Amsterdam: John Benjamins.

Corpusak eta hiztegiak (eta haien laburdurak):

EEBS: Egungo *Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa*.

Elh.: Elhuyar, 2000, *Elhuyar Hiztegia. Euskara-gaztelania. Castellano-vasco*, Elhuyar, Usurbil.

OEHtc: Euskaltzaindia, 1984, *OEH-ko testu corpusa*.

DRAE: Real Academia Española, 1992, *Diccionario de la lengua española* (21. argitaraldia), Madrid, Real Academia Española.

EH: Sarasola, I., 1996, *Euskal Hiztegia*, Kutxa.

HB: Euskaltzaindia, 2000, *Hiztegi Batua*.

OEH: Michelena, L., *Orotariko Euskal Hiztegia*, Bilbo, Euskaltzaindia, 1987-1999.

BATERAKUNTZAN OINARRITUTAKO EUSKARAREN ANALIZATZAILEA: OINARRIZKO *PATR* GRAMATIKA

*I. Aldezabal
K. Gojenola
K. Sarasola*

1. SARRERA

Sintaxi konputazionala ez da atzoko kontua. 1950eko hamarkadan hasierako itzulpen-sistema primitibo haiek sortzen hasi zirenetik ikerlariek etengabe ekin diote hitzen arteko harremana eta perpausen egiturak konputazionalki lortzeari. Hasieran espero baino zailago suertatu da, ordea, erronka hori. Gaur egunean, oraindik, ez dago testu errealetako edozein esaldi osorik analizatuko duen analizatzailerik. Ingeleserako sortu da ahalmen zabaleko sistemarik, baina sistema horiek ere oztopo itzel baten aurrean aurkitzen dira bere emaitzak aplikatu nahi dutenean: emaitza posible bakarra ez, baizik eta dozenaka-edo analisi posible lortzen baitituzte testu errealetako perpaus arruntak analizatzerakoan.

Gauzak horrela bi lerro nagusi bereizten dira gaur egunean sintaxi konputazionalan. Batetik, konputagailuaren laguntzaz hizkuntzaren deskribapen sakona lortzeko gero eta gramatika osatuagoak eraikitzea; bestetik, perpaus oso-osoen analisisa lortzeko asmorik gabe, zatiak (ingeleseaz *chunk* esaten duten horietakoak: izen-sintagmak, adizlagunak, aditz-kateak, ...) bereizteko tresnak sortzea tresna horiek hizkuntza-teknologiako aplikazioak garatzeko baliagarriak izango direlako, esaterako, hizketa-sorkuntzan edo informazio-bilaketan.

Beste hizkuntzetarako zenbait gramatika eta analizatzaile sintaktikoren berri nahi izanez gero web-gune hauetan aurki daitezke baliabideak eta analizatzaileak:

- Natural Language Software Registry (<http://registry.dfki.de>)

- Computational Linguistics (On-line aurkezpenak)

<http://www.ifi.unizh.ch/CL/InteractiveTools.html#as-h2-3296>

Edo hainbat sistemen artean ez galtzearren begiratu zuzenean honako hauek bakarrik:

- Ingeleserako analizatzaile sintaktiko bat: Conix or enpresaren web-gunean (ingelesaz gain, baita beste zazpi hizkuntzetarako ere).

<http://www.conexor.fi/testing.html#1>

- Espainiararako bat: CliC. <http://www.ub.es/ling/labcat.htm>

- Frantseserako bat: Genevako Unibertsitatea. <http://latl.unige.ch>

Sintaxia konputagailuen bidez lantzeko lau lan-ildo nagusi sortu izan dira orain arte:

- Baterakuntzan oinarritutako testuingururik gabeko gramatikak (Shieber, 1986). Funtsean testuingururik gabeko gramatikak¹ dira, baina formalismo sintaktiko horri gehitzen zaizkio, batetik, osagai sintaktikoen informazioa biltzeko aukera ezaugarri-egituren² bidez, eta bestetik, erregela bakoitzari zenbait ekuazio definitu ahal izatea komunztadurak edo beste edozein murriztapen edo erlazio sintaktiko egiaztatzeneko.
- Egoera finituko teknikak (Karttunen eta beste, 1997). Azaleko sintaxia baino ez dute lortzen formalismo hauek, hau da, perpausetako osagaiak bereiztea baino ez dute lortzen. Espresio erregularrak baliatzen dituzte osagaien eraketa definitzeko eta oso denbora txikian lortzen dituzte emaitzak.
- Murriztapen-Gramatikak (Karlsson eta beste, 1995). Hitz bakoitza modu isolatuan analizatzeko dauden aukera guztietatik abiatuz, murriztu egiten dira aukera horiek erregelen bidez hitz bakoitzak testuinguruan dituen beste hitzen arabera. Bukaeran, hitz bakoitzak ira-

¹ Ingelesez *Context Free Grammar* direnak.

² Ingelesez *feature structures* direnak.

kurketa bakarra dauka, bertan bere kategoria, kasua, numeroa eta beste informazio sintaktikoak daudela, funtzio sintaktikoarekin batera. Formalismo hau, izatez, egoera finituko tekniken barruan kokatu beharko genuke, baina bere ezaugarri bereziak direla eta, aipamen berezia egin diogu.

- Metodo estatistikoak

Lan-ildo honetan dabilzan ikerlariak corpus handietatik informazio sintaktikoa (gramatikak, espresio erregularrak, ...) automatikoki deduzitzen saiatzen dira estatistika erabiliz, gero testu errealean gainean aplikatzeko. Normalean metodo estatistikoak lehenago aipatu ditugun hurbilpen horietako batekin batera aplikatzen dira, hau da, gramatika batekin elkarlanean aplikatzen dira metodo estatistikoak.

IXA taldearen ahaleginak lehenengo eta hirugarren ildoetatik joan dira orain arte euskararen sintaxia lantzeko orduan. Murriztapen-gramatiken inguruan egindako lanak Lafitteren omenezko biltzar honetako beste artikulu batean azaldu dira (Aduriz eta Arriola, 2002). Artikulu honetan testuingururik gabeko gramatiketan oinarritutako baterakuntza-formalismo baten gainean egindako lana aurkeztuko dugu.


Hurrengo orrialdeetan honela egituratuko dugu artikulua: hasieran testuingururik gabeko gramatikak, baterakuntzan oinarritutakoak eta PATR gramatika-formalismoa labur aurkeztuko ditugu. Bigarren atalean, potoloena eta nagusia den atalean, PATR formalismoaren gainean sortu dugun gramatikaren ardatz nagusiak erakutsiko ditugu. Hirugarren atalean zenbait adibiderekini ilustratuko dugu gramatikarekin lortutako emaitzak zelakoak diren. Eta bukatzeko hiru atal labur erantsiko ditugu puntu hauek zehazteko: emaitzak zuhaitz gisa ikusteko tresna, euskararen hitz-mailako konplexutasuna dela-eta hitz solteak analizatzeko definitu behar izan dugun gramatika morfosintaktikoa eta, bukatzeko, azken atalean, *ondorioak* izenburupean gure ekarpenak laburtu eta etorkizunerako eginkizunak azalduko ditugu.

2. BATERAKUNTZAN OINARRITUTAKO GRAMATIKA-FORMALISMOAK ETA PATR

Baterakuntzan oinarritutako gramatikak testuingururik gabeko gramatiketan oinarritzen dira. Hauek Chomsky-k formalizatu zituen (Chomsky, 1957), eta modu honetako erregelen bidez adierazten dira:

<i>Ingelesezko gramatika</i>			<i>Euskarazko gramatika</i>		
S	→	NP	P	→	IS AS
VP	→	Verb NP VP	AS	→	IS Aditza
NP	→	Noun	IS	→	Izen-berezia
NP	→	Art Noun	IS	→	Izenordea

Erregelak ' $a \rightarrow b$ ' edo ' $a \rightarrow b c$ ' modukoak dira, non a ikurra ez terminala den eta b , c terminal edo ez terminalak. Ikur ez terminalak (S, NP, ...) kategoria sintaktikoak dira, eta ikur terminalak hiztegiko hitzak edo morfemak izango dira. Gramatikaren axioma edo hasierako ikurretik abiatuta (ingelesezko adibidean S (*sentence*) eta euskarazkoan P (perpauza)) eta erregelak erabiliz erator daitezkeen sinbolo terminalen kateak lengoaiarenak dira, besteak ez. Gehienetan lengoaiaren kateak zuhaitzen bidez adierazten dira. Adibidez, 1. irudian esaldi baten analisi-zuhaitza ikus dezakegu, aurreko taulan azaldutako euskarazko gramatikaren erregelak aplikatuz:



1. irudia. '*ni Jon naiz*' esaldiaren zuhaitz sintaktikoa.

Testuingururik gabeko gramatiken formalismoa sinplea da, baina arazoak daude lengoia naturalaren fenomeno asko adierazi nahi direnean. Adibidez, aditza eta subjektuaren arteko komunztadura egiaztatu nahi badugu, numero, mugatasuna eta pertsonan, orduan ' $AS \rightarrow IS AS$ ' erregelaren ordez beste erre-

gela asko egin beharko genuke ('AS → IS_ergatibo_sing_3 AS_nor_nork_sing_3' eta honen moduko hainbeste erregela). Arazoa, beraz, adierazpen-ahalmen faltarena da. Hau gainditzeko, baterakuntzan oinarritutako formalismoak erabiltzen dira (Shieber, 1986). Hauen ideia nagusia testuingururik gabeko gramatiken osagai sintaktikoei informazioa gehitzea da, ezaugarri-egituren bidez, eta osagaien arteko erlazioak informazio horren gaineko ekuaizioen bidez adieraztea. Euskararen kasuan, bere hitz-mailako fenomenoek aberastasuna eta tratatu beharreko egituren konplexutasuna aintzat hartuta, are eta beharrezkoagoa izango da baterakuntza erabiltzea.

Hau da Shieber-ek aurkezten duen erregela adibidea:

$S \rightarrow NP VP$

S head = VP head

S head subject = NP head

Oinarrian testuingururik gabeko erregela bat dugu, perpausa (S) osatzeko modu bat adierazten duena, baina erregela horri ekuazio bi gehitu zaizkio osagaien arteko murriztapenak adierazteko. Lehenengoak dio esaldiaren burua edo gunea (head) eta aditz-sintagmarena gauza bera direla, eta bigarrenak esaldiaren subjektua aditz-sintagmaren aurretik azaltzen den izen-sintagma hori dela. Ekuazio horiek aplikatuz ezaugarri-egitura bat izango da esaldiaren informazio sintaktikoa. Hona hemen adibide partzial bat:

cat: S				
head:	form: finite			
	subject:	agreement:	number: sing	
			person: 3	

Baterakuntzan oinarritutako zenbait formalismo garatu dira han eta hemen, horien artean PATR, LFG (euskararen sintaxiaren formalizaziorako erabilia Abaitua (1988) eta Zubizarreta-ren (1992) lanetan), GPSG (Gazdar eta beste, 1985) eta HPSG (Pollard eta Sag, 1994) aipa ditzakegu. Gure kasuan, formalismo hauetatik guztietatik PATR formalismoa aukeratu genuen euskararen deskribapena egiteko, bi arrazoi nagusi kontuan izanda: lehenengo, analizatzaile konputazionala egiteko oinarrian dugun EDBL datu-base lexikala erabili beharko dugu (Aduriz eta beste, 1998), eta datu-base honek ez du LFG edo HPSG moduko formalismo batek beharko lukeen informazio konplexu osoa. Bigarren, PATR formalismoa malgua eta sinplea da, eta honengatik erra-

zagoa izan da euskararen lehen tratamendua egiteko, ondorengo lanetarako HPSG edo LFGren inplementazioak baztertu gabe. Esan dugunez, testu erre-alak tratatzeko analizatzaile bat eraikitzea izan da gure helburua eta, beraz, (Abaitua, 1988) bezalako lanetan landu den gramatika konputazional sakona baino, nahiago izan dugu maizen gertatzen diren osagai sintaktikoak ezagutzea, honetarako PATR formalismo egokia izanik.

1. taulako gramatika txikiaren gainean azalduko ditugu PATR formalismoaren ezaugarri nagusiak:

<p>R1. $X0 \rightarrow X1 X2$ $X0$ kat = AS $X1$ kat = IS $X2$ kat = AS $X1$ kas = erg $X2$ azpikat erg kom = $X1$ kom $X0 = X2$</p>	<p>R2. $X0 \rightarrow X1 X2$ $X0$ kat = AS $X1$ kat = AS $X2$ kat = IS $X2$ kas = erg $X1$ azpikat erg kom = $X2$ kom $X0 = X1$</p>
<p>R3. $X0 \rightarrow X1 X2$ $X0$ kat = IS $X1$ kat = ize $X2$ kat = knmdek $X1$ azp = arr $X0$ gun = $X1$ $X0$ kas = $X2$ kas $X0$ kom = $X2$ kom</p>	<p>R4. $X0 \rightarrow X1$ $X0$ kat = AS $X1$ kat = adt $X0$ azpikat = $X1$ azpikat</p>

1. taula. Euskararen gramatika baten adibidea PATR formalismoan.

Lehen lerroko ezkerreko erregela (R1) aditz-sintagma bat (AS) eta izen-sintagma bat lotzeko erregela da. $X0$ osagaia (gurasoa) $X1$ eta $X2$ osagaiak konbinatuz lortzen da. Testuingururik gabeko erregela baten bidez ‘AS \rightarrow IS AS’ adieraziko genuke. Ekuazioek osagaien arteko murriztapenak adierazteko eta osagai sintaktikoak nola osatu behar diren zehazteko erabiltzen dira. Horrela, lehen hiru ekuazioek osagaien kategoriak zeintzuk izan behar diren zehazten du, erregela aplikatu ahal izateko. ‘ $X1$ kas = erg’ laugarren ekuazioak izen-sintagma hori kasu ergatiboan egotea eskatzen du. Bostgarren murriztapenak aditz-sintagma eta izen-sintagmaren arteko komunztadura (numero, mugatasuna eta pertsona) egiaztatzeko balio du. Seigarrenak (‘ $X0 = X2$ ’) dio gurasoa aditzaren proiektzioa dela eta, beraz, beraien informazioak berdinak direla. R2 erregelak gauza bera adierazten du, baina osagaien ordena aldatuz, hau da, ‘AS \rightarrow IS AS’. Modu honetan euskararen ordena librea tratatzen da.

Antzeko erregelak definitu beharko dira izen-sintagma absolutibo eta datiboen-entzat, baita adizlagun eta mendeko esaldientzat.

1. taulako bigarren lerroan izen-sintagma osatzeko R3 erregela agertzen da ('IS → ize knmdek'). Horrela, izena eta kasu eta numeroaren marka daukan atzizkia lotuko dira. R4 erregelak dio kasurik sinpleenean aditz trinko bat aditz-sintagma dela. Hasierako aditz-sintagma honetatik abiatuta izen-sintagmak eta adizlagunak lotuko zaizkio ezker eta eskuinetik, esaldi konplexuak sortuz:

L1. X0 sar = dakar X0 kat = adt X0 azpikat erg kom num = hu X0 azpikat abs kom num = hu X0 err = ekarri	L2. X0 sar = dakarte X0 kat = adt X0 azpikat erg kom num = hk X0 azpikat abs kom num = hu X0 err = ekarri
L3. X0 sar = ak X0 kat = knmdek X0 kas = abs X0 kom num = hk X0 kom mug = m	L4. X0 sar = ek X0 kat = knmdek X0 kas = erg X0 kom num = hk X0 kom mug = m
L5. X0 sar = gizon X0 kat = ize X0 azp = arr	L6. X0 sar = txakur X0 kat = ize X0 azp = arr

2. taula. Euskararen lexikoi baten adibidea PATR formalismoan.

2. taulan lexikoi baten adibidea dugu. Lehen bi sarrerak (L1 eta L2) aditzak adierazteko dira. Aditz bakoitzeko bere kategoria (*adt*, aditz trinkoena) eta komuntadurari buruzko informazioa agertzen da. L1 sarreran, adibidez, *dakar* aditza nor-nork motakoa dela adierazten da eta, gainera, *ergatibo eta absolutibo* diren osagaiak singularreko hirugarren pertsonan (hu) doazela. L2 sarreran, *dakarte*-ren kasuan, *ergatibo* den osagaia pluraleko hirugarren pertsonan (hk) doala adierazten da. L3 eta L4 sarrerak kasu-marka atzizkiak deskribatzeko dira, adibide horietan *ergatibo-singularra (-ak)* eta *ergatibo plurala (-ek)*. Azken lerroan bi izen arrunt agertzen dira.

Lexikoi hori eta 1. taulako gramatika hartuta, analizatzaile sintaktiko batek erabaki dezake 'gizonek *dakarte*' edo '*dakar txakurrak*' esaldi zuzenak direla eta, aldiz, 'gizonek *dakar*' bezalakoak okerrak, ez baitu betetzen komuntadura egotea eskatzen duen murriztapena ('X2 azpikat erg kom = X1 kom' 1. taulako R1 erregelako murriztapena).

PATR formalismoaren adibide hori ikusita, hurrengo atalean euskararako landu dugun gramatikaren azalpena emango dugu.

3. GRAMATIKAREN DESKRIBAPENA

Euskararen sintaxiaren tratamendua egiteko, hauek dira kontuan izan ditugun aspektu nagusiak:

- Morfema izan da analisiaren oinarritzko unitatea deskribapen gehienguan, (Goenaga, 1980; Abaitua, 1988), eta berdin euskararen antzeko hizkuntzentzat ere. Honek esan nahi du bai morfologia bai sintaxia, egitura sintagmatiko beraren osagaiak kontsidera daitezkeela, beraien arteko muga argirik gabe. Adibidez, 'gizon + handi + -a' sintagman, -a morfema sintakoki ez da lotzen adjektiboarekin, baizik eta izen-mul-tzoarekin; horrela deskribapen gramatikala orokorrago eta sinpleagoa eginez.
- Informazio aberatsa dago lexikoian. Osagai lexikal bakoitzak (eta osagai horiek oinarritzat hartuz sortutako osagai sintaktikoak ere), informazio desberdina dauka: kasua, mugatasuna, funtzio sintaktikoa, ... Informazio hori guztia konbinatzea izango da gramatika sintaktikoaren einkizun nagusia.
- Aditzaren azpikategorizazioa oraindik landu gabe dago. Aditza elementurik funtsezkoena izango da sintaxiaren deskribapenean, teoria sintaktikoetan zein sistema aplikatuetan. Aditzaren informazioan azpikategorizazioarena da konplexuena, aditz bakoitza zein motatako osagaiekin konbinatzen den zehazten duena. Euskararen kasuan, nahiz eta aditz laguntzaileak informazio asko eman (subjektu, objektu zuzena eta zeharkako objektuaren kasua, numeroa, eta pertsona), oraindik EDBL datu-base lexikalean aditz nagusi bakoitzaren informazio propiorik ez dago.
- Aditzaren komunztadura subjektu, objektu zuzena eta objektu ez zuzenarekin. Euskaraz komunztadura dago aditza eta ergatibo, absolutibo eta datibo kasuko osagaien artean.
- Perpaus-mailako osagai sintagmatikoen ordena librea. Jakina da euskaraz perpausaren osagai nagusien ordena libre samarra dela. Hau da, sub-

jektua, objektua, adizlaguna eta aditza emanda, beraien permutazio guztiak (hogeita lau) dira posible:

Txakurrak egunkaria ahoan zekarren.
subj obj adlg aditza

Esan behar da ere malgutasun hori perpaus-mailan bakarrik ematen dela, beste osagaietan (izen-sintagma edo mendeko perpausak adibidez) askoz mugatuago dagoelako.

Gramatikaren azalpenarekin hasteko, ikus dezagun lehenago zelako izen-sintagma edota adizlagun onartzen dituen gure gramatikak, eta geroago aztertuko dugu perpaus-mailakoa. Izen-sintagmaren mailan hiru eraketa posible bereizi ditugu:

1. Buru gisa izen arrunt bat dakartenak. Azkeneko hitzean deklinabide-atzizkia etortzen da beti (*knmdek* esaten diogu horri). Izenaren aurretik izenlagun bat (*izlg*) edota determinatzaile bat (*det*) aukerazkoak dira. Atzetik adjektibo bat (*adj*) edota determinatzaile bat (*det*) aukerazkoak dira. Ekuazioen bidez kontrolatzen da zer determinatzaile etor daitekeen aurretik eta zein atzetik:

(izlg) +	(det) +	ize +	(adj) + (det) + knmdek
<i>etxeko</i>		<i>altzari</i>	<i>zahar hori__ekin</i>
<i>etxeko</i>	<i>lau</i>	<i>altzari</i>	<i>zahar_____etan</i>
<i>etxeko</i>		<i>altzari</i>	<i>zahar_____ari buruz</i>

2. Buru gisa izen berezi bat dakartenak. Izen bereziaren aurretik izenlagun bat aukerazkoa da, baina ez da onartzen determinatzailearik, ezta adjektiborik ere eraketa mota honetan:

(izlg) +	izb	+	knmdek
<i>Donostiako</i>	<i>Peru_____ri</i>		

3. Buru gisa izenorde bat dakartenak. Deklinabide atzizkia baino ez da onartzen kasu onetan.

ior	+	knmdek
<i>ni_____ri</i>		

Horrelako egiturak onartu ahal izateko, osaketa sinpleenetik hasi eta konplexuenera heltzeko, *is1*, *is2* eta *is3* kategoria laguntzaileak bereizten ditugu. Osaketa konplexuena biltzen duen *is3* motako osagai bati deklinabide-atzizkia (*knmdek*) lotuz *isk* lortzen dugu. Definitzen ditugun *isk* horiek ez dira izen-sintagmak bakarrik, izen-multzo bati edozein deklinabide-atzizki erantsita lortzen diren guztiak baizik. Beraz, *isk* horiek batzuetan izen-sintagma eta beste batzuetan adizlagun ditugu, beraien arteko diferentzia nagusia kasua delarik.

Deklinabide-atzizkia modu orokorrean hartzen dugu. Kasu, numero eta mugatasunaren informazioak dakartzan atzizki multzoari *knmdek* esaten diogu. Are gehiago, posposizio kasuetan (adibidez *-ari buruz* edo antzekoak erabiltzen ditugunean) atzizkia bera gehi beste hitz bat ere hartzen du *knmdek* delako horrek.

Analizatzen diren izen-sintagmen osaketa ondoko erregela³ hauetan ikus daiteke:

is1 → *ize adj* *etxe EDER*
 | *ize* *etxe*

is2 → *det is1* *ZENBAIT etxe eder*
 | *is1 det* *etxe eder BAT*
 | *is1* *etxe*
 | *izb* *JON*

is3 → *izlg is2* *MENDI HORRETAKO zenbait etxe eder*
 | *is2* *zenbait etxe eder*
 | *ior* *ZU*

isk → *is3 knmdek etxe ederrEKIN*
 mendiko zenbait etxe ederrAK
 mendiko zenbait etxe RI BURUZ

Izen-sintagmaren deskribapena bukatzeko esan dezagun izenlagunaren egitura nagusiak *isk* osagaien egitura bera duela, baina kasua genitiboetako bat izan beharko dela:

izlg → *is3 + knmdek(gen/gel)* *mendi horretaKO*
izlg → *as + erlt* *nik ikusi duDAN*

³ Benetako erregelen sinplifikazioa erakusten dugu hemen. Hauek ez dira gure gramatikako erregelak osotasunean, horiek murriztapenak adierazteko eta osagai sintaktiko berriak sortzeko ekuazio-multzoa izango baitute.

Perpaua analizatzeko orduan subjektua ez dugu bereiziko eta horrela perpaua aditz-sintagma gisa hartuko dugu beti. Aditz-sintagma sinpleena aditza besterik ez duena da; aditz trinkoa zein aditz erroa gehi laguntzailea, aukera biak onartzen dira. Aditza ezagutu ondoren aditzaren ezker zein eskuinaldean ager daitezkeen osagaiak banan-banan onartuko dira, ondoan azalduko ditugun erregelak erabiliz:

1. Kasu nuklearrak analizatzeko erregelak. Ergatibo, absolutibo edo datibo kasuak hartzeko erregela hauetan ekuazioen bidez numero, kasu eta pertsona ezaugarrien komunztadura egiaztatzen da. Horrela, esate baterako, **Peruk txakurrak ekarri du* bezalako esaldiak ez dira onartuko. Erregelak bikoiztuta daude kasu horiek aditzaren aurretik zein atzetik onartu ahal izateko:

as → *isk(erg) as* *GIZONEK ikusi dute*
as → *isk(abs) as* *GIZONAK ikusi dituzte*
as → *isk(dat) as* *GIZONARI eman dio*
as → *as isk(erg)* *ikusi dute GIZONEK*
as → *as isk(abs)* *ikusi dituzte GIZONAK*
as → *as isk(dat)* *eman dio GIZONARI*

2. Adjuntuak tratatzeko erregelak. Ergatibo, absolutibo edo datibo ez diren kasuak hartzeko erregelak dira hauek. Hemen eta hurrengo puntuetan ez ditugu erregelak era bikoiztuan erakutsiko, baina suposatu behar da elementua aditzaren atzetik ere onartzeko beste erregela bat definitu dela:

as → *isk(ez da abs, erg edo, dat) as* *GIZON HORREKIN ikusi dute*

3. Adberbioak tratatzeko erregelak:

as → *adb as* *GAUR egin dut*

4. Mendeko perpauak tratatzeko erregelak: konpletiboak, zehargalderak, moduzkoak eta denborazkoak:

as → *mend-modu-denb as* *HONA NENTORRELA ikusi dut*
as → *mend-zehargaldera as* *EA JOAN DEN galdetu du*
as → *mend-konp as* *ETORRI DIRELA jakin da*

Guztira 90 erregela definitu dira eta batez beste 15 ekuazio ditu erregela bakoitzak. Esan bezala erregelak hemen aurkeztu baino konplexuagoak dira, bai notazio aldetik, bai ekuazioen aldetik, bai ñabarduren aldetik. Erregela baten (*is3* (*izlg* + *is2*)) benetako itxura ikus daiteke hemen:

X0	→	X1, X2	
X1	kat		= izlg
X2	kat		= is2
X0	kat		= is3
X0	sint kom		= X2 sint kom
X0	gunelex		= X2 gunelex
X0	sint osgk izlg		= X1 sint izlg
X0	sint osgk adj		= X2 sint osgk adj
X0	sint osgk detaur		= X2 sint osgk detaur
X0	sint osgk detatz		= X2 sint osgk detatz
X0	sint nag kom		= X2 sint nag kom
edo[eta[X2 gunelex nag kat		= eli,
	X0 forma		= X1 forma],
	X0 forma		= \$(\$ (X1 forma, "+"), X2 forma)]

Zer analiza dezake gramatika honek? Zein da bere estaldura? Maila lexikoan oso estaldura handia dagoenez (EDBL datu-base lexikaleko 70.000 sarrerak erabiltzen dira analisisian) esan dezakegu testu errealetako ia izen-sintagma eta adizlagun guztiak analiza daitezkeela. Berdin esan dezakegu esaldi sinpleen kasuan, hau da, esaldian puntuazio-markarik gabe honelako elementuen sekuentzia agertzen bada:

- Aditza
- Kasu nuklearrak (ergatibo, absolutibo eta datiboa)
- Adjuntuak
- Adberbioak
- Nominalizazioak
- Erlatibozko menpeko perpausak
- Konpletibo menpeko perpausak
- Moduzko menpeko perpausak
- Denborazko menpeko perpausak
- Zehargalderak


Adibide erreal gisa, hauxe da euskara-ikasle batek idatzitako corpus bate-tik atera dugun esaldi bat gramatikak osorik analizatzen duena: '*Jakina da*

' Analizatzaileak onartu du '*antzarik*' hitz okerra. Hori gertatu da hitzak aztertzean morfologiako errore tipikoak tratatzeko gai delako.


gaurko gizonak daraman bizimoduak ez duela antzarik antzinako gizonen zeramatzatenekin.

4. ADIBIDEAK

2. irudian *'gure etxe polit bark'* izen-sintagmari dagokion analisia ikus daiteke. Hor *'gure'* izenlaguna eta *'etxe polit hura'* *is2* bilduz *is3* motako osagai bat lortu da, eta berau *'ak'* deklinabide-atzizkiarekin batuz lortu du gramatikak hitz-kate osoa *isk* gisa ezagutzea. 3. irudian *'etxera zetorrela jakin du'* aditz-sintagmari dagokion analisia ikus daiteke. *'etxera zetorrela'* mendeko perpaus kompletibo gisa lotzen zaio esaldi nagusiari:



2. irudia. *'gure etxe polit bark'* izen-sintagmaren zuhaitz sintaktikoa.




3. irudia. 'etxera zetorrela jakin du' esaldiaren zuhaitz sintaktikoa.

5. ZUHAITZ SINTAKTIKOAK IKUSTEKO TRESNA

Erakutsi ditugun adibideetako esaldiak oso laburrak izan dira eta hala ere pantailan testu moduan lortzen ditugun emaitzak luzeak dira. Testu errealeta-ko esaldiak analizatzean lortzen diren emaitzak oso-oso luzeak dira, alde bate-rik esaldiak luzeak direlako, eta bestetik osagai sintaktiko bakoitzak informa- zio aberatsa duelako. Horrelakoetan ez da batere eroso emaitzen azterketa. Emaitzak zuhaitz gisa bistartzeko tresna bat garatzen ari gara arazo horri eki- teko (Lopez de Lacalle, 2001). Sistema horretan posible da zuhaitza ikusteko leihoa ezker-eskuinera eta goitik behera mugitzea eta gainera aukerak gehitu dira nodoetako informazioak osorik edo partzialki erakusteko. 4. irudian ikus daiteke 'altzairu zahar horiekin' adizlagunaren emaitza. Bertan nodo batzue- tan ezaugarriak erakusten dira eta beste batzuetan ez, azken hauetan informa- zio-ezkutatze hori puntu lodi batez adieraziz. 4. irudiko pantaila horretan azpizuhaitz bat aukera daiteke eta tamaina handiagoan ikusi gero 5. irudiko

pantailan ikus daitekeen bezala. Modu horretan zuhaitz handietan nabigatu ahal izango da, zuhaitzaren adarrak ezkutatu edo informazio sintaktikoak handituz. Gure epe laburreko helburua izango da tresna honen bidez esaldien analisiak aztertu eta corpusen azterketa egin ahal izatea.



4. irudia. 'altzairu zahar horiekin' adizlagunaren zuhaitz sintaktikoa

ISK	[KAT	isk]
		AZP	arr	
		KAS	soz	
		LEX	minus	
		LEMA	altzairu	
		KATEA	altzairu zahar horiekin	
		FSL	@adlg	
			< altzairu zahar horiekin >	


IS4	[KAT	is4]
		AZP	arr	
		KAS	soz	
		LEX	minus	

5. irudia. 4. irudiko zuhaitzaren zati bat erakusteko leihoa

6. HITZ MAILAKO GRAMATIKA MORFOSINTAKTIKOA

Gramatika sintaktiko bi garatu ditugu. Bat, orain arte artikulatu honetan deskribatu duguna, esaldiak analizatzeko balio duena, eta bestea hitz-mailako analisi morfosintaktikoa lortzeko erabiltzen dena. Beste hainbat hizkuntzatan ez, baina euskaraz bigarren bertsio hori beharrezkoa da hainbat prozesaketa egin ahal izateko, hala nola, hitzen kategoria-etiketatzeko automatikoa edo desanbiguazioa, lan hauetarako definitu diren formalismo askotan (hitzen desanbiguazio estatistikoa edo murriztapen-gramatiketan egiten den bezala) hitza delako analisirako unitatea. Kontua da euskaraz hitz solteak analizatzeko ere esaldi mailako egiturak errepresentatu behar izaten ditugula. Nola errepresentatu bestela ‘emetasunarena’ edo ‘zekarrenarekin’ bezalako hitzak? Ikus 6. irudian nolako analisi-zuhaitza lortzen den ‘emetasunarena’ hitza analizatzeko. Zuhaitz horretan agertzen da hitz horren azpian elidituta dagoen osagaia (‘emetasunaren -X-a’ sintagmaren parekoa).

Beraz, hitz isolatuen analisi sakona lortzeko ere gramatika oso bat definitu behar izan dugu (Aduriz eta beste, 1999, 2000). Noski, esaldi mailakoan baino sinpleagoa da, eta hainbat erregela oso antzekoak dira gramatika bietan. Esaldi mailakoan 90 erregela definitu dira, eta hitz-mailakoan, berriz, 45 erregela nahiko izan dira.



6. irudia. ‘emetasunarena’ hitz-formaren hitz-mailako analisia.

7. ONDORIOAK

Lan honetan euskarazko analizatzaile sintaktiko konputazionala aurkeztu dugu. Maila lexikoan oso estaldura handia duenez (EDBLko datu base lexikaleko 70.000 sarrerak erabiltzen dira analisisian) esan dezakegu testu-corpusetatik (egunkariak edo testu idatziak) izen-sintagmak eta adizlagunak tratatzeko estaldura ia osoa dela, eta esaldi sinpleak analizatzen ere egokia dela.

Espero dugu tresna hau hizkuntzalarientzat baliagarria izango dela etorkizuneko euskararen gramatika oso baten hazi gisa, edo beste azterketetarako corpusak eta adibideak biltzeko. Alde konputazionalago batetik, analizatzailerak erabilgarria da zenbait aplikaziotarako: informazioaren erauzketa edo desanbiguazioaren aurretik hitzen eta sintagmen analisiak osatzeko. Aplikazio hauek garatzeko, gure helburua tresna hauek hizkuntzalaritza konputazionalan lan egiten ari den komunitatearen eskuetan jartzea izango da.

Gramatika osatzeko bidean, eta garrantzi handiko hurrengo pauso gisa, aditzen azpikategorizazioari buruzko informazioa behar dugu esaldi-mailako analisi sakonak egin ahal izateko. Orain arte egindako gramatika hau erabiltzen ari gara aditzen informazio hori automatikoki lortzeko, testu idatzietako informazioa analizatuz, eta emaitza onak lortu dira (Aldezabal eta beste, 2001), nahiz eta oraindik jorrazteko bide luzea dugun.

8. BIBLIOGRAFIA

ABAITUA, J. 1988. *Complex predicates in Basque: from lexical forms to functional structures*. Doktoretza-tesia, University of Manchester.

ABAITUA J., ADURIZ I., AGIRRE E., ALEGRIA I., ARREGI X., ARTOLA X., ARRIOLA J.M., DÍAZ DE ILARRAZA A., EZEIZA N., GOJENOLA K., MARITXALAR M., SARASOLA K., URKIA M., ZUBIZARRETA J.R. 1992. *Estudio comparativo de diferentes formalismos sintacticos para su aplicacion al euskara*. Barne-txostena, UPV/EHU/LSI.

ADURIZ I., AGIRRE E., ALDEZABAL I., ARREGI X., ARRIOLA J.M., ARTOLAX., GOJENOLA K., MARITXALAR A., SARASOLA K., URKIA M. 1999. *MORFEUS: Euskararako analizatzaile morfosintaktikoa*. Barne-txostena, UPV/EHU/LSI/TR 1-99.

ADURIZ I., ALDEZABAL I., ANSA O., ARTOLA X., DÍAZ DE ILARRAZA A., INSAUSTI J. M. 1998. *EDBL: a Multi-Purposed Lexical Support for the Treatment of Basque*. Proceedings of the First International Conference on Language Resources and Evaluation. Vol II. pp 821-826. Granada. Maiatza 28-30.

ADURIZ I. 2000. *Morfologiatik Sintaxira Murriztapen Gramatika baliatuz*. Tesi-txostena, Euskal Filologia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea.

ADURIZ I., ARRIOLA J. M. 2002. *Euskararen murriztapen gramatika. Desanbiguazio morfologikoaren tratamendua, azterketa sintaktikoaren lehen*

urratsak eta aplikazioak. P. Lafitteren sortzearen mendemuga, Euskaltzaindia (Gramatika batzordea), Baiona.

ALDEZABAL I., ARANZABE M., ATUTXA A., GOJENOLA K., SARASOLA K., GOENAGA P. 2001. *Extracción masiva de información sobre subcategorización verbal vasca a partir de corpus*. Congreso Anual de la Sociedad Española para el Procesamiento del Lenguaje Natural, Jaén.

ARRIOLA J.M. 2000. *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegi-ko informazio lexicakalaren erauzketa erdi-automatiko eta bere integrazioa sistema konputazional batean*. Doktoretza-tesia, Euskal Filologia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea.

CHOMSKY, N. 1957. *Syntactic structures*. The Hague: Mouton.

GAZDAR G., KLEIN E., PULLUM G., SAG I. 1985. *Generalized Phrase Structure Grammar*. Harvard University Press.

GOJENOLA K. 2000 *Euskararen sintaxi konputazionalerantz. Oinarrizko baliabideak eta beren aplikazioa aditzen azpikategorizazio-informazioaren erauzketan eta errorearen tratamenduan*. Doktorego-tesia. UPV-EHUko Informatika Fakultatea.

GOENAGA P. 1980. *Gramatika bideetan*. Erein

LOPEZ DE LACALLE J. 2001. *Euskararen analizatzaile sintaktikoaren interfazea*. Karrera-bukaerarako proiektua. Euskal Herriko Unibertsitatea, Lengoia eta Sistema Informatikoak.

KARLSSON F., VOUTILAINEN A., HEIKKILA J., ANTTILA A. 1995. *Constraint Grammar: A Language-independent System for Parsing Unrestricted Text*. Mouton de Gruyter.

KARTTUNEN L., CHANOD J-P., GREFENSTETTE G., SCHILLER A. 1997. *Regular Expressions For Language Engineering*. Natural Language Engineering.

POLLARD C., SAG I. 1994. *Head-Driven Phrase Structure Grammar*. The University of Chicago Press.

SHIEBER S.M. 1986. *An Introduction to Unification-Based Approaches to Grammar*. CSLI Lecture Notes, 4 zenbakia, Stanford.

ZUBIZARRETA J.R. 1992. *Un modelo funcional de diálogo para diálogos orientados por la tarea*. Doktoretza-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea.

ERRETORIKA GRAMATIKAREN GAINETIK: HIRIART-URRUTI ADIBIDETZAT

X. Altzibar

ATARIKOAK

1. Iragan hurbileko euskal idazle erretoriko batzuen lumari pindar eta su darie. Hizkuntzaren gramatika eta hiztegi pusketeria xotilki landuz, ohiko adierazpideak, joskurak eta doinua aldatu dituzte, irakurleen gogo atzeman nahian. Are gehiago: mintzaldiari indar emateagatik, gramatikako legeak hausteraino iritsi dira. Hitz lauzko idazle zenbaitez ari naiz, jakina, neurtitzetan onetsiago eta gertagarriago baita ohiz kanpoko mintzaira eta lege haustea. Gure lekuko nagusiaz gainera, aipa genezake Salvatore Mitxelena, Unamunoren pentsaera euskaraz isuri ziguna (*Unamuno eta Abendats*, 1957). Eta bilbotar filosofoa bera (idazle erretorikoa nonbaitik!), euskaraz idatzi izan balu.

Izatez, eta batzuetan egitez ere, idazleek badute gramatikarena baino lege nagusiagorik: sormenarena, idazkeraren askatasunarena, hegatsak damaien gozoarena. Edo pragmatikoagorik: mintzaldiaren adierazkortasunarena. Hortik beraz normatik urrunduriko mintzaira erabiltzeko joera, hizkuntza errebertitzekoa, hizkuntzaren legeak hausteko ausardia eta trebetasuna.

Hona, diodanaren erakusburu bat: “Etsairik gabeak” artikuluan (1897) Hiriart-Urruti apaiz kazetari gudukari alderdikari xuriak diosku ororekin adiskide ezin dela izan, gaiztaginekin esaterako (alabaina gorriak baitira harentzat gaiztagin horiek):

“Bertzalde, *ahal* bazinu ere, azken beltzean, etsairik gabe zure bizia iragan, ez lakikezu haizu; ez litake zuzen, ez eta zuhur. / Bakotxa guretzat baka-

rrik bagine mundu huntan, oraino nonbeit hor. (...). / Bainan ez baikira ordean bakotxa bederazka zoin gure gain. Gure zuzenetan elgar behar baitugu lagundu; esku eman elgarri. Ohoinak eta bertze gaizki-egileak behar baititugu elgarrek elgarren lurretarik urrundu.” (E 1897-1-15 “Etsairik gabeak”; ik. *Zezenak Errepublikan* 87).

Elgarrek formak gramatikan ez du egun lekurik (EGLUPB 68). Testuan ikus daitekeenez, idazlea hitz batzuk dobla eta errepika ari da (*bakotxa*, *gure*, eta bereziki *elgar*), efektu erretorikoaren bila. *Elgar* hitzaren errepikatze hori, ideia buruan iltzatzeko ez ezik *pathos* erretorikoaren adierazle da; hots, hizlariak sentitzen eta sentiarazi nahi duen emozioaren. Horregatik *elgarrek elgarren-en* orde *bakotxak gure* edo *zoinek gure* edo besteren bat jarri izan balu, ez zukeen hainbesteko indarririk izanen.

Ordea, argudia dezake norbeitetik, *elgarrek* egungo gramatikan lekurik ez badu ere, kasu aktibo normal gisa ageri dela HUK ongi ezagutzen zuen Ithurrirenean (G 33). Egia luke ...beste *elgarrenki* bat agertuko ez balitz (“aneiak, elgarrenki”, E 1435; ik. *-ki* atzizkiak mintzatzean).

Hona beste adibide bat, HUren mintzaira sortzailearen erakusle. “Sos berria dantzan” artikuluan, dirua behar gabe ez dela xahutu behar predikatze-ko —hots, kontsumismoaren kontra—, hona nola adierazten digun udan jendeak batetik bestera ibiliz eginiko gastua:

“Nork eztu ikusi, udan, iguzkiak sos berri gaixoari burua gainbehera erretzen diolarik; laneko jendeak zenbeit oren itzalean egoitearen gutizia behar lukelarik; nork eztu ikusi uda betean, eguerdi iriko bero saminaren erdiz erdi, *aiaino* doala sos berria; karrosa karrosaren gainean, mukurru beterik oro bide (...) gabe uzkaitezko heineraino? burutik oinetara saltsa bezala apaindurik; hedoi bat errautsetan joaki, joaki! Norat? Ontsa daki!

Errauts hura bera, bertzeak bertze, zer uste duzue dela?. —Lur xigor porroskatua? —Ez, Manex, ez. —Eta zer beraz?. — Galdatu ere be(har?). Sos berria. Zahar beldurrez urtzerat har...joaki; xehe-xehea bidean choz, karrosen eta zaldien azpian. Eho eta ora, izerdia ur...gatz beharrik ez; altxagarriak eta oro berak berekin; iguzkia su; itzulipurdika doala kantuz eta dantzan?” (E 1142 “Sos berria dantzan”).

Azpimarraturiko *har...joaki* honela azal daiteke: idazlea “urtzerat joaki” esatera doa eta, ustekabean, *joan* aditzaren hoskide den *joa*-ren laguna bila eta, *harjoa* (< harrak joa) *izan* / *eduki* esapide irudizkoarekin jokatu, edo *harjoa* izenondoarekin, jauzte harrigarri baten bidez esanahia aldatzen du. Berriz ere gramatika legeak bortxatuz, *harjoa* izenondoak edo izenak ezin onar baitezake *-ki* adizkien atzizki puntukaria.

Ohargarri denez, idazlea irudi bidezko mintzairaz eta umoreaz baliatzen da, ariketa literarioa dirudien testu honetan (eta artikulua osoan). Besterik da *Eskualdunako* irakurleek ulertzen ote zuten beti idazlearen mintzatzeko era hori, zeren, kasu honetan, solas berazko aurreko artikulua ulertu ez zutelako, *sos berria* zer zen azaldu behar izan baitzuen bigarren honetan: hots, eskutik eskura maiz aldatzen den dirua.

Erakusburu bi hauetan ikus dezakegunez, idazlearen xedeak eta mintzaira erretorikoak dira, nahiz bigarrenean tresneria estilistiko aberatsagoaz baliatzen den. Izan ere, Erretorika hitzaldia eraikitzeke jakintzat ez ezik antzetzat ere hartzen da, sentikortasunarekin jokatzeko duen artetzat. Hots, logika eta gramatikaren formalismoaz haratagokoa eta idazle eta irakurlearen elkar aditzean oinarritua: intuizioaz jokatzeko, idazleak sujeritu nahi dio irakurleari, eta honek antzematen daki hori. Hortaz adimenak lekua husten eta uzten dio sentikortasunari. Irakurleekiko elkar aditze horretan idazlearen *ethos* edo sinesgarritasunak, irakurlearen begietan duenak, asko laguntzen du.

2. Honela bada, idazle onak direla hitzunik sortzaileenak uste baitut, eus-kara idatzi landu eta apainduaren bi alde bereiztea zilegi bekit: bata, erabilera estilistiko, sorkuntzazko, ez ohikoena. Bestea, gramatikaren legeen hauste berriazko edo transgresioena, hitzunik gehienek —mintzaira arrunt, komundu eta anonimoan bederen— gramatika zuzentasunaren izenean onartuko ez lituzketenena. Gramatika zuzentasunaren kontzientzia izan badu hizkuntza eskolan ikasi duenak, eta askotan ez duenak ere; transgresioa, aldiz, gramatika legeak ezagututa, horiek jakinaren gainean haustea da.

Bada beste transgresio mota bat, haurrena, gramatika legeak jakin gabe baina logikatasun guztiz egina, adib. ume batek galdetzen dizunean “Eta zu nork *jai*o zaitu?” (“Zure ama nor da?”). Zeren gramatikak agintzen baitu “Zu nork sortu zaitu?” esan behar dela, eta debekatzen “Zu nork *jai*o zaitu?”. Eta sei bat urteko umeek badakite Parisetik ez datozeela, amak *zertzen* dituela, eta hori adierazteko mendebaldean *jai*o aditza dago (ez *sortu*), eta beraz, haiek diotenez, amak *jai*otzen ditu. Eskolak eta hiztegiek, ez logikak, aginduko die *sortu* aditzak nor edo nor-nork erregimena behar duela, eta *jai*o aditzak, ordea, ez duela nor-nork onartzen.

Idazleen erabilerara itzuliz, erabilera estilistikoaren eta gramatika lege-hausteen alde horiek biak ez dira elkarrengandik bereizterrazak. Eta gainera estilistikotzat har daitezke gramatikaltasuna hausten dutenak ere. Beraz, izenburuaz den bezainbatean, “Erretorika gramatikaren gainetik” egokia denetz ez dakit xuxen. Esan nahi dudana da idazle erretoriko batzuek morfologia, hitz sorkuntza nahiz joskeran egin dituzten bihurketa edo transgresioen

gakoa ere erretorikan dagokeela. Baina agian “Estiloa gramatikaren gainetik” izenburutzat ematea egokiagoa izan daiteke, hemen aipatuko ditugun fenomenoak, *estiloa* estalki dutela lasaiago eta zabalago koka daitezkeelakoan.

Ongi dakizuenez, Erretorika zahar normatiboaren arabera, *elocutio* edo adierazkeraren arloan, hizkuntzari dagokionez, baziren lege batzuk: horien artean *variatio* eta hitz eta egitura ohargarriak eta ez ohikoak erabiltzea. Hiriart-Urrutik bere seminarioko ikasketetan ongi ikasi bide zuen Erretorika, hain zuzen 1885ean goi-mailako irakaskuntzatik kendu zutena Frantzian.

Hemen aipatuko ditugun erabilera bereziak hautatu egiten ditu idazleak. Eta ez arruntki erabiltzen, noiz edo behin baizik, askotan forma normalen ondoan edo haiekiko kontrastasunean. Urritasunak ematen die indarra, ez dira nonahi eta nolana erabiltzekoak. Zeren Hiriart-Urrutik, irakurleen gogoia atzemateko, mezua argitzen eta azaltzen baitu, hitz eta irudi bidez, sinonimia hartuz lanabes nagusi; horrela, testuinguru osoan ongi ulertzen dira haren hitz, lokuzio eta irudiak, testuinguru osoa baitaki lantzen trebeki. Eta predikatu nahi dituen ideiak irakurleari argitu ez ezik hizkuntzarekin jostatzen da.

3. Jean edo *Manex* Hiriart-Urruti (1859-1915) lapurtarra zen, Hazparnekoa, apaiza eta kazetaria. Ez bedi nahas haren ilobarekin (1927-1990), izen berekoa, apaiza eta kazetaria hau ere, *Herriaren* zuzendari ohia. Gure Hiriart-Urruti (HU laburduraz) *Eskualdunaren* idazle buruzagi izan zen¹. Kazeta hau 7000 lumero eta gehiago saltzeraino iritsi zen, bereziki haren eginahalei esker; beraz arrakastatua izan zen apaiz kazetagilea.

Euskal kazetaritzaren aitzindari eta idazle nagusietarik bat, orobat idazle bikain eta klasiko aipatua izan arren, ez dugu ezagutzen behar bezainbeste. J. Etxeparek haren idazkeraz ohar zorrotzak egin zituen². P. Lafitte izan da, batez ere, ondokooi ezagutarazi diguna. Huren kazetalanen antologia saila hasi zuen 1941ean, eta handik 30 urtera beste bi argitaratu³. Bereziki aipagarria da 1971koaren sarrerako azterlana. Orainsuagokoa da Iñaki Caminorena⁴. Halere, Lafitte eta Caminoren antologietako artikulu guztiak elkar jota, haren

¹ *Eskualduna* (1887-1903) (1908-1915). *Eskualdun Ona* (1904-1907). HU 1891 ingurutsutik izan zen idazle buruzagi.

² Etxepare, J. (1915) “Jean Hiriart-Urruti kalonjea (1859-1915)”; in Charritton: 1984: 171-175. — (1925) “Jean-Blaise Adema jauna (1861-1936)”, *Lecaroz*, 1925; in Charritton: 1984 *Jean Etxepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak*, Elkar. I, Euskal Gaiak: 225-233.

³ Lafitte, P. (1944) *Zer eta zer*, Collection “Aintzina”, Baiona. — (1971) *Jean Hiriart-Urruty. Mintzaira, aurpegia: Gizon!*, Jakin (hitzaurrearekin). — (1972) *Jean Hiriart-Urruty. Zezenak Errepublikan*, Jakin.

⁴ *Jean Hiriart-Urruty. Gontzetarik jalgiaziak*, EEE, 1994.

idazlanen ehuneko % 10era ere ez dira iristen, HUK astero-astero idatzi baitzuen *Eskualdunan* 25 bat urtez eta ez iritzi artikulua bakarrik. Milaka dira haren kazetalaran, baina, hasteko, zein diren finkatu beharko litzateke, estiloa ongi ezagutuz, ez baitzuten ia inoiz sinatzen. Nolanahi ere, kantitateak baino askoz axola handiago digu hark euskal prosari ekarritakoak⁵.

Hona hemen, labur, haren ezagutzailerik zorrotzenek esandako zer baztzu. J. Etxeparek 1915ean, bere irakaslea hil ondoan: “Euskararekin jostatzen zen haren luma”, “Eskual herriak etzuen oraino aditu ez ikusi, euskara halako jakitatearekin marruskatu duenik nehor”⁶. Lafittek 1941ean: idazle bikaina, hizkuntzaren sorgin liluragarria (“prestidigitateur”) izan zela, belaualdi oso bati euskaraz pentsatzen irakatsi ziona⁷. Kontatzen digu ere, J. Saint-Pierreri entzunda, beti ari zela erran modu berrien ondotik⁸. Saint-Pierre berak (hain zuzen HUKen ikasle eta honek *Eskualdunaren* zuzendaritzan bere ondoko nahi zuenak) diosku euskararen erran molde garbiak nahi zituela, frantses eta kaskoinarenak ahal bezain gutxi, bai eta non moztu, non leundu, non plegu berriak egin pentsaketa eta lantzen ari zela etengabe⁹.

⁵ Kazetalan-genero eta mintzaira erretorikoan hark euskal kazetaritzari ekarriaz, ik. nire “Zer dakarkio Hiriart-Urrutuk euskal kazetaritzari?”, Txillardegiri Omenaldia (inprimategian).

⁶ “Euskararekin jostatzen zen haren luma, zoin beren mintzaietan izkiriatzailerik aipatuena bezain zaloinki. Gutartean ez zuen parerik. Euskal Herriak etzuen oraino aditu ez ikusi, euskara halako jakitatearekin marruskatu duenik nehor. Amultsuki zerabilalarik bizkitartean, ume egiazko batek bezala, behinere zaurtu ez behartu ere gabe.” (in Charritton: 1984: 172).

⁷ “Il fut lui-même un écrivain hors classe, passant d’un étincelant bavardage à l’attaque passionnée, mordante, moqueuse, dans un style à pirouettes très populaire de ton, et pourtant d’une élégance raffinée. Il fut davantage: le maître incontesté de toute une génération, à qui il apprit à penser directement en basque, sans s’embarrasser des entraves de la phraséologie française.” (*Le Basque et la littérature d’expression en basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*. Conférence donnée au Musée Basque de Bayonne le 3 avril 1941. Coll. Aintzina. Ondoren, Abbadie-ri buruz dio: “Voici d’abord, moins souple peut-être, mais plus grand, M. le chanoine Abbadie, de Larressore: chez cet homme supérieur, dans tous les sens du mot, la pensée ne cabriole pas; le style non plus (...)” (ibid. Neuk azpimarratua)

⁸ “Saint-Pierre Jaun apezpikuaren arabera, Hiriart-Urruty eskolan noiz nahi, hats bahi, nehun ez zagoken, hitz xuxen edo erran-modu berri baten ondotik, haren xanoak burmurtzi edo jauziño batez salatzen baitzuen mila-buruan kausitu zuela”. *Les meilleures pages de Mgr. St. Pierre*, p. 43.” (*Mintz.*, 1971ko hitzaurrea).

⁹ “Eskuara mintzaia bazeraman bertzalde berak egina bezala, legun eta garbi. / Mintzaia zaharren berri dakitenek diote baduela bakotxak bere jitea eta ibil molde berezia, gogoak emaiten duen hura ez baitute bergisaz erranen, bainan bai bakotxari doakun molde hartan. / Xuxen eta garbi mintzatze horri gain gainetik jarraikia zen. Badut beldurra batzuek minbera kausituko dutela noiz edo noiz, Eskuara garbia maitegiz. Gertatzen da alabainan gutartean, sigi saga zonbeiten egitea, eskuara, frantses ala kaskoin. Ahal bezen guti nahi zuen ikusi hetarik. / Jauntzi gei poxi bat heltzen zitziolarik, behar zuen ikusi nun motz, nun legun, nun egin plegu berri bat, eta gisa hartan berregindurik agertuko zuen.” (*Les meilleures pages de Monseigneur Saint-Pierre*, Baiona, 1952, 204. or.).

Eskualdunako artikulu nagusia — egungo *editorial* delakoaren gisakoa— idatzi ohi zuen, “lehen mintzaldi” edo “lehen solasaldi” deitzen zuena. Kazetalan erretorikoak dira, argumentatiboak batez ere, politikagaez gehienik, *elocutio* edo adierazpide aldetik joriak eta egilearen mintzaira edo estilo bereziaren sormarkadunak. Apaindura erretoriko harrigarritz (figurak) josiak bertzalde. Izan ere, kazetaritza, eta iritzi artikuluetakoa zer esanik ez, erretorika baita nagusiki, eta halakotzat hartzen da egun ere: irakurle edo entzuleen gogoia atzemateko hitzalditzat.

HUK hizkuntzaren hots, irudi eta gramatika kategorია guztiak adierazkortasunez ustiatzen eta orrazten jakin zuen gutxik bezala. Artikulu honetan beraz, haren hitz, forma eta joscara berezi batzuk aipatuko ditugu, sorkuntzazkoak alde batetik, eta gramatikaltasuna hausten dutenak bestetik. Lehenik hitz sorkuntza arloan, ondoren morfologian eta azkenik joskeran. Ez dago zertan esan, hark erabilitako forma eta joscara batzuk Iparraldekoak eta garai hartakoak direla, eta segurki ez denak ohikoak egun; zahar kutsua ere badutela zenbaitek. Erakusburu batzuk aurkeztea dugu helburu nagusi; egilearen testuetatik ateratako adibideok gehienetan hautatu behar izan ditugu, ez baitira bakarrak. Irakurlea begiz errazago ohart dakien, neronek azpimarraturik ageri dira.

Atariko solasaldi luzexko honen ondoan, etxe barnera iragan aitzin eskerak bihurtu nahi dizkiet Baionako entzuleei, Euskaltzaindiari eta Iker taldeari. Milesker t’erdi, bihotzez, A. Arejita, P. Xarriton eta R. de Rijk-i, nire galderei gogo onez bezain jakintza sakonez erantzuteagatik. De Rijk jaunak aspaldi aipatu zidan artikulu honetako lehen adibidea, ordudanik ohartu bainintzaion.

I. HITZ SORKUNTZA

Joria da HUren hiztegia, Broussainek Lacomberi ohartarazi zionez¹⁰. Kazetari gisa, orotarik eta askotan xeheki idatzi zuen. Horretarako hitz bere-

¹⁰ “Sauf son fameux *beribil*, auquel il s’attachait avec une ténacité enfantine, il n’a employé que le vocabulaire de son époque et il l’a bien employé. Par le fait même qu’il était journaliste et partant obligé de traiter toutes sortes de sujets, il aura laissé un vocabulaire écrit beaucoup plus complet et plus varié que Lissarrague et Axular qui n’ont traité que des sujets religieux. Je ne parle pas du verbe, bien entendu. Mais peut-on demander à un journaliste qui écrit pour tout le monde d’employer des flexions verbales tombées en désuétude? On ne demande pas à un journaliste de Bordeaux ou de Toulouse de copier Rabelais ou de servir à des lecteurs des réminiscences des fabliaux du Moyen Age.” (Broussainek Lacomberi, Hazparne, 1915-XII-3, HU hil ondoren).

ziak (teknikoak) behar, eta arlo horretan euskara errones zela ohartuki, mailatu zituen, uste baino gehiago, haren garbizaletasuna batez ere euskal esamolde edo itzuli jatorren arlokoa baitzen. Hala ere, hitz tekniko nahiz orokorretarako bereziki atzizkien harrobia ustiatu zuen, halako soineko berririk inoiz edo gutitan jantzitako hitzik anitz erein zituen bere kazetalanetan. Esanahi berezi eta xehea eman zien ere, testuinguruan argi azaldua.

Harrieten hiztegia, Ithurriren gramatika, Duvoisin lanak (haren hiztegia ere?), Zaldubirenak, idazle zahar eta garaikideenak (Oihenart, Axular, Laphitz, M. Elizanburu, Arbelbide, Joanategi,...), *Fedearen Propagazioneko Urtekaria*, almanakak, etxean eta han-hor-hemen ikasitako hitzak eta esapidetak baliatu, erreberitu zituen, edo bestela sortu. Aipagarri da Ithurri adiskide mina zuela, eta honek, hiltzerakoan, eskuetaratu zion gramatikaren eskuizkribua gure idazleak argitara zuela bere oharrekin. Halaber Duvoisin *Laborantzako Liburua* argitara zuela *Eskualdunan* (1888-1889-1891), baita liburu gisa ere (1892). “Ez dugu uste baden eskuara garbiagoz eta gozoagoz eginik” idatzi zuen (E 285, 1892). Eta J. Etxeparek: “Hiriart-Urruty zenak aitortu zaundan behin, liburu haren irakurtzetik zitzakola barnean bere bizi guzikotzat piztu euskararen geroago hobeki idazteko karra” (Charritton: 1984: 251). Bizkitartean HU ez zen bakarka ari, ondoan baitzituen Abbadie eta Blaise Adéma apaiz kazetariak ere, nekazaritzaz eta Frantziako politikaz idazle astekariak.

Ohartarazi behar da, OEH hiztegian Lafitteren antologiako idazlanak bederen sartuak direla; hortaz gainerako idazlanetako hitz batzuk falta direla, eta *Herria* kazetaren aipuarekin agertzen diren hitz atzizkidun franko HUren kazetalanetan —liburu itxuran berriz argia ikusi gabeko horietan— ageri direla hain zuzen.

Bestalde, maiz entzuten baita ia erlijio liburuak eta literatur lan gutxi batzuk baizik ez direla argitaratu XX. m. edo ez dakit zein hamarkada baino lehen, hor dugu euskal kazetaritza, *Eskualdunakoa* besteak beste. —“Ez dugu ezagutzen”. —Beraz ez esistitzen?

1. Esanahi orokor nahiz bereziko hitz ugari eratorri zituen, artez eta moldez, euskal atzizki garrantzitsuenetarik (-ari, -dun, -dura, -eria, -gailu, -garri, -go, -kari, -keria, -ki, -kin, -kor; -tegi, -tiar, -sa, -tu,...). Bestetan bezala, arlo honetan ere Ithurriren gramatikak argi egin bide zion. Ondoren zenbait erakusburu aipatuko ditugu, hitz baliagarrietarik, horietako gehienak OEHn bildu gabeak (hiztegi horretako liburuki argitaratuak baizik ez ditut begiratu, lehen hamabiak).

Adibidez, *bozketari* ‘boz bila ari dena’ (boz eta bozketarik deno *bozketaririk* ez da faltako):

(Ostatuak gutitzeko legez) “Non litazke alabainan oraiko gizonak, ostatuena laguntza ez balute? Zenator, deputatu eta heien esku-makil, bozketari guziek badute ostatuena beharra. Zortzi, hamabortz, hogoi egun aitzinetik, bozaldi guziez, behazue nola dituzten, batzu lausenguz ahapeka, bertzek oihuka, gizon bozemaileak ostatuatarat deitzen, han arnoz eta espantuz, eta gezurrez hanturik atxikitzeko bozaren memento arte.” (E 1238 “Ostatuez”, III).

Egitegi ‘ola’, ‘zerbait egiten den tokia’ badauka OEHK, baina *egintegi* aldaeraz (Azkue *integi* R-uzt ‘taller’).

“Botoila eta bertze berinazko untzi egitegi handi bat ere bada” (E 437, 1895-11-1).

Mintzategi ‘tribuna’ ere bildua da OEHN, Lizardiren adibide batekin; baina HUK antzinago erabili zuen:

“ala deputatu eta zenaturren mintzategitik, ala kasetetan...” (EO 3 1907).

Lagungo ‘elkarte’, ‘zozietate’ gure egileak usu erabili ohi du:

“apez zaharren lagungoari” (EO 52 1906). E 1302n ere maiz.

Baina hitz polit hori (non -go atzizkiak ‘multzoa’ adierazten baitu), OEHN jasota dagoena, Euskaltzaindiaren HBn (Euskera 2000, 2) kendu egin da, behar gabe ene ustez.

Atzizki batzuk adierazkor edo estilistikoki erabili zituen, hitzak sortuz (adib. -kor, -garri):

“Legeak beti berrikor, aldakor balinbadire, (...)” (E 1236).

“Bana bertze, jende argitua baino (h)atzemankorrago da jende apal, deus ikasi ez ikusi ez duena, (...)” (E 1339 “Xarlatanak”).

Ondokoa, nahiz J. Etxeparerena den, -kor atzizkiaren erabilera estilistikoaren erakusgarri on dukegu:

“Zer lan xehe, xuhur, miragarria! (...). Orori badarite urre-dirdira ezti bat: altzeiruaren argi gaixtoak nundik-nahi baitu hautsi eta histu, zangoa osoki urrea izaitetik jauz zitaken iguzki-sista beroa. Bainan, ezti bada ezti, ez da bihotzerakorrago baizik” (JE, *Beribilez* 124) (OEH *bihotzerakor* ‘impresionante’, ‘emocionante’).

-garri maite du gure idazleak, adib. ondoko esapideen tankerakoei (izen + aditz) erantsiz:

“ferafutro denak utzirik ihesjoangarri litake, baldin ez bagine gure lanari ezin hautsizko lokarriz estekatuak” (E 738 “Eta lege hura?”).

Aditz sortzaile den (-ra / -ka / -tara / -zta) -tu- ere hedakortu zuen, Ithurriren bidetik (G 370-372):

“Gizona errota txar baten gainean ixtaklok firrindan ximixta bezala dabilkela hemen aipatzea bera (...). Hain da hori ja kasik...aspaldikatua.” (E 772, “Zenbat gauza berri!” art.).

-*dun* atzizkia daukan *erlijiodun* (HUK *erlisionedun*), ekarri badakar OEhk (ez HBk), haren ordez *erlijio*, *erlijiozko*, *erlijioso* onesten baitira. *Erljiodun* praktikoa eta erabilgarria da, hizkuntzaren goi mailako erabilera behinik behin: *erlijiodun* / *erlijiogabe* ; *erlijio gutidun* (HU *erlisione gutidun* ca 1911). Atzizkiaren erabilera estilistikoa ageri da “behardun xaharreri” modukoetan (E 635), labur beharrez eta *inversio* bidez eginikoa. Egun “beharra duten xaharreri” errazago entzun edo irakurriko genuke.

2. -*dun* atzizkiaren erabilera sortzaile eta ohi ez dena nabarmena da biloizik agertzen delarik, ezkerrean izenik gabe (OEh *dun* ‘aberats’). 1898an *impôt progressif* delakoaren kontra hara zer idatzi zuen HUK:

“Bizkitartean ez dute askok baitezpadako axolarik, aberatsen zergak izanik ere nahi bezain handi eta dorpe, baldin aberats ez direnak ahalaz gutituak balinbadire. Dunari ken dezola gobernamenduak behar duen, edo gutizia duken guzia. Dun ez dena, erran nahi, errumesa, deus-gabea edo gutiduna utz dezala deus galdatu gabe.” (E 572 “Zergen gora-behera”, 1898).

Ohart letrakera etzanez idazten dituela *Dunari* eta *dun* biloiz horiek. Azkuek Erronkariko adibide bat aipatzen du, baina haren hiztegia baino lehenagokoa da HUKen adibidea.

1907an, Gobernamendua seminarioez jabetu ondoan, seminario berriak eraikitzeaz apezpikuak idatzi gutunaren itzulpenean (HUKena, ustez) esaten da:

“Jadanik erran dautzuegun bezala, de Lormand zenak semenarioentzat (egin) utzite handia zelakotz, gure aitzinekoek ez dute gerokotzat deus handirik egin. Utzite hura hartu dauku lege berriak, eta orai artean dun ginen bezain gabe aurkitzen gira orai.” (EO 2 1907 “Jaun apezpikuaren letra Diosesako apez eta fededuner Semenarioen eraikitzeaz.”).

Erabilera honezaz baliatu zen J. Etxepare ere, jakina denez:

“Han-hemenka, bakan, iduk bitza gobernamenduak, bere meneko, eskulan etxe zenbeit, behar diren gizon eta tresna guziez dun” (“Nor eskolemaile. Zer irakats”, *Buruxkak* 41).

Bai eta *-keta* atzizkiaz, ondoko adibidean 2. agerraldian agertuko dena, eztabaidan, testuinguru horretan izenak (*etxe eta mutil*) ezabagarri baitira.

“Eskola tipiez bezenbatean, huts beretan erortzen dela daukagu, ustez etxe eta mutil ketak egiten ahal dakotela nausitasun zerbeit Elizari buruz. // Ez du ketak egiten nausigoa” (*Buruxkak* 38-39).

3. Atzizki hedakor, itsaskor batzuei erabilpen eremua zabaldu zien (*-eria, -ki, -tsu*). *-eriaren* kasuan, adibidez, izenondoari, edo izen + izenondo gisa-ko hitz elkartu mota jakinekoei:

“jende beharria guziari” (EO 5, 1904-2-5).

(Langileen erretretaz)“Legeño bat eginen zutela biziki ona hitz-emanka langileari, urteak hor atxiki dute jende xehea begiak xuriturik eta ahoa zabaldurik. Parabisuaren erdian behar zuten ezarri langile zaharria guzia. Bazakiten badirela beti holakoen sinesleak. Orai?...” (E 1193 “Zerga berria”).

Ohar bedi pluralean ere erabiltzen dituela, singularrean ez ezik:

“Bazter guzietarat hedatzen dituzten liburu tzarria guzien egileak, nor dire?” (E 389).

“Pariseko jauneria eta kazeteria guziak mintzo ziren Félix Faure jaun prezidentaren apaintzeaz” (E 444, 1895).

“Parise aldeko jauneria hek oro” (E443, 1895).

OEHaK hauxe dio *jauneria* hitzaz: ‘Aristocratie, pris en gén. ironiquement’. *Kazeteria*, egileak franko aldiz erabilia, ez da bildu OEHa.

-ki aditzondo sortzailea usu darabil, izen eta izenondoei erantsirik: *jaunki, hautaki, urdeki, zakurki, eroki, apostoluki...* Edo izenondo eratorriei (*-tiar + ki, -kor + -ki*). Baita analogiaz sorturikoei (*hobekirako < hobekia, ongia eta gaizkiaren* eredura) eta aditzondoei (*guziz + ki*). Konparatibo eta superlatibo marken aitzinetik ere ezarriko du (*-ki + -en / -ago*). Azken erabilera hauek adierazkor-estilistikoak eta ez ohikoak dira, lehenak normalagoak izan arren.

“iduri eta buraso giristinoen haurrak jainkotiarki altxatzea baino baitezpadakoago dela gure *andereari* huts ez egitea deusetan ere” (E 1242).

“hunkitu ditu, eta batzu ezin gehiago kartsuki, sarkorki aipatu” (E 839).

“legea, gauzetan den berenaz hoberena, beharrena, zuhurrena, egundaino ez dela izan piltzarkiago erabilia, orai den baino. / Eta nork du piltzarkienik erabilki legea? Legeaz eta legeari doakon errespetuaz gehienik mintzo direnek” (E 830); (cf. *piltzar* : ‘zarpail, arlote’).

“Berehala hobekirako bidea ginukela hura hilik, uste duzue?” (EO 43 1904-10-28).

(Diharasarri) “Apezaren sustatzaiterik bat izan zen Donibaneko auza-peza, Goyenetze zena. Ez ziren bertzenaz batere elgar iduriak; guzizki, ez elgarrekin uztartzekoak.” (in HU *Mintz.* 104).

OEHko adibide bakarra da, ‘batez ere’ adieran, HUren azken hau.

Mundu gerla hasia zelarik, “Frantzia eta Espainia” artikuluan, hegoaldeko idazleekiko harremanak moztu direla eta, edo haietako batek Espainiarekiko bereizkundera aipatu duela eta, dio:

“Solas min eta minbera ez ote dugun hau, nago, eta odol hotzean, gizonki, adixkideki, eskualdun haurrideki aipatzekoa hemen elgarrekin, hitzak bederazka neurtuz, haztatuz.”. (Aurreraxeago): “Baletor egun bat, erresuma osoak pusketan eman litzazkena —gerla ondorioz edo bertzela— ezta noizpeit gerta ez ditakena, Eskual-herriaren bi zatiek *bat egitea*, oraiko frantses eta español bi erresumetarik berex. / Batasun hoberik ez lakiguke guri. / Anartean ez ote da guretzat aneiak, elgarrenki bizitzerik?” (E 1435).

Elgarrenkiren adibide hau HUren testuetan oraingoz ezagutzen dudana bakarra da, eta zalantzazkoa izan daiteke, lumero horretan badelako inprenta huts bat edo beste (gudu garaian kazetako langileak erabat murriztu zituzten eta HU bera zahartu eta erikorturik zen). Hala ere ongi ezkontzen da *aneiakirekin* eta egileak *-ki* bukaeradun bikoteak maite ditu nabarmenki. *Elgarrekinen* ordez eginiko hutsa balitz ere, *-kiren* erabilera ez ohikoa nabarmena da testuan.

-tsu atzizkiaren erabiltze ugaria eta hedakorra agertzen dute ondorengo adibideek. Galdetzailerekin eta hauen ordezko erantzuleekin erabilia:

“*En gros* badakite hori engoitik orok, nontsu, nortsu, zertsu, noratsu giren eta gauden.” (EO 35 1905-9-1).

“nor eta nolakotsu gizon gazteak diren ja joanak harat” (EO 1905-6-23).

“Hérault departamenduko herri batean, duela hilabetetsu bat, Amaliat deitu gizon gazte batek bere ganberan atzemanik arratoin handi bat, hil nahi izan zuen, kalitu makil ukaldika.” (E 1206 “Arratoin errabiata”, Zer eta zer).

“Azken ministerio hau formatu zenean, duela urtetsu bat, ikusi bide ginuen bertzeekin lerroan, kazetek eman zuketen lixtan; (...)” (E 1346 “Poincaré”).

Erakusleekin:

“hau edo hautsu” (EO 43 04-10-28).

Hautsu ez da ageri OEHN, ez eta aipatu *bilabetetsu* ere.

Erabilbide hauetan Ithurri jarraitu bide zion (G 477)¹¹, hark aipaturiko adibideak hedatuz bizkitartean.

Adintsu ‘gutxi gorabeherako adina’ esanahia zabaldu zuen (OEHNko adibideetan beti ‘norbaiten adintsu’ ageri baita). Orobat *batetara doa* esaera finkoari erantsi:

“65, 70 adintsu hori zuen emazte bat hil da supituki” (E 1199 EH Hazparne).

“batetaratsu loakela” (EO 43 1904-10-28).

Harrigarria lirudike, hegoaldekoontzat behintzat, “Zer eta zer” saileko josta-kazetalan batean irakur daitekeen honako hau:

“Badakizue zer zion galdatu behiala gizon eskualdun xahar, hiltzerat zoznari apezak azkentsu egunean: Barkatzen deiezute oraikotik, Etxebe, zure etsai guzietan?. —Ez jauna ” (E 1206 “Boz ondo”, Zer eta zer).

Ithurrik aipatzen du *azkentsu* (G 477) baina hor ageri den bezala (*azkentsu* determinatzaile funtzioan) lege-haustea dirudi (normalagoa dateke *akhabantzatsuraino*, Ithurri G 477).

Nolanahi ere, *-tsu*-ren erabilera hedakorragoa da Iparraldean edo idazle hauetan bederen:

“Usaiko tokitsuetan lau aldiz oldarra harturik etsaiak, muturreko batekin gibelerat igorri dugu lau aldiz.” (E 1485, “Berriak egunka” saila).

4. Hitz-elkartuei dagokienez, berrelkarketa kasuak franko dira hitz bat edo batzuen tartekatzearen ondorioz; hots, hitz elkartu hirukoitzak eta lau-koitzak. Batzuk besteak baino ulergaitzagoak (hartakotz baitu Euskaltzaindiak erabilera arruntean ez erabiltzeko gomendatu). Estilo trinkoaren adierazgarri, oro:

“hor elepide onik emaiten duten angles emaztetarik bat ez dela senar baten lagun on gei litakenik” (E 1363). Adibide honetan “lagun on” txertatzen du.

¹¹ “La terminaison *tsu*, ajoutée aux questions *nor? zein? zer? non? noiz? nola? zenbat?* et leurs réponses *bemen, hor, han, hunela, horrela, hala, bezala, bezanbat, lehen, bigarren, etc., azken, berdin, etc.* exprime en sus l’idée d’à peu près. Ex. (...)” (Ithurry, G 477).

“Noiz ote Larrosorokoaren aldi? / Hemen eskual etxetako laborari mutil-gei mindegi baten egiteaz mintzo dire. Nondik behar lur-langile muti-lak!” (E 1227)

“Eskualdun eskualzale hangotiar eta hemengotiar bilkura batean galdatu zioten bati —eztu ere aspaldi,— eletik elera: “Española zirea?”— (...)” (E 1435 “Frantzia eta Espainia”).

“Hangotiar eta hemengotiar” txertatzen du azken adibide honetan.

Bortitzagoak dira, baina J. Etxeberri Ziburukoaren idazlanetan ere aurki daitezkeenak, ondokoen tankerakoak:

“*Anarxistak* direlako gizon-hiltzale eta *dynamitaz etxe-jauzaraztale* horiek izitu dituzte egun hautan gure gorri lege tzar egileak.” (E 289 “Lege tzarren ondorioak De Mun jaun deputatuaren arabera”).

Adibide honetan “*dynamitaz*” txertatzen du, bai eta “tzar”.

“*Docker* direlako langile (?) haro egile, soldadoen harrikatzale, zaldien kanibet ukaldika kolpatzale batzuetarik hamar, hogoi arte hori preso altxatu baitituzte eta kondenatu jujeek, ...” (E 1253 “Baionako grebak”).

Hemen “kanibet ukaldika” ageri da txertatuta.

Hil-erretze hitza, gazt. ‘incineración’, hitz elkartu arrunt eta bakuna, ez da ageri (harrigarria!) OEHN, bai *hil-ehorzte*; hala ere, hitz hori, arras zuzena, erabili ohi du HUK. Adib. “labe batzu, hil erretzekoak” (E 335). Hortik erarortzen du “*hil-errearazteko labeak*”:

“Legea ez da ekarria izan, baina haizu zaio bat bederari bere hilen edo ehorztea edo errearaztea, hautura. Lehenbizian moda berri eta higuin garri horrek bere aldeko guti ukan du. Baina emeki, emeki, urtetik urtera, emendatuz joan dira, guziz Parisen. Ezen alde batetik hiriko kontseilua anitz ekarria da gauza hortarat, eta badira gizonak ahal guziak egiten dituztenak, jende beharrari diru emanez, hil-erretze horren onetsarazteko. Orain Parisen hilherrietan badira hil-errearazteko labeak (“hil-erre arazteko” jatorrizkoan)). Nahi duenak han, lau liberetan edo petik, errearaz ditzake bere hilak, eta ez du ehorzteko lanik.” (E 263 “Hilak surat” artikuluan).

5) Hitz elkartze batzuen sorrera eta erabilera ez ohikoaz bi hitz. Ondoko adibidean *erretoraene* hitza, erretoretxe jakin bat izendatzekoa (-*enea* atzizkia etxe izenetan ohi da), izen arrunt eta betikoa, *erretoretxe* edo *apezetxe* edo holakoren bat beti ez esatearren darabil, edo agian *erretoraene* hitza itzal handiagokoa delakoan:

“Egia dea, ala gezurra, bertzeak bertze, gure herrietako elizen ontasun, etxe, lur, diru, guzien jabe fabrikak, ezeztaturik, suntsiturik oro,— nik zuri zureak ebasteko, lehenik zuhaur hil bazinintzat bezala— ebatsi dituztela? / Ebatsi erretoraeneak, ebatsi hilen meza sariak, ebatsi Frantzia guziko semenarioak, handi eta ttipi, oro...” (E 1274 “Norenak handienik”).

Halaber “eskoletxe ohi, erretoraene ohi” (E 1184).

Hil-erretzeak bezala garai hartan ikusi ziren lehen aldiz *gizon-xoriak* ‘hegaldakariak’, ‘airezkariak’ —maiz erabilia hau ere *Eskualdunan*, nahiz ez den ageri OEHn—, egungo ‘hegazkinlariak’. *Gizon-xori* ez da bildu OEHn (agian bai *xori-gizon*, Adéma eta Saint-Pierrek osatzen dituzten erabilia). Hitz elkartu mota jakinetakoak biak, *xori gizon* eta *gizon-xori*.

Hitz berrien sortzea ez dugu hemen gehiago ukituko. Derragun, azkenik, zerbait, gaia gramatikaz gaindikoa den arren, hots eta esanahiarekin jokatu asmaturiko hitz jokoez, erretorika figura jakinak (*mot-valise* edo sandwich-hitz, *crisis*, *etab.*), irri eta ironiarekin lotuak. Hona hemen erakusburu polit zenbait. Lehen Ferry hil ondoan, ahokia kurutzerik gabe eraman zutela eta:

“Abereak bezala bizi; abereak bezala hil, abereak bezala ehortz. / Hori dute deitzen gero errepublika. Ez da, ez, hori errepublika. Hori da urdepublika, edo debrupublika; emagun nahi baduzu: Framazonpublika” (E 304).

“Zeren eta gorriak, zozialixtak, orobardinixtak ez omen baitire eiki hortan gelditzekotan” (E 309).

“Kazeta zozialist, anarxist eta nik dakita oraino zer-ist batzu badire, beti gerlaren kontra mintzo: gauza itsusia zeieela gerla, gauza izigarria, krudela.” (E 1281 “Gerlaren kontra”).

“Abokatsa, medikusa, nik dakita zer eta zertsa oraino? Ja hoik oro begien aitzinean ditugunak” (E 1364 “Emaztea gizon”).

“Zenbat gauza berri!” artikuluan (1902) HUK *alferfona* eta *alfergrafa* hitzez izendatu zituen telefonoa eta telegrafoa.

II. ERABILERA ESTILISTIKO ETA TRANSGRESIBOA MORFOLOGIAN

1. Izenordainei dagokienez, aipatu dugu *elkar* izenordain elkarkariaren erabilera erretoriko-estilistikoa eta, balizkako kasuan, transgresiboa (*elgarrek*, *elgarrenki*). Aipagarri dira ere *norbeit* eta *nehor* determinatzaile funtzioan eta izenaren eskuinean jarrita. *Norbaiti* dagokionez, Euskaltzaindiaren gramati-

kak dio: “Normalean *norbait* beti izenordaina da, eta ez du ondoan izenik onartzen (*norbait izan* esapidea ere hor dugu, *nor izan* bezala).” (EGLUPB Izenord. 3.2.2.1, 60. or.). Baina horrek ez du askotan balio, ene ustez, HUren kasuan. Hona adibide batzuk:

“Herriari deus gosta gabe, fabrikari, elizari erretor hil edo bertze ongi-egile norbeitek utzi etxe bat urririk erretor-etxetzat balinbazen, etxe hura ebats.” (E 1164).

“(…) adixkide norbeit xuritu nahi zuela iduri zuelakotz” (E 1154).

“(…) egia da, eztuzuela ikusiko etxeko-anderea bertzeekin jarririk mahai-
nean jaten; bereziki arrotz edo atze, bazkaltiar norbait duclarik” (E 1243).

(Diharasarri eta Goienetxe) “Ez ziren bertzenaz batere elgar iduriak; guzizki, ez elgarrekin uztartzekoak. (...). Bederen ardura ukan zuten bitarte norbeiten beharra.” (in *Mintz.* 104).

“Mandoek ez dute joaiterik; ogiak deus ez du uzten. Nondik nahuzu, Jauna, ihardok dezagun? Hilak piztekotz, gu behar gira hil. Pitz-azu aberatsa-gorbeit.” (Hiriart-Urruty, “Hilak hil”, RIEV I, 1907, 621).

Azkuek ere badarabil: “Buruzagi norbait” (E Y I 229), “Gaizto norbait” (ibid. 234).

Lafittek ere *norbait handirekin, nehor aphezik ez zuten, zerbait handirik egitekotz* aipatzen ditu adibidetzat (G 245). Beraz Iparraldean *norbait* determinatzaile funtzioan ere aski normala da edo hein bat hedatuagoa. Arruntagoa da izena + *zerbait* edo *zerbait* + izena joskera.

Bakanagoak dira HUren idazlanetan *nehor* determinatzailearen adibideak (izena + *nehor* joskerakoak). Erabilera transgresibokoak edo behintzat balio estilistiko handiagokoak dira beraz:

“*Madame B.* ere behar bezala mintzatu omen zaiote, eskuara eta kaskoin, denetarik, airoski: ez dela, hura, nihoiz gaizki arizan gauaz! Ez diola, ez, har(e)k, gauaz jaterat ez edaterat eman gizon nehor; ez duela har(e)k gizonik atxiki barnean atea hertsirik!” (EO 41, 1907 EH: Ezpeleta).

“Agian, urririk eta hoin gogo onez emana zakon argiarekin, ez zako holarik gertatuko *Eskualdunaren irakurzale nehor*” (E 1237).

2. Determinatzaileez den bezainbatean, zenbatzaile zehaztugabeen (*anitz, asko, aski, franko...*) mugikortasuna —izenaren eskubialdean nahiz ezkerraldean joateko askatasunaren ondorioz— hedatzen du HUK. Adibidez, *edozein* determinatzailea izenaren ondotik jartzen du batzuetan, nahiz hori zaharra eta autorectan hein bat hedatua den (OEH VI 380).

“Lege guziak, ja eginak, egitekoak, oro zoin diren on, zoin ez; eta ez bakarrik erretretaren hori, bainan erresumako goiti-beheiti guziak oro dauzkaten legeak bat berexi gabe, badazki bozemaile tunante edozonek, gain-gainetik argitua den batek bezen errotik ez jakinik ere, hein bat bederen; (...)” (E 1288).

Areago, idazleak jauzika eta itzulika aritzea gogoko du batzuetan. Adibidez, guti “beti ere izenaren eskuinaldean” dugula diote gramatikek (EGLUPB Determin. 4.2.2, 108; Ithurri G 447). Ondoko adibidean, ordea, idazleak joskera *inversio* bat egiten du:

“Gerla itsusi dela, gaizki dela, higuigarri dela oihuka derasaten heiek berek nola dute hoin bihotz guti, nola hoin guti urrikalmendu, berek hil edo hilarazi dohakabeentzat?” (E 1281 “Gerlaren kontra”).

Hemen aurreko egitura berbera ez errepikatzeko aldatzen du hitzordena normala bigarren aldian; gramatika lege-hauste hori estilo arrazoiengatikoa da, mezua adierazkortzen baitu. Gero, idazlearen hitzordenaren mugikortasuna erakusten du. Halaber:

“Senarrak emaztearentzat atxikimendu bezen guti errespetu haurrek amarentzat” (E 1364).

3. Izenondoetan ere hitzordena aldaketa ageri da, *gehiago*, *gehien*, *gutia-go*, *gutien* izenaren ezkerrean jartzen baititu *-ago* konparazio- eta *-en* superlatibo markadun sintagmetan (*gehiago toki*, *gehien tokietan*, *gutiena lege*). Lehen biak, gramatikaren lege-hausteak dira: *gehiago* eta *gutia-go* izenaren ondotik kokatzen direla dio Ithurrik (G 447); Lafittek ere determinatzen duen izenaren ondoren kokatzen dela beti *gehiago* konparatiboa (G 260). HURen *gehiago tokiren* kasuan, hain zuzen, solasa izanik *Eskualduna* kazetak “toki eskasa” zuela lehenago eta “toki gehiago”ren beharra, horrek laguntzen du lege-hauste edo erabilera ez ohikoa gerta dadin. Bigarrenean ere solasak (bozak “toki gehienetan” nola joan diren, hori kontatuko baitu artikuluan) bultzatzen du hein bat lege-haustearen agerpena.

“Zertako dugun handitu *Eskualdun* hau; (...) / Lehenik toki eskasez; (...). / Lapurtarrei eta Baxenabartarrei sobera kendu gabe Xuberotarrei ezkinetzoketen eman lerro batenik gehiago toki, gazeta handituz baizik.” (E 1083 “Zertako handi?”). (Komunagoa: toki gehiago(rik), lerro batenik).

Ez da adibide bakarra. Hona beste zenbait: “Ministroen alde baino gehiago boz kontra ateratzen” (E 368). “Semenarioetarat igortzeko jaz eta aurten baino gehiago apezgei” (E 1116).

Gutxiagotan ageri da gehien izenaren ezkerrean:

“Nola joan diren bozak, orotako berri xuxen oraino ez dakigu. (...). / Aspaldiko urtetan beti bardintsu doatzi gehien tokietan, edo gero-ta maku-rrago” (E 1100 “Boz ondo”).

Iparraldean edo behintzat idazle hauen testuetan hegoaldean baino irakurgarriagoak dirateke *gehienik* + izena (*gehienik boz*) eta areago *gehienik* + izenondoa, adib. *gehienik ona*, *gehienik jakingura* bezalakoak:

(*Répresentation proportionnelle* delakoaz) “Erran nahi du deputatuak izendatuko direla *boz arau*. Ez orai arte bezala gehienik boz dutenak deputatu, ez izanik ere nausitzeko boz *bat* baizik etsaiak baino gehiago.” (E 1316 “Behin mintzo”) (Arruntagoa: “boz gehien(ik) dutenak”).

Gutxitan ageri da *gutiago*-ren *inversioa*: “elizari ebastea ez dela bertze bati ebastea baino gutiago bekatu” (E 1205).

“Dubost, Zenaturen Buruzagiak are gutiago boz”; (E 1346).

Ondoko *ahalik eta gutiena lege* (*ahalik eta lege gutienaren ordez*) solasak (“legea”) lagunduriko *inversioa* da:

“Lege guziak, legetuz geroz, obligazionezkoak dire; (...). / Bainan preseski bortxazkoak, obligazionezkoak direlakotz, libertateari, nahi eta ez, estekagailu bat lepotik emaiten diotelakotz legek, litake on, ta on baino hobere, erre-suma *libro* batean, ahalik eta gutiena lege izan dadin. / Guti eta hek onak.” (E 1287 “Utz libro”).

Lagundu gabea, ordea, “Ahalik gutiena denbora dezagun gal ele alferretan.” (E 1368).

Ondoko *Eztire gutiago ederrak*, aurretik esandakoekiko konparazio tesuinguruan agertzen dena:

(Adema apaizaren koblez) “Bertzalde hogoita hamar bat koplá andana, hau eta hura solas. Hoik ez erlisioneaz batere. Zer nahitaz. *Alegia* hetarik luzena, ederrena da: *Abereak izurritearekin* (les animaux malades de la peste). / *Alegiez* bertzalde direnetan, nork ez ditu ezagutzen *Xuriko*, *Pilotariak*, *Betirisants*? Koplá hoik oro kasik pollitak dire biziki. / Erlisioneari doazkon koplak eztire gutiago ederrak: (...)” (*Mintz.* 164).

Lafittek munstrotzat dauzka honelakoak (G 320)¹². *Ez da gutiago egia* itzulia, aldiz, frantsesetik mailegatua, predikariek erabiliagoa dela aitortzen du (ibid.). HUK maiz idazten du behintzat.

¹² “2°. Alors qu’en français l’adverbe *moins* peut affecter un adverbe ou un adjectif, en basque *gutiago* ne le peut pas; des formules comme: *gutiago on*, *moins bon*; *gutiago handi*, *moins grand*, sont des monstres. / On entend cependant dans la prédication la tournure *ez da gutiago egia*, *il n’en est pas moins vrai*, empruntée sans doute au français” (Lafitte G 320).

“Ez baita gutiago egia, Frantziako eskolez gabetuak diren gizon tzarrek ez dutela gogoanago duten xederik (...) nola baita errientsa-geiak bilakaraztea oro ahalaz beren iduriko” (E 1242).

“Ezta gutiago egia, jaun harek eta hura idurikoek —leherra baitire, azkar-ki gogoia eskuara huntaz hartua dutenak— badutela dakizuen gazte batzuen eite, zuen barkamenduarekin, samurrean zer ari ziren jakin gabe, (...)” (“Dugun atxik eskuara”, *Mintz.* 197).

Eite bertsukoa da ondokoa:

“Karrika ilun, itsu batzuetan etxe zahar bat eror dadila bere baitarik, edo erre, hiria jabetzen da parada onean balin badu, lurraz, gostatzen dena gosta; plaza ttipi bat bizpahiru arbolarekin, iturri bat, pasaia berri bat egiten dautzute, auzoentzat ez baita guti laket eta on.” (E 1298 “Bizia Baionan”).

Ondoren, *-ago-* konparazio markaren erabilera ez ohikoaren beste bi erakusburu (*-tasun + -ago*, *-egi + -ago*). Lehenbizikoa, adjektibo funtzioan. Bigarrena, hauetariko gehienak bezala, testuinguruan (*goizegiren* ondoren) oso ulergarria da:

“Hain atxikiak ote gure ohidura zaharreri, oroz gaintetik fedeari, erlisioneari, non gure burua larrutzerat utz baikinezake, erlisione hau, fede hau zangopean ostika ginezaken baino lehen. / Edo gure buruak larrutzerat uztea baino bi tantoz gizontasunago, eskualdunago, fierrago eta gisa guziez hobeki litakena, muturrean jo eta erroz gora igor ote ginezake, gure zuzenak, gure libertatea ostikatu nahi lukena, (...)” (E 1313 “Bere buruaren jabe”). Cfr, Arestiren “Jurgi Oteitza ezpaita gizon bat / Jurgi Oteitza gizonago bat baita.”, *Harri eta Herri, Gabriel Aresti. Obra Guztiak* (I), 546)

“Kanpotiarrentzat goizegi zen zazpiak eta erdietan; are goizegiago, bai-ones ohetik elizara bi urrats baizik egiteko ez zuketentzat.” (E 1282 “Hiru egunak”).

4. Ohargarria da *-ago* konparazio atzizkiari *-ko* izenlagun marka erans-teko joera (*handiagoko*, *gehiagoko*, *gutiagoko*, *gorriagoko*, *ardiagoko*...). Ithurrik aipatzen du aukera hori (“adjectifs relatifs”, G 64, V, VI)¹³. Bide bere-tik, Lafitteren arabera, *-agokodun* konparatiboa, honek laguntzen duen izen

¹³ “Des mots terminés en *ago*, on peut former des adjectifs relatifs. Ex.: *Aitzinagokoa* (Har., 359, celui qui est plus devant; de *zureago* (O., 175), plus votre, à vous (s.), on fait *zureago-koa* ‘celui qui est plus à vous’(s.), *lehenagokoa* (L., 7; A. 33; A., 466), celui de plus avant. (...)” (aurreraxeago) *gutiagokoa* ‘celui qui est moins’ (Ithurri G 64, V, VI).

edo izenordainaren aurretik jartzen da (*Nitaz* (edo *ni baino*) *goragoko norbait*, G 318). Egungo gramatiketan, ordea, badirudi *-kodun aukera hori ez dela aipatzen ere* (erabilpen urrikoa delako?) edo hitz batzuetara murrizten dela (bizk. *gehiagoko barik*) baina praktikoa izan daiteke agian, adib. erlatibo kasuetan.

Nolanahi ere, HUren adibideak ikusita badirudi aukera horretaz baliatuz, erabilera hedatzen duela hein bat; are joskeran, Lafitteren erabil-mugak gainditzen baititu, idazkera landuaren malgutasunaren izenean: *-agoko* + izen, izenondo etab. edo alderantziz nahiz *-agokoa*:

“hau orainoko handienak baino ere handiagokoa da.” (E 1247).

“Izigarriko harrabotsa egin du, eta berina guziak hautsi, bainan ez da handiagoko makurrik.” (E 1248).

“despendio gaitza ja, eta hemendik goiti are handiagokoaren bidea holtan.” (E 1332 “Oro bardin”).

“Bati ikusi hura guziek behar dute hala-halakoa edo ederragokoa” (E 396).

“Ahulezia baino gehiagoko hutsa da hori; (...)” (E 1281 “Gerlaren kontra”).

“Berri hau igorri daukunak etzakien gehiagokorik” (EO 14, 07-4-5 EH: Ayherre); “gehiagokorik ere” (E 1290).

“ezdeusak eta ezdeus baino gutiagokoak, oro bardin paga, eta bardin emenda.” (E 1332 “Oro bardin”).

“ahalaz gorri baino gorriagokoen alde.” (E 1332 “Oro bardin”).

“Iduri dugu, arima salbu, ardiak baino ardiagoko artzain xakur batzu: oro sainga (...)” (E 1154).

“Zure xotina ez bazaitzu joaiten, hets bi beharri ziloak zure eriez ahal bezenbat zapatuz eta denbora berean ur xorta bat edan. Ez omen da erremedio hobegokorik.” (Adema? E 1287 Berrixkak, “Xotinaren kontra”).

“Nola nahi dute gero, handitzearekin ukan dezaten hurrek zaharragokoen beldurrik eta errespeturik?” (E 392).

Baino, are + -ago + -ko: bainoagoko, areagoko. HUK usu erabilia, azken hau. Ohikoagoak dirateke (idazleen eta hiztunen ahoan, eskualde batzuetan):

“Buhamiak baino areagokoak dire” (EO 52 1906).

“Ez dautzute aitortuko xahu-bideak ere araberan direla, non ez diren oraino areagoko.” (E 1256).

“gorputzaren ala arimarendako ez baita on familia bat oro multzoan bizitzea, buhamiak bezala, non ez den hek iduri bilakatu nahi, edo areagoko, hirian.” (E 1298).

“hau bere ongaitzekin onetsarazten ez balitzaio, bakerik ez lukela ja ikusten dugun bezalakatua, beti areagokotzen ari den langileak, lege hunen orde bertze bat eginaraz arte, (...)” (E 1290).

“(…) elgarrekin uztartzeko gei ez direnek bila bitzate beren heineko lan eta lagunak. Ez badute atzemaiten ahal, daudela ixil eta gurbil, berak bainoagokoen gibeletik, bekaizgorik erakutsi gabe.” (E 1270 “Lan arau”).

Ugariak dira nahiagokoren (dut/zuen/...) adibideak, baina oro har tradizioan ere ugariagoak omen dira nahiago izanen/izangorenak baino (OEH XII 683-684).

Ohargarria da bezain edo bezen + izenondo + -koren erabilera ez oso ohikoa (?), nahiz OEHn badiren M. Elizanburu, Arbelbide eta Barbier-en adibideak.

“Hartzako mendia bezen handiko gezurrekin” (EO 32, 1907-8-9 “Errientak”).

“Bigarren gezurra, Jarako mendia bezain handikoa: baizik eta Orzaizeko Léwy pollitak emaiten zituela, Orzaizen, Larretaperen billetak. (EO28 1907; EH: Azkarate)

Ohargarria ere, eta ez ohikoa, -ko adizlagun marka -no aditz atzizkiari gehiagarritzat eranstea, biek denbora balioa (‘noizko’; ‘bitartean’) izanik:

“Hola da egun hautan Havre, frantses hiria, bilakatu, gerla hunek diraunoko eta behar denoko, Belgikaren Parise” (E 1435). (EO 38 1907, EH: Azkarate).

5. Aposizio kasu batzuetan HUK ohi ez den hitzordena bilatzen du. Adibidez, jaun, andere kategoria- edo titulu-adierazleak pertsona izen edo deituraren ezkerrean. Hona adibide batzuk (usatuagoak dirateke azken biak, idazlanetan bederen):

“Deus ez du orai eskas jaun de Loubet Frantziako framazonen mutil obedientaren sinadura baizik.” (E 1904-7-15, “Berdoly”).

“(…) Goytino eskualdun handiak eginarazi duen plaza berrian, hiru mexikano (...). (...) Ohore jaun Goytinori!” (EO 23 1907-6-7).

“Aitzin hortan, otomobil, ximixta gorrian zohan batek azpian hatzemaiter du Jaun Dótezac zaharra.” (aipu zehatzik ez dut eskura) .

“Gaineratiko guzietz, lehengo bera: nausi-ondoko edo “*gérant*” bera, *Pochelou* gure aspaldiko adiskidea; inprimatzale bera, Jaun Lamaignère Baionakoa.” (E 862, 1903-12-31, Supl. HU?).

”Adéma zenak lehen ezkontza benedikatu zuelarik Hazparneko herrian, jaun Gose eta andere Egarrri zituen elgarretaratu.” (E 1908-1-10 Mintz. 163).

“Atharratzeko Jaun gazte d’Elissagaray, gure nausi berriak (...)” (E 737 “Ongi ethorri”).

HUren adibideok ez dira ugariak, *jauna* pertsona izenaren atzetik dutekin konparatuz. Nolanahi ere joskera horren adibide franko bildu du OEHk, Hego eta Ipar, zahar eta berri: Elizanburu, Laphitz, Arbelbide, HU, Oxobi, Larzabal, Orixe... (OEH, X, 157. or.). Iparraldean idazle modernoen artean erabiliagoa zatekeen arren, Azkueren adibideak ere aurki daitezke:

“OR DA EMEN. Euskerazko liburu barriak. “Baionako *Eskualduna*-gandik euskerara biurtu dogu (...). Jaun Adema Kanonigoa oraiñarteko lan guztien moldaldi barri bat igituten eidago.(...)” (Euskalzale 1897, 32).

“*Ibaizabal* albistaria “Jaun Jose Astuy-renean”. (*Ibaizabal* astekariaren mantxetan beti ageri da).

Kontua da HUK berak ez zeukala joskera hori euskara garbikotzat, frantsesarena zelakoan, noizean behin baliatu zuen arren. Orduko euskaldun eta euskalzale askok gogoko omen zituzten *Monsieur, Madame, Murde* edo *Musde* gaitzetsiz, eta euskaraz tituluak nola behar diren solastzat hartuz, hona zer esaten dien herrietako berri heltzaleei:

“Izena bera aski *jaun* da eskuaraz: Larramendy, Etcheberry, Larrondo. / Nehork ez du erraiten: Jaun Larrondo. Izaitekotz ere “*Larrondo jauna*”... Izenaren ondotik *jauna*. Izena berik hobe halere. Izenik ez deneko da eskuaraz *jauna*; izenaren ordain edo karguaren lagun, ja gorago erran duguna. / Ea gure berri heltzaleak oroituko direnez huntaz.” (EO 42 1907, “Monsieur-Murde”, Zer eta zer).

Halaber mintzo da “Murde David” artikuluan ere:

“Ea bada nor entzunen duzuen erraiten gutartean, edozoin jaun ttipi ala handi bere izenaz deitzen delarik: “Jaun Oihanburu”, eddo “Jaun Errekarte?. – Ez eta Errekarte edo Oihanburu jauna. Izenaren aitzinean ala ondotik, bardin gaizki doa *jaun* hori. / Oihanburuko jauna ba; Errekarteko jauna ba; eta etxeko jauna ere ba.” (“Murde David”, E 1908-7-17, in *Ze.* 176).

Lafittek antzinako ohituratzat dauka (*jaun Pirot, andere Bixenta* etab., G 158-7, Nota)⁴. Euskaltzaindiaren gramatikak ez du baztertzen: “*Jaun* eta

andere eta antzekoak izenaren ezkerrean nahiz eskuinean agertzen ahal dira” adib. “Andre Joakina” (EGLUPB 183). Beraz HUK, aipatu joskera arrazoi berezi batzuegatik erabiltzen du, bere irizpide garbizaleen kontra eta jakinki: edo adierazpidea aldatzeko, edo agian frantsesaren tituluzaletasuna egoki itzultzen dutelakoan edo dena delakoagatik.

Hona beste aposizio kasu batzuk, non joskera ohikoa aldatzen baitu:

“Hemen Eskual-herrian (...) bibaka, esku-zartaka, oihuka zerabiltzaten ahotik ahora: *Lathan, Lefebre, Paulban, Blériol*, eta bertze zenbait, frantses; *Farman* anglesa; *Curtis* amerikanoa; orotara frantses gehiago, arriotz baino. Nausi ere frantsesak airean ibiltzen. / Amerikano Curtis delakoa naski oro baino gehiago zalutasunez; “ (E 1169 “Hegaldaka”).

“Behinere guk eta gure ondokoek ez ahanztekoa baita: Etcheverry zenak zuela hasi gazeta Eskualduna Eskual-herriaren onetan; hasi eta xutik atxiki, gu lagun, hamasei urtez.” (E 1083, 1908, “Zertako handi? / Eta izena?”).

Zer esanik ez, euskal joskura ohikoak (“*Curtis* amerikanoa”, “*Eskualduna* gazeta” tankerakoak) askoz gehiagotan erabili ohi ditu HUK. Lehen adibidean ohikoaren ondoren ageri da ez ohikoa. Adjektiboaren *inversioa* dateke (ik. III. 4). ‘Amerikano den *Curtis* (delakoa)’ gisa ere uler daiteke aposizio ez-murrizgarri hori. Bigarrean *Eskualduna* adjektibo gisa ere uler daiteke. Hortaz, era batera edo bestera irakurriak izateko bide ematen dutenez, baliagarriak dirateke estilistika aldetik.

Beste aposizio kasu batzuk ere, ohi ez direnak, ohargarriak dira morfologia aldetik. Adibidez:

(Baionako ontzi-husleen grebaz) “Pentsa ezazue, zer kalamitatea den, hiriko eta herri inguruetakoa negozioarentzat, langile hoik oro betan lanari uko jartzea. Untziak han, Jainkoak dakiela nondik etorriak, puskaz eta gizonez beterik; berriz itsasoari lotu behar gorriak; oren guzietz itsuski diru jaten ari alferretan.” (E 1248).

Adibide honetan “berriz itsasoari lotu behar gorriak” (untziak) aurreko “etorriak”-en aposizioan edo kasu berean dago; ohikoagoa zatekeen “behar gorrian” baina idazle kazetariak ustekabeko kasuan jartzea hautatu du (ustekabea sor daiteke ere *gorri* —apaindurazko *epithetum constans* delakoa, *beharren* ondorik joan ohi dena kolokazioa osatuz— txertatzen edo eransten delako).

“La tradition semble indiquer que *jaun* eta *andere* se plaçaient mieux jadis devant les noms propres. Ex.: *jaun Pirot, andere Bixenta, andre Madalen, monsieur Pirot, madame Vincente...*” (Lafitte G 158-7, Nota).

6. Estilo arrazoiengatikoa da ere kasu-markaren ezabaketa, elkarren ondoren eta kasu berean —nahiz atzizki edo pertsona edo plural marka berearekin— doazenean osagaiak. Hots, juntatzen diren osagaien arteko azkenak bakarrik darama kasu marka edo atzizkia.

“(…) misionest gaztearen bokazione ederrarekin (...), haren gogoeta guziki kolpeka ari direla bizi huntako atseginez, goxotasunezko solasak.” (E 1148 “Zato aberasturik”).

Gramatikak ‘atseginezko, goxotasunezko solasak’ behar duela erakusten du. Idazleak, errepikatze kakofonikoa gerta ez dadin edo zalutasunagatik kendu egin dio lehen osagaiari *-ko* (idazkeran aski da ere gidoi bat ezartzea *atseginezen* ondorik: “*atseginez-, goxotasunezko solasak*”). Halaber ondoko adibidean, non *espanturi -ka* kendu baitio:

“Eta bere buruaz espantu, buhaka! Hau eginen, hura eginen, zer nahi eginen.” (E 1202).

Adizki trinkoetan ere gogoko ditu holako buztan mozteak. Etsaien atertu gabeko ahopaldi eta egitate tzarrak oro *Eskualduna* kazetak ezin dituela salatu eta, diosku:

”Bertzeak bertze, gure ministro tzar eta heien kideko deputatu eta zentor diren bezalakoek eman lezagukete lanik aski heien ahopaldi eta egitate izigarriak oro nahi baginintu, egunez egun, hemen ezarri. (...) Nor jarraik alimale horier? (...). / Zinez erraten dugu hainbertzetaraino gaudituz doala egunetik egunera gero-ta gehiago Frantziar nausituak ditugun gizonen tzarkeria, non ez baititzazkegu hemen astean behin, laburtuz ere, oro aipa, derabil derasatzaten izigarrikeriak.” (E 824 “Nor jarraik?”).

Idazlearen elipsi bereziok (*eta* juntagailuarena eta kasu, pertsona, plural markena) zalutasuna damaiote mintzaldiari. Azken adibidean, bestalde, lehen adizkiaren *-tzate* ezabatuz, arnas-estuka, ezin jarraitze hori imitatu nahi duela dirudi (idazkera sinbolikoa).

7. Aditzaren arloan HUren berezitasun batzuk aipa ditzagun. Lehenik, forma zahar zenbait erabili zituen, berariaz agian. Adib. *hasi* aditzaren erregimen zaharra (nor-nork) egungoaren (*nor(nori)* orde, edo honekin batera. OEHn Leizarraga, Monho eta HUren adibide bana jasotzen dira. Hona beste hiru:

“Ez bakarrik jende iñorantak, deus eztakitenak; *a, b, c, d*, izkiriatzen, ez irakurtzen ikasi ez dutenak; edo haurrean zerbeixka ikasten hasi bazuten ere, handitzearekin oro ahantzirik soraio bilakatuak” (E 1216).

“Hartakotz zuten (...) hasi egiten zahar ezinduen behar arau laguntzeko, keza bat” (E 1221).

“Ja izialdura sartzen hasia du etsaiak. Ja toki anitzetan geldituak dire imitorioak, odol ixurtzearen beldurrez. (...)” (EO 11, 1906-3-16).

HUren forma trinko antz ere, adib. *derasa, diharduka, dagi, dema, derra* eta euretarikoak, orobat *dugun* aginte adizkia, aspaldikatuak dira Ithurriren arabera (G 117-118, II; 184)¹⁵. (Ik. beheraxeago adizki trinkoez esanak).

“Aski beraz; aski gezur eta ohointza (...). Dugun libertatea; dugun zuhurtzia; dugun bakea” (E 323).

Pasibo hein bat zaharrea zatekeen *-a* mugatzailerik gabekoa. Ithurriren araberakoa da: “*gizonaren semea ezpaita etorri zerbitzatu izatera*” (G 438).

“Kondenatu izan da” (ca 1907).

“nola (X eta Y) kondenatu izan diren” (‘han sido condenados’) (EO 48 1906-11-30).

“Letra hau irakurtu izanen da Diosesako Eliza guzietan (...)” (1907).

Lafitteren adibideak, aldiz, oro dira *-a*-dunak (G 644, 645).

Beste forma batzuk ere, egungo euskaran agramatikaltzat joak, korritzen bide zuten HUren garaian: adib. *ezin* + partiz. + aditz laguntz (*izan* gabe). Iragan hurbilean gertaturikoak kontatzean, dio:

“Egun zortzi ezin aipatu ditugu eskuaraz Donibaneko besta ederrak; egun ere laburzki baizik ez ditzazkegu aipa, (...)” (E 532, 1897).

Euskaltzaindiaren gramatikak joskera hori debekatzen duen arren, (*ezin*) “aspektua burutua denean *izan* aditza behar da (“*ezin ikasi izan* dugu” vs “*ezin ikasi* dugu”, EGLUPB 423), iraganaldiko “*ezin aipatu ditugu*” Ithurri eta Lafitteren gramatiken araberakoa da (*Ezin ikusi dut*, je n’ai pu le voir”, *ezin atxeman dut* ‘il m’a été impossible de l’attrapper’)¹⁶. Antzinagoko euskaran ere badira ber gisako adibideak Leizarraga eta besterenak, R. de Rijk-ek esan didanez.

Aditz forma zahar batzuen erabilerarekin batera, beste forma batzuen hein bat hedatu zuela dirudi. Adib. *-ki*, aditzoinari erasten zaion atzizki pun-

¹⁵ “Impératif (...) *Uk, Un, Uzu, Uzue, Bu, Bute, Dugun* (...). Remarque: Aujourd’hui cet impératif n’est point employé; il est remplacé par l’impératif du verbe périphrastique *ukhaten du*. Ex: *Ukhan* (ou *izan*) *beza miserikordia*, qu’il ait miséricorde.” (Ithurri G 184).

¹⁶ “*Ezin*, suivi d’un verbe, sert à exprimer le verbe français ne pouvoir. Ex: *Ezin ikusi dut*, je n’ai pu le voir.” (Ithurri G 70 8°).

tukariaren marka, aditz batzuetara. Ondoko *eginki*, esaterako, ez bide da ohikoa, ez eta idazleek oso erabilia; OEHN ere ez da ageri.

“Bainan, hots, emagun “loi de séparation” hori dugula mementoko *ahamena*, ele bazka. / Zerbeitez ele egin behar, eta hortaz *eginki*...horren ondoktik bertze bat jin arte. Orduan alda; (...)” (EO 1905-12-8).

Lafitteren arabera *-ki* horrek aditzaren egintza bere garapenean aurkezten du eta aditz zaharrei erantsi ohi zaie (G 501).

Hedapena ageri da ere kausa adieraztekoa den ondoko joskeran: aditzoina + *-ki* puntukaria + instrumental kasu-marka (*-z*) (*izankiz*; Lafitte G 884 h *izaki-eta*):

“*Berteaux* gerlako ministro zenak, hura ere itsuski aberatsa *izankiz*, diru aprestatu; hil gizona, eta haren semeak nahi sosa gibelerat; (...)” (E 1346).

(futbolean) “(...) asko gisetara baititake huts egin alabainan, bakotxa beti bere lau zango-besoan jabe ez *izankiz*.” (E 1357 “Foot-ball”).

Normalagoa da, ordea, eta idazleak maitatua, kausa adierazteko halaber, izenondo + *-z* instrum. kasu marka, aditz elipsia dagoelarik (Lafitte G 884 i).

“Holako frango heldu zauzku bazterretarik, *Eskualdunean* eman ditzagun, ez baititugu emaiten, ez *onez*; gaizki eginak direlakotz, edo *hasiak* doidoia, ez finituak.” (E 1163, 1909-7-23 “Ameriketarik”).

Zertako erabili ote zituen forma zaharrok, hiztegian bederen hitz zaharren aldekoa ez zelarik? Arrazoi estilistikoengatik? Adierazkera aldatzeko?. Nolanahi ere, argi dago noizean behin ohiz kanpoko forma bihurriak maite dituela. Adibidez, OEHN nekez aurki daitezkeen (?) ondokoen gisakoak:

“Egia batzu badire beti oroitzeakoak, eta beraz maizegi ezin aipatuak, ahanzkorrenek ere ez ditzaten gogotik gal; ez gal, ezta nahastika gezurrarekin, bata bertzearen ganik *ezin ezaguturainokoan*.” (E 1272).

“haurren arimak, erlisionerik gabe (...) altxatzera deramatzatenak, urrikari ditugu; bainan ez heiengatik gure buruak azkarki agertu *nahirainokoan*.” (E 844).

“Herri guziaren *makurtzeratzen* ahal bada, hobe; frantsesak diona: “autant de gagné pour tous” (E 1181).

Usatuagoak dira “ezin ezagutzerainokoan”, “nahi izaterainokoan”, “makurtzen / makurrarazten”.

“Pour traduire l'impossibilité on emploie parfois *ezin*, que l'on place devant le verbe. Ex.: Ezin atxeman dut, *il m'a été impossible de l'attraper*; (Lafitte G 657. Nota.).

Ezohikoa da, agramatikaltzat joa (EGLUPB 441), *-a* atzizkia eta *ote*, biak aditz partikula eta galdetzaille, elkarrekin joatea (*ote*, aditzaren ondotik, bestalde) ondoko adibidean ageri denez (ohikoa, ordea, othean, o(i)thian-en kasuan, OEH XIII 751).

“Zer derasa hitz horrek? Errabia edo zerbeitz holako dea ote anemia? – Ez, ez (...)” (E 1249).

Aditzaz landa, HUrena datekeen itzulpen testu batean *ohi* aditzondo (?) gisa ageri da (ez aditz partikula, ez izenlagun, ez izenondo) ‘bertze ordur’(?), ‘orduak’(?) (Heg.). Lhanderen hiztegian jasoa dago aipatu esanahia (fr. *Jadis*)¹⁷. Adibide hauek irakur daitezke itzulpen testu berean:

“ohi Jesusen hitzera itsasoa bezala, ematu dira giristinoon gogoak” (EO 41, 1907 “Jaun apezpikuaren letra”).

“Ohi hamabi arrantzaleri emana izan zitzeien...” (ibid.).

Hona beste adibide bat:

“Eta gizonak andreari: «A Maria, saskitik ere gizona gizon». Ohi aditu solas hori jin zaut gogora egun (...)” (E 479).

III. JOSKERA JAUZTEKARIA

1. Joskera da HUren alderdi bereziena. J. Etxeparek Hiriart-Urrutiren hitzordena eta estiloaren gako batzuk atzeman zituen. Esaterako: a) josturaz berdin ziren bi plegu elkarren segidakorik ez zituela elkarren jarraian (1915, in Charritton: 1984: 171). b) batzuetan ondarrera —esaldi, paragrafo nahiz testuaren azkenera— jaurtikitzen zuela sartu nahi zuen pindarra nahiz uztarra; c) noiztenka irakurlea hitz-andanak ulertu nahian ibilarazten zuela, “gogoa dilindan, bainan asmatu nahiarekin ernatua uzten zautzula, irriz”; “gogomenen jauzte lilluragarriaz” Hiriart-Urruti nagusi zaiola Ademari ere esaten digu. Orobat “noiztenka nahasixe zabilalako ustearekin gelditzen ginen” (ibid., in Charritton: 1984: 231)¹⁸. Lafittek HUren jauzi, entreat eta joskera

¹⁷ “*ohi* 3^o: *Ohi* a dans cet emploi chez Haraneder un sens autre que “de coutume”. *Tobias gaztea aurkitu ohi zen bezala Rageserat goatean* (Phil. p. 54 éd. 1853), *Israeldar guziak ilki ohi ziren Egyptotik* (p. 21). Dans ces deux passages *ohi* pourrait se traduire par “jadis” (Lhande, Dict.).

¹⁸ “Ahopaldi nasaiak zituen laketenik; sekula kasik ez biga, datxikola, josturaz berdin. Batzutan bospasei alditaraino hatsa artetan hartuz, eta zu begia zabalik hari beha, ondarrerat aurdikitzen zuela sartu nahi zautzun pindarra; bertze batzuetan dena mami, eraskitza eraskitzari jarraikaraziz joriki, burua ezteki joaren ariaz, betetzen zautzula eta argitzen; noiztenka pilota batzu bezala hitz andana bat erainik, xingilika heien artean ibilarazirik,

dantzaria aipatu zuen (“pirouettes”, “cabriole”. Ik. 6. Oharra), bai eta haren fantasia¹⁹.

2. HUren joskeraren fantasia edo zalutasun hori aditzaren erabileran oinarritzen da; batez ere aditz elipsi eta *inversio*etan, eta, hein bat, adizki trin-koetan. Aditz laguntzailearen elipsia bereziki kontaeran baliatzen du, aditzoi-na hutsik ezarriz usu, edo aditz nagusia partizipioan. Baina aditz nagusia ezabatzen ere badaki, edo aditzik bat ere gabe hizketa eta kontaerako esaldi labur-rak osatzen. Aditz laguntzailearen elipsia da Ithurrik “syntaxe de la rapidité de la phrase” deitzen duenaren oinarria (G 483).

Aditzaren bere gisa lekuratzeak (are SOV delako ordena kanonikoa maiz elkarrizketan ere ez gordetzeak) nahiz aditzaz landako *inversio*ek eta figurek HUren hitzordenaren askatasuna —mintzaira erretorikoaren edo estilistika-ren manupekoa— erakusten dute. Aditz aurreratzea kontaeran nahiz estilo diskurtsiboan gertatzen da. Azalpen eta eztabaidan ere usu, eta ez gero esaldi luze korapilotsuetan:

“Ez da baitezpada elizatiarra. Da gizona; gizon zuhurra, zuzena (..)” (E 1206).

Aditz laguntzailearen *inversio* edo aitzinatzeaz baliatzen ohi da enfasia edo galdegaia adierazteko, Ithurrik adierazitako bidetik (G 378)²⁰:

“Giten ixil, mintza ditela gauzak” (E 262).

Baina badaki ere, irakurlearen gogoia zintzilik utzi nahi duenean, aditza, edo beste osagai bat, garrantzitsua (galdegaia, sasi-galdegaia...) perpausaren

gogoia dilindan, baina asmatu nahiarekin ernatua uzten zautzula, irriz” (J. Etxepare: 1915; in P. Charritton: 1984: 171-172. *Xingilika*: fr. ‘à cloche-pied’).

“Bego haatik, ahopaldiaren itzulika aberats bezain malguaz, hizkuntzaren nasaiaz, zirtoz, erran zuhur oroitzagarriz, gogomenen jauzte lilluragarriaz, alaitasunez eta euskaldun zumoz, bego hazpandar semea nausi. Orainokoan Hiriart-Urruty dago gure lurreko idazleen errege; (...)” (J. Etxepare: 1925; in P. Charritton: 1984: 231).

¹⁹ “Hastiago zituen erdaratik hurbilegi zauden hitz-arrimua, nahiz huntan ere ez zen Azkue edo Altube batzu bezain hertsu: eskuara ez zuen preso atxiki gogo, ez populuak, ez izkiriari zaharrek nehoiz ezagutu lege tinko batzuen gatetan. Fantasia poxi bat ba ahal doako Eskualdunari ere eleka ari denean; batean hitz-erdika, bertzean hitza doblatuz, aditza noiz ken eta noiz ezar, hitz batzuen lekua hemen behin antola, gero han. Hiriart-Urrutyk zumea bezala bazerabilkan eskuara, gogo-bihotzak eta aldarteak gidari.” (Lafitte: 1971: 38-39).

²⁰ “on intervertit quelquefois, dans les unes et les autres (phrases négatifs et affirmatifs) l’ordre des auxiliaires et des infinitifs, quand on veut attirer l’attention sur un mot. *Ni nintzen lehenik iratzartu*. C’est moi qui m’étais réveillé le premier. (Ithurri G 378).

edo paragrafoaren ondarrera igortzen, azken pindar, ostiko edo ustakabeko gisa:

“Ez dute nahi jaun garbi horiek ohointzarik ... bertzek egitea.” (E 860).

“Horra zertako, igandean zortziko pestan aurkituko diren, hemen gaindiko framazon guziak; heien esklabo eta eskumakil, eskualdun giristinotasunaz ala jazko haizeaz bardintsu axola dutenak; gero edozoin pestaren usainera laster egileak. / Bertzeak egonen dire etxean.” (E 1213).

Derragun bi hitz adizki trinkoetz. HUK maite ditu adizki trinkoak eta maiz eta ugari darabiltza, hogeitaz eta gehiago aditzen —Ithurriren gramatikakoa ia guztien— forma trinkoak; horien artean *noridunak* eta aginterakoak ugariekin (hots, gutien erabilienetarik), labur nahiz luze: *dagin*, *dagiguke* ‘hark guri’, *dagizkigun*, *daduko*, *dagokotelakotz*, *zeratxizkotela*, *diragazkagun*, *loakiket*, *zerason* ‘erasten zion’, *deramagun*, *deremotela*, *datxikogun* ‘guk elkarri’ (analogiaz; Ithurrik *gatxezkon*), *zemoten*, *demozuen*, *demagutela*, *dugun* eta hainbat eta hainbat. Horietako gehienak ez ziren esaten ahozko euskararen HUKen garaian; baina ez ditu asmatzen ere (ez gero bat edo beste?) idazle zaharren lumatikoak baitziren Ithurrik bilduak. Bai hedatzen, forma zaharkitu nahiz erabili horiek, pertsona desberdinetara, aurrizki nahi deklinabide markak erantsiz (*ba- bait-*, *-n*, *la(rik)*...). Aspektu aldetik zuten balioaz jabetua zen HU baina, bereziki, adierazkorrak eta balio estilistikodunak zirelako zerabiltzan bere mintzaldi erretorikoari indar emateko, hots, musikaltasun eta eritmoarekin jokatuz, jokoak eginez gozatuz:

“huntaz bertzerik den, darion, derasan gazeta lohi bat, (...)” (EO 8, 1905-2-24).

Nahiz balio estilistikoen ustiaketan, asmamen eta ausartasunean J. Etxepareren heineraino iristen ez den²¹. Adizki trinkoak balioesteko joera honetan, nafar-lapurterazko idazleetan ageri dena, Ithurriren gramatikak bere eragina izan bide zuen, zeren, adizki horiez osatu taula zehatzek parte handia betetzeaz gainera, hark ohartarazia zuen mintzaldiaren zalutasunak eta trinkotasunak asko irabazten duela adizki hauez baliatuz, euskararen ongi eza-gutzailleek egiten zekitenez (G 118 III).

3. HUK egitura-figura erretorikoak maite ditu, simetrikoak batez ere (paralelismo, antitesi, kiasmo izenekoak) baina baita asimetrikoak ere: ihiperbaton, hipalage, anakolutu,... Eta egituren errepikapena eta aldaketa –eritmoaren euskarri– bada ere idazle honen ezaugarri nagusi orokorra, joskera edo

²¹ J. Casenave, *De l'article de presse à l'essai littéraire: Buruchkak (1910) de Jean Etchepare*. Thèse de Doctorat d'Etudes Basques, 1997, Université Michel de Montagne-Bordeaux III, 358-366.

hitzordena normalaren haustea da, hain zuzen, haren zer berezietarik bat. Izan ere, perpaus batzuk oso bihurriak –nahiz landuak– ditu: hitzordena aldaketa simetrikoagoa dutenak (anastrofe) edo asimetrikoagoa (hiperbaton). Adibidez, lehenbizikoen artean.

“Barthou ministroa Oloronen baizik ez da nausitu zinezko tzarrik” (EO 19 1906-5-11 “Igandeko bozak”).

Hurrenkera normalagoa: “Zinezko tzarrik ez da nausitu Barthou ministroa Oloronen baizik”. Edo: “Ez da nausitu zinezko tzarrik...”. Hitz andanaka irakurri behar da, baina eskubitik hasita; gero, ohi bezala, ezkerretik esku-bira. Eskema metriko baten itxura du: 6 + 6 / 5 + 5. Halaber:

“Anitz gizon galdu baizik ez dute ardietsi bertze ondoriorik” (E 1465).

Hona berriz, hiperbaton (hitzordena aldaketa hautazkoa, esanahi aldaketa gabea) bortitzagoak: “*Hogoi soseko* oihal eta perkal eta musulin xuri-gorri saltzaleak balakike zenbeiten berri; nahi balitz mintzatu.” (EO 1905-8-18).

Irakur bedi: “*Hogoi soseko* oihal eta perkal eta musulin xuri-gorri zenbeiten berri balakike saltzaleak”. Hitzordena normala hautsi egiten da bide erdian eta, xuxen jarraitzeko irakurtzen, jauzi egin behar da hurrengo hitz andanarekin lotzeko, eta ondoren atzerapausoa egin. Aitzinekoak bezala, errima du.

“Lotsaturik gelditu omen da, eztakigu xuxen non, bere barrika, higatuxea, harrasi baten aldean xutik utzirik. / Nekeaz bertze sabeleko minik ere ahal zuen; ezik nonbeit zerbeit behar ez zen eginik edo harturik, poliza ondotik omen du.” (“Etsiturik”, E 1231 Han-hemenka).

Hurrenkera normalean: “ezik behar ez zen zerbeit nonbeit eginik edo harturik,...”. Hemen ere bidean abiatu ondoren, jauzi egin behar da eta gero atze-atzeka.

“(…) huna zer egiten duen. Igortzen du sehi bat bertze saltzale harek etxean dituen saltzeko xapel hogoi handienak eros ditzola eta ekar lehenbailehen. / Gaitzak ziren, ((koma, neronek jarria)) zabalak, parasola testament zaharreko baten itzala zutenak.” (E 1228 Han-hemenka, “Xapel handiak”).

Arruntagoa: “bertze saltzale harek etxean saltzeko dituen hogoi xapel handienak”. Eta: “testament zaharreko parasola baten itzala zutenak”. Hemen jauzi eta gibelerat urrats, jauzi eta gibelerat urrats egin behar da.

“Predikua eskuaraz (...). Han ziren arrotz batzuek nahiago zuketan frantsesez; bainan Jaun apezpikuak hola du nahi zuela erran; berak ez konpreniturik ere, zuzenago baitzitzaion eta ederrago izanen zela hor eskuara.” (E 1285 EH: Lapurdi: Guetary).

Ohikoagoa: “hola nahi zuela du erran” (edo: erran du). Jauzika, aitzin-gibelka irakurri behar hemen ere. Idazlea estropozuka dabilela dirudi baina joskera landuak dira.

“Jainkoaren aitzinera eskuak hutsik agertzea sarri aski izanen da; dugun bederen ostiko hortaz kondu emaiterik ez.” (E 1226) (Hots: ez dugun bederen ...).

“Zoin diren, ez eta zonbat, eskualdun hilak, gerlaren hastapenetik hunat soldado eztakigu oraino xuxen.” (E 1430) (Hots: Eztakigu oraino xuxen zoin diren, ez eta zonbat, eskualdun soldado hilak gerlaren hastapenetik hunat).

Esaldi batetik besterako jauziak ere baditu: “Halere beti izanen dire Parisen eta bertzetan erraileak (...).../ Eta ez baitire gero nongo nahiko semeak; baitire deputatu gorrien artean bertzenaz iduriz gizon handiak, edo bederen zenbeitek gizon handitzat dauzkaten holaxet mintzo.” (E 366) (Hots: Eta ez baitire gero nongo nahiko semeak holaxet mintzo).

(*Progrès de Biarritz* kazetaz) “miarritzar eta hura iduri ziri kazetari franximan hatsa gezurra diotenen arabera: “katixima eskuarak dauzkala Frantzian diru untziak eta bereziki “caisse d’épargne” hori tripatik minez” (E 840).

Irakur bedi: “hura iduri franximan kazetari ziri hatsa gezurra diotenen arabera”. Edo: “hura iduri kazetari franximan ziri hatsa gezurra diotenen arabera”. Honek *hipalage* delako figuraren itxura du; hots, adjektiboen leku aldatzea, kasu honetan *ziri* adjektiboarena. Poesian erabiliagoa da, noski. Badirudi anakolutoa baino landuagoa dela. *Hatsa gezurra du* lokuzio metaforiko (‘oso gezurtia da’) bihurritzen du. Eta berriz, errima.

Ondokoan, izenaren (ez adjektiboaren) lekualdatzea:

(Erretretako legeaz mintzo delarik, nola bortxa den guzientzat, urtean honenbesteko bat emanetz) “Asurantzaren batean sartzen zire zure nahiz; suaren kontra, eritasun askoren kontra lagungoak, konfrarioak egiten dituztenek ez dute bortxarik; beren nahiz sartzen dire, konfrario hetan, lagungo hetan; emaiteko duketen hura ez badute nahi eman, haizu dire nahutenean has; nahutenean geld; araberan gal edo eskura laguntza. / Hau ere hala egin balute lege; erretretartzeko nahi zuena hortan sar; nahi zuena kanpo geld; (...)” (E 1255 “Nahi ala ez”).

Komunagoa: “Lege hau ere hala egin balute” nahiz dagoen hitzordenan ere oso ondo ulertzen den. Hain zuzen, erretorikak efektuak bilatzen ditu, hitzordena kanonikoak ez bezala sujeritzen dituenak. Antzekoa da “Halere oraino lege berriak egin balitzate bederen ontsa; eginen duten ongi poxia baino anitz kalte eta gastu gehiago ekarriko dituztenak ez balitzate legeak egin!” (E 1118).

Hitza eta silaba ustekabeen mozten du inoiz. Hona hemen adibide bat, “Beribil” artikulukoa, non J. Etxeparek zioen “gogomenen jauzte lilluragarri” hori gertatzen den:

“Bi urtez, egunetik has, luma hunek hemen ez du izkribatuko ez *auto*, ez *oto*...are gutiago *astomobil*; bainan ba beti *beribil*. Hitzeko gizon ez bagira, zuek oroitaraz. Berri heltzalek, behar orduan, guk bezala egin balezate, lan bat gutiago guretzat otom...uthur eta asto buztan mozten artzea.” (E 1909-4-30 “Beribil”).

Inoiz hitza bi zati egin eta tartean beste osagai bat sartzen du (*tmesi* delako hiperbaton mota): “Iluntzeari buruz jeikirik badoazi handik aitzina; herri zonbeitetarat naski hur eta bildu nahiz gauarentzat.” (E 1436).

Beste inoiz, deklinabideko kasuetan komunztadurarik ez da ageri:

“*Syndicats* direlakoetan sartuak, baziren berritan *sei mila* errient. Biziki gehiago, *Amicales* deitu, izen eztixagoko (sic); azkenean oro xede beretako: ez Jainkorik (hori erran gabe doa) ez Frantziarik, ez armadarik, ez dutela nahi.” (E 1327 “Legeari obedi”).

Erran nahi baita: “izen eztixagoetan”. Edo: “izen eztixagoko *Amicales* deituetan”. Edo agian: “*Amicales* deitu izen eztixagokoak”. Honelako besterik oraingoz aurkitu ez dugun arren, ez dugu uste inprimatze hutsik dagoenik (eta balego ere, HUK honelakoak egitea ez litzateke harrigarria, irakurlearekin jolas-tea gogoko baitu). Kasu honetan badirudi irakurleari uzten diola idazleak esaldia bete edo osorik –eta modu batera nahiz bestera– deklinatzeko, hots, josteko lana.

Joskura bitxi-bihurri-apaindurazkook ez dira oso ulerterrezak eta beraz ohikoak kazetaritzan; HUK berak ere noizean behin baino ez ditu holakoak idazten. Kazetariak irakurlearekin jostatze gogoa erakusten du, elkar ongi aditzearen ondorioz; hizlariak bere *ethos* edo sinesgarritasuna luma trebe ausartaren bidez sendotzekoa ere bai.

4. *Inversio*, hiperbaton edo hitzordena ohikoaren bihurritze gozoagoak ere baditu. Adib., ahozko mintzairaren eite duten joskera anaforiko batzuek, anakoluto itxurakoak (?), enfasi adierazleak:

“Bertzalde anitzek eman zioten Kanboarre boza” (1902-5-9 “Diharasarry apeza” (E 1902, in *Mintz.* 106),

Ondoko *inversio*ak (hitzordena aldaketa nahitaezkoak, esanahia ere aldatzen dutenak) estilistikoak dirateke ondokoak, adjektibo (izenlagun) baliokoak (“*inversion*”, Lafitte G 120); *tirano lege*, *katoliko buruzagi*, *zozialist aitzindari*, *maltzur joko*, *urde apez*, *ogi-egile soldado*:

“tirano egitateak eta tirano legeak ezin jasanez (...)” (E 1158).

“kondenatu duenaz geroz katoliko buruzagien Buruzagiak,...” (ibid.).

“Diote gorki zozialist aitzindariak: lege hori langilearentzat on baino kalteago litakela, non ez duten berriz hasirik egiten hobeki, lehen aldian baino.” (E 1254).

“Etsaiaren atsegina da eta maltzur jokoa, jende xehearen atxikitzea buruzoro barbutzika (E 1145).

“(...) lapurtar mera ohi batek zion, aitzinagoko astean: “Deus makurrik ez ginuke, urde apez horiek egon balite nonbeit. Preso behar litazke guziak ezarri boz egunetako, hilabete bat aitzinetik” (E 1216 “Zoin gibela”).

“Conflans-en-Jarnisy eta Colmar hirietako etsai garak andeatu dituzte (...)” (E 1473).

“Ogi-egile soldadoek omen baitzioten, agian iraunen zutela urri arte, hara non duten kanpoa, hain laket zuten lanetik;” (E 1253 EH “Baionako grebak”).

“(...) itotzale pozoin tzar hetarik dariotela (...)” (E 1473).

“(...) itoz hil-arazle pozoin hetarik zernahi aurdikirik (...)” (E 1472).

“Bainan izendun paper baino gehiago dire izen gaberik” (E 374). (Hots: paper izendun baino gehiago da paper izengaberik).

Hona hiperbaton gozoagoak. Ondoko adibidean, determinatzaile zenbatzailea eta izena elkarrengandik bereizten ditu:

“Ez dau (sic) erraiten zerendako eginarazi dituen Donibanen hirur botz emaiteko leku” (EO 30, 1907-7-26).

Ohikoagoa: “botz emaiteko hirur leku”. Edo: “hiru leku botz emaiteko”.

Konparazio-termino, juntagailu, aditz-partikulak ere aldatzen badaki: *baizik, baino, omen, behar, ere...* Jendearen ahotan ere maiz korritzen dute (anakolutoak?).

“Zenbeit ehun baizik irakurtzale ez duen (kazeta) ttipi bati emanen dio batek urtean 10 libera“ (EO 26, 1906).

Komunagoa: “Zenbeit ehun irakurtzale baizik...”.

“gure libertimenduek irabaziko baizik ez dute” (EO 40 1907 EH Kanbo).

Normalagoa: “ez dute irabaziko baizik”.

Bainoren destokitzea, bukaeran jarritz. Adibideak ugariak dira. Ondokoan bigarren aldiari aldatzen du lekuz, lehen aldiari normal kokaturik baitaigo:

“Diote gogorki zozialist aitzindariak: lege hori langilearentzat on baino kalteago litakela, non ez duten berriz hasirik egiten hobeki, lehen aldiari baino.” (E 1254).

“Egia handiagorik egundaino nehork ez du erran hori baino.” (E 1270).

Omen aposizioan, aditz laguntzailearen ondotik. Ondoko bigarren adibidea ausartagoa da:

“Oraikoa *Madriilen* dire omen makurrik handienak” (E 267).

“Ile iduri harizko edo zurda mehezko perrekeria batzu badire erdi merke; bainan egiazko ileak, emazte ile luzeak bereziki, kario dira itsuski omen” (E 1241).

Erran dugu idazle apaintzaileek ohi dituzten *inversio*, *anastrofe*, *hiperbaton* edo tokialdatze landu eta estilistiko anitz aurki daitezkeela HURen kazetalanetan. Adib., goraxeago aipatu aditzaren lekualdatzeaz gainera, erlatibo atzeratzea (X...-n /-lako + -ik); *bederen* aditz nagusi eta laguntzailearen artean ezartzea; *ere*-ren hitzordena askatua; bertze gibeleratzea; *zenbat* izenaren ondotik jartzea (hizlaritzan eta ahozko mintzairan normala, adib. harri-durazko perpausetan eta hitzordena normalarekiko kontrastasunean, adibidean ikus daitekeenez); *-en* genitibo objektu adierazlea aditz-izenaren eskubira, nahiz ondoko izenik edo honen ordezkotako *-a* markarik gabe, eta halaber *-ko* izenlaguna. Honelakoetan nabaria da estilo bilaketa. Adibideak:

“Eta ez dauku oraino nehork hitz bat altxatu, makur erran dugulakorik” (E 835 “Etsemplu”).

“Mintzoak oroitaraz bederen dezake osoki soraiotua ez dena; (...)” (E 1244).

“Hala ere diote hiru ez bada lau jakintsun liburu berriaz elekatu ditu(d)anak” (EO 9, 07-3-1).

“Alfer-lan zerbait bertze emozute gудuei” (E 390).

“Raynal derizalako bordales judu higuigarri bat./Eta zenbat bertze buruzagi?” (E 389).

“Eskual-herrian berean zenbat arrotz, kaskoin eta bertze, frantses garbia baizik ez dakiten jaun eta jaunskila, xanfarin, langile gazte, alfer ziri zohitu zenbat ez dugu ikusten (...) noiz nahi edanak (...)” (E 840).

“Hori ez duzue guri erran behar, nahiz jakitea gauzen laket dugun” (E 1344 “Saltzaleri”).

(Pams, laborantzako ministroaz) “Beti aberatsa omen da biziki eta laguntzalea beharretan direnen. / Ez beharretan diren guzien laguntzalea, ez, bainan bere kidekoen, bereziki framazon eta holakoen.” (E 1346 “Poincaré”).

“Lapurdiko herri-nausi zen orduan Ustaritze. Baxenabarreko aldiz Doniane Garazi; Zuberoko, Maule.” (E 1094).

5. Aposizioan txertatu ohi ditu hitz nahiz sintagma batzuk, sintagma baten barnean, hitzordena normala etenez eta haiek tartean sarraraziz. Sintagma horiek izenaren ondotik tartekatu ohi ditu batzuetan, hari zerbait eransteko; beste batzuetan, erlatiboko aditz eliptikoaren ordeztan *-le* sustantibatzailea ezartzen delarik.

“(…) gorriagoak jinen zirela, ele eder berekin ziloan barnago gure sartzaille” (EO 19 EO-5-12).

“Ihesari eman dire, bainan ondotik zituzten balentria horren egiten ikusle jendeak” (Adema? E 1287 Berrixkak, “Ohoiak”).

“Eta bizkitartean giristino soldadoek halere zerbitzatu zuten Enperadore fedearen etsai hura” (E 253).

“hura bezalako gizonen gogorako errepublika dugun huntaz bertzerik izanen da” (E 270).

Osagaien eranste eta kentzeok estilo eliptiko trinkoaren bilatzea erakusten dute; eta beti, hitzordena ohikoaren aldaketa bilatuz, adierazpide eta hitzordena normala eten eta haren ordeztan ustekabeak ezartzeko. Ustekabea gerta daiteke osagai berriak esanahiaren aldaketa ekar dezakeelako, kolokazio edo lokuzioekin jokatuz, esaterako:

“Guziak oro erlisioneari dakizuen gerla itsusiaren aitzina egile, edo egileen sustatzale, laguntzale” (E 1197). Kasu honetan *aitzina* sartzen du ustekabea, aditzaren esanahia ere aldaraziz.

Joskura ustekabeak nahi ditu HUK, adierazpide ohikoaren ordeztan:

(Gizon edalea) “ (...) zozoa iduri eta zonbeit aldiz eroa, ero lanjerosenatarik; usain bat, hats bat, nehor ezin aldean egonezkoa.” (E 1239, “Gizon edaleak” art.).

Hemen “nehork ezin jasanezkoa” edo “eramanezkoa” edo antzeko baten ordeztan, adierazpidea bihurtzen du *ezin* partikula *aldean egon* esapideari erantsiz eta “egon” aditzarekin jokatuz ustekabea.

6. Elipsia, bereziki aditzarena, baliabide garrantzitsua da gauzak labur eta doi-doi adierazteko. Aitzinago aipatu “erretoraenek” agertzen den testuan bi elipsi ageri dira:

“gure herrietako elizen ontasun, etxe, lur, diru, guzien jabe fabrikak, ezeztaturik, suntsiturik oro, (...) ebatsi dituztela?” (E 1274 “Norenak handienik”).

“Eta bertzalde zonbat eskoletxe girstino, diosesa guzietan apezpikuen eskuko zirenak; egundaino ez gubernamenduaren izanak; buraso girstinoen dirutik eginak, (...) lan tzar hoienguzien egileak baino ohoinagorik nor non da?...” (ibid.).

Hots: “ziren” (“guzien jabe ziren fabrikak”) eta “eskuko” (“gubernamenduaren eskuko izanak”).

Aditz elipsia sintagmen tokialdatzearekin batera gerta daiteke:

“Bakarrak balire hauk, Espainiako aldean gutaz eta guk egiteko mintzo ez gure gogora, ele gutiz elgarretara ginitazke.” (E 1435 “Frantzia eta Espainia”).

Hau da: “ez gure gogara mintzo direnak”.

Aditz elipsi mota berezi bat bada, *zeugma* figuraren oinarria dena. Zeugmak “uztarria” esan nahi du grekeraz edo bi buru estaltzen dituen txapela. Ondoko testuan bi fenomeno ageri dira: zeugma eta kasu komunztadura, dataren kasuan, bigarrenak bakarrik baitarama kasu-marka:

“Ezkontza handi baten eguna zen katredalean, agorrilaren 6, asteartean. *Lagrolet* eta *Molinié*, Baionako familia ezagutuenerarik biga ziren elgarretaratzen. Jende anitz bazen gomit eta ikusle.” (E 1223 EH: Baiona).

“Halako herri on bat behar dautzuegu hemenxe aipatu, merezi duena, gisa guziez, etsenplutzat eman dezagun. / Urrun da Eskual-herritik, bainan Frantzian. “ (E 1240 “Herri on bat”).

“Ez haizu burasoak arreguratzera deusez; edo bederen azken hitza errientaren eta haren buruzagien. Apel egiterik nehorat. / Are gutiago haizu burasoak, haurren etxean atxikitza (...).” (E 1245).

Ondokoan, Larramendi Hazparneko hautagaiaren alde ari dela dio:

“Hau ona dugu eta segura nausitzeaz, bera izanzen denaz geroz, kontrariorik gabe” (*Esk. Ona*, 1907-7-29) (bera: ‘bakarra’).

Adibide horietan “bazen”, “da”, “ez haizu”, “dugu” dtugu aditz uzta-riak.

Bestenaz, ugariak dira beste elipsi-figura batzuk: asindeton edo juntagai-lurik eza, erretizentzia edo ixiltzea (eten puntuen bidez adierazia). Ondoko adibidean HUK asindetona polisindetonarekin ("juntagailu anitz") aldizkatzen du, aipatu *variatio* delakoagatik.

"Emazue aipu dela herri batean eliza, bide, zubi; herri guziaren edo anitzen onetan edo kaltetan loakena, noiz eta non eta nola egin, ez egin." (E 1289).

AZKEN HITZ

Kazetari izanik ere, HUK adierazkor eta libreki, jostatuz eta gozatuz erabili du hizkuntza. Bazuen idazle sena eta bazekien ere kazetaritzak joskera eta forma ohargarriak behar zituela. Kazetaritzako hizkuntza-molde egina eta jendearen ahotik hurbilekoa, idazlearen sormen, berritasun sen, aldakortasun, umore eta graziarekin ezkondu zuen. Euskal esamoldeak zirti-zarta josten zituen bere fantasiatzko jostorrazaz, plegu zahar eta berri noiz liluragarri noiz ustekabeko eta beti apainez ehunduz bere hitzaldia.

Berezixe da, bestalde, bere garaikoen eta ondokoen eretzean, hizkuntzaren legeak ongi ezaguturik ere, bere mintzaldi erretorikori indar emateko, jakinki eta ausardiaz gramatika arauak hausteraino iritsi baitzen. Ez da, ordea, hegats ausart bakarra; hor da *Beribilezen* egilea ere, hiperbatonari dagokionez, edo *Abendats* delako S. Mitxelena, morfologian edo hitz- eta hots-jokoetan, edo Lizardi. Ez dugu esango ere HU funanbulista bat izan zenik, edo beste hizkuntza batzuetako idazle eta kolunista zenbait bezain ausart eta hautsizale denik. Ezta ere transgresio guztiei ederretsi behar diegunik; bakarrik, egungo idazleek gramatikari errespetu gehiegi diotela agian,

HUren mintzaira bereziaren erakusburutzat ekarri ditugun hitz, forma eta joskura erreberitu, bihurritu, lege-hausle anitz ez dira ohikoak, ezta Iparraldean ere, ez euskara mintzatuan ez idatzian. Baina adibideen ugaritasuna ere ez da hainbestekoa; eta gero, testuinguruak laguntzen du askotan (adib., lege-hauste kasuetan). Bestenaz, prozedura jakinek sortaraziak dira: osagaien ezabatze (elipsi), gehitze (osagai berriak aposizioan txertatze etab.), aldatze (inversio eta hitzordena-aldaketa) nahiz hitz- eta hots-jokoek.

Nolanahi ere, aztertutako erakusburuok erakusten dute, euskarak morfologian, hiztegian, hitzordenan etab. eskaintzen diela jokorik idazle eta hiztunei, testu erretoriko nahiz bestelakoetan. Erabilera berezi horiek –berariazko

lege-hausteak barne-estiloari dagozkio eta ez dakit hizkuntzaren gramatikan aipagarri diren edo ez. Baina estiloa idazleen edo erabiltzaileen hautua da. Adibidez, aditza non koka, aurreratu edo azkenera igor. Estiloa berez librea da, lehenik. Eta gero, zer eta nola den egokiago halako edo holako irakurle nahiz entzuleentzat, edo honelakoxe edo horrelakoxe testu-motatarako, irizpideak egongo dira, xedearen arabera beti, arrakastatuak izanen direnak edo ez, zure gogo atzemanen dutenak edo ez.

BIBLIOGRAFIA

AZKUE, R.M. 1959. *Euskalerrriaren Yakintza* (EY), I. Espasa Calpe, Madrid.

CHARRITTON, P. 1982. "Lacombe eta Broussainen arteko elkarridazketa", *Bulletin du Musée Basque*, n° 98.

CHARRITTON, P. 1984. *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak*, I, Euskal Gaiak, Elkar, Baiona.

CHARRITTON, P. 1985. "Lacombek Broussini", *Bulletin du Musée Basque* 108, 109, 111.

Euskal Gramatika Laburra: Perpaus bakuna (EGLUPB), 1993. Euskaltzaindia, Bilbo.

Eskualduna (E). 1887-1904 eta 1908-1944. Iparraldeko astekaria.

Eskualdun ona (EO). 1904-1908. Iparraldeko astekaria.

ETXEPARE, J. 1910. *Buruxkek*. Euskal Editoreen Elkartearen berrargitalpena, 1992.

ETXEPARE, J. 1915, 1925. Ikus CHARRITTON (1984): "Jean Hiriart-Urruti kalonjea (1859-1915)", 171-175 orrialdeak; "Jean-Blaise Adema jauna (1861-1936)", 225-233 orrialdeak; "Lecaroz".

ETXEPARE, J. 1931. *Beribilez*. Euskal Editoreen Elkartearen berrargitalpena, 1987.

HIRIART-URRUTI, J. 1907. "Hilak hil", RIEV I, 617-623.

HIRIART-URRUTI, J. 1944. *Zer eta zer*, Lafitterren argitalpena, Collection *Aitzina*, Baiona.

HIRIART-URRUTI, J. 1971. *Mintzaira, Aurpegia; Gizon!, Jakin, Oñati*.

- HIRIART-URRUTI, J. 1972. *Zezenak Errepublikan*, Jakin, Oñati.
- HIRIART-URRUTI, J. 1994. *Gontzetarik jalgiarazia*, I. Caminoren argitalpena, Euskal Editoreen Elkarte.
- Hiztegi Batua* (HB). 2000. Euskaltzaindia, *Euskera XLV*, 2000, 2.
- ITHURRY (L'Abbé). 1985. *Grammaire Basque. Dialecte Labourdin*, Imprimerie A. Lamaignère, Baiona.
- LAFITTE, P. 1979. *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*, Elkar.
- Les meilleures pages de Mgr. St. Pierre*, 1952. Imprimerie "Le Courrier", Baiona.
- LHANDE, P. 1926. *Dictionnaire Basque-Français (Dialectes labourdin, bas-navarrais et souletin)*, Gabriel Beauchesne, Paris.
- Diccionario General Vasco-Orotariko Euskal Hiztegia*. 1987. Euskaltzaindia. I-XIII.
- MITXELENA, S. 1977. *Idazlan Guztiak*, I, II, E.F.A, Arantzazu-Oñati.

Laburdurak

E: *Eskualduna*.

EO: *Eskualdun Ona*.

EGLUPB: *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*. Euskaltzaindia

EY: *Euskalerriaren Yakintza*. Ik. Azkue, R.M.

G: Ithurriren edo Lafitteren gramatika; ondoko zenbakiak paragrafoa adierazten du.

HB: *Hiztegi Batua*. Euskaltzaindiarena.

HU: Hiriart-Urruti.

OEH: *Orotariko Euskal Hiztegia*.

ADITZ DITRANTSITIBOEN BARNE-EGITURA

*E. Arregi
J. Ormazabal*

1. SARRERA

Lan honetan, predikatu ditransitiboek erakusten dituzten zenbait propietateri buruzko ikerketa txiki bat aurkeztu nahiko genuke, predikatu hauen erlazio tematikoak eta argumentuen arteko erlazio estruktural batzuk aztertzen dituen. NOR-NORI-NORK egituren ondoan, aditz ditransitibo haue-tariko askorekin maiz agertzen diren Postposizio Sintagmen bidezko egiturak ere aztertuko ditugu, bien arteko konparaketa bat eginez.

Lehenengo abiapuntu bezala eta euskal gramatikariaren tradizio bati jarraituz, NORI eta NOR argumentuen arteko orden ez-markatua NORI > NOR dela asumituko dugu; euskalari gehienek –inplizito edo esplizitoki- asu-mitu duten zerbait da. Autore gehienek datiboaren posizioari buruz ezer gutxi esaten badute ere, adibideetan hurrenkera neutroa adierazterakoan zehar objektua subjektua eta objektu zuzenaren artean kokatzen dute (ik, besteak beste, Lafitte 1969, Goenaga 1980, Ortiz de Urbina 1989, Cheng & Demirdache 1993, edo Euskaltzaindiaren *EGLU*). Hizkuntzalari bakan batzuk esplizituki asumitzen dute hurrenkera hau, asunzio honen aldeko ebi-dentzia gehiegirik eman gabe (ik. batez ere, Laka 1993, Albizu 1993, Fernández 1996). Lakak (1993), adibidez, hasiera-hasieratik asumitzen du aipaturiko hurrenkera ezmarkatua dela. Dena den, berak proposatzen duen morfologia-sintaxiaren arteko isladapenari buruzko hipotesia ondo oinarritu-ta dagoen heinean, zeharkako ebidentzia da orden ez markatu honen alde. Elordietak (2001) kapitulu oso bat perpaus ditransitiboetan orden ez marka-tua (1) adibidean agertzen den ordena dela argudiatzeari dedikatzen dio.

- (1) NORK - NORI - NOR – Aditza (Elordietak 2001)
 (2) Mirenek Peruri liburua ekarri dio

(1) adibideko eskeman ikus daitekeenez, Elordietaren lanaren eremua zabalagoa da hemen aztertuko duguna baino. Lan honetan ez dugu aditzaren jatorrizko posizioari buruz ezer esango, ez eta subjektuarenari buruz ere. Egia esan, gure lanaren helburua nahiko xumea da: aditz ditransitiboan bi barne argumentuen arteko erlazioan sakontzen saiatu besterik ez dugu egingo, (1) eskeman agertzen diren beste zehaztasun guztiak albora utziz.

Orden ez markatua NORI > NOR dela onartu arren, gure ustez gehiago esan daiteke egitura hauei buruz. Izan ere, orden ez-markatu hau “deribatua” izan daitekeela pentsatzen dugu eta, beraz, argumentuen arteko jatorrizko erlazio hierarkikoa bestelakoa izan daitekeela erakusten saiatuko gara.

Hurrenkerarekin batera, lan honetan zehar eztabaidatu gabe asumituko duguna zera da, euskarazko Datibo Egiturak hainbat zentzutan beste zenbait hizkuntzatan ematen diren *Objektu Bikoitzeko Egituren (Double Object Constructions)* parekoak direla. Beste hainbat hizkuntzatan aplikatutako estrategiak –batez ere dagoeneko klasikoak bihurtu diren Barss eta Lasnik-en (1986) asimetriak— erabiliaz, Montoya (1998) eta Elordietak (2001) euskararen (3) bezalako Datiboaren Egiturek (4)-en erako Objektu Bikoitzeko Egituren propietateak dituztela argudiatu dute, eta ez (5)-ko Egitura Preposizionalarenak.

- (3) Mirenek Peruri liburu bat eman dio
 (4) Mary gave him a book
 May eman-zion bera-akus bat liburu-akus
 (5) Mary gave a book to him
 Mary eman-zion bat liburu ADLAT bera

Horretaz gain, Ormazabal eta Romerok (moldiztegia) euskarak NOR-NORI-NORK paradigman dituen hutsuneak, tipologikoki era askotako hizkuntzatan ematen den murrizketa baten adierazgarriak (ik. Bonet 1991, Albizu 1997a, 1997b), Objektu Bikoitzeko Egiturei erabat lotuta daudela argudiatzen dute.

Elordietak (2001) dioenaren kontra, oster, (5)-ko egituraren pareko adibideak euskaraz ere aurki daitezkeela uste dugu, zenbait kasutan behintzat. Horretan oinarrituta, euskaraz datibo alternantziak badirela argudiatuko dugu.

Esandako guztia kontutan izanik, gure helburu nagusienetariko bat alternantziok euskararen egituraren argumentuen arteko oinarritzko erlazio hierarkiko berruz eman diezaiguketaren informazioa aztertzea izango da.

2. DATIBO ALTERNANTZIAK EUSKARAZ

Ezaguna denez, NORI komunztadura daukan argumentuak ez du beti aditzarekiko erlazio tematiko berbera. Izan ere, zehar objektuak HELBURUA, ONURADUNA edo JABEA adieraz dezake besteak beste, (6)-ko adibideek erakusten duten bezala:

- (6) a. Mireni liburua bidali diot [HELBURUA]
- b. Mireni opari bat prestatu diogu [ONURADUNA]
- c. Mireni etxera etorri zaio [JABEA edo; ik. *EGLU* 344 orr.]

Kontutan izan (6)-ko adibide bakoitzeko badagoela egitura alternatibo bat semantikoki asko hurbiltzen zaiona; egitura hauetan guztietan, (6) adibidean NORI duen argumentua postposizio sintagma baten bidez azaltzen zaigu:

- (7) a. Mirenengana liburua bidali dut
- b. Mirenentzat opari bat prestatu dugu
- c. Mirenen etxera etorri da

(7) adibidean adlatiboan, destinatiboan edo genitiboan agertzen diren Postposizio Egiturak alde batetik, eta NORI datiboarekin agertzen direnak bestaldetik, guztiz parekoak dira tematikoki. Alternantzia hauen eremua beste hizkuntza askotan aztertu den bera da, eta bi egituren arteko ezberdintasun semantikoak ere ez dira ezezagunak hizkuntzaotan.

Are gehiago, (8) bezalako kausatiboetan, NORI kasu hartzen duen argumentua menpeko *irakurri* aditzaren EGILEA da, Lafittek (1969) berak aipatzen duen bezala (ik. Deustuko Mintegia 1988):

- (8) Mirenek Aneri liburua irakurrarazi dio

Chomskyren (1981) Hatsarre eta Parametroak izeneko ereduaren oinarritzen den gramatika tradizioan —batez ere azken hamarkadan Kasuari buruzko lanetan— aditzaren argumentuen bi posizio ezberdin bereizten dira deribazioan. Alde batetik, argumentuak aditzarekiko edo, orohar, predikatuarekiko mantentzen duen erlazio tematikoaren arabera —hau da, aditzaren GAIA, HELBURUA, etab. izateagatik— Aditz Sintagma barruan okupatzen duen posi-

zio sintaktikoa mugatzen da. Bestetik, komunztadura eta kasuaren arabera, argumentuak mantentzen dituen erlazio sintaktikoak zehazten dira, deribazio sintaktikoan mugimenduaren bidez lortzen diren erlazioak hain zuzen.¹

(6)-(8) paradigmetako NORI argumentuen jatorri ezberdina kontutan izanik, badira arrazoi asko datiboa okupatzen duten argumentuen lekua posizio “deribatua” dela pentsatzeko. Hau da, ez dago funtsezko arrazoirik adibide horietako NORI argumentu guztiak egitura hierarkikoaren posizio berberetan sortu direla pentsatzeko, aditzarekiko erlazio anitzak adierazten direla kontutan izanik. Gure ustez, zenbait predikatuk —batez ere *eman* eta *begiratu* bezalako aditzek (ik., besteak beste, Lafitte 1969:§816 eta Etxepare 2001)— datibo argumentua nahitaez hartzea eta alternantziarik ez onartzea gainontzeko predikatuek ohikoagoa duten alternantzia baten errealitatea estaltzen ari da. Horregatik, orain arte eztabaida teorikoetan planteiatu diren galdera hurbilenak datibo kasua eta komunztaduraren izaera estrukturala edo inherente-ari buruzkoa izan da (ik. Fernández 1996 eta bertan aipaturiko erreferentziak), eta ez datibo kasua jasotzen duten argumentuen jatorrizko izaerari berari buruzkoa. Datiboa kontutan hartzen duen teoria batek aipaturiko aditz motak alternantzia zergatik erakusten ez duen azaltzen saiatu beharko du, noski, baina alternantziak ematen diren testuinguruen azalpenari lehentasuna eman ez.

Antzeko alternantzia tematikoak ematen diren kasu guztietan bezala, (6) eta (7)-ren arteko alternantziak planteatzen duen galdera zera da: nola daude erlazonaturik bi egitura hauek? Gramatika sortzailearen barruan, erabat inkompatibleak diruditen bi hipotesi mota proposatu dira —bakoitzean bariante ezberdinak daudelarik—. Alternantzia hauek hiztegiaren eremuari atxiki dakizkioke eta syntaxian bakoitzak bestearekiko loturarik gabeko egitura bat duela asumitu. Hori da, modu ezberdinetan, Williams (1994) edo Jackendoffen (1990) jarrera teorikoa, baita, neurri batean behintzat, Pesetskyrena (1995) ere. Bakerren (1988) lanak eta, guri dagozkigun egiturekin zuzenean lotuta, Larson (1988, 1990) eta Hale eta Keyserrenak (1991)


¹ Terminologiari buruzko ohar bat: nahiz eta hitz ordena eta elementuen arteko orden hierarkikoa hiru maila desberdinetan aztertu daitezkeen (jatorrian, A-mugimenduaren ostean eta A-barra mugimenduaren ostean), lan honetan A-barra mugimendua alde batera utzi nahi genuke. Posible den heinean, beraz, mugimendu mota hau kontrolpean izaten saiatuko gara: beraz, *azaleko posizioari* buruz ari garenean A-katearen azken posizioari buruz ari gara (zehar objektuaren kasuan, Kasu edo komunztadura posizioari buruz, hain zuzen), eta *azaleko ordenez* ari garenean, A-mugimenduaren ostean baina *A-barra mugimenduaren aurretik* (NZ-, Galdegaia-mugimendua aurretik) ematen den ordena izango dugu buruan.

alternantzia hauen azalpen deribazionala bultzatu dute azken hamarkadan. Bigarren ikuspuntu honetatik badago egitura erlazio zuzena, adibidez, (6a) eta (7a)ren artean; biek erlazio tematiko berberak adierazten dutenez, erlazio hauek errepresentazioaren mailan egitura berbera ere partekatu behar dute. Hatsarre honen formulazio ezberdinak egin badira ere, Bakerren UTAH, (9)-an duzuen, bertsio ezagunena eta, neurri askotan, erradikalena da:

- (9) *Theta-Ezarpenaren Uniformetasunaren Hipotesia*: Hiztegiko elementuen arteko theta-harreman berdinak elementu horien arteko egitura-harreman berdinen bidez adierazten dira S-Egituran (Baker 1988).

Gure ikuspuntutik, Baker eta bere ondokoen hipotesi deribazionalak abaintail enpiriko eta teorikoak ditu. Egia da eman ditugun alternantzia hauen artean erregulartasun osoa aurkitzeko arazoak daudela, baina era honetako prozesuak hizkuntza mota ezberdin askotan gertatzen dira; gainera, hizkuntzen arteko ezberdintasunak badira, bai emankortasunari begira baita alternantzia onartzen duten aditz zehatzen aldetik, baina orohar eremu berdinetan gertatzen dira prozesuok eta, hein handi batean, gertatzen ez diren kasuak aurreikusi daitezke. Zaila da ikustea hizkuntzen arteko kointzidentzia hauek nola jaso daitezkeen era batu batean alternantziako bi egiturak deribazionalki loturik ez badaude.

Gogoratu, gainera, datibo komunztadura daraman sintagmak aditzarekiko erlazio tematiko ezberdinak adieraz dezakeela, honetan ere bere estatusa deribatiboa dela sujerituz. Ondorioz, zehar objektua eta objektu zuzenaren arteko erlazio hierarkikoa “azalean” (10)-koa dela argudiatzeko argumentuak izan arren, orden horrek ez du nahitaez adierazten bi argumentuen arteko erlazio hierarkikoa “oinarrian”:



(10)-ek A-kateen buruen arteko orden hierarkikoaren islapena adierazten du, baina jatorrian erlazioak bestelakoak izan daitezke; hau da, (10) egitura eskeman agertzen zaigun ordena komunztadura posizioetarako mugimendua- ren osteko ordenaren islada izan daiteke eta ez du argumentuen jatorrizko posizioa nahitaez erakusten. Beraz, posible litzateke jatorrizko ordena azaleko orden honen alderantzizkoa izatea; hau da, GAIA ONURADUNA/HELBURUA- ren gainean sortzea jatorrizko egituran. Laister ikusiko dugunez, horrek zen- bait ondorio ekarriko luke.

Lan honetan jarraituko dugun estrategia honako hau izango da: (6)-ko egiturak (7)-ko egituren antzeko hierarkia erlazioetatik deribatzen direlako proposamenari eutsiko diogu, Datiboaren Egituren kasuan komunztadurarekin loturiko mugimendu bat gehiago dagoela proposatuz. Gauzak horrela, gure helburu nagusienetako bat bi egituren arteko erlazioaren azterketa bat egitea izango da.

3. ARGUMENTUEN ARTEKO HURRENKERA

Hemendik abiatuta, elementu hauen arteko *azaleko* hierarkia hurrenkera enpirikoki zein den aztertuko dugu. Aurreko atalean esan bezala, zehar objektua eta objektu zuzenaren erlazioari dagokiola Montoya eta Elordietaren ondorioak asumitzen ditugu: batetik, azalean, zehar objektua objektu zuzenaren gainean dagoela egitura (ikus Montoya 1998; Elordietak 2001):

$$(11) \text{ NORI (onuraduna/helburua/...) } > \text{ NOR (gaia)}$$


Bigarrenik, Datiboaren Egiturak Objektu Bikoitzeke Egituren erara portatzen direla hainbat propietateri begira (Elordietak 2001, Ormazabal & Romero 2001).

Bestalde, Datibo Egitura eta Postposizio Egituraren arteko erlazio tematiko bat egonik, Theta-Ezarpenaren Uniformetasunaren Hipotesiari jarraituz, deribazio erlazio bat dagoela asumitzen dugu.


Ondorioz, hurrengo pausua HELBURUA, ONURADUNA eta abarreko argumentuen posizioa zein den aztertzea da, argumentuok Datibo Egituraren barruan agertu beharrean Postposizio Sintagmen bidez gauzatzen direnean. Bi posibilitate logiko izango ditugu, beraz:

Alde batetik, Postposizio Egiturretan, Datibo Egiturretan bezala, azaleko ordena HELBURUA > GAIA izan daiteke. Posibilitate honen ondorio enpirikoa zera izango litzateke: Postposizio Egiturretan ziurrenik HELBURU/ONURADUNAREN komunztadurarako mugimendurik ez dagoela kontutan izanik, argumentuen jatorrizko hierarkia azaleko hierarkia bera izango litzateke. Hau da, jatorrian zein azalean, argumentuen ordena HELBURUA > GAIA litzateke. Deribazioaren aldetik, Datibo Egiturretan komunztadurarako mugimendua

baldin badago, egitura hauen eratorpena honako hiru haugariko bat izango litzateke, ondorio enpirikoan arabera:



Bigarren posibilitatea Postposizio Egituretan, Datibo Egituretan ez bezala, azaleko ordena GAIA > HELBURUA izan daitekeela da. Honen ondorioz, eta, esan bezala bi egitura mota hauek deribazioaren bidez erlazionaturik badaude, jatorrizko ordena mantentzen duen Postposizio Egiturak jatorrizko ordena adieraziko luke -hau da, GAIAK HELBURUA/ONURADUNA/etab. O-komandaten dueneko—; Datibo Egiturak berriz, hurrenker deribatua. Ondorio hau zuzena balitz, ordenaren aldaketa Datibo Egituretan honako bi moduetara lortu ahal izango genuke: HELBURUA/ONURADUNA goragoko posizio batera mugitzen bada, GAIA jatorrizko posizioan utziz —(13a) adibidean bezala—edo, bestela, biak mugitzen badira HELBURUA/ONURADUNA GAIAREN gainetik igoz, orain dela ez horrenbeste eztabaida teorikoetan garrantzi handia izan zuen bidezidor kabiratu (*Nesting Paths*) sortuz (13b):



Emandako bi posibilitate hauen artean egokiena zein den ebidentzia enpirikoak esan beharko digu. Kontutan izan behar da HELBURUA, ONURADUNA edo JABEA errol tematiko ezberdinak izanik, dagozkien hierarkia posizioari buruzko ondorioak ezberdinak izan daitezkeela kasu bakoitzean, nahiz eta argumentu hauek guztiak zehar osagarriaren posizioan bukatu. Hurrengo atalean kontu hauek argitzeko hasierako pausuak eman nahiko genituzke, elementu hauen arteko hurrenker hierarkiko eta linealaren azterketa bat eginaz. Horretarako, test klasiko batzuk aplikatuko ditugu, Postposizio Egituretako ondorioak Datibo Egituraren emaitzekin aldentuz.

Oso gai interesgarria iruditzen bazaigu ere, ez dugu eztabaidatuko aukera bakoitzaren barruan egon daitezkeen hautaketaz. Hau da, gehienez jota ere (12) edo (13)-ren artean aukeratuko dugu, hautaturiko ordena lortzeko posibleak diren deribazio ezberdinak eztabaidatu gabe. Era berean, hitzaldi honetan ez dugu ezer esango predikatu ditransitiboen barne-egiturari buruz (Perpaua Txikiaren egitura duen ala Postposizio-inkorporazioarena, etab.), gure aurkezpena argumentuen arteko hierarkia erlatiboa eztabaidatzeari murriztuz.

4. AZALEKO HURRENKERA POSTPOSIZIO EGITURETAN

4.1. Orden ez-markatua

Euskalaritza sortzailearen tradizioan bi izan dira pisu berezia izan duten argumentuak Zehar Objektua Objektu Zuzena baino gorago dagoela esateko: orden ez-markatua eta aditz laguntzailearen komunztadura atzizkien arteko ordena. Postposizio Egituraren kasuan, komunztadura morfemen ordenak ez digu informazio handirik emango, interesatzen zaigun Postposizio Sintagmak ez baitu aditzarekin komunztadurarik mantentzen; ondoko adibide honetan, *dut* laguntzailearen barne egiturak ezin digu informaziorik eman adlatiboaren perpau-barneko egiturari buruz, argumentu hau ez baita komunztaduran isladatzen.

(14) Mirenengana liburua bidali dut

Edozein kasutan ere, NOR eta NORIren arteko hurrenkerari buruz argumentu teoriko honek esan dezakeenez ohar txiki bat egin nahiko genuke. Lakaren (1993) argumentu morfologikoa interesgarria bada ere, bada alor bat, predikatu ezakusatiboena, bere balioa erlatibatzeraz garamatzana. Konpara dezagun, adibidez, (15a)-ko aditz ezakusatiboen NOR-NORI komunztaduren arteko ordena, (15b)-ko NOR-NORI-NORK ordenarekin:

- (15) a. Jon Mireni ixtorio interesgarriekin joan zitzaion
b. Peruk Mireni Jon aurkeztu zion.

Predikatu ezakusatiboaren adibidean, absolutiboa daraman argumentua subjektua da eta zehar osagarriaren gainean dago egituran, besteak beste anaforen uztardurak erakusten duenez:

- (16) a. Miren bere buruari mintzatu zaio [Artiagoitia 1994]
b. Gu geure buruari mintzatu gatzaizkio

Hala ere, NOR-NORI formetan komunztadura markak ez dira inbertitzen; hau da, ditrantsitiboetan bezala, NOR komunztadura NORI komunztaduraren ezkerrean agertzen da sistematikoki.² Gauzak horrela, egitura ezakusatiboez zalantzan jartzen dute komunztadura morfemen hurrenkera eta esaldiaren argumentuen ordenaren banan-banako erlazioa (Zabala 1995, Fernández 1996, Bobaljik 1969).

Aurreko argudioaren kontra subjektutasuna eta komunztadura/kasu erlazioak bi erlazio zeharo independenteak direla argudia zitekeen, Bobaljiken (1991) proposamenari jarraituz; ondorioz, komunztadura mailan absolutiboa datiboaren gainean badago ere, lehen argumentua datiboaren gainetik igotzen da subjektuaren posizioa betetzera. Kontutan izan, hala ere, mugimendu honek sortuko lukeen egiturak berak lan honetan hipotesi mailan aurkezten dugun argumentuen arteko hurrenkera iraultketaren kasu bat litza-tekeela.

Orden ez-markatuari begira, Postposizio eta Datibo Egiturek azalean orden ez markatu diferentea erakusten dutela dirudi, era honetako argumentuek oso garbiak ez izateko joera handia badute ere. Datibo Egiturretan NORI argumentua NOR argumentuaren aurretik agertzen den bitartean, (17)-ko adibideetan ikus daitekeenez, Postposizio Egiturretan hurrenkera ez-markatua alderantzizkoa dela ematen du; hau da, NOR argumentua NORENGANA (18) argumentuaren aurretik agertzen denekoa:³

- (17) a. Berria jakin bezain laster, mezulari bat **Mireni** bidali diot [fokoa]
 b. Berria jakin bezain laster, **Mireni** mezulari bat bidali diot [ez-markatua]
 c. Berria jakin bezain laster, mezulari bat bidali diot **Mireni** [fokoa]
- (18) a. Berria jakin bezain laster, mezulari bat **Mirengana** bidali dut [fokoa]
 b. Berria jakin bezain laster, **Mirengana** mezulari bat bidali dut [fokoa]
 c. Berria jakin bezain laster, mezulari bat bidali dut **Mirengana** [ez-mark?]

² Ikus, hala ere, aditz psikologikoak; Albizu 1993, Artiagoitia 1995 eta bertako erreferentziak.

³ (17)-(20)-ko letra beltza konparaketan interes berezia duten elementuak markatzeko erabili dugu eta, beraz, ez du entonazio edo azentu berezirik adierazten.

Gauza bera gertatzen da (19)-(20) adibideetan, (20c) adibidearen estatusa oso garbi gelditzen ez bada ere. Berriro ere, (19b) adibideak orden ez markatua adierazten duen bitartean, (20b) ez da kasu ez-markatua, baizik eta osagarri zuzenaren foko interpretazioa eskatzen duen irakurketa.

- (19) a. Ogia **Joni** zatitu zion [fokoa]
 b. **Joni** ogia zatitu zion [ez-markatua]
 c. Ogia zatitu zion **Joni** [fokoa]
- (20) a. Ogia **Jonentzat** zatitu zuen [fokoa]
 b. **Jonentzat** ogia zatitu zuen [fokoa]
 c. Ogia zatitu zuen **Jonentzat** [ez-markatua?]

(18) eta (20)ko paradigmaren artean, (18c) eta (20c) adibideak orden ez-markatua azaltzen duten adibide bakarrak baldin badira, Postposizio Egitura hauen jatorrizko ordena NOR > NORENTZAT delako susmoa sendotu egiten da. Hitz hurrenkera neutroari buruzko argudioen balio erlatiboa izan arren, emaitzak hurrengo atalean aztertuko ditugun beste zenbait datuekin bat datozenez, plausibilitate handiagoa dutela iruditzen zaigu.

4.2. O-komando erlazioak

Predikatu ditransitiboaren egitura sintaktikoaren azterketan eta, batez ere, barne-argumentuen hierarkiari buruzko eztabaidan, eragin handia izan du Barss eta Lasniken (1986) idatzitako lanak, bertan zehar objektua eta objektu zuzenaren arteko erlazio hierarkikoa finkatzeko test ezberdinak proposatzen direlako. Jatorriz, ingelesaren Objektu Bikoitzeko Egiturak aztertzeko proposatu bazituzten ere, testok klasiko bihurtu dira gramatika sortzailean orokorrean aditz ditransitiboaren sintaxi egituren arteko konparaketak egin ahal izateko, eta hizkuntza askotako egiturei aplikatu zaizkie.⁴ Euskararen kasuan Montoyak (1998) eta Elordietak (2001) test hauen aplikazio sistematiko bat egin diote NOR-NORI-NORK egiturari. Azterketa honetan oinarritzen da hitzaldian zehar behin baino gehiagotan aipatu dugun ondorioa: zehar objektuak objektu zuzena o-komandatzen duela, hain zuzen.

Atal honetan, postposizio sintagmen eremura zabalduko dugu azterketa, aldi berean Montoyak eta, batez ere, Elordietak Datiboaren Egituraren kasuan

⁴ Ikus Demonte (1991, 1995) eta Romero (1997) gazteleraren kasuan, Marantzek (1993) albanierari buruz egindako analisia edota Markontanatu (1993) eta Anagnostopoulouk (1998) grekerari buruz egindakoa.

ateratako emaitzekin konparatzen dugularik. Badira zenbait oztopo gure ikerketa aurrera eramateko, Barss eta Lasniken proposaturiko test askorekin Postposizio Egiturari aplikatzeko arazoak izan ditugulako. Adibide bat jaritzeko, anaforen uztardura erabili izan da bi argumenturen arteko o-komando erlazioa erakusteko (Ortiz de Urbina 1989, Albizu 1993, Elordieta 2001, beste askoren artean):

- (21) a. Nik Mireni bere burua erakutsi nion argazkietan
 b. *Nik Miren bere buruari erakutsi nion argazkietan

Anaforen uztardurak posizio erlatiboari buruzko informazio asko eman badiezaiguke ere, ezinezkoa izan zaigu interesatzen zaizkigun egituretan ONURADUNA edo HELBURUaren lekuan elkarkari edo bihurkari bat onartzen duen adibide bat aurkitzea aldi berean pragmatikoki posiblea dena. Gauza bera gertatzen da Barss eta Lasniken beste hainbat frogarekin. Arrazoi hauen-gatik eta denbora murriztapenak kontutan izanik, hitzaldi honetan test baten emaitzak aurkeztu nahi ditugu nagusiki.

Edonola ere, garrantzitsua da gogoratzea datibo eta absolutiboari aplikatutako frogia gehienek erakusten dutena zera dela: bi argumentuen arteko “azaleko” hurrenkera. Beraz, argumentuen jatorrizko posizioari buruzko ondorioak atera ahal izateko Postposizio Egiturekin konparatzen saiatuko gara.

4.3. Kuantifikatzaile-aldagai uztardura: idiolekto ezberdintasun bat

Zenbait konplikazio alde batera utzirik, izenordain bat kuantifikatzaile baten aldagai bezala interpretatu ahal izateko, izenordainak kuantifikatzailearen o-komando eremuan egon behar du “A-egituran”. Elordietak (2001) ondoko paradigma hau ematen du:



- (22) a. Nik ama bakoitzari; bere; umea eraman nion
 b. *Nik bere; amari ume bakoitza; eraman nion
- (23) a. Nik ume bakoitza; bere; amari eraman nion
 b. Nik bere; umea ama bakoitzari; eraman nion

Badirudi badagoela banaketa bat hiztunen artean (23b)-ren juizioetan; zenbait hiztun Elordietaren juizioekin bat datozen arren, beste batzuk, egitura hauek onartzeko, kuantifikatzailea izenordainaren aurrean izan behar dute azalean eta, beraz, (23b) txartzat ematen dute. (24)-(25) adibideek hiztunen banaketa hau jasotzen dute, ezberdinak diren juizioak parentesi-arteak mar-katuz:

- (24) a. Nik ama bakoitzari; bere; umea eraman nion
 b. *Nik bere; amari ume bakoitza; eraman nion
- (25) a. Nik ume bakoitza; bere; amari eraman nion
 b. (?*) Nik bere; umea ama bakoitzari; eraman nion

Dirudienez, bigarren multzoko hiztunentzat kuantifikatzaileak izendordaina o-komandatu behar du A-egituran nahitaez. Hortik aurrera bi multzo hauek zeren arabera banatzen diren garbi ez egon arren, badira pare bat gauza interesgarriak direnak: alde batetik, (25b) txartzat ematen dutenek ere adibide honen eta (24b)-ren artean ezberdintasun bat badagoela onartzen dute, ezberdintasun hori txikia bada ere. Gure informatzaile baten hitzetan, “(25b) txarra den bitartean, (24b) guztiz ulertezina da”. Bestetik, hiztun guztiek, bakoitzak bere aukerarekin, barne-koherentzia oso bat mantentzen dute juizioetan, bai adibide alternatiboak ematen zaizkionean baita beste egitura ezberdin batzuren aurrean daudenean ere, ikusiko dugunez. Barne-koherentzia hau garrantzitsua izango da, gure konparaketan separaturik mantenduko ditugulako juizio ezberdintasun hauek.

Elordietak berak aurkeztutako datuei ematen dien azalpena honako hau da: izenordaina aldagai bezala interpreta ahal izateko, nahikoa da kuantifikatzailearen o-komando eremuan egotea deribazioaren edozein unetan. Beraz, (24a) eta (25a)-k gramatikalak izan behar dute, kuantifikatzaileak izenordaina o-komandatzen duela argi eta garbi. (24b) eta (25b) adibideei dagokiela, A-egitura izenordainak kuantifikatzailea o-komandatzen du bi kasuetan; baina jatorrizko ordena *zehar objektua* > *objektu zuzena* bada, badago bi deribazioen arteko ezberdintasun garrantzitsu bat. (24b)-ren kasuan orden ez-markatua agertzen zaigunez, bi argumentuak bere lekuan daudela pentsatzekoa da, (26a)-n erakusten den bezala; deribazio honetan, *bakoitza* kuantifikatzaileak ez du deribazioaren puntu batean ere izenordaina o-komandatzen. (25b)-n, bestalde, argumentuak inbertiturik badaude, Objektu Zuzena goragoko posizio batera mugitu delako izan beharko du, (26b)-n ikusten den modura. Hala bada, badago deribazioaren puntu bat —NOR argumentuaren mugimenduaren aurrekoa, hain zuzen ere— zinetan *bakoitza* kuantifikatzaileak aldagaia o-komandatzen duen, eta esaldia ona da:

- (26) a. 
- b. 

Hiztun gehientzat kontrasteren bat egoteak azalpena plausiblea egiten du neurri batean. Hala ere, konpara dezagun aurreko paradigma Postposizio Egituren pareko paradigmarekin:

- (27) a. ?? Nik ama bakoitzarengana; bere; umea eraman nuen
 b. (?*)Nik bere; amarengana ume bakoitza; eraman nuen
- (28) a. Nik ume bakoitza; bere; amarengana eraman nuen
 b. *Nik bere; umea ama bakoitzarengana; eraman nuen

Aurreko paradigman bezala, bi hiztun multzoen arteko ezberdintasun bakarra (27b) da. Aurrekoan (25b) onartzen zutenek (27b) ere onartzen dute eta lehena txartzat ematen dutenentzat (27b) txarra da.

4.4. Datuen konparaketa

Hasteko, konpara ditzagun agerian kuantifikatzaile > izenordaina ordena erakusten dituzten lau esaldiak. Datibo-Absolutibo konbinaketaren kasuan bi esaldiak erabat onargarriak diren bitartean, hiztun gehienek kontraste bat aurkitzen dute Adlatibo edo Asoziatibo-Absolutiboaren kasuan argumentu hauen ordenaren arabera. *Ume bakoitza > bere amarengana* ordena onartzen duten bitartean, *ama bakoitzarengana > bere umea* marjinala da. (29) eta (30)-ean interresatzen zaizkigun adibideak errepikatu ditugu konparaketa errezteko asmoz:

- (29) a. Nik ama bakoitzari; bere; umea eraman nion
 b. Nik ume bakoitza; bere; amari eraman nion
- (30) a. ?? Nik ama bakoitzarengana; bere; umea eraman nuen
 b. Nik ume bakoitza; bere; amarengana eraman nuen

Kontuan izan behar da kuantifikatzaileak izenordaina lau adibideetan o-komandatzen duela; ondorioz, Elordietaren azalpenaren arabera ez guke inolako kontrasterik esperoko. (30a)-ren marjinaltasuna esplikatzeko, bi asunzio behar direla iruditzen zaigu: (i) absolutibo kasua daraman Objektu Zuzenak adlatibo marka duena O-komandatzen duela, alde batetik, eta (ii) postposizio Sintagmaren A-barra mugimenduak, nahiz eta kuantifikatzailea izenordainaren gainean jartzen duen, ez du deribazioa erabat salbatzen.

Garrantzitsua da ohartaraztea bigarren asunzio honek ez garamatzala nahitaez Kuantifikatzaileentzako A-mugimenduaren teoria batera, à la Hornstein. Aztertzen ari garen egiturak Bijekzio Printzipioaren eremuan erortzen diren horietakoak dira. (29a) adibidearen interpretazioak, adibidez, (31)-ko interpretazioa du. Egitura honetan, kuantifikatzaile bat eta bi aldagai agertzen dira.

(31) x bakoitzeko [nik x-i x-en umea eraman diot]

Kuantifikatzaileen mugimendua benetan esistitzen bada, lehen aldagaia kuantifikatzailearen aztarnari dagokio eta bigarrena izenordainari. Ikuspuntu horretatik, (ii) baldintzak dioena zera da, A-katean aldagaiak izenordaina O-komandatu behar duela.

Azter ditzagun, jarraitzeko, azaleko ordenean izenordaina kuantifikatzailearen gainean erakusten dituzten kasuak. Gogoan izan behar da, bestalde, Datibo Egituraren kasuan banaketa bat dagoela, (32b) onartzen dutenen eta ez dutenen artetan. Gure ustez interesgarria dena zera da: (33)-ko adlatiboaren kasuan banaketa hori mantentzen dela baina buelta emanda. (32b) onartzen duten hitzunek, Elordieta barne, (33a) ere onartzen dute edo gehienez jota ere “piskat arraro”tzat jotzen dute. Orohar *bere* kuantifikatzailearen aurrean maite ez dutenei (33a) ere txarra iruditzen zaie, espero zitekeen bezala, baina Datibo Egituren egoerari buelta emanaz, oraingo honetan (33b), non Absolutiboa adlatiboaren gainean agertzen zaigun, (33a) baino txarragoa iruditzen zaie:

- (32) a. * Nik bere; amari ume bakoitza; eraman nion
 b. (?*) Nik bere; umea ama bakoitzari; eraman nion
- (33) a. (?*) Nik bere; amaren gana ume bakoitza; eraman nuen
 b. * Nik bere; umea ama bakoitzaren gana; eraman nuen

Paradigma honek NORI-NOR argumentuen arteko erlazioa eta NOR-NORENGANA-ren artekoa guztiz alderantzizkoak direla sujeritzen du, lehengo (i) puntuaren ondorioak indartuz. Onartu behar dugu, hala ere, paradigmaren azalpena ez dela horren erreza. “Azaleko” orden ez markatuak (34)-koak badira, (32a) eta (33b)-ren agramatikaltasuna zuzenean azal zitekeen Bijekzio Oinarriaren bidez, aldagaiak izenordaina uztartu behar duela interpretatzen baldin badugu:

- (34) a. NORI > NOR
 b. NOR > NORENGANA

Paradigma osoa kontutan hartzen dugunean -(29)-(30) adibideak barne-(33a) eta (33b)-ren arteko kontrastea azaltzeko konplikazio batzuk sortzen badira ere, azalpen koherente bat bilatu nahi badugu hemen aurkeztutako proposamenaren ildotik izan behar du gure ustez.


5. ONDORIO GISA

Behin betiko ondorioak ateratzeko ebidentzia ahulegia bada ere, lan honetan aurkeztutako argumentuek zera sujeritzen dute, predikatu ditrantsitiboan barne-argumentuen arteko hierarkia —zenbaten artekoa behintzat— GAIA > HELBURUA/ONURADUNA, etab. dela. Hala bada, predikatu hauei dagozkien Datibo Egiturretan, argumentuen arteko erlazioa irauli egiten da, HELBURUA... (NORI) > GAIA bihurtuz.

Hurrenkera hierarkiko honen iraulketak ondorio teoriko eta enpiriko asko dakartza. Hasteko, eztabaidatutako jatorrizko hierarkiak ondorio garrantzitsuak ditu argumentu egitura eta, batez ere, argumentuen hierarkiari begira. Bestetik, 3. atalean aurkeztutako bi aukera logikoetara bueltatuz, artikuluan zehar aurkeztu ditugun argumentuak bi posibilitate nagusien artean hautatzen laguntzen digu. Zehazkiago, Postposizio Egituren eta Datibo Egituren arteko orden ezberdintasunak datiboa jasotzen duen argumentuaren gorako mugimendua adierazten badu, hemen proposatu dugun bezala, deribazioak ondoko bietariko baten eskema jarraitzen du nahitaez:

(13)

a.

b. *Nesting Paths*

Esan bezala, ez da hau leku egokia bi posibilitateen arteko hautapenaren argumentuak aurkezteko, baina bietariko edozeinek ondorio sakonak ekarriko ditu alde batetik predikatu ditrantsitiboan eta Objektu Bikoitzeko Egituraren azterketan eta bestetik Kasu Teoria eta komuntadura sistemen arteko loturaren ikerketan.

Hemen aurkeztutako lana ikerketa zabalago baten abiapuntua da eta, dudarik gabe, predikatu ditrantsitiboan barne-egitura hemen proposatutako bi hauetariko bat dela frogatzen duen ebidentzia gehiago beharrezkoa da. Baina hemen emandako arrazoiek ebidentzia nahikoa erakusten dute orain arte euskalaritzan eztabaidarik gabe onartu den hiru komuntadurako predikatuen argumentu-egitura zalantzan jartzeko.

Erreferentziak

ALBIZU, P. 1993. "Focus and Word-Order in Basque", eskuizkribua, University of Southern California.

—1997a. "Generalized Person-Case Constraint: A Case for a Syntax-Driven Inflectional Morphology." In A. Mendikoetxea & M. Uribe-Etxebarria, (arg.) 1-34.

—1997b. *The Syntax of Person Agreement*. Doktorego tesia, University of Southern California.

ANAGNOSTOPOULOU, E. 1998. "Dative argument and clitic doubling.". Eskuizkribua MIT.

ARTIAGOITIA, X. 1994. *Verbal Projections in Basque and Minimal Structure*, ASJU XXVIII-2:341-504.

BAKER, M. 1988. *Incorporation Theory*, Chicago: University of Chicago Press.

—1996. "On the structural position of themes and goals". In Johan Roorick and Laurie Zaring (arg.) *Phrase structure and the lexicon*. Dordrecht, Kluwer; 7-34 orr.

BARSS, A. eta LASNIK, H. 1986. "A note on anaphora and double objects", *Linguistic Inquiry* 17.2: 354-357.

BONET, E. 1991. *Morphology after Syntax: Pronominal Clitics in Romance*. Doktorego tesia, MIT.

CHENG, L. & DEMIRDACHE, HAMIDA. 1993. "External Arguments in Basque", in J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.) 71-88.

DEMONTE, V. 1991. "Dos clases de objetos indirectos, la construcción de doble objeto y el alcance de las estructuras larsonianas". Eskuizkribua, Universidad Autónoma de Madrid.

—1995. "Dative Alternation in Spanish." *Probus* 7.1, 5-30.

DEUSTUKO HIZKUNTZALARITZA MINTEGIA. 1988. "Inkorporazioa per-paus kausatiboetan", in P. Salaburu (arg.) *Sintaxi teoria eta euskara*, EHUKo argitalpen zerbitzuak, 87-119.

ELORDIETA, A. 2001. *Verb Movement and Constituent Permutation in Basque*, Doktorego tesia, Leiden University.

ETXEPARE, R. Moldiztegian. "Valency and argument structure in the Basque verb", in J.I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.) *A Grammar of Basque*, Berlin: Mouton de Gruyter.

EUSKALZAINDIA-GRAMATIKA BATZORDEA. 1985. *Euskal Gramatika Lehen Urratsak* [EGLU], Iruñea: Comunidad Foral de Navarra-Euskaltzaindia.

FERNÁNDEZ, B. 1996. *Egiturazko kasuaren ezarketa euskaraz*, doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea.

GOENAGA, P. 1980. *Gramatika Bideetan* (2. argit. zuzendua eta osatua), Donostia: Erein.

HALE, K. eta KEYSER, S. J. 1993. "On Argument Structure and the Lexical Expression of Syntactic Relations", in K. Hale & S.J. Keyser (arg.) *The View From Building 20: Essays in honor of Sylvain Bromberger*, Cambridge: MIT Press.

—1997. "The Limits of Argument Structure", in A. Mendikoetxea & M. Uribe-Etxebarria (arg.), 203-230.

HORNSTEIN, N. 1995. *Logical Form*, Oxford: Blackwell.

HUALDE, J. I. & ORTIZ DE URBINA, J. (arg.). 1993. *Generative Studies in Basque Linguistics*, Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins. 21-70.

JACKENDOFF, R. 1990a. *Semantic Structures*, Cambridge: MIT Press.

—1990b. "On Larson's treatment of the Double Object Construction", *Linguistic Inquiry* 21.3, 427-455.

LAFITTE, P. 1969. *Grammaire Basque: Navarre-labourdin littéraire* (édition revue et corrigée), faksimila, Donostia: Elkar/Ikas, 1979.

LAKA, I. 1993. "The Structure of Inflection: A case study in X° syntax", in J.I. Hualde eta J. Ortiz de Urbina (arg.) 21-70.

LARSON, R. 1988. "On the double object construction", *Linguistic Inquiry* 19.3: 335-391.

—1990. "Double objects revisited: reply to Jackendoff", *Linguistic Inquiry*, 21.4, 589-632.

MENDIKOETXEA, A. eta URIBE-ETXEBARRIA, M. (arg.) 1997. *Theoretical issues on the Morphology-Syntax Interface*, ASJU Gehigarriak XL. San Sebastián: Diputación Foral de Guipúzcoa

MONTOYA, E. 1998. "Objektu bikoitzeko aditzak euskaraz". Eskuizkribua, EHU.

ORMAZABAL, J. eta ROMERO, J. 2002. "A brief description of some agreement restrictions", in P. Albizu & B. Fernández (arg.) *On Case and Agreement. Kasu eta Komunztaduraren gainean*, EHUko Argitalpen Zerbitzua.

ORTIZ DE URBINA, J. 1989. *Parameters in the Grammar of Basque*, Dordrecht: Foris.

PESETSKY, D. 1995. *Zero Syntax*, Cambridge: MIT Press.

ROMERO, J. 1997. *Construcciones de doble objeto y gramática universal*. Doktorego tesia, Universidad Autónoma de Madrid.

WILLIAMS, E. 1994. *Thematic Structure in Syntax*, Cambridge: MIT Press.

ZABALA, I. 1995. "Infinitivos, tiempo y ergatividad", eskuizkribua, EHU [5th *Coloquium of Generative Grammar* (A Coruña) kongresuan aurkeztutako ponentzia].

OHARRAK DETERMINATZAILEEN INGURUAN: ORO-K DIOENA¹

X. Artiagoitia

0. DETERMINATZAILEAK: D KATEGORIA, ZENBATZAILEAK, ETA ABAR


Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna liburuan (EGLA aurreran-tzean), Euskaltzaindiak *determinatzaile* izen orokorraren azpian biltzen ditu izen arruntak ardatz hartuta tradizioz izen-sintagmak deiturikoak osatzeko gaitasuna daukaten elementuak:

- (1) a. * etxe erosi dut
- b. etxe-a erosi dut
- c. etxe hau erosi dut
- d. bost etxe erosi ditut
- e. etxe asko erosi ditut
- f. etxe guztiak erosi ditut
- g. edozein etxe erosiko nuke

Hartara, artikulua eta erakusleak, zenbatzaileak (zehaztuak, zehaztugabeak eta orokorrak), eta determinatzaile zehaztugabeak aipatzen dira *determinatzailetzat*; beste hizkuntza askotan ere horrela jokatu izan da eta determinatzaileen inguruko ikuspegi honi, alde praktikotik behintzat, ezin zaio eragozpen handirik jarri.

¹ Eskerrak eman nahi dizkiot Euskaltzaindiari eta IKER taldeari P. Lafitte omendu duten jardunaldietara gonbidatu izanagatik. Beñat Oyharçabali eta Piarres Xarritoni datu batzuetan lagundu izana ere biziki eskertzen diet. Artikuluaren on-gaitzak neureak dira. Artikulu hau EHUren 0027.130-13587/2001 ikerketa-proiektuaren barruan burutu da.

Gramatika sortzailean gaur egun finkatuta dago Determinatzaile Sintagmaren Hipotesia (= DSH), hots, ohiko izen-sintagmaren ardatz funtzionala determinatzailea bera delako hipotesia; hipotesi honetan, IS garai batean gure artean Izenaren Multzoa esaten zitzaionari esaten diogu. Jarraian adierazten dut diagrama baten bidez euskal determinatzaile-sintagma (= DS) nolakoa izan daitekeen:



IS osagarria D buruaren aurretik dago, euskaraz normalean gertatzen den bezala. Baina DS-ak aipatu bezain laster, zalantzak hasten dira; DS-aren ikuspegitik zaila da, besterik gabe, deskriptiboki *determinatzaile* deitzen diren horiek guztiak D kategoriakoak direla esatea, arrazoi bigatik:

a. hasteko, badirudi, behin DSH onetsiz gero, D kategoriarako kokapen finkoa espero dela hizkuntza bakoitzean, baina ez dago horrelakorik, (3)-an ikusten denez:

- (3) a. bost etxe / *etxe bost
 b. *hau etxe / etxe hau
 c. asko etxe / etxe asko

Hau da: ustezko *determinatzaile* batzuek izenaren aurreko kokapen bakarra onartzen dute; beste batzuek izenaren ostekoa bakarrik; beste batzuek biak. Susmagarria da hau, erakusleak, artikulua, zenbatzaile guztiak, denak D kategoriakoak badira.

b. bigarrenez, banaketaren azterketak ere argi uzten du ustezko *determinatzaile* horien artean batzuk euren artean bateragarri direla DS berean, eta beste batzuk ez. Ondoko adibideetan azaltzen dut bateragarritasunaren kontu hori:

- (4) a. bost etxe-ak, bost etxe hauek, etxe asko-rik
 b. *bost etxe asko
 c. etxe gutxi hauek
 d. *etxeak hauek, * etxe hauekak
 e. hau neskea, hónek neskok/neskak, ...

Itxura baten, zenbatzaile bakarra eta mugatzaile bakarra izaten dira zilegi DS bakoitzeko; baina ez dago hainbeste arazorik zenbatzaile bat eta mugatzaile

bat batera aurkitzeko. Kontua ez da hor amaitzen; (4e) adibideak nabarmen-tzen duenez, bateraezintzat jo ohi diren erakuslea eta artikulua bateragarri dira hainbat hizkeratan.

Beraz, badirudi gutxienez multzo bi edo egin behar direla ustezko *determinatzaileen* barruan (cf. Artiagoitia 1998): euren artean bateragarri ez diren zenbatzaile kategoriako kideak, eta eskuarki euren artean bateragarri ez diren determinatzaile kategoriako kideak; azken talde honetan erakusleak, artikulua, eta agian partitiboa bera sartuko lirateke. Aitortu behar dugu, hala ere, zenbatzaile eta determinatzaile kategoriak bereizteak berak ere ez duela gaia inondik ere agortzen; deskribapenaren hasiera da hori, eta datu asko eta asko geratzen dira oraindik argitzeko.

Gaurko hitzaldi honetan, *zenbatzaile orokor* deiturikoei begiratu bat eman nahi diet, *oro*-ri batez ere. Neure ekarpena, beste hizkuntza batzuen azterketaren emaitzak eta euskalkietatik datozen datu esanguratsu batzuk aintzat hartuz, egingo dut; nire oharrak euskal izen-sintagmaren eta perpausaren barne egituran sakontzeko lagungarriak izatea nahi nuke, besterik gabe. Lehenengo, zenbatzaile orokorrez hitz egingo dut, batetik *den/guzti* eta bestetik *oro* bereiziz; ondoren, *oro*-rako azterbide bat proposatuko dut; hirugarrenez, azterbide horretatik eratortzen den predikzio bat bete egiten dela egiaztatuko dugu: hots, *oro*-ren bidez euskaran ere *quantifier-float* edo *zenbatzaileen lerratzea* badugula frogatuko dugu; honetan Sportiche (1988) lana hartuko dut abiapuntutzat, eta literatura tradizioetik datozen adibideak aipatuko ditut batez ere. *Oro* lerrakor edo mugikor hau Sporticheri jarraituz aztertzeak, bestalde, euskal perpausaren egitura hobeto ezagutzen lagunduko digu. Azkenik, *zenbatzaileen lerratzea* beste zenbatzailearen batekin ere gertatzen ote den aipatuko dut.

1. ZENBATZAILE OROKORREZ

EGLA liburuan, *guzti*, *den*, eta *oro* azaltzen dira zenbatzaile orokorren artean; *oso* ere zeharka aipatzen da¹. *Oso*-ren kasua interesgarria da: normalean, eta Euskaltzaindiak berak gogoratzen digun bezala, zatigarria den izen batekin erabiltzen da, singularrean erabili ere:

¹ Nire ustez, *bakoitza* bera ere hauen artean aztertu beharko litzateke.

- (5) a. pastel osoa jan zigun
- b. *pastel oso jan zigun
- c. *ur osoa edan zigun

Artikulua eta guzti nahitaez erabili beharra ez da zenbatzaileen jokabide arrunta; ez zenbatzaile zehaztuek ez zehaztugabeek ez dute horrelakorik eskatzen, dakigunez (cf. 1d-e). Bestetik, *oso* izen-sintagmaren barruan izen eta determinatzaileen artean ageri da, eta zenbatzaileekin ere bateragarri da:

- (6) a. gazta handi-a
- b. gazta oso bat, gazta oso bi, ...

Arazoi hauengatik guztiengatik ez da harritzekoa Sarasolak, esaterako, *Enskal Hiztegian oso* hitza adjektibotzat (edo, nahiago bada, izenondotzat) jotzea. Alegia: *oso*, osotasuna adierazi arren, kategoriaz adjektiboa dugu. Adjektibo kalifikatzailea da nonbait, honen ezaugarriak dauzka-eta (Zabala 1997, Artiagoitia 2002):

- (7) a. Aldizkaria gero eta *osoago* eta ederrago dator (EH: 631)
- b. Bakerik *osoenaz* bazkaldu zuten beren lapikotxoia (EH: 111)
- c. *osotasun*
- d. *oso-osorik* (cf. huts-hutsik, alfer-alferrik, bakar-bakarrik...)

Konparazio atzizkiak onartzen ditu (= 7a-b); bestetik, adjektibo kalifikatzaileek eta zenbait izenek onartzen duten *-tasun* atzizkia (=7c) ere onartzen du; eta predikatuak sortzen dituen egoerazko partitiboa (=7e) ere onartzen du, hainbat adjektibok bezala. Beraz, zenbatzaileen artean aipatua bada ere, *oso* adjektibotzat jo behar dugu.

Beste hirurei dagokienez, esan dezadan argi eta garbi gauza bat deigarria dela bai *guzti* eta *den* bikoteari buruz: bi hauek ere ezinbestekoa dutela artikulua, eta ezaugarri honek printzipioz gainerako zenbatzaileetatik aldentzen ditu, (8)-ak gogoratzen digun bezala:

- (8) a. *jende guzti etorri da
- b. jende asko etorri da
- (c. *jende on etorri da)

Zer esan berezitasun honetaz? Harira dator Trask-en (2001: 106) iritzia: “certain words with quantifier-like meanings are strictly adjectives, including *guzti-guzi* ‘all’, *bakoitz* ‘each’...”. Baieztapen hau bat dator beste hizkuntzalari batzuek beste era bateko testuinguruetan eta beste hizkuntza batzuetarako egindako proposamenarekin: Giustik (1997), esaterako, defendatzen du izen-sintagmaren barruan determinatzailearen besarkaduraren azpian gertatzen diren zenbatzaileak egiazko adjektiboak direla hizkuntza multzo zabal

batean; artikuludun izen-sintagmak edo izen-sintagma soilak hartzen dituztenak, berriz, egiazko zenbatzaileak genituzke, eta DS oso bat hartuko lukete osagarri. Bigarrenen kasuan, DS-aren mugida zilegi izaten da, (9)-ko italierazko adibide bikoteak aditzera ematen duenez:

- (9) a. [_{ZenBS} molti [_{DS} ragazzi]] – ne ho visti molti [t]
 ‘mutil asko’ ‘euretarik ikusi ditut asko’ (hitzez hitz)
- b. [_{DS} i [_{AdjS} molti] ragazzi] – *ne ho visti i molti [t]
 ‘mutil askoak’ ‘euretarik ikusi ditut askoak’ (hitzez hitz)
- (Giusti 1997: 114)

Hau da, *ne*-ren mugida zilegi da *molti* zenbatzaileak DS osagarria hartzen duelarik, baina ez *molti* DS barruko adjektiboa delarik. Giustiri (1997) eta Trask-i (2001) jarraituz, beraz, iradoki nahi dut *den* eta *guzzi* ustezko zenbatzaile hauek ere nolabaiteko adjektiboak direla¹, eta hortik datorkiela artikulua eta guzzi azaldu beharra, I-Adj multzoak bezalaxe alegia (cf. 8c).

2. ORO ZENBATZAILEAZ

Erabilera bi aitortzen zaizkio *oro*-ri: bata, IS soila hartzen duenekoa, eta bestea artikulua eta guzzi hartzen duenekoa. Lehena ikus dezagun:

- (10) a. gizon oro hilkorra da (Euskaltzaindia 1993: 113)
 b. gizon oroak behar du hil eta salbatu (EH: 626)

Hor beste zenbatzaileen artean (*aski/asko*, *anitz*, *gutxi*) ohikoa den portaera besterik ez dugu ikusten: hurrenkera alde batera utzita, artikulurik gabe erabiltzen da *oro*, gainerako zenbatzaileak bezala.

Bigarren erabileran, berriz, aposizio moduko bat aurkitzen dugu (cf. Euskaltzaindia 1993: 113), eta hor artikulua plurala ezinbestekoa da determinatzaile-sintagmari atxikita, baina ezinezkoa da zenbatzaileari berari atxikita:

- (11) a. gizonak oro hilkorrak dira
 b. *gizonak oroak hilkorrak dira



¹ Euskaltzaindiak berak ematen du gogoan hartzeko moduko datua; adjektiboek bezala *guzti* eta *den* hitzek, balio enfatikoa dutelarik, bikoiztapena onartzen dute:

- (i) a. zer ikasi duzu: *den-dena*?
 b. Ikasle *guzti-guztiak* etorri omen dira gaur
 (Euskaltzaindia 1993: 112)

Hauek *gorri-gorria*, *txiki-txikia* eta abarren eitea dute.

- c. *gizon oroak hilkorrak dira
(Euskaltzaindia 1985: 238)

Bigarren erabilera honetan, *oro* zenbatzailea erabat aldentzen da *guzti* eta *den* bikotetik, haiek ez bezala bakar-bakarrik agertzen delako eta artikuludun sintagma eskatzen duelako⁴. Honen argitara, egitura bitan pentsa daiteke; Giustiri (1997) eta Shlonsky-ri (1991) jarraituz, zenbatzaileak DS osagarria hartzen du; edo, Benmamoun-i (1999) jarraituz, adjunkzio egituratzat har daiteke. Aukera biak (12)-ko diagrametan ematen ditut:



Azterbide batak zein besteak predikzio interesgarria egiten dute: *oro* printzipioz edozein DS-rekin bateragarri izango dela, *guzti* eta *den* barne dituen DS-ekin ere bai noski. Iragarpen hori erabat betetzen da, literatura tradizioetik eta beste iturri batzuetatik hartu ditudan (13)-ko adibideek erakusten duten bezala. DS hori pertsona-izenordaina, isila edo lexikoa, ere izan liteke:

- (13) a. zerk salatzen dizkigu zehaztasun *puntu horiek oro*? (Herria 2001-05-24)
- b. Mauleko notari paperen arabera, kantoreak erran bezala iragan ziren *guztiak oro* (Lafitte, *Euskal literaturaz*: 165)
- c. Nago, ez ote diren ere *frantses koblari guziak oro* guti edo aski Eskualdun, Frantses direnaz geroz (HU Aurp - 207)
- d. Arimen maitez sutan joan zare, *Denak oro* utzi eta (X. Diharce, op. Narbaitz, *San Frantses Jatsukoa*, 357)
- e. [*pro*] *orok* badakite jostakina zarela, zirtolaria, ditxoa maite (Lafitte, *Euskal literaturaz*: 350)

⁴ *Guzti* eta *den* hitzek, bestalde, erakuslea buru duen DS oso bat ere izan dezakete osagarri:

- (i) a. (neska-mutil) hauek *guztiak* etorri dira
b. (neska-mutil) hauek *denak* etorri dira

Ez daukat egitura hauen azterbiderik eskaintzeko asmorik; bakar-bakarrik esango dut *hónek gizonok*, *gu euskaldunok* egituren tankera hartzen diedala (cf. Artiagoitia 1998), nahiz eta agian bataren eta bestearen eremuak bat ez datozen.

f. XVIII mendean [*pro*] *orok* badakigu izan dela Donibaneke apez bat Joannes de Haraneder deitua (Lafitte, *Euskal literaturaz*: 156)

Nik dakidala, datu hauek bakarrik azal daitezke batetik *oro* eta bestetik *guzti* eta *den* kategoria berekotzat hartzen ez badira, banaketa osagarrian ez dauden elementutzat jotzen badira alegia.

3. ORO ZENBATZAILE LERRAKOR BEZALA

Arestiko (12-ko) diagramek beste zerbait ere aurreikusten dute: alegia, *oro* zenbatzaileak deslari geratzeko aukera izango duela bere ahizpa-adabegi den DS hori mugituz gero. Fenomeno horri *zenbatzaileen lerratzea* edo *quantifier-float* esaten zaio⁵.

Zenbatzaile lerrakorrez hitz egiten da izen-sintagma eta hura zenbatzen duen zenbatzailea elkarrekin osagai bat eginez agertu beharrean, banatuta bezala ageri direnean. (14)-an frantsesetzko adibide pare batekin ikus dezakegu hau:

- (14) a. tous les enfants ont vu ce film
 - b. les enfants ont tous vu ce film
- (Sportiche 1988: 426)

Banatze edo urruntze hori gertatzeko, bi baldintza bete behar dira: banatutako lehen zatiak (DS), bigarrena (zenbatzailea) o-komandatu behar du, eta erlazio hori perpaus berean-edo gertatu behar da. Lehen baldintza, (15a-b) kontrasteak erakusten du, bigarrena (15c) adibideak:

- (15) a. L'auteur de tous ces livres a vu ce film
 - b. *L'auteur de ces livres a tous vu ce film
 - c. *Les enfants l'ont persuadé de tous acheter ce livre
- (Sportiche 1988: 432)

Hots: (15b) perpausean *ces livres* horrek ez du *tous* zenbatzailea o-komandatzten; (15c) perpausean, berriz, *les enfants* eta *tous* urrunegi daude bata bestetik.

⁵ Kayne-k (1975) jatorriz, zenbatzailea bera eskuinera lerratzen zela uste zuenez, *zenbatzaile lerrakorrez* hitz egin zuen. Geroago sortu den Sporticheren azterbidean, berriz, zenbatzailea ez da eskuinera lerratzen, harekin interpretatzen den izen-sintagma ezkerretara lerratzen da baino.

Zenbatzaileen lerratzearen azterketaren eremuan hemen ontzat emango dudan Sporticheren (1988) ikuspegiaren arabera⁶, aldaera biok (14a eta b) lotuta daude transformazionalki. Hau da, bigarrena (=14b) lehenetik (=14a) erartortzen da: Sporticheren ustez, DS, zenbatzailea ere biltzen duen egitura utzi, eta beronen barnetik mugitzen da, atzean *tous* zenbatzailea deslari utziz. Beraz, (16)-koa da (14b) adibidearen aurkezpena:

(16) [les enfants]; ont [tous [t]] vu ce film

Azterbide honetan, zenbatzaile lerrakorra (*tous* kasu honetan) [*les enfants*] DS jatorriz zegoen lekuan gelditu da. Subjektuari buruzko zenbatzaile lerrakorrak AS-ren ertzetan ageri ohi dira, eta hartara subjektua AS-ren barruan sortzen delako hipotesia berresten da. Sportiche-ren arabera zenbatzaileok, frantsesez behintzat, DS-aren ezkerretara adjunktatuta sortzen dira, eta bertan gelditzen dira modu sistematikoan. Alde horretatik, ez dago zenbatzaile lerrakorren araurik; "ilusio" hori DS-aren beraren mugidak sortzen du. Zenbatzailea DS bati adjunktatuta dago beti eta DS hori lexikoa izan daiteke, DS- edo NZ-aztarna bat, *pro* txikia edo *PRO* handia bera.

Euskarazko *oro*-ra etorrira zer? Batetik ikusten dugu adjunkzio-egitura gisa aztertzekotan, eskuinera egindakotzat jo behar dugula; interesgarriro, egitura horixe proposatzen du Benmamoun-ek (1999) arabierazko *kull* zenbatzaileerako. Shlonsky (1991) eta Giusti-ren (1997) arabera aztertuz gero, berriz, DS osoa litzateke zenbatzailearen osagarria. Batera edo bestera, espero izatekoa da, beste hizkuntzetan bezala, inoiz DS eta *oro* elkarrengandik banatzea, DS horren mugida zilegi edo beharrezkoa den bakoitzean. Bildu ditudan datuek behintzat, gauzak hala direla baieztatu dute; baina zenbatzaile lerrakorrak euskaraz ere badirela baieztatzea bera baino garrantzitsuagoa da zenbatzaile lerrakorren fenomenoak euskal perpaus egituraz eman ditzakeen argibideak aintzat hartzea. Hau gogoan, ikus ditzagun datuak.

3.1. Oinarrizko datuak

Gure literatura tradizioan behintzat, ez dira falta DS eta *oro* elkarrengandik banatuta ageri diren adibideak:

- (17) a. Iñigoren *lagunak* laster hor ziren *oro*, Parisen, ... (Ardoy Sfr 112)
 b. ... gure lanak, gure gogoküntiak, *gure bibotzeko sendimientiak* izan ditian *oro* Jinkoaren gogoarako zuriak bezala (Ip Hil - 192)
 c. *Frantsesek* irria ezpainetan zuten *orok* (StPierre - 36)

⁶ Badira bestelako azterbideak; ikus bereziki Bobaljick (1998) zehaztasunetarako.


Datuok, bere horretan, zenbatzaile lerrakorrak euskaraz ere badirela erakusten dute. Baina, horretaz gain, zenbatzaile lerrakorre leporatu ohi zaizkien ezaugarri biak *oro*-rekin ere betetzen direla bermatu behar dugu: zenbatzaileak eta aurrekariak perpaus berean egon behar dutela, eta aurrekariak zenbatzailea o-komandatu behar duela. (18) ikusita behintzat, argi dago lehen betetzen dela:

(18) ikertzaileak_i [paperak_j etxetik oro_{;i,j}; desagertuak direla] ohartu dira

(18)-an ikusten dugunez, bere kideetik banatuta ageri den *oro* batek bere perpausan bilatzen du aurrekaria, hau da, *paperak oro* desagertu direla ulertzen da, ez *ikertzaileak oro* ohartu direla. Bigarren baldintza ere betetzen dela frogatzeko, ezeztapenean oinarrituko gara.

3.2. Ezeztapena eta oro

Behin zenbatzaile lerrakorrak euskaraz ere badauzkagula egiaztatuta, esanguratsuak izan daitezke beste datu batzuk: euskalari askok (Ortiz de Urbina 1989, 1994, Laka 1990) argudiatu izan dute ezezkako perpausetan perpaus hasierako gune batek INF edo laguntzailea erakartzen duela baina AS bere horretan ageri zaigula euskaraz, aditzaren mugimendurik gabe⁷:



(Laka 1990 lanetik moldatua)

⁷ Zehazkiago, Lakarentzat aditza mugitu egiten da, baina Asp bururaino bakarrik. Ezeztapenaren kokapena bera ere ez da berdina autore biondako, baina ondorioa, ordea, bai: AS izoztuta bezala agertzen da, beraren jatorrizko gunean.

Ezeztapenaren analisi honek bide ematen digu zenbatzaile lerrakorren bigarren ezaugarria ere betetzen dela egiaztatzeko; (19)-ko diagramaren araberak, ezeztapenak berak eta haren gainera ageri diren elementuek perpaus barruko gainerako osagaiak o-komandatzen dituzte⁸. Hartara, egitura hau egokia da mugitutako DS-aren eta zenbatzailearen arteko o-komando baldintzak alderatzeko. Datuak espero bezala ateratzen dira:

- (20) a. urratsak ez dira oro berdin (Lafitte, *Euskal literaturaz*: 46)
 b. *oro ez dira urratsak berdin

Bistan denez, *urratsak* DS-ak zenbatzailea bera o-komandatu behar du, eta ez alderantziz, perpausa gramatika izango bada.

Sporticheren azterbidea oinarri hartuta, ezezkako perpausetan espero dugu subjektuari edo osagarriari zuzendutako *oro* zenbatzaile lerrakorra AS-ren barruan, aditzaren ezkerretara eta laguntzailearen eskuinera, agertzea. (21)-eko datuek, apalki bada ere⁹, hori iradokitzen dute:

- (21) a. ... Antonio Abadia; jaun horrek agertarazi orduko *bertsularien lanak* ez baitira *oro* galdu (Ox - 203)
 b. *Idazki horiek* ez ditu, hurbiltzeko ere, *oro* argitaratu (Zerb Azk - 63)

Kasu batean eta bestean, mugitutako DS-ak ezeztapenaren ezkerretara ageri dira, eta haiekin lotutako *oro* zenbatzailea DS horien jatorrizko gunean, printzipioz AS barruan, aurkitzen dugu. (21)-eko datuak bat datoz, beraz, argumentuak AS barrutik *eta aditzaren ezkerretik* mugitu direlako hipotesiarekin.

3.3. Perpaus txikien subjektuak

Sporticheren azterbideak aurreikusten duen eta *oro* lerrakorraren datuek berresten duten gertakaria hau da: *oro*, subjektu isila (PRO) duen perpaus edo perpaus txiki baten subjektu gisa aurkituko dugula (subjektu hori beste DS batek kontrolatua). Egia esan, ugari dira horrelako adibideak:

⁸ Gogora dezagun o(sagai)-komandoa zer den:

- (i) A adabegiak B adabegia o-komandatzen du baldin (eta soilik baldin):
 a. A eta B adabegiak elkar menderatzen ez badute; eta
 b. A menderatzen duen adabegi orok B ere menderatzen badu.

⁹ Apalki diot, datuen beste interpretazio batzuk posible direlako. Esaterako: *oro*, jatorrizko gunean barik, tarteko gune batean izan liteke. Kontu hauek guztiek artikulua honen mugak gainditzen dituzte. Ikus, honetaz eta bestez, Bobaljick (1998).

- (22) a. Adam eta Ebatarik elkhi haurrak gerthatzen dira *oro sortzapeneko bekhataz thunatürik eta debriaren esküpeko*: (Ip Hil - 14)
 b. Gure mendiak ikhusi nahi nituzke *oro lerraz estaliak* (Dv Lab - 321)
 c. hanxet daudezila gizon gazte langileak, aita familiako zaharrak, *oro baltsan batzu bertzen galgarri* (HU Zez - 27)
 d. Eta proesioneke jende guziek ihardesten zioten, *orok betan*: (Barb Sup - 140)

Hau da, egitura hauetan guztietan [[PRO oro] predikatua] bezalako zerbait dugu; *oro*-rik ezean, subjektu isil hutsa genuke, beste DS batek kontrolatua.

Beste batzuetan perpaus txiki hori kopularen osagarri gisa azaltzen zaigu, eta, beraz, espero izatekoa da bere kidetik banatuta dagoen *oro* zenbatzailea predikatuaren ezkerretara azaltzea. Berriro ere, emaitzek, argiagok kasu honetan, predikzioa baieztatzen dute. Ikus (23):

- (23) a. *Asmu hekiek guziak*, ez diren arren bardinak, *oro* elkhar iduritsuak dira (Dv Lab - 67)
 b. *Urratsak* ez dira *oro* berdin (= aurreko 20a)

Perpaus kopulatiboen analisi estandarrean, [[[*asmu hekiek guziak*] *oro*] elkar iduritsuak] eta [[[*urratsak*] *oro*] berdin] perpaus txikiak genituzke izan aditzaren osagarri; (23)-ko adibideetan subjektuaren mugidaren ondorioz sumatzen den hurrenkera, beraz, bete-betean dagokio Sporticheren azterbidean espero dugunari.

3.4. Oro eta A'-mugimenduak

Gramatika sortzailearen esparruan argumentu-guneak edo A-guneak eta ez-argumentu guneak edo A'-guneak bereizi ohi dira: lehenak aditzaren agumentuak berez agertu ohi direnak ditugu; A'-guneak, berriz, perpausaren eraketa arruntetik kanpokoak dira. Galdegaia edo galdetzaileak agertzen diren ezkerraldeko guneak eta mintzagaiak edo topikoak agertzen diren ezkerraldeko guneak jo daitezke A'-gune tipikotzat. Sporticheren azterbidean, DS bat horrelako gune batera mugitzeak atzean utz lezake bere jatorrizko gunean *oro* bezalako zenbatzaile lerrakor bat, printzipioz AS barruan.

3.4.1. NZ-bitzen aztarnak

Ez ditut galdetzaileen mugimenduaren adibide asko aurkitu, baina bada-go bat aipamena merezi duena, (24) alegia; honetan subjektuari zuzendutako izenordain erlatibo batek atzean uzten du oro zenbatzailea:

- (24) Bai: zeren ardiek bere artzaña ezagütü behar baitie; orok algarreki hartan Jinkoari Jesús jaunaz ber sakrifizioa eta othoitzia egin; enzün pronoa, zoin diratian asteko bestak, barurak, eskümükiak, ezkonzen kridak, gañelako ere ikhasi behar direnak zoin *hontarzün* ezpaitira oro *edireiten* beste mezetan, hartakoz meza gehiena hobe da (Bp I - 117)

Balepeyren adibide hau interes handikoa da izenordain erlatiboa oro-rik gabe mugitzen dela erakusten duelako, eta berriro ere oro AS barrua izan litekeen INF eta A arteko gune batean, aurkitzen dugulako.

3.4.2. Mintzagaiak eta oro

Berauek ere, mugimendu sintaktikoaren ondorioz sortuak izaten dira (cf. de Rijk 1978, Ortiz de Urbina 1999). Topikoen aurreratze hauek, orduan, oro lerrakorra mugigaiaren jatorrizko lekuan aurkituko dugula aurreikusten dute; kasu batzuetan, topikoaren eta zenbatzailearen artean ez dago distantziarik, eta predikzioa zaila da egiaztatzen:

- (25) Mendi xokoan edo zelhaiaren erdian etxetiar zagoden etxeño hura, hanibertze urtez hain gogotik bere haurren erdian borrokatu dituzten *lur hek, kabala maite hek, ithurriño hura, oro* utzi behar ukan dituzte, plazan etxe huts baten hartzeko, hemendik auzoetarat lanbide errexagoa ukanen dutelako ustearekin (JE Bur - 105)

Aurkitu ditudan adibide bitan, ordea, banatuta ageri dira topikoa eta oro: adibide batean aginterazko adizkia dugu, hain zuzen ere perpaus hasierako aditzaren aurreramendua daukan perpaus mota (Ortiz de Urbina 1994), eta bestean, topikoak erreskan bezala datoz eta ondoren aditza bera azaltzen da, berau perpaus hasierara aurreratu balitz bezala:

- (26) a. *Ardiak eta artzainak, Gauden oro, Eskualdunak* (Barb Sup - 61)
 b. O Maria, egizü hürrüntik berere zuri jarraiki gitian; eztezagün ütztz galtzera Jinkoak zeliaren irabazteko emaiten deikün denbora; *gure lanak, gure gogoküntiak, gure bihotzeko sendimentiak* izan ditian oro Jinkoaren gogoarako zuriak bezala (Ip Hil - 192)

Datu hauek ezin dira erabakigarritzat hartu, baina bat egiten dute euskal perpausaren egituraz dakigunarekin eta Sporticheren azterbidetik espero daitekeenarekin. Bi adibideak perpaus kopulatiboak dira, eta eskuarki proposatuko genituzkeen S-egiturak honakoak dira:

- (26') a'. [[perpaus txikia [ZenbS *ardiak eta artzainak oro*] eskualdunak] egon]
 b'. [[perpaus txikia [ZenbS *gure... sendimentiak oro*] Jinkoaren gogoarako] izan

Egin beharreko suposizio bakarra da (26')-ko egituretatik abiatuta subjektu barruko DS eta aditza edo aditza eta laguntzailea aurreratu egin direla, hainbat ikertzailek (esaterako, Ortiz de Urbina 1995: 113) honelako egituretan proposatzen duten bezala. Gainerakoan, datuak espero bezalakoxeak dira.

3.5. Perpaus amaierako oro


Zenbait kasutan *oro* zenbatzaile lerrakorra perpaus amaieran aurkitzen dugu; adibide bietan subjektuari zuzendutako zenbatzaileak dira:

- (27) a. *Frantsesek* irria ezpainetan zuten *orok* (StPierre - 36)
 b. Gaxuxak sendi zuen *ezteiliarrak* haren alde zirela *oro*, eta nausi xaharra amor emaitera zagola (Lf Murtuts - 119)

Perpaus amaierako gunea zehazterakoan, zenbatzaile lerrakorrak aztertu dituztenak ez datoz bat: Sportiche-rendako zenbatzaile lerrakorrak frantsesez zilegi dira perpaus amaieran AS-ren espezifikatzailea eskuinera ere heda daitekeelako; ingelesez, berriz, horrelako aukerarik ez omen da. Doetjes-endako (1992, 1997) zenbatzaile lerrakorrak aditzondo gunetan ageri dira (ez dira mugimenduaren bidez deslai gelditzen), eta frantsesez zenbatzaile lerrakor luzeak edo astunak baino ez omen dira posible perpaus amaieran. Euskarari dagokionez, perpausaren ohiko moldearen arabera perpaus amaierako gunea ezin daiteke AS-ren ingurukoa izan, aditz amaieran INF edota, agian KONP¹⁰ kategoriak ageri direlako:

¹⁰ Ortiz de Urbinak (1989, 1999) eta Elordietak (2001) Konp kategoria perpaus hasieran kokatzen dute; Lakak (1990), berriz, perpaus amaieran.

(28)



Ustezko paradoxa baten aurrean gaude hortaz: Sporticheren azterbidean eta (28)-an oinarrituta, ez dugu espero *oro* perpaus amaieran aurkitzea, baina, itxuraz, bertan egon daiteke. Badugu hala ere argudio bat orain arte *oro*-z esan dugunari eusteko; Ortiz de Urbina (1989) eta Elordietaren (2001) lanen ildotik, jo dezagun (27)-ko adibideetan ezkererako mugimenduak gertatu direla; horretarako, *mintzagaia* eta *fokoa* ditugula baino ez dugu pentsatu behar. Hala bada, perpaus amaierako (edo aditzaren osteko) *oro* hori, funtsean, bere jatorrizko lekuan egon liteke, (29)-ko aurkezpenak aditzera ematen duen bezala:

(29) frantsesek_i irria_j; [_{XS} ezpainetan zuten [_{InfS} [_{AS} [t_i orok] ... t_j ...]]]
 XS = Konp-S edo Foko-Sintagma

(27)-ko adibideak korpus *idatzi* batetik atera ditugu, eta, zentzu batean, (29)-ko analisia espekulazio hutsa da, jakina. Baina beste datu batzuek *oro* egiazko amaieran, mugimenduaren ondorioz edo bestela, ezin egon daitekeela iradokitzen dute. Ikus (30) eta (31) bikoteak:

- (30) a. Ikasleek irakurri dute *orok liburua*
 b. ??Ikasleek irakurri dute *liburua orok*
- (31) a. Gizonak mintzatu dira *oro ongi*
 b. *Gizonak mintzatu dira *ongi oro*

Ortiz de Urbina edo Elordietarena bezalako azterbide batean, adibideotan aditzaren aurreramendua daukagu, eta aditzaren osteko sintagmak aurreratu gabe geratu dira. Lehen adibide parean, nabarmena da *oro* eta osagarria oinarritzko hurrenkeran bertan agertu behar direla, eta *liburua* osagarriak ezin

duela subjektuaren aztarnaren aurrera pasatu, nolabait esateko, edo *oro-k* eskuinera mugitu. Koska hemen dago: *oro* mugitu balitz edo eskuinera adjunktuta sortu balitz (27)-ko adibideetan, berdin egin ahalko zuen (30b) adibidean baina, ez dakigun arrazoiren bategatik, ezin du¹¹.

Hartara, datu honek iradokitzen du (27)-ko *oro* horiek ere ez daudela eskuinera mugituta edo adjunktatuta, baizik eta euren jatorrizko lekuan. Argudioak berdin balio du (31)-ko bikoterako: Elordietaren (2001) arabera, moduzko aditzondoak aditzaren ahizpa-adabegi bezala sortzen dira; horrek esan nahi du, aditza eta subjektua mugituz gero *oro* zenbatzaile lerrakorrak moduzko aditzondoan ezkerretara egon behar duela; eta horixe aurkitzen dugu (31a-b) adibideetan¹².

(30-31) adibideak ikusita behintzat, (27)-ko perpausetan *oro* zenbatzaileak, itxurak gorabehera, ez du zertan perpausaren amaieran egon edo sortu.

3.6. Oro eta hipotesi antisimetrikoa

Kayne-ren (1994) azterbidearen arabera, hizkuntza guztiek daukate *espezifikatzaile-buru-osagarri* hurrenkera oinarrian. Euskarak, azalez behintzat, subjektu-AS-INF hurrenkera dauka, eta AS-aren barruan ere osagarria aditzaren aurretik ikusten dugu hurrenkera ezmarkatuan. Euskarazko hurrenkera arrunta Kayne-ren teoriaren arabera buru-mugimenduaren bidez azaldu nahi badugu *eta* Sporticheren analisia ontzat ematen badugu (baldintza biak), predikzio bi egiten dira:

- (32) a. ezezkako perpausetan, aditzaren osagarriari zuzendutako *oro* zenbatzaile lerrakorra sistematikoki aditzaren ostean agertu beharko litzateke.
 b. ezezkako perpausetatik kanpo *oro* zenbatzaile lerrakorra sistematikoki aditzaren (laguntzailearen) osteko gunean agertu beharko litzateke


¹¹ (30b) adibidea ez da (31b) bezain okerra zenbait hiztunendako, baina edozelan ere (30a) adibidea bera baino nabarmen okerragoa da.

¹² Hala ere, honako adibide bikotea ondo dago:

- (i) a. irakurri dute ikasleek liburua
 b. irakurri dute liburua ikasleek

Elordietaren azterbidean A-INF-O-S hurrenkera osagarriaren *scrambling* mugidaren bidez eratorritzen da. Bistan da *liburua* osagarria ezin mugi daitekeela *oro*-ren ezkerretara. Ez dakit zergatik.

Predikziook hobeto ulertze aldera, lagungarria izan daiteke Kayneri jarraituz egin litekeen buruz buruko azterbide horri dagokion arbola-diagrama egitea:



Alegia, baiezko perpausen azaleko hurrenkeraren berri emateko, aditzak F bururaino igo beharko luke; subjektuaren eta osagarriaren jatorrizko azarnak¹³ (eta, hipotesi hutsez, zenbatzaile lerrakorrak ere) F horren atzean aurkituko genituzke. Ezezko perpausen azaleko hurrenkeraren berri emateko, berriz, aditza bere jatorrizko lekuan geratuko litzateke; orduan, aditz horren osagarriaren aztarna (eta, hipotesiz, zenbatzaile lerrakorra) aditzaren ostean aurkitu beharko genuke.

Ikusi dugunez, gauzak ez dira horrela: (32a) lehen predikzioa, (21a-b) eta (24) adibideek gezurtatzen dute, modu argian; (32b) predikzioa, berriz, iluna-

¹³ Subjektua eta osagarria [espez, INF] eta [espez, F] gunetara, hurrenez hurren, mugitzen direla suposatuz, jakina.

goa da baina badirudi (18) eta (23) bezalako adibideek gezurtatzen dutela¹⁴. Beraz, edo Sportiche-ren azterbidea ez da zuzena; edo ezinezkoa da euskararen hitz hurrenkera Kayne-ren teoriar buru-mugimenduen bidez aztertzea.

Alternatiba gisa, Kayne-ren teoria aintzat hartuz, AS-, edo modu orokorragoan, sintagma-mugimenduen bidez egin liteke euskarazko hurrenkera azaltzeko saioa, Bill Haddican-ek (2001) egin duen bezala. Kasu honetan, azterketa zorrotzago baten zain geratu behar dugu; hori bai, euskara hizkuntza buru-azkentzat jotzen duen azterbideak bat egiten du, inolako arazorik gabe, *oro* zenbatzaile lerrakorraren datuekin. Dena dela, hartzen den azterbidea hartzen dela ere, gaur egungo hitzunen intuizioak hobeto ezagutzea da *oro*-ren azterketan egin beharreko hurrengo urratsa.

3.7. *Oro* aditzondo bezala?

Han-hemenka bildu ditudan zenbait adibidetan, *oro* zenbatzailea, DS bat zenbatuaz baino gehiago, aditzondotzat jo daitekeela iruditu zait; esanahia hurbilago dago “osorik, zeharo, guztiz” bezalakoetatik; gainera, DS batekin elkartzekotan, DS hori singularra izan daiteke:

- (34) a. Nik ezagutzen zikit lehena, eta azkena, nik besarkatzen zikit *oro*, amurio ezin preziorik emaiten zaion batez (Mst - 323)
 b. Piarres artatua, bigak, berriz otardirat zirelarik Mazondo bila, *oro* sutan ziren: etzuten Mazondorik atxeman, jada errea zen (Zerb Azk - 103)

Oro hauek, *oro* zenbatzailearen banaketa berdina daukate, baina itxuraz esanahia bera aldatzen da; ikertzekoa litzateke biak (zenbatzaile hutsa dena eta aditzondo itxura daukana) antzera aztertu behar diren, edo, Benmamoun-ek (1999) arabierarako iradoki duen bezala, bata DS-ari atxikita eta bestea AS-ri atxikita¹⁵.

¹⁴ Datuen azalpena konplikatuzeagoa izan liteke zenbatzaile lerrakorra, oinarritzko gunean barik, tarteko gune batean geratzen dela proposatuz gero. Sporticheri itsu-itsuan jarraitzen diot hemen. Ikus honetaz eta bestez Bobaljick (1998).

¹⁵ Ez dut ahazten ikerlari batzuek ere zenbatzaile lerrakorrak eurak ere aditzondo gunean sartzen direla proposatu izan dutela. Honetaz, bereziki, ikus Doetjes (1997).

4. BESTELAKO ZENBATZAILE LERRAKORRAK

Atal honetan *oro* zenbatzaile lerrakorraz esandakoa beste zenbatzailearen batera zabaltzen ote den argitu nahi dut. Ikusiko dugunez, baliteke hala izatea *asko* eta, ñabardurekin, *franko* zenbatzaileen kasuan. Azken honekin hasiko naiz.

Deskriptiboki behintzat, *franko* zenbatzailea da hurbilen egon litekeena *oro*-ren jokabidetik; izan ere, EGLA liburuan bertan aipatzen da *franko* zenbatzailea artikuludun DS batekin ere erabil daitekeela:

- (35) a. gizona franko ikusi dut gaur mendian
 b. gizonak franko ikusi ditut gaur mendian
 (Euskaltzaindia 1993: 109)

Horiek horrela, ematen du (35a-b) bezalakoetan *oro*-rekin geneukan egituraren parekoa daukagula:

- (36) a. [_{ZenbS} [_{DS} gizonak] franko] (Giustiri jarraituz, cf. 12a)
 b. [_{DS} gizonak [_{ZenbS} franko]] (Benmamoun-i jarraituz; cf. 12b)

(36)-ko egiturak zuzenak badira, zilegi izan liteke DS eta zenbatzailea urrun-tzea, *oro*-ren kasuan bezala. Azterketa sakonago bat behar den arren, badirudi, neurri batean behintzat, predikzioa bete egiten dela¹⁶:

- (37) perretxikoak mendian franko ikusi ditut

Edozelan ere, behin betiko ikerketa baten zain geratzen gara *franko* egiazko zenbatzaile lerrakorra den egiaztatzeko.

Asko zenbatzaileak, bestalde, zenbatzaile lerrakor modura joka dezake zalantzarik gabe hainbat kasutan, honako adibideek argi eta garbi erakusten duten moduan¹⁷:

- (38) a. perretxikoak mendian asko ikusi ditut
 (= perretxiko asko ikusi ditut)
 b. perretxikoak ez ditut mendian asko ikusi
 (= ez ditut perretxiko asko ikusi)

¹⁶ Neurri batean diot, zeren ondo egon beharko luketen adibide batzuk ez omen dira onargarriak:

(i) ?? perretxikoak ez ditut gaur mendian franko ikusi

¹⁷ Neure esker ona adierazi nahi diot Koldo Zuazori ondorengo datuekin lagundu izanagatik.

Horko adibide bietan, *asko*-k perretxikoak zenbatzen ditu, ez du “askotan” eta abar esan nahi. Bestalde, eta espero daitekeen bezala ere, o-komandoaren baldintza bete behar du *asko* zenbatzaile lerrakorrak:

- (39) a. ikasleak ez dira asko etorri gaurko hitzaldira
 b. *asko ez dira ikasleak etorri gaurko hitzaldira

Alegia, *ikasleak* DS-ak *asko* o-komandatu behar du; o-komandorik ezean, perpausa ez da gramatikala.

Asko zenbatzailearen jokabide hau deigarria da, ohiko deskribapenetan behintzat ez baita esaten *asko*-k artikuludun DS hartzen duela; normalean, artikulurik gabeko izen-sintagma soila hartzen du. Baina ikusten dugunez, izen-sintagmaren eta zenbatzailearen banatzea gertatuz gero, ezinbestekoa da artikulua ere azaltzea:

- (40) a. perretxikoak mendian [[t] asko] ikusi ditut
 b. *perretxiko mendian [[t] asko] ikusi ditut


Elkarrengandik banatzearen eta artikulua (hots, nolabaiteko komunztadura) agertu beharraren arteko loturak Shlonskyk (1991) hebraierazko *kol* zenbatzaileaz egiten duen azterketa gogoratzen digu: Shlonskyk, *kol* zenbatzaile lerrakorraz ari delarik, DS osagarriaren mugimendua zenbatzaile-sintagmaren espezifikatzailetik igaroaz gertatzen dela defendatzen du:

- (41) a. Katafti ?et kol ha-praxim bi-zhirut
 jaso nituen akus oro art-lore kontuz
 ‘lore guztiak kontu handiz jaso nituen’
 b. Katafti ?et ha-praxim kul-am bi-zhirut
 jaso nituen akus art-lore oro-ak kontuz
 ‘lore guztiak kontu handiz jaso nituen’
 (Shlonsky 1991: 160)


Hebraieraz, *kol ha-praxim* eta *ha-praxim kul-am* sintagmak baliokideak dira, baina lehenak bigarrenak DS-aren eta zenbatzailearen artean daukan komunztadura, *-am* atzizkiaren bidez adierazia, falta du. Zenbatzailea eta DS elkarrengandik banatzekotan, ezinbestekoa da komunztadura hori:

- (42) a. Ha-yeladim yasnu kul-am
 art-ume lo egin oro-art
 b. *Ha-yeladim yasnu kol
 art-ume lo egin oro
 ‘umeek orok lo egin dute’
 (Shlonsky 1991: 167)

Shlonskyren azterbidean, *kol* zenbatzailearen osagarri den *ha-yeladim* DS horrek, Zenb-Sintagmatik kanpora mugitzeko, lehenik zenbatzailearen espezifikatzailetik igaro behar du, eta horrek espezifikatzaile-gunearen eta zenbatzailearen arteko komunitadura eragiten du:



Euskaraz DS eta *asko* zenbatzailea elkarrengandik banatzean ikusten dugun komunitadura mota hori berdin azal liteke beharbada; hau da, DS-ak egiten duen antzeko mugimenduaren bidez. Azalpen honek, jakina, Benmamoun-en azterbidearen kalterako Giustiren azterbidea hobestea dakar:



Beraz, hipotesi honetan (38a) adibidean mugitzen den *perretxikoak* horrek urrats bi egingo lituzke: lehenengo, zenbatzailearen espezifikatzaileira, eta hortik bere lurreragunera.

Laburbil dezagun: *oro* zenbatzaileaz gain *asko* eta *franko* zenbatzaileak ere baliteke zenbatzaile lerrakorrak izatea. *Asko*-ren azterketak, bere aldetik, iradokitzen du DS-Zenb elkarketetan Giusti-Shlonsyren azterbidea dela zuzena, euskarari dagokionez behintzat. Datozen ikerketek emango digute argi gehiago zenbatzaileen lerratzeaz, eta gainerako zenbatzaileen jokabideaz.

5. AMAIERA

Hitzaldi honetan, tradizionalki *determinatzaile* deitzen ditugunak zorrotzago aztertu beharra azpimarratu dut: badira DSH-ren hipotesiaren ikuspegitik Determinatzaile kategoriako kideak, eta badira zenbatzaile kategoriakotzat jo daitezkeenak. *Determinatzaile* deiturikoen azterketak, bestalde, izen-sintagmaren barne egitura hobeto ezagutzen ere lagun dezake. Zenbatzaile orokorren artean, zantzuak badaude pentsatzeko *oso*, *den*, eta *guzti* funtsean adjektiboak direla eta *oro*, berriz, egiazko zenbatzailea:

- (45) a. *oso*, *guzti*, *den* = Adj
 b. *oro* = Zenb

Giusti-k proposatutako azterbidean oinarrituta *oro*-ren ezaugarriak (DS-en beharra, *guzti/den*-ekiko bateragarritasuna) hobeto ulertu daitezke. *Oro*-ren azterbide honek, gainera, bidea zabaldu du erakusteko euskaraz ere badaukagula zenbatzaileen lerratzea eta euskal perpausaren egitura hobeto ezagutzeko aukera ere eskaini digu.

BIBLIOGRAFIA

- ARTIAGOITIA, X. 1998. "Determinatzaile Sintagmaren Hipotesia Euskal Gramatikan", *Uztaro* 27, 33 - 61.
- 2002. "*-(t)ar* atzizkidun hitzen jokabide sintaktikoaren inguruan". *Fontes Linguae Vasconum* 91, 443-462.
- BENMAMOUN, E. 1999. "The syntax of Quantifiers and Quantifier Float", *Linguistic Inquiry* 30.4, 621-642.
- BOBALJICK, J. 1998. "Floating quantifiers: Handle with care", *Glott International* 3-6, 3-10.

DOETJES, J. 1992. "Rightward floating quantifiers float to the left", *The Linguistic Review* 9, 313-332.

—1997. *Quantifiers and selection. On the distribution of Quantifying Expressions in French, Dutch and English*, University of Leiden doktorego tesia.

ELORDIETA, A. 2001. *Verb Movement and Constituent Permutation in Basque*, University of Leiden doktorego tesia.

EUSKALZAINDIA 1985. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I*, Bilbo: Euskaltzaindia.

—1993. *Euskal Gramatika Laburra: Perpetuus Bakuna*, Bilbo: Euskaltzaindia.

GIUSTI, G. 1997. "The categorial status of determiners", in L. Haegeman (arg) *The New Comparative Syntax*, London: Longman, 95-123.

HADDICAN, B. 2001. "Basque functional heads", NYU eskuizkribua.

KAYNE R. 1975. *French Syntax*, Cambridge MA: MIT Press.

—1994. *The Antisymmetry of Syntax*, Cambridge MA: MIT Press.

LAKA, I. 1990. *On the Nature of Functional Categories and Projections*, MIT doktorego tesia.

ORTIZ DE URBINA, J. 1989. *Parameters in the Grammar of Basque.*, Dordrecht: Foris.

—1994. "Verb Initial Patterns in Basque and Breton", *Lingua* 94, 125-153.

—1995. "Residual Verb Second and Verb First in Basque", in K.É. Kiss (arg.) *Discourse Configurational Languages*, Oxford: Oxford University Press, 99-121.

—1999. "Force Phrases, Focus Phrases and Left Heads in Basque", in J. Franco & A. Landa (arg) *Gramatical Analysis of Romance and Basque*, Amsterdam: John Benjamins, 179- 194.

RIJK, R. DE 1978. "Topic Fronting, Focus Positioning and the Nature of the Verb Phrase in Basque", in F. Jansen (arg), *Studies on Fronting*, The Peter de Ridder Press: Lisse, 81-112.

SARASOLA, I. 1996. *Euskal Hiztegia*, Donostia: Kutxa

SHLONSKY, U. 1991. "Quantifiers as functional heads: A study of quantifier float in Hebrew", *Lingua* 84, 159-180.

SPORTICHE, D. 1988. "A theory of floating quantifiers and its corollaries for constituent structure", *Linguistic Inquiry* 19.3, 425-449.

TRASK, R. L. 2001. "The noun phrase: nouns, determiners and modifiers; pronouns and names", J. I. Hualde eta J. Ortiz de Urbina (arg) *A grammar of Basque* liburuan agertzeko.

EUSKARAREN SISTEMA FONOLOGIKOAREN JABEKUNTZARI BURUZKO OHARRAK

A. Barreña

1. HELBURUAK

Lan honen asmo nagusia orain arte euskaraz gutxi jorratu den arlo bati hurreratzea da. Beste hainbat hizkuntzatan egin den legez, hala nola, gaztelaniaz, katalanez, ingelesez, japonieraz, portugesez edo alemanez, euskararen sistema fonologikoaren jabekuntzan haurrek gauzatzen dituzten hainbat ezaugarri aztertu nahi izan dut. Nolanahi ere, ikerketa hau hasierako hurbilketa besterik ez da, eta horrela hartzea nahiko nuke, etorkizunean behar-beharrezkoak ditugun ikerketa zehatzagoak, zuhurragoak eta aberatsagoak etorriko direlakoan.

Ildo honetatik, beraz, helburu orokorra euskararen sistema fonologikoaren jabekuntzan gertatzen diren ezaugarri nagusiak zeintzuk diren zehaztea da. Hasteko, ea fonologian jabekuntza mailakatua ikus daitekeen, hau da, ea hots edo silaba-egitura batzuk beste batzuk baino goizago darabiltzaten. Horrela bada, nik uste dudana legez, ea zein hots eta silaba-egiturak diren goizien agertzen direnak eta zeintzuk beluen. Jarraitzeko, hotsak eta silaba-egiturak oguztean erabiltzen dituzten estrategiak aztertu nahi ditut. Amaitzeko, fonologiaren jabekuntzan zailtasun berezirik gertatzen ote den ere arakatzeari nahi dut.

Bestalde, beste hizkuntzetako ikerketen ondorioen arabera eraikitako hainbat hipotesi euskararen garapenean gertatzen diren begiratu nahi izan dut. Aurretik kaleratu diren hipotesiak eta nik euskararen garapenean ere gertatzen diren begiratu nahi ditudan ugarri izanik, jarraian hauetako batzuk baino ez ditut ekarriko:

bokal-sistemaren jabekuntza, bere osotasunean, kontsonante-sistema baino lehenago bukatzen ote den (Serra, Serrat, Solé, Bel eta Aparici 2000); itxi/ireki ezaugarrien arabera, muturreko bokalak erdikoak baino lehenago erabiltzen ote diren (gurean /a/, /i/ eta /u/, hain zuzen) (Jacobson 1941/1968); kontsonante-sisteman sudurkariak eta herskariak, igurzkariak, afrikatuak eta urkariak baino goizago agertzen ote diren (Etxebarria 1999); kontsonanteen ahoskunea kontuan izanik, aurretik atzeranzko bereganatze mailakatu gertatzen ote den, adibidez, ezpainkariak belareak baino lehenago oguztea (Serra, Serrat, Solé, Bel eta Aparici 2000); lege natural eta orokorrak bideraturik, bilakabide fonologikoak edo fonemen ordezkatzekak beste hizkuntzetan bezalaxe gertatzen ote diren –igurzkariak herskariez ordezkatzekak, ahostunak ahoskabez, eta abar- (Jacobson 1941/1968, Lleó 1997); hots jakin baten jabekuntza silaba-egituran hartzen duen egongunearekin lotuta ote dagoen (Ingram 1974, 1981); hitz-egituraren jabekuntzan, hasieran behintzat, silaba azentugabeen isiltzea gerta daitekeen, batez ere azentudun silaben aurrekoena (Mariscal 1997); silaba-egiturari dagokionez, CV eta V egiturak agertuko diren lehenak ote diren eta egitura konplexuagoak soiltzeko joera izango ote duten (Fee 1995); amaierako edo kodako kontsonanteari dagokionez, CVC egituraren jabekuntza epe luzean eta era mailakatuan gertatzen ote den; silaba-egitura konplexuen artean CVCC egitura CCV egitura baino goizago ekoitziko ote duten (Lleó 1986, 1997; Carreira 1991); eta abar.

2. METODOLOGIA

Hau guztiau ikertzeko haur euskaldun elebakar bik ekoitzia arakatu dut. Haurretako bat bizkaitarra da, eta nafarra bestea. Begiztatuko ditudan ekoizpenak, hurrenez hurren, 1;00 (urte bete; zero hilabete) – 4;06 eta 1;03 – 3;00 bitartekoak izango dira, honela zezelara-aroaren ondoko hizkuntza-garapena aztertuko dudalarik. Luzerako ikerketetako metodologia erabilirik, haur biak hamabostero jarraituak izan dira HEGEHJ-BUSDE (Idiazabal 1991, Mahlau 1994) eta ‘Bilingüismo y adquisición del lenguaje: contacto y diferenciación de códigos lingüísticos’ (Zubiri 1997) ikerketa-proiektuen barruan.

Haur biak bidez izan ziren grabatuak eta saio hauetan ekoitzitakoak baino ez ditut arakatuko, salbu haur bizkaitarraren 1;00 – 1;05 bitarteko ekoizpenak, zeintzuk bere gurasoek eguneroko baten bildu zituzten. Grabaketak bat-batekoak izan zirela adierazi behar dut, aurretik inolako pres-takuntza berezirik ez zen egon eta.

Nahita aukeratu ditut etxean, senitar-tean, euskara huts-hutsean ikasi duten haurrak eta, beraz, hemen aztertuko ditudan ekoizpenak haur elebakarrek ekoitziak dira, geroago, eskolaren eta kalearen bidez, besteak beste, haur hauek elebidun bihurtu diren arren.

Grabaketak eta transkribaketak egitean helburua garapen fonetikoa zehaztea izan ezenez, hemen aurkeztuko ditudan datuak fonologiaren barruan baino ezin daitezke ulertu. Esan nahi dudana zera da, erabilitako trenen eta bitartekoen bidez ezin daitekeela garapen fonetikoa aztertu.

Bestalde, arakatuko ditudan ekoizpenak, gorago esan dudana legez, ez dira zezelera-arokoak, ostekoak baino, hots, haurrek inguruko helduen hizkuntza bereganatzen eta erabiltzen hasten direnean ekoizten dituztenak. Gutxi gorabehera urte bete dutenean hasten dira haurrak lehenengo hitzak erabiltzen, eta ikerketa honetan aztertuko ditudan hotsak eta silaba-egiturak une horretatik aurrera hitzetan eta esaldietan oguzitakoak baino ez dira izango.

3. EMAITZAK

Fonologiaren jabekuntzaren ezaugarriak ikusteko eta aurreko hipotesien baheketa errazago egin ahal izateko, haurrek ahoskaturikoak lau tauletan aurkeztuko ditut atal honetan. Batetik, hotsen edo fonemen agerrera noiz gertatzen den erakutsiko dut (1. eta 2. taulak). Honetarako ez dut kontuan izango hotsaren egongunea silaba-egituraren barruan. Bestetik, silaba-egituraren jabekuntzaren inguruko datuak bilduko ditut (3. eta 4. taulak). Oro har, hotsen edo silaba-egituraren bat erabili dutela baiesteko gutxienez adibide bi ekoitzi dituztela hartu dut kontuan.

Lehenengo taulan, beraz, bokalen lehen agerrera-uneak adierazten dituzten datuak bildu ditut. Bertan bokalez gain, diptongoen agerrera-uneak ere jaso ditut. Diptongoei buruz zera aurreratu nahi dut, euskaraz ohikoak diren beheranzko diptongoez gain (/ai/, /oi/, /ei/, /au/ eta /eu/), goranzko diptongo biren ahoskatzea ere jaso dudala, /ua/ eta /ue/ diptongoena alegia. Gauza jakina da euskaraz azkeneko mendeetan beheranzko diptongoak erabiltzeko joera izan duela, baina ezaguna da, baita ere, zenbait euskalkitan eta herri-hizkeratan gaur egun goranzko diptongoak ere entzun daitezkeela (Lafitte 1979; Txillardeggi 1984).

1. taula: bokalen eta diptongoen agerrera-uneak

	Egoitz nafarra	Oitz bizkaitarra			Egoitz nafarra	Oitz bizkaitarra
/a/	1;03	1,01	beheranzkoak	/ai/	1;03	1;01
/e/	1;03	1;01		/oi/	1;10	1;07
/i/	1;03	1;01		/ei/	2;00	2;02
/o/	1;03	1;01		/au/	1;03	1;07
/u/	1;03	1;02		/eu/	-	3;00
			goranzkoak	/ua/	1;06	1;07
				/ue/	3;00	2;00

Oro har, bokalei buruz zera ikus dezakegu, datu-bilketaren hasiera-hasieratik ia bokal guztiak darabiltzatela. Salbuespena /u/ bokala izan da, haur bizkaitarra beste bokalak baino hilabete beluago erabiltzen hasi da eta.

Diptongoei buruz, laburbildurik, erabilera mailakatua ikus daitekeela esan daiteke. Zalantza barik gehien darabiltzaten beheranzkoen artean /ai/ izan da biek ahoskatu duten lehena eta ondoren /au/, /oi/ eta /ei/ ebaki dituztela ikus dezakegu. Azkena /eu/ izan da, haur nafarraren ekoitzian bildu ere egin ez dudana. Mailaketa, beraz, haur bi hauengan behintzat, honela gertatzen da: batetik, irristarien artean lehenago agertzen dira, talde legez, /i/ kontsonante-erdiaz eraikiak /u/ kontsonante-erdiaz eraikiak baino; bestetik, bokal osoak direnen artean hurrenkera /a/, /o/ eta /e/ da. Halere, kontuan izan behar dugu haur hauek /oi/ diptongoa oguzteko duten motibazio berezia, bien izenek diptongo hau ezagutzen dute eta: Egoitz eta Oitz.

Bestalde, diptongoen garapenaren hasieran monoptongaketa edo ordezkatzeari badirela nabarmendu nahi dut, halako adibide askorik bildu ezin izan dudan arren (ikus 1).

(1) atite (= aitita) (O 1;01); gotx (= Egoitz) (E 1;10); auria (= euria) (O 2;05)

Bigarren taulan kontsonanteen agerrera-uneak jaso ditut. Bertan hotsak ondoko multzoetan aurkezten ahalegindu naiz: sudurkariak, herskariak, herskari sabaikariak, urkariak eta txistukariak –igurzakariak zein afrikatuak-. Argi dagoenez, zenbait kontsonante ez dira inolako multzotan agertzen.

Fonemak adierazteko nazioarteko transkripzio-metodoak, hala nola IPA – International Phonetic Alphabet- sistema, ekiditea erabaki dut. Horren

ordez, euskara estandarrean darabilgun sistema ortografikora moldatzen saiatu naiz. Nolanahi ere, zenbait egokitzen egin behar izan dut: batetik, /j/ delakoak hots belarea adieraziko du lan honetan, sabaikaria /dd/ ikurraren bidez islatuko dudalarik; bestetik, haur nafarrak sarritan oguzten duen hots guturala /gh/ ikurraren bidez adieraziko dut. Bestalde, haur bizkaitarraren garapenean hasiera-hasieran aurkitu dudana txistukari bakarra /z/ hizkiatzen da, haur honek ahoskatzen duen hasiera-hasierako txistukaria hots horretara hurbiltzen baita beste edozein hotsetara baino gehiago, bere inguruan halakorik entzuten ez duen arren.

Kontsonanteen agerreran kontu asko dago nabarmentzeko. Hasteko, hotsen agerrera-hurrenkera antzekoa izan dela haur biengan. Nabarmena da, huts-hutsean eta silaba-egituran hotsak duen egongunea kontuan hartu barik, haur biengan antzeko garapena ikus daitekeela, hots-multzoen arabera behintzat. Erabili dituzten lehenak sudurkariak eta herskariak dira; ondoren urkariak eta, azkenik, txistukariak eta igurzkariak.

2. taula: kontsonanteen agerrera-uneak

		Egoitz	Oitz			Egoitz	Oitz
sudurkariak	/m/	1;03	1;01	urkariak	/r/	1;10	1;06
	/n/	1;03	1;02		/rr/	-	4;03
	/ñ/	1;03	2;00		/l/	1;06	1;02
herskariak	/b/	1;03	1;02	txistukariak	/ll/	1;08	2;00
	/p/	1;03	1;01		/s/	1;08	2;02
	/d/	1;10	1;07		/z/*	2;00	1;05
	/t/	1;03	1;01		/x/	1;10	3;00
	/g/	1;04	1;02		/ts/	3;00	-
	/k/	1;04	1;01		/tz/	2;00	2;02
herskari	/dd/*	1;08	1;02	/tx/	1;06	2;00	
sabaikariak	/tt/	1;03	2;00	igurzkaria	/f/	2;02	2;10
				belarea	/j/*	3;00	2;00
				guturala	/gh/*	1;03	-

Agerrera-hurrenkera hori, oro har, egia bada ere, argi dago salbuespenik nabarmenena dardari anizkunaren agerrera izan dela, bera baita hurrek oguzi duten azkena. Haur bizkaitarrak ez du /rr/ hotsa 4;03 adina izan arte erabili eta nafarrak, ostera, ez du halakorik ekoitzi azterketa egin ahal izan dudan aldian, geroago erabili duela badakidan arren.

Bestalde bada beste oinarrizko ezaugarri bat ere: hotsen bat erabiltzen hasteak ez dakarrela beti egoki eta zuzen erabiltzerik. Esan nahi dudana zera da, bigarren taulan hotsen bat adin zehatz batean erabiltzen dutela adierazten bada ere, arrunta eta ohikoa dela adin horretan eta horretatik aurrera hots hori erabili beharko luketen hitz guztietan ez erabiltzea. Halakorik gertatzen denean aukera bi dituzte hurrek, hotsa isiltzea edo beste batez ordezkatzea. Ordezkatzek geroago ikusiko ditugunez, jarraian isiltzea edo ezabaketaren adibideak erakutsiko ditut (ikus 2).

(2) Hots-ezabaketaren adibideak

go (=gol), oo (=lolo) (O 1;03)	/l/ urkariaren agerrera: 1;02
aiaia (=Amaia) (O 1;03)	/m/ sudurkariaren agerrera: 1;02
aia (=argia) (O 1;05)	/g/ herskariaren agerrera: 1;02
pitxizo (=pitxitxo), zikia (=txikia) (O 2;01)	/tx/ afrikatuaren agerrera: 2;00
tata (=zapata) (E 1;03)	/p/ herskariaren agerrera: 1;03
rura (=dirua), pei (=Freda) (E 1;10)	/d/ herskariaren agerrera: 1;10
toti (=zortzi), tatia (=zaldia), tei (=sei) (E 2;00)	/z/, /tz/ txistukariena: 2;00
ata (=altxa) (E 1;06)	/tx/ afrikatuaren agerrera: 1;06

Bilakabide fonologikoak deitutakoak ere sarritan jaso ditut. Hauen artean bildutakoak gorago ikusi ditugun ezabaketak (hotsen bat isiltzea, alegia), ordezkatzek (hots baten bat beste batez ordezkatzek), metatesiak (hotsen hurrenkera aldatzek) eta eransketak (hotsen bat gehitzea edo itsastea) ditugu.

Ordezkatzeen artean nabaria da hasieran txistukariak ez dituztela ahoskatzen eta herskari ahoskabez (/t/, /k/) ordezkatzek dituztela. Antzeko zerbait gertatzen da /k/ herskariak ordezkatzek duten /j/ belarearekin eta /t/ zein /p/ herskariak ordezkatzek duten /f/ igurzkariekin. Oro har, beraz, zera esan daiteke: ahoskatzean lehenetakoak izan diren herskari ahostunek gaineko kontsonanteak ordezkatzeko joera dutela hurren ekoitzieta (ikus 3).

(3) aku (=Asun) (O 1;02); itati (= Irati) (O 1;01); kausi (= jausi) (O 2;05); kezartzeko (= jezartzeko) (O 2;05); gita (= giltza) (E 1;06); ata (= hartza) (E 1;06); tato (= salto) (E 1;07); pata (= pala) (E 1;06); tata (= zapata) (E 1;03), toto (= zortzi) (E 2;01); tatian (= zaldian) (E 2;07); pu (= fu) (E 1;10)

Edozelan ere, ez dira hauek ikusi ahal izan ditudan ordezkatzeko bakarrak. Bizkaitarrak, esaterako, aldi batean /z/ hotsaz ordezkatzeko dituen gainerako txistukariak (4) edo nafarrak /tx/ eta /x/ hotsez txistukariak (5).

- (4) apazin (= apatxin) (O 1;08); oizo (= Oitzo) (O 1;07); zozo (= txotxo) (O 1;07); ikuzi (= ikusi) (O 1;08)
- (5) atxi (= hautsi) (E 1;06); atxi (=utzi) (E 1;09); tox (= zatoz) (E 1;09); txet-xea (= zezena) (E 2;01)

Dardari anizkuna, /rr/ alegia, agertzen den azken hotsa izanik, ordezkatzeko joera ere nabarmena da haur biengan. Nolanahi ere, ez dirudi biek era berean gauzatzen dutenik ordezkatzeko. Batetik, nafarrak hasiera-hasieratik /gh/ hots guturala darabil /rr/ dardari anizkunaren ordezkatzeko. Geroago, /r/, /l/ eta /ll/ hotsak ere ikusi ditzakegu /rr/ hotsaren ordezkatzeko (6), guturalaren oguzketa moteltzen doan heinean. Bestetik, bizkaitarrak /r/ hotsa baino ez darabil /rr/ anizkuna ordezkatzeko (7).

- (6) aghe-aghe (= arre-arre) (E 1;03); kaghi (= ekarri) (E 1;10); ol (= hor) (E 1;10); olela (= horrela) (E 1;09); pullia (= ipurdia) (E 2;00); golli (= gorri) (E 2;00)
- (7) etori (= etorri) (O 1;07); bedara (= bedarra, “belarra” hitzaren mendebaleko aldaera) (O 2;00); txara (= txarra) (O 2,01)

Ordezkatzeko kontuarekin amaitu aurretik, haur nafarrak, besteak beste, /l/ eta /r/ fonemaz ordezkatu dituen hainbat adibide ere jaso ditut, esaterako /d/ herskari ahostunaren ordezkatzeko (8).

- (8) liua (= dirua) (E 1;08); lili (= nini) (E 1;09); lolea (= lorea) (E 2;06); rura (= dirua) (E 1;11)

Ordezkatzeko kontua laburbildurik honela jaso daitekeela begitantzen zait:

(9)

hots ordezkatzailak		hots ordezkatuak
Egoitz	Oitz	
/t/, /k/,	/t/, /k/,	txistukariak (/s, z, ts, tz, tx/)
/t/	/t/	urkariak(/r, l/)
/k/	/k/	/j/ belarea
/p/	/b/, /t/	/f/ igurzkaria
/x/, /tx/	/z/	txistukariak
/l/		/d/, /r/
/r/		/d/
/gh/, /r/, /l/, /ll/	/r/	/rr/

Bestalde, arakatuetak datuetan metatesi larregirik ikusi ez dudan arren, badira adibide batzuk (10). Hots-eransketaz beste horrenbeste esan dezaket (11). Edozelan ere, estrategia hauek silaba-egitura gauzatzeko arazoak dituztenean agertzen direla esan daiteke, horrela oraindik oguzi ezin ditzaketen zenbait silaba-egitura alboratu egiten baitituzte.

(10) tirge (= tigre) (O 3;00)

(11) apeta (= Petra) (O 1;03)

Hotsen kontuaz amaitu baino lehen, urruma eta zezelera-aroen osteko fonologiaren garapenaren hasieran gertatzen diren eta haur bi hauengan bildu ditudan hainbat ezaugarri ekarri nahi ditut hona. Lehenik, helduen eta haurren hizkerak ezberdintasun handi samarrak dituztela, haurrek hotsak soiltzeko eta ordezkatzeko joerak dituztelako. Bigarrenik, haurren arteko ekoizpenen artean antz handia igar daitekeela, ohikotzat jotzen diren ezberdintasunak ere badiren arren. Hirugarrenik, hitz bera ekoiztean haurrek aldaera ezberdinak gauza ditzaketela aldi berean zein aldi labur batean. Laugarrenik, apurka-apurka helduen eredurantz abiatzen direla.

Fonemen jabekuntzatik silaba-egituren jabekuntzara igarotzea lan honen metodologia-kontua baino ez da, haurrengan halakorik gertatzen ez baita. Esan nahi dudana zera da: hots jakin baten jabekuntza hots horrek silabaren edo hitzaren egituren hartzen duen egongunearen arabera gertatzen dela. Hori erakusteko, nahikoa da 3. eta 4. tauletako datuei begiratzea. Hirugarren taulan oinarrizko silaba-egituren garapena laburbiltzen ahalegindu naiz; laugarren taulan, aldiz, (C)VC silaba-egituraren garapen zehaztua.

3. taula: oinarrizko silaba-egituren garapena

	Egoitz nafarra	Oitz bizkaitarra
CV, V	1;03	1;01
CVC	1;04	1;04
CVCC	2;09	2;03
CCV	-	4;03

4. taula: (C)VC silaba-egituraren garapena

	Egoitz nafarra	Oitz bizkaitarra
(C)Vn	1;04	1;04
(C)Vr	2;00	1;10
(C)Vl	1;10	1;10
(C)Vz		1;05*, 2;01
(C)Vs	1;08	2;00
(C)Vx	1;10	-
(C)Vk	2;01	2;00
(C)Vt	2;03	2;01
(C)Vtz	2;01	2;02
(C)Vts		-
(C)Vtx	1;10	-

*Une honetan (C)Vz egitura “ez” eta “(b)apez” hitzetan baino ez du erabiltzen.

Nabarmena da kontsonante-hotsten jabekuntza-hurrenkera ez dela bera hasierako eta amaierako egonguneetan. Horrela, hasiera edo atake egongunean gertatzen den agerrera-hurrenkera, gorago ere aipatu dudan legez, sudurkariak, herskariak, urkariak eta txistukariak izan arren, amaierako edo kodako egongunean ikusi dudan hurrenkera bestelakoa da: sudurkariak (/n/), urkariak (/l/, /r/), txistukariak (/s/, /z/, /ts/, /tz/) eta herskari ahoskabeak (/t/, /k/). Nabaria da, beraz, herskari ahoskabeekin gertatu dena, hasierako egongunean lehenetakoak izan diren arren, amaierako egongunean azkenetakoak baitira.

Bestalde, argi dago amaierako edo kodako egongunean hots bera ahoskatzea beti geroago datorrela, hau da, lehenago hasierako egongunean erabili izan dutela. Nabarmena da /n/ sudurkaria, esaterako, bizkaitarra eta nafarra, hurrenez hurren eta nik arakatu ahal izan ditudan datuen arabera, (C)V egituran 1;02 eta 1;03 adinekin oguzten hasi diren arren (12), 1;05 eta 1,04 adina izan arte ezin izan dutela (C)VC egiturako amaierako egongunean ebaki (13). Kontu berbera ikus dezakegu /l/ albokoarekin edo /t/ eta /k/ herskariarekin, esaterako.

- (12) nana (= nanan) (O 1;02); nana (= nanan) (E 1;03)
 (13) amon (= emon, “eman” aditzaren mendebaleko aldaera) (O 1;05); nanan (E 1;04)

Aztertu ahal izan ditudan ekoizpenetan argi geratzen da, baita ere, hasieran haur biek (C)V silaba-egitura baino ez darabilte eta helduen hizkeran konplexuagoak diren egiturak haurrek soiltzeko joera dutela (14). Ezaugarri hau, lehenago hipotesietan jaso dudana legez, badirudi unibertsa dela jabe-kuntza-garapenean.

- (14) aputu (= apurtu) (O 1;05); agia (= argia) (E 1;05); ta-ta (= tas-tas) (O 1;01)

Morfologia kontuetan sarritan aipatu den legez (Ezeizabarrena 1996, López Oñat 1996, Barreña 1999, Serra, Serrat, Solé, Bel eta Aparici 2000), fonologian ere nabarmena da egitura berriren batez jabetzean mailakatzea geratzen dela. Horrela, (C)VC silaba-egitura barneratzean argi geratzen da mailakatze hau, (C)Vn agertzen denetik (C)Vk edo (C)Vt agertzen diren arte ia urte beteko aldia ikus baitezakegu haur biengan eta aldi horretan, apurka-apurka, amaierako egongunean kontsonanteak oguzten hasten dira. Horrez gain (C)VC egiturako aldaera bakoitzak ere hilabeteetako aldia behar du lehen agerreratik erabilera normaldua lortu arte (15). Esan nahi dudana zera da, egitura-aldaeraren baten lehenengo adibideak ekoizten dituztenetik, egitura-aldaera hori %80 edo 90 alditan egoki erabili arte, hilabete batzuk igaro behar direla. Horregatik ikus daitezke egitura erdietsi berria dutenean berau betetzen ez duten adibideak lehenengo ekoizpenekin batera eta hilabete batzuetara ere. Adibideetan, esaterako, (C)Vn egitura ez gauzatzearen ekoizpenak ikus daitezke, egitura horretaz, gorago ikusi dugun legez, hilabete batzuk lehenago jabetu diren arren.

- (15) ezi (= ezin) (O 1;05); ma (= eman) (E 1;05); pupa (= punba) (E 1;06)

Edozelan ere, badirudi une batetik aurrera haurrek egitura konplexuagoak ekoitzi behar dituztela badakitela eta hori egiten ahalegintzen direla, une horretan ezin duten arren. Honen adibide garbia haur biengan ikus dezakegu (C)Vr egitura ahoskatu ezinik dabilizatenean eta euskaraz balio fonologikorik ez duten hotsak ebakitzean (16), /h/ eta /gh/ hain zuzen. Haur bizkaitarraren sistema fonologikoan ez da /h/ hotsik, ezta bere inguruan ere ez. Halere hots hori bizpahiru aldiz ekoitzi du hitz honetan. Haur nafarraren sistema fonologikoan bada, ostera, /gh/ hotsa, une honetan bederen, bere inguruan halakorik ez den arren, noski.

- (16) ahgia (= argia) (O 1;05); aghdia (= ardia) (E 1;11)

Fenomeno honek egitura berri baten erabileraren atarian edo hasieran daudenean gertatzeaz gain, haurren egoera zein den argi uzten du, argi baitago haurra ahalegin baten aurrean ikusten ari garela.

Silaba-egituraren garapenean bada beste oinarrizko datu bat ere, (C)VCC silaba-egitura CCV silaba-egitura baino goizago agertzen baita haur biengan.

(C)VCC silaba-egituraz ekoizitako lehenengo adibideak 2;03 eta 2;09 adinarekin jaso ditut haur bizkaitarrarengan eta nafarrarengan, hurrenez hurren (17). CCV silaba-egituraz ekoizitako lehenak, ostera, haur bizkaitarraren ekoizian baino ez ditut ikusi, 4;03 adinarekin hain zuzen (18). Egitura bien arteko agerrera-aldea, beraz, handia dela esan daiteke, gutxienez bizkaitarraren datuetan. Bestalde, nafarrak, nik arakatu ahal izan ditudan datuetan, 3;00 adina izan arte, ez du CCV silaba-egiturarik erabili.

(17) tirist (= txirrist) (O 2;03); artz (=hartz) (O 2;03); lau beltz (= beltz) (E 2;09)

(18) preparatzeko, klaro, graboski (= ipuin bateko satorra) (O 4;03)

Argi dago haurrek lehenago ez dutela halako egiturarik erabili (19 eta 20) eta agerreren hasieran horrela eskatzen duten hitz guztietan ere beti ez dutela erabiltzen (21).

(19) tiris (= txirrist) (O 2;02)

(20) tena (= trena) (O 2;00, 3;03, 4;00); andak (= andreak), karo (= klaro) (O 4;00); tatorean (= traktorean) (E 2;09)

(21) norutz (= noruntz, “norantz” mendebalean) (O 2;03)

Ez dakit ikerketarik egin denik helduen ekoizpenetan egitura hauen sarritasuna neurtzeko, baina diakronia-kontuak alde batera utzita (Mitxelena 1977, Artiagoitia 1991), gaur egun haurrek euskaraz CCV egitura (C)VCC egitura baino sarriago entzungo duten susmoa daukat, edo horrela begitandu zait bideo-grabaketa hauek behin eta berriro entzuten eta ikusten jardun dudanean. Alabaina, haur biek ekoizti dute lehenago (C)VCC egitura.

Argi dago CCV egituretan bigarren kontsonanteak albokoa edo dardarkaria izan behar duela. Haurrek /rr/ hotsik ez dutela oso berandura arte oguzten ere argi ikusi dugu. Baina bai, ostera, /l/ hotsa, CV zein (C)VC egiturek eskaintzen dizkieten egonguneetan behintzat.

Kontu honetaz inork zalantzarik balu, jakin beza haurrek 2;00 adina dutenetik ia grabaketa guztietan ahalegintzen direla CCV egituraz eraikitako hitzak ahoskatzen (22). Halere, zailtasun handiak izan dituzte egitura honetaz

jabetzeko. Ostera, (C)VCC egituraz eraikitako hitzak lehenago oguzi dituzte, nahiz halakoak gehienetan, artikulua edo atzizkiak direla eta, (C)VCC egituraren bitartez ez entzun (23).

(22) tren, globo, brun-brun, plastilina, tripa, plastikoa, tranpa, andrea, eta abar

(23) hartza, beltza, txirristan, eta abar

Bestalde, silaba-egituraren garapenean (C)VCC egitura CCV baino lehenago garatzeak badu bere garrantzia hizkuntzarteko ikerketetan eta gurean ere. Kontua zera da, gaztelania ikasten ari diren haurrek oso gutxitan entzuten dituztela (C)VCC egiturako silabak eta, antza denez, lehenago jabetzen direla CCV egiturarekin (Hernández Pina 1984:180-184, Serra, Serrat, Solé, Bel eta Aparici 2000:186¹).

Gaztelanian CCV egituraren jabetzea dela eta, Hernández Pinak (1984) aztertu duen ume elebakarraren ekoizpenetan 3;00 adinaren aurretik datu badu ere, Boschek (1984) ehunka umeekin egindako zeharkako ikerketaren arabera 4;00 adinarekin haur erdiek oraindik ez dutela erdietsi ikusi da.

Hitzen egiturari buruz gauza gutxi esango dut, baina hipotesietan jasotutako dudak legez, azentudun silabaren aurreko silaba isiltzeko joera aurkitu dut arakatutako corpusean (ikus 23). Nolanahi ere, bildutako adibideak haur nafarrenak dira guztiak.

(23) loju (= erloju) (E 3;00); kaghi (= ekarri) (E 2;00); pullia (= ipurdia) (E 2;00)

4. ONDORIOAK

Ondorioak biltzen hasi baino lehen, zera berresan nahi dut: hemen adierazten dudak guztia haur biren datuetan oinarrituta dagoela eta, beraz, proposamentzat baino ezin daitekeela hartu. Ildo honetan askoz ere laginketa handiagoarekin egindako ikerketetan hemen proposatutakoaren baliagarritasuna arakatzea izan beharko litzateke hurrengo zeregina.

¹ Edozelan ere, liburu bereko 197. orrialdeko 4.8. taulan agertzen diren datuetan argi ikusi daiteke VVCC egitura CCVV egitura baino apur bat lehenago erabiltzen dutela proposatzen dutela, baina ez dago argi gaztelaniaz ala katalanez ari diren.

Lehenago ere aipatu dudan legez, fonologiaren jabe-kuntzan interesgarria begitantzen zait laburbilketa antzeko zerbait egitea haurren garapen orokorrari buruz. Nik honela laburbilduko nituzke fonologiaren jabe-kuntzaren zera nagusiak:

Lehenik, helduen eta haurren hizkerek ezberdintasun handi samarrak dituztela, haurrek hitzak soiltzeko eta hotsak ordezkatzeko edo ezabatzeko joerak erakusten dituztelako. Bigarrenik, haurren arteko ekoizpenen artean antz handia igar daitekeela, ohiko garapena duten haurren artean ezberdintasunak ere badirela nabaria den arren. Hirugarrenik, hitz bera ekoiztean aldaerak gauza ditzaketela aldi berean zein aldi labur batean, helduen eredura hurreratzen doazen bitartean. Laugarrenik, apurka-apurka helduen eredurantz abiatzen direla, hori baita helburua.

Normaltasunaren barruan fonologiaren jabe-kuntza erakusten duten haurren garapena aztertu duten ikerlariek haurren arteko ezberdintasunak ikusi dituzte, hala nola, Lamprecht-ek (2001) portugesearen fonologia arakatzean. Hortaz, guk hemen haur nafarraren eta bizkaitarraren artean ikusi ditugun ezberdintasunak ohikotzat jo ditzakegula begitantzen zait, funtsean bien garapena bera dela dirudi eta. Edozelan ere, ezberdintasunez jardun baino lehen, joera bateratuez arituko naiz.

Hotsen garapenaren arlora joez gero, haur biek erabili dituzte bokalak kontsonanteak baino goizago, multzo legez hartuta behintzat. Kontu hau, hipotesietan jaso dudan legez, itxarongarria da, horrela ikusi baita beste hizkuntzetan ere.

Bokalen artean ez dut mailakatzerik ikusi ahal izan haur bi hauen ekoiztietan. Honek ez du esan nahi ez dagoenik, datuak jasotzeko erabili dudan metodologiaren arabera halakorik ikustea zaila dela baino. Horretarako, hainbaten, astero edo egunero jaso beharko lirateke datuak.

Edozelan ere, badirudi haur bizkaitarrak /u/ bokala gainekoak baino beranduago oguzi duela, eta bokal hau atzekoa eta goikoa izatearren ezberdintzen da besteetatik.

Diptongoen artean ikusitakoak, bokalei zein irristarici –kontsonante-erdiei- buruz, ez du baliorik bokalei buruzko garapen mailakatua onartzeko, ezberdina izan baitaitezke bokalen garapena eta diptongoena.

Kontsonanteen agerrera-hurrenkerak ozentasunarekin zerikusia duela begitantzen zait. Lehenago esan dudan legez, ezberdina da kontsonanteen agerrera-hurrenkera kontsonantea silaba-egituraren hasieran edo amaieran bada.

Hasierako egongunean, multzo legez hartuta behintzat, honelakoa izan da agerrera-hurrenkera: sudurkariak, herskariak, urkariak, txistukariak eta dardari anizkuna. Amaierako edo kodako egongunean, ostera, /n/ sudurkaria eta /r/ eta /l/ urkariak izan dira lehenak agertzen. Ondoren txistukariak eta herskari ahoskabeak. Nire ustez nabaria da amaierako egongunean ozentasunaren arabera gertatu dela oguzketa, /n/, /r/ eta /l/ kontsonanteak ozenak baitira eta hainbat hizkuntzatan silabaren muina osa baitezakete.

Gainera, amaierako egongunean ikusi dudana agerrera-hurrenkera bat dator euskarazko (C)VCC silaba-egitura gerta daitekeen bokal edo muinosteko hurrenkerarekin.

Gauza jakina da hizkuntzetan ez dela edozein kontsonante-elkarketa gertatzen eta euskarak ere badituela bere arauak kontu horretan. Horrela, muinaren ostean, hots, silabako muina den bokalaren ostean kontsonante bi agertzean gerta daitezkeen elkarketak itxiak dira euskaraz: 1. ozena (/n/, /l/, /r/) eta txistukaria (/tz/, /ts/, /tx/, /z/, ...) (*beltz, antz, hartz*); 2. ozena eta herskari ahoskabea (/t/, /k/) (*bart, zirt zart, txinpart*); 3. txistukaria eta herskari ahoskabea (*laprast, txirrist, institutu*). Hurrenkera, beraz, ozentasunaren arabera gertatzen da egitura honetan. Zenbat eta ozenagoa izan, hainbat eta gertuago muinetik; zenbat eta trabakariago (nolabait, kontsonanteago), hainbat urrunago egon daiteke muinetik.

Ez da halabeharra, nire ustez behintzat, haurrek amaierako egongunean kontsonanteak ozentasunaren arabera erabiltzea.

Edozelan ere, ozentasunaren kontu honek ez du azaltzen (C)VCC silaba-egitura CCV silaba-egitura baino goizago garatzea. Hots, zergatik darabiltzate aztertutako haur biek (C)VCC silaba-egitura CCV silaba-egitura baino lehenago?

Kontu hau hemen ebatzea zaila begitantzen zait. Nolanahi ere hipotesi bat aurkezten ausartuko naiz. Nire ustez fenomeno honetan oinarritzakoa da euskarak hitzen amaieretan biltzen duen morfologia-zama eta, beraz, hitz-amaierak egoki ebakitzeak eta ulertzeak dakarrena. Horretaz oharturik, haurrek hitz-amaierak kontu handiagorekin ahoskatzeko joera bereganatzen dute eta estrategia honek (C)VCC silaba-egitura goizago ekoiztera bultzatzen ditu.

Zeregin honetan haurren inguruko helduen eragina ere nabaria da (Barreña 2001). Haurrek ez ezik, helduek ere argi dute euskaraz hitz-amaierak argi ulertzea eta ahoskatzea garrantzitsua dela. Horregatik, besteak beste, helduak haurrekin (C)VCC silaba-egituradun hitzak ebakitzen jolasten dira, nik aztertu ditudan grabaketetan ikus daitekeen legez. Horretarako aukerak ugariak dira: hitz-jokoak, haur-kantak, onomatopieiak eta abar. Edozelan ere, argi

utzi nahi dut ez dudala helduen eragina aldarrikatu nahi fenomeno honen eragiletzat, islatzat baino.

Bestalde, hotsen ahoskatzera itzuliz, ez dut uste ahoskunearen arabera itxaron izan dudan hurrenkerarik gertatu denik. Hipotesietan jaso dudanez, aurretik atzerantzko bereganatze mailakatu itxaroten izan dut ahoskunearen arabera kontsonanteen artean. Horrek, esaterako, zera esan nahi du: herskariaren artean ezpainkariak izan beharko lirakeela lehenak agertzen, ondoren horzkariak eta, azkenik, belareak. Bada datuei begiratzen badiegu, nabaria da /d/ horzkaria dela haur biengan agertzen den azkeneko herskari ahostuna. Gainera haur biengan agertzen da beste herskari guztiak baino bost edo sei hilabete beluago. Gaineko herskariak, /t/ horzkaria barne, batera samar agertu dira haur bien ekoizietan.

Zailtasunen kontua dela eta argi dago /rr/ hotsen ebakitzea eta CCV silaba-egituraren ekoiztea direla haur biengan beluen ikusi ditugunak. Gainera datuek erakusten diguten arabera, badirudi 4 urte bete eta gero jabetzen direla egitura horietaz. Beste hots batzuen ahoskatzea, hala nola /ll/, /tt/ edo /tz/ kontsonanteena ez da izan arazotsua haurrentzat, euren inguruan ere hots horiek normal eta egoki erabiltzen dira eta.

Haurrengan bildu ditudan ezberdintasunen artean badira bi entzuten duten hizkeragatik izan daitezkeenak. Horrela iruditzen zait niri behintzat. Batetik, txistukariaren artean ikusi dugun jabekuntza dugu. Haur nafarrak 6 txistukariak bereiztea eta bereganatzea lortu du. Bizkaitarrak, ostera, 4 baino ez (/s/, /x/, /tz/, /tx/). Jakina da mendebaleko hizkeretan horrelakoa dela txistukariaren multzoa. Bizkaitarrak, beraz, bere inguruko sistema bereganatu du, nafarrak bere inguruko sistemaz gauza bera egin duen legez.

Bestetik, bigarrena hots sabaikariaren agerrera-uneari dagokio. Argi dago haur biek darabiltzatela sabaikariak egoki 3 urte egin baino lehen. Alabaina, nabaria da, baita ere, haur nafarrak lehenago darabiltzala sabaikariak bizkaitarrak baino (ikus 2. taula). Honetan ere, nire ustez, inguruaren eragina igar daiteke, argi baitago haur nafarraren inguruko helduek euren hizkeran bustidura ohiko bihurtzen dutela haurrarekin hitz egitean (Zubiri 1995b, Barreña 2001). Haur nafarrak sarritasun handiagoaz entzuten duena goizago erabiltzeko joera izatea normaltzat jo daitekeela begitantzen zait. Gainera, horretarako bultzada berezia izatea ere itxarongarria da, helduen hizkeran motibazio berezia ikusten baitu berari zuzentzen zaizkionean.

Beste ezberdintasunak ordezkatzetan bildu ditut. Batetik, haur bizkaitarrak txistukariak ahoskatzen hasten denean /z/ bizkar-hobietako igurzkariak gaineko txistukariak ordezkatzeko joera dauka. Bestetik, haur nafarrak /gh/ guturalaz dardari anizkuna ordezkatzeko joera aipa daiteke.

Haur bizkaitarraren garapena txistukarien ahoskatzean hiru edo lau alditan laburbil daiteke. Hasieran, 1;05 adina duen arte ez du inolako txistukaririk. Geroago, 1;05etik 2;00ra, gutxi gorabehera, /z/ bizkar hobietakoa baino ez du oguzten, sarritan beste txistukarien ordeztan, gainera. Ondoren, 2;00tik aurrera, bere hizkerako txistukariak agertzen hasten dira apurka-apurka, /z/ bizkar hobietakoa desagertzen doalarik. Amaieran, sistema egonkorra ikus dezakegu. Zein izango ote da bere joeraren zergatia? Zergatik erabili du bere inguruan balio fonologikorik ez duen hotsa? Seguruenik helduen eredura hurreratzen egin duen urratsaren ondorioa baino ez da izan. Horrela egin zaio berari errazago. Gainera oso arin egokitu da eredura.

Haur nafarrak txistukariak ahoskatzen hasi denean, aldiz, /x/ eta /tx/ sabaikariak erabili ditu. Joera honek zerikusia izango du gorago aipatu dudana helduen hizkera bustiarekin.

Haur nafarrak dardari anizkunaren ordeztan erabili duen /gh/ guturalaren zergatia, antzeko arazoietan dagoela begitnantzen zait. Zailtasunak ditu hotsa ebakitzeko eta, orduan, berarentzat hurbilen geratzen zaion hotsa hartzen du abiapuntutzat. Geroago, bizkaitarrak txistukariek legez, helduen eredua erdietsiko du.

Edozelan ere, nabarmena da haur bien sistema fonologikoan /z/ bizkar hobietakoak zein /gh/ guturalak balio fonologikoa dutela aldi batean.

Amaitzeko, beste ezberdintasun bat ere aipatu nahi dut. Oro har, haur bizkaitarra goizago moldatzen da helduen eredura nafarra baino. Esan nahi dudana zera da, askoz ere nabariagoak direla ezabapenak eta bilakabide fonologikoak haur nafarrarengan bizkaitarrarengan baino. Eta jokabide hau nabarmen-nabarmena da haur biek 3 urte dituztenean ere, hots, nik aztertu ditudan nafarraren grabaketak amaitzen direnean. Honekin zera esan nahi dut, haur batzuk beste batzuk baino astiroago moldatzea helduen eredura ohikotzat jo dezakegula.

5. LABURBILKETA

Ondorioak laburbiltzen hasi aurretik, kontuan izan behar dugu hemen esan den guztia senitartean euskara huts-hutsean garatu duten haur elebakarrik ekoitzian oinarrituta dagoela. Horrela, bada, ondorioak honela laburbil daitezkeela uste dut: fonologiaren garapena mailakatua dela, hotsen zein silaba-egituren arloan; garapena, oro har behintzat, progresiboa dela, gero eta egi-

tura konplexuagoak ekoizten dituztelako; kontsonanteen garapena, hotsen amaierako egongunea kontuan hartuz bederen, ozentasunaren arabera gertatzen dela; fonologiaren garapenean bilakabide fonologikoak (ezabaketak, ordezkatzak eta abar) ugariak eta oso antzekoak direla haur biengan; haur biek helduen eredia erdietsi dutela, entzuten dituzten hizkerak zertxobait ezberdinak diren arren; eta, azkenik, helduen eredia hurreratzen biek zailtasun handi berak izan dituztela (/rr/ dardari anizkuna eta CCV silaba-egitura), gaineko zailtasun txikiak erraz eta arin ebatzi dituztelarik. Azkeneko kontu honek badu bere garrantzia, haur hauek euren inguruko sistema fonologikoa bereganatzean ez baitute zailtasun berezirik erakutsi /tz/, /ll/ edo /tt/ hotsez jabetzean, etxean euskararik ikasten ez duten beste haur batzuk, antza denez, izaten dituzten legez.

AIPAMENAK

ARTIAGOTIA X. 1991. "Sobre la estructura de la sílaba en (proto)vasco y algunos fenómenos conexos". *ASJU XXIV*-3.

BARREÑA, A. 1999. "Ausencia de reglas gramaticales en las primeras producciones lingüísticas de niños vascos". *Infancia y Aprendizaje* 86, 3-29.

—2001. "Helduen estrategiak euskara haurrei erakustean". *Jakingarriak* 45, 32-39.

BOSCH, L. 1984. "El desarrollo fonológico infantil: una prueba para su evaluación", M. Siguán (ed.) *Estudios sobre psicología del lenguaje infantil*. Madrid: Pirámide, 33-58.

CARREIRA, M. 1991. "The Acquisition of Spanish Syllable Structure", D. Wanner eta d. Kibber (arg.) *New Analyses in Romance Linguistics*. Amsterdam: Benjamins, 3-18.

ETXEBARRIA, M. 1999. "Bilingüismo y adquisición temprana del lenguaje: procesos fonológicos en el contacto vasco/español". Fernández, J., Fernández, C. Marcos, M., Prieto, E. eta Santos, L. (arg) *Lingüística para el siglo XXI*. Salamanca: Ediciones Universidad de Salamanca, 549-560.

EZEIZABARRENA, M. J. 1996. *Adquisición de la morfología verbal en euskera y castellano por niños bilingües*. Bilbo: Euskal herriko Unibertsitatea

FEE, E. J. 1995. "Segments and syllables in early acquisition". Archibald, J. (arg.), *Phonological acquisition and phonological theory*, Hilldale: LEA.

HERNÁNDEZ PINA, F. 1984. *Teorías psicosociolingüísticas y su aplicación a la adquisición del español como lengua materna*. Madrid: Siglo XXI.

IDIAZABAL, I. 1991. "Euskara eta gaztelania ikasten ari diren haurren hizkuntza bilketa eta azterketaren aurkezpena". Idiazabal, I. (arg) *Adquisición del lenguaje en niños bilingües y monolingües – Hizkuntza jakokuntza haur elebidun eta elebakarretan*. Donostia: Euskal Herriko Unibertsitatea, 129-136.

INGRAM, D. 1974. "Phonological rules in young children". *Journal of Child Language* 1, 49-64.

INGRAM, D. 1981. *Procedures for the Phonological Analysis of Children's Language*. Baltimore: University Park Press.

JAKOBSON, R. 1968. *Child language, aphasia, and phonological universals*. The Hague: Mouton [lehen argitarapena 1941ean].

LAFITTE, P. 1979. *Grammaire Basque (Navarro-labourdin littéraire)*. Donostia: Elkar.

LAMPRECHT, R. R. 2001. "Constraint Ranking in Development Phonological Disorders". Almgren, M., Barreña, A., Ezeizabarrena, M. J., Idiazabal, I. eta MacWhinney, B. (arg) *Research on Child language Acquisition*. Somerville: Cascadilla Press, 655-665.

LLEÓ, C. 1986. "The Evolution of Syllabic Structure as an Example of the Interaction Between Universal Restrictions and Individual Strategies in First Language Acquisition", M. Brame, H. Contreras eta J. Newmeyer (arg.) *A festschrift for Sol Saporta*. Seattle, Noit Amnofer Publ. Co., 275-288.

—1997. *La adquisición de la fonología de la primera lengua y de las lenguas extranjeras*. Madrid: Visor.

LÓPEZ ORNAT, S. 1996. "Mecanismos de adquisición morfosintáctico". Pérez Pereira, M. (arg) *Estudios sobre la adquisición del castellano, catalán, eusquera y gallego*. Santiago de Compostela: Universidade de Santiago de Compostela, 175-193.

MAHLAU, A. 1994. "El proyecto BUSDE. Corpus y metodología". Meisel, J. (arg.): *La adquisición del vasco y del castellano en niños bilingües*. Frankfurt: Vervuert, 21-34.

MARISCAL, S. 1997. *El proceso de gramaticalización de las categorías nominales en español*. Universidad Autónoma de Madrid: Tesis Doctoral.

MITXELENA, L. 1977. *Fonética Histórica Vasca*. Donostia: ASJUren gehigarria.

SERRA, M., SERRAT, E., SOLÉ, R. BEL, A. eta APARICI, M. 2000. *La adquisición del lenguaje*. Barcelona: Ariel.

TXILLARDEGI 1980. *Euskal Fonologia*, Donostia, Ediciones Vascas.

ZUBIRI, J. J. 1995. "Euskarazko haur-hizkeraren berezitasunak". *Huarte de San Juan, 1*, 175-203.

—1995b. "Euskarazko haur-hizkuntzaren berezitasunak". *Huarte de San Juan, 1*, 175-203.

ANTIPASIBOAREN LEKUA ORAIKO ZUBERERAN

B. Coyos

I. SARRERA

Ikerlan honetan erakutsi nahi dut pixka bat zein diren *ibilbide diatetiko-ak* oraiko zubereran, bereziki pasibo eta antipasiboak deituko ditudanak, eta batez ere nola erabiltzen diren testu ahozkoetan, bai eta ere idazkietan. Prefosta emaitzen ekarpenak zuhurki neurtuak izan behar dira zeren testu hanitx ez baitut ikertu ; bainan halerik ere uste dut interesgarriak eta baliosak direla. Lehen zatian gramatikazko xehetasun batzuk aurkeztuko ditut laburzki: zer den ibilbide diatetiko bat nire ikusmoldearen arabera, zertako ibilbide pasibo eta antipasiboak onartzen ahal diren euskararen deskribapen batean, etab.

Bere *Grammaire basque* delakoaren 486. lerroaldean hauxe da Lafitte kalonjeak erraten duena egitura antipasiboei buruz: «Dans la langue actuelle, le participe passé employé adjectivement a d'ordinaire un sens intransitif ou passif... Dans les textes anciens, le sens actif n'était pas rare... Actuellement, il reste des vestiges de cet état de choses », (226. orr.). Ondotik antipasiboaren adibide batzuk ematen ditu. Urrunago, 342. orrialdetik 344. orrialdera, erraten du: «Il n'y a pas plus en basque qu'en français de conjugaison passive particulière». Hori erran ondoan, Lafittek *maitte* aditzaren egitura pasiboen taula oso bat ematen du, *maitatua izan* deitua.

Ikus dezagun bi egituren egoera zubereran.

II. GRAMATIKAZKO XEHETASUN BATZUK

II. 1. *-ik* eta *-a* atzizkiei buruz :

Laburzki erranen dugu **izenondoak** kalitate bat adierazten duela, eta alderantziz, aditzak, eta beraz **partizipioak** ere bai, jokabide bat adierazten duela. Zubereran partizipioak *-ik* atzizkia har dezake, aspektu marka bat da. Izenondoak, aldiz, *-a* atzizkia hartzen du. *-a* atzizkia partizipioari lotua onartua da baina ez da enplegatzen. Ikertu ditudan idazleen testuetan Davant-ek baizik ez du erabiltzen *-a* atzizkia partizipioarekin (*Xiberoko makia trajeria*, 2001). So egin diezaiegun II.3 zerrendako bi adibideei :

(1b') ...*ardiak artzainek bazter utziak* (Davant 40. orr.).

(2a^m) ...*gure lana da hasia* (Davant 86. orr.).

Ikertu ditudan ahozko testuetan hori ez da sekula gertatzen. Izen sintagman *-ik* atzizkia erabilia da ezezko perpausetan eta beste perpaus batzuetan, testuinguru horretan **partitiboa** deitzen da. *-ik* atzizkia erabilia da aditzarekin ere, baina perfektuaren adierarekin eta beti aspektu burutuari dagokion atzizkiaren ondoan, **perfektua** deitzen dugu.

Erran nahi du egitura pasibo eta antipasiboetan bi aspektu atzizki ditugula perfektuaren marka duten partizipioekin, (1a) adibidean bezala :

(1a) *Apaltürrik bere beläünetan...* (Casenave- Harigile, *Basabürüko ipuinak*, 16. orr.).

Apal-tü (aspektu burutua) gehi *-rik* (aspektu perfektua). Hori ontsa eza-guna da.

Beraz, erraten ahal dugu: «partizipioa, aditz adjetibo bat besterik ez da», Euskaltzaindiaren *Euskal gramatika* bezala (*Lehen urratsak I*, 164. orr.). Baina ez dugu ahantzi behar izenondoaren eta partizipioaren semantikazko ekarpenak berak ez direla, eta atzizkien tankera desberdina dela zubereran eta besteetan, *-ik* alde batetik, *-a* bestean.

II. 2. Egitura pasibo eta antipasiborik badea? – Ibilbide diatetikoak

Orai ere ez naiz luze izanen. Hasteko aipa dezagun Euskaltzaindiaren *Euskal gramatika Lehen urratsak-I* (222. orr.): «Hizkuntza aunitzen sintaxiaren ardatza nominatibo-akusatibo sisteman oinarritzen da... esan daiteke euskararen sistemaren ardatza absolutu-ergatiboa dela... eta zenbait fenomeno,

hala nola aktiboa eta pasiboa kontrajartzea, sistema batean gertatuko dela, baina ez bestean. Euskaraz ez dugu *diatesi*-rik (erderetako *pasiboa*)». Nik ez nuen hori erranen. Euskararen sistemaren ardatza absolutu-ergatiboa balinbada, egitura antipasiboa ediren dezakegu. Eta hori da gertatzen dena ikusiko dugun bezala. Horrek ez du erran nahi egiazko egitura pasiboak direla, grekeran bezala adibidez, baina egitura pasibo eta antipasiboei darraizkien ibilbideak badirela aztertzen dudan euskalkian, zubereran. Eta hori ez da harrigarria. Euskalarietarik batzuek hori aipatu eta deskribitu dute; Georges Rebuschi-k (1979) bereziki bizkaiera ikertu zuenean adibide antipasibo batzuek eman zituen eta haintzat hartu zituen.

Erran behar dut nire gaurko gogoia ez dela euskararen sintaxiaren zehaztatzea edo ikusmolde tipologiko bat ematea, baina guti gora behera ikustea zein eta zenbat diren diatesi ibilbideak oraiko zubereran, eta zein diren haien egitura motak eta haien maiztasuna. *Ibilbide diatetiko* erran-molde hori Bernard Pottier-i jesaten diot, frantsesez «parcours diathétique» erraten baitu (ikus, *Sémantique générale*, 134tik-153ra). **Jasale** eta **egile** batekilanko jokabide bat har dezagun: jokabide hori jasalearenganik egilearenganat ikuskatzen ahal da, orduan ibilbide pasiboa deituko dut; edo egilearenganik jasalearenganakoia izan daiteke, eta hau ibilbide aktiboa edo antipasiboa deituko dut; jasalearenganikakoa ere izan daiteke egilea aipatu gabe, edo egilearenganikakoa jasalea aipatu gabe. Horiek dira ibilbide diatetikoak deitzen direnak. Egitura horiek aditz iragankor baten beharra badute, baina ibilbide pasibo eta antipasiboekin aditza iragangaitz bilakatzen da. II.1 zatian erran dudana bezala, aspektu perfektuaren atzizkia aspektu burutuarekilanko aditzari lotzen zaio.

Artikulu honetan ez ditut aipatuko ibilbide pasibo eta antipasiboak baizik. *Le parler basque souletin des Arbailles* liburuan ibilbide diatetiko desberdinak oraiko zubereran ikertu nituen, ikus 9. atala.

Euskaltzaindiaren *Euskal gramatika*n hau ere irakurtzen ahal dugu: «euskal literaturan instrumentala erabiliaz ere ageri dela *egilea* behin baino sarriagotan. (...) *Pseudopasibo* dei genitzake», 227. orr. Ikertu ditudan testuetan oharatu dut **ergatibo kasua** instrumentala baino maizago erabiltzen dela :

(1b^o) *Sartzen zen harro harroa... ülünak atzamanik* (Quéheille 59. orr.)

Azpimarratu nahi dut ere aztertu ditudan zuberotar testu idatzi edo ahozkoak itzulpenak ez direla. Behin *-ganik* kasua ere ediren dut egilea erakusteko; beste aldi batez, *-ri esker* posposizioa :

(2b^o) *...nola ohoratürrik izan den Uthurburu Barkoxtarren ganik* (Quéheille 95. orr.).

(2b^m) *Denen lan honari esker libratürrik da Pettarra* (Davant 126. orr.).

Subjektu eta objektu gramatikazko nozioak ez ditugu hemen erabiliko, ez baita gure kezka. Egile eta jasale semantikazko nozio orokorrak erabiliko ditugu xehetasunetan sartu gabe.

Xehetasun orokor horiekin bukatzeko erran behar dut *izan* kopulan tem-pusa, modua, pertsona (lehen pertsona adibide honetan : (2 a') *Salaturik izan beniz...* (Davant 112. orr.) eta noiztenka forma alokutiboa ere agertzen direla. Casenave-Harigilek *egon* aditza ere erabiltzen du *izan* kopularen orde baina *izan* kopula baino gutiago. Ikus 2 a: *elürra zapatürrik zegon* (Casenave 46. orr.)¹.

II. 3. Egitura mota desberdinak

So egin diezaiegun orai edireiten ahal diren egitura mota desberdinei. Egitura desberdinak irizpide sinpleen arabera sailkatuko ditugu, egitura akti-boak bazterrean utziko ditugula jakinez. Alde batetik izen sintagmaren bar-nean diren partizipioak, erran nahi du kopularik gabe diren aditz forma per-fektuak ikusiko ditugu, eta bestalde kopularekin erabiltzen diren aditz forma perfektuak. Begi emanen dugu ber denboran egilea eta / edo jasalea izen edo izenordain batez markatuak direneta.

So egin diezaiegun orai adibideei.

1. Pasiboa kopula gabe :

Egilerik gabe :

(1a) *Apaltürrik bere belaiñetan...* (Casenave 16. orr.)

(1a') *Gaztaina zonbaitekin goizean goizik bildürrik* (Quéheille 7. orr.)

Egilearekin :

(1b) *...gütün bat semeak igorrik* (Quéheille 73. orr.)

(1b') *...ardiak artzainek bazter utziak* (Davant 40. orr.)

(1b^m) *Sartzen zen harro harroa... ülünak atzamanik* (Quéheille 59. orr.)

(1b^m) *...mündü oroz abatzerik* (Davant 30. orr.)

¹ Xehetasun gehiago ukaiteko egitura pasibo eta antipasiboei buruz, ikus *Parcours de type passif et antipassif...* nire artikulua.

2. Pasiboa izan kopularekin :

Egilerik gabe :

- (2a) *eliürra zapatürik zegon* (Casenave 46. orr.)
- (2a') *Salaturik izan beniz...* (Davant 112. orr.)
- (2a'') *Barkoxeko herriari üztartürik da Etxahun* (Quéheille 3. orr.)
- (2a''') *...gure lana da hasia* (Davant 86. orr.)

Egilearekin :

- (2b) *Ihiztekako errabiak hartürik zen* (Casenave 59. orr.)
- (2b') *...amak... arrenkürak janik direla* (Casenave 60. orr.)
- (2b'') *...nola ohoratürik izan den Uthurburu Barkoxtarren ganik*
(Quéheille 95. orr.)
- (2b''') *Denen lan honari esker libratürik da Pettarra* (Davant 126. orr.)

3. Antipasiboa kopula gabe :

Jasalerik gabe:

- (3a) *...amiratürik... entzuten züan historio zonbait* (Casenave 46. orr.)

Jasalearekin:

- (3b) *Zer nahi sofritürik heltzen niz Xiberoala* (Quéheille 65. orr.)
- (3b') *Zer nahi ikusirik... ezkapi niz* (Quéheille 69. orr.)

4. Antipasiboa izan kopularekin :

Jasalerik gabe:

- (4) *Mezperan ontsa janik beit ginen...* (1. eleketan)

Jasalearekin: ez

Jasalearekilanko antipasiboaren adibiderik ez dut ediren. Hori ez da hain estonagarri. Antipasiboaren ekarpen semantikoa egilearen kalifikazioa dela azpimarratu nahi nuke. Egilearen kalifikazio hori aditz perfektuak adierazten duen jokabidearen bidez egiten da. Orduan, jasalearen aipatzea ez da beharrezkoa. Eta gainera egitura antipasiboak bakan dira gibelesko bi tauletan ikusten dugun bezala.

II. 4. Antipasiboak ez diren bi egitura

II.4.1. *Ari izan* egitura mota

Zati horren bururatzeko, bi egitura, nire ustez antipasiboak ez direnak, aurkeztu nahi nituzke. Lehena da *ari izan* forma konposatuarekilanko egitura. Hizkuntzalari batzuek antipasibotzat hartu dute, Jacques Bouille-k adibidez. Forma horiek «formes antipassives de l'inaccompli» deitzen ditu (1987, 109-110. orr.). So egin diezaiogun adibide honi:

(5a) *Gehienak ari ziren etxekoan lagüntzen* (bakarrizketa).

Egilea_{ABS}+Iragankorra_{GEN}.

Egia da antipasiboaren itxura duela. (5a) adibidean aditz iragankorra, hemen *lagüntü*, aditz iragangaitz bilakatzen da *izan* aditz laguntzailearekin (*ziren*). Egilea aipatzen duen izenak, hemen *gehien*, kasu absolutiboa (ABS Ø) badu, eta ez ergatiboa (ERG -*k*) ibilbide aktiboan bezala (5b)². Konpara:

(5b) *Gehienek etxekoak lagüntzen zütüen*.

Egilea_{ERG}+ Iragankorra_{ABS}.

Bainan (5a) adibidean lehen desberdintasuna antipasiboari konparatuz da iragankorra aipatzen duen izenak, hemen *etxeko*, kasu genitiboa (-*en*) baduela eta ez absolutiboa (Ø). Erran behar da bestalde zubererari *ari izan* egitura hori biziki erabilia dela, antipasiboa ez bezala, *ari izan* egituraren ekarpen nagusia aspektu ez - bururatu mugagabea delakotz. *Ari izan* egituraren bidez aspektu balio bat ematen da, hain xuxen burutugabe mugagabea. Aditzak aipatzen duen prozesua ez da errepikakorra. *Ari izan* formarekin prozesua kalifikatzen da, eta ez egilea edo jasalea ibilbide antipasibo edo pasiboan bezala.

Aspektua ez da bat ere antipasiboaren ekarpen nagusia. Gorago erran dugun bezala antipasiboaren ekarpen nagusia aditzak aipatzen duen jokabide baten bidez egilearen kalifikatzea da. Ez gaude aspektu alorrean.

II.4.2. Beste antipasibo egitura mota bat?

Lafitteren sortzearen mendemugaren karia honetan *Antipasiboak euskar*an delako bere txostenean, Rudolf P. G. de Rijk-ek beste egitura antipasibo

² Euskaltzaindiaren *Euskal gramatika Lehen urratsak-II* liburuan Iparraldeko egitura erabili hori ez da aipatua (437-440. orr.)

bat aztertu du. Aurkeztuko dut laburzki zertako aipatzen duen egitura nire ustez ez den antipasibo egitura bat, eta zertako antipasibo ibilbiderik ez den, ematen dituen adibideetan. Oraiko zubereran ematen dituen adibide zenbait edireiten ditugu, eta egitura horietan sartzan diren holako aditzak *verbes à marquage casuel variable* deitzen ditut. Har dezagun beraz zubererazko adibide bat *orit* aditzarekin (ikus Coyos, 1999, 347-350 orr.):

(6a) *Aitak orit dü historia*. Egilea_{ERG}+Iragankorra_{ABS}.

(6b) *Aita orit da historiaz*. Egilea_{ABS}+Iragankorra_{INST}.

Bi adibideak konparatuz ohartzen gara aditz laguntzailea kanbiatua dela. Bigarrenean (6b) *izan* laguntzailea da eta egilea aipatzen duen izenak, hemen *aita*, kasu absolutiboa (Ø) badu, pasibo edo antipasibo egituretan bezala, eta ez ergatiboa (-*k*). Baina aspektu marka ez da bat ere kanbiatua, bi aspektu atzizki ez ditugu, eta bereziki *-ik* atzizkia ez da agertzen (ikus II.1) egitura antipasiboan bezala.

Horrek erran nahi du bi adibideetan ibilbide diatetiko bera dela. (6a) eta (6b) adibideetan ibilbide diatetikoa aktiboa da, eta bigarrenean egitura antipasiborik ez da, de Rijk-ek kontrakoa baieztatzen badu ere. (6b) adibidean ere bai ibilbidea aktiboa da. Haatik, horrek ez du erran nahi bi adibideen ekarpen semantikoa bera dela; bigarrenean egilea, *aita*, lehenean baino jasaleago da, haren oroitzea ez da hain nahizkoa.

III. EGITURA PASIBOAK ETA ANTIPASIBOAK AHOZKO TESTU BATZUETAN

Egitura bakoitzaren maiztasuna neurtu nahi nuen. Hortakoz adizki jokatuak eta adizki ez jokatuak zenbatu behar nituen testu desberdinetan. Grabatu nituen ahozko testuetan lan aspergarri hori 11 minutuko bakarriketa batean eta bi 30 minutuko eleketatan bururatu dut. Sarreran erran dudan bezala emaitzak erakuspenak dira eta hori gogoan begiratu behar dugu. Bakarriketan mintzalaria Mendi herriko 75 urteko emazte bat da. Bi eleketetan, ber emaztea eta haren 77 urteko anaia ditugu.

Lehen taula har dezagun. Bi kondu mota desberdin egin ditut :

- Lehenik **adizki jokatuak** (*izan* kopula barne eta bai eta *ari izan* egitura ere) eta horien artean 2 izen edo 2 izenorde edo izen bat eta izenorde bat dituzten aditz iragankorrak zenbatu ditut. Ehunekoek erakusten dute nola adizki jokatu horiek bakan diren. Orotara, 850 aditzetatik 47 aditz iragankor (bi izen edo izenorderekin) ediren ditut, % 5,5.

- Bigarrenik **ibilbide pasibo eta antipasiboak** zenbatu ditut, ondotik bigarren taulan ikusiko dugun bezala. Ohartzen dugu, halaber, bakan direla, eta ibilbide antipasiboa ibilbide pasiboa baino eskasago dela. Lehen ibilbide hori behin baizik ez dut ediren, (4) adibidean: *Mezperan ontsa janik beit ginen ...* 31 pasiboetarik 11k adizki jokatua dute (*izan* kopula), eta denak egilerik gabe dira. Hainbestekoa ez balinbada ere, pasiboaren maiztasuna ohargarria da.
- Hots, ibilbide antipasiboa kasik falta da. 850 aditzetatik bat baizik ez da, eta *izan* kopula gabe ibilbide antipasiborik ez da batere agertzen; hori oren bat eta 11 minutuko solasaldi batean.

Beraz ibilbide pasibo eta antipasibo diatetikoan leku ttipia azpimarratu behar dugu, euskalki honetan bederen, hemengo emaitzak orotarazten balinbaditugu. Txosten honen ondoko zatian ikusiko dugu zuberotar idazkietan emaitzak guti gora behera berak direla. Ibilbide diatetiko horien maiztasuna apala da.

Zuberoko hiztunentzat ibilbide horiek karioegi ote dira ibilbide aktiboaren eretzean? Aditz jokatuaren aspektu sistemaren erabilera egile eta jasalearen hierarkiaren azpimarratzea baino garrantzitsuago ote da? Oroitarazten dut ibilbide pasibo eta antipasiboen lehen balioa egilearen ala jasalearen nolakotasunaren zehaztatzea dela jokabide baten bidez. Gertakizunaren iraupena, burutzea, errepikapena, hots aspektua, ibilbide aktiboaren bidez ematen ahal da. Ez da hori ibilbide pasibo eta antipasiboen berezitasuna. Ikusi dugu nola ibilbide horien egituraren gutitan agertzen diren bi izen edo izen eta izenorde sintagmak. Ibilbide pasibo eta antipasibo diatetikoaren berezitasuna dela erran daiteke.

1. TAULA

<i>Perpaua motak</i>		Bakarrizketan	1. eleketan	2. eleketan	Kopurua	%
Adizki jokatuak (izan kopula barne)		119	373	358	850	100
Aditz iragankorrak	2 izen	4	10	6	20	2,35
	izen + izenorde	3	18	3	24	2,82
	2 izenorde	0	2	1	3	0,35
Pasiboak kopula gabe	Egilerik gabe	0	2	10	12	
	Egilearekin	2	2	3	8	
Pasiboak izan kopularekin	Egilerik gabe	0	0	11	11	1,29
	Egilearekin	0	0	0	0	0
<i>Pasiboak orotara</i>					31	
Antipasiboak kopula gabe	Jasalerik gabe	0	0	0	0	
	Jasankorreakin	0	0	0	0	
Antipasiboak izan kopularekin	Jasalerik gabe	0	1	0	1	0,11
	Jasankorreakin	0	0	0	0	0
<i>Antipasiboak orotara</i>		0	1	0	1	
<i>Pasiboak eta antipasiboak izan kopularekin</i>		0	1	11	12	1,41

Taulatik ateratzen ez den azken ohar bat azpimarratu nahi nuke, biziki garrantzitsua dena nire ustez. Galde egin diedan xiberotar hiztunen ustez, (hiztuna laborari ala ikastolako zuzendari izan daitezen) **erranaldi antipasiboak gisakoak dira eta pasiboak batere ez egokiak**, bereziki egilearen eta jasalearen izenekin diren perpaua pasiboak. Haatik, ikusten dugu pasiboa antipasiboa baino maizago erabiltzen dutela.

IV. EGITURA PASIBO ETA ANTIPASIBOAK IDAZKI BATZUETAN

Lehenik erran behar dugu zubererazko idazlanak bakan direla : kantu hanitx, pastoral bat edo biga urte oroz, idazle batzuen idazkiak, horien artean Junes Casenave-Harigilenak, eta bi kronika aldizkarietan, Jean-Louis Davant-ena *Herria* astekarian eta Ximun Peyran-en eledersaila *Miroir de la Soule* delakoan. Bi pastoral, Patrick Quéheille-ren *Herriko semeak pastorala* eta Jean-Louis Davant-en *Xiberoko makia trajeria* hautatu ditut, eta bai eta Junes Casenave-Harigile-ren *Basabürüko ipuinak* liburua ere. Ahozko testuekin

egin dudan bezala, ibilbide pasiboak eta antipasiboak aztertu ditut. Eta gero egitura pasibo eta antipasiboak, kopula gabekoak eta *izan* kopula zutenak, zenbatu ditut testu horietan.

So egin diezaiogun beraz bigarren taulari. *Markatuak* hitzak erran nahi du perpaus haietan izen bat edo izenorde bat badela; *koreferentziaz* hitzak seinalatzen du perpaus horietan ez dela izenik edo izenorderik.

Pastoraletan errimaren eta neurtitzen luzetasunaren hersturarengatik adizki jokatu guti dira aditz laguntzailea edo kopula dutenak.

Quéheillek ibilbide pasibo eta antipasiboak Da. ...-k baino gehiago erabiltzen ditu. Ahozko testuetan ikusi dugun bezala, ibilbide pasiboaren artean egile markaturik ez duena da egitura usuena. Ohartzen dugu hemen ere ibilbide antipasiboaren ibilbide pasiboaren baino eskasago dela. Orotara hiru adibide (3a, 3b, 3b').

V. ONDORIOA : SINKRONIA DINAMIKOA ETA DIAKRONIA

Bere *Grammaire basque* delakoan Pierre Lafittek erraten zuen manamendu bat bezala: «On ne se sert pas beaucoup du passif en basque. Il vaut mieux tourner par la conjugaison active», (344. orr.). Gure ikerketak erakusten du sinkronian egitura pasiboak erabiliak direla. Haatik, frantses erranaldi baten itzulpena galdatzen badiet nire usaiako zuberotar hiztunei, maiz baina ez beti, erranaldi aktibo bat ematen didate euskaraz, beste zenbaitek pasiboaren aktiboaren, eta besteek pasiboaren bakarrik.

Molde batez Lafittek arrazoi zuen mintzo zelarik pasiboaren eta antipasiboaren erabilpenaz eta maiztasunaz (ikus I. Sarrera). Bainan erran behar dut egitura antipasiboaren hatzak baino gehiago baditugula zubereraren eta hiztunen **hizkuntz kontzientzian** antipasiboaren ez dela batere galdua. Eta hori ez da frantsesaren eraginari lotua. Alderantziz, pasiboaren leku handiagoa hiztunen elebitasunari lotua da. Dudarik ez da. Hizkuntza kanbiatzen ari da. Ohar horiek hizkuntzalaritzaren alor berezi batean sartzen dira, **sinkronia dinamikoan**¹. Konturatu behar da sinkronia mugiezina ez dela.

¹ Nozio hori André Martinet-ek bere biziaren azken aroan bultzatu zuen. Sarrera gisa ikus Houdebine (1985) eta Martinet (1990).

<i>Pasibo eta antipasibo ibilbideak</i>	<i>Egilea eta Jasalea</i>	<i>Marka</i>	<i>Quéheille</i>	<i>Davant</i>	<i>Casenave -Harigile</i>	<i>Kopurua</i>
1 Pasiboak kopula gabe	a) Jasalea (egilerik gabe)	Koreferentziaz Markatua	10 20	3 9	15 28	28 57
	b) Jasalea (egilearekin)	Koreferentziaz Markatua	4 1	3 3	14 2	21 6
2 Pasiboak <i>izan</i> (edo <i>egon</i>) kopularekin	a) Jasalea (egilerik gabe)	Koreferentziaz Markatua	3 2	0 0	11 10	14 12
	b) Jasalea (egilearekin)	Koreferentziaz Markatua	1 0	0 1	6 2	6 3
<i>Pasiboak orotara</i>			41	19	88	148
3 Antipasiboak kopula gabe	a) Egilea (jasalerik gabe)	Koreferentziaz Markatua	0 0	0 0	1 0	1 0
	b) Egilea (jasanlearekin)	Koreferentziaz Markatua	2 0	0 0	0 0	2 0
4 Antipasiboak <i>izan</i> kopularekin	a) Egilea (jasalerik gabe)	Koreferentziaz Markatua	0 0	0 0	0 0	0 0
	b) Egilea (jasalearekin)	Koreferentziaz Markatua	0 0	0 0	0 0	0 0
<i>Antipasiboak orotara</i>			2	0	1	3
<i>Orotara</i>			43	19	89	151

Laburbilduz, euskalari gehienek ez dute uste diatesia badela euskaran, ikus adibidez hastapenean aipatu dugun Euskaltzaindiaren ikusmoldea (ikus halaber Coyos 2002). Halere, zubererazko egitura pasibo eta antipasiboen adibide batzuk ediren ditugu ahozko eta idatzizko testuetan. Adibide antipasiboak bakan dira bainan egokiak hiztunen ustez. Alderantziz, pasiboak ohikoak dira bainan ez egokiak haien arabera. Sinkronian pasiboa eta antipasiboa elkarren ondoan izateak erranarazten du **pasiboaren lekua zabaltzen ari dela**, aldiz **antipasiboarena apaltzen**. Hori ez da agertzen hiztunen hizkuntza kontzientzian, baina bai haien hizkuntzaren praktikan. Behaketa horren ondorioa da egitura antipasiboa euskararen egitura zahar bat litzatekeela eta pasibokoa alderantziz egitura berri bat. Azken ohar hori diakroniaren alorrean kokatzen da.

Ikerketa horri esker erakutsi nahi nuen ere zenbat oraiko testuen miaketa garrantzitsua den euskara hobeki ikertzeko. Espero dut kausitu dudala. Beharrezkoa da teoriaren bidez, eta teoria batzuen arabera, hizkuntzen aztertzea. Bainan ikerbide hori ez da nahikoa egitura horien pisua neurtua ez balinbada hizkuntzaren erabileran. Hortakotz ahozko testu eta idazki desberdinen aztertzea baitezpadakoa da orokor eta argigarri izan nahi den hizkuntzalaritza batean.

AIPAMENAK

BOULLE, Jacques. 1987. "Aspect et diathèse en basque", *Actances*, 3, Paris, C.N.R.S., R.I.V.A.L.C., 86-121.

CASENAVE-HARIGILE, Junes. 1997. *Basabürüko ipuinak*, Baigorri, Izpegi, 94 orr.

COYOS, Jean-Baptiste. 1999. *Le parler basque souletin des Arbailles – Une approche de l'ergativité*, Paris, L'Harmattan, 432 orr.

—2002. "Parcours de type passif et antipassif en basque souletin parlé actuel", *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris*, XCVII, 1, Paris – Louvain, Peeters, 283-313.

DAVANT, Jean-Louis. 2001. *Xiberoko makia trajeria*, Sohüta, 206 orr.

EUSKALTZAINDIA. 1987. *Euskal gramatika Lehen urratsak-II*, Gramatika batzordea, Bilbo, Euskaltzaindia / R.A.L.V. , 522 orr.

—1991. *Euskal gramatika Lehen urratsak-I*, Gramatika batzordea, Bilbo, Euskaltzaindia / R.A.L.V. , XXX + 569 orr.

HOUDEBINE, Anne-Marie. 1985. "Pour une linguistique synchronique dynamique", *La Linguistique*, 21, Paris, Presses Universitaires de France, 7-36.

LAFITTE, Pierre. 1944 (1962). *Grammaire basque* (Navarro-labourdin littéraire), Édition revue et corrigée, Bayonne, Elkar-Ikas, 490 orr.

MARTINET, André. 1990. "La synchronie dynamique", *La Linguistique*, 26, 2, Paris, Presses Universitaires de France, 13-23.

POTTIER, Bernard. 1992. *Sémantique générale*, Paris, P.U.F., 237 orr.

QUÉHEILLE, Patrick. 1998. *Herriko semeak pastoralala*, Barkoxe, 135 orr.

REBUSCHI, Georges. 1979. "Autour du passif et de l'antipassif en basque biscayen (sous-dialecte d'Oñate)", *Relations prédicat-actants dans les langues de types divers II*, Paris, Sela, 149-170.

RIJK, Rudolf P. G. de. 2001. "Antipasiboak euskaran", *Lafitteren sortzearen mendemuga*, Euskaltzaindiaren nazioarteko XV. Biltzarra, Baiona, 2001 / 9 / 20. Liburu honetan argitaratua.

ESKUMALDERA BAZTERTURIKO PERPAUS OSAGARRIAK¹

A. Eguzkitza

1. Ezagun den bezala, euskal perpausean subjektuek, osagarriek eta adjunktuek marka morfologiko bereziak dauzkate, euskal gramatika-tradizioan “deklinabide-kasu” izena jaso dutenak. Subjektuak ergatibo eta absolutibo kasuez markatzen ditugu, absolutibo eta datibo kasuez aldiz osagarriak, eta postposizio baten bidez, azkenez, adjuntuak, (1)eko adibidean ikus daitekeen moduan:

(1) aitak amari Erromatik gona gorria ekarri dio

Ez dugu zertan esan behar, euskal gramatika-tradizioaren barruan aipatu ohi den ‘deklinabidea’ ez dela paradigma homogeneo bat, kasuez eta postposizioez osoturiko paradigma baizik, edo beste era batera esanda, euskal gramatikan benetan deklinabidetzat jo daitekeen paradigma askozaz ere murriztagoa dela tradizioz esan ohi dena baino. Izan ere, ‘benetako deklinabide’ horren elementu osatzaileak alde batetik hiru kasu gramatikalak dira, ergatiboa, absolutibo eta datiboa, aditz laguntzailean ere markatzen direnak, eta genitiboa bestetik, izenaren morfologian osagarriak markatzeko erabiltzen dena. Horretaz gain, instrumentala ere aipatu beharko litzateke, formalki aurreko kasuak bezala funtzionatzen baitu, baina semantikoki gaur egungo gramatikan postposiziotzat jo behar dena, alegia, morfema erreferentziadunen

¹ Lan hau Eusko Jaurlaritzak finantzatu “Ergatividad y complementación en lengua vasca, competencia, adquisición y patología” izeneko 1999/18 ikerketa-proiektuaren barruan idatzita da.

taldeko kidetzat². Baina era horretan ez dira perpausoko osagaiak markatzen bakarrik. Euskal morfologiak ohikoa duen gardentasunaz gauza bera egiten du izenaren osagarri eta adjunktuekin, zeren euskal gramatikak perpausetan nola, hala desberdintzen baititu morfologikoki izenaren osagarriak eta izenaren adjuntuak, (2)ko adibidean ikus dezakegun bezala (Eguzkitza, 1993):

(2) Santurtzitiko trenaren gidaria

non sintagmaren ardatza den artikulua aparte utzita, /-a/ alegia, 'gidari' izenaren osagarria den 'tren' izena munduko hizkuntza guztietan ohikoa den genitibo kasuaz markatzen den, h.d., izenaren osagarriak markatzeko erabiltzen den kasuaz, eta 'Santurtzitik' adjunktua, ostera, beraren ardatza den aurreko izenari, 'tren' izenari, /-ko/ postposizioaren bidez lotzen zaion.

2. Baina (2)ko adibide horretan aipatu duguna ez da gertatzen bakarrik osagarriak eta adjuntuak nominalak direnean, perpausekin ere gauza bera gertatzen da, hots, izenaren osagarriak eta adjuntuak perpausak direnean (Eguzkitza, 1997):

(3) a. [etorri den] mutila

b. [Axular idazle ona delako] baieztapena

Lehenengo kasuan, /-en/ kasu-markaren³ bidez perpaus erlatibo bat lotzen diogu erlatiboaren ardatza den 'mutila' sintagmari. Bigarrenean, ostera, [Axular idazle ona da] perpausa adjunktatu egiten diogu 'baieztapen' izenari. Horretarako operazio bi egiten ditugu, alde batetik perpausa 'adjuntu' bihurtzen dugu /-la/ atzizkia erantsita, hots, euskal gramatikan aditzondoak sortzeko balio duen atzizki bat perpaus horri atxikita [cf. 'honela', 'bestela'], eta bestetik adjuntu hori /-ko/ postposizioaren bidez egituraren ardatza den 'baieztapen' izenarekin lotzen dugu, h.d., adjunktatu egiten dugu.

² Jose Antonio Muxikak behin zioenez, agian euskara zaharrea lau kasu egon beharrean, bost ziren agertzen zirenak, alegia, ergatiboa, absolutiboa, datiboa, genitiboa eta instrumentala, latinaren gramatika gertatzen zen bezala (latinak, jakina, ez zeukan ergatiborik), eta formalki oraindik gaur egungo euskarari ikus daitekeen moduan. Oraingo euskarari, ordea, daukaten esangura alde batera utzita, ez dirudi 'etxetik' eta 'etxeaz' sintagmen artean diferentzia gramatikalik proposa daitekeenik, alegia, biak ala biak postposiziotzat jo daitezkeela, erran nahi baita, gure inguruan mintzatzen diren hizkuntza indoeuroparren preposizioak bezala, eta kasuak ez bezala, elementu erreferentzialak direla.

³ Kasu-marka deritzot, 1997ko lanean argudiatu bezala, euskarazko perpaus erlatiboak egiteko erabiltzen den /-en/ morfema eta genitibo-morfema bera dela uste dudalako. Lan horretan "Peruk ikusi duen irudia" determinatzaile-sintagman dagoen erlazioa, 'irudia' eta 'Peruk ikusi du' perpausaren artekoa da, horretarako /-en/ atzizkia erabiltzen delarik, alegia, 'irudi' izenak ezkerretara daukan perpausarekin daukan harreman sintaktiko-tematikoa gauzatzen duen elementua.

Lehenengo operazioa dela eta, alegia, /-la/ atzizkia eranstea, agian norbaitek argudia lezake perpaus hori perpaus osagarri arrunt bat besterik ez dugula, ezaguna den bezala, hala markatzen baitira horrelako perpausak euskal gramatikan:

- (4) a. esan didate [etorri behar dudala]
 b. [bihar Jon etorriko dela] kontatu didate

Baina zera hartu behar da kontuan, (3b) kasuan ez dagoela aukerarik perpaus hori, [[Axular idazle ona da] + la], inongo aditzaren osagarri dela defendatzeko, halako aditzik ez baitago, ez agerian, ez eta ezkutuan ere. Bestetik /-ko/ atzizkia, ezagun denez, edo postposizio-sintagma bati eransten zaio, (5a), edo izen-sintagma huts bati, (5b), halako funtzio adjektibal bat bete dezan, baina inoiz ez perpaus huts bati, (5c) vs. (5d):

- (5) a. [Santurtzira] + ko =====> Santurtzirako [trena]
 b. [zortzi urte] + ko =====> zortzi urteko [ardoa]
 c. [Axular idazle ona dela] + ko baieztapena
 d. *[Axular idazle ona da] + ko baieztapena

Esan behar da, edozelan ere, euskal gramatikan agertzen den fenomeno hau ez dela hain ezohikoa munduko hizkuntzetan. Adibidez, dyirbaleran, gubaingarreran, japonieran eta txineran, Dixon-ek (1969 eta 1972), Chao-k (1948) eta Kuno-k (1973) aipatzen dutenez, berdintasun bera agertzen da genitibo-markak eta erlatibo-marken artean. Nik hona, joera beraren adibide, Mexikoko ipar mendebaldeko Sonorako desertuan egiten den yakiera hizkuntza uto-aztekaren adibide pare bat ekarriko dizuet, Detric-ek eta Casad-ek eman bezala (1996).

Hizkuntza horretan /-ta/ atzizkia akusatiborako erabiltzen da:

- (6) a. nabó-ta bwá'ee 'atuna jaten ari da'
 b. kaábe-ta hiníle 'ez da inoren beldur'

Atzizki hori ordea genitiboetarako ere erabiltzen da:

- (7) Jóan-ta huúbi 'Juan-en emaztea'

Honek argi eta garbi esan gura du, (6)ko egiturak ekialdeko euskalkietan entzuten diren [liburuen ikustera/erostera] bezalako eraikidurak direla, h.d., aditz iragankor baten osagarri zuzenak genitibo kasuaz markatzen duten egiturak (euskal gramatikaren kasuan, halaz ere, aditzak nominalizatuta daudenean bakarrik agertzen dira halako egiturak). Bestalde, /-ta/ postposizio baten oinarri bezala ere ager daiteke, h.d., euskal gramatikako kokapen-izenen tankerakoak diren postposizioen oinarria izateko (cf.: de Rijk 1990, Eguzkitza 1999):

(8) ču'ú-ta-béah 'txakurraren aurrean'

Azkenez, perpaus erlatibo bat ere aipatuko dugu:

(9) húka'á 'á'abo wéyem-ta wáata'ut ne hu'unéa
hori hona etorri nahi ni ezagutzen dut
'badakit hona datorrenak nahi duena'

Adibide honetan "wéye" aditza, 'etorri', /-me/ atzizkiaren bidez nominalizatzen da, eta orduan "wéyeme" 'datorrena' /-ta/ akusatibo/ genitibo partikulaz markatzen da. Perpausaren hasieran agertzen den erakuslea, 'húka'á', nominalizazio horrekin da erreferentziakide.

3. Euskaraz bi perpaus-mota daude sarri askotan eskumatara baztertzen direnak. Alde batetik, zehargalderak diren perpausak:

(10) a. [nor etorri den] galdetu du
b. galdetu du [nor etorri den]

(11) a. [Peru etorriko ote den] galdetu du
b. galdetu du [Peru etorriko ote den]

eta bestetik 'perpaus osagarriak' izenarekin ezagutzen ditugun egiturak eta euskal gramatikan /-la/ atzizkiarekin markatzen direnak, itxuraz behintzat aditz iragankor baten osagarriak diren perpausak:

(12) a. [Peru etorriko dela] uste dut
b. uste dut [Peru etorriko dela]

3.1. Zehargalderak hartuta (Eguzkitza 1997), dakusagun lehenengo fenomenoa zera dugu, perpaus hauek ere /-en/ atzizkiaz markatzen direla. Izan ere, atzizki horren portaera eta perpaus erlatiboen atzizkiaren portaera oso da antzekoa, izan ere nire ustez atzizki bera delako, hau da, genitibo-marka, bigarren oharrean esan dudan legez. Adibidez, /-en/ atzizkia daroan adizkia ezin daiteke aurrerantz mugi, edota oso zaila da aurreratzea:

(13) a. galdetu du [Peruk bihar liburua irakurriko ote duen]
b. ?? galdetu du [Peruk bihar irakurriko ote duen liburua]
c. ?? galdetu du [Peruk liburua irakurriko ote duen bihar]

Juzkuak ez dira oso argiak, baina oztopoa bertan dago, 'liburua' eta 'bihar' sintagmen 'bazterketa' erabat ezinezkoak direla esaten ausartzen ez banaiz ere. Oztopo horien kausa, nire ustez, /-en/ atzizkiak behar duen kokagunean dago, defendatu gura dudan hipotesia egokia bada, eta atzizki hori kasu-morfema bat baldin bada, izen-sintagma isil bat behar duelako. Bestalde, 'galdetu' bezalako aditzekin ondokoak ere ikus daitezke:

- (14) a. [nor etorri den] galdetu du
 b. hori galdetu du
 c. galdetu du [nor etorri den]
 d. *galdetu du hori

(14d)ko ezgramatikaltasunaren kausa, nire aburuz, agerian dago: euskara buru-azkena da de Rijk-ek aspaldian proposatu zuen moduan (1969), hortaz azkenengo etsenplu hori ezinezkoa da. Baina ‘zera’ espletiboa badarabilgu, ondokoa ere ikus dezakegu:

- (15) zera; galdetu du [nor etorriko den];

baina ez ordea,

- (16) a. *[nor etorri den]; zera; galdetu du
 b. *zera; [nor etorri den]; galdetu du
 c. *[nor etorri den]; galdetu du zera;

(16)an ikus daitekeen bezala, ezinezkoa da ‘zera’ espletiboa aditzaren eskumaldean jartzea (16c), ez eta zehargalderarekin batera aditzaren aurrean gordetzea (16a) eta (16b). Eraitza hauen arrazoia nire ustez argia da, espletiboa eta zehargaldera katea bereko bi muturrak dira. Hori ikusita, zehargalderadun aditzak deskribatzeko modurik ekonomikoena nire aburuz hau da:

- (17) pro; galdetu du [nor etorri den];

non alde batetik, **pro** txiki hori fonologikoki gauza daitekeen, baina ez da nahi eta nahi ez gauzatu behar (gauzatzen baldin bada ‘zera’ forma hartzen duela), eta bestetik, **pro**-k eta zehargalderak katea bat osatzen dutela, eta beraz ezin daitezkeela biak batera egongune berean gauza, bai ordea katearen bi muturretan, almanez gertatzen den bezala:

- (18) a. es; sind [viele Äpfel]; gegessen worden
 b. viele Äpfel sind gegessen worden
 ‘sagar asko jan dira’


non ‘viele Äpfel’ (18b)n lehenago ‘es’ expletiboa zegoen egongunera mugitu den, eta ‘es’ hori expletibo ezargumental bat denez gero, h.d., tokibetetzaile hutsa, desagertu egin den. Izan ere, hori da euskal gramatikan **pro** eta ‘zera’-rekin, **pro**-ren gauzaren fonikoa, gertatzen den gauza bera, dela inongo gauzaren fonikorik gabe agertzen delako, hutsik beraz, dela **zera** espletiboaren bidez gauzatzen dugulako, edota dela beraren tokian zehargaldera bera jartzen dugulako. Beste berba batzuekin esanda, aditz hauen subkategorizazioan, oinarritik alegia, katea bat daukagu, osagai astunak eskumaldera baztertuak izateko daukaten joeragatik.

3.2. Une honetan baina, azaldu beharra daukat zergatik diodan zehargalderetako /-en/ atzizkia perpaus erlatiboetan agertzen den morfema bera dela, hots, genitibo kasuaren morfema dela, eta hala bada orduan esplikatu zernolako elementu nominala dagoen halako perpausetan, kasu baten ezarketa, h.d., /-en/ genitibo kasu berezkoaren⁴ ezarketa, litekeen zerbait bihurtzen duena. Hori egin baino lehen ordea, aditz faktiboen kasua aipatuko dut konparazioa egin ahal izateko:

- (19) a. ez dakit [nor etorri den]
 b. badakit [nor etorri den]
 c. badakit [Peru etorri dena]

non (19b) eta (19c)ko 'badakit' aditza aditz faktibo gisa "à la Kiparsky" aztertu behar den, hau da, bere subkategorizazioan 'faktua' determinatzaile-sintagma daukan aditz moduan, fonikoki gauzatua izan zein ez. Izan ere, halakoen egitura (ikus Eguzkitza, 1988) ondokoa da nire ustez, non menpeko perpausa euskal gramatikan inoiz gauzatzen ez den 'faktua' horren osagarria den, berezko kasuaren ezarketa -genitibo kasuaren ezarketa- eragiten duen izena:

- (20) badakit



⁴ Inherent Case.

Kasu honetan, perpaus erlatiboen kasuan bezala (ikus 2. oh.), azaldu behar da zergatik postulutzen dugun kasu-sintagmaren ezkerretara izen huts bat agertzen dela, alegia, [Peru etorri da] inflexio-sintagma atxikitzen zaion izen huts bat. Izen huts hori postulatzeko arrazoia -oso argudio zirkularra izategatik ere- /-en/ berezko kasuaren ezarketaren azaltzea da, edo bestela esanda, inflexio-sintagma horren izaera nominala azaltzea, kasuaren ezarketa zentzuzkoa eginen duena. Edozelan ere, kasu-sintagmaren osagarri gisa inflexio-sintagma bera ere proposa dezakegu inongo izen hutsik gabe. Argudio erabakigarririk gabe oraingoz hor uzten dut arazoa, baina izen huts hori bertan baldin badago, argi utzita ez dagoela izen horren eta inflexio-sintagmaren artean inongo theta-erlaziorik, alegia, harreman tematikorik.


Orain, /-na/-dun eta /-la/-dun perpaus menpeko bi konparatuko ditugu, direlako perpaus menpeko horien osagai bati buruz galderak eginde:

- (21) a. Jonek badaki [Peru etorri dena]
 b. Jonek esan dit [Peru etorri dela]
 c. *nor_i daki Jonek [h_i etorri dena]?
 d. nor_i esan dit Jonek [h_i etorri dela]?

Zergatik da ezgramatikala (21c)? (21c)ko adibidean ‘nor’ galde-hitzak, hots, ‘nor’ [nz-hitza]-k, ez daukalako aukerarik kasu-sintagmaren espezifikatzailetik gorantz igoteko, erdian fonikoki gauzatugabeko ‘faktu’ izen-sintagma dagoelako bere determinatzaile mugatu singularrarekin ezin gainditzeko muga moduan. Gainera, ezagun den bezala, euskal gramatikan determinatzaile-sintagma batetik ezin daiteke ezer atera:

- (22) a. Jonen automobilaren salmenta
 b. *zer Jonen automobilaren?
 c. Jonen zeren salmenta?

Arazoa horregatik ondokoa dugu, ea esan dezakegun zahargalderadun egituretan ere kasu bat ezarri dela. Nire erantzuna baiezkoa da, mugimendua- ren mugak oraintxe aditz faktiboetarako ikusi ditugun berberak baitira. Horretarako, aditzaren subkategorizazioan gauzatugabeko izen bat proposatu behar dugu, horregatik beragatik, h.d., izen hori Ø delako, [-det] ere izanen dena. Beste modu batez formulaturik zera esanen genuke: katearen mutur batean agertzen den **pro** hori [-sg, -pl] delarik, menpeko perpaus baten forman agertzen den determinatzaile-sintagma ez du fonikoki gauzatzen den bururik edukiko. Egoera beraz halakoa da, non kasuaren gauzapena subjektuaren espezifikatzaile-rako mugimenduaz gertatzen den [baiezko-ezezko zehargalderak], edota [nz-hitz] baten mugimenduaz.

(23) *pro_i galdetu du*

Zehargalderadun aditzek, beste era batera esanda, honela daude subkategorizaturik: [_A DS +A], aditza [_{±wh}] edo [_{±nz}] markatuta dagoelarik. Aditza [-nz] denean aditz iragankor arrunta edukiko dugu, (ikus 14). Aldiz, aditza [+nz] denean inflexio-sintagma bat beharko du [+nz] ezaugarri hori gauzatzeko⁵.

⁵ Euskal gramatikan agertzen diren hiru komplementatzaileak banatzeko ondoko ezaugarri-sistema proposa daitekeela uste dut:

/-na/: (presuposizioa: [+ faktua])

(asertzioa: [+ faktua])

/-n/: (presuposizioa: [- faktua])

(asertzioa: [- faktua])

/-la/: (presuposizioa: [- faktua])

(asertzioa: [+ faktua])

Sistema honek inongo egiazkotasunik baleuka, beharbada, espekulazio gisa laugarren termino bezala ondokoau proposa daiteke:

/-nik/: (presuposizioa: [+ faktua])

(asertzioa: [- faktua])

Zehargalderen egitura honi buruzkoak alde batera uzteko, amaitzeko ondoko faktuak aipatuko ditut:

- (24) a. beldur naiz
- b. otsoaren beldurra
- c. zeren beldur zara?
- d. otsoa etorriko ote den beldur naiz
- e. otsoaren beldur naiz

(24a) eta (24b)ri buruzko galdera (24c) dugu, hots, [[nz hitza] + genitiboa + aditza]. Galdera horri (24d)rekin erantzun daiteke, edo eta (24e)rekin, hain zuzen espero izatekoa dena, baldin eta hemen proposatu dugun legez zehargalderak genitibo kasuaz markaturiko izen-osagarriaren egituratzat jotzen baditugu.

3.3. Eskumatara baztertzen den beste perpaus mota, gorago aipatu bezala, perpaus osagarriak dira (12)an aipatutakoen tankerakoak:

- (12) a. [Peru etorriko dela] uste dut
- b. uste dut [Peru etorriko dela]


edo aurkaritza are argiago ikusteko 'esan' aditzarekin:

- (25) a. Peruk pro_i esan du [Jon etorriko dela];
- b. Peruk esan du [nor etorriko den]

Lehenago aipatu dugun bezala (25a)tik galdetzaile bat atera daiteke, ez ordea (25b)tik:

- (26) a. nor_i esan du Peruk [h_i etorriko dela]?
- b. *nor_i esan du Peruk [h_i etorriko den]?

alegia, lehenengo kasuan adjunktua bat dugu, hots, postposizio-sintagma bat; ikus (27). Bigarrenean, ostera, kasu-sintagma bat, ateraketarik ontzat jotzen ez duena.



non galdera bat egitekotan, (27)an bezala, eskumatara baztertua dagoen postposizio-sintagmaren barruko inflexio-sintagmako galdetzailea aurrerantz mugitzen den perpaus nagusiaren [aditz+Lag] multzoarekin batera eta ezkerretara adjunktatu egiten den, Arantzazu Elordietak (2001) proposatzen duen bezala. Horrelakorik ezin egin daiteke bigarren kasuan, eskumatara baztertua dagoen egitura, gorago aipatu dugun legez, postposizio-sintagma bat ez baita, kasu-sintagma bat baizik, edo tradizionalago formulatzeko, eskumatara dagoen elementua zehargaldera bat delako, ez perpaus osagarri bat.

Ondoko adibideekin antzeko azkeniritziak ateratzen ditugu:

- (28) a. Perurekin gogoratzen naiz beti
 b. beti gogoratzen naiz [Peru oso mutiko pihoa zela]
 c. zerarekin gogoratzen naiz beti [Peru oso mutiko pihoa zela]

Beste berba batzuez esateko, halako egituretan, oinarrian sortzen den katea bat daukagula proposatu gura dut, baina oraingo kasuan /-la/dun perpausak, izen tradizionalak dioenaren kontra, osagarri zuzenak barik, benetako adjuntuak direlarik, (28)ko adibideek agerian uzten duten bezala, beti ere perpaus nagusian agertzen den **pro** txikia fonikoki gauzatu zein gauzatugabe ager daitekeela, edota eskumatara sorturiko elementua, bertara, beraren egon-gunera, mugitua.

BIBLIOGRAFIA

CHAO, Y. R. 1948. *Mandarin Primer*, Cambridge, Massachusetts: MIT Press.

DEDRICK, J. eta CASAD, G. 1996. "Noun Inflection Yaqui", eskuizkribua, Summer Institute of Linguistics.

DIXON, R.M.W. 1969. "Relative Clauses and Possessive Phrases in Two Australian Languages", *Language*, 45, 35-44.

DIXON, R.M.W. 1972. *The Dyirbal Language of North Queensland*, Cambridge: Cambridge University Press.

EGUZKITZA, A. 1993. "Adnominals in the Grammar of Basque", in Hualde, J.L. and Ortiz de Urbina, J. (arg.). *Generative Studies in Basque Linguistics*, Amsterdam: John Benjamins Publishing Company, 163-187.

EGUZKITZA, A. 1997. "Indirect Questions and other Adnominals in the Grammar of Basque", Palek, B. (arg.). *Typology: prototypes, item orderings and universals, Proceedings of LP'96*. Prag: Charles University Press, 332-350.

EGUZKITZA, A. 1999. "Posposiciones en la gramática vasca", in Fernández González, J., Fernández Juncal, C., Marcos Sánchez, M., Prieto de los Mozos, E., Santos Río, K. (arg.). *Lingüística para el siglo XXI*, Salamanca: Ediciones Universidad de Salamanca, 515-522.

ELORDIETA, A. 2001. *Verb Movement and Constituent Permutation in Basque*, doktorego-tesia, 2001eko ekainean Leiden-go Unibertsitatean aurkeztua.

KUNO, S. 1973. *The Structure of the Japanese Language*, Cambridge, Massachusetts: MIT Press.

OIHARTZABAL, B. 1988. "Operatzaile isila euskarazko perpaus erlatiboetan", *ASJU*, 22:293-297.

ORTIZ DE URBINA, J. 1989. *Parameters in the Grammar of Basque*, Dordrecht: Foris.

RIJK, R. de, 1969. "Is Basque an SOV language?", *Fontes Linguae Vasconum*, 1:319-351 (*De Lingua Vasconum: Selected Writings* izeneko artikulubilduman ere agertua, 1998, Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea, 13-37).

RIJK, R. de, 1990. "Location Nouns in Standard Basque", *ASJU*. XXIV-1.3-20 (*De Lingua Vasconum: Selected Writings* izeneko artikulubilduman ere agertua, 1998, Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea, 277-296).

RIJK, R. de, 1993. "*Basque Hospitality and the Suffix -ko*", in Hualde, J.L. and Ortiz de Urbina, J. (arg.). *Generative Studies in Basque Linguistics*. Amsterdam: John Benjamins Publishing Company. 145-162. (*De Lingua Vasconum: Selected Writings* izeneko artikulubilduman ere agertua. 1998, Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea, 377-390).

MODUZKO ADBERBIOAK ETA ADBERBIOEN ARTEKO HURRENKERAZ

A. Elordieta Alzibar

1. SARRERA^{1*}

Lan honetan euskaraz mota desberdinetako adberbioek agertzen duten kokaguneak izango ditut aztergai. Ezaguna da hizkuntza askotan adberbioak posizio baten baino gehiagotan ager daitezkeela esapidetan, perpauseko beste-lako zenbait elementuk hurrenkera zurruna erakusten duten arren (e.g. argumentuak, kasurik normalenean). Euskararen kasuan adberbioen ordenamenduarekiko malgutasun hau are nabariagoa da kontuan izanik euskara “ordena libreko” hizkuntzat hartu izan dela tradizioan. Hala ere, euskararako ere badira arrazoiak pentsatzeko ustezko ordena askatasun hori ez dela benetan hain librea, baizik eta informazio egiturari hertsiki lotuta dagoela. Nolanahi ere den, adberbioez den bezainbatean, gramatika sortzailearen esparruan bi jarrera nagusi aurkitzen ahal dugu: ikusmolde baten arabera, adberbioak sintagma jakin batzuei itsasten zaizkie, eta bertan gelditzen dira, hots, ez dira mugitzen posizio horretatik haratago. Honen ondorioz, adberbioen kokagune sintaktikoaz baliau gaitzke perpauseko beste elementuak mugitu diren ala ez jakiteko (ikus, besteak beste, Emonds 1978, Pollock 1989, Belletti 1990, Cinque 1999). Adibide bat jartzeko, har dezagun *ederto* bezalako moduzko adberbio bat. Eman dezagun moduzko adberbioak Aditz Sintagmaren barruan (AS hemendik aurrera) txertatzen direla. Hau horrela izanik, ziur egon gaitzke adberbioaren aurretik agertzen diren elementuak AS-tik kanpo daudela nahitaez. Geroago ikusiko dugunez, argudio hau baliatuko dut euskaraz aditzaren mugida dagoela erakusteko.

^{1*} Lan hau Eusko Jaurlaritzaren PI-1998-18 ikerketa-proiektuaren babesean burutu da.

Bigarren ikusmoldearen arabera, aitzitik, adberbioek hurrenkeran erakusten duten malgutasuna ez dator beste elementuen mugimendutik, baizik eta adberbioak sintagma bati baino gehiagori itsats dakizkiekeelako, oinarrian bertan nahiz mugimenduaren bitartez (proposamen honen alde, ikus, besteak beste, Jackendoff 1972, Iatridou 1990, Zwart 1993, Neeleman 1994).

Euskararen datuei erreparatzen badiegu, ikusten duguna da perpaus baten barruan zenbait adberbiok azal dezaketen ordena oso murrizta den bitartean —moduzko adberbioen kasua—, beste adberbio batzuek askoz ere distribuzio zabalagoa erakusten dutela. Gauza bera gertatzen da hainbat hizkuntzatan, hala nola grekeraz, italieraz, ingelesez eta portugesez, Alexiadou (1997), Cinque (1999) eta Costaren (1998) lanetatik ondoriozta daitekeenez. Autore hauen ildotik, nik ere distribuzio murrizta duten adberbioak erabiliko ditut euskaraz aditzaren mugida gertatzen dela frogatzeko. Beste adberbioei dagokienez, posizio batera baino gehiagotara adjunkta daitezkeela argudiatuko dut, beti ere bere baldintza semantikoak betetzen badira (Ernst 1998). Hau da, adberbioa, definizioz, zerbaiten modifikatzailea da, eta modifikazio harreman hori gauza dadin adberbioak bere argumentua o(sagai)-komandatu behar du, hots, bere besarkadura barruan egon behar da. Adibide gisa, har dezagun *atzo* tankerako denborazko adberbioa. Adberbio honek esapidea denbora jakin batean kokatzen du, eta alde horretatik, perpaus osoa modifikatzen du. Horregatik, mota honetako adberbioak maiz perpaus hasieran edo bukaeran agertzen dira, baina beste posiziotan ere ager daitezke:

- (1) a. Atzo umeak negar asko egin zuen
- b. Umeak atzo negar asko egin zuen
- c. Mikelek tesia defendatu zuen atzo
- d. Mikelek tesia atzo defendatu zuen

Moduzko adberbioak, aitzitik, aditzaren ezker aldean joan ohi dira, eta ez perpaus hasieran:

- (2) a. *Tinko gure enpresako presidentek bere ideiei eusten die
- b. Gure enpresako presidentek bere ideiei tinko eusten die

Datuotatik abiatutik, ondoko lerroetan mota desberdinetako adberbioak non kokatzen diren eta zergatik agertzen diren agertzen diren posiziotan azaltzen saiatuko naiz.

2. ADBERBIOEN SAILKAPENA

Adberbioak era askotara sailka daitezke, baina nik hiru sailkapen baino ez ditut hemen aipatuko: (a) Euskaltzaindiak *Euskal Gramatika*-n (1985, 1993) egiten duen bereizketa morfologikoa, (b) adberbioak aditzak berak hautatzen dituen ala adjuntuak diren, eta (c) sailkapen semantikoa.

2.1. Adizlagunak eta aditzondoak

Euskaltzaindiak *EGLU* (1985) liburuan (baita 1993ko *EGL*-n ere) bi sail nagusi bereizten ditu adberbioen artean: adizlagunak eta aditzondoak.

(a) adizlagunak lekuzko kasu markaren bidez osatzen dira: *mailuaz, eskolara, Gorbea mendiraino*, edo bestela, posposizio baten bidez: *txostenari buruz, diru(rik) gabe*

(b) aditzondoak berez, inolako hizkirik erantsi gabe eta elementu autonomo bezala bete dezake adberbioaren zeregina: *beti, atzo, berandu*. *EGL*-n (447 or.) esaten denez, aditzondoak hiztegieta aurki daitezke forma beregaina dutelako, hots, flexiogabeak direlako, baina ez adizlagunak, hauek hizki baten beharra baitute adberbio funtzioa betetzeko. Definizio honen arabera, aditzondoek multzo berean sar genitzake aditzondo zeregina betetzen duten zenbait izenondo ere:²

(3) Amaia *argi/gogor/eroso* mintzatu da

Ohar bedi adibideko izenondoak *-a* determinatzailea (edo zenbaki komunztadura)³ ez agertzeak adberbioa dela erakusten duela, eta ez izenondoa.³ Edozein modutan, morfologian oinarritutako sailkapen honek gainontzeko hizkuntzetan Preposizio/Posposizio Sintagma (PospS) eta Adberbioen (Adb) arteko bereizketa ekartzen digu gogora. Bai bata zein bestea eskuarki osagai zirkunstanzialak dira, alegia, aditzak adierazten duen ekintza nolabait denbora edota leku jakin batean kokatzen laguntzen dutenak. Orohar esan daiteke adjuntuak direla, salbuespenak salbuespen (ikus hurrengo atala eta geroago 5.1 atalean moduzko adberbioei buruz dioguna). Beraz, aditzondo eta adizlagunen arteko bereizketa funtsean kategoriaren araberkoa da, alegia, adberbio zeregina betetzen duen delako sintagmaren ardatza posposizioa bal-

² Gai honetaz, ikus Zabala eta Odriozola (1994).

³ Ikus Zabala (1993) osagarri predikatiboetako *-a* marka zenbaki komunztadura delako argudioetarako. Ikus baita Artiagoitia (1997).

din bada, PospS baten aurrean gaudela esango dugu, eta bestela, Adb kategoriakoa dela esango dugu. Alabaina, funtzio bera (edo antzekoa) izan arren, aipatu beharra dago hizkuntza batzuetan adberbio zeregina duten PospS-ek distribuzio murriztagoa dutela adberbio hutsek baino, hau da, adberbioek ordenamendu are malguagoa erakusten dutela adberbio balioa duten PospS-ek baino. Ikerlan honetan nagusiki Euskaltzaindiak 'aditzondo' deritzen kategoriak izango ditut aztergai, bai eta *-ki* edo *-to* erator atzizkien bidez osaturiko adberbioak.⁴ Baina ez dut uste orohar aditzondoek adberbio funtzioa duten PospSek baino hurrenkera malguagoa azaltzen dutenik. Terminologiaz den bezainbatean, *adberbio* deituko diet guztiei.

2.2. Hautazkoak ala nahitaezkoak diren adberbioak

Gorago esan dut orohar adberbioak adjunktua gisa tratatu ohi direla aditzak ez baititu lexikoki hautatzen, eta ondorioz, ez dute zertan ageri behar perpausuan. Hau egia bada ere adberbio multzo handi baterako, badira nahitaezkoak diren zenbait adberbio, aditzak hala eskatzen duelako.⁵ (4)ean ematen ditut hauetako adberbio batzuk:

- (4) a. Edurne *(hemen) geldituko da
- b. Jonen bere lagunak *(gaizki) tratatzen ditu
- c. Zure amona *(dotore) janzen da

Parentesi artean doazen adberbioak kenduko bagenitu, esaldia herren geratuko litzateke, osatzeke balego bezala. Ez da horrelakorik gertatzen ondoko adberbioekin:

- (5) a. Joni (itxuraz) gaizki atera zaizkio kontuak
- b. Gure aitak (apurka-apurka) ingelesa ikasi du
- c. Josebak ariketak (oso gaizki) egin ditu

(4)ko esaldietan ez bezala, (5)eko perpausuetan adberbioa hautazkoa da, esan nahi baita, aditzaren egitura argumentala osatzeko informazioa eranstean duela, dela hiztunaren iritzia aditzera emanez, dela aditzaren ekintzaren modua adieraziz, baina informazio hori ez da beharrezkoa, gehigarria baizik. Zentzu honetan, adberbio hauek sintaktikoki adjunktua gisa jokatu behar dutela

⁴ Konparatu, esaterako, gaztelaraz adberbioak eratzeko erabiltzen den *-mente* atzizkia, frantsesezko *-ment*, edo ingelesezko *-ly* atzizkiak.

⁵ McConell-Ginetek (1982) *predicate adverbs* deritze adberbio hauei, eta Grimshaw eta Viknerek (1992) *obligatory adjuncts*.

esan daiteke. (4)ko adberbioen jokabide sintaktikoa, ordea, ez dago hain garbi. Nahitaezkoak diren heinean, ez dirudi adjunktuen ezaugarriak erakusten dituztenik, baizik eta osagarrien ezaugarriak. Ildo honetatik jotzen du McConell-Ginettek (1982) ere adberbio hauek aditzaren predikatu egitura ‘betetzen’ dutela dioenean, edo Alexiadouk (1997) *espezifikatzaile-adberbioak* (‘specifier-type adverbs’) eta *osagarri-adberbioak* (‘complement-type adverbs’) bereizketa sintaktikoa proposatzen duenean. (Ikus baita Larson 1988, Kayne 1994).

Beste posibilitate bat (4)ko adberbioak perpaus txiki baten predikatutzat hartzea litzateke, hainbat hizkuntzalarik *go to X* tankerako [PS-mugimendu aditza] egituretarako proposatu duten bezala (ik. besteak beste, Hoekstra 1984, Kayne 1984, den Dikken 1992):

- (6) a. My friends will go to the mountains
 b. [My friends_t will go [t to the mountains]]
 nire lagunak joango dira mendira
- (7) a. [Edurne hemen] geldituko da
 b. Jonek [bere lagunak gaizki] tratatzen ditu

Edozein delarik (4)ko egituren analisia ere, lan honetan hautazkoak diren adberbioak aztertuko ditut, hauek osatzen baitute multzorik zabalena, eta gainera, distribuzio aldetik interesgarriagoak dira hainbat kokagunetan ager daitezkeelako.

2.3. Adberbioen sailkapen semantikoa

Adberbioen zeregina modifikatzaileena izanik, tradizioan adberbioak bi multzo handitan banatu izan dira: batetik, perpaus osoa modifikatzen duten adberbioak (P(erpaus)-adberbioak), eta bestetik, Aditz Sintagma modifikatzen duten adberbioak (AS-adberbioak). Multzo bakoitzaren barruan, gainera, azpimultzoak bereizi ohi dira (ikus Jackendoff 1972, Bellert 1977, Ernst 1984, 1998):

- (8) *P-adberbioak*:
- (a) adberbio pragmatikoak: *zorionez*
 (b) loturazko adberbioak: *azkenik, gainera*
 (c) iritzizko adberbioak: *dirudienez, egia esan, egiazki*
 (d) adberbio modalak: *seguraski, agian*
 (e) subjektuari zuzenduriko adberbioak: *bortizki, nahita, zuhurki*
 (f) aditzaren gertakariarekin zerikusirik duten adberbioak:

- (i) denborazko adberbioak: *beranduago, berriro, dagoeneko*
- (ii) lekuzko adberbioak: *hemen, aurrean*
- (g) aspektuarekin zerikusia dutenak: *askotan, maiz, gutxitan*
- (9) *AS-adberbioak:*
 - (a) adberbio kuantifikatzaileak: *asko, nahiko, beti*
 - (b) moduzko adberbioak: *ondo/ongi, sutsuki, argiro*
 - (c) adberbio erresultatiboak: *zeharo, osorik*.

Azken adberbio hauek objektu zuzenarekin batera agertu behar dira, esan nahi baita, [aditza+objektu zuzena] multzoa modifikatzen dutela. *Pro-drop* ez diren hizkuntzetan, adberbio erresultatiborik egotekotan objektu zuzena derrigorrez agertu behar da perpausean, bestela esaldia ezgramatikal bihurtzen da:

- (10) a. The fire destroyed the hill near the village completely
- b. *The fire destroyed completely

Euskaraz, ezaguna denez, objektu zuzena isilean utz daiteke (beste argumentu biez gain), testuinguruak eta komunztadura morfologikoak laguntzen dutelarik isildutako elementuaren erreferentzia berreskuratzen. Ondorioz, (10b) adibideko euskarazko ordaina esaldi onargarria da, baldin eta alde zurretik suak kaltetu zuenaz badihardugu:

- (11) a. Atzo gaueko suteak herri alboko mendiska oso-osorik suntsitu zuen
- b. Atzo gaueko suteak oso-osorik suntsitu zuen

Esan beharra dago hona ekarri dudan sailkapen honek Jackendoffengandik (1972) datorren tradizioari jarraitzen diola, baina zenbait autorerendako (ikus Lonzi 1991, Larson 1988, Stroik 1990, Pesetsky 1995) denborazko adberbioak (eta agian lekuzko eta aspektuzko adberbioak ere) P-adberbioak baino, AS-modifikatzaile gisa aztertu behar lirarteke, autore hauen ustez aditzak adierazten duen predikatu-ekintzari berari egiten baitiote erreferentzia, eta ez perpaus osoari (zenbait argudio sintaktikoetarako, ikus aipatutako erreferentzietan). Haatik, Alexiadouk (1997), Costak (1998) eta Cinquek (1999) erakutsi dutenez, adberbio mota hauek ager daitezkeen kokagune sintaktikoei eta izan dezaketen besarkadurari erreparatzen badiegu, ez dago batere garbi zergatik ezin diren perpausaren modifikatzaileak izan. Izan ere, zentzu horretan P-adberbioen jokabide bera erakusten dute. Hala, lan honetan ohiko korronteari egokituko natzaio denborazko eta lekuzko adberbioak perpaus-adberbiotzat hartuz.

3. ADBERBIOEN KOKALEKUA PERPAUSEAN

Perpaus berean adberbio bat baino gehiago agertzen badira, nahitaezkoak diren bi baldintza bete behar dira: batetik, semantika aldetik klase edo mota berekoak diren bi adberbio ezin daitezkeela ageri, eta bestetik, ordena jakin bati errespetatzen dion hurrenkeran agertu behar dutela. Izan ere, Jackendoff (1972), Travis (1988) eta Sportiche (1988) aspaldian ohartu ziren honetaz. Autore hauen arabera, bada hizkuntzetan zehar adberbioen arteko ordenamenduan errepikatzen den hierarkia bat:

- (12) hiztunari zuzendutako adberbioa > subjektuari zuzendutako adberbioa > moduzko adberbioa

Ordena hau hautsiz gero, ezgramatikaltasunera joko genuke:

- (13) a. Probably John cleaned the room carefully
 b. Seguraski, Jonek gela arretaz/kontu handiz garbitu zuen
- (14) a. *carefully John probably cleaned the room
 b. ??arretaz Jonek seguraski gela garbitu zuen

Murrizketa hau beste hainbat hizkuntzatan aurkitzen dugu; beraz, pentsatzekoa da gertakari hau ez dela halabeharrezkoa, baizik eta iturburu 'unibertsala' duela, alegia, perpaus egituraren antolamenduarekin zerikusi zuzena duela. Hau frogatzeko, ondoren klase bakoitzeko adberbioak zein posiziotan ager daitezkeen aztertuko dugu.

3.1. P-adberbioak

(a) *Iritzi adberbioak*

Adberbio hauen zeregina esapideko predikazioari buruz hiztunak duen jarrera edo iritzia azaltzea da. Kokalekuari dagokionez, esapide buruan ez ezik, beste posiziotan ere ager daitezke:

- (15) a. seguraski, denok elkartuko gara
 b. zure arreba, seguraski, etorriko da
 c. zure arreba etorriko da seguraski

(b) *Subjektuari zuzendurikoak*

Hauek ere perpaus hasieran ez ezik, bukaeran joan daitezke, bai eta parentetikoki:

- (16) a. Ausartki, Jonek zure galdera zailari erantzun dio
b. Jonek, ausartki, zure galdera zailari erantzun dio
c. Jonek zure galdera zailari erantzun dio ausartki

Aditz multzoaren ezkerretara ere joan daitezke, (17)-n bezala, baina orduan adberbioaren irakurketa aldatu egiten da, moduzko adberbioaren adiera izatera pasatuz:

- (17) Jonek ausartki erantzun dio zure galdera zailari

Beste hizkuntza batzuetan ere mota honetako adberbioek anbiguitatea sor dezakete agertzen diren kokagunearen arabera, bereziki aditz partizipioaren aurrean doazenean. Hartu frantsesa, esaterako:

- (18) a. Jean a courageusement lu le livre de Chomsky (anbigua)
b. Jean a lu courageusement le livre de Chomsky (soilik modu adberbioaren adiera)

(Laenzlinger 1998)

Euskaraz, ikusi dugunez, aditz multzoaren aurre-aurrean joanez gero, modu adiera besterik ez du (ik. (17)). Anbiguitatea adberbioa *aditzaren ostean* agertzen denean gertatzen da:

- (19) Jonek zure galdera zailari erantzun dio ausartki
a. *Modu adiera*: 'Jonek galderari erantzun dio modu ausart batean'
b. *Subjektuak buruturiko ekintzari zuzenduriko modifikatzailea*:
'Ausarta da Jonek zure galderari erantzutea'

Hau da, frantsesez adberbioa aditzaren aurretik ageri denean —*S-Lag-Adb-A-O* ordenan—, irakurketa anbigua izan dezake, (18a)-n bezala, eta adberbioa aditzaren atzetik ageri denean, aldiz, modu adiera bakarrik du (ik. (18b)). Euskaraz alderantziz gertatzen da: adberbioa aditzaren aurrean doanean moduzko adiera izan dezake soilik (ik. (17)), eta anbigua da bi adieren artean aditzaren atzetik doanean (*S-O-A-Lag-Adb* ordenan) (ik. (19)). Geroago ikusiko dugunez, (ik. 4. atala), adiera bakoitza adberbioak bere besarkaduran duen osagaiarekin dago lotuta, eta azken hau o(sagai)-komandoarekin (ik. 4. atala). 6. atalean egingo dudan proposamena aurreratuz, (19) adibideak erakusten duen motako anbiguitatea ordena horrek bi deribazio posible izan ditzakeelako sortzen dela proposatuko dut.

(c) *Denbora-lekuzko adberbioak*:

Adberbio hauek ere perpaus hasieran, subjektuaren ostean edo aditzaren atzetik ager daitezke:

- (20) a. Atzo aitak hanka apurtu zuen
 b. Aitak atzo hanka apurtu zuen
 c. Aitak hanka atzo apurtu zuen (adberbioa fokoa da)
 d. Aitak hanka apurtu zuen atzo
- (21) a. Hemen hurrek lagunekin jolasten dute
 b. Hurrek hemen lagunekin jolasten dute
 c. Hurrek lagunekin hemen jolasten dute (adberbioa fokoa nahitaez)
 d. Hurrek lagunekin jolasten dute hemen

(d) *Aspektuzko adberbioak*

- (22) a. Askotan geuk ere lana egin behar izaten dugu
 b. Geuk ere askotan inoren lana egin behar izaten dugu
 c. Geuk ere inoren lana askotan egin behar izaten dugu
 d. Geuk ere inoren lana egin behar izaten dugu askotan

Gogoratu lehen aipatu duguna aspektuzko adberbioen sailkapenaren gainean. Autore batzuren ustetan (Lonzi 1991, Larson 1988, Alexiadou 1997), *askotan/maiz* tankerako adberbioak AS-adberbioak dira. Baina orduan ez da erraza azaltzen nola den posible adberbioak (22 a,b,d) adibideetan perpaus osoaren gainean besarkadura izatea. Izan ere, AS-adberbioen kasurik prototipikoenetan adberbioak, nahiz eta perpaus hasieran agertu, ezin du perpaus osoa modifikatu, zati bat bakarrik baizik (alegia, AS). Beraz, hipotesirik sinpleenak aspektuzko adberbioek P-adberbio gisa joka dezaketela esatea dirudi, ohiko tradizioari jarraituz (ikus Jackendoff 1972, baita Laenzlinger 1998).

3.2. AS-adberbioak

Adberbioak AS-ri adjunktatuta daude, eta horregatik normalean ez dira perpaus hasieran edo bukaeran ageri ohi, baizik eta AS-ren eremuan. Hona hemen adibide batzuk:

(a) *Adberbio kuantifikatzaileak*

- (23) a. *asko Asierrek bi asignatura horiek ikasi ditu
 b. *Asierrek asko bi asignatura horiek ikasi ditu
 c. Asierrek bi asignatura horiek asko ikasi ditu
 d. ??Asierrek bi asignatura horiek ikasi ditu asko

(b) [Aditza+osagarria] modifikatzen duten adberbioak

- (24) a. *osorik Jonek zure liburua irakurri du
 b. *Jonek osorik zure liburua irakurri du
 c. Jonek zure liburua osorik irakurri du
 d. Jonek zure liburua irakurri du osorik

(c) Moduzko adberbioak

Moduzko adberbioek aditzarekiko lotura estua erakusten dute bai sintaktikoki zein semantikoki; izan ere, bere zeregina aditzaren ekintza (modua edo era) modifikatzea baita (Ik. EGLU 1, Osa 1990, besteak beste). Horretara, etenaldi barik eta intonazio multzo berean ahoskatuz gero, (25a-b)ko esaldiak ez dira onargarriak, moduzko adberbioa adizetik urrun ageri baita:

- (25) a. *Txarto margolari horrek bere kuadroak saltzen ditu
 b. ?? Margolari horrek txarto bere kuadroak saltzen ditu
 c. Margolari horrek bere kuadroak txarto saltzen ditu
 d. Margolari horrek bere kuadroak saltzen ditu txarto

Ordena ezmarkatua (25c) da, Osak (1990) ohartzen duenez. Bere aipua ekarriko dut hona aztertzen ari garenarentzat argigarria iruditzen zaidalako (Osa 1990:129): “Osagarrien artean moduzko elementu adberbial bat tarteko bada, elementu horrexek eta ez bestek joan beharko du aditzaren ezkerralde hurbilenean, perpausa testualki markatua gerta ez dadin. Objektu zuzenik edo izen predikatiborik tarteko egonez gero, moduzko adberbioari utzi beharko dio posizio hori. Hiru elementuen artean lehentasuna ezartzerakoan, lehen posizioa moduzko adberbioak, bigarrena osagarri predikatiboak eta hirugarrena osagarri zuzenak beteko lukete.” Mailaketa honek azalduko luke zergatik (25a) eta (25b) ez diren onargarriak.

Ohartu beharra dago deskripzio honek soilik moduzko adiera duten adberbioentzat balio duela (*ondo* motakoak, alegia). Hala ere, lehenago ikusi dugunez, zenbait adberbiok moduzko zein subjektuari zuzenduriko adierak izan ditzakete agertzen diren kokagunearen arabera (ik. (18), (19)). Kasu haue-tan adberbioak (25a-b)ko ordenan ager daitezke, baina orduan adberbioek moduzkoa ez den adiera izango dute nahitaez, (16a-b)n ikusten genuen bezala (hemen errepikatutik):⁶

⁶ Adibideetan ageri den # ikurrak esapidari eman nahi zaion esanahiaren desegokitasuna adierazi nahi du.

- (26) a. Ausartki, Jonek zure galdera zailari erantzun dio
 b. Jonek ausartki zure galdera zailari erantzun dio
 # I. *Modu adiera*: ‘Jonek galderari erantzun dio modu ausart batean’
 I. *Subjektuari zuzenduriko adiera*: ‘Ausarta da Jonek zure galderari erantzutea’


4. ADBERBIOEN ZILEGITZEA

4.1. Interpretazio Semantikoaren Hatsarrea


Orain arte ikusi dugunaren arabera, adberbio batzuk posizio askotan ager daitezkeen bitartean, beste batzuek, aldiz, aditzari lotuta azaldu behar dute. Distribuzio honen atzean adberbioak zilegi egiten dituen prozesu sintaktikoa dago. Analisia aski soila da: eman dezagun adberbioak islapen gorenak direla (Barbiers 1995, Alexiadou 1997, Cinque 1999). Eman dezagun, halaber, kualifikazio edo modifikazio harreman semantikoak bitarrak direla, alegia, erlazio estuan dauden bi elementuren artean ezartzen direla, Barbiersek (1995) proposatutakoari jarraiki. Ikerlari honen arabera, egitura sintaktiko guztiak interpretagarriak izan behar dira, eta era berean operazio sintaktiko guztiek interpretazio jakin bat lortzeko asmoz burutzen dira. Beste hitzetan esateko, Barbiersek proposatzen duena da edozein mugimendu sintaktikoren funtsa interpretazioa lortzea dela. Egitura interpretagarriak arautzen dituen hatsarrea *Interpretazio Semantikoaren Hatsarrea* da, behean emana, eta (28)-an irudikatua:⁷

- (27) Interpretazio Semantikoaren Hatsarrea (ISH)
- (i) Z adabegiak X eta Y adabegien artean erlazio-S(emantikoa) ezartzen du baldin eta X-ek Z zuzenean o-komandatzen badu eta Z-k Y zuzenean o-komandatzen badu
 - (ii) Z adabegia Y-ren *kualifikatzailea* (modifikatzailea) da baldin eta Z-k X eta Y-ren artean erlazio semantikoa ezartzen badu, eta baldin eta X eta Y indizekideak badira

⁷ (28)ko diagraman bi ZS ageri dira; behekoak Z buruak bere osagarriarekin batera (holakorik izatekotan, behintzat) osatzen duen osagaiari egiten dio erreferentzia, eta goragoko ZS-a osagai horri espezifikatzaile bat itsasten zaionean osatzen den sintagma da. Chomsky (1995) aurreko lanetan buruak eta bere osagarriak osatzen duten multzoa X' gisa irudikatzen zen, baina egun oso hedatua den ideiarekin arabera, kategoriak bakunak dira (X^o mailakoak) islatzen edo hedatzen ez badira, edo bestela XS motakoak, buruak bera baino handiago den osagaia islatzen badu. Ildo honetatik, (28)ko irudikapenean bai ZS zein ZS* islapen gorenak dira.



(28)ko irudikapena aztertzen ari garen edozein adberbiori ezar daskioke. Esaterako, eman dezagun ZS adabegia *gaur* adberbioa dela, eta Denb(ora) S(intagma)ri (XS* goiko diagraman) atxikitzen zaiola, (29)n erakusten denez:



ISH-ren ildotik, *gaur* adberbioa DenbS-ren modifikatzaile gisa interpreta dezagun, adberbioak bere argumentu semantikoaren eta erreferentzia bera duen beste elementu baten artean ezarri behar du modifikazio erlazio semantikoa, erlazio semantikoak bitarrak baitira, lehen aipatu dugunez. Horretarako, DenbS-k adberbioa bera zuzenean o-komandatu behar du, eta azken honek DenbS-ren kopia edo aztarna, honek DenbS-ren indize bera baitu (ik. (27ii)). Bistan denez, (29)ko irudikapen sintaktikoak ez du lekurik uzten erlazio semantikoa gauza dadin, adberbioak bere argumentua o-komandatu arren, (argumentuaren indize bera duen) ezerk ez baitu adberbioa o-komandatzen. Arazo honi aurre egiteko, Barbiersek modifikatzailearen ‘barneranzko mugimendua’ (*XP Intraposition*’ bere hitzetan) proposatzen du, bereziki, modifikatzailearen espezifikatzailearanzko mugida. Hau da, hain zuzen ere, (28)n daukaguna. Diagrama horretan ikus daitekeenez, adberbioaren argumentu semantikoa (DenbS=XS irudikapenean) adberbioaren espezifikatzaile gunera mugitu da, kopia bat hutsiz jatorrizko gunean. Egitura honen bidez adierazi nahi dugun modifikazio erlazioaren berri eman ahal dugu, ISH-ak agintzen duenez. Izan ere, (28)n DenbS-k adberbioa zuzenean o-komandatu du, eta honek DenbS-ren kopia.

Proposamen honen arabera, badirudi adberbioaren argumentu semantikoaren mugida nahitaezkoa dela ISH-a betetzeko. Hala ere, argi dago bai *adberbioa-DenbS* zein *DenbS-adberbioa* kateak direla posible:

- (30) a. gaur irakasle berria etorri da
 b. irakasle beria etorri da gaur

Barbiarsen argudioa gurea eginik, modifikatzailearen barneranzko mugimendua *azaleko syntaxian* ala *isileko syntaxian* (Forma Logikoan, alegia) buru daitekeela esango dugu, Chomskyk (1993) proposatzen duenaren ildotik.

4.2. Bestelako proposamenak: Adberbioak islapen funtzionalen espezifikatzaile gunean

Lan honetan erabiliko ez ditudan arren, Alexiadouren (1997) eta Cinqueren (1999) proposamenak aipatu nahi ditut, azaletik bada ere, beren analisisiek oihartzuna izan baitute zenbait hizkuntzalariren lanetan. Bi hitzetan esateko, ikerlari hauek adberbio bakoitza islapen funtzional baten espezifikatzaile gunean sortzen dela proposatzen dute, lexikotik datozkion tasunekin, eta tasunok zilegi egiteko islapen funtzional horren buruarekin erkatu behar dituela. Ikusmolde honek zenbait arazo ditu nire ustez: alde batetik, Cinquek adberbio bakoitzarentzat proposatzen duen islapen funtzionalentzako ebidentzia urria daukagu. Cinquek proposatzen duen perpaus egitura unibertsal baldin bada, berak argudiatzen duen bezala, islapen funtzional horien aldeko ebidentzia aurkitzea oso zaila bihurtzen da hizkuntzaz hizkuntza. Beste alde batetik, gainera, baldin eta adberbioek posizio bakarra badute adjunktatzeko (dagokien islapen funtzionalaren espezifikatzailea, alegia), nola azal daiteke adberbio batzuk posizio baten baino gehiagotan agertu ahal izatea? Ez hori bakarrik, lehen ikusi dugunez (ik. 3.1(b)), adberbio batzuren interpretazioa aldatu egiten da kokagunearen arabera (*ausartki* klasekoak), baina beste batzuen, aldiz, ez, (31) portugesearen adibideak erakusten duenez (Costaren (1998:27) lanetik hartua):

- (31) (provavelmente) O Paulo (provavelmente) tinha (provavelmente) lido (provavelmente) o livro (provavelmente) à Maria (, provavelmente) (seguraski) Pablok (seguraski) irakurri (seguraski) zuen (seguraski) liburua (seguraski) Mariari (seguraski)


Adberbioak beti leku berean adjunktatzen badira, (31) adibideak erakusten dituen adberbioaren kokagune anitzak arazotsu suertatzen dira, ez badugu esan nahi perpausoko bestelako elementuak direla adberbioaren inguruan aukeran mugitzen direnak. Baina horrek ez luke arazoa konponduko, gaiztotu baino, zeren eta orduan azaldu egin beharko genuke zergatik ez ditugun aurkitzen (31)k erakusten dituen posibilitate guztiak adberbio guztiekin.

4.3. Adberbioen besarkadura

2.3 atalean adberbioak modifikatzen dituzten argumentuen arabera sailkatzen direla ikusi dugu (ikus (8)-(11) gorago), eta, Barbiensen analisia hartuz, modifikazio harreman hori gauzatzeko, adberbioak bere argumentua (edo honen kopia) zuzenean o-komandatu behar duela onartu dugu. Adberbioak adjuntuak izanik, zenbait adberbio posizio batera baino gehiagotara adjunktatu ahal izango dira baldin eta posizio horretan bere besarkadura beharrak betetzen badira (ikus Ernst 1998).⁸ Beraz, P-adberbioak, perpausaren modifikatzaileak diren heinean, perpausaren goreneko sintagmetara adjunktatzen dira (alegia, KonpS, DenbS eta agian LagS-ra) eta o-komandope zuzenean dauden osagaien gainean daukate besarkadura. Era berean, AS-adberbioak AS-ren eremuan adjunktatzen dira (hots, AS-ra edo AS barruko islapen batera), modifikatzen duten osagaiaren arabera. Moduzko adberbioak, esaterako, aditza modifikatzen dutenez, ezin dira aditzetik urrun ageri; horra hor zergatik (25a-b) ez diren perpaus onargarriak. Beheko eskeman laburbiltzen ditut adjunkzio gune posibleak:⁹

⁸ Cinquek (1999) ere *maiz* motako adberbioa bi posizio desberdinetan ager daitekeela onartzen du: edo AS-ra adjunktaturik, edo goragoko islapen funtzional bati adjunktaturik. Kontua da bere iritziz posizio bakoitzari besarkadura bat dagokiola, hau da, berak ez du onartzen adberbio batek adjunkzio gune bat baino gehiago izaterik horrek ez badu esanahi aldaketarik ekartzen berarekin. Hala ere, gogoratu (31) adibideaz genioena.

⁹ (32)ko irudikapen sintaktikoak euskararen perpaus egiturari buruzko hainbat asuntzio eginen ditu (ikus Elordieta 2001, bereziki, bigarren kapitulua): batetik, euskara SOA hizkuntza dela, eta bestetik, kategoria funtzionalak buru-lehenak direla. Irakurleak aipaturiko lane-ra jo dezake egitura honen aldeko argudioen bila.



Hau horrela izanik, esaldi berean adberbio bat baino gehiago agertuz gero, adberbio bakoitzaren besarkadura beharrak errespetatzen diren heinean agertu beharko dira, bestela esapideak ez dira onargarriak izango:

- (33) a. *Ikasleek azkar seguraski azterketa bukatuko dute
 b. seguraski ikasleek azterketa azkar bukatuko dute

Goiko adibideetan *seguraski* perpaus mailako adberbioa da, eta *azkar* AS-adberbioa. (33a) adibidean *azkar* adberbioaren betebeharrak semantikoak urratuz gelditzen dira P-adberbioa duelako bere besarkaduraren barruan, eta beraz, ezin du AS modifikatu, beste adberbioak oztopatzen baitio bidea. (33b)n aldiz, adberbio bien betebeharrak semantikoak errespetatzen dira, eta, ondorioz, perpausa onargarria da.

5. ADITZAREN MUGIMENDUA

5.1. Moduzko adberbioak eta aditzaren mugimendua

Esan duguna aintzat harturik, kontraesana dirudi moduzko adberbioak aditzaren ostean ere agertu ahal izateak (ik. (34)), azaleko posizio horretan ez baitu aditza zuzenean o-komandatzen, eta hortaz, ISH-ren arabera (ik. (27)), ezin izango genuke aditzaren modifikatzaile gisa interpretatu:

(34) Margolari horrek bere kuadroak saltzen ditu txarto

Ohar bedi kasu honetan perpausa “markatua” adierazten du informazio aldetik, esan nahi baita, ordena horretan esapidea ez dela testualki neutroa, baizik eta elementu bat foko izatera behartzen duela derrigorrez (eta beste bat(zuk) informazio zahar gisa ulertzea). Hortara, goiko adibidean moduzko adberbioak informazio ezaguna edo alde aurretik emana adierazten du, eta objektua foko gisa interpretatzen da. Honetan moduzko adberbioek eta bestelako adberbioek desberdin jokatu dute, azken hauek aditzaren ostean agertu arren perpausak ez duelako bere neutraltasuna galtzen. Hau erakusteko, (34)-ko moduzko adberbioaren interpretazioa (15c), (20c), eta (22d) adibideetako adberbioekin erkatu besterik ez daukagu ((35)-n errepikatutik ematen ditut):

- (35) a. zure arreba etorriko da seguraski
 b. Aitak hanka apurtu zuen atzo
 c. Geuk ere inoren lana egin behar izaten dugu askotan

Goiko perpausak kontestu neutroetan adieraz daitezke, eta adberbioek informazio berria adieraz dezakete, gainontzeko perpausako elementuekin batera. (34)n, berriz, aditz osteko adberbioak ezin du informazio berria adierazi. Izan ere, bere *berezko* egongunea aditzaren ezker aldean hurbilenean da, Osak (1990) ohartarazi zuenez. Horregatik egongune horretatik kanpo agertzen denean esaldia informazio aldetik markatuta geratzen da, beherago azalduko dugun zentzuan. Bestalde, are interesgarriago dena, gertakari berdina aurkitzen dugu beste hizkuntza askotan. Bellettik (1990) eta Costak (1998) erakutsi bezala, silababakarreko eta bisilabatako moduzko adberbio gehienak —*bene, mal*— Aditz Sintagmaren mugarririk dira, eta ezin dute perpaus bukareran ez eta aditzaren aurretik ageri ez bada azentu berezi eta nabarmenaz ahoskatzen direnean, alegia, fokoa direnean:

- (36) a. John looked at those pictures *hard/HARD
 b. *John hard looked at those pictures
 c. John looked hard at those pictures
 Jonek begiratu-zien gogor argazki horiei

Moduzko adberbioak AS-ren mugarriak badira, (36c)k erakusten duen hitzordenak aditza adberbioaren ezkerretara mugitu dela proposatzera eramaten gaitu (ikus Emonds 1978, Pollock 1989, Belletti 1990, Laenzlinger 1998, Costa 1998 eta Cinque 1999), (37)an irudikatzen denez:

(37) John looked_a [AS hard [AS t_a at those pictures]]

Izan ere, (36b)ren ezgramatikaltasunak aditzaren mugimendua beharrezkoa dela esatera eramaten gaitu, ingelesari dagokionez, behintzat. Gauza bera ondoriozta dezakegu Preposizio Sintagmaren ordez DetS dagoenean, nahiz eta adberbioaren kokapena aldatu egiten den:

(38) a. John threw the ball hard/HARD

John bota.zuen pilota gogor

b. *John hard threw the ball

c. *John threw hard the ball

(38a)-n adberbioa osagarri zuzenaren atzetik ageri da, baina PrepSren aurretik (36c)n. Hala ere, edozein kasutan aditzaren atzetik agertu behar da, (36b) eta (38b)n ikus daitekeenez. Honen aurrean, Costak proposatzen du (38a)n aditzaren mugimenduaz gain osagarri zuzena ere mugitu egin dela, bere kasu tasunak erkatu behar dituelako:¹⁰

(39) John threw_a the ball_o [AS hard [AS t_a t_o]]

Aitzitik, adberbioek eta Preposizio Sintagmek ez daukate kasu tasunik ez bestelako tasun morfologikorik erkatzeko, eta ondorioz, ez dira mugitzen, *in-situ* gelditzen dira.

Beraz, ikusten dugunez, moduzko adberbioen kokagune sintaktikoa arras garrantzitsua suertatzen da aditzaren edo beste argumenturen mugimendua frogatzeko. Hurrengo azpisailean adberbio hauek euskaraz daukaten jokabidea aztertuko dut, euskaraz ere aditza mugitu egiten dela frogatzeko.

¹⁰ Deribazio honetan ez dut esaten nora mugitzen diren aditza eta osagarri zuzena, auzi hau ez baita garrantzitsua lan honetan aztertzen ari garen gairako. Aipa dezadan, hala ere, ingelesez aditza Denbora burura mugitzen dela proposatu izan dela (ik., besteak beste, Pollock 1989, Belletti 1990, Costa 1998), eta osagarri zuzena kasuarekin zerikusia duen islapen funtzional baten espezifikatzaile gunera (ikus Mahajan 1990, Chomsky 1993, Branigan & Collins 1993).


5.2. Moduzko adberbioak eta fokoa

Aurreko atalean ikusi dugu ingelesez *ondo* motako moduzko adberbioek kokagune desberdinak erakusten dituztela Determinatzaile Sintagma batekin ala Preposizio Sintagma batekin ageri. Haatik, euskararen kasua aztertzen badugu, datuak bestelakoak dira, alegia, ez dago osagarriaren kategoriaren araberrako asimetriarik (konparatu (40a-b) goiko (36c) eta (38a) adibideekin):

- (40) a. Josuk kimikako azterketa txarto egin du
 b. Athleticek Barcelonaren kontra txarto jokatu du
 c. ??Athleticek txarto Barcelonaren aurka jokatu du¹¹

Euskara aditza-azken duen hizkuntza dela aintzat harturik, adberbioa AS-ren ezkerretara adjunktaturik balego, (40c) eta ez (40b) espero genuke perpaus onargarria izatea, ingelesezko adibideak azaltzeko erabili dugun argudio bera-
 gatik, hots, Posposizio Sintagmek ez dutelako Aditz Sintagmatik kanpo zertan mugitu behar. Baina kontrara, alderantzizko datuak ateratzen dira: adberbioa bai DetS-ren zein PospS-ren atzean agertu behar da, aditzaren ezker ondoan. Moduzko adberbioa AS-ri adjunktatuta badago, ingelesez ikusten dugun asimetria bera euskaraz ere aurkitzea espero izango genuke, datuek kontrakoa erakusten duten arren. Beraz, datu hauen aurrean, beste proposamen bat egin beharrean aurkitzen gara. Zehazki, moduzko adberbio hauek aditzaren osagarri gisa aztertzea proposatuko dut (ikus Larson 1985, 1988, Kayne 1994). AS-azalaren egitura hartuz (ikus Larson 1988, Chomsky 1995), adberbio hauek behegoko aditzaren osagarri gunean sortzen dira, eta DetS eta PospS-ak beheko aditz sintagmaren espezifikatzaile gunean, (41)en irudikatzen denez:

¹¹ (40c) adibidea ez da onargarria intonazio neutro batekin ahoskatuz gero. Hala ere, adberbioaren ostean etenaldi bat eginez gero, esaldia onargarria izan daiteke. Guri hemen esapide neutroak (ez markatuak) interesatzen zaizkigu, hauek direlako erabakiorrak test sintaktikoak erabiltzerakoan. Beraz, (40c) ez onargarritzat joko dugu.



Analisi honek zuzenean azaltzen du zergatik ez dugun asimetriarik aurkitzen moduzko adberbioen eta aditzak azpikategorizaturiko DetS eta Posp Sintagmen arteko hurrenkeran. Objektu zuzena funtzioa duen DetS bere kasu tasunak erkatzeko AS-tik kanpo mugitzen dela onartzen badugu ere, moduzko adberbioa beti agertuko da atzean, honen oinarritzko egongunea aditzaren ezkerondoan delako¹²

Beste alde batetik, analisi honek garrantzitsua den beste gertakari baten berri ematen digu: hain zuzen ere, moduzko adberbioek foko izateko joera erakusten dutela (cf. Osa 1990). Har dezagun (40a) adibidea berriz. Perpaus honek gutxienez bi interpretazio onartzen ditu: interpretazio baten arabera, perpausa neutroa da, hots, perpaus osoak adierazten du informazio berria, baina beste irakurketa bat ere posible da, non moduzko adberbioa bera bakarrik den fokoa. Cinqueri (1993) jarraiki, Elordietak (2001) informazio fokoa (*information focus*) *in-situ* ezartzen dela proposatzen du, baldin eta foko gisa interpretatzen dugun osagaia perpaus egituran beheren edo menpekoen dagoena bada eta aditzaren aurre aurrean agertzen bada.¹³ Hau nola betetzen den ikusteko, jo dezagun berriz (40a) adibidera. (41)eko errepresentazio sintaktikoaren arabera, moduzko adberbioa da menpekoen dagoen osagaia, eta aditzaren ezkerretara agertzen da. Beraz, *berezko* duen tokian bertan jasotzen du foko irakurketa. Horrela azaltzen dugu errazki zergatik erakusten duten moduzko adberbioek foko izateko joera.

¹² Ergatibo, absolutibo eta datibo kasuak daramatzaten Determinatzaile Sintagmen kasuen zilegiztapenerako, ikus Elordietak 2001 (bereziki, 2. kapitulua). Beste proposamen interesgarrietarako, ikus baita Fernandez 1997.


¹³ Lan honekiko murriztapenak direla eta, ezin ditut analisi honen aldeko argudio eta ondorioak hemen azaldu. Azterketa sakonagoa nahi izanez gero, irakurleak aipaturiko erreferentziara jo dezake (Elordietak 2001).

Bestalde, moduzko adberbioak aditzaren osagarri gunean sortzen direla onartzen badugu, berauen kokagunea erabakigarria izango da aditza mugitu den ala ez jakiteko. Hau da, ordena neutroa *Subjektua-Objektua-moduzko adberbioa-aditza* izanik (ik. de Rijk 1969 eta ondorengoko lanak), *Subjektua-objektua-aditza-adberbioa* hurrenkera aurkitzen badugu, (34) adibidean bezala (behean errepikaturik, (42)n), aditza adberbioaren ezkerretara mugitu dela ondorioztatuko dugu:

(42) Margolari horrek bere kuadroak [saltzen ditu]_a txarto t_a

Mugimendu honen helburua objektua foko gisa interpretatzea da (cf. Elordieta 2001). Izan ere, moduzko adberbioa perpausean ageri bada, hurrenkera ezmarkatuan objektuak ezin du fokoa izan adberbioaren berezko lekua aditzaren aurrean delako, eta beraz, moduzko adberbioak foko izateko bidea oztopatzen dio, euskaraz foko aditzaren aurre aurrean joan ohi delako. Hala ere, aditza adberbioaren ezkerretara mugituz gero, (42)n bezala, objektua perpauseko foko bihurtuko da, nahi dugun bezala.

Kontuan izan (42) adibidean *txarto* adberbioak aditza modifikatzen duela, nahiz eta ez duen zuzenean o-komandatzen. Hala ere, (43)ko irudikapen sintaktikoak erakusten duenez, egitura honek Interpretazio Semantikoa-ren Hatsarria betetzen du (ik. (27) goian), aditzak *txarto* o-komandatzen baitu, eta honek mugitu den aditzaren kopia isila:



Beraz, euskaraz ere aditza mugitu egiten dela ondoriozta daiteke, arrazoiak fokoarekin zerikusi zuzena dutelarik.

6. ZENBAIT ADBERBIOK SORTZEN DUTEN ANBIGUITATEA


3. atalean ikusi dugunez, zenbait adberbio anbiguoak izan daitezke bi adieren artean aditzaren ostean agertzen direnean. *Ausartki* da mota honetako adberbioa:

- (44) Jonek zure galdera zailari erantzun dio ausartki
 a. *Modu adiera*: ‘Jonek galderari erantzun dio modu ausart batean’
 b. *Subjektuak buruturiko ekintzari zuzenduriko modifikatzailea*:
 ‘Ausarta da Jonek zure galderari erantzutea’

Ausartki adberbioak moduzko adiera duenean, *txarto* bezala jokatzen du, alegia, aditzaren modifikatzailea da eta egitura sintaktikoan aditzaren ahizpa da. Horrela, (44)ko hurrenkera deribatuzeko analisisik sinpleena aditza adberbioaren gaineratik mugitu dela esatea dateke, objektua fokalizatuzeko asmoz, aurreko atalean azaldu dugun moduan:

- (45) Jonek zure galdera zailari erantzun dio_a ausartki t_a

Bigarren adieran, aldiz, adberbioak subjektuak burutu duen ekintza osoa modifikatzen du, beraz, perpaus mailako adberbioa da. ISH-ren baldintzei jarraituz, bere besarkadura beharrak zilegi egiteko, adberbioa perpausaren ezker aldean adjunktatzen da, eta gero, perpaus osoa mugitzen da adberbioaren espezifikatzaile, lortu nahi dugun interpretazioa posible egiteko (ikus (27) eta (28) gorago):



Hortaz, (44) adibideko hurrenkera bi deribazio posible ditu, eta hortik dator bere anbiguitatea: (a) modu adiera duenean, adberbioa moduzko adberbioa da eta AS barruan sortzen da (44a); (b) bigarren interpretazioa duenean, oster, adberbioa perpausaren adjunktua da, eta ondorioz, gorago sortzen da (44b).

7. ONDORIOAK

Ikerlan honetan klase desberdinetako adberbioak aztertu ditut. Adberbioak modifikatzen duten osagaiaren arabera sailkatzen dituen irizpidea erabiliz, adberbioak esapidetan non ager daitezkeen eta non ez ikertu dugu.

Azterketaren ondoren atera ditugun ondorioetarik bat da adberbioen arteko hurrenkera ez dela askea, baizik eta hierarkia bati jarraitzen diola. Haatik, hierarkia hau ez dator adberbioak islapen funtzional zehatz baten espezifikatzaile gunean daudelako, eta ondorioz, kategoria funtzionalen arteko hierarkia sintaktikoari jarraitu behar diotelako, Alexiadouk (1997) eta Cinquek (1999) proposatzen duten moduan. Aitzitik, hierarkia hori adberbio bakoitzaren besarkadura errespetatu beharrari egotzi behar zaio. Adberbioen besarkadura adberbioek modifikatzen duten argumentuaren arabera zehazten da. Beraz, adberbio batek aditza edo Aditz Sintagma barruko osagai bat modifikatzen badu, ASren eremuan adjunktatuko da eta o-komandopean dauden osagaien gainean izango du besarkadura. Perpaus osoa modifikatzen duten adberbioak, ordea, gorago adjunktatzen dira, eta ezin izango dute AS-adberbioak baino behe-rago agertu egitura sintaktikoan, perpausaren modifikatzaile gisa interpretatu nahi baditugu.

Bestalde, moduzko adberbioen jokabideak euskaraz aditz multzoa mugitu egiten dela proposatzera eraman gaitu. Gainontzeko adberbioek ez bezala, moduzko adberbioek murriztapen zorrotzagoa erakusten dute ager daitezkeen kokalekuari dagokionez, eta ezaugarri honek perpausoko beste elementuen mugikortasuna frogatzeko laguntzen du. Zehazki, moduzko adberbioak aditzaren ahizpak direla proposatu dugu, eta proposamen honek, aditzaren mugimendua frogatzeaz gain, fokoarekin loturik dauden zenbait gertakarien berri ematen duela erakutsi dugu.

Azkenik, perpaus mailako adberbioak perpaus hasieran zein perpaus bukaeran ager daitezkeela ikusi dugu, interpretazio aldetik inolako aldaketarik eragin gabe. Barbiersen (1995) analisiari jarraiki, bi hurrenkerak deribazio bereko bi aurpegiak direla proposatu dugu. Kasu batean adberbioaren argumentu semantikoa (hots, perpausa) *in-situ* dago, eta adberbioa perpausari adjunktaturik dago (ikus (29) gorago). Beste kasuan, –ontzat harturik adberbioek islapen nagusia islatzen dutela– perpausa adberbioaren espezifikatzaile mugitu da modifikazio harremana interpretagarria izan dadin (ikus (46)). Bien arteko aldea, bada, perpausaren mugimendua Forma Logikoan (29) ala azaleko syntaxian (46) burutzen den litzateke.

AIPU BIBLIOGRAFIKOAK

ALEXIADOU, A. 1997. *Adverb Placement. A Case Study in Antisymmetric Syntax*. Linguistik Aktuell 18, Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins.

ARTIAGOITIA, X. 1997. "DP predicates in Basque". In A.Taff (arg.) *Working Papers in Linguistics*, vol.15, Seattle: University of Washington, 161-198.

BARBIERS, S. 1995. *The Syntax of Interpretation*. Tesi doktoralak, HIL-dissertation Series, 14. The Hague: Holland Academic Graphics.

BELLERT, I. 1977. "On the Semantic and Distributional Properties of Sentential Adverbs". *Linguistic Inquiry* 7, 337-351.

BELLETTI, A. 1990. *Generalized Verb Movement*. Rosenberg & Sellier, Torino.

CHOMSKY, N. 1993. "A Minimalist Program for Linguistic Theory". In K. Hale & S. Keyser (arg.) *The View from Building 20*: Cambridge, Mass: MIT Press, 1-58.

CHOMSKY, N. 1995. *The Minimalist Program*. Cambridge, Mass: MIT Press.

CINQUE, G. 1993. "A Null Theory of Phrase and Compound Stress". *Linguistic Inquiry* 24, 239-298.

CINQUE, G. 1999. *Adverbs and Functional Heads. A Crosslinguistic Perspective*. Oxford: Oxford University Press.

COSTA, J. 1998. *Word Order Variation*. Tesi doktoralak. LOT dissertation Series 14, Utrecht.

DEN DIKKEN, M. 1992. *Particles*. Tesi doktoralak. HIL dissertation, University of Leiden.

ELORDIETA, A. 2001. *Verb Movement and Constituent Permutation in Basque*. Tesi doktoralak, University of Leiden. LOT dissertation Series 47, Utrecht.

EMONDS, J. 1978. "The verbal complex of V'-V in French". *Linguistic inquiry* 9, 151-175.

ERNST, T. 1984. *Towards an Integrated Theory of Adverb Position in English*. Bloomington, IN: IULC.

ERNST, T. 1998. "The Scopal Basis of Adverb Licensing". Tamanji, P.N. eta K. Kusumoto (arg.) *NELS* 28, 127-142.

EUSKALTZAINDIA. 1985 *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I*. Iruñea: Euskaltzaindia.

EUSKALTZAINDIA. 1993. *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*. Bilbo: Euskaltzaindia.

FERNANDEZ, B. 1997. *Egiturazko kasuaren erkaketa euskaraz*. EHU-UPVko doktorego tesia. EHU-UPV Argitalpen Zerbitzua, Leioa.

GRIMSHAW, J. eta S. VIKNER. 1992. "Obligatory Adjuncts and the Structure of Events". In E. Reuland eta W. Abraham (arg.) *Knowledge and Language II: Lexical and Conceptual Structure*. Dordrecht: Kluwer, 145-159.

HOEKSTRA, T. 1984. *Transitivity. Grammatical Relations in Government-Binding Theory*. Dordrecht: Foris.

IATRIDOU, S. 1990. "About AgrP". *Linguistic Inquiry* 21, 551-577.

JACKENDOFF, J. 1972. *Semantic Interpretation in Generative Grammar*. Cambridge, Mass: MIT Press.

KAYNE, R. 1984. *Connectedness and Binary Branching*. Dordrecht: Foris.

—1994. *The Antisymmetry of Syntax*. Cambridge, Mass: MIT Press.

LAENZLINGER, C. 1998. *Comparative Studies in Word Order Variation*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins.

LARSON, R. 1985. "Bare NP Adverbs". *Linguistic Inquiry* 16, 595-621.

—1988. "On the Double Object Construction". *Linguistic Inquiry* 19, 335-391.

LONZI, L. 1991. "Il Sintagma Avverbiale". In L. Renzi & G. Salvi (arg.) *Grande Grammatica italiana di Consultazione II*. Torino: Rosenberg and Sellier, 341-412.

MAHAJAN, A. 1990. *The A/A-bar distinction and Movement Theory*. Tesi doktoral, MIT.

MCCONELL-GINET, S. 1982. "Adverbs and Logical Form". *Language* 58, 144-184.

NEELEMAN, A. 1994. *Complex Predicates*. Tesi doktoral. University of Utrecht.

OSA, E. 1990. *Euskararen Hitzordena komunikazio zereginaren arabera*. Tesi doktoral. EHU-UPV Argitalpen Zerbitzua, Leioa.

PESETSKY, D. 1995. *Zero Syntax*. Cambridge, Mass: MIT Press.

POLLOCK, J.-Y. 1989. "Verb Movement, Universal Grammar and the Structure of IP". *Linguistic Inquiry* 20, 365-424.

RIJK, R.P. de 1969. "Is Basque S.O.V? *Fontes Linguae Vasconum* 1, 319-351. [Ikus halaber de Rijk (1998) *De Lingua Vasconum: selected writings*. ASJU -ren gehigarriak, XLIII, 13-38. EHU-UPV, Bilbao].

SPORTICHE, D. 1988. "A Theory of Floated Quantifiers and Its Corollaries for Constituent Structure". *Linguistic Inquiry* 19, 425-449.

STOWELL, T. 1983. "Subjects across Categories". *The Linguistic Review* 2: 285-312.

STROIK, T. 1990. "Adverbs as V-sisters". *Linguistic Inquiry* 21, 654-661.

TRAVIS, L. 1988. "The Syntax of Adverbs". *McGill Working Papers in Linguistics: Special Issues on Comparative Germanic Syntax*, 280-310.

ZABALA, I. 1993. *Predikazioaren Teoriak Gramatika Sortzailean (Euskararen kasua)*. EHUKo doktorego tesia.

ZABALA, I. eta J.C. ODRIOZOLA 1994. "'Adjektiboen' eta 'adberbioen' arteko muga zehatzik eza". *ASJU* XXVIII-2, 525-541.

ZWART, J.-W. 1993. *Dutch Syntax*. Tesi doktoralak, University of Groningen.

NORI BERA: NOR BERE EGITURAK EUSKARAZ

R. Etxepare

0. SARRERA

Distribuzioa egiteko bitartekoen artean, eta zenbatzaile lexikoki berezietuz gainera, euskarak (1) etsenpluan bildutako egiturak ditu:

- (1) a. Nori berea da zuzenbidea
- b. Nork bere ama maite du
- c. Realeko hamaika jokalaria zelaira atera dira. Zein bere tokian jarri da/dira.

Lan honek egitura hauen propietate batzuk aztertu nahi ditu, eta distribuziozko zenbaketaren eremuan agertzen dituzten berezitasunak ikertu.

1. ARAZOAK

1.1. Zenbaketa unibertsalerako ahalmena

Nor bere egiturek problema semantiko nabarmen batzuk agertzen dituzte: lehena, nondik heldu zaien, *nor* edo *zein* bezalako izenordainei, erakusten duten zenbatasun ahalmen unibertsala. Bistan da zenbatasun ahalmen hori ez datorrela lexikotik, bestelakoetan *nor* edo *zein* izenordainek ez baitute horrelako indarrik. Har esate baterako *nor* edo *zein* erabiltzen dituzten *nor...nor.* edo *zein...zein* egiturak (ikus 2.atala):

- (2) Nor trenez , nor autobusez etorri zen

(1)eko kasuetan ez bezala, *nor*-ek eta *zein*-ek ez dute honelakoetan indar unibertsalik. *Nor*-en bikoizketa horren bitartez alde zuretik emaniko multzo bat agortu egiten da, baina *nor* bakoitzaren zenbaketa indarrak ez du multzo osoa hartzen, zati bat baizik. Honek ematen du aditzera zenbaketa indarra egitura jakin batekin lotua dela, eta ez dela *nor* edo *zein*-en zuzeneko propietate bat. Hau da, *nor* edo *zein*, oraindik behintzat zergatik ez dakigularik, zenbaketa unibertsala ahalbideratzen dute, baina ez dute berez ekartzen. Hortarako, egitura jakin batean txertatuak egon behar dute.

1.2. Zergatik *nor* eta *zein*, baina ez *zer*.

Egitura hauei begiratuta sortzen den bigarren galdera da zergatik ez den antzeko egitura bat sortzen ahal *zer* izenordainarekin¹:

- (3) a. ??Gelan sartu, dena hankaz gora zegoela ikusi, eta zer bere tokian jartzen hasi ziren
 b. * Mundu honetan zerk bere saria du

1.3. Zergatik *nor* eta *bere* elkarren ondoan

Semantikaz aparte, egitura hauen sintaxiak ere propietate bitxiak ditu. Zergatik esate baterako, *nor/zein* eta distribuzioaren banakizuna adierazten duen sintagmak elkarrekin egon behar duten. (4)ko ordenek zenbaketa distributiboa dakarte. (5)ekoek ez, eta galderazkoen gisa baizik ezin dira interpretatu (intonazio egokiarekin):

- (4) a. (Lasarteko zaldi lasterketan) Nork [bere zaldiak irabaziko duela] uste du

¹ Galdera ez da bakarrik *zer*-ekin sortzen. Beste horrenbeste galde liteke *noiz*, *non* eta gainerakoez. Balio ez zaigun sailkapen erizpide bat (eta burura berehala datorkiguna) bizidun izatearena da. Bistan da ez *zer*-ak ez *noiz* eta *non* formak ere ez direla bizidunak. *Zein* ordea ez da nahitaez biziduna, eta bizidun interpretazioa ez duenean ere honelako egituretan ager daiteke. Konpara esate baterako testuko (3a), hemen berriz emana (ia) eta (ib) *zein* izenordaina duena:

(i) a. ??Gelan sartu, dena hankaz gora zegoela ikusi eta zer bere tokian jartzen hasi ziren.
 b. Gelan sartu, bezperako jostailuak lurrean zeudela ikusi, eta zein bere tokian jartzen hasi ziren.

Bereizgarria beraz beste zerbait izan behar da.

- b. Nori [bere etxea ederrena dela] iruditzen zaio
 - c. Nori bere etxea iruditzen zaio [t ederrena dela]
- (5) a. (Lasarteko zaldi lasterketan) *Nork uste du [bere zaldiak irabaziko duela]
- b. *Nori iruditzen zaio [bere etxea ederrena dela]

Halabaina, orden hauek guziz arruntak dira, bai izen sintagmekin baita zenbatzaile distributiboekin ere:

- (6) a. Aitorrek uste du [bere zaldiak irabaziko duela]
- b. Apostu-egile bakoitzak uste du [bere zaldiak irabaziko duela]
 - c. Bakoitzari/norberari iruditzen zaio [bere etxea ederrena dela]

Nor bere egituretako ordena deribatua dela garbi ikusten da ere orden markatugabea obeditzen ez duten kasuetan:

- (7) Nor bere zoroak bizi du

Berriz ere egiturazko propietate baten aurrean gara. (7) edo (4) bezalako perpausak deribazio sintaktiko jakin bat daukate. Ageriko ordenak (absolutibo eta ergatibo segida (7)n, menpeko perpausetik erakarririk banakizuna (4c)n) ez dagozkio azpiko ordenei. *Nor/zein* eta *bere*-sintagmak erakusten duten ondokotasun erlazioa mugimendu sintaktiko bidez eratua da.

1.4. Non dago *nor*, subjektua ez denean.

Esplikatu behar da, baita ere, zein den egitura hauen izaera ageriko subjektu bat dagoenean:

- (8) a. Nork bere lana egin du
- b. Denek, nork bere lana egin dute/*du

(8a) kasu paradigmaticoa deituko dugu. Hartan, subjektu tematiko bakarra dago, eta harek dagokion kasu ergatiboa dauka. *Nor* izenordaina, subjektu kanoniko gisa, komunztatua dago aditz laguntzailearekin. (8b)n aldiz, laguntzailearekiko komunztadura beste zenbatzaile batek egiten du, eta *nork* izenordainak zenbatzaile horrek adierazitako multzoaren elementuen gainean distribuzioa egiten du. Egiturak zenbait problema sortzen ditu analisi sintaktikorako: badira bi izen sintagma ergatibo (hori orohar ezinezkoa delarik), eta egileari dagokion erlazio tematikoa bikoiztua agertzen da (hori ere, itxuraz, ezinezkoa delarik).

Egitura ez-paradigmatiko hauetan izenordainean pertsona alternantziak gertatzen dira:

- (9) a. (Guk) nork bere herria maite dugu
 b. (Guk) nork gure herria maite dugu

Jakin nahi dugu, beraz, kasu paradigmaticoen eta ez-paradigmaticoen arteko diferentziak nola gauzatzen diren egitura sintaktikoan. Aldiberean, ize-nordainaren pertsona alternantziak inolako egitura aldaketarekin lotuak diren ala ez.

1.5. Zergatik bere

Guziz berezia dena distribuzioaren sintaxiaren aldetik, egitura hauetan distribuzioa nahi eta nahi ez izenordain baten bitartez bideratzen da, eta ize-nordain horrek posesiboa izan behar du. Gonbara hartara *nor*-dun egiturak gainerako zenbatzaile distributiboekin²:

- (10) a. Ikasle bakoitzak liburu bat/bana erosi du
 b. Ikasle bakoitzak liburu asko/hainbat/lau liburu erosi ditu
 c. Ikasle bakoitzak agindutakoa bete du
- (11) a. *Nork/zeinek liburu bat/bana erosi du
 b. *Zeinek/nork liburu asko/hainbat liburu/lau liburu erosi ditu
 c. ?Nork/zeinek agindutakoa bete du

1.6. Zein arazotaz mintzatuko garen

Lan honek ez ditu lehen atal honetan agertzen diren arazo guziak tratatzen. *Nor* eta *zein* alde batetik eta bestetik *zer* bereizten dituen arrazoiak

² Batek pentsa lezake hortik segitzen dela beste propietate hau: *nor...bere... egituretako bere hori, bakoitz...bere...* sekuentzien kasuan ez bezala, *nor*-ekin (hau da, distribuzioaren eragilearekin) lotua egon behar duela. Hau da, (ia)n *bere bakoitz*-ek uztartua egon daiteke ala ez. (ib)n *nor*-ek uztartua egon behar du, nahitaez:

(i) a. Ikasle bakoitza bere bizikletan ibili da (bakoitzarenean edo beste norbaitenean)
 b. Nor bere bizikletan ibili da (norberarenean bakarrik)

Baina noski, distribuzio orok banakizun bat behar badu, eta *nor*-ek ez badezake, (10)-ek erakusten duen bezala, beste zenbatzaile batzuen gainean distribuzioa egin, orduan iduri luke uztarketaren aukera baizik ez zaiola gelditzen. Batetik, esplikazio honek arazoaren funtsa argitu gabe uzten du: zergatik (10)-en gisako distribuzioa ezinezkoa den *nor...bere* egiturekin. Bestetik, behin emanez gero distribuzioa izenordainkien bitartez baizik ez daitekeela egin, argitzeko gelditzen da orindik zergatik izenordainkiak sintagma posesibo baten barnean egon behar duen.

oraindik deus gutxi esan nezake. Izenordainaren derrigorrezko agertzea ere zergatik gertatzen den eta zergatik izenordain horrek posesiboa izan behar duen, ihes egiten didan kontua da, oraingoz. Beste horrenbeste gertatzen da egitura distributibo hauek objektu edo norbanakoetara mugatzeko arrazoiez. Are gehiago esango dut, egitura hauetan indar unibertsal distributiboa nondik heldu den galderari hemen ematen zaion erantzunaren arabera, ez dago inolako arrazoirik (neri ez zait begitantzen, behintzat), *non* edo *noiz* bezalako NZ-hitzak distribuzio egitura hauetan ager ez daitezten. Honek, bistan da, gauza simple bat esan nahi du: kontu hauek arreta eta lan gehiago merezi eta behar dutela.

2. NOR BERE EGITUREN ZENBATUSUNA.

2.1. Distribuzio hertsia eta sasideistribuzioa.

Distribuzioa pluraleko denotazioa duten bi sintagmaren (edo gehiagoren) arteko menpekotasun erlazio bat da, zeinetan aurreko sintagmaren denotazio pluralaren partiketa bati menpekota den sintagma denotatzen duen multzoa edo multzoaren beste partiketa bat dagokion (ikus, besteak beste, erlazio hau xehero aztertzen duten Link, 1998; Gillon, 1984; Roberts, 1987; Landman, 1996; eta Lasersohn, 1996). Ikuspegi honek hala ere, hizkuntza naturaleko kuantifikazioan desberdinak diren gauzak biltzen ditu. Beghelli-k (1995, 163-175.orr) distribuzio hertsia eta sasideistribuzioa bereizten ditu. Bigarrena, talde bat denotatzen duten (edo denotatzen ahal duten) sintagma pluralekoei dagokien, hala nola *denak*, *guztiak*, *hiru lagun*, edo izen sintagma mugatu pluralekoak (*adiskideak*, esate baterako). Moeta honetako sintagmek distribuzio klase bat baino gehiago onartzen dute. Har esate baterako honako perpausa:

(12) Adiskideek hiru opari jaso dituzte

(12) bezalako zerbaitek hainbat irakurketa distributibo izan ditzake: (i) adiskideek guztitara hiru opari jaso dituzte, adiskideen multzoa hiru zatitan banatzen dutenak (batzuek baloia jaso dute, besteek trena eta azkenik beste batzuek bizikleta); (ii) guztitara hiru jaso dituzte, baina hiru horiek kolektiboki interpretatu behar dira (ez dute multzoa hiru zatitan banatzen); (iii) adiskideetarik bakoitzak hiru opari jaso ditu; (iv) adiskideez ari garelarik, adiskideen multzo osoa aintzat harturik, multzo horri dagokion opari kopurua hirukoa da (eman dezagun, Jonek, Mirenek eta Aitorrek jaso dituztenak, gainerako adiskideak esku-hutsik gelditu direlarik). Azken irakurketa hau

estatistikoa da, adiskide multzo horren opari tasa urtez urte neurtzen duena. Distribuzio klase honi, pluraleko sintagmen menpekotasun erlazio askotari-koak baimentzen dituenari, sasidistribuzioa deituko diogu.

Distribuzio hertsia, lexikoki distributibo izatera behartuak diren zenbatzaileei dagokien distribuzio moeta da. Sail honetan, *bakoitz* dugu:

(13) Adiskide bakoitzak hiru opari jaso ditu

(13)ko perpausean irakurketa distributiboa bakarra da, (12)ko aukera jakin bati dagokiona: zenbat adiskide hiru halako opari, eta bakoitzarentzat hiru. *Nor bere* egiturak azken sail honi dagozkiola ematen du³. Jar dezagun kontestua: elkarte batean errege bezperako opari banaketa dago. Kontuak honela joan dira:

- (14) a. Haur guztiek beren oparia jaso dute. Jonek eta Mirenek tren, Peruk eta Aitorrek baloia...
b. Haur bakoitzak bere oparia jaso du. #Jonek eta Mirenek tren, Peruk eta Aitorrek baloia...(baloi eta tren bakarraz ari garela)
c. Haur bakoitzak bere oparia jaso du. Jonek tren, Peruk baloia...

Nor... bere, bakoitz bezalakoa dela ematen du:

- (15) a. Nork bere oparia jaso du. #Jonek eta Mirenek tren, Peruk eta Aitorrek baloia... (baloi edo tren bakarraz ari garela).
b. Nork bere oparia jaso du. Jonek tren, Mirenek baloia...

Nor... bere egituren zenbaketa ahalmena, distribuzio hertsia dagokiona da, beraz.

2.2. *Nor-en* denotazioa

Argitu nahi dugun lehen kontua da nondik heldu zaien egitura hauei beren indar unibertsal distributiboa. Posibilitate bat da jakina, inondik ere ez etortzea, eta *nor-ek* berezkoa duen denotazioa izatea. Lehen begiratuan, *nor-en* alegiazko berezko indar unibertsal hori ondo uztartuko litzateke *nor/zer* formen beste interpretazio posible batekin: galderarena. (16a) interpretatzeko modu klasiko bat (16b) da (Hamblin,1979):

- (16) a. Nor joan zen festara?

³ Kasu paradigmaticoak bakarrik. Ikus bestela honakoak:

(i) Nork beren oparia jaso dute. Jonek eta Mirenek tren, Peruk eta Aitorrek baloia...

- b. X ororendako, emaidazu “x festara joan zen” formako proposizio (egiazkoen) zerrenda

Hala ere, *nor*-ek berezko indar unibertsala baldin badu, nekez esplikatu ahal izango dugu (17) bezalako zerbait (Hintikkaren etsenplu bat, Higginbotham, 93tik hartua):

- (17) Nor, esate baterako, joan zen festa horretara?

Honelakoak nekez interpreta daitezke unibertsal gisa. Beste horrenbeste gertatzen da (18) bezalakoekin, *nor* partitibo anitzeko egitura deitu izan denarekin (Haspelmath, 1997, 177-79; Liptak, 2001, 4.atala):

- (18) Ikasle asko bildu ziren hitzaldi hartarako. Nor aulkian, nor lurrean eseri ziren.

Kasu honetan, *nor* bakoitzak ezin du unibertsala izan. Aldiz, pluralitatea adierazten du. *Nor* bakoitzak lurrean eseri edo aulkian eseri zirenen kontua adierazten du. *Nor*-en adierak pluralekoa izan behar duela honakoak adierazten du:

- (19) a. Bi lagun etorri ziren. #Nor aulkian, nor lurrean eseri ziren
b. Hamar lagun etorri ziren. Nor aulkian, nor lurrean eseri ziren.

(19)k bi lagunez osaturiko multzoa aurkezten digu. *Nor*-en bidezko partiketa kasu horretan ezinezkoa da. Multzoa handiago bada (hamar lagunekoa, kasu), partiketa bideratu daiteke. Datuok interpretatzeko modu bat izan daiteke *nor*-en berezko denotazioa multzo plural batena dela, hau da elementu (bizidun) bat baino gehiagoz osaturiko multzoarena. Haren denotazioa hori bada, (19a)ren problema hau da: *nor* bakoitzak aurreko multzoaren azpimultzo bati erreferentzia egiten badio (ohar gaitezen bi *nor* horiek multzoa agortu egiten dutela), azpimultzo horiek ezin dutela pluralekoak izan (biko multzo batetik bakarreko bi multzo baizik ez daitezke atera) eta beraz, *nor*-en izaera anaforikoa (izaki anaforiko pluralekoek aurrekari pluralak behar dituzte, noski) ez dela asetzen.

Ildo beretik interpreta dezakegu ere honako kontrastea:

- (20) a. *Ikasle bakoitzak, nork bere lana egin du
b. Ikasle guztiek, nork bere lana egin dute
c. Denek, nork bere lana egin dute
d. Zure ikasleek, nork bere lana egin dute

(20a)k problema bat du: *bakoitz* zenbatzaileak ikasleen multzoa elementu banako hainbat azpimultzotan banatzen duela. Baina, berriz ere, *nor*-en denotazioa pluralekoa bada, azpimultzo horiek ez dezakete *nor*-en izaera ana-

forikoa ase. Gainerako zenbatzaileek, ezaguna denez, ez dute banaketarik eragiten (ez halabeharrez behintzat, eta egiten dutenean beste era batekoa da, (ikus 2.2. atala)). Hori hala izanik, *nor*-ek eskua du haien barnean komeni zaion banaketa egiteko. Honenbestez, eta abiaburu gisa, (21) onets dezakegu⁴:

(21) *Nor*-en berezko denotazioa multzo pluralarena da.

Honek ez du berez konpontzen (1) bezalako kasuetan *nor*-ek duen indar unibertsal distributiboaren auzia, baina pluraleko denotazioaren bitartez, banakizun den zerbait ematen digu. Eta honek, ikusiko dugun bezala, konponbidean jartzen gaitu.

2.3. Beghelli (95), Beghelli eta Stowell (97) eta Szabolcsiren (97) ikuspegia zenbatzaileen gauzatze sintaktikoari buruz.

Zenbatusunaren gauzatze sintaktiko tradizionala gramatika sortzailean, May-ren Zenbatzailearen Igoeraren operazioaren bitartez egin da (1985,88). Zenbatzailearen Igoera, zenbatzaile guzietan aplikatzen zaien operazio bat da, operadore-aldaki erlazio bat sortzen duena. Igoera operazioa sintaktikoki adjunkzio bat da eta ez du jomuga bereziturik (hau da, zenbatzaileek ez dute izendatuki aukeratzen beren igoeraren jomuga). Operazio horren kondizio bakarra da adjunkzioa ezin zaiola argumentu bati aplikatu. Ikuspegi honek problema deskriptibo handiak sortzen ditu, asumitzen baitu edozein subjektu/objektu zenbatzaile parek besarkadura anbiguotasunak sortaraz ditzakeela,

⁴ (21) bat dator Hagstrom-ek hainbat hizkuntzetan aurkitzen diren NZ-hitz hutsetarako proposatzen duen interpretazioarekin (1998). Jakina da hizkuntza askotan NZ hitzek berez izenordain zehaztugabe gisa jokatzeko dutela, galdera balioa edo balio kuantifikazional desberdinak egitura jakin batean nahiz morfema berezien laguntzaz eskuratzen dituztelarik. Tipologikoki, euskarak badu hizkuntza horien eitea. Har esate baterako, galderak, izenordain mugagabeak eta polaritadedun elementuak (i). Guztiak ere NZ+beste morfema batez eraturiko hitz konplexuak dira (ken galderak, morfema ageriko bat baino, egitura edo leku jakin bat galdetzen dutenak):

Galdera esistentziala Polaritadeduna

(i) nor nor+bait i-nor

Hagstrom-ek arrazoin badu esatean galdera indarra berez nz-formari atxekitako morfema isil nahiz ageriko baten bitartez ezartzen dela, paradigmatoa honela gelditzen zaigu:

(ii) nor+G nor+bait i-nor

Aldi berean, elementu horietako bakoitzak bere interpretazio propio eta beregainekoa baldin badu, nz-hitz hutsari berea aurkitu behar diogu. Horretara dator (21) eta Hagstrom-en antzeko proposamena. Egitura partitiboetan, *nor*-en oinarritzko denotazioa agerian gelditzen da.

eta ez da hala (Beghelli, 1995). Adibide gisa, eman ditzagun ingelesezko honako adibideak (Szabolcsi, 1997tik egokitua):

- (22) a. Someone likes everyone
norbaitek maite-du mundu guztia
b. Someone likes few people
norbaitek maite-du jende gutxi


(22a)-n, perpausa bi eratara uler daiteke: norbaitek (*someone*) mundu guztiaren (*everyone*) gaineko itzala edo besarkadura duelarik, bada norbait mundu guztia maite duena. Mundu guztia zenbatzaileak *norbait* zenbatzailearen gaineko itzala ukan dezake hala ere, eta horrela, (22a)-k badu bigarren interpretazio bat: mundu guztiak dauka maite duen norbait. (17a)-k ez bezala, (22b)-k ez du bitariko interpretaziorik. Bertan, zenbatzaileen segidak berak finkatzen du interpretazioa. Honela, (22b)-k bakarrik norbaitek (*someone*) jende gutxi (*few people*) maite duela esan nahi du. (22b)ren problema, hala ere, ez dagokio *jende gutxi* bezalako zenbatzaile baten izaera lexikoari. Izan ere, zenbatzaile horrek norbaiten gaineko itzala ere izan dezake, segida beste bat bada:

- (23) Few people likes someone
jende gutxi maite-du norbait

Kontua da zergatik (16a)ko bitariko interpretazioa zenbatzaile jakin batzuekin bakarrik gertatzen den, eta ez guztiekin. Mayren teorian, ez dago modurik zenbatzaile batzuen eta besteen artean diferentziarik egiteko: denak baitaude igoera operazioaren menpe. Berez, honek erakutsian uzten duena da zenbatzaile nozioa, eta harekin batera zenbatzaile kategoria ere, ez dela zenbatzaileen sintaxia tratatzeko gai egokia. Ez dago zenbatzaileen tratamendu oro hartzailearik sintaxian⁵. Zenbatzaile kategoriak, beraz, ez du inolako status berezirik sintaxian (ikusmolde honen laburpen gisa, Szabolcsi, 2001). (22)-(23)koa, jakina, etsenplu bat besterik ez da. Problemaren ikuspegi enpiriko zabal baterako, jo bedi Beghellira (1995).

Beghelli eta gainerakoen ikuspegiak, zenbatzaileak ez dira fenomeno bakun bat. Zenbatasun klase desberdinek agerpen berezitua dute perpaus egituran (buru morfosintaktiko gisa), eta zenbatzaile klase desberdinek lotura morfologikoa dute agerpen toki hauekin. Beghelli eta Stowell-ek (1994, 1997) lau proiektzio desberdin bereizten dituzte funtzio semantiko desberdinak dituztenak:

⁵ Ideia ez da berria: Hornstein-ek (1984) eta Aoun eta Hornstein-ek (1985) antzeko bidetik jo zuten.



RefP-ek (Erreferentzia Sintagma) besarkadurarik zabalena duten izen propio, sintagma mugatu nahiz mugagabe espezifikoak hartzen ditu. Haiekin batera, baita erreferentzia kolektiboa edo taldekoa duten zenbatzaileak, espezifikoki ulertzen direnean (*guzti-D*, *den-D*). DisP delakoak (Sintagma Distributiboak) zenbatzaile distributiboak hartzen ditu. ShareP-ek (Banaketa Sintagma-k) banaketa eventuan distributiboen azpiko besarkadura hartzen duten sintagma mugagabe edo kolektiboak hartzen ditu. Gainerako zenbatzaileak, predikatuaren gaineko zenbaketa hutsa egiten dutenak, Aditz Sintagmaren barnean interpretatzen dira⁶. (24)ko perpaus egiturari Komuntzadura Sintagma eta Ezeztapen Sintagma gehitu behar zaizkio. (24)ko perpaus egiturak zenbatzaileen arteko eragiketak mugatzen ditu, beste zernahi sintagmen elkarrekiko ordenak mugatzen dituen bezalaxe. (24k) leku

⁶ Szabolcsi-rentzat (1997) badira bi zenbatzaile talde haundi: Diskurtsuaren Errepresentazioaren Teoriaren arabera diskurtsuan erreferente bat ezartzen dutenak edo behar dutenak, eta halakorik ezartzeko gai ez direnak (kardinalak eta *x baino gehiago/gutxiago* bezalako konparatzaileak). DET-n ez bezala, ordea, Szabolcsirentzat zenbatzaile distributiboek diskurtsu mailako erreferenteak sortzen dituzte, *guzti-D* edo *den-D* talde zenbatzaileena ez bezalako: azken hauek talde erreferentzia ezartzen dute; *bakoitz* bezalako distributiboek aldiz multzo erreferentzia ezratzen dute, propietate desberdinekin. Ikus Szabolcsi, 1997, 131-137. orr.

jakin bat paratzen du zenbatzaile bakoitzarentzat, eta leku horrek agintzen eta mugatzen ditu zenbatzailearen itzal edo besarkadura posible guzttak. Itzul gaitzen esate baterako (22)-(23)ko kontrasteetara. Lehenik, kontsidera dezagun (22a)ren interpretazio arruntena: *norbaitek mundu guztia*-ren gaineko besarkadura du perpaus egitura gorago egotea egokitu zaiolako: batetik, subjektua da, eta horrenbestez haren azkenburuko posizioa subjektuaren Komunztadura Sintagma da (Chomsky, 1993). Aldi berean, espezifiko gisa interpreta daiteke (Enç-en zentzuan, 1991), eta orduan Erreferentzia Sintagma da haren kokagunea. Bi kasuetan, *mundu guztia* zenbatzaile distributiboaren gaineko itzala du, honen tokia Distribuzio Sintagma baita, Erreferentzia Sintagmaren nahiz Komunztadura sintagmaren mendean dagoena. Nola deribatzen dugu orduan bigarren interpretazioa, zeinetan *mundu guztia* (*everyone*) zenbatzaileak *norbait* (*someone*) zenbatzailearen gaineko itzala duen? Horretarako, asumitu behar dugu A-mugimenduz lekualdaturiko sintagmak beren sortze posizioan interpreta daitezkeela (ikus Hornstein, 1995, eta bertan aipaturiko lanak). Subjektuaren sortze posizioa Aditz Sintagmaren barnekoa da⁷ (Koopman eta Sportiche, 1991; Kuroda, 1988), eta toki horretan, zenbatzaile distributiboek *norbaitek*-en gaineko itzala ukan dezake. Egitura hauxe izango litzateke:

- (25) [_{KomS} (*someone*) [_{Kom} 'loves; ... [_{DS} everyone; D⁰ [_{AS} someone (loves) t_i]]]]

Posizio horretan, *norbaitek* bezalako zenbatzaile batek ez dezake interpretazio partitiborik har (interpretazio hori Erreferentzia Sintagmarekin lotua dago, ezinbestez). Predikzioa beraz, honelakoetan zenbakari huts gisa jokatu-ko duela da. Predikzioa betetzen da (ingelesaz ari gara, beti ere).

Eztabaida honetan begia euskararen gainean jarria duena ohartu bide da gauzak ez direla berdinak gure hizkuntzan. Kuantifikazioaz arduratu diren ikerlari bakanek aurkitu dutenaren arabera, euskarak elementuen azaleko ordena baliatzen du besarkadura erlazioak ezartzeko (Elordieta, 2001, 82.91.orr.; Etxeberria, 2001). Hau da, euskaraz ez dago, antza denez, sintagmen lekualdaketa desegin edo berregiten duen prozesurik ((25)koa bezalako-rik, alegia), zenbaketa-eremuan. Propietate hau ez da euskararen berezita-

⁷ Ohart, hartara, zenbatzailea eta izenak bereiz daitezkeen hizkuntzetan, zenbatzaileak aditz sintagmaren baitakoa iduri duen posizio batean ager daitezkeela (Koopman eta Sportiche, 1991):

- (56) a. Tous les enfants verront ce film
 b. Les enfants; (*tous) verront_i [_{AS} (tous) t_j t_i ce film]

sun bat: beste hizkuntza batzuek, hala nola xehero aztertua izan den Hungarierak (Kiss, 1995; Szabolcsi, 1996, besteak beste) propietate berberak agertzen dituzte. Hizkuntza batzuek eta besteak bereizten dituzten azpiko baldintzak zein izan daitezkeen konparazio tipologiko zabalago batek ekarriko du, baina aztertutak izan diren era honetako hizkuntzen arabera, iduri luke “diskurtsora begirako hizkuntza” (Kiss, 1995) izatearekin lotua egon litekeela. Diskurtsoari begirako hizkuntzetan, informazioaren partiketa hitzordenaren ardatza da, bestelako beharkizun morfologikoez haraindi (hala nola Kasua edo Komunztadura). Ohar gaitezen lotura ez dela berez argigarria: propietate bat egitura informazionalaz mintzo zaigu; bigarrena zenbatzaileen indar kuantifikazionalaz. Kontua da Hungariera bezalako hizkuntzetan, informazioarekin loturiko proiektzio sintaktikoak zenbatasunaren adierazpenarekin ere loturik daudela. Antza denez, ingelesez gehienbat izaera abstraktua duen (hau da, fonologikoki gauzaturik egon ez daitezkeen) Erreferentzia Sintagma, Topikoari dagokio Hungarieraz. Eta banakizuna adierazten duen proiektzio sintaktikoa fokoari⁸⁻⁹ (Szabolcsi, 1997). Hungarieraren galbahetik pasata, Beghelli eta Stowell-en sistema honela gelditzen da¹⁰:

- (26) Topikoa=RefP
 QP=DistrP
 FocusP=ShareP

Hau da, Erreferentzia Sintagma deitu proiektzioari (erreferentzialki ulertzen diren sintagma biltzen dituen proiektzio sintaktikoari), Hungarieraz


⁸ Share P eta Foko Sintagmaren arteko lotura ez da erabatekoa Hungarieraz: sintagma mugagabeei dagokie bakarrik. Hungarieratik Euskarara jauzi egiteko orduan kontutan izan behar dena, bistan da.

⁹ Banaketa eragiten duten zenbatzaileak sintaxian azaleko posizio jakin bat edukitzea propietate informazionalen eta kuantifikazionalen arteko ausazko lotura honetatik kanpo dago. Kuantifikazioari zuzenki lotutako posizio sintaktiko honek bermatzen du hein handi batean Beghelli eta gainerakoen hipotesia.

¹⁰ Topikoen eta erreferentzia sintagmaren arteko lotura ez da mirestekoa (non “erreferentzia” diskurtsoan aurrez ezagutu edo aipaturiko zerbaiten erreferentzia den). Misterioitsuago da, ezpairik gabe, banakizunaren eta fokoaren arteko lotura. Zenbatzaileen egungo tratamendu logikoan ez da arrazoirik banakizunek berezko lekua izan dezaten sintaxian, baldin eta sintaxi eta semantikaren arteko erlazioa zuzena bada. Zenbaketak bi eremu edo barruti zabaltzen ditu: bata zenbatzailearen errestrizioarena; bigarrena, haren besarkadura gunearena. Baina besarkadura gunea, zenbatzaile “gotorraren” (strong) errestrizio sintaktikoa ez den guzua da, berez. Zergatik fokoa orduan? Ematen du banaketa erlazioetan banakizuna bereizi behar dugula besarkadura gunek bakanak, eta horretarako fokoaz baliatzen garelara (Herburger, 2000). Kontua da zergatik behar dugun bereizketa hori egin.

topiko sintaktikoak biltzen dituen proiektzioa dagokio, eta banakizunak hartzen dituen kategoriari, fokalizaturiko sintagmak hartzen dituenena. Perpaus egitura, Hungarieraz, honela gelditzen da (Szabolcsi, 1997):

(27) TopicP



Euskara, Hungariera bezala, diskurtsoari begirako hizkuntza delarik, galde egin genezake zenbatusunaren eremua zenbateraino uztartua den informazioaren partiketakarekin. Ikusiko dugun bezala, bada hein bateko lotura.

Ohar gaitzen oraindik ez dugula esplikatu nola lortzen duen *nor* bezalako zerbaitek bere indar unibertsal distributiboa. Aurreko ikuspegiak hala ere, bide ematen digu horretarako. Ez da behar *nor*-ek berezko indar unibertsala izatea: aski da indar hori duen proiektzio morfosintaktikoari lotua egotea, zenbatzaile horren errestrikzioa osatuz. Hau da, distribuzio buruak zenbaketa ahalmena baldin badu, *nor* bezalako zerbaitek, bere denotazioaren bitartez (multzo denotazioa, lehen esan dugunez) zenbatzaile buruaren eremua (*domain*) osatuko du.

3. *Nor bere* egituren sintaxia: lehen hurbilketa

3.1. *Nor bere* tokian

Nor-en denotazioa pluralekoa bada, multzo plural horrek DisPren espezifikatzailean distribuzioa derrigortu dezake. Beraz, indar unibertsal distributiboa, perpaus egituren leku jakin batean egotetik datorkio:

(28) [_{DistP} Nor Dis° [_{ShP} [_{DP} bere ama] Sh° ...]]

Nor-ek zenbatzaile unibertsal distributiboaren errestrikzioa edo eremua osatzen du. Ohar gaitezen sistema honetan ez dagoela deus ere *nor*-entzat berezko indar unibertsala galdetzen duenik: *nor* beste posizio batekin asoziatua badago, bestelako zebaketa indar bat eduki dezake. Horixe gertatzen da *nor...nor...* egituretan.

3.2. *Bere bere* tokian

Nor DisP-ren espezifikatzailea bada eta DisP-ren buruak ShP bat galdetzen badu, *bere*-ren tokia zein den ez da zail igartzen. Kontua da, Hungarierari begiratuaz ondorioztatu duguna kontutan hartuaz batez ere, ShP hori perpaus egituren gauzaturiko beste tasunen batekin lotua dagoen ala ez. Hungarieraz banakizunak Foko Sintagmara mugitzen dira. Euskaraz ere *nor bere* egituretan fokoari dagozkion propietateak nabarmentzen dira. Batetik, enfasiarekin loturiko perpaus arteko ezkerretzeak:

(29) [Nork_i Dis° [_{XP} [bere_i zaldiak]_j; X° [uste zuen [_{KonpS} t_j irabaziko zuela]]]

Bestetik, pied-piping-a edo garraioa (Ortiz de Urbina, 1990; Etxepare eta Ortiz de Urbina, 1999):

(30) a. Nork [bere zaldiak irabaziko zuela]_i esan dit [t_i entzun duela]
b. Nork [[bere zaldiak irabaziko zuela] entzun duela]_i esan dit t_j]

(31) a. Nork [bere ugazabak agintzen duenean]_i esan du [t_i joango dela]
b. Nork [[bere ugazabak agintzen duenean] joango dela] esan du

Eman dezagun beraz DisP-ak foko proiektzio bat galdatzen duela:

(32) [_{DistS} Nor Dist° [_{FS} [_{YP} bere...] F° [...]]]

3.3. Alderantziko besarkadura efektuak

Etxeberriak (2001) erakutsi du (ikus baita ere Elordieta, 2001, 82-93.orr.) euskaraz, hungarieraz bezala, “alderantziko besarkadura” efektuak (zenbatzaileen besarkadura sintaxiak emandako ageriko ordenaz bestelakoa den kasuak) guziz bakanak direla, eta gehien bat Erreferentzia tasunekin lotuak. Kontuak ordea desberdinak dira fokoa tartean sartzen badugu. Kotsidera ditzagun honakoak:

- (33) a. Sukaldari (diferente) batek opil bakoitza egin du (S>O)
 b. Sukaldari (diferente) batek egin du opil bakoitza
 (S>O; O>S)
- (34) a. Sukaldari (diferente) batek opiletariko asko egin ditu (S>O)
 b. Sukaldari (diferente) batek egin ditu opiletariko asko
 (S>O; O>S)

(33a) aipatu generalizazioaren arabera portatzen da: sintaxi egituran gorago dagoen sintagma beherago dagoenaren gaineko itzala du. Interpretazioa, ezinbestean, sukaldari batek, aurretik aipatutako norbait ez dena, mahai gaineko opil bakoitza egin duela da. (33b), non subjektuak foko azentua hartzen baitu, bi eratara uler daiteke. Irakurkera bat aurrekoa bezalakoa da: sukaldari bakar batek opilak egin dituela, alegia. (33b)k hala ere, badu beste irakurkera posible bat: hartan, opil bakoitzari sukaldari diferente bat dagokio, eta sukaldariak opilekin batera aldatzen dira. (34)eko etsenpluetan ber gauza gertatzen da. Irakurkera honek ezinbestekoa du fokoa. Foko azentua edukitzea ez da, ordea, betekizun bakarra. Azpiko zenbatzaileak ere distributiboa izan behar du nahitaez:

- (35) a. Sukaldari diferente batek opil asko egin ditu
 (S>O)
 b. Sukaldari diferente batek egin ditu opil asko
 (S>O)

(33)-(34) adibideetan fokoan ez dauden zenbatzaileak distributiboak dira. (35) adibidean *asko* zenbatzailea dugu, distributiboa ez dena (partitiboki jokatzan ez denean, (34) etsenpluan bezala). Honelakoetan ez dago alderantziko besarkadurarik. Interpretazioa beti sukaldari beraren ingurukoa da.

Antzeko etsenpluak *gutxi* zenbatzailearekin (hau ere distributiboa ez dena):

- (36) a. Bi ikaslek liburu gutxi irakurri dituzte
 (S>O)

- b. Bi ikaslek irakurri dituzte liburu gutxi
(S>O)

Gonbara (36) (37a,b) eta (38)rekin. Aldaketa bakarria fokoan ez dagoen zenbatzailea garbiki distributiboa dela da.

- (37) a. Bi ikaslek liburu bakoitza irakurri dute
(S>O)
b. Bi ikaslek irakurri dute liburu bakoitza
(S>O; O>S)
c. Bi ikaslek irakurri dituzte liburu guztiak
(S>O)
- (38) a. Ikasle gehienek liburu bakoitza irakurri dute
(S>O)
b. Ikasle gehienek irakurri dute liburu bakoitza
(S>O; O>S)

Datuotatik ateratzen den generalizazioa garbia da: alderantzizko besarkadura efektuak bi kondizioen pean agertzen dira. Batetik, zenbatzaile distributiboren bat egon behar du. Bestetik, banakizuna izango denak foko posizioan egon behar du. Foko posizioan egote hau behar beharrezkoa da sintagma bat banakizun gisa ulertua izan dadin. Generalizazio honetatik 3.2. ataleko ondorio bera ateratzen da (Euskara Hungarieraren pareko egiten duena):

- (39) Banakizun guztiak fokoak dira

4. NOR BERE EGITUREN SINTAXIAZ: LEHEN HURBILKETA ZERGATIK EZ DEN ASKI

4.1. Kasu ez-paradigmatikoak

Kasu paradigmatikoa deituko dudan honekin batera:

- (40) Nork bere ama maite du

Badira bestelako kasuak. Hauetan subjektua iduri duena eta banatzailea ez dira bat:

- (41) a. Taldeko kideok nork gure lana aurkeztu dugu
b. Taldeko kideok nork bere lana aurkeztu dugu

Nork ez da hor subjektu tematikoa. Aditz jokatuak *taldeko partaideok-*

ekin egiten du komunztadura. Izenordainak ere bai. Bigarren kasuan berriz, izenordainak *nor*-ekin egiten du komunztadura. *Nor* kenduz gero, perpausak honela gelditzen dira:

- (42) a. Gu_i , gure_i etxean bizi gara
 b. *Gu_i , bere_i etxean bizi gara

(42)k berehalako azalpena izango luke *gure etxean* perpaus nagusiari dagokion sintagma bat bada. Ez du deus ere behar sintagma gisa jokatzeko. *Bere*-k berriz, ezinbestekoa du *nor*.

(41a) eta (41b)ren artean bada beste diferentzia bat: (41a)-k objektu pluralak baimentzen ditu; (41b)-k ez.

- (43) a. Etxekook, nork gure ibilgailua dugu
 b. Etxekook, nork gure ibilgailuak ditugu
 (44) a. Etxekook, nork bere ibilgailua dugu
 b. *Etxekook, nork bere ibilgailuak ditugu

(44b)-k adierazten duena da inflexioarekin komunztadura gertatzen den kasuak ez direla distribuzio hertsia. Hau da, kasu hauetan ez da erlazio bijektiborik distribuzio giltza den multzoko elementuen eta banakizuna adierazten duen multzoko elementuen artean. (44b)-k esate baterako ametitzen du egoera bat zeinetan etxeko norbaitek, baina ez guztiek, ibilgailu bat baino gehiago duen. Distribuzio klase hau talde gisa denotatzen duten sintagmekin gertatzen den berbera da:

- (45) a. Denok gure ibilgailua dugu
 b. Denok gure ibilgailuak ditugu

Distribuzio hertsiaeren aitzinean ez gaudela erakusten du baita ere honakoak: egitura hauek, iduri duenaren kontra, ez dute ShareP-rik (hots, banakizunak gauzatzen diren sintagma bereziturik) galdetzen. Inflexioarekin komunztadura egiten den kasuetan, perpaus arteko erlaziorik ezin daiteke osa. Konpara, hartara, (46) eta (47) :

- (46) a. ?Etxekook, nork gure ibilgailua uste dugu [t hondatu dela]
 b. *Etxekook, nork gure ibilgailuak uste dugu [t hondatu direla]
 (47) a. Etxekook, nork bere ibilgailua uste dugu [t hondatu dela]
 b. Nork bere ibilgailua uste du [t hondatu dela]

(46) eta (47)ren arteko konparaziotik ateratzen da *nor*-ekiko komunztadura erakusten duten kasuetan zinezko egitura distributibo baten aurrean (distribuzio hertsiaeren aurrean) gaudela. Beste kasuak, inflexioarekin

komunztadura egiten dutenak, sasidistribuzioari dagozkio, eta ez dute banakizunentzako proiektzio sintaktiko bereziturik galdetzen. (47)k aditzera ematen du gainera, kasu paradigmaticoa eta komunztadurarik egiten ez duen kasu ez-paradigmatikoa finean gauza bera direla. Diferentzia da (47a)n ez bezala, (47b)n, distribuzioa ahalbideratzen duen *nor*-ek rol tematiko jakin bat hartzen duela, eta subjektuari dagokion igoera sintaktikoa pairatzen duela. Honek ondorio inportanteak ditu sintaxizko hainbat punturako, oraingoan alde batera utziko ditugunak.

4.2. *Nor*-en generazio lekua

Badira arrazoiak pentsatzeko (46) eta (47)ko kasuen barneko sintaxia desberdina dela. Har esate baterako koordinazioa¹¹:

- (48) a. Hemen, nork bere ideiak ditugu
b. Hemen nork gure ideiak ditugu
- (49) a. *Hemen, nork bere proiektuak eta bere ideiak ditugu
b. Hemen nork gure proiektuak eta gure ideiak ditugu
- (50) Hemen nork bere/gure proiektuak eta ideiak ditugu

Koordinazioaren arabera beraz, *bere ideiak* hurrenkera (inflexioari ez dagokion pertsonen kasuaz ari gara) ez dagokio osagai bati. Bestelako egitura paraleloetan gauza bera ikusten da:

- (51) a. Gu, nor gure etxean baino hobe gure lantokian
b. *Gu, nor bere etxean baino hobe bere lantokian
- (52) a. Gu, nor gure lantokian bezain pozik gure etxean
b. *Gu, nor bere lantokian bezain pozik bere etxean
- (53) a. Etxea, nork gure gustokoa bezain gure tankerakoa dugu
b. *Etxea, nork bere gustokoa bezain bere tankerakoa dugu


¹¹ Antzera gertatzen da *norbera* erabiltzen dutenekin (eskerrak Koldo Garai jaunari Bermeoko beheko datuak emateagatik). *Nor...bere* egituren eta *norbera* formen arteko konparazio sintaktikoa interes handikoa da, ezpairik gabe, eta etorkizunean egin beharreko lanen artean daukat.

- (i) a. *Hemen noperak beran ideiak eta beran proiektuak ditugu
b. Hemen noperak geure ideiak eta geure proiektuak ditugu
c. Hemen noperak beran/geure ideiak eta proiektuak ditugu

Egitura paraleloez aparte, badira bestelako kasuak gauza bera agertzen dutenak:


- (54) a. ?Taldekook, nork kritikaturako gure lana berregin dugu
 b. *Taldekook, nork kritikaturako bere lana berregin dugu

Zein egitura emango diegu *nor bere* kasu hauei? [[Nor bere] IS] egitura esplikaturako dut proposaturaz erlazio posesiboa *nor* eta izenordain isil baten artekoa dela (*nor* predikatu izan daiteke). Izenordain isil honek aldaki edo variable lanak egiten ditu. Posesio eventua Sintagma posesibo baten bitartez adieraziko dut. Posesio Sintagma horren gainetik ohiko Share Phrase eta DistrP daude:



Asumiturako dut arrazoi morfofonologikoengatik *pro-re* hurrenkera *bere* gisa gauzatzen dela.

Egitura hau DetS-ri lotzen zaio:



Nola interpretatzen dudan egitura hau: Erlazio posesiboak *pro* izenordainki baten eta *nor* predikatu baten arteko asoziazioa adierazten du. Zer dira elementu hauek? *Nor* elementu anaforiko bat da, subjektu aitzindariaren denotazioa distribuzioaren errestrikziora ekartzen duena. *Pro*, berriz, *nor* horren elementuei asoziatutako funtzio variable bat (erantzun funtzionaletan edo zerrenda galderetan aurkitzen dugun berbera (Chierchia,1993; Hornstein,1995). *Nor bere*-ren barneko kuantifikazioa beraz, funtzioen gainekoa da. *Nor bere* egitura osoaren denotazioa lambda abstraktu batena da:

(57) $\lambda f [\forall(x), x_{\text{atom}} \in \text{SUBJEKTU}(X), x \text{ f-ri asoziatua dago}]$

“x bakoitzeko , x subjektuaren denotazioaren elementu bat, x-ri asoziatuta dauden funtzioen multzoa”

Lambda-abstraktu hau *ideia*-rekin (edo zernahi X'-rekin) konbinatzen da, x edo nor bakoitzarekin asoziatutako ideia emanez¹².

Nor gure formak berriz, lehen pertsonako komunztadurarekin batera baizik ezin ager daitezkeenak, beste egitura bat dute. *Nork* sintagma posesibotik kanpora generatzen da (58). Bere toki zehatza zein den sasi-distribuzioaren analisi fidagarri baten menpean dago, eta oraingoz, nere iritzian, ez dugu horrelakorik. Horretan utziko dut beraz .

(58) [nork [gure ideiak]]

¹² Hizkera batzuetan *nor... bere* egitura hauek lexikalizatu dira, eta (i) bezalako formak eman dituzte (OEHTik atareak):

- (i) a. “Bene-benetan aundia baita nor bere jabetasuna (Basarri)
 b. “Norbere izkuntza ez jakitea lotsagarria dogula” (B.Enbeita)
 c. “Horretan bakoitzak norbere taldeko eta eskolako kontuak esango dizkizu” (MEIG IX, 70)

Kasu paradigmaticoetan, asumituko dut generazio lekua (56)ko berbera dela, eta subjektuari dagokion rol tematikoa deribazioan barna eskuratzen duela (Hornstein, 1999).

BIBLIOGRAFIA

BEGHELLI, F. 1995. *The Phrase Structure of Quantifier Scope*. MITko doktoradutza tesia.

BEGHELLI, F. , BEN-SHALOM, D. eta SZABOLCSI, A. 1997. "Variation, Distributivity and Branching". Ikus Anna Szabolcsi (arg.).

BEGHELLI, F. eta STOWELL, T. 1997. "Distributivity and Negation: The Syntax of *Each* and *Every*". Ikus Anna Szabolcsi (arg.).

CHIERCHIA, G. 1993. "Questions with quantifiers". *Natural Language Semantics* 1 (2), 181-234.

ELORDIETA, A. 2001. *Verb Movement and Constituent Permutation in Basque*. LOT, Utrecht.

ETXEBERRIA, U. 2001. Eskuizkribua. Euskal Herriko Unibertsitatea.

HAGSTROM, P. 1998. *Decomposing Questions*. MITko doktoradutza tesia.

HASPELMATH, M. 1997. *Indefinite Pronouns*. Clarendon Press, Oxford.

HORNSTEIN, N. 1995. *Logical Form: from GB to Minimalism*. Blackwell.

HORNSTEIN, N. 1999. "On Control". *Linguistic Inquiry* 30, 69-96.

KAMP, H. eta REYLE, U. 1993. *From Discourse to Logic*. Kluwer Academic Publishers.

LAFITTE, P. 1962. *Grammaire Basque*. Elkar.

LINK, G. 1998. *Algebraic Semantics in language and Philosophy*. Lecture Notes Series 74. CSLI Publications.

LIPTAK, A. 2001. *On the Syntax of Wh-items in Hungarian*. LOT, Utrecht.

MAY, R. 1985. *Logical Form. Its Structure and Derivation*. MIT Press, Cambridge.

SZABOLCSI, A. 1997. "Strategies for Scope taking". In Anna Szabolcsi (arg).

SZABOLCSI, A. (arg.). 1997. *Ways of Scope Taking*. Kluwer Academic Publishers.

SZABOLCSI, A. 2001. "The Syntax of Scope". In Mark Baltin eta Chris Collins (arg.) *The Handbook of Syntactic Theory*, Blackwell.

ITSASALDEKO SOLEZISMOA, DATIBOAREN LEKUALDATZEAREN ARGIPEAN

B. Fernández
M. Ezeizabarrena

0. ATARIAN ^{1*}

Gure lan honek emakume izaera du. Emakume izaera, emakume baten ahotik ikasi eta miretsi ditugulako bertara dakartzagun Sarako datuak. Horregatik, esker anitz eman nahi diogu Mayi Garateri, gure datu-emaila saratarrari. Eta emakume izaeraz gain, emakume izena ere badu gure lanak, beste emakume bat izan baitzen Sarara eraman gintuen adiskidea. Hala, Itziar Barriola² izena du gureak, Sararainoko bidea egin eta gero, auskalo norakoa egin zuena. Balizko euskaldunen bila, agian. Bera gogoan idatzi dugu txosten hau.

Ondokoak dira gure lana osatzen duten atalak: 1 atalean Itsasaldeko Solezismoa fenomenoaren nondik norakoak aztertuko ditugu; 2 atalean, Datiboaren Lekualdatzearen arabera definituko dugu fenomenoia; 3 atalean, dati-

^{1*} Lan hau Euskal Herriko Unibertsitatearen 1/UPV/EHU 00027.130-HA-8093/2000, 9/UPV00033.130-13614/2001, 9/UPV00027.130-13587/2001, Eusko Jaurlaritzaren PI-1999-18 eta MECeko PB98-0239 ikerkuntza proiektuen babesean egin da.

^{2*} *Itziar Barriolak azken hatsa eman zuen atzo goizean Donostiako Ospitalean, eritasun larri batek jorik. 56 urteko donostiar honek 1974tik hona Seaskan irakasle gisa lan egin zuen, Baionako ZUPeko ama ikastolan lehenik, eta Donibane Lohizuneko ikastolan, azken urteetan. Donibane Ziburuko ikastolako zuzendari izan zen. Seaskan erabat murgildu zen eta honen aldeko borroketan parte hartu zuen. Zenbait urtez Seaskako bulegoko kide izan zen eta Pariseko Gobernuarekilako negoziaketetan parte hartu zuen iaz.* (Euskaldunon Egunkaria, 2001eko uztailaren 17a).

bo-komunztadura bikoitzeko formak aurkeztuko ditugu; 4 atalean tempusaren eraginik eza Datiboaren Lekualdatzean ikusi ondoren, Datiboa eta Datiboaren Lekualdatzea aztertuko ditugu jakiekuntza datuetan 5. eta azken atalean.

1. ITSASALDEKO SOLEZISMOA

Zenbait euskaratan, datibo (DAT)³ argumentuak ezohiko absolutibo-pertsona komunztadura (A-komunztadura) erakusten du predikatu ditransitiboetako aditz jokatueta. Honela, *niri* lehen pertsonako DAT argumentuarekiko komunztadura, (1b)ko *dautazu* adizkian bezala, ohikoa zaion *-t* datibo-pertsona komunztadura (D-komunztadura) markaz ageri beharrean, *n-* A-komunztadura aurrizkiak markatzen da Sarako hizkerako (1a)ko perpausuan.

- (1) a. Zu-k ni-ri sagarra-Ø eman n-a-u-zu
 Zu-ERG ni-DAT sagar (ABS) eman 1A_D-?-erroa-2E
- b. Zu-k ni-ri sagarra-Ø eman d-a-u-ta-zu
 Zu-ERG ni-DAT sagar (ABS) eman AURR-?-erroa-1D-2E

(1a)ko perpausak hiru argumentu izanik ere, alegia, *zuk* ergatibo (ERG) argumentua, *niri* DAT argumentua eta *sagarra* ABS argumentua, komunztadura ERG eta DAT argumentuekin soilik egiten duen *nauzu* adizkia du, eta DAT argumentuari ezohiko *n-* A-komunztadura marka egotzen zaio. Hortaz, DAT argumentuak ez du berez espero genezakeen D-komunztadurarik, eta ez da laguntzailean inongo Datibo-komunztadura markarik ageri. Bestalde, ERG argumentuarekiko komunztadura marka bera da perpaus bietan, Ergatibo-komunztaduraren (E-komunztadura) *-zu*, alegia.

Dakusagun fenomenoia DAT argumentua bigarren pertsona denean ere (2a).

- (2) a. Ni-k zu-ri sagarra-Ø eman z-a-it-u-t
 Ni-ERG zu-DAT sagar (ABS) eman 2A_D-?-PL-erroa-1E

³ Ondoko laburdura hauek erabiliko ditugu lanean zehar: A=absolutibo-komunztadura; A_D=datibo argumentuarekiko absolutibo-komunztadura; A_E=ergatibo argumentuarekiko absolutibo-komunztadura; ABS=absolutibo (kasua); AURR=aurrizkia; DAT=datibo (kasua); DATS=datibo sintagma; DL=Datiboaren Lekualdatzea; DM=datibotasunaren markatzailea; E=ergatibo-komunztadura; EL=Ergatiboaren Lekualdatzea; ERG=ergatibo (kasua); Ir/IRGN=iragana; j.g=elkarrizketan jaso gabeko forma; J: Jurgi; kmz=komunztadura; M: Mikel; O: Oitz; Or=orainaldia; P: Peru; p=plurala; Sa=Sarako euskara; ?= *-a-*, *-e-*, *-ind/t-* hizkiak adierazteko; (;)= haurren adina: (urteak; hilabeteak, egunak).

- b. Ni-k zu-ri sagarra-Ø eman d-a-u-tzu-t
 Ni-ERG zu-DAT sagar (ABS) eman AURR-?-erroa-2D-1E

Eman predikatu ditransitiboko perpaus honetan (2a), hiru argumentu ditugu eta, espero bezala, ERG, DAT eta ABS kasuez markaturik daude. Hiru argumentu izanik harritzekoa da, baina, ondoren ageri den laguntzailea, izan ere *dautzut* laguntzaile *kanonikoa* deituko duguna behar lukeenean, ezohiko komunztadurako *zaitut* adizkia ageri baita (2a)koan.

Laguntzaile honek bi argumenturekin bakarrik egiten du komunztadura, hau da, ERG eta DAT argumentuekin *-nik* ERG argumentuarekin *-t* E-pertsona komunztadura atzizkiaren bitartez eta *zuri* DAT argumentuarekin *z-* A-pertsona komunztadura aurrizkia dela medio. Komunztadurari begira, ERG argumentuari E-komunztadura atzizkia dagokio, ohi den bezala, baina DAT argumentuari D-komunztadura egotzi beharrean, A-pertsona komunztadura marka ezartzen zaio. Hauxe da, hain zuzen, fenomenoaren ezaugarri behinena: DAT argumentua ohikoa zaion D-komunztaduraz markatu beharrean, A-pertsona komunztaduraz markatzen da laguntzailean. Gainera, DAT argumentuari A-komunztadura egotzita, D-komunztadura bera desagertu egiten da adizkitik.

Goiko (1a) eta (2a)koek bi baldintza sintaktiko betetzen dituzte: i. ABS argumentuak hirugarren pertsonakoa izatearena; ii. DAT argumentuak lehen edota bigarren pertsonakoa izatearena. Hala, (2a) eta (1a)ko perpausok ezaugarri berberak islatzen dituzte, bi baldintza sintaktiko hauek betetzen baitira.

Lafittek (1987) *le Solécisme de la Côte* deritza aurreko perpausok adierazten dutenari, baina gure iritzirako, honelako adizkien erabilera ezin har daiteke *solécisme-tzat*⁴, ez eta ziur aski *de la Côte-tzat* soilik, Sarako hizkeran

⁴ Ez dirudi Lafitte denik *daut* adizkiaren ordezko *zaitut* adizkiaren erabilera okertzat hartu duen bakarra. Ikus, esaterako, Irizarrek (1997) lapurterari buruz diharduenean dioena: “*En el dialecto laboritano, presenta especial interés el fenómeno que Bonaparte denominaba “la faute de nau” (o simplemente nau entre dos aspás; a veces, en lugar de nau, se anotó nauzu), expresión con la que designaba la sustitución de la forma correcta de objeto indirecto (del tipo dit, daut), por la de objeto directo correspondiente (del tipo nau), es decir, el empleo de nau con el significado impropio “el me lo ha” (además de con el suyo propio, “él me ha”); este uso da lugar a expresiones incorrectas, tales como esan nau (en lugar de esan dit), “él me lo ha dicho”.*” (Irizar 1997: 17). Jarraian Erquiagaren aipamena dakar Irizarrek: “*Erquiaga me comunicó que en Lequeitio (dialecto vizcaíno), los jóvenes empleaban –“oker nabarmen”, señalaba– nau por daust, dost, y nittu (nitxu) por deustaz, dostaz.*”

Nolanahi ere, ez dirudi fenomenoak okertzat jotzeak ezer argitzen duenik sistemaren beraren ezaugarriez.

ere aurki badaiteke, bederen. Bonaparteren (1869) lanetik bertatik ikus daitekeenez, fenomenoa itsasaldekoa bada, hein batean, baina baita barrualdego-koa ere⁵.

Guri dagokigunean, hau da, fenomenoari gramatikagintzaren ikuspuntu-
tik begiratzean, argi dago ezin esan daitekeela solezismoa denik, ez behintzat
hiztegietan eman ohi zaion esanahiarekin⁶. Alde batetik, dialektologoek eus-
kalki bat baino gehiagotan aurkitu ahal izan dutelako –lapurteraz eta bizkaie-
raren batean, esateko–, eta bestetik, sistema oso baten aurrean gaudelako, ez
forma solteen tartekako erabilerarenean. Mayi Garateren⁷ solasaldian jasotako
datuek eta galdera-erantzunen bitartez eman zizkigun iritziek, jatorrizko hiz-
tun batek bere hizkuntzaz dituen intuizioak maisuki erakustez gain, fenome-
noak Sarako bere hizkeran dituen mugarriak erakutsi zizkiguten ederki. Gure
datu-emaile saratarrak sistema oso bat daki eta galanki erabil dezake, beti ere
hizkideari egokitzen zaiola, ez, alegia, noiznahi eta normahirekin⁸. Sarako
datuez gain, haur euskaldun batzuren lehenbiziko DAT kasudun eta A_D- eta
D-komunztaduradun formak ere erakutsiko ditugu fenomenoaren solezismoaz
haratago doanaren adierazgarri.

2. DATIBOAREN LEKUALDATZEA

Itsasaldeko Solezismoari *Datibo Lekualdatzea* deritzagu lan honetan,
Fernándezek (2001) lehenengoz deritzan bezala.

⁵ Koldo Zuazok dioenez (Fernández 2001), Lapurdiko Hegomendebaldean gertatzen da fenomenoaren hasi eta itsasora bitartean. Zuraiden eta Ezpeletan ere aurki daitezke bere aztarnak (Irizar 1997 eta 1999, Zuazo 1999). Nafarroan ere, Baztanen, Bertizaranan eta Bortzirietan aurkitzen da fenomenoaren, eta Gipuzkoan, Donostia eta Irun bitartean (Irizar 1981, 1991 eta 1992, Zuazo 1997). Baita Lekeitioan ere, Bizkaiko kostaldean (Irizar 1997).

⁶ *Solezismo*. Iz. HIZKL. “Adierazpen bat oker erabiliz edo hizkuntza baten ohizko sintaxia aldatuz hitz egitean egiten den akatsa.” (Elhuyar 1993).

⁷ Mayi Garate Saran jaio zen 1945 urtean. Ama saratarra du eta aita Zugarramurdikoa. Saratar batekin ezkondu da, eta Azkainen bizi da azken hogeita hamar urteotan.

⁸ Mayi Garate bi sistemaren jabe da (gutxienez): bata berak bere jaioterriko hizkeratza eza-
gutzen duena (*zuri/zaitut*) eta bestea, *egungo* euskeratza, alegia, bere seme-alabekin erabi-
li ohi duena (*zuri/dautzut*). Hauxe gain, baditu idatzirako bakarrik erabiliko omen lituzke-
en formak (*zerautan...*) ere.

2.1. Datiboaren Lekualdatzea eta Ergatiboaren Lekualdatzea

Datibo Lekualdatzea, Ergatibo Lekualdatze ezagunarekin (Trask 1979, Ortiz de Urbina 1989, Laka 1988, Fernández 1997, Albizu & Eguren 2000) bateratzen du Fernándezek: DLdun perpausetan, A-komunztadura erakusten dute DAT argumentuek, EL perpausetan ERG argumentuek A-komunztadura eragiten duten moduan. Hala, bi fenomenoetan, komunztadura *bitxia* (Hale 1996, 1998, 2001) erakusten du argumentuetako batek: DAT argumentuari ez zaio D-komunztadura egozten DL perpausetan, ez eta ERG argumentuari E-komunztadura ere EL perpausetan; batari zein besteari ezohiko A-komunztadura ezartzen zaie. Gainera, DL zein EL perpausetan, pertsona komunztadura murriztu egiten da, DAT argumentuak A-komunztadura azalduz gero, D-komunztadura desagertu egiten delako DL perpausetan. EL perpausetan, bestalde, ERG argumentuak Absolutibo-komunztadura eraginda, E-komunztadura desagertu egiten da laguntzaitetik.

Badirudi, hortaz, badagoela Lekualdatze fenomeno orokorrago batez hitz egitea, EL zein DL besarkatzen dituen, hain zuzen, eta baldintza sintaktiko berberak betetzen dituen, hau da: i. ABS argumentua hirugarren pertsonakoa izatea, eta ii. ABSz gorako argumentuak, alegia, DAT eta ERG, lehen edota bigarren pertsonakoak izatea. Lekualdatze orokorra kasua eta komunztadura bereiztearen adierazgarri bat gehiago legez agertzen zaigu, kontuan izanez gero bere bi ezaugarri nagusiak: komunztadura bitxia eta komunztadura murrizketa, biak, ohiko eran kasuz markatutako argumentuekin.

2.2. Datiboaren Lekualdatzerik gabeko perpausak

Goiko atalean, euskalki batzuetan ageri diren DLdun perpausak izan ditugu aztergai. DL gertakari hau erakusten duten sistemek ez dituzte, ordea, DLko formak izaten DAT argumentuarekiko komunztadura gauzatu behar den bakoitzean. Hala, DAT argumentua hirugarren pertsonakoa denean, laguntzaile kanonikoez hornitzen dira predikatu ditransitiboko perpausak, (3a) eta (3b)ko adibideak *diot/diozu* laguntzaileez⁹ bezalatsu.

⁹ Esan beharra dago *diot* erako adizkiak ageri direla bai DL duten sistemetan, Sarakoan adibidez, bai DLrik gabekoetan ere, eranskineko 3-6 tauletan erakusten den bezala. Aipagarria da DLrik ez duten sistemetan *diot* erakoak izatea hirugarren pertsonako DAT argumentuarekin komunztadura egiten duten adizkiak, eta *dautzut* -*ez dizut*- erakoak izatea lehen edota bigarren pertsonako D-komunztaduradunak. Hemen ere, lehen/bigarren vs. hirugarren pertsona aurkakotasunarekin topo egiten dugula dirudi *di-/dau-* banaketan.

- (3) a. Ni-k Jean-i sagarra-Ø eman d-i-o-t
 Ni-ERG Jean-DAT sagar (ABS) eman AURR-(erroa)-DM-3D-1E
 b. Zu-k Jean-i sagarra-Ø eman d-i-o-zu
 Zu-ERG Jean-DAT sagar (ABS) eman AURR-(erroa)-DM-3D-2E

Ez da orain gure asmoa *diot/diozu* laguntzailetako perpausak aztertzea. Egia da printzipioz (3a) eta (3b)ko adibideei begira, (1a) eta (1b)ko DL perpausen antzeko deskribapena egitera ausart gintezkeela. Horrela esan genezake bi perpaus hauek hiru kasudun argumentuak izan arren, bi argumenturekin baino ez dutela komunztadura egiten *diot/diozu* laguntzailetan, alegia, ERG eta DATekin, *nauzu/zaitut* laguntzailedun (1a) eta (1b)ko DL perpausetan bezala¹⁰. Hori, jakina, hirugarren pertsonak komunztadurarik ez duela berretsiko bagenu, Trask (1977), Euskaltzaindia (1987) edota Lakarekin (1988) bat etorritz, eta adizki hastapeneko *d-* aurrizkia eta bere gainerako kideak, hau da, *z-*, *l-*, *b-*, *Ø* aurrizkiak A-komunztadura markatzat hartuko ez bagenitu, Heathek (1976) edota Ortiz de Urbinak (1989) bezala.

Nolanahi ere, bada (3)ko adibideak DL perpausetatik bereizten dituen alderdi aipagarri bat, alegia, (3)ko adibideetan DAT argumentuei D-pertsona komunztadura dagokie, ez A-pertsona komunztadura (1)eko DL perpausetan bezala. Hortaz, (3)ko adibideetan ez dago komunztadura bitxirik. Horrez gain, (3)ko perpausetan ez da komunztadura murrizten, D-komunztadura markak agertzen direlako bertan, (1a) eta (2a)ko DL perpausetan ez bezala.

(3)ko perpausak orainaldikoak dira. Baina iraganeko perpausetara begiratzuz gero, komunztadura markak beste era batera atontzen direla ikus daiteke: ERG argumentuak A-pertsona komunztadura eta DAT argumentuak D-komunztadura erakusten dutela, (4)koak adibide. Lakak (1988) EL deitu zuen fenomeno honetan, E-komunztadura ezabatu egiten da laguntzailetatik.

- (4) a. Ni-k Jean-i sagarra-Ø eman n-i-o-n
 Ni-ERG Jean-DAT sagar (ABS) eman 1A_E-(erroa)-DM-3D-IRGN
 b. Zu-k Jean-i sagarra-Ø eman z-in-i-o-n
 Zu-ERG Jean-DAT sagar (ABS) eman 2A_E-?(erroa)-DM-3D-IRGN

DL eta EL ez dira elkarren aurkari sistemaren barruan. Hortaz, gramatika berean, Sarako lapurterarenean kasu honetan, DL perpausaz gain, ELkoak ere ageri daitezke, beharrezko baldintzak betetzen direnean. Azken batean, DL perpausak DAT argumentua lehen edota bigarren pertsonakoa denean bakarrik gerta daitezke. DAT argumentua hirugarren pertsonakoa denean,

¹⁰ Hala proposatu izan da, esate batera, haurren adizkiak aztertzerakoan (Ezeizabarrena 1996).

berriz, *diot* DL gabeko perpausak ditugu orainaldian -(3)koan bezala-, eta nagusiki EL perpausak iraganean¹¹ -(4)koan bezala. 4 atalean itzuliko gara EL perpausetara.

3. DATIBO-KOMUNZTADURA BIKOIZTEN DENEAN

Orain arteko datuetan, singularreko ABS argumentudun perpausak eman digute hizpide. Gatozen orain pluraleko ABS argumentuak erakusten dituzten perpausetara, (5a) bezalakoetara. Bertan, zeinahi DL perpausetan espero bezala, *niri* DAT argumentuarekin komunztadura egiten du laguntzaileak *n*-A-pertsona komunztadura aurrizkiaren bitartez. Baina bada besterik: A-numero komunztadura ez dagokio DAT argumentuari, ABS argumentuari baino. Horrela, *-zki-* pluralgilea ez dagokio *niri* lehen pertsonako DAT argumentuari, baizik eta hirugarren pertsonako *sagarrak* ABS argumentuari.

- (5) a. Zu-k ni-ri sagarrak-Ø eman n-a-u-zki-tzu
 Zu-ERG ni-DAT sagar-p (ABS) eman 1A_E-?-erroa- Ap-2E
- b. Zu-k ni-ri sagarrak-Ø eman d-a-u-zki-da-tzu
 Zu-ERG ni-DAT sagar-p (ABS) eman AURR-?-erroa-Ap-1D-2E

Honek pentsarazten digu A-komunztadura nolabait bereizi egiten dela DAT eta ABS argumentuen artean DL perpausetan, Fernándezek (2001) honezkerok, Lekeitioko datuei erreparatuz esan duen modura. Lan berean dienez, antzerako baieztapena egin daiteke EL perpausekin, non A-pertsona eta A-numero komunztadura banatu egiten diren -ikus baita Fernández & Albizu (2000) ere.

Lekeitioko datuetan ez dira ageri, alabaina, Sarako gramatika aurki daitezkeen bestelako forma bitxiak, (6a)ko perpausetan ageri dena, kasurako. Perpaus honetan ere pluralekoa da ABS argumentua, eta A-komunztadura pertsona eta numeroan bereizten da DAT eta ABS argumentuen artean, hurrenez hurren. Baina *zauzkitzut* laguntzailea arretaz aztertzea baino ez dago, ohartzeko, DLko adizki hutsak baino zerbait berezixeagoa dela, DAT argumentuari, bat gabe, bi pertsona komunztadura egotzen zaizkiolako bertan: bata A-pertsona komunztadura *z-* aurrizkiaren bitartez, eta bestea, D-pertsona komunztadura hau ere, *-tzu* atzizkiaren bitartez. Bestela esanda, laguntzaileak bi pertsona hizkiez egiten du komunztadura DAT argumentuarekin.

¹¹ *Nagusiki* diogu *zion*, kasurako, ez genukeelako ELtzat hartuko -ikus Ortiz de Urbina (1989) edota Fernández (1999).

- (6) a. Ni-k zu-ri sagarrak-Ø eman z-a-u-zki-tzu-t
 Ni-ERG zu-DAT sagar-p (ABS) eman 2A_E-?-erroa-Ap-2D-1E
 b. Ni-k zu-ri sagarrak-Ø eman d-a-u-zki-tzu-t
 Ni-ERG zu-DAT sagar-p (ABS) eman AURR-?-erroa-Ap-2D-1E

Milafrangako antzeko adibide bat dakarkigu Traskek (1981)¹² erazleak aztergai darabiltzanean. Traskek dioenez, predikatu iragankor batek DAT argumenturik badu, ezin osa daiteke erazlerik, *eman dizu* vs. *eman erazi diot*, esaterako. Milafrangako hizkeran, alabaina, honelakoxe formak aurkitu ditu (7):

- (7) a. Eman daut
 b. Eman arazi nautak

(7b)ko *nautak* laguntzaileak, harrigarria Trasken hitzetan¹³, lehen pertsonako bi komunztadura marka erakusten ditu, bata A-komunztadurarena eta D-komunztadurarena bestea, *zauzkitzut* adizkian bezalaxe. Bietan, itxuraz bederen, D-komunztadura bikoiztu egiten da. Deritzegun, hortaz, *Datibo Bikoitzak*¹⁴, Sarako gramatikan *zuri/zuei* DAT argumentudun adizkietara mugatzen badira ere, izena ongi merezia dute-eta. Ikusi beharko da gero beste inon ere aurkitzen diren eta zenbaterainoko sistematikotasunaz.

Fernán dezek (eginbidean) dio ERG argumentuari bi pertsona-komunztadura marka ezartzen dioten *generamagun Ergatibo Bikoitzeko* adizkiekin gonbara daitezkeela forma hauek. Izan ere, bi eratako adizkietan, argumentu bati bat gabe, bi pertsona-komunztadura marka egozten baitzaizkio, eta bietako bat A-komunztadurarena da. Horrez gain, badirudi biek dutela nolabaiteko zerikusia Lekualdatzearekin, *Datibo-bikoitza* ageri baita DL ere gertatzen den Sarako hizkeran, eta *Ergatibo Bikoitza* EL azaltzen den zenbait euskaratan. Nolanahi ere, ez gara ur handiagotan sartuko, oraingo honetan, formei erreparatzeko asmoa baino ez genuen eta, gure deskribapena osatuz joateko.

¹² Pablo Albizu adiskideari zor diogu aipamen hau.

¹³ Honelaxe dio hitzez hitz: "*The last form is extraordinary in that it actually includes TWO markers of first person singular, one in direct object position, and one in indirect object position.*" (Trask 1981: 294).

¹⁴ *Datibo Bikoitza* deritzagu, nahiz eta batetik D-komunztaduraz dihardugun, ez DAT argumentuez, eta bestetik, bi komunztaduretatik bat D-komunztadura izanik ere, bestea A-komunztadura den.

4. DATIBOAREN LEKUALDATZEA, TEMPUSIK GABEKO FENOMENOA

Gorago -2 atala-, DL eta EL era bateratu samarrean aztertu ditugu. Horrek ez du ukatzen begibistakoa den zerbait, alegia, DLk eta ELk, bakoitzak bere ezaugarriak dituela. Izan ere, EL gerta dadin, ERG eta ABS argumentuen pertsona zehaztapenaren aurkakotasunaz gain, tempusak iragana izan behar du halabeharrez. Alegia, ez da argumentuen izaera soilik EL baldintzatzen duena, tempusaren zehaztapenak ere berebiziko garrantzia duelako. DLri dagokionean, berriz, DAT eta ABS argumentuen izaera da soilik aintzat hartu beharrekoa, tempusa zeinahi delarik ere, orainaldi nahiz iragana, izango baititugu DL perpausak Sarako gramatika. Hala, DL *tempusik gabeko* fenomenoa dela esan daiteke, EL tempusaren mendean dagoela diogun bitartean.

Ondoko (8a) eta (9a)ko perpausak (1a) eta (2a)ko perpausen iraganeko kideak dira. Iraganeko perpausotan ere, orainaldikoetan bezalatsu, DAT argumentuak A-komuntaduraz adierazten dira *ninduzun* eta *zintutan* laguntzaillean, eta D-komuntadura desagertu egiten da beraietatik.

- | | | | | | |
|--------|--------|--------|-------------|------|--------------------------------------|
| (8) a. | Zu-k | ni-ri | sagarra-Ø | eman | n-ind-u-zu-n |
| | Zu-ERG | ni-DAT | sagar (ABS) | eman | 1A _D -?-erroa-2E-IRGN |
| b. | Zu-k | ni-ri | sagarra-Ø | eman | z-en-i-da-n |
| | Zu-ERG | ni-DAT | sagar (ABS) | eman | 2A _E -?(erroa)-DM-1D-IRGN |
| (9) a. | Ni-k | zu-ri | sagarra-Ø | eman | z-int-u-ta-n |
| | Ni-ERG | zu-DAT | sagar (ABS) | eman | 2A _D -?-erroa-1E-IRGN |
| b. | Ni-k | zu-ri | sagarra-Ø | eman | n-i-zu-n |
| | Ni-ERG | zu-DAT | sagar (ABS) | eman | 1A _E -(erroa)-DM-2D-IRGN |

DL gertatzen den gramatiketan, orainaldian zein iraganean agertzen da, horretarako baldintza sintaktikoak egokiak badira. Honek badu bere ondorioa ELrako, izan ere DAT-argumentua izanez gero, DL estrategia gailentzen baitzaio ELri¹⁵. *Ninduzun/zintutan* adizkidun DL perpausak aurkitzen ditugu -(8a) eta (9a) esaterako-, *zenidan/nizun* adizkidun EL perpausen kaltetan -(8b) eta (9b) adibidez. Dena den, DL gertatzeak ez du erabat galerazten EL sistemaren barruan, EL ahularazten badu ere. Esate batera, Sarako euskaran

¹⁵ Diogun, begi-bistakoa izanik ere, gramatika berean EL zein DL perpausak aurki daitezkeela, baina ezin aurki daiteke EL nahiz DL, biak, dituen perpausik; izatekotan, fenomeno bat ala bestea izango dugu, inoiz ere ez biak batera perpaus berean, behin aukera bietarik bat gailendu denean.

zenidan/nizun bezalakoak aurkitzen ez baditugu ere, badira ordea, *zenuen/nuen* bezalakoak. 1. taulan ageri den bezala.

1. taula. Lekualdatzea Sarako euskaran eta Euskara batuan

	Sarako euskara		Euskara batua	
	Orainaldia	Iragana	Orainaldia	Iragana
ERG (1/2)DAT (1/2) ABS (3)	DL <i>zaitut</i>	DL <i>zintutan</i>	<i>dizut</i>	EL <i>nizun</i>
ERG (1/2) ABS (3)	<i>dut</i>	EL <i>nuen</i>	<i>dut</i>	EL <i>nuen</i>

Ondorioz, tempusaren zehaztapenak baldintzatzen badu nolabait ELren gertaera, eta ez, ordea, DLrena, pentsa daiteke *sasi guztien gainetik* argumetuen izaera, bera dela Lekualdatze fenomeno orokorra baldintzatzen duena, eta ez tempusa. Edo baieztapena nolabait leunduz, *hodei guztien azpitik*, lehentasuna, bederen, argumentuen izaerak berak duela, eta ondoren, eta ondoren bakarrik, tempusarenak.

Azalpenaren ildoak formalizaziora eramango gintuzkeen arren, oraingo honetan, Fernándezen (2001) azterbidearen bi oinarri nagusiak aipatuko ditugu, DL teorikoki ulertzeko lagungarri izan daitezkeelakoan. Bi oinarri teorikook ELrako proposatu zituen lehenengoz Fernándezek (1997), DLrako ere balia zitzakeela ohartuz, ondoren.

Hona hemen biak. Lehenik, komuntadura-tasunek bereizkuntza parametrikora daramatzate hizkuntzak: hizkuntza ergatiboetan, aditz buruek (Vk euskaraz) baldintzatzen dituzte zeinahi perpausetan nahitaezkoak¹⁶ diren komuntadura-tasunak, ez Tempusak. Bigarrenik, hirugarren pertsonako argumentuek, lehen eta bigarrenenok ez bezala, ez dute [pertsona] tasuna burutzen, eta ez dute [numero] tasuna besterik. Horregatik, hain zuzen, ez dute V aditz buruaren nahitaezko pertsona komuntadura-tasuna zilegiztatze gaitasunik.

Diodan orain modu ezformal batean: hirugarren pertsonako argumentuak nolabait *defektiboak* dira komuntadurarekiko harremanean eta ez dira gai adizkiaren komuntadura betekizunak asetzeko. Nolanahi ere, betekizun hauek ezinutzizkoak dira, eta hirugarren pertsonako ABS argumentuak bete ezean, perpausoko beste argumentu batek ase beharko ditu: DLren kasuan, DATk berak, egituraz hurbil dena ABStik, eta ERG argumentuak, berriz,

¹⁶ *Nahitaezko Kasuaren Parametroaren* (Chomsky 1993, Bobaljik 1993) ildotik deritzegu nahitaezko komuntadura-tasunei.

ELreanean, beti ere ABSz gorako bi argumentuok lehen edo bigarren pertsonakoak badira¹⁷. Honela uler daiteke, bada, DAT eta ERG argumentuek A-komunztadura bitxia erakustea DL eta ELn, hurrenez hurren. Azterbidearen gainerako urratsak egin gabe ere, A-komunztadura bitxiaz markatzeak ez dakar ezohiko kasu markapenik. Hala, kasua eta komunztadura bereizi egiten dira, hipotesi teorikoan *erkabide erdibitua* deitzen zionaren bidez (Fernández 1997), hau da, kasu-tasuna zuhaitzaren gunen batean zilegiztatu eta komunztadura, berriz, beste batean¹⁸.

Bestalde, azalpen teorikorik gabe orain, Sarako hizkeraren, eta oro har, lapurteraren D-komunztaduraz ere hausnartu behar dugu, beste euskalkieta-ko D-komunztadura baino *ahulagoa* dirudielako. Ahulagoa diogu, terminu aurreteoriko soilean, D-komunztadurak desagertzeko joera erakusten duelako, bai A-komunztaduraz ordezkatzan denean DLn, bai D-komunztadurarik gabeko perpausetan (7b), DAT argumentua hirugarren pertsona denean¹⁹.

- (10) a. Jeanek har-i sagarra-Ø eman d-i-o
 Jean-ERG hura-DAT sagar (ABS) eman AURR-(erroa)-DM-3D-(3E)
 b. Jeanek har-i sagarra-Ø eman d-u
 Jean-ERG hura-DAT sagar (ABS) eman AURR-(erroa)-(3E)

Hau guztia, DAT kasua eta D-komunztaduraren gaineko azterketak duen beste erakusgarri bat baino ez da. Gurea hondar alea baino ez da kostalde honetan. Zorionez, literaturan salbuespen izan dena aspaldi honetako interesgune bihurtu da lan plazaratu berrietan. Ikus bilduma honetako Albizuren edota Arregi eta Ormazabalen lanak, eta Elordietaren (2001) doktorego tesia.

5. DATIBOA ETA DATIBOAREN LEKUALDATZEA JABEKUNTZAN

Datiboraren Lekualdatzeari buruzko lan honen hasieran agindu dugun bezala, haurren datuek eskaintzen digute bigarren datu iturria, eta hala, Sarako

¹⁷ Kontuan izan aditz inflexioarekin lotu izan den zenbait fenomeno bitxi, hala nola, EL bera edota orain aztergai darabilgun DL ere, ERG/DAT (1/2) vs. ABS (3) aurkakotasunean oinarritzen direla –ikus 4 atala ere.

¹⁸ Zailagoa dirudi azaltzeak zergatik gailentzen zaion DL estrategia ELri Mayiren gramatikan.

¹⁹ Ez dugu honekin esan nahi D-komunztadura ezabatzan denik hirugarren pertsonako DAT argumentuekin soilik. Nolanahi ere, Mayiren gramatikan DL erabatekoa delarik, ez dirudi harritzekoa hirugarren pertsonako DAT argumentuak izatea, hain zuzen, D-komunztaduraren ezabaketa erakusten dutenak.

hizkeratik jasotako datuez gain, haur euskaldun batzuen lehenbiziko DAT kasudun eta A_D- eta D-komunztaduradun esaldiak izango ditugu aztergai, besteak beste, atal honetan. Aditzeko markei dagokienean, ez ditugu A_D-komunztaduradun esaldiak soilik aipagai, ez baitugu uste komunztadura bi-txiko kasuok bakarrik azter ezta uler daitezkeenik, DAT kasuaz eta D-komunztaduraz gogoetaren bat egin gabe.

Datibo komunztaduraz hitz egiterakoan bi elementuz ari gara derrigorez: DAT argumentuaz eta aditzak argumentu horrekin erakusten duen komunztaduraz. Honek huskeria badirudi ere, bereiztu beharreko kontuak dira haurren datuak erakusterakoan, izan ere ez baitira ez garai berean, ez eta era berean agertzen DAT kasu markak eta aditzeko D-komunztadura edota A_D-komunztadura markak.

Atal honetako corpusa hiru haur elebidun eta elebakar batek ekoiztutako esaldiek osatzen dute bataz beste, 18 hilabete ingururekin hasi eta lau urteak bitartean. Ikus, besteak beste, Barreña (1994,1995), Elozegi (1998), Ezeizabarrena (1994,1996), Meisel (1994) eta Larrañagak (1994, 2000) aztertutako datuak, HEGEHJ-BUSDE izeneko elkarlanean.

2. Taulak haurren artean dauden aldeak erakusten ditu marka bakoitzaren agertze-adinari dagokionean. Oso fenomeno ezaguna eta hedatua da norbanakoen arteko aldea haurren hizkuntzaren azterketan. Esate batera, haurren hasierako ekoizpenetan oso morfologia gutxi agertzen da, eta bat ere DAT markarik ez (Barreña 1994, 1995; Elozegi 1998, Larrañaga 1994). Adibide legez, ikus Barreñak (1995) aipatzen duen elkarrizketa zatia (11). Garai hau, haur batzuen kasuan 25 hilabete arte, eta besteetan urte erdi beranduago arte luza daiteke.

- (11) Hizkidea: Ta nori esango dotzeu etortzeko gurekin?
Amane (O 1;08,29)
Hizkidea: Amaneri

Adinari berari baino garrantzi gehiago eman ohi zaio ordea, fenomenoaren hurrenkera kronologikoei haur bakoitzaren garapenean; izan ere gertakarien aldiberekotasuna, iraupena edota zein beste zein fenomenoren atzetik gertatzen den baita aurkitu nahi dena, ez horrenbeste haurrak zenbat hilabete dituela gertatzen den bakoitza. 2. Taulari ikuspegi berri honekin begiratu geroz beste erako informazioa atera dezakegu: DAT kasu markak *goizago* ageri dira argumentuan (normalean, Peru salbuespen) predikatu ditransitibio-etako datiboarekiko komunztadura markak baino (D edo A-komunztadura).

2. Taula. Datiboaren marken agertze adinak haurren hizkuntzan DAT argumentuan eta aditz jokatuan

	Mikel	Peru	Jurgi	Oitz
	elebiduna	elebiduna	elebiduna	elebakarra
DAT	2;01	2;07	2;08 ²⁰	2;00
D-kmz (ditrans) ²¹	2;07	?2;05/3;00	3;03	2;04
A _D -kmz	—	2;09 ²²	3;09	—

Baina atzeratze honek izan lezake sintaxiaren garapenarekin zerikusi handiegirik ez duen azalpen bat. Gure corpuseko datuak ekoizpen naturaletatik (ez esperimentaletatik, alegia) atereak direnez, esaldi multzo handi bat osatzen dute, baina batzuk bakarrik dira perpaus osoak, ez denak²³. Hasierako esaldiak laburrak izan ohi direnez, adizkabeak izaten dira sarritan, eta ondorioz, DAT kasu markak aukera handia du D-Komunztadura baino maizago eta goizago agertzeko haurren datuetan (12). Batzuetan aditza izanik ere, ez dute laguntzailerik izaten (12b,e).

- (12) a. zuri (O 2;00)
 b. hori niri Jurgi(k) ekarri (O 2;00)
 c. ni(r)i bai (M 2;01)
 d. gizonari (P 2;07)
 e. ikuxi begia aitari (J 2;08)

Bestalde, kasu markak lehen aldiz agertzeak ez du esan nahi handik aurrera helduen gramatikaren arabera esperoko litzatekeen guztietan haurrak kasu marka hori egingo duenik, baina esan beharra daukagu, DAT kasu markari dagokionean, behin agertuz geroz helduen eran markatzen dutela hurrek argumentuan gehienetan. Adibidez, Peruk oso DAT markadun adibide gutxi baditu ere hiru urteak bitartean (bi bakarrik), handik aurrera gehienetan markatzen ditu argumentu hauek dagokien *-(r)i* atzizkiak. Antzeko gauza esan dai-

²⁰ Adin honetan aurkitu ditugu adibideak adiztun esaldietan, baina baliteke Jurgik aditzik gabeko DAT argumentuak goizago ere ekoiztiak izatea.

²¹ Taula honetan ez ditugu kontuan hartu perpaus iragangaitzetako *zaizu* bezalako A-D komunztaduradun adizkiak, baina garai beretsuan ageri dira: Mikelen kasuan 2;07rekin, eta Jurgirenean 3;03rekin (Ezeizabarrena 1996).

²² Adibide solteren bat baino ez du.

²³ Datu bilketaren metodologiaz eta kodifikazioaz zehaztasun gehiago izateko ikus Mahlau (1994) eta Ezeizabarrena (1996:11-18).

teke beste hurrei dagokienean ere. Alde nabarmena dago kasuen artean, esate batera, DAT markatze zitura eta ERG markatze gorabeheratsuen artean²⁴.

Aditzeko D-komunztadura, berriz, zerbait beranduago agertzen da. Hasieran oso maiz aurkitzen dira DAT argumentudun perpauusak (edozein pertsonatakoak) inolako komunztadurarik gabe aditz jokatuan (13a-c)²⁵, eta baita bat edo beste ere, beranduago (13d).

- (13) a. beti e(z)tu hartzen zuli (=zuri) (P 2;09)
- b. u(z)ten du nili eta beti u(z)ten du nili (P 2;09)
- c. ze(r)gatik kendu dau niri kamioie? (M 2;04)
- d. ha honeri “pak” kendu behar da (J 4;00)

Baina D-komunztadurako aurreneko formak agertzen hasten direnetik aurrera oso salbuespespen gutxirekin gauzaten da komunztadura laguntzaillean (14).

- (14) a. garajea egingo dotzagu (O 2;04)
- b. goazen, ze bestela kenduko (d)osku (O 2;04)
- c. ez jata gustetan (M 2;03)
- d. non ipiniko (d)otzat (M 2;04)
- e. nik eman behar diot (P 2;05)

Bi gertakari hauek haur euskaldun elebkarretan zein elebidunetan aurkitu ditugu oso antzera. Esan genezake, beraz, datiboaren markatzea erabatekoa dela hasieratik. Hala ere, eta honek orokorra dirudi haurren hasierako ekoizpenetan, ez dira oso ugariak, biak, DAT kasudun argumentua eta D-komunztadura dituzten esaldiak (15).

- (15) a. ez niri ez zait gustatzen ezer (P 2;10)
- b. ple(s)tatu dizut zure laranja ula (P 3;00)
- c. ematen didazu niri? (P 3;04)
- d. harrapau in dotzien Gordinfloni eta Mikiri (M 3;11)

²⁴ ERG kasuaren markatzeak gorabehera handiak erakusten ditu haurren hizkuntzan, izan ere ERG kasudun lehenengo adibideak nahikoa goiz ageri arren, oso sarri topatzen baitira ABS markadun edo, hobeto esanda, *-k* ERG markarik gabeko ISk aldi luze bat geroago ere, nahiz eta adinean aurrera horrelako akatsen maiztasuna urritzen doan. Elebkarrek arazo gutxiago dutela dirudi kontu honetan elebkarrek baino, baina zehatzago begiratu beharra daude datuak. Beraz, ERG kasu markatzea ez da DAT markatzea bezain erabatekoa. Aldiz, aditzeko E-komunztadurari begiratuz gero, ez dugu ia huts egiterik aurkitu. Aditz jokatua, trinkoa zein laguntzaillea izan, egoki hautatutakoa izaten da argumentu horrekiko komunztadurari dagokionean, ia ehuneko ehunean (Ezeizabarrena & Larrañaga 1996).

²⁵ DAT argumentuen kokagunea zehazkiago begiratu beharreko kontua badugu ere, badirudi aditz jokatuaren eskuinetara agertzeko joera duela haurren datuetan.

Lan honetako gaiari, DLri alegia, dagokionean, ezin esan genezake orokorra den joerarik aurkitu dugunik haurren komunztadura sisteman. Baina askotan gertatu ohi den bezala, datu kualitatiboek ere badute garrantzia. Goiko 2. taulan bi haurrek A-komunztadura bitxia lehen aldiz erakusten duten adina dator. Peruk adibide solteren bat baino ez dauka, gehienetan D-komunztadurako laguntzaile kanonikoa erabiltzen baitu. Beraz, Jurgiren datuak dira esanguratsuenak aztergai honetarako (16).

- (16) a. tortazo bat emango zaitut (J 3;09)
 b. ni(k) ere erregalatuko zaitut kotxe karrera bat, bale? (J 3;11)
 c. Peru, itxiten nazu hau? (J 3;11)
 d. nik emango zaitut pieza gutxi (J 4;00)
 e. e(z) nazu ikusten (J 3;11)

Jurgiren lau urte bitarteko ABS eta DAT argumentuekiko komunztadurara datuak oso ugariak ez badira ere, kualitatiboki oso garrantzizkoak deritze-gu, izan ere DAT argumentua lehen edota bigarren pertsonakoa eta ABS hirugarren pertsonakoa denean A-komunztadura erakusten baitu, beti (16a-d). Komunztadura bera aurkitzen dugu, ABS argumentua bigarren pertsonakoa denean ere (16e).

Jurgiren datuak ez lirateke batere harritzekoak haur hau Sara aldekoa, edo DLdun euskalkiren baten ingurukoa dela esango bagenu. Bereziki interesgarriak egiten dituena, horixe da hain zuzen, horrelako eredurik ez duen euskaldunetz inguratuta hazi izanik, kostaldekoa ematen duen sistema berez sortu izana. Haur hizkuntzako DLdun esaldiak (16a/d) lehenago -2 atala-Sarako DL adibideetarako ezarri ditugun baldintza berberetan gertatzen dira (ABS hirugarren pertsonakoa vs. DAT lehen edo bigarren pertsonakoa), eta ezaugarri berberekin (komunztadura bitxia eta komunztadura murrizketa).

Beste ezaugarri bat ere aipa daiteke 16(a-d)-ko haurren esaldietan, alegia, DAT argumentua isila izatearena esaldi guztietan. Gertakari honek zalantzan jar lezake Jurgiren esaldiok DATrekiko komunztadura adibideak izatearena, esan beharra dago haurren hizkuntza gaitasunaren alde, hainbat argumentu isiltzearena oso arrunta dela haurren hizkuntzan, orohar, eta bereziki argumentu isilak ahalbidetzen dituzten hizkuntzak bereganatzen ari direnetan²⁶.

Beraz, (16)ko adibideek argi erakusten dute honako hau: horrelako eredu bat ezagutzen ez duen haur batek DLdun sistema *sortu* dezakeenerako, hasie-

²⁶ Ikus, adibidez, Mikelen eta Jurgiren subjektu isilen maiztasuna euskaraz eta gaztelaniaz (Ezcizabarrena, 2002).

ra batean *hizkera txar* edo *dialektal* hutsaren adierazgarritzat hartu izan den Datiboaren Lekualdatzearen fenomeno ez dela *euskalki kontu* hutsa, euskararen gramatika sakonagoa den zerbait baizik. Aztertutako datuok Mayik eta Jurgik sistema bera dutela adierazten dute, hala esan liteke behintzat, kasua eta komunztadura erkatzeko moduari dagokionean, behintzat.

6. ONDORIOAK

Lan honetan *Itsasaldeko Solezismoa* deitu izan dena Datiboaren Lekualdatzearen argipean azaltzearen egokitasunaren aldeko argudioak eskaini ditugu. Zenbait euskalkitan ez eze, haurren ama-hizkuntzako lehen ekoizpenetan ere ageri den fenomeno hau bi hizkeretan baldintza beretan gertatzen dela ikusi ahal izan dugu. Bestalde, erakutsi dugu Datiboaren Lekualdatzeak, itxuraz oso bestelakoa den Ergatiboaren Lekualdatzearekin bat egin dezakeela orokorragoa den Lekualdatze deituraren azpian, bi fenomenoak antzeko baldintzetan gertatzeaz gain, ezaugarri berberetz (komunztadura bitxia eta komunztadura murrizketa) azaleratzen baitira. Azken batean, biak dira kasua eta komunztadura bereiztearen adierazgarri.

AIPAMENAK

ALBIZU, P. & EGUREN, L. 2000. "Ergative Displacement in Basque". In W. U. Drexler & alii (arg.) *Morphological Analysis in Comparison*, Current Issues in Linguistic Theory 201, Amsterdam-Philadelphia: John Benjamins, 1-25.

BARREÑA, A. 1994. "Sobre la adquisición de la categoría funcional COMP por niños vascos". In J. Meisel (arg.) *La adquisición del vasco y del castellano en niños bilingües*, Frankfurt: Vervuert, 231-284.

—1995. *Gramatikaren jabekuntza-garapena eta haur euskaldunak*, Bilbo: EHU-UPVko argitarapen zerbitzua.

—1996. "Aditz-aldiaren erabilera goiztiarra haur euskaldun elebakar batengan". *Hizpide*, 35, 25-38.

BOBALJIK, D. 1993. "On Ergativity and Ergative Unergatives." In Colin Phillips (arg.), *Papers on Case and Agreement II*, MIT Working Papers in Linguistics 19, 45-88.

BONAPARTE, L. L. 1869. *Le verbe basque en tableaux*. Berrargitaraturik in *Opera omnia vasconice* (I): 221-242, Bilbo: Euskaltzaindia, 1991.

CHOMSKY, N. 1993. "A Minimalist Program for Linguistic Theory." In Kenneth Hale & Samuel Jay Keyser (arg.), *The View from Building 20*, Cambridge, Mass.: MIT Press, 1-52.

ELORDIETA, A. 2001. *Verb Movement and Constituent Permutation in Basque*, Utrecht: LOT.

ELOSEGI, M^a K. 1998. *Kasu eta preposizioen jabekuntza-garapena haur elebidun batengan*, Bilbo: EHU-UPVko Argitarapen Zerbitzua.

ELHUYAR. 1993. *Hiztegi Entziklopedikoa*. Donostia: Elhuyar.

EUSKALTZAINDIA. 1987. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak II*. Bilbo: Euskaltzaindia.

EZEIZABARRENA, M. J. 1994. "Primeras formas verbales de concordancia en euskera". In J.Meisel (ed.) *La adquisición del vasco y del castellano en niños bilingües*, Frankfurt: Vervuert, 181-230.

—1996. *Adquisición de la morfología verbal en euskera y castellano por niños bilingües*, Bilbo: EHU-UPVko Argitarapen Zerbitzua.

EZEIZABARRENA, M. J. & LARRAÑAGA, M. P. 1996. "Ergativity in Basque: a problem for language acquisition?". *Linguistics* 34-35, 955-992.

EZEIZABARRENA, M. J. (2002). "Root infinitives in two pro-drop languages." In Juana Liceras & Ana-Teresa Pérez-Leroux (arg.), *The Acquisition of Spanish Morphosyntax. The L₁/L₂ Connexion*, Kluwer, 35-65.

FERNANDEZ, B. 1997. *Egiturazko kasuaren erkaketa euskaraz*, Bilbo: EHU-UPVko Argitarapen Zerbitzua.

—1999. "Split Ergativity: Evidence from Basque." In Vivian Lin, Cornelia Krause, Benjamin Bruening & Karlos Arregi (arg.), *Papers on Morphology and Syntax, Cycle Two*. MIT Working Papers in Linguistics 34, 177-190.

—2001. "Absolutibo komunztaduradun ergatiboak, absolutibo komunztaduradun datiboak: Ergatiboaren Lekualdatzetik Datiboaren Lekualdatzera." In Beatriz Fernández & Pablo Albizu (arg.), *On Case and Agreement. Kasu eta Komunztaduraren gainean*, Bilbo: EHU-UPVko Argitarapen Zerbitzua.

FERNÁNDEZ, B. & ALBIZU, P. 2000. "Ergative Displacement in Basque and the Division of Labor between Morphology and Syntax." In Arika Okrent & John P. Boyle (arg.) *Proceedings of the Chicago Linguistic Society's 36th Annual Meeting*, 103-117.

HALE, K. 1996. "El antipasivo de enfoque del k'ichee' y el inverso del chuckchi: un estudio de la concordancia excéntrica." MIT, eskuizkribua.

—1998. "Aspects of Navajo Verb Morphology and Syntax: the Inchoative." MIT, eskuizkribua.

—2001. "Eccentric Agreement." In Beatriz Fernández & Pablo Albizu (arg.), *On Case and Agreement. Kasu eta Komuntaduraren gainean*, Bilbo: EHU-UPVko Argitarapen Zerbitzua.

HEATH, J. 1976. "Antipassivization: a functional typology." Thompson et al. (arg.) *BLS 2*, Berkeley: Univ. of California, 202-211.

IRIZAR, P. 1981. *Contribución a la Dialectología de la Lengua Vasca*, 2 ale, Donostia: Gipuzkoako Kutxa.

—1991. *Morfología del Verbo Auxiliar Guipuzcoano*, 2 ale, Bilbo: Euskaltzaindia.

—1992. *Morfología del Verbo Auxiliar Alto Navarra Septentrional*, Iruñea: Euskaltzaindia & Nafarroako Gobernu.

—1997. *Morfología del Verbo Auxiliar Labortano*, Iruñea: Euskaltzaindia & EHU/UPV.

—1999. *Morfología del Verbo Auxiliar Bajo Navarra Occidental*, Iruñea: Euskaltzaindia & EHU/UPV.

LAKA, I. 1988. "Configurational heads in inflectional morphology: the Structure of the Inflected Forms in Basque." In *International Journal of Basque Linguistics and Philology (ASJU) XXXII-2*, 343-365.

LAFITTE, P. 1987. *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*. Donostia: Elkar.

LARRAÑAGA, M. P. 1994. "La evolución del caso en euskera y castellano". In J. Meisel (arg.) *La adquisición del vasco y del castellano en niños bilingües*, Frankfurt: Vervuert, 113-150.

—2000. *Ergative Sprachen, akkusative Sprachen*. Frankfurt: Vervuert.

MEISEL, J. M. (arg.). 1994. *La adquisición del vasco y del castellano en niños bilingües*, Frankfurt, Madrid: Vervuert.

MAHLAU, A (1994). "El proyecto BUSDE: Corpus y metodología." In J. Meisel (arg.) *La adquisición del vasco y del castellano en niños bilingües*, Frankfurt, Madrid: Vervuert, 21-34.

ORTIZ DE URBINA, J. 1989. *Parameters in the Grammar of Basque*. Dordrecht: Foris.

TRASK, R. T. 1977. "Historical Syntax and Basque Verbal Morphology: Two Hypothesis." W. A. Douglas, R. W. Etulain & W. H. Jacobsen (eds.) *Anglo-american Contributions to Basque Studies. Essays in Honor of Jon Bilbao*. Reno: Univ. of Nevada. 203-425.

—1979. "On the origins of ergativity." Frans Plank (arg.) *Ergativity*, New York, Academic Press.

—1981. "Basque verbal morphology". In *Euskaltzaindia, Iker* 1, 285-304.

ZUAZO, K. 1997. "Oiartzungo hizkeraren kokagunea." *FLV* 39, 76, 397-425.

—1999. "Baigorriko euskara kokatzeari buruz.", *Lapurdum*, 4, 247-277.

ERANSKINAK

Predikatu ditransitiboan aditz laguntzaileak Sarako gramatikan (3. eta 4. taulak)

**3.Taula. Sarako gramatika. Laguntzailea, ABS argumentua
3s eta 3p denean. Orainaldia**

		NIK	HIK	HARK	GUK	ZUK	ZUEK	HAIEK
NIRI	s p		nauk/n nauzkik/n	nau nauzki		nauzu nauzkitzu	nauzue nauzkitzue	naute j-g
HIRI	s p	haut hauzkit		hau hauzkik/n	hau j-g			haute j-g
HARI	s p	diot, dakot diozkat	diok/n diozkak/n	dio diozka	djou diozkau	diozu diozkatzu	diozue diozkatzue	diote diozkate
GURI	s p		gaituk/n gaituk	gaitu gaituzki		gaituzu gaitutzu	j-g gaitutzue	gaituzte gaituzte
ZURI	s p	zaitut zaizkitzut		zaitu zaizkitzu	j-g zaizkitzugu		zaizkitzute	zaituzte
ZUEI	s p	zaituztet, zauzet zauzkitzuet, zauzet, zaituztet		zaituzte zaizkitzue	zaituztegu zaizkitzuegu			j-g zaizkitzue
HAIEI	s p	diotet diozkatet	diotek diozkatek	diote diozkate	dioteu diozkatenu	j-g diozkatzute	diozute j-g	diote diozkate

**4.Taula. Sarako gramatika. Laguntzailea, ABS argumentua
3s denean. Orainaldia eta iragana**

		NIK	HIK	HARK	GUK	ZUK	ZUEK	HAIEK
NIRI	Or Ir		nauk/n nindukan, nindunan	nau ninduen		nauzu ninduzun	nauzue ninduzuen	naute ninduten
HIRI	Or Ir	haut hindutan		hau hinduen	hau j.g.			haute hinduten
HARI	Or Ir	diot, dakot nion	diok/n hion	dio zion	diou genion	diozu zinion	diozue zinioten	diote zioten, zakoten
GURI	Or Ir		gaituk/n gintuan/nan	gaitu gintuen		gaituzu gintuzun	j.g gintuzuen	gaituzte gintuzten
ZURI	Or Ir	zaitut zintutan		zaitu zintuen	j.g zintugun			zaituzte zintuzten
ZUEI	Or Ir	zaituztet, zauztet zintuztetan		zaituzte zintuzten	zaituztegu zintuztegun			j.g zintuzten
HAIEI	Or Ir	diotet nioten	diotek ioten	diote zioten	dioteu genioten, giñoten	j.g zinioten	diozute zinioten	diote zioten

Predikatu ditransitiboen aditz laguntzaileak saratarraren BI GRAMATIKETAN (5. eta 6. taulak)

**5.Taula. Sarako gramatika (1) eta Sarakoa ez dena (2).
Laguntzailea, ABS argumentua 3s denean. Orainaldia**

		NIK	HIK	HARK	GUK	ZUK	ZUEK	HAIEK
NIRI	1 2		nauk/n dautak/n	nau daut		nauzu dautazu	nauzue dautazue	naute dautate
HIRI	1 2	haut doyat		hau dauk	hau dauku			haute j-g
HARI	1 2	diot, dakot	diok/n	dio	diou	diozu	diozue	diote
GURI	1 2		gaituk/n daukuk/n	gaitu dauku		gaituzu daukuzu	j-g j-g	gaituzte daukute
ZURI	1 2	zaitut dautzut		zaitu dautzu	j-g j-g			zaituzte dautzute
ZUEI	1 2	zaituztet, zautzet dautzuet		zaituzte dautzue	zaituztegu dautzuegu			j-g j-g
HAIEI	1 2	diotet	diotek	diote	dioteu	j-g	diozute	diote

6.Taula. Sarako gramatika (1) eta Sarakoa ez dena (2). Laguntzailea, ABS argumentua 3p denean. Iragana.

		NIK	HIK	HARK	GUK	ZUK	ZUEK	HAIEK
NIRI	1		nauzkik/n	nauzki		nauzkitzu	nauskitzue	j.g
	2		dauzkidak	dauzkit		dauzkitatzu	dauzkitatzue	j.g
HIRI	1	hauzkit		hauzkik/n	j.g			j.g
	2	dauzkit/nat		dauzkik/n	j.g			dauzkit- tek/ dauzkiñe
HARI	1	diozkat	diozkak/n	diozka	diozkau	diozkatzu	diozkatzue	diozkate
	2							
GURI	1		gaituk	gaituzki		gaitutzu	gaitutzue	gaituzte
	2		j.g	dauzkigu		j.g	j.g	dauzkite, dauzkute
ZURI	1	zaizkitzut		zaizkitzu	zaizkitzugu			zaizkitzute
	2	dauzkitzut		dauzkitzu	j.g			dauskiz- tzute
ZUEI	1	zauzkitzuet, zauztet, zaitzuet		zaizkitzue	zaizkitzuegu			zaizkit- tzuete
	2	dauzkitzuet		dauzkitzue	dauzkitzuegu			dauzki- tzuete
HAIEI	1	diozkatet	diozkatek	diozkate	diozkateu	diozkatzute	j.g	diozkate
	2							

-EN ETA -KO ATZIZKIEZ BERRIRO

P. Goenaga

1. -KO eta -EN atzizkien banaketa

-KO eta -EN-en arteko zalantzei arreta handia eskaini zaie euskalari-tzan: Azkue (1905), Lhande (1926), Lafitte (1954), Lafon (1965), Mitxelena (1972a, 1986), Goenaga (1980, 1981), Trask (1981, 1985), Euskaltzaindia (1985), De Rijk (1988, 1993), Eguzkitza (1993, 1997a, 2001), Azkarate eta Altuna (1992),... Eta egungo egunetik hurbilago: Zabala (1999) eta Alberdi & Sarasola (2001). Hala ere, ez dut uste gauza guztiak nahi bezain argi daudenik. Jendeak maiz galdegiten baitu: “nola esan behar da: *ikastolaren zuzendaria* ala *ikastolako zuzendaria*; *arte ederren museoa* ala *arte ederretako museoa*?”, etab. Telebistako film batean entzun berri dut “*zazpi hitzeko* (sic) *sermoia*”. *OEH*-ko corpusera jo nuen: nola esan ote dute gure idazleek garai bateko jendeak behintzat hain ezaguna duen “sermón de las siete palabras” delako hori? Gezurra badirudi ere, direlako zazpi hitz horiek ez dira ageri corpus horretan. Aipamen bat bakarra jaso ahal izan dut, Oskillasorena:

- (1) Biharamunean, Andra Mariko elizera abiatu ziran, ilhunpeak edo tinie-blak ikusi eta zarata egitera. Sermoi bat entzun zuten zeñi, hamabietan hasi eta hirurak arte irauararren, *Zazpi Hitzezkoa* erraiten baitzioten. (Oskillaso, *Kurloiak*, 191)

Zertan gara?: *zazpi hitzekoa*, *zazpi hitzezkoa*, *zazpi hitzetakoa*, ... ala *zazpi hitzena*? Corpusak ez dit laguntza gehiagorik eskaini. Hainbeste sermoi biltzen dituen corpus horrek ez dakar nire jakinahia asetzeko moduko esapiderik.

Lan honetan, kontu hauetaz argi piska bat gehiago egin nahi da. Orain arteko azterketen ondorioz argitutzat eman daitezkeen kontuak laburki gogoratu ondoren, urrats bat gehiago.

Lhandek, bere *Hiztegia* –KO atzizki honen erabilerari buruzko laburpen zehatza egiten du. Lhanderen arabera, –KO atzizki erlatiboa da. Atzizki honek ukitzen du: 1. inesiboa (*etxen* > *etxenko*; *buruan* > *buruko*, etab.); 2. adlatiboa (*etxerat*, *etxera* > *etxerateko*, *etxerako*; 3. elatiboa (*zerutiġ* > *zerutikako*, *zerutiko*); 4. unitiboa (*eneki*, *enekila* > *enekiko*, *enekilako*); 5. mediati-boa (*lastoz* > *lastozko*); 6. prolatiboa (*enetzat* > *enetzako*); 7. partitiboa (*eginik* > *eginiko*, *eginikako*); 8. aditzondoak (*bethi* > *bethiko*, etab.); 9. izenaren ezkerretara pasarazi nahi diren adjektiboak (*gizon gaitza* > *gaitzeko gizona*); 10. partizipioa (*aitak igorriko joia*); 11. infinitiboari ere eranstean zaio, horrela “une sorte d’adjectif verbal et de gérondif” bilakatzen omen delarik (*igortze* > *igortzeko*); 12. destinatiboa (*bethiko*); 13. –KO atzizki nominala ere izan daiteke (*neskato* > *neskatoko*; *beha* > *behako*).

Horrenbestez, esan daiteke –KO atzizkia gainerako adizlagunei edo postposizio sintagmei eranstean zaiela. Trasken (1981, 198-199) arabera lege orokorrak zenbait debeku baditu ere, onar liteke –KO atzizkiak adizlagunak (postposizio sintagma bereziki) izenlagun bihurtzen dituela.

Bestalde, betidanik arazo gisa aurkeztu da *nolakotasunezko sintagmen* (*bihotz oneko* gisakoen) eratorbidea. Hemen –KO eta –DUN-en arteko lehia aipatzen da alde batetik (Altube 1929, Azkarate & Altuna 1992, etab.). Bestetik, hauen eratorbideak ere hizpide ematen du (Mitxelena 1972a, 1986, Goenaga 1981, Trask 1985, de Rijk 1993, ...). Batzuentzat atzizkiaren oinarria izenaren eta islapen nagusiaren bitarteko kategoria bat da (Trask, Zabala). De Rijk-entzat, berriz, horrelakoen azpian postposizio sintagma bat dukegu (*-ekin* + *ko*), etab.

–EN atzizkiari dagokionez, berriz, gehienetan onartzen da –KO ez bezalakoa dela. Kasu marka bat dela eta, gehienetan “jabegoa” adierazten badu ere, bestelako zenbait erlazio ere biltzen dituela beregana (ik. *EGLU* I, Eguzkitza 1997a eta 2001, adibidez). Horrenbestez, –EN eta –KO-ren erabilerak kasurik gehienak honako irudi honen bidez eman genitzake aditzera:

(3)

		PostSintagmak	(Predikatu-) Izen sintagmak
perpaus mailan	∅, -K, -I,	$\left\{ \begin{array}{l} -Z, \\ -REKIN, \\ -N, \\ -TIK, \\ -RA, \\ -RAINO, \\ -RANTZ \\ \dots \end{array} \right\}$	(∅)
izen sintagma mailan	-EN	$\left\{ \begin{array}{l} -Z, \\ -REKIN, \\ -N, \\ -TIK, \\ -RA, \\ -RAINO, \\ -RANTZ, \\ \dots \end{array} \right\}$	+ KO ∅ + -KO

Esan nahi da: perpaus mailan absolutiboa, ergatiboa eta datiboa ditugun bezala, izen sintagma mailan -EN genitiboa dugu. Eta perpaus mailan ditugun gainerako postposizio sintagmak, izen sintagma mailan -KO atzizkiaz horniturik agertuko zaizkigu.

Hau da, oro har, euskal gramatiketan eskaintzen den panorama. Hemen, hala ere, zenbait arazo aipatu nahi nituzke: nolakotasunezko izenlagunei dagokienez, sintagma hauen egitura eta adjektiboaren premiazkotasuna bereziki. Ondoren, -KO eta -EN hautuak sortzen dituen zenbait arazo argitzen saiatuko naiz. Eta azkenik, -KO-ren estatusa zein datekeen aztertuko dugu, sintagma hauek eratoritzeko bideren bat iradokiz.

2. NOLAKOTASUNEZKO IZENLAGUNA

Mitxelenak argiro azaltzen du arazoa:

“Hay un punto en la brillante argumentación de BENVENISTE, por el cual pasa como sobre ascuas, que me parece necesitaría alguna mayor aclaración: de *ludus, risus, somnus, mos pueri* se llega con bastante naturalidad a *eloquentia hominis*, pero el salto a *homo magnae eloquentiae* no es demasiado simple. Ese genitivo de cualidad sufre una grave restricción, la imposibilidad de **homo eloquentiae* (...). No es distinta la situación en vasco. En un ejemplo como *gende vicitze gaichtotaco guciac* ‘todas las gentes de mala vida’ (Lc. 15, 1) resulta más natural pensar en quienes tienen o llevan mala vida, y no en personas que se hallan en mala vida.” (Mitxelena 1972a, 305)

Bihotz oneko neska modukoetan argi dago inesiboarendako lekurik ez dela. Nik neuk *bihotz oneko neska* eta *etxe oneko neska* sintagmen artean bereizketa ikusi uste nuen (ik. Goenaga 1981): *bihotz oneko neska*-ren “azpian” –nolabait esateko– “bihotz ona duen neska” izango genukeen bitartean, *etxe oneko neska*-ren azpian inesiboa proposa zitekeela uste nuen: “etxe onean jaio edo den neska”. Goiko taulan, bataren azpian [[POS ... -N] +KO] izango genukeen bitartean, bestearen azpian [[JS ... Ø] +KO].

Zabalak (1999, 129) ez du onartzen ikuspegi hau. Inesibo bidezko parafasia baino argigarriagoa dela dio numero-aldaketa onartzen ote duten egiaztatzea. Adibidez,

- (4) a. Etxe { *onetako/oneko } neskak dira Edurne eta Itziar
b. Bihotz { *onetako/oneko } neskak dira Edurne eta Itziar

Plurala egitea onargarria ez denez, ez batean ez bestean, esan nahi luke ez dela inesiborik eta, beraz, “bietan –ko atzizkia numerorik gabeko izen-sintagmari lotu zaiola”.

Numero kontu honetan neure zalantzak ditut. Corpusean kontrako adibideren bat edo beste behintzat aurkitzen ahal da:

- (5) a. Erran behar da biak bi etxe onetako seme alabak zirela. (Iriart Urruty, *Zezenak Errepublikan* 37))
b. Ez dira artuko amalau urtetik gorakoak baizik: eta onetatik ere oitu-
ra onetako, paketsu, Aita Santu, ta Eliza Ama santari sor zaien obedi-
entzi, ta errespetoa gordetzen dien katoliko onak bakarrik. (UGARTE Jose Antonio: *Zarauzko aita misionari batek 3en Ordenako anai arrebai eskaintzen dien Lore sorte edo San Franziskoren 3en Ordenako erregla bere azalgueta alabantza* (sic) (1900) 18. orr.)

Hiriart Urrutyrenean *-ta-* hori mugagabearen seinale izan arren, zenbatzailea hor denez gero, zail da onartzea IS soila dugula eta ez DS.

(5b)-ko *ohitura onetako* kontu hori ere izan liteke erdal itzulpenaren ondorio (cf. “ de buenas costumbres”).

Traskek (1985) ere determinatzaile gabeko osagaia daukagula uste du. Horretarako, (6)-ko kontrastearen parean (7)-koa jartzen digu begien aurrean:

- (6) hiru urteko umea/*hiru urtetako umea
- (7) *hiru herriko lasterketa/hiru herritako lasterketa

Honek erakutsiko luke, ahotan darabiltzagun egitura hauetan *-ko* atzizkia hartzen duena ez dela ez izen sintagma mugagabe bat, ezta adizlagun bat ere, beste zerbait baizik: izen multzoa (Trask 1985, 171). Ideia hau ontzat ematen du Zabalak eta honela formulatzen du kontua:

“*-ko* atzizkia numerorik gabeko izen sintagma soilari lot dakiok. (...) *-(r)en* atzizkiak numero-aldaketarik badu ere, *-ko* atzizkiak ez du inoiz numero-aldaketarik” (Zabala 1999, 128).

Abney-ren (1986) hipotesia ontzat emanik, determinatzaile sintagma izango litzateke numero tasunak daramatzana. Horrela, *-(r)en* atzizkia determinatzaile sintagmari (*liburu-a*) lotuko litzaiokete eta *-ko*, berriz, edo postposizio sintagmari (inesiboari edo dena delakoari, gure kasuan *herri-a-n* sintagmari) nahiz izen sintagmari (*ile luze*):

- (8) a. [_{DS} [_{IS} liburu] -a] -ren
- b. [_{PS} [_{DS} [_{IS} herri] -a] -n] -ko
- c. [_{IS} ile luze] -ko

Planteamendu honek, hala ere, bi arazo behintzat baditu, nire ustez.

a. Kontuan hartzen baditugu ondoko adibideak, ez dut uste esan daitekeenik numeroa kanpoan gelditzen denik:

- (9) a. Kolore urdineko koaderno nahi dut.
- b. Kolore honetako koadernorik ez dut aurkitzen.
- c. Kolore bereko bi koaderno erosiko ditut.

Kolore urdineko osagaiaren analisisa honako hau bada:

- (10) [_{IS} kolore urdin] -(e)ko

zein litzateke *kolore honetako* edo *kolore bereko* sintagma? Erakusleak determinatzaile badira, argi dago (9b eta c)-rentzat ez digula balio (10) egitu-

rak. Bidezkoena da pentsatzea *-ko* atzizkia mugatzailedun osagai bati itsasten zaiola', hots determinatzaile sintagmari:

- (11) a. [_{DS} [_{IS} kolore] hon-] *-((e)tako*
 b. [_{DS} [_{IS} kolore] ber(a)] *-(e)ko*

Bestalde, *-KO* izenlagunek jadanik beste izenlagunen bat baldin bada-ramate *-(12)-an bezala-* mugatua behar du izan sintagmak:

- (12) *Itsasoaren koloreko begiak zituen*

Itsasoaren osagaia nondik “esekitzen” den erabaki beharko litzateke alde batetik, baina [_{DS} *itsasoaren kolorea*] behar dugu horren azpian eta ez [_{IS} *itsasoaren kolore*]. Horrenbestez, ez dago “numerorik gabeko izen-sintagmari lotu zaion *-ko* eta mugatu singularreko inesibo markadun adizlagunari lotu zaion *-ko* bereizteko” (Zabala 1999, 128-129) premiarik: *etxe berriko* eta *indar handiko* numeroaren aldetik behintzat berdinak direla esango genuke.

Hiru urteko umea bezalako esamoldeak “deklinabideko” paradigmatik kanpo gelditzen direla esaten da, eta horretan oinarritzen da Trask *-KO-k* hartzen duen osagarria N' kategoriakoa dela esateko. Baina hori bezala, hor ditugu honako hauek ere:

- (13) a. *Hiru urtean ikasi du japonieraz.*
 b. *Handik bi kilometrora dago iturria.*

Eta ez hori bakarrik:

- (14) *Zazpi urte honetan ez da etxean azaldu.*

Segurutik, kontu honek euskal morfologiaren historiarekin baduke zerikusia, baina goiko adibide horiek ezin gaitzakete eraman sintagma horiek mugatzailerik gabekoak direla baieztatzen, ez behintzat *itsasoan* edo *itsasora* baino mugatzailerik gabeagoak.

b. Nolakotasunezko izenlagun hauen bigarren arazoa adjektiboaren presentziari dagokio. Hori da Mitxelenak nabarmentzen zuena. Azterketa estandarretan adjektiboa I'-ren azpian kokatzen da. Trask-ek eta Zabalak ere hala aurkezten dituzte kontuak. Baina *-KO* I'-ri eransten bazaio, nola ziurratu Mitxelenak aipatzen zuen adjektiboaren premiazkotasun hura?:

- (15) a. [_{I'} [_I bihotz]]
 nahiz b. [_{I'} [_I bihotz]] handi]

¹ Hala ere, irakurketa generikoa izan dezakete. (Roca 1996, 150-151)

zilegi badira, nola ziurta nezake (15b)-ko modukoei bakarrik itsasten zaiela -KO atzizkia?

Erlatibo bidezko parafraasiak aski naturalak gertatzen dira “nolakotasu-
nezko” izenlagun hauetan:²

- (16) a. Bihotz oneko neska < bihotz ona duen neska
b. Etorri handiko sermolaria < etorri handia duen sermolaria

Baina Mitxelenaren problema, hots: *homo magnae eloquentiae* bai baina **homo eloquentiae ez*, nola konpondu? *Bihotzeko neska* eta *bihotz oneko neska* bi gauza zeharo desberdinak dira. Arazoa konpon daiteke pentsatzen badugu egitura hauek, gehienetan, sintagmaren buru den izenaren “berezko” ezaugarri baten zehaztaperen direla. Adibidez, neskak (edonolako) bihotza izatea, sermolari batek (nola halako) etorria izatea, etab. kontsideratzen ditugunean, ezaugarri hauek berezko edo besterenduezineko ezaugarriei dagozkienez, ez dute ezer berririk adierazten baldin eta ez badira informazio gehiagoz “hornitzen”:

(17) ??bihotza duen neska

(18) bihotz ONeko, bihotz HANDIko, bihotz KAXKARReko...

(17) diogunean ez dugu ezer berririk esaten. (18)-rekin, ordea, zerbait gehiago esaten dugu. Modu berean, sermolariak etorria izatea -gehixeago edo gutxiago- berezko ezaugarria izan daitekeenez, *etorriko sermolaria* esatea gauza gutxi esatea da ez bada gehitzen nolakoa den etorri hori:

(19) etorri HANDIko, etorri ABERATSeko, etorri ESKASeko, ... sermolaria.

OEH corpusean begiratzen badugu, adibidez, [izena + HANDI + -KO] osagaiaren barnean zein diren agertzen diren izenak, gehienak behintzat, sintagmaren buru den izenaren “berezko” tasuntzat har litezke eta berezko diren neurrian, adjektibo batez horniturik joan behar dute zerbait berri esango bada:

- (20) damu, premia, merezimendu, meritu, bertute, indar, itzal, ospe, neke, edade, arimen gose (*arimen gose handiko* [] bat), kolera, kalte, fede, irabazi, gusto, entzute, beldur, duintasun, lotsa, lezio (*lezio han-*

² De Rijk-ek hauen azpian -(R)EKIN sozietiboa ikusten du. Eta izenlagunaren eta izenaren arteko erlazioa oso estua bada, besterenduezina, inalienablea, atzizki hori ezabatu egingo litzateke: *bihotz oneko neska*. Baina erlazio hori oso kanpokoak bada, orduan ez da atzizkia ezabatzen: *Madrilekiko loturak*. Ez dirudi eragiketa horiek beharrezko direnik. Aski dugu bi adibide horiek duten parafraisi desberdina kontuan hartzea: *neskak bihotz ona du* baina *loturak Madrilekin dira ez *loturek Madril dute*).

diko ejemplo bat), karidade, santidade, abarrots (*abarrots andiko trugo*), gorputz, hedadura, kemen, probetxu, ideia, balio, kostu, gastu, interes, garrantzia, garmendu, inportantzia, ardura, ajola, kontu, zeregin, eruapen, bihotz, ondra, fama, hots, aomen, gar (*gar handiko amodioa*), jakiunde, talentu, jakitate, errespeto, begiramen, esku (*Jaungoiko esku andiko bat*), ditxa (*ditxa hain handiko ikuskaria*), zelo, eskuarte, buru, libertade (*libertade handiko bizimodua*), zentzun, gora (*gora handiko agintari*), adimen, etorri, larderia, sar-jalgi, solemnitade (*solemnitade handiko eguna*), sudur, esperientzia, oldar (*oldar handiko erreka*), urguilu, bide (*bide handiko ohoinak*),...

Arrazoi honek balioko luke, behar bada, azpian. *Boa dutela dirudite-netan ere: familia handiko alaba, etxe handiko semea, etab.*

Itxura, antz, izen, adin, kolore, neurri eta horrelako izenekin ere gauza bera gertatzen da: egitura hauetan gehienetan adjektiboa behar dela dirudi. Adjektiborik gabe nekez ematen ahal zaigu izenaren ezaugarri jakingarririk. Eta zenbaitetan adjektiborik gabe erabil badaitezke, izena halakoa izanik, badirudi balio positiboan hartzen dela, *handi* esango bagenu bezala. Adibidez:

- (21) a. kalitate handiko lana > kalitate(z)ko lana
 b. garrantzi handiko kontua > garrantzi(z)ko kontua
 c. itxura oneko hotela > itxura(z)ko hotela
 etab.

Eta [Izena + adjektibo] ez ezik, [zenbatzailea + izena] tankerako izenlaguna ere osa daiteke:

- (22) a. Bost urteko haurra
 b. Hiru hankako mahaia

Hauek ere aurreko multzo berean sartzen ahal direla esango nuke. Urteak edo behar diren denbora unitateak izatea berezkoa da. Hortaz, benetan garrantzia duen informazioa da *ZENBAT urte*, eta, horrenbestez, *X urteko haurra* bezalakoak izango ditugu. Mahaiak hankak izatea berezkotzat jo genezake. Horregatik, benetan informazioa eskaintzen duena da *ZENBAT hankako aulkiaz ari garen*, eta horrela beti.

Eta ildo beretik, adjektiboa eta zenbatzailea ez ezik, bestelako zehaztapenek ere balio dute aipatu dugun informazioa eskaintzeko eta, horrenbestez, sintagmak bete behar dituen baldintzak betetzeko:

- (23) a. [Baserrian egiten dutenaren kalitateko] ogirik ez duzu kalean aurkituko.
 b. [Egur hezearen kearen koloreko] zerua.
 c. [Adin honetako] haurrik ez dute onartzen ikastoletan.

Pluralean ere bai:

(24) [Koloreetako] arrainak

Beti ere, hauetan izen sintagmaren ardatz den izenaren kualitate bat predikatzen da, hots: haurra nolakoa, zein adinetakoa, den esaten zaigu, nolako ogia, nolako zerua, nolako arrainak eta abar. Hain zuzen, erlazio bera dukegu beste predikazio hauetan

- (25) a. haurrak hiru urte (ditu)
b. arrainak koloreak (ditu)
c. zeruak egur hezearen kearen kolorea (du)

Horrenbestez, biak harremanetan jar litezkeela pentsa daiteke eta hala jarri izan dira. Erlatibozko parafraziak erlazio hori agerian jartzen du. Gehienetan [X handiko + izena] gisako egituretan izenlagunak izenak *duen* zerbait adierazten duenez, [X handia duen + izena] gisa ordezkia daitezke egiturek. Hala ere, badira itxuraz taxu bereko izan arren “duen” barik “den” dutela pentsarazten digutenak³. Hona hemen adibide garbi bat:

(26) Abenduko gau *ekatx andiko* baten (Arrese Beitia – 362)

3. -EN / -KO HAUTUA

3.1. Hautua egiteko zenbait arazo

Gehienetan adiera desberdintasuna gertatzen da atzizki bata edo bestea hautatzean. Desberdintasun hori parafrazi desberdinaren bidez jar daiteke agerian eta, praktikan, horrek lagun dezake zalantza argitzen eta atzizki ego-kia hautatzen. Hori da, adibidez, *herriko plaza* eta *herriaren plaza* sintagmen artean gertatzen dena. Hala ere, adiera desberdina izan arren, eratorbidea zein den asmatzeko zailtasunak izan ditzakegu zenbaitetan. Adibidez,

³ Aparteko iruzkina eskatzen dutela uste dut *neure gustuko*, *bere gogoko*, eta antzekoek. Izan ere, gauza bat da (a) eta beste bat (b):

- a. gustu handiko mutila zen Joseba (cf. Mutilak gustu handia du)
b. Mariaren gustuko mutila zen Joseba (cf. Mutila Mariaren gustukoa da / *mutilak Mariaren gustua du)

Lehenbizikoan dudarik gabe mutilaren ezaugarri bat aipatzen da, beraz hemen aztergai ditugun horietakoa da. Bigarrenean, ordea, beste zerbait adierazten da.

- (27) a. Berrogeita hamar euroren liburuak eros ditzakezu
 b. Berrogeita hamar euroko liburuak eros ditzakezu

Euskaraz dakienak badaki (27 a)-n zenbat liburu eros daitezkeen esaten dela, hots, 50 euroekin eros daitezkeenak zenbat diren. (27 b)-n, berriz, nola-ko liburuak, zein preziotakoak, eros daitezkeen esaten dugu.

Diferentzia bera izan arren, beste zenbaitetan, praktikan ez dago diferentziarik:

- (28) a. Milioi baten zorra egin du = Milioi bateko zorra egin du.
 b. Bi kilometroren bidea duzu = Bi kilometroko bidea duzu.

Parafraziak gorabehera, goiko adibide horietan (a) eta (b)-ren artean egitura diferentzia ere izango da. Ez dago garbi zein izan daitekeen, baina seguru asko (27a)-ko izenlaguna egituran gorago egongo da (27b)-koa baino. Azken hau aurreko atalean aipatu diren egituren sailekoa dukegu. Lehenbizikoan, berriz, izenlagunaren eta izenaren artean nolabaiteko “jabe-go” erlazio bat badela esango nuke: “berrogeita hamar euroRI DAGOZKION liburuak” esango bagenu bezala. Erlazio hori –EN daukagun gehiengentan gertatzen da.

Arazoa da badirela beste zenbait –EN/-KO bikote parafrasien bidez ere askatzen zail direnak:

- (29) a. Fonetikako {liburua, irakaslea, eskola, laborategia, ...}
 b. *Fonetikaren {liburua, irakaslea, eskola, laborategia, ...}
- (30) a. Unibertsalen arazoa (Eguzkitza 1993)
 b. *Unibertsaletako arazoa
- (31) a. Itzulpenaren teoria
 b. *Itzulpeneko teoria

Euskal Herriaren historia/Euskal Herriko historia nahiz *Udalaren aurrekontuak/Udaleko aurrekontuak* bezalako bikoteetan munduari buruzko kontzeptualizazio desberdinak ikus daitezke. Baina *Latineko eskola* bezalakoetan ez dago, Zabalaren ustez, inongo inesiborik eta zail da hor –KO-ren agerpenaren arrazoia zein den jakitea. Zabalak 1999 –KO-ren azpian dagoen sintagmaren generikotasunean ezartzen du arrazoi hori:

“(r)en atzizkia (...) beti lotzen zaio numeroa daraman zerbaiti (...) eta beraz, ez du inoiz ere ematen irakurketa generikorik. (...) – (r)en atzizkia daraman sintagma beti ulertu behar dugu mugatu edo mugagabe modura, ezinezkoa da numerorik gabekotzat, hau da, generikotzat ulertzea. Zehazkiago, -(r)en erreferentzia jakin bat daukaten determinatzaile-sintagmei lotzen zaien kasu-

marka dateke (...), eta -ko aldiz, erreferentziaren beharrik ez duten laguntzailerak sortzen dituen atzizkia.” (Zabala 1999, 129-130).

Bide honetatik etorriko omen litzateke arazoaren irtenbidea. *Latineko irakaslea* modukoetan, latina ez litzateke izango erreferentzia jakin bat duen izaki bat, irakasleen artean “sailak egiteko erabiltzen ditugun erreferentziatzko laguntzailerak dira nonbait” (Zabala 1999, 130).

Generikotasun kontu horretan arrazoi du Zabalak. Izen elkartuetan ere horixe gertatzen da, eta askotan, hain zuzen, -KO-dun egitura izen elkartu baten erabat baliokide gertatzen da:

- (32) a. Filosofia liburua = Filosofiako liburua
b. Fonetika laborategia = Fonetikako laborategia

Egia da antzeko bikoteak osa daitezkeela -(r)en-en bidez ere:

- (33) a. Literatura teoria / literaturaren teoria
b. Erreferentziakidetasun baldintza / erreferentziakidetasunaren baldintza

Hala ere, goiko (32) adibidean, atzizkia agertu ala ez, ez dirudi generikotasuna galtzen denik. Baina (33)-ko bikoteek ez dirudi esanahi bera dutenik. Zabalaren adibideak ere oso argigarri dira:

- (34) a. Europako ministroen familiako argazkia = Europako ministroen familia-argazkia.
b. Europako ministroen familiaren argazkia ≠ Europako ministroen familia(ko) argazkia

Ildo beretik, honako adibide pare honetan ere *itzulpen teoria bat* eta *itzulpenaren teoria* modu desberdinez interpretatzen direla esango nuke:

- (35) a. Etienne Dolet aitortu behar zaio lehenengoz *itzulpen teoria* bat formulatzearen meritua. (Mendiguren Bereziartu Xabier: *Itzulpen tradizioa eta Biblia Mendebaldean* (1988), 23. orrialdea)
b. *Itzulpenaren teoriaren* barruan hizkuntza teknikoek (...) gero eta garrantzi handiagoa dute. (Diaz de Lezana, Araceli: *Administrazioko terminologia eta inguruko arloekiko harremanak* (1989), 155. orrialdea)

Arrazoi beragatik, seguruena, gehienetan gaztelaniaz euskal izen elkartuari eta -KO atzizkidun esapideari ere artikulurik gabeko ordaina dagokio (*libro de filosofía*, baina *teoría de la traducción*). Horrek azalpenen bat izan beharko du eta Zabalaren generikotasunaren bidetik izango du segurutik. Gainera, izen elkartuak zenbatzailea onartzen duen bitartean, -en-dunak nekezago onartzen du horrelakorik:

- (36) a. Itzulpen teoria bat / ?Itzulpenaren teoria bat
 b. Estatu teoria ugari dira / ?Estatuaren teoria ugari dira

Eta, hain zuzen, *-ko-*dunetan ez da inongo arazorik horrelakoak osatze-ko:

- (37) a. Filosofia liburu bat / Filosofiako liburu bat
 b. Antropologia museo asko / Antropologiako museo asko

Gainera, izen batzuek, dirudienez, *-KO* gisako ingurutzaila eskatzen duten bitartean, beste batzuek, *-EN* eskatzen dute. Generikotasun kontu honek esan den bertutea badu, esan nahi du izen batzuekin beti generikotasuna gailentzen dela, beti *-KO-*dun izenlaguna onartzen baitu eta ez *-EN-*duna. Hona hemen, era bateko eta besteko izenlaguna eskatzen duten zenbait izen:

(38)

-EN izenlaguna eskatzen dutenak		-KO izenlaguna onartzen dutenak	
axioma	arazo	atal	departamentu
auzi	baldintza	eskola	fakultate
gai	idea	institutu	irakasle
irizpide	lege	ikasle	kabinete
kontzeptu	korolarario	lezio	liburu
misterio	printzipio	museo	sail
teorema	teoria	...	
sistema	termino		

Zernahi gisaz, badirudi *-KO* izenlagunak onartzen dituzten izenak konkretuagoak direla *-abstraktu/konkretu* kontu hau oso badaezpadakoa bada ere-.

Gainera, maiz, destinatiboa ere azpian egon daiteke (Alberdi eta Sarasola 2001). Niretzat ez da inongo zalantzarik horrela aztertu behar direla honako kasu hauek:⁴

⁴ Sail honetan gaizki sartzen da, ordea, Alberdik eta Sarasolak (2001) ematen duten honako hau:

Jesusen Biotzeko eskola onetan (CB Jus 16)

Hau *latineko eskola*-ren gisara eraturia izan daiteke baina “Jesusen Bihotzaren debozioko eskola” gisa interpretatu ezean, nekez onartuko genuke sail honetan, sintagma erabat mugatua izanik nekez har baitezake interpretazio generikoa. Kontuan izan bedi, nolana ere, Kardaberatzek “Jesusen biotzeko eguna” (Cb Jus, 59) eta “Jesusen biotzeko solemnidadea” (ib. 16) darabilela

- (39) a. *Pekatuko* eskolia, *pekatuko* lagunak, *pekatuko* bidia, ta *pekatuko* okasinoiak (fB *Ic I* 318) (apud Alberdi & Sarasola 2001, 96)
b. *egako* lezioak (It *Fab* 148)
c. desonestidateko eskola (fB, 59)
d. Solfako eskolan (Mokoroa 7714)

Baina kokatzen zail gertatzen direnak ere badira *-(eta)ko* izenlagun hauen artean

- (40) a. Dinogu Ama Birjina *Soledadeko*, *Errosarijoko*, edo *Konzezinoekoa-
ren* altaria; San Juan, San Pedro, edo San Migelen Elexia, bata bestia-
gandik bereztu, edo distingietako, ete ez berari eregi, edo konsagradu
jakolako, eta santu onei dei egiten jake Altara atako, Elexa atako, edo
urlija erri, edo uriko Patroia (Astarloa, *Urteko domeka II*, 53)
b. Nola bada munduan Ama Birjiñaren aiñ izen, eta imajiña asko, eta
diferenteak arkitzen dira? *Errosariokoa*, *Karmengoa*, *Merzedetakoa*,
Guadalupekoa, *Almudenakoa*, *Atotxakoa*, *Aranzazukoa*, *Monserra-
tekoa*, *Konzepziokoa*, *Doloretakoa*, *Soledadekoa*, eta beste ezin kon-
tatu ala? (Gco, *Kristau dotriña II*, 465)

Hauetan leku izen garbiak direnean (*Arantzazu*, *Guadalupe*, etab.) arra-
zoia garbi dago. *Errosarioko*, *merzedetako*, *konzepzioko*, *doloretako*, *soleda-
deko* etab., analogiari esker edo, modu bertsuan interpretatuak izan litezke.
Pertsona izenak ere leku izen gisa interpretatzera heltzen garen bezala: *Santa
Mariako eliza*, *Santiagoko hondartza*, etab. Azken hauetan, hala ere, *Pasaiako
herria* sintagman dugun egituraren antzekoa dugula esan dezakegu, *-KO*
atzizkia gabe eman baitaitezke:

- (41) a. Santa Mariako eliza = Santa Maria eliza
b. Santiagoko hondartza = Santiago hondartza
c. Pasaiako herria = Pasaia herria

Baina:

- (42) a. Karmengo ama / *Karmen ama
b. Merzedetako ama / *Merzedek ama
c. Arantzazuko ama / *Arantzazu ama

Eta Ama Birjina aipatu dugunez gero, badira letanietan zenbait adboka-
zio, genitibodunak. Hauek zail da *-KO*-ren bidez ematea:

- (43) a. Urbiziaren putzua / Bizziaren sagar ondo / Miserikordiaren ugatza
(Etxeberri Zib. *Manual debozionezkoa II*, 198)
b. Ziurtasunaren espillua / Jakituriaren jarlekua (Añibarro, *Esku libu-
rua*, 229)

Hauetan generikotasunik ez da eta, horrenbestez, -EN genitiboa hautatzen da. Bestalde, genitiboak berekin daraman edutezko balio hori hemen ere ageri dela ematen du: {*urbiziak duen, urbiziari dagokion, ...*} *putzua* esango bagenu bezala. Bestalde, gorago aipatu dugun kontu bera dugu hemen ere: *ziurtasun ispilua* eta *ziurtasunaren ispilua* bi gauza desberdin dira, eta sintagma mugatua denez gero, -EN atzizkia hautatzen da. Arrazoi horrexegatik, esan daiteke hasierako adibide hartan inolaz ere ezin dela *zazpi hitzeko sermoia*-ren alde apustu egin. *Hiru orduko sermoia* nekez izango da *zazpi hitzekoa*. Apustu egitekotan *zazpi hitzen sermoia* nahiz *zazpi hitzetako sermoia* behar genuke. Eta aukeran, nik neuk, *zazpi hitzen* nahiago *zazpi hitzetako* baino. Eta hautu horretan badu zerikusia “*zazpi hitzak*” mugatua, erreferentziaduna eta ez generikoa izateak.

3.2. Aditz izenak: -TZEAREN / -TZEKO

Hauek ere zalantza iturri ditugu. Alberdi & Sarasolaren (2001) arabera, -TZEKO da nagusi. Gainera, markatu gabea izango litzateke:

“bi atzizkietatik badirudi *-ko* dela forma markagabea aditza izenlagun bihurtzeko. Beste marka (*-t(z)earren*) benetako izenekin erabili ohi da, alegia izenetik aditzetik baino gehiago duten aditz-izenekin: horregatik agertzen zaigu (...) lexikalizaturiko aditz-izenekin (*kolonizatze, bakartze, baketze, bateratze, kutsatze, eratze, erdalduntze...*)” (100)

Perpaua izaerako objektua eskatzen duten izenak badira: *behar, premia, nahi, erabaki, agindu, erregu, ...* Hauetan argi dago goiko baieztapenak dioena betetzen dela: objektu hori perpausa bada, -TZEKO aurkituko dugu; izen sintagma (edo determinatzaile sintagma) bada, -(R)EN⁵:

- (44) a. KANPORA IRTETEKO premia dugu.
b. ETXE BERRI BATEN premia dugu.

Delako perpausa objektu gisa interpretatzen bada, argi dago -TZEKO izango dugula. Are gehiago, osagarri honek sarritan helburua edo xedea ere

⁵ Jakina, aipatu liburuan jasotzen den bezala, partizipioa ere hor dugu, bestela ere osagarria forma honetan ematea eskatzen duten aditz/izenekin, hots, *nahi* eta *behar*-ekin, eta partizipioa erabiltzeko baldintza berberak ditugunean, hots subjektuak erreferentziakide direnean:

- a. Horrela mintzatu beharra / ?Horrela mintzatzeko beharra
b. Herritik alde egin nahia / ?Herritik alde egiteko nahia

Hala ere, ezin uka honako hau guztiz natural sentitzen dugula:

Orain goan gaitezen denak goatzerá; denak ere badugu *lo egiteko bearra* (Izeta, *Dirua galgarri*, 52)

biltzen duela kontuan hartuz. Horrelakoetan argi dago guztiz bidezko dela -TZEKO aurkitzea.

Hala ere, perpaus hori nolabait subjektu gisa interpretatzeko aukeraren bat bada, orduan -TZEAREN aurkituko dugu. Hori da, adibidez, *arrazoi* hitzaren osagarriarekin gertatzen dena:

- (45) a. [ZU HORREN GOIZ ERRETIRATZEKO] arrazoia zein den badakit.
b. [ZU HORREN GOIZ ERRETIRATZEAREN] arrazoia dirurik eza da.

Horrelakoetan normalena helburua markatzea izan arren (cf. *bada arrazoi bat zu horren goiz erretiratzeke*), zilegi dela dirudi beste ikuspegi bat hartzea ere: *zu horren goiz erretiratzeak arrazoi bat du, dirurik eza*. Oraingoan nolabait subjektu gisa interpretatzen ahal dugu -TZE perpausa eta horregatik zilegi dirudi -EN genitiboarekin ematea. Hori da, nire ustez, -TZEAREN agerpenaren arrazoia honako hauetan:

- (46) a. [Zuk aski lan ez egitearen] *ondorioak* besteok jasan beharko ditugu.
b. [Alabak musika ikastearen] *mesedeez* mintzatu ziren gurasoak.

Hala ere, beste honako hau zilegi da:

- (47) Ez ote lidakete alde egiteko mesedea egingo? (X. Olarra, *Nekrassov* (1985), 114 orr.)

Ez dira asko perpaus bat nolabaiteko subjektu gisa ager daitekeen kasuak, baina hemen garrantzia duena hau da: horietan guztietan -EN genitiboa behar dugula, eta ezin dela -TZEKO modukorik ezarri haien orde. Beraz, subjektu gisakoetan, dela perpaus dela izen sintagma arrunt, genitiboa behar dugu. Horregatik, Alberdi & Sarasolaren (2001) adibideetan bada bat bereizketa egiteko aukera aproposa eskaintzen diguna:

- (48) Eskean ibiltzeko arriskua/perila...

Honen parean beste hau jar daiteke:

- (49) Eskean ibiltzearen arriskua

Baina (48) eta (49) modu desberdinean interpretatzen ditugu: (49) perpaus eskean ibiltzeak arriskua duela esaten dugu. Eskean ibiltzeari dago-kion arriskuaz ari gara. Gorago aipatu den nolabaiteko “jabegoa” izango genuke hemen ere. Subjektu gisa interpretatzen dugu, hortaz. (48)-an, oster, arriskua eskean ibiltzea dela esaten zaigu. Hots arriskuaren “edukia” eskean ibiltzea bera da:

- (50) Arriskua = eskean ibiltzea

Honako hauetan ere –eta objektu gisa interpretatzen direnetan normalean horrela dira gauzak– -TZEKO perpausak ondotik datorkion izenaren *edukia* besterik ez du biltzen:

(51) Bihar denok Bilbora joateko {erabakia, agindua, erregua, iradokizuna...}

Hots:

(52) Bihar denok Bilbora joatea = erabakia, agindua, erregua, iradokizuna, ...

Honako hauetan ere gauza bera dugu:⁶

- (53) a. Eliza berritzeko lanari asi bihar zitzaion (Beobide, *Asisko Loria* 50)
 b. Bizikletak konpontzeko lanik etzuanean... (Oskillaso, *Kurloiak* 218)

4. –KO ETA –EN ATZIZKIEN IZAERA

Mitxelenaren ustez, -KO eta –EN biak deklinabide atzizki baino areago eratorpen elementuak dira. Gauza bera diote beste askok (Trask 1985, De Rijk 1988, etab.). Azkarate & Altunak (1992), hala ere, elementu hauek eratorpen atzizkitzat hartzearen kontrako argudioak ematen dituzte (ik. 95-96), nahiko bidezkoak, bestalde. –KO eratorpen atzizki garbia da zenbaitetan (*gerriko*, *ipurdiko*, *Katalango* (ik. *EGLU I. (Eranskina)*, 49-60), baina gehienetan zail da erator-atzizki normaltzat hartzea. Argudio nagusia da Azkaratek eta Altunak (1992, 95) ematen dutena: hitz eraketa erregeletan kategoria lexikalek hartzen dute parte, ez hortik gorakoek (sintaxi kategoriek: izen sintagmak, postposizio sintagmak, etab.).

–KO atzizkia izen sintagmari, determinante sintagmari edo postposizio sintagmari ez ezik, egitura konplexuagoei ere itsasten zaie:

- (54) a. [Orain (dela) hamar urte]-ko gertaerak ...
 b. [Bilbotik Donostiara]-ko bidean ...
 c. [berak eragin zuen izena bezain kostu handi]-ko film hau (Mitxelena, *Idazlan guztiak*, Zineaz eta beste 181).

–KO deklinabide atzizki ez bada, ez eta ere erator-atzizki, zer ote? Postposiziotzat ere hartu izan da. *Sufijo proverbial*, *suffixe relatif* eta abar ere

⁶ Bide batez, gogora dezagun perpaus jokatuekin ere gauza bera gertatzen dela. Diferentzia bakarra, oraingoan –KO atzizkia –ELA konplementatzaileari itsasten zaiola:

Tokyoko burtsak porrot egin duelako berria kezagarria da.

(hots: berria = Tokyoko burtsak porrot egin duela)

deitua izan da (Azkue, Lhande, etab). Postposiziotzat hartzeko zenbait oztopo bagenuke. Izan ere, hemen solasgai izan dugun -KO horren ezaugarri bat -helburuzkoa ez denean behintzat- inolako esanahirik ez izatea da. Postposizioek, ordea, esanahia dute nolabait: -N postposizioak esanahi argia du. -KO-k holakorik ez du. Zein litzateke, hortaz, gramatika gailu horren egitekoea? Perpaus atributiboetan lotura-aditzak betetzen duen zereginaren antzekoa betetzen duela pentsa liteke. Hori garbi ikusten da adjektibo sintagma-ri -KO eransten zaionetan:

- (55) a. *sahardea bezain handiko* izkiribuak (Hiribarren, *Eskaraz egia* 140)
(cf. Izkiribuak sahardea bezain handi dira)
b. *tximinia baño illunagoko* kopeta (Gregorio Mujika, *Pernando Amezketarra* 36)
(cf. Kopeta tximinia baino ilunago da)
c. *Bi metro luzeko* mutila.
(cf. Mutila bi metro luze da)

Adjektibo soilekin ere badira horrelako banaka batzuk:

- (56) a. Sudur gaitza / gaitzeko sudurra
b. gauza jakina / jakineko gauza

BEHARREKO tartean dugunean ere gauza bera, *behar* adjektibo izan baitaiteke:

- (57) Maiz kontsultatu beharreko liburua
(cf. Liburua sarri kontsultatu beharra da)

(55-57)-ko adjektibozko egituretan -KO zerbaiten ordain izatekotan, *den*-en ordain izango litzateke.

Badira aposizio edo diren esapideak ere:

- (58) a. Garaziko herria (= Garazi herria) (cf. Herria Garazi da)
b. Gipuzkoako probintzia
etab.

Azpian inesiboa eta bestelako postposizio sintagmak dituztela esaten dugunetan ere antzeko zerbait izango genuke. Kasu honetan ere -KO “den”, “dagoen”, “doan” edo horrelakoen ordezkio izango litzateke.

Nolakotasunezko izenlagunetan “d(it)uen” izango da ustezko ordezkaria (*bihotz oneko mutikoa, bost urteko ardoa...*). Beste batzuetan “balio duen”, “pisatzen duen”, “iraun duen” eta horrelakoak ere eman genitzake. Proposatzen diren aditz hauek denek dute ezaugarri bat: oso eduki semantiko urria izatea. Predikazioari euskarri bat ematea litzateke horrelako aditzen lana.

Modu berean, *bost urteko haurra* diogunean, dioguna da *haurrak bost urte* (dituela, noski). *Garaziko herria* diogunean ere, dioguna da *herria Garazi (dela)*. Eta *elefantea bezain handiko zaldia* diogunean, *zaldia elefantea bezain handia (da)* diogu.


Hortaz, -KO atzizkia predikazioa bideratzeko elementu funtzional bat besterik ez litzateke izango: KONP-en antzeko ardatz funtzional bat. Horrela, “suffixe relatif” deitu ziona ez zebilen hain desbideratua ere.

Kaynek (1994) funtsezko egitura bera eskaintzen die perpaus erlatiboiei, izen sintagma barneko adjektiboiei eta osagarriei. Rocak (1996) gaztelaniarentzat aurkezten duen analisia ere bide honetatik doa eta *de* preposizioari ere zeregin hori egozten dio.


“La hipótesis de la antisimetría ofrece así un análisis basado en la presencia de varias categorías funcionales que tiene la ventaja de poder explicar las coincidencias semánticas y sintácticas de los diferentes complementos del nombre a partir del mismo tipo de estructura, un SC con un SI dentro del cual se establece una relación de predicación, y permite prescindir de operaciones de inserción o elisión y de las diferentes categorías vacías que propone Burzio (1986). Las diferencias que se advierten entre unos complementos y otros se siguen siempre de los valores de las categorías funcionales que hay por encima de la predicación, de manera que se puede establecer una especie de continuidad predicativa que va desde la máxima especificación temporal, las oraciones de relativo con el verbo flexionado, hasta la mínima, los sintagmas nominales modificados por un adjetivo.” (Roca 1996, 320-321)

Bi eratako preposizioak bereizten dira gaztelania bezalako hizkuntza batean: preposizio lexikoak eta preposizio funtzionalak, aditzen artean ere aditz lexikoak eta kategoria funtzionalekin aldera litezkeen aditzak, laguntzailak, esaterako, bereizten diren bezala. Hizkuntza erromanikoetako *de* preposizioa ardatz funtzional bat izango litzateke. Hau gainerako preposizioek islatzen duten sintagmaren gainetik dagoen ardatz funtzional bat litzateke. Euskararen kasuan izen sintagmaren esparruan -EN eta -KO biak agertuko lirateke. Laburbarrez, esan dezagun izenaren osagarritzat hartu ohi diren preposizio sintagmak ez liratekeela izango ardatz-izenaren osagarri, (59) bezalako ohiko analisisetan bezala, (60)-koan aditzera ematen denaren antzeko zerbait baizik:

(59)



(60)





(60)-an preposizioaren terminoa den izen sintagma (*Jean*) SX-en espezifikatzaile egongunean ageri da, hots, aldarazia den izen sintagma (*voiture*) baino gorago. Egitura honekin agerian jarri nahi da *la voiture de Jean* sintagmako [*de Jean*] posesiboa eta *Jean a une voiture* perpauseko [*Jean*] subjektua erlazionaturik daudela. *Jean* izen sintagma espezifikatzailean badago, *de* preposizioa Y gunean egongo da eta [_{SN} *voiture*] SY-ren espezifikatzailearen egongunera mugitu beharko da, *la voiture de Jean* hurrenkera emateko. Honako egitura hauek izango genituzke, horrenbestez (ik. Kayne 1994, 102):

- (61) a. la voiture de Jean: la [_{D/PP} voiture; [de [_{IP} Jean [_{I⁰} [e];]]]]
 a. Jean a une voiture: ...BE [_{D/PP} [_{D/P⁰} [_{IP} Jean [_{I⁰} [voiture];]]]]


Bi izen sintagmak osagai beregainak dira eta bien arteko erlazioak predikazioaren egiturazko konfigurazioa du: IS bat SX-en Espez. egongunean dago eta bestea X-ren osagarri gisa.

Rocak (1996, 333-392) planteamendu hau eta Hale & Keyser-ena (1993) batuz, honako adibideak eskaintzen dizkigu:




Bide bertsutik, baina euskararen hitz ordena halakoa izanik (*Espezifikatzaile-Ardatz-Osagarri* hurrenkera unibertsaltzat ematen bada, euskaraz osagarriak ezkerretara igo beharko du, euskaraz, izatekotan ere *Espezifikatzaile-Osagarri-Ardatz* izango bailitzateke, *Osgarri-Ardatz-Espezifikatzaile* ez bada), mugimenduak beste modu batera eginez, honelako zerbeit lor liteke:

(64) *Jonen autoa*⁷




(65) *Bihotz oneko neska*



Eta (66)-rena, berriz, honelatsu izan liteke:

⁷ Beste aukera bat litzateke -EN X-ren gauzatzetza hartzea, bi izen sintagmen arteko "jabe-go" erlazioaren markatzaile gisa. Kasu honetan genitiboa elementu "betea" izango litzateke, gainerako adposizioak bezalakoa, alegia. Gainera, Jon ISak ez luke igo beharrik izango horrela.

(66) *Mendiko txabola*

Kontu hau hobeki aztertu beharko litzateke baina osagaien hurrenkera gorabehera, argi dago egitura hauek badutela zerbait elkarrekin: sakoneko predikazioa, batzuetan jabegoa adierazten duena, beste batzuetan bestelakoa. Eta hauetan -KO atzizkia izan liteke aproposa KONP gisako gune horretan agertzeko. -EN ere bai agian, ez badugu X-ren gauzatze kontsideratzen.

5. ONDORIO GISA

Laburbiltze aldera, esan daiteke, jadanik euskal gramatikariek esanaren arabera, kasu gehienetan arazorik ez dela -KO / -EN hautua egiteko: -EN da subjektuari eta objektuari dagokion marka izenlagunetan, izenlagun hau perpausa ez bada behintzat. Perpausa denean (-TZE gisako perpausa alegia), badi-rudi -EN genitibo subjektuari dagokiola eta -KO objektuari.

-KO-k azpian beste postposizio sintagma bat izaten du gehienetan (*mendiko* < *mendian* + *-ko*).

-EN atzizkiari, berriz, oro har, ongi datorkio zentzu zabalean "jabego" gisa ulertzen den erlazioa: *aitaren etxea* / *aitak etxea du*; *itzulpenaren teoria* / *itzulpenak teoria bat du* / *itzulpenari teoria bat dagokio*.

Nolakotasunezko izenlagunetan, oro har, inesiborik ez dago azpian, ez bestelako postposiziorik ere. Funtsean, predikaziozko egitura bat badela proposatu dugu. Eta nahitaez adjektiboa –edo bestelako zehaztaileren bat (beste izenlagun bat, erakusle bat, zenbatzaile bat, adibidez) – agertu beharrak baduke arrazoiak: zehaztaile hori gabe nolakotasunik ezin eman. Izan ere, izenlagunaren ardatz gisa ageri den izenak berezko tasun bat adieraziko luke (adina, kolorea, pisua, izaera, ...) eta, horrenbestez, bestelako zehaztapenik gabe informazioa “hankamotz” geldituko litzateke: ?*garreko amodioa / gar handiko amodioa*.

Horrenbestez, hauetan guztietan predikaziozko egitura bat dugula pentsatzeko arrazoiak badira. –KO eta –EN buru funtzional gisa ager litezke egitura hauetan: bata konplementatzaile gisako (= KONP) zerbait izan liteke eta –EN ere bai. Hala ere, behar bada, azken hau eduki handiagoko zerbaitzat ere har liteke, bi izen sintagmaren arteko edutezko erlazioa bideratzen duen elementutzat alegia. Bide hau arretaz aztertzea bada ere, erabat baliagarria da funtsezko ideia, hots, hauetan denetan oinarritzko predikazio bat dugula: *gizonak etxea du > gizonaren etxea; gizona mendian da > mendiko gizona; haurrak bihotz ona du > bihotz oneko haurra; Gipuzkoa probintzia da > Gipuzkoako probintzia; bizikletak konpontzea lana da > bizikletak konpontzeko lana*, etab.

BIBLIOGRAFIA

ALBERDI, X. & SARASOLA, I. 2001. *Euskal Estilo Libururantz. Gramatika, Estiloa eta Hiztegia*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbao.

ALTUBE, S. 1929. *Erderismos*. (1975, Bilbao, Indauchu Editorial).

ARTIAGOITIA, X. 1998. “Determinatzaile Sintagmaren Hipotesia Euskal Gramatikan”, *Uztaro* 27.

AZKARATE, M. & ALTUNA, P. 1992. “-KO/-DUN atzizkiez”, *Luis Villasanteri omenaldia*, Iker-6, Euskaltzaindia, Bilbo, 91-112.

AZKUE, R. M^a 1923-1925. *Morfología Vasca*. (1969, Bilbao, La Gran Enciclopedia Vasca).

—1905. *Diccionario Vasco-Español-Francés*, Bilbao. (1969, Bilbao, La Gran Enciclopedia Vasca).

RIJK, R. De 1988. "Basque Syntax and Universal Grammar", *Euskara Biltzarra I*, Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzu nagusia, Gasteiz, 69-88

—1993. "Basque Hospitality and the Suffix -KO", De Rijk (1998), 377-390.

—1998. *De Lingua Vasconum*. Suplements of the Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", nº XLIII, Universidad del País Vasco, Bilbao.

EGUZKITZA, A. 1993. "Adnominals in the Grammar of Basque", Hualde, J. I. & Ortiz de Urbina, J. (eds.) (1993), *Generative Studies in Basque Linguistics*, John Benjamins, Amsterdam, 163-187.

—1997a. "Kasuak eta postposizioak: deklinabidea eta postposiziobi-dea", *Hizpide* 40, 39-52.

—1997b. "Indirect questions and other adnominals in the grammar of Basque", in B. Palek (ed.), *Proceedings of LP'96*, 332-349.

—2001. "Adnominalen markatzaileak euskal gramatikan", *Gogoia I-1*, 73-80.

EUSKALTZAINDIA (1985), *Euskal Gramatika. Lehen urratsak I*, Iruñea.

—1987. *Euskal Gramatika. Lehen urratsak I (Eranskina)*, Bilbo.

—2000. *OEH-ko testu corpusa*, Bilbao.

—2001. *EEBS*.

GOENAGA, P. 1980. *Gramatika bideetan*, Erein, Donostia.

—1981. "Ohizko euskal sintaxia eta sintaxi berria", *Euskal Linguistika eta Literatura: Bide Berriak*, Universidad de Deusto, Bilbao, 139-161.

HALE, K. & KEYSER, S.J. 1993. "On argument structure and the lexical expression of syntactic relations". In K. Hale & Keyser (eds.), *The view from building 20: essays in linguistics in honor of Sylvain Bromberger*. Cambridge, Mass.: MIT Press.

IRIGOIEN, A. 1978. "Deklinabideaz", *Euskera* XXIV, 737-759.

KAYNE, R. 1994. *The Antisymmetry of Syntax*. Cambridge, Mass.: MIT Press.

LAFITTE, P. 1954. *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*, Librairie "Le Livre", Baiona.

LAFON, R. 1965. "Les deux génitifs du basque", *Bulletin de la Société Linguistique de Paris* 60-1, 131-159. (berrargitaratua: LAFON, R. (1999), *Vasconiana*, Iker-11, Euskaltzaindia, Bilbao, 173-197.

LHANDE, P. 1926. *Dictionnaire Basque-Français eta Français-Basque*, Gabriel Beauchesne Éd., Paris.

MITXELENA, K. 1972 a. "Etimología y Transformación", *Homenaje a Antonio Tovar*, Gredos, Madrid, 305-371. [Berrargitaratua: *Lengua e Historia*, Paraninfo, Madrid 1985, 296-308)

—1972 b. *Zenbait hitzaldi*, Etor, Bilbo.

—1978. "Miscelánea filológica vasca I", *Fontes Linguae Vasconum X*, 29, bereziki 208-218.

—1986. "Eratorbidea eta deklinabidea", *Euskera XXXI*, 535-541 orr. (berrargitaratua: *Sobre Historia de la Lengua Vasca*, Anejos de ASJU, Donostia, 674-679).

ROCA, F. 1996. *La determinación y la modificación nominal en español*, UAB, Tesi argitaragabea.

TRASK, R. L. 1985. "-KO atzizkia euskaraz", *Euskera XXX*, 165-173.

ZABALA, I. 1999. "Izen-sintagma konplexuak: adjektiboen eta izenlagunen segidak", ODRIOZOLA, J. C. (koord.) (1999), *Zenbait gai euskara teknikoaren inguruan*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbao, 107-157.

EUSKAL KASU LOKATIBOAK HIZKUNTZALARITZA KOGNITIBOAREN IKUSPUNTUTIK¹

I. Ibarretxe-Antuñano

Txosten honen helburua euskal kasu lokatiboen azterketa bat aurkeztea da. Azterketa hau hizkuntzalaritza kognitiboan kokatzen da eta txosten honetan ikusiko dugunez, hizkuntzalaritzarako beste marko teoriko batzuekin konparatuz gero, nahikoa ezberdina da.

Ezberdintasun nagusia hizkuntza ulertzeko moduan datza. Paradigma teoriko honetan, hizkuntza gure eguneroko esperientzietan eta gure mundu honen ulermenean oinarrituta dago.

Biltzar honetan entzun ahal izan dugun beste txosten batean, Koldo Garairenean, hizkuntza ekintzak giza burmuinaren ekintzak direla ikusi dugu, eta giza gorputzean eta giza ingurunean mamituak direla. Giza burmuina giza gorputzean egoteak ezaguera edo kognizioa baldintzatuko ditu, eta ezaguera giza ingurunean gertatu beharko da.

Honako txostenean, zoritxarrez, ez dut hizkuntzalaritza kognitiboaren printzipioak zehazteko lekurik izango, teoria honetako ideia orokor bat besterik ez dut emango². Dena dela hori ez da artikulu honen asmoa, baizik eta

¹ Lan hau Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate, eta Ikerketaren Sailaren dirulaguntzaren babesean egin ahal izan dut (BF199.53.DK). Honako erakunde eta pertsona hauei eskerrak eman nahi izango nieke: Euskaltzaindia eta IKER Taldea, International Computer Science Institute (Berkeley, California), Koldo Garai, eta María Cristobal. Txosten hau lan zabalago bateko zati bat da (Ibarretxe-Antuñano 2001).

² Teoria honetaz interesatuek honako sarrera-lanak ikus ditzateke: Cuenca eta Hilferty (1999), Ibarretxe-Antuñano (arg.), Ungerer eta Schmid (1996).

euskal lekuzko kasuen ikerketarako paradigma honen ekarria aurkeztea eta azaltzea. Nire ustez, linguistika kognitiboak euskal hizkuntzalaritzari, eta kasu honetan lekuzko kasuen ikerketari, ikuspuntu orain arte ezezagun eta berri bat eman ahal izango dio.

Lehenik eta behin has gaitzen euskal gramatika tradizionalak zelan aztertu dituzten euskal leku kasuak laburtzen.

1. EUSKAL LEKUZKO KASUAK GRAMATIKA TRADIZIONALETAN

Lekuzko kasuek talde berezia osatzen dute euskal deklinabidearen barruan, ez bakarrik lekua adierazteko erabiltzen direlako, baina baita gaine-rako kasuek ez bezalako zenbait berezitasun dituztelako. Berezitasunak hiru dira:

- (i) izen-sintagma bizidun eta bizigabeen arteko diferentziak (*-gan / baita*),
- (ii) mugatu singularrean *-a* artikularen falta,
- (iii) *-ta-* atzizkiaren beharra mugagabe eta mugatu pluralean izen-sintagma bizigabeekin.

Artikulu honetan, bost³ leku kasuak aztertu ditut: lokatiboa edo inesiboa (*-n*), ablatiboa (*-tik*), adlatiboa (*-ra*), norabide zuzeneko (*-rantz*), eta adlatibo buruzkoa (*-raino*).

Oro har esan daiteke euskal lekuzko kasuez eginiko lanek (ikus erreferentzietako azpimultzoa) hiru ikerketa arlo nagusi jorratu dutela: kasuen forma (atzizkiak eta euskalkietako aldaerak), aldaketa etimologikoak, eta erabilera eta adierak, hain zuzen. Artikulu honetarako gehien interesatzen zaiguna kasuen erabilera eta adiera da. Ikus dezagun zer esaten duten gramatika erreferentzialek honen gainean.

Lokatiboa espaziotzko kokapena adierazten du. Denborazko eremuan ez kokapena soilik, aldia ere adierazten du. Zenbait kasutan, modua (*patxada-n*) eta jarduera ere (*poker-ea-n*) adierazten ditu. Testuinguru batzuetan, zenbat aldiz (*hiru-ta-n*) eta zenbatean (*hiru mila pezeta-ta-n*) galderei dagokie.

³ Nahiz eta zenbait gramatikak (adib. Euskaltzaindia 1991) leku genitiboa (*-ko*) talde honetan sartu, nik ez dut hau ondo ikusten kasu honen ezaugarri bereziengatik (ikus de Rijk 1993 eta Trask 1997: 100-102).

Zenbait euskalkitan, lokatiboa partitiboari (*isil-ik-an*) eta ablatiboari (*mendit-ik-an*) eransten zaie balio indartzailea emateko.

Ablatiboak espaziozko eta denborazko abiaburua aipatzen du. Testuinguru batzuetan zeharbidea adieraz dezake⁴. Zenbait esapidetan modua (*gogo-tik*) eta jarduera (*esate-tik*) adierazteko erabiltzen da.

Adlatiboak norabidea adierazten du bai espaziozko eremuan bai denborazko eremuan. Adlatiboak jarduerako asmoa ere adieraz dezake (ad. *perretxiko-ta-ra*). Azkenik, zenbait moduzko esapidetan erabiltzen da (ad. *euskal era-ra, aisia-ra*)

Norabide zuzenekoak, espaziozko eremuan, ibiliaren norabidea adierazten du baina azken muga aipatu barik. Ez da denborazko eremuan aplikatzen.

Adlatibo buruzkoak, espaziozko eremuan, bide tarte baten azken muga aipatzen du. Adiera berbera dauka denborazko eremuan⁵ (ad. *oraindino*) eta neurria adierazten duenean (*Hogeita bosteraino kontatu dut*).

Laburpen txiki honek erakusten digunez, gramatika tradizionalak lekuzko kasuei arlo ezberdinetako adierak ematen dizkiete: espazioa, denbora, jarduera, xedea, modua, etab. Baina gramatika hauek egiten ez dutena esanahi hauen nondik-norakoak ematea da. Hau da, gramatika hauek kasuen erabilpenaren zerrenda besterik ez dute ematen, eta adibidez ez dute tutik ere esaten esanahi hauetako motibazio semantikoaz edo adiera hauen arteko harremanez.

Horregatik, artikulua honetako hipotesia da euskal lekuzko kasuen adierak eragite semantiko bat daukatela. Hipotesi hau osatzeko, ondorengo galderak aztertuko ditugu:

- Nola lortzen dugu hainbeste esangura ezberdin? Zergatik? Zeren eduki semantikoari esker? Kasuari ala aditzari esker?
- Kasuen adieren arteko harremanak: zeintzuk eta nolakoak dira?
- Nolakoa da espazioaren ulermena?

⁴ Esangura honen gainean ikus 3.3 atala.

⁵ Normalean, euskalki batzuetako espresio batzuk izan ezik, *arte* posposizioa erabiltzen da denborazko azken puntua aipatzeko. Gai honetaz ikusi Euskaltzaindia 1991: 266-270.

2. HIZKUNTZALARITZA KOGNITIBOAREN EKARRIAK

Galdera hauetarako erantzunak lortzea ez da erraza; aitzitik, oso zaila da, eta txosten honetan ez dugu erantzun zehatz-mehatz bat aurkitzea espero behar. Hemen arazo hauek konpontzeko bide berri bat bakarrik ireki nahi dut, jatorrizko lanek erantzun finkoagoa proposatu beharko lukete.

Hau esanda, orain hizkuntzalaritza kognitiboaren tresna batzuk azaltzen hasiko naiz. Tresna edo mekanismo hauek zeintzuk diren jakin behar dugu, gure helburua bete nahi badugu. Hauek dira:

(i) Higitzailea eta mugarría kontzeptuak. Langackerrek (1987, 1991) Gestalt psikologiatik hartzen ditu izen hauek eta honela definitzen ditu:

-‘Higitzailea’ (trajector): erlazio bateko kide nabarmenena da.

-‘Mugarria’ (landmark): erreferentzi puntua da.

(ii) Gailentzea edo ‘profiling’ (Langacker 1987, 1991, 2000) erlazio bateko kide bat besteen gainetik nabarmentzea da, gailentzearen ondorioz, kide hau gainerakoak baino leku inportanteagoan geratuko da

(iii) Irudi-eskemak, Johnson-i jarraiki (1987), gure zentzumen, motrizitate eta gorputzaren esperientzian oinarritzen diren egitura abstraktu eta aurre kontzeptualak dira. Egitura hauek gestaltikak dira eta osagarriak edo rolak dauzkate. Osagarrien arteko harremanak finkoak dira. Gure azterketarako bi irudi-eskema behar ditugu:

-Abiaturua-Bidea-Helburua eskema (Johnson 1987). Eskema honek ibiltarte bati egitura ematen dio. Hiru osagarri ditu: abiaturua (higitzen hasten den lekua), bidea (abiaturutik helbururako tartea), helburua (ailegatu nahi den lekua).

-Muga eskema (Bretones, Cristóbal, eta Ibarretxe, arg.). Honek dimentsio bakarreko muga bat, bi eta hiru dimentsioko espazioarekin lotzen du. Hiru osagarriak ditu: gune A, muga, eta gune B.

(iv) Sare lexikalak (Lakoff 1987, Langacker 1991, 2000, Rice 1996, Sandra eta Rice 1995) hitzen esanguren arteko harremanak erakusten dituzten egiturak dira. Egitura hauek adierek dituzten elkarren arteko loturak eta antzekotasun kontzeptuala jakinarazten dizkigute.

Hemen Lakoffek (1987) proposatutako sare lexikal mota bat erabiltzen dugu, hots, ‘kategoria erradiala’. Honek kide nagusi bat dauka, prototipoa edo adiera eredugarria deritzona, eta horren inguruan beste esanahi guztiak antolatzen dira. Adiera eredugarriaren eta besteen arteko loturak mekanismo kognitiboen bidez lortzen dira.

(v) Polisemia konposizionala (Ibarretxe-Antuñano 1999a⁶). Oinarrizko ideia da hitz bateko adiera guztiak hitz horren eta ondoko elementu guztien eduki semantikoaren elkarreaginaren eskutik sortzen direla.

Elementu hauetako eduki semantikoaren betebeharra ez da berbera kasu guztietan. Batzuetan elementu batek besteek baino garrantzi handiagoa dauka esanahiaren sorketan. Ondorioz, kasu batzuetan elementuaren eduki semantikoan oinarriturik auresan daiteke esanahia, baina beste kasu batzuetan ezin da. Lehenei ‘polisemia auresangarria’ deritze, eta bigarrenenei ‘polisemia auresan-ezina’ (Ibarretxe-Antuñano 1999b).

(vi) Metafora esparru kontzeptual ezberdinen artean gertatzen den proiektzioa da (Lakoff eta Johnson 1980, 1999). Proiektzioan bi arloek parte hartzen dute: bata sorburua -errealitate fisikoa- da, eta bestea xedea -errealitate abstraktuagoa. Proiektzioa sorburutik xedera gertatzen da. Hau da, sorburutik ateratako egiturak xedera proiektatzen edo bidaltzen dira.

Ikusiko dugunez, hemen aipatzen ditugun metaforak irudi-eskemetan oinarrituta daude. Irudi-eskemek metaforei emandako egituraren gainean metafora eraikitzen da.

3. MOTIBAZIO SEMANTIKOA LEKUZKO KASUETAN: OHAR BAZUK

3.1. Sare lexikalak eta adiera eredugarriak

Ikusi dugunez lekuzko kasuek adiera ugari daukate, batez ere lokatiboak. Kasu hau, hots, lokatiboa, instrumentolarekin batera, deklinabideko kasurik emankorrena da. Alabaina, geure buruari egin behar dizkiogun galderak hauek dira: egia ote da kasu honek hainbeste esanahi daukala? Adiera hauek benetan ote dira desberdinak bata bestearekin konparatuz gero? Denak maila berberean koka ditzakegu?

Nik ezetz erantzungo nuke. Nire ustez lokatiboak, eta baita gainerako kasuek ere, esanahi nagusi bat eta bakarra daukate, eta gainontzeko erabilerak edo adierak hark eraginiko hedapenak besterik ez dira. Guztien artean sare

⁶ Ibarretxe-Antuñanoren lan honetan (1999a) polisemia konposizionalari ‘gradable polysemy’ izena ematen zion.

lexikala osatzen dute⁷. Prototipo teoriari jarraiki (ikus Rosch 1973, 1977, 1978, 1983; Rosch eta Mervis 1975; Mervis eta Rosch 1981), esanahi nagusi hori, edo adiera eredugarria, ez da besteetatik sortutako abstrakzioa, baizik eta adieraren kategoriarik arruntena eta tipikoena, kategoria horretako adibiderik onena, alegia.

Beraz, lekuzko kasuei dagozkien adiera eredugarriak 1. Taulakoak dira:

1. Taula: leku kasuen adiera eredugarriak

- Lokatiboa	→	kokapena
- Ablatiboa	→	abiaburua
- Adlatiboa	→	helburua
- Norabide zuzeneko	→	norabidea
- Adlatiboa bukatuzkoa	→	helmuga

Gainerako adierak adiera eredugarriari lotzen zaizkio, zenbait mekanismoren bitartez: irudi-eskemak, polisemia konposizionala, eta metaforak, hain zuzen.

3.2. Irudi-eskemak eta gailentzea

Esan dugun bezala, irudi-eskema gure zentzumen, motrizitate eta gorputzaren esperientzian oinarritzen diren egitura abstraktu eta aurre kontzeptualak dira. Euren funtzio nagusia kasu lokatiboetan euskarak duen espazioaren kontzeptualizatze edo ulermenean gertatzen diren egitura aurre kontzeptualak zehaztea da. 2. Taula honetan ikus dezakegunez, kasu bakoitzari irudi-eskema bat dagokio. Lokatiboari Muga eskema, eta beste Abiaburu-Bide-Helburu eskema (hemendik aurrera, ABH eskema).

⁷ Arlo honetan, beste askoren artean ikusi Brugman (1981), Cuyckens (1991), Herskovits (1987), Ibarretxe-Antuñano (2002), Lindner (1982), Vandeloise (1984).

2. Taula: Leku kasuen Irudi-eskemak eta gailendutako rolak.

LEKUZKO KASUAK	IRUDI-ESKEMA	GAILENDUTAK ROLAK
Lokatiboa	Muga eskema	Gune A
Ablatiboa	ABH eskema	Abiaturua
Adlatiboa	ABH eskema	Helburua
Norabide zuzenekoak	ABH eskema	Helburua + Bidea (bektorea)
Adlatibo bukatuzkoa	ABH eskema	Helburua + Bidea (muga)

Baina kasu hauek bata bestearengandik benetan bereizten dituen irudi-eskeman gailendutako osagarria edo rola da. Lokatiboan gailendutako rola Gune A da. Gogoan izan behar dugu, gunea edozein dimentsioko espazioa dela. Ablatiboan Abiaturua rola gailenduta dago, adlatiboan Helburua, norabide zuzenekoan Helburua eta Bidea, eta adlatibo bukatuzkoan Helburua eta Bidea. Azken bi kasu hauek Bidea rolaren osagarri baten bidez elkarrengandik bereiziko dira. Norabide zuzenekoak Talmy-k (2000) deitu dion ‘Bektorea’, hau da, bideko norabidea, gailentzen du; adlatibo bukatuzkoak, berriz, bideko muga bat, helmuga⁸.

Kontuan izan behar dugu azken hiru kasu hauek Helburu rola konpartitzen dutela, eta bereizgarri dutena bigarren rola gailenduta izatea dela. Norabide zuzenekoak eta adlatibo bukatuzkoak adlatibo kasutik datoz bai morfologikoki bai semantikoki. Bi kasu hauek adlatiboaren erabileraren zehaztapen lexikalak besterik ez direla argudiatzen dut. Hau da, norabide zuzenekoaren eta adlatibo bukatuzkoaren eduki semantikoa adlatiboaren bidez aipa daiteke, baldin eta testuingurua eta kasu honekin doazen elementuen esangura egokiak badira. Ikus ditzagun adibide batzuk ideia hau azaltzeko.

- (1.a) *Etxera abiatu zen*
 (1.b) *Etxera iritsi zen*
 (2.a) *Zure lagunak ikusi ninduenean, etxera nindoan*
 (2.b) *Erosketak egin ondoren etxera joan nintzen*

Adibide multzo hauetan adlatiboa erabili arren, (a) adibideetan ibiliaren norabidea etxerako bidean nengoela ulertzen da, eta (b) adibideetan, aldiz, etxean bertan gaudela. Beste era batean, (a) adibideetan adlatiboak ibiliaren

⁸ Beste era batean, adlatibo bukatuzkoa, Vendlerren (1967) arabera, kasu ‘telikoa’ da.

norabidea, baina muga aipatuta barik, adierazten du eta (b) kasuetan, bide baten azken helmuga. Laburbilduz, adlatiboak norabide zuzenekoaren eta adlatibo bukatuzkoaren funtzioak bete ditzake.

Hala ere, adlatiboak balore hauek izateko testuingurua oso baldintzatuta dago. (1) adibideetan, esangura hauek ez lirateke posible izango aditzaren eduki semantikorik gabe: *Abiatu* aditzak berak muga gabeko norabidea aipatzen du eta *iritsi* aditzak, bestaldetik, ailegatutako helmuga. (2) adibideetan, esangura hauen sortzailea aditzaren aspektua da: (2.a)-n ekintza ez-burutua da eta (2.b)-n burutua⁹.

Baldintza hauek ez dira beharrezkoak norabide zuzeneko eta adlatibo bukatuzkoa¹⁰ erabiltzen baditugu adlatiboaren orde, eta aditz 'neutro' bat erabiltzen badugu. Horregatik bi kasu hauek adlatiboaren erabileraren zehaztapen lexikalak direla esan daiteke.

(3.a) *Etixerantz abiatu / joan zen*

(3.b) *Etixeraino iritsi / joan zen*

Kasu bakoitzari irudi-eskema bat dagokio, eta kasu bakoitzak osagarri edo rol espezifiko azpimarratuta dauka. Baina galdera hauxe da: Zertarako behar dugu hori guztia? Ipin ditzagun adibide batzuk erantzun ahal izateko.

(4) *Mikel gelan sartu da*

(5) *Mikel gelara sartu da*

Adibide bi hauek ia gertaera berbera deskribatzen dute: higitzaile edo *trajector* bat daukagu, hau da, *Mikel* higitzaile hau bide batetik mugitzen da, muga bat zeharkatzen du eta azkenean, helburu baten barruan, hots, gela baten barruan, bukatuko du.

Nahiz eta bi esaldi hauek deskribapen berdina izan, hiztunek ezberdintasun batzuk sumatzen dituzte. Inferentziak desberdinak dira. (4) esaldian sortutako inferentzia da higitzailea gelan sartzen dela eta hantxe bertan gelditzen dela. (5) esaldikoan, bestalde, ez dakigu higitzailean han gelditzen den ala ez. Dakigun gauza bakarra hauxe da: higitzaileak hautatutako helburua gela dela eta haraxe iritsi dela. Ez dakigu zenbat denbora ematen duen gelan.


⁹ Hurrengo atalean ikusiko dugunez, hauek 'polisemia konposizionalaren' adibideak dira.

¹⁰ Kontuan izan behar dugu, halaber, aditzaren aspektuak adlatibo bukatuzkoaren erabilpena baldintzapetzen duela. Adibidez, *etxeraino nindoan* esaldia gaizki legoke. Esaldi hau konpontzeko edota norabide zuzeneko kasua erabiltzen dugu (*etxerantz nindoan*) edota aditzaren aspektua (*etxeraino joan nintzen*).

Esaldietako elementu guztiak, lekuzko kasua izan ezik, berdinak dira eta horregatik zilegi da pentsatzea desberdintasun hauek lekuzko kasuek sortarazten dituztela. Baina, nola erakuts dezakegu hau formalki? Nik irudi-eskemen bitartez eta haien osagarri arteko loturaren bidez erakutsi ahal dugula argudiatzen dut.

Sartu aditzari bi irudi-eskema dagozkio: alde batetik, Muga eskema eta beste alde batetik, ABH eskema. Muga eskematik Muga eta Gune B osagarriak gailenduta daude. *Sartu* aditzak beti ‘helburua’ aipatzen du, eta leku batetik, Gune A-tik, beste batera joateko, Gune B-ra, muga bat zeharkatu behar da.

1. Irudia: (4) eta (5) esaldien arteko desberdintasunak



ABH eskematik Helburu rola gailenduta dago. Gune B eta Helburu osagarriak lotuta daude¹¹. Horixe izan da *sartu* aditzaren egituraren deskribapena.

(4) esaldian, *sartu* kasu lokatiboarekin doa. Dakigunez, lokatiboak Muga eskema pizten du eta gailenduta duen rola Gune B¹² da. Horrekin zer esan nahi dugu? Bada egoera estatikoa birritan azpimarratua dagoela, aditzaren bidez eta kasuaren bidez; mugimendua, berriz, behin bakarrik, aditzaren bitartez.

(5) esaldian, leku kasuak dakarrena desberdina da. Adlatiboak mugimendua aipatzen du. Gogoan izan behar dugu kasu hau ABH eskemaren Helburu osagarrian sustatzen dela. Beraz, (5) esaldian, birritan azpimarratutako edo

¹¹ Irudi-eskemaren osagarri arteko loturei edo ‘bindings’ei buruz, ikusi Bergen, Chan, eta Paskin (arg.). Bretones, Cristóbal, eta Ibarretxe-ri (arg.) jarraiki, honako ikurrak ••• ‘lotura’ adierazteko erabiltzen da testuan zehar.

¹² *Sartu* aditzaren deixiarengatik, kasu lokatiboak Muga eskemaren Gune B gailenduta dauka, Gune A-ren ordez.

gailendutako elementua ez da egoera estatikoa, egoera mugikorra baizik, mugimenduaren helburua hain zuzen.

Bi esaldi hauen arteko ezberdintasunak 1. Irudian erakusten dira.

3.3. Polisemia konposizionala

Aurreko adibideetan, (4) eta (5), *sartu* aditzak esaldien esanguraren sorretan garrantzi handia zuen. Esaldi horiei, *sartu* aditza kenduko balitzaie, esanahi desberdina izango lukete. Beste era batean esanda, aditz honen lekuan beste aditz bat ipiniko bagenu, egoera erabat desberdin batekin egingo genuke topo. Adibidez, lokatiboarekin *joan* aditza sartuz gero (6) esaldian bezala, emaitza latza jasoko genuke: esaldi okerra euskaraz. *Joan* aditzaren ordeztuz, aditz estatiko bat sartuz gero, adiera estatikoa izango genuke. (7) esaldiak Mikel leku horretan egon dela bakarrik aipatzen du.

(6) **Mikel gelan joan da*

(7) *Mikel gelan egon da*

Ikusten dugunez, esaldiaren esangura lortzeko funtsezkoa da *sartu* aditzaren eduki semantikoa. Fenomeno horri edo egoera horri ‘polisemia konposizionala’ deritzot. Beste adibide batzuekin hasi aurretik, gogora gaitezen zer den polisemia konposizionalaren oinarritzko ideia: hitz bateko esangurak hitz honetako eta ondoko elementu guztien eduki semantikoaren elkarreraginaren eskutik sortzen direla. Dakigunez, parte hartzen duten elementu hauetako eduki semantikoak ez du garrantzi bera kasu guztietan. Batzuetan, zein den esaldiaren interpretazioa aurrean daiteke elementuen esanahiarengatik, baina beste batzuetan hori ezinezkoa da. Ikus ditzagun bi adibide hauek.


(8) *Mikel leihotik sartu da*

(8) esaldiak Mikel leihotik zehar barrura etorri dela adierazten du. Honako esaldi batean, gramatika tradizionalak ablatiboak ‘zeharbidea’ adiera adierazten duela esango lukete. Hala ere, nire ustez, ‘zeharbidea’ delako interpretazio hau honako elementuaren bidez lortzen dugu: *leiho* izena —zeharka daiteken elementu bat—, eta *sartu* aditza —gogoan izan aditz honek gailentzen dituen osagarriak—: alde batetik, Gune B eta Muga eta, beste alde batetik, Helburua. Ablatiboak ‘abiaburua’ edo ‘mugimendua hasten den puntua’ besterik adierazten ez duela argudiatzen dut. Hala ere, beste bi elementu horien adierak ‘zeharbidea’ aipatzen dutelako jasotzen du (8) esaldiak halako interpretazioa. Gauzak ezberdinak dira hurrengo esaldian:


(9) *Mikel leihotik etorri da*

Goiko esaldi honetako ulerkuntza ez dago hain garbi. Bi esangura hautatu daitezke: alde batetik, ‘zeharbidea’ eta beste alde batetik ‘abiaburua’. Esaldi honetako zalantzagarritasuna 2. eta 3. Irudietan erakusten da.

2. Irudia: ‘zeharbidea’



3. Irudia: ‘abiaburua’



Kanpoko testuinguru gehiagorik gabe ezin da anbiguotasun hori konpondu. Baina zergatik gertatzen da hori? Ia esaldiaren elementu guztiak berdinak dira aditza izan ezik. (9) esaldian *etorri* aditza daukagu eta aditz honen eduki semantikoak ez dauka zeharkatzearekin zer ikusirik. Hau da, bere eduki semantikoak ABH eskemaren bitartez egituratzen da eta ez Muga eskemaz, *sartu* aditzaren kasuan bezala.

Baina orduan nola sortzen da zalantzagarritasun hori? *Leiho* izenaren bidez, hain zuzen ere, izen honek bai ‘zeharbide’ bai ‘abiaburu’ interpretazioak onartzen dituelako. (8) esaldian *sartu* aditza dagoenez, *leiho* izenaren ‘zeharbide’ interpretazioa hautatzen da, baina (9) esaldian bai ablatiboak eta bai aditzak, bi-biek ‘abiaburua’ adierazten dutenez, bada *leiho* izena anbiguotasun honen esku dago.

Laburbilduz, ablatiboak adiera eredugarri bat dauka, hots ‘abiaburua’. Ablatiboaren ondoko elementuen arabera, ablatiboa ‘abiaburu’ adieratik ‘zeharbide’ adierara heda daiteke. Hedapen semantiko hau polisemia konposizionalaren bitartez lortzen da. Kasu batzuetan, hemen (8) esaldian, emaitzako interpretazioa aurrean daiteke, eta beste kasu batzutan ordea, hemen (9) esaldian, ezin da aurrean emaitzako interpretazioa zalantzarria delako. Lehenengoak ‘polisemia aurreangarria’-ren adibideak dira, eta bigarrenekoak ‘polisemia aurrean-ezina’-renak.

3.4. Metafora

Bigarren atalean esan dugun modura, metafora esparru kontzeptual ezberdinen arteko proiektzioa da. Proiektzioa sorburu fisiko batetik xede abs-

traktuago batera gertatzen da. Honako atalean, leku kasuen esangurak adierazteko metafora zelan ezartzen den aztertuko dut.

Ia leku kasu guztiek denbora adierazten dute, baina nola azal daiteke lotura hori? Hizkuntzalaritza kognitiboan lotura hori metaforen bidez lortzen dela argudiatzen da. DENBORA LEKUA DA metafora, hain zuzen (Lakoff and Johnson 1980, 1999; Radden 2001). Hemen, sorburu eremua espazioa da eta xedearena denbora. Hau da, lekuaz edo espazioaz daukagun esperientzia eta ulermena denbora zer den azaltzeko erabiltzen dugu.

Metafora hau oso konplexu eta emankorra da eta beraren barruan zenbait azpimetafora aurki ditzakegu. Ikus ditzagun adibide batzuk.

(10) *1972. urtean jaio nintzen*

(11) *1995etik 1999ra Edinburgon bizi nintzen*

(10) esaldia DENBORAZKO KOKAPENA LEKUZKO KOKAPENA DA metaforaren adibide bat da. Hemen leku finko batean kokatuta egotetik jasotzen den esperientzia denborazko eremura proiektatzen da, ondorioz, esaldi honetan *1972. urtean* esatearekin data finko batean kokatua egotea adierazten da.

(11) esaldia DENBORALDIA IBILTARTE OSOA DA metaforaren adibide bat da. Ibarretxe-Antuñano (2003) dioenez, euskaran, higialdi batzuen deskribatzerakoan, abiaburua eta helburua aipatzeko joera nabarmengarri bat aurkitzen da, baita aipatzeko beharra ez dagoenean ere. Adibidez, erorketa bat deskribatzerakoan, *Leihotik behera erori da* esateko joera dago *Leihotik erori da* beharrean. Joera horri 'ibiltarte osoa hipotesia' deritzo. Leku batetik bestera dagoen tartea -ibiltarte osoa- metafora honen sorburua da eta esperientzia hori denborazko xedera bidaltzen da. Beraz, denboraldi bat ibiltarte oso bat bezala ulertzen da.

Denborazko eremurako hedapen semantikoez aparte, beste hedapen batzuk daude, hauen artean 'jardueraren asmoa' (12) esaldian bezala.

(12) *Perretxikotara joan da*

Hemen, adlatiboak jardueraren asmoa adierazten du. Hedapen hau, Kabata eta Ricek (2001) dioten bezala zenbait hizkuntzatan agertzen dena, XEDEAK NORAKOAK DIRA metaforaren bidez azaltzen da (Lakoff 1987, 1993). Xede bat edo asmo bat lortzea, adibide honetan 'perretxikoak hartzea', non-baitera joatearen esperientzia horretan oinarritua dago.

4. ONDORIOAK

Artikulu honetan euskal kasu lokatiboen polisemiaz hitz egin dugu. Kasu

hauek eremu ezberdinetako zenbait esangura aipatzen dute: espazioa, denbora, jardueraren asmoa... Nire proposamenak horrela dio:

Adiera guztiak, eta nolabait esateko kasuen erabilera, motibazio semantiko baten bidez sortzen dira. Hau da, motibazio semantiko horrek haien egitura ematen die eta haien arteko harremanak nolakoak eta zeintzuk diren azaltzen du.

Kasu hauen esanahiek sare lexikalak osatzen dituzte. Sare lexikaletan adiera prototipiko bat dago kasu bakoitzean: lokatiboan kokapena, ablatiboan abiaburua, adlatiboan helburua, norabide zuzenezkoan bektorea, eta adlatibo bukatuzkoan muga.

Kasu bakoitzeko gainerako esangurak adiera prototipikoaren hedapen semantikoak dira eta ondorioz, prototipo honekin lotuta daude. Adiera prototipiko honekiko loturak mekanismo kognitiboen bidez garatzen dira, irudieskema, polisemia konposizionala, eta metaforaren bidez, hain zuzen ere.

Hemen aurkeztu dudak proposamena oraindik bukatugabea da. Zenbait ildo ukitu gabe gelditu dira artikulua honetan. Adibidez, leku kasuen euskalki bakoitzeko erabileraren salbuespenak azaltzea —zergatik Bizkaieraz, iharduraren asmoa aipatzeko lokatiboa (*ogitan noa*) erabiltzen da adlatiboa beharrean—, edota beste mekanismo kognitiboek, metonimiak kasu, betetzen duten funtzioa hedapen semantikoan aurkeztea. Gai hauek jatorrizko eta aparteko lanetan aztertu beharko lirateke, zeren eta artikulua honen helburu nagusia euskal leku kasuak ikerketarako hizkuntzalaritza kognitiboen ekarria aurkeztea besterik izan ez baita. Dena dela, txosten honen bitartez kasu hauen erabileraz eta adieraz pixka bat gehiago jakiteko lagungarria izan dela espero dut.

ERREFERENTZIAK

BERGEN, B. K., CHANG, N. eta PASKIN, M. Argitarabidean. “Simulation-based language understanding in Embodied Construction Grammar”. J. Östman (arg.) *Construction Grammar(s): Cognitive and Cross-language Dimensions*.

BRETONES, C. M. C., eta IBARRETXE, I. Argitarabidean. “The construction salir-de in Spanish: How Spanish speakers conceptualise exiting events”. Mirjam Fried and Hans Boas (arg.) *Construction Grammar: Back to the Roots*. Amsterdam and Philadelphia: John Benjamins.

BRUGMAN, C. 1981. *The Story of Over*. MA Thesis. University of California at Berkeley. Distributed by L.A.U.T. July 1993. Series . Paper Nr. 102.

CUENCA, M. J. eta HILFERTY, J. 1999. *Introducción a la lingüística cognitiva*. Barcelona: Ariel.

CUYCKENS, H. 1991. *The Semantics of Spatial Prepositions in Dutch: a Cognitive-Linguistic Exercise*. PhD Thesis. University of Antwerp.

EUSKALTZAINDIA. 1991. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak I-II*. Iruñea: Euskaltzaindia.

HERSKOVITS, A. 1986. *Language and Spatial Cognition: An Interdisciplinary Study of the Prepositions in English*. Cambridge: Cambridge University Press.

IBARRETXE-ANTUÑANO, I. 1999a. *Polysemy and Metaphor in Perception Verbs: A Cross-linguistic Study*. PhD Thesis. University of Edinburgh.

IBARRETXE-ANTUÑANO, I. 1999b. "Predictable vs. unpredictable polysemy". S.J. Hwang and A. Lommel (argk.) *LACUS Forum* 25: 201-211.

IBARRETXE-ANTUÑANO, I. 2001. "An overview of Basque locational cases: Old descriptions, new approaches". *International Computer Science Institute Technical Report No. 01-006*. University of California at Berkeley.

IBARRETXE-ANTUÑANO, I. 2002. "The conceptual structure of Basque *burun* 'head'. *Fontes Linguae Vasconum* XXXIV, 91: 463-491.

IBARRETXE-ANTUÑANO, I. 2003. "Motion events in Basque nomatives". Sven Strömquist eta Ludo Verhoeven (argk.) *Relating events in narrative: Typological and contextual perspectives*. Hillsdale, NJ: Lawrence Erlbaum Associates.

IBARRETXE-ANTUÑANO, I. Argitarabidean. "What's Cognitive Linguistics? A new framework for the study of Basque". *Journal of the Institute of Basque studies*, 1.

JOHNSON, M. 1987. *The Body in the Mind. The Bodily Basis of Meaning, Reason, and Imagination*. Chicago: Chicago University Press.

KABATA, K. eta RICE, S. 2001. "The Allative: In cross-linguistic perspective and extension". 7th International Cognitive Linguistics Conference-n emandako hitzaldia. Santa Barbara, California, U.S.A.

LAKOFF, G. 1987. *Women, Fire, and Dangerous Things. What Categories Reveal about the Mind*. Chicago: Chicago University Press.

LAKOFF, G. 1993. "A contemporary theory of metaphor". A. Ortony (arg.) *Metaphor and Thought*. Cambridge: Cambridge University Press, 202-251.

LAKOFF, G. eta JOHNSON, M. 1980. *Metaphors We Live By*. Chicago: Chicago University Press.

LAKOFF, G. eta JOHNSON, M. 1999. *Philosophy in the Flesh. The Embodied Mind and its Challenge to Western Thought*. New York: Basic Books.

LANGACKER, R. W. 1987. *Foundations of Cognitive Grammar, Vol: 1: Theoretical Prerequisites*. Stanford: Stanford University Press.

LANGACKER, R. W. 1991. *Concept, Image, and Symbol. The Cognitive Basis of Grammar*. Berlin and New York: Mouton de Gruyter.

LANGACKER, R. W. 2000. "A dynamic usage-based model". Michael Barlow eta Susanne Kemmer (arg.) *Usage-based Models of Language*. Stanford: CSLI Publications, 1-65.

LINDNER, S. J. 1982. *A lexico-semantic analysis of English verb particle constructions with 'out' and 'up'*. PhD Dissertation. University of California, San Diego.

MERVIS, C. B. eta ROSCH, E. 1981. "Categorization of natural objects". *Annual Review of Psychology* 32: 89-115.

RADDEN, G. 2001. "Time as Space". *CLEAR. Cognitive Linguistics: Explorations, Applications, Research (New Series)*. No 5. University of Hamburg.

RICE, S. 1996. "Prepositional prototypes". Martin Pütz eta René Dirven (argk.) *The Construal of Space in Language and Thought*. Berlin and New York: Mouton de Gruyter, 135-165

RIJK, R. P.G. de 1993. "Basque hospitality and the suffix *-ko*". J.I. Hualde eta J. Ortiz de Urbina (argk.) *Generative Studies in Basque Linguistics*. Amsterdam and Philadelphia: John Benjamins, 145-162.

ROSCH, E. 1973. "Natural Categories". *Cognitive Psychology* 4: 328-50.

ROSCH, E. 1977. "Human Categorization". N. Warren (arg.) *Studies in Cross-cultural Psychology*. London: Academic Press, vol. 1, 1-49.

ROSCH, E. 1978. "Principles of categorization". E. Rosch eta B. B. Lloyd (argk.), *Cognition and categorization*. Hillsdale, NJ: Erlbaum, 27-48.

ROSCH, E. 1983. "Prototype classification and logical classification". E. Scholnik (arg.) *New Trends in Cognitive Representation, Challenges to Piaget's Theory*. Hillsdale: Lawrence Erlbaum, 73-86.

ROSCH, E. eta MERVIS, C. 1975. "Family resemblances, Studies in the internal Structure of Categories". *Cognitive Psychology* 7: 573-605.

SANDRA, D. eta RICE, S. 1995. "Network analyses of prepositional meaning: Mirroring whose mind- the linguist's or the language user's?" *Cognitive Linguistics* 6-1: 89-130.

TALMY, L. 2000. *Toward Cognitive Semantics*. Vol 1-2. Cambridge, Mass: MIT Press.

TRASK, L.R. 1997. *A History of Basque*. London: Routledge.

UNGERER, F. eta SCHMID, H.-J. 1996. *An Introduction to Cognitive Linguistics*. London: Longman.

VANDELOISE, C. 1991. *Spatial Prepositions: A Case Study from French*. Chicago: Chicago University Press.

VENDLER, Z. 1967. *Linguistics in Philosophy*. Ithaca, NY: Cornell University Press.

Euskal gramatikari buruzko lanak

AULESTIA, G. 1989. *Basque-English Dictionary*. Reno and Las Vegas: University of Nevada Press. Euskal gramatikari buruzko gehigarria.

AZKUE, R. M. 1969. [1923-25]. *Morfología Vasca*. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca.

EUSKALTZAINDIA. 1991. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak I-II*. Iruñea: Euskaltzaindia.

HUALDE, J. I. eta ORTIZ DE URBINA, J. Argitarabidean. *A Grammar of Basque*. Amsterdam and Philadelphia: John Benjamins.

LAFFITE, P. 1979. [1944]. *Grammaire basque (navarro-labourdin littéraire)*. Donostia: Elkar.

LAKA, I. d.g. *A Brief Grammar of Basque*. <http://www.ehu.es/grammar/index.htm>.

ORTIZ DE URBINA, J. 1989. *Some Parameters in the Grammar of Basque*. Dordrecht: Foris.

VILLASANTE, L. 1978 [1983]. *Estudios de Sintaxis Vasca*. Oñate: Ed. Franciscana Aranzazu.

ZUBIRI, I eta ZUBIRI, E. 1995. *Euskal Gramatika Osoa*. Bilbo: Didaktiker.

Euskal lekuzko kasuen historiari buruzko lanak

GÓMEZ, R. 2000. “De re. etymologica: vasc. *-(r)antz* ‘hacia’”. LEHIA/EHUko eskuizkribua, Gasteiz.

HUALDE, J. I., LAKARRA, J. A. eta TRASK, R.L. (arg.) 1995. *Towards a History of Basque Language*. Amsterdam and Philadelphia: John Benjamins

JACOBSEN, W.H. 1977. “The Basque locative suffix”. Douglass, W.A., R.W. Etulain, eta W.H. Jacobsen (argk.) *Anglo-American Contributions to Basque Studies: Essays in Honor of Jon Bilbao*. Reno: Desert Research Institute Publications on the Social Sciences, no 13.

LAFON, R. 1933. “Basque et langues kartvèles: à propos des postpositions basques formées au moyen de *-gan*”. *Revista Internacional de Estudios Vascos* 24: 150-172.

LAFON, R. 1972. “Basque”. Thomas A. Sebeok (arg.) *Current Trends in Linguistics. Vol. 9. Linguistics in Western Europe*. The Hague, Paris: Mouton, 1744-1792.

LAKARRA, J. A. 1984. “Bizkaiera zaharreko ablatiboaz”. *Anuario del Seminario de Filología Vasca ‘Julio de Urquijo’* 18.1: 163-193.

MICHELENA, L. 1993. [1977]. *Fonética Histórica Vasca*. Donostia: Donostiako Foru Aldundia.

RIJK, R. de 1981. “Euskal morfologiaren zenbait gorabehera”. *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 83-101.

RIJK, R. de 1992. “‘Nunc’ vasconice”. *Anuario del Seminario de Filología Vasca ‘Julio de Urquijo’* 26: 695-724.

SCHUCHARDT, H. 1923. *Primitiae Linguae Vasconum*. Salamanca: Colegio Trilingüe-CSIC, 1947 (A. Irigaray itzultzailea).

TRASK, R.L. 1997. *The History of Basque*. London and New York: Routledge.

AGRAMATISMOAREN SINTOMAK EUSKARAZ

I. Laka

1. Atarikoak¹

Lan honetan, *agramatismo* izenaz ezagutzen den hizkuntz-sindromeak euskaraz ageri dituen sintoma nagusiak aurkezten ditugu, horiek hizkuntza-ren egitura orokorrarekin, eta bereziki euskararen egiturarekin eduki lezaketzen zerikusia azpimarratuz. *Agramatismoa*, burmuineko hizkuntz-eremueta jasotako kalte baten ondorioz gertatu ohi den sindromea dugu; hots, *afasia* mota bat da. Kaltea jaso duen burmuin-eremuaren arabera itxuraturik egon beharrean, Broca edo Wernicke afasiak bezala, agramatismoa, gaixoak ekoizten duen hizkuntza motaren arabera itxuratu ohi da soilik. Bestela esan, agramatismoaren sindromea, sintoma talde baten arabera itxuratzen da, eta ez esparru neurofisiologiko baten arabera.

1.1. Lan honen nondik-norako zenbait.

1998. urtean, *Nazioarteko logopedia eta foniatria elkartearen* (IALP) XXIV Kongresua ospatu zen Amsterdamen. Bertan, Afasiarako Komiteak erabaki zuen afasiak hizkuntza ezberdinetan eragiten dituen sintomei buruzko txosten orokor bat prestatzea, 2001.ean aurkezteko, IALPren hurrengo kongresuan. Hainbat hizkuntzetatik afasia sintomak jasotzen dituen txosten hau, 2001. urtean argitaratu da, *Manifestations of Aphasia Symptoms in*

¹Lan hau, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza eta Ikerkuntza eta Unibertsitate Sailaren laguntzari esker burutu da, PI-1999-18 ikerkuntza bekaren bitartez.

Different Languages izenburupean, Michel Paradis McGill Unibertsitateko neurohizkuntzalaria argitaratzaile duela. Txosten orokor honetan, lehenago aztertu gabeak edo gutxi aztertuak izan diren hamalau hizkuntzetan afasiak, eta batik bat agramatismoak ageri dituen sintomak aurkezten dira: ingeles afrikamerikarra, afrikaans, katalanera, txekiera, Persiako farsi hizkuntza, finera, friuliera, grekera, hebraiera, hungariera, poloniera, gaztelania, suediera eta euskaratiko sintoma nagusiak deskribatzen dira bertan.

Txosten orokor honetan, garrantzi handiagoa ematen zaio gaixoak egiten duen akats motari, akatsaren maiztasun osoari baino. Hau da, aurkitzen diren hizkuntz-akatsak hizkuntzaren egiturarekin duten zerikusia antzematea litzateke helburu nagusia, eta ez gaixo jakin batek egiten dituen akatsen kopuru eta maiztasunak. Txostenak eskaintzen dituen ikerketak hiru motakoak ditugu: (a) talde-azterketak, (b) kasu kliniko jakinen azterketak (c) hizkuntzaren ezaugarriren bat aztertzerazuzendutako ikerkuntza esperimentalak.

Euskarari dagokion deskribapena, Laka & Erriondo Korostola (2001) dugu, (a) motako lana dena, hau da, gaixo talde baten ekoizpen espontaneoaren azterketa. Txosten hau, Erriondo Korostola (1993) doktorego tesian egindako afasiko elebidunen azterketan oinarritzen da; bereziki, Erriondo Korostolak jasotako gaixo afasiko euskaldunen hizketa espontaneoaren korpua aztertzen du, hizkuntzaren ikuspuntutik batik bat, agramatismoak euskaraz ageri dituen sintoma nagusiak bildu asmoz. Hemen aurkezten dugunaren datu-iturri nagusia, beraz, aipatutako lanotan aurki daiteke, eta ezinezkoa suertatuko litzateke Lore Erriondo Korostolaren bilketa-lana eta aitzindaritzza gabe.

1.2. Corpusaren deskribapena.

Lan honetan erabili dugun korpua, beraz, Lore Erriondo Korostola EHUKo Psikologia Fakultateko irakasleak bere doktorego tesirako bildutakoa da (Erriondo Korostola 1993), afasiko euskaldunei buruz egindako lehenengo lana, eta oraingoz zabalena.

Korpus honetan, burmuineko kalteen ondorioz afasia pairaturiko 59 gaixoen hizketa espontaneoak biltzen da. Gaixoen afasia mailak, askotarikoak dira: batzuek nahikoa etorri ona azaltzen dute, erru gutxirekin; beste batzuk ordea, ia afasia osoa erakusten dute, hitz solteak baizik sortzen ez dituztelarik.

Korpus honetan bildutako gaixoak, Euskal Herriko erietxeetan egonak ziren 1986-1989 artean, burmuineko kalteaz; gehienek, baina, ez zuten hasie-

ra batean afasiaren diagnostikoa jaso. Izan ere, 59 gaixo horietarik 25ek bakarriz zeukaten afasia diagnostikaturik: zortzi Broca afasiko gisa diagnostikaturik zeuden, eta bederatzi Wernicke bezela. Bederatzi gaixok afasia osoa zuten diagnostikotzat, hiruk anomia sintomak, eta batek afasia transkortikala. Beraz, 46 gaixoren kasuan hasiera batean ez zen afasiarik agertzen diagnostikoan. 46 gaixo hauen historia klinikoetan, burmuinaren kaltea zein hemisferiotan zegoen azaltzen da: 46 horietatik, 39 gaixok ezkerreko hemisferioan zeukaten kaltea, batek eskuineko hemisferioan, eta sei hemisferio bietan.

Gaixoen adin-banaketa honakoa da: hiru gaixo 0-19 urte artekoak dira, bi gizonezko eta emakumezko bat. Gaixo bi 30-39 urte artekoak dira, gizonezkoa eta emakumezkoa. Gizonezko bat 40-49 urte artekoa. Hamairu gaixo 50-59 urte artekoak, hamar gizonezko eta hiru emakumezko. Hiru gaixo ditugu 60-69 urte-tartean, hamazazpi gizonezko eta sei emakumezko. Azkenik, bost gaixo badira 80-89 urte artekoak, gizonezko bi eta hiru emakumezko.

Korpus honetako gaixo guztiak elebidunak dira; 55 gaixo jaiotzetik euskaldunak, gaztelania beranduago ikasi dutenak. Beste laurak jaiotzetik gaztelaniadunak, euskara beranduago ikasi dutenak.

Gaixoak, burmuineko kaltea izan eta gero elkarrizketatu zituen Erriondo Korostolak, garai ezberdinetan: 13,5% kaltea jaso eta urte bitara, 5,1% hamabost hilabetetara, 10,1% kaltea jaso eta zazpi hilabetetara, 8,5% bost hilabete ondoren, 3,4% hilabete ondoren, eta 6,8% kaltea izan zuten hilean bertan.

1.3. Afasia eta agramatismoaren inguruan.

Afasia izenez ezagutzen diren hizkuntz-patologiaren artean, agramatismoaren sindromeak arreta handia jaso du azken urteotan. Afasiaren ikerkuntzak aurrera egin ahala, ikertzaileek geroz eta argiago antzeman dute hizkuntz-patologiek sortzen dituzten sindromeak hizkuntza guztietan ematen diren arren, sindrome horiek ageri dituzten sintomen artean, batzuk orokorrak direla (unibertsalak esan genezake), eta beste batzuk, ordea, hizkuntzaren araberakoak, edota hizkuntz-taldeen araberakoak.

Hizkuntzek gauzatze morfologiko ezberdinak erabil ditzakete gramatika ezaugarri bertsuak adierazteko. Honela, bada, azpian berbera den kalte batek gauzatze ezberdinak izan ditzake hizkuntza batetik besterako sintomatologian. Honengatik, guztiz beharrezkoa da ikertzaile eta klinikariei dagokienez, hizkuntzetan barrena ematen diren sintoma ezberdinen berri izatea. Honela, ingelesez hitz egiten ez den herrialdeetan, gaixoen diagnostikoak ezin daitez-

ke egin ingelesean soilik oinarritutako diagnostiko-bideetan, eta elebidunak diren gaixoengan, gauzatze ezberdinak izan ditzakeen kalte bakarrak tratatzeko bidean abiatuko gara. Arrazoi bi hauek garrantzizkoak dira gure gizarte elebidunean, eta haatik, oraindik orain behar bezela jorratu gabe dauzkagu gaixo afasikoen hizkuntz-berreskuratze terapiarako protokoloak euskaraz, hala nola diagnostikorako protokoloen gaurkoratzea.

Agramatismoa, Broca afasiarekin harremanaturik agertu ohi den sindromea da. Sindrome honek azaltzen duen sintoma nagusia, funtzio hitzen, hots, elementu gramatikalen ezabaketa orokorra da, hitz lexikoak mantentzen diren artean (Grodzinsky 1984, Caplan 1987). Agramatismoaren kasuan nabarmentzen dugu hobekien, unibertsaltasuna eta hizkuntzaz-hizkuntzako aldaketa parametrikoen arteko balantza. Izan ere, agramatismoaren sindromea gramatikaren eraikileak diren kategoria funtzionalei dagokien kaltea dugu, eta hizkuntzalaritzan urteak badira kategoria funtzionalei egotzen zaiela egitura gramatikalaren eraketa, sintaxiaren funtsa eurak baitira. Hizkuntzen arteko ezberdintasunen iturria kategoria funtzionalen esparrura mugaturik dago baita ere (Borer 1984, Chomsky 1989, Chomsky 1995). Ez da beraz gehiegi harritzekoa, agramatismoak kategoria funtzionalekin duen zerikusia dela-eta, sindrome honek ageri dituen sintomen artean, batzuk ezberdinak izatea hizkuntza batetik bestera. Hizkuntzaren ikertzaileari dagokio ezberdintasun horien azpian datzan batasuna edo antzekotasuna zertan den azaltzea, hala nola ezberdintasunen arrazoiak ahalik zehazkien itxuratzea.

Hizkuntzen arteko aldaketak gora-behera, agramatismoa pairatzen duten gaixo guztiek ez dituzte sintoma berberak azaltzen. Akats eredu orokorrak aurkitzen diren arrear, ez dira ia inoiz aurkitzen gaixo guztiek egiten dituzten akatsak, akatsok maiz gertatzen badira ere. Honezaz gain, delako hizkuntza batean sarritan agertzen den sintoma bat ez da nahitaez aurkitzen gainerako hizkuntzetan, egiturazko antzekotasunak egonik ere. Adibidez, perpaus bukaerako partikulak maiz desagertzen dira cantoneraz (Yiu & Worrall 1996), baina ez japonieraz (Sasanuma 1989).

Agramatismoaren sindromeak, baditu ezaugarri nabarmen batzuk hizkuntza guztietan: gaixo agramatikoek perpaus laburrak aukeratzen dituzte, menpekorik gabeak gehienbat, eta oro har, sintaxirik soilena erabiliaz hitz egiten dute. Gaixoek, maiz, hizkuntzak berez eskeintzen dituen egitura-soiltze estrategiak erabiltzen dituzte². Batzuetan, agramatismoan ageri diren sintomek badute antzekotasunik hizkuntz-jabekuntzaren bidean hurrek ekoizten

² Esaterako, ikus bedi lan honetako 2.2. atala, aditz laguntzaileen ezabaketari dagokiona.

dituzten datuekin; hizkuntz-jabekuntza eta afasien artean dauden antzekotasunak ikerkuntza gaia izan dira Jakobson (1968) lan aitzindariaz geroztik, eta honi dagokionez, bidenabar bada ere, aipatuko ditugu horrelako antzekotasunak, Laka & Ezeizabarrena (2001) lanean areago jorratu izan ditugunak.

Afasiologiaren esparruan, hizkuntz-kalteen nondik norakoak azaltzea da helburu nagusia: zeintzuk dira kalteturiko hizkuntz-atalak eta kalteturiko prozesamendu-atalak? Ageri diren hizkuntz-kalteen azalpena zein liteke, hizkuntzaren egitura eta prozesatze moduen arabera? Hizkuntzalaritzaren itzalean egindako sintomen azterketak nahitaezkoak ditugu, afasien alorrean aurrerapausurik egiteko. Egun, afasiak ikergai hartzen ditugun hizkuntzalaririk, hizkuntz-patologiok giza-hizkuntzaren izaera eta egiturari buruz eskein dezaketen argia bilatzen dugu. Ikusiko dugunez, sintomatologia horiek, neurri andi batean bederen, bat datoz hizkuntz-teorian ontzat ematen diren hainbat oinarritzko ideiekin, eta hori horrela den neurrian, afasiologiak areagoko oinarri empirikoa eskeintzen digu hizkuntzaren ikerkuntzan. Izan ere, afasiaren hizkuntz-ikuspuntutiko ikerkuntzak, Caplan eta Grodzinsky neurohizkuntzalariek azaltzen duten legez³, behin baino gehiagotan erronkak aurkeztu izan dizkio neurologian eta neurofisiologian soilik oinarrituriko afasien azterketei, hizkuntzaren ikuspegi landuago batera bultzatuaz.

2. AGRAMATISMOAREN SINTOMAK EUSKARAZ

2.1. *Sarrera.*

Korpus honetan aurkitzen diren sintoma geheintsuak, ikusiko dugunez, morfologiaren alorrekoak ditugu, eta bereziki, flexio-morfologiaren alorrekoak. Gramatikaren egiturari begiraturik, bada, eta agramatismoak euskaraz azaltzen dituen sintomak bateratzen dituen iturrira jotzeko esan dezakegu, euskaraz agramatismoak ageri duen sintoma nagusia *INF* kategoriaren kaltea dela, hor kokatzen baitira aditz morfologiaren zehaztasunak⁴. Hatsarre eta

³ Ikus bitez Caplan (1987), Grodzinsky (1984, 1989), hizkuntzalaritzak afasiaren ulermenerako eta tratamendurako izan duen garrantziaz jabetzeko.

⁴ Lan honetan zehar aipatzen diren gramatika teoriako kontuak argiro azalduz ikusi nahi dituen irakurleak, Artiagoitia (2000) *Hatsarreak eta Parametroak lantzen* liburura jo dezake, bertan garatzen baitira sintaxiaren teoriari dagokion oinarri eta zutabe nagusiak, euskal gramatikaren ikuspuntutik azalduak, batik bat. *INF* kategoriari dagokionez, ikus bedi bereziki 2. eta 7. kapituluak.

Parametroen ereduaren arabera (Chomsky 1981), INF kategoria dugu perpausaren gune sintaktikoa: perpausa, INF kategoriaren islapen sintaktikoa da, eta bertan biltzen dira aditz jokatuak adierazten dituen ezaugarri guztiak. Agramatikoek ekoizten duten hizkerari begiraturik esan genezake, bada, perpausa eratzen duen kategoria sintaktiko funtzional honek jasotzen duela kalterik handiena.

Hitz ordenari dagokionez, ez dugu kalte nabarmenik antzeman ahal izan. Hau ez da harritzekoa, kontuan hartzen badugu corpus honetan gaixoen hizketa espontaneoaz aztertzen dugula. Euskarak hitz orden aski librea duenez, zaila edo ezinezkoa da gaixoak erabiltzen dituen hitz ordenetan kalterik ote den sumatzea, kasu nabarmenenetan ez bada. Esaterako (1) bezelako adibideak aurkitzen ditugu, han hemenka, korpusean:

- (1) ulertu, askotan ez dut, ez dut, no comprendo euskeraz eta ez dut ondo
(42 gaixoa)

Adibide honetan ikusten denez, ezezko perpausak agintzen duen Hitz ordenaren aldaketak arazoak sortzen dizkio jaiotzetik euskalduna den donostiar elebidun honi. Hala ere, honelako adibide bakanez gaindi, hitz ordenaren askatasunean ia ezinezkoa da akats-eredurik antzematea. Honek ez du esan nahi, noski, hitz ordenean kalterik ez dagoenik. Bidezkoago dirudi pentsatzea honelako kalteak antzemateko hizketa espontaneoaz gaindiko lana egin behar dela, ikerkuntza esperimentalak alegia, adibidez gaixoei hitz ordenari buruzko testak eskeiniz. Hitz orden aski librea duten beste hizkuntza batzuetan, ikerketa esperimentalak argiro erakusten du gaixo agramatikoek ezin dituztela hitz orden kanonikoak ez direnak egokiro interpretatu. Japonieraz, adibidez, gaixo agramatikoek zailtasunak dituzte SOV ez diren hitz ordendun perpausak ulertzeko (Grodzinsky 1989).

Era berean, gaixo agramatismodunek, perpaus konplexuak saihesten dituzte, eta hizketa espontaneoan batik bat perpaus bakunak agertzen zaizkigu. Horregatik, zaila da zehaztea, corpus honetako datuetatik, KONP izeneko perpausaren buru funtzionala, galderetarako eta perpaus-txertaketarako erabat beharrezkoa dena, noraino dagoen kalteturik. Gainerako hizkuntzetan gertatzen dena kontuan izaki, eta gaixoei ekoizten dituzten egitura sintaktiko soila ikusirik, KONP kategoria ere kalteturik dagoela pentsa genezake, baina oraingoz ez daukagu datu handirik hori oinarritzeko. Ditugun gutxien artean, hona (2):

- (2) ta koño anaxei gaur etorri deitu iozu
(52 gaixoa)

Adibide honetan, dirudienez, gaixoak menpeko perpaus bat sortu nahi izan du, baina menpeko aditzak ez du *-tze*ko menpekotasun marka jasotzen,

eta partizipio burutu gisa ageri da. Hitz ordenaren kasuan bezela, KONP kategoriaren kalteak ikusi ahal izateko, ikerkuntza esperimentalaren beharra dugu, eta gaixo gehiagoren azterketak.

Gainerako datuak eskini aurretik, horien aurkezteko moduari buruzko hitz bi: Hemen biltzen ditugun datu guztiak, gaixoen hizjariotik hartuak dira. Beraz, nork bere hizkeran egiten ditu. Haatik, gehienetan, esaldiak edota aditz formak aurkezterakoan, jatorrizko hizkerako hainbat zertzelada alde batera utzi ditugu, axolazkoak ez zirenean. Halere, irakurleak ikusiko duenez, inoiz jatorrizko hizkeran ematen ditugu datuok, euskalkiko formak mantenduz. Bestetik, eta lan honen asmoa agramatismoaren sintomak aurkeztea denez, alde batera utzi ditugu fonologiarekin soilik loturik dauden ekoizpen akatsak⁵. Izan ere, delako ekoizpen zati batek erakusten duen akatsa fonologiaren alorrekoa izan litekeen guztietan, aurkezpen honetatik kanpo utzi dugu, bada-ezpadan, eta argiroago gramatikaren alorrekoak gorde ditugu bakarrik.

2.2. Aditz nagusiari loturiko sintomak

Agramatismoa duten gaixo euskaldunen hizketa espontaneoan gehien nabarmentzen den sintoma, aditz jokatuaren urritasuna da. Izan ere, azterturi-ko hizjario batzutan ez da aditz jokaturik bat ere aurkitzen, adibidez, 5, 50 eta 57 gaixoenetan. Gaixo hauek sortzen duten hizjarioa nahikoa etorri onekoa izan arren, jokatu gabeko aditzak agertzen ditu bakarrik: partizipio burutuak, edota aditzaren nominalizazioak. Batzuetan, aditz laguntzailerik gabeko hizjario honek esaldi ez gramatikalak sortzen ditu (3a):

- (3) a. ba ni zabata honeki ba **egon** etxean (50 gaixoa)
 b. pixa **egitea** lehenengoa, bai arpegia **garbitu** ta komunera **joan** da gero **gosaldu** (5 gaixoa)
 c. batekin ta bestiakin hitza ondo ezin (42 gaixoa)

Baina gehienetan, sorturiko hizjarioa ez da guztiz gramatikaltasunik gabea, bitxi samarra bada ere, (3b) adibidean ikusten dugun bezela. Hemen, gaixoak, goizean esnatzean egiten duena kontatzen du, eta nolabait galdera baten erantzuna delarik, aditz jokaturik gabe era daiteke esaldia. Azterturi-ko

⁵ Honek, esan gabe doa, ez du esan nahi fonologia-akatsak garrantzirik ez dutenik. Izan ere, guztiz interesgarria izango litzateke korpus honetan ageri diren artikulazio erruen azteketa prestatzea, hemen morfologiarekin egiten dugunaren parekoa, egitura fonologikoak jasaten dituen kalteen nondik-norakoak argitu ahal izateko.

korpusean asko nabarmentzen da aditz laguntzaileak ezabatzeko joera hau, euskaraz berez zilegi dena delako baldintza batzuetan (Amundarain 1997), eta zentzu honetan, agramatismoak ageri duen sintoma nagusi honen eraginak ez du hizketa agramatikala sortzen, berez hizkuntzak eskeintzen duen egitura eta morfologia soiltzeko estrategia hau etengabe erabiltzen baitute gaixoek. Horren erakusgarri dugu baita (3c) adibidea, *bitz* egin predikatuaren ordez *bitza*-ren erabilera gora-behera. Honi dagokionez, eta Jarema (1985) ikertzai-leak azpimarratu bezela, agramatismoaren sintoma nagusi batzuk gramatikal-tasunaren barnean edo mugetan kokatzen dute gaixoen ekoizpena, nahiz eta agramatismoan erabiltzen den hizkerak estrategia arrunt horiek askoz maiztasun handiagoaz azaltzen dituen.

Aditz jokatuaren urritasunari dagokionez, agramatismoak badu antzekotasunik, datuen aldetik bederen, jabekuntzan ikusten dugunarekin, euskararen jabe egiten ari diren haurrek, hasiera batean, aditz jokatuak ez erabiltzeko joera nabarmena azaltzen baitute (Ezeizabarrena 1997, Laka & Ezeizabarrena 2001).

Halabaina, bada agramatismoa jasatzen duten gaixoengan agertzen den sintoma bat, aditz jokatuaren saihesteari lotua, jabekuntzako datuetatik alden-tzen dena: maiz, aditz partizipio burutua erabili beharrean, (3) adibideetan bezela, gaixoek zalantzak izaten dituzte partizipio burutu eta nominalizazio-en artean:

- (4) a. ta geo pentsau non txabola ta, **jute, jun** da, trastre, trastreak hartu
innittun bazpae... (4 gaixoa)
b. txarra da erren **ibilli** (5 gaixoa)

(4a) adibidean ikusten dugunez, gaixoak zalantza dauka forma nominali-zatua eta partizipio burutuaren artean. Honelako zalantzak, guk dakigula behintzak, ez dira jabekuntzan aurkitzen, baina bai esaterako ingelesdunak diren gaixo agramatikoengan, non, Badecker eta Caramazza-k (1985) erakus-ten dutenez, maiz agertzen diren aditz nagusien nominalizazioak. Bestetik, (4b) adibidean ikusten dugunez, gaixoen partizipio burutuak erabil ditzakete baita ere, forma nominalizatuen ordez. Izan ere, (2) adibidean ere antzeko zer-bait gertatzen da.

Agramatismoak euskaraz, bada, lexikoa den Aditz kategoria mantentzen du, baina honi atxiki ohi zaizkion kategoria funtzionalek desagertzeko joera daukate: honela, Aspektuari dagokion burua (Laka 88) neutralizaturik ager-tzen da, bere balio ez markatuan, hots, era burutuan ekoizten duten gaixoek; batzuetan neutralizazio hau partizipio burutuarekin ez ezik, forma nominali-zatuaren bitartez azaltzen dela ematen du (4a).

2.3. Aditz jokatu^ei loturiko sintomak

Agramatismoa duten gaixoen hizjarioan, hizkera arruntan baino aditz jokatu gutxiago agertzen badira ere, corpusean aditz jokatuak aurkitzen ditugu, eta horien azterketan azaltzen zaizkigu hemen aurkezten ditugun agramatismoaren sintoma nagusi gehienak. Sarritan, gaixoen ekoizten dituzten aditz forma jokatu^eek hutsak ageri dituzte morfemen hautapenean, bai morfema jakin batzuk ekoizten ez direlako, edota ekoizten diren morfemak ez direlako paradigma egokietakoak. Goazen bada kalte horiek banan-banan ikustera.

2.3.1. *Plural komunztadurarik eza.* Ondoren azaltzen diren adibideetan ikusten dugunez, batzuetan gaixoek forma egokiak sortzen dituzte, baina objektuarekiko plural komunztadurarik gabeak:

- | | | |
|-----|--|-------------|
| (5) | a. hitzak nahasi egiten dut | (42 gaixoa) |
| | b. bakarrikan euskeraz dakit abestiak | (4 gaixoa) |
| | c. ematen dizu beste lau karamelo | (22 gaixoa) |

Erriondo Korostolaren korpusean aurkitzen ditugun plural komunztadurarekiko huts guztiek, absolutiboaren hirugarren pertsonarekiko plural marka isiltzen dute. Ez dugu aurkitu lehenengo edo bigarren pertsonari loturiko hutsik, pluralari dagokionez. Honela, esaterako, *zu/zuek* bereizkuntza egiteko erabiltzen den pluralgilea isiltzen duen formarik ez dugu aurkitu Baliteke hau corpusaren neurriari zor izatea, baina uste dugu pluralgileari dagokion huts honek hirugarren pertsonari bakarrik eragiten diola⁶.

Pluralgile hauek euskal gramatikan duten izaera “guneaz-kanpoko” horren areagoko erakusgarri, jabenkuntzako datuak ditugu. Haur hizkuntzako ekoizpenek erakusten digutenez, hirugarren pertsonari dagokion pluralgileaz berandu samar jabetzen dira haurrak (Barreña 1993, Ezeizabarrena 1996, Laka & Ezeizabarrena 2001). Honela, afasikoenak bezalakoak diren hutsak egin ohi dituzte, nahikoa berandu arte, ikertutako haurrek:

- | | | |
|-----|-----------------------------|----------|
| (6) | a. haundiak bota dut | (J 3,09) |
| | b. palak hartu dau | (M 2,08) |

⁶ Halere, baliteke (8a) adibideko *nengoezen* formak honekin zerikurisirik izatea: bertan, lehenengo pertsonarrekin doan aditz erroari pluralgilea itsasten baitzaio. Honek guztiak areagoko ikerkuntza behar duen arren, agian pluralaren marka morfologikoa ezabatzen eta gehitzen duen akatsa erru berberaren gauzatzea dugu, hau da, pluralgileekiko “itsutasun” orokorra.

Azkenik, euskal aditz jokatuaren egitura, hau da, INF kategoriaren egitura, kontuan hartzen badugu, huts honetan ekoizten ez diren pluralezko morfemek jokabide berezia daukate helduen gaitasunari dagokionez: (a) euskalkien arabera leku ezberdinak hartzen dituzte laguntzailearen hurrenkeran; (b) badira pluralgile hauek erabiltzen ez dituzten euskalkiak; (c) pertsona komunztaduraz bestelakoak dira euren jokabidean, eta Inf kategoriak eragiten dituen prozedura morfologikoetan ez dute komunztadurarekin bat egiten. Laka (1988, 1993) lanetan proposatzen da pluralgile hauek adjuntuak bezelakoak direla laguntzailearen egituran, nolabait guneko egituran parte hartzen ez dutelarik. Agramatismoan aurkitzen ditugun datuek erakusten digutenez, elementu hauek errezago desagertzen dira gaixoen ekoizpenean, eta jabekuntzan, bestalde, berandu samar arte agertzen dira hauei dagozkien hutsak, gainerako aditz morfologiaz jabetu diren haurrengan ere.

2.3.2. *Datibo komunztadura: hirugarren pertsona (zero marka), lehenengo pertsonaren orde.* Huts hau, datibo komunztaduradun hainbat laguntzailetan

aurkitu dugu. Gaixoeak, hirugarren pertsona markak dituzten formak ekoizten dituzte, nahiz eta testuinguruaren arabera garbi egon forma horiek lehenengo pertsona marka behar dutela egokiak izateko, gaixoak euren buruen gainean hitz egiten baitute. Ikus ditzagun adibide batzuk:

- (7) a. mareoa bezela egin **zien** (zidan) (9 gaixoa)
 b. hau dena hilda bezela geratu **zien** (zidan) (9 gaixoa)
 c. niri gaixoak gustaten **jakon** (jatazan) (20 gaixoa)
 d. ta geo bein jua nitzen ta baja emon ziten eta **esautzen** ea,
 aste betera joateko ta jua nitzen berriro (esan eusten) (20 gaixoa)

Lehenengo adibide bietan, (7a) eta (7b), gaixoak ekoizten duen forma *zien* bezela transkribaturik agertzen da. Ezeizabarrena irakasleak ohartarazi digunez, baliteke gaixo honen hizkeran, honela adieraztea lehenengo pertsonari dagokion laguntzailea. Delako forma hau zinez hirugarren pertsonako datiboduna ala lehenengo pertsonako datiboduna den ziurtatu ahal izateko, gaixoaren jatorriari buruzko informazioa beharko genuke. Erriondo Korostola (1993) lanean, baina, gaixoen banakako deskribapena egiten den atalean, ez zaigu gaixo honen jatorri geografikoari buruzko berririk ematen. Beraz, baliteke lehenengo adibide horiek zalantzarriak izatea. Haatik, beste gaixo batzuegan aurkitzen ditugu guztiz argiak diren ekoizpenak. Hala bada, (7c) adibidea, mendebaldeko euskaldun batena dugu, eta bertan ikusten dugunez, *jakon* forma ekoizten da, egokia litzatekeen lehenengo pertsonako datibodun formaren orde. Ohar bedi, baita, (7d) adibidean, gorago aipatu dugun pluralgilearen desagertpena ageri zaigula aldi berean. Mendebaldeko gaixo

berarena dugu (7d) adibidea, non testuinguru zabalagoa ematen dugun, hutsa azaltzen duen forma hobeto uler dadin: pasarte horretan, medikuek gaixoari esaten diote aste baten buruan itzultzeko, berak *esautzen* bezela ekoizten duena, *esa(n)(e)usten* esan beharrean.

Pluralgileari zegokion kaltearen kasuan bezela, datibo komunztadurari dagokion huts honek badu antzekotasunik jabekuntzan aurkitzen dugunarekin: izan ere, datibo komunztadura beharrezkoa den batzuetan, aditz morfologiak jabetu diren hurrek hutsak egin ohi dituzte, nor-nork formak erabiliaz:

- (8) a. zergatik kendu **du** niri kamioie? (M 2,06)
 b. jotzen **du** puñetazoak niri (J 3,11)

Datibo komunztaduran aurkitzen dugun huts hau era askotara deskriba liteke: modurik zehatzena, baina agian interes gutxienekoa, orain artean eman duguna da, hots, lehenengo pertsona markaren orde, hirugarren pertsona marka jarri ohi dutela agramatismoa duten gaixoei. Deskribapen honetatik, jabekuntzan aurkitzen dugunarekiko antzekotasuna ez da horrebestekoa, hurrek ez baitute hirugarren pertsona marka jartzen nor-nori-nork forma erabiliaz, baizik eta nor-nork forma aukeratzen, datibo komunztadura ekiten ez dutenean.

Gure eritziz, bai agramatismoan eta baita jabekuntzan aurkitzen duguna, datibo komunztaduraren desagertzea da (Laka & Ezeizabarrena 2001): agramatikoek, hirugarren pertsonari dagokion forma aukeratzean, zero forma aukeratzen dute, euskal aditz jokoan zeroa baita hirugarren pertsonarako erabiltzen den forma (Laka 1988, 1993); hurrek, bestetik, datiboaren zantzu guztiak ezeztatzen dituzte, baita aditz erroan ere, nor-nork formak aukeratzean. Bestetik, ordezkatzeko den komunztadura forma beti lehenengo pertsonarena izatea, corpusaren izaerari zor zaio ziurrenik: gaixoei beren esperientziak kontatzen dihardute, eta berez lehenengo pertsona eskatzen duten formak dira ugariak.

Pluralgilearen kasuan bezela, aipagarria da euskaraz badirela datiboa ezabatzen duten hizkerak; hain zuzen ere, argitalpen honetan azaltzen den Ezeizabarrena eta Fernandez (2003) hizkera horietako baten azterketa arretatsua dugu. Bestetik, de Rijk (1981) lanean, euskal aditz laguntzailearen garapenari buruzko gogoetak eskeintzean, datiboaren komunztadura absolutiboa eta ergatiboarena baino berriagoa dela iradokitzen da, ageri dituen hainbat berezitasun kontutan harturik. Zehazki nola edo zergatik den azaltzea ezinezkoa bazaigu ere, badirudi agramatismoan eta jabekuntzan azaltzen zaizkigula berritasun horren zantzuak, datiboaren komunztadura baita desagertzeko joera duena, beste biak ez bezela.

2.3.3. *Laguntzaile iragankorrak iragangaitzen ordez.* Korpusean, *edun* motako laguntzaile iragankorrak aurkitzen ditugu, *izan* motako laguntzaile iragangaitzak behar dituzten aditz nagusiekin (7):

- (7) a. harekin joaten **dugu** (1 gaixoa)
 b. ta gero jausi **dabe** lurrera (58 gaixoa)
 c. idazten nuen hitzetan pentsatzen ari **nituen** hitzak (18 gaixoa)

Akats mota hau maizegi agertzen ez bada ere, aipatzekoa da ez dugula alderantzizko adibiderik aurkitu; hau da, ez dugu aditz iragangaitzik aurkitu, aditz iragankorren lekuan. Bestetik, (7) adibideetako akatsetan, subjektu funtzioa betetzen duten Determinatzaile Sintagmak gauzaturik agertzen ez direlarrik, ezin daiteke ikusi akatsa aditz laguntzailearen hautapenari bakarrik dagokion, ala kasu ezarketarekin zerikusirik ote duen baita ere. Azkenik, (7c) adibideari dagokionez, aditz nagusia berez iragankorra da, *pentsatu*, eta *ari* adizki progresiboak eskatzen du laguntzaile iragangaitza. Baliteke, beraz, aditzaren hautapenak irabazi izana adibide honetan, progresiboaren kaltetan. Aipagarria da haur hizkuntzan honelako erruak ageri direla (Laka & Ezeizabarrena 2001), eta zenbait hizkeratan zilegi direla, egungo erabileran, (7c) bezelako perpausak.

2.3.4. *Aditz forma sortuberriak.* Agramatiko euskaldunengan aurkitzen dugun hurrengo sintoma mota nagusia, ezinezkoak diren aditz jokatuaren ekoizpena dugu. Aditz forma hauek, elkarrekin egokiak ez diren paradigma ezberdinetako morfemen hautapenaz sortuak dira, nahiz eta morfema horiek erakusten duten hurrenkera egokia izan ohi den:

- (8) a. zelatan **nengoezen?** (57 gaixoa)
 b. ba nik zazpi seme-alaba dauzkat...**dauza**...urte (53 gaixoa)
 c. erraminta trankila **geun** (52 gaixoa)
 d. eta gero graziak etorri **ginenla** (52 gaixoa)
 e. eta medikuak denak **neuden** han (52 gaixoa)
 f. eta ikusi **uan** dana mekauen Don Isidro (52 gaixoa)

Ikus ditzagun adibideok banan-banan: (8a) adibideko aditzak erakusten duen akatsa, aditz erroaren ondoan ageri duen pluralgileari dagokio. Gehituriko pluralgile hori kenduz gero, *nengoen* aditz forma izango genuke, egokia dena testuinguruan. Ohar bedi adibide honek agian baduela zerikusirik, gorrigo ikusi ditugun plural komuntzaduraren desagerpena erakusten zuten adibideekin. Hau da, hemen ere, desagerpena ez den arren, pluralgilea da akatsaren arrazoia. (8b) adibidean, aditz erroan aurkitzen dugu errua baita, baina oraingoan *eduki* aditzaren erroa da kalteturik ageri dena. (8c) adibideak

badu antzekotasunik aurrekoarekin: berriz ere, akatsa aditz erroaren hautapeanean aurkitzen dugu. Oraingoan, *eduki* aditzaren erroa ez da ekoizten, eta ondorioz, “ulergarria” baina hala ere ezinezkoa den jabetzazko aditz forma sortzen du gaixoak. Ohar bedi, bide nabar, 52 gaixoaren hizketan maiz agertzen direla honelako forma sortuberriak, adibideek erakusten dutenez.

Hurrengo adibidea, (8d), interesgarria da erregela morfofonologiko baten ezartze-ezaren ondorio dirudielako. Gaixoak, sakoneko forma den *ginenla* ekoizten du, *ginela* esan beharrean. Hemen, ahoskatzeko zailago den formaren alde egiten du gaixoak, nahiz eta sarritan agramatikoei fonologiaren ekoizpenean ere arazoak izaten dituzten, baina eratorpenaren ikuspuntutik pausu gutxiago duen formaren alde, hots, azken erregela morfofonologikoa ezarri gabeko forma.

(8e) eta (8f) lehenaldiko iragankorrak dira biak, eta biotan, gaixoak lehenengo komunztadura forman egiten du akatsa. (8e) adibidean, hirugarren pluralari dagokion *zeuden* ekoiztu beharrean, lehenengo pertsonaren morfema sartzen du aditzaren buruan, *neuden* sortuaz. Litekeena da errakuntza honetan, bere buruari buruz hitz egiten aritzeak eraginik izatea, hau da, lehenengo pertsonaren interferentzia hizketaren gai nagusiak berak sortua izatea. (8f) adibidean, gaixo berak berriz ere lehenaldiko forma iragankorrean hasierako pertsona komunztadura ezabatzen du oraingoan, morfemarik gabeko forma sortuaz.

Korpus honetan aurkitu ditugun ezinezko aditz jokatu guztietan, morfemen hurrenkera egokia zen. Hau da, batzuetan, aukeratutako pertsona komunztadura ez da egokia (8e,f), baina dagokion lekuan ageri da. Bestetan, aukeratutako aditz erroa ez da zuzena, (8a, b, c), baina berriz ere dagokion lekuan ageri da. Ez dago adibide bakar bat, zeinetan gaixoak aditz jokoko morfemen hurrenkera nahastu duen. Zaila da, noski, dugun datu iturri mugatua kontuan izanik, zehazki jakitea agramatismoaren kasuan morfemen hurrenkera kaltetu gabe ote dagoen, baina esanguratsua dirudi, aurkitu ditugun forma kaltetu guztiek hurrenkera ondo zainduta erakustea.

Morfemen hurrenkera nahasirik agertzen duten forma bakarrak, lehenaldiko forma iragankorrak ditugu. Dakigunez, euskaraz komunztadura morfemen hurrenkera aldatu egiten da nor-nork lehenaldi eta ahalezko formetan (Ortiz de Urbina 1989, Laka 1993 beste askoren artean), eta gertakari honen azterketa guztiak bat datoz, forma horien konplexutasuna handiagoa dela azpimarratzean. *Ergatiboaren lekualdaketa* izenaz ezagutzen den gertakari honek, arazoak sortzen dizkie gaixo agramatikoei. Hurrengo adibideetan ikusten dugunez, lehenaldiko forma hauetan akatsak agertzen dira:

- (9) a. Frankori egin **gintzan** egunbatean bigoteak (1 gaixoa)
 b. zergatik nire amak esaten **naun** ba denetik ikasi behar zela (20 gaixoa)

Adibideotan ikusten dugunez, lehenaldiko forma hauetan, gaixoez porrot egiten dute. Lehenengo adibidean, nahiz eta lehenengo pertsona pluralleko komunztadura marka agertzen den aditzaren buruan, aukeratutako morfema paradigma iragangaitzari dagokio, eta ez lehenaldiko paradigma iragan-korrari. Gaixoez ekoizitutako beste ezinezko formetan bezela, zaila da zehazki erabakitzea errua zertan datzan. (9a) adibideko forma bi eratara azal genezake: batetik, baliteke gaixoak forma iragangaitza aukeratu izana, *izan* aditzaren paradigmako lehenaldiko forma, eta forma horri singularreko aditz erroa jarri zaiolarik; hau da, *ginen* formaren ordeztan, *nintzen/nintzan* saileko aditz erroa aukeratzean sor liteke *gintzan* adibideko forma⁷. Bestetik, baliteke gaixoaren errua lehenengo pertsona pluralaren morfema hautapenean egotea, egokia zen *gen-/geun-* morfemaren ordeztan *gin-* aukeratuaz, aditz erroan ageri den *-tza-* hori *-tsa-* litekeelarik.

Bigarren adibideari, (9b)ri dagokionez, argi samar dirudi gaixoak ez duela ergatiboaren lekualdaketa egin, aditz buruan ageri baita absolutiboari dagokion lehenengo pertsona komunztadura marka. Honez gain, eta agian honi loturik, lehenaldiko nor-nori-nork formari dagokion aditz erroa aukeratu beharrean, nor-nork formari dagokiona ageri zaigu, bukaeran lehenaldiko morfema zuzenean atxikirik. Gaixo honek ekoizten duen forma honen antzekoak haur hizkuntzan aurkitu ohi ditugu, orainaldiko aditz morfologiari lehenaldiko *-n* morfema zuzenean atxikitzen zaiola (Laka & Ezeizabarrena 2001):

- (10) nik hemen ein **doten** lo (O:2.10)

Adibide honetan ikusten denez, haurrak orainaldiko morfologiari zuzenean lehenaldiko marka itsatsi dio, eta komunztadura marketan ez da inolako lekualdaketa gertatu, ergatiboari dagokion morfema aditzaren amaieran agertzen delarik. Ergatiboaren lekualdaketa kalteturik agertzen da agramatikoaren hizkeran, eta jabekuntzan ere erruak sortzen ditu; honek guztiak adierazten du egiazki gertakari konplexua dela morfologiaren alorrean, hizkuntzalaritzan egindako lanek defendatu bezela.

⁷ Behar bezela dokumentatu gabeko forma bada ere, nire alabak honelako formak sortzen zituen bi-hiru urtetan: bai *gintzan* bezelakoak, eta baita, erru bera alderantziz eginik, *niñen* bezelako lehenaldiko formak. Paradigmen erregulartzean oinarritzen diren erru mota hauek, arrunt samarrak dira hizkuntza guztietako jabekuntza datuetan.

2.4. Determinatzaile Sintagmako kalteak

Maiztasunaren aldetik, urriago dira Determinatzaile Sintagman (DS) aurkitzen ditugun kalteak. Haatik, kontutan eduki behar dugu gaixoen hizketa espontaneoan, aditz ez jokatuak direla nagusi, eta Determinatzaile Sintagmak, guztiz beharrezkoak ez direnetan, isildu egiten direla. Hau bat dator gaixo agramatikoei hizkuntza guztietan azaltzen duten joera nagusiarekin, hizkuntz ekoizpena ahalik eta gehien soiltzearena, alegia. Euskaraz zilegi da aditzaren argumentuak isiltzea, eta beraz gaixoei estrategia honi heltzen diote nabarmenki.

2.4.1. *Kasu morfologiari dagokionez*, batzuetan ergatibo markak ageri dira absolutiboa behar duten Determinatzaile Sintagmetan:

- (11) a. ba, **nik** joaten naz lanera egun guztietan (58 gaixoa)
 b. **hankak** apurtu da (58 gaixoa)

Akats mota hau, 58 gaixoagan guztiz nabarmena dena, ez da agramatismoan esperotzeko sintoma bat, eta areagoko ikerketek argitu beharko dute zertan den sakoneko kausa. (11) adibideak ekoiztu zituen gaixoaren kasuan, hamar esalditatik seik ageriko subjektuak zeuzkaten, eta horietarik lautan, okerreko ergatibo marka eransten zaio absolutiboa behar duen DSri. Haatik, akats mota hau beste gaixo batzuegan aurki daiteke baita ere, (12) adibideek erakusten dutenez:

- (12) a. baña seminarion, oso gutxi egiten zan, eta **gu guk** hasi giñan(18 gai.)
 b. **besteak** e... zen...fabrikean (53 gaixoa)

Agramatismoan gehien agertzen diren erru motak, morfologiaren desgertzearekin eta soiltzearekin zerikusia dute, gorago ikusi dugunez. Halere, gure korpusean Kasu morfologiarekin lotuta dagoen erru mota bakarra, hemen aurkezten dugun hau da: ez da morfema ezabaketarik gertatzen, baizik eta gehiketa, eta horrezaz gain, euskaraz oinarritzakoagoa edo markatu gabea den absolutibo forma aukeratu beharrean, markatuagoa den ergatibozko forma ekoizten dute gaixoei.

Alderantzizko erruak aurkitzen ditugu baita ere, gutxiagotan izan arren. Honela, (13) adibideetan ikus dezakegunez, inoiz absolutiboaren morfologia erabiltzen dute gaixoei, ergatiboarena behar den lekuan:

- (13) a. **barkua** joan egin behar dau (52 gaixoa)
 b. **neskatila** esaten dau (58 gaixoa)

Kasu morfologiari dagozkion erruak ez dira asko korpusean, gaixoez gehienbat aditzaren argumentu diren DSak, ez dituztelako ekoizten ahal den guztietan. Agertzen diren erruek ez dute oinarritzko, morfologikoki soilen den formaren alde egiten: ergatibodun okerrak, absolutibodun okerrak baino gehiago dira. Den den, datuen kopurua urria izaki, gerora zuztatu edo gezurtatu beharreko akats eredia dugu kasu morfologiari dagokion hau.

2.4.2. *Determinatzaileak.* Determinatzaile sisteman, gainerako hizkuntzetan ere aurkitzen den sintoma aurkitzen dugu; determinatzailearen ezabaketa, alegia:

- (14) a. **beste** hor egoten da (53 gaixoa)
 b. **seme**, e esango det e, maestro da (53 gaixoa)
 c. lema **baporeri** apurtu eta etxera giñozela (52 gaixoa)

Halere, beste hizkuntza batzuetan determinatzaileak nabarmenki desagertzen diren artean, gaixo euskaldun hauen ekoizpenean han-hemenka baino ez dugu aurkitzen erru hau. Ardila (2001) txostenean, adibidez, gaztelaniadun agramatikoek sistematikoki artikulua ezabatzen dituztela azpimarratzen da, euskaraz gertatzen ez dena. Interesgarria litzateke etorkizunean, gaixo elebidunen azterketa bat egitea, hauen gaztelanian determinatzailearen ezabaketa sistematikorik ote dagoen ziurtatzeko. Dena den, eta eskura ditugun datuen arabera, badirudi *-a* determinatzailearen izaera ez datorrela bat gaztelaniazko determinatzaileekin. Ondorio hau areago zuztartzeko duen daturik ere bada; batzuetan, *-a* determinatzailea eransten zaie behar ez duten izenkiei, ondoko adibideak erakusten duen legez:

- (15) ezin dut **hitza** egin euskeraz (42 gaixoa)

Azkenik, bada *-a* determinatzaileari dagokion beste akats mota bat, elementu honen berezitasunaren ezaugarri dena. Gaixo agramatikoen hizketan, sarri gertatzen dira ekoizpenaren zailtasunak eragindako zalantzak eta errepikapenak. Hauen artean, bada agramatismoaren zantzua daraman errepikapen mota bat, hurrengo adibideetan erakusten duguna:

- (16) a. pintatzea eta arotzan **lan lana** (4 gaixoa)
 b. ari nintzen e txabol bat **artzai artzaiari** egiten (4 gaixoa)
 c. **alanbre, alanbrek, alanbreak** sartu ta amabi amabiak egondu giñan itsasoan (52 gaixoa)
 d. **txori txori** abian dagoela (58 gaixoa)

Errepikapen hauetan, gaixoez izen hutsak ekoizten dituzte, determinatzailearik gabek. Hitzun arrunten kasuan, zalantzak eragindako errepikapenaren ere, determinatzailearen izenak sortzen dira.

3. ONDORIO ZENBAIT

Hizkuntzaren egituraren ikuspuntutik egin diren agramatismoaren ikerkuntzen artean, sindrome honetan kategoria funtzionalek agertzen duten kaltea zertan den azaltzen saiatu dira. Honela, Grodzkinskyk (1990) proposatu du agramatismoan kategoria funtzionalei dagozkien buruak azpiespezifikaturik daudela; Ouhallak (1992), berriz, agramatismoan funtzio kategoriarik ez dela argudiatu izan du, hau da, agramatikoen hizkeran, kategoria lexikoak bakarrik daudela. Ouhallaren proposamen honek badu antzekotasunik Caplan (1984) lanean eskeinitakoarekin: agramatismoan ez da sintagmarik islatzen, eta gaixoez besterik gabe kategoria lexikoak kateatzen dituzte bata bestearen atzetik, egiturarik sortu gabe. Caplan (1987) lanean onartzen da proposamen hau estuegia dela, agramatikoez egiturak sortzeko ahalmena badutela dirudielako. Grodzinskyren proposamenean, gaixoez kategoria lexikoei dagozkien islapenak eratzen dituzte, baina kategoria lexiko hauek menderatzen dituzten adabegi funtzionalak guztiz bete gabe daude. Eskura ditugun datuen arabera, euskaldun agramatikoez buru funtzionalak morfologikoki betetzeko ahalmena badutela dirudi, flexio morfologia ekoizteko gai diren neurrian, baina elementu funtzional hauen zehaztasunak galdurik agertzen dira, eta hortik sortzen dira hemen aurkeztutako hainbat erru morfologiko.

BIBLIOGRAFIA

AMUNDARAIN, I. 1997. *Juntadura eta elipsia euskaraz*, doktorego tesia, EHU, Gasteiz.

ARDILA, A. 2001. "The manifestation of aphasic symptoms in Spanish", M. Paradis (arg.) *Manifestations of Aphasia symptoms in different languages*, Amsterdam/London: Pergamon, 253-256.

ARTIAGOITIA X. 2000. *Hatsarreak eta parametroak*, EHUko argitalpen zerbitzua, Leioa.

ARTIAGOITIA, X. 1997. "DP predicates in Basque". A. Taff (arg) *University of Washington Working Papers in Linguistics*, 1997, Vol. 15, 161-198.

BADECKER & CARAMAZZA 1985. "On considerations of method and theory governing the uses of clinical categories in neurolinguistics and cognitive psychology: the case against agrammatism", *Cognition* 20, 97-125.

BARREÑA, A. 1993. *Haur euskaldunen hizkuntzaren jabekuntza-garapena: INFL eta KONP funtzio-kategorien erabileraz*, doktorego tesia, EHU, Gasteiz.

BORER, H. 1984. *Parametric Syntax: Case Studies in Semitic and Romance Languages*. Dordrecht: Foris.

CAPLAN, D. 1987. *Neurolinguistics and linguistic aphasiology* Cambridge University Press, Cambridge [1992 *Introducción a la neurolingüística y al estudio de los trastornos del lenguaje*, Lingüística y conocimiento 15, Visor, Madrid]

CHOMSKY, N. 1995. *The Minimalist Program* MIT Press, Cambridge, Massachusetts.

CHOMSKY, N. 1989. "Some Notes on economy of derivation and representation", I. Laka & A. Mahajan (arg.) *Functional Heads and Clause Structure*, MITWPL Vol. 10, Dept. of Linguistics & Philosophy, MIT, Cambridge, MA, 1989

CHOMSKY, N. 1981. *Lectures on Government and Binding*, Dordrecht: Foris.

DE RIJK, R. 1981. "Euskal Morfologiaren Zenbait Gorabehera." *Euskal Linguistika eta literatura: Bide berriak*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo: Deustuko Unibertsitateko Argitarazioak, 83-101.

ERRIONDO KOROSTOLA, L. 1993. *Afasiko elebidunen hizkuntz trebetasunen azterketa*, Doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea, EHUko argitalpen zerbitzua, Bilbo, 1995.ean argitaratua.

EZEIZABARRENA M.J. 1997. "Infinitivos verbales en el lenguaje de niños bilingües", L. Díaz & C. Pérez (koord.) *Views on the acquisition and use of a second language* EUROSLA '7, Proceedings, Barcelona: Universitat Pompeu Fabra.

EZEIZABARRENA, M.J. 1996. *Adquisición de FLEX en euskera y castellano por niños bilingües*, doktorego tesia, University of Hamburg, EHUko argitalpen zerbitzua, Bilbo.

EZEIZABARRENA M.J. 1994. "Primeras formas verbales de concordancia en euskera", J. Meisel (arg.) *La adquisición del vasco y del castellano en niños bilingües* Madrid/Frankfurt: Vervuert, 181-230

FERNANDEZ B. eta EZEIZABARRENA M.J. 2003. "Itsasaldeko solezismoa, Datiboaren lekualdatzearen argipean", Iker 14, P. Laffiteren sortzearen men- demuga, Euskaltzaindia eta IKER taldea, Baiona.

GRODZINSKY, Y. 1984. "The syntactic characterization of agrammatism" *Cognition* 16, 99-120.

GRODZINSKY Y. 1989. "Language deficits and the Theory of Syntax" *Brain and Language* 27:135-59.

JACKOBSON, R. (1968. *Child Language, Aphasia and Phonological Universals*. Mouton, The Hague.

JAREMA G. 1985. "Is "agrammatic speech" agrammatical?" *Papers in Linguistics*, 18, 223-238.

LAKA, I. 1988. "Configurational Heads in Inflectional Morphology: The Structure of the Inflected Forms in Basque", *ASJU XXII-2*, Donostiako Aldundia, Donostia, 343-365.

LAKA, I. 1993. "The Structure of Inflection: A Case study in X⁰ Syntax." J.I. Hualde eta J. Ortiz de Urbina (arg) *Generative Studies in Basque Linguistics*. Current Issues in Linguistic Theory 105, Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins, 21-70.

LAKA, I. 1996. *A Brief Grammar of Euskara, The Basque Language*, <<http://www.ehu.es/grammar>>.

LAKA, I. & ERRIONDO KOROSTOLA L. 2001. "Aphasia manifestations in Basque" M. Paradis (arg.) *Manifestations of Aphasia symptoms in different languages*, Amsterdam/London: Pergamon, 49-72.

LAKA, I. & EZEIZABARRENA M.J. 2001. "Exploring the regression hypothesis: a comparison of data from acquisition and agrammatism in Basque" posterra, *Workshop on Bilingualism and Brain Plasticity*, SISSA, Trieste, Italia.

ORTIZ DE URBINA. J. 1989. *Parameters in the Grammar of Basque*. Foris, Dordrecht.

OUHALLA, J. 1992. "Functional Categories, Agrammatism and Language acquisition" in *Sprachwissenschaft in Frankfurt*, Arbeitspapier 9.

PARADIS, M. 2001. *Manifestations of Aphasia symptoms in different languages*, Amsterdam/London: Pergamon.

SASANUMA, S. 1989. "Universal and language-specific symptomatology and treatment of aphasia" *Folia Phoniatrica*, 38, 121-175.

YIU, E. & WORRAL, E. 1996. "Sentence production ability of a bilingual Cantonese/English agrammatic speaker", *Aphasiology*, 10, 505-522.

EZEZKO PERPAUSETAKO FOKOAK (GALDEGAIK ETA UKAGAIK)¹

J. Ortiz de Urbina

Ezezko perpausetako galdegaiaren kokapen zehatza eztabaidagaia izan da askotan. Alde batetik, galdetzaileak agertzen diren lekua bada *galdegaigunea*, argi dago ezezko perpausetan laguntzailearen ezkerreko guneari ezarri behar-ko zaiola etiketa hori; eta, noski, (2a)k erakusten duenez, hor osagai fokalizatuak ager daitezke (askotan enfasi berezia eman behar bazaie ere (2a)ko *Jonek* bezalakoei). Bestaldetik, nabaria da beste lekuetan ere jar daitezkeela nolabait fokalizatutzat har litezkeen osagaiak, laguntzailea eta partizipioaren artean (2b), hain zuzen ere:²

(1) *Nork* ez du liburua hartu?

- (2) a. *Jonek* ez du liburua hartu **Galdegai**
b. Liburua ez du *Jonek* hartu (Peruk baizik) **Quasifocus/Ukagai**

Dagoeneko, nahiko argi dago baiezko esaldietako galdegaiak erakusten dituen ezaugarri gehienak (bai fonologikoak, morfologikoak eta sintaktikoak ere) ezetza eta laguntzailearen ezkerreko osagai fokalizatuak dauzkala, (2a) motakoak, eta ez (2b)k, bi aditzen artekoak (de Rijk 1998; Ortiz de Urbina 1989, 1999). Baina oraindik ere gelditzen da erantzun beharreko galdera garrantzitsu bat: hain zuzen, (2b) bezalako esaldietan *Jonek* ez bada galdegai, zer da, eta zergatik dauzka galdegaitzat hartzera eramán gaituzten ezauga-

¹ Lan hau Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin burutu da, PI-1998-127 egitasmoari emandako finantziarioari esker.

² De Rijk (1998) *quasifocus* deitura proposatu du ingelesez (2b)ko osagai *indartua* izendatzeko, eta hasieran horixe erabiliko dut nik ere, geroago beste proposamen bat (*ukagaia*) hautatzeko arrazoiak eman arte.

rriak? Semantikoki, esate baterako, honelako esaldiek badute foko kontrastibo kutsu argi bat. Gainera, sintaxiaren aldetik baiezko galdegaiei bezala badi-rudi direlako sasifoko hauei gune sintaktiko berezi bat dagokiela. Artikulu honetan erakusten saiatuko naizenez, aldiz, galdegaiekiko antzekotasun hauek ere azalekoak dira, eta ez dago pisuzko arrazoirik *quasifoci* hauek galdegaien portaera sintaktiko edota eduki semantiko berezia daukatenik mantentzeko.

1. QUASIFOKOAREN GUNEA

Eredu teoriko askotan baiezko perpausetako galdegaiei gune sintaktiko bat dagokie (agian daukaten foko tasunaren erkaketa egiteko proiektzio funtzional bat, Foc), eta osagai fokalizatuak hara mugitzean sortzen da 'aditzaren aurrean' agertu behar ezaguna. Bestalde, badirudi (2b)ko fokoetarako gune berezi bat dagoela: 'partizipioaren aurrean' agertu behar dira, askotan esan den bezala. Printzipioz hurrenkera hori osagai hauek gune sintaktiko berezi batera joan behar izatetik deriba liteke, galdegaiek bezala erkatu beharreko tasun bat balute bezala. Hemen mantenduko denez, hala ere, ez dago benetako gune sintaktiko berezirik osagai hauetarako. Honek ez du esan nahi edozein lekutan ager daitezkeenik, baizik eta ohizko galdegaien tasun sintaktiko/morfologikoak ez izatean, beharbada ez dagokiela berezko egongune sintaktiko bat. Alde batetik, partizipioaren aurrean maiz agertzen dira, baina ez, ikusiko denez, hor 'gune' berezirik dagoelako (1.1). Bestaldetik, beste lekuetan ere aurki ditzakegu honelako elementuak (1.2).

Kokapenaren auzi honetara kontu handiz hurbildu behar da, aldez aurretik, eta euskalkien deskribapen zehatzak egin arte, ez baitago jakiterik euskalki bakoitzekeo posibilitadeak zeintzuk diren eta beraz, zeintzuk diren ahalbide orokorrak eta zeintzuk ez. Hemen bi euskalki ezberdinetako hiztunekin egindako lanaz baliatuko naiz: Irun aldeko euskararen datuak izango ditugu, alde batetik, eta Lekeitioko euskararenak bestetik.³

1.1. *Kokapen ezmarkatuak I: Cinqueren gailur prosodikoak eta aditzaren aurreko gunea*

Oro har, nahiko argi dago euskalki gehienetan, dirudienez, partizipioaren

³ Irungo datuak Rikardo Etxepararekin batera egindako lanetik datoz (Etxepare eta Ortiz de Urbina agertzeko). Lekeitiokoak, berriz, Arantzazu Elordietarekin egindako ikerketatik.

aurre-aurreko osagaia dela errezenik eta naturalenik kontrastatzen dena. Hau da de Rijkke (1998:432) deskribatzen duena: aditz forma perifrastikoetan partizipioaren aurreko osagaia izan daiteke quasifokoa.⁴ Ondoko adibidean, *Jonekin* osagaia, beraz.

(3) Atzo ez nuen Mikel *Jonekin* ikusi (Anerekin baizik)

Datu honek badu antz handia gramatika tradizional askotan *end-focus* deitzen denarekin: ingelesez enfasi ez-hanpatua, esate baterako, eskuma aldeko azken osagaien aurkitzen da (Quirk 1985), baita latinetik hizkuntza askotan ere (Zubizarreta 1998). Cinquek (1993), gailur entonatio ezmarkatua hartzen duen egongunearekin lotzen du fenomeno, eta posizioaren egiturazko identifikazioa proposatzen du: ‘eskumako’ egongune hori adarreztatze aldean sakonen dagoen osagaia izango litzateke. Inglesa edo gaztelania bezalako hizkuntzetan, sintagmak osatzeko buruei beste osagaiak eskumako aldetik atxikitzen zaizkie, eta eskumaldea da adarreztatze aldea. Zenbat eta eskumatarago osagaia, adarreztatze gehiago gertatu behar izan da, eta ‘azken’ osagaia ‘sakonena’ ere izango da. Cinqueren ideiatik abiatuz, Zubizarreta (1998) eta Costak (1998) hurrenkera erlaziora itzultzea proposatu dute, adarreztatzearen gainekoa neurri batean baztertuz: gailur prosodikoa eta enfasi ezmarkatua eskuma-eskuman dagoen (*rightmost*) osagaiari legokioke, dela aditzaren aurretik (adarreztatzea ezkerretara denetan, euskaraz bezala (Elordietak 2001)), dela aditzaren ondotik (adarreztatzea eskumatara denetan, ingeles eta gaztelan bezala). Honen arauera, ‘enfasi’ ezmarkatua elementu honen gainean eroriko litzateke erarik naturalenean, (3)ko *Jonekin* osagaiaren gainean, hain zuzen. Osagirik ‘sakonena’ zein ‘eskuma-eskumakoa’ diogunean, nozio erlatibo batez ari gara, noski, egitura jakin bati dagokiona, eta zentzu honetan ez da existitzen osagai hauek okupatu beharko luketen berezko proiektiorik.

Scrambling edo bestelako mugimenduek aditzaren aurreko osagaien hurrenkera alda dezakete, eta horrekin batera gailurra izango den osagaia. Ondoko bi adibideetan gailur hori aldatu egiten da:

(4) Mikelek ez du etxean paketea utzi (dirua baizik)

(5) Mikelek ez du paketea etxean utzi (tabernan baizik)

(4)eko inesibo-absolutibo ordena ‘neutraletik’ (ikus 1.2 beherago) (5)eko hurrenkera ‘markatuagora’ Elordietak (2001) objektuaren ezkerretarako mugimendua (*scrambling*) suposatzen du. Osagai guztien hurrenkera markatuagoa izateaz gain, eskuma-eskumako osagaia ere aldatu da, eta *etxean* izan daiteke

⁴ Adizki sintetikoetan ‘egongune’ hori definitzen duen partizipiorik ez dagoenez, aditz bakarraren osteko edozein osagairekin egin liteke kontrastea.

(5)ean quasifokoa (eta, agian, *etxean* gailur ‘neutral’ hau izan dadin egin da objektuaren aurreratzea).

Aurreko lerroetan, Elordietak (2001) baiezeko esaldi eta ohizko galdegaie-tarako proposatu duen analisia ezezkoetarako hedatzea proposatu dut. Elordietak Cinqueren hurbilketa honetaz baliatzen da: informazio berria adierazten duten fokoak behintzat (agian ez galdegai kontrastiboak), aditzaren aurretik eskuma-eskuman, egongune ‘sakonenean’ dagoena da, inongo sintagma berezietara mugitu dela suposatu beharrik gabe. Beste galdegaiek sintagma berezietara mugitzen badira ere, hauek *in-situ* leudeke. Era berean, ezezkoetako quasifoko hauek *in-situ* daudela mantentzeko, (2a)ko *benetako* galdegaiek ezkerretara mugitzen direlarik.⁵

1.2. Kokapen ezmarkatuak II: egongune neutralak

Mekanismo ezmarkatu batez ari gara, eta ikertutako beste euskalkietan honetaz gain beste azpiederua somatzen da quasifokoaren kokapenaren aldetik, pixka bat markatuagoa agian. Beste eredu honetan litekeena da egongune neutralean dagoen osagai bat kontrastatzea, nahiz eta partizipioaren ezkerrean ez ageri. Badakit ordena neutralaren gora-behera asko argitzeke daudela (adizlagun askoren kokapen neutrala, esate baterako), baina nolabaiteko konsensus bat dago S-Zehar Objeto-Objetu Zuzena-Aditza hurrenkerak beste ordenek ez duten neutraltasuna daukala, maiztasuna ez bada ere. Lafittek (1944:46) hurrenkera ‘neutral’ edo ‘gramatikaltzat’ hartzen du *subject-adjunct-indirect object-direct object-attribute-verb* hurrengo adibidean bezala:

(6) Aita Sainduak atzo bi erresumeri aphezpiku bat ararteko igorri diote.

Aipatutako euskalkietan, beraz, hurrenkera horretan dauden osagaiak kontrasta daitezke:

- (7) a. Ez dio *Jonek* Mikeli liburua eman, Peruk baizik
b. Ez dio *Jonek Mikeli* liburua eman, Peruri baizik
c. Esêban Cortesek Peru konkista, Pizarrok baño
- (8) a.??Ez dio Mikeli *Jonek* liburua eman, Peruri baizik
b.??Esêban Peru Cortesek konkista, Mexiko baño

⁵ Nahiko harrigarria izango litzateke, benetan, mekanismo ezmarkatu honetaz ezezko perpausetan baliatzea eta ez baiezekoetan, bai eta alderantziz ere.

Hauetan, bai *Jon* bai eta *Mikeli* kontrastatzen dira, nahiz eta partizipioaren aurreneko gunean ez ageri. Era berean, osagai multzo batekin egin daiteke kontrastea, baina erarik naturalenean ordena neutral horretan daudenean:

- (9) a. Ez dio *Jonek Mikeli* liburu bat erosi, Aitorrek Joni baizik
 b. ??Ez dio Mikeli liburu bat *Jonek* erosi, Joni Aitorrek baizik

Askoz errezagoa da (a)ko Subjektu-Zehar Objetu multzoa kontrastatzea (b)ko Zehar Objetu-Subjektu taldea baino. Lehenagoko ondorio berbera atera dezakegu datu hauetatik: nekez esan daiteke hemen kontrastatzen den osagaia, edo osagai multzoa, posizio sintaktiko berezi batean dagoela, galdegaiaren kasuan manten daitekeen ez bezala.

Lekeitioko egoera aztertzean, bestelako nabardurak somatzen dira, arakatze zehatzagoa beharko luketenak. Esate baterako, ondoko esaldiok guztiz naturalak dira euskalki horretako hitzun batzuentzat:

- (10) Esân Jon [Markiñara eskondu], Mikel baño
 (11) Estâ Jon [soldautzatik libra], Mikel baño

Hasiera batean atal honetan aztergai dugun bigarren estrategiaren adibide arruntak direla ematen du. Ordena neutralean subjektua beste edozein osagairen aurretik agertzen denez, ez da harritzekoa kontrastea berarekin egitea nahiz eta partizipioaren aurrean ez ageri. Hala ere, egoera konplexuagoa da, ondoko esaldien artean (12) onargarria baita:

- (12) Estôsu Mikel soldautzatik libra, Peru baño
 (13) ??Estâu Mikel *Jonek* soldautzatik libra, Peruk baño

Lehenengo adibidean printzipioz egongune neutralean ez dagoen objektu batekin egin da kontrastea, objektua eta aditza sintagma preposizionala dagoelarik. Espero beharko genukeena (13) bezain marginala izatea da, azken adibide honetan subjektua ez baitago objektuarekiko hurrenkera neutralean. Nahiz eta zehaztasunak, eta are ezaugarri orokorrak ere, guztiz ilun egon, badirudi hemen aditz partizipioak eta haren ezkerreko osagaiak nolabaiteko ‘predikatu konplexu’ bat osatzen dutela, hau da, honetarako osagai bakar bat balitz bezala portatzen den multzo bat. Horrelako zerbait gertatzen bada, (10), (11) esaldietan kontrastea *Jon*-ekin egitean, *Jon* objektua bere gune neutralean legoke, predikatu konplexuaren aurrean. Era berean, (12)an *Mikel* objektua *soldautzatik libra* predikatuaren aurrean dago, objektuari dagokion leku neutralean. Bestalde (13)an Objetu-Subjektu hurrenkera izatean, subjektua ez dago bere egongune neutralean, eta kontrastea ez da zilegia.⁶

⁶ Honek esan nahi du hemen bigarren estrategia honen arauera araupetzen dela; 1.1. atalekoa balitz, kasu guzti hauek ‘partizipioaren aurre-aurrean’ egoteagatik onargarriak lirarteke.

Agian honek eman liezakeguke Lafitten (1944:49) baieztapen ezagun bat ulertzeko modua. Bere gramatikan dioenez, laguntzailea eta partizipioaren artean elementu bat baino gehiago daudenean, laguntzailearen ondokoa da enfasia daukana:

(14) Aitak ez du *untzia* leihotik aurdiki

Baieztapen hau okertzat eman den arren, nekez uler daiteke Lafitte bezalako gramatikari fin batek guztiz egiaren kontrako datu bat sartzea bere gramatikan. Agian arazoa adibide horretatik ateratzen den ondorioan datza, egoera berezi bat baizik ez denetik egia osotzat hartzen den generalizazio zabala eraikitzea. Balizko interpretazioa ez bada ere, ez baititut ezagutzen arlo honi buruzko datu zehatz eta fidagarriak bere euskalkian, baliteke hemen *leihotik aurdiki* predikatu konplexu bezala funtzionatzea. Horrelako zerbait ez balego egiatik urrunegi, *untzia* posizio 'neutralean' dagoela esan liteke, edo eta 'predikatuaren' aurreneko lekuan, eta kontrastea litekeena da beraz. Predikatu konplexu nozioa zorroztu egin behar da, noski, baina *leihotik* osagaiaren erreferentzialtasun eza, edo hautazkoa, honen aldeko seinalea izan liteke.

Ikusten denez, egoera posible asko daude, eta euskalkiz euskalki arakatu beharko dira kasu guztiak zehaztasun handiz gai honetaz zentzuzko analisisirik eman baino lehen.

2. KONTRASTEAREN BEHARREZKOA OTE?

Deskribapen batzuetan, aztertu beharreko beste zehaztasun bat aipatzen da. De Rijkek (1998:431) gogoratzen duen pasarte batean, Mitxelenaren euskalkian subjektua laguntzailea eta partizipioaren artean kokatzean zentzu kontrastiboa hartzen zuen nahi ta nahiez:

(15) Ez da AITA etorri

Lekeitioko hiztun batzuek ere (Gorka Elordieta, a.k.) antzeko egoeraren berri ematen dute. Hau egia osoa balitz, badirudi honelako euskalki murrizgarrietan, beraz, sakonen dagoen osagaiak (eta agian haren ingurukoek) enfasi ezmarkatua hartu behar duela, eta beraz, geroago ikusiko dugunez, baita ezetzarekiko lotura ere. Ukatu nahi ez den partearen eremu horretatik kendu beharko litzateke, beste hizkuntzetako *destressing* antzeko berrantolaketa batekin. Honek ohizko arazo teknikoak sortzen ditu, hala nola egitura asimetriko batean partizipioaren eskumako osagaiak sakonenak diren ala ez, etab. Baina ez gara honelakoetan sartuko hemen. Bestalde, badirudi euskalki gehienetan egoera ez dela adibide horrek ustez erakutsi bezala.

Esate baterako, nahiz eta *aitarekiko* kontrastea guztiz probablea izan (15)an, nekezago atera genezake konklusio bera ondoko adibidetik:

(16) Gaur ez dut *periodikoa* irakurri

Askoz hitzun gehiagok ematen diote azken esaldi honi (15)i eman ez dioten interpretazio ez-markatua. Badaude hemen kontutan hartzeko beste faktore bi, gutienez.

a) *aita* subjektua da (15)ean. Subjektuak topikoak izaten dira, eta ezezko esaldirik neutralenetan laguntzailearen ezkerretara azaltzen dira maizetik, topikoei dagokien bezala. (15)ean ezohiko gunean jartzean agian interpretazio markatu bat lortzarren egiten da, hortik interpretazio markatua.

b) Normalean, *periodikoa* ez da erreferentziala izaten, eta errezago da orduan *periodikoa irakurri* aurrean ikusitako predikatu konplexu bezala ulertzea. Beraz, *periodikoa* era neutral batez ulertzen da.

Berriro ere, nekez argituko dugu ezer euskalki bakar batera edota esaldi bakan batzuetara murrizten badugu ikerketa, eta datu gehiago izan arte atzeratu beharko dugu honelako kasuen ebaluazioa.

3. QUASIFOKOAK QUA UKAGAIK

Orain artean esandakoarekin, eta de Rijkek emandako izenak adierazten duenez, argi dago era negatibo batean quasifokoak galdegaiak ez direla. Baina argi dago, bestalde, galdegaiekiko nolabaiteko hurbiltasuna dutela, ez baita izan gramatikari zoroen ideia galdegaitzat hartzea. Hasieran aipatu bezala, hurbiltasun honen erroa seguruenik semantikan datza: quasifokoak dauden esaldietan kontrasteak egiten dira, eta askotan ageriko kontrasteak gainera. Bestaldetik, fokorik nabarienak foko kontrastiboak dira, eta identifikazioa hortik letorke. Azter dezagun beraz galdegai kontrastiboen alde semantikoa, gero quasifokoenarekin alderatzeko asmoz. Erakusten saiatuko naizenez, hurbiltasun semantikoa deribatiboa da eta ez ditu, berez, quasifokoak eta galdegaiak elkartzen, ezetza gehi quasifokoa alde batetik eta galdegaia bestetik baizik.

Aldera ditzagun bi motatako esaldiak, quasifokodunak eta galdegaidunak, azken hauekin hasirik. Ondoko esaldiko *Jonek* kontrastiboki ulertu eta ahoskatuz gero, bi tasun semantiko nabaritzen dira, ikusi Kiss (1998):

(17) Eskutitza *Jonek* idatzi du

- a) 'Identifikazio exhaustiboa': elementu bat identifikatzen da proposizioa aplikatzen zaion elementu bakar bezala. Testuinguruan agerian dauden beste elementuetatik ('contrast set, kontraste multzoa') bereizten da: eskutitza *Jonek* idatzi du eta ez solasaldian aktibo dauden eta pragmatikoki hautagaiak liratekeen besteak. Kandidatu hauek kontraste multzoa osatzen dute.
- b) Elementu hori identifikatu deneko proposizioa aurreuposatutzat hartzen da, gure kasuan baten batek eskutitza idatzi duelako proposizioa, hain zuzen.

Esaldi quasifokodunetan gehigarri kontrastiboa gaineratzean, antzeko ezaugarri semantikoak lortzen dira.

(18) Ez du eskutitza *Jonek* idatzi, *Peruk* baizik

- a) Jarraipenak identifikazio positiboa egiten du (*Peru*). Eta *Jonek* quasifokoak kontraste multzoa ematen digu, litekeen beste hautagaia.
- b) Gertaeraren aurreuposaketa bat aurkitzen da.

Antzekotasun semantiko hauek hain bistakoak izanda ez da harritzekoa quasifokoak galdegai (kontrastiboekin) elkartzea.

Hala ere, alde semantikoan ere ezberdintasun garrantzitsuak daudela erakutsi nahiko nuke. Hitz gutitan jartzeko, amankomuneko eduki semantiko hori ez da quasifokoak esaldiaren interpretazioari gaineratzen diona, baizik eta jarraipenaren eta ezetzaren semantika lotzetik deribatzen dena. Beraz, nire ustez quasifokoak berak ez dauka berezko eduki kontrastiborik. Eduki kontrastiborik ez badago, jarraipen kontrastiboak zergatik agertzen diren eta aurreuposizioak nondik sortzen diren ulertzeko, ezezko perpausen semantika aztertu behar dugu lehenago.

3.1. Kontrastearen zilegiztatzea

Kontsidera dezagun lehenengo eta behin zer den ondokoa bezalako ezezko perpaus batean ukatzen dena. Adibide honen logikaren arauerako itxuratzeko simple bat (20)an ematen da:

(19) Ez du *Jonek* aurten teilatua konpondu

(20) \neg [*Jonek* aurten teilatua konpondu]

Logikaren arauera azken errepresentazioan esaten dena parentesi arteko proposizioa ‘ez dela kasua’ da, hau da, objekzio bat planteatzen da ukatutako proposizioaren egi balioaz (García Murga 1998:149). Baina objekzioa proposizioaren egokitasunaren edozein alderditan egon liteke: ez dugu zertan pentsatu behar ezetzak haren eskumako osagai guztiak (sintaktikoki haren k-komando eremuan sartzen direnak) ukatzen dituenik, Jonek aurten teilatua konpondu beharrean, Peruk ihaz etxea erosi zuelako edo. Esaldia egokia eta egiazkoa izan daiteke baldin eta edozein osagai edo osagai talde egiazkoa ez bada, baldin eta, kasurako, Jonek teilatua ihaz konpondu bazuen, edo Peruk egin bazuen, edo Jonek aurten etxea konpondu badu, edo konpondu beharrean saldu egin badu ere. Jarraipenek objekzioaren iturburua zein den argitzen dute. Ikuspuntu honetatik, kontrastea egitea zilegiztatzen duena ez da kontrastaturiko osagaiaren inongo eduki kontrastiborik, baizik eta, ezetza bera. Hau da, benetako foko kontrastibo baten berezko edukia bada *X eta ez beste inor*, hurrengo esaldian, *Jonek* quasifokoak ez du *Jonek eta ez beste inork* edukia:

(21) Liburua ez du Jonek irakurri, Mikelek baizik

Aldiz, jarraipenak oinarrizko esaldiaren egi balioa ukatzeko elementua zein den seinatzen du. Alde hortatik, *Jonek* ez du ohizko eduki erreferentzialaz gaineko beste edukirik eta ez du berez ezer identifikatzen. Izatekotan, geroago jarraipenak identifikatuko duen elementuaren kontraste multzoa da. Eta jarraipen kontrastiboa agertzea zilegiztatzen duena ez da inondik ere *Jonek* osagaia bera, baizik eta ezetza. Alderatu aurreko osagai hori hurrengo esaldiko benetako galdegai batekin:⁷

(22) JONEK ez du liburua irakurri

Hemen *Jonek* berak (17)ko galdegaiak erakusten dituen ezaugarri berberak dauzka: esaldiaren esanahia *Jon da liburua irakurri ez duena* antzeko parafrasi baten bidez eman daiteke, eta hor *Jon* identifikatiboa da berez.⁸

⁷ Galdegai honi entonazio kontrastiboa eman behar zaio, mintzagai bezala ez ulertzeko.

⁸ Areago, quasifokoekin ez bezala, jarraipen kontrastiboak ez dira egokiak (beti ere 7. oinoharrean zehazten den entonazio kontrastiboarekin):

(i) #JONEK ez du liburua irakurri, Mikelek baizik

Jon identifikatzen badugu liburua irakurri ez duen pertsona bezala, ez da ikusten zer egiten duen Mikelek esaldi horretan. Ikusi Ortiz de Urbina (1999).

Ikuspuntu honetatik, quasifokoak deitzeko modu argigarriago bat liteke batzuk proposatu duten beste deitura, *ukagaia* hain zuzen, hau da, esaldian ukatzen dena, eta horrela izendatuko dut hemendik aurrerantzean.⁹

3.2. *Aurresuposizioak*

Aurreko lerroetan ukagaiak galdegai kontrastiboekin ustez amankomunean duten ezaugarri baten gora-beherak aztertu ditut, identifikazio eskusiboa hain zuzen. Azter dezagun (17b) eta (18b)ko bigarren ezaugarri semantikoa, proposizio bat aurresuposatuta egotea.

Aurresuposizioa ezetzarekin lotuta dagoela mantenduko dudan arren, hemen antzekotasuna hurbilagoa da. Konturatu neurri batean aurresuposizio hau identifikazioarekin lotuta dagoela: gure adibidean, norbait ekintza baten partaide bezala identikatuz gero, ekintza bera aurresuposatu egiten da. Esan bezala, identifikazioa bera ez da ukagaiaren edukia, eta, ondorioz, aurresuposizioaren presentzia bera zeharbidez besterik ez dago ukagaiarekin lotuta, ezetzarekiko ainguratzea dela medio (ikus. 3.4).

Horn-ek (1989) eta García Murgak (1998) azpimarratzen dutenez, ezezko esaldi guztiek dagokien baiezkoa aurresuposatzen dute, ezetzak baiezko hori ontzat hartzeko objekzio bat adierazten baitu. Gure oinarrizko kasura itzulirik,

- (23) a. Liburua ez du *Jonek* hartu, Peruk baizik
b. *Jonek* hartu du liburua

oinarrizko esaldian *Jonek liburua hartzea* gertaera esandako zentzuan 'aurresuposatuta' dago. Baina behin ezetzak sortzen duen objezioaren iturria zein den argituz gero, aurresuposaketa orokor hau askoz gehiago murrizten da, beste guztia egiazat hartzen da. Aurreko adibidean ezetza *Jonekin* lotu ondoren, eta, jarraipenaren bidez *Jon* gabe *Peru* izan dela zuzendu, beste guztia zuzentzat hartzen dugu, baieztutako aurresuposizio bezala. Baina hau ez da alde aurretik suposaturiko osotasuna, baizik diskurtsoan zuzenketak berak eraikitako baieztapena. Zuzenketa bera egin arte, aurresuposatua dagoen bakarra ezezko esaldi guztietan aurresuposatua dagoena da. Beraz, ezetzaren eraginaren ondorio zuzen ala zeharkakoak dira hemen somatzen diren aurresuposizioak. Eta hau oso hurbil dago (23b)ko galdegai kontrastiboak berak sortzen dituenetatik.

⁹ Ikusi Ortiz de Urbina (1999). Deitura bera proposatu zuen Garziak (1997:199) independenteki.

3.3. Ukagaia eta enfasi fonetikoa

Aurrean (1.1 atalean), ukagaiaren gune neutrala definitzerakoan Cinqueren algoritmoaz aritu naiz, esaldi baten gailur fonetiko neutralarekin lotuta dagoena. Hala ere, gailur fonetiko ezmarkatu hau enfasi kontrastibo markatutik berezi behar da. Fonetikaren aldetik, kontrastea egin arren, guztiz normala da ukagaia inongo entonazio berezirik gabe ahoskatzea. Benetako foko kontrastibo batean nahiko harrigarria litzateke ahoskera neutrala izatea, baina ez ukagaia bada. Hurrengo atalean (3.4) gainerako enfasia duten ukagaien arduratuko gara. Oraingoz, jarrai dezagun ahoskera neutraleko ukagaienkin. Hauetan, jarraipen kontrastiboa kenduta, ez dago modurik objezioaren iturburua zein den jakiteko, ez eta kontraste bat dagoenik ere, esan bezala, ezer berezirik ez baitago ukagaiaren beraren eduki semantikoa. Berdintsu gertatzen da kontrastaturiko elementua egongune neutralean daudenetakoa denean ere:

(24) Ez du *Jonek* liburua irakurri, Mikelek baizik

Litekeena da hemen ere *Jonek* entonazio neutralarekin ahoskatzea. Hau nahiko ezberdina da hizkuntza erromantzeetarako Zubizarretak (1998) deskribatzen duen egoerarekin konparatuz: osagaia gailur enfatiko neutraleko gunean ez badago, perpausaren eskumatara, entonazio markatuaz ahostatu behar da.

Are gehiago, euskalki batzuetan, azentu tonaldunetan hain zuzen, kontrastutako elementuak ezin du gailur fonetiko markaturik hartu: Hala gertatzen da Lekeitio euskaraz (Hualde, Elordieta & Elordieta 1994:170-171). Hor fokoek badute azentu eredu berezi bat (*azentu fokala*), oro har aditzaren aurreko osagaiari ezartzen zaiona. Ezezko perpausetan ezetzaren aurreko osagaiak bakarrik har dezake azentu fokala. Partzipioaren aurreko osagaia kontrasta badaiteke ere, horrek ezin du azentu fokala hartu:

(25) txakurrâ estau sure lagunak ekarri

(26) txakurra êstau sure lagunak (*lagunâk) ekarri, amak bânño

Euskalki honetan perpaus bakoitzak azentu fokaldun osagai bat izan behar duenez, eta azken adibide honetan aditzaren aurreko elementuak honelako azenturik ez duenez, aditzak berak hartzen du, nahiz eta *amak bânño* jarraipenak erakusten duen bezala kontrastea *sure lagunak* osagaiarekikoa izan.

Esan bezala, bestaldetik, tonalak ez diren euskalkietan ere, guztiz normala da ukagaia neutralki ahoskatzea, oraindik ere kontrastea berarekin egin arren:

(27) Gaur ez dut *kotxea* ekarri, motorra baizik

Jarraipena ebakiz gero, oinarritzko esaldia erabiltzean ez dago inongo arrazoirik *kotxea* fokotzat hartzeko, ez baitu berez inongo enfasi edo kontrasterik inplikatzten. Honelakoetan, jarraipena gehitzearen ondorio semantiko-a ezetzaren eremu estua (bere eremuaren barruan ukagarria den multzotik benetan ukatuta dagoen azpimultzoa) zein den identifikatzea da. Nolabait esatearren, ezetza proposizioa ukatzera bultzatzen gaituen osagaia edo osagaien kin lotu edo ‘ainguratzea’.

3.4. Ainguratze fonetiko

Badago ezetzaren eremu estua identifikatzeko, edota ezetza osagai batekin ainguratzeko beste modu bat. Lekeitieraz ez bezala, beste euskalki askotan litekeena da ukagaia entonazio kontrastiboarekin ahoskatzea. Orduan, interpretaziorik normalenean horixe hartzen da ukatzen den osagiatzat:

(28) Jonek ez du teilatua *aurten* konpondu

(29) Jonek ez du aurten *teilatua* konpondu

(30) Jonek ez du aurten teilatua *konpondu*

Lehenago bezala, ukagaia hemen kontraste multzoa da. Benetan identifikazio bat izateko, jarraipana erantsi beharko dugu (alderatu berriro ukagai hauek (23b)ko galdegai identifikatiboarekin). Enfasi fonetikoak enfasi hutsa gaineratzen dio osagaiari, ezetzaren eremu estua hori dela seinalaturaz, eta ez du ‘foko kontrastibo’ egiten. Izan ere, jarraipenik gabe ez dugu hemen inongo kontrasterik, nahiz eta ezetza ukagaien ainguratzean kontrastea inplikatu. Baina, berriro ere, ezin esan kontrastea ukagaiaren beraren semantikan dagoenik. Beraz, oraindik ere honelako kasuetan, fonetikoki indarturiko osagai hori ez da galdegai ‘kontrastiboa’. Izatekotan, ‘kontrastibotasuna’ ezetzarekin lotzetik letorke. Aurreuposaketa bat badago, baino ez da identifikazioaren beraren ondorioa: behin objekzioaren iturburua identifikatuz gero, ukatutako proposizioaren beste guztia egia dela inplikatzten da.

Laburbilduz, quasifokoa ‘ukagai’ bezala interpretatzea proposatu dut: ezezko proposizio batean ukatzen dena. Ezeztatuko esaldiak baiezko proposizioaren gaineko objekzio bat planteatzen du. Enfasi fonetikoak, jarraipenak edo biek batera, objekzioaren iturburua identifikatzen dute, ezetza elementu horrekin ainguratuaz. Ezetza gehi osagai hori lotzetik kontraste bat ulertzen delako ezetzak aurreuposatzen duen baiezko proposizioaren zati batekin, honen semantika oso hurbil dago galdegai kontrastiboarenekin. Baina, daki-

gunez, *ukagai* hauei ez dagokie galdegaien sintaxia. Sasigaldegai hauek ukagai bezala tratatzeak ulertzen laguntzen digu zergatik agertzen den ustezko bigarren ‘foko’ posizio hau ezezko perpausetan eta ez bestelakoetan.

AIPAMENAK

CINQUE, G. 1993. “A Null Theory of Phrase and Compound Stress”. *Linguistic Inquiry* 24.2, 239-297.

COSTA, J. 1998. *Word Order Variation. A Constraint-Based Approach*. Netherland Graduate School of Linguistics-LOT, Utrecht.

ELORDIETA, A. 2001. *Verb Movement and Constituent Permutation in Basque*. Netherland Graduate School of Linguistics-LOT, Utrecht.

ETXEPARE, R. & ORTIZ DE URBINA, J. Argitarabidean. “Focalization”. J.I. Hualde & J. Ortiz de Urbina, arg., *A Grammar of Basque*, Mouton de Gruyter, Berlin.

GARZIA, J. 1997. *Joskera Lantegi*. Herri Ardulararitzaren Euskal Erakundea, Vitoria-Gasteiz.

GARCÍA MURGA, F. 1998. *Las presuposiciones lingüísticas*. Universidad del País Vasco, Bilbao.

HORN, L. 1989. *A Natural History of Negation*. The University of Chicago Press, Chicago.

HUALDE, J.I., ELORDIETA, A. & ELORDIETA, G. 1994. *The Basque Dialect of Lekeitio*. Euskal Herriko Unibertsitatea/Gipuzkoako Foru Aldundia Bilbo/Donostia [ASJU Gehigarriak XXXIV].

KAYNE, R. 1994. *The Antisymmetry of Syntax*. The MIT Press, Cambridge, MA.

KISS, K. É. 1998. “Identificational focus versus information focus”. *Language* 74.2, 245-273.

LAFITTE, P. 1944. *Grammaire Basque*. [Berrargitalpena: 1979, Elkar, Baiona].

ORTIZ DE URBINA, J. 1989. *Parameters in the Grammar of Basque*. Foris, Dordrecht.

ORTIZ DE URBINA, J. 1999. "Ezezko perpausetako fokalizazioaren inguruan, *Enseiunkarrea* 14, 185-198.

QUIRK, R. ET AL. 1985. *A Comprehensive Grammar of the English Language*. Longman, London.

RIJK, R.P.G. de. 1998. "Focus and Quasifocus in Basque Negative Statements". *De Lingua Vasconum: Selected Writings*, Universidad del País Vasco, Bilbao, 421-433 [ASJU Gehigarriak XXXIV].

ZUBIZARRETA, M.L. 1998. *Prosody, Focus and Word Order*. The MIT Press, Cambridge, MA.

KOR ATZIZKIAZ

B. Oyharçabal

Haren omenez egiten baita biltzar hau, has dezadan lantxo hau Lafittek bere *Grammaire basque* delakoan *kor* atzizkiaz erraten zuena gogoratuz¹:

- beregaintasun lexikalik gabeko morfema da, eta zehazkiago atzizkia;
- aditsoinei lotzen zaie;
- izenondoak sortzen ditu;
- izenondo eratorriak oinarriko aditzaren erran-nahiari darraion joera edo jaugina adierazten du.

Lafittek eskaintzen dituen adibideak, *hauskor*, *ahanzkor*, eta *luzakor* dira.

Informazio hau –erran beharrik ote?– aipatu lau puntuetan zuzena da, eta haste-hastetik diogun ez dela gure hemengo asmoa haren auzitan jartzea, bai ordea, haren osatzea eta, ahal dugun neurrian behintzat, haren barnatzea ere, kontuan harturik geroztik eginikako lanak, hala nola, bereziki, Azkarate & Gràcia (1995) eta GCVA & beste (2000: 484-489).

Horretarako, lehenik, atzizki horretaz informazio orokor batzuk gogora ekarriko ditugu (§1), ondotik agerraraziko ditugu oinarriaren kategoriaren inguruan agertzen diren zalantza batzuk, aipatuz oroz gaineratik erabide ohikoari ez darraizkion zenbait jokabide berezi, hala nola *ilezkor*, *baikor*, eta *abe-*

¹ Ikerlan honen azken idatzaldiaren finkatzeko baliatu ahal izan ditut J. A. Mujika, J. M. Makazaga eta E. Perezek aurreko idatzaldi bati eginikako iruzkinak eta oharrak. Bestalde eskerrak eman nahi dizkiet inkesta denboran lagundu nauten adiskideei eta bereziki, J. A. Adurizi, E. Arcochari, P. Charritoni, G. Duguineri, I. Etxebesteri, eta P. Goenagari.

rekor bezalako izenondoetan aurkitzen direnak (§2). Hirugarren parte batean, hasiko gara ohiko eratorketaren beraren azterketa egiten, oinarriari dagozkion muga sintaktiko edo semantikoak zein diren ikusiz. Lehenik, erakutsiko dugu *kor*-en bidez eratorri izenondoen oinarria aditzoina dela (*galkor, sarkor*), bes-telako kasuak, baita aditz lokuzioetako izenei dagozkienak ere, *kaltekor* eta *irrikor* bezalakoak hots, guztiz bakartuak izanik (§3). Ondotik, eratorbide nagusiko oinarriko aditzoin horien nolakotasuna mugatzera saiaturako gara, elementu morfosintaktikoak eta semantikoak kontuan harturik (§4). Gure azterketa argumentu bakarreko aditzetarik bi argumentuko aditzetara zabalduz, erakustera emanen dugu *kor*-en bidezko eratorriek tema eginkizuna lexikoian satura edo ase dezaketen aditzak (*ekarkor, ahazkor, ...*) izan ditzaketela oinarri (§5). Azkenik oinarriko aditzaren argumentu lokatiboa (§6) eta kau-satiboa (§7) subjektutzat daukaten eratorpenak (*bero itokorra, gaitz hilkorra, ...*) aipaturako ditugu.

1. EZAUGARRI OROKOR BATZUK ERATORKETA HONETAZ ETA HAREN AZTERKETAZ

Aspaldi du ezaguna dela *kor* atzizkia euskalaritzako tradizioan. Larramendik franko baliatu zuen bere hiztegi hirukoitza (1749) egiterakoan, neologismoen sortzeko, eta, gramatika lanetan, Harriet (1741: 472) eta Lécluseren (1826: 34, Harrieti jarraikiz) lanez geroztik bederen aipatua izan da, nahiz oinarritzko azterbideak, gero Lafittek berriz hartuko zituenak, Ithurryk (1895: 440) eman zituen. Hogeigarren mendeko morfologia ikerlanetan (Ühlenbeck 1909, Azkue 1925, Villasante 1974) ere aipatzen da, Larramendiganik heldu zen joera bati jarraikiz, maiz, *koi* atzizkiarekin batean. Azkarate & Gràcia (1995) eta CGVA & beste (2000: 484-489) izan dira azkenik *kor*-en bidezko eratorpena gaurko azterbideak baliatuz aurkeztu izan dituztenak.

Atzizkiaren forma zalantzazkoa da: Azkueren arabera *-or* da diakronian oinarritzko forma, zenbait hitzetan aurkitzen dena: *lotsor* (Oihenart, J. A. Mogel) edo *lotsaor* (J. J. Mogel), *errukior*, *izior* (Leizarraga). Halere, gehiengotan *kor* formaren pean aurkeztua da atzizkia, *-k-* epentetikoa atzizkiaren parte bihurtu baita² (Azkue 1925: §210).

² Herskaria aspiratua da zenbait lapurtar transkripziotan: *min^hkor* (Etcheberri Ziburukoa, Gasteluçar, Hiribarren), *galk^hkor* (Larreguy, Chourio), *kalte^hkor* (Larreguy). Batzuetan *-gor* aldaera ere agertzen da, *-l* baten ondotik bereziki, hala nola Gavelek bildu *hilgor* hitzean (1960: 315), edo Oihenartek eskaini *ahalgor* forman, non ez den hau *ahalge-or* baten emai-

Atzizkiak azentua dakar zubereraz, Larrasketek bere hiztegian (1939) eraskustera ematen duen bezala: *áhatz vs ahazkór, íxilt vs ixilkór, khéxa vs khexakór, lérra vs lerrakór*, etab. Gauza bera dio Gavelek ere (Hualde 1997: 76). Azkuek (1925: § 210) ere ohar batean dio *auskor, aldakor* eta horrelakok ditonoak direla³. Halere, *k(h)oi* morfema ez bezala (ipar-ekialdeko euskalkie-tan hitz gisa ere erabil baitaiteke hau), *kor* atzizki gisa agertzen da beti eta oro-tan.

Hitz eratorriaren kategoriaz dudarik ez da: izenondo dira *kor* atzizkiaren bidez eratorri hitzak. Nahasmendu bakarra, salbuespen lexikal bat edo beste bazterrean utzirik⁴, Larramendiren hiztegian kausitzen dugu, eratorriak erdal izenen eta izenondoen baliokide gisa aurkezten baititu batzuetan, ez morfe-marekin batean erabilia denean. Adibidez, *inflexibilidad, inflexible* formak, sarrera berean daude hiztegi hirukoitzean, euskal ordainak *tolesezkorra, biur-rezkorra* izanik.

Izenondoek har ditzaketen atzizkiak ere onartzen dituzte *kor* atzizkiaren bidez sortu forma eratorriek, adibidez, *-tasun, -ki*, edo atzizki aditzegilea:

tza, *ahalke-or* deribazioari legokiokeena (cf. Azkue, 1925: §210), eta ez *ahalke-kor* > *ahalkor* (haplologiaz) > *ahalgor* segida (kasu honetan aurrerakako ahostuntasun-asimilazioa azken urratsean gertaturik). Halere *l*-ren ondotik ere *kor* da nagusi *hilkor* edo *urrikalkor* bezalako hitzetan, eta halaxe da *n*-ren ondotik ere: *emankor, gizenkor, joankor, ...* bukaera-ko *-n* hori erortzen ez denean behintzat, hala gertatzen baita maiz mendebaleko testuetan: *emakor, eragikor, iraukor, ...* Badirudi, bestalde, zenbait lanetan (Harriet 1741, Azkue 1925, Villasante 1974) *-gor* aldaera nahasi dela *-gogor* formaren aldaerari dagokionarekin, *sinesgogor* hitzaren kasuan bereziki (halaber *egoskor*). Mitxelenak Villasanteri seinalatu bezala (Villasante 1974: 104), bi morfema desberdin dira kasu horretan, kontrako esanahiak dituztelarik (*sineskor* vs *sinesgogor, egoskor* vs *egosgogor*).

³ *Bizkor*, hain zuzen, monotonoa izanik, dudak ditu Azkuek, *kor* atzizkiaren bidezko eratorri gisa azter ote daitekeen.

⁴ Horien artean apagarrienak *jankor* eta *edankor* dira, nire ustez, zeren haien agerpena ezin azal baitaiteke izen baten ezabatzearen bidez; ikus Haranederren aipu hauek: *Ez da han ikhusten banitaterik, dosteta errhorik, yankor eta edankor sobraniazkorik [...] baizen. (Philotea, 396) Ibill gaitezen honestoki, [...] ez jankorretan eta hordikerietan* (Errom. 13, 13); ik. Mat. 23, 6 ere. Beste zenbait idazlanetan hitz eratorria izen gisa erabilia da, izenondo askok egin dezaketen antzora; ikus Ubillosen adibide hau: *ito ziran, Kutxan gorde ziran ez, beste bizikor guziak (Kristau berri-ekarlea, 67. o.);* edo halaber, Añibarroren aipu hau: *Baña etxean averioak, naibageak, kontrakorrak, persegillak (...), zer egingo dau?* (Gero-ren itzulpena, 41-138). Erran behar da, haatik, gutitan agertzen direla horrelako izen erabilerak (erran nahi baitu izen ezabatu batek solas inguruan aurrekaririk ez izanik) *kor* atzizkia duten izenondoekin, eta ohiz kanpokoak direla.

$$(1) \quad sarkor \left\{ \begin{array}{l} sarkor-ki \\ sarkor-tasun \\ sarkor-\emptyset(-tu) \end{array} \right.$$

2. OINARRIAREN KATEGORIAREN INGURUKO ARAZOAK

Aztergai dugun atzizkia emankorra dela erran daiteke, erran nahi baitu oinarria behar bezala aukeratuz gero eta oinarria ezagutuz gero, forma eratorria sekula entzun edo irakurri ez duten hiztunek ez dutela arazorik erabiltzeko (berek erranik edo, entzunik eta ulerturik), eta beren gramatika jakintzaren araberakoa iruditzen zaiela. Eman dezagun *zimurkor* hitza, segurenaz ere idazlan hau idatzi arte inork gutik entzun edo erabili ez duena, ongi eratu eta erran-nahi garbikoa da *zimurtu* aditza ezagutzen duenarentzat.

Hiztegieta hamarka zenbatzen dira *kor* atzizkia duten sarrerak: I. Sarasolaren *Euskal Hiztegia*, 150ez goiti dira, EEBSeko corpusean 250 baino gehiago, OEHan are gehiago.

Emankortasun hori, bizkitartean, zalantzakoa ere da, zeren ohiko bide-etarik kanpo eratu hitz ezezagunei edo ‘ikasiei’ buruz duda anitz erakusten baitute hiztun askok. Anitzek ez dute intuizio sendorik, eratorpen berriak egi-terakoan atzizkiak izan ditzakeen baldintza sintaktikoez. Gisa horretan, atzizki hau biziki baliatu baitute hiztegi-gileek eta idazleek ere, ez dituzte beti kontuan hartu atzizkiaren ohiko erabilpenari zetxezkion, baina, ez norma gisa, ez bestela ere, hala dirudi behintzat, beren hiztun senean, argi ez zeuzkaten muga batzuk. Ondorioz, *kor* atzizkiak hiztunen hiztegi birtualean duen tokia ez da hain garbia, eta anitz dira hiztegi-gileek bakarrik, edo idazle batek bakarrik erabilirikako mota horretako eratorri zalantzakook⁵. Horregatik hain zuzen

⁵ Corpus batean, eratorpen jakin bati dagozkion formen artean agerraldi bakarrekoen proportzioa handia izatea, berez, emankortasunaren seinale izaten da (Pinker, 1999: 127). Euskarazko corpusen kasuan, halere, gauzak nahasiago dira: alde batetik, corpus aski mugatuak baitira, eta, bestetik, eratorpeneko morfemak modu bortxatuan erabili izan baitira batzuetan (zenbait garaitan oroz gainetik). Horrela, EEBSeko corpusean *a* hasierako letra duten *kor*-en bidezko eratorriak 34 dira, eta haietarik 14 dira agerraldi bakarrekook: *aginkor*, *ahaidekor*, *ahaztekor*, *ahikor*, *aiberkor*, *aitezinkor*, *alaikor*, *aldekor*, *amakor*, *arikor*, *asmakor*, *aspirakor*, *atsalkor*, *aurrezkor*. Hain zuzen, zerranda honetako hitz erdien aurrean gutienik zalantza handi baino handiagoak ditu ni bezalako hiztunak eratorpen horien arauen-araberakotasunaz (*aginkor*, *ahaidekor*, *ahaztekor*, *aldekor*, *amakor*, *aspirakor*, *atsalkor*, *aurrezkor*).

nahi izan dut atzizki hau hurbilagotik aztertu, ea zerbait argi eman zitekeen eratorpen hauei zegozkien gramatikaz.

Hiztegietakako sarrerei behako bat eman ondoan, ikusten da aski laster *kor*-en bidez eratorri izenondo guztiek ez dutela betetzen Lafittek emanikako oinarritzko baldintzetarik bat, hots haien oinarrian ez dela aditz bat aurkitzen. Hiru sailetan banatuko ditugu kasu hauek⁶:

- (2) – *ilezkor*-en eredukoak;
 – *baikor*-en modukoak;
 – *aberekor* bezalakoak.

2.1. Lehen saileko eratorriak arras guti dira hizkuntza bizian, eta direnak ere bakan erabiliak: *hilezkor* eta *hautsiezkor* baizik ez ditut aurkitu Sarasolaren *Euskal hiztegian*, nahiz gisa horretako sarrerak anitz gehiago diren OEHan, hala nola *aseezkor*, *heziezkor*, ... Eratorbide hau berezia da. Badirudi haren iturburua Larramendi (1749) dela. Alabaina, honen hiztegi hirukoitzean horrelako andana bat kausi daiteke: *biurrezkor*, *tolesezkor* ‘inflexible’, *kupidezkor* ‘incompassivo’, *eziezkor*, *zebaezkor* ‘indomable’, *ilezkor* ‘immortal’, ...

Argi da erdarazko *in-* aurrizkia eta *-ible* / *-able* atzizkia ere batera itzuli beharrez eratu zituela Larramendik eratorri horiek. Euskal ordainak bilatzean, Larramendi aditzetik abiatzen bazen ere, ez zituen erdal eratorbideko urratsak ordena berean segitu euskaran, horren ondorioz arauetarik kanpo eratu baitzituen euskal hitzak. Ikus dezagun hori hurbilagotik.

Erdarazko eratorrietan lehenik izenondoa eratzen da, eta ondotik aurrizki negatiboa eransten, kategoria aldatu gabe orduan, aurrizkiekin gertatzen denaren arabera.

- (3a) *domar* > *domable* > *indomable*

Gutziz garrantzizkoa da ordena hau, zeren kontrako ordena onartzeak erran nahi bailuke, adibidez, **indomar* aditza, badela gazteleran. Ez da horrela, haatik, horrek mozten baitu handik harako eratorbidea:

- (3b) *domar* > **indomar* > **indoma-*

⁶ Bazterrean uzten ditut, nire ustez arrakasta guti izan duten *berekor* eta *geurekor* bezalako formak, izenlagun genitiboa oinarrian bide dutenak (ez haietarik eratorri aditzak) eta ohiko arauetarik kanpo eginak direnak. Halaber, Azkuek *Auñamendiko lorea*-n baliatu *eurezkor* forma ere ((*b*)*eurez* + *kor*).

Larramendiren ordainetan, ordea, morfema negatiboa⁷ (*ez*) aditzaren atzean agertzen da lehenik, eta ondotik *kor* atzizkia: [[*il+ez*]*kor*]. Eratorbide horretan, bi arazo ditugu: i) **ilez*, ez haren irudikorik⁸, ez dugu aurkitzen euskarari; ii) ez da ikusten zer kategoriatakoa izan daitekeen elkarketaz eginika-ko horrelako oinarria (ez, gisa oroz, aditza)⁹.

Esan gabe doa mota horretako eratorpenak, *kor* atzizkiaren ohiko arauetarik kanpokoak diren neurrian, ez direla sartzen gure hemengo azterbidean.

2.2. Bigarren saileko formak ere, guti dira: bospasei Sarasolaren hiztegian, haietan aditzondo bat edo zenbatzaile bat aurkitzen baitugu: *baikor*, *betikor*, *ezkor*, *kontrakor*, *orokor*. Hitz horietarik batzuk aldebat sartuak dira egungo euskal hiztegian, besteak bazterrean edo gelditurik.

Baikor, *ezkor* eta *orokor* dira egungo euskaran beren tokia egin dutenak. Lehen biak Azkuek (1905) eskaini zituen, zioenaren arabera Erronkarieratik ekarritik¹⁰. *Orokor*, zenbatzaile batean oinarritua da itxuraz¹¹, segurenaz ere

⁷ Erdarak duen *in-* aurrizkiaren euskal ordaina (Larramendik proposatu hitzetan) morfema beregaina da: *ez*. Alderdi horretarik, elkarketa gisa aztertu behar lirateke (*h*)*ilez* edo (*h*)*eziez* bezalako formak.

⁸ Salbuespen bat edo beste izan daiteke menturaz, hala nola *jakimez*. Ohargarri da, halere, izenondoa dugula orduan (hala eratorrian nola oinarrian), ez aditza.

⁹ J. A. Mujikak oharrarazten didanaz, eratormolde hau onartzen duen hiztuna bestelako azterketa batean oinarritzen bide da, aditzari *kor* atzizkiaren aldaera negatiboa lotuz: [*bil + [ez+kor]*], eta pentsa daiteke, beraz, halakoa izan zela Larramendiren jokabidea ere. Hipotesi horrek azal dezake menturaz zergatik hiztun guztiek ez dituzten berdin gaitzesten eratorpen hauek. Molde horretan eginikako atzizki negatiborik ez dugu euskara arruntean, baina badaiteske hiztunek intuizio desberdinak dituzten halako atzizki konposatuena aitzinean. Horrela esplikatu daiteke, menturaz, gaitzespen maila desberdinak izatea hiztunetan: *-ezkor* atzizkia ez duten hiztunek eratorbide erregularra aplikatuz **hilez* bezalako forma agramatikalak aurkiturik, eratorbidea aldebat gaitzesten dute; aldiz, *-ezkor* atzizkia neurri batean beretua duten edo beretutzat har dezaketen hiztunek, *hil-ezkor* azterketa eginik, hobeki onartzen dute.

¹⁰ 1905eko hiztegian *baikor* sarreraren esanahia hau zen: “hombre que promete mucho, propenso a asentir”, baina 1918ko sakelako hiztegian, geroztik nagusitu den adiera eskaintzen zuen Azkuek: “optimista”. Lehen testu erabilera Azkuerena berarena da, *Euskal Esnalea* aldizkarian (1916), *optimista* adieran; ik. OEH. *Ezkor* sarrera, 1905eko hiztegi gehigarrian agertzen da OEHaren arabera. Halere, *Morfología Vasca*-n (1925: 149) hauxe zioen Azkuek: *Aun no lo he oído del pueblo, pero el roncalés que dice baikor por optimista no estará lejos de valerse de este su correlativo*. *Euskal esnalea* (1916) aldizkarian erabili zuen Azkuek berak lehen aldikotz, *pesimista* adiera horretan. *Positibo* eta *negatibo* adierak anitzez berriagoak dira, eta arras agerraldi gutikoak. Gauza bera erran daiteke ‘apal, umil’ adierarekin *ezkor* izenondoak izan dituen erabilpenez, Mitxelenaen idazkietarik bilduez; ikus OEH.

¹¹ *Hirukor* ere gisa horretan egina, baina arrakasta txikiagoa izan du honek. Beovidek erabili zuen; ik. OEH. *Anizkor* ere kausitzen dugu oraingo zenbait testutan.

gurutzamendu baten ondoko moldaketa baten bidez sortua izan da, lehen agerrialdietan, hogeigarren mendearen lehen partean, *orokar* forma baitugu¹², hots, *kor* atzizkiarekin deus ikustekorik ez dukeen forma bat.

Beste biak, *kontrakor* eta *betikor* ez dira arrakastatsuak izan. Lehena, Añibarrok baliatu zuen, baina beste erabiltzailerik ez du izan geroztik OEHko testu corpusean¹³, eta bat bakarrik EEBBkoan. Bigarrena, Bera & Lopez Mendizabalen (1916) ekarpena izan zen, irudiz, eta hogeigarren mendeko garai (1920-1970) eta inguru jakin batean (Lauaxeta, Orixe, Ibiñagabeitia) bereziki erabilia izan da testuetan.

Sail honetako eratorriak ohiko arauetarik kanpo eginak dira (salbuespen gisa tratatzen ditu halaber CGVA & besteek ere (2000)), nahiz atzizkiaren balio kategoriala (eta gisa batez alderdi semantikoa ere) zaindurik gelditzen diren haietan. Badaiteke, halere, proposamenezko hizberri gintzan baliagarri gelditzen den erabilera hau, hala nola erakustera ematen baitu hogeigarren mendeko *baikor*, *ezkor*, *orokor* bezalako eratorriek izan duten arrakastak.

2.3. Ohiko arauetarik kanpoko hirugarren eratorbidean, oinarria izena da. Azkuek (1925: 147) *-or* eta *-oi* bi atzizkiak aurkez aurk jarri zituelarik, erakustera eman zuen oinarriak gehienetan desberdinak zirela; ez beti ordea:

- i) *oi se agrega solo a temas nominales* eta *denota simpatía, tendencia a un objeto*;
- ii) *or se une a temas verbales con preferencia*, eta *denota propensión a una acción, a la designada por el verbo que le sirve de tema*.

Azkuek zioenaz, beraz, *-oi* beti izenei lotzen bazitzaien, *-or* atzizkiak, aldiz, joera zuen aditzoinen aukeratzeko. Haatik, *con preferencia* erranez, aditzera ematen zuen besterik ere gerta zitekeela. Villasantek ere (1974: 104) ikusmolde hau berriz hartu zuen, gauzak gehiegi argitu gabe, baina *esnekor* bezalako adibide bat emanez bere zerrendetan.

Hiztegietan edo testuetan ere so eginez gero, oinarrian izena duten mota horretako eratorriak aurkitzen dira. Horietan bi talde egin daitezke, oinarriko izena aditz baten edo aditz lokuzio baten osagaia denetz kontuan hartuz:

¹² Gurutzamenduak ekarri duen interpretazioaren berri zuzena ematen digu Villasantek (1974: 104) dioelarik: *Orokor (y la variante orokar) parece provenir de oro + kor = propenso al todo, universal*.

¹³ *Kontrakor* hitza, izenondo gisa erabilia (ikus, bestalde, 4. oharra), *Gero* obraren bizkaierazko itzulpenean bi aldiz agertzen da, 32 eta 53. buruetan, Axularren lanetik bide zuzen-zuzenetik hartua izan gabe: i) *izanic ain kontrakorrac amorea ta gorrotoa*; ii) *Baña aldantza onetan dabiltzala, ez bacarrik ez jaquez arinduco penac, ezpada gueitu aldizca contracoronegaz*. EEBBko adibidean ‘kontradiktorio’ esan nahi du.

- lehenak: *erikor* (*eri(tu)*); *haserrekor* (*haserre(tu)*); *irrikor* (*irri egin*); *kaltekor* (*kalte egin*); *lotsor* (*lotsa(tu)*); ...
- besteak: *abegikor*, *bihozkor*, *onurakor*, *osasunkor*, ...

Lehenbizikoez geroxeago mintzatuko gara (§3.1.), erakustera emanez haietan oinarria aditza dela. Bigarrenekoez, derragun gure ustez ez darraizkiola *kor* atzizkiaren ohiko erabideari. *Kor* atzizkia izenondo erlazionalen sortzeko erabilia da orduan. Tradizio zaharreko corpusetan guti dira horrelako eratorriak: *aragikor*¹⁴ (Ubillos, Guerrico), *eskuor*¹⁵, *manaiukor* eta *manukor*¹⁶ (Axular). Hemeretzigarren mendearen hondarrean eta hogeigarren men-

¹⁴ *Haragikor* hitzaren kasua doi bat nahasiago da, zeren baitirudi eratorbide estandarren araberkoa dela zenbait erabileratan ('haragizko' edo adierazteko, hots, 'haragitzen dena'), baina ez besteetan, non izena baituke oinarrian eta izenondo erlazionala sorrarazten baitu: *adiskidetasun zikiña, maitetasun aragikorra* (Añibarro, *Lora sorta spirituala*).

¹⁵ Azkuek (1925: 148) eskaintzen du 'manual' itzulirik. Adiera horretan izenondo erlazionala da dudarik gabe eratorria. Ordea, J. A. Moguelek egoera-predikatu erabilera ematen dio *eskuor* hitzari 'eskupean' edo adiera izanik, ez baita argi ea gure atzizkia agertzen den hartan egiazki: *gaisotuten garianian badagoz eskuor ta prest sei edo geijago mediku* (J. A. Moguel, *Confesiño ona*); ik. OEH.

¹⁶ Ez dut uste aditza den oinarrian. Formazko argumentuez kanpo (³*manaiakor* eta *manukor* behar baikenuke orduan), aditz horien argumentu egitura nekez ezkontzen da *kor*-en bidezko eratorpenaren ohiko jokabidearekin. Izan ere, oinarriko aditzaren objektua litzateke orduan izenondoaren subjektua, *erabilkor* izenondoaren eradura; cf. *infra* 39. oharra. Iduritzen zait Axularrek aski librokori erabili zuela *kor* atzizkia hitzen sortzeko: haren testuan, *manukor* eta *manaiukor* bezalakoen ondoan, baditugu forman edo erran-nahian bereziak diren *atekabe-kor*, *etorkor*, eta *idurikor* izenondoak ere. Badirudi *atekabe-kor* izenondoak izena duela oinarrian (*atekabeztatu zen*, ez *atekabetu*, aditz eratorriaren forma Axularrentzat; bestalde, pentsa daiteke oinarrian aditza izan balitz, marratxoa ez zukeela erabiliko), eta atzizkiak nolabaiteko balio kausatiboa du ('atekabea dakarrena': *han gauza itsusien, izigarrien, nardagarrien eta atsekabe-korren begi-esteaz dolorezki penatuko baita*). *Etorkor* izenondoak, berriz, erabide iluna du. Oinarrian aditzoina du, baina ez da aise haren adiera aditzaren usaiaiko balioarekin lotzea (Pouvreauk hitza agertzen den perpausaren aipua eskaini zuen bere hiztegian, baina hitza itzuli gabe utzirik). Sarasolak, *Euskal Hiztegian*, honela mugatzen du hitza: 'inoren iritzietara erraz etortzen dena' (ondotikako beste erabilera batzuk eta beharbada *bat etorri* esapidea kontuan harturik). Zalantzakoa da mugatze hori Axularren erabilerari zuzenean ote darraion, Axularrek jainkoaz mintzaturik erabili baitzuen izenondoa (*pazientiatsu* izenondoarekin batean) eta ez baitirudi Axularren jainkoari dagokion horrelako propietatea (gogora dezagun, bestalde, *bat etorri* esapidea, ez dela agertzen ez Axularren lanean, ez lapurterako tradizioan). *Idurikor* izenondoak ere adiera markatua du ('méfiant, soupçonneux', cf. OEH) forma eratorriak oinarriari kolore berezia erantsirik: *konzientzia gaixtoa (...)* *bethi da gogan behartsu, idurikor, gibel beldurti eta sosegu gabe, zeren nola bera baita gaixto, uste du ezen bertzeak ere hala direla* (§292). Ohartzekoa da eratorpen zuzena izanik (*iduritu* aditzetik abiaturik) halako denotazio berezia duela forma eratorriak. *Iduripen* hitza, adibidez, ez da molde berean agertzen literaturan (literaturako lehenbiziko agerraldiak geroztikakoak dira, Belapcyren katiximakoak). Halere, Pouvrearen hiztegian *iduripena* 'soupçon' itzulia da.

dean bereziki aurkitzen dira hegoaldeko idazle batzuen lanetan: *aberekor*, *biozkor*, *lurkor*, ... Iturzaeta izan zen bide hau bereziki bultzatu zuena. Asteteren ikasbidearen azalpenetan, besteak beste forma hauek erabili zituen (ondoan ematen dugu itzulpena):

- (4) *aberekor*: animal, bestial
aldekor: parzial, partial, partiel¹⁷
denporakor: temporal, temporel
dontzellakor: virginal, virginel
espiritukor: espiritual, spirituel
kristinaukor cristiano, chrétien
lurkor: terrenal, terrestre
sakramentukor: sacramental, sacramentel
urikor: civil

Gisa horretako erabilerak, atzizkiaren ohiko erabileratik kanpo daude, bai oinarriaren kategoriari dagokionez, bai esanahiari dagokionez. Baldin, gorago, 2.1. puntuari, arras guti baziren aditzoina oinarrian ez zuten kasuak, oraingoan gehiago dira testu corpusetan aurkitzen direnak.

Zaila da argiki zehaztea zein diren euskal hiztegian egiazki sartu diren gisa horretako eratorriak, eta zein errorik egin gabe atarian gelditu direnak: *anaikor* adibidez, lehenbizikoen artean sar genezake, *izatekor* ‘erraz edo maiz gertatzen dena’ (Iturzaeta), *bakeor* (Azkue, 1925: 148) eta *beriotzakor* (Arana, Legaz), aldiz, errorik egin ez duten bigarrenen artean. Galdegin daiteke, menturaz, kontuan harturik gaurko euskal hiztun anitzek atzizki horren aurrean duten segurtamenik eza, ea molde horretako eratorri onartuak salbuespen lexikal gisa tratatzeko diren, ala adierazten ote duten emankortasun urriko eratorbide bat, proposamezko hizberrietan beharrez izenondo erlazionalen sortzeko baliagarri litzatekeena. Badirudi, gaurkotz bederen bazterturik gelditu direla *atseginkor*, *gizakor*, *lurkor*, *ohikor*, *zerukor* bezalako proposamenak, eta beraz ez duela arrakasta handirik izan jokabide honek, horrek ez baitu erran nahi, jada errana dugun bezala, molde horretako eratorri guztien kasua izan dela.

Dena den, azken mota honetako eratorriak, aurreko biak bezala, *kor* atzizkiari dagokion eratorbide ohikotik kanpokoa izanik, ez dugu hemendik aitzinako azterketan sartuko.

¹⁷ Adiera batean, *aldekor* izenondoa oso izendoari kontrajartzen zaio: *osoak eta aldekorrak* (Iturzaeta); beste adieran, *-en aldeko*, *alderdikari* erran nahi du.

3. OINARRIAREN NOLAKOTASUNA

Eratorbide ohikoan, beraz, *kor* atzizkiak aditzak aukeratzen ditu. Komeni da ikustea zer gisatan gertatzen den aukeratze hori; hots, zer aditz forma hautatzen duen atzizkiak, eta zer gisatan uztartzen den eratorria aditz horietako argumentuekin.

3.1. Euskal eratorbidean gertatzen ohi denaz, atzizkia lotzen zaion oinarria aditzoina da¹⁸, eta ez da aurkitzen oinarriari dagokion baldintza fonologikorik¹⁹. Beraz, bestelako baldintzak beteak direnean, hitz bakarreko aditzoin era guztiei lot dakieke atzizkia, ondoko adibideek erakusten duten bezala:

- (5a) *eror(i)* → *erorkor*
egon(Ø) → *egonkor*
gal(du) → *galkor*
hauts(i) → *hauskor*
haz(i) → *hazkor*
hil(Ø) → *hilkor*
igo(Ø) → *igokor*
joan (Ø) → *joankor*
sar(tu) → *sarkor*
urrikal(tu) → *urrikalkor*

Zenbait kasutan gauzak ez dira gorago eman adibideetan bezain argi:

- (5b) *ahalkor* < *ahalke* + *kor*
dardarakor < *dardara* + *kor*
gizenkor < *gizen* + *kor*
goibelkor < *goibel* + *kor*
haserrekor < *haserre* + *kor*
pozkor < *poz* + *kor*
samurkor < *samur* + *kor*
ustelkor < *ustel* + *kor*

¹⁸ Erran gabe doa aditzoinaren kontu hau modu nahasiagoan agertzen dela Mendebaldeko testuetan, haietan aditzoina eta partizipio burutua itxura berekoak baitira: *aztukor*, *berandukor*, edo *galdukor*, *ausikor*, *jausikor*, ... ere agertzen dira, beraz, hango idazlanetan.

¹⁹ Gertatzen baita euskalki batzuetan aditzoinaren bukaeran *-t* izatea (etimologikoa izanik gehienetan), zenbait idazlek idazten dute *-t* hori, ondotik herskaria hasten den atzizkia erantsirik ere: *berantkor*, *lotkor*, ...

Adibide horietan guztietan oinarriaren kategoria izena edo izenondoa dela pentsa daitekeen arren, badakigu itxura kontua dela kasu honetan. Izan ere, izenak eta izenondoak aditz eratorrien oinarri izan daitezke euskaraz, eratorratzizkia agerikoa izan gabe²⁰, eta hala da dudarik batere gabe (5b)ko izenondoetan. Izenondo horien egitura honelakoa da, beraz:

- (6) [[[*ahalge* I]-Ø A]-*kor* IO]
 [[[*ustel* IO]-Ø A]-*kor* IO]

Beste kasu batzuetan dudak ditugu ea eratorria eratorbide ohikotik kanpo moldatu den egiazki. Horrela gertatzen da oinarrian aditz lokuzioetako izenak dituzten eratorrietan: *irri(kor)*, *ihes(kor)*, *kalte(kor)*,²¹ ... Dakigunaz, *garri* atzizkiarekin kontu bera agertzen da (Artiagoitia 1995). Atzizki hura ere aditzoineri lotzen zaie, baina kasu batzuetan [IZENA + *egin*] lokuzioetako izenei ere: *barregarri*, *negargarri*, *penagarri*.

Dena den, azpimarratzekoa da *kor* eta *garri* desberdinki jokutzen direla aditz lokuzioak aukeratzekoan. *Garri* atzizkia, euskalkien arabera, aditz lokuzio osoari erantsirik ager daiteke, edo lokuzioko izenari berari josirik:

- (7a) *irrigarri* = *irri egingarri*
negargarri = *negar egingarri*
penagarri = *pena egingarri*

Hiru adibide horietan ikus dezakegu *garri* atzizkiaren bidez eratorri izenondoak bi forma dituela, bat zuzenean lokuzioko izenaren gainean moldatua, eta bestea lokuzioko aditzaren gainean eraikia (lokuzio osoa izanik oinarrian). Haatik, horrelako bikoiztasunik ez da aurkitzen *kor* atzizkiaren bidez moldatu eratorriekin²², hau ez baita aditz lokuzio osoen ondotik agertzen ahal:

²⁰ Eztabaida guti sortzen duen puntua da hau, eta, toki eskasez, ez ditut aipatzen horretarako eman daitezkeen argumentuak; ikus, adibidez, *garri* atzizkiaren kasuan, Artiagoitia 1995.

²¹ Iztuetak *laprastkor* (*laprast-korra* idatzirik) erabili zuen, iduriz *laprast egin* lokuzioko lehen osagaia izenondoaren oinarrian izanik. Oinarri horren kategoria izena bide da, baina *laprastean* eta *laprast egin* sintagmetarik aparte ez da aurkitzen *laprast* forma bera erabilirik.

²² Bi izenondo baizik ez ditut aurkitu OEHko testu corpusean: *usain egingor* (Arrese, *Olerki berrizte*, 69), eta *utseginkor* (Orixe, *Quiton arrabarekin*, 'engainagarri' adieran, eta Inza, *Kristau ikasbidearen azalpena*, 'huts egin dezakeena' adieran). Euskarak hainbeste [IZEN + aditz] lokuzio izanik, adierazgarria da gisa horretako hitz gehiago ez izatea, eta direnak ere agerraldi urrikoak izateaz aparte, garai eta giro jakinekoak izatea. (*Atsegin* hitza, *atseginkor* eratorriaren oinarrian dena, bestelakoa da hartan bigarren osagaiak (-*egin*) adiztasuna galdua baitu.)

- (7b) *kaltekor* vs **kalte eginkor*
irrikor vs **irri eginkor*
iheskor vs **ihes eginkor*

Halaber, *irristatu* / *irrist egin*, *jauzi* / *jauzi egin*, edo *dirdiratu* / *dir-dir egin* bezalako bikoteak direnean, hitz bakarreko aditza baizik ez da aurkitzen *kor*-en bidezko eratorpenetan:

- (7c) *irristakor* vs **irrist eginkor*
jauzkor vs **jauzi eginkor*
dirdirakor vs **dir-dir eginkor*.

(7a,b,c)ko zerrendetako izenondoen oinarrian aditz kategoriako osagaia dugu. Ordea, *kor*-en bidezko eratorpenetan hitz bakarrekoa izan behar baita oinarria, aditzaren parte 'lexikala' dakarren izen inkorporatua soilik (*irri*, *kalte*, *ihes*, ...) agertzen da izenondoaren oinarrian bi hitzeko aditz lokuzioa denean. Badaiteke analogiaz-edo moldatu salbuespenako direla eratormolde horiek, zeren oso kopuru tikian aurkitzen baitira, eta modu horretako beste lokuzioekin ez baitugu *kor*-en bidezko eratorririk aurkitzen: **eztulkor*, **lokor*, **negarkor*, ...

Erran daiteke, beraz, salbuespenak salbuespen, *kor* atzizkiak hitz bakarreko aditzoinak aukeratzen dituela.

4. KOR ATZIZKIA ONARTZEN DUTEN ADITZ IRAGANGAITZAK

Kor-en bidez moldatu izenondoek aditza baitute oinarrian, ikertu beharra da zer gisatan oinarriko aditzaren izaera sintaktikoak baldintza dezakeen eratorpena (ik. Azkarate & Gràcia 1995; GCVA & beste, 2000: 484-489).

4.1. Artiagoitiak (1995), *garri* atzizkia azterturik, dio argumentu biko morfemei lotzen zaiela, eta Azkarate & Gràciak (1995), bai eta GCVA & besteek (2000) ere, *kor* atzizkia ikerturik, diote gehienetan barneko argumentua duten oinarri monadikoak eskatzen dituela.

Azken irizpide hau abiapuntutzat hartuko dugu hemengo ikerketan ere, argumentu bakarreko oinarria duten eratorriak aztertuz lehenik.

Irudika dezagun zer gisaz hartzen duten *kor* buru duten izenondo horiek beren argumentua oinarriko aditzaren argumentu-egituratik:

(8a) aditza + *kor*
 | |
 $y_i \rightarrow y_i$

(8b) *erori* (y_i) \rightarrow *erorkor* (y_i)²³

(8a)n *erori* aditzak argumentu bakarra du, argumentu hori mugimendu aditz baten tema delarik. Hura da izenondo eratorriaren subjektua:

(8c) *Arbola honek hosto erorkorrak ditu*

Bi argumentu dituzten aditz iragankorrek, alderantziz, ez dute biderik ematen *kor* atzizkiak aukera ditzan.

(9a) *irakur* (x_i, y_j) \rightarrow **irakurkor* (y_j)

(9b) **Liburu hauek irakurkorrak dira*

(9)an aipatzen den *irakurri* aditzak bidea libre uzten du kanpoko argumentuaren ezabatzeko, hala nola gertatzen baita pasibo inbertsonaletan (9c):

(9c) *Liburu hauek aise irakurtzen dira*

(9c)ko aukera izanik ere, **irakurkor* ‘aise irakurtzen dena’ eratorria gaizki eratua da.

Bide beretik, alternantzia iragankorra duten NOR aditz inakusatiboak (*bil, galdu, usteldu, sartu, ...*) *kor* atzizkiaren oinarri direnean, izenondoa aditzaren forma iragangaitzari dagokio eta ez iragankorrari. Beha ondoko adibideei:

(10a) *Noizpait oro hilen gara* \rightarrow *Oro hilkorrek gara*

(10b) *Bizi penera kondenatuak dira* \rightarrow #*Kondenatu hilkorrek dira*

(11a) *Haren hitzak barna sartzen ziren gure baitan* \rightarrow *Hitz sarkorrak ziren*

(11b) *Tresna hauek erabiltzaileek aise sartzen dituzte behar den tokian* \rightarrow
 **Tresna sarkorrak dira*

(10-11a,b)ko adibide paretan ikus daiteke *kor* atzizkiak oinarriko aditza bere erabilera iragankorrean aukeratzen duelarik, eratorpena gaizki eratua dela. *Hilkor* eta *sarkor*, beraz, ezin erran daitezke norbaitek aise hil dezakeenaz edo norbaitek nonbait aise sar dezakeen gauza batez, baina bai ordea, berez hiltzeko edo zerbaitetan sartzeko erraztasuna duenaz. Kontuan har bedi, (9c)n bezala, (11b)n ere, aditza kanpoko argumenturik gabe ager daite-

²³ Hemengo errepresentzioetan y barneko argumentuari dagokio. Haren indizea baliatzen da izenondo eratorriaren argumentuarekin den erreferentziakidetasuna seinaltzeko.

keela joskeran (perpauis inperpsonala sortuz), baina halere eratorpena ezinezkoa dela.

Beraz, argumentu bakarreko NOR aditz inakusatiboak *kor*-en bidezko eratorbidean balia daitezke, haien subjektua izenondoaren subjektua ere izanik. Ondotik (12) biltzen ditugu puntu honi dagozkion zenbait adibide:

- (12) *Kor* atzizkiak aukera ditzakeen NOR-aditzak, argumentu subjektua izanik izenondoaren subjektua:

X aise ahalgetzen da → *X ahalkorra da*
X aise aldatzen da → *X aldakorra da*
X aise bekaizten da → *X bekaizkorra da*
X zuhaitza aise (fruituz) betetzen da → *X zuhaitza betekorra da*
X aise eritzen da → *X erikorra da*
X aise erortzen da → *X erorkorra da*
X ongi hazten da → *X hazkorra da*
X aise izitzen da → *X izior / izikorra da*
X aise mintzen da → *X minkorra da*
X aise usteltzen da → *X ustelkorra da*

Kontuan har bedi ez direla NOR-aditz guztiak on eratorbide honetan oinarri gisa agertzeko. Kontsidera ondoko zerrenda:

- (13) **askalkor*
 **burlakor*
 **jazarkor*
 **jostakor*
 **jokakor*
 **mintzakor*²⁴
 **solastakor*
 **trufakor*

(13)ko eratorrien ezaugarria da oinarriko aditzen subjektuak agente egin-kizuna duela. Ikus daitekeenaz, semantikoki inergatiboak diren horrelako aditzekin eratorbidea moztua da, nahiz oinarriko aditza NOR-aditz iragan-

²⁴ *Mintzakor* izenondoa agertzen da OEHan. Guztiz bakartua da, ordea, OEHko testu corpusean bi agerraldi baizik ez baititu: *Pouvreauk* behin erabili zuen eta *Alzagak* beste behin. *Mintzatu* NOR-aditza izanagatik, semantikoki aditz inergatiboa da eta haren subjektua agente gisa defini daiteke erabilera kanonikoetan. Azpimarratzekoa da, gisa guztiez, ditugun bi adibide bakartu horietarik batean izenondoaren subjektua ez dela gizakia: *begi mintzakorrak* (Alzaga); ikus OEH.

gaitza den (iparraldeko erabilera nagusian bederen). Horrek erakustera ematen du *kor*-en bidez sortu izenondoari datxekion argumentu egitura eta aditzari dagokiona loturik badaude, atzikiaren argumentuak [-AGENTE] ezaugarria duela.

- (14) *aditza + kor*
 | |
 ARG_i x_i [-AGENTE]

Lotura hau adierazteko erranen dugu atzizkiak baldintzatzen duela oinarriko aditzetik hartzen duen argumentuaren theta-eginkizuna, agente-argumentuak baztertuz:

- (14) **mintza + kor*
 | |
 [AGENTE]_i *x_i

Kontuan har bedi argumentuaren agentetasuna aldakorra duten zenbait aditzetan, alternantzia ere izan behar genukeela *kor*-en bidezko eratorbidean. Badirudi horrela gertatzen dela. Har dezagun *joan* aditza. Haren argumentuak agente edo tema eginkizunak izan ditzake erabilera desberdinetan, ondoko adibideek erakusten duten bezala:

- (15a) *Haur hori beti norabait joaten da*
 (15b) *Denbora aitzina doa*

Lehen adibidean *joan* aditzaren subjektuak agente eginkizuna du, bigarrenean, aldiz, tema eginkizuna. Ikus dezakegu *kor*-en bidezko eratorpena bigarren kasuan baizik ezin obra daitekeela:

- (16a) **joan + kor* → **Haur hori joankorra da*²⁵
 | |
 [AGENTE]_i *x_i
- (16b) *joan + kor* → *Denbora eta dirua joankorrak dira*
 | |
 [TEMA]_i y_i

4.2. Euskarazko argumentu bakarreko aditzak NORK-aditzak ere izan baitaitezke batzuetan, ohargarria da NOR-aditzez erranek berdin balio dute-

²⁵ *Etorakor* izenondoa kontradibide gisa agertzen da. Axularrenganik datorren hitz horren estatutua ez da oso argia, izenondoak duen adieran ('besteekin errazki moldatzen dena') *etorri* ez baita mugimendu aditza; ik. 16 oharra.

la haientzat ere; hots, *kor*-en bidezko eratorpenari bidea zabal diezaiokete haien argumentua agente ez denean:

- (17) *Kor*-en bidez sortu izenondoetan oinarri izan daitezkeen NORK-aditzak:

X-k distiratzten du → *X distirakorra da*
X kolak aise hartzen du → *X kola harkorra da*
X-k ihes egiteko joera du → *X iheskorra da*
X-k irauten du → *X iraunkorra da*
X-k aise irri egiten du → *X irrikorra da*²⁶
X-k kalte egiten du → *X kaltekorra*²⁷
X-k beti luzatzen du → *X luzakorra da*
X-k plazer egiten du → *X plazerkorra da*²⁸

(17)ko aditzak iragangaitzak dira, objekturik ez dutenak, hots²⁹. Hala da zerrendan agertzen den *hartu* aditzaren kasuan ere. Izan ere, *hartu* aditza, *kola horrek laster hartzen du* bezalako perpaus batean edo xertatzean *ongi hartzen duten landareez* erraten denean, ez da aditz iragankorra (kolak edo landareek ezin dezakete zerbait har aipatzen dugun adiera berezian).

Izenondoaren oinarriaren argumentuaren agentetasuna dela-eta, NOR-aditzekin ikusirikako muga berak kausitzen ditugu NORK-aditzekin ere. Adibidez, *iheskor* izenondoa, *joankor* izenondoa bezala, ongi erabilia izanen da *ihes egin* aditzaren argumentua ez bada agentea:

- (18) *Denbora iheskorra da* vs **Gaixtagin horiek iheskorrak dira*

Halaber *kaltekor* izenondoa ez daiteke erran agente batez, baina soilik instrumentu batez:

²⁶ *Irrikor*, Oihenartek eskaini erretrauen bidez ezaguna da bereziki. Jadanik erran bezala, gisa bereko aditz lokuzioekin ez dugu parekorik aurkitzen : **negarkor*, **lokor*, **eztulkor*, etab...). Bestalde, oharrarazten dut *irrikor* eta *irrigarri* ez direla adiera berekoak. Lehenaren subjektua *irri egin* aditzaren subjektua da (esperientzialaria edo), bigarrenaren subjektua, berriz, *irri egin* aditzari aplikatzen zaion isileko eratorpen kausatibo baten subjektua (agente edo instrumentua).

²⁷ Badirudi *kaltekor* Iparraldekoa dela eta bereizketa dialektala dela *kaltegarri* izenondoarekin (azken hau Hegoaldean erabiltzen delarik); ikus OEHko datuak.

²⁸ *Plazerkor* forma dudazkoa edo ezinezkoa da niretzat eta galdata diedan hiztunentzat. Aurkitzen da, halere, Larzabalen idazlan batean, subjektua instrumentua izanik: *Ohartuko gira bertzalde Chirritaren koblak, beren musika eta puntuez, zoin plazerkor diren beharrientzat.* (P. Larzabal, *Pertsulari aipatu bat: Chirrita*, 1958)

²⁹ Horrela kontsideratzen ditugu, beraz, *ihes egin*, *irri egin* edo *kalte egin* bezalako aditz lokuzioak, lexikoian berean NORK-aditz inergatiboak bihur daitezkeenak izena inkorporatu ondoan.

(19a) *Ohitura kaltekorrak* vs **Etsai kaltekorrak*

4.3. Gaineko adibideetan ageri denaz, oinarrian duten aditzen subjektuez predikatzen dira *kor*-en bidez sortu izendondoak. Ohargarria da, halere, agentetasuna kanpoan utzirik, subjektu horiek eginkizun desberdinak dituztela. Sailkapen hau egin dezakegu mementoan:

(20) *Kor*-en bidez eratorri izenondoetan oinarriko aditzen subjektuek dituzten theta-eginkizunak:

- aldi edo mugimendu-aditz baten tema: *biratu, isuri, ihes egin, joan, lerratu, luzatu, sartu, iraun, ...*
- egoera-aldaketa baten tema: *eritu, gizendu, hautsi, hil, lebertu, mudatu, usteldu, zabaldu, zikindu, ...*
- egoera psikologiko bat adierazten duen aditz baten esperientzialaria: *ahalketu, bekaiztu, beldurtu, haserretu, izutu, jelostu, samindu, ...*
- ekoizpen aditz baten instrumentua: *distiratu, kalte egin, ...*

Orain arte ikusiak laburbilduz, eta axaleko deskripzioan gelditurik, (21)eko hurbilketa jar dezagun:

(21) Lehen hurbilketa: *kor* atzizkiak argumentu bakarreko aditzak aukeratzten ditu; argumentu hura da izenondoaren subjektua, baldin eta agente ez bada.

5. KOR ATZIZKIA ETA BARNEKO ARGUMENTUA LEXIKOIAN ASE DEZAKETEN BI ARGUMENTUKO ADITZAK

Orain artino ikusi argumentu bakarreko aditzek iturri aberatsena eta emankorra eskaintzen badute ere *kor*-en bidez eratorri izenondoen sortze-ko, ezin erran daiteke aditz haietan mugatzen dela eratorbide hau. Beha ondoko adibideei:

(22a) *Arbola horrek anitz fruitu ekartzen du* → *Arbola ekarkorra da*

(22b) *Gauzak aise ahazten zaizkit* → *Abazkorra naiz*

(22)ko adibideek erakustera ematen digute argumentu bakarreko aditzez kanpo ere sortzen dela eratorbide hau, eta ez dirudi kasu horietan salbuespen lexikal gisa aztertzeke ditugula izenondo eratorriak:

- (22a)n, aditza NORK-NOR erako aditz iragankorra da;
- (22b)n, aditza NOR-NORI erako psiko-aditza da (*psy-verb*);

Horrek (21)eko gure hurbilketa baztertzera bortxatzen ote gaitu? Edo behar ote ditugu bi atzizki bereizi, edo hiru berdin, (22)ko bi kasuak ez badiugu azterketa batean biltzen ahal? Erran gabe doa gramatikariak ezinbestean baizik ez duela jotzen holako soluzioetara, eta nahiago duela arau bakar baten pean ezarri morfema bakarrari dagokion eratorbidea, *kor1*; *kor2*, *kor3*, ... bereizten hasi gabe. Hain zuzen, horren egitera saiatuko gara hemen, erakustera emanez (22)ko eratorbideak (21)ko lehen hurbilketarekin bateragarri izan daitezkeela.

Ikus ditzagun bi kasuak bat bestearen ondotik.

5.1. Objektu kanonikoa lexikoian asetzen duten NOR-NORK aditzak

- (23) NOR-K-ZER erako aditzak, *kor*-en bidez sortu izenondoetan argumentu ergatiboa izanik izenondoaren subjektua:
X-k anitz adierazten du → *X adierazkorra da*³⁰
X arbolak anitz ekartzen du → *X ekarkorra da*
X-k anitz ematen du → *X emankorra da*
X-k anitz jasaten du (oldartu edo amore eman gabe) → *X jasankorra da*
X-k anitz pairatzen du (amore eman gabe) → *X pairakorra da*
X-k aise sentitzen du → *X sentikorra da*
X-k aise sinesten du → *X sineskorra da*

(23)ko adibideetan izenondoaren subjektua oinarriko aditzaren subjektu ergatiboa da, eta badirudi beste argumentu bat ere badela aditz horien argumentu egituran, zeren, (17)koak ez bezala, berez aditz iragankorrak baitira hemengo aditzak: zerbait adierazten, ekartzen, ematen, jasaten, pairatzen, sinesten, ... da. Iduri luke beraz, (21)eko hurbilketaren eta lehen erran dugunaren kontra doazela adibide horiek, eta aditz iragankorrak ere aukera ditzakeela *kor* atzizkiak.

Bizkitartean, badaiteke itxurazkoa baizik ez den kontraesan hau, eta horretara doa hain zuzen hemen aurkeztuko dudan azterbidea, horretarako (23)ko eratorpenetan oinarriko aditza argumentu bakarrekoa dela argumentatuz. Rizzik (1986) proposatzen du Proiekzio Printzipioa aplikatzen dela lexikalki asegabe gelditzen diren theta-eginkizunekin. Ikuspegi horretan, *John ate* — edo *I know* — bezalako perpausen aztertzeke, adibidez, kontsideratuko du

³⁰ *Adierazkor* izenondoak, Larramendik (1749) eskaintzen bazuen ere agerraldi guti du OEHan, eta denak aski berriak. *Adierazgarri*-k anitzez gehiago badu. Halere gaurko hiztegian sartua dela erran daiteke.

ez dela joskeran kategoria isilik, baina barneko argumentuaren theta-eginkizuna lexikoian ase delarik, hitz batean, objektu kanoniko edo prototipikoari dagokion theta-eginkizuna lexikoian gauzatua dela. Azterbide hau ontzat emanaz, *kor* atzizkiaren eratorpena lexikoigintzako maila horretan obratzen dela erranen dugu. (24)ean agerrarazten dugu nola den oinarriko aditza aztergai dugun eratorpenean:

(24) [y-]ekarri (x)

Kor atzizkiak objektu kanonikoa lexikoian aserik daukaten aditzak aukera baditzaiteke, horrela azal daiteke (23)ko zerrenda. Azalpen horren alde mintzatzen da datu hau: *kor* atzizkia duten (23)ko izenondoak ezin ager daitezke ondoan objektu bat dutela. (25)ean ikusten dugu *arbola fruitukorra*³¹ sintagmaren sinonimotzat jo daitezkeen hiru molde hauetan bat gaizki egin delarik:

(25a) *arbola fruitu ekarlea*

(25b) *arbola ekarkorra*

(25c) **arbola fruitu ekarkorra*

Ekarle eta *ekarkor* eratorriek *ekarri* aditza dute oinarrian, eta haien subjektua oinarriko aditzaren NORK argumentuaz predikatua da. Lehenbizikoa bakarrik ager daiteke ondoan aditzaren objektua duela: (25a) ongi eratua da, ez, ordea, (25c), nahiz *arbola ekarkorra* fruitu ekartzen duenari erraten zaion. Puntu hori ongi esplikatzen da baldin eratorketa obratzerakoan eratorpenaren oinarriko aditzak argumentu objektiboa lexikoian gauzatua badu.

Gorago, 4.2. puntuan, ikusi bezala, argumentuaren theta-eginkizuna (23)ko aditzetan, esperientzialaria (*jasan, sentitu, sinetsi, ...*) edo instrumentua (*adierazi, ekarri, eman, ...*) da; baina ezin izan daiteke agentea³²

³¹ Etxeberri Sarakoak *arbola fruitukorra* itzuli zuen Haserako (1, 12) *lignum pomiferum: arbola fruitukorra, bere muetaren eredura fruitua ekhartzen duena* (Etxeberri Sarakoa, *Obras vascongadas / Lan osoa*, 90). Kasu honetan *fruitutu* aditza, itxura guztien arabera ongi eratua, dukegu oinarrian. Halere, aditz honen lekukotasunik ez dut aurkitu OEHan.

³² Badira, bereziki hogeigarren mendeko testuetan, *erailkor* edo *galdekor* bezalako adibideak, franko bakartuak, kontradibide diruditenak, zeren subjektu agentiboa eskatzen baitute. Azpimarratzekoa da, halere, diren adibideetan bizigabe bat dela izenondoaren subjektua (ez, beraz, agente bat). Horrela, *Joanak joan* nobelan Etxaidek *erailkor* erabiltzen du elurraz ari delarik 'erailtzen duena' errateko: *negu latzaren elurrezko maindire erailkorra*. Mirandek ere *galdekor* erabiltzen du behin *Haur besoetakoa* nobelan 'galdetzen duena' edo errateko, *poz* izena izanik subjektua: *Haurra beste zerbait entzun haiduru zatekeen eta haren aurpegiaren agertu zen poz galdekorrak alde egin zuen*. Orduan, §7an aipatzen dugun *hilkor2, gal-kor2* izenondoaren erudia aurkitzen dugu.

Adibidez, *emankor* ezin erran daiteke eskuzabala den norbaitez, eta, halaber, *sineskor* eta *sinestedun* ez dira sinonimo, *sineskor* denari nahi gabeko sinestea baitagokio³³

Ikus dezagun orain NOR-NORI psiko-aditzen kasua³⁴.

5.2. Objektu kanonikoa lexikoian asetzen duten NOR-NORI psiko-aditzak

NOR-NORI psiko-aditzak argumentu bikoak dira. Gutxi dira euskaraz, baina ditugunetan badirudi zenbaitek bederen *kor* atzizkiak aukera ditzaketela. Ikus adibide hauek:

- (26) NOR-NORI erako psiko-aditzetarik sortu *kor*-en bidezko izenondoak (argumentu datiboa izanik izenondo eratorriaren subjektua):
- X-ri gauzak aise ahazten zaizkio* → *X ahazkorra da*³⁵
X-ri gauzak aise gaitzitzen zaizkio → *X gaitzikorra da*³⁶
X-ri jendea aise urrikaltzen zaio → *X urrikalkorra da*

(26)ko adibideak ere, iduriz, (21)eko hurbilketaren aurka doaz, haietan aditzak bi argumentu baititu. Bizkitartean, kasu honetan ere, ikustekoa da ea bestelako azalpenik ez ote dakioken eman azterketari.

Psiko-aditzen azterketan onartzen da argumentu datiboa argumentu absolutiboa baino gorago dela. (Belletti & Rizzi 1988, Artiagoitia 1995), lehen-bizikoak, esperientzialari eginkizuna duela, eta bigarrenak, tema-eginkizuna.

(27a) *ahaztu* (x, y)

³³ Araitik kanpo gelditzen da gisa horretan arras bakarturik agertzen den *ulerkor* izenondoa, Azkuek erabili adieran: *ikasle antsiduna, arretatsua ta ulerkorra, adimen zorrotzekoa* (*Ardi galdua*, 30), non ez den subjektua kasu horretan esperientzialaritzat hartzen.

³⁴ Ez ditut aipatzen NOR-NORK erako psiko-aditzak, *preoccupare* motakoak. Gehienetan euskaraz, NOR-aditz gisa ere agertzen baitira (*beldurtu, ikaratu, alegeratu, poztu, tristetu*, etab...).

³⁵ *Abantzi* aditzaren erregimena aldakorra da (*abantzi dut, abantzi zait, abantzi naiz hartaz*). Badirudi erregimen bakarra duten euskalkietan, izan dadin hura bata edo bestea, izenondoak berdin era daitezkeela *kor*-en bidez.

³⁶ ZER-NORI jokabidea maizkoena da *gaitzitu* edo *urrikaldu* aditzen kasuan, baina NOR (-ZERTAZ) moduan ere agertzen dira batzuetan aditz hauek, esperientzialaria absolutibon izanik: *Jainkoa urrikalduko da zutaz; Hori entzutean, lagunak gaitzitu ziren*). Eratorpena bi bideetarik eman daiteke.

Kasu honetan ere, ordea, barneko argumentuaren theta-eginkizuna lexikoian asetzen bada, asegabeko argumentu bakarra duela ager daiteke aztertzen dugun eratorpenean:

(27b) [y-]abaztu (x) {x_{esper} → DAT}

Dakigunaz, *abaztu* / *abantzi* aditza NOR-NORK aditz gisa erabiltzen baita ekialdeko euskalkietan, paralelotasun osoa genuke puntu horretan:

(27c) [y-]abantzi (x) {x_{esper} → ERG}

Lexikoian gerta daitekeen argumentu-asetzea lexikalki mugatua da, aditz guztiek ez baitute ezaugarri hau. NOR-NORI psiko-aditzen kasuan, adibidez, *gustatu* aditzak ez du. Konpara ditzagun ondoko perpausak, non tema-argumentua lexikalki ase baita:

(27d) **Zahartzean gaztean baino aiseago gustatzen zaigu*

(27e) *Zahartzean gaztean baino aiseago abazten zaigu*

Ikus daitekeenaz, kontraste garbia da goiko bi adibideen artean. (27d) gaizki moldatua da *gustatu* aditzak eskatzen baitu tema-argumentuari dago-kion DS bat³⁷ syntaxian gauzatua. (27e), aldiz, ongi eratua da, aditz horrek onartzen baitu tema eginkizuna lexikoian ase izan dadin. Igurika zitekeen bezala, *kor*-en bidez ezin erator daiteke izenondorik lehenbiziko aditzetik, bai ordea, bigarrenetik:

(28) **gustakor* vs *abazkor*

6. IZENONDOAREN SUBJEKTUA ARGUMENTU LOKATIBOA DENEAN

Orain artino ikusi ditugun kasu guztietan, *kor*-en bidez sortu izenondoaren subjektua oinarriko aditzaren argumentu subjektuari zegokion. Theta eginkizuna desberdinak izan zitzakeen subjektu horrek, baina beti aditzaren argumentu subjektuari zegokion. Bada, halere, eskema orokor honetarik kanpo agertzen den kasu bat. Ikus ondoko adibidea:

³⁷ *Iruditu* aditzaren kasua ere horrelakoa da: **Gaztean aiseago iruditzen zaigu*. Gure azterketaren arabera, beraz, *irudikor* izenondoa ez litzateke *iruditu* NOR-NORI aditzetik era erregularrean sortua. Izenondo honen erabilera nagusiaren lehen agerpenaz, ikus 16. oharra. Hitza irakurketen bidez ikasirik aurretik ezagutzen ez zuten hiztunek ez didate onartu inkestan Axularrek eman adieran (bai, ordea, zenbaitek, ‘irudimen bizia duena’ adieran, baina orduan ez dirudi *iruditu* psiko-aditza dela eratorpenaren oinarrian).

(29) *Bide hau lerrakorra da*

Adibide honetan *lerrakor* izenondoaren subjektua *bide hau* da. Ohartzekoa da ezin ager daitezkeela oinarriko aditzaren subjektu gisa:

(30) **Bidea lerratzen da*

Nola azal horrelako datua gure azterketaren barnean? Gogora heldu den azalpena lehen aipatu dugunaren arabera da: aditz horietan ere tema eginkizuna lexikoian ase litzateke, eta horrelakoetan aditzak argumentu lokatiboa duela onartuz, hura litzateke izenondoaren subjektua:

(31a) *Hemen pro^{espl} aise lerratzen da*

(31b) [y-]lerratu (z) {z → LOK}

(31a) *lerratu* aditzaren tema-argumentua lexikoian ase da, eta ez da agertzen joskera mailan; (perpausaren subjektua izenorde isil espletiboa da; cf. Ortiz de Urbina (1989: 195), Oyharçabal (1989). (31b)n hori erakusten dugu, aditzarekin batean lokatiboa argumentu gisa agerrarazirik.

Dudazkoa da, halere, *lerratu* bezalako aditzekin DS lokatiboa argumentu bati dagokion egiazki. Bestalde, ohartzekoa da aditz hartaz kanpo eta honen sinonimoez kanpo (*labaindu*, *irristatu*, ...), nekez egin daitezkeela horrelako eratorpenak:

(32a) **Eskailera hauek erorkorrak dira* (= eskailera horietan aise erortzen da)(32b) **Langela hau zikinkorra da* (= langela horretan aise zikintzen da)(32c) **Toki leizetsu horiek hilkorrek dira* (= toki leizetsu horietan aise hiltzen da)

Gaizki eratuak badira (32)ko adibideak, eta hiztun gehienentzat hala dela iduri du, horrek erakustera ematen baitu normalean DS lokatiboak ez direla *kor*-en bidezko eratorpenetan argumentu gisa agertzen ahal. Beharbada, *lerrakor*, *irristakor*, *labainkor* moduko eratorpenak, beraz, salbuespen lexikal gisa kontsidera daitezke³⁸.

Azterketa honen ondotik (21)eko hurbilketa doi bat zuzentzen dugu:

(33) Bigarren hurbilketa: *kor*-en bidez eratorri izenondoak asegabeko argumentu bakarra duten aditzen subjektuez predikatzen dira, [+agente] direnak baztertuz.

³⁸ Frantsesez *glissant* izenondoa lerratzea gertatzen den tokiaz erran daiteke. Haatik, euskaran ez bezala, aditzaren subjektua gisa ere ager daiteke eginkizun lokatiboa duen argumentua: *la route glisse*.

7. ATZIZKIAREN BALIO KAUSATIBOA³⁹

Kontsidera ditzagun adibide hauek, hiztun zenbaitentzat, ez denentzat haatik, ongi eratuak direnak:

- (34a) *Ideia honek galduko zaituzte* → *Ideia galkorrek dira*
 (34b) *Pozoi horrek hil dezake* → *Pozoi hilkorra da*
 (34c) *Eritasun horrek kutsatuko zaitu* → *Eritasun kutsakorra da*
 (34d) *Bero horrek itotzen gaitu* → *Bero itokorra da*.

Adibide horietan *kor*-en bidez eratorri izenondo kausatiboak kausitzen ditugu. *Ideia galkorra* ez da (edo ez du zertan izan) berez galtzen den ideia bat, bai, ordea, jendea galbidera daraman bat. Ez da dudarik aurreko kasuetakoa baino markatuagoa dela eratorbide hau, baina hor dugu, aspaldiko testuetan erabilia zenbaitetan, *galkor* izenondoaren kasuan bezala, eta oraindik ere hiztun batzuentzat baliagarri eta emankor.

Eratorbide hau ere barneko argumentuaren lexikoi mailako asetzeari darraio, *ekarkor* eta *emankor* bezala. Bada bizkitartean alde nabarmen bat: (34)eko adibideetako *kor*-en bidez eratorri izenondoetan, oinarriko aditzak NOR eta NOR-NORK aldaerak ditu, ez baita hala gertatzen (23)ko aditzekin. Azken ezaugarri honengatik anbiguo gertatzen da batzuetan zenbait izenondo, irakurketa kausatiboa eta inakusatiboaren artean: *galkor*, adibidez, berez galtzen denaz erran daiteke, edo galbidera daramanaz, orduan *galgarri* izenondoaren sinonimo delarik⁴⁰. Anbiguitatea den kasuetan 1 zenbakia (*galkor1*) erabiliko dugu aldaketaren temaz erraten den izenondoaren seinalatze-ko, eta 2 zenbakia (*galkor2*) aldaketaren eragileari dagokionaren adierazteko.

³⁹ Ez ditut aipatzen testuan oinarriko aditzaren objektuaz predikatzen diren izenondoak, hala nola *erabilkor* ‘maneable, maniable’, *ikuskor* ‘visible’, *jankor* ‘comestible’, *edankor* ‘potable’, ... Eratorri horiek predikatzen dira oinarriko aditzaren objektuaz eta, beraz, urruntzen dira testuan azaldu dugun jokabidetik. Haien estatutua oso dudazkoa baita hiztun askorentzat, badirudi oraindik salbuespen lexikal gisa tratatzekoak direla (*jankor* eta *edankor* izenondoak agerraldi bakarrekoak dira OEHaren arabera, eta *ikuskor* bikoia). Sarasolaren *Euskal Hiztegi*an, *erabilkor* baizik ez da kausitzen eta bihi bat ere ez Euskaltzaindiaren *Hiztegi batuan* (*ikuskor* agertzen da, baina haren orde *ikusgai* erabiltzeko gomendatzeko da). Haietaz lekora kausitzen ditugun molde horretako eratorriak arras guti dira eta usatu gabeak. Halere, erran behar dut nire inkestetan, *eginkor* ‘egin daitekeena’, *errankor* ‘erran daitekeena’, ... onartu didatela iparraldeko zenbait hiztunek.

⁴⁰ Interesanta litzateke ikustea zer gisaz *kor* eta *garri* atzizkiak, gehienetan elkarren kanporagarri direnak, lehian gertatzen diren kasu honetan. Toki eskasez beste idazlan baterako utziko dut azterketa hau *kaltekor*, *distirakor* bezalako formetara ere zabaltzen dena.

Gisa horretako eratorketen estatutua ez da garbia, ez baitituzte hiztun guztiek berdin onartzen, eta onartzen direnean ere, forma batzuk besteak baino errazkiago egiten baitira. Adibidez, *galkor2* izenondoaren balio kausatiboa tradiziokoa da (bestearen ondoan) OEHan ikus daitekeen bezala, eta aiseago onesten dute askok *itokor2* baino (OEHan aurkitzen ez dena).

Erabilera honi datxezkion baldintzetan bi azpimarratzekoak dira:

- i) subjektua ez daiteke agentea izan: horrela, *galkor2* edo *hilkor2* ez daiteke hiltzaile batez erran;
- ii) adierazi gabeko objektua biziduna izan behar da: horrela, *hauskor* izenondoa ez da anbiguo eta ez du interpretazio kausatiborik izaten ahal, jendea ez baita hausten.

Alderdi horretarik, ez da arras egia balio kausatiboa duten *kor*-en bidezko izenondoak eta *garri*-ren bidezko eratorriak sinonimoak direla, zeren lehen baldintza lehenbizikoei ere aplikatzen bazaie (Artiagoitia 1995), ez baitzaie bigarrena egiten: *betegarri* izen / izenondoa edozein gauza bete dezakeenaz erran daiteke, ez ordea *betekor2*, hau, izatekotz, atsegin batez edo janari batez erranen baita, testuinguru horretan oinarriko aditzaren tema-argumentua jendea izanik. Hitz batean *garri*-ren bidez eratorri izenondoak beti ordezkari ditzake balio kausatiboa duten *kor*-en bidez sortuak, baina ez alderantziz. Horregatik segurenaz ere hiztegi arau-emaeleek lehenbizikoei ematen diete lehentasuna, sinonimotasuna gertatzen denean (ik. Sarasolaren *Euskal Hiztegia*).

8. ONDORIOAK

Azterketa hau laburbildurik, ondorio hauetara heltzen gara:

1. *kor* morfema izenondoak sortzen dituen atzizki emankorra da;
2. Euskalaritzako tradizioaren goiti-beheitietan jokabide bat baino gehiago agertu da haren bidezko eratorpenetan, batzuk ohiko arauetaz kanpoko zirenak, bai oinarriaren kategoriaren aldetik, bai oinarri horri dagozkion bestelako ezaugarrien aldetik; horien berri ematera saiatu gara, ohiko arauen araberrako eratorpenak eta besteak elkarretarik bereiziz.
3. Salbuespen lexikal bat edo beste bazterrean utzirik, atzizkiak hitz bakarreko aditzoinak aukeratzen ditu oinarritzat; [X + *egin*] bezalako

lokuzioak ez dira oinarri gertatzen beraz (*irristakor* vs **irrist eginkor*), eta haietako izena ere ez (**lokor*, **eztulkor*); kontrako adibideak (*kaltekor*, *iheskor*, *irrikor*) eskuaren erien gainean konta daitezkeen salbuespen lexikal gisa agertzen dira.

4. Atzizkiak aukeratzen dituen aditzak NOR-aditz iragangaitzak dira eratorbide arrunt, emankorrenean, bereziki mugimendu eta egoera-aldaketa adierazten duten aditz inakusatiboak. Gutiago diren NORK-aditz iragangaitzak ere gerta daitezke eratorri horien oinarrian (*berandu*, *distiratu*, *iraun*, ...). Edonola ere izenondoa predikatzen den izenaren theta eginkizuna temarena (*hauskor*, *joankor*, *iheskor*, ...), edo esperientzialariarena (*ahalgor*, *bekaizkor*, *haserrekor*, ...) da, bai eta, batzuetan behintzat, instrumentuarena (*distirakor*, *kaltekor*, ...) ere; agentearena ezin izan daiteke, ordea (**gizon bazkalkorra*, **haur trufakorra*, ...).
5. Oinarriko aditzaren subjektuaz (psiko-aditzen subjektu datiboez ere) predikatzen da izenondoa, salbu *lerratu* / *irristatu* / *labaindu* aditzen kasuan, non DS lokatiboari baitagokio izenondoaren subjektua. Badirudi salbuespen lexikaltzat har daitekeela erabilera berezi hau, hartarik kanpo ez baitugu antzekorik aurkitzen (**bide erorkorra*, **ibai itokorra*, ...).
6. Argumentu biko zenbait aditzek lexikoian ase baitezakete tema eginkizuna (Rizzi, 1986), argumentu bakarreko aditz gisa ager daitezke *kor*-en bidezko eratorbidea obratzerakoan. Horrela *adierazi*, *ekarri*, *eman*, *sine-tsi* bezalako NOR-NORK aditzak eta *ahaztu*, *gaitzitu*, *urrikaldu* bezalako NOR-NORI aditz psikologikoak kausitzen ditugu *kor*-en bidez eratorri izenondoen oinarrian (*ekarkor*, *emankor*, *ahazkor*, *urrikalkor*, ...).
7. Zenbait euskalkitan aurreko jokabidea zabaltzen da alternantzia inakusatibo-kausatiboa duten aditzetara (*galdu*, *hil*, ...). Horrelakoetan asetzen den tema eginkizuna argumentu bizidun bati dagokio beti, izenondoaren subjektua halere agentea izan gabe: *asmo galkorrak* vs **guraso galkorrak*, *gaitz hilkorra* vs **gudari hilkorrak*, ... Kasu horietan bereziki kausi daiteke *kor* atzizkia *garri* atzizkiarekin lehiatzen.

BIBLIOGRAFIA

AÑIBARRO; P. A. [19. mendearen hastapena] 2001. *Gueroco guero*, B. Urgellen edizio kritikoa, Euskaltzaindia, Bilbo.

ARTIAGOITIA, X. 1995. "Garri atzizkiaren izaera bikoitzaz: Zergatik den maitagarria bezain mingarria", *Anuario del Seminario de Filología Vasca* Julio de Urquijo, XXIX-2/3, 355-405.

AZKARATE, M. 1995. "Sobre los compuestos de tipo 'substantivo + sust/adj deverbale' en euskera", P. Goenaga (arg.) *De Grammatica Generativa*, ASJUren gehigarriak, 38, 39-50.

AZKARATE, M. & GRACIA, L. 1995. "Agentivity and modality in deverbale adjectives in Basque and Catalan", *Revista di Grammatica Generativa*, 20, 3-32.

AZKUE, R. M. 1905. *Diccionario vasco-español-francés*, argitalpen berria, La Gran Enciclopedia Vasca, 1969, Bilbao.

AZKUE, R. M. 1905. *Morfología Vasca*, argitalpen berria, 3 lib., La Gran Enciclopedia Vasca, 1969, Bilbao.

BELLETI, A. & RIZZI, L. 1988. "Psy-verbs and Theta Theory", *Natural Language and Linguistic Theory*, 6, 291-352.

EUSKALTZAINDIA, 2000. *Hiztegi batua*, *Euskera*, 45, 2. Bilbo.

GCVA & beste (Gràcia Solé L., Cabré Castellví M.T., Varela Ortega S., Azkarate Villar M.). 2000. *Configuración morfológica y estructura argumental: léxico y diccionario*, EHU-UPVren argitalpen zerbitzua.

ETCHEBERRI, J. 1907. *Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri (1712)*, J. de Urquijoren argitalpena, P. Geuthner, Paris. Faksimileko argitalpena, *Lan osoa* izenburuaren pean, urterik gabe, Atlantica-reprise, Miarritze.

HUALDE, J. I. *Euskararen azentuerak*, ASJUren gehigarriak 42, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Euskal herriko Unibertsitatea, Donostia-Bilbo.

LAFITTE, P. 1944. *Grammaire basque. Dialecte navarro-labourdin littéraire*. Bigarren argitaldiaren argitalpen faksimilea, 1978, Ikas eta Elkar, Baiona.

OEH (Orotariko Euskal Hiztegia – *Diccionario General Vasco*). 1987-. Euskaltzaindiak argitaratua, 12 liburuki ateraiak orain arte. Desclées De Brouwer & Mensajero, Bilbo.

OEHko testu corpusa, 2000. OEHaren moldatzeko baliatu den tradizio-ko testuetako hitz corpusa. Euskaltzaindiak egindako CD-ROMa. Bilbo.

ORTIZ DE URBINA, J. 1989. *Parameters in the Grammar of Basque*, Foris, Dordrecht.

OYHARÇABAL, B. 1989. "Izenordain espletiboak eta euskal aditzaren morfologia", P. Salaburu (arg.) *Sintaxi Teoria eta Euskara*, EHU-UPVeko Argitalpen zerbitzua.

PINKER, S. 1999. *Words and rules*, Basic books, New York.

RIZZI, G. 1986. "Null Objects in Italian and the Theory of pro", *Linguistics Inquiry*, 17-3, 501-557.

SARASOLA, I. 1996. *Euskal Hiztegia*, Kutxa Fundazioa, Donostia.

VILLASANTE, L. 1974. *Palabras vascas compuestas y derivadas*, Editorial Franciscana Aranzazu, Oñate.

ANTIPASIBOAK EUSKARAN


R.P.G. de Rijk

Pasiboa zer den guztiok badakigu ; izan ere, bi mila urtedun adigaia baita, antzinateko gramatikari greziarrak hartaz mintzatu baitira. Antipasiboa, aldiz, nahiko adigai berria dugu, hizkuntzalariek hizkuntza ergatiboen berri jakin ondoren sortua.

Antipasibo honen kondaira egitean, beti legez, izena eta izana bereizi behar dira. Gertakari bezala, Jerzy Kuryłowicz poloniar hizkuntzalari sonatuak ezin hobeki ezagutzen zuen antipasiboa, 1946. urtean errusieraz argitaratu eta hiru urtez geroago frantseseratu zuen idazlan bat lekuko. Gertakari honek gaur daraman izena, berriz, Michael Silverstein hizkuntzalari amerikarrari zor diogu. Asmatu, 1969an asmatu zuen honek antipasibo terminoa eta erabili ere urte hartako apirilean Harvard Linguistic Circle delakoaren aurrean ukandako mintzaldi batean, bai eta halaber hurrengo azaroan New Orleansen antolatutako “Eighth Conference on American Indian Languages” zelako bilzarrean aurkezturiko antzeko hitzaldi batean. Mintzaldi hauen testua, ordea, ez da behin ere argitaratu izan. Dakidanez, antipasibo deituraren inprentazko lehenbiziko agerraldia Silverstein jaun beronen idazlan batean izan da, 1972. urtean *Language* deritzan aldizkarian agertu zena (ikus aipamenak).

Izen honen sorreraren berri dakigunez gero, dakusagun orain ahalik zehatzen hala deitzen dena zer den. Pasiboaren antzera, antipasiboa diatesi bat dugu, hots, perpausaren antolamendu bat. Zehazkiroxe adierazita, kasu aldaketa sistema batez dihardugu, perpausaren barruko sintagmen eginkizun tematikoa – edo nahi baduzu funtzio semantikoa – ukitu gabeko kasu aldaketa, aditzean ere markatu ohi dena.


Kasu aldaketa, beraz, baina zer-nolakoa? Bada, antipasiboaren izaeraz behar bezala jabetzeko, erka dezagun pasiboarekin. Hona eskema biak :



Pasiboak zer egiten duen argi dago. Aditzaren argumentu gorena, hau da, subjektua, bazter uzten du, izen sintagma izatetik adizlagun bihurtuz. Ondorioz, esaldiak subjektu bat behar eta, gertutako izen sintagma subjektu bilakatzen da, bere akusatibo marka galduz, gehienbatean bederen (ukrainerazko pasiboan ez). Beraz, bi kasu aldaketa ikusten ditugu : nominatiboa zehar-kasu bihurtzen da eta akusatiboa nominatibo.

Begira diezaiozun orain antipasiboari. Honek egitura ergatiboa eskatzen du. Hona nolako aldaketak eragiten dituen : Antipasiboak aditzaren argumentu behearena uzten du bazter, hots, izen sintagma absolutiboa adizlagun bihurtzen du. Egitura ez baita orduan iragankorra, subjektu ergatiboa absolutibo bilakatzen da. Beraz, hemen ere bi kasu aldaketaren aurrean gaude : absolutiboa zehar-kasu eta ergatiboa absolutibo bihurtzen baitira.

Honako definizio hau gogoan harturik, jo dezagun euskaragana. Hizkuntza ergatiboa dugu hau eta hartara antipasibo prozesua erakuts dezake. Eta izan ere, euskal antipasiboak badu nork aipatua. Lehendabizikoa Jeffrey Heath amerikarra izan zen. 1976. urteari dagokion *Proceedings of the Second Annual Meeting of the Berkeley Linguistics Society* argitalpenean irakur daitekeen “Antipassivization : A Functional Typology” izenburuko bere hitzaldian euskal antipasibo badagoela baina ez-sintaktikoa dela aldarrikatu zuen eta honek. Bere testu horretan euskarari eskaintzen dion orrialde erditxo batean aditzaren pertsona markez arduratzen da soil-soilik. Eta zer dio ? Bere iritziz, orainaldiko *dut* formatik igaroaldiko *nuen* formara pasatzea antipasibo dei zitekeen, *dut*-en hasierako *d* absolutibo markatzat jotzen baitzuen eta marka hau igaroaldian bazterturik gelditzen delako. Gainera, *t* ergatibo marka *n* absolutibo bihurtzen ikusten dugu. Bada, hauxe dugu aldaketaren eskema :



Gaurko morfologia atzoko sintaxia baldin bada, interesgarria dateke Heath jaunaren ikuspegia, baina, hala ere, nik uste, hobe dugu *antipasibo* deitura benetako kasu markak aldatzen dituen prozesuren batentzat gordetzea.

Kasu markak mintzagai ditudalarik, bada garaia Georges Rebuschi ikerlari ezaguna aipa dezadan. Aztertzaile honen idazlan ugarien artean bada bat guztiz interesgarria eta guri orain doakiguna. Saiakeraren izenburua: “Autour du passif et de l’antipassif en basque biscayen”, eta Catherine Parisek antolatuturiko *Relations prédicat - actants(s) dans les langues de types divers* deritzan liburuan argitara eman zen 1979an.

Lehenengo orrialdean bertan definizio hau ematen da : « *L’antipassif se définit dans les langues à morphologie ergative comme une paraphrase marquée de la structure ergative usuelle, paraphrase dans laquelle le syntagme nominal correspondant à notre sujet transitif est à l’absolutif, et non plus à l’ergatif.* »

Geroago, bosgarren orrialdean definizio honen araberako adibide bat aurkezten da Oñati aldeko mintzairan : *umea liburua leiuta dao*.

Ez nuke nahi aspergarritxo gertatzea, baina Rebuschi jaunaren definizioa dela eta zilegi izan bekit iruzkin bat egitea. Bere testuak dakar : “se définit”. Hor ulertu behar genukeena, ordea, “Rebuschi définit” dela baieztatzeari ez deritzot ausartegi. Arazoa da arestian ikusi dugun jatorrizko definizioak eta Rebuschirenak ez dutela inola ere adigai bera adierazten. Hastekoz, jatorrizko definizioan, egitura ergatiboan absolutibo izan zen izen sintagma adizlaguntzen da antipasiboko prozesuan ; Rebuschiren adibidean, berriz, aldatu gabe dirau. Bada beste berdineza ere. Jatorrizko definizioak perpaus baten barruko kasu aldaketez diharduelarik, Rebuschiren definizioa egitura ergatiboaren parafraseko kontzeptuaz baliatzen da. Baina parafrase delako kontzeptu hori aise zabalegia da, zeharo zehaztugabea. Hala, perpaus bakarreko esaldi batek bizpahiru perpausdun esaldi bateko parafrasea ukan dezake. Esaterako, aurkezten digun adibidea *umea liburua leiuta dao, umeak liburua leiu dau*-ren parafraresetzat hartzen du Rebuschik. Bego. Baina ergatiboeko esaldia bakuna da, eta antipasibo deitzen duen esaldia, berriz, gramatikari gehien iritzi, ez da bakuna. *Dao*, bere aditz nagusia, kopula dugu hemen, eta *liburua leiuta* predikatua ; hain zuzen predikatu konplexua, perpaus baten gainean eratua.

Egile berak, *Structure de l’énoncé en basque* deritzan 1984ko liburu jorian bi antipasibo bereizten ditu : lehenengoa *makina bat kaskarreko artuta nago* (438. orrialdean) eta bigarrena *zu niri liburua emanda zaude* (441. orrialdean). Apur bat geroxeago, egiturok ikertzean, argi eta garbi adierazten du : « ...

l'antipassif basque s'oppose à celui du dyirbal, de l'esquimau et du quiché sur tous les points structurellement pertinents. » Jarraian galdera hau egiten du : « *Faut-il pour autant nier l'existence d'un antipassif en euskera,... ?* » Itaun honi ezezkoan ihardesten dio ; ongi ulertu badiot, garrantzitsu eta interesgarriegiak direla eta egitura horiek ikertu gabe uzteko. Horretan noski ados nago oso-osoro : iker bitez, nola ez, beren garrantzia baitute dela hizkuntza-ren egitaman dela eguneroko erabileran. Bai iker bitez, baina antipasibotzat hartzeke.

Rebuschi jaunaren ildotik, Jean-Baptiste Coyos ikerlari gazteak ere “Le parler basque souletin des Arbailles” izenburuko liburu bikainean *haurrak zopa janik dira* gisako egitura aztertzen du, “antipassif du parfait” deitzen duelarik. Hari ere nahi nioke oihukatu : Otoi, hertsatzen natzaizu, aldaka ezazu jagoiti deitura hori eta erabil beste izenen bat, “parapassif”, “quasipassif”, “métapassif” edo nik ez dakit zer ; ez haatik “antipassif”, deitura horren patentea lehendanik hartua baita.

Esanak esanik, berriz ere ber galdera : Ba ote da euskaran antipasiborik ? Galdera honi erantzuten laguntzeko, begira diezaiegun zerrendatzera noazkizuen zenbait esaldi pareri. Hamahiru dira nik idoro ditudanak ; agian aurki daitezke gehiago ere.

Adibideok erakusten duten alternantzia antipasiboarena dela argi dago : egitura ergatiboan absolutiboa dena egitura iragangaitzean zehar-kasua bihurturik ikusten da, instrumentala alegia, bai eta ergatiboak berak absolutiboaren itxura hartzen. Gainera, ohar daiteke aditzaren antipasibotasuna laguntzaile iragangaitzaren bidez markaturik dagoela, laguntzaile iragangaitzean gauzatzen dela. Begira adibideoi :

- (1)a. Aspaldi ahaztu gintuen.
- (1)b. Aspaldi ahaztu zen gutaz. (Arana, *Ip. Entz.* 32)

Egitura bi horiek gaur arte oso dira arruntak.

- (2)a. Ez dugu hitz hori baliatzen. (BN. Aiherra, Garate, *Erd.* 38)
- (2)b. Ez gara hitz horretaz baliatzen.

Hemen egitura iragangaitza usuago erabiltzen da iragankorra baino. Hala ere, azken hau baliatu duten idazleak ez dira gutxi : Etxeberri Ziburukoa, Axular, Elizanburu, Duvoisin, St. Pierre, Hiribarren, J. Etxepare, Arradoy, Xalbador eta Lafitte.

Ohartu naiz hegoaldeko euskara batuan ere erabil daitekeela, Axun Aierberen txostena lekuko : « *Teknolekto ugari baliatzen dituzten bizkerak* ».

- (3)a. Buruzagiek burlatzen zuten Jesus. (*Luk.* 23.35 ; Duv.)
- (3)b. Buruzagiak burlatzen ziren Jesusez.

Burlatu iragankorki erabili duten idazleak : Etxeberri Ziburukoa, Maister, Duvoisin eta Xenpelar.

- (4)a. Erdituko du semea. (*Mt.* 1.21 ; Uriarte)
- (4)b. Erdituko da seme batez. (*Mt.* 1.21 ; Duv.)

Erdi(tu) iragankorki erabili dutenak : Kardaberaz, Uriarte, Ibiñagabeitia, Orixe eta Zaitegi.

- (5)a. Zeuron buruak errukitu itzazue. (Gerriko, I 438)
- (5)b. Zeuron buruez errukitu zaitezte.
- (6)a. Eta hek eskerniaturen dute hura. (*Mark.* 10.34 ; Leiz.)
- (6)b. Hori da Jainkoaz eta Jainkoaren miserikordiaz eskarniatzea. (Axular, 150)
- (7)a. Gogora (ezazue) Loten emaztea. (*Luk.* 17.32 ; Bibli Elk. Batuak, *It. Berria*)
- (7)b. Gogora zaitezte Loten emazteaz.
- (8)a. Arimaren bakia goza dezagün. (Maister, *Imit.* I, 11, 4)
- (8)b. Gozatüren zira barnetiko bake handiaz. (Maister, *Imit.* III, 37, 3)
- (9)a. Aziendek orobat hautatzen dute bazka hobeena.
- (9)b. Aziendak orobat hautatzen dira bazka hobeenez. (Duvoisin, *Lab.* 264)

Aditz honen antipasiboak ez dirudi gaurregun inon bizirik dirauenik. Hala ere, Duvoisinen testuetan aski arrunta zen eta antzinagoko idazle bartzuen testuetan ere aurkitzen da, hala nola Monho, Etxeberri Ziburukoa, Leizarraga (ikus *Luk.* 14.7) eta Etxepare. Hain zuzen, mintzaldi honen mamia bururatu zitzaidan Etxepareren bertso hau irakurtzean : « *Andre eder gentil batez hautatu zait begia.* » (XII-1)

- (10)a. Hiruek mintzatzen dute eskuara. (J. Etxepare, *Beribilez*, 86)
- (10)b. Hiruak mintzatzen dira eskuaraz.
- (11)a. Zer pasionek gure bihotza nagusitzen dute ? (cf. S. Pouvreau, *Phil.* 521)
- (11)b. Zer pasione gure bihotzaz nagusitzen dira ?
- (12)a. Oroitzen zituen ume-umetatik Malentxoz edukitako arretak. (Agirre, *Garoa* 243)
- (12)b. Oroitzen zen ume-umetatik Malentxoz edukitako arretez.

- (13)a. Nork trufatu zaitu berriz ere ? (Lafitte, *Murtuts* 41)
 (13)b. Nor trufatu da zutaz berriz ere ?

Aditz hau Beñat Oihartzabal hizkuntzalariak iragangaitzatzat aipatua du bere saiakera batean (ikus “Structural Case...”, 335. orrialdean). Halatan ere, *trufatu* iragankorkiro erabili duten idazleak ez dira gutxi : Argaiñaratz, Baratziart, Duvoisin, Laphitz, Hiribarren, Jauffret (Kat.), J. Etxepare, Etxamendi eta Lafitte.

Zerrenda honetan ikusi ditugun antipasiboak gertakari lexikaltzat jo daitezke gaurko euskaran. Aintzakotzat hartu ditu behintzat Jon Ortiz de Urbina irakasleak, antipasibo hauetaz ni baino lehen ohartu denak. Hori dela eta, ikertzaile honen tesiko pasarte honi hemen aipagarri deritzot : « *This is the ‘antipassive’ construction often encountered in ergative languages. There is no equivalent structure in Basque, although lexically some verbs may appear in two structures that are closely parallel to the structures found in the ergative-antipassive relation. Thus, a verb like oroitu ‘to remember’ may appear in a transitive structure with absolutive direct object and ergative subject or in an unaccusative one where the subject is marked absolutive and the object occurs in the oblique instrumental case :*

- (i) a. *Familia oroitu zuen*
 He remembered his family
 b. *Familia-z oroitu zen*
 He remembered his family

Similar lexical relations are found in non-ergative languages. » (Parameters in the Grammar of Basque, 203. orrialdean).

Nik ere ez dut ukatuko gaurregun *gelditzen* diren antipasibo itxurako alternantziak erlazio lexikalak baizik ez direla. Baina antipasiboa onartu duten aditzak askotarikoak izanik eta batzuk, hala nola *erditu* eta *hautatu*, zeharo erdal eredu gabekoak, badirudi diakroniaren ikuspegian sistema baten ondakinaren aurrean gaudela, hots, garai bateko euskarak bene-benetako antipasibo prozesua bazuela.

Australiako ddirbal hizkuntzan gertatzen denaz bestera, ez bide zitzairen perpaus iragankor guztiei aplikatu ahal. Bai ordea, nik uste, esanguraren araber mugaturiko aditz multzo bati. Hain zuzen, euskararen antipasiboak antzinako indoeuropar hizkuntzetako adizkera “media” islatzen duela dirudi, Benveniste hizkuntzalari ospetsuak “diathèse interne” deitu duena. Hona jakitun handi honek adizkera mediaren izaera nola azaltzen duen : « *Dans le moyen, le verbe indique un procès dont le sujet est le siège ; le sujet est intérieur au procès. »* (Problèmes de linguistique générale, 172). Hauxe dugu beraz adiz-

kera honen ezaugarria : prozesuaren lekua subjektua da, eta subjektu hori prozesuaren barrenean bezala kokaturik irudizta dezakegu.

Ezaugarri hau, nahiz eta abstraktu samarra den, gure zerrendaren adibide guztietan aise egiazta daitekeela ikusten da.

Antzinako euskaran horrelako antipasiboa bazela onartzen bada, tema instrumentala duten perpaus iragangaitzak oro antipasibo prozesu horren bidez sortuak direlako susmopean daude. Eta seguru aski, halaxe da zenbait aditz iragangaitzen kasuan. Adibidetzat har ditzagun *fidatu* eta *jabetu* aditzak. Ezagutzen dugun euskaran ez dira esaten ez **fidatzen zaitut*, ez **lur hori jabetuko dut*. Zergatik ez ? Nire iritziz, hemen antipasiboaren aplikapena nahitaezko bilakatu delako.

Ez da, bestalde, uste izan behar instrumentalak eskua sartzen duen alternantzi guztiak antipasiboarenak direnik. Har dezagun *mendekatu* aditza. Bi perpaus mota baditugu :

(14)a. Patxik Miren mendekatuko du.

(14)b. Patxi Mirenez mendekatuko da.

Bikote honetan *Miren* absolutiboa eta *Mirenez* instrumentala ez dira funtzioakideak, eginkizun tematiko ezberdina baitute. Antipasiboak ez dauka hemen zerikusirik.¹ Interesgarriak direlakoan aipatzera noa bestelako adibide batzuk ere. Gogo-egoera adierazten duten aditzekin, oro har, egoera horren iturburu edo karia ergatiboaz nahiz instrumentalaz azalera daiteke. Honen gisako perpaus iragangaitzak, ordea, ez dira beren lagun iragankorren antipasiboak, instrumentala hemen ergatiboaren funtzioakidea delako, ez absolutiboarena. Hona adibide batzuk :

(15)a. Gure alabek kezkatzen naute.

(15)b. Gure alabez kezkatzen naiz.

(16)a. Zure portaerak harritzen gaitu.

(16)b. Zure portaeraz harritzen gara.

(17)a. Miren zoriontsu ikusteak pozten du Patxi.

(17)b. Miren zoriontsu ikustez pozten da Patxi.

¹ Lana amaituz geroz, baieztapen hau gezurtatzen duen datu bat heldu zait. Hona hemen hamazazpigarren mendeko Bernard Gasteluzar jesulagunaren esaldi bat : *Zuk mendekatuko tutzu gizon gustien etsaiak* (*Eguia catholicac*, 65). Esaldi honek argi eta garbi erakusten digu hamazazpigarren mendeko lapurdieraz (14)a perpausa (14)b perpausaren esanahiarekin erabil zitekeela. Beraz, (14)b perpausa (14)a perpausaren antipasibotzat aitortu beharrean gara orduko hizkeran.

Horrelako alternantziak, aipatu dudan arrazoiarengatik, ez dira antipasiboaren medioz azalkizun.²

Azken ondorio bat. Beth C. Levin amerikar hizkuntzalariak bere 1983ko tesian oso hipotesi erakargarria proposatu zuen, *nor* aditzen hipotesia dei dezakeguna. Hipotesi honek hauxe dio : euskaraz *nor* saileko aditzak oro ez-akusatiboak dira Perlmutter-en sailkapenean. Edo orobat, Artiagoitia irakaslearen itzulpen errazagoan : *egile* argumentudun aditzak ezin izan daitezke *nor* saileko aditzak (*Hatsarreak eta Parametroak lantzen*, 172. orrialdean).

Euskalari batzuk, ordea, eta batez ere Beñat Oihartzabal hizkuntzalariak, hipotesi honen kontrako adibideak pilaka eskaini dizkigute. Baina nire ustez gertatzen dena hauxe da : salbuespen haiek bi motakoak ditugu : batzuk behinola iragankorrak ziren aditzen antipasiboak baizik ez dira, eta besteak maileguak.

Bada, hori hala izatekotan, Beth Levinen hipotesia antzinako euskararen bederen egia zela ondoriozta dezakegu.

AIPAMENAK

ARTIAGOITIA, Xabier, 2000. *Hatsarreak eta Parametroak lantzen*, Gasteiz.

BENVENISTE, Emile, 1950. "Actif et moyen dans le verbe", *Journal de psychologie*, XLIII, 121-129.

BENVENISTE, Emile, 1966. *Problèmes de linguistique générale*, Paris.

COYOS, Jean-Baptiste, 1999. *Le parler basque souletin des Arbailles*, Paris.

DIXON, ROBERT M.W., 1972. *The Dyirbal Language of North Queensland*, Cambridge.

² Mintzaldiaren biharamunean Artiagoitia irakasleak galdetu zidan ea zergatik ez nintzen psiko-mugimenduaz baliatu adibide horien kontu emateko. Izan ere, (15)a psiko-mugimenduaren bidez (15)c *Nik* (esperimentzaile) *gure alabak kezkatzen ditut* esalditik baletor, (15)b iragangaitza (15)c honen antipasibo zuzena izanzen bailitzateke. Erantzun nion aukera hau bururatua zitzaidala baina baztertu egin nuela euskal joskeran psiko-mugimenduaren aldeko beste arrazoirik ikusten ez nuelako.

HEATH, Jeffrey, 1976. "Antipassivization : a Functional Typology", *Proceedings of the Second Annual Meeting of the Berkeley Linguistics Society*, 202-211.

KURYŁOWICZ, Jerzy, 1946. "Ergativnost i stadial'nost v jazyke", *Izvestija Akademiji Nauk SSR*, V 387-394.

KURYŁOWICZ, Jerzy, 1949. "La construction ergative et le développement stadial du langage", *Annali della Scuola Normale Superiore di Pisa*, XVIII, 84-92.

LEVIN, Beth C., 1983. "Unaccusative Verbs in Basque", *Proceedings of ALNE 13 / NELS 13*.

LEVIN, Beth C., 1983. *On the Nature of Ergativity*, Ph. D. Dissertation, MIT, Cambridge.

OIHARTZABAL, Beñat, 1992. "Structural Case and Inherent Case Marking : Ergaccusativity in Basque", J. Lakarra & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Syntactic Theory and Basque Syntax*, 309-342, Donostia.

ORTIZ DE URBINA, Jon, 1989. *Parameters in the Grammar of Basque*, Dordrecht.

REBUSCHI, Georges, 1979. "Autour du passif et de l'antipassif en basque biscayen", Catherine Paris (arg.), *Relations Prédicat-actant(s) dans des langues de types divers*, II, 149-170, Paris.

REBUSCHI, Georges, 1984. *Structure de l'énoncé en basque*, Paris, SELAF.

SILVERSTEIN, Michael, 1969. "Chinook Verb Thematization and Underlying Ergativity", Harvard Linguistic Circle delakoaren aurreko mintzaldia. Baita ere "8th Conference on American Indian Languages"-aren aurrean, 1969. azaroaren 21ean, New Orleans-en. (Biak argitaragabeak).

SILVERSTEIN, Michael, 1972. "Chinook Jargon : Language Contact and the Problem of Multilevel Generative Systems, part I", *Language*, 48-2, 378-406.

SILVERSTEIN, Michael, 1976. "Hierarchy of Features and Ergativity", R.M.W. Dixon (arg.), *Grammatical Categories in Australian Languages*, 112-171, Canberra.

TOWARDS A THEORETICAL TREATMENT OF LEFT-DISLOCATED SUBORDINATE CLAUSES

G. Rebuschi

1. INTRODUCTION¹

Among the many proposals put forth in the last decade in order to radically simplify and/or constrain grammars, the theory of Antisymmetry advocated in Kayne (1994) is both fascinating and frustrating. It is fascinating because of its reduction of all constituent structure to a basic phrase schema [_{XP} X° YP], which can be enriched by means of one and only one instance of “adjunction”, that of a single ZP to the left – what is traditionally known as a specifier –, yielding a variant of the canonical X-bar structure in which the intermediate level is also symbolized as XP, rather than X': [_{XP} ZP [_{XP} X° YP]] – in other words, both adjunction to the right, and multiple adjunction to the left, are forbidden, thereby drastically constraining syntactic representations. Kayne's theory is also frustrating, as said above, insofar as the derivation of structures which are otherwise – or were formerly – analysed as instantiating axiomatically ruled-out adjunction implies the (apparent or real) stipulation of

¹ This paper is a deeply revised version of the first half of the talk I gave at the Bayonne Conference organised by the CNRS (UMR 5478 “IKER”) and the Basque Academy in Memory of Pierre Lafitte. The second half of it, which investigates in detail the morphology, syntax, and semantics of Basque correlative complex sentences, is addressed in Rebuschi (2001c).

The following abbreviations will be used: CL, [noun] class; COM, comitative; E, ergative case; IMP, imperative; LOC, locative; NEG, negation; PROSP, prospective aspect; SUBJ, subjunctive.

abstract or phonetically empty heads — and correlatively, in a good many cases, of (otherwise unmotivated) movement of various phrases to the Spec. position of those heads.²

This paper has two aims. First, it will show that the hitherto unexplained presence of coordinating or “copulative” conjunctions (typically *eta* ‘and’ in Basque and its counterparts in many other natural languages) in certain constructions is precisely the lexical realisation of the underlying heads postulated by the Kaynean framework. Second, it will also argue that the base-generation (or [direct] Merging, in Minimalist parlance) of ZPs in the specifier position of these heads is in many cases superior to a (multiple-) movement analysis.

2. SOME NON-CANONICAL USES OF *ETA* ‘AND’ IN BASQUE AND RELATED PHENOMENA IN OTHER NATURAL LANGUAGES

2.1. *Lafitte’s data*

In Lafitte’s *Grammaire basque [...]* (1962: 105), although the reference is not given in the index, at least two “unexpected” uses of the (otherwise?) coordinating conjunction *eta* are given, in relation with “left-hanging” free relatives like (1) below (Lafitte’s own example). [Since the expression “left-dislocation” is traditionally associated with base-generation, adopting it would be begging the question of whether the left-periphrastic free relatives are base-generated there, or transformationally raised, whence my more neutral choice here].

- (1) Nork ere erran baitautazu³, gezurti bat da.
 who *ere* said *bait*-he-has-it-to-you liar one he-is
 ‘Whoever said so is a liar’ lit. ‘Whoever said so, he’s a liar.’

² I will not address here the other consequence of Kayne’s Axiom of Linear Correspondence or LCA, which basically reduces to the idea that linear precedence always means asymmetric c-command, and therefore implies that the basic order [Spec [Head-Complement]] is universal (although, as pointed out to me by Janne B. Johannessen, p.c., [[C-H]S] should also be allowed). For a vindication of this very strong claim as far as languages which are (apparently) partially, or totally “head final”, see for instance Zwart (1993, 1994) on Dutch, and Whitman (2000) on Japanese.

³ *Ere* is best left untranslated, in spite of its resemblance to English *ever* in such contexts, and *bait-* is a suffixal C° that introduces both causal clauses (in all dialects) and certain relative clauses in the Northern dialects studied here (it also appears as a suffix in certain indefinite pronouns): see Rebuschi (2001c) for some discussion of those two items.

The author comments: “Basque speakers like to represent the element expressed in a relative form in the subordinate clause by a demonstrative pronoun from the *hura* series, and *the interrogative word may be followed by eta*” (emphasis mine, GR),⁴ and illustrates:

- (2) Non *eta* ere aukituko baituzu, han hil zazu.
 where and *ere* find-PROSP *bait*-you-have-him there kill AUX[IMP]
 ‘Wherever you find him, kill him there.’

Next, he adds: “Often, this demonstrative element is preceded by *eta*, which strengthens it”, and provides the following example:

- (3) Otoitz egin dezagun, nor ere penetan baita, eta harentzat.
 prayer make AUX[IMP.IPL] who *ere* in-pain *bait*-is and for-him
 ‘Let’s pray for whoever is in sorrow.’

It is to be noted that if, on the one hand, these two instances of *eta* are indeed somewhat “special” (for reasons that will be discussed in 4.3 and 5.3), on the other hand, the occurrence of *eta* in between the free relative clause and the main clause, which, although optional [see the “Ø” in (6a)], is quite natural – and has been attested for centuries – is not even mentioned. Here are, then, a few examples:

- (4) Mt, 6.21 *For where your treasure is, there will your heart be also.*
 a Ezen non ere baida zure tresora,
 for where *ere* *bait*—is your treasure
eta han diteke zure bihotza. Haraneder (1740)
 and there will-be your heart
 b Zure ontasun non, *eta* zure bihotza han.⁵ Léon (1947)
 your treasure where and your heart there
 (5) Mt, 7.12 — *Therefore all things whatsoever ye would that men should do to you, do ye even so to them.*

⁴ “En basque, on aime bien représenter dans la proposition principale par un pronom démonstratif de la série *hura* l’élément exprimé sous forme relative dans la proposition subordonnée. L’INTERROGATIF PEUT ÊTRE SUIVI DE *ETA*”. The “demonstrative series” to which *hura* belongs is the paradigm of distal pronouns; in the dialects spoken in the province of Navarre, on the other hand, [-proximate,-distal] pronouns of the *hori* “series” are preferred.

⁵ Note here that the (generally parallel) movement of the *Wh*- phrase or pronoun and of the correlative element towards the left periphery of their own minimal clause has not take place (on this parallelism, see Izvorski 1996).

- a Zer ere, beraz, nahi baiduzue egin
 what *ere* therefore want *bait*-you-have-it do
 diezazue[te]n zuei gizonek, *eta* hek guziak
 they-to-you[SUBJ] to-you men-E and those all
 egin diotzatzue zuek *ere* hei... Haraneder (1740)
 do you-them-to-them[IMP] you too to-them
- b Zer ere nahi baituzue beraz bertzeek zuentzat
 what *ere* want *bait*-you-it thus others-E-PL for-you-PL
 egitea *eta* hura bera egizue zuek *ere* bertzeentzat. Léon (1947)
 do(ing) and that same do[IMP] you too for-the-others
- (6) Mt, 18.4 — *Whosoever therefore shall humble himself as this little child, the same is greatest in the kingdom of heaven.*
- a Nor ere, beraz, humiliatuko baida
 who *ere* thus humble-PROSP *bait*-AUX[INACC]
 eta eginen haur xume hau bezala, Ø hura
 and do-PROSP child little this like that-one
 diteke handiena zeruetako Erresuman. Haraneder (1740)
 will-be the-greatest skies-ko realm-LOC
- b Nor ere eginen baita haurño hau bezain
 who *ere* do-PROSP *bait*-AUX[INACC] small-child this as-much
 xume, *eta* hura da zeruetako erresuman handiena.
 humble and he/that-on is skies-of realm-LOC the-greatest
 Léon (1947)

A spontaneous reaction to such examples consists in saying that the conjunction merely provides a (speaker-oriented) kind of adverbial modification translatable by *also*, *too*. Such a (purely) pragmatic analysis can certainly be maintained for (4) above, but as (5) shows, *eta* is compatible with *ere* ‘too’ – thus, more specifically, although *eta* cannot be considered to signal that the same “referent” is introduced in the main clause, it cannot either do the job of signalling that a second predicate is, contrary to expectations, introduced and predicated of the same (set of) entities,⁶ since it is *ere* in the apodosis that plays that rôle. What is more, such a “description” does not say anything concerning the syntactic status of *eta*.

⁶ On this aspect of the use of *too*, see Fiengo & May (1991).

2.2. Cross-linguistic evidence

I would now like to underline the fact that what functions otherwise as a coordinating conjunction is widely attested cross-linguistically as also introducing the main clause whenever a relative is left-hanging (i.e. in complex sentences with a correlative protasis). Rebuschi (1999, 2001c) provides many examples from ancient or modern Indo-European languages (Hittite, Gothic, Russian, etc.). Here are some more examples, first from a language isolate, Burushaski (Tiffou & Patry 1995: 352-3 (29-30) & (35)):

- (7) amenmoiNga bariN écam (*ka*) mo gusmoiNa gare sail ayét
 which-Com words I-will-do and the woman-com with walk don't
 'Dont give a walk with the woman with whom I'll speak.'
- (8) ane bim *ka* toya pat éten
 where he-was and there him they-left
 'They left him at the very place where he was.'

Next, from Swahili:

- (9) Awaye yote, *na* aje. Ashton (1947, p. 281)
 he-who-is whoever, and let-him-come[SUBJ]
 'Whoever he is, let him come.'
- (10) Asiopo, *na* lake halipo. Perrott (1957: p. 79)
 he-who-is-NEG-LOC and his-CL:5 NEG-be-LOC
 [lit.] 'He who is not here, and his (business) is not here'
 'Out of sight, out of mind.'

Consider now the following Old French examples.⁷

- (11) *Qui* vult avoir gaaagnier et conquerre, / *si* viegne tost...
 who wants wealth earn and conquer and come-SUBJ early
 'If anybody wants to earn and conquer wealth, let him come quick.'
 (*Couronnement Louis*, 1621-22)
- (12) Dex est charitez, et *qui* vit / en charité, Selonc l'escrit Sainz
 God is charity and who lives in charity according-to the-writ St
 Polz ou je le vi *ET* lui, / il meint an Deu et Deux en lui.
 Paul where I it saw and he he remains in God and God in him

⁷ *Si* was not the hypothetical or conditional particle it is to day (*se* was used instead, cf. (19-20) below), but a coordinating conjunction that triggered either subject inversion (with a full DP) or the presence of *pro*.

‘God is love and he that dwelleth in love (according to St Paul’s writ where I saw it) dwelleth in God, and God in him.’

Chrétien de Troyes (±1175, *Graal*, 45-48)⁸

- (13) *Qui* ne l’a leus qu’il prie, / *si* mesdit d’Amour.
 who NEG it-has as-soon as-he prays and calumniates of-love
 ‘Who(ever) does not obtain love as soon as he prays defames it.’
 Adam de la Halle (end of 13th C., *Chansons* #11, 8-9)

2.3. Preliminary conclusions

The semantic or pragmatic rewording of *eta* as ‘also, too’ in (5a) or of the conjunctions in (11) - (13) makes no sense, and there is no natural way to account for their presence in ordinary Kaynean terms: if they are “adjoined” in other frameworks,⁹ they should then be reanalysed here as specifying a covert or silent functional head above AgrSP; in other words, in order to avoid granting *eta* and its likes (*et* or *si* and *ka* or *na*) the status of a functional head, one would have to place it in the specifier of another, unidentified, functional head — and this, in spite of their solid mono-morphemic status across languages.

On the other hand, considering that the conjunction in the Basque, Burushaski, Old French and Swahili examples above is a *functional head* that

⁸ The verse is in fact 1-Jn 4,16, wherefrom I borrowed the standard (King James’) translation. Unfortunately, the Navarro-Labourdin translations I have consulted (Liçarrague 1571, Haraneder 1740 and Duvoisin 1855-65) only provide *semi-free* relative clauses, in *-(e)n-a*, which, owing to their DP status, are never explicitly linked to the main clause by a conjunction when they are left dislocated — for more on these SFR Clauses, see Rebuschi (2001b), written in a non-Kaynean framework.

Note in passing that in Old French, on the contrary, such examples as the following, although rare, are to be found :

(i) *Li un des barons qui vint a mon seignor Gauvain parler*
 the one-of-the earls who came to my lord G. to-talk
si fu li rois Yvons de Yrlande...
si was the king Y. of Ireland
 (*Lancelot du lac III, La fausse Guenièvre*, p. 220)

⁹ Which would probably be hard put to explain why they are adjoined below the correlative CP, rather than above it, for instance...

takes an IP (or AgrSP, or TP) as its complement and a (free) [+relative] clause or CP as its specifier greatly simplifies the description, and simultaneously renders it compatible with the most constrained version of X-bar theory, namely, Kayne's – without having recourse to (too much) Movement.

What is more, as shown in Rebuschi (2001c), there are strong arguments in favour of a formal semantic translation of whatever lexicalized or non-lexicalized material such a head contains into a (standard or non-standard) connective; therefore, the "headness" of the conjunction will directly correspond to the rôle played by such a connective from a truth-conditional point of view.¹⁰

3. AGAINST MOVEMENT (I)

Several arguments can be provided which show that a base-generated account of complex sentences with left-hanging (subordinate) correlative clauses is superior to one based on movement. One is to show that the pronoun *hura* of examples (5) and (6) or *pro* of (1) and (2) is a *real* correlative pronoun, i.e. that it is not a resumptive pronoun in one of the two usual senses of the word. This is the question addressed in section 3.1; in 3.2, I will briefly discuss the case of correlative pronouns when two (or more) *Wh*-Ps appear in the correlative protasis, and will review the relevant part of Bianchi's (2000) diachronic study in 3.3.

3.1. *On resumptive and correlative pronouns*

There are three series of facts which indicate that *hura* etc. are neither "intrusive pronouns" nor "true" resumptive ones.

First, as shown in Rebuschi (1998) and summarized in Rebuschi (2001c), 18th and 19th century Labourdin Basque possessed a special pronoun, *haina*, which contributed universal quantification to the root clause, and typically appeared after left-hanging free relatives (as well as Semi-free relatives, but this

¹⁰ This argument, however, is only telling for those who hold that as much compositionality as possible should be allowed at the syntax/semantics interface.

is irrelevant here). Now clearly, if the correlative clause is extracted from somewhere within the “main” AgrSP, a resumptive pronoun will only be the spelling-out of a trace, and it is not expected that a trace should have any semantic import (apart from being translated into a variable). Likewise, the explicit universal quantification provided in the apodosis of examples like (5a) above (*hek guziak* lit. ‘they all’) seems hardly compatible with a translation of the pronominal correlate into a simple variable.¹¹

Second, the sort of resumptive pronoun alluded to above (and relabelled “intrusive pronouns” by Demirdache (1997), following a distinction established in Sells (1984)) is typical of a well-identified (but, as far as *I* am concerned, not too well-understood), situation in which the spelling-out of a trace would somehow “salvage” a structure in which that trace is not properly bound. Note, however, that would-be resumptives like *pro*, *hura* and *haina* are perfect when they correspond to a subject position in the apodosis — obviously the one position out of which all the material it contains can be extracted, if any...

Third, there is another type of resumptive pronouns that has been well studied and identified so far; it is the one illustrated by Hebrew, where the demonstrative element (a “pure” resumptive pronoun) is in fact itself a relative pronoun¹² that need not raise before “Spell-Out”, but simply *may* do so: see Demirdache (1997) for exemplification and detailed discussion. Now, here again, such “pure” resumptive pronouns just tend *not* to appear in subject position cross-linguistically, a fact clearly contradicted by the data discussed here.

3.2. Structures with Multiple Wh-Ps

Now, consider an example like (14), which has counterparts in a good many languages that exhibit correlative constructions (Hindi, Hungarian: see Rebuschi (2001c) for references and details).

¹¹ See Rebuschi (2001c) against a systematic “maximalizing” reading of the protasis – at least as far as Basque is concerned.

¹² Other languages in which a relative pronoun may (seem to) be borrowed from a demonstrative paradigm are Dutch, German, Old English, and, outside the I.-E. domain, Tswana, for instance.

- (14) *Nork zertan* baitu bere burua bilhatzen alabainan,
 who-E what-LOC *bait*-he-has-it himself looking indeed
 hartan ere du hark bere amodioa galtzen.
 that-LOC also he-has-it he-E his love losing
 lit. 'Thus, in whatever whoever seeks himself, in this very thing he
 loses his love too.'
 ≈ 'In whatever (thing) anybody seeks himself, he loses his love in
 that very thing.' Léon (1929, p. 148: 3.5.6)

Such sentences just cannot be transformationally derived,¹³ since extracting the correlative protasis from, say, the position later filled by the would-be "resumptive" locative pronominal *hartan* 'there, in it', means that the other pronoun (in this case *hark*, the ergative form of *hura*) will have to be interpreted in some other manner (and *vice versa*, of course).

3.3. V. Bianchi on ancient Indo-European languages

Bianchi (2000) reinterprets Haudry's (1973) findings under the Antisymmetry hypothesis, and shows that the historically well-established fact that ancient I.-E. languages first had left-hanging relative clauses, and only displayed DP-internal restrictive relatives later, can be reduced to the following.

(a) The correlative was indeed AgrSP-external (curiously, Bianchi does not discuss the specific position it must have occupied, but the answer is straightforward, at least from the point of view adopted in this paper), and did bind a *correlative* pronoun.

(b) At some time, the relative CP to the left of the main clause happened to be dominated by a DP node—in strict Kaynean terms, the CP became the complement of a (possibly phonetically unrealised) D°.

(c) One must also assume that left-dislocation as such was independently available for DPs, with resumptive pronouns in the corresponding A-position (although this is hardly a far-fetched stipulation, it is not explicitly made by Bianchi).

(d) Given (b) and (c), the DP-dominated left-hanging relatives were reanalysed as just another instance of (usual) DP left-dislocation, being thereby

¹³ At least as far as the relationship between the left-hanging subordinate clause and the main clause to its right is concerned, of course: I do not not intend to discuss here whether Basque exhibits *Wh*-movement (as is generally assumed) or whether *Wh*-Ps are base-generated too, as advocated by Oyharçabal (1989) and Etchegoyen (1997).

allowed to sit in the A position otherwise occupied by the correlative pronoun, now reanalysed as a resumptive one.

We shall see below that such an analysis is not only diachronically sound, but is also synchronically so, in the sense that deriving various other types of left-hanging subordinate clauses by extractions leads to a proliferation of heads and (sometimes remnant-) movements that are totally unnecessary on a base-generation analysis.

But in order to do so convincingly, I must first examine more closely the syntactic association of left-hanging adverbial clauses with the following “main clause”.

4. ON NON-EMBEDDED ADVERBIAL CLAUSES

4.1. *Basque indirect evidence for the presence of ETA*

Let us consider again Lafitte’s example (2) above, repeated here for easier reference:

- (2) Non *eta* ere aukituko baituzu, han hil zazu
 where and *ere* find-PROSP *bait*-you-have-him there kill AUX[IMP]
 ‘Wherever you find him, kill him there’

Two questions come to the mind. First, how is it possible for the conjunction *eta* to appear to the right of the *Wh-P* *within* the correlative protasis? And second, is that always possible?

Let us start with the second question, whose answer is easy: in fact, *eta* only surfaces where it does in (2) when the left-hanging subordinate clause is interpreted, or interpretable, as an adverbial clause – this is most perspicuous with *noiz eta ere...*, lit. ‘when and *ere*’ which basically refers to *one* moment or instant, vs. *noiz ere ... , eta...* which is normally interpreted generically. Moreover, when the whole complex sentence is a comparative one, as in (15), *eta* may surface in both positions:

- (15) Zenbat *eta* gehiago edaten bait du,
 how-many and more drinking *bait* he-has-it,
 hanbat *eta* zozokeria gehiago erraiten du.¹⁴

¹⁴I must confess I do not know why the second conjunction is much better *after* the correlative quantifier than to its left (the same is true of the southern dialects, in which an adverbial item like *gero* lit. ‘later’ also typically precedes the second occurrence of *eta* in such cases). A possible solution might be found in the multiplicity of functional heads proposed by Beghelli & Stowell (1995), but this issue must be left for future research.

so-much and stupid-thing more saying he-he-has-it
 ‘The more he drinks, the more stupid things he says.’

It is difficult to suggest that *eta* undergoes Raising (or copying plus optional deletion, if we are to take the two examples above into account) from the functional head position it occupies in the other examples (e.g. in (4-6)) to the head of its specifier (the protasis), as this movement would be to a non-commanding position: an indirect sort of checking such as the generalised Pied-Piping mechanism proposed by Koster (2000) would certainly fare better, but that is not the issue at stake: what is important here is that *eta* somehow *also* materializes in complex sentences where the left-hanging clause is basically adverbial. Fortunately, some other natural languages provide much more direct evidence that protactic adverbial clauses may be “associated” to the apodosis or main clause by means of a coordinating or copulative conjunction.

4.2. Direct evidence: Old French

Old French very clearly indicates that left-hanging adverbial clauses can be “connected” to the main clause by the same conjunctions as were shown to be used in correlative sentences – see (11-13) above. In the following examples, the two conjunctions *e(t)* and *si* thus follow time adverbial clauses.

- (16) a Einsi est de ce monde: *quant* l’ung descent,
 such is of this world when the-one goes-down
ET l’autre monte. (Proverbes #184, after Ménard 1989)
 and the-other goes-up
- b Or dit li conte QUE *quant* Lancelot fu venuz a l’eve
 then said the tale that when L. was arrived at the-water
 de Marcoise, *ET* il se vit [...] .
 of M. and he himself saw
 (*Lancelot en prose*, early 13th C., in Torterat 2000)
- c *Quant* furent assanlé, *et* li pape souspire [...] .
 when (they) were gathered and the pope sighs
 (Adam de la Halle, second half of 13th C., *Roi de Sicile*, 260)
- (17) a Et *quant* el l’ot assés escouté, *si* comença a dire [...] .
 and when she him-had enough listened *si* began to say
 (Anon., *Aucassin et Nicolette*, ±1200, ch. 12)

- b *Quant* ceo ot dit, *si* se repent.
 When that had said *si* repents
 (Marie de France, ±1175, *Eliduc*, 322)
- c Et *quant* il les vit en apert / que do bois furent
 and when he them saw clearly that from-the woods were
 discovered / *Si* li fu molt tres bel et gent
 uncovered *si* to-him were very much beautiful and noble
 (Chrétien de Troyes, ±1175, *Graal*, 123-6)

Note also the following rare example, in which the conjunction *si* is directly associated with the *wh*-word, just as in the Basque example (2):

- (18) *Quant si* l'aüstic orent pris /
 when *si* the nightingale (they) had seized
 Ø al seignur fu renduz tus vis
 to-the lord was (it) given-back all alive
 (Marie de France, ±1175, *Lais de l'aüstic / Le rossignol*, 101-102)

Interestingly, Old French used the *same* conjunctions to introduce the apodosis of complex conditional sentences, as shown in (19) and (20):¹⁵

- (19) a S'en volt ostages, *E* vos l'en enveiez / U dis u vint
 if he wants hostages, and you him send[IMP] or ten or twenty
 (*Roland*, ±1080, 40)
- b *Se* Bel Acuel est franset dous, /
 if Noble Welcome is generous and gentle,
et ye be[SUBJ] cruel and arrogant
ET vous soiés fel et estous
 (G. de Lorris, ±1230-40, *Roman de la Rose*, 3697-98)
- (20) a *Se* ele puet, *SIL* retendra
 if she can, *si*+him will-hold
 (Marie de France, ±1175, *Eliduc*, 330 [*sil*= *si*+*l*(*e*))
- b *Se* j'estoie fix a roi / *S'*afferriés vos bien a moi
 if I-were son to king, *si* would-match you well to me
 (*Aucassin et Nicolette*, ±1200, ch. 25, 13-14)

To say that *e(t)* and *si* play the role of the (not temporally interpreted) "adverb" *then* in a conditional sentence actually begs the question, which is

¹⁵ *If* was translated by *se*, not *si*, but both forms optionally contracted to *s'* when followed by a word beginning in a vowel.

basically the same one: where does this word come from, or, more technically, what is its position in an X-bar-theoretic representation?¹⁶

5. AGAINST MOVEMENT (II)

5.1. *Protactic adverbial clauses*

The question of a possible transformational account of left-hanging adverbial (and hypothetical) clauses is at least as acute as that of transformationally deriving correlative protases. This is so because in order to derive the superficial word order by extracting the subordinate clause out of an apparently right-adjoined position, one has to describe how such a superficial position might be built or derived in the first place.

To begin with, then, it would be necessary to postulate that, within AgrSP, there is a first functional head H1 (probably identifiable to one of Cinque's (1999) many functional heads) that asymmetrically *c*-commands the VP (or vP, etc.): time adverbials, for instance, would sit in H1's specifier. But since the adverbial clause surfaces to the right of VP, and given that extraposition (a special instance of right adjunction) is banned, it would next be necessary to raise the adverbial clause from that position to the Specifier of a higher (and not so easily independently justified) covert head H2, which would sit higher than AgrSP. Third, AgrSP itself (i.e. containing the trace of the raised Adverbial clause) would have to raise further to the Spec of a still higher empty head H3. That three such heads and the associated movements are necessary seems unavoidable: although the complement of H1 has phrasal status in this framework (recall the introduction), it cannot undergo direct movement to the Spec position of a higher head H2', because this would result in stranding the subject DP, a devastating effect if any. When the adverbial clause is topicalized, then, one would finally have to posit the existence of a fourth head H4 (possibly materialized by *e(t)*, *si* etc. in Old French, and *eta* in Basque), to the specifier of which the subordinate clause would ultimately raise.

Needless to say, this a very complicated way of deriving what can be generated much more simply: it suffices to posit that there is *one* head above

¹⁶ See Rebuschi (2001c) for a defense of my answer: *then* is a Conjunctive head, just as *eta* is in Basque correlative sentences.

AgrSP – H2 in the scenario sketched above – to ensure that the main clause will follow the subordinate one, which means that the easiest thing to do consists in taking the complex sentences with a left-hanging adverbial clause as basic, with either a phonetically unrealized, or *eta*, *et/si*, (and possibly *na* in Swahili and *ka* in Burushaski) as the head of the whole complex construction: “left-hanging” will then mean “left-dislocated” in the technical sense of the word.

This, of course, does not exclude that a *correlative* position be occupied by some material (again, either phonetically realized or not), somewhere lower under AgrSP, in the specifier of the Cinquean head H1 — but in any case, a base-generation analysis is to be preferred to a raising approach even now, since there is no reason to consider that a hypothetical movement of the adverbial clause from the Cinquean adverbial position to the specifier of the conjunction might violate any known constraint, and because in certain correlative protases containing two *Wh*-Phrases, the second one *must* be interpreted as corresponding to such a position in the apodosis, but just *cannot* have originated there — as in (14), repeated here as (14') with the relevant material in boldface:

- (14') Nork **zertan** baitu bere burua bilhatzen alabainan,
 who-E what-LOC **bait**-he-has-it his self looking indeed
hartan ere du hark bere amodioa galtzen.
 that-LOC also he-has-it he-E his love losing
 lit. ‘Thus, in whatever whoever seeks himself, in this very thing he
 loses his love too.’ ≈ ‘In whatever (thing) anybody seeks himself, he
 loses his love in that very thing.’ Léon (1929, p. 148: 3.5.6)

5.2. Sentence-final adverbial clauses

Given the analysis sketched above, one might be tempted to introduce just *one* more (covert) functional head above the Conjunction Phrase headed by *eta* (or *et/si*) when the adverbial clause is sentence final.¹⁷ However such a move (a) would be against the spirit of this paper, and (b), more importantly, would be difficult to reconcile with empirical data: (i) I know of no natural language in which this second head is explicitly (or lexically) realized — as

¹⁷ It is a general effect of Kayne’s framework that some special mechanism has to be postulated whenever an adverbial clause is final (i.e. linearly follows the main clause) rather than initial.

against the examples studied here;¹⁸ (ii) moreover, if it can be agreed upon that there is at least some connection between syntax and prosody, it must also be noted that there is a pause separating the conjunction from the left-dislocated adverbial (or correlative) clause, but that there is precisely *no* pause when the adverbial “adjunct” follows the main clause; now, if the lower Conj. head triggers a pause, it is difficult to imagine that another head (whose effect would simply consist in reversing the direction of the connective that will translate the lower one) might have less prosodic effect than what is the first one,

Fortunately, another solution is available, which consists in extending Koster’s (2000) treatment of would-be “extraposed” relative clauses to the case under discussion. Although Koster’s work was apparently made independently of Johannessen’s (1998) on asymmetric coordination, there are strong similarities between the two approaches, so that I will use the latter’s framework to expose the idea.

First, Kayne’s (1994) approach to coordination is adopted, according to which conjoined elements are, respectively, the specifier and the complement of a Conj. head. Next, there is some mechanism whereby, in case both conjuncts do not share exactly the properties, it is (normally) the specifier that transmits its features to the Conj.P — Johannessen explicitly proposes that the first conjunct transmits the relevant features through Spec-Head Agreement, an operation followed by the percolation of those features to the Conj.P itself.¹⁹

In the clausal domain, a typical example is provided by Höhle’s (1990: 222) well-known pair of examples in (21).²⁰

- (21) a [[Wenn jemand nach Hause kommt] und
 when someone towards home comes and
 [*da* der Gerichtsvollzieher vor der Tür *steht*]] [VF & VF]
 there the bailiff at the door stands
- b [[Wenn jemand nach Hause kommt] und
 [*da* *steht* der Gerichtsvollzieher vor der Tür]] [VF & V2]
 there stands the bailiff at the door

¹⁸ Or yet again as against the presence of a phonetically realized head in the case of the “copulative” association of relative clauses (and other nominal modifiers) and NPs in the scope of a D° (see Rebuschi (2001a) on this issue).

¹⁹ Note that this approach entails that some heads are *underspecified*. Numerous other technical details are involved which I will not discuss here.

²⁰ A variant in which a first clause exhibiting a V2 word-order would be followed by a V-final clause would of course be ungrammatical.

The feature [+subordinate] or whatever else is contained in the first C° and determines the word-order in the first clause may thus render the complex, coordinated, adverbial clause grammatical, although the second clause does not possess that characteristic.

Koster's specific proposal, then, consists in using this strategy to deal with "extraposed" relative clauses in the following fashion: the would-be extraposed [+rel] CP is in fact the second conjunct of a Conjunctive Phrase whose first member is whatever XP contains the first conjunct as its specifier; this can be illustrated by the parallelism between the examples (22) - (24), where I use "&" for any underspecified conjunctive head, whether realized or not; thus, just as a Conj.P [*en* [_{DP} *Marie*]] can take either an AgrOP as its specifier (and thus compositionally yield a Conj.AgrO.P) or a CP, a Conj.P [& CP[+rel]] can have an AgrO.P (etc.) as its specifier and yield a Conj.C.P:

(22) Hij heeft [&.AGROP [_{AGROP} [_{DP} Jan] AgrO^o [_{VP} gezien] [&.P [& en] [_{DP} Marie]]]
 he has_i Jan *t_i* seen and Marie
 'He has seen Jan and Marie.'

(23) [&.CP [CP [_{DP} Jan] heb ik gezien] [&.P en [_{DP} Marie]]]
 Jan have I seen and Marie

(24) Hij heeft [&.AGROP [_{AGROP} [_{DP} de vrouw] AgrO^o [_{VP} gezien]
 he has_i the woman *t_i* seen
 [&.P & [CP die het boek schreef]]]
 - that the book wrote
 'He has seen the woman that wrote the book.'

Finally, Koster proposes to check the second conjunct against the first one in the pre-minimalist way the [+Wh] feature in C° was, for instance, checked against a *Wh*-P contained in a DP or a PP in case of Piedpiping (*whose book, against which...*). Furthermore, he proposes some specific "content", Colon (:), to account for the type of modification contributed by the relative clause.²¹

Likewise, then, a sentence final adverbial clause can be considered to be the complement (or second conjunct) of the Conj.P whose specifier (or first conjunct) is the projection of the adverbial, Cinquean, head H(1), as in:

(25) [&.HP [_{HP} *pro* [_{HP} H^o VP]] [&.P & CP]]

²¹ See Rebuschi (2001a) for a semantic approach to nominal modification that does not require any such new concept.

The checking would be as in Koster's examples, and the semantics would clearly consist in localising the event in the segment of time denoted by the adverbial clause.²²

5.3. On example (3) and free relatives in (would-be) argumental position

Let us finally return to example (3), repeated here with some (hypothetical) bracketing as (26):

- (26) Otoitz egin dezagun, [_{XP} [_{CP} nor ere penetan baita], [eta [_{DP}harentzat]]].
 prayer make AUX[IMP.1PL] who ere in-pain *baita*-is and for-him
 'Let's pray for whoever is in sorrow.'

Apparently, the whole expression is in A-position, since it is to the right of the Verb complex (the lexical verb and its auxiliary), which has presumably raised towards the left periphery. This could be taken as evidence that ordinary (left-hanging) correlative protases might, after all and against everything I said above, be analysed as having raised from that A-position, the whole XP raising to the specifier of some covert conjunction, as in (27):

- (27) [_{XP} [_{CP} nor ere penetan baita], [eta [_{DP} harentzat]]]_i otoitz egin dezagun *t_i*;
 who ere in-pain *baita*-is and for-him prayer make AUX
 lit. 'Whoever is in sorrow, let's pray for *t_i*.'

However, this would not account for the pause between *baita* and *eta*, which is clearly audible in (3'), and could not carry over to the analysis of correlatives with several *wh*-Phrases. Moreover, the fact that *harentzat* (like any other resumptive/correlative pronoun) is felt to be focused is also left without account. Finally, the translation of *eta* here would be particularly difficult, since the property expressed by the relative clause must be interpreted as a member of the set of properties denoted by the pronoun, but, at the same time, there is no pragmatic reason to justify this abstract "extraction" of one property among many – this, on the contrary, being the mechanism that I

²² This of course means that the "content" of the conjunction is in fact functionally determined by the semantic content of its arguments, a fact I have independently established in the paper cited in the preceding note wrt. restrictive and appositive clauses: in the first case, we have set intersection, and in the second, after the shifting of the entity denoted by the DP into a generalised quantifier, we have set membership (the property denoted by the appositive relative being a member of the set of properties denoted by the DP).

think explains why appositive clauses are conjoined with their DP (see the last footnote) – all the more as *hura* (the absolutive form of *harentzat*) has no other known property!

On the other hand, suppose that the basic word order is, as argued for at length here, that of the correlative followed by the head conjunction *eta*, followed in its turn by the “main” clause (thereby rejecting the bracketing of (27)). If, as suggested above and advocated by Izvorski (1996), the correlative pronoun raises to the specifier of a focus head, the complement of that head will be the IP (or whatever “Finite” head has attracted the imperative verbal complex in the specific example discussed). It follows that a sentence like (3) will in fact be derived by Remnant movement of that IP, which contains the trace of the correlative pronoun, as in (28), where the covert higher Conjunction at least corresponds to a prosodic mark (see the comma after *dezagun* in (3/3’):

- (28) [_{Conj,P} [otoitz egin dezagun t_i]_j [_{Conj^o} Ø] [_{Conj,P} [_{CP} nor ere penetan baita], [eta [harentzat_i]]]]

6. CONCLUSIONS

The leading ideas of this paper can be summed up as follows.

(i) Functional heads *are* important, not necessarily because they host invisible and uninterpretable features that trigger movement so as to be eliminated in the course of the derivation, but because they go a long way towards helping to solve the problem of adjunction, which can be depicted as allowing far too many options in the description of many phenomena, and more generally as leaving grammars formally far too unconstrained.

(ii) However, those functional heads are just as little explanatory if they are allowed to proliferate whenever they’re needed: what is necessary is to find both empirical evidence across natural languages for their presence here or there, and what possible semantic import they can contribute to the structure they enrich by being present, projecting and taking arguments.

(iii) Finally, movement is also unsatisfactory if viewed as costless: whenever a representational account can be provided, other things being equal, it is certainly consonant with any normal interpretation of Ockam’s razor that a rival transformational description should be relinquished.

I have tried to implement these ideas here by showing there is strong evidence, in certain natural languages such as (Northern) Basque and Old French, that correlative protases, as well as left-hanging adverbial clauses, are in fact base-generated in the specifier position of a conjunctive head which is directly, or indirectly, observable at PF — the head of something that modern linguistic thought it could do without, namely, complex sentences.

In Rebuschi (2001c), I show that the translation of this conjunction is exactly that of a (conditional) connective in the case of Basque correlative sentences, and I have here reached the result that, as far as adverbial clauses are concerned, it is most probably a localising operator of sorts.²³

One more point deserves to be made. In cases of asymmetric conjunction, I have followed Johannessen's (1998) theory that it is the structural specifier, rather than the complement, that transmits its features to the (underspecified) head, whence they percolate to the conjunctions's maximal projection. This, however, might seem to be contradicted by most of the examples discussed here, since a complex sentence will typically inherit its pragmatic force (assertive, injunctive, interrogative, etc.) from the apodosis or main clause. Or will it? In fact, it is quite possible that that "force" is in fact contributed by the contents of an *external* C°. Thus recall example (16b), repeated below as (29), where, as the bracketing shows, the completive status of the complex sentence is given by *que* 'that' — and the fact that the completive morpheme in Basque, *-(e)la*, is suffixal, and therefore appears at the end of the clause final finite verb form, should not lead anyone into believing that it belongs under the Focus Phrase: neither it nor the preceding correlative protasis have any "force" whatsoever.

- (29) Or dit li conte [QUE [[*quant* Lancelot fut venuz a l'eve
then said the tale that when L. was arrived at the-water
de Marcoise,] [[*ET* [il se vit ...]]]]
of M. and he himself saw
(*Lancelot en prose*, early 13th C., in Torterat 2000)

²³ Which, in the long run, could even help us do away with the Cinquean adverbial head and the silent adverbial correlative mentioned in section 5.2.

REFERENCES

1. LINGUISTICS AND GRAMMAR

- ASHTON, E.O. 1947. *Swahili Grammar* [2nd ed.]. London: Longman.
- BEGHELLI, Filippo, & STOWELL, Tim. 1997. 'Distributivity and Negation'. In A. Szabolcsi (ed.), *Ways of Scope Taking* (Dordrecht: Kluwer), 71-107.
- BIANCHI, Valentina. 2000. 'Some Issues in the Syntax of Relative Determiners'. In A. Alexiadou *et al.* (eds.), *The Syntax of Relative Clauses* (Amsterdam: Benjamins), 53-81.
- CINQUE, Guglielmo. 1999. *Adverbs and Functional Heads*. Oxford: OUP.
- DEMIRDACHE, Hamida. 1997. 'Dislocation, Resumption and Weakest Crossover'. In E. Anagnostopoulou, H. van Riemsdijk & F. Zwarts (eds.), *Materials on Left Dislocation* (Amsterdam: Benjamins), 193-231.
- ETCHEGOYEN, Thierry. 1997. 'Against Wh-Movement in Relative Clauses'. Colloquium "Langue et grammaire III", Univ. Paris 8, Saint-Denis, June.
- FIENGO, Robert, & Robert MAY. 1991. *Indices and Identity*. Cambridge (Mass.): MIT Press.
- HAUDRY, J. 1973. 'Parataxe, hypotaxe et corrélation dans la phrase latine'. *BSL* 68.1, 147-186.
- HÖHLE, T. 1990. 'Assumptions about Asymmetric Coordination in German'. In J. Mascaró & M. Nespó (eds.), *Grammar in Progress. GLOW Essays for Henk van Riemsdijk* (Dordrecht: Foris), 221-235.
- IZVORSKI, R. 1996. 'The Syntax and Semantics of Correlative Proforms'. *NELS* 26 (ed. by K. Kusamoto), 133-147.
- JOHANNESSEN, J. B. 1998. *Coordination*. Oxford: OUP.
- KAYNE, Richard. 1994. *The Antisymmetry of Syntax*. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- KOSTER, Jan. 2000. 'Extraposition as Parallel Construal'. Ms., Rijksuniversiteit Groningen.

LAFITTE, Pierre. 1962. *Grammaire basque (navarro-labourdin littéraire)*. Bayonne: Amis du Musée basque & Ikas.

MÉNARD, Philippe. 1989. *Syntaxe de l'ancien français* [2nd ed.]. Bordeaux: Bière.

OYHARÇABAL, Bernard. 1987. *Etude descriptive de constructions complexes en basque [...]*. Doctoral diss. (thèse d'Etat), Univ. Paris VII.

OYHARÇABAL, Bernard. 1989. 'Pro-drop and the Resumptive Pronoun Strategy in Basque'. In L. Marác & P. Muysken (eds.), *Configurationality. The Typology of Asymmetries* (Dordrecht: Foris), 63-83.

PERROTT, D.V. 1957. *Swahili*. London: English Universities Press.

REBUSCHI, Georges. 1998. 'Nouvelles remarques sur *haina*'. *Lapurdum* 3, 53-75.

REBUSCHI, Georges. 1999. 'Types de langues de types de constructions: le cas des corrélatives'. In A. Söres & C. Marchello-Nizia (eds.), *Typologie des langues, universaux linguistiques: LINX* [special issue], 55-72.

REBUSCHI, Georges. 2001a. 'Generalizing the antisymmetric analysis of coordination to relativisation'. Paper presented at the International Conference on Coordination, Manchester/Salford, Nov. 2001.

REBUSCHI, Georges. 2001b. 'Semi-Free Relative Clauses and the DP-Hypothesis: Basque Evidence and Theoretical Consequences'. *IATL* 8, 55-64.

REBUSCHI, Georges. (2001c). 'Note sur les phrases complexes à protase corrélatrice du basque'. *Lapurdum* 6, 261-289.

SELLS, Peter. 1984. *Syntax and Semantics of Resumptive Pronouns*. Doctoral dissertation, Univ. of Massachusetts at Amherst.

TIFFOU, Etienne, & Richard PATRY. 1995. 'La relative en bourouchaski du Yasin'. *BSL* 90.1, 335-390.

TORTERAT, Frédéric. 2000. 'Et en emploi "syndético-hypotactique": hypothèses sur une *jonction implicite* en ancien et en moyen français'. *BSL* 95.1, 183-202.

WHITMAN, John. 2001. 'Overt heads of Right-Branching Functional Projections in Japanese'. Talk given at the Seminar on Minimalism, CNRS/U. P.8, Paris, January. Ms., Cornell Univ. & CRLAO (Paris).

ZWART, Jan-Wouter. 1993. *Dutch Syntax; A Minimalist Approach*. PhD dissertation, Rijksuniversiteit Groningen.

ZWART, Jan-Wouter. 1994. 'Dutch is Head Initial'. *The Linguistic Review* 11, 377-406.

2. CORPUS

2.1. BASQUE

DUVOISIN, J. 1855-65. *Bible edo Testament Zahar eta Berria [...]*. London. Facsim., Bilbao: Gran Enciclopedia Vasca, 1972.

HARANEDER, Joannes. 1740. *Jesu Christoren Evangelio Saindua*. Ms. ed. by P. Altuna, Bilbao: Euskaltzaindia, 1990.

LEÓN, L. 1929. *Jesu-Kristoren Imitazionea*. Turnhout (Belgium): Brepols.

LEÓN, L. 1947. *Jesu-Kristo gure Jaunaren Ebanjelio Saindua*. Ustaritz.

LIÇARRAGUE, J. 1571. *Iesus Christ Gure Jaunaren Testamentu Berria -Kalendera- ABC edo Christinoen Instructionea*. La Rochelle. Facsim., Bilbao: Euskaltzaindia, 1990.

2.2. OLD FRENCH

ADAM DE LA HALLE, end of 13th C., *Chansons*. In *Œuvres complètes*, Paris: LP-LG, 1995, 38-125.

ADAM DE LA HALLE, *Roi de Sicile*, *ibid.*, 376-393.

Aucassin et Nicolette, ±1200, anon. Paris: G-F, 1984.

Chanson de Roland, end of 11th C, anon. Paris: GF, 1993.

Couronnement Louis, ±1150, anon. Extracts in *Cycle de Guillaume d'Orange*. Paris: LP-LG 1996, 71-145.

CHRÉTIEN DE TROYES, ±1175, *Conte du graal*, Paris: GF, 1997.

Lancelot du Lac III: La fausse Guenièvre. ±1220, anon. Paris: LP-LG 1998.

LORRIS, Guillaume de. ±1230. *Roman de la rose*. Paris: GF, 1999.

MARIE DE FRANCE, ±1175. *Eliduc*. In *Lais*, Paris: LP-LG, 271-327.

MARIE DE FRANCE, ±1175. *Lai de l'aüstic ≈ Le rossignol*. In *Lais*, Paris: LP-LG, 211-220.

‘IZEN + EGIN’ PREDIKATUAK EUSKARAZ*

S. Rodríguez
F. García Murga

1. SARRERA

Euskaraz ugariak dira izen eta aditz batekin eratutako predikatuak¹, aditz hauen edukin semantikoa oso eskasa delarik. *Hartu, jo* eta *eman* predikatu hauen adibide ditugu:

(1)

- a. Arnasa hartu
- b. Adarra jo
- c. Amore eman

Artikulu honen xedea ‘Izen + *egin*’ egitura aurkezten duten euskal predikatuak aztertzea da². Bi ‘Izen + *egin*’ egitura ezberdin bereizi behar dira:

(2)

- a. Nik lana *egin* dut
- b. Nik lan *egin* dut

* Eskerrak eman nahiko genizkieke Beatriz Fernandez, Javier Ormazabal, Myriam Uribe-Etxebarria, Xabier Artiagoitia eta Ricardo Etxepareri euren ohar erabilgarrienengatik. Errakuntzak, noski, gureak dira. Artikulu honek Sonia Rodríguezen beka predoktoralaren eta Eusko Jaurlaritzaren PI 98/127 proiektuaren dirulaguntza jasan du, baita EHUko 9/UPV 00033.130-13888/2001 proiektuarena ere.

¹ Egitura honetako predikatuak euskal tradizioan zehar xehetasunez deskribatuak izan dira. Zamarriparen (1915) gramatika deskribapen hauetako adibidea dugu.

² Lokatibo edo adberbio bat erakusten duten kasu batzuk ezaugarri semantiko zein sintaktiko berberak erakusten dituzte. Kasu hauek ere ‘Izen + *egin*-arina’ egituratzat hartuak izango dira, terminologia arazoak ekiditzearren. (Ikus bigarren atala).

‘Izen + *egin*’ egitura bi mota hauek bereizteko erabili izan den berezitasuna izenaren determinatzailearen agerrera / egoneza izan da. (2a) adibidean izenak determinatzailea aurkezten du. Honelako kasuetan, ‘Izen + *egin*’ egiturak aditz iragankorren ezaugarri arruntak erakutsiko lituzke. Determinatzailea falta duten (2b) bezalako ‘Izen + *egin*’ egiturak, ordea, oso mugatuak dira kopuruari dagokionez eta euskararen gramatikaren barruan ezaugarri semantiko zein sintaktiko bereziak aurkezten dituzte. Predikatu mota honek sintaxilarien arreta deitu izan du eta bereziki ergatibitatearekin erlazionaturiko eztabaida asko sortarazi ditu. (Ortiz de Urbina, 1989; Uribe-Etxebarria, 1989; Laka, 1993; Fernández, 1997).

(2a) eta (2b) adibideen arteko beste ezberdintasun garrantzitsu batzuk *egin* aditzaren semantikan datzate. Egitura hauetan bi *egin* aditz motak parte hartzen dute: *egin* astunak eta *egin* arinak, hain zuzen ere. Orokorrean, aditz arinek edukin semantiko gutxi izango dukete. (2b)-ren kasuan, *egin* aditza markatzaile kausatibo bat dugu. (2a)-n agertzen den *egin* aditza, bestalde, sormen aditza dugu³.

Lan honen zehar (2b) adibidean agertzen den adierazpenaren azterketa semantiko bat jorratu nahi da. Egitura mota honi ‘Izen + *egin*-arina’ izena jarri diogu. Bestaldetik, hemendik aurrera (2a) bezalako egiturak ‘Izen + *egin*-astuna’ izenpean tratatuko dira.

Hurrengo atalean, bigarreanean hain zuzen, ‘Izen + *egin*-arina’ egituran parte hartzen duten berezitasun semantiko eta sintaktikoen berri emango da. Ondoren, hirugarren atalean, egitura hauek adierazpen idiomatikoak direla proposatuko da eta predikatu hauen menpean gauzatzen diren prozesu semantikoak aztertuko dira. Azkenik, azterketa honen bidez atera daitezkeen ondorioak jakinaraziko dira.

2. EZAUGARRI SEMANTIKOAK ETA ‘IZEN + EGIN-ARINA’ PREDIKATUEN EREDU SINTAKTIKOAK EUSKARAZ

Euskaraz izen sintagmak determinatzaile batez lagundurik agertu behar dira. Hau kontuan hartzen badugu, euskarazko determinatzaileen jokaera arruntaren kontra azaltzen den ezaugarri nabarmen bat ‘Izen + *egin*-arina’ egi-

³ *Egin* astuna sormen aditz bat izateaz gain, bestelako esanahiak ere baditu, hauen artean hurrengoak aipagarriak direlarik: prestatu, konpondu, ordaindu, etabar. Artikuluan zehar *egin* astunaren analisi semantiko sakonago bat aurkezten da.

turen determinatzailea eza izango dateke⁴. Izan ere, determinatzailea agertuz gero, esanahian aurkaritza argi bat gertatzen da, (2a) eta (2b) adibideek erakusten duten bezalaxe. (2a) adibidean, 'Izen + *egin*-astuna' egituraren barruan agertzen den izenak irakurketa espezifikoa bat jasotzen du, hau da, ezaguna den lan jakin bati egiten dio erreferentzia, nahiz eta euskaraz determinatzaileak hainbat zalantzagarritasun sortara ditzakeen. Hurrengo adibidean ikus daitekeenez, subjektuak irakurketa espezifikoa edo ez-espezifikoa bat izan dezake, objektuak bezala. Beraz, (3) adibideak lau interpretapen ezberdin euki ditzake:

(3)

Umeeak ipuinak irakurri dituzte

(2b) adibidean agertzen den izenaren interpretapena, berriz, (hau da, 'Izen + *egin*-arina' egiturarena) ezin da espezifikoa izan. Izan ere, geroago erakutsiko den moduan, 'Izen + *egin*-arina' adierazpenen esanahia ezin da zuzenean bere osagaietatik osatu. Hirugarren atalean ikusiko dugunez, egitura hauetan parte hartzen duten izenek ezaugarriak denotatzen dituzte. McNally eta Van Geenhoven (1998) lanean erabilitako terminologiari jarraiki, izen hauek nominal ahulak dira⁵.

Hala eta guztiz ere, badira zenbait kasu non 'Izen + *egin*-arina' egiturako izenak determinatzailea eraman behar duen, hots, *bizarra egin*, *erroak egin*:

(4)

*Peruk bizar *egin* du

Espero genezakeen bezala, determinatzailea beharrezkoa izanez gero, bi irakurketa ezberdin sortuko lirateke:

(5)

a. Peruk bilerara dotore joateko bizarra *egin* du

b. Anek panpinaren hankak *egin* ditu eta Peruk bizarra (*egin* du)

(5a) adibideak erakusten duenez, 'Izen + *egin*-arina' adierazpenaren izenak aparteko zenbait kasutan determinatzailea behar du. Horrexegatik, izenak interpretapen espezifikoa jasoko balu, (5b)-n bezala, 'Izen + *egin*' egitura 'Izen + *egin*-astuna' motakoa izango litzateke.

⁴ Salbuespenak oso mugatuta daude: predikatu konplexu batzuk ((1)-eko adibideak ikusi), zenbatzaile mugagabeak (*zenbait neska*) eta egitura predikatibo batzuk (*irakasle bihurtu*), (Laka, 1993; Zabala, 1993; Artiagoitia, 1997).

⁵ Espinal (2000:19) lanean aipatzen den McNally eta Van Geenhoven (1998)-ko definizioa: "A nominal α is WEAKLY INTERPRETED (or WEAK, for short) in a context C iff α denotes a property in C".

‘Izen + *egin*-arina’ egituran aditzarekin batera agertzen den objektuak talde mugatu bat osatzen du (ikus 1. taula), hots, edozein izenek ez du egitura honetan parte hartzerik. Hau horrela bada ere, egitura honetan aurki ditza-kegun izenak ezin dira era uniboko batean sailkatu, hau da, ez dago ezaugarri semantiko bat izen hauek guztiak biltzen dituenik. Horrela, egitura hauetan parte hartzen duten izen guztiak ez dira abstraktuak izan behar. (6)-ko zerrendan ikus daitekeen bezala, izenek objektu konkretuei erreferentzia *egin* diezaiekete. Are gehiago, [+/- zenbakarri] ezaugarri semantikoa ez litzaeike egitura hauei ezarriko, (7) adibideak erakusten duen legez:

(6)

buru, bizarra, erroak, hanka, harrikoa, hatz, ...

(7)

Izen + zenbakarriak: hitz, dantza, oihu, otoitz, ...

Izen - zenbakarriak: arrantza, aurre, min, ...

Honetaz guztiaz gain, ez izen abstraktu guztiek ezta konkretu guztiek ere ez dute egitura honetan parte hartzen:

(8)

a. Nik *poz / *anaitasun / *beldur *egin* dutb. Nik *erloju / *liburu / *etxe *egin* dut

Aipagarria izan daitekeen ‘Izen + *egin*-arina’ egituran azaltzen diren izenen beste sailkapen semantiko bat izen ebentiboak versus izen erresultatiboak bereizketari legokiokeena izango litzateke. (Grimshaw, 1990)⁶. Grimshawren arabera, izen ebentiboek, aditzak bezalakoak direnek, argumentu egitura izan dezakete, izen erresultatiboek ez duten bitartean. Hala ere, egitura honetan ez dira izen ebentiboak soilik agertzen:

(9)

a. arrantza (izen ebentiboa⁷ [event nominal])

b. laprast (izen erresultatiboa [result nominal])

Honen ondorioz, badira izenak argumentu egiturarik ez dutenak eta ‘Izen + *egin*-arina’ adierazpideetan ager daitezkeenak. Izan ere, *hanka* eta *elurra* bezalako izenek ez dute argumentu egitura ezta egitura aspektualik ere

⁶ Euskarazko *egin* aditz arina japonierazko *suru* aditzarekin erkatua izan da (Fernández, 1997). Grimshaw eta Mester (1998) lanaren arabera, *suru* bere argumentuei errol tematikorik atxikitzen ez dien aditz arin bat da. Objektu lekuan agertzen den izena bera da errol tematikoak ezartzen dituen. Honen ondorioz, argumentu egitura duten izenak soilik ager daitezke *suru* aditzarekin batera.

⁷ Hitz hauek irakurketa ebentibo eta erresultatiboen artean anbiguoak dira.

erakusten. Adibide hauek erakusten dute ez dagoela ezaugarri semantikorik izen hauek guztiak bil ditzakeenik.

Ondoren, 'Izen + *egin*-arina' egituren jokabide sintaktikoa aztertuko dugu. Egitura hauetariko batzuk sintaktikoki modifikaturik ager daitezke. Lehenengo modifikazio motak zenbatzaileekin zerikusia du. Indar kuantifikatzailea duen adberbio baten gehiketak izena aditzetik banatuko balu, per-paus ezgramatikalak sortzea lekarke:

(10)

Mikelek lo gutxi / *alde gutxi *egin* du

Egitura hauen adberbioaren hedadura zabala izan behar da nahitaez; hau da, (10) adibideak Mikel lotan egon den denbora espero zena baino laburragoa izan dela adierazten du⁸. Beste era batean esanda, *gutxi*-k ez du *lo* modifikatzen, ebento osoa baino. (11)-n, aldiz, *gutxi*-k *diru* hartzen du bere hedadura pean, *egin*, kasu honetan, aditz astuna delarik:

(11)

Mikelek diru gutxi *egin* du

Gertaera berbera ikus daiteke adjektiboekin. (12) adibideak erakusten duen bezala, 'Izen + *egin*-arina' egitura guztiek ez dute adjektibo baten modifikazioa onartzen:

(12)

Mikelek lan handia / *hots handia *egin* du

Antzera, indar kuantifikatzailea duten partitiboek ere ez dituzte beti per-paus gramatikalak sortarazten:

(13)

a. Mikelek ez du lorik / *?lo *egin*

b. Mikelek ez du *alderik / alde *egin*

'Izen + *egin*-arina' egiturak modifikatzeko aukera mugatuak dituela erakusten duen bigarren fenomeno sintaktikoa mugimendu mota ezberdinekin lotuta dago. Beraz, (14) eta (15)-eko nz-mugimenduak eta (16) eta (17)-ko topikalizazioak antzeko asimetriak erakusten dituzte:

⁸ Gauza bera proposatuko genuke *Mikelek hitz bi egin d(it)u* bezalako adibideetarako, haue-tan *bi* kuantifikatzaileak *gutxi* adberbioaren hedadura berbera izango bailuke, hots, zabala. (*Mikelek hitz bi egin d(it)u* adibidea Baionan, 2001.eko irailaren 21ean Euskaltzaindiaren Nazioarteko XV. Biltzarrean parte hartzen zuen entzule batek proposatutakoa da).

(14)

- a. Nork *egin* du lo?
- b. *Nork lo *egin* du?

(15)

- a. *Nork *egin* du alde?
- b. Nork alde *egin* du?

(16)

- a. Lo, nork *egin* du lo?
- b. *Lo, nork lo *egin* du?

(17)

- a. *Alde, nork *egin* du alde?
- b. *Alde, nork alde *egin* du?

Nabaria da nz-galderetan eta topikalizazioetan *lo* izena *egin* aditzetik banatuta agertu behar dela. Horren kontrara, *hots* izena aditzaren ondoan agertu behar da. Beraz, aurreko adibideek erakusten duten bezala, predikatu hauen artean aurkaritza nabarmen bat dago. Tamalez, modifikazio sintaktiko hauek guztiak ez daude modu uniforme batean banaturik, hau da, 'Izen + *egin*-arina' egitura bakoitzak ez ditu arestian apatutako aldaketa sintaktiko guztiak onartzen.

Azkenik, erlatibozko esaldiek hirugarren modifikazio sintaktiko mota osatzen dute. Hurrengo adibideak erakusten digu erlatibozko esaldiek ezin dutela 'Izen + *egin*-arina' egituretan parte hartu⁹:

(18)

- *Mikelek *egin* duen min handia izan da

(18) adibidea arrazoi ezberdinengatik bazter daiteke. Bereziki, (18) adibidearen ezgramatikaltasuna erlatiboaren aintzindariaren determinatzailearik ezak sor lezake, (Longobardi, 1994). Bestaldetik, badira 'Izen + *egin*-arina' predikatuak izenean determinatzailea daramatenak. Gure ustez, honelako kasuetan bakarrik *egin* astunaren irakurketa izango litzateke aproposa. Hau da, hain zuzen ere, hurrengo adibideen kasua:

(19)

- a. Mikelek *egin* duen hanka luzea izan da (*egin*-astunaren irakurketa)
- b. *Mikelek *egin* duen hanka azkarra izan da (*egin*-arinaren irakurketa)

⁹ Euskaldun guzti guztiak ez dute hemen azaltzen diren juizioekin bat egiten. Hala ere, oro har onartzen da gramatikaltasunari dagokionez aurkaritza argi bat dagoela.

Lan honetan aipagarritzat jotzen dugun azken ezaugarria 'Izen + *egin*-arina' egituraren jokabide semantikoa da. Hirugarren atalean eztabaidatuko den bezala, egitura hauen esanahia ezin da beti euren zatien esanahietatik modu zuzen batean eratorri. Erkatu datozen adibideen hitz bakoitzaren eta konplexu osoaren esanahiak:

- (20)
 a. Kale *egin*
 b. Hitz *egin*

'Izen + *egin*-arina' predikatuen esanahiari dagokionez, lau arlo semantiko ezberdin bereiztu beharko lirateke. Hurrengo taulan arlo hauek eta hauei dagozkien predikatuak ikus daitezke¹⁰:

SOINU-EKOIZPEN ADITZAK	a) Komunikazio linguistikoa: berba <i>egin</i> , dei <i>egin</i> , ele <i>egin</i> , hitz <i>egin</i> , hots <i>egin</i> , oihi <i>egin</i> , solas <i>egin</i> , ... b) Eragiketa linguistikoak sortara ditzaketan ekintzak: agira <i>egin</i> , agur <i>egin</i> , bakeak <i>egin</i> , burla <i>egin</i> , deihadar <i>egin</i> , desafio(a) <i>egin</i> , duda <i>egin</i> , gogoetak <i>egin</i> , iseka <i>egin</i> , otoitz <i>egin</i> , ... c) Soinuen ekoizpena: barre <i>egin</i> , zurrunga <i>egin</i> , ...
MUGIMENDUZKO ADITZAK	Alde <i>egin</i> , atzera <i>egin</i> , bultz <i>egin</i> , dantza(n) <i>egin</i> , hanka <i>egin</i> , hegan <i>egin</i> , igeri <i>egin</i> , ihes <i>egin</i> , irrist <i>egin</i> , labain <i>egin</i> , laprast <i>egin</i> , laster <i>egin</i> , ospa <i>egin</i> , salto <i>egin</i> , ...
GORPUTZAREN BEHAR FISIKOEN ADITZAK ETA KONTROLATUGABEKO MUGIMENDUAK	Aharrausi <i>egin</i> , dar-dar <i>egin</i> , eztul <i>egin</i> , hasperen <i>egin</i> , irri <i>egin</i> , kaka <i>egin</i> , lo <i>egin</i> , negar <i>egin</i> , ok(a) <i>egin</i> , pixa <i>egin</i> , taupadak <i>egin</i> , usin <i>egin</i> , zintz <i>egin</i> , zurrunga <i>egin</i> , ...
EGURALDIAREN DESKRIBAPENAK	Elur(ra) <i>egin</i> , euria <i>egin</i> , txingorra <i>egin</i> , ...

Taula 1.

¹⁰ Ikus (Etxepare, 2000) adierazpen hauen arlo semantikoaren araberrako beste sailkapen ezberdin baterako.

Zenbait kasutan, badira hitz bakarreko aditzak 'Izen + *egin*-arina' predikatuekin identifika daitezkeenak (Etxepare, 2000). Kasu hauetan, hitz bakarreko aditzak izenari *-tu* atzizkia gehiketaren bitartez lortzen dira:

(21)
a. Dei \longrightarrow Deitu

Zenbait adibidetan bada, esanahiari dagokionez, 'Izen + *egin*-arina' predikatu eta beraien hitz bakarreko aditzen arteko ezberdintasun bat. Edozein kasutan ere, ezberdintasuna mehea izaten da (Etxepare, 2000): *dei egin* eta *deitu* predikatuen arteko ezberdintasuna selekziozko murriztapenetan datza. Beraz, (22)-k erakusten duen bezala, *deitu*-k *telefonoa* aukeratzen du bitarteko gisa, *dei egin* predikatutik bereiztuz¹¹.

(22)
Jonek amari telefonoz deitu / *dei egin zion

Laburbilduz, egitura semantiko eta sintaktiko berezi bat deskribatu da. Hau izen batez eta *egin* aditz arinez osatuta dago. Izenari dagokionez, gehienetan determinatzailearik gabe azaltzen da. Euskal izen guztiek ezin dute egitura honetan parte hartu, baina bai, ordea, adberbio eta lokatibo batzuk. Honek adierazten du egitura honen kopurua finitua dela¹². Modifikazio sintaktikoei, topikalizazioari eta *nz*-mugimenduari dagokienez, egitura hauek oso jokabide irregularra erakusten dute. Semantikoki, 'Izen + *egin*-arina' egituren esanahia ezin da zuzenean euren parteen esanahietatik eratorria izan. Hauexek dira 'Izen + *egin*-arina' eta 'Izen + *egin*-astuna' egituren arteko ezberdintasunik nabarmenenak.

Ezaugarri hauek guztiak kontuan izanik, hiru egitura mota bereiz daitezke: (A) izen hutsak (baita adberbio edota lokatiboak ere) + *egin*-arina, (B) izen determinatzaileduna + *egin*, (A) eta (C) irakurketen arteko anbiguotasunak erakusten dituztela, eta azkenik, (C) izen determinatzaileduna + *egin*-astuna.

A	B	C
Izen + <i>egin</i> -arina	Kasu anbiguoak	Izen + <i>egin</i> -astuna
Lan <i>egin</i> , min <i>egin</i> , amets <i>egin</i> , dei <i>egin</i> , ...	Bizarra <i>egin</i> , erroak <i>egin</i> , bakeak <i>egin</i> , ...	Lana <i>egin</i> , etxea <i>egin</i> , ogia <i>egin</i> , ohea <i>egin</i> , ...

Taula 2.

¹¹ *Deitu* aditzak euskaraz beste esanahiak ere baditu: jendeari izena jarri, arreta deitu, etabar.

¹² Ohartu zentzu honetan 'Izen + *egin*-astuna' egiturak ez daudela mugatuta, hau da, infinituak direla.

3. 'IZEN + EGIN-ARINA' PREDIKATUAK ADIERAZPEN IDIOMATIKO BEZALA

Atal honetan 'Izen + *egin*-arina' predikatuen analisi semantikorako bidea eskaintzen da. Lehenengo urratsean (3.1) puntuan predikatu idiomatiko hauen ezaugarri garrantzitsuenak azalduko dira. Honen ondoren, adierazpen idiomatiko eta 'Izen + *egin*-arina' egituren arteko konparaketa bat egingo da (3.2). Azkenik, idiomatikotasunaren azterketa sakonago bat egingen da eta aldi berean, honekin zerikusi handia duten adierazpen konplexuen konposizionaltasuna eta esanahien literalasuna aztergai izango dira (3.3) azpiatalean.

3.1. Adierazpen idiomatikoak

Adierazpen idiomatikoek ezaugarriak hurrengoak dira: adierazpen idiomatikoak sintaktikoki zurrinak dira eta semantikoki ezin auresangarriak.

Zurruntasun sintaktikoak erakusten du X^c mailatik gorako adierazpen batzuk ez dituztela semantiko eta sintaktikoki parekoak izan daitezkeen adierazpenek onesten dituzten modifikazio sintaktikoak onartzen. Esate baterako, (23a) ez da adierazpen idiomatiko bat, eta *give* aditzak pasibizazio prozesua onartzen duenez, (23b) gramatikala da. Bestaldetik, (24a) adibidean *give* aditza adierazpen idiomatiko baten hitz bat da eta idiom honetan, behintzat, dagokion pasiboa (24b) ez da posible:

(23)

- a. Mary has given John a present
Miren-NOM lag. eman Jon-DAT bat opari-AKUS
Mirenek Joni opari bat eman dio
- b. John has been given a present by Mary
Jon-NOM lag. izan eman bat opari-AKUS Miren-(AGENT)
Jon Mirenek opari bat emana izan da

(24)

- a. Miren has given Jon a hand
Miren-NOM lag. eman Jon-DAT bat esku-AKUS
Mirenek Joni esku bat eman dio (lit.)
Mirenek Joni lagundu dio
- b. ??John has been given a hand by Miren

Jon-NOM lag. izan eman bat esku-AKUS Miren-AGENT
Jon Mirenek esku bat emana izan da¹³

Adierazpen batzuen esanahia beraien osagaien esanahietatik ezin erator-
tzea lotuta legoke adierazpen hauen esanahia semantikoki ezin auresateare-
kin. Dirudienez, adierazpen bat ezin auresateak esanahia ezartzeko modu
arbitrario eta ez-konposizional bat dakar, bere osagaien esanahi lexikoa kon-
tuan izan gabe. Alde batetik, (25a) perpausaren esanahia osatzen duten hitz
guztien esanahi lexikoan datza eta bere oinarritzko egitura sintaktikoa ezagu-
na da. Bestetik, (25b) perpausaren esanahi idiomatikoa ezin daiteke bere osa-
gaien esanahietatik eratorri:

(25)

- a. John has gone to the airport
Jon-NOM aux joan det aireportu-ADLAT
Jon aireportura joan da
- b. John has gone with the tide
Jon-NOM aux joan det itsas korronte-SOZIAT
'Jon itsas korrontearekin joan da' (lit.)
Jonek azken tendentziei jarraitzen die

Bi ezaugarri hauek idiomatikotasuna graduzko arazo bat bihurtzen dute.
Zentzu honetan, badira adierazpen konplexu batzuk beste batzuk baino
modifikazio sintaktiko handiagoa onartzen dutenak. Era berean, badira egitu-
ra batzuk besteak baino opakoagoak direnak, esanahiari dagokionean¹⁴.
Hemen aurkezten den idiomatikotasunaren ezaugarritzatzea gehiago zehaz
daitekeen arren, nahikoa da adierazpen idiomatiko eta 'Izen + *egin*-arina' egi-
turen arteko konparaketa bat egin ahal izateko.

3.2. 'Izen + *egin*-arina' predikatuak eta idiomak

'Izen + *egin*-arina' predikatuak erakusten dituzten hainbat ezaugarri
semantiko nahiz sintaktiko adierazpen idiomatikoetan ere ikus daitezke.
Antzekotasun hauek predikatu hauek idiomtzat hartzera garamatzate.

¹³ Jatorritzko ingeles hiztunen artean iritzi ezberdinak aurkitu izan ditugu 24b perpausa
interpretatzerakoan. Horrela, hiztun batzuk ez lukete perpaus hori esango, baina aitortu
egiten dute arazorik gabe ulertuko luketela entzungo balute; beste batzuentzat pasibizaturi-
ko perpaus honek edukin idiomatikoa gordeko luke.

¹⁴ *Blow your stack* idiomaren esanahia *chew the fat* baino gardenagoa da. (Fillmore et al.,
1988) lanean bi motako idiomak bereizten dira: *encoding* eta *decoding* idiomak. *Encoding*
motako idiomak lehenengo entzumenean ulergarriak direnak izango lirateke.

Lehenengo eta behin, adierazpen idiomatikoak anbiguoak dira. Zalantzaritasun hori aztertzen ari garen predikatuetan ere ager daiteke. Esate baterako, (26) adibidean agertzen den perpaus idiomatikoak bi interpretapen ezberdin ditu: *Jon hil zen* edota *Jonek kubo bat bultzatu zuen hankekin*. Gauza bera aplika lekieke bestelako idiom batzuei, hots, *ilargian egon* edota *goseak hil* idiomei. Euskarazko *hanka egin* bezalako prekikatuak anbigua izan liteke (27) adibidean agertzen diren bi irakurketen artean:

(26)

John kicked the bucket

Jon-NOM bultzatu det kubo-AKUS

Jon hil zen / Jonek kubo bat bultzatu zuen

(27)

Jonek hanka *egin* du

'Jonek ihes *egin* du' / 'Jonek hanka (espezifikoko bat) *egin* du'

(26) adibidearen berehalako interpretapena idiomatikoa da eta modu berean lehenengoa da (27)-ren interpretapen naturalena. Zalantzaritasuna, beraz, agerian dago, baina zehar estiloan agertzen denarekin, hau da, *Gatza pasatu ahal didazu?* bezalako perpaus batean agertzen den zalantzaritasunarekin konpara daitekeelarik.

Bigarren arrazoia 'Izen + *egin*-arina' predikatuak idiomak direla esateko *egin* aditzarekin agertzen diren hainbat izen beren kategoria sintaktikokoak ez izateak egiaztatzen du. Argumentu hau hurrengo adibideetan frogatu daiteke:

(28)

Mary is in the know

Miren-NOM izan det jakin

Miren jakinaren gainean dago

(29)

Mirenek hegaz *egin* du

(28) adibidean *know* aditza izenei legokiekeen lekuan agertzen da. (29)-an *hegaz* adberbioak subjektuaren ergatibo markak agintzen duenez, *egin* aditzaren argumentu posizioan dago, hain zuzen, izenak espero daitezkeen lekuan.

Ondoren hirugarren antzekotasun aipagarri bat aztertuko da. Badira hainbat hitz bakarrik honelako egitura linguistikoetan ager daitezkeenak, hots, ezin dira eurak bakarrik agertu. Adibidez, ingelesezko *amok* hitza idiom

baten zati bat bezala esistitzen da, (30)-ean erakusten den bezalaxe. Euskararen kasuan, *turрут* izenak ez du aldaketarik jaso ‘Izen + *egin*-arina’ predikatuan, baina bai bestelako erabileretan, hauetan *turuta* nahiago delarik.

(30)

John was running amok
Jon-NOM izan korrika-gerund *amok*
Jonek koleratsurik egiten zuen korrika

(31)

Mirenek Jonez *turрут* *egin* du

Azkenik, adierazpen idiomatikoetan modifikazio sintaktikoak onartu egiten dira. Hala eta guztiz ere, modifikazio sintaktikoek ez dute beti perpaus gramatikalik sortzen. Era berean, ‘Izen + *egin*-arina’ predikatuak batzutan modifikatuak izan daitezke, arestiko (10)-(17) adibideetan erakusten zen bezala. Hala ere, bigarren atalean ikusi dugun legez, modifikazioa ez da beti onargarria izaten.

Antzekotasunekin bukatzeko esan daiteke badirela modu ezberdin asko egoera berberari idiomatikoki erreferentzia egiteko, (32) eta (33) adibideek erakusten dutenez¹⁵:

(32)

- a. Throw someone to the dogs / the lions / the wolves ...
Bota norbait-AKUS det txakur-pl-ADLAT / det lehoi-pl / det otso-pl
Norbait txakurretara / lehoietara / otsoetara bota
- b. Blow your stack / Hit the ceiling / Bite your head off
Putz *egin* zure pila / Jo det teilatu / Kosk *egin* zure burua
Biziki haserratu

(33)

- a. Ospa / alde / hanka *egin*
b. Kale / huts *egin*

¹⁵ Adierazpen idiomatikoak ekintza arruntei erreferentzia egiteko erabiltzen dira. Idiomak ezaugarritzatzerakoan, (Nunberg et al., 1994) lanean adierazpen hauen “proberbialitatea” kontuan hartzen da, hurrengo definizioa erabiltzen delarik: “Idioms are typically used to describe -and implicitly- to explain- a recurrent situation of particular social interest (becoming restless, talking informally, divulging a secret or whatever) in virtue of its resemblance or relation to a scenario involving homey, concrete things and relations -climbing walls, chewing fat, spilling beans.” (Nunberg et al., 1994: 493). Definizio honek azal lezake zergatik izen guztiak ez diren onargarriak egitura hauetan.

Antzekotasun hauek guztiek 'Izen + *egin*-arina' predikatuak adierazpen idiomatikoak direla sostengatzen dute¹⁶.

Hipotesi honek, berriz, 'Izen + *egin*-arina' predikatuen jokaera semantiko eta sintaktikoari argitasun gutxi ematen dio, hain zuzen ere adierazpen idiomatikoaren jokaera semantiko eta sintaktikoa bera ere ez baitago argi. Honengatik, idiomatikotasunaren analisi sakonago bat egiteke legoke.

3.3. Idiomatikotasuna, konposizionalitatea eta esanahiaren literaltasuna

Idiomen esanahia ezin da aurrean hauetan agertzen diren hitzen esanahia ezagutu arren. Horrek egitura konplexu hauen esanahia konposizionala ez dela edo, behizat, esanahia eraikitzeke modua oso gardena ez dela esan nahi du. Adierazpide konplexuen konposizionalitatea egitura hauetan agertzen diren unitate lexikoen esanahai literala kokatu nahi den lekuan eta euren egitura sintaktikoan datza. Horrela, idiomatikotasuna, konposizionalitatea, esanahiaren literaltasuna eta egitura sintaktikoa erlazionaturiko lau hitz ditugu.

Hizkuntza naturalen semantikan ez dago konposizionalitatea negoziatzerik. Ideia hau semantikari ezartzen zaion 'sormen' argumentutik datorkigu. Gizakiak baliabide mental finitoak dituzenez, nahiz eta perpaus ezberdinen multzo infinito bat ulertzeko gai den, esanahia eraikitzeke trebetasuna sarre-ra lexikoen eta errekurtsiboak diren erregela semantikoen multzo finito batean oinarritu behar da. Hots, egitura konplexuen esanahia ezin da zerrenda bat bezala ikasi, baizik eta euren oinarritzko osagaien esanahitik eta egitura sintaktikotik eratorri behar dugu.


Esanahiaren konposizionalitaterako hainbat argumentu sendo eman ondoren, X³ baino altuagoa den edozein adierazpenen esanahia era konposizional batean mugatu beharko da. Hala ere, bada lekuri Lexikoian konplexuak diren adierazpen berezi batzuk onartzeko, baina bakarrik baldin eta hauek talde finito bat osatzen badute. Izan ere, idiomak salbuespentzat hartuak izan dira.

Hau horrela izanik, 'Izen + *egin*-arina' aztertzeke modu posible bat egitura hauek guztiak Lexikoian zuzenean zerrendatzea izango litzateke. Honen arabera, adierazpen hauen itxura eta esanahiaren arteko erlazioa guztiz arbitrarioki ezarriko litzateke. Jackendoffen sistema errepresentazionalari jarrai-

¹⁶ Gainera, Artiagoitiak elkarrizketa pertsonalean komentatu bezala, 'Izen + *egin*-arina' predikatuak oso jokaera morfologiko berezia aurkezten dute. Hauek ez dute ondorengo eratorpen prozesuetan parte hartzen: *irakurri* — *irakurle* versus *lo egin* — **lo egile*.

tuz, (Jackendoff, 1997), *kale egin* predikatuaren sarrera lexikoa hurrengo izango dateke:

(34)



Haatik, adierazpen idiomatikoen multzoa hain handia da, ezen ezin lekiokoen Lexikoiari gehitu, erabilerazko arazorik sortu gabe. Ezintasun honek 'Izen + *egin*-arina'¹⁷ predikatuertarako bestelako proposamen bat egite-
ra eramaten gaitu. Bigarren aukera honetan konposizionalitate ahula, hau da, esanahi literalak 'input'-tzat hartzen ez dituen konposizionalitate mota hau, esanahia eraikitzeko beste modu bat bezala proposatzen da.

Konposizionalitatearen argudioak ez du esanahiaren eraikuntza gauza-
tzen den mailari buruz ezer esaten. Hau da, konposizionalitatea propietate
semantiko desiragarri bat bada ere, ez dago ezer konposizioak osagaien esa-
nahi literalak input bezala hartzen dituela esatera behartzen gaituenik. Izan
ere, esanahi literalek konposiziorako prozesua ahulduko balu, kasu proble-
matiko asko sortuko lirateke¹⁸:

(35)

- a. John buys the book
 Jon-NOM erosi det liburu-ACUS
 Jonek liburua erosten du
- b. John begins the book
 Jon-NOM hasi det liburu-ACUS
 Jonek liburua hasten du


¹⁷ Arestian esan bezala, adierazpen idiomatikoen esanahia opakoetatik gardenagoetara hedatzen da. 'Izen + *egin*-arina' predikatuak jokaera berbera erakusten dute. 'Izen + *egin*-arina' predikatu batzuk opakoagoak dira (*kale egin*), beste batzuk gardentasun handiagoa erakusten duten bitartean (*ihes egin*, lan *egin*).

¹⁸ Ikusi Pustejovsky (1995), Jackendoff (1997), besteren artean.

(35a) adibideak liburu bat lortzeko egiten den diru trukeari erreferentzia egiten dio. Hala eta guztiz ere, (35b) ulertezina da, liburuak biltzen duen ekin-tza bati erreferentzia egiten ez bazaio: liburuak *irakurtzen* hasi, liburuak *idazten* hasi, liburuak *argitaratzen* hasi, etabar.

(35) adibideetako ereduak jarraitzen dituzten adierazpenak printzipioz ez dira finitoak. Ondorioz, ez dago konposizionalitate hertsia mugatutako adierazpen konplexuen multzo batera murrizterik. Honek esan nahi du konposizionalitate hertsia ez dela adierazpen hauen esanahia biltzeko modu bakarra izango.

Zenbait mekanismoren bidez, konposizionalitate ahularen gauzatze ezberdinak lor daitezke. Idazle batzuk (Gibbs, 1995; Nunberg et al., 1994) zenbait idiomen esanahia interpretaziozko prozesu metaforiko batzuen bidez eratortzen saiatu izan dira¹⁹. Bestelako prozesu batzuetan adierazpen linguistiko-koen zentzu markatuak ezabatzen saiatzen dira. Bide semantiko batean, Pustejovskyren 'tipo koertzioa' [type coercion] eta 'ko-konposizioa' egitura konplexuen zentzu anizkunak euren osagaien sarrera lexiko mugatu batzuetatik sortzeko erabiltzen dira. Hurrengo adibidean mekanismo semantiko hau (35b) bezalako adibide bati aplikatuz gero lortzen den emaitza erakusten da²⁰:



Bada, beraz, arrazoi on bat 'tipo koertzio' erregela semantikoa esistitzeko: erregela semantiko bat ezinbestekoa da (35b) adierazpenaren esanahiaren

¹⁹ Esate baterako, (Gibbs, 1995: 104) 'spill the beans' idiomen azpian bi metafora kontzeptual aurkitzen direla proposatu izan da: Gogoa edukinontzi bat da eta ideiak entitate fisikoak. Beraz, 'reveal a secret' (sekretu bat ezagutarazi) adierazpenaren esanahia konplexuaren esanahi literalarekin erlazionatuta dago era metaforiko batean.

²⁰ Tipo koertzioa: "a semantic operation that converts an argument to the type which is expected by a function, where it would otherwise result in a type error" (Pustejovsky, 1995: 59). Bestaldekik, konposizioa gertatzen da sintagma baten barruko anitz elementuk hitz hauentzako lexikalizatugabeko zentzuak sortzen dituztenean. (Pustejovsky 1995: 61).

konposiziorako. Hemen diogunez, ‘tipo koertzio’ bezalako erregela bat ‘Izen + egin-arina’ egituren interpretapenean letzake. Artikulu honen tesi nagusienetako batek ‘Izen + egin-arina’ predikatuek euren esanahia interpretapenezko prozesu semantiko batzuen bidez eratortzen dutela erakusten du. ‘Izen + egin-arina’ predikatuen esanahia ia beti konposizionala da, baina konposizionalitatea predikatuaren izenari prozesu semantiko batzuk aplikatu ostean gauzatzen da. Ikuspuntu honetatik, ‘Izen + egin-arina’ egituraren esanahia ez litzateke soilki konposizionala izango ezta arbitrarioa ere.

Mekanismo honek nola funtzionatzen duen ikusteko, azter dezagun ‘Izen + egin-arina’ predikaturen bat. Lan honetan *egin* aditz arina bailitzan hartua izan da. Honela, bere esanahiak agente eta ebento baten artean erlazio bat ezartzen du. Hau (37)-n erakusten da²¹:

(37)

[EGOERA CS⁺ ([GAUZA X], [EGOERA Y])]

Errepresentazio honi kasu eginez, subjektua CS⁺ funtzio kontzeptualaren lehenengo argumentuan txertatzen da (Jackendoff, 1990). Objektu posizioan agertzen den izenak (37)-ko CS⁺ funtzio kontzeptualaren bigarren lekua beteko luke. Halabaina, ‘Izen + egin-arina’ predikatuen objektu posizioan agertzen den izenak propietate bati egiten dio erreferentzia, ez ebento bati, hain zuzen, izen hauek nominal ahulak baitira. Honek adierazten digu perpaus bat onargarria izateko azterketa bikoitz bat egin behar dela. Lehenengo urratsean, objektu posizioan dagoen izena nominal ahul batekin identifikatuko litzateke. Arestian esan bezala, objektu posizioan dagoen izenak propietate bati erreferentzia egingo balio bezala interpretatuko litzateke. Beraz, analisiaren bigarren urratsa propietate hau egoera bihurtzean letzake. Beraz, proposa dezagun prozesu semantiko hau erakusten duen adibide bat:

(38)

Mirenek barre *egin* du

Jackendoffen (1990) lanaren arabera, perpaus baten errepresentazio semantikoa aditz nagusiaren errerepresentaziotik eratorriko litzateke. Horregatik, (38) adibidearen hasierako egitura semantikoa (37)-koa da. Ondoren, (38)-ko izen biak (37) adibidean agertzen den errepresentazio

²¹ Erabiltzen dugun itxuraketa sistemak ez du gure argudioetan eraginik. Hemen, Jackendoffen semantika kontzeptuala erabili izan da (Jackendoff, 1990). CS⁺ funtzio kontzeptualak emaitza positiboa duen erlazio kausatibo bat ezartzen du, hau da, CS⁺ funtzioaren bigarren argumentu bezala agertzen den ebentoa gertatuko da. Gauza bera errepresenta liteke semantika davidsoniarrean: *egin* (e, x, y).

semantikoan txertatuak izan behar dira. Batuketa teoriari [linking theory] jarraiki, *Miren* subjektuak (37)-ko *X*-ren posizioa beteko du. Batuketa prozesu honek hurrengo emaitza emango luke:

(39) [EGOERA CS⁺ ([GAUZA MIREN], [EGOERA Y])]

Orain *barre* izenak (39)-ko *Y*-aren lekua hartu beharko luke. Baina *barre* gauza bati egiten dio erreferentzia, ez egoera bati. Horrexegatik, gorago aipatutako azterketa bikoitza gertatu behar da. Lehenik, *barre* izena *barrezka* egoerako propietate bihurtzen da. Ondoren, *barrezka* egoerako propietate hau *Miren* barre egiten ari den egoera batean txertatu behar da. Egoera hau izango da (39)-ko *Y*-aren lekua beteko duena. Hurrengo eskeman prozesu honen funtzionamendua erakusten da:

(40)

1. [EGOERA CS⁺ ([GAUZA X], [EGOERA Y])] *egin-arinaren
sarrera lexikoa*
2. [EGOERA CS⁺ ([GAUZA MIREN], [EGOERA Y])] *subjektuaren
uztardura erregela*
3. [GAUZA BARRE] *'barre'-ren
sarrera lexikoa*
4. [GAUZA BARRE] —————> [PROPIETATEA BARREZKA] *nominal
ahulen identifikazioa, 3*
5. [PROPIETATEA BARREZKA] —————> [EGOERA IZAN ([GAUZA MIREN],
[PROPIETATEA BARREZKA])] *tipo koertzioa, 4*
6. [EGOERA CS⁺ ([GAUZA MIREN], [EGOERA IZAN ([GAUZA MIREN], [PRO-
PIETATEA BARREZKA])])] *batuketa erregela, 5, 2*

Nabarmendu behar da gauzei erreferentzia egitetik egoerei erreferentzia egitera pasatzearen izenen prozesu hau maila kontzeptual batean gertatzen dela²². Beraz, prozesu honek ez du nahitaez islada sintaktikorik²³. Kontuan

²² 'Izen + *egin*-arina' adierazpenetarako hemen proposatzen den ordezkatzeko prozesua beste-lako adibidetarako ere beharrezkoa da:

(i) Peruk leloarena *egin* du

²³ Egitura hauen izena aditzean inkorporatzen denentz sintaktikoki kezka nagusia da (Baker, 1988). Demagun inkorporazioa dagoela. Hale eta Keyser (1993) lanari jarraiki, predikatu hauek denominalizat hartu litezke, honela, (i)-n agertzen den bezala, lehenengo proiektzioan aditz eta izen osagarri bat agertuko liratekeelarik. Inkorporazioa egotekotan, *egin* aditzak izena erakarriko luke aditz konplexu bat osatzeko, beraz, 'Izen + *egin*' predikatuak aditz ezerगतiboen azpitalde bat direlarik:

hartu, (39)-ko prozesu semantikoa bestelako kategoria sintaktikoei ere aplika lekiekeela, adibidez, adberbioei (korrika *egin*, hegaz *egin*, dantzan *egin*). Kasu hauetan guztietan, ez dateke partitiborik onartuko, hitzak semantikoki ez bailuke argumentu gisa funtzionatuko.

4. ONDORIOAK

Artikulu honetan ezaugarri semantiko eta sintaktiko bereziak erakusten dituzten 'Izen + *egin*' predikatuen analisi semantiko bat egiten da. Ezaugarri berezi hauek predikatu hauek *egin*-astuna duten egitura iragankor arruntetik bereizten dituzte. Semantikoki, 'Izen + *egin*-arina' predikatuen esanahia da euren osagaien esanahitik zuzenean eratortzen. Sintaktikoki, predikatu hauek ez diote euskararen gramatikaren barruan eredu arruntari jarraitzen. Hausnarketa hauek artikuluan zehar agertzen diren beste hainbatekin batera 'Izen + *egin*-arina' predikatuak adierazpen idiomatikotzat proposatzera eramaituzte.

Artikulu honetan eskeintzen den 'Izen + *egin*-arina' predikatuen analisiak, berriz, ez du bigarren atalean aipatzen diren ezaugarri semantiko eta sintaktiko guztietan sakontzen. Kontua da ez dagoela arrazoirik modifikazio sin-

- (i) $[_{AS} IS [A' A [I A] IS [I]]]$

Proposamen honekin ados agertzen diren beste egile batzuk, (Uribe-Etxebarria, 1989; Martinez, 1996; Fernandez, 1997), izenaren inkorporazioak ezergatiboak aditz iragankorretatik bereiziko dituela esango dute. Egile hauen inkorporazioaren aldeko argudio bat 'Izen + *egin*-arina' predikatuen izena determinatzaileak gabe agertzea izango da. Ikuspuntu honetatik, determinatzailea agertzen den adibideak ((5a) kasurako) ezin izango liriateke ezergatibo bezala aztertu, aditz iragankor arruntak bezala baizik, determinatzaileak objektuaren inkorporazioa eragotziko bailuke. Tamalez, hau ez da emaitza desiragarria. Izan ere, izena aditzetik bana daitekeela frogatzen duten adibideek (adberbioak, partitiboak (10), (12), (13)) inkorporazioaren kontrako argudio bat osatuko lukete.

Bigarren aukera bat 'Izen + *egin*-arina' predikatuak sintaktikoki iragankorren parekoak direla proposatzean letzake. (Levin, 1983; Ortiz de Urbina, 1989). Honen arabera, predikatu hauen egitura sintaktikoa hurrengoa izango dateke:

- (ii) $[_{AS} IS [A' A [IS [I]]]$

Proposamen hau onartzeko arrazoi nagusia izena eta aditza banagarriak izatea da, (10, 12, 13, 14 eta 16) adibideetan erakusten zen bezala. Jakinaenez, inkorporazioa buruz buruko mugimendu bat da eta ez du mugituriko buruaren modifikaziorik onartzen. Hala ere, inkorporazioaren kontrako teoriak baditu bere arazoak. Garrantzitsuenetakoak izenaren determinatzaileak eza eta esanahia eraikitzeke modu berezia izango liriateke.

taktikoa onartu edo eragozteko. Jakina, analisi sakonago bat beharrezkoa izango litzateke.

5. BIBLIOGRAFÍA

ARTIAGOITIA, X. 1997. "DP predicates in Basque". *Working Papers in Linguistics*, 15, 161-198 orr. University of Washington.

BAKER, M. 1988. *Incorporation. A theory of grammatical function changing*. University of Chicago Press, Chicago.

ESPINAL, M. T. 2000. "Property-denoting objects and incorporation in idiomatic constructions". Eskuizkribua, Universitat Autònoma de Barcelona.

ETXEPARE, R. 2000. "Valency and Argument Structure in the Basque Verb". Eskuizkribua.

FERNÁNDEZ, B. 1997. *Egiturazko kasuaren erkaketa euskaraz*. Ph. D. Dissertation.

Euskal Herriko Unibertsitatea.

FILLMORE, C. KAY, P. & O'CONNOR, M. C. 1988. "Regularity and idiomacity in grammatical constructions: The case of Let Alone", *Language*, 64, 501-538 orr.

GIBBS, R. W. 1995. "Idiomacity and Human Cognition", in M. Everaert et al. (eds.), *Idioms: Structural and Psychological Perspectives*, Erlbaum, Hove, U.K., 97-116 orr.

GRIMSHAW, J. 1990. *Argument Structure*. MIT Press, Cambridge, Mass.

GRIMSHAW, J. & MESTER, A. 1988. "Light verbs and theta-marking", *Linguistic Inquiry*, 19, 205-232 orr.

HALE, K. & KEYSER, S. J. 1993. "On argument structure and the lexical expression of syntactic relations", in K. Hale & S. J. Keyser (eds.) *The view from Building 20. Essays in Linguistics in honor of Sylvain Bromberger*. MIT Press, Cambridge, Mass, 53-109 orr.

JACKENDOFF, R. 1990. *Semantics Structures*. MIT Press, Cambridge, Mass.

JACKENDOFF, R. 1997. *The architecture of the language faculty*. MIT Press, Cambridge, Mass.

LAKA, I. 1993. "Unergatives that assign ergative, unaccusatives that assign accusative", in *MIT Working Papers in Linguistics: Papers on case and agreement I*, 18, 149-172 orr.

LEVIN, B. 1983. *On the nature of ergativity*. MIT Press, Cambridge, Mass.

LONGOBARDI, G. 1994. "Reference and Proper Names: A Theory of N-Movement in Syntax and Logical Form", *Linguistic Inquiry*, 25, 4, 609-665 orr.

MARTÍNEZ, A. 1996. "Syntactic evidence in favor of degrees of incorporation in [N + *egin*] constructions". *Deustuko mintegia (Eskuizkribua)*.

MCNALLY, L. & VAN GEENHOVEN, V. 1998. "Redefining the weak/strong distinction". *Universitat Pompeu Fabra & Max Planck Institut für Psycholinguistik (Eskuizkribua)*.

NUNBERG, G., SAG, I. A. & WASOW, T. 1994. "Idioms". *Language*, 70, 491-538 orr.

ORTIZ DE URBINA, J. 1989. *Parameters in the grammar of Basque*. Foris, Dordrecht.

PUSTEJOVSKY, J. 1995. *The Generative Lexicon*. MIT Press, Cambridge, Mass.

URIBE-ETXEBARRIA, M. 1989. "On noun incorporation in Basque and some of its consequences in the phrase structure". *University of Connecticut, Eskuizkribua*.

ZABALA, I. 1993. *Predikazioaren teoriak gramatika sortzailean (Euskararen kasua)*. Ph. D. Dissertation. Euskal Herriko Unibertsitatea.

ZAMARRIPA, P. 1913. *Manual del vascófilo*. Bilbo. Wilsen, 1987.

_____. 1915. *Gramática Vascongada*. Bilbo. José A. de Lerchundi.

EUSKARAREN ETA HIZKUNTZA ERROMANIKOEN FOKO EGITUREN ARTEKO ZENBAIT PARALELOTASUNEZ

M. Uribe-Etxebarria

Euskararen gramatika lanetan arreta berezia eskeini izan zaie Foko egiturei, egitura hauek erakusten dituzten berezitasun fonologiko, semantiko eta sintaktikoengatik. Lan honetan, euskararen eta zenbait hizkuntza erromanikoren foko egituren artean dauden zenbait paralelotasun sintaktiko eta semantiko ekarri nahi ditut zuen aurrera. Hiru dira hemen eztabaidatuko ditugun foko egiturak: a) *Piedpiping* egiturak, b) Foko kontrastiboa (NZ-in situ galderak eta Bukaerako Fokoa), eta c) Zati-galderen erantzunak. Hizkuntzalaritza teorikoaren ikuspuntutik, foko egitura hauen azterketak aukera bikaina eskeintzen digu mugimendu sintaktiko eta interpretazio semantikoaren arteko lotura eta elkarren arteko eragina ulertzeko. Zenbait kasutan foko egitura hauen azpian dagoen sintaxia zeharo argia ez bada ere, tipologikoki ezberdinak diren hizkuntza hauen foko egituren erkaketa dauden puntu ilunak argitzen lagungarria izan daitekeela uste dut.

1. *PIEDPIPING* EGITURAK ETA HITZ-HURRENKERA ALDAKETAK

Ezaguna denez, euskarak oso hitz-hurrenkera askea du. Adibidez, (1) zenbakiaren azpian agertzen diren esaldi guztiak gramatikalak dira euskaraz.

- (1) a. Urkok Maddiri liburu bat oparitu dio (Erg Dat Abs Aditza)
b. Urkok liburu bat oparitu dio Maddiri (Erg Abs Aditza Dat)
c. Maddiri oparitu dio Urkok liburu bat (Dat Aditza Erg Absol)

Hitz-hurrenkerari dagokionean, murriztapen gutxi daude euskaraz. Murriztapen ezagunen artean Albokotasunaren Baldintza dugu.

- (2) *Albokotasunaren Baldintza*: Galdera eta foko egituretan NZ-hitza zein fokoak aditzaren aurre-aurrean agertu behar dute.

Albokotasunaren Baldintza NZ-mugimendu laburrean (3a,b) zein NZ-mugimendu luzean (3c,d) bete behar da euskaraz. Baldintza hau Foko mugimenduan ere bete behar da (4).

NZ-mugimendua

- *NZ-mugimendu laburra*

- (3) a. *Nori* oparitu dio Urkok liburu bat ?
b. **Nori* liburu bat oparitu dio Urkok ?

- *NZ-mugimendu luzea*

- c. *Nori*_i esan duzu (zuk) [t_i [oparitu diola Urkok t_i liburu bat]]
d. **Nori*_i zuk esan duzu [t_i [oparitu diola Urkok t_i liburu bat]]

Foko mugimendua

- *Foko mugimendu laburra*

- (4) a. MADDIRI oparitu dio Urkok liburu bat
b. *MADDIRI liburu bat oparitu dio Urkok

- *Foko mugimendu luzea*

- c. MADDIRI_i esan dit (Joxik)
[t_i [oparitu diola Urkok t_i liburu bat]]
d. *MADDIRI_i Joxik esan dit
[t_i [oparitu diola Urkok t_i liburu bat]]

(3c) eta (4c) adibideetan, NZ-hitza eta Fokoa menpeko perpausetik atera dira, perpaus nagusira mugituz. Kasu hauetan, NZ-hitza eta Fokoa bakarrik mugitu dira perpaus nagusira. Baina euskaraz eskuragarri du galdera eta foko egituretan erabil dezakeen beste estrategia bat: *piedpiping*-a.

1.1. *Piedpiping*-a euskaraz

Aurreko azpiataleko mugimendu luzeko adibideetan (3c,4c) NZ-hitza eta Fokoa bakarrik igo dira perpaus nagusira. *Piedpiping* egituretan, aldiz, NZ-hitza eta Fokoa bakarrik mugitu beharrean, elementu hauek beraiekin

garraiatzen dute bere sorguneko Izen Sintagma edo perpausa.¹ Ondokoa, aldiz, deek bi egituren (ateraketa arruntaren eta piedpipinaren) artean dagoen perpausa isladatzen dute. (5a) perpausean, *nori* menpeko perpausetik atera eta perpausa berarekin bakarrik lekualdatu da perpaus nagusira, perpaus nagusiko aditzaren aurretan jarritz. (5b)-ko aldaera aztertzen badugu, alta, ikusten dugu *nori* perpausaren delatela bakarrik mugitu, eta menpeko perpaus osoa berarekin garraiatu duen perpaus goiko perpausera mugitu denean.

(5) - *NZ-hitzaren ateraketa arrunta*

a. *Nori*_i esan duzu [t_i [oparitu diola Urkok t_i liburu bat]]

- *Piedpipinga*

b. [Urkok liburu bat *nori* oparitu diola]_i esan duzu t_i ?

NZ-galderez gain, euskaraz foko egituretan ere posiblea dugu piedpipinga egitea. (6a) adibidean Fokoa bakar-bakarrik ezkereratu den bitartean, (6b) aldaeran Fokoak, *Maddi* Izen Sintagma, bere sorguneko perpausa berarekin batera mugiarazi du perpaus nagusiko aditzaren aitzinera.

(6) - *Fokoaren ateraketa arrunta*

a. MADDIRI_i esan dute [t_i [oparitu diola Urkok t_i liburu bat]]

- *Piedpipinga*

b. [Urkok liburu bat MADDIRI oparitu diola]_i esan dute t_i

Piedpiping egituretan ere *Albokotasunaren Baldintza* bete behar da. Kasu honetan, bi aldiz bete behar da *Albokotasunaren Baldintza*. Alde batetik NZ-hitza edo Fokoa eta bere perpausoko aditzaren artean. Hau betetzen ez denean —eta hau da hain zuzen ere (7a) eta (7c) adibideetan gertatzen dena— piedpipinga ez da posible. Beste aldetik *Albokotasunaren Baldintza* NZ-ak edo Fokoak “arrastaka” eramandako menpeko perpausa eta aditz nagusiaren artean ere bete behar da. Hau jazotzen ez bada, esaterako (7b) eta (7d) adibideetan, piedpipinga ezinezkoa da. *Albokotasunaren Baldintza*, beraz, ziklikoki betetzen da piedpiping egituretan.

(7) - *Albokotasunaren Baldintza piedpiping egituretan*

a. *[_{WP}[_{YP} Urkok *nori* liburu bat oparitu diola] esan duzu]?

b. *[_{WP}[_{YP} Urkok liburu bat *nori* oparitu diola] zuk esan duzu]?

c. *[_{WP}[_{YP} Urkok MADDIRI liburu bat oparitu diola] esan dute]

d. *[_{WP}[_{YP} Urkok liburu bat MADDIRI oparitu diola] haiek esan dute]

¹ Ikus, besteak beste, Ortiz de Urbina 1989, 1992, Ormazabal, Uriagereka & Uribe-Etxebarria 1994, Etxepare 1996, Hualde & Ortiz de Urbina 2001.

Orain arte ikusitako kasu guztietan piedpiping egitea aukerazkoa zen. Baina zenbait egituratan nahitaezkoa dugu piedpiping egiturara jotzea. Har dezagun (8a), adibidez. *Nori* izen sintagma konplexutik aterako balitz, mugimendu horrek zenbait printzipio sintaktiko bortxatuko lituzke (Ross 1968, Huang 1981, Chomsky 1986, etab.). Nola konpon dezakegu arazo hau? NZ-hitza erlatiboazko perpausetik zuzenean atera beharrean, NZ-hitza osagai honekin mugi daiteke, ateraketak eragingo lukeen hatsarre sintaktiko horien bortxaketa ekidinez. Hau da, hain zuzen ere, (8b)-ko adibideetan gertatu dena.

(8) *Ateraketa arrunta*a. **Nori*_i ikusi duzu [_{IS} [_{KONPS} t_i liburua eman dion] gizona]a'. **Nori* esan duzu[t_i [ikusi duzula [_{IS} [_{KONPS} liburu bat t_i oparitu dion] gizona]]?*Piedpipinga*b. [[liburua *nori* eman dion] gizona]_i ikusi du Peruk t_i ?b'. [[_{IS} [_{KONPS} liburu bat *nori* oparitu dion] gizona]_i esan du (Peruk)
[t_i ikusi duzula]]?

(9)-ko perpausak erakusten digute nahitaezko piedpiping egituretan ere Albokotasunaren Baldintza bete behar dela.

(9) a. *[_{IS} [_{KONPS} *nori* liburu bat oparitu dion] gizona]_i ikusi duzula] esan du] ?b. *[_{IS} [_{KONPS} *liburu bat nori* oparitu dion] gizona]_i zuk ikusi duzula]
esan du] ?c. *[_{IS} [_{KONPS} *liburu bat nori* oparitu dion] gizona]_i ikusi duela] zuk
esan duzu] ?• *Piedpiping, hitz-hurrenkera eta mugimendu sintaktikoa euskaraz*

Piedpiping egituretan aurkitzen dugun hitz-hurrenkera aztertuz gero, ondorio garbi bat atera dezakegu.

(10) *Hitz-hurrenkera*

a. Piedpiping egituretan, NZ/Fokoak piedpipingaren bidez mugituriko osagaiaren eskumako ertzean, osagaiaren bukaeran eta aditzaren aurre-aurrean, agertu behar du.

b. Beste elementu guztiek (hau da, NZ/Fokoa ez diren argumentu eta adjunktu guztiek) NZ/Fokoaren ezkerretara agertu behar dute.

Nola interpreta daiteke murriztapen hau ikuspuntu sintaktikotik? Ezaguna da osagai baten piedpipinga lortzeko, piedpipinga eragiten duen elementuak (NZ/Fokoak) osagai horren barneko A'-espezifikatzaile gune batera mugitu behar duela. Honek esan nahi du aztertu ditugun goiko adibideetan

NZ-hitza eta Fokoa A'-espezifikatzaile batera mugitu egin direla. Hau horrela bada, orduan beste elementu guztiak –hau da NZ-hitza eta Fokoaren ezker aldera agertzen diren elementuak– espezifikatzaile horren gaineko posizio batera mugitu behar izan dira. Beraz, laburbilduz, bi mugimendu mota ematen dira piedpiping egituretan euskaraz:

(11) *Mugimendu sintaktikoa*

- a. NZ-hitza/Fokoa A'-espezifikatzaile gune batera mugitzen da.
- b. Beste argumentu eta adjunktua A'-espezifikatzailearen ezkeraldera mugitzen dira.

Hurrengo atalean erakutsiko dugunez, gaztelerazko piedpiping egituretan ere bi mugimendu mota hauek ematen dira.

1.2. *Piedpipinga* gazteleraz

Ormazabalek (1992) erakutsi zuen gazteleraz ere piedpiping egiturak aurki ditzakegula IS baten barrutik ateratzean NZ-hitzaren kanporaketak eragin litzakeen printzipio eta baldintza sintaktikoen bortxaketak ekiditeko. Kasu hauetan, NZ-hitzak piedpipingaren bidez ezkerretaratu den osagaiaren eskuineko muturrean agertu behar du, kokaleku hau oinarrian NZ-ari dago-kion jatorrizko posizioa ez bada ere. Arestian azaldu bezala, hau da hain zuzen ere euskaraz gertatzen dena.

Izen Sintagmen Piedpipinga

- Izen Sintagma Arruntak

- (12) a. [La estatua [en el jardín]_{adv} [de qué diosa]_{obj}]_i te ha dicho Juan que había reconocido t_i ?
 b. *[La estatua [de qué diosa]_{obj} [en el jardín]_{adv}]_i te ha dicho Juan que había reconocido t_i ?

[Hitz-hurrenkera neutroa: La estatua de Venus en el jardín del Boulevard][Ormazabal 1992: 24]

- (13) a. (?)[La fotocopia [de Pedro] [de qué libro]_{obj}]_i dices que has visto t_i?
 b. *[La fotocopia [de qué libro]_{obj} [de Pedro]_i dices que has visto t_i ?

[Hitz-hurrenkera neutroa: La fotocopia del Quijote de Pedro]
 [Ormazabal 1992: 24]

Baina Ormazabalek aipatzen dituen egiturez gain, gazteleraz Izen Sintagma konplexuak eta Postposizio Sintagma ere mugitu daitezke piedpiping-

garen bidez (Uribe-Etxebarria 1998, 2001). Aurreko kasuetan bezala oraingo-etan ere, galde-hitzak bere sorguneko osagaiaren eskumako muga agertu behar du, nahiz eta hau ez izan NZ horri legokiokeen kokagune ezmarkatua. Hortaz, (14a,b) gramatikalak diren bitartean, (14c) adibidean NZ-hitza ez da erlatibozko perpausaren bukaeran agertzen eta, honen ondorioz, perpausa txarto eratu dago. Ondorio berbera atera daiteke (15) zenbakiaren azpian bildu ditugun adibideetatik. Piedpipinga zilegia izateko, galdetzailak mugituta osagaiaren eskuineko ertzean agertu behar du, hau hitz-hurrenkera neutroan NZ-aren berezko posizioa ez bada ere. Hau gertatu ezean perpausa ezgramatikala da, (15b) adibideak erakusten duen bezala.

Izen Sintagma Konplexuen Piedpipinga

- (14) a. ¿[El hombre que mató a quién] crees que es el responsable?
 b. ¿[El hombre que mató durante la noche/ayer a quién] crees que es el responsable?
 c. ?* ¿[El hombre que mató a quién durante la noche/ayer] crees que es el responsable?
 d. Hitz-hurrenkera neutroa: El hombre que mató a Pedro durante la noche

[Jiménez 1997, Uribe-Etxebarria 2001]

Postposizio Sintagmen Piedpipinga [R. Etxepare, a.k.]

- (15) a. ¿[De Irún *hasta dónde*] fuisteis ayer?
 b. *¿[*Desde dónde* hasta Irún] fuisteis ayer?
 c. ¿[Hasta Irún *desde dónde*] fuisteis ayer?
 d. ¿[*Desde dónde hasta dónde*] fuisteis ayer?
 e. Hitz-hurrenkera neutroa: Desde Santurce a Bilbao
- *Piedpipinga, hitz-hurrenkera eta mugimendu sintaktikoa gazteleraz*

Gazteleraz aurkitu duguna laburbilduz:

(16) *Hitz-hurrenkera*

- a. Piedpiping egituretan, NZ-hitzak piedpipingaren bidez mugituriko osagaiaren eskumako ertzean, osagaiaren bukaeran, agertu behar du.
 b. Beste elementu guztiek (hau da, NZ-hitza ez diren argumentu eta adjunktua guztiek) NZ-aren ezkerretara agertu behar dute.

Nola interpreta daiteke murriztapen hau ikuspuntu sintaktikotik? Goian aipatu duguna berjasoz, badakigu osagai baten piedpipinga lortzeko, piedpipinga eragiten duen elementuak osagai horren barneko A'-espezifikatzaileak izan behar direla.

tzaile gune batera mugitu behar duela. Honek esan nahi du aztertu ditugun gaztelerazko adibide hauetan NZ-hitza A'-espezifikatzaile batera mugitu egin direla. Lojika honi jarraituz, hau horrela bada orduan beste osagai guztiak –hau da NZ-hitza eta Fokoaren ezker aldera azaltzen diren elementuak–espezifikatzaile horren gaineko posizio batera mugitu behar izan dira.

(17) *Mugimendu sintaktikoa*

- a. Piedpipinga eragiten duen NZ-hitza A'-espezifikatzaile gune batera mugitu da.
- b. Beste elementu guztiak ageriko mugimendu sintaktikoaren bidez espezifikatzaile horren gaineko gune batera mugitu dira.

1.3. *Piedpiping-a*, hitz-hurrenkera eta mugimendu sintaktikoa gazteleraz eta euskaraz

Euskaraz eta gazteleraz posiblea da piedpiping eragitea NZ/Fokoa A'espezifikatzaile batera mugituz. Interesgarria dena da paralelismo sintaktiko bat aurkitzen dugula bi hizkuntza hauen artean piedpiping egituretan. Bietan, aipaturiko NZ-hitza edo Fokoaren mugimenduaz gain, bigarren mugimendu mota bat aurkitzen dugu. Fokalizaturik gabeko elementu guztiak A'-espezifikatzaile horren ezkerretara mugitzen dira. Bigarren mugimendu mota honek azaltzen du zergatik NZ-hitza eta Fokoak bere osagaiaren eskumako ertzean agertu behar duen bai euskaraz bai eta gazteleraz ere piedpiping egituretan.

2. FOKO KONTRASTIBOA

2.1. Gazteleraren NZ-*in situ* galderak

Oso ezaguna da frantsesez zati galderetan zenbait NZ-hitzen duten askatasuna perpausaren hasierara (Espez/KonpS-ra) ezkerretatzeko edo bere sorgunean gelditzeko. (18)-ko perpausak askatasun honen adibide ditugu.

- (18) a. *Qui* as-tu embrasse?
b. Tu as embrassé *qui*?

Jiménezek (1997) gazteleraz ere NZ-galderetan bi estrategia posible daukela defendatzen du. Alde batetik, NZ-hitza Espez/KonpS-era mugi daiteke.

Hau da ondoko (a) adibideetan genukeena. Bestetik, NZ-hitza bere jatorrizko gunean gelditi daiteke, Espez/KonpS-era igo gabe, (b) aldaeretan bezala.

- NZ-Argumentuak:

- (19) a. ¿Qué compró tu padre?
 b. ¿(Y) Tu padre compró qué?
- (20) a. ¿A quién invitaste a tu fiesta?
 b. ¿[Y tú] invitaste a tu fiesta a quién?

- NZ-adjuntuak

- (21) a. ¿Por qué compraron ellos la casa?
 b. ¿Y ellos compraron la casa por qué?
- (22) a. ¿Cómo te vas a vestir para la fiesta?
 b. ¿[Y tú] te vas a vestir para la fiesta cómo?

Bi estrategiak posibleak badira ere, bien artean alde semantiko eta sintaktiko handiak daudela argudiatzen du Jiménezek. Estrategia batean, NZ-hitza sintaktikoki mugitzen da (ageriko mugimendua dago) [19a, 20a, 21a, 22a]. Bestean, aldiz, NZ-hitza ez da mugitzen, ez ageriko sintaxian —*Agerian Utzi* (Spell Out) baino lehen—, ez eta ezkutuko sintaxian ere (Forma Logikoan) [19b, 20b, 21b, 22b]. Semantikoki ere ezberdinak dira. Bi galdera mota hauek ezin dira testuinguru berberetan erabili. Hau da, (19b, 20b, 21b, 22b) bezalako adibideak onargarriak izan daitezten, testuinguru berezia behar dute. Adibidez, (19b=23b) onargarria izan dadin, (23a) bezalako testuinguru bat beharko luke.

- (23) a. 1. Hizlaria. [Mi padre, mi madre y yo] fuimos a la tienda a comprar huevos, leche y café.
 Mi madre compró los huevos.
 b. 2. Hizlaria. ¿Y tu padre compró qué? (=19b)

Are gehiago, Jiménezek bi galdera motei dagokien auresuposizioa ezberdina dela dio. NZ-hitza agerian mugitzen denean, NZ-hitzak sortzen duen aldagaiari (x -ari) dagozkion balioak E indibiduen multzotik aukeratzen dira. Adibidez, (19a=23a) adibideari legokiokeen auresuposizioa (24)-ean eman duguna litzateke.

- (24) $\{p: \exists \alpha \in E [p = \parallel \text{erosi}(f, x_1) \parallel g^{(a/x_1)}]\}$ [Jiménez 1997: 47orr]

Galdetzailearen mugidarik ezean, NZ-galderak duen auresuposizioa desberdina da, eta NZ-ari dagozkion aldagaiaren (x -aren) balioak multzo

murriztu baten barruan hautatzen dira. Adibidez, (25)-eko formularen erakusten den bezala, (19b=23b)-ren kasuan aldagaiaren balioa arraultzek, esneak eta kafeak osatzen duten multzo murriztuaren barruan aukeratuko litzateke:

- (25) $\{p: \exists \alpha \in \{\text{arraultzak, esnea, kafea}\} [p = \parallel \text{erosi}(f, x_1) \parallel g^{(a/x_1)}]\}$
 [[Jiménez 1997:47orr]

Beste hizkuntza erromantzetan, hala nola frantsesez eta portugesez, antzeko zerbait gertatzen da (Chang 1997, Ambar & Veloso 2001, etab.). Mugitzen ez den NZ-aren aldagaiari dagozkion balioak multzo murriztu batetik hartzen dira. Honek azalduko luke zergatik galdera mota hauek ez duten auresuposizioa kantzelatzen duen erantzunik onartzen, (26)-an eta (27)-an erakutsi bezala.

- (26) a. Q: Marie a acheté *quoi*? A: ??Rien
 b. Q: *Que* Marie a-t-elle acheté A: Rien [Chang 1997: 42]
- (27) a. Q: O que comprou o João? A: Nada
 b. Q: O João comprou o quê? A: ?* Nada [Ambar & Veloso 2001:16]

Rikardo Etxepare eta biok gatzeleraren NZ-in situ galderen analisi alternatibo bat proposatu dugu (Uribe-Etxebarria 1998, 2001a,b, Etxepare & Uribe-Etxebarria 2000a,b, 2001). Ikuspuntu sintaktikotik, gure analisiaren arabera NZ-in situ galderetan (gutxienez) bi mugimendu mota ematen dira, (28) zenbakiaren azpian irudikatuak daudenak. Alde batetik, fokalizaturik ez dauden argumentu eta adjuntu guztiak NZ-aren ezkerraldera mugitzen direla argudiatzen dugu, (28a)-n eman bezala. Bestetik, "in situ" dagoen NZ-hitza mugitu egiten dela erakusten dugu, (28b) adibidean adierazi bezala.

- (28) a) Argumentu/adjuntuak NZ-aren ezkerraldera mugitzen dira:

$$X \text{ wh-phrase } W \rightarrow X \quad W \text{ wh-phrase } t_w$$

- b) NZ-mugida:

$$X \text{ wh-phrase } W \rightarrow X \quad W \text{ wh-phrase } t_{WH} t_w$$

Ikus dezagun zerk eraman gaituen proposamen hau defendatzera.

• *Hitz-hurrenkera NZ-in situ galderetan*

Hasteko, (29) eta (30) adibideetan ditugun bikoteen hitz-hurrenkera erkatzen badugu, hitz-hurrenkera ezberdina dutela ohartzen gara. Era zehatzago batean esateko, NZ-in situ galderetan galdetzailiek perpausaren eskuinteko muturrean azaldu behar dute, nahiz eta hau ez izan hitz-hurrenkera ezmarkatuan hartuko luketen kokalekua.

- (29) a. ¿[Y tú] invitaste a tu fiesta a quién? [NZ-in situ]
 b. Yo invité a María a mi fiesta [hitz-hurrenkera neutroa]
- (30) a. ¿[Y tú] te vas a vestir para la fiesta cómo? [NZ-in situ]
 b. Yo me voy a vestir de payaso/de terciopelo para la fiesta
 [hitz-hurrenkera neutroa]

Nola agertzen da NZ-hitza perpausaren bukaeran? Azterbide bat galde-hitza eskuma aldera mugitu dela proposatzea litzateke. Hala ere, gaur egungo teoriarik ez dugu eskuma aldeko mugimendu sintaktikorik onartzen (Kayne 1994). Hau horrela izanik, galdera hauek erakusten duten hitz-hurrenkera azaltzeko hipotesi bakar bat gelditzen zaigu: NZ-in. galderetan fokalizaturik gabeko elementuak NZ-aren ezkeraldera mugitzen direla onartu behar dugu.

- (31) 1. *ondorioa*: argumentu/adjuntuak NZaren ezkeraldera mugitzen dira:

$$X \text{ wh-phrase } W \rightarrow X \text{ } W \text{ wh-phrase } t_w$$

Bigarrenik, (32-34) adibideek erakusten dutenez, dislokaturiko materiala bakarrik jarrai dakioko NZ-ari.

- (32) a. Fuimos a Safeway a comprar huevos, leche y café.
 Mi madre compró huevos.
 b. ?*¿Y tu padre compró qué en Safeway?
 c. ¿Y tu padre compró qué, # en Safeway?
- (33) a. Cristina y yo trajimos la flauta y la guitarra para regalárselas a unas amigas.
 Cristina le regaló la flauta a Arantxa.
 b. *¿Y tú le diste a quién la guitarra?
 c. ¿Y tú le diste a quién, # la guitarra?
- (34) A: ¡Qué de cosas!
 B. Sí. Ayer estuvimos de compras. Maddi compró la revista en *Jakintza*
 A a. *¿Y tú compraste dónde el libro?
 b. ¿Y tú compraste dónde, # el libro?

(32c) adibidean dislokazioak hitz-hurrenkera aldaketarik eragiten ez badu ere, (33c) eta (34c) adibideak arreta apur batekin aztertuz gero konturatzeko gara adibideok ez dutela hitz-hurrenkera neutroa erakusten. (33b) perpausaren objektua datiboaren atzean agertzen da, eta ez aurrean. Gauza bera (34b)ko esaldian; hemen objektua lokatiboaren atzean dagerkigu.

- (35) - hitz-hurrenkera neutroa: Aditza Objektua Datiboa
 Aditza Objektua Lokatiboa
 - (33c) eta (34c): Aditza Datiboa_{NZ} # Objektua
 Aditza Lokatiboa_{NZ} # Objektua

Kayneren (1994) *Linear Correspondence Axiom* aintzat hartuz, honek NZ-hitza dislokaturiko elementuaren ezkeraldera mugitu dela esan nahi du. (ik. Cecchetto 1999 eta Villalba 1999). Gogoan izan gainera gazteleraz NZ-in situ batek bere osagaiaren piedpipinga eragin dezakeela [12a,13a,14a,b, 15a,c,d]. Piedpiping-a eragiteko NZ-hitzak A'-espezifikatzaile batera mugitu behar duenez, atera behar dugun bigarren ondorioa NZ-hitza mugitu egin dela da.

(36) 2. ondorioa _ NZa mugitzen da:

$$X \text{ NZ-hitza } W \rightarrow X \quad W \text{ NZ-hitza } t_w$$

Badirudi beste zenbait hizkuntza erromanikotan ere gauza bera gertatzen dela. (37) adibidea Munaroren (1999) lanetik hartua dago eta bellunesez ere gazteleraz aurkitzen dugun murriztapen berbera dagoela erakusten du: galdezkailea "in situ" agertzen denean, bere perpausaren bukaeran agertu behar du eta dislokaturiko materiala bakarrik jarrai dakioko NZ-hitari (Munaro 1999, 63-67). Munaro gure ondorio berberera heltzen da eta bellunesez ere in situ-galderetan NZ-hitza mugitzen dela proposatzen du.²

- (37) a. Al ghe ha dat al libro a so fradel
 Hark berari dio eman bere liburu a bere anaiari
 b. *Ghe halo dat che a so fradel?
 Berari dio eman zer bere anaiari?
 c. Ghe halo dat che #, a so gradel?
 Berari dio eman zer #, bere anaiari? (Munaro 1999, 63-67)

Gazteleraren tasun guzti hauek jasotzeko, Etxepare & Uribe-Etxebarriak (2001) (38)-an emandako analisia proposatu dugu. Analisi honen arabera "in situ" deituriko galderetan, NZ-hitza KonpS-aren espezifikatzaile mugitzen da, zati-galdera arrunteetan bezala. Honen ondoren hondakinaren mugimendua gertatzen da eta hondakina, InflS-a, NZ-aren gaineko gune batera mugitzen da, (38b) zenbakian irudikatu bezala.

² Ik. Munaro 1999, Munaro, Polletto & Pollock 2000, Poletto & Pollock 2001, eta Ambar & Veloso 2000 auzi honekin loturiko eztabaidarako eta frantsesez eta portugesez ere NZ-"in situ" galderetan NZ-a mugitzen delako proposamenerako.

(38) NZ-in situ galderen sintaxia gazteleraz (Etxepare & Uribe-Etxebarria 2001; Uribe-Etxebarria 2001):

a. (NZ-mugimendua)

[_{KonpS} NZ_i [_{IP} ... Infl Aditza t_i ...]]

b. Hondakinaren mugimendua

[_{XP} [_{INFLS} ...Infl Aditza t_i ...]_j [_{KonpS} NZ_i [t_j]]]

Ikuspuntu semantikotik, gaztelerazko NZ-in situ galdera hauetan NZ-hitzak foko kontrastiboaren interpretazioa du (Etxepare & Uribe-Etxebarria 2000a,b Uribe-Etxebarria 2001b). Baina, zergatik izan behar du NZ-hitzak interpretazio hori galdera hauetan? Arestian galdera hauek eskuarki testuinguru berezia eskatzen dutela aipatu dugunez, pentsa liteke galdetzailearen interpretazioa galdera hauek behar duten kontestuak baldintzatzen duela. Baina honek ez liguke azalduko zergatik galdera mota honek propietate sintaktiko bereziak dituen. Ildo beretik, honek ez du azaltzen zergatik, kontesturik ezean, galdera hauetan NZ-hitzak ez duen bestelako galderetan izaten duen interpretazio arrunta hartzen. Beste galdera bat sortzen zaigu berehala: Loturarik al dago galdera hauek duten interpretazioa eta galdera hauek dituzten propietate sintaktikoen artean? (Gogoan izan galdera hauetan bi mugimendu mota ditugula; ik. (38)). Hiru ikerbide posible ditugu: a) Interpretazioa NZ-aren mugimenduarekin loturik dagoen aztertzea; b) Interpretazioa beste elementuen mugimenduarekin loturik dagoen aztertzea; c) Interpretazioa bi mugimendu motekin loturik dagoen aztertzea. Galdera hauek erantzun baino lehen euskarara itzuli nahiko nuke; ikusiko dugunez, gazteleraz aurkitzen dugun egoera euskarazko zenbait foko egituratan aurki daitekeen egoeraren antzekoa da.

2.2. Foko kontrastibo egitura zenbait euskaraz

Etxeparek (1997) euskaraz irabiatetak foko egituren interpretazioan eragin zuzena duela erakusten du. Fokalizaturik ez dauden elementuak Fokoaren ezker aldera irabiatuak direnean Foko Kontrastiboaren irakurketa sortzen da nahitaez, (39b)k erakusten duenez.

(39) a. Jonek Mireni ardoa oparitu dio

b. Mireni ardoa JONEK oparitu dio (*inork oparitu badio behintzat)

c. JONEK oparitu dio Mireni ardoa (inork oparitu badio behintzat)
[Etxepare 1997: 117]

Gauza bera aurkitzen dugu piedpiping egituretan. Lehenengo atalean euskaraz foko egituretan piepiping-a egitea posiblea dela ikusi dugu.

Etxepareren arabera, fokalizazioa piepipingaren bidez egiten denean, Fokoak irakurketa kontrastiboa baino ezin du izan.

Ortiz de Urbinak (2001) ere ezkeralderunzko mugimenduaren eraginaz ohartarazten digu, mugimendu honek euskaraz ezezko perpausetan fokalizaturiko elementuen interpretazioan duen eragin zuzena erakutsiz. Bi foko egitura erkatzen ditu egile honek bere lanean: Aurreko Fokoa eta Bukaerako Fokoa. Aurreko Fokoaren egitura (40)an laburtu dugu eta Bukaerako Fokoarena (41)ean. Ortiz de Urbinak bi fokoaren interpretazioa ezberdina dela erakusten du. Aurreko Fokoak bi interpretazio posible ditu: a) Informazio Fokoarena eta b) Foko Kontrastibo/Identifikatzailearena (ik. Elordieta 2001, de Rijk 1996). Bukaerako Fokoak, aldiz, interpretazio bakarra du: Foko Kontrastiboarena.

(40) Aurreko Fokoa (Aditzlaguntzailearen aurreko Fokoa):

FOCUS Neg Aux (X Y) Verb (W)

(41) Bukaerako Fokoa (Perpausaren bukaeran agertzen dena):

Neg Aux (X Y) Verb (W) # FOCUS

Etxeparek (1997) eta Ortiz de Urbinak (2001) aztertutako foko egituretan Foko Kontrastiboaren irakurketara beharturik gaude nahita ez. Aurreko ataleko galdera berberak sortzen zaizkigu, beraz. Zergatik izan behar du Fokoak interpretazio hori egitura hauetan? Loturarik al dago foko egitura hauek duten interpretazioa eta dituzten propietate sintaktikoen artean? Berriz ere, hiru azterbide posible ditugu: a) Interpretazioa Fokoaren mugimenduarekin loturik dagoen aztertzea; b) Interpretazioa fokalizaturik gabeko elementuen mugimenduarekin loturik dagoen aztertzea; eta, azkenik, c) Interpretazioa bi mugimendu motekin loturik dagoen aztertzea. Ortiz de Urbinak (2001) Aurreko Fokoa eta Bukaerako Fokoaren azpian egitura berbera dugula argudiatzen du. Bere analisiaren mamia laburbilduz, Fokoa posizio berberera mugitzen da bi Foko egituretan, (42a) egiturean irudikatu bezala. Halere, bada-go bi foko egituren arteko alde garrantzitsu bat: Bukaerako Foko egituretan mugimendu bat gehiago ematen da, hondakinaren mugimendua (42b). Analisi honen arabera, Bukaerako Foko egitura Hasierako Foko egituretik sortzen da.

(42) Bukaerako Fokoaren Sintaxia (Ortiz de Urbina 2001)

a. Foko-gunerako mugida: FOKOA Neg Aux (X Y) Verb (W)

[Aurreko Fokoa]

b. Hondakinaren mugida: FOKOA Neg Aux (X Y) Verb (W)

[Bukaerako Fokoa]

→ Neg Aux (X Y) Verb (W) # FOKOA

Eraginik al du sintaksiak Bukaerako Fokoaren interpretazioan? Ortiz de Urbinak hala dela argudiatzen du eta interpretazio hau hondakinaren mugimenduarekin lotzen du zuzenean:

(43) Bukaerako Fokoaren Interpretazioa.

“what forces the ‘contrastive’ interpretation is the fact that the remnant occupies a topic, presuppositional phrase ...when something is corrected the remnant is presupposed to be correct. With respect to the focus itself, it cannot be normal new information: the contrast with a discourse utterance means that there will always be a contextually defined contrast set, so the contrastive interpretation is virtually unavoidable” (Ortiz de Urbina 2001:16).

2.3. Foko Kontrastiboaren interpretazioa eta hondakinaren mugimendua euskaraz eta gazteleraz

Gazteleraz eta euskaraz aztertu ditugun foko egituretan bi mugimendu sintaktiko mota aurkitu ditugu: a) Fokoaren mugimendua, eta b) hondakinaren mugimendua. Bi hizkuntza hauetan foko egitura hauek irakurketa kontrastiboa dute. Aurkeztu ditugun analisiak zuzenak badira, NZ-hitza eta Fokoa posizio berberera mugitzen dira beti. Egitura hauek dituzten ezaugarri semantikoak hondakinaren mugimenduarekin loturik daudela dirudi beraz.

3. ZATI-GALDEREN ERANTZUNAK ETA HITZ-HURRENKERA

3.1. Euskaraz

Hitz-hurrenkerari dagokionean euskaraz murriztapen gutxi badaude ere, bada bete behar den baldintza ezagun bat: zati -galderetan galdetzailea aditzaren aurre-aurrean agertu behar den modu berean, zati-galderen erantzunetan NZ-hitza dagokion erantzunak ere (hau da, Fokoak) aditzaren aurre-aurrean agertu behar du.

- (37) a. Urkok Oihanari liburua eman dio
a. Zeinek eman dio liburua Oihanari?
b. URKOK eman dio liburua Oihanari
c. *URKOK Oihanari liburua eman dio

Hitz-hurrenkerarekin loturiko murriztapen hau euskararen bere-berezko tasuntzat hartu izan da hizkuntza honen gaineko ikerketa guztietan. Baina hizkuntza erromanikoetara itzultzen bagara, horietariko zenbaitetan ere antzeko murriztapenak daudela ikus dezakegu.

3.2. Gazteleraz

Euskaraz bezala, gazteleraz ere hitz-hurrenkera oso askea da, bete beharreko murriztapenak urriak direlarik. Ezaguna da zati-galderetan NZ-hitza aditzaren aurre-aurrean kokatu behar dela baina, Murriztapenik al dago gazteleraz NZ-galderen erantzunetan? Auzi honi buruzko ikerlanei errebaso txiki bat eginez gero, horrela dela dirudi. Contreras (1976, 1983) zati-galderen erantzunetan hitz-hurrenkerak duen garrantziaz ohartaraztera digu eta, ondoko aipuek isladatzen dutenez, argi uzten du ondo eraturako edozein hitz-hurrenkerak ez duela balio NZ-galdera bati erantzuteko.³

(i) “Limitándonos a la entonación normal, es decir, con el acento principal sobre *Ramón* y *enojó* respectivamente, la oración (38a) puede contestar a una pregunta como la de (39), mientras que la oración (38b) contesta preguntas como (40) o (41), pero no la pregunta (39). Es claro, entonces, que las oraciones (38a) y (38b) no son equivalentes” [Contreras 1983. 43. orr]

(38) a. Se enojó Ramón
b. Ramón se enojó

(39) ¿Quién se enojó?

(40) ¿Que pasó con Ramón?

(41) ¿Que pasó?

(ii) “[...] La oración (42) puede responder a cualquiera de las preguntas en (43):

(42) La colonia solo quería al hombre de rodillas

(43) a. ¿Cómo quería la colonia al hombre?
b. ¿Qué quería la colonia?
c. ¿Qué pasaba con la colonia?
d. ¿Qué sucedía?

³ Auzi honetaz, ikus, besteak beste, Contreras 1983, Vallduví 1992, Ordoñez 1997, eta Zubizarreta 1998.

por otra parte si se viola la jerarquía remática, como en (44), la oración sólo responde a la pregunta (45).”

(44) La colonia quería de rodillas AL HOMBRE

(45) ¿A quién quería la colonia de rodillas? [Contreras 1983.,68 orr]

Hurrengo azpiatalean ikusiko dugunez, Katalunieraz aurkitzen dugun egoera oso antzekoa da.

3.3. Katalunieraz

Katalunieraz ere gauza bera aurkitzen dugu eta, hitz-hurrenkera nahiko askea izanik ere, zati-galderen erantzunek zenbait baldintza bete behar dituzte. Zer eragin du Fokoak katalunieraz zati-galderen erantzunen hitz-hurrenkeran?

Jakina denez, zenbait hizkuntza intonazioaren nabarmentzeaz baliatzen dira perpausaren fokoa zein den adierazteko. Ingelesezt, adibidez, foko-marrazteak ez du eraginik hitz-hurrenkeran eta intonazioa erabiltzen da perpausaren fokoa zein den adierazteko. Vallduviren (1992, 1995) arabera, katalunieraz oso bestelako egoera dugu. Hizkuntza honetan, intonazio-gailurra perpausaren bukaeran kokatzen da nahitaez. Hau gertatzen ez bada, perpausa ezgramatikala da.⁴

“One of the most well-known universal structural correlates of information packaging is the association of focus and intonational prominence. The most prominent point of the pitch contour must fall on (a subset of) the focus of the sentence. Not all languages, however, use this type of prosodic shift to achieve the association of prominence and informational focus. Contrary to English, in Catalan intonational prominence is necessarily associated with the righthand boundary of the core clause. (cf. Valldví 1991). Any shift of prominence to the left yields an ungrammatical string.

- (46) a. Ficarem el ganivet al CALAIX
 ipiniko dugu labana kaxoian
 b. *Ficarem el GANIVET al calaix
 c. *FICAREM el ganivet al calaix [Valldví 1995: 126]

Fokoak intonazio-gailurra behar du eta, beraz, perpausaren bukaerako posizioan agertu beharko du nahitaez. Emaitza honetara heltzeko, perpausa-

⁴ Vallduviren aipu honi katalunierazko adibideetan euskarazko itzulpen-moldapenak gehitu dizkiogu.

ko zenbait elementuk bere posizio sintaktikotik mugitu beharko dute, defokalizatuz. Perpausaren bukaeran agertzen den elementu bat defokalizatzeko, elementu hau eskumara edo ezkeraldera disloka daiteke. Dislokazioaren norabideak eragin semantikoak ditu.

To carry out the informational effects that English achieves by means of prosodic shift, Catalan must resort to a different strategy. The nonfocal phrases that would remain within the scope of prominence if they were left in situ undergo *detachment*. Left detachment is a left-adjunction to IP while right-detachment is a right-adjunction to IP. The locative in (46), *al calaix* 'in the drawer', is interpreted as focal unless it is right- or left-detached, as in (47) [...]

- (47) a. H_i ficarem el GANIVET t_i al calaix;
 b. Al calaix_i h_i ficarem el GANIVET_i

[..] a phrase that remains under prominence is interpreted as focal. Example (48b), with a locative associated with prominence in situ, is a felicitous answer to the question (48a), which requires a focal locative in the answer. But (48c) and (48d), where the locative is right- and left- detached, respectively, are infelicitous answers to this same question.

- (48) a. On és, el ganivet?
 non dago, ganibeta?
 b. E_l vaig ficar e_i al CALAIX
 hura ipini nuen kaxoian
 c. # L_i ' h_i vaig FICAR e_1 t_2 , al calaix₂
 d. # Al calaix₂ l_1 ' h_i vaig FICAR e_1 t_2

Sentences (48c-d) are infelicitous because the locative in them, by virtue of being detached, is interpreted as part of the ground. Thus, they cannot answer a question that requires a focal locative in the answer. Right- and left-detached phrases encode the informational ground of the sentence. The directionality of the detachment depends on the informational status of the elements within the ground. If the phrase is to be interpreted as a link, it is detached to the left. If it is a tail, it is detached to the right. The difference between the two becomes evident in contrastive contexts, since, out of the two ground elements only links are compatible with a contrastive use.

- (49) a. On són, els coberts?
 non daude, mahai-tresnak?
 Les forquilles són a l'armari, però...
 Sardeskak daude armairuan, baina...
 b. ...els ganivets₁ els₁ vaig ficar t_1 al CALAIX
 ...ganibetak haiek ipini nituen kaxoian
 c. # ...els₁ vaig ficar t_1 al CALAIX, els ganivets₁

In the contrastive set up by (49a) a sentence with a left detachment,

(49b), is required. Use of the right-detached analog (49c) results in infelicity (realizing links in a lefthand position is common in discourse-configurational languages)"[Valldví 1995, 126-129].

Honek guztiak zati-erantzunetan posibleak diren hitz-hurrenkerak baldintzatzen ditu zuzenean.

3.4. Zati-galderen erantzunak eta hitz-hurrenkera euskaraz, gazteleraz eta katalunieraz.

Hiru hizkuntza hauek (euskarak, gaztelerak eta katalunierak) hitz-hurrenkera murriztapenak erakusten dituzte NZ-galderen erantzunetan. (Euskaraz hau nabarmenagoa egiten zaigu aditza NZ-aren erantzunaren ondo-ondoan agertzen zaigulako). NZ-hitzari dagokion erantzuna, Fokoa, ezin daiteke edozein lekutan agertu. Fokoaren kokalekua sintaktikoki murriztuta dago. Fokalizaturik ez dauden elementuen kokalekua ere sintaktikoki murriztuta dago. Hitz-hurrenkerak eragina zuzena du perpausaren eta honen osagaien (Fokoaren zein fokalizaturik gabeko elementuen) interpretazioan.

4. ETORKIZUNERAKO IKERBIDEAK

Aurreko hiru ataletan euskarak eta zenbait hizkuntza erromanikok foko egituretan komunean dituzten zenbait propietate aurkeztu eta aztertu ditugu. Halere, berdintasun hauekin batera badira hizkuntza hauek erakusten dituzten zenbait ezberdintasun. Lan hau bukatzeko, oso laburki bada ere, ezberdintasun horietariko batzuk, hala nola nire ustez sakonago aztertu beharreko zenbait puntu, aipatu nahiko nituzke, berauen azterketa foko egitura hauen gramatikaren iluntasunak argitzeko lagungarria izan daitekeelako ustean.

Lehendabiziko atalean erakutsi bezala, euskaraz zein gazteleraz posiblea dugu piedpiping egituretara jotzea. Hala ere badirudi estrategia hau murriztuagoa dagoela gazteleraz euskaraz baino. Hortaz, bi dira gutxienez gaztelera euskararengandik urruntzen duten ezberdintasunak. Alde batetik, euskarak erreztasun handia du piedpipingaren bidez esaldi osoak mugitzeko. Gazteleraz estrategia hau izen sintagmak eta preposizio sintagmetara mugaturik dagoela dirudi. Beste aldetik, euskaraz NZ-mugimenduak zein Fokomugimenduak piedpinga eragin dezakeen bitartean, antza gazteleraz ezinezkoa da Foko-egituretan piedpipingera jotzea. Piedpiping egiturekin amaitze-

ko, gogoan izango duzue egitura hauetan Fokoa/NZ-hitza ez diren argumen-
tu eta adjuntu guztiak elementu honen ezkerretara mugitu behar dutela era-
kutsi dugula. Hurrengo ikerketetan ezkerrean mugimendu honek bi hiz-
kuntzotan zehazki zein gune sintaktiko duen jomuga argitu beharko genuke.

Azterturiko foko kontrastiboaren egituretan ere berdintasun semantiko
eta sintaktiko aipagarri zenbait antzeman ditugu euskararen Bukaerako Fokoa
eta hizkuntza erromaniko zenbaiten NZ-in situ galderen artean. Bi egituren
arteko antzekotasunak ikusita, deigarria da euskaraz NZ-in situ galderen
parekorik ez egotea.

Bukatzeko, zati-galderen erantzunen hitz-hurrenkerarekin loturiko
murriztapenak aztertu ditugu eta egitura hauetan Fokoaren kokalekua euska-
raz, gazteleraz eta katalunieraz sintaktikoki murriztuta dagoela ikusi dugu.
Etorkizunari begira NZ-ari emaniko erantzunak hiru hizkuntzotan gune sin-
taktiko berbera okupatzen duen argitu beharko litzateke. Vallduvík (1992,
1995) katalunieraz NZ-galderen erantzunetan defokalizazio prozesu sintakti-
ko zenbait ematen direla argudiatzen du, defokalizazioaren norabideak eragin
semantiko zuzena duela defendatuz. Gazteleraz eta euskaraz ere antzekorik
dugun aztertu beharra dago.

AIPUAK

AMBAR, M., H-G OBENAUER, I. PEREIRA, J. TAPAZDI & R. VELOSO 2000.
“From Wh-questions to Wh-exclamatives: The internal structure of Wh-phrases
and the left periphery. Evidence from Portuguese, French and Hungarian”,
Chomsky Internet Celebration.

AMBAR, M. & R. VELOSO 2001. “On the nature of wh-phrases - word
order and wh-in-situ. Evidence from Portuguese, French, Hungarian and
Tetum”, Lisboako Unibertsitateko eskuizkribua.

CECCHETTO, C. 1999. “A comparative analysis of left and right disloca-
tion in Romance”, *Studia Linguistica*, 53.1.

CHANG, L. 1998. *Wh-in situ Phenomena in French*, U. of British
Columbiako master tesia, Canada.

CHOMSKY, N. 1986. *Barriers*, MIT Press.

CONTRERAS, H. 1976. *Sobre el Orden de Palabras en Español*, Cátedra.
Madrid.

ELORDIETA, A. 2001. *Verb Movement and Constituent Permutation in Basque*, Leiden Universitateko doctorego tesia.

ETXEPARE, R. 1996. "V2, Piedpiping and the Antisymmetry Hypothesis in Basque", Marylandeko Unibertsitateko eskuizkribua.

—1997. "Two Types of Focus in Basque", WCCFL 15, 113-128.

ETXEPARE, R. & J. ORTIZ DE URBINA, 1998. "Focus in Basque", in J. I. Hualde (arg.). *A Grammar of Basque*.

ETXEPARE & URIBE-ETXEBARRIA 2000a. "On the properties of Spanish wh-in situ questions", *Minimal Elements of Linguistic Variation Workshop*, Paris, 2000ko abernduaren 15etik-16ra.

—2000b. "Spanish Wh-in situ questions revisited", CNRS/LEHIA & UPV-EHU/LEHIA eskuizkribua.

—2001. "Some focus structures in Romance", CNRS/LEHIA & UPV-EHU/LEHIA eskuizkribua.

HUALDE, J.I. & J. ORTIZ DE URBINA (arg.) 2001. *A Grammar of Basque*, Blackwell.

HUANG, J. 1982. *Logical Relations in Chinese and the Theory of Grammar*, MITeko doktorego tesia.

JIMÉNEZ, M.L. 1997. *Semantic and Pragmatic Conditions on Word Order in Spanish*, Georgetown Unibertsitateko doktorego tesia.

KAYNE, R. 1994. *The Antisymmetry of Syntax*, MIT Press.

MUNARO, N. 1997. *Propriete strutturali e distribuzionali dei sintagmi interrogativi in alcuni dialetti itaiani settentrionali*. U. Paduako doktorego tesia.

—1999. *Sintagmi interrogativi nei dialetti italiani settentrionali*, Unipress, Padova.

ORMAZABAL, J. 1992. "Asymmetries on Wh-movement and some Theoretical Implications". ASJU 26.3. 725-766.

ORMAZABAL, J., J. URIAGEREKA & M. URIBE-ETXEBARRIA, 1994. "Word Order and Wh-movement: Towards a Parametric Account". GLOW 1994 konferentzian aurkezturiko lana, Vienna.

ORTIZ DE URBINA, J. 1989. *Parameters in the Grammar of Basque*. Foris, Dordrecht.

—1992. "Interrogative Discharge and the Wh-criterium in Basque", in J. Lakarra & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Syntactic Theory and Basque Syntax*, ASJU monographs XXVII, Donostia.

- 2000. “Force Phrase, finite phrases and the left periphery in Basque”, in Franco, J. & A. Landa & J. Martín (arg.), *Grammatical Analyses in Basque and Romance Linguistics*, Benjamins, Amsterdam.
- 2001. “Negation and Focus in Basque”, Leideneko Unibertsitatean emandako hitzaldia.

POLETTO, C. & J.-Y. POLLOCK 2000. On the Left Periphery of Some Romance Wh-questions, U. Padua/U. Picardie, Amiens eskuizkribua.

MUNARO, N., C. POLETTO & J.-Y. POLLOCK (2001). “Eppur si muove! On Comparing French and Bellunese Wh-movement”, University of Padua & University de Picardie à Amiens eskuizkribua.

RIKJ, R. de 1996. “Focus and quasi-focus in Basque negative statements”, *RIEV* 41.1. 63-76.

URIAGEREKA, J. 1995. “A Focus Position in Western Romance”, in K. Kiss (arg.). *Discourse Configurational Languages*. Oxford University Press.

URIBE-ETXEBARRIA, M. 1992. “On the Structural Positions of the Subject in Spanish, their Nature and their Consequences for Quantification”, in J. Lakarra & J. Ortiz de Urbina (arg.). *Syntactic Theory and Basque Syntax*, Supplements of ASJU, 447-491. Donostia.

—1998. “Spanish in situ questions”, UPV-EHU/LEHIA eskuizkribua.

—2000. “Optional Operations and Covert Overt Movement”, *Colloquium on Generative Grammar*, Alcalá.

—2001a. “A review of Jiménez (1997)”, *GLOT International*. 5.6, 2001eko ekaina.

—2001b. “In situ questions and masked movement”, in P. Pica & J. Rooryck (arg.), *Linguistic Variations Yearbook 2001*, North Holland Linguistic Series (moldiztegia).

VALLDUVÍ, E. 1992. *The Informational Component*. Garland. NY.

—1995. “Structural Properties of Information Packaging in Catalan”, in K. Kiss 1995 (arg.), *Discourse Configurational Languages*, Oxford Studies in Comparative Syntax. Oxford.

VILLALBA, X. 1999. “Asimetrías en la estructura sintáctica: la dislocación a la derecha y el scrambling”, UAB eskuizkribua.

ZUBIZARRETA, M.L. 1998. *Prosody, Focus and Word Order*, MIT Press. Cambridge.



Biltzarkideen argazkia Baionako Fakultateko atarian

Argazkia: P. Telleria




G. Rebuschi eta R. de Rijk

Argazkia: P. Telleria

EUSKAL GRAMATIKARI ETA
LITERATURARI BURUZKO IKERKETAK
XXI. MENDEAREN ATARIAN

EUSKAL GRAMATIKARI ETA
LITERATURARI BURUZKO IKERKETAK
XXI. MENDEAREN ATARIAN



EUSKAL GRAMATIKARI ETA
LITERATURARI BURUZKO IKERKETAK
XXI. MENDEAREN ATARIAN

EUSKAL GRAMATIKARI ETA
LITERATURARI BURUZKO IKERKETAK
XXI. MENDEAREN ATARIAN

LITERATURA GAIAK

iker - 14 (II)

P. Lafitteren sortzearen mendemugako biltzarra

Baionako fakultatean
2001eko irailaren 20 eta 21ean.

EUSKAL GRAMATIKARI ETA LITERATURARI BURUZKO IKERKETAK XXI. MENDEAREN ATARIAN

Literatura gaiak

IKER 14 (II)



**EUSKALTZAINDIA /
Real Academia de la Lengua Vasca /
Académie de la Langue Basque**

BILBO

2003

P. Lafitteren sortzearen mendemugako biltzarra

Baionako fakultatean
2001eko irailaren 20 eta 21ean.

Euskaltzaindiaren XV. Biltzarra

EUSKAL GRAMATIKARI ETA LITERATURARI
BURUZKO IKERKETAK
XXI. MENDEAREN ATARIAN

Literatura gaiak

Argitaratzaileak: A. Arkotxa & L. Otaegi

IKERKABIA ETA BILKAL TEXTUEN BILKALAKO IKERKETA GUNDA
CENTRE DE RECHERCHE SUR LA LANGUE ET LES TEXTES BASQUES
BASQUE TEXT AND LANGUAGE STUDY CENTER
UMR 5478



EUSKALTZAINDIA


REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE



Akitaniako Kultura Ekintzarako Herrialde Zuzendaritza (DRAC)
Direction Régionale de l'Action culturelle en Aquitaine



Akitaniako Herrialeko Kontseilua
Conseil Régional d'Aquitaine



Eusko Jaurlaritza
Gobierno Vasco



Pirinio Atlantikoetako Kontseilu orokorra
Conseil Général des Pyrénées-Atlantiques

Euskadi-Akitaniaren arteko Lankidetzako Fondoak Lafitteren Mendemugako Biltzarraren antolakuntza lagundu du.
L'organisation du congrès du centenaire de la naissance de P. Lafitte a bénéficié du financement du Fonds de Coopération Aquitaine-Euskadi.

© Euskaltzaindia / R.A.L.V. / H.L.B.
Plaza Barria, 15 – 48005 BILBO
E. posta: info@euskaltzaindia.net

I.S.B.N.: • Obra osoarena: 84-95438-13-5
• Liburuki honetakoa: 84-95438-12-7

Legezko Gordailua: BI-1698-03

Fotokonposizioa: Ikur, S.A.
Cuevas de Ekain, 3, 1º – 48005 BILBO

Rontegui, S.A.L. Grafikagintza
Avda. Ribera de Erandio, 4 – 48950 ERANDIO (Bizkaia)

AURKIBIDEA

**P. Lafitteren sortzearen mendemuga
Euskaltzaindiaren XV. Biltzarra
2001.eko irailaren 20-21ean
Baiona**

Literatura gaiak

Aitzin hitza	XI
--------------------	----

LITERATURA GAIAK

Bertsolaritzatik poesiara. Euskal poemagintza modernoaren ernamuinak (1880-1900), <i>Iñaki Aldekoa</i>	3
Hiriart Urrutyren harrera literarioari buruz: autoretzaren arazoa euskal literatura klasikoan, <i>Ur Apalategi</i>	15
Florianen Fableac Goyhetche apheçac franxesetic escoarara pherxutan itçuliac, <i>Aurelia Arkotxa</i>	33
<i>Ramuntcho</i> , Pierre Loti-ren sartzea Euskal Herrian, <i>Jean Casenave</i>	69
Euskal literatura modernoaren sorrera postkolonial eta gayaz Anton Abbadieren ekarpena birpentsatuz, <i>Joseba Gabilondo</i> ..	81
Esanguraren eraikuntza euskal atsotitzetan: linguistika kognitiboaren ekarria literaturaren azterketarako, <i>Koldo J. Garai</i>	89
Emazteen fabore, <i>Jean Haritschelhar</i>	113
Maurice Harriet eta euskal idazleak, <i>Arantxa Hirigoyen</i>	125
Maurice Harriet Joanes Haranederen galbahari: <i>Testament berria</i> (1855), <i>Henrike Knörr</i>	157
Bilintxen ahotsak maitasun poemetan, <i>Jon Kortazar</i>	167
Razón y sinrazón de una renovación poética. En torno a <i>l'art poétique basque</i> , de A. D'Oihenart, <i>Jesus M^a Lasagabaster</i>	179

XIX. mendeko koblakarien bertso-moldez, <i>Juan Mari Lekuona</i> .	191
Bizenta Mogel (1782-1854), edo euskal tradizio literario androzentrikoa pitzatu zenekoa, <i>Mari Jose Olaziregi</i>	203
Etxepare eta Axular Lizardiren olerkigintzan, <i>Lourdes Otaegi Imaz</i>	223
Maitasun mundutiarra Etxeparerengan: “Baskoen gaztiguia”, <i>Ana M^a Toledo</i>	237
<i>Judit eta Holopherma</i> pastoralaz eta gai bereko antzerkiez mendebaldeko literaturetan, <i>Patri Urkizu</i>	257

AITZIN HITZA

Hogeigarren mendean euskalaritzak izan dituen zerbitzari baliosenen artean, P. Lafitte (1901-1885), hogeita hamasei urtez euskaltzain izan zena, bereziki aipatzekoa da, Iparraldean oroz gainetik. Horregatik, Euskaltzaindiak jakin zuelarik *IKER* Baionako Ikerketa Guneak, 2001ean, Lafitteren sortzearen mendemuga kari, euskal literaturari eta gramatikari buruzko nazioarteko biltzar bat Baionan antolatu nahi zuela, berehala proposatu zuen bi erakundeek elkarrekin antola zezaten biltzar hura. Urte hartan berean Bilbon, Azkue eta Urkixoren omenez egitekoa baitzen Euskaltzaindiaren XV. Biltzarra, honen osagarri izan zitekeen P. Lafitteren omenez, Baionan bi egunez egin nahi zen hau.¹ Erran gabe doa, *IKER*ek gogo onez onartu zuela elkarlankidetzeta hau, bi erakundeek 2000.ean izenpetu lankidetzarako hitzarmena mamitzen zuena. Horren ondotik, biltzarraren antolatzeko eta gero han aurkeztu idazlanen bi liburukitan biltzeko, eskuz esku lanean ari izan dira, alde batetik, *IKER*en izenean, A. Arkotxa (literatura sailean) eta B. Oyharçabal (gramatika sailean), eta, beste aldetik, Euskaltzaindiaren izenean, Literatura Ikerketa Batzordeak izendatu arduraduna, L. Otaegi, eta Gramatika Batzordeko idazkaria, J. M. Makatzaga.

Lafitteren sortzearen mendemugako biltzar horren helburua zen Lafittek euskalaritzan gehienik landu zituen bi lan sail nagusietako espezialisten biltzea, bai gramatikariak, eta bai euskal letren historiaren aztertzaileak ere. Xedea, hitz batean, hogeita batgarren mendearen hastapen honetan, euskal gramatikaren eta euskal literaturaren historiaren ikerketetan gauzak zertan ziren erakustea zen, bai eta bide-nabar ikersail horietako egoeraren marraztatzea ere. Hala dio biltzarraren izenburuak ere: *Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian*.

¹ Baionako biltzarraren ondotik, hirugarren egun batean, Uztaritzen, beste jardunaldi bat izan zen, Euskaltzaindiaren Iparraldeko ordezkariak P. Charritonen eskutik antolatua, P. Lafitteren bizia eta nortasuna, aipatu eta aztertu zituena; ikus *Euskera* 2001-2 eta hartarik atera separata berezia.

2001eko irailaren 20 eta 21ean egin izan da biltzarra, Baionako fakultatean, segur lehen aldia baitzen Iparraldean maila eta hedadura horretako biltzar bat antolatzen zutela euskararen eta euskal letren ikertzaileek. Biltzar hartako egitarauari behatzen zaiolarik, bi puntu badira azpimarratu behar direnak eta, gure ustez, euskalaritzaren aitzinamenduaren ondorio diren neurrian, pozgarri ere direnak :

- lehenbizikorik, ikertzaile belaunaldi berri baten agertzea;
- bigarrenekorik, biltzarkideek bi batzar aretotan paraleloki bildu behar izatea, batzuek literatura gaien lantzeko, eta besteek, berriz, gramatikari buruzkoak.

Lehenbiziko puntua denaz bezain batean, aski da ikustea zenbat ikertzaile diren liburu honetan beren lanak agerrarazi dituztenak, *iker-2* aurreko omenaldi liburuko egileen artean agertzen ez zirenak –berrogeita hiru parte hartzaileetan, bostetarik lauren kasua da– gehienak garai hartan gazteegi izanez. Ez da dudarik, azken hogeit urteetan denbora ez dela alferrik pasatu eta unibertsitateetan euskalari belaunaldi berri bat formatua izan dela. Ereintza horren fruituak ageri dira hemen.

Bigarren puntua ere, beste modu batean, berriztatze honen erakusgarri da, zeren ez baita dudarik biltzarkideak *paraleloki* bildu behar izateak euskalaritzaren alorrean azken bi hamarkadetan gertatu aldaketa sakon bat adierazten duela. Alabaina, lehen aldia zen euskalaritzako gisa horretako biltzar batean literatura ikertzaileak eta gramatikariak, elkarretarik bereiz, zein bere alde, elkarretaratzen zirela elkarri beren lanen berri emateko. Ez da hori parte hartzaileen kopuruagatik bakarrik gertatu, baina bi alor horietan azken urteetan egin diren aurreramenen ondorioz ere, ezinezko bihurtu baita ikertzaileentzat gaur egun bi sailetan manera jarraiki batean aritzea. Dakigunaz, duela ez aspaldi oraino, orotan eskas baitziren langileak, euskalariak, bai K. Mitxelenaren garaikoak, bai, areago, P. Lafitteren edo Azkueren belaunaldikoak, orotan aritzera behartuak ziren. Parte handi batean euskalaritzaren gibelamenduaren ondorioa zen hori, eta igurika zitekeen (beldur izatekoa ere gisa batez jakitate eremuen zatikatze etengabearen alderdi txarrak kontuan hartzen baditugu) euskara unibertsitatean sartzearekin eta hari buruzko ikerketak aitzina joatearekin eremu desberdinetako ikerketariak ere elkarrenganik urrundu zirela. Hain zuzen hala gertatu da.

Horra zergatik bi liburukitan ateratzen diren biltzar hartako aktak, batean gramatikari buruzkoak, eta bestean literaturari buruzkoak, biltzen direlarik. Literaturan arloan, gaiaren nolabait murrizteko, eta P. Lafitteren ekarpena ere kontuan izanik, antolatzaileek galdutua zuten XVI-XX mendeen arteko testuen edo letra gizonen aipatzea. Lan hauek liburuki honetan biltzen dira, sarrera bateko mugak gaingitu gabe hemen bederazka ezin aipa ditzakegun hamazazpi artikulua mamitsu osatzen dituztela.

Eskerrak bihurtu nahi dizkiegu biltzar haren antolatzaera eta liburu honen osatzaera lagundu duten guztiei, bai parte hartu duten txosten egileei, bai eta egitaraua finantzatu duten erakunde publikoei ere, izan daitezen mugaz alde batekoak (Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorra, eta Akitaniako Eskualdeko Kontseilua, eta DRAC, Kultura Ekintzarako Akitaniako Zuzendaritza), nola beste aldekoak (Eusko Jaurlaritza).

J. Haritschelhar,
euskaltzainburua

B. Oyharçabal,
*IKER*eko (UMR 5478) zuzendaria

LITERATURA GAIAK

BERTSOLARITZATIK POESIARA. EUSKAL POEMAGINTZA MODERNOAREN ERNAMUINAK (1880-1900)

I. Aldekoa

Ezagunak dira dagoeneko gaur egun, bestelako xehetasun ugarirekin batera, Lore Jokoetan ekoitzitako lanen testuingurua eta hara aurkeztutako lanen kalitatea. Ikuspegi eta alderdi ugaritatik saiaturako ekarriekin gelditzen da osatua Lore Jokoen garaia: besteak beste, Pedro Murlan Michelena-ren “La poesía vascongada en el siglo XIX” (1918) lana, edo K. Mitxelena-ren *Historia de la Literatura vasca* (1960) liburua, non funtsezko gehiena esana datorren; horiekin batera, J. Haritschelharren *Le poète souletin Pierre Topet-Etchahun (1786-1862)* liburua eta, batik bat, Anton Abbadiaren heriotzaren mendeurrena zela-eta Eusko Ikaskuntza/Euskaltzaindiak antolatutako Biltzarraren ondoren azken urteotan argitara emandako bi liburu: *Antoine d’Abbadie (1897-1997)* lan bilduma alde batetik, eta Patri Urkizuren edizioa den *Anton Abbadiaren koplarien guduak* bestetik.

1. HERRIA, LITERATURA ETA IDEOLOGIA

Aipatutako horiekin guztiekin batera, Jon Juaristiren *El linaje de Aitor* (1987) liburua aipatu nahi nuke hemen. Azken liburu horrek garbi azaltzen du Lore Jokoetako azpiegituraren muinean nagusi zen mundu ikuspegiak zenbat zor zion Agustin Chaho aitzindariarekin hasi eta Arturo Campionenganaino zabaldutako literatura historiko-alegiatzakoaren tradizioari. Bi gerra karlisten ondoren suntsitzen ari zen mundu zaharraren aurrean, balio, uste, jarrera eta portaera arau berriak irudikatu, babestu eta zilegitu nahian sortutako literatu-

ra izan zen hura. Tradizioa gainbehera bizian zegoen aldi hartan, mundu zaharri eta tradizionalari begira jarri zen gorago aipatu berri dugun literatur tradizio hori. Prosan eta gaztelaniaz eleberri historiko eta alegiazkoak idatziz egin zuen hori, eta baita Lore Jokoetarako euskaraz idatzitako bertso, kanta eta poesien bidez ere. Bata zein bestea imajinario berberetik elikatu ziren: “Materia Vasconiae”ren baitan-edo bildu daitekeen istorio, alegia, elezahar eta beste bereganatu zituzten. Izan ere, J. V. Araquistainek 1867an zioen moduan, “soilik tradizioek, kanteak, istorio herrikoiek dute, azken batean, herriaren bihotzak taupatzeko indarra”¹. Ana Toledok argiro azaltzen duen bezala: “Lore Jokoez giza talde berezitu baten adierazpenak sustatzen dituzte (...) Giza talde jakin baten adierazpen bereziak bultzatze hauek ezaugarritatzen ditu”². Lore Jokoen egitarauak ikusita, hauxe dio Denis Labordek: “C’est une manière de montrer, de la façon la plus large possible, la société basque traditionnelle (garrantzitsua da azpimarratzea zein epigrafe daraman pasarteak: L’invention d’une tradition): un éternel toujours —déjà— là brusquement menacé, à préserver des offenses du temps. Peinture idéologique d’une société rurale atemporelle, tableau d’un peuple stationnaire face au progrès de la civilisation, sequestré de l’histoire”³. Aurrerago, artean nagi eta erretorikoak gertatzen diren arren, probintzien ikuskera utzi eta herri edo nazioaren nolahalako lehen konfigurazioak asmatuko dira lehendabizi, eta aurrenazionalismo kutsuko aldarrietatik Sabino Aranaren ondorengo nazionalismora igaroko dira geroago. Iparraldeko lehen Lore Jokoetako herriarekiko ikuspegi eta gai paternalistetatik –Ameriketako emigratioarena, esate baterako–, edo Frantziako Errepublikari eta Enperadoreari eskainitako bertsoetatik, edo Hegoaldeko lehen foruzaletasunaz Iparragirrek, Klaudio Otaegik edo Arrese-Betiak hasierako poema sonatuetan nafar-euskaldunekiko elkartasunaz kantatutako “Laurac-bat” hartatik, “zazpiyak bat”⁴ lelora egin zen jauzia Zaldubiren bertsoetan. Nazioaren diseinu berri eta kontziente baten aurrean gaude ordurako. 1890etik aurrera, jada nazionalismoaren eraginpean, arrunta bihurtu zen aldarri hura.

¹ Ikus J. Juaristi, *El linaje de Aitor*, Madrid, Taurus, 1987, 59. or.

² Ana Toledo, “Antoine d’Abbadie Hegoaldean (1879-1895)” in *Antoine d’Abbadie 1897-1997*, Donostia, Eusko Ikaskuntza-Euskaltzaindia, 1998, 544. or.

³ Denis Laborde, “Une archéologie du bertsularisme”, in *Antoine d’Abbadie 1897-1997*, Donostia, Eusko Ikaskuntza-Euskaltzaindia, 1998, 614. or.

⁴ Xabier Altzibar, “ZAZPIYAK BAT gaia XIX. mendean”, in *Antoine d’Abbadie 1897-1997*, Donostia, Eusko Ikaskuntza/Euskaltzaindia, 1998, 663-688 or.

2. NAZIOA, EUSKARA, LITERATURA ETA POLITIKA

XVIII. mende bukaeratik XX. mendera bitartean sortutako literaturak, poesiak, pinturak edo musikak –Arteak, oro har– iturri eta sentsibilitate komun batetik edan zuten: Ilustrazioak ahalbidetu zuen eta ordu arte ezezagun zitzaien askatasun uholde errendiezinetik; eta horren ondorio gisa ulertu behar dugu poeta eta artista erromantikoaren barneratzea, bere barrua hondogabeko mundu eta esperientzia irrazionalen behatoki bihurtzea. Azken batean, gureganaino iritsi den Modernitateaz ari gara, imajinazio eta imajinario berri baten aurkikuntzaz. Eta Arte Modernoaren kartografia horretan heroi bakartiak, gizabanako isolatuak edo, erlijioaren eta paradisuaren kontsolamendurik ezean, etxerik gabeko edo herririk gabeko herriminaz dira kexu.

Horrela mintzo naizenean, XIX. mendean Mendebaldean nagusi ziren literaturez ari naiz: Alemaniakoa, Ingalaterrakoa edo Frantziakoa (Errusiakoa ere bai geroago). Ordurako nazio konketuarekiko edo politikarekiko atxikimendu estuetatik aske zen literaturaz: literaturak konkistatua zuen autonomia hizkuntza horietan.

Literaturaren historia batek ezin du historia politikoaren morroi gertatu⁵. Hala ere, ukaezina da gurean –eta gurearen antzeko hizkuntza eta zabalkunde urriko beste lurralde askotan– bataren eta bestearen arteko harreman estua. Modernitateak bi joera edo aurpegi nagusi izan ditu kontuan: Ilustrazioa batetik –arrazoiaren eta gizabanakoaren eskubideen aldarri nagusiekin–, eta Frantziako Iraultzaren ondorioen aurka altxatuz Ilustrazioaren balio nagusiak galbahe xehatzailean aletuko zituen mugimendu erromantikoa, bestetik.

Gorago adierazi dudan moduan, hizkuntza eta literatura nagusietan, artearen autonomiak ahalbidetutako espazio komun batetik elikatzen da artista modernoa. Autonomiaren ordez heteronimia da nagusi nazio eta literatura marjinaletan. Eta azken hauetan, ondo finkatutako estatu nagusietan ez bezala, beste lehentasun batzuk daude gizabanakoaren askatasunaren gainetik. Herder-en predikamendu eta eragin izugarriaren ondoren, Herriak eta Nazioak bereganatuko du Frantziako Iraultzak baliorik gabe utzitako erregeen legitimazioa. Hizkuntza eta nazioa eskutik helduta agertzen dira harrezkeror, eta halaber poesia eta herri folklorea. Herderrek nazioaren, hizkuntzaren eta folkloreako arteko harreman estu hori printzipio nagusi bihurtu zuenean, kulturen eta politikan baztertuta zeuden herri txiki askori izaera eta existentzia erreibindikatzeko tresnak ari zen eskaintzen. Frantzia abstraktu eta zibi-

⁵ Pascal Casanova, *La república mundial de las letras*, Barcelona, Anagrama, 2001, 60. or.

lizatuari Alemaniaren kultura kontrajarri zion. Bigarren ate horretatik isuri dira literaturaren historiara gurea bezalako hizkuntzak eta literaturak –izan ere, harrezkero ez baitago kulturarik gabeko herririk: ipuin, alegia, folklore eta poesiarik ez duenik–. Eta harrezkero badakigu tradizioak ere asmatu egin daitezkeela. Eskura genituen baliabideak plazaratu genituen, geu ere bagarela nabarmentzeko eta, aldi berean, hizkuntza eta literatura zabalago eta aberatsagoen artean lehiatzeko. Handik edo hemendik derrigorrezkoak ziren “kredentzial” batzuk; testuinguru horretantxe ulertu behar dira XIX. mendeko “Altabizkarko kantua” edo Dasconaguerreren *Atheka gaitzeko oihartzunak* nobela. Espiritu berak animatzen zuen, XX. mendean, Aitzol nekagaitzaren “poema nazionala”ren asmoa. Azken finean –xume hasieran, gero eta kontzienteago geroago–, bete-betean iritsiko da Aitzolenganaino Lore Jokoen sasoiko erromantizismo kulturalaren (Herderren) eragin luze eta sakona. Gaur egun badakigu eremu mugatuko hizkuntzak eta literaturak balizko nazio konkretu horren proiektio politikoari estuki atxikita eraiki direla.⁶ Ana Toledoren hitzetan, “Arretagunea, ordea, ez dago gizabanakoaren adierazpen berezian, gizabanako konkretuaren nortasun bereziaren konparatzean, baizik eta gizatalde bereziaren nortasuna adieraztean”.⁷

Nola ez zuten, bada, Lore Jokoetara aurkezten ziren bertsolari/poetek (ez dio axolarik nola deitzen ditugun) bertsolaritzaren neurtitz eta baliabide arruntenean jardungo? Izan ere, bertsolari/poeta horiek –poesia modernoaren bilakaera unibertsalari bizkar emanaz– ez baitzuten helburu bere mundu pertsonala, munduaren ikuspegi barnekoi bat eskaintzea, baizik eta Ana Toledok dioen bezala, “gizataldearen egoera eta ezaugarri bereizleetan gaiak oinarritzea edo esparru honetatik kanpo lekutzea, herritarrak izan ziren Lore Jokoak. Marfilezko dorrean isolatu gabe, egileak kolektibitate batekin bat egitea bilatzen du. Mundu berezia sortuaz eta mundu hori mintzaira berezi baten bidez adieraziaz nekez bategin daiteke kolektibitate batekin”⁸ Azken batean, komunikazio-testuinguruak agintzen du. Joxerra Garziak berrikitan argitaratu duen tesiak⁹ bat-bateko bertsolaritzaren baliabide pragmatiko-erretorikoak lantzen ditu, eta garbi azaltzen du bertan inguru-testu trinkoaren ezaugarriak zeintzuk diren: atxikimendu handiz partekatutako balio eta argudioak; aipatu hutsez emozioa eragin dezaketen balioak; entzuleria, “Herria”, komunitate sentipen bizia (bertso idatzirako ere, aldeak alde, funtsezkoa gertatzen da parte-

⁶ Ibidem, 119. or.

⁷ Ana Toledo, “Antoine d’Abbadie Hegoaldean (1879-1895)”, op. cit., 544. or.

⁸ Ibidem, 544. or.

⁹ Joxerra Garzia, *Gaureguno bertsolarien baliabide poetiko-erretorikoak*, 1999, EHU/UPV

katutako komunitate sentipena). Ana Toledok¹⁰ dioen bezala, bi hitz bakarrik hautatu beharko balira Lore Jokoen ezaugarriak mugatzeko, “herri” eta “euskal” izan daitezke egokiak. 1879tik aurrera, Arrese-Beitiaren “Ama euskeriari azken agurrak” txalotu haren ondoren, areagotu egingo da nazionalismoa-rekin hizkuntzaren beraren –euskararen– alderdi bereizgarria.

J. Haritschelharrek¹¹ adierazi zuen bezala, “Jaungoikoa eta lagi zarra” lemapean jaso ziren ordu arteko Lore Jokoetako ezaugarri ideologiko nagusiak: euskaldun fededun, Herria eta baserritar giroa, eta Euskara eta zazpi probintzien elkartzea.

3. LORE JOKOETAKO EKOIZPENA ETA LITERATURA

Kolko Mitxelenak bere *Historia de la literatura vasca* lanean iruzkin bana eskaintzen die Lore Jokoetako bi egileri: J. B. Elissanburu eta Felipe Arrese-Beitiari. Hauxe dio Mitxelenak lehenengoaz: “No debe ser confundido en esta comunidad de versificadores más o menos inspirados y cultos el poeta Jean Baptiste Elissamburu (1828-1891) (...) Elissamburu es ante todo un maestro del lenguaje y un versificador de extraordinaria habilidad. De gusto muy depurado –poseía una sólida formación literaria a la francesa...”¹². Bigarrenari buruz honelaxe dio: “Visto a distancia, no produce la admiración que causó entre sus contemporáneos. Más elocuente que lírico, no es el milagro de poesía que entonces le creía el mismo Campión. Su debilidad por la elocuencia...”¹³

Hitz horietan Mitxelenak esandakoak ondo esanak daude.

Ibon Sarasolaren *Historia social de la literatura vasca*-n esandakoak eztabaidatuz, hauxe zioen Patri Urkizuk:

“Ezin onar dezaket Lore Jokoak direla eta oraingo kritikari batek bertara aurkezten ziren idazleei buruz zioena:

Los poetas que asisten a los juegos florales, denotan necesariamente un status social y cultural muy bajo. Quitando algún médico, los demás son artesanos populares, campesinos o curas rurales. Su

¹⁰ Ana Toledo, “Antoine d’Abbadie... Ibidem, 543. or.

¹¹ Jean Haritschelhar, “Ideologiak Lore Jokoetako kantuetan”, in *Antoine d’Abbadie 1897-1997*, Donostia, Eusko Ikaskuntza-Euskaltzaindia, 1998, 653. or.

¹² Luis Michelena, *Historia de la literatura vasca*, Donostia, Erein, 1988, 135. or.

¹³ Ibidem, 139-140. or.

formación poética es la resultante de lecturas inconexas de poetas ruralistas de segunda y tercera categoría (el Campoamor más fácil o Gabriel y Galón hacen estragos en la poesía vasca de la época) o bien es nula.

“Ez, ez da egia. Aipatu Donostiako Eskolakoa, hura gizon laiko haiek bazuten heziketa sakon bat, eta bazekiten literaturaren nondik norakoa. Beren arteko lehia medio Lore Jokoek, aldizkariak, bai Katalunyan, bai Europako beste erresumatan, eta bai Euskal Herrian kulturaren eta hizkuntzaren pizkundean lehen plangintza berezia eratu zuten, fruitu eta emaitza ederrik sortuz”.¹⁴

Egia da J. B. Elissanburu edo Karmelo Etxegarai eta Lopez-Alén kultuak zirela. Baina Sarasolak adierazi nahi zuena ere egia da, alegia, oso maila dudazkoa dutela Lore Jokoetako poesia ekoizpenek. Ez dakit nik zer esan nahi duen zehazki Patricio Urkizuk, Lore Jokoetako poetei buruz ari delarik, “fruitu eta emaitza ederrik sortu zutela”¹⁵ dionean. Uste dut garrantzitsuagoak gertatu zirela poesia saio horiek artean etorkizun zen poesia autonomoago eta duinago baten hazia erein zutelako. Nago gauza bera esan nahi duela Patri Urkizuren adierazpen honek: “Lore Jokoen (...) kulturaren eta hizkuntzaren pizkundean lehen plangintza berezia eratu zuten”.¹⁶

Kontua, baina, beste bat da; egin beharreko galdera honako hau da: zergatik gertatzen zaizkigu hain urrutiko Lore Jokoetako bertso horiek? Erantzuna bakarra da: ez dutelako gure Modernitateaz, gure munduaz alegia, hitz egiten.

Historian ezinbestean modernoak izan arren, gertaera eta ondorio politikoei estu-estuan atxikitako modernitatea baino ez zuten bizi haiek. Ez zuten, ordea, gizabanakoaren barneak (kontzientziak) goitik behera pitzatuko zituen hausturarik bizi. Ez dago ordu arteko beren munduari zentzua ematen zioten balioen kritikarik. Europako Modernitatea, Erromantizismoa ere barnean delarik, kritikaren emaitza da, kritika bikoitzaren ondorio: erlijioaren aurrean egindakoa lehena (kristautasunaren Jainkoarena), eta arrazoï berdintzailearen aurrean egindakoa bestea. Gure poetek ez zuten ez bata ez bestea ezagutu. Beren mundu ikuspegiak –mentalitateak– sendo eta irmo eusten zien bere balioei, gizabanakoaren baitan barneratzeko arriskutik salbu; harako zirriki-

¹⁴ Patri Urkizu, “Aintzin solasa”, in *Klaudio Otaegi olerkaria* (1836-1890), Donostia, Etor, 1991, 29. or.

¹⁵ *Ibidem*, 29. or.

¹⁶ *Ibidem*, 29. or.

turik txikiena ere “jatortasunez” eraikitako mundu-ikuspegi sendo batean zegoen bahitua. Mundu ikuspegi horretan ezin zen gizabanakoaren “ni”a errealtate nagusi bihurtu, ezin zen munduaren esperientziagune bazterrezin moduan agertu. Ezin zuen, inondik ere, partekatutako espiritualtasun berririk eraiki. Eta joera horixe zuen norabide poesia modernoak aldarrikatzen zuen gizatasun eraberrituak: Erljio zaharkituaren gainetik, eta hura ordezkatzuz, espiritualtasun utopiko eta askatzaileari bide egitea. Gorago ikusi dugun bezala, gurean, eta gurea bezalako herrietan, herri/komunitatearen balioek beti hartuko diote gaina poetaren “ni”aren sentimenduari. Nola sortuko zen, bada, poesia lirikorik?

Bi adibide:

- a) Har dezagun J. B. Elissambururen “Nere etxea” kantu ospetsuaren lehen ahapaldia:

“Ikhusten duzu goizean
Argia hasten denean
Menditto baten gainean,
Etxe ttipitto aintzin xuri bat,
Lau haitz ondoren erdian,
Xakur xuri bat athean
Ithurriño bat aldean
Han bizi naiz ni bakean”.

Literatur tradizioaren zainetatik irakurriz aise harrapatzen du irakurleak poemaren tonua, eta laster asko antzemango du bertan “Beatus Ille”a motibo nagusi. Baina hurrengo ahapaldiak berehala gezurtatuko dizu hipotesi hura; izan ere, jarraian “jatortzat” partekatutako sentimendu andana estereotipatuek osatzen dituzte hurrengo lerroak:

“Nahiz ez den gaztelua,
Maite dut nik sor-lekua,
Aiten aitek hautatua,
Etxetik kanpo zait iduritzen
Nonbeit naizela galdua,
Nola han bainaiz sorthua,
Han utziko dut mundua,
Galtzen ez badut zentzua”.

- b) Har dezagun Felipe Arrese-Beitiaren “Ama euskeriari azken agurrak” poema txalotuaren hirugarren ahapaldia:

“Nun dira bada zure semiak
Foru ta euskera zaliak?

Nun dira bada, Tubal, gure aita
Zure ondorengo garbiak?
Nun dira bada zure ume zintzo
Eta leialen legiak?
Nun dira orain, orain negarrak
Nun dira nire begiak?”

Nahiz eta “Materia Vasconiae” delakoaren estereotipoak bata bestearen jarraian lerrokatu, literatur tradizioaren zainetatik irakurriz aise asmatuko du irakurleak “Ubi sunt” motibo ezagunaren garapena dugula ahapaldi osoa. Denboraren igarotze atzeraezin eta ankerra da motibo iraunkor horrek eskaini zezakeen aukera nagusia. Eta bati burura dakiok “denbora” suntsitzaile horixe dela –jatorrizko denbora hilezkorraren degradazio gisa– poesia modernoaren muina. Baina, jakina, “Ubi sunt” horrek ez badu poetaren mundu ikuspegi osoaren oinarri den beste federik zalantzan jartzen, ezer gutxirako balio du.

Jakina, Lizardiren, Lauaxetaren eta Orixeren belaunaldiak atzean utzi zituen ordu arte nagusi izan ziren bertsolaritzaren neurtitz eta baliabideak. 30eko belaunaldiaren poesiaren goranahiak beste muin eta trataera batzuk izan zituen baliabide. O. Paz-en *Los hijos del limo* saioaren ildotik, hauxe idatzi zuen Koldo Izagirrek:

“Poesiaren librotasunaren aldeko borrokak –Vinson gerlari bakar– itxura formala hartu izan du maiz, baina formaren ardurapean poesiaren funtzioaren nolakoa dago beti, eta horretan berebiziko garrantzia ukan zuten Xabier Lizardiren jarrerak eta obrak, ingurune hiperpolitizatu batean beti jokatu zuelako poesiaren autonomiaz begiratzearren. Horrela, olerkariak mende erdi eta gehiagoan ezin egin izan zutena burutu zuen Lizardik: “bezala”, “antzo”, “hala” moduko alderagailuak eta gidoi-parentesiak baliatuz, gure poesiaren garapena azkartzeko baitaezparako tresna eman zigun: analogia poetikoa”.¹⁷

Ezbairik gabeko garapena gertatu zen urte horietan; izan ere, aipatu dugun liburuan Pazek zioen moduan, analogia eta ironia ziren poesia modernoaren bi bereizgarri nagusiak. Pizkunde garaian lehenengoa arnastu zen; bigarrena gerraosteko poeten (Mirande, Aresti) lorpena izango zen.

¹⁷ Koldo Izagirre, “Gure poeten malkoa”, in *Jakin*, 2000, 105. or.

4. LITERATUR ERAKUNDEA SORTZEN

Euskal poesia modernoaren garapenari buruz egindako gogoeta da gaurko nire jardunaldiaren muina. Horixe baizik ez zuen adierazi nahi honako –Laffiteren omenez egiten den biltzarrerako, alegia– aukeratu nuen gaiak: “Bertsolaritzatik poesiara. Euskal poemagintza modernoaren ernamuinak (1880-1900)”. Ez nuen “sorrera” edo “abiapuntu” bezalako hitzik erabili nahi, momentu edo urte zehatzen iradokizunari ihes egin nahian. “Epe luze” edo “garapen” hitzek egokiago jasoko lukete nire asmoa, hau da, euskal poesia modernoaren garapen prozesua azaltzea. Ibilbide hori “continuum” gisa ulertzen dut. Nondik hasi baina? Non jarriko genuke ibilbide horren “lehen urratsak” seinalea? Aukeraturako irizpideek soilik oinarrituko lituzteke gure azterketaren nondik norakoak eta handik ondorioztatzen diren baieztapenen zuzentasuna.

XIX. mendean barrena ezagutu zuen euskal kulturak aurreneko erakunde moduko bat, ekimen pertsonala izan arren “erakunde” xume baten mailara iristeko bere inguruan lagun eta babes nahikoa lortu zuena –beti ere ahula, ikusi besterik ez baitago nola ekimen horretan bultzatzaile eta sostengu gertatutako protagonistak (D’Abbadie edo Manterola kasu) hil zirenean, bertan behera geratu ziren haien asmoak ere–. Azken batean, ez dago kulturarik edo literaturarik bultzagile, babesle eta biziraupenerako arnasarik ziurtatuko dion erakunderik gabe. Kultura hori benetakoa bada –edo literatura hori benetakoa bada–, berezkoa du egiazko hartzaileak edo irakurleak izatea. Ahozko kultura edo literatura herrikoia kasuan ziurtatuta zegoen itun hori: bat-bateko bertsolariak, bertsopaperak, kantu herrikoiak eta beste dira horren adibide. Kultura jantziak edo Literatura ez-tradizionalak (eta herriko ez zenak) ez zuen, gurean, “erakunde” tamainako izendapenik merezi zuen azpiegiturarik. Alde horretatik diot, Lore jokoan garaia –batik bat Hegoaldeko aldia– izan zela literatur erakunde batek oinarritzeko zituen baldintza batzuk eskaini zituen: lehiaketak, epaimahaiak, aldizkariak, iruzkinak, kritikak. Hala ere, modu xume eta apal batean baizik ezin da ikusi hau guztia. Ukaezina da Abbadiaren Lore Jokoan hasieratik (1851/53) baino gehiago, Hegoaldera igaro eta 1879tik aurrera, II. Gerra karlistaren ondoren, foruzaletasunaren babesean indartu zela azpiegitura kulturala.

Francisque Michel-en *Le Pays Basque, sa population, sa langue, ses mœurs, sa littérature* (1857) eta Sallaberry-ren *Chants populaires du Pays Basque* (1870) liburu gogoangarriak Iparraldeko Lore Jokoan sasoiaren argitaratu baziren, *Cancionero vasco (1877-1880)* lan handia argitaratu ondoren “Euskal Erria” aldizkaria jarri zuen abian Manterolak Donostian, eta “Revista

Euskera” (1878-1883) Campionek Iruñean. Geroagokoak dira R. M. Azkuek sortutako “Euskalzale” (1897) eta “Ibaizabal”, eta literaturak hainbeste zordion “Revista Internacional de Estudios Vascos”, Julio de Urquijok 1907an sortua; aurrerago, besteak beste, “Euskalerrriaren alde” (1911) aldizkaria ez ezik, 1918an Oñatin egin zen Biltzarrean “Eusko Ikaskuntza” eta Euskaltzaindia sortu ziren.

Gorago esan duguna gogora ekarriz, marraztu den ibilbide honetantxe soilik jartzen dira lanean, modu apalean bada ere, literaturaz edo poesiaz mintzatzea zilegi bihurtzen duten baldintzak. Idazten zen poesiaren mailaz harago, funtsezkoa da, herri literatura albora utziz gero, baldintza bazterrezin horiek aintzat hartzea. Horiek gabe –hartzaile eta irakurle (nahiz eta politizatuak egon), aldizkari eta Akademia, kritikari eta beste– ez dago literatura ahul batez mintzatzetik ere. Instituzionalizatze hori areagotu egin zen nazionalismoarekin; 1930eko gerra aurreko belaunaldia –edo Aitzolen belaunaldia– da horren adibiderik aipagarriena.

5. EUSKAL LITERATURA ETA LITERATURAREN HISTORIA

O. Pazek Nobel saria jasotzean irakurritako hitzaldian –“La búsqueda del presente” zuen izenburu–, mundu osorako balio bera lukeen denbora bati buruz (hala denbora historikoa nola artistikoa) jardun zuen. Europarekiko harremanak hautsi eta bere baitan barnebildu zen Espainiako kolonianismoaren ondorio baino ez zen Octavio Pazen Mexiko; beraz, han bizi izan zuena kultura herrera zen, eta zinezko orainalditik kanpora zegoena, ezinbestean. Horixe zuen Hego Amerikako kulturak “nota constante de nuestra historia espiritual”¹⁸. Bere hitzetan “Para nosotros, hispanoamericanos, ese presente real no estaba en nuestros países: era el tiempo que vivían los otros, los ingleses, los franceses, los alemanes. El tiempo de Nueva York, Paris, Londres”¹⁹. Eta honelaxe amaitzen du aurrerago: “La búsqueda del presente no es la búsqueda del edén terrestre ni de la eternidad sin fechas: es la búsqueda de la realidad real (...). Había que salir en su busca y traerlo a nuestras tierras (...) Buscaba la puerta de entrada al presente: quería ser de mi tiempo y de mi siglo.

¹⁸ O. Paz, “La búsqueda del presente”, in *Fundación y disidencia*, Obras Completas II, Galaxia Gutenberg/Círculo de Lectores, 660. or.

¹⁹ *Ibidem*, 663. Or.

Un poco después esta obsesión se volvió idea fija: quise ser un poeta moderno. Comenzó mi búsqueda de la modernidad”²⁰.

Aurrerantzean Paz ez da Mexiko edo Hego Amerikako poetekin soilik neurtuko; izan ere, urrats erabakigarria eman ondoren, mundu osoko poesia izango du aurrerantzean lehiakide. Harrezkero, poeta hegoamerikarra ez ezik, poeta unibertsala ere bada O. Paz.

Modernitatearen orainaldi hori, modernotasunaren denbora erreal horixe da –Pascale Casanovak adierazi duen moduan– Artearen balioa neurtzeko termometro bakarra. Modernitate aldakor horretantxe legoke, nonbait egotekotan, bakoitzaren emaitzak onartzeko edo baztertzeko, zer den ekarri baliotsua zein anakronikoa erabakitzeko, “denboraren neurria” edo halako Greenwich meridiano bat. Literaturaz hitz egiterakoan, aurrez aurre dugu ezinbestean “denbora neurri” edo meridiano neurgailu hori; bazterreko gure “txokoke-riez” jardutea baino ez dugu, bestela, aukeran.

Edozein hizkuntzatako Literatur historiek kontuan hartu beharreko baldintza da hori, hau da, bi denborez ari garela aldi berean, etxeoaz eta mundukoaz.

Egia esan, historialari jantzi eta kultu batek beti du, disimuluan bada ere, oharpen hori: Lamartinen eta Victor Hugoren (“Apexa eta Lorea” 1862an Lore Jokoetan irabazle gertatu zen poema) eragina eta aztarnak ikus nahi izan zituen Koldo Mitxelena J. B. Elissanbururen poesian; edo Albert von Chamisso erromantikoaren izena ekarri zuen J. Haritschelharrek Etchahun poetaren albora (nahiz eta, zentzu handiz, honela dioen: “Mais de l’humble paysan de Barcus au romantique assoiffé de vengeance de Chamisso, n’y a-t-il pas une marge importante?” (153).

Pariseko txolarreari eskainitako poema hartan, ez al zuen Lizardik intuizio berbera? Ez zuen Madrileko edo Bartzelonakorik aukeratu, Modernitatearen hiriburu nagusikoa baizik: Parisekoa.

²⁰ Ibidem, 663-664. or.

HIRIART URRUTYREN HARRERA LITERARIOARI BURUZ: AUTORETZAREN ARAZOA EUSKAL LITERATURA KLASIKOAN

Ur Apalategi

Txuma Lasagabasterrek « La literatura vasca entre 1700 y 1876 »¹ izeneko artikulu batean esplikatzen zuen –hark gazteleraz esandakoa hutsik edo gehiegizko urruntzerik gabe euskaratzea zilegi bekit– euskal literaturaren historia, ahantxu XX. mendera arte, euskaraz idatzitakoaren historia besterik ezin izan daitekeela². Horren frogatzat ematen zuen gure literaturaren korpu-sean debozio liburuak eta beste sartu izana. Izan ere, eta bere gogoetaren hariari eutsiz, ezer gutti idatzi izan baita gisa horretako liburuez kanpo mende luzeetan zehar. Aitzitik, gaur literaturatzat dauzkagun generoak ibiltzen eta ilustratzen hasi direnean hemengo idazleak –izan dadila poesia lirikoa, eleberria, ipuina nahiz antzerkia– orduan berez desagertu dira garai berean idatzitako debozio liburu zein lan zientifikoak korpus literariotik. Adibide argigarri bat ere ematen du Lasagabasterrek aldaketa ulertzeko: Leizarragaren *Testamentu Berria* euskal literaturan kokatzen jarraitzen dugu 1980ean egin zen itzulpen berria nehork ez daukalarik eginkizun literariotzat.

Literaturaren historia berezko literariotasuna luketen obra guztien zerrendatze eta ordenaketa objektiboa balitz ez genuke ulertuko aipaturiko fenomenoa. Baina, historia literarioa literariotasuna deritzon kategoria abstraktuaren garatze eta bereizte prozesu sozio-historikoaren kontakizuna dela onartzen badugu, normala idurituko zaigu garai bateko hainbat lan « ez-lite-

¹ J.M.Lasagabaster, « La literatura vasca entre 1700 y 1876 », in *Gaurko euskal gizartearen sorburu hurbilak, XVIII-XIX. mendeak*, Bilbo, Eusko Ikaskuntza, 1983, 253-277. or.

² Behar bada, ñabardura bat egin behar litzateke poesiari dagokionean.

rarioen » aipamena egitea, eta are gehiago, aipamen hori behar-beharrezkoa izatea. Badakigu, bestalde, gaineratiko tradizio literarioetan ere, halako zerbait gertatu dela, ñabardurak ñabardura³. Hala nola Espainian zenbait mistikoren testuekin –Teresa Abilakoa–, edo Frantzian filosofo arrazionalistenekin –Descartes. Testu hauek literariotasunaren historia batean egoteko arrazoiak aski mugatuak dira : normalean hizkuntza literarioaren sortzean izandako garrantzia da aintzat hartzen dena –Leizarraga eta Axularren kasua litzateke hau–, eremu lexikal berri eta ibiligabeetara eraman izana hizkuntza, erretorika berezietara egokitu izana hizkuntza (erretorika erlijiosoa, juridikoa, zientifikoa, filosofikoa, etb.⁴).

Pentsa liteke, beraz, Hiriart Urrutyren obra aipatzeko asmoaz banator-kizue idazle hau euskara literarioaren ahalmen linguistikoaren azkartzaile izan zelako aitzakiarekin dela. Alabaina, ez da hala. Idazle mota hau korpus literarioan sartzeko erabiltzen den ohizko argudiaketa hau eztabaidatu nahi nuke preseski, eta egokiago bat proposatzen saiatu, aplikazio eta guzti. Hori dela eta, mintzaldi honen titulua bi zentzutan ulertzea nahi genuke: lehenik, Hiriart Urrutyren *harrera literario baterantz*, eta, bigarrenik, *harrera literarioaz*. Bi esanahi osagarri hauek ardaztuko dute hain xuxen gure jarduna. Lehenik, orain arteko harreraren literariotasun mugatua izanen dut hizpide eta ondoren idazle konkretu honi dagokionean egiazki literarioa litzatekeen harrera baterako proposamen batzuk eginen dira.

1. FILOLOGISMOAREN JARAUNTSIA

Hain urruna ez den garai batean –hamarkada gutti daude tartean– kongresu honen gaien banaketa ez zatekeen orain den bezain garbia izango, hau da, alde batetik hizkuntzalaritza, bestetik literatura. Tradizio filologikoak Espainiar tradizio unibertsitarioaren eraginez indar handia izan badu Hego Euskal Herrian, aitortu behar da Iparraldean ere indar handia izan duela

³ Badirudi latinarekiko lehan, eratorritako hizkuntza arruntek (Romantzeek) gaur literariotzat daukagun makro-genero diskurtsiboa landu dutela indar gehienarekin, beste genero batzuetan –zientifikoan batik bat– latinak bere ospea oso berandu arte atxikitzen zuelarik. Naziotasun moderno bat eraikitzen ari diren esparru hauek literaturaren indar identitarioak eragin duke banaketa funtzional hau.

⁴ Euskarari dagokionean, zoritxarrez, gure historia politikoa dela eta, erretorika juridiko zein zientifikoek ez dute garapenik ezagutu Erdi-Arotik ateratzean, auzo herrietan ez beza-la. Erlixio erretorika da, beraz, berandu arte euskaraz landu den bakarra.

–batez ere kontuan hartzen badugu frantses tradizio unibertitarioan filologiaren presentzia askozaz ere ahulagoa eta sakabanatuagoa izan dela. Badirudi nazio ttikia izanki filologismoaren garrantzia Herder eta bere oinordekoen tradizio nazional-erromantikoari zor diogula. Europar esparruan aski berezia den frantses tradizioan literatura iharduera aristokratikoa izan bada, balore propioen eramaile eta bere burua kritikatzeko irizpide sortzaile⁵, tradizio filologikoan besterik gertatzen da. Herder eta orohar alemaniar filologoentzat hizkuntzan datza nazioaren arima edo genioa eta hortaz, literaturaren forma natural edo herrikoien bilketan oinarritzen da literaturaren ikerketa, hizkuntzaren altxorra biltzea eta txukuntzea dutela helburu. Bigarren fase batean, ondare landugabe horretatik abiatuz burutu daitekeen ekoizpena ere ikertuko da baina beti ere iturri autentikoen garrantzia gogoan izanik. Ikusten denez, pentsamolde honen iturburuan *hizkuntzarekiko errespetua* aurkitzen da eta literariotasunak ez du toki gehiegirik. Tradizio honi erantsiko zaion XIX. mendeko positibismoak ez du gehiago lagunduko literariotasunaren sakontze lana. Izan ere, luzaz kontsideratuko baita obra argitzeko aski dela obraren inguru-minguruak (autorearen biografia, kokapen historikoa, idazketaren eta argitalpen ezberdinen inguruko datuak, etabar luze bat) arakatzea. Obra ez dago interpretatu beharrik, esplika daitekeelako ; obraren egia obratik kanpo aurkitzen da.

Hitz gutxitan, eta geihiegi sinplifikatuz, laburbiltzen ahalegindu naizen bilakaera honen eraginez Euskal Literaturaz egin diren ikerketa ia guztiak filologikoak izan dira orain dela hogeita bost urte arte, hots, alderdi literarioez gain hizkuntza ere sistematikoki aztertzen zuten (oroit bedi Mitxelena zela garai batean itzal handieneko kritikiko literarioa). Egia esan, eta hau ere aitortu beharra dago, idazleek beraiek ere oso berandu hartu dute eginkizun literarioaren berezitasunaren kontzientzia. Lehenik erlixioarekiko askapena etorri zen (Etxepare mirikuarekin, esango nuke, laizizatzen dela erabat literatura « Nor eskola-emaile. Zer irakats » testu luzaz zentsuratua delarik mugarri sinbolikoa), ondotik politikarekikoa (ikus bedi 1975eko Atxaga eta Izagirreraren manifestuan aldarrikatzen den behar extra-literarioekiko berariazko ezaxola) eta azkenik (?) hizkuntzarekikoa (apologistikaren ohiartzun garaikide eta eguneratuak ez dira oraindik isildu, ez eta isilduko ere hizkuntzak oraindik jasaten dituen erasoak ikusita).

Idazleen autonomizatzearekin batera, eta beste gizarte aldaketa askorekin batera, kritika literarioa ere, hizkuntzalaritzatik bereizitako ikerketa arlo gisa eratuz joan da azken hamarkadetan. Horri esker, obra garaikideek lehen

⁵ Saloietan ekoizten ziren obrak, bertan irakurri eta kritikatu ere.

eskaintzen ez zitzaien begirada literarioa jasotzen dute egun. Baina, eta normala da iraultza epistemologiko txiki honen berritasuna ikusirik, XX. mendea baino lehenagoko obrei –hori bait litzateke kontzientzia literario modernoaz idatzitako obrak eta kontzientzia hori gabe idatzitakoak bereziko litzuzkeen muga historikoa– oraindik ez zaie eskaini begirada literariorik. Korpus literarioan sartu dira, sartu, baina arestian aipaturiko argudiaketa linguistikoari jarraiki eta literariotasunari toki marginala baizik eskainiz. Kontua da jakitea posible denez kontzientzia literario garbirik gabe idatzitako testuen kritika literarioa egitea ? Eta uste dut ez bakarrik posible dela baizik eta eginbeharra ere badela.

Horren adibide garbi bat, oso modu txukun eta errespetagarrian egina dagoen Euskal Klasikoak bilduma litzateke. Kontua da proto-literaturaren garaieko idazle gehienak irakurtzeko bide arrunta eta ia bakarra euskal editoreen elkartearen bilduma hau dela. Eta bilduma honen anbiguitatea *klasikoak* hitzan bertan aurkitzen da. Zeren klasikoak dira hauek ? Euskararenak, euskal literaturarenak ? Bildumaren arduradunak zeintzuk diren begiratzuz gero ohartuko gara filologoak edo hizkuntzalariak direla. Eta azken aldiko argitalpenetan desagertu egin bada ere, lehen urteetako argitalpenetan hitzaurre bina izaten zituen liburu bakoitzak, bata Kultura eta Turismo sailburuarena, bestea bildumaren arduradunarena, hots, Koldo Mitxelena hizkuntzalariarena.

1986ko argitalpenetan, Luis Maria Bandres sailburuak zera dio: « Edozein hizkuntzatan ditugula idazle klasikoen bildumak »⁶. Esamoldean ez da literatura hitza ageri (nahiz testuan urrunago euskal literatura aipatzen den). Bildumaren aurkezpenari jarraikitzen zaion Mitxelenaren aurkezpenean, aldiz « Euskal literaturaren ospea » aipatzen da hastapenetik. Baina segidan aitortzen du –arazo bat egon badagoela aitortuz– « euskaraz idatzi den guztia (eta esan edo kantatu den franko) euskal literaturan sartzera »⁷ doala bilduma. 1987an, Joseba Arregiren hitzaurreak Euskal Literatura Klasikoa aipatzen du baina Lino Akesolok, Koldo Mitxelenaren segida hartuz, bere hitzaurrean besterik dio : « Oraingoa leengoaren ildotik dator : emeretzigarren mendean asi eta gure mendera arteiñoko euskal-idazle jatortzat daudenen zenbait idazlanez osaturiko bildumatxoa ematen zaigu. Gure asaba zaarren baratza landu izan dutenen emaitzetatik aukera egin eta aien *euskal-lana* [guk azpimarratu-

⁶ Luis Maria Bandres, « Agur irakurle », in R.M.Azkue, *Bein da betiko. Batxi Guzur*, Euskal Editoreen Elkartea, 1986, 7-8. or.

⁷ Koldo Mitxelena, « Liburu sorta zaharberitu baten atarian », in R.M.Azkue, *Bein da betiko. Batxi Guzur*, op.cit., 9-19. or.

rik] ezagutzeko aukera eman nai zaie gaurko euskaldunei. »⁸ Eta honela bukatzen du bere aurkezpena : « Gure aurretiko idazleak euskal-giro osasuntsuagoan bizi ziren, euskerak arnasa garbiagoa artzen zuenekoan. Eta orduko idazleei beti darie inguruko euskera jatorragoaren tantatxoren bat. Oraingo euskal-aztertzaileek ere aien iturrira eta erriaren iturrira jotzen dute sustrai jatorrenen bila. Edozein euskaldunek, gure izkuntzaren ezagutze sakona lortu nai badu, obeki ikasi eta euskaldun argitua izan nai badu, ez die ez-ikusia egin bearko gure idazle zaarrei. »⁹

Bestalde, bildumako ale ezberdinen barne egiturari erreparatuz gero oharzen gara filologoentzat eta filologoen pentsatua dagoela argitalpena ezen hor baititugu atzekaldeko idazle bakoitzari dagokion hiztegitxo eta edizio kritikoaren egilearen lana. Normalean, edizioaren egileak idazlearen bizia kontatzen du, bere obraren kokapen historikoa gehituz beharrezkoa baderitza –adibidez, Hiriart Urrutyren lanak kokapen historiko mamitsua eskatzen du, lantzen dituen gaiak direla eta, aldiz Barbier-enak edota Bizenta Antonia Mogelenak ia batera– eta, batez ere, idazlearen hizkerari buruzko ikerketa bat proposatzen du –nongo euskara darabil autoreak, zein dira bere berezitasun linguistiko-estilistikoak (kasu hobereanean)–, alderdi literarioak ia erabat saihestuz.

Har dezagun gaur hemen « literariotzen » hasi nahi genukeen Hiriart Urrutyren artikuluak biltzen dituen *Gontzetarik jalgiaraziak* eta saia gaitetzen ikuspegi literario batetik idazle honetaz esaten zaigun guztia biltzen. Lehenik eta behin, esan dezagun idazle hau problematikoa dela berez sail honetan, kazetaria zelako. Gorago aipatu legez, kolekzio honek bere gain hartzen du euskaraz idatzi den oro –Lasagabasterrek zioenez– argitaratzeko ardura, jakin arren ez dela aitortuki literarioa. Honela, edizio kritikoaren egileak –Iñaki Caminok– hasieratik bertatik, Gregorio Mujikaren esaldi bat berreskuratuz, zera azaltzen digu, euskarak izan zuen periodista bakarra edo lehendabizikoa behintzat izan zela Hiriart Urruty. Ekarpen literarioari dagokionean, esamolde honen zentzu hertsian, hona zer esaten zaigun, hurrenez hurren : gerora egiazko literato bihurtuko ziren « idazle belaunaldi oso baten irakasle » izan zela, « euskal idazle ezaguna », « Ipar Euskal Herriko kazetaritzak izandako lumarik biziena eta garrantzikoena », « suminkor eta ezten zorrotzekoa » zela, Lafitterren ustez haren testuak begiz irakurtzeko ezezik ahoz irakurtzekoak zirela, Etxepare *mirikuaren* ustez « ele jarioaren pean

⁸ Lino Akesolo, « Euskal idazle sorta berria », in Jean Etchepare, *Beribitez*, Euskal Editoreen Elkartea, 1987, 9-20. or.

⁹ Ibid.

mami gutxiko » idazlea izan zela, « beroa, gatazkaria », « ironian maisu », « argumentazioan ahul », azkenik, beti Lafitten aburuz, « baitezpadako zitzazkon gauzetan, jo azkarki :gainerateko gauzetan, odol gaixtorik egin gabe, onhar batzuen nola bertzen aburuak ». Bizpahiru ohar gehiago aurki dezakegu, han-hemenka, gure buruak amiñi bat bortxatuz estilistikari –eta beraz zeharka literaturari– lot geniezazkiokeenak. Adibidez idazleak bere idazketaren pratikan alborakuntza hobesten zuela, menderakuntza zein koordinazioa ahal zen heinean saihestuz.

Esan dezagun, halere, asko iruditu balitzaizue, hitzaurre horrek berrogeita hamazortzi orrialde dituela eta bilduma guztiko aberatsenetarik eta luzeenetarik dela.

Literarioa ez izanagatik sarrera luze eta oso intersgarria izaten jarraitzen duen horretan agertzen den gainerantzeko informazioa euskalaritzari dagokio –Hiriart Urruty-ren euskararen kokapen dialektala, edo historiari –idazlearen joera ideologikoak ulertzeko biziki argigarria den kontestualizazioa proposatzen zaigu– nahiz biografiari –garbizaleei eta filologoei (!) zien sinpatiarik eza, irakasle ona izan zela (« haurrak aspertzen ez dituztenetakoa »), *Escualduna* kazetako kolaboratzaileen testuak zuzentzeko maniak azken hauetako ainitz uxatu zituela...

2. HARRERA LITERARIO BATERAKO AUKERA : AUTOREAREN FIGURA BERRI BAT

Hortaz, urriak dira oraino, nire iritziz, tratamendu literarioa jasan duten euskal klasiko asko. Tratamendu honen adibide famatu bat eman nahi nuke Roland Barthes-ek para-literariotzat ditugun autore batzuei eginiko iruzkinak oroitzuz. Michelet historialaria, Sade filosofoa, Fourier utopista, Loyola jainkoaren borondatea zein den jakiteko metodoaren asmatzailea... Idazle hauek oro ez zuten apika eginkizun literarioan murgilduta egotearen kontzientziarik, baina dudarik ez dago literaturak zerbait zor diela, eta zer hori litzateke kritiko literarioaren eremua. Zer ekarri dio, bada, Hiriart Urruty batek euskal literaturari (eta ez euskarari) ? Galdera honi erantzuteko, baina erantzuna agortzeko nahikeriarik gabe –izan ere, garai bakoitzak ikusiko dio zerbait berria obra bati, garai bakoitza modu ezberdinean inspiratuko du idazle batek–, autorearen teoria erbiliko dugu, idazle hazpandarraren berezitasun literario nagusienetako bat argitzen lagunduko digulakoan.

a) Teoria apur bat

Autorearen figurarekiko interesa berpizte bidean dago azken urteetan. Luzaz kritika berriaren eraso bortitzenen jomuga izan ostean, indarrean dator, baina kasu, ez da orain aztertzen den autorearen XIX. mendeko kritika literario positibistak aztertzen zuen entitate psiko-biografikoa, zeinaren intentzioaren baitan aurkitzen baitzen obraren ulermenerako gakoa. Formalista errusiarrek, *New Critics* amerikarrek eta *Novvelle Critique* frantziarrak testuaren ulermenerako testua bera aski zela aldarrikatu bazuten –behar bada ikasketa literarioek historia eta psikologiarekiko zuten harreman estuegia eteteko–, post-estrukturalismoak, berriz, ulermena irakurlearen baitan zetzala aldarrikatu zuen –bereziki H.R.Jauss-en harreraren estetikaren eskutik. Baina pixkanaka, ia ohargabeen eta leihotik sartu balitz bezala, autorearen berriro sartu da kritika literarioaren esparrura.

Umberto Eco-ren irakurketa ekintzaren ikuspegi pragmatistan¹⁰ iadanik bai testuzentrisismoari eta bai irakurlezentrisismoari ihes egiten zaio autorearen figura sartuz : semiologo italiarrarentzat irakurle enpirikoak ere autorearen hipotesi bat egin behar du testutik beretik abiatuz. Autore Eredua, Ecoren pentsamenduan entitate birtuala da¹¹, errepresentazio sozialaren nozioetik hurbil legoke soilik indibiduala ez balitz : testu estrategia jakin bati indukzioz egotzen diogun egilea –geure baitan irudikatzen dugun egilea–, hori da Autore Modeloa eta testuaren interpretazio hipotesi bat da. Ez dago irakurketarik interpretazio hipotesirik gabe, eta beraz Autore Eredua baten errepresentazio mentalik gabe. Testu anonimo baten aurrean dagoelarik ere –hots, autore enpirikoari buruzko informaziorik gabe– irakurleak Autorearen balizko errepresentazio bat eraikitzen du, oso lanbrotzua izanagatik, testuak zentzu bat har dezan, ia ezinezkoa baitirudi jatorririk gabeko diskurtso bat irudikatzea. Irakurketan zehar irudikatzen dugun Autore Eredua araberaren testuak esanahi oso ezberdinak har ditzake. Hori da, preseski, testu bat ironikoa den autore batek idatzia dela edo ironia asmorik gabeko autore batek idatzia dela erabaki behar izaten dugunean gertatzen dena : testuaren zentzua aldatu egiten du autoreaz daukagun ideia araberaren –eta garbi gera dadila ez naizela autore enpirikoaz ari (edo ez bakarrik bederen, ezen autore enpirikoak badu eraginik, noski, ezagutzen denean, Autore Eredua eraikuntza mentalean).

¹⁰ Gogoeta honen bermea Umberto Ecoren *Lector in fabula* da (Paris, Livre de Poche, 1985).

¹¹ Nahiz ez diren arras baliokideak, autore eredu eta beste teoria batzuetan autore inplizitua deitzen dena, oso antzeko kontzeptuak dira. Biek testuaren irakurketak eta soilik testuaren irakurketak esistiarazten eta iradokitzen duen autorearen errepresentazio bat izendatzen dute.

Hori bera gertatu ohi da iruzur literario baten aitzinean aurkitzen garelarik ere : testua bakarra eta berbera izanagatik, ez ote dira bi interpretazio oso ezberdin bideratuko autorea Ossian dela uste dugularik eta autorea Mac Pherson dela dakigularik ? Kontua da, Autore Eredua –testuak berak iradokitzen duena, testuan baizik ez dena esistitzen– maiz korto-zirkuitatu egiten digula irakurleoi autore enpirikoaz dakigun guztiak. Eta hau arazo bat da zeren testuaren irakurketak Autore Eredua aukeratzen eta eraikitzen laguntzen badigu egia da, baita ere, Autore Ereduaren aukeraketak aldi berean irakurketa baldintzatu egiten duela.

Hizkera kontzeptual soziologiko batetik abiatuz, eta gogoetaren haria arras ezberdina izan arren, Bourdieu-k ere autorearen figuraren garrantzia azpimarratu du testuaren ulermen prozesuan. Izen berezi bati loturiko kapital sinbolikoak baldintzatu egiten du izen horri lotutako testuek osatzen duten korpusaren irakurketa¹². Autorearen izen literarioa marka komertzial bat bezala da eta balore jakin batzu erantsiz gero oso zaila da aldatzea. Autore bat komertzializat daukagunean bere idazkera asko aldatuagatik oso zaila egingo zaio irakurleari autore eredia aldatzea eta, hortaz, litekeena da irakurketa aldeztu aurretik baldintzaturik gelditzea.

Borgesek, bere aldetik, zera zioen, autore batek ez duela obra idatzia bakarrik ekoizten, idazletzaren ideia bat ere sortzen duela (testuen bitartez nola bere jokamolde biografikoari esker). Eta finean, ez ote da posible Aristoteleseraino jotzea¹³ autorearen figuraren garrantzia azpimarratzeko? Filosofo greziarraren ustez mintzo denak ez du komentzitzen entzulegoa esaten duen horren indarrak soilik, bere diskurtsoaren bitartez *ethos* bat –aiurri bat– inkarnatzen saiatzen da zeinak limurtzen duen entzulegoa, erabiltzen dituen argudioekiko mesfidantza uxatuz. Norbait hitzen bitartez komentzitzeko ez da aski egia esatea, beti egia esaten duen tipoaren figura gorpuztu behar da, hau da sintzeritatearen edo zintzotasunaren *ethosa*.

Azken urteotan, berriz, kritika literarioak giza-zientziek garaturiko gai hau bereganatu du emaitza interesgarriak lortuz. Alabaina, zein da korrante teoriko berri honek ikertu nahi duen idazlearen irudi edo errepresentazioa ? « Oso eskematikoki hitzegiteko, esan dezakegu aipatu nahi den autorea ez dela literaturaren historiarena nahiz filologiarena, bere segetu zein intenziokikoa. Ezta Freud eta psikoanaliaren, bere inkonszientearekikoa [...]. Ez da bere obraren subjektua, edo ez hori bakarrik bederen. [Aipatu nahi den autore] *biografiko* izenpean bil ditzakegun hainbat ekintza *diskurtsibo nahiz*

¹² Ikus Pierre Bourdieu, *Les Règles de l'art*, Paris, Seuil, 1992, 211. or.

¹³ Ikus *Erretorika*.

ez-*diskurtsiboren* objektua ere bada. »¹⁴ Esan dezakegu, beraz, dela, lehenik, idazle izateko modu bat. « Idazle-pertsonaia bat onartzeak suposatzen du gizakia eta bere obrari hirugarren termino bat gehitzen diegula, bien arteko harreman tradizionala eta azken honi zegozkion galdera eskolarrak aldatu egiten dituen [...] Hortik aurrera, presentzia biografikoa deritzonak (sasi-presentzia, nahi bada, baina xarma egiazkoz kargatua) liburuaren efektuan eta abstrakzioan esku har dezake. »¹⁵

Baina arazoa da autore guziek ez dutela idazle izateko manera bera. Idazle bakoitzaren irudia berau osatzen duten *biografema* ezberdinak aztertuz marraz dezakegu. Zein dira, bada, idazlearen biografemak ? Honela zerrendatu genitzake, nahas-mahasean bada ere : obratik kanpoko autorearen hitzarekin zerikusia duten biografemak (elkarrizketak, entrebistak, korrespondentzia, lagun bitartez dakizkigun erranaldi gogoangarriak, etb.) ; janzkera edo irudi fisikoa osatzen duten biografemak (bere txapela, bere bizarra edo bigotea, ibilera dicitua, gabardina luze eta zikina, etb.) bere izena (edo ez-izen literarioa), bere famili-kondaira (kokapen soziologikoa, psikanalitikoa, genealogikoa), bere bizilekua edo dekoratua (baserria, etxebizitza burgesa, idazgela mahain gainean lotan datzan katuarekin, bizi izandako azken egoitza, sortextea, bere liburuetan aipatzen diren hiri edo naturgune enblematikoak, etb.), gertaera biografiko famatuak (presondegiratzea, presondegitiko ihesaldia, Nobel Sariari uko egin zionekoa, frankistek fusilatu zutenekoa, rock talde underground bateko kantari izan zenekoa, HIES eritasunaren aitortza publikoa egin zuenekoa, etb.), etabar luze bat. Finean, idazlearen biografia benetako drama literario bat litzateke, hain zuzen aipatu berri ditugun biografema guzti horien sintesiaren emaitza, zeinaren zuzendari artistikoa bailitzateke autorea bera. « Izan ere, bada zer esan “idazle imaginario” bihurtzeko behar horretaz. Hots, bere buruarentzat fantasmatika pertsonal batean oinarritutako nortasun propio bat sortzeko beharraz ; nortasun bat zeinak aldi berean imaginario sozialean kokatzeko erraztasunak eskaini behar dituen. »¹⁶ Guzti honen gibelean idazlearen benetako “estrategia identitario” baten garapena soma daiteke.

Ikusten denez, autorearen teoria anitza da –tarteka kontraesankorra– eta zerbaitek biltzen baditu disziplinar-teko gogoeta guzti hauek obra eta idazle enpirikoaren artean kokatzen den hirugarren errealtate baten ezagupena li-

¹⁴ Jean-Benoît Puech, in *L'Auteur comme oeuvre. L'auteur, ses masques, son personnage, sa légende* kongresuaren aktak, Orléans, Presses universitaires d'Orléans, 2000, 10. or.

¹⁵ *Ibid.*, 12. or.

¹⁶ José-Luis Diaz, in *L'auteur comme œuvre*, op.cit., 61. or.

tzateke, zeinak obraren nahiz pertsona enpirikoaren eragina jasotzen duen, aldi berean azken hauengan eragin nabarmena duelarik.

Orain, baina, guri axola zaiguna Hiriart Urrutyren autore figura izaki, ikuspegi komunikazional pragmatistari lotuko gatzaizkio, etekin gehien eman dezakeena delakoan.

b) Hiriart Urrutyren figura : testu azterketa

Hiriart Urrutyk ez zukeen bere burua literatura egileztat eta horrek errotik balio gabetzen du biografemen azterketetan oinarritzen den autorearen figuraren azterketa. Hiriart Urrutyk bazituen bere inguruan literatura egiten saiatzen ziren hainbat idazle eta historia bortxatzea litzateke bere prentsa-idazle ibilbidean autore figura literario baten eraikuntza xedea edo garapena ikusi nahi izatea. Bizkitartean, ukazina da kontzienteki kazetari lanean ihardun arren, edozein diskurtso ekoizlek bezala, *ethos* bat garatu duela. Eta *ethos* hori guri, literatura ikerleoi, asko interesatzen zaigu, besterik ez bada, gorago esana izan den bezala, hainbat idazle literarioen maisu eta inspiratzaile izan baitzen kazetari hazpandarra. Are gehiago interesatzen zaigula esatera ausartuko nintzateke *ethos* hori ez delako hain zuzen diskretua. Autore Ereduaren presentzia, Hiriart Urruty idazle enpirikoaren testuetan biziki indartsua da, ezohizkoa. Kontatzen dituenak XXI. mende bukaerako irakurleoi berez bortitza egiten bazaizkigu¹⁷ –*decalage* ideologikoa dela medio–, kontatzeko moduak, bere narratzaile presentzia erabiltzeko eta instrumentalizatzeko joera horrek, are bortitzagoa egiten digu bere testuen irakurketa¹⁸.

Esan genezake, gainera, Autore Ereduaren gardentasun horrekin bat egiten duela, Hiriart Urrutyren testuetan, Irakurle Ereduaren gardentasunak –zeina, oroitaraz dezagun, testuak definitzen duen entitate birtuala baita. Alde horretatik badirudi testua zenbat eta literarioagoa, hainbat eta definigaitzagoak direla Autore eta Irakurle Ereduak. XX. mendeko testu ultra literarioetan –bere literariotasunaren kontzientzia handiena duten testuetan– ez dakigu

¹⁷ Oroit bedi, besteak beste, heriotz zigorraren aldekoa dela idazle hau, antisemita, falokrata, Frantzes nazionalista sutsua –Alemaniaren kontrako gerla handirako sos eskean aritu zen–, erlixioneari dagokionean ez dela preseski tolerantea, etb.

¹⁸ Polita litzateke honako esperientzia burutzea : Hiriart Urrutyren testu batetik abiatuz bi bariazio idaztea, lehena, gai antisemita politikoki onargarriagoa zaigun gai batekin ordezkatzeta, baina bere tonua mantenduz, bigarrena, gai antisemita atxikiz, tonua aldatzea, ethos umilago eta dudatiago batekin ordezkatzu. Horrela jakingo genuke zerk gaituen gehien txokatzen Hiriart Urrutyren prosa polemista irakurtzerakoan.

ongi nor mintzo den –ikus joera modernista honen muturrean legokeen Reiner Maria Rilke-ren *Malte Laurids Brigge-ren kaierak*– eta ez dakigu ongi nori zuzenduta dagoen testua. Hiriart Urruty, alde horretatik (eta beste askotatik) *ethos* literario modernoaren antipodetan legoke. « Nor da nausi » artikuluko polemikoan –Juduen eta framazonen aurkako diatriba dugu testua– hona zeinen garbiki definitzen duen bere irakurlegoa: “Herriko jendea, herriko konseilua, herriko gizonak, herriko burhasoak eta etxeko jaunak”¹⁹ « Hilak surat » artikuluan, berriz, irakurle inplizittoa gehixeago zehazten du laborari-goarekin identifikatuz : “Lan handiak dituzuen orai : bero ari ere da ; eta hola-koetan irakurtze luzeak lokhargarrak dira”²⁰. Baserritarrak ezezik, “jende xeheak”²¹ ere aipatzen ditu inon. Bere irakurlegoaren deskripzioa oraindik urrunago eramatea lortzen du bere burua ere zaku berean sartuz : “Ez da deus giristinoen artean hala ezagaturik, nola baita beren hilez hartzen duten artha berezia. Eta euskaldunek ez diegu, buru hortarik, nehoi ere zorrik”²². Beste toki batean, irakurlegoarekiko antzekotasuna inplizitu izatetik esplizitu izatera igarotzen da : “Gu giristinoak, gu jende langileak”²³.

Esan dugu literatura modernoaren ezaugarri bat dela irakurle edo/eta autore ereduaren zehazgabetasuna. Alta ezaguna da oso delako modernitatearen hasieran kokatu beharko genukeen Balzac batek bere irakurle eredia definitzeko zuen ohitura –bere eleberrietan irakurleari zuzentzen zaioenan narratzaileak esku azal zurbila duen emakume bat idurikatzen du sarri eleberriaren orriak itzultzen. Baudelairek, eta hau bai iada modernitate literarioaren bihotzean aurkituko litzateke, irakurlea hipokritatzat dauka, fede txarrezkotzat, eta beraz, nola edo hala definitu egiten du. Baudelairentzat irakurlea (burgesa, noski) moralki idazlearen anaia bixkia litzateke baina idazleak ez bezala ez luke asunituko egia hau. Hortaz, idazlea eta irakurlearen arteko distantzia azken honen hipokresia sortzen du. Gerora, egia da, irakurle eredia lausotuz joango dela modernitatea radikalizatuz doan neurrian. Halere, diferentzia nabarmena dago Balzac baten eta Hiriart Urruty baten artean eta hau da Balzac-ek ez duela idazten Balzac-en antza duen norbaitentzat –are guttiago Baudelairek. Distantzia bat jartzen du idazle modernoak bere burua eta irakurlearen artean eta distantzia horrek ironia, esnobismoz kutsaturiko erdina

¹⁹ Jean Hiriart Urruty, *Gontzetarik jalgiaraziak*, Donostia, Euskal Editoreen Elkarte, 1994, 43. or.

²⁰ Ibid., 5. or.

²¹ Ibid., 42. or.

²² Ibid., 5. or.

²³ Ibid., 41.or.

edo beste izen asko har ditzake. Hiriart Urrutyk aldiz bere irakurlego enpiriko-arekiko izan dezakeen distantzia –soziala, ideologikoa²⁴– sistematikoki ukatu egiten du, gu izenordain deiktikoaren erabilpena duelarik arma erretoriko baliatuen. Distantzia hori erretorikoki deusezteko beste taktika bat, usu erabilia artikulatutan, konplizitatearen toposa da : “Nere adizkidea zezen-gudu horien alde zen ; eta *ni dakizuen bezala*, ez alde [neronek azpimarratua]”²⁵.

Laburbildu asmoz, esan dezakegu Hiriart Urrutyren prosan Roman Jakobson hizkuntzalariak agerian jarri zituen mintzairaren funtzioetatik bat²⁶ beste guztien gainetik nagusi dela, zeinak ematen baitio autorearen ihardunari hain tonu berezia. Funtzio hori *phatikoa* deritzona da, hots, solaskidearekiko kontaktua segurtatzen duena (« dakizuen bezala » eta gisa bereko esapideen bitartez). Adibide eder bat bada, orain arte garatu ditugun zenbait puntu aldi berean ilustratzen dituena –hau da, irakurle ereduaren deskripzioa, distantziarik eza, konplizitatea, funtzio phatikoaren behintasuna : “Egun, har dezagun hatsa, zuek eta nik, euskaldun irakurtzale maiteak”²⁷. Hiriart Urrutyrena utopia populista bat da –zeinetan idazleak eta irakurleak batera arnas egingo bait lukete– funtzio phatikoan berme hartzen duena.

Ethos literario modernoan esan ohi da literatura (eta, ondorioz, bere idealak gorpuzten saiatzen den autorea) ez dela erantzunak ematen saiatzen, galderak pausatzen baizik. Bada, honetan ere, Hiriart Urrutyk kontrakoa egiten du : bere artikulua erantzun jakin batzu –oso kokagarriak, oso iragargarriak– irakurleari inposatzeko makina erretorikoak dira. Italian heriotz zigorra kendu dutela-eta, neurria nahiko sotilki kritikatu ostean –ez da uste behar arrazoitzen ez dakienik– irakurlea bere epaiaren jabe uzteko ordez, atera beharreko ondorioak inposatzeko gogoari ez dio eusten : “Horra zer irabazi duten Italian gaixtaginen hil-arazteko legea khenduz”²⁸. Joera horren mutu-

²⁴ Ez dut uste Hiriart Urruty bere irakurle asko eta asko bezain xehea zenik sozialki –Baionako kalonje izatera iritsi zen eta astekari oso zabaldu baten arduradun– eta ez dut uste politikoki ere laborarigo euskaldun guztia homogeneoa zenik (gorriak ere baziren jende artean). Autorearen fede txarra agerian geratzen da hain zuzen arazo soziala aipagai duelarik. Izan ere, bere posizio sozial ez hain xehetik –eta gaineratu daiteke berea ezezik orohar garai hartako Elizarena ere badela kokapen anbiguo hori (pobreen alde, baina aberatsekin haserretu gabe)– ezin baitiezaieke aberats eta indartsuei eraso egin (eta badaki zarrapo eta irain egiten nahi duelarik, Lafittek ongi aztertu zuenez). Orduan bere erretorika populista eta erasokorra doi bat apaltzen da eta dudaren galdera ikurrak bere agerpen bakanetako bat egiten du : “Nola mintza orenen gogora ? [nausi zein langileen gogora]” (Ibid., 18. or.).

²⁵ Ibid., 9. or.

²⁶ R. Jakobson, *Essais de linguistique générale*, Paris, 1963, 11. atala.

²⁷ Hiriart Urruty, op.cit., 175. or.

²⁸ Ibid., 16. or.

rreko adibidea, jakina, autoreak jendeen bozka norabidetzeko egiten dituen ahaleginak dira. Haatik, horrek ez du esan nahi ez dagoenik sotiltasunik bere eginmoldean. Aitzitik, berak bere irakurlegoa komentzitzeko darabilen testu estrategietarik bat, adibidez, berea den iritzia irakurleari berari egoztea baita. Eta zaila da jakitea, autore populista guztiekin gertatzen denez, bere ideiak irakurlegotik hartzen dituen –sinbiosian bizi delako (edo bizi nahi duelako) harekin– edo alderantziz irakurlegoari lotsagabeki egozten ari zaion bere pentsamoldea.

c) Hiriart Urruty autorearen kokapena euskal literaturako autore-funtzioaren historia batean

Geure buruari egin beharreko lehen galdera –funtsezkoena, dudarik gabe– berriro ere literariotasunarena da. Ez dugu ordea lehen bezala formula-tuko galdera. Afera ez da, iada, jakitea Hiriart Urruty autore literarioa izan zen ala ez, baizik eta autorea izan ote zen. Michel Foucault-ek autoretzaren gaia pil-pilean zegoen garaiean (60eko hamarkadaren ondarrean) « autore-funtzioa » kontzeptua asmatu eta erabili zuen testuek izan zezaketen baina beti ez zuten zer hori izendatzeko²⁹. Hainbat testu daude autore enpirikoa edo inplizitua (testuak iradokitzen duen autore birtuala) ukanagatik ez dutenak autore-funtziorik:

Esan genezake, beraz, gurea bezalako zibilizazio batean diskurtso batzuk autore-funtzioa daukatela beren baitan bestetzu delako funtziorik gabe daudelarik. Gutun pribatu bat norbaitek izenpetu dezake baina ez du autorerik ; halaber hitzarmen batek. Karrikan irakurtzen dugun grafitiak erredaktore bat izan dezake baina ez autorerik. Autore-funtzioak gizarte batean diskurtso batzuen zirkulatze eta funtzionatze moduarekin du zerikusia.³⁰

Hortik gure galdera, Hiriart Urruty idazle enpirikoaren testuek ba ote dute autorerik –eta, bidenabar, XX. mende aurretiko euskal literaturaren klasiko asko eta askori heda geniezaieke duda?

Noski, Hiriart Urrutyren kasuan bere testuen generoak –iritzi kazetari-tza– baduke eraginik erantzunean. Idazle hazpandarra *Eskualduna* astekaria batik bat arrazoi elektoralengatik sortu duen lobby ideologiko-sozial baten bozeramaile ofiziala da eta bere narratzaileak nahiko indibidualizatua badiru-

²⁹ Michel Foucault, “Qu’est-ce qu’un auteur ?” (1969ko otsailaren 22an Société française de philosophie-n emandako mintzaldia), in *Dits et écrits*, Paris, Gallimard, 1994.

³⁰ Michel Foucault, “Qu’est-ce qu’un auteur ?”, in *Dits et écrits*, Paris, Gallimard, 1994, 798. or (neronek itzulia).

di ere (indibidualizazio hau autore implizitoaren zehaztasun hein handiari lotzen diogu) ez dugu sekulan ahanzi behar, egiatzki, estrategia testual bat dela lobbyaren ideiak, bitartekari konplizearen bitartez, erraxkiago zabaltzeko gizartean. Hiriart Urruty ez da sekulan bere iritzi pertsonala ematen ari, “baitzepadakoak zaizkon gauzetan” azkarki jotzen du, lobbyaren izenean et lobbyaren ordenetara³¹. Hortaz, paradoxa harrigarri batera garamatza honek guztiak : Hiriart Urrutyren testuak ez lukete autore-funtziorik eta bertan garatzen den autore eredu hain identifikagarria, hain humanoa, litzateke, preseski, gabetasun horren froga eta bermea.

Eta frogantzaren puntu honetan desbideratze labur bat egin nahi nuke beste lobby baten izenean idazten duen euskal klasiko batekin erkatzeko. Joannes Leizarraga, Nafarroako gorte kalbinistaren zerbitzuan hilabete sari eta guzti ari den idazlea, honela zuzentzen zaio bere nagusiari egin berri duen Testamentu Berriaren itzulpena eskaintzerakoan : “Haur bay erranen dut, ecen bethi orhoitic nola laincoaren manu expressa den haren hitzari deus edequi eztaquion ez eratchequi : hala eguin ahal dudan fidelquiena egin ukan dudala”³². Bistan da beraskoitzarrak pasarte honetan protestantismoaren dogma nagusiari egiten diola erreferentzia –alegia, Jainkoaren hitza zuzenean fededunari heldu behar zaiolako ustea, Elizaren bitartekaritza saihetsiz– baina ez dea egia desenkusaketa kutsua duen pasarte honetan Leizarraga idazle enpirikoak bere testuari autore funtzioa ukatu egiten diola hitz hauekin ? Bere testua itzulpen soil izanki –baina esistitzen al da itzulpen soilik, itzulpena ez al da beti sorkuntza bat ?– onar daiteke horrelako gauza bat posible izatea. Alta, iruditzen zait ikertu beharko litzatekeela zein punturaino jarraitzen duen posible izaten horrelako zerbaitek, –testuen autore funtziorik ezak– itzultzaile soil ezezik lobby baten bozeramaile ofizial edo patentatu izan diren euskal klasikoei dagokienean. Zer punturaino da autorea Axular bat hitz honen zentzu moderno eta literarioan? Eta galdera honi ihardetsi nahiak autore hitzaren etimologiari behako interesatu bat ematera garamatza. Lexikografoen arabera « autore » hitzari bi etimologia ezberdin baina osagarri egotz dakioke. Lehena greziarra litzateke (*autos*) eta sorkuntza, kausa eta ekintza ideiei oihartzun egiten die. Bigarrena, berriz, latina litzateke (*auctor*) eta *augere* aditzetik letorke, zerbait gehitzen duena izendatuz. Leizarragak ongi asko dio ez diola deus ere gehitu nahi Jainkoaren hitzari baina ez al dugu, neurri batean bederen, hori bera ulertu behar Axularrek edo bere ondotiko hainbat idazle ofizial edo sasi-

³¹ Jakin, badakigu, gainera, kazetaren kolaboratzaile dezente uxatu zuela, zentsura linguistiko zein ideologikoa pratikan ezarritz.

³² Joannes Leizarraga, *Jesus Christ gure Jaunaren Testamendu Berria*, Donostia, Hordago, 1979.

ofizial –gehienetan Elizaren zerbitzuan ari direnak– herabetasunaren toposaz baliatzen direlarik. Dena den, garbi dago ezin direla parekatu Hiriart Urrutyren XIX. mende bukaera eta Axularren XVII. mendea. Izan ere, autore funtzioa ere fenomeno txit historikoa baita berez³³, mendebaldeko zibilizazioan indibidualismoarekin batera garatu dena eta erromantizismoaren originaltasunaren eta genioaren kontzepzioek gailurtu dutena. Leizarragaren edota Axularren testuek ez autore-funtziorik izatea nahiko normala da. Eta Hiriart Urrutyrenek ere, autore inplizitua izan arren, ez badute autore-funtziorik, normala dateke, baina oso arrazoi ezberdinengatik, hots iritzi kazetaritzan ari delako.

Bitxia eta harrigarria dena, Hiriart Urrutyren kasuan zera da, euskal klasiko gehienen *ethos* erabe eta hypermodestoari uko eginagatik –larderia izugarriz mintzo da edozein dela ere aipatzen duen gaia, gaurko literaturzaleari ileak arrotzerainoko segurtasunaz³⁴– autore-funtziorik gabeko testuak ekoizten jarraitzen duela.

Baina Hiriart Urrutyk bere testuei autore-funtzioa ukatzen badie –bere iritziei balio kolektiboa emanez, iritzi ortodoxotzat aurkeztuz– merezi luke aztertzea zer puntutaraino ez den bilakatzen testu autoregabetua pulsio indibidual bortitzenen adierazleku ideial (hori beste ikerketa baterako gaia litzateke). Axular larderiatsuaren kasuan edo gaur egungo bozeramaile politikoen kasuan bezala, autoretza indibidualak berarekin dakarren arrisku eta erantzukizunik gabe datorren diskurtsoak errexkiago bilaka daitezke pulsio indibidual bortitzenen kokaleku, hain zuzen moxorroturik agertzen direlako. Eta ez zen, ez, ttipia izan idazle honen boterea, ezen, euskaldun munduan irakurriena bide zen kazetako editorialista famatuena eta zuzendaria izan baitzen urteetan ; behar bada, proportzioak proportzio, inoiz euskarazko idazle bakar batek izan duen eragin indar handiena da Hiriart Urrutyk bere esku izan zuena. Horrelako egoera batek nola ez ditu ba kilikatuko autore enpirikoaren pulsioak?

³³ Erdi Aroan, dakigunez, ez zegoen testu originalaren fetitxismorik eta eskuizkribu baten kopia originala baino hobea gogatzen zeukaten, aurrekoaren akatsak zuzendu zizkiotelakoan. Protestantismoarekin batera sortzen da jatorrizko bertsioaren sakralizazioa –eta beraz, zeharka, autoretzaren ideia modernoa–, testuaren barne koherentzia autore baten intentzioak bakarrik azal dezakeelako. Protestanteek, ordea, ez zioten uzten Elizari, gizakiei Jainkoaren hitzari ezer gehitzen beraientzat Jainkoa zelako autore posible bakarra. Beraz, *boutade* txiki bat onartzen bazait, protestanteen Jainkoa litzateke mendebaldeko literatura-ko lehen autore modernoa, eta Testamentu Berria autore-funtzio modernoaren antzeko instantzia bat duen lehen testua.

³⁴ Izan eren literatura modernoare eskutik garatu den autore literarioaren *ethos*ak guztiz kontrakoak diren ezaugarriak baititu : besteak beste, duda sortzaile eta galdera eragile izan behar bide du autore modernoak, inolaz ere predikatzaile.

Azkenik, eta honekin eman diezaiokegu sarrera Hiriart Urrutyri euskal idazkien historia literario batean, badirudi gure historiako lehen autore modernoak –Etxepare mirikuak– Hiriart Urrutyk garaturiko *ethos* berezi hori kontra-eredu gisa erabili zuela, kontzienteki edo inkontzienteki, bere *ethos* literario berria aurrekoarekiko kontrastez eratzeko. Lehenaren *ethos*aren osagai ezbardinei kontrako ezaugarriekin erantzun zien Etxeparek, *ethos* modernoa sortuz. Horrela, larderia eta ironiari pentsaera konplexu eta mintzaira ezkonatiboaz³⁵ ihardetsi zion Etxeparek ; eta garrantzitsuena, autore-funtzio indibiduala bere buruari ukatzen zion testu « demanorizatuari » Etxeparek autore-funtzio literarioa daraman testuaz erantzun

BIBLIOGRAFIA

AZKUE, R.M. 1986. *Bein da betiko. Batxi Guzur*, Euskal Editoreen Elkarte.

ARISTOTE. 1991. *Rhétorique*, Paris, Livre de Poche.

COMPAGNON, A. 1998. *Le Démon de la théorie. Littérature et sens commun*, Seuil, Paris.

DIAZ, J.-L. 1997. *L'écrivain imaginaire, scénographies auctoriales à l'époque romantique (1770-1850)* thèse d'état de lettres soutenue à Paris VIII sous la direction de Claude Duchet.

ECO, U. 1985. *Lector in fabula* Livre de Poche, Paris.

ETCHEPARE, J. 1987. *Beribilez*, Euskal Editoreen Elkarte.

FOUCAULT, M. 1994. "Qu'est-ce qu'un auteur ?", in *Dits et écrits*, Gallimard, 789-821. or. Paris.

GENETTE, G. 1997. *L'œuvre de l'art II. La relation esthétique*, Seuil, Paris.

GOULEMOT J.-M. et OSTER, D. 1992. *Gens de lettres, écrivains et bohèmes*, Minerve, Paris.

HIRIART URRUTY, J. 1994. *Gontzetarik jalgiaraziak* (Iñaki Caminoren edizioa), Euskal Editoreen Elkarte, Donostia.

³⁵ Mintzairaren funtzio konatiboa, ekintza bat eragin nahi duena da –agintaldiko esaldiak konatiboak dira.

JAKOBSON, R. 1963. *Essais de linguistique générale*, Paris.

JAUSS, H.R. 1978. *Pour une esthétique de la réception littéraire*, Gallimard, Paris.

JEANDILLOU, J.-F. 1994. *Esthétique de la mystification. Tactique et stratégie littéraire*, Minuit, Paris.

LASAGABASTER, J.M. 1983. «La literatura vasca entre 1700 y 1876», in *Gaurko euskal gizartearen sorburu hurbilak, XVIII-XIX. mendeak*, Eusko Ikaskuntza, 253-277. or. Bilbo.

LAVIALLE, N. et PUECH, J.-B. 2000. *L'Auteur comme oeuvre. L'auteur, ses masques, son personnage, sa légende* kongresuaren aktak, Presses universitaires d'Orléans, Orléans.

LEIZARRAGA, J. 1979. *Iesus Christ gure Jaunaren Testamendu Berria*, Hordago, Donostia.

Une histoire de la fonction-auteur est-elle possible? kongresuaren aktak, Saint-Étienne, Publications de l'Université de Saint-Étienne, 2001.

FLORIANEN FABLEAC GOYHETCHE APHEÇAC FRANXESETIC ESCOARARA PHERXUTAN ITÇULIAC

A. Arkotxa

Léonce Goyhetchek (Urruña 1791-1859), euskal literatura historioetan leku bat baldin badu La Fontaine-ren alegia hautatu batzuen itzulpenen argitaratzeagatik da. Halere erran behar da gaur Léonce Goyhetchek frango arrotza zaigula. Horren arrazoi nagusia haren obrari XX. mendearen bigarren erditik egin zaion kasu eskasa delarik. Egia da, adibidez, Goyhetchek 1852an inprimatu zituen La Fontaine-ren alegia hautatuen itzulpenen¹ gaur eskuratzearras zaila dela, Hordago argitaletxeak Euskal Klasikoak sailean duela hogoi bat urte agertu eta berehala agortu zen, *Fableac edo aleguiac Lafontenetaric berechiz hartuac, eta Goyhetchek apheçac franxesetic escoarara berxutan itçuliac* liburua ateraz geroztik, ez baitzaio, nik dakidala, irakurleari idazle horren bertze lanik eskaini.

Azpimarratzekoa da, bertzalde, 1852ko Lafontaine-ren alegia hautatu batzuen itzulpen liburuaren eskuizkribuak atxikiak izan direla Pariseko liburutegi nazionalerako *Celtique Basque* funtsean eta gaur arte ez direla baliatuak izan.

XIX. mendearen erdiko euskarazko liburu inprimatu baten eskuizkribuaren kontserbatzea jadanik kontutan hartzekoa litzateke gertakizun aski arraroa baita berez. Gainera, kritika genetikoak egin behar den tenorean are gehiago estimatzekoa da horrelako dokumentazio-funts baten ukatea hiz-

¹ *Fableac edo aleguiac Lafontenetaric berechiz hartuac, eta Goyhetchek apheçac franxesetic escoarara berxutan itçuliac*. - *Hirriz, onguia eta eguia / Irakhax ez daitezkeia ?* - . Bayonan Forec eta Lasserre Imprimatuac. 1852.

kuntzaren aldetik idazleak dituen gogoeta bideen jarraikitze eta, oro har, testuaren azterketa eta historioaren egiteko. Azpimarratu behar delarik, hemen eranskinetan presentatuak diren transkribaketek derakusten bezala, Goyhethek batzuetan itxuraldatzen dituela Florianen alegiak².

Hemengo artikulua honen xedea Goyhetcheren, nik dakidala, nehoiz inprimatuak izan ez diren bi eskuizkribuen aipatzea da. Biak Pariseko liburutegi nazionalerako *Celtique Basque* funtsean atxeman daitezke. Lehen eskuizkribuan (CB 163) aurkitzen den La Fontaine-ren alegien itzulpenen bertze saila³ ezezaguna zen. Bigarren eskuizkribuan (CB 162), Florian alegialearen alegiak atxematen ahal dira eta Lacombe eta Lafitte-ren lekukotasunetarik kanpo³ ezezagunak ziren.

I. GOYHETCHE ITZULTZAILEA

I. 1: Goyhetche Lafontaine-ren itzultzaile :

Lafittek Goyhetcheren alegiez idatzi zuena ezagutua da gure artean :

A côté du barde écorché, auquel nul autre ne ressemble si ce n'est le guipuzcoan Bilinch, voici des poètes de bureau : l'instituteur Archu transpose, en souletin élégant et naturel, les Fables de La Fontaine ; l'abbé Goyhetche d'Urrugne, plus lourdement, en fait autant en labourdin ; (Lafitte :1941, 49-50).

² Ikus, adibidez, *Biaya* alegia. Bi fenomeno ohargarri baditugu hor : Goyhethek lehenik itzultzen du hitzez-hitzez eta fidelki Florianen *Le voyage* alegia, ordea, alegiagile frantsesak biziaz duen ikuspegia eszeptikoegia iduritzen zaiolaketoz, ez aski girixtinoa..., bertze alegia bat gehitzen du, salbazione - moralaren ikuspegia zaintzen duena.

Bertze aldakuntza klase bat, alegia batzuei Goyhethek gehituko dien notetan ikus dezakeguna. Helburua hor ere argiki pegagogikoa da, bi direlarik aurkitzen diren nota motak. Lehenik, irakurlearen kulturalki argitzeko diren oharak, hala nola Grezia klasikoko mitologiako pertsonaien berezitasunak (*Sabanta eta Bordaria*) edo Oriente urruneko lekuei buruzko xehetasunak (*Pacha eta Derbicha*); bigarrenik, morala girixtinoaren zaintzeko helburuarekin idatziak direnak (*Filosofoa eta Gau-aiñhara*).

³ Inprimatua izan zen bertsoian sei liburu baizik ez dira agertzen, hemen aipatzen dudana bertze sail honen titulua : *Lafontenen fableena. Liburu çazpigarrena*.

Artikulua honen *Appendix II* deitua den gehigarrian aurkitzen ahalko da alegia horien tituluaren zerrenda.

³ Ikus Lacombe funtsa (Azkue Liburutegia, Euskaltzaindia, Bilbo).

Ohartzen gara gure literaturan agertzen diren bi La Fontaine-ren lehen itzulpenak konparatzen dituelarik, 1941ean Lafittek Archuri diola lehentasuna ematen. XX. mendearen bigarren zatian Archuren itzalean agertzeak, ez du, argi da, Goyhetcheren ezagutza lagunduko. Ordea, autore bat ez daiteke behar den bezala ezagut haren lanak ez baldin badira behar den bezala zabalitzen. Gorago erran dut Goyhetchek La Fontaine-ren alegien itzulpenetaz 1852an agertu zuen liburu inprimatua ez dela gaur nehon zabaldua eta ez duela sekulan edizio kritikorik ukan. Hortik kanpo, interesantea da jakitea La Fontaine-ren alegien itzulpenaren eskuizkribua *Bibliothèque nationale de France*-eko Celtique-Basque 163 sailean (BNF-CB163), kontserbatua dela. CB163 eskuizkribua bitan bana dezakegularik :

- 1852ko Lafontaine-ren *Fableac eta aleguiac Lafontenetic berechiz hartuac...* edizioaren eskuizkribua, Goyhetchek sei liburutan banatua ;
- 1852ko edizioan agertzen ez den eta osoki ezezaguna zen sail berri bat *Lafontenen fableena. Liburu Çazpigarrena* deitua dena.

Erran behar da Goyhetchek ez duela La Fontaine-ren sailkapena segitzen. Horregatik, Goyhetchek bere zazpi « *liburu* »ak Lafontaine-ren hamabi liburuetan hautatu alegiekin eraikitzen ditu, beti alegia nondik hartua duen seinalatzen duelarik, adibidez: *Fable VI.a / (6^e du LIVRE VIII.e) Emaztekiac eta secretua*. (Goyhetche 1852 : 148-150)

Ez dezaket erran zertako Goyhetchek zati hori bere liburuari ez zion gehitu izan ; argi dena da dokumentuaren bukaeran den *Causi-bidean*, argitaratu ziren sei liburuak direla bakarrik⁴ aipatzen. Zazpigarrenaz hitzik ere ez.

⁴ Hona *Causi-bidea* -n agertzen diren zatiak :

“*Tabla edo fableen causi-bidea.*

Lehen liburuco.

Bigarren liburuco

Hirur-garren liburuco

Laur-garren liburuco

Bortz-garren liburuco

Sei-garren liburuco

Errata edo huxac imprimatcean itçuriac.“

Ikus in Ms Celtique-Basque 163.

I.2. Goyhetche, Florian-en itzultzaile :

Goyhethek Florianen alegiez egin itzulpenaren berri bazuen Lafittek :

... il a laissé en outre une traduction manquante en vers de Florian, et de nombreux cantiques : on admire l'étendue de son vocabulaire et sa connaissance des « verbes forts. (Lafitte: 1941, 49-50)

Bertzalde, hogeita zazpi urte lehenago, 1914an Saint-Etienne-ko infanteria destinatua izan zen Lacombe kaporalak ere itzulpen horien berri bazuen, Lafontaine-ren eskuizkribuaren berri zuen bezala. Martin Landeretxeri igortzen dion gutunak frogatzen duenez, ikusten da Pariseko liburutegi nazionalako eskuizkribua irakurria zuela :

St Étienne le 26 Xème /14

(Loire)

Monsieur l'abbé et très honoré ami,

[...] Quant aux fables de la Fontaine traduites par Goyhetche est-ce le ms. auto. de l'auteur ?

Ce serait intéressant à vérifier, quoique l'ouvrage ait été imprimé ? S'agit-il au contraire d'autres fables que celles-là ? Je me souviens d'avoir parcouru à la Bibliothèque Nationale un ms de fables de Florian inédites⁵, traduites par le même Goyhetche.

Lettre de Lacombe

Caporal au 102^e régiment

Territor. D'inf[ante]rie

13^e Cie

St Étienne.⁶

- *Lacombe funtsean den kopia :*

Azkue Liburutegiko Lacombe funtsean den kahier baten arabera, Lacombe berak Florianen alegia andana bat koptatu zukeela Parisen pentsa dezakegu. Kahierrak "Florian" titulua du soilik azalean, bertze xehetasunik gabe. Ondoko aipamen hau agertzen delarik:

Fables de florian traduites en langue basque par M. l'abbé Goyhetche. Copie terminée le 10 juillet 1890

⁵ « inédites » bi aldiz azpimarratua.

⁶ Ikus Azkue liburutegian diren « Martin Landeretxeri gutunak 1911-1919 » (Lacombe 507). Eskertzen dut Fermin Arkotxa dokumentu hauen berri eman didalakotz

Goyhetchek itzuli hamahiru Florianen alegia agertzen dira gorago aipatu kahierrean.

Zerrendan diren lehendabiziko bederatzi alegiak *Langarren Liburutik* hartuak dira⁷.

Hamargarrena⁸ *Bigarrenen Liburu-tik*, eta ondoko hiruak *Bortzgarren Liburu-tik*⁹.

- Fable 5 : *Untza eta Usoa*
- Fable 6 : *Bipera eta Chintchibareari*
- Fable 7 : *Pacha eta Derbicha*
- Fable 8 : *Castillaco Laboraria*
- Fable 9 : *Torrota eta Rochinoleta*
- Fable 10 : *Dirucoia eta bere Semea*
- Fable 11 : *Cortesanoa eta Proteo yaincoa*
- Fable 12 : *Chimino emea, Chimino eta eltchaurra*
- Fable 13 : *Lapiña eta Chartcheta*
- Fable 15: *Lehoinaren educacionea*
- Fable 20 : *Autorea eta saguac*
- Fable 21 : *Arranoa eta Untza*
- Fable 22 : *Arrain hegalduna*

I.3. Florian idazlea

Jean-Pierre Claris de Florian 1755ean *Florian* izeneko gazteluan sortu zen, *Basses-Cévennes*-etan. Urte bat zuelarik ama galdu zuen (Florian: 1824 IV. 14). Florian-ek literatura espainolarendako zuen atxikimendua amaren jatorri espainoletik heldu omen zitzaion. Espainol idazleek haren baitan ukan zuten eraginaren artean Yriarte alegia egilearena azpimarratu behar litzateke- elarik bereziki.

Voltaire-k ere inportantzia handia ukan zuen Florian-en baitan. Gogoratu behar da Florianek 1765ean Voltaire-ren ezagutzeko eta haren konpainian Ferney-n hiru hilabetez bizitzeko okasioa ukan zuela¹⁰ haren osaba

⁷ Erran nahi da : *Fable 5*-etik *Fable 13*-a arte.

⁸ Erran nahi da *Fable 15*- a.

⁹ Erran nahi da *Fable 20a*, *Fable 21a* eta *Fable 22a*.

¹⁰ Voltaire-k *Florianet* diminutiboarekin deitzen zuen. Ikus Sainte-Beuve-k 1850ean ziona : *Voltaire fut enchanté de sa gentillesse, de ses grands yeux spirituels, de ses réparties vives, de sa gaieté naturelle, et ce grand donneur de sobriquet le baptisa du premier jour Florianet, nom qui était tout un horoscope.* (in Florian: 1874, IV.)

zaharrena Voltaire-ren iloba batekin ezkondua zelakotz. Ezagutza horrek inportantzia handia izanen zuen Florian idazlearen baitan, haren ikuspegi filosofikoetan eta behar bada alegientzat zuen zaletasunean ere (Sainte Beuve 1874). *Mémoires d'un jeune espagnol-en*¹¹ ikusten dugu Voltaire-k diola lehen aldikotz Floriani alegien inportantzia erakusten; ondoko zati honetan, *Lope de Véga*-ren giblean Voltaire dagoela, *dona Nisaren* giblean Madame Denis, eta Ferney, *Fernixo* dela kontura gaitzke :

Ce fut au mois de juillet 1765 que j'arrivai chez le premier homme de l'Europe. J'y trouvai cet oncle et cette tante que je vous ai déjà dépeints ; ils me comblèrent de caresses, et me présentèrent à Lope de Véga et à dona Nisa, sœur de ma tante, et nièce, comme elle de ce grand génie. (...) Je n'avais que dix ans ; je savais bien que Lope de Véga était supérieur par son génie au reste des hommes, mais j'étais peu en état de sentir cette supériorité ; le respect que j'avais pour lui était mêlé de beaucoup de crainte ; quinze jours suffirent pour la dissiper. Lope de Véga me fit tant de caresses, que bientôt il devint celui de sa maison que j'aimais le mieux. Souvent il me faisait placer auprès de lui à table ; et tandis que beaucoup de personnages, qui se croyaient importants¹², et qui venaient souper chez Lope de Véga pour soutenir cette importance, le regardaient et l'écoutaient, Lope se plaisait à causer avec un enfant. La première question qu'il me fit fut si je savais beaucoup de choses. Oui, monsieur, lui dis-je, je sais l'Iliade et le blason. Lope se mit à rire et me raconta la fable du marchand, du pâtre et du fils du roi : cette fable et la manière charmante dont elle fut racontée me persuadèrent que le blason n'était pas la plus utile des sciences, et je résolus d'apprendre autre chose. (Florian : 1824 IV, 27-29)

Ferney-ra guti gora behera 1772an bertze bidaia bat egin zuela badakigu, hamazazpi urte zituelarik.

1768an, Penthievre-ko dukearen¹³ zerbitzuko sartua zen *page* bezala. Harek, bizi guzian atxikiko zuen *Polichinello* izengoitia ematen ziola :

Il me donna le surnom de Polichinello, que j'ai toujours porté depuis : Polichinello ne quittait guère son maître, et devint un de ses favoris (...) ; j'amusais le prince, (...) j'avais quatorze ans ; j'étais plus instruit que l'on est ordinairement à cet âge : l'enfant était bon et avait

¹¹ Autobiografia zomorrotu horretan Florian-ek bere bizia hemezortzi urteak arte konda-tzen du.

¹² Testu originalean garaiko ortografian « *importans* ».

¹³ Florian-en oroitzetan, « l'infant don Juan ».

de l'esprit ; ces deux qualités m'assuraient son indulgence et la continuation de ses bontés. (Florian : 1824 IV, 65-66)

1771an, hamasei urterekin Florian-ek lehen aldikotz uniformea jantzen du artilleriako etsamina erreusitu ondoan :

... je quittai l'habit de page pour prendre l'uniforme. Je ne peux pas vous rendre le plaisir que me fit mon habit bleu : je me regardais dans tous les miroirs, j'étais occupé de savoir si j'avais bien l'air d'un officier ; ma cocarde et ma dragonne faisaient le bonheur de ma vie. J'entre dans une nouvelle carrière ; je quitte l'enfance et l'esclavage ; j'ai seize ans, un uniforme et ma liberté. (Florian : 1824 IV, 75-76)

Bere oroitzen azken orrialdetan kondatzen du nola 1773an Penthievre-ko dukeak (*don Juan-ek*) lortzen dion azkenean eskatu ziona : bere kabaleriako erregimentuan *sous-lieutenant* postu bat. Florian-en autobiografia gertaera horrekin bururatzen da, Bapaume-ko *corps royal d'artillerie*-ko eskolan sartu aitzin. Kabaleriako konpainia baten buruzagitza eman zioten Maubeuge-n, Penthievre-ren konpainian.

XIX. mendearen erdian hona nola Sainte-Beuve-k jukatzen duen Penthievre-ko dukeak Florian-en baitan ukan zuen eragina :

Le duc de Penthievre, fils du comte de Toulouse et neveu du duc du Maine, était le dernier héritier des bâtards légitimés, fils de Louis XIV ; (...) Il eut une grande influence sur la destinée de Florian ; il arrêta à temps en lui ce que la seule influence de Voltaire et celle de tout le siècle auraient pu y produire d'un peu libertin... (Florian : 1874, VI)

Sainte-Beuve-ren iritzia kasu eginez hartzekoa da Florianek ez baitzuen Voltaire-ren ondoan esperimentatu izan zuen bizi librea nehoiz ahantzi (Florian 1823 I, 61). Funtsean, *Mémoires d'un jeune Espagnol* –en diren lerroek eta alegiek ongi erakusten dute Florian Argi Garaietakoa seme dela.

Sainte-Beuve-k dio 1779ko inguruetan zela Florian militar gaztea sartu letretan. Nahiz kargua hastapenean errefusatu zuen, *Gentilhomme* lekuaren onartzeak eragin handia ukan zuen Florian-en hastapen literarioan. Berriz ere Penthievre-ko dukea hor aurkitzen dugularik :

Il fut convenu que ce dernier aurait une réforme ; que sans qu'il fût obligé de rejoindre, son service compterait toujours ; ce qui lui laisserait l'entière liberté de rester à son nouveau poste.

Il se fixa donc à Paris, et cette vie sédentaire, qu'il avait tant redoutée, ne contribua pas peu à le lancer dans la carrière des lettres.

Ce fut alors en effet que, pour tromper l'ennui qui le saisissait quelquefois, et dont il disait lui-même qu'il était fort susceptible, il essaya d'écrire. (Jauffret / Florian 1823 : I, 24-25)

Genero gehienak ukitu zituen, ordea bere antzerkiekin ukan zuen arrakasta baino gehiagokoa izan zen 1792an inprimarazi zituen alegiei esker lortu zuena. Batzuk 1788tik geroztik ezagutuak ziren. Berehala fama handia kausitu zuen :

Ce recueil, le plus parfait qui ait paru depuis La Fontaine, est de tous les ouvrages de Florian, celui que la postérité admirera le plus. (Florian / Jauffret 1823 : I, 32)

XIX. mendean Florian-en alegiez eginen diren edizioen ugaritasuna fama horren lekuko izanen da.

1788an Frantses Akademian izendatu zuten. 1789ko Frantses Iraultzaren hastapenetik Sceaux-n erretiratu bizi izan zen. Noble izanez, Parisetik bederen hamar lekoetan bizi behar zuen, hala baitzion dekretu batek. Sceaux-n gelditzeko faborea eskatu zuen, bainan 1793ko irailean arrestatu zuten :

Pour qu'il pût rester à Sceaux, il fallait que le comité de salut public le mît en réquisition. C'est cette faveur que sollicita Florian, et qui fut la cause de sa perte. (Florian / Jauffret 1823 : I, 44)

Presondegitik idatzi zuen gutunean lerro hauek bereziko nituzke Florian-en filosofia idazle bezala eta bereziki apologo bezala salatzen baitute :

De quoi peut-être coupable l'homme qui pensa être mis à la Bastille pour les premiers vers qu'il fit dans le Serf du Mont Jura ; qui écrivait, avant la révolution, le onzième livre de Numa, et qui, depuis la révolution, libre, orphelin, sans autre fortune que son talent, qu'il pouvait porter partout, n'a pas quitté un moment sa patrie, a commandé trois ans une garde nationale, a donné plusieurs ouvrages ; et, dans son recueil de fables, a imprimé celle des Singes et du Léopard ?

Un fabuliste, un berger, le chantre de Galatée et d'Estelle peut-il commettre des crimes ? peut-il seulement en concevoir?¹⁴

Presondegitik atera eta laster hil zen 1794ko irailean, Sceaux-n.

¹⁴ Florian-ek presondegitik 1793an idatzi zuen gutuna osorik hau izan zen :

Citoyen représentant, tu chéris, tu cultives les lettres, mais tu chéris davantage la patrie et la liberté ; mais tu exiges que les arts, dont tu fus l'ami dès l'enfance, soient utiles à la cause du peuple pour laquelle tu voudrais mourir : c'est à ce seul titre que je t'écris. Méditant, depuis long-temps, de refaire l'histoire ancienne pour l'éducation nationale, j'en ai instruit, par un mémoire, le comité de salut public. J'ai pris soin de parler de moi dans

II. CB 162 ESKUIZKRIBUA

Denetara 259 orrialde zenbakiturik dituen dokumentu lodi bat da CB162 eskuizkribua. Kontutan hartuz anitzetan bi orrialdeetarik direla ezarriak zenbakiak, 533 orrialde inguru dituen dokumentua dugu egiazki.

CB162 eskuizkribua bi ataletan bana dezakegu:

– *Florianen Fableac Goyhetché apheçac franxesetic escoarara pherxutan itçuliac.*

un moment où l'homme timide, qui aurait eu le moindre reproche à se faire, ne se serait occupé que de se faire oublier. Tranquille sur cette démarche, je travaillais dans la solitude, et j'avais achevé déjà plusieurs morceaux sur l'Égypte, quand tout à coup un ordre du comité de salut public m'a fait mettre en arrestation dans la maison de Port-Libre : j'y suis depuis vingt-deux jours, sans compter les longues nuits qui ne diffèrent des jours que par le manque de lumière, sans livres, presque sans papier, au milieu de six cents personnes, appelant en vain pour me secourir l'imagination que j'avais autrefois, et ne trouvant à sa place que la douleur et l'abattement.

J'ai pourtant voulu travailler. J'ai conçu le plan d'un ouvrage que je crois utile à la morale publique. J'ai chanté dans ma prison le héros de la liberté. Je t'envoie mon premier livre : je te demande de le juger.

Si tu ne penses pas que le poème puisse fortifier dans l'âme des jeunes Français et l'amour de la république et le respect des mœurs simples, ne me réponds point... Laisse-moi mourir ici : l'altération de ma santé m'en fait concevoir l'espérance.

Si ton civisme et ton goût, dépouillés de tout intérêt pour moi, te persuadent qu'il est bon que mon ouvrage soit fini, parles-en à tes collègues, membres du comité de salut public.

De quoi peut-être coupable l'homme qui pensa être mis à la Bastille pour les premiers vers qu'il fit dans le Serf du Mont Jura ; qui écrivait, avant la révolution, le onzième livre de Numa, et qui, depuis la révolution, libre, orphelin, sans autre fortune que son talent, qu'il pouvait porter partout, n'a pas quitté un moment sa patrie, a commandé trois ans une garde nationale, a donné plusieurs ouvrages ; et, dans son recueil de fables, a imprimé celle des Singes et du Léopard ?

Un fabuliste, un berger, le chantre de Galatée et d'Estelle peut-il commettre des crimes ? peut-il seulement en concevoir ? La lyre de Phèdre, le chalumeau de Gessner, trop sourds, trop faibles sans doute au milieu des trompettes guerrières, peuvent-ils jamais nuire ou déplaire à ceux qui veulent établir la liberté sur la base de la morale ? La fauvette qui chantait auprès des marais de Lerne, lorsqu'Hercule combattait l'hydre, n'excita point la colère du héros libérateur. Peut-être même, après la victoire, l'écouta-t-il avec bienveillance.

C'est à ce peu de mots que je réduis, que je réduirai ma défense. Si l'on me croit coupable, qu'on me juge ; mais si je suis innocent, que l'on me rende à mes ouvrages, à mes ouvriers d'imprimerie, que j'ai fait vivre depuis quinze ans, et que ma détention empêche de poursuivre une très-grande entreprise : que l'on me rende à ma vie pure, et au désir d'être utile à mon pays. (Florian 1823 : I, 43-47).

Ondotik : *Liburu Lehena / Fable – 1a / Eguia eta aleguia edo fablea.*

Florianen alegien itzulpenak hemen frantsesezko bertzio originalean den ordenu berean aurki ditzakegu, lehen liburutik bortzgarrenarenaino, 125. orrialdean bururatuz. Inprimategiko prest zegokeen bertzioa dukegu hor. Dirudienez, Goyhethek ez zituen ez Florianen hitzaurrea ez epilogoak itzuli, ez baitira agertzen.

– Bertze atal bat, 126. orrialdean hasten dena leku eta data batekin:

Urrugne le 28 avril 1851.

Monsieur (?)

vous aviez bien raison, (?)

eta azpian, izkirio tipiagoz, Florianen *Eguia eta aleguia edo Fablea* deritzan lehen alegiaren bertze kopia bat. Ondotik eta CB 162 eskuizkribua bukatu arte, Florian-en eta La Fontaine-ren alegien kopiaak aurki ditzakegu, ordena logikorik gabe.

Sobera xehetasunetan sartu gabe, erran behar da CB 163an den La Fontainen itzulpenaren eskuizkribua, eta CB 162an 125. orrialderaino den Florianena, izkirio garbiago eta handiagoz presentatuak direla. Inprimategira eramateko prest zirelako behar bada.

1851 dataekin hasten den CB 162-ren bigarren kopia zirriborro bezala erabilia ote zen ? Badateke, ikusiz bereziki batzuetan orri berean La Fontaine eta Florian-en alegiak elkarren ondotik agertzen direla. Halere, momentuz, azterketa sakonago bat egin aitzin, hobe da prudentzia atxiki.¹⁵

1851eko datari esker La Fontaine eta Florian-en eskuizkribuzko bertzioak garai berekoak diratezkeela ikus dezakegu.

¹⁵ Hona Florian-en lehendabiziko liburuko 5 lehen alegien bi bertzioak konparatuz ikusten ahal diren ezberdintasunak :

- izkirioa ez da lehen bertsiokoa bezein kasu egina ;
- bazterrean gehituak diren hitz edo neurtitzak 1. bertzioan sartuak dira batzuetan (ikus *Biaya*) ;
- 1. bertzioan 2. ean diren zenbait hitz edo neurtitz barratuak dira ;
- 2. bertzio honetan zenbait hitzek notak badituzte (ikus *Bi Persanoac*) eta 1.ean gabe dira agertzen ;
- bigarren bertzio honetan Florian-en alegiei dagokienez, ikusten da, adibidez: *Fin du Livre Second. Livre Troisième*, frantsesez idatzia;
- bi bertzioen notak konparatzen direlarik, bariantek badira batzuetan.

II.1. Florianen Fableac Goyhetche apheçac franxesetic escoarara pherxutan itçuliac.

Data finkatua dugunez, inportantea zen jakitea guti gora behera zer edizioetaz baliatu zen Goyhetche itzulpenen egiteko. Azterketa horren egiteko Florian-en alegien hiru bertsio erabili ditut, bi 1851 baino lehenagokoak Goyhethek erabil zitzaizkeenak, eta bertze bat Goyhetche hil eta gerokoa baina, berredizioa denez, aitzineko edizio batean irakur zezakeena :

- *Œuvres Completttes de M. de Florian. Nouvelle Edition ; Augmentée de la Vie de l'Auteur, de Guillaume Telle, et autres ouvrages inédits, et ornée de figures, dessinées et gravées par les meilleurs Artistes de Paris, Tome septième. Fables et Pièces diverses. Chez Fr. Dufart, Imprimerie-Librairie. 1803.* (hemendik aitzina: F.1803)
- *Œuvres de Florian, de l'Académie Française, etc. Nouvelle Edition, ornée d'un portrait et de vingt-quatre gravures. Tome sixième. Fables, contes en vers, poésies diverses. A Paris, chez P. C. Briand, éditeur, rue des Fossés-s.-Germain-des-Prés, n° 21, de l'Imprimerie de Rignoux. 1824.* (hemendik aitzina : F.1824)
- *Fables de Florian, suivies de son Théâtre, précédées d'un Jugement par la Harpe Et d'observations littéraires par M. de Sainte-Beuve De l'Académie française. Vignettes par Grandville. Paris. Garnier Frères, Libraires-Éditeurs, rue des Saints-Pères, 6, et Palais Royal, 215, 1874.* (hemendik aitzina : F. 1874)

Aipatu hiru edizioek ezberdintasunak badituzte :

F.1803ak 101 alegia ditu;

F.1874ak, 109 alegia;

F.1824ak 110 alegia.

Goyhetche-ren eskuiskribua F. 1824arekin konformitate osoan da alegien kopuruari dagokionez. Euskarazko bertsioan alegiak bortz liburutan banatuak dira F.1824an bezala, liburu bakoitzak 22 alegia dituela. Denetara beraz, 110 alegia.

F.1824arekin diren ezberdintasunak paratestuetan dira : Goyhetcheren bertsioan Florianen aitzin solasaren itzulpenik ez baita eta ez ere epilogorik, azken alegiaren ondotik.

BIBLIOGRAFIA

BESCHERELLE (Aîné), BESCHERELLE (Jeune), LITAI DE GAUX 1856. *Grammaire Nationale*. Garnier Frères, Paris.

FLORIAN, J.-P. C. (de). 1803. *Œuvres complètes de M. de Florian. Nouvelle édition, Augmentée de la Vie de l'Auteur, de Guillaume Tell, et autres ouvrages inédits, et ornée de figures, dessinées et gravées par les meilleurs Artistes de Paris. Tome septième : Fables et Pièces diverses*. Fr. Dufart, Imprimeur-Libraire. Paris.

—1823. *Œuvres de Florian, de l'Académie Française etc. Nouvelle édition, ornée d'un portrait et de vingt-quatre gravures. Tome Premier. Vie et éloge de Florian. Galatée*. Estelle. P. C. Briand Editeur, Paris.

—1824. *Œuvres de Florian, de l'Académie Française etc. Nouvelle édition. Tome Quatrième : Jeunesse de Florian. Guillaume Tell.- Eliézer. Mélanges de Littérature et de Poésies ; Tome Sixième : Fables, contes en vers, poésies diverses ; [Tome Treizième] : Œuvres diverses. Correspondance*. P. C. Briand Editeur, Paris.

—1874. *Fables de Florian, suivies de son Théâtre, précédées d'un Jugement par la Harpe Et d'observations littéraires par M. Sainte-Beuve de l'Académie française. Vignettes par Grandville*. Garnier Frères, Paris.

GOULEMOT, J.-M., MASSEAU, D., TATIN-GOURIER, J.-J. 1996. *Vocabulaire de la littérature du XVIIIe siècle*. Minerve, Paris.

GOYHETCHE, L. 1852. *Fableac edo Aleguiac Lafontenetic berechiz hartuac, eta Goyhetche Apheçac franxesetic escoarara berxutan itçuliac*. Forec eta Lasserrec Inprimatuac, Bayonan.

LA FONTAINE, J. (de) 1881. *Fables de La Fontaine avec des notes littéraires et grammaticales. Une vie de l'auteur et une notice sur la fable et les principaux fabuliste par M. Ch. Aubertin*, Belin Frères, Paris.

LAFITTE, P. 1941. *Le Basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule. Conférence donnée au Musée Basque de Bayonne le 3 avril 1941*. Collection Aintzina, Bayonne.

MICHELENA, L. 1988. *Historia de la Literatura Vasca*. Erein, Donostia.

ORPUSTAN, J.-B. 1996. *Précis d'Histoire Littéraire Basque 1545-1950. Cinq siècles de littérature en euskara*. Editions Izpegi, St-Etienne-de-Baïgorry.

—1996. « La fable dans la littérature basque ». Conférence donnée le 14 octobre 1995 à la Faculté Pluridisciplinaire de Bayonne. *Lapurdum I*, Bayonne.

URKIZU, P. 2000. *Historia de la Literatura Vasca*. Lan kolektiboa, U.N.E.D., Madrid.

VERSAILLE A. *Jean de La Fontaine. Œuvres, Sources et Postérité d'Esopé à l'Oulipo*. Préface de M. Fumarolli, de l'Académie française. Editions Complexes, Paris.

VILLASANTE, L. 1961. *Historia de la Literatura Vasca*. Editorial Sendo, Bilbao.

VINSON, J. 1891. *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque*. T. I, 1983ko berredizioan, CAV, Bilbao.

—1898. *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque*. T.II, 1983ko berredizioan, C.A.V., Bilbao.

Eskuizkribuak :

GOYHETCHE, L. (datarik gabe). *Florianen Fableac Goyhetche Apheçac franxesetic escoara pherxutan itçuliac*. Ms Celtique-Basque 162, Bibliothèque nationale de France, Département des Manuscrits (Richelieu), Paris.

GOYHETCHE, L. (datarik gabe). *Fables de Lafontaine en labourdin par l'abbé Goyhetche*. Ms. Celtique-Basque 163, Bibliothèque nationale de France, Département des Manuscrits (Richelieu), Paris.

APPENDIX I

-BNF – CB162-

GOYHETCHEK EUSKARATU ZITUEN BEDERATZI FLORIANEN ALEGIEN TRANSKRIPZIOA JATORRIZKO FRANTSESEZKO BERTSIOAREKIN

OHARRA :

1. Transkripzio kodea :

() irakurtze dudazkoa

(?) ezin irakurria

[] barratua.

[?] barratua eta ezin irakurria

< > gehitua.

< ? > gehitua eta ezin irakurria

[1] CB162 eskuiskribuan den orriaren zenbakia

I. 1 Liburu leheneko alegia lehena

2. Testuen transkripzioa :

– Euskarazko bertsiotan testua den bezala agertzen da. Aldakuntza bakarra neurtitzen hastapeneko letren majuskuletan datza. Goyhethek anitzetan, baina ez beti, neurtitzen hastapenak majuskulekin hasarazten ditu. Hemen transkribatuak diren Goyhethek itzuli alegien neurtitzen hastapenen guziak majuskulekin agertuko dira.

– Frantsesezko Florianen alegietan *-ant* edo *-ent* ekin bukatzen diren sustantiboak pluralean *-ans* edo *-ens* idatziak direlarik, *-ants* edo *-ents* ezarzen da (adibidez, *diamants*, ez *diamans*). Gaurko frantsesezko ortografiaren arabera.

Pundu horri buruz, erran behar da bederen XIX. mendearen erdiraino (Bescherelle aîné, *Grammaire Nationale*, 1856), *-ant* edo *-ent* ekin bukatzen ziren silaba bat baino gehiagoko sustantiboak bi modutan idatz zitezkeela, adibidez: *importants* edo *importans*.

Eguia eta aleguia edo Fablea [I.1]

[1]

Bere putçutic¹⁶ Eguia
 Egun batez ilki cen bilhuz-gorria.
 Bere charma naturalac
 Deseguin ciotçan aphur bat demborac.
 Çuten orduco ikhusten
 Gazte eta çaharrac ihesi çohacen.
 Baçagoen tristea han
 Hotzac hila ikharetan,
 Ezbaitçakien nora gan.
 Aguertcen çαιο Fablea
 Eta hurbiltcen lelea,
 Berreguindua aberaxki :
 Dakharla pluma eta diamanta-harri ;
 Falxoac bai guehienac;
 Baina haguitz distiantac.
 Hola ! egun on, baderro :
 Gaur çu hemen aurki eznuen usteco.
 [1 bis]
 Erradaçu othoi : hor cer hari çare ?
 Bidegain bakharric hola certain çaude ?
 Eguiaç baderro : eztuçu ikhusten
 Nola nagon hotzac hitlenc ?
 Bideante orori eske nagokote
 Hetaric nahiz atherbe :
 Baina guciac gor dire.
 Guciac icitcen ditut.
 Helaz ! çoriz ikhusten dut
 Bilhatua ez naicela
 Merceci nuken beçala.
 Çahartceac pontu onic ez duela.
 Bizkitartean çu, fableac baderro :
 Ni baino nere ustez, çare gazteago :
 Eta baderraket, urgüiluric gabe,
 [oro]<orotan> causitcen dut nic beguitarte.
 Alabainan ere, Madama Eguia,
 Certaco hola aguer arras bilhuzia ?
 Ezta hori artech hambat.
 Ori, eguigun tratu bat ;
 Intres bera dugu berdin :
 Nere capa-pera çatho :
 Elkharrekin goazen guero.
 Ni çuhurrec, çure-gatic
 Naute bedere yasanen :

La Fable et la Vérité [I.1]*La Vérité toute nue**Sortit un jour de on puits.**Ses attraits par le temps étaient un peu détruits ;**Jeune et vieux fuyaient à sa vue.**La pauvre Vérité restait là morfondue,
 Sans trouver un asile où pouvoir habiter.**A ses yeux vient se présenter**La Fable richement vêtue,**Portant plumes et diamants,**La plupart faux, mais très brillants.**Eh ! vous voilà ! bon jour, dit-elle :**Que faites-vous ici seule sur un chemin ?**Aux passants je demande en vain**De me donner une retraite,**Je leur fais peur à tous. Hélas ! je le vois bien,
 vieille femme n'obtient plus rien.**Vous êtes pourtant ma cadette,**Dit la Fable, et, sans vanité,**Partout je suis fort bien reçue.**Mais aussi, dame Vérité,**Pourquoi vous montrer toute nue ?**Cela n'est pas adroit. Tenez, arrangeons-nous ;**Qu'un même intérêt nous rassemble :**Venez sous mon manteau, nous marcherons
 ensemble.**Chez le sage, à cause de vous,**A cause de moi, chez les fous**Vous ne serez point maltraitée.**Servant par ce moyen chacun selon son goût,**Grâce à votre raison et grâce à ma folie,**Vous verrez, ma sœur, que partout**Nous passerons de compagnie.*

¹⁶ *Filosofo paganoec ikhusiric yende artean etcela gueçur, trampa, bengantça eta bicioric bai-cen : exituric guiça-naturaleçaz, asmatu çuten eguia goan cela putçu baten çolan gordetçera!* (Goyhetche-ren oharra).

Eta erhoec nere-gatic
Ez çaituzte laidaturen.

[He]Emanez beretic hola bacotchari,
Esker çure centçuari.
Eta ene erho-aircari

[2]
Ikhusiko duçu [ongui]<oroz> onhexiac,
Garela ibillico, aizpa, bethi biac.

Ô Floriano simplea !
Nondic dauçaçu Fablea
Dela adinez çaharrago
Eguia garbia baino ?
Ecen hau dela bethitic
Hura aldiz haguiz guerostic
Centçuac berac baderra.
Cer ! ez dakiçu gueçurra
Dela eguiaren ukhoa.

Fablea ere [dela] haren dela escarnioa ?
Ukhatua lehenago
Dela ukhoa bera baino ?
Ezlaitela ezcarrioric
Ez-balitz ya bisaiaic ?
[Ezçaitçu eder] Eguia ez çaitçu eder
[Dadin aguer] bilhuzia dadin aguer :
Balakhar guirguileria,
Ezlaite aboro eguia.
Nahi cinduke bat-ledin
Fable eta gueçurrarekin !
Nahico cinduen behin
Çure ama <andrea> ikhusi
Besoz-beso pascari
Nesca publico batekin ?

Califa ! [I.8]

[9bis]

Califa Almamunec Bagdad deihatcen cen
hirian

Yauregui bat eguin çuen, ceinac mundu
gucian,

Ederrez eta aberaxez, berdinic ezbatçuen :

Salomonen ospatua bera ere ichtcen çuen.

Ehun pillare lerdeneç

Marmola fiñenezcoec

Çaucaten airoski haren galeria ;

Urrez, yaspez eta açulez

<Sabantki aldizcatuez,>

Distiant çagoen hango atheria ;

Hango apartimenduac,

Esculturaz edertuac,

Alcifrez lambrigaçuac,

Ciren [nat] tresor naturalez

Eta guiça escuen obrez

Nasaiki berreguinduac..

Lili, Diamanta, berdura, usain-goço,

Myrte-urrinoneco, eta guiça-escuzco

Eguintçaric perfetenac ;

Ithurri espres eguinac

Ceinen urec chuchen goiti saltaturic,

Eta herresaca guibelat yaxuric

[Baitça]<Çara>bilzaten bere olac,

Urre-harriz distiatcen

Çuten ohe eder batçuen

Ingurutan nekhatuac.

[10]

Palacio supher haren

Bada hurbilean bacen

Aitcin-aicinean chuchen,

Etche chume higatu bat

Lurren çohana erortcerat ;

Çeina ehaille pobre baten

Egoitça humilla baitcen.

Han bere nekhe handitic

Çathozcon sari chumetic,

Çor eta anxiaric gabe,

Ahantzia, baina libre,

Guiçac bicia çaraman

Gochoki bakhe onean ;

Çuenaz satisfatua.

Ez yelos, ez yelostua.

Etche tcharrac, da errana

Giola chuchen-chuchena

Palacioari mascatcen aicina.

Ministroac, gaintasunez

Casu eguin gabe deusez,

Berehalache nahi du

Etchettoa lurreratu

Le Calife [I.8]

Autrefois dans Bagdad le calife Almamon

Fit bâtir un palais plus beau, plus magnifique,

Que ne fut jamais celui de Salomon.

Cent colonnes d'albâtre en formaient le portique ;

L'or, le jaspé, l'azur, décoraient le parvis ;

Dans les appartements embellis de sculpture,

Sous des lambris de cèdre, on voyait réunis

Et les trésors du luxe et ceux de la nature,

Les fleurs, les diamants, les parfums, la verdure,

Les myrtes odorants, les chefs-d'œuvres de l'art,

Et les fontaines jaillissantes

Roulant leurs ondes bondissantes

A côté des lits de brocard.

Près de ce beau palais, juste devant l'entrée,

Une étroite chaumière, antique et délabrée,

D'un pauvre tisserand était l'humble réduit.

Là, content du petit produit

D'un grand travail, sans dette et sans soucis pénibles,

Le bon vieillard, libre, oublié,

Coulait des jours doux et paisibles,

Point envieux, point envié.

J'ai déjà dit que sa retraite

Masquait le devant du palais.

Le visir veut d'abord, sans forme de procès,

Qu'on abatte la maisonnette ;

Mais le calife veut d'abord qu'on l'achète.

Il fallut obéir : on va chez l'ouvrier,

On lui porte de l'or. Non, gardez votre somme,

Répond doucement le pauvre homme ;

Je n'ai besoin de rien avec mon atelier :

Et, quant à ma maison, je ne puis m'en défai-

re ;

C'est là que je suis né, c'est là qu'est mort mon père ;

Je prétends y mourir aussi.

Le calife, s'il veut, peut me chasser d'ici ;

Il peut détruire ma chaumière :

Mais, s'il le fait, il me verra

Venir chaque matin, sur la dernière pierre

M'asseoir et pleurer ma misère :

Je connais Amamon, son cœur en gémit.

Cet insolent discours excita la colère

Du visir, qui voulait punir ce téméraire,

Et sur-le champ raser sa chétive maison.

Mais le calife lui dit : Non,

Califac aiticitic, behin
Manatcen du eros dadin ;
Behar ičan cen hala eguin.
Çaharrari badohazco,
Escaintcen ausarki diru ere çaiu.
Ez hori, diotça, guiçonac eztiki,
Atchic açue urre hori.
Bici naiz nere lanetic ;
[10 bis]
Deusen beharric ez dut nic :
Nere etchiaz kestione
Huntaz ez naiteke gabe ;
Hau nere sor-lekhua da,
hemen hil çait ere aita,
hemen hil nahi naiz ere :
Califac segurki aise
Hemendic khasa naçake ;
Urre-araz ere badeçake egoitça :
Baina eguiten badu, harrec yakin beça
Beharco nauela ikhusi
Goiz guciez seguituki
Azken harriaren ethortcen gainera
Han nere ondicoa nigarreztatcera.
Almamun badakit nor den ;
Haren bihotz onac ičanen du auhen.
Discurxa ausart hunec Ministro Yaunari
Coleraren sua cion phitz-arazi :
Bertan nahi çuen ausarta punitu,
[Eta etchea lurreratu]
<Eta etchola lurreratu>
baina Califac baderro :
etche hori chutic bego ;
Nahi dut ere contrara
Nere gostuz arras dadin errepara :
Horrec diraeuino
Duket ospeguero.
Gure illobasoec, nahi dut demboran
Hori conxideratcean,
Hor deçaten causi nere erreinuaren
Bethiere orhoitçapen
Neretçat glorioso bat.
[11]
Hau nic segura daducat :
Palacioaren bistan,
Erranen dute lehian
Handi cen içatu :
Etcholari behatcean
Erranen dute (cuehean),
Içatu cen yustu.

*J'ordonne qu'à mes frais elle soit réparée ;
Ma gloire tient à sa durée :
Je veux que nos neveux, en la considérant,
Y trouvent de mon règne un moment auguste :
En voyant le palais, ils diront : Il fut grand ;
En voyant la chaumière, ils diront : Il fut juste.*

Bi gathuac [I.9]

[34]
 Rodilart ospatuaren ganic yauxiac chuchen
 Bi gathu behin baciren ;
 Eta biac berdin digne ethorki noble hortaz,
 Ezciren berdin arduraz.
 Bat guicenez ya çagoen prest leher eguitera.
 Lehen-sorthua cen hura.
 Bere belusaren pean cenean hura biltcen
 Calonye bat cidurien :
 Hain cen gordo, guri, fresco
 Eta eder ikhusteraco.
 [Gazteac larrua cuen choilki lothua tinki
 bizcarreco heçurrari]
 <Bizcarreco heçurrari çuen choilki Larrua
 Gazteac aldiz lothua.>
 Halere goizetic-arrax, gure cadet arinki
 Trostetic baratcen ezcen, bethi goiti-beheiti.
 Sotho, chaïac, soillaruac
 Bai-ta hegaztegui gorac
 (?) cituen usnatcen :
 Bainan ez citçaion mahaina hobetcen.
 Egun batez beraz desesperatua,
 Pacientcia galdua,
 Anaiari orduantche
 Mintçatcen çαιο hulache :
 Eracux [dautac] <çadac> bada arren.
 Anai, cerc eguiten duen,
 Bethi alfer hagolaric
 <Saguric dastatcen ere ez dukelariç,>
 Hain ongui hauten hi hazten ;
 Aldiz ni goseac utzten ?
 Gauça duc clarena, çaharrenac derro :
 Bahabilla chocoz-choco ;
 Oraino [aski] arraro <aski>
 Sagu eihar bat [yateco] <duc yaki.>
 – Ezta nere eguinbidea ?
 – Hola bada hire oldea,
 Acort, baçайтекеc hori.
 Bainan aldiz banagoc ni
 Nausiaren aldaketan
 Dudalaric lorietan
 Nere itçuliez dostatcen :
 [35]
 Bere mahainean norc ere sofritcen :
 Nihauc hartcen diat pochin onetariç,
 Eta guero escatcen patta-gocho eguinico
 Hi aldiz haïcen simplea,
 Ez haiz bertce deusetaco
 Baïcen bethi bethetceco

Les deux Chats [II. 9]

*Deux chats qui descendaient du fameux
 Rodilard,
 Et dignes tous les deux de leur noble origine,
 Différaient d'embonpoint. L'un était gras à
 lard ;
 C'était l'aîné : sous son hermine,
 D'un chanoine avait la mine,
 Tant il était dodu, potelé, frais et beau.
 Le cadet n'avait que la peau
 Collée à sa tranchante épine.
 Cependant ce cadet, du matin jusqu'au soir,
 De la cave à la gouttière
 Trottait, courait, il fallait voir !
 Sans en faire meilleure chère.
 Enfin, un jour, au désespoir,
 Il tint ce discours à son frère :
 Explique-moi par quel moyen,
 Passant ta vie à ne rien faire,
 Moi travaillant toujours, on te nourrit si bien,
 Et moi si mal. La chose est claire,
 Lui répondit l'aîné : tu cours tout le logis
 Pour manger rarement quelque maigre sou-
 ris...
 - N'est-ce pas mon devoir ? - D'accord, cela
 peut-être :
 Mais moi, je reste auprès de mon maître,
 Je sais l'amuser par mes tours.
 Admis à ses repas, sans qu'il me réprimande,
 Je prends de bons morceaux, et puis je les
 demande
 En faisant patte de velours ;
 Tandis que toi, pauvre imbécile,
 Tu ne sais rien que le servir.
 Va, le secret de réussir,
 C'est d'être adroit, non d'être utile.*

Tristeki eguinbidea.

Hail! Nahi haiz ongui bici ?

Ez languille, bainan abil içañ hadi.

Azkeneco moral hori

Badohacokete segur gathueri :

Bai-eta paganoeri,

Bai-ta filosofoeri.

Bainan ezta acorda-kidin

Ebanyelioarekin.

Moral triste horrec eztu

Guiristino eguiazcoric

Ez ere guiçon galantic

Nihoiz, ez nihon moldatu.

[Eta azkenean da, bethi abillena,]

Bere eguinbidea eguiten duena.¹⁷

¹⁷ Bi azken neurtitzei dagokienez, ohar gaitzke Goyhetche-k, adibidez, bertze bertsione batean azken bi neurtitzak kentzen dituela. Alegiaren erakaspnaren azken hitzak direlarik: *Moral triste horrec eztu/Guiristino eguiazcoric/Ez ere guiçon galantic/Nihoiz, ez nihon moldatu.*

Oillanda gaztea eta Acheri çaharra [II.17]

[44 bis]

Oillanda gazteño guti ikhasi bat,
 Munduco berriric ezyakina hambat,
 Cioalaric yauzica,
 Cocorotzca eta cabazca,
 Aurkitu cen behin, ezdakit nola nic
 Urrundua bere ohacotic.
 Ohartu cen bada guero,
 Baina ya, ya beranduchco.
 Itçultcen celaric beraz herresaca,
 Acheri çahar bat hor aguertcen çaiça :
 Oillanda tristea latztua badago,
 Eta Yancoari gomendatcen çaiço.
 Bainan Acheriac, hurbilduric betan,
 <Balacua ezpainetan>
 Baderro : ah ! Andreiñoa,
 Çure ikhara oraicoa
 Ezta segurki ez estonitcecoa :
 Baina hemen falta nere anaieç dute,
 Yendetçar batçu baitire

[45]

Arrobatçaille infameac,
 Oro urkhatu beharrac,
 Çoinec çoriz bere gura odolcoietan
 Baidituzte alde orotan
 Eguiten obra tçarrenac :
 Ezdetçaket chanya helaz !
 Baina bederen ahalaz
 Hari naiz nere abisuez
 Eta conxeillu [ch] çuhurrez,
 Oste basacurtecoa
 Inocent eta flacoa
 Heien colpetaric bethi goardatcera,
 Holacoa baita nere caractera :
 Ez duket nic çorionic
 Bertcei on eguinez baicic :
 Eta banindohan
 Ni orai berean,
 Çuen bici-tokiraino
 Çure aizpei errateco,
 Berri tchar bat egun hautan
 Dabillala ingurutan :
 Ecic Acheri hulaco,
 Hain abil nola den gaitzto,
 [dela ethorri beharra] Ethortcecoa dela omen
 [Gaur çuen] Atacatcera, gaur çuen ;
 nathor çuen contutcera.
 Laiñoac hitz hoietara
 Baderama oilloteguira.

La jeune Poule et le vieux Renard [II. 17]

*Une poulette jeune et sans expérience,
 En trottant, cloquetant, grattant,
 Se trouva, je ne sais comment,
 Fort loin du poulailler, berceau de son enfance.
 Elle s'en aperçut qu'il était déjà tard.
 Comme elle y retournait, voici qu'un vieux
 renard
 A ses yeux troublés se présente.
 La pauvre poulette tremblante
 Recommande son âme à Dieu.
 Mais le renard, s'approchant d'elle,
 Lui dit : Hélas ! mademoiselle,
 Votre frayeur m'étonne peu ;
 C'est la faute de mes confrères,
 Gens de sac et de cordes, infâmes ravisseurs,
 Dont les appétits sanguinaires
 Ont rempli la terre d'horreurs.
 Je ne puis les changer, mais du moins je tra-
 vaille
 A préserver par mes conseils
 L'innocente et faible volaille
 Des attentats de mes pareils.
 Je ne me trouve heureux qu'en me rendant
 utile ;
 Et j'allais de ce pas jusque dans votre asile,
 Pour avertir vos sœurs qu'il court un mauvais
 bruit :
 C'est qu'un certain renard, méchant autant
 qu'habile,
 Doit vous attaquer cette nuit,
 Je viens veiller pour vous. La crédule innocen-
 te
 Vers le poulailler le conduit.
 A peine est-il dans ce réduit,
 Qu'il tue étrangle, égorge, et sa griffe sanglan-
 te
 Entasse les mourants sur la terre étendus,
 Comme fit Diomède au quartier de Rhésus.
 Il croqua tout, grandes, petites,
 Coqs, poulets et chapons : tout périt sous ses
 dents.*

*La pire espèce de méchants
 Est celle des vieux hypocrites.*

Ez cen hain laster han sarthu
Non baitcen hura abiatu
Hiltcen, cintçurrac eguiten,
Bere atzapar odolxuez
Masacrean ohituez,

[45]

Hil-hurren cirenen lurrean metatcen,
Robespierrec nola Parisco Elicetan

Eta beste asco tokitan,
Apez, andere, nobleac
Eta bertce yende osteac
Cituen masacra-razi.
Hala Acheriac irexi
Cituen ciren guciac
Handiac eta ttipiac,
Oillar, oillasco, gapoiac :
Cirenac haren hortzetan.
Iragan ciren gau hartan.

Gaitztaguin mota tçarrena
Da hypocrit çaharrena.

Chiminoa eta Leoparra [III.1]

Chimino multço bat [oihanpe?] <oihanpe
batean>

Haguitz umore ederrean
Yan-ondo batez ari cen
Escu-beroca dostatcen.

Eme chahar batec serioş yarría
[50]

Belhaunen gainean auspez eçarria
Chainde çuenaren çaducan burua,

Ceinac baitçaucan escua
Uscorno gainean contraz hedatua
çointan aldizca ororenac

Baitçituen hartcen ukhaldi ocenac.
Hazcarki yotcen cen :

Hor penxa orai cein den.

Maiz asmatcen ezcen :

Orduan hirriac

Eta carcariac

Brinco eta yauziak

Faltatcen ezçiren.

Hox handi hartarat

Leopar gazte bat,

Printce bat aski malxoa

Utziric bere cilhoa

Gure chimino alaien

Erdian da presentatcen :

Hauc betan baratcen dire,

Ikharatuac baidaude.

Emaçue aitcinat, Leoparrac derra :

Ez nathor nihori gaitzic eguitera.

Ez khecha batere, ona dut bihotza ;

Are nathor egun, particular guisa

Çuen placeretan partaler yartcera :

Yoca gaitetçen halere,

Partidaca naiz ni ere.

Ah ! Yauna, çoin ona çaren !

Cer ! çure alteça¹⁸ hemen

Dugu beraz ikhusico

Yauxia gu-ganaino ?

[50 bis]

- Bai, egun hori da nere guticia ;

Bethitic ukhan dut nic Filosofia :

Badakit animaliac

Direla sortceç guciac

Berdinac.

Goacen beraz, yoca gaiten,

Les Singes et le Léopard [III.1]

*Des singes dans un bois jouaient à la main
chaude ;*

*Certaine guenon mauricaude,
Assise gravement, tenait sur ses genoux
La tête de celui qui, courbant son échine,
Sur sa main recevait les coups.*

*On frappait fort, et puis devine !
Il ne devinait point ; c'était alors des ris,
Des sauts, des gambades, des cris.*

*Attiré par le bruit, du fond de sa tanière,
Un jeune léopard, prince assez débonnaire,
Se présente au milieu de nos singes joyeux.
Tout tremble à son aspect. Continuez vos jeux,
Leur dit le léopard, je n'en veux à personne :*

*Rassurez-vous, j'ai l'âme bonne,
Et je viens même ici, comme particulier,
A vos plaisirs m'associer.*

Jouons, je suis de la partie.

Ah ! monseigneur, quelle bonté !

*Quoi ! votre altesse veut, quittant sa dignité,
Descendre jusqu'à nous ! – Oui, c'est ma fan-
taisie.*

*Mon altesse eut toujours de la philosophie,
Et sait que tous les animaux sont égaux.*

*Jouons donc, mes amis, jouons, je vous en prie.
Les singes enchantés crurent à ce discours,
Comme l'on y croira toujours.*

*Toute la troupe joviale
Se remet à jouer : l'un d'entre eux tend la
main ;*

*Le léopard frappe, et soudain
On voit couler du sang sous la griffe royale.
Le singe cette fois devina qui frappait,
Mais il s'en alla sans le dire.*

*Ses compagnons faisaient semblant de rire,
Et le léopard seul riait.*

*Bientôt chacun s'excuse et s'échappe à la hâte,
En se disant entre leurs dents :*

*Ne jouons point avec les grands
Le plus doux a toujours des griffes à la patte.*

¹⁸ *Printceei ematen çaioten titulua ceinac erran nahi baitu Goratasuna.* (Goyhetcherren oharra).

Hox, kide maitheac, arren.
Chiminoec, choratuac
Sinhexi cituzten haren hitz maltçurrac ;
Casu hoietan segurki
Nola baita eguinen bethi.
Chimino oste aleguera
Ematen da hirriz berriz yocatcera ;
Hetaric batec escua
Badaduca çabaldua :
Leoparrac baitu lehen
Escu hedatua yotcen ;
Betbetan harrec escua
Biltcen du odolztatua ;
Erregueren patac eguin efetua.
Chiminoac aldi hartan
Asmatu çuen copetan,
Yotçaillea nor çaiteken :
Bainan erran gabe gan cen.
Lagunac çagocen hirriz aleguia :
Leoparrac çuen cinezco hirria.
Laster bat-banazca, escusac emanic.
Itçuri badohaz handic ;
Cerratela aphalic bere buruekin :
Ez gaitela dosta yende handiekin ;
Hetaric malxoen denac
[51]
Patac ditu punta-dunac.

Sabanta eta Bordaria [IV.1]

[73]

Biba animaleac !

Hetaz çait laket mintçatçen ;

[heki]<heien> eguindurac

Neurthitzetan escribatcen :

[74]

Osperic nic badukedan

Hetaric ezdakit

Nere urustasuna hetan

Dudela badakit.

Animalekin dut nahi

Eraman bicia.

Hain baitçait gustagarri

Heien compaña !

Hargatic nic dut aithortcen

Nahiz penarekin,

Ez dela ez hec gucien

Charactera berdin :

Batçu, çoin diren hec hemen

Seinalatu gabe,

Gure baia orotan hurren

Partalier dire :

Baina hauc berac baino ere

Seguric nere ustez,

Lanyerosago daiteke

Guiçona haguitzez :

Eta (fricuna fricuntçat,)

Nic dut nahiago

Erakharri Acheri bat

Guiçonki bat baino.

Bada hori cen berbera

Nere herrian bici cen

Laborari çahar baten

Endelgatceco manera.

Laur hogoi urthez guerostic hauço guçietaric

Baço hazcon nahiz ukhan conçeillu haren ganic ;

Har erran hitz batec çuen balio sententcia,

Exempluz hitçari guciz cemon ahal handia :

Noizetare inguratua bere berrogoi haurrez,

Seme, alaba, illobaso, erraiñ eta suhiez,

[74]

Hauciac baitciozcaten bere artean yuyatcen

Edo famillen arteco gauçac erreguelatcen :

Batec ezçeçaken haren bilho çurien bistan

Bere causa hobetceco gueçur bat ahal erran.

Orhoitcen naiz behin bere baserrico etcherat

Yin citçaiola hiritic Jaun yakinxu handi bat,

Çahar benerableari hulache erran ciona :

Erradaçu, ô aita ona,

Le Savant et le Fermier [IV.1]*Que j'aime les héros dont je conte l'histoire !**Et qu'à m'occuper d'eux je trouve de douceur !**J'ignore s'ils pourront m'acquérir de la gloire,**Mais je sais qu'ils font mon bonheur.**Avec les animaux je veux passer ma vie ;**Ils sont de si bonne compagnie !**Je conviens cependant, et c'est avec douleur,**Que tous n'ont pas le même cœur.**Plusieurs que l'on connaît, sans qu'ici je les nomme,**De nos vices ont bonne part :**Mais je les trouve encor moins dangereux que l'homme ;**C'est ainsi que pensait un sage,**Un bon fermier de mon pays.**Depuis quatre-vingts ans, de tout le voisinage**On venait écouter et suivre ses avis.**Chaque mot qu'il disait était une sentence.**Son exemple surtout aidait son éloquence ;**Et, lorsqu'environné de ses quarante enfants,**Fils, petit-fils, brus, gendres, filles,**Il jugeait les procès ou réglait les familles,**Nul n'eût osé mentir devant ses cheveux blancs.**Je me souviens qu'un jour dans son champêtre asile**Il vint un savant de la ville**Qui dit au bon vieillard : Mon père, enseignez-moi**Dans quel auteur, dans quel ouvrage,**Vous apprîtes l'art d'être sage.**Chez quelle nation, à la cour de quel roi,**Avez-vous été, comme Ulysse,**Prendre des leçons de justice ?**Suivez-vous de Zénon la rigoureuse loi ?**Avez-vous embrassé la secte d'Epicure,**Celle de Pythagore, ou du divin Platon ?**De tous ces messieurs-là je ne sais pas le nom,**Répondit le vieillard : mon livre est la nature ;**Et mon unique précepteur,**C'est mon cœur.**Je vois les animaux, j'y trouve le modèle**Des vertus que je dois chérir :**La colombe m'apprit à devenir fidèle ;**En voyant la fourmi, j'amassai pour jouir ;**Mes bœufs m'enseigner la constance,**Mes brebis la douceur, mes chiens la vigilance ;**Et, si j'avais besoin d'avis**Pour aimer mes filles, mes fils,*

Çoin autor escribatçaille, edo çoin liburutan
Cinduen ikhasi çuhur içaten gauça orotan ;
Çoin erresumetara, edo çoin Printceren gor-
thera

Goan içatu çaren nihoiz justicia ikhastera
Ulyseren¹⁹ exemplura ?

Baçarraizcoia Zenonen²⁰ dotrina herxiari ?

Edo Epicuro baten escola laçoari ?

Pithagora²¹ bati edo Platon²² Dibinoari ?

Yaun handi horietaric bat ezdut eçagutcen,

Çaharrac du ihardexten :

Ez dut bertce libururic

Nic naturaleça baicic ;

Eta ene nausi bakharta

Da nere bihotza bera;

Beguietzten ditut nic animaleac ;

Eta hetan berthuteac

Nic praticatu beharrac.

Usoac cerautan niri

Leyaltasuna irakhasi ;

Ikhustean Chinaurria,

Biltcen nuen nic bihia

Gueroraco hazcurria ;

Nere idiec çarotaten

Constancia eracuxtten,

[75]

Ardiec eztitasuna,

Çacurrec atçartasuna :

Eta baldin nere haurren

Maithatceco nic banuen

Gerthuz abisu beharric

Har neçaken exemplua

Unkicor eta husua,

Oillo chito-dunetaric.

Hola beraz mundu huntan

Ikhusten tutan orotan

Aurkitcen dut nic abisu,

Behar dudala complitu

Nere eguinbide eztia.

Maiz eguiten dut onguia

*La poule et ses poussins me serviraient d'exem-
ple.*

*Ainsi dans l'univers tout ce que je contemple
M'avertit d'un devoir qu'il est doux de rem-
plir.*

*Je fais souvent du bien pour avoir du plaisir ;
J'aime et je suis aimé ; mon âme est tendre et
pure ;*

Et, toujours selon ma nature,

Ma raison sait régler mes vœux :

J'observe et je suis la nature,

C'est mon secret pour être heureux.

¹⁹ Ulyse, duela bi milla eta çazpi ehun urthe Africaco Printce gazte bat biayetan urez eta lurrez ibilli cena, moral eta politica ardiexi nabiz. (Goyhetche-ren oharra).

²⁰ Zenon, Greciaco Filosofo bat, duela bi mila eta berreunabt urthe, bere dotrina orduco garbi eta herxiar ospatua. (Goyhetche-ren oharra).

²¹ Pythagoras, duela bi mila eta hirur ehun urtheen ingurua, Grecian bere dakintasan handi eta morala garbia-gatic haguiz famatua. (Goyhetche-ren oharra).

Nota bere lekuan nik dut ezarri (eskuiskribuan "Epicuro" izenari ezarria zion).

²² Platon, Filosofo Grecoa duela bi mila eta berreun bat urthe bici cena eta filosofo yentil gucietan, bere izpiritu çorrotz eta hedatu, bai eta bere dotrina ederra-gatic ospatuen; eta Dibinoa deitatu. (Goyhetche-ren oharra.).

Demautan placera-gatic.
Maithe ditut guciac nic,
Naiz ordainez maithatua ;
Badaucat nere burua
Bethi samur eta puru ;
Eta ene centçuac ditu,
[Grezia launtçat baitu,]
Nic nahi dudan neurritan
Nere gurac nere onetan
Guciac erreguelatcen.

[?]

<Arraçoina beguiztzen>
Dut bethi, eta seguitecen,
Eta urus içateco nic
Ez dut bertce secreturic.

Secretu tristea !
Florian maithea :
Guiçonentçat ecic
Animaletaric

[75 bis]

Modela hartcea !
Horrec nihoiz ecen eztu
Nihor urus errendatu,
Poeten casuan baicic :
Guiçonac badu bertceeric
Exemplu eta modelic
Hobeki dohazcokenic,
Gogoaz meditatceco.
Eta obraz imitatceco.
Yauxteco plaçan beheiti,
Goi-alderat itçul bedi :
Christo, Maria, Yosepe,
Eta guero hambat bertce
Model perfet eta noble
Badathorzco aitcinera
Cer eguin eracuxtera
[Bai] <Baina> ezta aski leguea
Hobekiena ikhastea
Ez modelac ikhustea ;
Behar da oraino gracia
Galbariotic yauxia.
Bethi da Filosofia
Yçan gauça net eria
Guiçonaren moldatceco
· Eta onguian fincatceco :
Paso bederen oraino,
hil eta balitz acabo.

Pacha²³ eta Derbicha²⁴ [IV.7]

[80bis]

Africano baten-ganic

[81]

Daducat ikhasia nic,

Turkian Pacha bat behin

Cucha ciguillatu precios batekin

Citçaiola gan arraiki,

Arabiaco lurretan

Aurkitcen cen ordu hartan

Derbicha çuhurrenari,

Cacha huntan, derro, bada

Perla eta Diamanta

Preciatuenetariç ;

Huntaz nahi nioke nic

Eguin present guïçonari

Munduan çure oldez erhoen denari:

Ongui bilha çauç,

Edirenen duçu.

Harturican cachattoa

Gure peniten gaiçoa

Munduz-mundu badohatçu :

Urrun bada h(a)rrec beharric curritu

Othe du ?

Embraçatua cen hautatceaz choilki :

Baçathorzconecen bethi

Alde orotariç erhoac

Batçuec bertceac baino erhoagoac,

Nasai beguicen bistara :

Baina cacha gardatcera

Barnetic cerbaitec çuen

Gure derbicha erakhartcen ;

Ceçakelacoan aurki

Cembait oraino erho-nausi.

Çabillala beraz hola herriz-herri,

[81bis]

Bere depotaz (h)unekin

Ez yakinez ya cer eguin ;

Biaya luze bat eguin duenean,

Cofrettoa besa-pean,

Goiz batez gure guïçona

Hartua bere eximena,

Sartcen çaitçu bada Constantinoplean²⁵

Aurkitcen du populua

Alegranteian sarthua :

Le Pacha et le Dervis [IV.7]

Un Arabe, à Marseille autrefois, m'a conté

Qu'un pacha turc dans sa patrie

Vint porter certain jour un coffret cacheté

Au plus sage dervis qui fût en Arabie.

Ce coffret, lui dit-il, renferme des rubis,

Des diamants d'un très-grand prix :

C'est un présent que tu jugeras

Être le plus fou de la terre.

Cherche bien, tu trouveras.

Muni de son coffret, notre bon solitaire

S'en va couvrir le monde. Avait-il donc besoin

D'aller loin ?

L'embarras de choisir était sa grande affaire :

Des fous toujours plus fous venaient de toutes

parts

Se présenter à ses regards.

Notre pauvre dépositaire

Pour l'offrir à chacun saisissait le coffret :

Mais un pressentiment secret

Lui conseillait de n'en rien faire,

L'assurait qu'il trouverait mieux.

Errant ainsi de lieux en lieux,

Embarassé de son message,

Enfin, après un long voyage,

Notre homme et le coffret arrivent un matin

Dans la ville de Constantin.

Que s'est-il donc passé ? Rien, lui dit un iman ;

C'est notre grand visir que le sultan envoie,

Au moyen d'un lacet de soie,

Porter au prophète un firman.

Le peuple rit toujours de ces sortes d'affaires ;

Et, comme ce sont des misères,

Notre empereur souvent lui donne ce plaisir.

- Souvent ? - Oui. - C'est fort bien. Votre nou-

veau visir

Est-il nommé ? - Sans doute, et le voilà qui

passé.

Le dervis, à ces mots, court, traverse la place,

Arrive, et reconnaît le pacha son ami.

Bon, te voilà ! dit celui-ci :

J'ai vu des fous parfaits, mais sans oser choisir.

Aujourd'hui ma course est finie ;

Daignez l'accepter, grand visir.

²³ *Turkian Probintcietaco buruçagui[ara]. (Goyhetche-ren oharra).*

²⁴ *Turcoen artecoen penitent. (Goyhetche-ren oharra)*

Cer iragaten da, dio ?
Deusic, aphez batec derro;
Gure Soldanac²⁶ du choilki
Bisir-handia²⁷ egorri
Mahomet Profeta-ganat
Ordre bat eramaterat.
Cetazco cordoña noble baten bidez.
Yendeac holaco arribacariez
 Hirri du bethi eguiten :
Eta ez deuseria batçu nola diren,
 Gure soldanac maiz aski
 Bademo axeguin hori.
- Maiz ? - Bai Jauna - Ederki.
 Bisir berria ondoco
 Eguina da-ia oraino ?
- bai segurki, eta chuchen
 Horra non iragaten den.
 Derbicha hitz hoietara
 Badoha yauziz plaçara ;
Eta dioneco hurbildic behatcen,
Nere eçagun Pacha hor dautçu causitcen.
[82]
 To ! hi hemen ! hunec derro :
 Eta cofrea ? gauguero...
Yauna curritu dut Asia gucia ;
Ikhusi erhozco net oste handia :
 Baina ecin hautatu baitut,
Nere biaya egun hemen finatcen dut.
 Har çaçu Bisir handia,
 Çuretçat cofre yoria.

²⁵ *Turcoen hiri capitala.* (Goyhetche-ren oharra)

²⁶ *Turcoen lehen Buruçağuiari ematen çaiion icena.* (Goyhetche-ren oharra).

²⁷ *Lehen ministroa.* (Goyhetche-ren oharra).

Filosofoa eta Gau-ainhara [IV.15]

[91 bis]

Hastiatua eta persecutatua

Bere egon-tokitik ere khasatua

Ceren gauçac baitcituen

Çoin bere icenez deithatcen ;

Filosofu malurus bat

hiri batetic bertcerat

Baçabillan herratua,

Çarabilzcala [çarabilçala] berekin,

Cituen guciac arin,

Diot, çukeien cençua.

Egun batez bada, oihanpe batean,

Bere beilla iraganen

Çagoela meditatcen,

Ikhusten du ilhunbean

Gau-ainhar bat herstutua ;

Uzkinacho bekhaitztiez

Eta Bele-eme harroez

Furian setiatua,

Oihuz hartaz [d] <c>erratela :

[92]

Ah! cokin eta cirtcila!

Herriaren exaia da ;

Orai dugunean bada

Behar dugu acabatu,

Bici-bicia biphildu.

Bai, bai, biphil, biphil, [oroc] oihuz betan oro,

Yuyamendua [ondoan] gueroco ;

Eta oro gaiñera [gaiñera errabian] furian dohazco.

Bestia titchacabeac,

Husu bere buru on eta çabala

Biraca çarabilçala,

Arraçoinic hoberenac

Bacemozkioten, baina oro alferrac.

Ikhuscari horren bistan,

Muguitua erraetan,

(Filosofiac²⁸ du ecen

Yendea ezti eta gocho bilhacatcen.)

Gure çuhurrac haidorric

Oste yaçarlea du khasateen handic ;

Eta guero anxioski

Baderro Gau-ainharari :

Le Philosophe et le Chat-huant [IV.15]

Persécuté, proscrit, chassé de son asile,

Pour avoir appelé les choses par leur nom,

Un pauvre philosophe errait de ville en ville,

Emportant avec lui tous ses biens, sa raison.

Un jour qu'il méditait sur le fruit de ses veilles,

C'était dans un grand bois, il voit un chat-huant

Entouré de geais, de corneilles,

Qui le harcelaient en criant :

C'est un coquin, c'est un impie,

Un ennemi de la patrie ;

Il faut le plumer vif : oui, oui, plumons, plumons,

Ensuite nous le jugerons.

Et tous fondaient sur lui. La malheureuse bête,

Tournant et retournant sa bonne et grosse tête,

Leur disait, mais en vain, d'excellentes raisons.

Touché de son malheur, car la philosophie

Nous rend plus doux et plus humains,

Notre sage fait fuir la cohorte ennemie,

Puis dit au chat-huant : Pourquoi ces assassins

En voulaient-ils à votre vie ?

Que leur avez-vous fait ? L'oiseau lui répondit :

Rien du tout ; mon seul crime est d'y voir clair la nuit.

²⁸ Florian hemen duda gabe mintço da Filosofia eguiazcoaz ceina ez baita bertceric baicen Ebanyelioa ; Filosofo eguiazcoa eta Christau ona dire biac bat. Ecen bertcelaco Filosofoac çoin gocho eta maltcho diren, hirurhogoi urthe hautaco errebolucione odolxuec eracuxten darocute. (Goyhetche-ren oharra).

Yendetçar hoiec certaco
Cintuzten bilhatcen bada hiltceraco ?
Cer eguin dioçukete ?
Choriac baderro fite :
Ez diotet eguin deusic :
Estut nic bertce crimaric,
Ilhunean ongui ikhustea baicic.

Biaya [IV.21]

[97 bis]

Arguitu gabe abia
Asmuca, maiz eroria,
Galdetu gabe ere nondic den bidea ;
Eror-altchaca yoaitea,
Herrestan hola eguitea
Bi herenac biayean
Eguerdux bitartean;
Bere buruaz goiean
Ikhustea orduan metan

[98]

Biltcen hedoiç beltzenac;
Herresacatcea urhaxac,
Hare traidore batean;
Laster eguitea bethi uharpean,
Chede dudazco batera,
Ardiesten ezdenera;
Ohartua arrax-alderat
Bilhatcea ihes-lekhu bat;
hax hauntua arribatcea;
hori da deitcen sortcea,
Bicitcea eta hiltcea;
Dadila Jaincoaren compli borondatea !

Ô Floriano gaichoa !

Cer hi hoin filosofoa !

Hola duc-a hartu gauazco chanoa.

Çori deithoratcecoa !

Ez ahal duc ukhan çorte holacoa !

Huna nola behar huen

Esplicatu gu çonaren

Sortcea [hiltcea] eta bicitcea,

Eta azkenean hiltcea.

Arguitu gabe abia,

Baina partitu orduco,

<Ezker-alde ez hartceco,>

aldean bethi arguia

Ceruetaric yauxia,

J. Christoc ekharria;

[98 bis]

Eta bethi ikhustea

Galdetu gabe bidea :

Erortcetic goardatceco

Prest aldean sustengua;

Erori eta altchaceco

Present Yaunaren escua:

Harepean, uharpean,

Guericean ibiltcea;

[IV.21]

Le Voyage

*Partir avant le jour, à tâtons, sans voir goutte,
Sans songer seulement à demander sa route ;
Aller de chute en chute ; et, se traînant ainsi,
Faire un tiers du chemin jusqu'à près de midi ;
Voir sur sa tête alors amasser les nuages ;
Dans un sable mouvant précipiter ses pas ;
Courir, en essuyant orages sur orages,
Vers un but incertain où l'on n'arrive pas ;
Détrouppé vers le soir, chercher une retraite ;
Arriver haletant, se coucher, s'endormir :
On appelle cela naître, vivre et mourir.*

La volonté de Dieu soit faite .

A. ARKOTXA

Lanyerpean, exaipean
Aleguera bicitcea :
Chederic segurenera
Aise ardiexten denera
Khaxuski lehiatcea;
Arraxa ethorri denean
Yaun onaren galtçarrean
Etçateá, lokhartcea;
Horra Florian maithea;
Christauaren sortce eta bicitcea
Eta azkenean hiltcea :
Eta gure Jaincoaren horra borondatea

APPENDIX II

BNF - CB 163

FABLEAC EDO ALEGUIAC LAFONTENETARIC BERECHIZ HARTUAC, ETA GOYHETCHE APHEÇAC FRANXESETIC ESCOARARA BERXUTAN ITÇULIAC (1852) EDIZIOAN AGERTZEN EZ DEN ETA LIBURU ÇAZPIGARRENA-N DIREN ALEGIEN ZERRENDA

Lafontenen fableena.

LIBURU ÇAZPIGARRENA

Fable [lehena] <1a>.

Acheri angelesa. 23^e du Livre 12^e.

Fable - 2a

Arratoinen eta Andreyerren gudua. 6^e du Livre 4^e.

Fable - 3a

Biçacua. 7^e du Livre 1^{er}.

Fable - 4a.

Filomela eta Prône. 15^e du Livre 3^e.

Fable - 5a.

Gota eta Irmiarma. 8^e du Livre 3^e.

Fable - 6a.

Egurguillea eta Mercurio. 1^{er} du Livre 5^e.

Fable - 7a

Oraclea eta Impioa. 19^e du Livre 4^e.

Fable - 8a

Agudea eta bere haurrac. 18^e du Livre 4^e.

Fable - 9a

Ez sopra, ez gutiegui. 11^e du Livre 9^e.

Fable - 10a.

Escolierra, nagusia eta baratce baten yabea. 5^e du Livre 9^e.

Fable - 11a.

Chiminoa eta Leoparra. 3^e du Livre 9^e.

Fable - 12a

Bi Usoac. 2e du Livre 9e.

Fable – 13a.

Ibasoa eta Ibaia. 23^e du Livre 8^e.

Fable – 14a.

Bi çacurrac eta Asto hilla. 25^e du Livre 8^e.

Fable – 15a.

Falcoina eta Gapoina. 21^e du Livre 8^e.

Fable – 16a.

Hartza eta Baratcecoia. 10^e du Livre 8^e.

Fable – 17a.

Arrainac eta Cormorana. 4^e du Livre 10^e.

Fable – 17a. (sic)²⁹

Guiçonen eskergabetasuna et inyusticia fortunaren aldera. 14^e du Livre 7^e.

Fable – 18a.

Fortunaren ondotic dabillana, eta ohean dagoelarik igurikitcen duena. 12^e du Livre 7^e.

Fable – 19a.

Phebus eta Borea edo Iguzkia eta hegea. 3^e du Livre 6^e.

Fable – 20a.

Allanta eta bere umeac, landa baten Yabearekin. 22^e du Livre 4^e.

Fable – 21a.

Oxoa eta ihiztaria. 27^e du Livre 8^e.

Fable 22a.

Martchanta, Aitorensemea, Artçaina eta Erregue-semea. 16^e du Livre 10^e.

Fable – 23a.

Lehoina. 1^{er} du Livre 11^e.

Fable – 24a.

Sagüac eta untza. 9^e du Livre 11^e.

Fable – 25a.

Goardari desleyala bere gueçurraz galdua. 1^{er} du Livre 9^e.

Fable – 26a.

Yakitatearen abantaila. 19^e du Livre 8^e.

RAMUNTCHO, PIERRE LOTI-REN SARTZEA EUSKAL HERRIAN

J. Casenave

XIX-garren mende ondarrean idazten ari den belaunaldia eta XX-garren mende hastapenean lanari lotzen den belaunaldiaren artean arteka handia, hausdura bat bezala izan da, hori batez ere Iparraldean: hots, Gratien Adéma “Zalduby”, Michel Elissamburu, Arbelbide, Joanneteguy, Duvoisin, J.Battit Elissamburu alde batetik eta beste eskualdetik Pierre Lhande, Jean Barbier, Jean Saint-Pierre eta Jean Etchepare, XX-garren mende hastapenean idazten hasten direnak.

Oxobi eta Zerbitzari hor dira halarik ere zubiaren egiteko ; egia da, neurri batean XIX-garren mende ondarreko jendeak direla. Bainan garai berean, Barbier-k *Piarres* bezalako eleberriarekin ekartzen duen xede orokor hori guziz berria da. Beraz fikzio eta kondaketa mailan, ordu arte sekulan asma-tuak izan ez diren obrak argira heldu dira XX-garren mende haste hortan. *Buruchkak* (1910), *Yolanda* (1921), *Bilbilis* (1926) eta *Piarres* (1926-1929) hor dira lekuko. Hori, Iparraldean segurik, zeren eta, Hegoaldean Domingo Agirre-k horrelako hats edo arnas luzeko xedeak obratu zituen ordurako.

Nundik heldu ote zaie, Iparraldeko gazte horiei proiektu handi horietan abiatzeko, ausartzeko indarra, kemena ? Badutea eredurik? Nundik hartu dituzte, etxetik edo kanpotik ? Badae erreferentziarik obra horietan agerian gelditzen denik ?

Fikzio eta kondaketa mailan eta inguruan bilatuz, Domingo Agirre-n obra borobila heldu da gogora, berehala. Badaiteke Lhande-n kasuan *Garoa* -ren eragin zerbait izan dadin *Mirentchu* -rentzat, batez ere. Barbier-rentzat, *Piarres* -ek baldin badu gauza frango ikusteko *Garoa*-rekin, badu beste erreferentzia bat, argi ageri dena lehen orrialdean berean, *Ramuntcho*, Pierre Loti-ren eleberriarena hain zuzen. Jean Etchepare-entzat, gauza bera. Badakigu ez

zuela *Garoa* ezagutzen *Buruchkak* liburua idazten zuelarik. Eta, zer nahi gisetaz, ez zuen *Garoa* -n eredurik aurkitzen ahal “Pilota partida” kondaketa miresgarriaren idazteko. *Ramuntcho* eleberrian aldiz, pilota hiru aldiz aipatua da eta Loti-k erakusten duen partida, guziz famatua zen garai hartan.

Orduan, hipotesi hau hartu dut lantzeko: geroxago aurkituko ditugun lekukotasunek pentsatzera emaiten duten bezala, ez dutea orduko iparraldeko euskal idazleek kanpotik heldu zitzaizen miraila baten argipean, indarpean idatzi? Donibane Lohitzuneko Euskal pesta (1897) famatuen bidez, han egiten ziren mintzaldien bitartez (*La Tradition au Pays basque*, -Elkar, 1994-berritz argitaratua izan den liburuan irakurtzen ahal dira) Euskal nortasunaren inguruak finkatuak izan ziren: nortasun hori arketipo-iruditegi batean giltzapean bezala zen : nortasun arkaikoa, naturari lotua, industriak sortu zuen mundu berrian desagertzera ari zena, etabar. Eta ez ote du *Ramuntcho*-k, Loti-ren ikuspegi estetikoaren bitartez iruditegi horren sintesia emaiten? Orroitu behar da liburu horrek arrakasta handia ukan duela agertu den garaian. Beraz, ez da xuxen jakiten ahal zer izan den *Ramuntcho* orduko euskal idazleentzat: eredu, ispilu edo berdin errabote, kontrako gisa hari oldartzeko. Bainan, badirudi, funtsezko eragina izan du.

Beraz, ikus dezagun nolako sartzea ukan duen *Ramuntcho*, Pierre Loti idazlearen liburuak Euskal Herrian. 1897-ean agertu zen Parisen liburu hori, eta arrakasta handia izan zuen berehala. Pariseko argerkarietan ongi etorri ezin hobea egin zioten gehienek; onartze bera izan zuen irakurleen aldetik, geroxago zenbaki batzuen bidez ageriko den bezala. Orduko zonbeit lekukotasunei esker, segur da hemen gaindi ere irakurria izan zela. Bainan, denbora berean, eta harritzekoa baldin bada ere, ez da kasik aipatua Euskal Herriko agerkarietan, aipatuko diren hiruzpalau salbuespenak bestalde.

Lehenik bi hitz egileari buruz. *Ramuntcho* argitaratzen duelarik, dotzena bat liburu ba du eginik Loti-k eta eleberriak dira batez ere aipatuak, hala nola *Aziyadé*, *Pêcheur d’Islande*, *Mon frère Yves* edo *Madame Chrysanthème*. Ofizioz armadako itsas untzietan aintzindari izanez, muduan gaindi ibilia da, eta eleberrietan kondatzen dituen gertakizunak Tahiti, Turkia, Japonia edo Palestinako urruneko bazterretan gertatzen dira. Literatura mailan, exotismoaren maisua bezala ikusia da . Erran behar da, Bretanian finkatzen dituen eleberrien gertakariak molde berean, gibelatzapen eta urruntasun berarekin lantzen dituela, barne exotismo bat sortuz, nolabait erraiteko. Eta, *Ramuntcho*-n urruntasun, arteka berdina utzi du ere, nahiz bera itzal bat bezala ageri den *Ramuntcho*-ren aitaren pertsonaian, geroztik jakin diren xehetasun biografikoen arabera.

Loti-ren liburu horiek arrakasta bildu dute Frantzian, baita ere Frantziatik kanpo. Orroitu behar da ere 1891-tik aintzina, erran nahi baita 41

bat urtetan Frantses Akademian sartua dela eta Zola bazuela parrean hautatua izan delarik. Beraz ez da normahi, urte hartan berean Euskal Herrira igorria den Julien Viaud hori, Hendaiaiko muga zaintzen duen untiaren kapitain gisa eta literatura munduan Pierre Loti bezala ezagutua dena. Beste gaineratikoak ezagunak dira: bi egonaldi luze egiten ditu Hendaian, Adamenea deitu etxean bizi da eta XX-garren mende hastapenean, etxe hori erosten du eta, izen xaharra kenduz, “Bakhar etchea” deitzen du. Hemengo jendeekin adiskidetzen da, hala nola Abbadiako jaun-andereekin, Durruty medikuarekin, baita ere omen jende xehego batzuekin, besteak beste Otharre Azkaineko pilotariarekin, ostaler eta kontrabandista bezala ezagutua zena ere.

Ez du balio hemen *Ramuntcho*-ren gaia kondatzen hastea, ez eta ere obraren sortzeari buruz hainbat aldiz jadanik emanak izan diren xehetasunak errepikatzea. Ikus dezagun berehala nolako sartzea ukan duen *Ramuntcho* eleberriak Euskal Herrian. Jadanik aipatu bezala, ongi etorri frango motza ukan du, Parisen ukan duenarekin konparatuz. Han, Patrick Besnier erakasleak azken edizioetarik batean orroitarazten den bezala, agerkari kontserbadore handienetan aipatu zuten liburua: *Le Temps*, *Le Journal des débats*, *La Revue des deux Mondes*, etb. Ongi etorri beroa, nasaia eta ezin hobea. Etsaiak baditu halarik ere, bereziki ezkerrean, Zola-ren inguruan edo “progressista”k bezala agertu nahi dutenen artean.

Ramuntcho, 1897-an agertzen da liburu gisa, martxoan hain zuzen; lehenago, orduan usaia zen bezala, zatika argitaratua izan zen, bost zatitan abendotik haste *La Revue de Paris* deitu aldizkarian. Urtea bururatu gabe, 55 argitalpen badira Patrick Besnier-ren arabera. Arrakasta izigarri horri buruz, preseski, hemen gaindi ere badugu lekukotasun bat. Huna zer dion Julien Vinsonek *L’Avenir des Pyrénées* deitu aldizkarian: “Quarante et unième édition” porte le volume que j’ai sous les yeux; ainsi voilà déjà plus de quarante mille ou au moins plus de vingt mille exemplaires qui ont circulé et qui ont eu sans doute quelques cent mille lecteurs.”

Arrazoinekin pentsa daiteke bi zenbaki horien artean handikoa dela arteka, bainan orroitu behar da orduko tiradak bost ehun edo gehienez mila aletan egiten zirela bakarrik. Halarik ere, garbi ageri da arrakasta handia duela liburuak irakurleen artean. Kritikalarien artean ere funtsean, gehienek, aldekoek segurik baitiote urte horietan Loti-k jalgi duen eleberri hoberenetarik dela, batez ere maitasun gai minbera horren lantzeko erabili duen klazizismo-arengatik, kontrakoak ardura nadartzen dituzten “Loti”-keriak (exotismo hutsa, estetizismoa, etbar) kendurik. Gehiago dena, Anatole Le Braz, Bretoindarrak *Le Journal des Débats* agerkarian, “le roman de la terre basque” deitzen du bere kronika, *Ramuntcho*-ren argitaratzearen aipatzeko. Urrunago segitzen du erranez: “cette terre n’avait pas d’existence littéraire; elle en a une

depuis *Ramuntcho*". Bistan dena, hortan Le Braz-ek erran nahi du frantses literaturan lehen aldikotz maisu lan baten gaia eman duela Euskal Herriak.

Ondorioz, pentsa daiteke, horrelako fama onarekin honaraino heldu den obrak ongi etorri beroena edo bederen, aipamen frango ukanen duela Euskal Herrian. Bainan, ez da horrelakorik gertatzen. Lehen erran bezala, lau aipamen baizik ez dut atxeman garaian berean. Lehena *L'Avenir des Pyrénées* aldizkarian Julien Vinson-en lumatik, bigarrena *La Semaine de Bayonne* aste-karian lehiaketa abisu batean eta azken biak aldiz *Eskualduna* astekarian Dibildos kalonjeak eta Zalduby-k idatziak. Bostgarren aipamen bat ere aurkitu dut, bainan, azken hori, denboraren buruan, *Gure Herria* aldizkarian, 1925-ean, Laurent Apesteguy-ren eskutik. Eta hortan dena baduzue iduriz. *Le Courrier de Bayonne* eta *La Gazette illustrée de Biarritz* agerkarietan, baita ere Kaliforniako *Eskual Herria* astekarian, deus. Beste liburu batzu aipatzen dira, batez ere erlijioari buruz bainan *Ramuntcho* batere.

Lehen aipamena : Donibane Lohitzuneko Euskal pestak ospatu baino hilabete bat lehenago, usaian bezala, antolatzaileek abisu bat zabaltzen dute kazeten bidez, olerki lehiaketari buruz eta huna zer dioten *La Semaine de Bayonne* aldizkarian, uztailaren hamalauko alean :

“Dans le programme des Fêtes basques de Saint-Jean-de-Luz, du 15 au 22 août prochain figurent des concours primés pour poésie en langue basque. Le premier a pour sujet ce passage du roman basque de Pierre Loti, *Ramuntcho* :

“L'esprit des vieux âges qui parfois sort de terre durant les nuits calmes, aux heures où dorment les êtres perturbateurs de nos jours, l'esprit des vieux âges commence sans doute de planer dans l'air autour de lui...”

Eta aipamen zuzenaren ondotik, xehetasun horiek emaiten dituzte antolatzaileek:

«L'esprit des vieux âges ou esprit ancestral conduit toute chose dans le sens de la tradition. Sorte de force latente dans les obscurs antécédents de la race, c'est lui qui conserve au Basque, malgré les atteintes des lois nouvelles, son inaltérable attachement aux traditions des aïeux. Présidant aux manifestations tant religieuses que sociales, il peut prêter à l'évocation d'une série de tableaux moraux ou pittoresques.

Le timbre musical imposé est celui de “Chori khantazale ejerra”
Prix : 100fr. *Mention* : un makhila».

Ageri denez, eredu bezala hartua da *Ramuntcho*-tik ateraia den zati hori, nolabait, euskal poesiaren iturritzat, baita ere euskal nortasunaren eta haren berezitasuna-ren erakusle hauta bezala. Orroitarazi behar da, Abbadiako jauna edo Duvoisin hilez geroz, besteak beste Gratien Adema “Zalduby”, Arbelbide, Daranatz edo Broussain bezalako jendeek parte hartzen zutela orduko Euskal Pestetako epai-mahainetan. Beraz, gai-emaile horietan ziren euskal idazleek ikuspegi baikorra zuten *Ramuntcho*-ri buruz.

Bigarren aipamena, *Eskualduna* astekerian aurkitzen da eta, Donibane-ko Euskal beste lotua da ere. Horiek ospatu eta, irailaren 10-ko alean, gehigarri bat ezarria da eta hortan, Dibildots apez hazpandarrak besta horietan eman zuen hitzaldiaren testua eskaintzen da. “Les Basques, essai de psychologie pittoresque” du titulua eta azpi izenburu bezala haxe badakar “A propos d’un ouvrage récent”. Eta horrela hasten da :

“Ce que j’ai à vous dire Messieurs, n’est pas une dissertation et ne peut avoir aucune ambition scientifique. C’est une simple causerie que je serais heureux de faire agréable et où j’essayerais d’avancer des choses exactes. Si je devais lui donner un titre, je l’appellerais : Les Basques, essai de psychologie pittoresque à propos d’un ouvrage récent ; et ce livre est le roman de Pierre Loti intitulé *Ramuntcho*.”

Ikusten den bezala, hemen ere pentsaketa iturri edo estakuru, aitzaki bilakatzen da liburua. Bainan, gauza berri bat bada halarik ere lehen aipatua izan den lehiaketa abisurekin konparatuz; hontan, alde onak gainez gain erakutsi eta -hala nola naturaren deskribapenak: “Le pays.. Est-il besoin de le décrire? Feuilletez donc le livre de Loti”-, funtsezko kritika bat heldu da. Erran nahi baita Loti-k soberasko sartu duela bere burua deskribatze hortan eta bere baitarik ateratu dituen gauza batzu gehiegi nahasten dituela bere begi beharrietarik bildu egiazko xehetasunekin :

“C’est un peu ce qu’il a fait pour notre Pays basque, qu’il a très bien et très profondément senti, mais qu’il a par moments, interprété à sa manière; c’est ce qu’il a fait surtout pour l’âme basque qu’il n’a pu voir, naturellement, que du dehors et qu’il a pourtant merveilleusement devinée dans beaucoup de ses parties. Ne vous semble-t-il pas, si vous avez lu *Ramuntcho*, que les pressentiments de Loti sont incomplets sur notre âme et ses divinations trop vagues? C’est pourquoi, il nous sera permis peut-être, sans que nous songions à faire la critique de son œuvre d’en prendre le texte, pour causer entre nous de notre Pays basque, de notre tempérament et de notre âme, nous aidant de ses jolies formules, et essayant de trouver les nôtres, si les siennes font défaut”.

Konplimenduen artetik, funtsezko kritika egiten dio Loti-ri, erran nahi baita Euskal Herriko bazterrak eta jendeak guziz ederki sar arazi dituela bere liburuan, bainan nortasunaren funtsezko segetua huts egin duela ezin bestez, Eskualduna ez zelakotz. Beraz, Loti-k ikusi, senditu eta erran ez duena, zilatu eta erran beharrez, Dibildos hasten da gaiaren gogoetatzen eta barnatzen. Kasu emazue nola deitzen duen, *Ramuntcho*-ren baitan eskas dena: “Euskal arima”. Erran molde hori, XIX-garren mende undarrean agertzen da Eskualduntasunaren deitzeko eta bi gerla handien artean, gero eta usuago irakurtzen da erran molde hori euskal literaturan eta kazetaritzan. Gratien Adema, Pierre Lhande, Jean Barbier, Oxobi, Laurent Apesteguy, idazle horiek guziek erabili dute erran molde hori euskal nortasunaren aipatzeko eta ari izan dira hari buruz xehetasunak, definizioak eta adibideak emaiten.

Alta, iduri ez duelarik, -zeren eta erraiten baitu Loti-ren erranak behar dituela xuxendu-, ainitz pundutan *Ramuntcho*-n biltzen diren topikoak baieztatzen ditu Dibildots-ek : Eskualdunen aspaldikotasuna, arkaismoa, etabar, hots Donibane Lohitzunen beste ainitz alditan bezala aditu eta hedatu ziren gauzak. Euskaldunaren psikologia mailan, baita ere munduko ikuspegiari buruz, baieztatzen ditu ere Loti-k azpimarratu dituen fede azkarraren ezaugarriak. Orogen buru, Loti-ren neo-erromantismo kutsua eta ezitismoa, aski gostukoak ditu Dibildots-ek, nahiz badakien artista gisa Euskal herriari buruz Loti-k emaiten duen interpretazio berezia ez dela baitezpada ikusi duena. Eleberrian gauza bat ezin onartua du halarik ere, fedea-ri buruz *Ramuntcho*-k bizi dituen duda-mudak hain zuzen. Duda horiek baztertzen ditu erranez, Eskualdunaren fedea liburuan erakutsi baino sendoagoa dela. Bestalde, azpimarratzen du Eskualdunek txondoarentzat, sortetxearentzat duten atxikimendua. Beraz, nahiz ez duen horrelakorik erraiten, ulertu behar da haren ustez eleberriaren bururapena ez dela bat heldu Euskaldunen psikologiarekin : orroit gaitezen *Ramuntcho*-k arbasoen etxea saltzen duela Ameriketara joateko. Bainan, gaurko irakurlearentzat eleberrian aurkitzen diren xehetasun harrigarrienak ezditu eztabaidatzen : jendea josteta eta atsedenetan bizi direla hastetik buru, pilotan, dantzan eta kontrabandan ariz ; ez direla lanean ari batere ikusten, salbu ama josten ari aldi bat edo beste, baita ere *Ramuntcho*-ren lagun bat, Florentino, idi pare bat akulatzen ari. *Ramuntcho*-k berak, zurgintzan egiten zuen apendizgoa utzia du bere gisa kontrabandari eta pilotari lotzeko, ogi bide gisa. Orogen buru, neke eta izerdietarik kanpo erakutsia den Euskal Herri hori onargarri zaio Dibildots-i, alta badakielarik biziki untsa Euskal Herria ez dela josta lekua. Eta ez du hitzik ere erraiten Franchita, *Ramuntcho*-ren amaren gazte-denborako usiaz kanpoko maitasun ixtorioari buruz: orroitu behar da arrotz batekin hirira joan dela, haur bat ukan duela ezkondu gabe, etabar, horri buruz isilik dago.

Julien Vinson aipa dezagun orain. Euskarari eta Euskal Herriari buruz, ari diren jakintsunen artean, izan daitezen kanpokoak ala Euskaldunak, bakarra Vinson da *Ramuntcho* -ren gainean kritika artikulua bat argitaratzeari lo-tzen dena: *L'Avenir des Pyrénées* aldizkarian, urtarrilaren 11-an agertzen den alean eta ondoko asteko alean emaiten du segida. Vinson-ek ez du batere gos-tukoa *Ramuntcho* :

“La presse a loué ce livre presque à l’unanimité et, pourtant, c’est sans aucune hésitation qu’après l’avoir lu, relu, analysé la plume à la main, je le déclare nettement mauvais, à tous points de vue: forme et style, sujet et couleur locale enfin. Le sujet du roman est parfaitement dépourvu d’intérêt; l’invention est médiocre.”

Hara, haste-hastetik dena errana da.

Bestalde, ainitz gauza xehe badu altxaturik: Loti-k frantses hizkuntzari emaiten dizkion ostikoak, hala nola asmatzen dituen neologismoak edo erabiltzen duen sintaxia hanpatuegia. Hori, sobera zaio Akademiko batentzat ! Funtsezko kritikak ere baditu halarik ere eta zorrotzera, gertakari nagusiak berak, Euskal Herrian ez daitezkeela gerta erraiten dio deplauki idazle fama-tuari, hots Euskaldunen psikologia ez duela ezagutzen eta horren arrazoina emaiten du erranez:

“On a dit que la couleur locale était l’un des principaux mérites de *Ramuntcho*. La couleur locale y est au contraire presque toujours fausse. (...) Il est manifeste qu’il (Loti) n’a jamais parcouru, qu’il n’a jamais étudié le pays basque. Il a dîné dans quelques “bonnes” mai-sons (*eta hemen Abbadiako jauregia heldu da gogora*), il a fait quelques excursions en voiture, il a assisté à quelques fêtes locales; il a griffonné à la hâte des notes incomplètes sur son carnet de poche, il a demandé à quelque hôte complaisant des indications rapides.”

Beraz, Vinson-en ustez, Loti-k gainez gain kurritua eta ikertua du Euskal Herria. Gainera Dibildos-ek preziatu duen arkaismoa ez du batere gustukoa Vinson-ek. Loti-k diolarik jendeak eta bizi moldeak lehen bezala, aspaldiko denboretan bezala daudela beti, Vinson-ek dio ezetz:

“Hélas! Même dans le Pays basque, la loi du progrès suit son cours inflexible.” Eta Loti-ri buruzko erasoa segitzen du erranez: “Est-ce à un membre de l’Académie, à un des régisseurs officiels de la littérature de prêcher ce ridicule conservatisme dans un style à l’excès révolutionnaire ?” Auzi hortan ageri da Vinson-ek eta Loti-k ideien aldetik zuten eztabaida, lehena ezkerrekoa zelarik eta bestea, kontser-badorea. Halarik ere, interesgarria da ikustea Vinson-ek, Dibildos Euskalduna baino kritika zorrotzagoa egiten diola Loti-ri.

Dibildos eta Julien Vinson-*ez gain*, ez da ikerketa zehatzik atxemaiten ahal *Ramuntcho* -ri buruz. Beste bi aipamen labur aurkitu ditut. Lehena, Gratien Adema, “Zalduby” poetaren lumatik. *Eskualduna* astekarian, 1899ean, zatika agerrarazi zuen euskal poesiari buruz saiakera luze bat, *Art poétique basque* deitu zuena. Hortan, besteak beste, Urruñako Euskal Bestetan 1898-*can saristatua izan zen olerkia aztertzen du. Irrintzina bat mendian* deitzen da, J. Barbier-*k* egina. Kritika hortan bi gauza guziz interesgarri erraiten ditu :

“*Irrintzina bat mendian...* le choix seul fait honneur à l’auteur de la pièce. Voilà qui est digne d’inspirer un poète basque, comme il avait déjà inspiré le prestigieux prosateur français, M. Loti, dans son *Ramuntcho*.”

Comme hors-d’œuvre dans le cours de cette étude, nous ne pouvons résister au plaisir de citer ici même la page de l’académicien admirateur des Basques”. Eta ondotik, heldu da irrintzinaren deskribapen famatua Loti-*k* egina eleberrian: “ Et c’est simplement l’Irrintzina, le grand cri basque, qui s’est transmis avec fidélité du fond de l’abîme des âges...”

Eta Zalduby-*k* segitzen du erranez:

“Oh que cela est ingénieusement imaginé, et merveilleusement décrit en prose française ! mais aussi combien cela méritait d’être reproduit dans notre bel idiome euskarien !

Le poète basque de l’*Irrintzina* a été très heureux dans les détails poétiques dont il a encadré cette perle trouvée dans *Ramuntcho...*”.

Beraz, bi erakaspen interesgarri badira ohar horietan: alde batetik, Zalduby-*k* ontzat emaiten du hortan Pierre Loti-*k* eskaintzen duen irrintzinari buruzko ikuspegia, eta azpian den Euskaldunen arkaismoa. Bigarren gauza, eredu gisa hartzen ahal dela *Ramuntcho* sorkuntza mailan, Barbier-*k* egin duen bezala, baita ere euskal poesiarentzat iturburu emankorra bilakatzen ahal dela kanpotik heldu zaigun ikuspegia, kanpokoek Euskaldunari eskaintzen dioten miraila. Bainan, azterketa berean aitortzen du kopia ez dela oraino heldu ereduaren heinera.

Bigarren aipamena oraino murriztagoa da eta nolabait erraiteko ezezko-rragoa. 1903-*an*, J. Hiriart-Urruty-*k* Pierre Broussain-*i* igortzen dion gutun batean aurkitzen da.

Jean Etchepare-*k* mirikuak *Eskualduna* astekarian agertu duen artikulu bati buruz ari da. Lerro horietan, Etchepare-*k* Donapaleuko Euskal pestak ditu azter gai, eta etxeratekoan aditzen duen irrintzin baten aipatzeko, Hiriart-

Urruty harritzen eta kexarazten duten “ateraldi lerrakor” batzu idazten ditu. Eta Hiriart-Urruty-k erraiten dio Broussain-i : “Orotako handienetarik biga, guziz bat, irrintzina = hennissement de la femme violée” (Etcheparek idazten du: “irrintzina... basa ihiziaren, emazte bortxatuaren marruma airos lazgarri hura”) eta Hiriart-Urruty-k segitzen du erranez... “Loti edo nik dakit noren burutikako perttolikeria”... Lerro horietarik garbi ageri da, Loti eta *Ramuntcho* ez zituela gustukoak *Eskualduna* astekariaren idazkari nagusiak eta ulertu behar da ere liburu horren eragina ezagun zela euskal idazle hezgaitez zonbeiten baitan.

Zonbeit urte berantago, 1925-ean, *Gure Herria* aldizkarian, Laurent ApesteGuy-k bestalde eman duen mintzaldi baten testua argitaratzen du: “L’âme basque et la littérature actuelle”. Eta hortan, aipamen luze bat emaiten du *Ramuntcho*- ri buruz:

“A tout seigneur, tout honneur et il faut saluer d’abord les 230 éditions de *Ramuntcho* par Pierre Loti. Tout le monde a lu *Ramuntcho* ou du moins croit l’avoir lu à force d’en entendre parler. Ce livre a fait école, il est encore inlassablement imité. Son immense succès, la célébrité de son auteur, la beauté et le coloris de son style, le charme très prenant de ses descriptions, que l’on sent exactes, avec en plus “ce je ne sais quoi, comme dit Veuillot, que “l’on s’est accoutumé à appeler poésie”, n’ont pas peu contribué à faire du Pays basque un pays à la mode, une sorte de curiosité littéraire, sans manquer aux règles de la distinction”.

Beraz, ApesteGuy-k ere ontzat, ikuspegi argi eta edertzat emaiten du Lotirena, Dibildos-en gisan eta hori denboraren buruan, behar den gibelatzapenarekin. Bainan, Dibildos bezala ere, horrela segitzen du:

“A notre modeste point de vue, qu’il nous suffise de dire que Loti n’a nullement saisi l’âme basque, et qu’il n’était nullement qualifié pour le faire”.

Hots, ikuspegi eder bat Euskal herriari buruz, bainan axalezkoa ezin bestean, Loti Eskualduna ez zelakotz. Eta hain zuzen, Eskualduna ez zelakotz, ApesteGuy-k dio ez zuela ulertzen ahal hemengo jendeen psikologia eta batez ere duten fede xehe bainan azkarra. Kontutan hartu behar da, ApesteGuy Dibildots bezala eliza-gizona zela. Eta horrela bururatzen du bere aipamena:

“Peintre merveilleux de notre Pays, Loti s’est heurté au seuil fermé de notre âme”.

Gai horrekin bururatzeko, bi gauza behar dira argitan utzi:

- Alde batetik, ApesteGuy-k dion bezala, “*Ramuntcho a fait école*”. Hortan ez da dudarik. Euskaraz ari izan diren idazleak edo euskal instituzioen baitan lanean arizan direnak ditugu ardurenean gogoan. Bainan, jakin behar da, idazle gehiago aurkitzen dela Euskal munduan, hots erdaraz ari direnak. Bi gerla handien artean Euskal Herria guziz modan da “le roman basque” erraiten zaion azpi sail edo generoa eta horietarik hamabost bat liburu atxeman ditut, Loti-ren ildotik heldu direnak. Frantsesez idatziak dira: besteak beste aipa ditzagun Auguste Fourcade-n *Contes du Labourd* (1910), eta *La Nuit étoilée* (1922) Pierre Lhande-n aintzin solas batekin. F. Jammes *Cloches pour deux mariages* (1923). Mayi Elissague-n eleberri motzak: *Silhouettes basques*, *Simple histoire basque* edo oraino *Escualdunak*, André Geiger-en *Mai, la Basquaise*, Pierre ApesteGuy-k idatzi dituen *Cœurs basques* (1933) eta *Gachucha* (1934). Eta bada gehiago oraino. Horien baitan, *Ramuntcho*-ren eragina argi ta garbi ageri da.

Bainan, nik uste dut, hastapenean aipatzen nituen euskal idazle gazte horien baitan ere eragin zerbait izan dela. Ez dakit xuxen zer izan den *Ramuntcho* idazle horientzat: eredu, ispilu edo berdin, kontrako. Bainan, badirudi, hor nunbait, funtsezko tokia izan duela. Etcheparek miraila horri on guzia hartzen dio bainan urrunago joateko, barnago, Loti-ren baitan iraganari lotua den ikuspegi ezezkor batetik euskal nortasun berritu eta baikor bati buruz joateko, erran nezake. Barbier-k, hark bietarik egiten du : alde batetik eredu bezala hartzen du *Piarres* eleberriaren hainbat zatitan eta, bestaldetik, gauza frango baztertzen du bereziki pertsonaien alde psikologikoa lantzen duelarik edo sinesteak eta bizi moldeak erakusten dituelarik.

Lhande-k aldiz, ez du batere gustukoa eta badirudi haren kontra joateko idatzi duela. Hots, XIX-garren mende ondarreko eta XX-garren mende hastapeneko jakintsunek hedatu zuten ikuspegiaren aurka hasi da idazten, eta beraz *Ramuntcho*-ren aurka ere onartzen baldin bada eleberria ikuspegi horren sintesia dela. Iritzi horren ikusteko, huna zer dion *La nuit étoilée*, Auguste Fourcade-n liburu baten aintzin solasean:

“Encore un roman sur le pays basque...” me disais-je avec mélancolie. “Encore une de ces œuvres où, parmi les descriptions des couchers de soleil derrière la Rhune ou Socoa, parmi les scènes de contrebande ou des parties de pelote, éclatera crûment cette méconnaissance profonde du caractère, de la mentalité, de l’âme de notre race, qui nous écœure et nous révolte. Un pastiche plus ou moins bien troussé de *Ramuntcho* ; du pittoresque, du superficiel...”

Bururatzeko erran daiteke, XX-garren mende hastapen hortan, salbuespen bat edo beste kenduz, *Ramuntcho*-ren ekarpena ez dela eztabaidatua izan.

Bazterren aldetik eta gizarte mailako harremanei buruz finkatzen duen iruditegia den bezala onartzen dute Euskaldun gehienek. Bainan, mintzatzeko eskubidea ukatzen diote psikologiaren sailean sartzen delarik eta euskal ari-maren gora beherak aipatzen dituelarik.

EUSKAL LITERATURA MODERNOAREN SORRERA POSTKOLONIAL ETA GAYAZ ANTON ABBADIEREN EKARPENA BIRPENTSATUZ¹

J. Gabilondo

BARNE KOLONIALISMOA ETA GALERA INPERIALISTEN ORDEZKAKETA EUSKALDUNA

Franz Fanon, Angel Rama eta Edward Said-en lan maisuez gero ikasi dugu mendebaldeko inperialismoa eta kolonialismoa ez direla soilik gertakari historikoak ondorio ekonomiko eta politiko garbi baina mugatuak izan dituztenak. Hiru autoreok aztertu dituzte inperialismoaren metamorfosiak, hala nola arraza, hiri letratua eta orientalismoa, eta ondorioz zehazki establezitu dute inperialismoa eta kolonialismoa eraikuntza diskurtsibo eta linguistikoak direla, alegia gizarte sorkuntzak direla, hizkuntza, idazketa eta giza ihardun oro ukitzen dituztenak inperio-kolonia banaketaren alde bietan. Hala, inperialismoaren eraketa diskurtsiboa teorizatzerakoan, Michel Foucault-en lana giltzarri suertatu da, izan ere beronek azpimarratu du zehazkien jakintza eta botere arteko uztarketa. Hala, autore guzti hauen ekarpenari esker orain bada-kigu inperialismoa eta kolonialismoa era bereziak direla kulturaren esparruan jakintza eta boterea egituratzeko.

Hala ere, goiko autoreon kasuan inperialismoaren banaketa geografikoak—inperioa eta kolonia—ondo kontenituta eta berezitatea azaltzen zaizkigu.

¹ Lana hau jatorrizko ingelesezkoaren euskal itzulpena da. Nire eskerrak eman nahiko nizkieke, beren laguntzarengatik, honako jaun eta andereoi: Joseba Zulaika, Patri Urkizu, Marijose Olaziregi, Iñigo Sagarazu.

Ondorioz, inperioa beti ere mendebalde barruan dautza eta koloniak aitzitik kanpoan, Europatik at. Jakina, lehen momentu batean banaketa honi eusteak bidezko eta logiko dirudi, izan ere efektu bortitzak eta krudelak izan ditu kolonietan, independentzia prozesuak amaitu eta gero ere. Halere, ez da ikerketa handirik erretorika kolonialistak mendebalde barnean izan dituen desplegu berriez. Hainbat kritikok azpimarratu dute, mendebaldeko zenbait taldek, hala nola langileria eta emakumeak, orientalizadorik amaitzen dutela kulturari (McClintock). Baina, herrialde oso bat mendebalde barnean eta kolonialismoaren egitura diskurtsiboen arabera eratzearen posibilitatea—adibidez nolabaiteko barne-orientalismo baten arabera—pentsaezina edota imajinaezina lirudiguke lehen momentu batean. Halako eraketa batek bere lekua mugaturik izan beharko luke parke botaniko, zoologiko eta museotara—hiru instituzio hauek baitute funtzioa kolonia metropoli inperialistara ekarri eta bertan espektakulu ikusgarri bezala azaltzeko. Oriente barneko edota domestiko bat, mendebalde barnean topa genezakeena, ez dirudike posibilitate diskurtsibo eta politikoa. Ironikoki, banpiro literatura da horrelako pentsamolde batetik gertuen dagoen kasua. Ken Gelder-ek eta Stephen D. Arata-k, fin-de-siècle-ko banpiro literatura eta beronen lotura Transilbaniarekin aztertzen dutenean, “reversed colonialism” edota “kolonialismo alderantzizkoa” iradokitzen dute literatura honen gunetzat, izan ere literatura honetan banpiroa bihurtzen da figura koloniala, subjektu inperialista “jan” dezakeena. Alabaina, kasu honetan ere, Transilbania espazio edo lurralde liminal bihurtzen da, inperio eta kolonien tartean. Transilbania ez dautza mendebalde barnean kokaturik. Beraz banpiro literatura ere azken finean ez zaigu lagungarri pentsabide berri honetan.

Halere, mendebalde barnean diskurtso kolonialaren arabera eratutako lurralde baten hipotesi prezedentegabea adoptatzen badugu, demagun orientalismoaren erretorikaren arabera, Euskalerrria modernoaren kasua, eta bereziki bere kultura eta literaturarena, oso perspektiba diferente batean azaltzen zaizkigu. Izan ere kolonialismoaren eta inperialismoaren ihardunak giltzarri dira, hemeretzigarren mendeko pertsonaia euskaldunik interesgarrienetako bat eta bere eragin kultural fundazionala ulertzeko. Jakina, pertsonaia hau Anton Abbadie (1810-97) dugu, gerora, euskal kulturaren suspertze eta promozioan pertsonaia giltzarri bihurtu zena. Euskal irakurlegoaren gehiengo batek ez dakiena, alabaina, zera da, Abbadie bere bizitzaren lehenengo erdian Niloaren iturrien bilaketan murgildurik ibili zela, hain zuzen inperialismo britainiarraren amets eta desira giltzarriaren atzetik. Jatorriz irlandarra dugun euskaldun honek bizitza erdi eman zuen Etiopia—edota Abisinia, orduan zioten bezala—esploratzen eta dokumentatzen. Baina azkenean, Abbadie Euskal Herrian errotu zen eta, gaztelu itzel eta zoragarri bat eraiki eta gero, bere

bizitzaren bigarren erdia euskal kultura suspertzen eman zuen—ikasketa kolonialei erabat gibel eman ez bazien ere. Etiopia eta Euskalerrriaren artean hedatu zen bizitza honen ondorioz, Abbadiek, besteren artean, Amarinna hizkuntza etiopiarren hiztegi bat burutu zuen, hain zuzen geroago Arthur Rimbaud-ek berak erabiliko zuena Etiopian egin zituen inkurtsioetan bertako natiboekin komunikatzeko.

Hala, hemen interesatzen nauena hain zuzen Abbadiren trantsizio hau da—Etiopiatik Euskalerrira. Izan ere desplazamendu hau kontsidera dezakegu euskal kultura eta literatura modernoaren abiapuntu eta sorrera: ihardun kolonial batetik, mendebaldetik *kanpo*, oraindik ere definitugabe eta pentsaezina ematen duen beste ihardun kolonial berri batera, mendebalde *barnean*. Ondorioz, lan honetan, goiko trantsizio geopolitiko eta kultural honek Abbadiren bizitzan izan zuen garrantzia kontutan harturik, azterketa zehatzak eta ondorio garbiak burutu beharrean, euskal literatura eta kultura era berrian aztertzen lagunduko diguten galderak egingo ditut ikerbide berriak urratu asmoz.

Galderak ugari dira. Abbadiek prezedenterik gabeko jarraitasunean Etiopiako ihardun kolonialista Euskalerrira hedatu al zuen? Hala balitz, irudika al dezakegu Euskalerrria mendebalde barneko Etiopiatzat? Galdera hauek, ikus daitekeen bezala, oso perspektiba desberdina damaiote euskal kultura eta literatura modernoaren teorizazioari. Are, galderak oraindik desafiagarriagoak izan daitezke: Euskal literatura logika kolonialista baten ekoizpen al da? Euskal kultura inperialismoaren efektu bitxia dukegu? Modernitatean sartzen galerarik, euskaldunok kolonialismoaren esparruan kokatzen al ditugu gure buruak, mendebalde barnean diraugularik? Nola ulertu kokagune kontraesankor hau?

Oraindik ere galdera zentralago bat egin nahiko nuke, goiko galdera hauek egituratzeko. Baina galdera hau egin aurretik, zenbait datu mahairatu nahiko nituzke. Nahiz eta Abbadiek Chao-rekin kolaboratu 1836an euskal gramatika batean, hots, Etiopiarako irteera baino lehen, euskal gaietara bere ekimena zuzendu zuen soilik Etiopiako hamabi urteko bidaiatik (1837-49) itzuli zenean. Izan ere Abbadie Euskalerrira itzuli zen nazioarteko komunitate zientifikoak konkluditu zuenean bere aitzindaritzza ez zela bermagarria Niloaren iturrien idorokundean. Alegia, Abbadiek bere atentzio guztia Euskalerrira zuzendu zuen bakarrik bere kontribuzio kolonialista nagusia galduta zegoela konturatu zenean. Bestela esanda, Euskalerrria Abbadirentzat interes eta desirazko objektu bihurtu zen, bere objektu eta jaugin kolonialista diskurtsiboa—Niloaren iturrien idorokundea— galdu zuenean. Beraz guzti hau kontuan hartuta, zera itaun egin nahiko nuke: Euskalerrria, bere kultura eta literatura, galera kolonial baten konpentsaziozko objektu bihurtu al zen

Abbadiren eskutan? Finean zera galdetu nahi dut: euskal literatura galera kolonialista diskurtsibo baten konpentsazio edota ordezkapen al dugu?

Oraindik galderak ugal daitezke, aurreko galera horretan beste konponente anekdotikoago baina era berean garrantzitsua etsaminatzen badugu. Abbadiren zeregin kolonialista eta diskurtsiboak badu osagarri edota alderdi subjektibo eta sexuala. Frantziarako itzulera, Abbadien zenbait subjektu etiopiar ekarri zituen berarekin. Bat, besteren artean, giltzarri bihurtu zen goian aipatutako truke kolonialistan. Historiari gehienek izen propioz aipatzen duten subjektu etiopiar bakarrak ari naiz, alegia anomia koloniala eskapatu duen bakarra: Adula, sei urte zituen esklaboa, Gala tribuko erregeak Abbadiari oparitutakoa hain zuzen. Adula hamazazpi urte bete zituen arte Abbadiarekin bizi izan zen. Abbadiarekin egin zuen bizitzan, mutil-lagun bezala lagundu zion bere bidaietan eta Euskalerrira itzultitakoan ere zenbait urtez bertan bizi izan zen Abbadiarekin—kronologia zehatza ez dago oraindik estableziturik. Hamazazpi urte zituelarik, Adulak haserrealdi bat izan zuen Abbadiarekin eta azkenean abandonatu egin zuen, hala, Abbadiren galera kolonialari aurpegi eta itxura oso konkretua emanaz, hain zuzen geroago Abbadien bere gatzeluan perpetuatuko zuena Adularen eskultura eraikitzean. Oraindik ere puntu hau erabat zehazturik ez badago ere, eta oraingoz erreferentziak tradizio oraletik badatoz ere, badirudi bi gizonen arteko erlazioa oso berezia zela, agian sexuala iristeko punturaino. Dena den kontuan har dezagun garai haietan Verlaine eta Rimbauden artean ere, demagun, antzerako erlazioa izan zela eta beraz ez dela hemen inongo eskandalurik sortu beharrik. Hemeretzigarren mendeko pertsonaia ezohizkoen bizitzan gertakari sorpresagabea dukegu. Genealogia honetan bertan, aurrerago Valerie edota Proustek izango duten garrantzia aipatzea baino ez dugu. Beraz eta Abbadiren kasura itzulirik, eta oraindik ere dokumenturik topatu ez badugu ere puntu hau erabat frogatzeko edota ezeztatzeko, behintzat garbi dago Abbadien 1859-an bakarrik ezkondu zela, alegia 49 urte zituela, eta hain zuzen Adulak alde egin eta gero. Hala, Abbadiren ezkontza, 28 urteko Virginie Vincent de Saint-Bonnet emakume frantsesarekin, interpreta dezakegu Adularen galeraren ordezkapentzat. Patri Urkizu eta Iñigo Sagarzazu jaunek emandako informazioaren arabera—Abbadiren bizitzaren ikerlerik jakitunenak— Vincent de Saint-Bonnet anderea Abbadiren anaiarekin, Arnaudekin, maitemindurik zegoen, eta beraz Antonekiko ezkontza komenientziazkoa zen. Are, ezkontza honek ez zuen umerik izan. Gainera garrantzitsua da gogoratzea, Abbadien erdi-itsu suertatu zela Etiopian begi bat galdu zuenean, eta beraz alde batetik itsumutil baten laguntza beharko zuela, hala nola Adula, eta bestetik emaztegaia aukeratzean ere ez zuela ikusmen handirik izango.

Hala, galera kolonialaren jatorrizko ekuazioari dimentsio sexual aipatu-berria gehitzen badiogu, honako galdera hau egitera atrebituko nintzateke: Adularen eskultura al dugu, galera eta ordezkaketa bat simultaneoki errepre-
sentatuz, literatura eta kultura euskaldunaren azken enblema eta figurarik zentralena? Galdaketa honen ondotik azpimarratu nahiko nuke, Fanon, Rama eta Said-en lanek itzuli pertinente bezain eraginkorra dutela euskal kultura eta literatura aztertzerakoan. Hala, goiko galdaketa saioa laburbildu nahiko nuke honako galdera azken hau eginez: *euskal kultura eta literatura imajinazio eta artikulazio kolonial eta gay baten ondorio postkolonial al dira?* Alegia, Adularen absentiaren jarraipen al gara?

LOGIKA IMPERIALISTA ETA TURISMOA

Aurreko galderan “imajinazio” hitza txertatu dut, eta agian esperogabe-ko kritiko batek lagun diezaguke imajinazio kolonialista hori historizatzen: Jon Juaristi. Chao-ren bizitza eztabaidatzean, hain zuzen Abbadiren lankide eta lagun zena euskal literaturaren sorketan, Juaristik defendatzen du Chao giltzarri izan zela Euskalerra mota oso espezifikoa sortzen, hain zuzen turis-
mo frantsesari zuzendutako Euskalerra. Juaristik jarraitzen du aldarrikatuz asmaketa honek Chao inpostore bihurtzen duela. Ondorioz eta beti ere Juaristiren arabera, Chao dukegu lehenengo abertzale erradikala, irrazional-
tasun eta itsutasunek markatutako euskal genealogia abertzale luzean, hain zuzen hogeigarren mendean ETA-ren sorketara eramango gaituena. Halere, Juaristiren eta Abbadiren nere birkontestualizazioak frogatuko duen bezala, hemen Juaristik aldarrikatutako “historia de nacionalistas” izan beharrean, “historia de imperialistas” dugu, hain zuzen dekadentzia eta galera inperialis-
tak markatua.

Halere, Juaristiren lana beharrezkoa bezain garrantzitsua dugu puntu honetan. Inperialismoaren auzia aipatzen ez badu ere, Juaristik iradokitzen du inperialismoak Euskalerrian izandako efektua. Juaristik maisukiro adierazten duen bezala, momentu hau da inperialismo frantses eta espainolen beheraka-
da markatzen duena Errestorazio Europarrean: Napoleonen desagertpena, Frantziaren arazoak Algerian, kolonia latinamerikarren emantzipazioa, eta abar. Labur esanda, momentu honetan inperio biak galera kolonialak marka-
tzen ditu. Momentu honetan eta Juaristik dioen bezala, bi inperioek “kolonia barneko edo domestiko” bat topatzen dute, hain zuzen kolonia domestikatu bat, esploratu beharrean turistakiro bisita daitekeena:

“El País Vasco se convirtió así en la utopía de la España conservadora. La burguesía isabelina *descubrió* Vasconia como una tierra de paisajes verdes y costumbres patriarcales, muy adecuada para pasar el verano.... Los vascos, que, como he dicho, habitaban un país pobre en recursos, intuyeron pronto que los pocos de que disponían—montes, playas, manantiales, lengua y costumbres misteriosas—podían ser razonablemente aplicados a la explotación de una nueva fuente de riqueza que sustituiría con ventaja a la deficitaria agricultura y a la siempre insegura protoindustria del hierro: el turismo.

En esto, los vascofranceses tomaron la delantera. Las gentes distinguidas de París comenzaron a acudir a las playas vascas en los primeros años del siglo XIX (fue el mismísimo emperador Napoleón quien inauguró, en junio de 1808, la primera temporada de baños en la playa de Biarritz).... a comienzos de la Restauración europea, aristócratas ingleses y franceses se hicieron construir elegantes mansiones en Biarritz y otros pueblos de la costa vasca.” (60-1)

Juaristik argi eta garbi uzten du faszinazio frantsesa bere barneko “beste” (other / autre) euskaldunarekiko, Espainiako kasuan ez bezala, Frantziako predominantziarekin eta Napoleonen altxaketarekin hasten dela. Napoleonen porrota eta gero ere, Espainia oraindik ere oso lanpetuta zegoen barneko “beste” historiko bat gudukatzen, hain zuzen karlisten deiadarrarekin oso subjektu beligerantea bihurtu zena: euskal karlismoa. Alabaina, gerra karlistak amaitu ondoan eta Errestorazio Europarra kontsolidatu ahala, Euskalerrria barneko “beste” bihurtu zen bai Frantziarentzat zein Espainiarentzat, bi nazioetako burgesia eta aristokrazien imajinazio postinperialistak antzeratsu mobilizatu zituen. Alegia Euskalerrria “beste” bihurtu zen, bi herri inperialistek galera eta dekadentzia koloniala errealitate politiko nagusitzat ezagutu zutenean. Puntu honetara ailegatutakoan Juaristik berregituratu egiten du bere genealogia, alegia Euskalerrria Europa hego-mendebaldeko galera kolonialaren objektu konpentsazional bihurtzen duen genealogia:

“Si además los sencillos habitantes del país [Euskalerrria]—en quienes no se reconocía ya al temible faccioso armado de fusil de chispa—hablaban en un incomprensible idioma que todavía algunos tenían por el mismo que se escuchó en las soledades del Paraíso Terrenal... mejor que mejor. La burguesía isabelina no estaba inquieta, como la victoriana, por encontrar las fuentes del Nilo. No roía sus almas el implacable *spleen* que impulsaba a los ingleses a escapar a cualquier parte, siempre que fuera lo más lejos posible de casa. *¿Para qué perder el tiempo buscando al doctor Livingstone si uno puede vivir sin riesgo*

la experiencia del exotismo a pocas leguas de su domicilio?
(60-1, nere azpimarkaketa)

Nahiz eta Abbadie zentralagoa izan, Chao baino, Euskalerrria galera inperialista baten objektu konpentsatzional bihurtzen, argi dago asmaketa honek zerbitu ziela bai Euskalerrriari zein burgesia frantziar-espainiarrei, bi alderdientzako onuragarria izango zen itun edo akordio sinboliko eta ekonomikoa lortzen. Euskaldunek indar ekonomiko berria lortuko zuten, turismoari esker, eta burgesia frantses eta espainiarrek beren desirazko objektu perfektua aurkituko zuten, alegia beren galera inperialista sinbolikoki konpentsatuko zuena: Euskalerrria. Bestela esanda, Euskalerrriak galdutako kolonia frantses eta espainiarren parte egingo luke, bien bitartean transakzioaren alderdi ekonomikotik zetozen etekinak jasoz—turismoa. Konpentsazio inperialista hau dautza hain zuzen Europa hego-mendebaldeko turismo euskaldunaren sarre-ran.

Testuinguru orokor honetatik berriro ere hurbil gaitzke Abbadierena, Chaorena baino gehiago, eta konkluditu euskal literatura eta kulturaren jatorrian ez dugula “historia de nacionalistas” bat, zeinetan Chao genukeen inpostorerik lehen eta garrantzitsuena—Juaristik nahiko lukeen bezala. Aitzitik, “historia de imperialistas” bat dakusagu non inperialismo espainiar eta frantsesen imajinazioek Euskalerrrian topatzen duten beren galera kolonialen ordezkoko objektua.

Nahiz eta abertzaletasun euskaldunaren sorkuntza tangenziala den nere aurkezpen honetan, hala ere, eta Juaristiren aurka, nahiko nuke azaltzea ezarrian-ezarian Euskalerrriak eta bertako zenbait klasek imajinazio inperialistaren ordezkapen frantses-espainiarren objektua bereganatuko dutela beren behar eta erabilera politiko eta kulturaletako. Preziski, goiko logika inperialistaren bereganatze lokala bihurtuko da euskal abertzaletasunaren oinarri diskurtsi-boa. Beste hitzetan esanda, azpimarratu nahi dut zera, euskal kultura eta nor-tasuna modernoaren gunean, galera inperialista bat kausitzen dugula, logika eta historia inperialista baten iharduna.

AIPATUTAKO LANAK

ABBADIE, A. 1997. *Antoine d'Abbadie*. 2. lib. *Recueil de textes, ethnographiques, géodésiques, linguistiques, littéraires*. Ed. Patri Urkizu. Euskaltzaindia, Donostia: Eusko Ikaskuntza. Bilbao.

ARATA, S. D. 1990. "The Occidental Tourist: *Dracula* and the Anxiety of Reverse Colonisation." *Victorian Studies*, 621-45.

FANON, F. 1989. *Black Skin, White Masks*. Grove, Atlantic. New York.

GELDER, K. *Reading the Vampire*. Routledge, 1994. New York.

JUARISTI, J. 2000. *El bucle melancólico : historias de nacionalistas vascos*. Espasa Calpe, Madrid.

MCCLINTOCK, A. 1995. *Imperial Leather: Race, Gender, and Sexuality in the Colonial Conquest*. Routledge. New York.

RAMA, A. 1996. *The Lettered City*. Durham, NC: Duke University Press.

SAGARZAZU, I. 1995. *Abbadie*. Oyhenia. Hondarribia.

SAID, E. 1978. *Orientalism*. Pantheon Books, New York.

ESANGURAREN ERAIKUNTZA EUSKAL ATSOTITZETAN: LINGUISTIKA KOGNITIBOAREN EKARRIA LITERATURAREN AZTERKETARAKO¹

K. J. Garai

1. LINGUISTIKA KOGNITIBOA ETA LITERATURAREN IKERKETA

Berbaldi honen bertzio bat Londresen irakurri nuen 2000 urteko uztailean *Institute of Basque Studies*ek antolatu zuen symposiumean². Hango hartan entzuleria batez ere linguistez osatua zegoen eta behingo batean eutsi nion gaiari, jendea adi eta egarriz ari baitzen hitzaldiari jara ematen, Ameriketatik nekarren teoriaren berriagatik eta teoria horrek bazterretan sortu dituen itxaropenengatik. Gainera, itxura batean ni iturri dokumentatua omen nintzen Mark Turnerren ikaslea nintzenez gero. Ordukoan nire hitzaldiaren eginbeharra hauxe izan zen: atsotitzen esanguraren eraikuntzan parte hartzen duten jarduera kognitibo zenbait deskribatzea.

Oraingo honetan berriz, usteak eman zidan entzuleriaren nolakotasunak eta hitzaldiari jarri diodan bigarren zatikiak behartzen nindutela, hasieran behintzat, bestelakoak agertzera. Entzuleriari nagokiola, argi da literaturan adituek osatua dela, eta izenburuaren bigarren zatikiak “linguistika kognitiboaren ekarria literaturaren azterketari” dio. Beraz begitandu zait lehengo eta behin azaldu behar dudala zein izan daitekeen linguistika kognitibotik literatura ikertzeko planteamendu orokorra.

¹ Eskerrak luzatu gura dizkiet Euskaltzaindiari eta IKER talde bikainari, gonbidatu naute-lako.

² First International Symposium of the Institute of Basque Studies, London-Guildhall University. July 2000. URL: <http://ibs.lgu.ac.uk/page 4.html>

Mark Turnerrek 1991ean giza ikasketei edo Humanitateei buruzko ikus-kerak aldatzeko proposamena egin zigun, edo behintzat hizkuntza eta literaturari dagozkion humanitateen adarra aldatzeko proposamena, literatura eta hizkuntza giza ezagueran edo kognizioan oinarritzeko proposamena. Turnerrek dio literatur ikasketak zatikaturik eta mundutik isolaturik daudela, eta ondorioz gabeak direla, jende ikasiaren “Disney World” pribatua esatea legez, eta liburu horretan aztertzen du zergatik jausi diren gaur egun duten maila periferiko edo bazterrekoetara. Denok dakigu gizarteak gaur egun literaturaz duen ikuskeraren arabera literaturak bakarrik balio duela boterearen diskurtsoari prestigioa emateko, eta horrela kritikarien lana idazleen kanonizazioarekin lotzen dela, horrek dakartzan kanonaren eta kanon alternatiboen eraikuntza guztiekin. Alabaina literatur kritikak gizakiaren munduarekiko oinarria galdu duen arren, hau da, erudituen olgetzat hartzen den arren, bere azter objektuak diren hizkuntza ekintzak eta literatur ekintzak benetan, bete-betean eta ondo sendo daude oinarriturik gizakiaren munduan, hain zuzen giza gogoaren jardunean oinarrituta dauden aldetik. Hala da ezen Turnerrek Ingelesaren profesiorako, gure kasuan euskeraren profesiorako, oinarri bakarra proposatu nahi duela: hizkuntza ekintzak aztertzea, hizkuntza ekintzek literatur ekintzak bere baitan hartzen dituelarik; baina hizkuntza ekintzak diren literatur ekintza horiek giza burmuinaren ekintzak dira, eta giza gorputzean eta giza ingurunean mamituak dira, gainera giza ingurune hori giza burmuinak ulergarri bihurtu behar du aurrera egiteko bada. Bestela esanda giza burmuina giza gorputzean egoteak ezaguera edo kognizioa baldintzatu du, eta ezaguera giza ingurunean gertatu behar da.²

² Egia da Euskal Herrian hizkuntza ikerketak eta filologia nahastu ohi izan direla, eta egia da, halaber, literatur kritikariek oraintxe ari garela filologiatik geure eskukotasuna lortzen. Kautan erabil dezagun, dena den, filologiaren eginkizuna testuak ezartzea dela, eta horretarako ondo datozkiola hainbat diziplinako ezagutzak izatea, hala nola, dialektologia, erretrika (azken hau, gurean behintzat, ahaztuxea dagoen arren), hizkuntzaren historia eta, nola ez, literaturaren historia, besteak beste. Hemendik zabaldu dira filologoak leku guztietara, eta unibertsitateak ere hala sinetsi du, bestela galdetu zeuon buruoi adibidez non ikasten den poeta izaten. Adibidez, Euskaltzaindiaren sailkapena Baionan ere oso esanguratsua izan zen: Gramatika alde batetik eta literatura bestetik. Argi dago terminorik espezifikoa zein den: gramatika. Are nahasgarriago suertatu zen hasieran Euskaltzainburuak erabili zuen “gramatikariak eta literaturzaleak” bereizketa. Hurrengo egunean, armozutan, beste linguistika unibertsitateko irakasle batek esan zidan gramatikariak literaturzaleak izan ohi direla, baina literaturzaleak ez omen garela gramatika zaleak. Noski nire erantzuna izan beharko zukeen, “beraz zuri ere gustatzen zaizu Judith Butler teoriko feministak zelan darabilen

1.1. Eguneroko hizkuntzaren literariotasuna

Baieztapen honetatik hasiko gara: giza gogo linguistikoa eta literarioa da, edo bestela esan, hizkuntza eta literatura giza gogoaren eguneroko ekoizpenak dira. Iruntzetara ere jar genezake baieztapen hau eta esan gure mundu honen ulermena egia arruntan edo leku komunaren sare kontzeptualean oinarritzen dela (*commonplace conceptual apparatus*ean), –garrantzia handikoa da leku komunak edo egia arruntak termino teknikitzat hartzea, hain zuzen erretorikarekin harremanetan jarri ahal izateko–. Beraz, literatura leku komunez edo egia arruntez egindako kontzeptu eta hizkuntz ahalmenen erakusgarririk gorenena litzateke. Honetara, literatura leku komunaren sare kontzeptualaren hedapena baino ez da. Literatura hizkuntzan bizi da, eta hizkuntza eguneroko bizitzan. Literaturaren ikerketak hizkuntzaren ikerketan bizi behar du, eta hizkuntzaren ikerketa eguneroko gogoaren ikerketaren baitan.

1.2. Linguistika kognitiboaz zerbait

1.2.1. Oinarriko Metafora kontzeptualak eguneroko hizkuntzan

Linguistika kognitiboaren mugimendua laurogeigarren hamarkadan hasi zen. Eta hasi zen metaforari so eginez, esanez metafora ez zela ez literarioa soilik ez arbitrarioa sortzez, ordea gure eguneroko hizkeran metaforak erabili ohi ditugula oharkabean. Baina oharkabean egote horrek ez dituela desmetaforizatzen; katakresiak ez dakarrela halabeharrez metaforaren desagerpena, metaforaz ez ohartzea baino. Hala da eze hizkuntzalariok heldu zirela erakustera zelan eguneroko hizkerak oinarriko metafora kontzeptualak dituen, zeintzuen bitartez hedapen semantikoa eta polisemia gertatzen diren. Hau da tes-

Foucaulten ikuspegia literatura aztertzeke” edota “esango zenuke beraz herrialde anglofonoetan ikasketa postkolonialet bete duten funtzio bera egin zuela gurean Ricoeurren hermeneutikaren ikuspegiak?, baina egoeraren arinak gibeleratu ninduen erantzun horietatik. Beraz, Euskalerriko filologiaren omnipresentzia horrek ez du ez berez filologiaren eginkizuna hedatzen ez goian esan dudana atzera botatzen. Dotrina bat zein euskalki (literario)tan dagoen idatzita aztertzeak ez du esan nahi ez hori bakarrik denik filologiak egin behar duena, ez eta dotrina hori bera ikuspegi literariotik aztertu ezin daitekeenik. Orain hasi behar ote gara Warren eta Welleken proposamena jasotzen, berrogei bat urte beranduago? Nire ustez auzia honetara argitzen da: zerk erabakitzen du diziplina, azter-objektuak ala azter-moduak? Adibide praktikoa batekin jarrita, nork aztertu behar du euskal foruaren argumentatzeko modua edo Juan Jose Mogelen sermoiek erakusten duten kurrikulua? Beste galdera bat: eraiki beharra ote dago euskal literaturaren historiako narrazio kate kanonikagarririk? Eta eraikiko den kate horretan ez ote gaude nahasten literatura bera, giza fakultate unibertsala den aldetik, literatur ekoizpen gutxi batzuen transmisioaren historiarekin?

tuinguru fisiko edo esperientziatzko batetik arlo abstraktuetara eramanez gertatzen da metafora. Halaxe erakusten dute honako adierazpideok, esaterako: “ez dut bat ere argi ikusten kontu hori,” edota “azalpen iluna eman zigun” edota “begi-bistakoa da”, edota Bermeoko kantan bezala “egije da...neuk ikusi dote-lakon”, edota “begiaz eta egiaz”, eta abar. Adierazpen guzti horien azpian dagoena JAKITEA IKUSTEA DA metafora dugu. Esan dudan legez, oinarriko metafora kontzeptualak eguneroko hizkuntzan erabili ohi ditugun kontzeptuen sarea sustatzen duten metaforak dira. Oinarriko metafora kontzeptualen azterketa Lakoff eta Johnsonen eskutik etorri zen (adibidez Lakoff 1993).

Azterketa egiterako metodologikoki bi arlo erabiltzen dira: “domain” (postulatzen ziren: sorburua eta xedea. Garai hartako paradigma teorikoan metafora honelaxe definitzen zen: sorburu batetik ateratako egitura eta topologiak jomuga edo xede batera proiektatzea. Proiektzio hori esparru diferentean gertatu behar zen. Halan esan nezake “Bilboko burtsa mariagora edo itsasgora dabil”; metafora horretan iturria edo sorburua itsasoa da eta xedea burtsa; itsasoak gora egiten du sei ordurik behin, eta burtsako akzioak garestitu egiten dira honenbestero; garestitze hori garaiera bezala ulertzen dugu kantitate altuera bezala ulertzen dugulako; gainera inplikazio batzuk ere badatoz sorburutik xedera, hots, burtsak isurkitasuna edo egonkortasunik gutxi izatea, edo behintzat akzioen balio gora eta behera ibiliko dela beti, eta holakoak. Kontura gaitezen izgoren prediktibilitatea ez dela BURTSA arlora proiektatuko; hau da, proiektzioa selektiboa da, xedeko irudi-eskema gorde behar baita *Aldaezintasunaren Printzipioaren* arabera (Lakoff 1993). Horrez gain, nire hizketakideak are gehiago gara lezake metafora, urrats bat aurrera eta erantzun “bai baina zure diru ttantta oraindik sikutan duzu” eta horrela esaten ditunik karuagotan erosi nituela ditudan akzio apurrak eta oraindik ez dudala dirua berreskuratzeko garaia, eta abar.³

Sorburua	Xedea
Itsasoa	Burtsa
Ur ttanttak	Akzioak
Mariagora	Akzioen garestitzea
Mariaren marra	Burtsako indizea

³ Nahi bada jar genezake adibide ez horren kreatiboa eta aztertu “sikutan nago” “diru barik nago” adierazteko. Iturria da itsasontzia eskegita dagoela (erreparazioak egiten edo pintatzen edo dena delakoagatik), eta beraz ez dago arrantzan eta ez dago irabazten. Hiztunak kidetzen du bere burua baporearekin, baina identifikazio horretan gainera metonimiazko jauzia ere badago, ze itsasontziak berez ez baitu ezer irabazten, tostartean dabilzan arrantzaleek baino.

1.2.2. Gogo espazioen teoria

Metaforak aztertzeko Lakoffen eredu hura ondo zegoen, baina sorburuko egitura eta topologiak ondo zetozenean bat xedeko topologiarekin, hots, egituraren analogiazko proiektzioa mugatzen zenean. Arazoa sorburuko arloko egitura eta xedekoa desberdinak zirenean zetorren baina, eta are metafora sorberriak bere eskuko egitura eratzen zuenean. Aurreko ereduaren muga deskriptiboak erakutsi zituzten adibideetako batzuk hauexek izan ziren:

1. “You are digging your own financial grave” (literalki “zeure finantza hilobia ari zara egiten”)

Hemen inportantea zera da: zuk zure hilobia oso sakon egin arren horrek sorburuan ez zaituela heriotzara hurbiltzen, metaforaren emaitzan jasotzen dugunaren kontrara. Hau da, finantza munduan egiten dituzun errakuntzak proiektatuko dira hilobia aitzurtzearekin, eta horrek beste esangura bat hartuko du nahasketa espazioan.⁴

2. “this surgeon is a butcher” (“zirujau hori harakina da”).

Kasu honetan, iturria harakina da eta xedea zirujaua, eta esan nahi dugu zirujau hori oso baldarra dela eta “sarraskiak” egiten dituena. Baina berez harakina ez da bere lanean baldarra ez zantarra, fin-fina izan daiteke. Orduan nondik datozkigu harakin bezala ezagututako zirujauaren baldartasunak eta abarrak? Berez sortzen den egitura batetik; eta non sortzen da egitura hori? Nahasketa espazioan. Espazio hauek erdiko espazio mentalak edo gogo espazioak deitu ziren Fauconnierren lanaren ildotik.


2.1.1.1. Erdiko espazioak

Lehen *arło* (domain) terminoaren ordez orain gogo-espazioak dauzkagu. Gogo espazioa lekuan lekuko ulermenerako eraikitako kontzeptu mataza txiki samarra da. Pentsatukeran eta berba egikeran eraikiz daroatzagu gogo espazioak; espaziook elkarri lotuta daude eta alda daitezke mintzaldia garatu ahala (Fauconnier, 1994 [1985]). Adibidez, diodanean “1991ko Larrunerakoa” gogo-espazioa sortu dut, eta gogo espazio horretan Larrunera joan ginen lagunak daude, erabili genuen beribila, data, lekua eta beste. Horrez gain,

⁴ Euskaraz honen antzekoren bat erabiliko genuke “zeure egur (finantziario)en bila zabilta gero”. Euskarazkoarekin oso zaila da zehaztea zein den iturria: gurutzerako egurrak ala sutan erretzeko egurrak? Haritschelharrek, gero etorri zen solasean, antzeko esamolde bat azaldu zuen frantsesez: “chercher le bâton pour se faire battre” eta litekeena da motibazio bera izatea hizkuntza bietan. Hau da, “egurra” erdarazko “garrote” izatea kasu biotan.

“Larrunerakoa” espazioak “ibilaldi” arlotik egitura partziala eskuratuko du, baina “ibilaldi” arloari lotutako ezagutzatik apur bat baino ez da gogo espaziora esplizituki jasoko, bestelako egitura gehigarria defektuz eta jardunbide pragmatikoen bitartez eskuratuko baita.

Lehengo sorburu-xede terminoen ordeztan orain sarrera espazioak ditugu. Espazio askoko ereduak sorburua eta xedearen ordeztan sarrera espazio bi edukitzeagaz, metafora eta analogia baino haragoko mekanismo kontzeptualak ikertu ahal ditu, bestela esan, teoria honek besteak baino orokortasun maila handiago lortu du.



Erdiko beste bi espazioak, esan dudan bezala hauexek dira: espazio orokorra edo generikoa eta bateraketa espazioa. Espazio orokorrak edo generikoak sarrera espazio biotan dagoen egituraren hezurdua dauka. Bateraketa edo integrazio espazioa, espazio aberatsa da eta beste sarrera espazioetatik integratzen du aldi baterako egitura zehatza eta lokala. Espazio honek beste bi espazioetatik proiektatu ez den egitura berria sortzen du sarri⁵. Beraz, nahasketa espazioa edo bateraketa espazioa (“blending space”) gogo-espazioa da, espazio horrek informazioa ekartzen du beste bi (behintzat) sarrera espazio mentaletatik, baina bere eskuko egitura kontzeptuala sortuko du.

⁵ Mark Turner and Gilles Fauconnier (1995) “Conceptual Integration and Formal Expression”. URL: <http://philosophy.uoregon.edu/metaphor/turner.htm> Eskuratua: 01/08/29.


3. ATSOTITZEZ

Jakintsu asko dendatu izan da atsotitza definitzen, Wellerismoa zer den azaltzen, atsotitza eta errefracua bereizten, eta abar. Kasu gehienetan jarraitu izan den irizpidea formala izan da, lexiko zaharra izan behar zuela, edota elip-si ugari gertatu behar zirela, edota erabiltzen ziren aditzak tankera honetako-ak edo hartakoak zirela, eta beste hainbeste.

3.1. Atsotitzen tasunak hizkuntzari dagozkio (hizkuntzaren atsotitz-tasuna)

Nik berriz Arorak emaniko atsotiztasuna irizpideari jarraituko diot; hau da, esaldi bat hiztunak atsotiztat baldin badauka esaldi hori atsotitza izango da, besterik gabe. Ohar gaitezen hiztunak ez duela esaldi hori berori gogoratu behar, edota agian ez duela inoiz entzun, baina hala ere atsotiztat daukala. Horrek hizkuntzaren memoriaz asko diosku.

Atsotitza literatur generoa den aldetik prototipoaren teoria aplikatu ahal izango diogu. Atsotitz batzuk beste batzuk baino atsotizagotzat ditugu, generoa definitzeko ezaugarri batzuk beste bitzuk baino funtsezkoagotzat edo erdikoagotzat ditugun bezala. Ezaugarri horiek hizkuntza batetik bestera aldatuz doaz. Beraz, Arorari (1984) jarraiki, pentsa genezake hizkuntzaren atsotiztasuna bezalako kontzeptu batez, hizkuntza ikastean eskuratuko litza-tekeena. Atsotitz generoa definitzeko ezaugarriak hizkuntzarik hizkuntza aldatuz baldin badoaz, berdin gertatuko da hizkuntzaren atsotiztasunarekin. Hizkuntza geureganatzearekin atsotitzaren ezagutza ere geureganatzen dugu. Beraz atsotitz bat entzundakoan atsotitz bezala ezagutuko dugu segun eta



zelan datorren bat atsotitzaz dugun ideia prototipokoarekin. Atsotitza ezagutukeran gogo-espazio bat zabalduko dugu, hiztunaren errealitatearen espaziotik bereizita, deitu diezaigun *atsotitz espazioa*.

Atsotitzez orokorrean, gogora ditzagun ondino beste gauza bi gehiago: 1) atsotitzek sarritan istorio edo ipuin txiki bat kontatzen digutela; istorio txiki honek lotura zuzena dauka Mark Turnerren (1996) Espazioko kontaera txiki-ekien eta gizakiak daukan proiektatzeko ahalmenarekin. 2) Gainera Atsotitzak diskurtso deliberatiboari edo erabakiak hartzeko testuinguruari dagozkiola, eta hortaz atsotitzak beti izango du balorazio motaren bat; Honecken iritziz balorazio horrek aipu egiten dio ideal generiko edo orokorren munduari: atsotitz batzuk baietsiko dute mundu hori eta beste batzuk ezetsi.

3.2. Nik aztertutako atsotitzak

Hizkuntza corpus batekin azterketari abia eman modu bat, bilaketa formal bati ekitea izan daiteke, hau da, ezagutu eta erraz eskura daitekeen egitura edo forma erregularitasun bati begiratzea. Nire corpusak 240 atsotitz zituen, eta atsotitzen aztertzeraz abiatu nintzenean, “eta” juntagailua zutenak hautatu nituen, esperantza bainuen forma honek eramango nindukeela egituretara zeintzuk erregularrak izateaz gain, semantika-pragmatikazko interpretazioak egin ahal izateko aberats askoak izan litezkeen. Nire iritziz argalean aukera bi hauexek daude: edo “eta” malgua nahikoa da askotariko pragmatika interpretazioak onartzen duten testuinguru anitzetan agertzeko (Sweetser 1990), edo esangura askotariko oholtzak eragiteko moduko oso gramatika egitura sofistikatuetan ageriko da (Kay, Fillmore, O’Connor 1988).

Nire 240 errefrauko corpusean “eta” 37 atsotitzetan ageri zen behintzat behin. Gero corpus zabalago batera eraman nuen bilaketa (Garate 1998) eta 12.000 atsotitzetatik 3000ak “eta” behintzat behin erabili zuten. Batez beste-koa antzekoa lotu zaigu: nire corpusean ehuneko 20tan, eta Garaterenean ehuneko 25ean. Honek ez du esan gura koordinazioaren estrategia abstraktua “eta”ren erabilerara mugatzen denik, ez eta “eta”ren funtzio bakarra koordinazioa izango denik ere, koordinazioari buruz duzgun aurreiritzia delarik ere. Baina hasiera ona ematen zuen.

Aurreko ikerketa batean ikusi nuen atsotitzaren estrategia nagusietako bat “objektu” bi edo gehiago elkarren ondoan eta elkarrekin harreman espezifikatu gabean jartzean zetzala. “Objektu” diodanean ez nabil bakarrik izenez gertaera, baieztapen eta abarrak ere hartzen ditut kautan. Honez, atsotitzetan sarri ageri zaigun adierazpidea hauxe da, zehaztugabeko edo gutxi zehazturi-

ko bi erlazio mota bateratzea, espazio generikoa edo orokorra eraiki ahal izateko. Hain justu espazio orokor hori izango da garrantzitsua atsotitza elkarriketetan erabiltzerakoan, horixe baita bi atsotitz parekotzat jotzeko darabilgun esangura. *Atsotitz diferente bi berdintzat joko dira euren espazio orokorra antzekoa edo berdina denean.*

Peter Seitelek 1969an esan zuen atsotitzen esangura interpretatzeko identitate printzipioa aplikatu behar dela, atsotitzaren elementu substantiboak egoera sozialarekin kidetuz, lehenago, eta gero testuinguruarekin. Hurbilketa hau oso argigarria suerta daitekeen arren, neureari eusten diot, ez dira elementu substantiboak baizik eta elementu horien arteko erlazio abstraktua kidetzen dena hiztunaren gogo-espazioarekin. Bestalde Gibbssek, Stromek eta Spivey-Knowltonen (1997) erakutsi dute esperimentu psikologikoen bidez oinarriko metafora kontzeptualek esangura eraikitzen eta murrizten laguntzen dutela. Nire iritziz ez da, edo ez nagusiki, oinarriko metafora kontzeptuala, baizik eta azpian legokeen irudi-eskema esangura eraikitzen duena.

Objektu bi horiek eragiten duten lan kognitiboa edo gogo-jarduera objektuon arteko antzekotasunak (analogia) edo berezitasunak (polaritatea) aurkitzera zuzentzen da. Atsotitzarekin egiten duguna zera da gogo-espazio bat zabalduko dugu aipatu diren objektuak maila abstraktuagoan sailka ditzagun, eta gero hango erlazioak testuinguruko xedera ekarri edo kidetuko ditugu. Informazio nabarmen eta beharrezkoa espazio orokorrean dago; komunikazio testuingurura egitura abstraktu horiexek aplikatuko dira. Elkarren ondoan jartzeaz gain, eta elkarrekiko harreman gutxi espezifikatuarekin egoteaz gain, batzuetan baloraziozko baieztapenik ere ekartzen dute atsotitzok. Balorazio baieztapenaren xedea ulertzeko behar den abstrakzioa objektu bi horien arteko analogiaren bidez lortzen da. Era horretara definitutako kategoria berri hori (balorazioaren xedea beste era batera esanda) egonkortasun gutxikoa da, hain zuzen hizketaldiko xede egoerak bakoitzean behar duen abstrakzio maila hautatuz egonkortasun gutxiko kategoria hori berreraiki ahal izateko.

Beraz, “eta”ren ustezko balio simetrikoa eta asimetrikoa bereizteari ekin nion, eta interpretazio simetrikoa omen zutenak sailkatu nituen: *multzo* tankerakoak alde batetik eta *azalpen* tankerakoak bestetik.

“Multzo” tankerakoetan gogo espazioa eraikiko dugu bi (edo gehiago) elementu lotuz. Elementuok aurkakoak izan daitezke ala bateragarriak; aurkakoak baldin badira hiztunaren errealtatean ezinezkoak direla emango digute aditzera, eta bateragarriak baldin badira mundu idealaren desiragarritasuna azpimarratuko dute.

“Azalpen” tankerakoak bi atsotitz berdintsu edo pareko ekarriko dituzte, bigarren zatikiak lehenaren interpretazioa murriztuko du, ia-ia lehengoaren autoritatea onartuko ez lukeen norbaiten erantzuna balitz legez.

Nire hipotesi orokorra zera da: atsotitzak aipatu dituen elementuen arteko erlazioa inferitu edo atera ditzagula eskatzen digu, eta bigarren urratsean, erlazio horiek egokitu diezazkiogula erabili diren mintzaldiko testuinguruari.

3.2.1. *Multzo atsotitzak: Bi elementukoak*


Multzo izenaren azpian sartu gura ditut “eta”ren erabilera simetriko zenbait, hau da, koordinazioaren bitartez lotu diren elementuen ordenak garrantzirik ez ei duenean.

$$A + B = \text{ona} / \text{txarra}$$

Lotzen diren elementuek ubera diferenteko atsotitza sortuko dute euron isuriaren arabera:


- 1) Elementuok aurkako eroria baldin badute,
 - a) Edo ideal orokorreko bi alde erakutsiko dute eta, honez, ideal horren ezinezkotasuna,
 - b) edo abstrakzio maila altuagoa eskatuko dute, eta orduan sortu beharreko kategoria oso urrun dago elementuek aipatzen duten errealtatetik: “euria eta eguzkia Martiko eguraldia”
- 2) Elementuok bateragarri errazak dira, nahiz eta heterogeneoak diren. Heterogeneitate horrek kategoria berria sortzera behartzen gaitu, analogiaren bitartez. Kasu hauetan lehen elementua da definitu beharrekoa, eta bigarrenak sorburua ematen du. Sortuko den espazio mentala norabide bakarrekoa izango da.

Azter dezagun adibide bat bakoitzeko, litekeen testuinguru bat asmatu-rik. Pentsa ezazue oso nagusi zorrotza duzuela zuen lantokian, eta hark gal- detzen dizuela “egina?” eta zuek erantzun: Ondo eta asko, usoak hego. Denok ulertu dugu atsotitza. Hiztuna lan asko eta ondo eginaren arteko zailtasuna edo areago ezinezkotasuna erakusten ari da. Eta zelan dakigu balorazio bi horiek ezinezkoak direla? Ba kontraerako agenteak edo egileak guk egin ezin dugun ekintza bat egiten duelako, hegaz alegia. Hemen esangura inferitzeko Izadiaren Katea Nagusiaren Metafora eta eredu kulturala erabili behar dira (Lakoff & Turner 1989), eta gainera, defektuz atsotitzak gizakiaz dihardutela erabili kautan. Atsotitzak ahalmenak izadiarekin lotzen ditu, hau da, itxura lotu atributu funtzionalekin (Gentner 1998).



Multzo saileko bigarren motako adibide bat ikusiko dugu orain. Atsotitz mota honek multzo bat eraikitzen erango gaitu bi elementu heterogeneoak aipatzearekin; elementuok goragoko maila batean edo maila abstraktuago batean sartu beharko ditugu.

Adibidez: “Aita zaharra eta betse etena ez da gerena.” Hemen bi izen sin-agma ditugu honetara eman genitzakeenak:



Gogo espazio orokorra edo generikoa azaldu ahal izateko bi objektuen arteko erlazioa atera behar dugu, bai eta euren atributuena ere, norabide bikoitzean: elkarrekiko erlazioa espazioen arteko kideketaren bitartez, eta


objektu bakoitzak bere atributuarekin daukana, espazio bakoitzaren barruan. Esatea legez, zertan izan litezke antzeko zapata edo oskia eta aita bat? eta zelan izan daiteke zapata bat desohorerako objektu? Galdera hauekin eurokin hasiak gara daborduko nolabait erantzuna ematen.

Hona hemen araua: definitzeko den elementua lehena da, ez bigarrena. Hots, atsotitz honen helburua aita zaharra definitzea da. Berez analogiazko proiektzioa gertatzen da, zapataren esparrutik aitaren esparrua. Zapata-aita kideketak babesari, zaintzeari eta erabilgarritasunari egiten die aipu. Zaharra eta etena nolakotzaileek iraganera eramaten gaituzte, denboran zehar gertatu den aldaketa ikustera, hasiera bateko propietateen gutxiagotze batera (ohar gaitezen bagabiltzala irudikatzen propietate guztiak sasoian zeudenekoa).

Bestalde aitaren/zapataren gabeziak kultura hartan gerena edo desohorea esan gurako zuen; aita kontzeptuak jatorria dakar berarekin gizarteko maila zehazteko modua zen aldetik, eta zapatak status ekonomikoa erakutsi izan du orain gutxira arte. Beraz, iraganak oraina erredimituko du entitate horien esentziaren bidez. Erabili izan den zerbait, zerbait izan den aldetik, ezaugarri esentzialak mantenduko ditu.

3.2.2. Atsotitz “azalduak” edota elkartuak


Hauxe da azalpenezko atsotitzei dagokienez proposatu gura dudana diagrama orokorra:



Talde honetan atsotitz konplexuak sartu ditut. “Azalpen” izena jarri diet sarri askotan “bigarren zatikia” lehen partearen azalpen edo hedapen gisa dabilelako. Argi dago bigarren zati honek lehen zatiaren interpretazio murriztu bat ematen duela. Beraz, hein batean atsotitza elkarriketako testuingurura egokitzapen prozesuaren arazoaren antzekoa da hemen daukaguna. Lehen zatiko elementuen arteko erlazioa bateratu behar da bigarren zatiko elementuek elkarrekin duten erlazioarekin.

Adibidez: “Aho itxian ez doa sartu eulia, eta aldi guztietan ez da eder egia”.


Atsotitz honek bi zati ditu, lehenak kontraera txiki bat emango digu parabola edo alegia txiki bat, eta bigarrenak azalpen abstraktuago bat, lehen zatiaren irakasgaia balitz bezala. Kontraera hauxe da: euli bat dabil eta aho itxi bat dago.



Honek berehalakoan jartzen gaitu gerta litezkeen egoerez hausnar egitera: ahoa zabalik dago orain eta eulia barrura sar daiteke. “sar daiteke” horrek bi posibilitateak hartzen ditu bere baitan: eulia sartzen denekoa, eta sartzen ez denekoa, euliaren arbitrariotasuna azpimarratuz. Arbitrariotasuna euliaren higidurari edo traiektoriari lotzen zaio, beheragoko kasu batean ikusiko dugunez (hain zuzen higidura ez delako arteza edo norabide bakarrekoa), baina arbitrariotasun hori ohikotasunezko “sartu doa” horrek ematen digu, hau da, salbuespena ez dago erabat baztertuta: nahiz eta ekintzarik ez egin,

hala ere, ondorioak paira zenitzake. Normalean aho itxita edukitzea isilik ego-
tearekin lotzen badugu, eulia barrura sartzea berba txar horren ondorioarekin
lotuko dugu. Esan dezagun bada atsotitzaren zati honek ekintzarik ez egitea
gomendatzen digula.

Azalpenezko zatikiak, hots, bigarren zatiak dio badela garai bat egia ede-
rra ez denekoa: ederra edo egokia. Hemen bi espazio sortuko ditugu, batean
egia ederra edo egokia izango da, eta bestean ez.



Orain zati biak lotu behar ditugu. Kontuan har dezagun egia esan ahal izateko ahoa zabaldu behar dugula. Eulia aho barrura sartzeko ahoak zabalik egon behar du. Aho barrura eulia sartzeko egoera ez desiragarria litzateke. Nire aurreko ikerketa batean (Garai 1999) saiatu nintzen euskal atsotitzetan ageri diren animaliak definitzen Katea Nagusiaren Metaforaren arabera, eta hor, aurkitu nuen erleak eta inurriak kenduta, intsektuak eta zomorroak gaixotasun bezala ikusten direla, gaixotasuna edo gaitza besterik gabe, ahotik gorputzaren barrura sartuko dena. Kontuan hartu, halaber, giza gorputza ontzi bezala ikusten dela, zeinaren barruan arima edo hatsa edo bizia dagoen, eta barrura sartzeko atea ahoa dela. Beraz, eulia arimarantz edo bizirantz doan gaitza litzateke. Edozein kasutan ekintza bat eta ondorio posible bat dauzka-gu lotuta lehen partean, eta bigarrean gertaera baten beste ondorio bat. Lotu behar ditugu bigarren parteko gertaera hori lehen parteko ekintzarekin (eta suposatu aho zabaldu batek egia dioela, eta ez zaplaztekoa mereziko lukeen

txorakeria bat edota aharrausi bat adibidez), eta eder ez hartze hori euliarekin. Egitura abstraktua zera da, ekintzek inguruaren araberako ondorioak dituztela. Zeozer egin baino lehenago hobe duzu begiratzea zelako arriskuak dituzun inguruan, eta hala ere batzuetan, arriskuak arrisku egin behar duzuna egin beharko duzu.

“Azalpenezkoak” deritzedan atsotitzen barruan sar litezke “eta” junta-gailua gabe ere egitura paraleloak ageri dituzten atsotitzak: “Harri ibilokiak goroldiorik ez, erle uxatuak abagarik ez” tankerako atsotitzak, errefrauren zati biak elkartzen dituen juntagailurik egon ez arren. Honeckek (1997) aztertu du atsotitz honen ingelesezko bertsioan hiztunek ematen dioten interpretazioa: “A rolling stone gathers no moss”. “Goroldio” izenaren interpretazioa abiapuntu hartuta, hiztunek bi erataria interpreta dezakete atsotitza, segun eta zelan ebaluatzen duten hitz hori: edo komenigarria dela arinago ibiltzea, edo hobe dela leku batean pausatzea. “A rolling stone” gogoan hartzen badugu, ikus dezakegu haren interpretazio negatiboa ideia honen atzean dagoen irudieskemari (eta haren ebaluazioari!) zor zaiola. Eta zein da irudi hori? Bada, maldan behera amilduz doan harriarena. Harriak bide jakin bati jarraitu ezean, bazter guztien kontra jotzen du, edo saltoka doa zoro-zoroan. Laburbilduz: kontrolik gabe. Elementu hori ez da ageri euskal atsotitzean, hor zera baitauek: agente bihurtu den objektu bizigabe bat (berriz ere, kontrolatu bako agentzia). Alabaina, euskal bertsioak badu errefraua sendotzen duen beste irudi bat: erle uxatua. “Uxatua” terminoa modu negatiboan dago hor baloratuta. Guztiarekin ere interesgarria da ikustea erle uxatuak marrazten duen higidura edo traiektoia bat datorrela harri ibilokiak irudikatzen duenarekin: ez bata ez besteak ez diote bide jakin bati jarraitzen.

“Azalpenezko” atsotitz biok erkatuz gero, hots, eulia-egia atsotitza eta goroldioa/erlea errefraua, biok daude osatuta itxuraz zein bere eskukoa diren bi atsotitez osaturik. Hala ere, ezaugarri garrantzitsu bat dute desberdin, hau da, “eta” juntagailua. Euliaren adibideak bi aukera ematen ditu, kontrakoak diren bi aholku. Goroldioaren atsotitzak, aldiz, mezu bera ematen du bi bider, adibide paralelo bat emanez lehenengo errefraua desanbiguatzeke. Hortaz, hipotesi gisa esan genezake “eta” juntagailuaren zeregin nagusietako bat hauxe dela: diskurtsoaren ikuspuntua edo norabide deiktikoa aldatzeko bidea ematea.

BIBLIOGRAFIA

“Lourdes Otaegiren eskariari erantzun asmoz, luzatu eta komentatu egin dut bibliografia hau, ustez horrela lagungarriagoa izango zela”. Egileak.

1. Gramatika bateratuez

FILLMORE, C. J. 1997. “Foreword.” In: *Paul Kay. Words and the Grammar of Context*. CSLI Publications, Stanford.

GOLDBERG, A. E. 1995. *Constructions: A Construction Grammar Approach to Argument Structure*. University of Chicago Press, Chicago.

KAY, P. 1987. 1997. “Three Properties of the Ideal Reader.” In: *Words and the Grammar of Context. CSLI lecture notes*. p. 203. Stanford.

2. Linguistika kognitiboaz

GENTNER, D. 1998. “Metaphor as Structure Mapping: The Relational Shift.” *Child Development* 59. 47-59.

GRADY, J. E. (1997) 1999. “A Typology of motivation for conceptual metaphor: Correlation vs. resemblance.” In G. Steen & R. Gibbs (Eds.), *Metaphor in Cognitive Linguistics: selected papers from the fifth International Cognitive Linguistics Conference*, Amsterdam, July 1997. Philadelphia: John Benjamins 1999.

GRADY, J. E. 1997. *Foundations of meaning: primary metaphors and primary scenes*. Dissertation: Thesis (Ph. D. in Linguistics)—University of California, Berkeley.

LAKOFF, G. 1993. “Contemporary Theory of Metaphor.” In: Andrew Ortony (ed.). *Metaphor and Thought*. 2nd ed. Cambridge: Cambridge UP.

ROHRER, T. Center for the Cognitive Science of Metaphor Online. URL: <http://philosophy.uoregon.edu/metaphor/metaphor.htm>. Eskuratua: 99/04/14.

SWEETSER, E. 1990. *From Etymology to Pragmatics*. Cambridge UP. Cambridge.

TURNER, M. 1988. “Categories and Analogies.” In: David H. Helman (ed.). *Analogical Reasoning: Perspectives of Artificial Intelligence, Cognitive Science, and Philosophy*. Kluwer Academic Publishers. Dordrecht. 3-24.

TURNER, M. 1999. “Forging Connections.” In: C. Nehaniv (ed.). *Computation for Metaphors, Analogy, and Agents*. LNCS 1562, 11-26.

2.1. Gogo-Espazioen Bateraketa Teoriaz

BRUGMAN, C. 1996. "Mental Spaces, Constructional meaning, and Pragmatic ambiguity." In: *Spaces, Worlds, and Grammar*. Chicago and London: University of Chicago Press, Chicago. 29-56.

FAUCONNIER, G. 1997. *Mapping in Thought and Language*. Cambridge UP. Cambridge.

FAUCONNIER, G. 1985. 1994. *Mental Spaces*. Cambridge UP. Cambridge.

TURNER, M. and FAUCONNIER, G. 1996. "Blending as a Central Process of Grammar." URL: <http://www.wam.umd.edu/~mturn/WWW/central-process/www/centralprocess.html>. Eskuratua: 4/27/99. Expanded web version of Gilles Fauconnier and Mark Turner. "Blending as a Central Process of Grammar." In: Adele E. Goldberg, ed. *Conceptual Structure, Discourse, and Language*. Stanford: Center for the Study of Language and Information (CSLI), distributed by Cambridge University Press. Cambridge. 113-129.

TURNER, M. and FAUCONNIER, G. 1995. "Conceptual Integration and Formal Expression." 1995. URL: <http://www.uoregon.edu/~rohrer/turner.htm> Eskuratua: 2/16/99. Mark Johnson (ed.), *Journal of Metaphor and Symbolic Activity*. 10, 3.

TURNER, M. and FAUCONNIER, G. 1997. "A Mechanism of Creativity." 1997. URL: <http://www.wam.umd.edu/~mturn/WWW/mechanism.html>. Eskuratua: 9/15/98. *Poetics Today*. 20.3: (1999) 397-418. URL: http://muse.jhu.edu/journals/poetics_today/v020/20.3turner.html.

TURNER, M. and FAUCONNIER, G. 1998. "Conceptual Integration Networks" (Sareko aldaki ugaritua, 2001eko Otsailaren 10ekoa) URL: <http://www.inform.umd.edu/EdRes/Colleges/ARHU/Depts/English/englfac/MTurner/cin.web/cin.html>. Eskuratua: 3/22/2001. *Cognitive Science*, 22(2), 133-187.

TURNER, M. 2000. "L'imagination et le cerveau." Conference given at the Collège de France, 11, place Marcelin-Berthelot, Paris 5e, tuesday 6th, June, 2000. URL: <http://www.inform.umd.edu/EdRes/Colleges/ARHU/Depts/-English/englfac/MTurner/cdf/cdf1.html>. Eskuratua: 6/7/2000.

TURNER, M. 1996. *The Literary Mind*. Oxford UP. New York.

3. Erretorikaz

ARISTOTLE. 1991. *On Rhetoric: A Theory of Civic Discourse*. Newly translated, with introduction, notes, and appendices by George A. Kennedy. Oxford University Press. New York.

BAKHTIN, M. Zatikiak hemendik: *The Problem of Speech Genres*. Itzul. Vern W. McGee. In: *Twentieth-Century Rhetoric*. 944-963.

BOETHIUS, 1978. *Boethius's De Topicis Differentiis*. Translated, with notes and essays on the text, by Eleonore Stump. Corenell University Press. Ithaca. [29]-155.

BURKE, K. 1989. *On Symbols and Society*. (The Heritage of Sociology). "Dramatistic Analysis" eta "Identification." Joseph R. Gusfield, ed. University of Chicago Press. Chicago - 135-176; 179-191.

CICERO, 1949. 1993. *De Inventione. De Optimo Genere Oratorum. Topica*. With an English Translation by H. M. Hubbell. Cambridge (Massachusetts): Harvard University Press (Series: The Loeb Classical Library 386). 375-459.

FAHNESTOCK, J. and SECOR, M. 1990. *A rhetoric of argument*. McGraw-Hill, 2. ed. New York.

FAHNESTOCK, J. 1999. *Rhetorical figures in science*. Oxford University Press. New York.

JAMIESON, K. M. 1975. "Antecedent Genre as Rhetorical Constraint." In: *Quarterly Journal of Speech*. 61, 4: [406]-415.

LLOYD, G. E. R. c1966. 1971. *Polarity and Analogy: Two types of Argumentation in Early Greek Thought*. Cambridge University Press, Cambridge.

LOCKE, J. 1997. *An Essay Concerning Human Understanding*. Edited by Roger Woolhouse. Penguin Books. Book III "Of Words."

PERELMAN, C. and OLBRECHTS-TYTECA, L. 1969. 1971. *The New Rhetoric: A Treatise on Argumentation*. Translated by John Wilkinson and Purcell Weaver. Notre Dame and London: University of Notre Dame. Originally Published as *La Nouvelle Rhétorique: Traité de l'Argumentation*. PUF. 1958.

RAMUS (P. de LA RAMÉE).1964. *Dialectique (1955)*. Edition critique avec introduction, notes et commentaires de Michel Dassonville. Librairie Droz. Genève. 61-113.

RICOEUR, P. 1975. *La métaphore vive*. Seuil (Série: L'Ordre philosophique), Paris.

TOULMIN, S. 1958. "The Layout of Arguments." In: *Stephen Toulmin. The Uses of Argument*. Cambridge University Press. Cambridge.

WEAVER, R. M. 1953. 1985. "Edmund Burke and the Argument from Circumstance." *The Ethics of Rhetoric*. Hermagoras Press. Davis (CA). Pp. 56-84.

3.1. Gogo Erretorikaz edo Erretorika kognitiboaz

BARANOV, A. G. 1997. "Kogniotipichnost' zhanra (Generoaren kogniotipikalitatea)." In: *Stylistyka*. 6. 331-343 Zatikiak hemendik: *Cambridge Scientific Abstracts*. Database: *Linguistics and Language Behavior Abstracts*.

GARAI, K. J. 2001. "Trial and Endogamy in Marguerite of Navarre's *Le Miroir de l'âme pécheresse* / *The Glass of the Sinful Soul*." Rhetoric Society of Americarako irakurritako komunikazioa, 9. biurtekako konferentziarako, RSA "Professing Rhetoric." Washington, DC: 2000ko maiatzean. Bertsio ugartua: "Epaiketa eta Endogamia Nafarroako Margaritaren *Le Miroir de l'âme pécheresse*-n/ [Arima Bekatariaren Mirailan]." *Lapurdum*. 6. 119-193.

LAKOFF, G eta TURNER, M. 1989. *More than Cool Reason: A Field Guide to Poetic Metaphor*. Chicago UP. Chicago.

OAKLEY, T. V. 1998. "Conceptual blending, narrative discourse, and rhetoric." *Cognitive Linguistics*. 9:4. 321-360.

OAKLEY, T. V. 1999. V. "The Human Rhetorical Potential." *Written Communication*. 16: 1. 93-128.

OAKLEY, T. V. 1995. *Presence: the conceptual basis of rhetorical effect*. Thesis (Ph. D.)—University of Maryland at College Park. Maryland.

TURNER, M. 1998. "Figure." In: Cristina Cacciari, Ray Gibbs, Jr., Albert Katz, eta Mark Turner. *Figurative Language and Thought*. New York: Oxford University Press, series: Counterpoints: Cognition, Memory, and Language. URL: <http://www.wam.umd.edu/~mturn/WWW/figure.WWW/fcframe.html>. Eskuratua: 99/03/21

TURNER, M. 1987. *Death is the Mother of Beauty: Mind, Metaphor, Criticism*. University of Chicago Press. Chicago.

TURNER, M. 1991. *Reading Minds: the Study of English in the Age of Cognitive Science*. Princeton University Press. Princeton (New Jersey).

4. Atsotitzez

4.1. Iturriak

AZKUE, R.M. 1997. *Euskalerrriaren Yakintza: Literatura Popular del País Vasco*. V.2. Espasa-Calpe. Madrid.

CARBONELL, D. 1996. *A Dictionary of Proverbs, sayings, saws, adages. English and Spanish*. Ediciones del Serbal. Barcelona.

FERGUSON, R. 1983 *The Penguin Dictionary of Proverbs*. Penguin. London.

GARATE, G. 1998. *Atsotitzak/Refranes/Proverbes/Proverbia*. Bilbao: Fundación Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa. URL: <http://www.ametza.com/bbk/htdocs/hasiera.htm>

LAKARRA, J. A. 1996. *Refranes y Sentencias (1596): Ikerketa eta Edizioa*. Euskaltzaindia. Bilbao.

PAGOLA, R. M. et al. (arg.) 1992. *Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak, Bizkaiera*, 1 alea. Deustuko Unibertsitatea, Euskal Ikaskuntzen Institutua (DEIKER). Bilbao.

VAN EYS, W. J. 1898. *Proverbes Basques-Espagnols. Refranes y Sentencias comunes en Bascuence, declaradas en Romance*. Réédités d'après l'édition de 1596 conservé a la Bibliothèque de Darmstadt par W.J. van EYS. Genève et Bâle, Georg & C1. Libraires Éditeurs. Izenburu osoa: *REFRANES Y SENTENCIAS / comunes en Bascuence, declaradas en Ro-/mance con numeros sobre cada palabra, para que se entiendan / las dos lenguas*. Impreso con licencia en Pamplona / por Pedro Porrallis de Amberes, 1596.

4.2. Azterketa lanak eta lan teorikoak

4.2.1. Hurbilketa kognitiboak

GARAI, K. J. 2000. "A Cognitive Approach to Some Basque Proverbs of the 16th and 19th Centuries." Paper presented at Languaging 2000. University of North Texas, Denton. Also at the First International Symposium of the Institute of Basque Studies (IBS). London-Guildhall University. URL: <http://ibs.lgu.ac.uk/sympo/page4.html>

GARAI, K. J. 1999. "On Proverbs: A Cognitive Approach to some Basque Proverbs of the 16th and 19th Centuries." Mark Turnerrek zuzendutako Figures, Schemas and Constructions mintegirako idatzia.

GIBBS, RAYMOND W., JR., LISE K. STROM and MICHAEL J. SPIVEY-KNOWLTON. "Conceptual Metaphors in Mental Imagery for Proverbs." *Journal of Mental Imagery* 21: 3&4 (Fall/Winter 1997), 83-109.

HERNADI, P. and STEEN, F. 1999. "The Tropical Landscapes of Proverbia: A Crossdisciplinary Travelogue." In: *Style* 33.1 (Spring 1999): 1-20. URL: <http://cogweb.net/> Eskuratua: 10/12/2001.

HONECK, R. 1997. *A Proverb in Mind: The Cognitive Science of Proverbial Wit and Wisdom*. Mahwah, New Jersey: LEA.

4.2.2. Hurbilketa klasikoak (paremiografia barne) eta semiotikakoak

ARORA, S. L. "The Perception of Proverbiality." In: *Proverbium*, 1 (1984), pp. 1-38. Berrinprimatua, In: Wolfgang Mieder, ed., *Wise Words: Essays on the Proverb*. New York: Garland, 1994, 3-29 eta In: *De Proverbio: An Electronic Journal of International Proverb Studies*. Vol. 1: 1(1995). URL: <http://www.deproverbio.com/DPjournal/DP,1,1,95/ARORA.html> eta <http://info.utas.edu.au/docs/flonta>. Eskuratua: 12/1/99.

ARORA, S. L. 1995. "Weather Proverbs: Another Look." In: *De proverbio: An Electronic Journal of International Proverb Studies*. 1,2. URL: http://info.utas.edu.au/docs/flonta/DP,1,2,95/WEATHER_PROVERBS.htm l. Eskuratua: Wed, 1 Dec 1999. Lehenago honetara argitaratua: "Weather Proverbs: Some 'Folk' Views". In: *Proverbium*, 8 (1991), 1-17.

KALZAKORTA, J. "Euskal Atsotitz-Bildumak." In: *Euskera*. XLI (2.aldia): 611-640

KRIKMANN, A. "Some Additional Aspects of Semantic Indefiniteness of Proverbs." In: *DeProverbio.com*. 5, 2 (1999). URL: <http://www.deproverbio.com/Dpjournal/DP,5,2,99/KRIKMANN/INDEFINITENESS.html>. Eskuratua: 12/21/99. Previously published in *Proverbium* 2 (1985): 58-85.

KUUSI, M. "Basic Images and Formulae." In *De Proverbio: An Electronic Journal of International Proverb Studies*. 4, 1(1998). URL: <http://www.deproverbio.com/Dpjournal/DP,4,1,98/KUUSI/IMAGES.html> Eskuratua: 3/7/99 5:52 PM. Reprinted from *Mind and Form in Folklore. Selected Articles of Matti Kuusi*. Ed. by Henni Hömaki. *Studia fennica. Folkloristica* 3. Suomalaisen Kirjallisuuden Seura. Helsinki 1994, 142-144.

SEITEL, P. "Proverbs: A Social Use of Metaphor." In: Wolfgang Mieder eta Alan Dundes, (arg.), *The Wisdom of Many: Essays on the Proverb* (New York: Garland, 1981), pp. 122-139. Reprinted from *Genre*, 2 (1969), 144.

TÓTHNÉ, A. 1997. "Perception of proverbs and familiarity with them. Figurativeness as one of the most powerful markers of proverbiality." In: Irmengard Rauch and Gerald F. Carr (eds.). *Semiotics around the World: Synthesis in Diversity*. Proceedings of the Fifth Congress of the International Association for Semiotic Studies, Berkeley 1994. Mouton de Gruyter, Berlin. [215]-218.

4.2.3. Literatur testuetan erabilera aztertzeo

ADÉÉKÓ, A. 1998. *Proverbs, textuality, and nativism in African literature*. Gainesville, University Press of Florida, Florida.

DESKIS, S. E. 1996. *Beowulf and the medieval proverb tradition*. Tempe, Ariz. : Medieval & Renaissance Texts & Studies.

DONKER, M. 1992. *Shakespeare's proverbial themes: a rhetorical context for the sententia as res*. Greenwood Press, New York.

MCKENNA, K. J. 1998. *Proverbs in Russian literature: from Catherine the Great to Alexander Solzhenitsyn*. Burlington, University of Vermont. Vermont.

PFEFFER, W. 1997. *Proverbs in medieval Occitan literature*. Gainesville: University Press of Florida.

SWETERLITSCH, R. 1999. "Reexamining the Proverb in the Child Ballad." Url: <http://www.deproverbio.com/DPjournal/DP,5,2,99/SWETERLITSCH/BALLAD.html>. Eskuratua: Wed.

4.2.4. Hurbilketa Erretoriko-forenseak

GOODWIN, P. D. and WENZEL, J. W. "Proverbs and Practical Reasoning: A Study in Socio-Logic." Wolfgang Mieder and Alan Dundes (Eds.), *The Wisdom of Many: Essays on the Proverb*. New York: Garland Publishing (Garland folklore casebooks; v. 1). 1981: 140-160. Reprinted by permission of the Speech Communication Association from the Quarterly Journal of Speech, 65 (1979), 289-302.

JUARISTI, P. "Esaera Zaharren Azterketa Soziologiaren Ikuspegitik." In *Euskera* XLI (2.aldia): 799-820. Also for a sociological relationship between Basque customary law and proverbs gathered by Mokoroa.

YANKAH, K. 1986. "Proverb rhetoric and African judicial processes: the untold story." In *Journal of American Folklore* bibl. 99, 280-303.

5. Esamoldeez

CACCIARI, C. and TABOSSI, P. 1993. *Idioms: processing, structure, and interpretation*. L. Erlbaum Associates. Hillsdale, N.J.

CULICOVER, P. W. and JACKENDOFF, R. 1997. "Semantic Subordination despite Syntactic Coordination." *Linguistic Inquiry* 28: 2, 195-217.

5.1. Esamoldeez gramatika bateratuetan

FILLMORE, C. J.; KAY, P. and O'CONNOR, M. C. 1988. "Regularity and Idiomaticity in Grammatical Constructions: The Case of Let Alone." *Language*. 64, 3, Sept, 501-538.

KAY, P. and FILLMORE, C. F. "Grammatical Constructions and Linguistic Generalizations: the What's X doing Y? Construction." URL: <http://www.icsi.berkeley.edu/~fillmore/WXDY2/wxdy.html>. Eskuratua: 2/1/99.

KAY, P. 1983. "Linguistic Competence and Folk Theories of Language: Two English Hedges." In: Paul Kay. *Words and the Grammar of Context*. CSLI lecture notes. 1997 Stanford.

EMAZTEEN FABORE

J. Haritschelhar

*Pierrette Labbé
emazteen fabore izan den
kazetari zenari eskainia*

Etxepare-k idatzi dituen amodiozko olerkietan toki berezi bat dauka *Emazteen fabore* deritzanak, alde batetik bigarrena delakotz *Amorosen gazti-guia*-ren ondotik eta, bertez aldetik, zentsuratua izan delakotz *Linguae Vasconum primitiae*-ren bigarren agerraldian, Gustave Brunet eta Archu-k eginikakoan, 1847-an. Lafitte-k berak idatzi du Etxepare-ren liburua aipatuz :

*Oro neurtitz egina da. Zathi ederrak baditu ; bainan -egia egiari
zor- aphez batek segurik egin behar ez bezalako hetarik ere parrasta
bat. (Eskualdunen Loretegia, 7. or.).*

Pentsa daiteke “*parrasta*” horretan sartzen dela *Emazteen fabore* ; hortakotz ikuspegi berri bat eskaini nahi nioke Pierre Lafitte Kalonje zenari bere sortzearen mendeurrenean.

Orotara hamasei bertsu dauzka *Emazteen fabore* olerkiak, hamabortz silabako lau neurtitzez eginak, neurtitz mota hori delarik Etxepare-k gehienik enplegatzen duena bere liburuan. Gehienetan ere —bainan ez beti— sarrera gisa bi neurtitzeko bertsuño bat eskaintzen du, hala nola olerki honetan:

*Emaztiak ez gaitz-erran ene amorekatik
Gizonek utzi balitzate elaidite faltarik.*

Bi neurtitz horietan Etxepare-k biltzen du bere ikus-moldea, olerkiaren egitura eskainiz. Hemengo hitz nagusiak dira, *ez gaitz-erran* lehen neurtitze-

an eta *Gizonek utzi balitzate* bigarrean. Hala egina da olerkia, bi zatitan, lehen zortzi bertsuek aditzera emaiten dutela hobe dela ixilik egoitea eta ez emazteen kontra mintzatzea, azken zortziek erakusten dutelarik elizaren sei-garren manamenduaren haustean gizonak direla hobendun eta ez emazteak.

I. EMAZTIAK EZ GAITZ-ERRAN

Orduko pentsamenduaren kontra doa Etxepare. Alabaina jendeen artean badira diferentziak : nobleak, tituludunak direlarik goretsiak, jende xehea, laboraria edo artzaina aldiz gaitzetsiak. Bainan sailkapen horretan sartzen da bigarren sailkapen bat, gizona dela nagusi, emaztea haren menpean. Ideia hori orokorki hedatua da jendartearen edozein klasatan, nobletan hala nola jende xeheen artean. Garai batean teologoek berek dudatan zeukaten arima bat bazutenez emazteek.

Emaztearen itxura aldi bat baino gehiagotan aipatua da atsotizetan, erdi-aroan edo lehenago sortu diren erretrauetan eta hori edozein hizkuntzatan. Adibidez:

- *La burra y la mujer apaleadas quieren ser.*
- *Bon cheval, mauvais cheval veut l'éperon.*
Bonne femme, mauvaise femme veut le baston.

berdin bi atsotitzak parekatuak dira, bat bertzearen itzulpena edo biek bertze batena :

- *Una buena cabra y una buena mula y una buena mujer son malas las tres.*
- *Une bonne femme, une bonne mule, une bonne chèvre sont trois méchantes bêtes.*

Horien idurikoa, mespretxuz betea emaztearentzat :

- *Emak horari hezurra eta emazteari gezurra* (500)

Emaztearen akatsak bereziki azpimarratuak dira atsotizetan :

- alferkeria
Eder, auher (122)
- aldakortasuna
Hegoa iduri du emaztearen gogoa (225)
- urgulua
Aizez izorra zedina putzez erdi zedin (542)

- gizonaren galgarri
Jokoak, emazteek et'arno onak
dostazez galtzen tuzte gizonak (525)

Idea horiek nagusi ziren jendeen artean eta aurka joanez Etxepare-ren erakuspenak balio berezi bat dauka. Hortakotz bi zatitan bilduko du bere ikus-moldea, lehen lau bertseuek aldarrikatzen dutela hobe dela ez gaitz-erraita eta ixilik egoitea, bertze lauek erakusten dituztela emaztearen kalitate haundiak.

a) ez gaitz-erran

Lau bertse horietan hitz nagusia *gaitz-erran* da dudarik gabe, usu agertzen baita edozein manieraz, aldi bat lehenean (*gaizki erraiten*), bi aldiz bigarreanean (*gaizki erran* eta *gaitz erranen*), bi aldiz ere hirugarrenean (*gaitz erraita* eta *gaitz-erran*), aldi bat laugarrenean (*gaitz-erraile*). Bada holako simetria (1-2-2-1) *gaitz erraite* horretan, kontra doalarik Etxepare, gaitzesten duela gizona, emaztearen mespretxazailea, nola nahika mintzo baita “arizki eta desoneski”, mendratuz emaztea, deuserentzat hartuz, segituz, azkenean, emazteen kontrako literatura nasaia « *femina nulla bona* » edo « *omnia mala ex mulieribus* » diona, erran nahi baita, emaztea ez dela batere ona edo gaitz guziak emazteen ganik heldu direla. Eva-ren itxura adierazten du, bekatu egilea, parabisua galdu duen lehenbiziko emaztea, munduak ezagutu eta ezagutzen dituen gaitz guzien sortzailea. Hala mintzo dira gizonak lehenbiziko bertsean, gehienak bederen, jende zuhurra ez delarik hola ari bigarren bertseak salatzen duen bezala:

Zuhur gutik andreagatik gaizki erran diroite.

Emazte guziak zaku berean sartzea, Eva-ren alaba gisa hartzea, itxuragabekeria da ; Etxepare-k erakusten du “balentria sinplea” dela. Hirugarren bertsean Etxepare burlatzen da gaizki erraileez, arrazoin gabeko gizonak direlakoan, haien erranak balio gabeak. Hain zuzen, laugarren bertsean galdegiten die bertze manera batez jokatzeari, gogoan erabil dezaten zer den egiazki emaztea :

Andren gaitz-erraile orok behar luke pentsatu.

Neurtiz hau bertze neurtitz baten oihartzuna da. *Doctrina christiana* deritzan olerkia hasten da formula bertsearekin :

Munduian den gizon orok behar luke pentsatu.

eta azken oihartzuna aurki dezakegu *Sautrela* deitu olerkian :

Heuskaldun den gizon orok altxa beza buruia.

Orotara hiru dei, lehena mundu guzian bizi diren jendei —azpimarra dezagun halere gizonak bakarrik aipatzen dituela— bigarrena emazteen kontra mintzo direnei, batzuk eta bertzeek bi gogoeta egin dezaten egiari emanez bere bidea, hirugarrena euskaldun guziei joka dezaten beldurrik gabe beren hizkuntzaren alde.

Gehiago dena, Etxepare-k manatzen die gaitz-errailei, « *ixilik egoitia* » lehen bertsuan, « *ixil ladin nahi nuke* » hirugarrenean. Ixiltze horrek badauka bere erroa Etxepare-k garbiki agertzen duena, emazte bakoitzaren gibelean dagoela ama, haurraren sortzailea, errespetua merezi duen presuna. Emeki emeki agertuko da amaren itxura. Lehenik adierazten du hutsak gizonekin egiten dituztela emazteek, ez direla, beraz, hobendun bakarrak. Bigarren bertsuan agertzen da haurren sortzailea olerkariak bere burua lekuko ezarriz aditza pluralaren lehen pertsona baliatuz :

Handi eta txipi oro haietarik girade.

Emaztea ez da bakarrik haur sortzailea, haurren hazlea da ere, bereziki lehenbiziko egun eta hilabeteetan. Hemen ere, bertze bi bertsuetan egin duen bezala, Etxepare-k azaltzen du bere iritzia azken neurtitzean, bertzeek baino indar gehiago baitauka azken neurtitzak :

Damu gaitzik emazteak hari eman dithia !

gaitz-errailearen kondena garratza azalduz.

Laugarren bertsua bere osotasunean hartu behar da. Ez da zuzen gaitz erraitea, hobe da, dudarik gabe ixilik egoitea, baina ez da aski ; itxuragabeke-riak utzirik, mutu egoiteari uko eginez, beharrezkoa da emaztea laudatzea, bertsu hontan azken neurtitzak bide onean ezartzen baitu gaizki errailea, neurtitzaren azken hitzak hartzen duelarik balio berezia:

Amagatik andre oro behar luke goratu.

b) *la perfecta casada*

Gaitz-erraile anitz balin bada mundu zabalean, zuzen da aipatzea denbora berean, eta bereziki Eliza katolikoan, emazteen aldekoak badirela. Fray Luis de Leon-ek goraiapatuko ditu bere *La perfecta casada* delakoan. Ez du bertzerik egiten Etxepare-k, bere burua sartuz defendatzaileen artean, hartuz gizon-emazteek eta, zertako ez, senar-emazteek egiten duten bikotea.

Ez da ideia handitan murgilduko ; eguneroko bizian erakutsiko du *gizonaren probetxuko* dela emaztea. Bosgarren bertsuan berriz aipatzen du haur sortzailea (*haietarik sortzen gira*), haurtzaroa gero, amaren ganik behar den bezala haziz urruntzen duela heriotzea (*Sorthu eta hil ginate*) eta azkenean emazteari esker, gazte izanez oraindik, behar diren laguntza guziak eskainiz :

Haziz geroz egun oroz behar haren aiuta.

Seigarren bertsuan, haur eta gazte denbora iraganik, gizonak badauka emaztearen baitan zerbitzari on eta leiala : josle, sukaldari, erizain, ofizio guziak betetzen ditu emazteak, erakutsiz zer bilakatzen den emazterik gabe den gizona, metafora baten bitartez : *gizon egurra*, deus egiten ez dakiena. Aipatzen du ere alargundua den gizona, osoki zoratua hain beharrezkoa duen emaztea joan zaiolarik. Eta apezak ere, bere gelariaren beharra senditzen duelakotz, sartzen da ere Etxepare gizonen artean pluralaren lehen pertsonarekin :

Ordu oroz behar tugu, ezta heben zer duda.

Nahiz orai arte bere burua sartu duen bertze gizonen artean, zazpigarren bertsuan *gu-tik ni-ra* joanen da olerkaria, bere iritzi pertsonala azalduz. Etxe batean emaztearen falta nabari da : etxekandere gisa etxearen arima zaintzen du *plazer* guzia hedatuz. Etxepare-k hautatu hitza ez da balio gutikoa : *plazer* horren giblean datza etxeko gozoa, zoriona, kontrakoak direlarik gaizki atxikia den etxea, sekulan xahu ez dena edo *gaizki erreglaturik* utzia. Hala da mundu honetan emaztea baita etxe barneko erregina, hala izan daiteke bertzean betiereko parabisu hartan. Azken neurtitzak agertzen du olerkariaren agiantza eta indar gehiago emaiten dio eza eratzikiz bi aditzei (*enuke* eta *ezpalitz*), bi ezezko horiek indartzen dutela baietza :

Parabizuian nahi enuke emazterik ezpalitz.

Lehenbiziko zati honen bukatzeko lehen bertsuan aipatu duen gaiari lotuko zaio Etxepare. Gizon eta emazteen arteko harremanetan nor da nagusi? :

Andrek gizoneki bezi hutsik ezin daidite.

zation lehenbiziko bertsuan. Zortzigarren honetan argi eta garbi erakusten du gizona dela lehenik *jaukitzen* dena. Hitz honek ere dauka bere balioa zeren eta gerlako hiztegia baliatzen baita edozein literaturatan (euskaldunean ere) amodiozko harremanen aipatzeko. Emaztea gaztelu idurikoa da, gizonak setiatzen du, gerlaren hastapena gizonak du beti. Etxepare-k azaltzen duena Denis de Rougemont-ek ederki esplikatzen du “*L’amour et l’Occident*” deritzan liburuan:

Dès l’Antiquité, les poètes ont usé de métaphores guerrières pour décrire les effets de l’amour naturel. Le dieu d’amour est un archer qui

décoche des flèches mortelles. La femme se rend à l'homme qui la conquiert parce qu'il est le meilleur guerrier. L'amant fait le siège de sa Dame. Il livre d'amoureux assauts à sa vertu, il la serre de près, il la poursuit, il cherche à vaincre les dernières défenses de sa pudeur et à les tourner par surprise ; enfin la dame se rend à merci. (265-266. or.).

Gizonak du lehentasuna bere barreneko oldarra solegitu nahi duelakotz, hala egina baita. Bainan ez du aitortu nahi bera dela hobendun, bera dela gaix-takeria pentsatzen duena. Hortik dator bertsuaren bukatzeko Etxepare-k egiten duen galdea:

Zeren, bada, daraukate emaztiari ogenik ?

Galde horrekin akabatzen da lehenbiziko zatia. Kalitate haundiak izan arren, emaztea gizonarentzat gauza idurikoa da, gizonaren esklaboa, gaizki erabilia eta, azkenean belztua, Eva-ren alaba izanez eta munduak sortzen duen bekatua jasanez.

Hasi duen bezala bukatzen du olerkariak *gaitz erraiteko* zati hau, erakutsiz maisu dela erretorikan.

II. GIZONEK UTZI BALITZATE

Jadanik zortzigarren bertsuari Etxepare-k adierazten zuen gizona zela bereziki hobenduna eta ez emaztea. Orain, olerkiaren bigarren zati honetan gai bera zabalduko du ikuspegi berri baten bitartez, emazteen bertutea gorai-patuz.

a) emazte bertutetsuak

Hain zuzen *bertute* hitzarekin hasten da bederatzigarren bertsua :

Bertuteak behar luke gizonetan handiago.

Konparaketa eginez, gizonen eta emazteen artean Etxepare-k erakusten du bertutea emazteen baitan dagoela, bera lekuko jartzen delarik : *nik dakusat.*

Argi eta garbi emana da iritzia : gaizkia gizonetan datza, bertutea, garbi-

tasuna, emazteetan. Iritzi horren indartzeko baliatzen ditu zenbakiak: *mila* eta *bat* azken bi neurtizetan kiasmari esker :

*Mila gizon gaixtorik da emazte batendako
Gizon baten mila andre bere fedean dago.*

Aurka doaz mila gizon eta emazte bat // gizon bat eta mila andre alde batetik, aurka ere gizonen gaixtoa eta andreen fedea.

Egia da Etxepare-k berak baduela esperientzia aitortzen duelarik *Amorosen gaztiguya*-n :

Nihaurk ere ukhen dizit zenbait ere amore.

Errepikatuz olerki berean :

Nihaur ere ebili naiz anhitzetan erhorik.

Baina egia da ere apez aitorle gisa jakin duela zerbait baino gehiago seigarren manamenduari buruz.

Gizonak gaixtoak, emazteak bertutetsuak ez da hola zatikatzen jendartea, behar da sartu ñabarduretan. Orokorki gizona jaukitzen balin bada horrek ez du erran nahi beren fedean daudela emazte guziak. Badira erortzen direnak, gizonaren nahia onartzen dutenak :

Bana anhitz emazte da eskapatzen zaienik.

Etxepare-k badaki zer den gizonen eta emazteen ahulezia amodiozko gauzetan, bainan *anhitz* hitzak azaltzen du emazteek, orokorki, daukaten bertutea:

Anderetan zeren baita berthutea hobenik.

Hamekagarren bertsuan urrunago joanen da Etxepare, hortan ere bere iritzi pertsonala emanez, *ni* delakoaren bitartez. Egia da, orokorki, ez duela emazteak lehen urratsa emaiten, are gutiago bortxa dezakeela gizona, jakinik, alderantziz, gizona erhoturik, zoraturik, barreneko oldarrak ezin atxikiz, emazteari jaukitzen zaiola. Bainan ez du ere baztertzen gerta daitekeela kasua non emazteak erakusten baititu bere sendimenduak:

Zenbait andre hel baledi oneritzez hargana.

Neurtitz honetan aditzak merezi du azterketa : aditz erroa daukagu *hel*, denboratik kanpo dena, eta aditz laguntzailea *edin* da, balitzeko gertakizuna eskaintzen duena, gertakizun berezia, arraroa, biziki bakan aurki daitekeena beraz. Holakoetan Etxepare-k irriño batekin galdatzen du :

Zein gizonak andriari emaiten du ogena?

Emazte bertutetsuak Jainkoaren maitasuna gozatzen du dio olerkariak hamabigarren bertsuan. Andre dona Maria izan da emazteen artean hautatua.

Aita hartaz *amoraturik* —hala mintzo da Etxepare— gizon egin da semea, mundu honetako jende guzien anaia bilakaturik. Emazteari esker, haur sortzailearen bitartez egina izan da mirakuilu hori. Neurtitz labur batean Etxepare-k gauzatzen du miragarria.

Emaztiak ezarri du gure anaieturik.

Anaietu aditzak biltzen du hitz bakar batean Eguberriko gertakizuna, menderen mendetan ospatzen dena, denbora berean laudatzen dela *Ave Maria* kantatuz zeruan dagoen jende guzien ama. Eva-ri erantzuten dio *Ave Maria*-k. Hala dio Denis de Rougemont-ek “*L’amour et l’Occident*” liburuan :

A la Femme instrument de la perdition des âmes répond Marie, symbole de paix et de lumière salvatrice, Mère intacte (immatérielle) de Jésus et, semble-t-il, Juge pleine de douceur des esprits délivrés. (85. or.).

Emazte bertutetsua goraiatzten duelarik Etxepare-k, bere fedean dagoenetik badoa emazte bertutetsuetan den bertutetsuenara, Andre dona Mariaren gana, *Amorosen gaztiguia*-n laudatzen zuena idatziz:

Bertzek bertzerik gogoan eta nik Andre dona Maria.

b) ezagutza biblikoa

Azken lau bertsuok garrantzi haundikoak dira Etxepare-ren olerkian. Gizon-emazte bikotean erakutsi du gizona dela hobendun, beti emaztea daukala gogoan, jaukitzen duela noiz nahi. Emaztearen kalitateak laudatzen ditu etxeko andere edo gizonaren zerbitzari gisa, baina goraiatzten du bereziki emaztearen bertutea, gizonaren nahikeriak onartzen ez dituelarik.

Bikote horrek badu aspaldi danik xedezin bat : ezkonduz, haurrak sortu segidaren segurtatzeko. Bibliaren Hasieran errana da Jainkoak egin zuela lehenik gizona, Adan, eta ikusiz ez zela on bakarrik egon ledin, Adan-en haragitik sortu Eva, emaztea, Adan-en haragiaren haragiak egina. Bi bizidun, ez sexu berekoak, bat izaiteko eginak lehenbiziko ezkontzan:

Hargatik gizonak bere aitamak utziko ditu bere emaztearekin elkartzeko eta bat bera izanen dira. (Hasiera, 2-24).

Hain zuzen hau da Etxepare-k eskaintzen duena, elkartze hori, bateratze hori, ezkontzaz edo ezkontzatik kanpo egiten dena, baina apez gisa eskontzakoa erakutsi nahi duena ene ustez. Emaztearen kalitateak eta haren bertu-

tea erakutsi-eta, gelditzen da emaztea bera, bere gorputz-arimetan, hamahirugarren bertsuak eskainitakoa:

*Irudi zait emaztia dela gauza ezti,
Donario guzietan guziz gauza emia.
Gaoaz eta egunaz ere badu plazer handia ;*

Hiru neurtitz horietan Etxepare-k biltzen du emaztearen itxura, azpimarratuz bereziki bi kalitate, eztitasuna eta emetasuna, bi izen ondoak *ezti* eta *eme* neurtitzen bukaeran direlarik hobeki erakustekotan. *Ezti*, erran nahi baita jite onekoa, gozoa, sekulan oldartzen ez dena, bera, berez, *emea* baita. Etxepare-k lotzen ditu *emazte* eta *eme* hitzak erro berekoak baitira *Arra/eme* bikotean arrak (edo senarrak) dauka berekin indarra, oldarra, bortizkeria noiztenka, *emeak* aldiz, emazteak dituen kalitateak, umiltasuna, lasaitasuna, sosegua, pazientzia, gehienetan gizonak ez dituenak. Biak elgarrekin bizi direlarik gauaz eta egunaz, erran nahi baita beti, hutsik egin gabe hedatzen du emazteak bere kalitateei esker Etxepare-k deitzen duen *plazer handia*, hots, hitz batez, elgarrekilako zoriona.

Hiru neurtitz horiek ederrak dira, bainan zerbait gehiago badaukate: hitzek balio gehiago hartzen dute sortzen duten musikarekin. Dena eme eta ezti balin bada emaztean, kontsonante ozenen hotsa *b, d, g, r, l* ezkontzen da *m* eta *n* sudurkariekin eta bereziki *z* txixtukariarekin, bokalek ere parte hartuz *a, e, i* bokale argiek lehentasuna daukatela *o* eta *u* bokal ilunen kontra. Pasarte ederra, egitura bera atxikiz azken neurtitzean:

Hartzaz gaizki erraitia bilania handia.

Lehenbiziko bertsuetakoa gaia berriz aipatuz.

Gero, heldu dira bi bertsu elgarri lotuak, non Etxepare-k aipatuko baitu “ezagutza biblikoa”, nola juntatzen diren gizona eta emaztea, bi bertsu zentsuratuak XIX. mendeko edizioan. Laudoriozko bertsuak dira azpimarratzen dutelarik emaztea buluzkorrik, gorputz gazte eta ederra erakutsiz Adan eta Eva ziren bezala parabisuan, osoki emana *beso biak zabaldurik*, abandonatua gizonaren eskuetan hau delarik jaun eta jabe, *gizon horrek dagiela hartzaz nahi duienik*. Jondoni Pauloren manuak segitzen ditu diolarik Efesoarrei zuzendutako gutunean (V-22-24):

Emazteak beren senharrei Jaunari bezala izan beitez ethordun, zeren senharra baita emaztearen burua, hala nola Kristo Elizaren burua baita, haren gorputzaren salbatzailea. Eta nola Kristori ethordun baitzayo Eliza, emazteek ere beren senharrei orotan hala izan behar dute. (Duvoisin)

Bertze bertsuan, hamabosgarrean, erakusten da bien arteko harremana, deitu dudan “ezagutza biblikoa”, biek bat egiten dutela. Hemen, jadanik erakutsi dudan bezala, gerlako hiztegia ageriko da. Gerlako metaforak baliatzen ditu : *dardoa*, *jo*, *zauria*. Egia erran, borroka idurikoa da amodiozko bateratzea. Hemen gizona da nagusi eta egile, emaztea, aldiz, osoki emana, *errendatua*, ez du deus erraiten, gelditzen da aingerua bezala bere eztitasun eta emetasunean, onartuz gizonaren oldarra, jasanez senditzen duen mina.

Hain zuzen, *dardoa* eta *zauria* aipatzearekin ez ote du adierazten Etxepare-k ezkontzaberrien arteko lehen harremanean andregaiak emaztetzen denean senditzen duen zauria. Gero heldu da, amodiozko jokoaren ondotik (*dardoa ematu* ; *zauria sendotu*), emaztearen eginbidea, bere graziaz, bere eztitasun eta emetasunaz nagusiarazten duen bakea.

Hemen ere, nola ez aipa zortzi neurtitzen musika. Alde batetik kontsonante ozenen hotsak nahasten direlarik sudurkari eta txistukariekin oroitarazten dute emaztearen grazia, bainan, denbora berean gizonaren oldarra amodiozko borroka aipatzean, baliatzen ditu olerkariak kontsonante gogorrek *p*, *t*, *k* eta *k* bereziki, *t* kontsonanteak ere bere parte hartuz, zortzi neurtitzek *k* batekin egiten dutela errima. Eztitasun eta gudua, bai hitzen eta bai hotsen musikak apaintzen du ene gustuko zentsuratua izan den pasarte eder, poetiko eta ezin ahantzizkoa.

Alta, ez da Etxepare Elizaren erakaspenetik urrundu bi bertsu horiek idaztean. Ez dezagun ahantz ezkontzak sortu dituela eztabaidak Elizaren barnean, apezak ere ezkontzen zirela Gregorio VII. zen Aita Sainduak debekatu arte (XI. mendean). Georges Duby, frantses historialariak, eskaintzen digu Erdi Aroko dokumentu bat oso interesgarria, Hincmar Reims-eko artzapezpikuarena :

L'archevêque voit dans le mariage ce qu'il est effectivement : une institution sociale relevant de la loi naturelle ; une "association" dont les participants sont inégaux : Entre le mari et l'épouse s'établit une relation sentimentale (dilectio) excellente, primordiale, sauf que dans cette conjonction la direction (praelactio) revient à l'homme ; la soumission (subjectio) à la femme. L'homme est "prélat", il commande. Toutefois, de la hiérarchie procède la complémentarité. En effet, comme la lune et le soleil, comme l'eau et le feu, le principe féminin et le masculin se corrigent par leur réunion, mutuellement, de leur déficiences. Dans le mariage la rouerie de la femme s'atténue en même temps que la brutalité de l'homme. Ainsi peut naître l'harmonie. (Le chevalier, la femme et le prêtre, 37. or.).

Ez du bertzerik adierazten Etxepare-k : senarraren nagusitasuna, emaztearen menekotasuna (*dago errendaturik — ez larrake gaizkirik*) eta gero bien arteko zorion baketsua (*elgarreki baketurik*). Erdiaroko Elizaren ideologian murgiltzen da Etxepare.

Eskandalatzen hartu dute, dudarik gabe, XIX. mendeko agerraldia egin dutenek, Brunet eta Archu-k eta bat nator Denis de Rougemont-en iritziarekin, diolarik:

Mais il convient de préciser encore que pour les hommes du XVI^e siècle le langage érotique était plus innocent qu'à nos yeux. C'est nous qui sommes des névrosés, héritiers du "puritanisme" embourgeoisé d'un XIX^e siècle incroyant. (L'amour et l'Occident, 181. or.).

Azken bertsua galderazko bertsua. Bi galde egiten dizkio gizonari Etxepare-k. Holako oroitzapen baten gutiesteko, ukatzeko, gizona ez da gizonki portatzen, ez du gizonaren izena merezi. Bi izen-ondok salatzen dute zer den egiazki : *modorra*, arrunta, oihesa, zakarra, sendimendurik gabekoa, eta bigarrena *ez naturazkoa*, hots abere gisa dabilana. Holakoak dira emazteez gaizki erraiten dutenak (ikus lehen bertsuaren lehen neurtitza), holakoak ere ukan duten atsegina ukatzen dutenak. Hola bukatzen da olerkia:

Zeren eztu ezagutzen hala ongi egina?

Ongi egina eta ez bekatua. Orduko ikuspegia, amodiozko jokoa delarik Etxepare-rentzat atseginez betetzen duen bikotea eta ez lizunkeria, zentsurataileek pentsatzen zutena.

Emazteen fabore olerkiaren azterketa bukatzean zer pentsa dezakegu Etxepare-z, nola agertzen zaigu Eihalarreko erretora, Garaziko bikario nagusia ? Ikusiz olerkiaren egitura, nola deraman arrazoinamendua, euskaldun jakintsunen artean bere lekua dauka. Denbora berean eta apez gisa badauki zer diren jendeen ahuleziak, bereak nola bertzerenak, aitorle izanez. Artzain onak bezala ezagutzen ditu bere ardiak, haietarik hurbil dago eta, emazteen defentsa hartuz lehenik, aipatuko ditu amodiozko olerkietan maitasunak eskaintzen dituen kasu guziak, bilatuz kasu bakoitzean dagokion erakaspena. Olerkigintzaren aldetik ez du deus berririk ekartzen segitzen baitu kantu zaharren ohidura, baliatuz gehienetan lau neurtitzeko bertsua hamabost silabako bertsu-lerroekin (8+7) edo kopla zaharra *Amorez errekeritzia* eta *Kontrapas* olerkietan. Zer nahi gisaz Trento aitzineko apezka da Etxepare eta hari esker daukagu orduko ohiduren eta bizi moldearen lekukotasuna.

BIBLIOGRAFIA

ETXEPARE, B. 1968. *Linguae Vasconum primitiae*. Akesolo-ren gaztelania itzulpena eta René Lafon-en frantses itzulpenarekin. Edili, San Sebastián.

ETXEPARE, B. 1980. *Linguae Vasconum primitiae*, Patxi Altunaren edizio kritikoa, Euskaltzaindia eta Mensajero, Bilbo.

HARITSCHELHAR, J. 1994. "Emaztea Oihenarte-k bildu atsotizetan", *Oihenarten laugarren mendeurrena*, Iker 8, Euskaltzaindia, Bilbo, 273-294. or.

DUBY, G. 1981. *Le chevalier, la femme et le prêtre, Le mariage dans la France féodale*, Hachette, Paris.

DE ROUGEMONT, D. 1972. *L'amour et l'Occident*, Plon, Paris.

LE CHAPELAIN, A. 1974. *Traité de l'amour courtois*, Traduction, Introduction et Notes par Claude Buridant, Klincksieck, Paris.

LAFITTE, P. 1931. *Eskualdun Loretegia, Lehen zathia, 1545-1800*, Lasserre, Baiona.

DUVOISIN, J-P. 1972. *Bible Saindua edo Testament Zahar eta Berria*, 3 liburuki, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao.

Elizen arteko Biblia, 1994. Euskal Herriko Elizbarrutia, Bilbo.

MAURICE HARRIET ETA EUSKAL IDAZLEAK

A. Hirigoyen

Gaian zuzenean murgildu aitzin, nahi nuke lehenik izenburua zehaztu. *Maurice Harriet eta euskal idazleak* izenburuaren gibelean, bi gai nagusi bereizten dira; alde batetik Maurice Harriet bera, eta bestalde, gai nagusia behar bada, *euskal idazleak* edo hobeki erran Harrietek bere hiztegian baliatu dituen idazleen eta obren zerrenda edo bibliografia izanen dugu solasgai. Lehenik, Harrietek etxean zuen liburutegia ezagutuko dugu. Bigarrenik, Hiztegian zer obra mota erabili duen eta azkenik zenbait adibide ikertuko dugu Hiztegiko A, K eta T hizkietan, egun prestatzen ari naizen tesi-lanerako hautatu ditudan hizkiak baitira.

Oroitarazi nahi nuke hala ere, Maurice Harrieten hiztegia jadanik landua izan dela, Henrike Knörr¹ jaunak, 1987.urtean aurkezturiko tesi-lanean Harrieten Hiztegia hartu baitzuen gaitzat; eta bereziki H hizkiari buruzko edizio kritikoa eskaini zuen.

Baina lehenik, Maurice Harriet eta haren hiztegiaren aurkezpen orokor bat egingen dugu.

1. AURKEZPEN OROKORRA

a) Maurice Harriet

Nor ote zen Maurice Harriet? Egia da euskalgintzan, Martin Harrieten izena ezagunagoa dela, Maurice Harrieten bano. Martin Harriet Maurice-n

¹ Knörr E. 1987, *Para una edición crítica del diccionario de Maurice Harriet*. EHU (Euskal Herriko Unibertsitatea) / Université du Pays-Basque, Vitoria/Gasteiz (tesi argitaragabea).

aitatxi zen, 1714.urtean Larresoron sortu eta bertako errege notaria izan zen. 1741.urtean, *Gramatica escuaraz eta francesez, composatua francez hitzcunça ikhasi nahi dutenen faboretan* izeneko gramatika eta bereziki frantsesa ikaste-ko metodoaren egilea da.

Maurice Harriet aldiz, Haltsun sortu zen 1814. urtean eta 1904.urtean, 90 urtetan zendu zen. Apeza zen, Larresoroko Seminario Ttipian hasi zituen ikasketak; ondotik Pasaian segitu zituen eta azkenik, berriz Larresororat itzuli zen, baina orduan irakasle lanetan aritzeko.

1835.urtetik 1878.urtera garai inportantea da Harrientendako. Lehenik, Juilly-rat joan zen lanerat, ondotik Baionarat itzuli eta azkenik Madrilen iragan zuen urte andana bat; hango “San Luis de los Franceses” eskolako buru izendatu baitzuten. Eta Madriletik beraz, berriz bere sorterrirat itzuli zen Haltsurat, eta han hasi omen zen bere euskara-frantsesa hiztegiaren presta-tzen.

b) Hiztegiaren aurkezpena, bi hitzez

- Maurice Harrieten hiztegiak ezaugarri nagusi hauek ditu:
 - Hiztegia eskuizkribu bat da, hau da sekulan argitaratu ez den eskuz idatzitako obra bat da. Orotarat 3.536 orri ditu. Tindu beltzez eta 33 x 22 zm handitasuneko orriz osatua da.
 - Orden alfabetikoa oinarritzat duen hiztegia da, nahiz eta zenbait aldi-tan hutsegite ttipi batzu gertatu (ordena nahasia, hitzak bi aldiz erre-pikatzea...).
 - Hiztegi elebiduna da: euskara-frantsesa. Sarrera hitzak euskaraz dira, eta mugabideak edo definizioak frantsesez. Hau da frantsesez espli-katzen ditu euskal hitzak.
 - Euskalki guziak konduan hartzen ditu: eta hau da ene ustez hiztegia-ren aberastasun handia. Euskalki bakoitzeko berezitasunak bereizten ditu, eta gainera euskalki bakoitzeko idazle baten obra edo aipamena egiten du.
- Hiztegiaren egitura:
 - Harrieten hiztegi-artikuluak molde honetan osatuak dira:
 1. Sarrera hitza
 2. Mugabidea
 3. Adibideak
 4. Sinonimoak
 5. Hitz iturburuak

6. Oharrak: hitzaren ezaugarriak: neologismoak, mailegu hitzak, fonetika oharrak...

d. Dokumentu berri bat: *Cabier de notes*:

Hiztegiak bestalde Harrieten beste dokumentu bat kausitu dugu: oharren liburuxka bat da, *Cabier de notes* izenburupean. Liburuxka hori Hiztegiarekin batera Baionako apezetxean atzeman dugu. Eta erran behar dugu kaier hori ez dela batere ezagutua. Huna zer ezaugarri dituen:

- Kasik 60 orriz osatua den kaier bat da. Maurice Harrieten idazkera da.
- Alfabetikoki sailkatuak dira orriak A-tik Z-rat, funtsean hiztegi baten itxura eta egitura badu.
- Hitzak zerrendatuak dira bat bestearen gibeletik eta sarrera hitzaren ondotik gehienetan sinonimo bat edo frantsesezko itzulpena ematen du Harrietek.
- Hizki biziki ttipiz izkiriartzen du kaier horretan eta ez du xehetasun handirik eskaintzen. Hala ere, tarteka, adibideak eta baliatzen dituen idazleen izenak agertzen dira.
- Ohargarria da, behin baino gehiagotan berriz hasten duela alfabetoa beste hitz batzuetarik hasiz. Gainera, hosto guziak ez dira beteak, zenbait lekutan hutsuneak badira.
- Konparatu ondoan, ohartu gara, zenbait kasutan *Cabier de notes* liburuxkan agertzen diren hitzak ez direla hiztegian ageri, sarrera hitz gisa, baizik eta azpi sarrera bezala. Beste zenbait kasutan aldiz, hitza, sarrera gisa agertzen da, baina beste adiera batekin.

Ondorioz, dokumentu berri horri begira, argi da Harrietek eranskin gisa erabili zuela kaier hau. Baina, noiz osatu ote zuen? Hiztegia egiten ari zen heinean, ondoan, ahanzten zituen edo erantsi nahi zituen hitzak idazteko baliatu ote zuen kaiera?

2. HARRIET ETA EUSKAL IDAZLEAK

Gaurko mintzagairat berriz itzuliz, Maurice Harrieten liburutegia aztertuko dugu orain. Baionako apezetxean Andiazabal jaunari esker kaier bat atzeman dugu. Kaier horrek bi parte ditu: lehenbizikoan, Harrieten liburutegiaren zerrenda dugu eta bigarren partean Hiztegia egitrakoan baliatu dituen zenbait obren zerrenda ageri da.

a) Harrieten liburutegia

Harrieten liburutegia solasgai harturik, Andiazabalen erranetan, delako zerrenda hori Laurent Hirigoyen apezak bere eskuz kopiatua du. Ez da sailkapen berezirik, obrak eta idazleak bat bestearen ondotik agertzen dira. Orotarat 255 obra zenbatu ditugu. Euskaraz, frantsesez nahiz gazteleraz izkiriaturiko obrak dira; literatura, erlijiozko obrak, historia liburuak eta beste hainbat gairi buruzkoak. Argitaratuak edo eskuizkribuak.

Zerk baieztatzen digu liburu zerrenda hori Harrieten zenik? Batetik, A, K eta T hizkietan, ikertu eta kausitu ditugun idazle guziak delako zerrenda horretan atzeman ditugu. Eta gainera, zerrenda horretan agertzen da, lehena-go aipatu dugun *Cahier de Notes* liburuxka; hau da Harriet beraren obra bat. Bestetik, erraiten ahal dugu badakigula Harrietek sekulako liburutegia zuela etxean:

“Puis encore, c’était le bureau de « l’oncle Maurice » froid et sévère : des livres partout, sur la table, sur les chaises et par terre.” (Dibildos² 1926 : 598)

“Le Petit Séminaire doit à la reconnaissance de dire qu’il hérite de sa bibliothèque basque et de son Dictionnaire.” (Daranatz³ 1908 :159)

“Euskal liburutegi joria zuen etxean (Leizarraga bat zuen, adibidez), eta agian haren garaian literatura ez zuen beste inork Harrietek bezain ongi ezagutzen.” (Knörr⁴ 1986 : 416)

Ezaugarri horiek baieztatzen ditugu besteak beste liburu horiek Harrietenak zirela. Sailkapen berezirik gabe zerrendatuak direnez, iduri du, Harrietek utzi zituen liburu meten zerrenda dugula eskuartean. Huna hemen zerrenda osatzen duten 11 orriak diren bezala berridatziak:

² Dibildos, 1926, “L’Abbe Maurice Harriet et sa Soeur “Mademoiselle Agathe”, *Gure Herria* (598-680).

³ Daranatz, J.B., 1908, “Le Testament Berria, de Haraneder, et ses éditeurs les abbés Dassance et Harriet”, *RIEV*/150-177.

⁴ Knörr E., 1986, “Maurice Harriet-en hiztegiak”, *ASJU*/413-417.

AUTEURS					
PAGE 1					
Aguirre	J.K. eta Virginia... Eracusaldiac	Tolosa	1850	3in-8°	
Moguel	Cofesio ta comunioco... Eracustec	Iruñe	1800	1in-8°	
	Manual Debozionezkoa			1in-8°	
Duvoisin	Laborantzako liburua		1858		
Sarako Bicario	Virginaren officioa – Manuscrit		1658		
Larramendi	El imposible vincido (<u>y en a-t-il 2 ex?</u>)	Salamanca	1729		
Arbelbide	Erlijioea	Tournay	1892		
Haramboure	Egun ona 2 ex	Bayonne	1829		
Cardaberatz	Aita San Ignacioren... Afectoac	Tolosa	1848		
Dargaignaratz	Deboten breviarioa Manuscrit		1644		
Hiribarren	Eskaldunak 2 ex	Bayonne	1853		
Cardaberatz	J.M. eta J. devocioa	Tolosa	1816		
id-	id-	Id-	1824		
Goyetche	Fableac Lafontaine 2 ex	Bayonne	1852		
Joannes Etcheberry	Noels x 2 autres ex, incompl. 4-10	Donibane	1630		
	Idiaz Manuscrit				
J.P.D.	Guide de la conversation	Bayonne	1876		
Pedro Ant.Añibarro	Esculiburua	Tolosa	1845		
	Perla ederra	Tolosa	1884		
	Jinkoac guizonarekin eguin patoac	Bayonne	1851		
	Uscaldunaren laguna	Bayonne	1852		
	Meditacioniac	Oloron	1844		
Cardaberaz	Euscaldun onaren viciera				
Astigara y Ugarte	Diccionario manual	Tolosa	1884		
de Lassalle	Sen Grat	Pau	1879		

PAGE 2

Noms d'étoffes et de vêtements en basque			
Larrieu	Calendrier republicain		
Vinson	Basques du XVIIè siècle		
Devoten breviariora			
Olaechea	Cristinauben dotrina	Tolosa	1787
Aizquibel	Ebanjelioa S.Lucasen guisan	Madrid	1838
Cruz de Echeverria	Jesusen Imitacioco...	Tolosa	1829
Cardaberaz	Ondo iltzen icasteco 2 ex?	Tolosa	1816
Salaberry	Vocabulaire	Bayonne	1857
Jose de Echeverria	Jesusen Imitacioa	Tolosa	1881
Loison	Doctrina khiristia	Bayonne	1808
Aguirre	Confesioco...	Tolosa	1823
N.I.D.	Gudu izpirituala	Bayonne	1827
J.N. HR D	Gudu izpirituala	Tolosa	1750
Haraneder	Philotea	id-	1749
	A.D. Mariaren Ilhabethea	Bayonne	1842
Royaumont	Testament çaharreko eta berriko	id-	1775
Id-	id	id-	1777
de la Vieuville	Bayonaco... Bigarren Catichima	id-	1733
de la Vieuville	A.Mariaren Imitacionea	id-	1778
Joannateguy	Bihotz sacratuaren	Id-	1894
Guiristinoen eguneko eguinbidea (p.3, 1)			
	id- jusqu'à ??		
I.R.B.	Fabulas	S.Sebastien	1842

PAGE 3

Joannes Haramburu Guiristinoen eguinbidea 3 ex + 1 (p.2-22,23)				
Gazteluzar	Manuel de dévotion			
	Jesusen amore nequeei... cembeit otoitzgai	Iruñe	1760	11in-18
Joannateguy	Ceruraco bideric errechena	Bayonne	1887	
Haraneder	Jesu Christoren evangelioa - Copie de l'abbé Robin -		1740	
Manuscrit				
Liçarraga	J.Christ gure J-ren Testament berria	La Rochelle	1571	
Haraneder	J.Christo gure J-ren Testament berria	Bayonne	1855	
	Trésor des trois langues	id-		
Baratciart	Guiristinoqui bicitceco eta hiltceco molde (2 ex.)	id-	1784	
	Maria-Maiatceco hilabete chumea	id-	1877	
	J.C.G.J-ren Testament berria	id-	1828	
Pedro Astarloa	Urteco Domeca... Verbaldi icasbidecuac	Bilbao	1816	
Duhalde	Meditacioneac	Bayonne	1809	
Cruz Echeverria	Devociozco vicitzaraco sarrera	Tolosa	1821	
Gèze	Grammaire basque	Bayonne	1873	
Maytie	Prières ou prone	id-	1874	
Baudrimont	Histoire des Basques	Paris	1854	
Salaberry	Evangile selon S. Mathieu	Bayonne	1856	
A. d' Abadie	Etudes gramaticales	Paris	1836	
Iztueta	Guipuzcoaco dantza 2 ex (2 Edit 1895)	S.Sebastien	1824	
Archu	La Fontainaren alegia	La Reole	1848	
Aintia	S.Josepen 7 igandetako jayera	Tolosa	1890	
Lecluse	Grammaire basque	Bayonne	1826	
Lizarraga	Urteko igande... Platicac edo itzaldiac 2 ex. v.p.6,16	Donostian	1846	

PAGE 4

	Inscriptions basques	Madrid	1896
Orreaga	Lengua Euskara	Pamplona	1880
Fabre	Dictionnaire Français-basque	Bayonne	1870
J. de Etcheberri	Lauurdiri Gomendiozco carta	id-	1718
Antonio Moguel	Mayatz illerako berba-aldijac	Tolosa	1885
F. de Revol	Catechisma	Pau	1788
	Francesen Imperadorearen catichima	Bayonne	1812
	J.Christoren Imitacionea	id-	1788
	Kantu patriotikak	id-	1844
J.Etcheberry	Noelac (p.1-14 ?)		
Darganaratz	Noelac 3 exemplaires		
	Cantica espiritualac	Bayonne	1846
	Devotion au Sacre Coeur	Bayonne	1759
	Jesusen Bihotz sacratuaren devocioa		
	Catechima Ziberucoa	Toulouse	
	Othoitce eta cantica espiritualac		
Vinson	Le Basque Navarrais-espagnol		
	Cahier de Notes – Manuscrit		
d'Etchepare	Poésies basques	Bordeaux	1847
	Cantica izpiritualac	Bayonne	
	Vieux textes basques		
Menendez	Christinau doctrina	Durango	1895
Duvoisin	Testament Zahar eta berria 5in 8°	Londres	1859
Ithurzaeta	Urtearen Domeca... Verbaldia	Tolosa	1894
	Anecdota – Oxoniensia	Oxford	1894

PAGE 5

	J.K. Ebanjelioa S.Mathiuren arabera	Bayonne	1829	
	Ipuiac	Tolosa	1884	
Iztueta	Guipuzcoaco... Condaira	Donostia	1847	
	Catichima	Bayonne	1815	
F.A. y B.	Diccionario manual	Tolosa	1884	
Vinson	Bibliographie	Paris	1891	
	Escuararen berri onac (5, 22)	Iruñen	1761	
	Capanagaren dotrina traduction Ripalda	Viscun	1893	
Instructions sur les Evangiles des dimanches -				
Manuscrit				
	Recherches	Paris	1866	
Urte	Etorquia	London	1898	
Larramendy	Diccionario trilingue	S.Sebastian	1745	
Zavala	El verbo regular	id-	1848	
Lagrèze	Navarre française	Paris	1882	2in-8°
Inchauspe	Verbe basque	Bayonne	1848	
Campion	Gramatica	Tolosa		Fascicules
Vinson	Documents pour l'étude historique de la langue basque			
Iturriaga	Ipuiac (5, 2)	Tolosa	1884	
F.A. y B.	Diccionario manual	id-	id	
Humboldt	Recherches sur les habitants...	Paris	1866	
Larreguy	Testament çaharreko historia...		1775	
Cardaberaz	Eusqueraren berri onac (plus haut n°7=104)	Iruñe	1761	
	J.C-ren Ebanjelio Saindua S. Mathiuren...		1825	
Ebanjelioen esplicationea – Manuscrit				

PAGE 6

Iturzaeta	Urtearen domeca	Tolosa	1894	2in-8°
	Aita S.Ignacio egercicioa	Iruñe		
	Capanagaren dotrina	Vizcun	1893	
	Jesus Christen imitacionia	Oloroun	1838	2 éditions
	Grammaire et vocabulaire – Manuscrit			4 in fol.
Mgr de Suarez d’Aulan	Catichima	Bayonne	1815	
Urte	Genese et exode	Oxford	1894	
Vinson	Documents pour l’étude de la langue basque	Bayonne	1874	
Campion	Gramatica (p.5, 16)			15 fasci- - cules
	Sermons basques – Manuscrit			Un cahier
Tartas curé d’Aroue	Le premier livre souletin			
Van Eys	Dictionnaire basque français	Paris	1873	
Lapitz	Bi saindu Hescualdunen bizia	Bayonne	1867	
Joannateguy	Sainduen bizitzea			
d’Iharce Bidassouet	Histoire des Cantabres	Paris	1825	
Lizarraga	Urteco... Platicac v. p.3, 24	Donostian	1846	
	Recueil de chants basques musique -			1 cahier
	Manuscrit			
Duvoisin	Declinaison basque	Bayonne	1866	
	S.Ignacioren bizitzea laburtua	Bilbon	1872	
Lucien Bonaparte	Remarques sur Vinson	Londres	1897	
	Pregariac 1651 2 ex.			
	Persecucionezco dembora			
	Haurchuen lehen escola	Bayonne	1828	
Ribary	Langue basque	Paris	1877	

PAGE 7

Lacoizqueta	Diccionario de plantas	Pamplon	1888
Van Eys	Proverbes basques espagnols		
	Birjina edo donceil christiba – Manuscrit		4in-12
	Jaingoicoaren amar aguind... Icasiquizunac	Irun	1816
Darrigol	Disseratation		
Oyhenart	Proverbes basques		
Arbelbide	Bokazionea		
id	Igandea		
J.P.D.	Guide Manuel 2 exempl.		
Harriet	Gramatica escuaraz eta francesez 2 ex. (ou 3?)	Bayonne	1743
Etcheberry	Eliçara erabiltceco liburua	Bordelen	1665
Echeverria	Vici bedi Jesus 2 exempl.	Tolosa	1824
	Eucologia ttipia	Parisen	1758
	Eliçaco hymnoac – Manuscrit		3in-18
Astete	Doctrina cristiana 2 exempl.	Tolosa	1847
id	Id	id-	1820
Diharassarry	Giristino legea	Bayonne	1892
Chaho	Histoire primitive des Basques		2in-8
	Chemin de la croix – Manuscrit		1in-8
	EZ DA DEUS IKUSTEN!		
Jauretche	Jesusen bihotz... Debocionea		
Haraneder	Philotea	Bayonne	1853
Cardaberaz	Ondo illtcen icasteko (p.2, 8)		1816
	Exercicio izpirituala	Bayonne	1831

Gueroco guero			
	Esculdun cosinera	Bayonne	1864
	Escu liburua	Toulouse	1846
Hiriart	Introduction langue basque	Bayonne	
Astete	Cristinaubaren jakinbidea	Bilbao	1821
Cardaberaz	Meza ta Comunioa	Tolosan	1848
Hiribarren	Esculdunac	Bayonne	1853
Darricarrère	Langue basque		
Daniel Baertelen	Sermoia	Dourango	1895
Fabliac			
Duvoisin	Propheties de Jonas	Londres	1863
	Jubilaueco otoitzac		1751?
A 2?	Cantiques des missions Cantico izpiritualac	Bayonne	
	Ama virginaren irragaitça	Bayonne	1839
Urresco gacoa - Manuscrit			
A 3?	Meditations		
Etcheverry	Eliçara erabiltececo liburua (2 ex.) p. 7 11,13		1635
Francisque Michel	Pays basque		

PAGE 9

A			
Vinson	Le 1er livre Souletin		
	Cantico Izpiritualac (2 exempl?)	Bayonne	1775
	Meditazioneac - 2 éditions diff.	id-	1839
	Alphonsa Rodriguez - 2in-18	id-	1782
	Cantica Izpiritualac	Bayonne	1804
	Jesu-Christoren Imitacionea	?	?
Ez da irakurtzen!	Cantico Izpiritualac	Bayonne	1824
Cardaberaz	Jesus Maria ta Joseren (1, 12)	Iruñean	1766
	Ceruco Gakhoa	Bayonne	1845
Lardizabal	Testamentu Zarreco eta Berriko condaira	Tolosan	1887
Lopez? v. nº4 A	Alphonsa Rodriguez – Guiristinho . perfeccionearen..	Avignon	1782
	Irakhaspena eta othoitzac 1826 Urthe Sainduko jubilauecotzat	Bayonne- -Faunet	
de la Vieuville	Guiristinoen doctrina laburra	Bayonan	1788
d'Astros	Catichima edo Fedia laburki	Bayounan	1839
Loison	Jubilau beçala ematen den perdunantça	Bayonan	1805
	Cantica Izpiritualac	Bayonan	1868
Isoard	Irakaspna	Baionan	1891
Archu	Kantu patriotikak 2 ex.	Bayonan	1848
Cardaberaz	Aita San Ignacioren egercicioen gañean	Tolosan	
	Jesu Kristen Imitacionia	Bayonan	1883
Clares-Antia	Ceruraco Bide zucena eta segurua	Tolosan	1885
Joannateguy	San Benoaten Bicitcea	Baiona	1887
A.M. d'Abbadie	Escuararen gorputza	Toulouse	1827
Diharassarry	Maiatzeco Liburu berria	Baionan	1900

	Guide élémentaire de la Conversation	Bayonne	1873
	Curutcearen bidearen gaineco instruccione laburra		
Hiribarren	Montebideoco Berriac	Bayonne	1853
	Ebanjelio Saintia Jesus-Kristena	Bayonan	1873
	Jondane Johaneren arabera		
	Ebanjelio Saindua San Luken arabera	Londresen	1878
	Jondane Phetiriren Epitziac	Bayonan	1873
	id	Id-	1889
Gr. Adema	Escualdun Pelegrinaren Bidaltzailea	Bayonan	1877
	Cristaubarentzat Perla ederra	Tolosan	1884
Cardaberaz	Escu liburua	Tolosan	1881
Astete	Doctrina cristiana (7, 16)	Tolosan	1820
Miquelestorena	Cerura nayduena ardezaquean vide erraza	Iruñean	
Astete- Menendezluarca	Cristau Doctrina	Vitorixan	1862
	Introductionea (incomplet broche) p.25 à 552		
	Catichima (manq. titre les 4 prem. p.) Piarres	Bayon. appicu.	1731
	id- autre exempl. Identique complet, imprimé		
	Bayonne, v.p. 9, 13	Bayonne	1788
	id- autre édition même pagin. mais parait plus ancienne un peu plus petit		
Guil. d'Arche	Officium Sacrat. Cordis Jesu. Précède d'un mand. basque du 22 Mars 1768 2 ex.		
	Cahier des Voeux... Etats généraux de 1789	Bayonne	1874
	Bayonaco Diocesaco Sinhestunei	?	1800
G.B.	Anciens Proverbes basques	Paris	1845
Vinson	Les premiers grammairiens basques		
Wentworth Webster	Dictionnaire latin-basque de P. d'Urte	Bayonne	1895
Van Eys	Quelques mots sur gramm. basque	Bayonne	1868
Manavit(?)	Cardinal Mazzofanti	Paris	1853
Haristoy	Doyhenart Supplém... proverbes...	Bayonne	1892

PAGE 11

Brunet	Anciens Proverbes Basq. et gasc.	Bayonne	1873	(v. 10, 20)
	Jaun Dauphin cenaren...	Bayonne	1766	
Beaumont	Instructionea gazterientzat – 2 ex.			
	Gurutcearen bidearen – instruct.	Bayonne		
	Liburua	Cluzean?		(v.10, 2)
	Jesus gurutceficatuaren ohoretan debocionea	Id	Id	
Vicaire de campagne	Essai de qques notes sur... basque	Bayonne	1808	
		Cluz.		
	Livre de piété en Souletin (le titre manque)			
	Cocinan icasteco liburua	Tolosan	1889	
Azkarate eta Otegui	Ijitoen contratuba eta ezcontza	Tolosan	1895	
Juan Zugatzaga?	Jaungoicoaren Ama	Durango	1895	
	Eleccionetaco liburu ttipia	Bayonne	1849	
	Ama Birigiñaren sortze chit garbi...	Tolosan	1895	
	Aita Santu izandu ciradenac... indulg.	Tolosan	1882	
	Bici bedi Jesus... cant'onac 2 ex.	Tolosan	1852	
	Id	Bilbon	1895	
	S.Ignacio Loyolacoan... Misio... oroipena	Bilbaon	1853	
	Id – 2 ex.	Tolosan	1853	
	Guiristinoki hiltcen preparatceaz	Bayonne	1865	
	Haurren liburua	Bayonne	1846	
	Urreseco gacoa, 1 petit cahier — manuscrit,			
	(v. p.8, 15)			
	Novena de la purisima concept. 1 petit cahier manuscrit			
D.A.P.I.P.	Dialogos basco-castellano	Hernani	1842	

Zerrenda honetako liburu gehienak XVIII eta XIX.mendeko obrak dira. Zaharrena, haatik, 1571.urtekoa da, Liçarragaren *J.Christo gure J-ren Testament berria*, Arroxelan argitaratua. Sailkapen ttipi bat egin dugu, obrak mendeka sailkatuz.

XVII.mendekoen artean, besteak beste ondoko liburu aipagarrienak atzetan dira :

- Joannes Etcheberry, *Noels, x 2 autres ex., ex. incompl. (4-10)⁵*, Donibane, 1630
- Etcheverry, *Eliçara erabiltceco liburua (2 ex.) p.7-11-13*, 1635
- Dargaignaratz, *Deboten breviariora*, manuscrit, 1644
- Sarako Vicario, *Virgonaren oficioa*, manuscrit, 1658
- Etcheberry, *Eliçara erabiltceco liburua*, 1665

Huna hemen XVIII.mende hastapenekoak :

- J. d'Etcheberri, *Lauurdiri Gomendiozco carta*, Bayonne, 1718
- Larramendi, *El imposible vincido (sic) (y en a-t-il 2 ex ?)*, Salamanca, 1729
- De la Vieuville, *Bayonaco Diocesaco Bigarren Catichima*, Bayonne, 1733
- Haraneder, *Jesu Christoren evangelioa*, Copie de l'abbé Robin - Manuscrit, 1740
- Harriet, *Gramatica escuaraz eta francesez, 2 ex.*, Bayonne, 1743(?)
- Larramendy, *Diccionario trilingue*, S.Sebastian, 1745

Bestalde, XIX.mende ondarrean agertu diren obren zerrenda luzea da. Huna hemen horietako zenbait :

- Astigaray Ugarte, *Diccionario manual*, Tolosa, 1884
- Aintia, *S.Joseren 7 igandetako jayera*, Tolosa, 1890
- Vinson, *Bibliographie*, Paris, 1891
- Arbelbide, *Erlijionea*, Tournay, 1892
- Joannateguy, *Bihotz sacratuaren*, Bayonne, 1894
- Urte, *Genese et Exode*, Oxford, 1894
- J.Menendez, *Christinau doctrina*, Durango, 1895
- Wentworth Webster, *Dictionnaire latin-basque de P. d'Urte*, Bayonne, 1895
- Inscriptions basques, Madrid, 1896

⁵ Belzturik agertzen diren oharrak, beste esku batez idatziak dira edo geroago eginiko oharrak dira.

- Urte, *Etorquia*, London, 1898
- Diharassarry, *Maiatzeco Liburu berria*, Baionan, 1900

Oroitarazi behar da Harriet 1904.urtean zendu zela, eta beraz bere garai-ko azken liburuen berri ere bazuela. Azkenik, zerrendan agertzen diren eskuizkribuak bereizi ditugu :

- Dargaignaratz, *Deboten breviariora* – Manuscrit – 1644
- Sarako Bicarior, *Virginaren oficioa* – Manuscrit – 1658
- Haraneder, *Jesu Christoren evangelioa* – Copie de l'abbé Robin – Manuscrit – 1740
- *Cahier de Notes* – Manuscrit
- *Instructions sur les Evangiles des dimanches* – Manuscrit
- *Ebanjelioen esplikationea* – Manuscrit
- *Grammaire et vocabulaire* – Manuscrit
- *Sermons basques* – Manuscrit
- *Recueil de chants basques musique* – Manuscrit
- *Birjina edo donceil christiba* – Manuscrit
- *Eliçaco hymnoac* – Manuscrit.
- *Chemin de la croix* – Manuscrit
- *Urresco gacoa* – Manuscrit
- *Novena de la purissima concept.* 1 petit cahier manuscrit.

Eskuizkribu hauen ondoan, egilearen izena eta obraren urtea bekan ageri dira. Obra gehienak erlijioezko liburuak dira, euskaraz nahiz frantsesez.

Zenbait libururen ondoan, batzuetan ohar batzuk irakurtzen dira : liburu beraren ale bat baino gehiago badenez, obra osoa denez edo zenbait orri edo kapitulu eskas direnez, eskuizkribua denez eta azkenik, aldizka ondoko orri bateko erreferentzia eskaintzen du egileak.

Liburu zerrenda horri so, Harrietek biziki liburutegi ederra eta aberatsa zuela dudarik ez da. Eta egia da, bibliografia horren isla hiztegian barna kausitzen da. Nun ote dira, aldiz, gaur egun obra horiek guziak ? Eskuizkribu arraro eta berezi horiek ?

b) Hiztegiko bibliografia zerrenda

Hastapenean erran bezala, Laurent Hirigoyenek apailatu duen kaier hunek bi parte ditu. Hamaika orrik osatzen duten lehen zatia irakurri, beste liburu zerrenda bat agertzen da. Huna zer irakurtzen ahal den lehenbiziko orrialdean : *Copie d'une liste dressée par M. Harriet lui-même et qui se trouve dans le carton A de son dictionnaire Basque.*

Izenburuak dion bezala, bigarren sailkapen honetan agertzen diren obrak, dudarik gabe Harrietek berak erabilitakoak dira. Kasu honetan kopia bat da, hau da norbaitek, hemen Hirigoyen jaunak berridatzi duen lan bat da. Bainan maleruski, hemen idatzia den gisara, guk ez dugu A karpetan deus ere atzeman.

Kaieraren lehen partean ez bezala, aldi huntan garbiki eta sailkapen berezi batean oinarriturik zerrendatuak dira obrak. Sailkapena euskalkien arabera-koa da (Harrietek berak egin zuen bezala naski). Euskalkia (*labourt, Bizcayens, Guipuzcoans, Bas-Navarraïs, Souletin*), urtea, idazlearen izena, obraren izenburua eta azkenik laburdura (hiztegian erabilitakoa), agertzen dira aldi bakoitz, garbiki idatzirik. Enrike Knörrek⁶ bere tesi-lanean aipatzen duen Harrietek berak idatzitako bibliografia da. Gure kasuan, hiztegitagilearen eskuz izkiriaturiko idazkia ez dugu, geroago delako Laurent Hirigoyenek apailatu zuena baizik. Elgarri konparatu ondoan, zerrenda ber-bera dugu, Knörrek tesi-lanean argitaratu duena eta Hirigoyenek berridatzia.

Copie d'une liste dressée par M. Harriet lui-même et qui se trouve dans le carton A de son dictionnaire Basque.

Labourt

Exercicio Izpirituala.

-1642	Axular : <i>Gueroco-guero</i> , édition ancienne 1642	Ax.
-1637	Fr. J. Haramburu : <i>Devocino escuara</i> , réédité déjà par l'auteur, revu	
-1690	en 1690 par Harizmendi, prêtre (prose et vers)	J.Harb.Mir.
-1686	P.Ber.Gazteluzar 1686 Pau (vers et prose)	Gazt.
-1664	d'Argaignaratz : <i>Devoten Breviarioa</i> 1664 / vers	Argan.
-1658	Harizmendi : <i>Ama Viriginaren officioa</i> 1658 / vers	Hardi.
-1626	J.Etcheberri : <i>Manual Devotionezcoa</i> 1626 / vers	J.Etch.M.

⁶ Knörr E. 1987, *Para una edición crítica del diccionario de Maurice Harriet*. EHU (Euskal Herriko Unibertsitatea) / Université du Pays-Basque, Vitoria/Gasteiz (tesi argitaragabea).

- 1635 J.Etcheberri : *Elizarat Erabiltceco liburua* 1635,
réimprimé 1665 J.Etc.Eliç.
- 1630 J. Etcheverri : *Noelac* 1630 / vers J.Etch.N.
- 1651 d'Olce : *Pregariaoac* 1651 d'Olce
- 1742 Harriet : *Gramatica Escuaraz eta Francesez* 1742 Harr.Gr.ou D.
- 1749 Haraneder : *Philotea* 1749 Hard.Phi.
- 1750 Haraneder : *Gudu Izpirituala* 1750 Hard.Gu.
- 1750 Haraneder : *J.Cristoren Evangelio Saindua* 1750 /
manuscrit Hard.J.C.Ev.
- 1759 M.G.** : *Jesusen Bihotz sacratuaren alderaco*
Devocionea G**
- 1768 Guillaume d'Arche : *Mandemt pour l'établissement*
de la fête du S.C. Guil.d'Ar.
- 1718 J. d'Etcheberri : *Lau-urdiri Gomendiozco carta edo*
Gutuna J.d'Etc.
- Sans date Fauvet-Bayonne : *Trésor des trois langues fr-Esp. et*
Basque Trés.
- 1751 Guillaume d'Arche : *Urthe sainduco Jubilauaco*
othoitzac G.d'Ar.Ur.
- 1805 Loison : *Jubilau bezala emaiten den Perdinantça* Loi.Jub.
- 1731 P.de Lavieuxville : *Guiristinoen doctrina laburra* P.Lav.Guir.
- 1732 édit.1733 -id- : *Bayonaco bi-garren catichima* P.Lar.Bay.Cat.
- 1735⁷ *Cantico izpiritualac* Ca.Iz.
- 1807 Loyson : *Francesen Imperadorearen⁸ eremueta*
co catichima Loy.Fr.Em.
- 1720 édit.1788 Chourio : *Jesusen imitacionea*
- 1777 Larreguy : *Testament Berria*
- 1775 - id. - : - id. - *Çabarra*
- 1826 Lécuse : *Manuel de la Langue Basque* Lécl.
- 1789 *Laphurtar escaldunen votuen cayera*
- 1758 édit. 1831 *Eucologia ttipia*
- 1766 *Jaun Dauphin cenaren eritasunaren circunstancia*
berecien errelacionea
- 1853 Hiribarren : *Escaldunac* Hirb.Esc.
- Goihetche : *Fables de la Fontaine⁹ traduites*
librement Goy.Fa.

⁷ 1775 (Knörr 1987: 1156)

⁸ *Imperadorearen / Emperadorearen* (Knörr 1987:1158)

⁹ *Lafontaine* (Knörr 1987: 1158)

- 1783¹⁰ Anonyme : *Birjina edo Donceil Christaba, Miguel Aingeru Marinac eгина, Eliza gizon batec escuarara berrito itzulia*. Manusc. 4 vol. in 12 **Bir.**
- 1778¹¹ Anonyme : *Andredena Mariaren imitacionea*
- 1784 Baratciart : *Guiristinoqui bicitceco eta hiltceco moldea* **Barat.Mol.**
- 1809 *Meditacioneac guci*¹² *premiatsuene(sic) gaine-an-* Anonyme / Duhalde curé de S. André Bayonne
- 1867 Laphitz : *Bi Saindu Hescaldunen bizia* Labourd et B.N. mêlés.
- 1877 Gr.Adema : *Escualdun Pelegrinaren Bidatzailea*.
- 1828 J.C. Gure Jaunaren Testament Berria
- 1876 Duvoisin : *Guidaria*.
- 1858 - id.- : *Laborantzaco liburua*
- 1829 Haramboure : *Egun ona* **Harb.Eg.O.**
- *Jesu Christo eguiazco Jainco guizonaren bizia eta heriua laur Ebangelisten arabera* (manuscrit sans pagination par un prêtre de Hasparren (l'abbé Bidassouet ?) **Man.J.C.bizia**
- 1804-8 Robin : *Poésies Hymnes, Proses, Cantiques, Chansons* : 3 cahiers Manuscrits **Rob.Cah.**
- Jauretsche
- 1876 Joanateguy : *Ehun bat Sainduren bicitcea*
- 1887 -id.- : *San Benoaten bicia*
- 1873 *Ebangelio Saintia Jondone Johaneren arabera* (souletin) **Eban.Sain.**
- 1789¹³ *Cahiers des Voeux et intructions des Basques Franç. du Labourd pour les députés aux Etats généraux* – Traduit en basque labourdin.

Biscayens

- 1787 Bart. Olaechea : *Cristauben Dotrinia* **Olae.**

¹⁰ Knörrek berridatzitako zerrendan ez da datarik agertzen, eta izenburua ez da osoki idatzia (Knörr 1987: 1158)

¹¹ Obra honen berri ez da agertzen Knörrek berridatzitako zerrendan.

¹² *Guci/Guei* (Knörr 1987: 1159)

¹³ Obra honen berri ez da agertzen.

- 1821 J.A.Moguel : *Cristinaubaren Jaquinbidea* – Bilbon J.Basozabal Ed. **A.Mog.**
- 1803 P.P. d’Astarloa : *Apologia de la lengua Bascongada* – Madrid - **P.P.Ast.ap.**
- 1816 fr. Bartolome Sta Teresa : *Jaungoicoaren amar aguindebeetaco Icasiquizuna*¹⁴ **fr.Bart.Jaungoico**
- 1816 fr.P.Astarloa : *Urteco Domeca gustietaraco*¹⁵
Verbaldi icasbidecuac – 2 liv. – Bilbon, Larumbe **fr.D.Ast**
- 1656 Capanaga : *Dotrina*
- 1893 -id.- : réimprimé

Guipuzcoans

- 1800 J.Ant. Moguel: *Confesio ta comunioco sacramentuen gainean* (Guipuzcoan) **Ant.Mog.**
- 1845 fr. P. Ant. Añibarro: *Esculiburua* **Añ.Esc.**
- 1839 Astigarraga: *Diccionarios Manual Basc. y Cast.* **Astig.**
- 1842 D.A.P.I.P. *Dialogos Basco Castellanos* **D.B.C.**
- 1761 fr. Ag.Cardaveraz: *Eusqueraren berri onac* **Card.Eusq.**
- 1816 -id-: *Ondo illtceen icasteco eta ondo iltceen lagun tceco exerciciobac* **Card.Ondo**
- id- : *Aita S.Ignacio Loyolacoaren exercicioac* **Card.S.Ign**
- id- : *Aita Sn Ign. Egercicion gañean lau astebaco*¹⁶
Meditacio laburrac **Card.S.Ign.Med.**
- 1766 -id- : *Jesus Maria ta Josereren devocioa* **Card.J.M.J**
- 1846 -id- : *Escu liburua* **Card.Esc.**
- 1848 -id- : *Meza eta Comunioa* **Card.Meza**
- 1848 -id- : *A.S.Ign. egercicioen gañean afectoac. Egercicioen bigarren partea* **Card.S.Ign.2ppt**
- 1821 fr.J.Cruz Echeverria: *Devociozco vicitzaraco sarrera S.Fr-es Sales* **J.C.Ech.Devo.**
- 1829 -id- : *Jesusen imitacioco librubu* **J.C.Ech.Imi.**
- 1824 -id- : *Ongui vicitceco ta ongui iltceco laguntza* **J.C.Ech.Ongui**
- 1846 Joaquin Lizarraga: *Urteco Igande guztietaraco platicac (Hte Navarre)* **J.Liz**

¹⁴ *Icasiquizuna / Icasiquizunac* (Knörr 1987: 1164)

¹⁵ *Gustietaraco / gustietaraco* (Knörr 1987: 1164)

¹⁶ *Astebaco / asteetaco* (Knörr 1987: 1165)

- Arana: *Vie de S. Ignace* Ara.
 - Aizquibel: *Evangile selon S. Luc*
 - " : *Dictionnaire*
- 1850 J.B. Aguirre Recteur d'Asteasu: *J.C. eta Virginia chit Santaren misterioen gañean eracusaldiac* 3,m 8°
- 1824 J.Ign. Iztueta: *Guipuzcoaco Dantza gogoangarrien Historia* Iz.G.D.
 -1847 " : " *Provinciaren Condaira* Izt.G.C.
 -1842 I.R.B. (Baroja Ign° Ramon): *Fabulas y obras composiciones en verso Bascongado* Fab.Baro.
 -1729 P.Manuel de Larramendi: *Arte de la Lengua Bascongada* Larr.Arte
 -1760 P.Sn Mendiburu: *Jesusen amore nequei dagozten otoitz gaiac* 118 S.Mendi.J.A.
 - Jose Miquelestorena: *Ceruraco bide erraza* Miq.
 -1823 Jn Bta Aguirre: *Confessioco¹⁷ eta Comunioco Sacramentuen gañean eracusaldiac* J.B.Ag.
 -1838 Aizquibel: *Evangelia S.Lucasen guisan¹⁸* Aiz.
 -1872 Aroma: *San Ignacioren bicitza laburtua* Ar.
 -1625 Isasti: *Compendio de la Historia de la M.N. y M.L. Provincia de Guipuzcoa* Is.
 -1850 J.Bta Aguirre: *Jaungoicoaren legueco amar...* J.B.Ag.J.a.a
 3 vol.
 -1855 Fco Ign° Lardizabal: *Testamentu zarreco eta berrico condaira* Lardi.Test.
 -1856 -id- : *Gramatica Bascongada* Lardi.Gram.
 - Ag. Cardaveraz: *Eusqueraren berri onac*

Bas Navarrais

- 1782 Alfonsa Rodriguez Anonyme
 -Ed. 1815 Suarez d'Aulan: *Catichima edo Fediaren explicatione laburra* Sn d'Au.
 -1550 édit 1847 B. Detchepare: *Poésies basques Lingue Vasconum primitiae* B.Dech.

¹⁷ *Confessioco / Confesioco* (Knörr 1987: 1161)

¹⁸ *Guisan / guissan* (Knörr 1987: 1161)

- Edit 1847** A.Oyhenart: *Poésies basques, Atsotitzac edo Refraunac Gaztaroa* Oy.P.
Oy.Gaz.
- 1556 -id.- : *Notitia Utriusque Vasconiae* Oy.Not.
- 1857 Sallaberry: *Vocabulaire Basque Bas-Navarrais* Sally.
- 1856 -id.- : *Evangile selon St Mathieu* Sally.Ev.
- 1571 Liçarraga: *Testamentu Berria*
- Vieux petit traité manuscrit, médecin vétérinaire Tr.vété.

Souletin

- Inchauspe: *Verbe basque*
- Oyhenart: *Atsotitzac edo Refraunac – Gaztaroa* Oyh.P.Gazt.
- -id.- : *Notitia Utriusque Vasconiae* Oyh.N.
- *Othoitce eta Cantica Izpiritualac* (vieille édition sans date) Cant.Izp.V.
Cant.Izp.N.
- Fauv(?)**.Lass **1846** -id.-
- 1852 *Uscaldunaren laguna edo escuco libria* (sans nom d'auteur) Usc.la.
May.P.
- Ed.1894 / 1676** *Pronus d'Arnauld fr° Maytie Ev. d'Oloron* fr.Ré.
- 1743 *Catechisma Oloroeco....*Jos.Revol Cat.d'As.
- 1823 *Catichima edo Fedia laburki*¹⁹ d'Astros Usc.li.
- 1839 *Uscara libria* Imi.S.
- Ed. 1838 / 1747** *Jesus Christen imitationia*
- 1848 Archu: *Lafontainaren aleguia berheiac*(sic)
- 1893 *Ebangelio Saintia Jondone Johaneren arabera*
- 1879 *Sen Grat* (l'abbé Lassalle curé de la cathédrale d'Oloron – Traduit par M Etchebarne curé de Sauguis.

Andiazabal jaunari esker, eskuartean izan dugun kaier hau, biziki dokumentu interesgarria eta aberasgarria dugu tesi-lan honetarako ; Harrietek baliatu duen bibliografia osatzen eta sailkatzen lagundu gaituelako.

Atal hunen hesteko, lehen ondorio nagusi gisa, baieztatzen ahal dugu Hirigoyenek berridatzi duen zerrenda hau eta Knörrek baliatu duen Harrietena berdina direla. Bigarrenik, eta orain aipatu dugun ildo beretik,

¹⁹ *Laburki / laburzki* (Knörr 1987: 1163)

eskuartean erabili dugun kaieraren arabera 255 obrak ere Harrietenak direla dudarik ez da. Hiztegiak aparte, Harrietek zituen liburuen zerrenda eta Hiztegian erabili duen bibliografia honek ekarpen garrantzitsua du, hiztegia berarendako bainan baita gure ikerketa lanarendako ere.

Gehigikeriarik gabe esan dezakegu Harrietek eskura zituen euskal liburu garrantzitsu guztiak erabili eta arakatu zituela, eta bere garaian, areago, azken urteen argitaratzen zirenak ere, kontutan hartzen zituela, hala nola Kapanagaren edizioa (Dodgsonek paratua, 1893), eta Urteren Biblia (Urteren hiztegi argitaragabea ere ezagutzen zuen) (Knörr²⁰ 1986: 415).

3. BIBLIOGRAFIAREN AURKEZPENA HIZTEGIAN

Harrieten liburutegiaren berri izan ondoan, orain ikusiko dugu Hiztegian nola baliatzen zituen delako iturriak. Hiztegi-artikuluaren egituran aipatu dugun bezala, mugabidea edo definizioaren ondotik, kasik beti adibide bat sartzen du. Zenbait aldiz berak asmatutakoa da, baina gehienetan edo kasik beti aitzinako edo bere garaiko idazleengan oinarritzen da.

Les exemples sont merveilleusement choisis dans un petit nombre d'auteurs et dans des oeuvres courtes où il serait possible de les retrouver, malgré le défaut d'indications plus précises. (Lhande²¹ 1926: 18)

Huna hemen, zenbait adibide berak asmatutakoak, edo bederen erreferentzia bibliografikorik gabekoak:

- **Airea:** 1° air, élément: **Choriac airean doaci:** les oiseaux volent: au propre: hegaldaz, egaz dohaci – **Aire eztia,** hotza: air doux, froid: au propre: haice eztia, hotza – **Airean eduquitcea:** tenir en l'air...
- **Akhitcea:** 1° Sens propre: s'épuiser: **Oguia, arnoa akhitsu zaicu:** notre froment, notre vin s'est épuisé.
- **Khinoa:** 1° mauvaise odeur, fétidité, puanteur: **Haragui hau galdua da, khinoa dakhar:** Cette viande-ci est gâtée, elle a une mauvaise odeur, elle sent mauvais.

²⁰ Knörr E., 1986, "Maurice Harriet-en hiztegiak", *ASJU*/413-417.

²¹ Lhande, P., 1926, *Dictionnaire Basque-Français*, Parise, Gabriel Beauchesne.

- **Khirkhirra**: 1° grillon [...] 2° le cri lui-même du grillon: **Khirkhirrec bere chiloen aicinean adiarazten dute bere khirkhirra**: Les grillons devant leurs trous font entendre leur chant.
- **Thinia**: Sommet, cime, le haut d'une chose. Sa partie la plus élevée: fâite. **Zuhañaren-mendiaren-etchearen-arthoaren thinia**: Sommet de l'arbre, de la montagne, le fâite de la maison – la cime d'un pied de maïs [...]

Hunat ekarri ditugun adibide horiek, erranaldi arruntak dira, irakurleak berehala uler ditzan sarreraren erranahia eta erabilera. Eguneroko mintzaldian baliatzen ditugun erranaldiak dira.

Baina, gorago erran bezala, Harrieten hiztegian nagusitzen diren adibideak euskal autoreengandik hartuak direnak dira. Aztergai gisa hautatu ditugun A, K eta T hizkietan barna ez da etsenplurik eskas. Bakarren batzuk bereizi ditugu, erakusgai gisa. Adibide hauetan agertzen diren idazleen erreferentziak idazki hunen ondarrean zerrendatuak dira:

Aiherra : l. BN. S. g. : aierra – 1 – Mauvais vouloir, désir de faire du mal, haine, animosité : **Elizamari aiher zaio** : il en veut à l'église : J.Etc.M-**Corintioac aiher zeitzen alferrei** : les Corinthiens en voulaient aux paresseux : **Ax.**²² + **Begui ceiharrez cioten behatcen, asqui ciotela bere aihercundea eracusten** : ils le regardait(sic) de travers, lui montrant assez leur désir de lui faire du mal : **J.Etc.M.**²³- ~~**Eracusten dute**~~ id. **Aihercundea** : **Eracusten dute elkharganaco aihercundea** : ils montrent leur haine vis à vis les uns des autres : id. ib.- **Aihercundez bethea** : plein de haine : id. ib. **Aihercundetsua**, haineux, rancuneux - 2 – **Aiherra**, goût à, désir de ; **Choroac okher, edocein aiher** : Le fou agit de travers, chacun a ses goûts : **Prov. de** : **Aiherric eztu edanaren** : il n'a pas goût à, envie de boire : BN- **Laudorioen aihera** : le désir, le goût des louanges : **Rod.**²⁴ – 3 - // inclination à : **Choroac okher, edocein aiher** : Pr : Pr. Trahist sua quanque voluptas : le fou choisit mal, chacun a son inclination : g. -**Emazteï aiher, aihercunde gaixtoz behatcea** : regarder les femmes par mauvaise inclination : **Ax.** // - **Ayhertcea** : incliner à ; id. **aiher izaitea** : **Aihertcen naiz, eta erraten dut** : Je penche à dire, et je dis : **Ax- Aiher naiz erratera** : Je suis sur le point de dire // - 4 – **Aiherra** S. soupçon : **Etcheliar jin ceizcon phenac, aiherrac, loxeriac** : Les peines, soupçons, peurs lui vinrent pour hôtes : **Arc.**²⁵ – **Aiher izaitea** : S. Se douter, soupçon : **Aiher**

²² Axular, P., 1643, *Gero*, Bordale.

²³ Etcheberri, J., 1627, *Manual devotioenezcoa*, Bordale.

²⁴ Lopez Alphonsa Rodriguez, 1782, *Jesusen Compagnhaco Aitaren Guiristhimo perfeccioniaren praticaren parte bat beuzcarala itçulia*, Avignon.

²⁵ Archu, J.B., 1848, *Choix de Fables de la Fontaine*, La Réole.

nuzu, Je soupçonne que, je gagnerais que ~~5~~ Aihertcea : l. se tourner contre, se rebiffer : **Suguea aihertuco zaitzue, ausiquico zaitzute** : le serpent se dressera contre vous, il vous mordra : **Hard. Ph.**²⁶ – [...]

Aihotza l. BN. S. g. – serpe emmanchée long : v. haiotza : Il se prend pour plusieurs sortes de fer, ou armes à couper, trancher, percer : **Berreun soldadu oñezco, irurogueita amar zaldizco berreun ayotcequin** : 200 soldats fantassins, 70 cavaliers, avec 200 lances (lanciers) **Lardz. Test.**²⁷

Aitzaquia l. g., atchaquia l. b. g. – atzequia, atzaquia g. excuse, prétexte (achaque esp.) Ce mot est basque, et non espagnol, comme le manifeste sa racine atcea et terminaison quia, et son usage général : il signifie ~~au propre~~ littéralement retour en arrière, chose de derrière : confer atzequia, queue : **Alferrac hotzaren atchaquiag aguiten tu** : le paresseux donne pour excuse (fait les prétextes, les défaites) le froid : **Ax. Iuie aitzaquia gabea** : Juge qui n'admet pas de prétextes : **J.Etc.M. Nolaco aitzaquiag eta apucoac billatu oi dituen becatariac** : **J.B.Ag.**²⁸ **Conf. Atchaquiag eta inguruac ifintea** : se valoir de prétextes et ~~d'excuses~~ détours : **fr. D.Ast.**²⁹ – **Aitzaqui billa, atchaqui esque dabil** : il cherche des prétextes : **Larr.**³⁰ – Sy. estacurua v., itzulpidea, itzul-ingurua, estalquia, desencusa (usuel mais étranges au basque), apucoa b., esesioa b. g., gachotea (se donne pour malheureux, s'excuser sur sa faiblesse) Imi. S., estalgunea : Im.S.- (Lar. D. s. v. achacar, porte aitzaquatcea, atchaquatcea, accuser, reprocher : Aitzaquatcen diote ecen...on lui reproche que... : Ce sens de achacar esp. imputer, attribuer à atzaquatcea n'est pas admis, non plus que cette forme verbale de aitzaquia : toutefois le basque use d'une expression analogue, baiatcea, cembait baia gainera emaita : v. baia, défaut)

Aparra g.b. écume (doit être écrit aphaarra ; A.M. dit afarra, pf. Changé en f.) – **Itsasoaren afar edo pitsa (bitsa) S.M.**³¹8.27(?) – **Potoan apar andia altchatcea**, faire lever une grande écume dans le vase (où l'on verse, vin, cidre, lait que l'on vend) **J.B.Ag – Botatcen du lurrera, eta puscacenc du, aparra bota asiaz** : (le démon) le jette à terre, et le déchire, tandis qu'il jette de l'écume (de la bouche) **Aizq.**³² v. Sy. haguna, harrapoa, bitsa, pitsa – **Apartsua, écumeux- Aparztatcea, salir d'écume.**

²⁶ Haraneder, J., 1749, *Philotea*, Toulouse.

²⁷ Lardizabal, F.I., 1855, *Testamentu zarreco eta berrico condaira*, Tolosa.

²⁸ Aguirre, J.B., 1855, *Testamentu zarreco eta berrico condaira...*, Tolosa.

²⁹ Astarloa, Aita Fr. P., 1816-1818, *Urteco domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuac*, 2 liburuki, Bilbo.

³⁰ Larramendi, M., 1729, *El imposible vencido, Arte de la lengua bascongada*, Salamanca. _____, 1745, *Diccionario Trilingue, del castellano, bascuence y latin*, Donostia.

³¹ Mendiburu, S., 1759-1760, *Iesusen amore-nequeei dagozten cembait otoiitz-gai*, Iruñea.

³² Aizquibel, J.F., 1838, *Evangelioa Sn. Lucasen guissan*, Madrid.

Ardura, l.BN.S. g.b. I. l. (est le même mot que) ardorea, mine, air extérieur : **Ardura eder duzu** : vous avez bel air : **Goyh. Fa**³³ – **Zakhurraren ardura ederra** : le bel embonpoint du chien : **id.ib.** – 2 – l.BN.S. subs. : le commun, l'ordinaire : **Arduraco arropari etzaio cerrenic eguiten** : à l'habitat ordinaire, journalier, il ne lui vient pas de mite : **Ax.** – **Comunac eta ardura-coac** : (Sy. egun-oro-zcoac – sarritacoac) : les choses communes et ordinaires : **Ax.** – **Ardura**, **id.** **arduraz** : souvent, ordinairement- Sy. maiz , maiz eta ardura, sarritan – Au Pausu gaberik darraio oin-hatcetari ardura : sans cesse il le suit pas à pas – **Arduratcea**, revenir à plusieurs fois, souvent à la même chose : **Ur chortac, ardura arduratuz harria chila cirozu** : la goutte d'eau, se répétant souvent, peut trouver la pierre : **Oy. Gaz**³⁴ – mettre en usage quotidien l.BN – 2 – **Ardura**, **soin**, Sy. **arduraria A.M.M.**³⁵ empressement : l.BN. Sy. artha, v. **ardura gabea** adj. : sans soin, qui n'a pas de soin, d'application : **id.** subs. absence de soin – **Arduraz betheac** : pleins de soins : **J.Etc.M.** – **Antsicaben, antsiatsu, arduratsu eguitea** : rendre soigneux, soucieux les insouciantes, **Ax.** – 3 – **Ardura**, **souci**, inquiétude : l.g.b. – **Eztu Iancoaz arduraric** : il n'a pas de souci de Dieu : **J.Etc.M.** – **Bildur eta ardura gabe** : sans peur et inquiétude : **Card.Es.S.Ig.**³⁶ – **ez guera ardura** : nous ne sommes pas soucieux : **Card. Esc.**) Sy. antsia, achola, quezca, izquia, khecha, arduria b.

KALDA(sic), **id.** **galda** g. b., **calda**- //1° Chaleur ardente à un haut degré : **Hirur haurrac, Nabucodonozorren ordenaz, labe gorri batetara, khaldan cegoela, arthiquiac izan ciren** : Les trois enfants, par ordre de Nabuchodonosor furent jetés, en un four ardent (rouge) qui était chauffé à un haut degré : **Lav. Cati. de**³⁷ - //2° terme de maréchalerie chaude – de métallurgie, chauffe : **Burdin horrec oraino behar ditu khalda bat edo bi** : Ce fer a besoin encore d'une chaude, d'une chauffe, ou de deux – Sy. khaldaldia - //3° chaude, action (4.or) de se chauffer à un feu vif : **Khalda bat har dezagun** : Donnons-nous (prenons) une chaude – Sy. khaldaldia - //4° par extens : Soudure d'une pièce de métal à une autre au feu de forge : **Aizcorari khalda bat eman araci diot** : J'ai fait ajouter une soudure à ma hache – Sy. et propre : eratchequia ce qui est ajouté – eratchiquitcea, subst. verb. même sens- //5° au fig. feu, ardeur intérieure : **Gaizqui errailez eta etsaiez ausiquiac garenean, gure bihotza khaldan eta sutan iartcen da** : Quand nous sommes blessés

³³ Goyhetteche, L., 1852, *Fableac edo aleguiac Lafontenenetariac berechiz bartuac*, Baiona.

³⁴ Oyhenart, A., 1847, *Proverbes basques recueillis par Arnauld Oihenart, suivis des poésies basques du même auteur*, Bordeaux.

³⁵ Moguel, A., 1885, *Mayatz illerako berba aldiac*, Tolosa.

³⁶ Cardaberaz, A., 1826, *Escu liburua*, Tolosa.

³⁷ Lavieuxville, P. de, 1733, *Bayonaco Diocesaco bi-garren catichima*, Baiona.

(mordus) par les médisants ou calomniateurs, et par nos ennemis, notre coeur se met en feu et en flamme : **Hard. Phi.** – // **Iesusen bihotza, amodiozco khalda** : coeur de Jésus, fournaise d'amour : **Guill. d'Arc**³⁸ – // **Garaitia huntaric lekhora, Samsonec izan zuen egartsu khalda bat** : Au sortir de cette victoire (qu'il remporta sur les Philistins armé(sic) d'une mâchoire d'âne), Samson eût une soif ardente : **Larrg.**³⁹ – [...]

KHARATSA, L. BN. S. id. caratsa, caratza Oyh., kharatsa l., quiratsa g., ~~id.~~ quiratza g. Khiretsa BN. l. Ce sont différentes formes du même mot, suivant les dialectes, et indifféremment employées, souvent par les mêmes auteurs, dans le même dialecte : Le g. n'emploie guère que la forme *quiratsa*, et encore dans l'une de ses significations. Ce terme a deux acceptions : en général les dialectes cispyrénéens les expriment toutes deux par les formes qu'ils admettent : le guipuzcoan qui semble tenir à la seule forme *quiratsa*, ne la prend aussi qu'en un sens, celui de puanteur, fétidité, qui est le principal.

//1° fétide, infect, qui sent mauvais, puant : **Gabeac hatsa carats** : l'indigent a l'haleine fétide : **Oyh. Pr.** – **Arraina eta arrotza heren egunac caratcez campora deragotza** : le poisson et l'hôte, le troisième jour les jette dehors parcequ'ils sont puantés : **Oyh. Pr.** – **Ao quiratsa, quirastua** : bouche fétide : **A.M.**⁴⁰ //2° par extension : (8.or) amer, dégoût, de saveur désagréable- (Le basque parfois attribue à une faculté la sensation qui dépendrait régulièrement d'une autre : ainsi il dit : **Usna on duzu, quiratsa aditcen duzu** : vous avez bon odorat, vous entendez, pour vous sentez, ce qui a mauvaise odeur : **Ax.**) – **Mun Cerbait gauza ez tiric jan dienari, besthiac oro kharats iduritcen zazco** : À celui qui a mangé quelque chose de doux, toutes les autres choses lui paraissent amères : **Rod.** – **Nuiz ere guizona bihotceco dolumenian osoan sarthu beita, ordian mundu haur oro greugarri eta kharats zayo** : Quand l'homme est entré entièrement dans le repentir du coeur, alors ce monde tout entier lui est à charge et plein d'amertume : **Im. S.**⁴¹ – **Erleec charpotaren gainean edari kharats bat aurkhitcen dute, ordean berec ez tirat gambiatcen dute** : Les abeilles trouvent sur le serpolet une boisson amère, mais elles-mêmes la changent en miel : **Hard. Ph.** – **Moraco ur khiretsac** : Les eaux amères de Mara : **Lavi. Cat. do-** //3° au fig. amer, déplaisant, dur, piquant : **Elhe khiretsac, kharatsac, kharatsac dira horiec** : Ce sont là des paroles amères – //4° Il s'emploie substantivement pour exprimer ce qui est fétide, ou amer // la fétide **Sudurrac ecin paira diro haren kharatsa** : Le nez ne peut supporter

³⁸ d'Arche, G., 1751, *Urte sainduco jubilaueco othoitzac*, Baiona.

³⁹ Larreguy, B., 1775-1777, *Testamen çaharreco eta Berrico historiao*, Bayona.

⁴⁰ Antonio Moguel, zer obra?

⁴¹ Maister, M., 1757, *Jesu-Kristen Imitacionia çuberouaco uscarala utçuliric*, Pau.

sa puanteur : **J.Etc.Ma – Usna ona duzu, quiratsa aditcen duzu** : Vous avez l'odorat bon, vous sentez ce qui a mauvaise odeur : **Ax. – Bere quirats lizunac etzion uzten iñori ere alderatcen Herodesi** : Sa sale puanteur ne permettait à personne d'approcher d'Hérode : **Lardz. Test. – Arraina eta arrotza heren egunac caratcez campora daragotza** : Le poisson et l'étranger le troisième jour les jette dehors pour le puant qu'ils sont : **Oyh. Pr. // l'amer : Obedi zazu miricua, hartatzu edariac, orhoituric Iaincoac gure gatic hartu izan zuen khiratsaz** : Obeissez au (le) médecin, prenez les potions, vous souvenant de l'amer que prit Dieu à cause de nous : **Hard. Oh. - // au fig. Urriqui khiratsez eta suminduraz bethuricacoa** : Un repentir plein d'amertume et d'affliction, de douleur de coeur : **Hard. Ph. – Syn. // [...]**

I KHARASTEA, kharats, kharastu, kharasten : id. caras-khiras-quiras-khires-tea. //1° v. transit. Infecter, empester, empuanter : **Milen gorputz ehortci gabeac bazter guciac khirastu cituzten** : les corps des tués, restés sans sépulture, empestèrent tous les alentours- // v. intransi. Etre infecté, puant – devenir infect : **Buruti hasten da arraina kharatcen** (pour kharazten de kharatza, et tz pour zt, transposition usitée) Le poisson commence à puer par la tête : **Oyh. pro. – Biotz becatuz lizundu eta quirastua** : Coeur sali et infecté par le péché : **A.M. – Lazaro, laur egunetaco hil quirastua phitztu zuenean** : Quand (Jésus) ressuscita Lazare, mort de quatre jours et fétide : **Ax. – Diotsa Marthac : Iauna, khirestu duc gaurguero, ecen laur egunetacoa duc** : Marthe lui dit (à Jésus) : Seigneur, il sent mauvais, car c'est un mort de quatre jours : **Liç. Jo – Usain liteque, quirats liteque ura gueldiric balago** : L'eau ~~devient~~ sentirait mauvais, deviendrait infecte si elle demeurait tranquille : **Ax. – [...]**

TAPATCEA, tapa, tapatu, tapatcen //1° fermer, boucher ce qui est ouvert: **Dutchuloa, zuloaren, sudurraren, beharrien...tapatcea**: fermer, boucher un douzil, un trou, le nez, les oreilles...etc. //2° Couvrir ce qui est découvert: beguien, cutcharen...tapatcea...couvrir les yeux, fermer une caisse, etc... //3° au fig. fermer la bouche: **Hala duenean bada hisia aitciñatu, Eta onei penen lotsaz aharantza tapatu**: Quand donc il (l'antechrist) a avancé (l'oeuvre de) son obstination, et fermé la bouche (la voix) aux bons par la crainte des châtements: **J.Etc.Ma- Ahoa tapatcen daroe urreac**: l'or leur ferme la bouche: **J.Etc.Ma- //4°** Il s'emploie pour signifier: avoir, ou causer de l'inappétence, soit par trop manger, soit par dégoût ne pouvoir avaler; ~~littér~~ littéralement avoir le passage des aliments fermé, le fermer: **Ez dezazula guehiago tapa ian nahi ez duen aberea, iateco gochoagoaz tirriaraciz**: N'augmentez pas davantage la plénitude d'une bête qui ne veut pas manger, en l'y (??) par un aliment plus agréable: **Duv. Lab.**⁴² Sy. herstea, l. erstea, g. ichtea

⁴² Duvoisin, J., 1858, *Laborantzarako liburua*, Baiona.

b. fermer, boucher-estaltcea, couvrir- **Ety.** bozatcea g. (bozar esp. qui entre en la composition de embozar, embozo-boucher fr. anci. orthog. boschiar).

TARGOA: dissension, différend, dispute, division, séparation, déchirure: **Othoitz eguiten** (13.or) **drautzuet, anayec, gauza ber bat erran dezazuen guciac, eta-ezten zuen artean targoaric:** Je vous prie, mes frères, que vous disiez (professiez) tous une même chose, et qu'il n'y ait pas entre vous de division (nonsint sehismata): **Liç⁴³, 1 ad Cor. Ecen invidia eta gudu eta targoa zuen artean denean, etzarete carnal, eta etzabiltzate guizonaren araura?** En effet quand il y a parmi vous de l'envie, de la lutte, et de la contention, n'êtes vous pas charnels, et n'allez-vous pas selon le sens humain? (zelus contentio) **Liç., 1 ad Cor- Ecen targoac eta ielosiac direnaz gueroz zuen artean, ez zarete bada haraguicoiac?** Car puisqu'il y a des disputes et des jalousies entre vous, n'êtes-vous donc pas charnels? **Hard. 1. ad.Cor. Sy. eztabada-ezpaita-ihardequitcea, subst. verb., liscarra-escatima- Larrd. a fait un mot qui est inusité, pour rendre schisme en sa signification propre: baquigoa de ebaqui, couper, diviser, aphérèse de e initial et suff. goa.**

TARROA, diminutif. **ttarroa:** l. grand, gros, en une mesure peu considérable: **Ene urdettoa ya ttarroa, yan gabe haiñitz bihi, Arthatuz ongui, zait niri eguinen urde handi:** mon cochon, déjà de certaine grosseur (quand je l'achetais), sans qu'il eût mangé beaucoup de grain, si je le soigne bien, il me deviendra un grand porc: **Goyt.fab. Sy. handia, grand-lodia, gros.**

TASTA: l. ressemblance qu'on porte dans son extérieur: **Harr. Dict⁴⁴- Bere aitaren tasta gucia dakhar:** il porte tout l'extérieur de son père, dans ses mouvements, son langage, ses manières, ses aires- **Sy. antzoa- Ety.** le mot est fort en usage, l'étymologie est obscure.

TATSA: l. tâche: **Hori zuen harrec arduraco tatsa:** C'est la tâche ordinaire qu'avait cet homme: **Goyh. fab. Sy. saila- Ety.** néologisme tasa esp., taxe fr.

TAZGARRIA: BN. horrible. **Mot cité par Lécuse, gramm. basque- Ety.** Suff. garria, taz initial unde et quid? (?)

TCHINOA: S. porc, cochon: **terme néolog. employé par Archu en sa traduction de quelques fables de Lafontaine, concurremment avec les termes propres cherria et urdea:** c'est cochino (prononcez cotchino) esp. aphérèse du co initial.

⁴³ Leizarraga, J., 1571, *Iesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria*, Arroxela.

⁴⁴ Harriet, M., 1741, *Gramatica escuaraz eta francesez*, Baiona.

TCHINTCHILA: S. forme ~~syncope~~ souletine de chilintcha, v.: sonnette, grelot: **Zango arhinez bazoan mandoa, thintcila iharrausten zuelaric:** Le mullet marchait d'un pied léger, secouant sa sonnette: **Arch. fab-** Sy. chilintcha, v.- Ety. métathèse de chilintcha-

4. HARRIET BILTZAILE, ETA EZ ASMATZAILE

Adibide horiekin ondorioztatzen ahal dugun gauza da Harriet biltzaile izan zela eta ez asmatzaile. Hau da, beste idazleengandik hartu dituen hainbat adibidek erakusten du, delako sarrera hitza badela eta erabilia dela, hots ez duela berak asmatu (nahiz besteek asmatutako hitzak sartzen dituen hiztegian, Larramendirenak adibidez, anitz baditu baina beti ere kasu handirekin aipatzen ditu).

Aizkibelek bere Hiztegiko hitzaurrean gauza bera erraiten zuen:

“Convencido íntimamente de la utilidad de las citas, que destie-ran toda sospecha de que hayan podido inventar los Lexicógrafos algunas de las palabras que no están en uso, pongo todo mi cuidado en enriquecer este Diccionario con el mayor número de citas que puedo, particularmente aquellas voces ó dicciones que son peculiares de un solo dialecto, ó no son comunes en la conversación.” (Aizkibel 1885⁴⁵: Prólogo II)

Beste hiztegitik bat aipatzekotan, hunat ekarri behar dugu Littré (1801-1881) frantses hiztegitilea. Harrieten garai bertsukoa da, eta *Dictionnaire de la langue française* hiztegi ezaguna plazaratu zuen XIX.mende bukaeran. Zergatik hiztegitik hori aipatzen ote dugu hemen? Alde batetik, Harrietek berak baliatu baitu eta preseski Littré gisako hiztegia egin nahi baitzuen hal-tsuarrak.

Eta bigarrenik, Littrék bere hiztegian ere idazle klasiko edo berriagoen adibideak eta aipua sartu baitzituen. Eta justuki, XIX.mende ondarrean has-ten dira hiztegietan aipua sartzen eta bereziki aitzinako literaturan sustrai-tuak.

Voltairek zioen bezala, « un dictionnaire sans citation est un squelette⁴⁶ ». Nahiz eta hiztegi bat ikuspegi desberdinetatik egiten ahal den, egia da hala ere,

⁴⁵ Harrieten bibliografian Aizkibelen hiztegia atzeman dugu. Bestalde, bi hiztegitik elgar ezagutu zuten Madrilan.

⁴⁶ Littré, E., 1877, *Dictionnaire de langue française* (Préface, 14.or).

aipuz eta etsenpluz osatua den hiztegi batek, lexikografiari ezaugarri aberats franko eskaintzen diola.

Littré-ren arabera, garai bateko aipuak egokiagoak edo interesgarriagoak dira berriak baino:

“En effet l’objet de ces citations est de compléter l’ensemble de la langue et la connaissance des significations, connaissance qui n’est donnée que par les origines. Plus on remonte haut, plus on a la chance de trouver le sens premier, et, par lui, l’enchaînement des significations.” (Littré 1877 : hitzaurrea, 16)

Testu modernoak aldiz, hizkuntzaren gaurkotasunaren lekuko dira. Hortaz, mugabide eta adiera berrien berri emaiten dute. Testu modernoak, erabilpen berria zilegiztatzen du, testu zaharrak aitzinako erabilpena zilegiztatzen duen bezala. Harriet ildo beretik joan da, aitzinako idazle anitz aipatu ditu, baina baita orduko azken lanak eskuartean izanik, konduan hartu ditu ere.

Ondorioz, huna zein diren, ene ustez, aipu eta adibideen erabiltzeak ekartzen ahal dituen ezaugarriak:

1. Hiztegiari aberastasun bat emaiten dio; aitzinako nahiz gaurko idazleak konduan hartzeak.
2. Horrek erakusten du, lehenago baliatuak zirela delako hitzak, eta garai desberdinetako aipuak agerraraziz, hitzari nortasuna emateaz gain, bere adieraren bilakaeraren berri eskaintzen ahal dute aipuek.
3. Ondorioz, erraten ahal da hiztegiak ez duela hitza asmatu baizik eta beste idazle batengandik hartu duela (“biltzaile eta ez asmatzaile”).
4. Eta azkenik, hiztegi erabiltzaileak aipu eta etsenpluen bitartez, hitzaren adiera eta erabilpena baieztatzen ahal du. Are gehiago hiztegi elebidun batean, hitza erranaldi batean nola kokatzen den ikusten ahal du.

Harrieten Hiztegiak, beste ezaugarri garrantzitsuenetaz gain, ezaugarri hauek guziak baditu. Bururatzeko erran, Harrieten hiztegiak baduela oraino zer ikertu eta hiztegi hortatik badugula oraino zer ikasi. Badakigu Lhandek baliatu zuela, berak aitortzen du, baina zer neurritaraino izan da Lhanden iturri? Burutzen ari naizen tesi lanean gai hau barnatzeko xedea dut, Harrieten Hiztegiak euskal lexikografian badu lekua, eta behar bada sobera fite ahan-tziak edo isilduak izan dira 3.536 orri horiek.

MAURICE HARRIET JOANES HARANEDEREN GALBAHARI: *TESTAMENT BERRIA* (1855)

H. Knörr

Jakina da Joanes Haranederrek (1669-1750 ondoren) itzuli zuela Testamentu Berria euskarara. Testua argitaragabe gelditu zen denbora luzean. Eskuizkribua beste apaiz batek, Jean Robin-ek, kopiatu zuen 1770ean. Leial kopiatu zuenentz ezin jakin dezakegu, jatorrizkoa galdu baita.

Mende erdi bat baino gehiago iragan ondoren, 1855ean, argitaratu zen Baionan, E. Lasserrerenean, titulu hau zeraman liburua:

Iesu-Christo / gure Iaunaren / Testament / Berria / lehenago / I.N. Haraneder / Done Ioane Lobitsuco Iaun aphez batec / escuararat itçulia; / orai, artha bereci batequin, garbiquiogo, / lehembicico aldi-cotçat aguer-aracia, / laphurtar bi jaun aphecec; / jaun Aphezpicuaren baimenarequin.

Gauza harrigarri batzuk aurkitzen dira liburu honekin lotuak. Batetik, Testamentu Berri osoa ez, baizik lau ebanjelioak bakarrik zeuzkan: *San Matheo, San Lucas, San Marco* eta *Ion Done Ioani*. Bestalde, bi apaiz horien izenik ez zen ageri liburuan. Eta hirugarren bitxikeria zen Haranederren testuaren eta argitaratu zenaren arteko aldea, benetan leize handia. Nekez esan zitekeen hura Haranederren itzulpena zela, liburuak azalean zioena gorabehera.

Haranederren testuaren moztea, hots, lau ebanjelioak soilik ematea, lanaren zama arintzearren gertatu zen, seguru aski. Egiletasunaren sekretuari dagokiola, berehala argitu zen: Pierre-Nérée Dassance (1801-1858) eta Maurice Harriet (1814-1904) izan ziren argitalpen horren erantzule. Ez maila

berean, inondik ere ez. Harriet genuen egile, huskeriak huskeria. Horren susmoa Vinsonek azaldu zuen bere bibliografia handian:

“Les “deux prêtres labourdins” sont MM. M. Harriet et Dassance, mais le concours de M. Dassance a été seulement pécuniaire; tout le travail est de M. Harriet qui a, en réalité, traduit d’office le Nouveau Testament, en s’aidant de Liçarrague et d’une copie manuscrite de la traduction de Haraneder qui est encore en sa possession”.¹

Daranatzek, aldiz, bien lankidetasunean sinetsi zuen luzaro; ikus, bereziki, 1908an *RIE* Ven argitaratu zuen artikulua². Baina artikulua hori berridatzi zuenean, hogeï urteren buruan, bestelako iritzia zuen argi eta garbi. Tartean, izan ere, Saroihandyk berri bat eman zion. Entzun dezagun Daranatz:

“... or voici que la lumière se fait sur cette question. M. Saroihandy, chargé de cours au Collège de France, me communique une trouvaille, fort intéressante à ce sujet, opérée par lui en juin 1925 aux *Archives Nationales*.

L’exemplaire de Haraneder de la Nationale, coté 2 basque, 898, appartient à la collection d’Antoine d’Abbadie. L’abbé Harriet y a mis la dédicace suivante: “Hommage de l’auteur à Monsieur d’Abbadie, de l’Académie des Inscriptions. Signé: Maurice Harriet”. À la suite de cette dédicace, Antoine d’Abbadie a ajouté de sa main: “N.B. Le 9 Septembre 1892, M. l’abbé Maurice Harriet me dit que lui seul a travaillé à ce livre, l’abbé Dassance n’en ayant rien fait, sauf le titre et l’intention”.³

Duvoisinek, bere garaian argitaratu ez zuen *Bibliographie basque* lanean, ongi baino hobeki agertzen du egiletasunaren eta testuaren bestelakotasunaren jakitun zela. Hara zer idatzi zuen:

“L’ouvrage de Haraneder a été complètement remanié par l’abbé Maurice Harriet, conseillé sur les questions qui présentaient des difficultés par l’abbé Dassance, d’Ustaritz, chanoine à Bayonne”.⁴

Zergatik nahi izan zuen Harrietek Dassanceren besalagun karrikaratu? Arrazoia begibistakoa da: Pierre-Nérée Dassancek itzal handia zuen Frantzian. Besteak beste direla, Testamentu Berria eta Kristoren Imitazioa itzuli zituen frantsesera, santuen bizitza-idazle sonatua zen eta Elizako goikarguetan ibilia.

¹ Vinson, *Essai*, 268.

² Daranatz, “Le Testament Berria de Haraneder...”. *RIE* 2, 1908, bereziki 176-177.

³ Daranatz, “Le Testament Berria de Haraneder...”, *Curiosités du Pays Basque*, II, 295.

⁴ Altuna: “Duvoisinen eskuizkribu argitaragabea”, 86.

Haranederren eta Harrieten testuak oso desberdinak zirela Lafittek eman zuen aditzera 1958an, Olabideren omenezko lan batean. Harrieten testuaz ari dela, hauxe irakurtzen dugu:

“Errana da, Haraneder-enari zor handiak diozkala: ez da egia; biziki urrun daude elgarretarik”.⁵

Eta 1959an beste hau idatzi zuen Lafittek:

“On va répétant que c’est du Haraneder à peine rétouché. Certes Harriet avait la copie de Robin sous les yeux, mais pour qui confronte les textes, leur parenté ne peut sembler que très lointaine”.⁶

Aurreko euskalariak testuaren aldaketaz idatzi zutena gogoan izaki, Mitxelena irakurle arretatsuak honako hau ezarri zuen euskal literaturan historian:

“La versión es un modelo de lenguaje puro, claro, elegante y ligeramente arcaizante, pero no está del todo claro, en tanto no sea más conocido el original, si el mérito corresponde a Haraneder o a quienes le [sic] retocaron”.⁷

Norainoko aldaketa zen, ordea, Lafittek erakutsi zuen 1964ko bere artikulu famatuaren bidez: “Deux traductions de l’Enfant Prodigue ou Jean Haraneder revu par Maurice Harriet”. San Lukasen XV. kapitulu ia osoa harturik, bi zutabetan azaldu zituen kalonjeak Haranederren eta Harrieten testuak. Ezin nabarmenago gelditu zen aldearen larria. Lafitteren ondorio nagusia biltzen da perpaus honetan:

“Au terme de cette comparaison, il faut conclure que sans doute Harriet, en traduisant les quatre Evangiles, avait sous les yeux le texte de Haraneder, mais qu’il l’a tellement remanié qu’on ne saurait vraiment regarder l’édition de 1855 comme une reproduction du manuscrit d’Ustaritz”.⁸

Bost ataletan eman zuen Lafittek bere erkatze-lana, nahiz gertakari guztiak ez diren dagozkien tokian: grafia, morfologia, hiztegia, aditza eta sintaxia. Gainera, beste atal luze batean Vulgatarrekiko leialtasuna ikertu zuen.

⁵ Lafitte, “Biblea Eskual-Herrian (Olabide’reu omenez)”. *Euzko Gogoa*, 9, 1958, 499.

⁶ Lafitte, “Autour de la Bible...”, 10.

⁷ Mitxelena, *Historia de la literatura vasca*, 86.

⁸ Lafitte, “Deux traductions...”, 16.

Zenbait urte geroago, 1987an, Iñigo Ruiz Arzalluzek, artikulua zorrotz batean⁹, bi testuen arteko konparazioa egin zuen.

Azkenik, kapitulu bat gabe, Haranederren itzulpen osoa eman zuen argitarara Patxi Altunak 1990ean, hitzaurre mamitsu batekin, eta orduan ikusi zen aratzenik bi testuen arteko leizea.

Vinsonez gero zenbait aldiz esan izan da, eta arrazoiz esan, Maurice Harrietek, Vulgata eta Sacy jansenistaren frantsesezko itzulpenaz gain, Leizarragaren testua izan zuela gogoan. Ruiz Arzalluzek trebeki erakutsi ditu zor horiek, baina ez du ahanzten Harrietek Haraneder ere kontuan izan zuela, orobat Haranederrek Leizarraga, hain zuzen ere hitz ikaragarriez hitzaurrean erabili zuen apaiz ernegatua:

“Eguia da bada Joannes Leizarraga ceritçan Bera<s>coizco aphez edo erretor cen batec noizbeit aspaldi imprimaraci içan çuëla Testament berrico liburua, berac escararat itçuliric; baiñan dohacabe hura, erreligione catholica eta eguiazcoa utciric ja itçulia baitcen Calviñen secta içurritzaturat eta haren heresia poçoatuaz cutsatua, ecin guelditu da bere obrari iretchequi gabe cembeit lekhutan berac hartu içan çuën içurritic eta iretsi içan çuën poçoinatic”.¹⁰

Bi eragozpen zituen Harrietek Leizarragagandik maiz saihesteko. Alde batetik, haren liburua elizakoa izan zedin nahi zuen, kristauek irakurtzekoa; ez zen euskalarientzat egina, zientzian erabiltzeko (Duvoisinin Biblia bai, jakina denez, Bonapartek agindurik eta Elizako agintarien baimenik gabe aterea). Beraz, zahar-kutsu handiegirik ezin zion eman. Bestetik, Harrietek, bere garbizaletasun-irrikian (eta horretarako aski da haren hiztegi argitaragabeari behako bat ematea), ezin zuen jarraitu Leizarraga orpoz orpo hitzen alorrean. Latinetik (edota latin-kumeetatik) etorritako hitzak ekiditen saiatzen zen Harriet. Salbuespenak ez dira falta, hala ere: Ruiz Arzalluzek *populu* eta *manatu* aipatzen ditu, baina gehiago ere badira, gure taulan ikus daitekeenez.

Garbizaletasun edo garbizalekeria-asmoa, esan dugun bezala, liburuaren tituluan bertan zen: “garbiquiago”, eta gauza bera edireten dugu Haranbourek sinatzen duen baimenduan:

“... denbora duela gogoan çarabillaten chedea, aguer-araciz escuararic garbienean lau Ebanyelioac”.¹¹

⁹ “Notas sobre algunas traducciones vascas del Nuevo Testamento”.

¹⁰ Haraneder, *Jesu Christoren Evangelio saindua*, 1-2.

¹¹ Ikus v.

Zaila gerta lekiokela punturen batzuetan irakurleari testua? Horretarako erantsi zuen Harrietek, liburuaren bukaeran, hiztegi joria, nahiz “Hiztegi laburra” izena zuen. Azalpena beharko luketen hitz guztiak, ordea, ez zituen sartu. Demagun, *bilkbu* (“sinagoga”) ez da aurkitzen.¹²

Lafittek eta Ruiz Arzalluzek aski ongi arakatu dute Maurice Harrieten testua. Lehenak ez beti zuzen, haatik. Esaterako, Lafittek dio Harrietek “temps surcomposé” direlako guztiak kendu zituela (“Harriet a supprimé tous les *içan*”). Garbi dago ez dela egia. Adibidez, “Profetac hil içan dituztenen seme çaretela”, Mt. 23, 31 (Leizarragak: “ecen Prophetac hil dituztenén seme çaretela”); Haranederrek: “profetac hill dituztenen umeac çaretela”).

Interesgarria da nola saihesten duen Harrietek instrumentala subjektuaren betekizunean, demagun, “harc bathaiatua” (Haranaderrek “hartaz bathayatua”).

Hemen hiztegi eremua soilik ukituko dugu, zalantzarik gabe alderdi nabarmenena. Kapitulu batzuk ikertuz eratu dugu lagina. Ez da oro-besarkatzailea, hortaz, baina bai adierazgarria.

Irakurleak aise ikusiko duenez, Harrietek, hitz *garbiaren* bila dabilela, ez du beti ordain bera eskaintzen. Ikus taulan Vulgatako *hypocrita* hitzaren hiru irtenbideak.

Eta, bestetik, ez da bakana perifrasi bidez ordaina ematea, Ruiz Arzalluzek oharrarazi bezala. Adibidez, *bilhatu gaizqui erabili beharrez*.

Taulak argi erakusten du Leizarraga baino Haraneder jarraitzen duela Maurice Harrietek, eta hau horrela da ere Haranederren itzulpen zuzena ez denean, Vulgata edota Leizarraga alde batera utzirik. Diogunaren lekuko Mt. 2, 6 da: Vulgatak “Et tu, Bethleem, terra Iuda, nequaquam minima es in principibus Iuda” Leizarragak “Eta hi Bethleem Iudaco lurrá, ezaiz Iudaco gobernadorén arteco chipiena” eman zuen; aldiz, Haranederrek “Eta hi Bethleèm Judeaco leihorra, ez haiz ttipiena Judeaco hiri principalen artean”, eta Harrietek “Eta hi, Bethleem Judeaco leihorra, ez haiz ttipiena Judeaco hiri handienen artean”. Haraneder jarraitzen du halaber, espero ez zen pasarteetan, hala nola frantseskeria honetan: Leizarragak *Nazareno* dio, Haranederrek *Nazarendarra*, eta Harrietek ere *Nazarendarra* (< fr. *Nazaréen* + *-dar*, jakina).

¹² Hemen Harrietek etimologia kontuan harturik erabiltzen du *bilkbu* hitza.

LEIZARRAGA	HARANEDER	HARRIET
abillamendu	bestimenda	iaunztura
adwertitu	abisu içan	meçu içan
arbore	arbola	çuhaitz
arraubequeria	ohoinqueria	ohoinqueria
beheratu	beheititu	aphaldu
benedicatu	benedicatu	ongui ethorri
cadira	cadira	alkhi
cerbitzari	cerbitçari	cerbitçari
chahutu	chahutu	chahutu
chahutu	chahutu	garbitu
complitu	complitu	bethe
concebitu	sorthu	sorthu
condemnatione	juyamendu	iuiamendu
copa	chopera	edari untci
crucificatu	gurutceficatu	khurutcei lothu
Çuhurrac	magoac	Magoac
dembora	dembora	muga
dembora hartan	dembora hetan	egun hetan
desert	nihor gabe	nehor gabe
desertu	desertu	mortu
detchematu	hamarrenac pagatu	hamarrenac bihurtu
diffamatu	desohoratu	laidostatu
diligentqui	artha handirequien	artha handirequin
digne	behar bezalaco	behar bezalaco
dobla	doble	bietan
doctor	naussi	nausi
eçarri	arruntçatu	eçarri

ecces	lohiqueria	lohiqueria
edificatu	bastitu	altchatu
emendamendu	penitencia	urriqui
emendatu	eguin penitencia	eguin urriquizco obrac
enganatu	trufatu	dostatu
engendratu	jenderatu	içan semetçat
estrena	present	emaitça
fedatua	esposatua	ezcondua
fructu	fruitu	egozte edo fruitu
gendetze	populu	populu
generatione	jenderacione	ethorqui
generatione	jenderatione	guiçaldi
gobernadore	buruçagui	buruçagui
guidari	guidari	aitcindari
habitatu	egoitça eguin	egoitça içan
hil	iraungui	iraungui
hira	colera	haserre
hypocrita	hypocrita	on iduri
hypocrita	hypocrita	begui lilluratçaile
hypocrita	hypocrita	gaichtaguin ongui ethorri behar
içorra içan	concebitu	sabelean içan
iduri	atcequi	estacuru
informatu	galdez egon	galdez egon
iugemendu	justicia	çucentasun
iuratu	juramendu eguin	cin eguin
iustitia	justicia	çucen direnac
iusto	justu	çuçen

iusto	innocent	garbi
lapidatu	harricatu	harricatu
larrain	bihitoqui	bihitoqui
leyaltate	fedea	sinheste
lur	leihor	leihor
magistru	naussi	nausi
maledictione	çorigaitz	ondico
misericordia	misericordia	urricalmendu
monument	ehortz-lekhu	ehortz-lekhu
natione	jenderatione	bici diren guciac
Nazareno	Nazarendar	Nazarendar
oblacione	offrenda	emaitça
obra	eguiten dutena	eguiten dutena
Oriente	oriente	iguzquico alde
Oriente	oriente	iguzki aldeco atceherri
Oriente	oriente	iguzkia atheratcen den bazterrak
ornatu	berreguindu	berreguindu
persecutatu	perseguitu	bilhatu gaizqui erabili beharrez
philacterio	bergamio cherrenda	larruzco cherrenda
plaçã	plaçã	lekhu
plat	plat	iaqui untci
presentatu	offrendatu c	escaini
retiratu	aldaratu	aldaratu
sanctificatu	santificatu	saindu eguin
scriba	escribau	isquiribau
secretuqui	ichilic	ichilic

sepulchre	tomba	hil-hobi
suscitatu	sor-araci	sor-araci
synagoga	sinagoga	bilkhu
temple	templu	templo
thesaur	thresor	gordairu
testificatu	lekhucotassuna bihurtu	lekhuco ičan
trublatsu	altaratu	asaldata
vtci	utci	bere ganic khendu
voz	habarrots	oihu
voz	boz	boz

BIBLIOGRAFIA

AKESOLO, L. 1971. "Katolikoek euskerazko Bibli-itzulpenak". *Jaunaren deia*, 85-102.

ALTUNA, P. Ikus Haraneder.

ALTUNA, P. 1987. "Duvoisinen eskuizkribu argitaragabea". *FLV* 19:1, 65-95.

BOVER, J. M. eta O'CALLAGHAM, J. 1977. *Nuevo Testamento trilingüe*. Biblioteca de autores cristianos, Madrid.

DARANATZ, J. 1908. "Le Testament Berria de Haraneder et ses éditeurs les abbés Dassance et Harriet". *RIEV* 2, 1908, 151-177. Orobat *GH* 5:1, 1925, 3-21. Aldaketa batzuekin, *Curiosités du Pays Basque* haren liburuan, Baiona 1927.

HARANEDER, I. 1990. *Jesu Christoren Evangelio saindua*. Patxi Altunaren edizioa. Euskaltzaindia, Bilbo.

HARANEDER. Ikus Harriet.

HARRIET, M. 1855. *Iesu-Christo gure Jaunaren Testament Berria, lehenago I.N. Haraneder Done Ioaneco Lohitsuco iaun aphez batec escuararat itçulia; orai, artha bereci batequin, garbiquiago, lehembicico aldicotçat aguer-aracia, laphurtar bi aphecec*. E. Lasserre, Baiona.

KNÖRR, H. 1987. *Para una edición crítica del diccionario de Maurice Harriet*. Argitaragabeko tesia.

LACOMBE, G. 1947. "Les traductions basques de St. Mathieu". *Eusko Jakintza* 1, 289-294.

LAFITTE, P. 1958. "Biblea Eskual-Herrian (Olabide'ren omenez)". *Euzko Gogo*, 9, 495-501.

— 1959. "Autour de la Bible traduite en basque par le Père R. Olabide". Éditions Herria, Baiona. *Herria* aldizkarian agerturiko artikuluen separata modukoa da.

— 1964. "Deux traductions de l'Enfant Prodigue, ou Jean de Haraneder revu par Maurice Harriet". *BMB* (bigarren aroa) 1:1, 8-16.

LEIZARRAGA, J. 1990. *Jesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria*. Arroxela 1571 (facsimile argitaraldiak: Trübner, Estrasburgo 1900, eta Euskaltzaindia, Bilbo 1990).

MITXELENA, K. 1960. *Historia de la literatura vasca*. Minotauro, Madrid. Jakina denez, beste bi argitaraldi izan ditu liburu honek, 1988an eta 2001ean, Erein argialetxearen eskutik. Gure aipamena lehen argitaraldiari dagokio.

RUIZ ARZALLUZ, I. 1987. "Notas sobre algunas traducciones vascas del Nuevo Testamento". *ASJU* 21:3, 709-725.

SACY, L. DE. 1816. *Le Nouveau Testament de notre Seigneur Jésus-Christ*. Firmin Didot, Paris (1771ko argitaraldiaren arabera).

VIGOUROUX, F. 1895. "Basques (versions) de la Bible", *Dictionnaire de la Bible* haren liburuan. Paris, I, 1.496-1.499.

VINSON, J. 1984. *Essai d'une bibliographie de la langue basque*. J. Maisonneuve, Paris 1891 eta 1898. Facsimile argitaraldia, K. Mitxelenaren hitzaurrearekin, Gipuzkoako Foru Diputazioa, Donostia.

BILINTXEN AHOTSAK MAITASUN POEMETAN

J. Kortazar

Gaurko azterketa honen helburua bikoitza da; alde batetik, poesian ahotsak duen garrantzia nabarmendu nahi luke eta metodologia bat aurkeztu haren azterketa nola egin behar den zehazteko, eta bestetik, Bilintzek nola erabili duen ahotsa zehaztu nahi luke, metodologiaren praktika azaldu nahiez.

AHOTSA POESIAREN ERAGILE

Edozein testu poetikoan ahots batek hitz egiten digu, eta ahots baten bidez zuzentzen zaigu han emaniko mezua. Mezua gugana ahots baten bidez agertzen zaigu, berea da bitartekari lana, eta beraz, ahots horrek hartzen duen tonuerak garrantzi handia du mezuaren eraketan.

Iritzi erromantikoek besterik badiote ere, garbi dago poesiaren barnean agertzen den ahotsak ez duela nahi eta nahi ez egilearen ahotsarekin bat egin, ezta ere eginen. Fikziozko nitasuna ari zaigu hitz egiten normalean, eta ahotsaren moldapenak eragina izango du mezuaren moldapenean ere.

Poemak zentzu bat du, eta zentzua duen neurrian norabidea ere badu, eta poemaren norabidea marrazten duen lehen osagaia egileak aukeratzen duen ahotsa dugu. Eta aukeratzen duena, diogu, berriz ere, zeren ez baitugu uste erromantizismoak proposatzen duen egilearen bizitzaren eta poemaren arteko lotura, biografiaren zintzotasunean oinarritzen den lotura, sinesgarria denik. Beraz, egileak aukeratu egiten du jokoaren neurrietan sartzen den ulean.

Poesia ere joko bat da, eta jokoaren neurrietan kokatzen da, jokoak bere baitan zentzu bikoitza hartzen duelako:

“Poesia, jokoa den neurrian, fikzioaren izaeran zentzu bitan hartzen du parte; lehenik, joko guztiak direlako neurri baten fikzio, unibertso itxiaren, konbentzionalaren, eta, neurri batean, imajinatuaren partaide; bigarrenez, literatura guztiak bezala, Cailloisek *mimicy* (imitazio) deitzen dituen jokoen klasekoa delako; joko horietan norberak bere burua irudimeneko balitz bezala ulertzen du, eta horrela jokatzearan, sinesten du edo besteei sinestarazi die norbera ez den norbait dela pertsona” (Núñez Ramos, 1998, 54).

Zentzu honetan norbera ez dena agertzeko orduan, norbera beste norbait balitz bezala agertzeko orduan, ahotsak du nagusitasuna.

Ahotsa moldatzeko modurik nagusia, egitura komunikatiboaren barnean kokatzen da. Egitura komunikatibo guztiak, honela betetzen dira: lehen pertsonan, *ni* pertsonan mintzatzen den batek bigarren pertsona bati mintzo zaio, eta honek mezua hartu egiten du. Edo, agian, ez da agertzen lehen pertsonarik, eta gerta liteke ez *ni*, lehen pertsona, ezta ere *zu*, bigarren pertsona espliziturik agertzea.

Baina banaketa nagusi horren ostean Jurij J. Levin ikerlariak bere “La poesia lirica sotto il profilo della comunicazione” lanean agertu duenez, bada banaketa nagusi hori zehazteko modurik. Jurij J. Levinen helburua zera liteke, poema ekintza pragmatiko gisa aztertzea eta beste komunikazio batzuetatik bereiztea; eguneroko komunikazio arruntetik bereizten du lehenik, eta beste komunikazio literarioetatik ondoren. Horrela, hiru komunikazio sistema bereizi ditu, lehenean komunikazioaren egilea eta hartzailea esplizituak dira; bigarrenean komunikazioaren egilea eta hartzaileak errealak dira, eta hirugarrenean implizituak dira. Hauxe da bere ondorioa:

“I(gorle)-H(artzaile) errealak eta I-H implizituak poema guztietan gertatzen diren artean (poema guztiak komunikazio ekintza potentziala direlako, hau da norbaitek sortua eta norbaiti zuzendua) igorle esplizitua eta hartzaile esplizitua desagertu daitezke. Baina poeman agertzen direnean, forma desberdinetan agertzen dira: horrela ni esplizitua izan liteke ni lirikoa (egilearen irudiaren zatika edo osorik identifikatu dezakeguna), edo heroi liriko gisa eraikitako irudia, edo benetako egilearengandik urruntzen den pertsonaia edo objektu bizigabea; beste horrenbeste gertatzen da zu esplizituarekin, era normalean niarengandik hurbil den pertsonaia izaten bada ere, izan liteke objektu bat, zein abstrakzioaren bat, edozein gizaki edo humanitate osoa” (Pérez Bowie, 1990, 248).

Lehen banaketa, horrela, subjektu enuntziatiboaren barnean kokatzen da. Lehen pertsonan mintzatzen den ahotsak honelako formak har ditzake:

- “Propioa” *ni* esplizitu hori egile errealarekin identifika dezakegunean, edo *gu* horren barnean “talde txikia adierazi nahi denean, egilea barnean delarik”.
- “Urruna” *ni* esplizitua ezin dugunean egilearekin identifikatu. Adibidez pertsonaia historiko batek poemaren barnean lehen pertsonan mintzatu denean.
- “Orokorra”: *gu* hori talde zabaldu bati dagokionean, gizakiari edo gizatalde nagusi bati edo humanitateari.

Bigarren pertsonan eraturiko poemak direla eta honelako bereizkuntzak genituzke:

- “Propioa” pertsona hori entzuleen artean identifikatu dezakegunean, hartzaile zehatz eta erreala denean.
- “Inpropioa” mezua hartu ezin duen bati zuzentzen zaionean.
- “Orokorra” hartzailea zehaztugabea eta orokorra denean, abstraktua,
- “Autokomunikatiboa”: *zu=ni* ekuazioa gertatzen denean, alokuzioa norberaren buruari egiten zaionean.

Egitura komunikatiboa, baina zaildu egiten da, zeren horiek mezuaren egileak baitira, eta kontuan hartu behar dira baita ere hartzaileak, beraz, poema den komunikazio egitura eta jokoak, zutabe biak nahastuz eta lotuz sortzen da. Horrela posibilitateak ugaritu egiten dira, eta beste askoren artean posibilitate hauek ditugu:

I propioa	II propioari zuzentzen zaio
I propioa	II inpropioari.
I urruna	II propioari
0	II propioari
0	II inpropioari
0	II orokorrari
I propioa	0 bati
I orokorra	0 bati
0	0 bati

(Pérez Bowie, 1990, 249).

Gainera komunikazio prozesua aberastuko litzateke poemaren barnean bigarren prozesu komunikatibo bat eratzen denean, eta sarrera baten ondoren bigarren pertsonaia batek poemaren barnean beste eginkizun komunikatiboa beteko balu, hain zuzen ere honelako egitura beteko balitz bezala:

Egile erreala—— Hitzegile lirikoa {{{heroi lirikoa——hartzaile esplizitua}}}}Hartzaile esplizitua—— Irakurle enpirikoa.

Hau da, poema den hitzegilearen eta hartzaile esplizituaren artean den komunikazioaren barnean, heroi liriko eta honen hartzaile esplizituaren artean gertatzen denean bigarren mailako komunikazioa, bestela esanda komunikazio baten barnean beste bat eratzen denean.

Metodologia honen arabera aztertuko ditugu Bilintxen poemetan gertatzen diren irudi nagusiak.

BILINTXEN AHOTSAK

Bilintxen poesiak aztertu ondoren, hauek dira aurkitu ditugun forma nagusiak.

A Eredua: I propioa—II propioa.

Agian Bilintxengan eredurik garbiena dugu. Ez da, baina, maiz agertzen dena. Edizioan aurrenekoa den “Kontzetziarentzat”, poema irakurtzea besterik ez dago, horretaz konturatzeko:

“Kantatuzera indar aundiko
Desio batek narama,
Kontzetzi, zuri nahi dizut eman
Merezi dezun fama;
Gure probintzi Gipuzkoakuan
Igualik gabeko dama
Berinkatuba izan derilla
Zu egin zinduben ama”. (69. or.).

Enuntziatuaren igorlea.

Bilintxen lanaren barnean, aztertzeko ditugun maitasun poemen artean, hiru igorle nagusi dira.

a) Nagusia, gehien ematen dena, ni propioa izango litzateke, askotan, idazlearen irudiarekin nahastu egin dena, edo nahi bada igorle horren ostean idazlearen nortasuna ikusi izan dena, identifikatu egin dena. Edozein maitasun poema hartu eta irakurri eta nitasuna izango du ia beti poemen lehen hitza:

“Amoriyuak nere biyotza
zureganuntza darama,

erri guztiyan zeren dakazun
neskatx bikañaren fama”.

Garbi dago, erromantizismoaren indarrez, bilatu dela lotura bat ni fikzionalizatu horren eta idazlearen nortasunaren artean. Garbi da erromantizismoarentzat poemaren egiazkortasuna egia bihurtzen zela maiz, eta Bilintxen irakurleek ni fikzionalizatuaren penak, poetaren penekin lotu dituztela. Idazleak berak ere agertu du horretarako biderik, poema batean ni horren loturaz hitz egiten baitu:

“Askok diyote kantetan beti
amore-kontu naizela,
nik esaten det arriturikan
motibu gabe daudela.
Zer egin biat baldin zerubak
doaitu banau horrela?
Ez dute ikusten usaia mendak
Bere jatorrez dubela?
Nere biyotzak amoriyua
Mendak usaia bezala”. (117. or.)

Testu honek azpimarratu egiten du ni lirikoa eta egile erreala bildu egiten direla. Hori horrela bada ere, fikzionalizazioaren indarra garbi utzi du, neurri berean Bilintxek.

b) Lehen enuntziatuaren egilea ni lirikoa badugu ere, egileak bere burua agertu behar duenean, narratzaile esplizitu gisa hitz egiten duenean, azpimarratu egiten du, beste maila komunikatibo baten barnean kokatzen dela, ez dela fikziozko *nia* hitz egingo duena, baizik eta “benetako” ni erreala. Eta horrela poema bitan behintzat, ni enuntziatiboa ez da ni lirikoa, baizik eta beste maila batetik hitz egiten duen igorlea, eta garbi utzi du hori idazleak berak, “Neskatxa bati Mutill batek jarriak” (125. or.) eta “Dama eta galaia” (131. or.) poemetan, ohar hau “Au nik diyot” jartzera behartua ikusi duenean bere burua. Poema bietan pertsonaiek hitz egiten dute, eta desagertu da ni lirikoa enuntziatuaren igorle gisa, ala ere egileak bere lehen pertsona agertzen du, zuzen agertu ere:

“*Au nik diyot:*
“Ez dakit zer esaten ziyon errepuetan,
baña nola mutilla
Donostiya’n ez dan,
falta zan egunetik
pasa direnetan,

onezkero sartu da
nere kontubetan,
Montebideo'n edo
Buenos Aires'etan" (130. or.).

Egilearen irudi esplizitu hori oso esanguratsua da, batetik ni lirikoaren fikzio izaera azpimarratzen duelako, hau da maitasun poemetan "ni" hori ez da neurri baten, "Au nik diyot" dion hori –beste neurri batean izan arren ere, eta horregatik gertatu "identifikazio prozesuak", eta bestetik, ez da orojakilea: ez daki narratzaile esplizitu horrek zer geratu den pertsonaien artean.

"Juana Bixenta Olabe" poeman, ordea, narratzaile inplizitu bat erabili du narratzaileak eta ez esplizitua hemen egin duen moduan.

c) Hirugarren igoilea pertsonaia bat da, ni lirikoarekin loturarik ez duena, esan nahi da ni urrun bat, idazlearekin identifikatu ez dezakeguna, eta bere izen propioz, edo arruntez, agertzen dena: Dama, Galaia, Juana Bixenta Olabe, Nagusi Jauna eta Joxe Joakiñ morroia.

d) Ondorio gisa, zera esan dezakegu, nahiz eta formak desberdinak izan, normalean nitasunak joera lirikoa duenean, igoilea beti da propioa, beti idazlearekin zati batean behintzat lotu dezakeguna. Nahiz eta fikzionalizazioa garrantzizkoa den, ni urruna erabiltzen duenean, poemak pertsonaien bidez osaturik da, eta poetak, orduan beste bide bat jarraitzen du poemaren egitura-ketan. Maitasun prozesua ez zaio "ni" horri gertatzen, baizik eta beste norbaiti, eta orduan, dramatizazio formulak eta narratibitatea indartu egiten dira.

Enuntziatuaren hartzailea.

Eredu honetan hartzailea beti da propioa, hain zuzen ere, hurbileko pertsonaia bat, baina horrek ere forma desberdinak hartzen ditu.

a) Hartzaile erreala: nolabait identifikatu dezakegu, egileak izena erabili duelako. "Kontzezirentzat" kasu honetan gertatzen den bezala, edo egileak esanda, beste norbaitek identifikatzen duenean hartzailea. Adibidez, "Beti zutaz pentsatzen" (95. or.) poemaren ostean, hauxe irakur dezakegu Aita Zabalaren edizioan: "Manterola'k bere Cancionero Vasco'n agertu zuen bertso-sail au, aurrean argibide jakingarri au erantsiz: ... *dedicado a la que después fue su amantísima esposa y es hoy su viuda*". Garbi dago eskaintza ez dela soilik poemaren aurrean jarritako eskaintza arrunt bat, baizik eta eskaintza horretan badugula bidea, poemako zu hori nor den jakiteko.

b) Hartzaile banakakoa. Poema gehienetan zu hartzailea ezin dugu identifikatu, hiperbolez josita dagoen pertsona bati buruz hitz egiten zaigu, nor den adierazi gabe: "dama gazte polit bat" (73.ean), "Begi urdiñak dituzu eta/

aurpegi zuri-gorriya” (77.ean), “dama” (81. orrian), “zeruzko dama bat” (91. or.), “dama gazte bat ezagutzen det” (95. or.), “neskatxa bat” (99. or.)... Orokortasunez jantzita egon arren pertsonaia, edo bestela, deskripzio zehatz bezain topikoz hornitua, ezin dugu adierazi nor den, baina orokortasunak ez du oztopatzen propioa izatea, “urruna”ren definizioan hemen betetzen ez den ezaugarri bat jartzen baitu Levinek: “mezua ezin jasotzea”, alegia, eta garbi dago baldintza hori ez dela betetzen aipaturiko kasuetan. Ez dira agian, erre-alak, baina bai banakakoak, beraz, propioak.

Ondorio gisa, egoera enuntziatibo honek, ni liriko propio batek zu propio bati hitz egiten dionekoak, testuaren lirikotasuna indartzen du.

Alde batetik Erromantizismoak eskatzen zuen zintzotasunaren alde egiten du, benetakoak dira pertsonaiaren sentipenak eta benetakotzat azaltzen zaizkio irakurlari, egilearen eta fikziozko niaren identifikazioak bilatuz.

Bestetik, joera enuntziatiboak lirikotasuna indartzen du. Lirika herrikoiaz hitz eginez, Paul Zumthorrek agertu duenez, lirikaren oinarrian baka-rrik daude pertsona bi, hitzegile bi eta bien arteko mezua da lirikak osatzen duena.

B Eredua: I propioa——— 0

Bigarren eredu hau ez du Bilintxek hain usu erabiltzen, baina bere funtzioa betetzen du poesiaren ahotsen sisteman. Fikziozko lehen pertsona hori behin eta berriro aurkituko dugu poema guztietan, baina orain ez zaio damari zuzentzen, baizik eta entzule orokor bati, agertzen ez den norbaiti.

Adibide gehienetan eredu hau poemaren hasieretan erabiltzen da eta poemari sarrera egiteko orduan. Hala gertatzen da, adibidez, “Pozez eta bildur-rrak” (73) poeman. “Loriak” (81), “Beti zutaz pentsatzen” (95), “Ja-jai” (99), “Itzazu nitaz kupira” (107) eta “Biyotz erituba” (117) ere adibide ederrak dira ereduaren froga emateko. Agian, berezia da honelako eredia “Itzazu nitaz kupida” izena duen poema baten aurkitzea, zeren izenean bertan agertzen baita lehen eredia, ni propioak hitz egiten baitio zu propioari. Baina izenburuan horrela gertatzen bada ere, poemaren hasiera bestelakoa da. Hasiera horretan poetaren nitasunak hitz egiten du, hartzaile jakinik izan gabe:

“Loriak udan intza bezela
maite det dama gazte bat,
ari hainbeste nai diyotanik
ez da munduban beste bat;
iñoiz edo bein pasatzen badet

ikusi gabe aste bat,
biyotz guztira banatutzen zait
alako gauza triste bat” (107. or.).

Testuan ikusten dugunez, baieztapen batzuk egiten dira, eta ez da adierazten nori zuzendu zitzaizkion pasarte honetako hitzok. Entzule bat badago, agian, geu, baina ezin dugu identifikatu. Tonua eta eredu enuntziatiboa guztiz aldatzen da bigarren ahapaldian, non poetak neskatxari hitz egiten dion, eta bigarren pertsona garbia den:

“oraintxe baño gusto gehiago
nik eziñ nezake goza:
zori onian ikusten zaitut,
nere biyotzak au poza!” (107. or.).

Eredu hau sarrera gisa erabiltzen du Bilintxek. Eta sarrera funtzioak ugarriak dira:

a) Maiz, sarrera narratiboa da, eta espazioaren eta denboraren berri ematen du:

“Dama gazte polit bat
bada Donostiya’n” (73)
“Bein batian Loiolan
erronomia zan” (99).

b) Beste kasu batzuetan (“Loriak” (81), “Maita nazazu arren!” (91), “Beti zutaz pentsatzen” (95)) poetak bere maitasunaren berri ematen du eta baieztapena azaltzen du, agertzen dio entzuleri, komunikazioaren hartzaileari:

“Dama gazte bat ezagutzen det
dirudiyena izarra,
eguzkiyari kopetetikan
saltatutako txingarra” (95).

Kasu askotan, hasierako irudi horrek kontrajarpen funtzioa betetzen du. Ni lirikoa oso ona, oso ederra, eredugarria den dama baten aurrean kokatzen da, eta damaren nagusitasunaren eta poetaren umiltasunaren arteko kontrastea indartzea litzateke poemaren gunea.

c) Beste kasu batzuetan, analogiak egiteko balio du. Egoera eta sentipenen arteko analogia, hain zuzen ere. “Izazu nitzaz kupida” poeman udako ihintzaren eta lorearen arteko loturaz hitz egiten da bere maitasuna famatzeko asmotan. “Biyotz erituba”n, aldiz, usaiaren eta mendaren arteko lotura aipatzen da izaeraren eta maitasunaren arteko joera estuaz mintzatzeko.

Eredu hau garrantzizkoa dugu Bilintxen poesiaren beste ezaugarri baten bidean jartzen gaituelako, hain zuzen ere, sarrera batek adierazten du gorputz bat badagoela poeman, eta sarrerak hartaraino eramango gaituela. Berriro hitz teknikoetara itzuliz, Bilintxen poemek ez dute mantentzen egoera komunikatibo bakarra, behin edo birritan izan ezik, gehientsuenetan, aldiz, egoera komunikatibo konplexuak erabiltzen ditu, eta I propioa——0 eredu honek beste egoera komunikatibo baten sarreran gaudela azaltzen du.

C Eredua: I urruna——II urruna

Poemak egiteko pertsonaien ahotsez baliatzen denean Bilintx, izango genuke eredu komunikatibo hau. Adibideak hiru baino ez dira: “Neskatxa bati mutill batek jarriak” (125), “Dama ta galaia” (131), eta “Juana Bixenta Olabe” (137). Hiru adibide horietan molde desberdin bi aurki ditzakegu. Batetik, garbi dago lehen pertsona urruna eta bigarren pertsona urruna erabiltzen direla “Dama ta galaia” eta “Juana Bixenta Olabe” poemetan, eta garbi uzten du hori hasiera-hasieratik egileak. Pertsonaien ahotsak entzuten ditugu, eta antzertian bezala bere ahotsen aurretik esatariaren izena agertzen da. Bukaerak ere, gai eta eraketaren aldetik antzekoak dira: ezkontzan eta umearen jaiotzan bukatzen dira biak. “Neskatxa bati”, alde horretatik, desberdina da, zeren lehen pertsona lirikoaren erabilpenaz hasten da poema, eta bukatu arte, hau da narratzailea esplizitu bihurtu arte, egileak “Au nik diyot” jarri arte, ez dugu jakingo ni liriko hori urruna dela, ez dela aurretiko poemetan Bilintxek erabili duen “lehen pertsona propioaren” irudia, eta puntu honetan desberdina dugu, pertsonaia ez baita pertsonaia gisa agertzen azken momentu arte. Gorago ikusi dugu, baina, nolako ondorioak dituen jokabide horrek “ni lirikoaren” fikzionalizazioa kontuan hartzeko orduan.

Hiruron artean dagoen beste ezaugarri bat egoera komunikatiboaren aldaketa litzateke. Hiruretan, pertsonaien arteko elkarrizketa bukatu ondoren, narratzaileak hartzen du berriro hitza, ondoren gertatu dena kontatzeko. Kasu bitan narratzaileak esplizituki agertzen du bere burua egilearen “ni” horrek hitz egiten duela adieraziz, hirugarrenean narratzailea, ordea, inplizitua da, baina baita ere lehen pertsonan mintzatzen dena.

Honek guztiak Bilintxen ahotsen aldaketen gaiaren aurrean jartzen gaitu.

BILINTXEN AHOTS UGARIAK

Eredu komunikatiboen koherentzia, eredu komunikatibo bakar bati atxikitzea oso gutxitan gertatzen da Bilintxen maitasun poemetan. Idazleak gehiago maite ditu enuntziatuak aldatu, eta eredu komunikatibo batekin hasi bada ere, poemaren gunean hura aldatu eta beste bati lotzea. Eredu komunikatibo bat, bigarren eredu komunikatiboaren barnean kokatzea askotan gertatzen da Bilintxen idazkeran, beraz kanpotik barrurantz joango ginатеke, ni lirikoaren eta zu propioaren arteko ezagutzan geroago eta hurbilago aurkituko genituzke gure buruak. Bihotzetik hurbilago aurkitzen garela esan dezakegu.

Aldaketa hauek A eredu zein B ereduen barnean kokatzen dira, eta askotan gertatzen dira. Eredu konplexuak hiru eratakoak dira: lirikoak, narratiboak, moral kutsukoak.

a) Lirikoak.

- I propioak II propio bati hitz eginez hasten dira, baina poemaren barnean maitaleen arteko, pertsonaien arteko elkarrizketa gertatzen da, beste era batez adierazteko, neskatzak hitza hartzen du eta bere hitzak zuzen entzuten ditugu. Adibidez, “Juramentuba” (77) non poetak lehen ahapalditik hitz egiten dion damari, ondoren, 4., 5. eta 6. ahapaldietan maitaleen arteko elkarrizketa zuzen ematen zaigularik.
- I propioak 0 bati hitz egiten dio, baina ondoren maitaleen arteko elkarrizketa zuzen ematen da. “Ja-jai!” poeman adibidez, edo “Pozez ta bil-durak” testuan (73).
- I propioak 0 bati hitz egiten dio, baina ondoren, neskatzari hitza eman gabe, I propioak II propioari hitz egiten dio. “Beti zutzaz pentsatzen” (95) izango genuke horren adibide. Lehen ahapaldia “Dama gazte bat ezagutzen det” hitzekin hasten da, dama beraz “hura” da, eta komunikazioa beste norbaiti, hartzaile ezezagun bati zuzentzen zaio. Bigarren ahapaldian berriz, komunikazio II pertsona propioari zuzentzen zaio: “beti goguan zauzkatan dama,/ izarra dirudizuna”. Ikusten denez, “hura” hartatik, “zuka” batera pasatu da ni lirikoa.

b) Narratiboa.

Eredu hau, hitza pertsonaiek, heroiek, hartzen dutenean gertatzen da, hau da lehen pertsona urruna bihurtzen denean enuntziatuaren igorlea. Bilintzek enuntziatu komunikatiboa pertsonaien ahoetan utzi du: Damak galaiari (eta alderantziz) hitz egiten dio, Juana Bixentak Nagusiari (eta alderantziz) eta honek morroiari eta orduan, poema bukatzeaz dagoenean komunikazioa aldatu egiten da, lehen pertsona batek, egilearen hitza gisa agertzen den aho-

tsak enuntziatuak aldatu egiten ditu. Narratzaile esplizitu bihurtzen da eta komunikazio narratiboa gauzatzen da. Narratzailea lehen pertsonan ari da “Neskatxa bati” (“ez dakit zer esaten) eta “Dama ta galaia” (“Egiya nik esateko”) edo “Juana Bixenta Olabe” (“edo amar ziran ez dakit baña”) poemetan, baina lehen bietan, esplizituki adierazten du fikziozko ni hori bere ahotsarekin identifikatu behar dela, eta ez da gertatzen horrelakorik “Juana Bixenta Olabe” poemaren kasuan.

Komunikazio enuntziatiboak poema honetan ageri dira aberatsen, eta egoera komunikatiboaren barnean kokatzen den egoera komunikatiboa zaildu eta ugaritu egin da kasu honetan.

c) Moral kutsukoa.

Kasu bitan Bilintxek komunikazio egoera eten egiten du, beste komunikazio bat osatzeko, Ama Birjinari erregu egiteko. “Biyotz erituba” (117) poeman gertatzen da eten hori. Poeman eredu komunikatiboa era batekoa da: I propioa/0 eta I propioa/ II propioa. Bada poema bukatzeaz dagoenean, enuntziatua aldatu egiten da, eta I propioa/ II urruna eraldatzen da komunikazioa:

“Erregutzen dizut,
o Jesusen ama,
nitaz kupi derilla
maite dedan dama” (122).

ONDORIO GISA

Ondorio gisa ohar hauek ditugu egiteko. Bilintxen maitasun poemetan agertzen diren ahotsak zera adierazten dute:

- Fikziozko Nitasunaren irudia garbi geratzen da erromantizismoak bat bateko eta egilearen eta ahotsaren artean ikusi nahi duen lotura estu eta zintzotasunaren aurrean. Berrero, poema egin egiten den “artefacto” baten gisa agertzen zaigu gure begien aurrean.
- Poema hauetako ahots nagusia, lehendik genekienez, ni lirikoarekin loturikoa da, hain zuzen ere intimitatea eta maitasun nahia azaltzeko proposa den ni lirikoaren irudia darabil nagusiki Bilintxek. Ni liriko horrek ni propioaren enuntziatuaren bidez, zu propio bati egiten dio hitz. Eta elkarrizketa horretan joera lirikoak nagusiak dira.
- Bilintx perspektibismoa nagusitu beharko genuke ondoren. Poema gehienak elkarrizketa beste elkarrizketa baten barnean gertatuko balitz

bezala eraturik daude. Joera horretan Bilintzek enuntziatuak enuntziatuen barnean, komunikazioak komunikazioen barnean egiten ditu ugari. Kontraste joko bat da azkenean, gaiaren garapenarekin loturik agertzen dena, baina irakurlearengan efektu bereziak sortzen dituena.

- Bertsolaritzaren eraginez ziurrenik, egitura hauek oso ezagunak baitira balada arruntetan, ahotsak aldatu egiten dira maiz, eta bere bizitzaren azken poemetan enuntziatu lirikoa nahastu egiten da enuntziatu narratibo eta enuntziatu moralarekin. Koherentzia falta bat ekartzen du honek bere testuetara, eta, agian, kalitate galtze nabarmena.
- Azkenez, tonuaren gaia aipatu beharko genuke. Bilintxen komunikazioaren nagusitasuna ahotsak erabiltzen duen tonu umilean datza, eta horrekin batera, damaren irudiarekin lortzen duen kontrastean.

BIBLIOGRAFIA

BIZKARRONDO, I., *BILINTX*, 1986. *Bizkarrondo, Indalezio, Bilintx: Bertsokak eta beste*. Klasikoak 7, Etor, Donostia.

JACOMUZZI, V. "O modelo comunicativo de Jurij J. Levin en Ossi di seppia, de Eugenio Montale".

LEVIN; J. J. 1974. "La poesía lírica sotto il profilo della comunicazione" in *La Semiotica nei Paesi Slavi*. Feltrinelli, Milán.

LUJAN ATIENZA, A. L. 1999. *Cómo se comenta un poema*. Síntesis. Madrid.

NUÑEZ RAMOS, R. 1998. *La poesía*. Síntesis. Madrid.

PEREZ BOWIE, J. A. 1990. "La complejidad del esquema comunicativo lírico como refuerzo de la ficcionalización. Algunos ejemplos de la poesía del Siglo de Oro". *Investigaciones semióticas*, III, (1990). 247-256.

—1992. "Para una tipología de los procedimientos metaficcionales en la lírica contemporánea". *Tropelías*, 3, 91-104

—1993. "Pragmática de la lírica: la enunciación en primera persona ajena en la poesía funeraria y mitológica de los Siglos de Oro" in GARCIA MARTIN, Manuel: *Estado actual de los estudios sobre el Siglo de Oro*. Ediciones Universidad de Salamanca. Salamanca. 777-786.

RAZÓN Y SINRAZÓN DE UNA RENOVACIÓN
POÉTICA.
EN TORNO A *L'ART POÉTIQUE BASQUE*,
DE A. D'OIHENART

J. M^a Lasagabaster

L'Art Poétique Basque de A.d' Oihenart es uno de los textos más importantes de la historia literaria vasca y al mismo tiempo uno de los textos más cargado de incógnitas aún sin despejar –Lafitte habla incluso de “misterio” en torno a algunos problemas que plantea el texto– y, aunque parezca paradójico, uno de los textos también menos relevantes.

No es mi intención aquí pretender despejar ninguna de las incógnitas que el texto de Oihenart sigue dejando planteadas; no tengo competencia para ello, y sería verdadera osadía por mi parte intentar hacerlo. Mi propósito es mucho más modesto.

Desde mi condición de profesor – ex profesor más bien, porque me quedan exactamente diez días para la jubilación – voy a exponer simplemente lo que una lectura atenta y de alguna manera especializada del texto de Oihenart me ha sugerido.

He comenzado aplicando a *L'Art Poétique Basque* estos tres adjetivos: importante, “misterioso” – entre comillas – e irrelevante. Los tres calificativos me van a servir de guión, para la sencilla reflexión que aquí quiero plantear.

El texto de Oihenart es, por sí mismo, de una importancia suma en la historia literaria vasca. Y utilizo intencionadamente el término “historia literaria” y no literatura, ya que no se trata de un texto de creación, sino de teoría y crítica.

Seguramente no es indiferente señalar que Oihenart es el primer escritor laico de la literatura vasca; su formación y su profesión explican sin duda mejor que la formación clerical de un Etxepare o un Leizarraga sus preocupaciones culturales y científicas y la diversidad de la obra escrita a que ellas dieron lugar: textos históricos, paremiológicos y literarios, tanto de creación poética como de reflexión teórica y crítica.

En el conjunto de clérigos que conforman la galería de escritores vascos en los siglos XVI y XVII, la figura del laico Arnaut d'Oihenart, un "noble de toga" comprometido en la vida política y administrativa de su tiempo, destaca como la de un hombre "moderno", en el sentido más típico del término, un hombre representativo de la cultura de su época, y cuyo retrato aparece además adornado por su condición de poeta y de teórico de la poesía vasca.

Oihenart es, y esto sí que es decisivo, el primer escritor vasco que se plantea la poesía como una actividad autónoma, no subordinada a fines lingüísticos o religiosos. Es verdad que una buena parte de la poesía de Etxepare es una poesía "civil", por utilizar un término actual, pero, como él mismo indica en la dedicatoria de su libro, su propósito es mostrar que la lengua vasca es tan apta como cualquier otra para los usos cultos y la escritura. Y si Etxeberri de Ziburu escribe en verso un amplio y denso manual ascético-teológico, es porque los vascos son muy dados a las coplas y es más fácil enseñar versificando.

Oihenart, no; él es consciente de la autonomía del lenguaje poético y desde esta conciencia se plantea la reflexión de carácter teórico y crítico a un tiempo que propone en su *L'Art Poétique Basque*.

Si de modo general se puede decir que la actividad de creación literaria, no en cada autor individual, pero sí en un sistema literario, en una tendencia, en una época... va acompañada de una descripción o de un juicio valorativo de los textos de creación o incluso de unas propuestas genéricas que sostienen y orientan la creación literaria misma, es decir, lo que hoy entendemos por teoría y crítica literaria, en el caso vasco las cosas se nos aparecen de una manera muy diferente. La recepción crítica de la obra literaria no existe prácticamente hasta bien entrado el siglo XIX y su institucionalización en el panorama literario vasco es un fenómeno del siglo XX.

Por eso llama poderosamente la atención, en el panorama de la historia literaria vasca, una figura como la de Arnaut d'Oihenart, cuya obra poética, aunque breve y valorada de forma menos positiva por la crítica, está sostenida por una conciencia lúcida de la autonomía y de la especificidad de la escritura literaria, por un conocimiento, amplio en el contexto vasco de la época, de la poesía europea de su tiempo y por una valoración crítica, discutible y hasta rechazable en más de un aspecto, pero en cualquier caso respetable, de la poesía escrita en euskara hasta ese momento.

Esto es sin duda lo que da a la personalidad literaria de Oihenart una singularidad y una solidez que la hacen destacable y única en el panorama literario euskérico del siglo XVII.

Y sin embargo todos estos matizados elogios a lo que ese breve tratado que es *L'Art Poétique Basque* supone en la historia literaria vasca parecen disolverse en la irrelevancia, porque el texto de Oihenart permaneció ignorado y desconocido hasta trescientos años después, cuando el manuscrito cayó de forma casual en manos de Pierre Lafitte, quien lo transcribió, estudió y publicó en 1967.

Merece la pena detenerse un poco en este hecho, porque en su órbita se mueven algunas de las incógnitas que *L'Art Poétique Basque* sigue planteando.

Hay que aludir en primer lugar al título completo que el propio Oihenart dio a su tratado de poética vasca: *L'art Poétique basque, Indiquee dans Une lettre Escrite a Un cure du pays de Labourt au moys de mai 1665*.

Parece, pues, claro que la motivación de la escritura de este pequeño tratado de poética vasca es responder a la demanda de un cura labortano, que así se lo ha pedido al propio Oihenart; y el texto lleva explícitas, sobre todo en su comienzo, las marcas de su naturaleza epistolar:

Vous me demandés – comienza señalando nuestro autor – de quelle methode je me sers en composant de Uers basques. Je Uous Respons que, lors que je m'occupois a cet Exercice (car il y a long temps que Je ne m'en mesle plus) Je m'accommodois a l'art des Poetes Italiens et Espagnols et Encore plus a celle des latins...

La segunda persona aparece repetidamente a lo largo del texto: *Je ne d'ou-te pas que Uous en sachies...; comme Uous pourrés auoir remarqué...; Vous obseruerés la mesme Chose...; Uous pourres obseruer en ces Uers...; ... que ie Uiens de Uous représenter...; Uous me demanderés peut etre...; etc.*

Desde el comienzo hasta el final, el texto de *L'art Poétique basque* aparece trufado de expresiones dirigidas directamente al destinatario de la carta en la que Oihenart expone detenidamente sus teorías poéticas, así como su crítica de la poesía vasca que hasta ese momento se ha venido haciendo por la mayor parte de los poetas vascos.

La pregunta se impone: ¿quién es ese clérigo tan interesado en conocer las teorías poéticas de un autor como Arnaut d'Oihenart?

Las incógnitas que encierra en sus pocas páginas la poética oihenartiana comienzan aquí; la naturaleza epistolar formal del texto es evidente; la verosimilitud de que se trata efectivamente de una carta que tiene un destinatario

concreto parece reforzarse por el dato, aparentemente insignificante, de que el escritor señala no sólo el año, como sería el caso en otro tipo de texto, sino también el mes de redacción de su carta.

Y sin embargo se pueden abrigar dudas a mi juicio legítimas sobre la existencia real de ese clérigo que le pide a Oihenart una especie de lección magistral sobre el arte de hacer versos en euskara. Debería tratarse de un clérigo conocedor de la poesía de Oihenart, publicada, juntamente con los refranes, ocho años antes de la fecha de la redacción de la carta; no resultaría inverosímil afirmar además que se trataría de alguien conocedor también de la poesía vasca escrita hasta ese momento y capaz, por tanto, de percibir como lector la singularidad formal de los versos escritos por Oihenart, lo cual le mueve a dirigirse al poeta mismo, pidiéndole de algún modo una justificación, que eso es en el fondo la explicación solicitada, de esa manera nueva, por distinta, de entender y practicar la versificación en euskara.

Igualmente situaría yo en el terreno de la verosimilitud la hipótesis de que se trata de alguien que goza de algún tipo de proximidad con Oihenart, lo que le permite dirigirse directamente a él y explica que la respuesta a su petición sea todo un tratado, aunque breve, de versificación vasca.

Tenemos que reconocer sin embargo que todo este conjunto de hipótesis bien intencionadas no aportan ningún dato que permita una identificación más concreta de la personalidad del destinatario de la carta; más aún, es incluso pensable que la carta no se enviara nunca –parece que el manuscrito encontrado por Lafitte es autógrafo del propio Oihenart–, pues en el caso de haber sido enviada, a todas las incógnitas anteriores se añadiría una más: que el clérigo poseedor del pensamiento poético de Oihenart a través de un texto que al ser una carta le pertenece como destinatario de la misma no hubiera utilizado, ni siquiera revelado, la existencia de tal texto.

Ya sé que se trata de elucubraciones estériles, que no procuran ninguna conclusión. Yo sí me voy a atrever a sacar una, aunque ya sé que podrá parecer en más de un caso gratuita: el tal clérigo labortano, destinatario hipotético de la carta-tratado de Oihenart no existió y el tono epistolar del texto no es sino un recurso literario del que se valió el autor para justificar, aunque no fuera necesario, la escritura del texto y para hacer más digerible su lectura, mediante la introducción de los elementos intersubjetivos que supone la frecuente utilización de la segunda persona.

Pero hay otro aspecto, a mi juicio más significativo, relacionado con esta cuestión del carácter epistolar formal del texto y de la identidad de su destinatario. Si no sabemos nada de la identidad del destinatario real de la carta-tratado de Oihenart, ni siquiera si existió – sí podríamos saber algo del destinatario potencial, o, para utilizar la terminología generalizada por la estética de

recepción, de ese "lector implícito" que todo texto construye y que sí es posible identificar; claro que este "destinatario implícito", inducido a partir del texto mismo, no es homologable al destinatario real, y menos todavía al que se supone que lo fue porque a él y a su demanda habría dirigido Oihenart su famosa respuesta.

Todo texto va instaurando, a lo largo del proceso textual mismo, la imagen o figura de su propio lector; es lo que, con la terminología de Wolfgang Iser, hoy denominamos "lector implícito": es un lector cuya competencia textual le permitiría descodificar los diferentes códigos que en cualquier texto se codifican. El lector implícito es el correlato, desde la perspectiva de la recepción, no del lector real, sino del autor implícito, porque pondría en práctica en la recepción del texto las mismas competencias textuales que el autor ha puesto en el proceso de la emisión.

El hecho de que se trate, como es nuestro caso, de un texto estructurado, al menos desde el punto de vista de la forma, como una carta no supone una excepción al principio de recepción que acabamos de establecer.

Desde esta perspectiva, la cuestión del destinatario de la carta-tratado de Oihenart no es ya quién fue en realidad ese clérigo labortano para quien nuestro autor escribió su famoso texto, sino qué competencia textual – poética, en definitiva – debería haber tenido el clérigo al que supuestamente dirigió Oihenart su misiva, o debería tener hoy cualquier lector real de *L'art Poétique basque*.

P. Lafitte, en su edición del texto, dedica un párrafo a lo que denomina "quelques détails pour aider la lecture"; se trata en todo caso de observaciones que se refieren a la grafía, al vocabulario o a la acentuación utilizados por Oihenart y que podrían desconcertar a un lector actual no habituado; aunque, como el propio Lafitte señala, "on s'habitue très vite à ce vocabulaire".

Desde la perspectiva de la "Estética de recepción" son otros los elementos sobre los que se instaura la figura textual del lector implícito.

Yo distinguiría tres niveles de codificación, tres sistemas o subsistemas métricos sobre los que Oihenart construye toda su teoría sobre la poética vasca.

En primer lugar todo aquello que hace referencia a lo que podríamos denominar una "métrica general" y que Lafitte en su "plan de l'Art poétique" intitula "Règles générales". Aquí entraría todo lo referente a la distinción entre versos masculinos, femeninos y esdrújulos, el acento, el número de sílabas y la rima.

En un segundo nivel de codificación, yo incluiría todos los ejemplos, textos y autores en cuya autoridad trata Oihenart de fundamentar su teoría poé-

tica: Poetas italianos, españoles y sobre todo latinos, aunque no los clásicos, sino los medievales.

Por fin, todo lo referente a la poética y a la poesía vasca, donde habría que distinguir sus propuestas teóricas, a partir sobre todo de los modelos neo-latinos y españoles, y la parte propiamente crítica del tratado, en la que, a partir de los modelos previamente establecidos, Oihenart hace un juicio de valor sobre la poesía y los poetas vascos: Dechepare, Etchegaray, Arnaud de Logras, o Etcheberri de Ciboure.

El texto de *L'Art poétique basque* diseña por lo tanto una figura de lector implícito capaz de descodificar de manera adecuada los elementos codificados en el texto y que, de forma aproximada, corresponderían a estos tres niveles señalados.

Naturalmente, hay que tener en cuenta además la naturaleza, no sólo formal, sino también temática del texto, es decir, lo que de acuerdo con la Poética contemporánea, denominaríamos “régimen” del texto, ya que esto decide también en buena medida la orientación del proceso de descodificación.

No se trata propiamente de un texto de creación, sino de un texto ensayístico y de alguna manera didáctico, que le permite al autor exponer y comunicar sus ideas a sus posibles lectores. El texto encierra la novedad de hacernos descubrir la existencia de dos poetas vascos hasta entonces desconocidos: Jean de Etchegaray, sacerdote en Donibane Garazi, autor de una pastoral titulada *Artzain Gorria*, que fue representada varias veces hacia 1565 y Mr. Arnaud de Logras, vicario general de Mixe y Ostabaret. Ambos, dice Oihenart, componían versos de quince sílabas, al modo de Etxepare.

Pero no es lo que el texto revela de escritores ignorados, con ser ello importante para la historia de la poesía vasca, lo que aquí nos interesa, sino el sistema general de competencias poéticas – la figura textual del lector implícito – que se le exigen a cualquier lector real para una adecuada descodificación de “L'Art Poétique Basque”.

No queremos con esto significar que se trate de un texto escrito para especialistas; pero sí que se trata de un texto que exige lectores mínimamente introducidos en el mundo y en las convenciones de la métrica general, en un cierto conocimiento de poetas de otras literaturas –española, italiana, latina medieval...– y sobre todo de la situación general de la poesía vasca en el tiempo en que Oihenart escribe su tratado, y de sus poetas representativos.

Arnaud Oihenart, que afortunadamente no sabía nada de “lector implícito”, “régimen del texto” y otros retales con que los críticos intentamos cubrir malamente la desnudez de nuestras ignorancias, escribe un texto, si no para especialistas, sí al menos para lectores con una mínima familiaridad con el mundo de la métrica en general y de la euskérica en particular. Y a este mundo

tenía que pertenecer ese clérigo labortano al que hipotéticamente destina Oihenart su Arte Poética.

Por la vía de la figura textual del lector implícito llegamos igualmente a diseñar un destinatario real, con las características que más arriba le habíamos hipotéticamente atribuido. Pero seguimos igualmente sin conocer quién era ese clérigo y seguimos pudiendo razonablemente poner en duda incluso su existencia.

P. Lafitte, tras un análisis minucioso del manuscrito, opina que no se trataría de una redacción definitiva:

À notre avis tout cela démontre que L'Art poétique n'était pas encore tout à fait au point pour l'impression; mais on verra que ces négligences n'enlèvent pas à l'oeuvre ses valeurs essentielles.

Implícitamente Lafitte parece dar a entender que se trata de un texto escrito para ser impreso y no de un texto para ser enviado como respuesta a un destinatario concreto que lo hubiera solicitado. Pienso que es la posición más coherente: en la demanda del clérigo labortano Oihenart encuentra la motivación para exponer de forma sistemática y por escrito su teoría poética, los argumentos de autoridad en los que se apoya y tomar pie de aquí para hacer una exposición crítica de la situación de la poesía vasca en su tiempo. El texto mantiene, como hemos visto, marcas de su naturaleza epistolar; pero la conclusión a la que se puede llegar es que nunca funcionó como carta, que nunca, por tanto, llegó a su destinatario y que, siguiendo la autorizada opinión de P. Lafitte, si no se trataba de una redacción definitiva, nunca llegara a la imprenta, como las demás obras conocidas de nuestro autor.

Hay otro aspecto del texto de *L'Art Poétique Basque* que me interesa señalar también aquí, partiendo igualmente del prólogo de Lafitte. Alude, citando a Haritschelhar, que las citas de versos de poetas españoles no son siempre exactas, si se toma como referencia los textos de la edición de "Clásicos Castellanos", de Espasa-Calpe. Yo no me voy a fijar tanto en la fidelidad literal de las citas, como en la lectura métrica que de las mismas hace Oihenart, al servicio, claro, de sus tesis previas.

Así, como ejemplo de versos esdrújulos, Oihenart cita a los poetas españoles Juan de Mena y Jorge de Montemayor.

El ejemplo de Montemayor es claro: se trata de unos versos tomados de su conocida obra *La Diana*, más concretamente de un diálogo en el Libro 1º, entre los pastores Silvano y Sireno; son treinta tercetos terminados en palabra esdrújula.

En cambio, la lectura que Oihenart hace de los versos de Mena es a todas luces inaceptable.

Este es el texto citado:

“Sancta paz, sancto misterio,
triumpho viril de gloria,
concordia sin vituperio,
de ambas partes victoria,
de los pueblos refrigerio.
Vuestros bienes acarrear
que los señores no sean
de sus siervos captiuerio.”

En la lectura que Oihenart hace de esta octavilla, los cinco primeros versos y el octavo son esdrújulos y el sexto y séptimo femeninos.

Parece evidente que no hay razón métrica o rítmica alguna para leer como palabras esdrújulas “misterio”, “gloria”, “vituperio”, “victoria”, “refrigerio”, “captiuerio”.

Es claro que para Oihenart el verso séptimo – que según su definición es femenino – tiene ocho sílabas, ya que no hay lugar para sinalefas o elisiones, que son las figuras prosódicas que Oihenart defiende como obligatorias. Lo mismo se puede decir del verso sexto, pues parece poco probable que a Oihenart se le ocurriera leer la palabra “bienes” como trisílaba, destruyendo, mediante diéresis, el diptongo “ie”.

¿Por qué, entonces, convierte en eneasílabos los demás versos de la estrofa, haciendo esdrújulas sus palabras finales? Según esto, el verso tercero – “Concordia sin vituperio”, ¿cuántas sílabas tiene para Oihenart? ¿Nueve o diez? Porque si “gloria” del segundo verso es trisílaba, por la misma razón “concordia” debería ser tetrasílaba.

Tan sólo en los versos segundo – “triumpho viril de gloria” – y cuarto – “de ambas partes victoria” – podría encontrarse alguna razón métrica para destruir los diptongos finales y leer esos versos como esdrújulos.

En cuanto al verso segundo, el carácter octosílabo del verso podría logarse lo mismo haciendo diéresis en “triumpho” que en “gloria”. En el cuarto verso parece más razonable una lectura sin hacer sinalefa en “de ambas”, con lo que “victoria” es palabra llana y no esdrújula. La rima obliga entonces a leer también como llana la palabra “gloria” del segundo verso.

Este somero análisis de la lectura que nuestro poeta hace de la octavilla de *La Diana* nos obliga a concluir que no hay ninguna razón en la estructura de la métrica española para interpretar como esdrújulos los versos que Oihenart señala como tales. La única explicación sería el escaso conocimiento que nuestro autor tendría de la métrica y tal vez de la lengua española. Algo parecido podría decirse también por lo que se refiere a la lengua y a la métrica italiana;

Oihenart cita como esdrújulos versos de Petrarca y Ariosto terminados en palabras que son evidentemente llanas, como "campidoglio", "soglio", "orgoglio", "contrario", "adversario", "luminario".

A modo de resumen del recurso que Oihenart hace de autores de la literatura española, digamos que los autores citados en su Arte poética son, además de Mena y Montemayor, Cervantes y Lope. Los cuatro son evidentemente nombres importantes en la literatura española de los siglos XVI y XVII; pero no todos, ni de la misma manera, por lo que se refiere a la poesía lírica.

Juan de Mena es, en la Baja Edad Media castellana, un renovador del lenguaje poético. Oihenart, curiosamente, no cita la obra que mejor expresa esa voluntad renovadora –los rotundos dodecasílabos de *El Laberinto de Fortuna*–, sino unas coplas a Juan II, en la línea de la poesía trovadoresca y cortesana más tradicional. Cervantes no se caracteriza precisamente como poeta y *El peregrino en su patria*, texto fundamentalmente en prosa no es tampoco el mejor ejemplo de la calidad lírica de Lope de Vega.

Las citas de autores castellanos –junto a otros italianos, franceses, latinos– demuestran ciertamente en Oihenart una erudición y unos conocimientos literarios notables, caso verdaderamente ejemplar por único, como ya ha quedado señalado, en la vida literaria vasca de su tiempo.

Pero en un análisis riguroso del recurso que Arnaut d'Oihenart hace a la poesía castellana para justificar y ejemplificar sus nuevas propuestas de métrica vasca, no deja de resultar chocante que se ignoren –o al menos no se citen– las cuestiones que mejor pueden definir las vicisitudes y la vida de la poesía española de los Siglos de Oro y los poetas que mejor y más ejemplarmente las encarnan: la introducción de la poesía italianista y la reacción tradicional en la primera mitad del siglo XVI, y, ya en el XVII, la polémica del gongorismo.

La renovación pretendida por Oihenart se queda de hecho en meras propuestas métricas que van además a contrapelo de la estructura prosódica de la lengua vasca. No hay, al menos en los textos que conocemos, un replanteamiento mínimamente profundo del quehacer y de la materia poética, como lo hubo, por ejemplo, en la renovación poética iniciada por Boscán y consumada por Garcilaso en la poesía castellana del Renacimiento.

Juan Boscán, atendiendo a la propuesta del embajador veneciano Andrea Navagiero, que le pide que escriba "sonetos y otras artes de trovas usadas por los buenos autores de Italia", introduce en la poesía castellana los principales metros utilizados por Petrarca y otros poetas italianos; pero Boscán no es un poeta brillante, su versificación es dura y premiosa. Es un poeta excelso como Garcilaso de la Vega el que renueva de manera sustancial la poesía castellana y hace triunfar el endecasílabo italianista y formas métricas como el soneto, la égloga o la lira.

Porque el desarrollo y la renovación de la literatura no la hacen las poéticas de los teóricos ni las academias, sino las creaciones literarias de los escritores.

Las teorías poéticas propuestas por Arnaut d'Oihenart en su *Art Poétique Basque* sólo fueron conocidas trescientos años después, cuando Pierre Lafitte saca a la luz el manuscrito recién descubierto.

Esto quiere decir que el intento renovador de Oihenart no tuvo en su tiempo más base y argumento que su propia poesía. Sus poemas de juventud son, en la voluntad de su autor, un mero ejemplo de las posibilidades que la lengua vasca ofrece a la nueva métrica, son un mal ejemplo, o, al menos, no son un buen ejemplo, si tenemos en cuenta que, a juicio de la crítica, no es un buen poeta. Mitxelena lo señaló al decir que Oihenart no era poeta, sino versificador extraordinariamente hábil y un gran conocedor de la lengua". Aunque también valora positivamente el esfuerzo renovador del Oihenart poeta, por su contribución al enriquecimiento de la lengua, por su esfuerzo de adaptación de las estructuras léxicas y sintácticas del euskara para la poesía culta, en un intento análogo al que en la prosa supone el *Gero* de Axular.

No sé si tiene mucho sentido la pregunta, pero yo la hago, al final de esta deslavazada reflexión: Si Arnaut d'Oihenart hubiera sido un Garcilaso de la poesía euskérica, ¿habrían tenido éxito sus innovadoras propuestas métricas?

Porque la realidad histórica nos dice que la poesía vasca de la época siguió la dirección poética del tradicional Etxepare, a quien tan dura como injustamente se critica en *L'Art Poétique Basque* oihenartiano. El Oihenart teórico se perdió con su manuscrito hasta trescientos años después y el Oihenart poeta se quedó solo con su poesía renovadora.

Y el caso es que la lucidez y la erudición con la que nuestro escritor se plantea en la práctica poética y en la reflexión teórica y crítica la necesidad de una renovación de la poesía euskérica, poniéndola en la órbita de prácticas líricas como la española o la italiana, además de su singularidad, teniendo en cuenta sobre todo la época en que la propuesta se realiza, era seguramente un propósito que habría merecido una mejor acogida.

¿Habría que decir – y sirva esto de conclusión – que *L'Art Poétique Basque* estaba destinado, incluso en la intención implícita del autor, a ser una justificación teórica y una defensa "a posteriori" de las poesías que el poeta había dado a la imprenta ocho años antes?

A este propósito yo no puedo menos de recordar, salvando todas las distancias que son muchísimas y muy grandes, el caso de Pío Baroja.

Cuando nuestro Baroja publica en 1925 como introducción a su novela *La nave de los locos*, de la serie *Memorias de un hombre de acción*, una refle-

xión titulada "Prólogo casi doctrinal sobre la novela", todo el mundo entiende que es en realidad una respuesta a Ortega y Gasset, que unos meses antes, en su ensayo "Ideas sobre la novela", había defendido una concepción del género totalmente antibarojiana.

Pero al mismo tiempo una buena parte de la crítica piensa que lo que don Pío pretende con su "Prólogo casi doctrinal" es justificar y defender su propia novela, publicada ya en sus mejores títulos para esa fecha.

Y ¿por qué no iba a hacerlo? Tenía todo el derecho para ello. Y además la historia le dio la razón: El desarrollo de la novela española se hizo mucho más de acuerdo con las opiniones de Baroja que con las tesis de Ortega.

Arnaut D'Oihenart no tuvo esa suerte. Se quedó –o le dejaron solo–. Aunque, a decir verdad, parece que en la tarea de hacer una poesía distinta no estuvo del todo solo. Él mismo cita al señor de Sauguis, como poeta vasco digno de ocupar, coronado de laurel, la cima del Parnaso, en ese panegírico que constituye el soneto –"hamalaurkuna" le llama el autor– en versos dodecasílabos "femeninos", para hacer honor a la terminología oihenartiana, y que Mitxelena considera como lo mejor en la poesía del autor: "Zalgiz Jaun, Pabeko Korte gehiengan Erregeren Konseilari zenaren gorazarretan".

Desgraciadamente, no nos ha quedado ni rastro siquiera de la poesía de Sauguis. Tiene razón Mitxelena cuando comenta:

"Beraz, Oihenart bakarria ez bazen ere, bakarrik utzi dute urteek eta euskaldunen zabarkeriak"

XIX. MENDEKO KOBLAKARIEN BERTSO-MOLDEZ

J. M. Lekuona

Honela dio gaurko programak: “XIX. mendeko koblakarien poetikaz”. Honela formulatzeak nahiko argia badirudi ere, gaia arakatzan hasi orduko konturatzan da bat, oso zabala dela arlo hori eta nolerebait mugatu beharra ere bai, mintzaldi laburra egin nahi bada, niri gaur dagokidanez. Bestalde, gaia mugatzen hasiz gero, hortik zalantzak etor daitezke zein diren eta zergatik emanak geure urrats jakinak. Beraz, zehaztasunetan hasi beharra dago lehenengo unetik.

1. ZEHAZTASUNAK IZENBURUAZ

1.1. XIX. mendea

Hemeretzigarren mendean, bialdi nagusi bereizi ditzakegu: “Anton Abbadiaren koplarien guduak” baino lehenagokoa (1800-1851)¹ eta gudu horien garaiko koblakaritza (1851-1897). Gure mugaketa izan da, bigarren urtealdiko bertso-sortak hartu ditugula gogoan (1851-1897). Horren arrazoia bistakoa da: mugimendu garrantzitsua izan zen, Ifarraldean batez ere, XIX. mendeko bigarren zatian; eta Patri Urkizuk eskaini dizkigu orduko 400 kantu berri, Anton Abbadiaren lehiaketa poetikoak ia osorik bilduz, sorta oso esti-

¹ E. Larre, “Ipar Euskadiko Bertsulariak”, *Jakin*, 14/15, 1980, 30-37 or.

magarria berea¹. Menderdi batez, urte gehienetan izan ziren bertsoegileen arteko norgehiagokak, desberdin zirelarik parte-hartzaileak eta produktua maila onekoa izan zen, kantutegietan txertatuak izateraino. Beraz, ez zen harritzekoa geuk urtealde hori gogoan hartu izana, bereziki XIX. mendeko bigarren parteko kantugintza, alegia.

1.2. Koblakari

Pierre Lhandek bere hiztegian esaten digu koblakaria sortzailea dela eta poeta. Bigarren esanahian, bat-bateko bertsolaria dela, eta poeta hala-holakoa ere bai. Pierre Lafittek “Koblakarien legeak” aipatuko digu bertsolarien eskolatzeaz ari zaigunean².

Hitzari buruz I. Sarasolak bere hiztegian adierazten digu gutxi erabilia dela hegoaldean; koblaria dela, koblak ontzen edo ematen dituenak, bertsolaria.

Beraz, hemen honetan hau dugu gogoan: 1) Poeta da eta sortzailea; 2) Bat-bateko bertsolaria; 3) Kantu berrien ontzailea, nahiz eta ofiziokoa ez izan, inoiz –hartara jarrita– bertso-sorta ontzen duena, kantutegietan bere pieza azaltzeraino.

1.3. Bertso-moldez

Bertso-sail jakin baten alderdi deskriptiboak lantzerakoan hiru arlo har daitezke gogoan, besteak beste: metrikaren saila, alderdi erretorikoak eta figura irudizkoak.

Metrikaren sailak markatzen digu testuaren egitura, erritmoa, luze-laburra, autorearen sena edota abilezia, efektu bereziak, musikarekiko uztartze egokia, fraseologiaren duintasuna eta abar. Alderdi erretorikoak, erakusten digu bera dela gehien lantzen den arloa jendaurreko mintzoan: elizako predikuetan, beste bertsolarietan, eskolan, batez ere Larresoroko Seminarioan³. Hirugarrenik, figura irudizkoak: konparaketak, metaforak, sinestesiak eta bereziki euskal herritarren moduak, bai kopletan estilizatzeke, bai maite-kan-

¹ P. Urkizu, “Anton Abbadiaren koplarien guduak. Bertso eta aire zenbaiten bilduma 1851-1897”, “Nazioarteko Biltzarra”, Donostia, 1997. Aurrerantzean liburu hau aipatuko dugu laburdura hauekin. PU/KG.

² P. Lafitte, “Koblakarien legea”, *Gure Almanaka*, Baiona, 1935. (Separata kaier modura).

³ J.M. Lekuona, “Udarregi erretorikaren ildotik”, “Ikaskuntzak euskal literaturaz (1974-1996)”, Deustuko Unibertsitatea, Donostia, 1998, 379-392 or.

tuetan protagonistak idealizatzeko edota errealismoz jatzeko, izarra, txoria, ehiztaria, sasia eta abar kodifikatzeko⁵.

Beraz, XIX. mendean, eta bigarren partean azaldutako poesiak dauzkagu gogoan, “Anton Abbadiaren koplarien guduak”. Denboraz urri antzean gabiltzanez, eta oso zabala denez poetikak hartzen duen eremua, guk bakarrik landuko dugu metrikaren arloa, batez ere nolako estrofa agertzen diren, bazuetan hauen jatorria aipatuz, eta estrofen ugaritasunak agertzen duen nolakotasunak arakatuz.

2. BALDINTZA HISTORIKOAK

Koblakarien poetika hobeto ikusteko, lagungarri onak direla uste dugu, gertakariaren baldintza historikoak, axaetik bederen, azpimarkatzea. Baldintza hauek alderdi desberdinetakoak izan daitezke.

2.1. Antolatzaileak. Koplarien guduon mezenas eta buruak, ideia propioak zituen horrelako sariketei buruz. Horregatik, eta guri dagokigunez, mezenas horrek bere inguru hartzen ditu euskal idazle trebatuak eta izen handikoak; hasieran Duvoisin, Jean, biblia osorik euskaratu zuena⁶, eta azkenaldian Gratien Adema, poeta preziatua⁷, pertsona hauek kudeatzen dutelarik lehiaketen norabidea, sariketei buruzko informeak eta iritziak emanez. Bai mezenasen iritzimoldea eta bai kudeatzaileen eskuhartzea oso garrantzitsua jotzen dugu guduketa hauen nondik-norakoa markatzeko.

2.2. Koplen jendaurreatzea. Irabazleek koplak kantuz aurkezten ziren, lehiaketa ospatzen zen herrian, herriko koroa zelarik aurkezpen horretaz arduratzen zena. Horrela, kantu gehienetan doinuaren aipamena egiten da, zein airetan kantatu behar den adieraziz. Xehetasun honek esan nahi du, doinu egokienak edota ezagunenak aukeratzen zirela, herri jakineko tradizioaren arabekoak. Bistan dena da bertso-jartzaileen, edota kantugileen teknikaz baliatzen zirela bertsogileek, kantatu beharrak ezartzen dituen legeen barruan diskurtsu poetikoa garatuz. Bada Bernard Bordaren salbuespena, honek era klasikoan –silaba luzeen eta laburren konbinaketetan– bere poesiak aurkezten

⁵ ID., “La lírica popular vasca en el siglo XVIII”, “Ikaskuntzak euskal literaturaz (1974-1996), Deustuko Unibertsitatea, Donostia, 1998, 342-349 or.

⁶ PU/KG, 22 or., 40 or.

⁷ PU/KG, 42 or., 44 or.

dituena⁸, baina sariketan irabazle izan gabe, sailean aipatua bezala agertzen delarik besterik gabe.

2.3. Menderdiko lana eta poeta hoberenen emaitza. Hasi 1851tik eta 1897 arte, ariketa jarraia burutu zen ifarraldean, urterik-urte poesi lanak bildu zirelarik, bi urte hauetan izan ezik: 1861ean, hutsik gertatu zelarik guduketan, eta 1870ean gerradenbora zelarik ez zen egin koplarien gudurik. Horrelako ahalegin luzeek ondorio bat uzten dute euskal poetikan, koblari berriak sortuz, zeudenak sendotuz, bide berriak zabalduz.

Bestalde, lan luzea eta lan jarraia ezezik, garaiko poeta hoberenen arrastua ere azaltzen da bertan, presente daudelarik bat-bateko hoberenen testuak (Etchaun, Oxalde, Ttipi Urruñarra, eta beste)⁹; ifarraldeko poeta sonatuenen emaitzak (Elissamburutarrak, Gratien Adema “Zaldubi”, eta Larralde eta Guilbeau medikuen antzekoak besteak-beste¹⁰; eta gero, bi sail aipatuotan sartzen ez direnak, baina piezen bat geroko kantutegietan utzi dutenak (“Iratiko artzaina” M. Landerretche, apezarena; “Urrundik ikusten dut”, Darruperena¹¹, nahiz ez diren sariketakoak noski, baina bai giro berekoak; eta aipatuko nuke, beste eredu gisa Bernard Celhabe, bardoztarra, Urruñan lehenengo saria irabazi zuena 1853an, apaizgai izana, kulturaduna¹². Eta beste mordoska bat izen honen antzekoak.¹³

Lan jarraia izan zen, lan ugaria, bere ondorioak euskal poesian utzi zituenena, eta oraindik ere, gaur egunean nabarmentzen dena. Bide bat egin duen eskola; jende ikasia tartean indartsu agertzen dela, batez ere Larresoron ikasketak egina, erretorika ikasitakoak, karreradunak, –batez ere apaiz eta sendagileak–, tarteko dituen mugimendua. Bertsolariak ere aurkezten dira, agian hegoaldean baino landuagoak testu idatzietan, Etchaun, Oxalde eta Martin

⁸ P. Lafitte, “Les hexamètres de B. Borta (1854)”, “Fontes Linguae Vasconum”, 30 (1978), 493-515 or. Ikus geroago.

⁹ PU/KG, Oxalde, 63 or.; 64-65 or.; 142 or.; 143 or.; 231 or.; 300 or.; 329 or.; 427 or.. Etchaun, 75 or.; 424 or.. M. Halsouet, “Ttipi urruñarra”, 64 or.; 73 or.; 425-426 or.

¹⁰ Elissamburu, J.B., 107 or.; 162-163 or.; 189 or.; 191 or.; 218 or.; 219 or.; 242 or. Elissamburu, L., 82 or.; 95 or.; 114-115 or.; 115-116 or.; 174-175 or. Gratien Adema, “Zaldubi”, 71 or.; 76 or.; 139-140 or.; 140-141 or.; 230 or.; 230-231 or.; 240 or.; 244 or.; 265 or.; 268 or.; 269-270 or.; 354 or.; 354-355 or.; 388 or.; 421 or. M. Guilbeau, 127 or.; 137-138 or.; 155 or.; 156 or.; 199 or.; 200 or.; 264 or.; 425 or. J. B. Larralde, 92-93 or.; 132 or.; 136 or.; 183 or.; 183-184 or.; 184-185 or.; 194 or.; 196 or.; 201 or.; 213-214 or.; 215 or.; 427 or.

¹¹ KKK, Harluchi (DARRUPE), 29 or.

¹² B. CELABE, ikus PU/KG, 70 or. eta 422 or.

¹³ PU/KG, passim.

Halsouet “Ttipi Urruñarra” deiturikoa¹⁴, poeta ikasiekin batera aritzen zirelarik.

3. DOINU ETA NEURRIAK

Patri Urkizuren bilduman, Lezoko musikaria den Patxi Intxaurrendietak, “Zenbait aire” sailean, 74 doinu dakartza testuen lagungarri. Behin baino gehiagotan doinu bakarrez bertso-sorta bat baino gehiago aurkezten denez¹⁵, Patxi Intxaurrendieta iristen da 110etik gorako koblen kopurura doinuz apaintzera. Lautatik bat eta zerbait gehiago beraz. Kontuan izan, 400 direla Urkizuren bilduman aipatzen diren koplak-sailak, zail delarik aipatutako doinu guztien aztarrena ateratzea.

Guk ez daukagunez 400 kantuok aztertzen hasteko astirik, lagin batekin jokatzea baino ez dugu beste erremediorik. Uste dugu nahiko fidagarriak gerta litezkeela geuk ateratako ondorio teknikoak. Kopuru murriztaz baten-lautatik baten-idea nagusiak emango ditugu. Kantuen kopurua zabalago-eta bere osoan-hartzeak, xehetasun gehiagoko lana emango liguke; baina, funtsean, antzeko ideiak eta burubideak aterako genituzke, noski.

3.1. Nondik ateratako doinuak diren

3.1.1. Doinu herrikoiak. Herriko kantutegietatik ateratakoak, herriak gogoz bere oroitzapenean gordeak. Koroak -nahiz Urruñakoak, nahiz Sarakoak, nahiz bestetakoak- ezagutu eta bertako oroitzapenean gorde behar zituen kantuak, kantuen tradizio bizia jasoz. Hartzaileek ere zekizkiten eta gogoko zituzten doinuak.

3.1.2. Elizakoak. Liturgiako gorazarreak, hymnoak kantatzeko doinuak. “O luce qui mortalibus...”¹⁶. Bibliako pasarteak, adibidez “Super Flumina Babilonis”, Jean Duvoisinek ondua¹⁷. Deboziazko eliza-doinuak, Victor Eliçagaray’k erabili daitekeela adierazia: bertzenaz, Jesusen Bihotzaren kantuaren arabera “Coeur de Jesus”¹⁸. San Sulpizio kantuaren arabera: “O nous

¹⁴ P. Andiazabal, “Nor zen Ttipi urruñarra”, “Euskera” 37 (1992), 65-75 or.

¹⁵ P. Intxaurrendieta, “Zenbait aire”, PU/KG, 437-486 or.

¹⁶ PU/KG, 97 or.

¹⁷ PU/KG, 111 or.

¹⁸ PU/KG, 154 or.

dont les tendres ans etc.” hasten dena¹⁹. “Stabat Mater”, Ama Doloretakoaren kantua, Jean Duvoisinek ondua²⁰. Kantu paralelistikoak, “O filii et filiae” gorazarrearen arabera eginak, Jean Baptiste Darricarrèren eskutik²¹.

3.1.3. Folklorikoak. Jean Baptiste Elissamburuk erabili zuen “TAN TAN TAN (kadira dantza)”, “Bero deno burdina jo” kantuaren doinuan eta estiloan gauzatua:

“Tan, tan, tan, tan,
Rapataplan!
Hordi gira (bis).
Ez, ez gira (bis).
Basuak detzagun bira! (bis).
Johoho! johoho! johoho (bis).
Basuak detzagun bira” (bis)²²

Doinuak eta dantzak ezartzen dizkiote kantu berri honi bere onomatopeiak; errepikak ere tartekatzen dira ideia birresanez. Esaldi laburrak eta biribilak aukeratzen dira.

Leon Elissamburuk ere, “Dantzaria” izeneko kantuan, erabiltzen du “Orzirale arraxian Garruzetik yin ninduyan” izeneko doinua, eta tartekatzen ditu ohiko onomatopeiak, esaldi labur eta biribilak, erakargarriak osatuz:

“Hu-pa, muthilak lorian
Nola xoriak airean.
Heldu nauk zuen erdian,
Rau, riu, rau, rata-plau, rau, riu, rau
Heldu nauk zuen erdian,
Besta baitugu herrian”²³

Herriko bestak bere erritmoak ditu, bere onomatopeiak, bere deialdi ozenak. Eta kantuaren egiturak erakusten digu zein baliabide eta nola erantsi, festa giroa lor dezagun gure kantuzko kreazioan.

¹⁹ PU/KG, 125-126 or.

²⁰ PU/KG, 207 or.

²¹ PU/KG, 240 or.

²² PU/KG, 107 or.

²³ PU/KG, 164 or.

3.2. Estrofa deigarrienak

3.2.1. Patri Urkizuren xehetasunak

Patri Urkizuk ateratzen ditu 137 bertso-molde ezberdin bilduman, era honetara zenbait zehazketa eginez: molde txikikoak lau puntuz (13 A, A, A, A,) %17,75; molde txikikoak bi puntuz (13 A, A, B, B,) %8,75; gero aipatzen ditu molde handikoak, 4X (10-8a), %5,10; eta beste molde txikikoak 4X (7-6a), %5²⁴. Ez dakar beste aipamenik. Beraz, molde txikia har dezakegu erabiltzenetako delatua, kontuan izanik hor sartzen direla hamarreko txikiak, eta hamabiko txikiak ere.

3.2.2. Egitura luze eta plurirrimoak

Deigarri egin ohi dira horrelako kantuak, ez hainbeste hegoaldekoekin dauden ezberdintasunak nabarmentzeko, hegoaldean ere doinu luze eta puntu askokoak daudenez –adibidez bederatzita puntukoa, hain erabilia–; baizik eta estrofen luzaerak agertzen duen estiloa, kantuzkoa, abileziazkoa, puntu bakoitzak sententziario berriak dakartziena, ironia. Ikus ditzagun pare bat eredu:

a) Ikazketako mandoa

“Hauxe da ikazketako mandoaren traza: 12 (7+5)
lepoa mehe du eta ilea latza, 12 (7+5)
itxura gaitza; 5
bastape guzitikan zauriak baltsa, 12 (7+5)
Hauxe da saltsa! 5
Kristaurik ez daiteke aldetik pasa!” (bis) 12 (7+5)

b) Iduzki denean

“Iduzki denean, zoin den eder itzala! (6+7) (13)
Maitia, mintzo zira, plazer duzun bezala: (6+7) (13)
Egiten duzula (6)
mila disumula, (6)
iñorant zirela; (6)
erraiten duzula (6)
bertzetaik naizela, (6)
faltsuki mintzo zira” (7)

²⁴ PU/KG, 46 or.

Bi kantuok badatoz Patxi Intxaurrendietaren *Zenbat aire* eranskinean. Zazpi aldiz lehenengoa²⁵, behin bigarrenkoa²⁶. Sei puntu ditu lehenengoak, 8 bigarrenkoak; bost silabako bertso-lerro puntudunak lehenengoak; sei silabako bertso-lerro puntudunak bigarrenkoak eta gainera sei puntu errenko. Eta joera bera agertzen dute, perpaus laburrak eta ugari, beste kantu askok ere. Horrek erakusten digu erabat agintzen duela kantuak eta kantutegia dela sorta hau azken batean, ezagutzen ziren abestietan oinarritua. Beraz, doinuaren eta metrikaren mende zegoen kantugintza jakina da izan.

4. BESTE ZENBAIT ESTROFA BEREZI

4.1. Hamabiko txikia (Hego) sei puntuko txikia (Ifar)

Bertsolariek erabilia, hala nola Oxaldek²⁷ eta Martin Halsouetek, “Ttipi Urruñakoak”²⁸. Doinua, esan dugunaren arabera, ezaguna behar zuen izan orain dela mende eta erdiko urruñarrentzat: “Gaskoinaren kantuia”:

“Mila zortzi ehun eta / berrogoita hameka,
Urruñan gerthatu da / oraiko sujeta.
Pilota partida bat / izan da xarmanta
Xoria bezain arin / zabilan pilota,
Kaskoinak errefera, / Antziartzek bota,
Aisa irabazi dute / Espainolen kontra”²⁹ (Oxalde)

4.2. Puntu moldea

4.2.1. Zortzi puntukoa:

“Kantore berri batzu / nahi tut paratu,
sujeta zertaz den / orai deklaratu.
Gure eliza pesta / dugu zelebratu,

²⁵ PU/KG, 448 or.

²⁶ PU/KG, 448 or.

²⁷ PU/KG, ikus 9. oharra

²⁸ PU/KG, ikus 9. oharra

²⁹ PU/KG, 63 or.

Eginbide guziak / ederki konplitu:
 Pilotan jokatu
 Oneski dantzatu,
 Gostuz libertitu.
 Ez dut uste nehorri / zeukun dolutu”³⁰

4.2.2. Zazpi puntukoa:

“Tratu eder bat zauku / Lapurdin suertatu
 Zertaz den jakin nahi dugu / zuzen kondatu.
 Bi eskualdun baitira / elgarri juntatu,
 Eta abiatu
 Egitera tratu,
 Bai eta zerratu,
 Idi zaharra dute / mulan trukatu”³¹

Zortzi puntukoa ezaguna da hegoaldean. Zazpi puntukoa, ez da erabiltzen hegoaldean, baina Intxaurrendietak badakar doinua. Musika bai batak eta bai besteak, molde kiribilduak direnez, trebezia handia eskatzen dute; ironia eta *vis comica* bereziak berekin dituzten moldeak dira.

4.2.3. Estrofa gurutzatuak

Lauko batean horrelako egitura dute: lehenengo puntuak hirugarrenarekin errimatzen du eta bigarrenak laugarrenarekin:

“Lo-lo, nere mAitEA a (7)
 lo! Ni naiz zurEKIN b (6)
 Lo-lo, paregAbEA a (7)
 nigarrik ez EGIN. b (6)
 Goizegi da munduKO c (7)
 gelditzen baziRA d (6)
 nigarretan UrtzeKO c (7)
 baduzu denboRA” d (6)³²

Hegoaldean ia ez da erabiltzen horrelako estrofarik, baina bai ifarraldeko koplarien guduetan, batez ere eskolaturiko autoreen artean, hala nola J.B. Larralde, M. Guilbeau eta zenbait ikasien artean.

³⁰ PU/KG, 94 or.

³¹ PU/KG, 461 or.

³² PU/KG, 136 or.

4.2.4. Estrofa besarkatuak

Lauko batean egitura hau dute: errimatzen dute bigarren eta hirugarren bertso-lerroak alde batetik, eta lehenengoak eta laugarrenak bestetik:

“Erromanoak EuskaldunEn GIDAN 11a
estimutan begiak landaTU 10b
zituzten, zituelako fermuTU 11b
euskaldun berek gidak sEGIDAN” 10a³³.

Forma hau sonetoetan erabiltzen da bereziki, hamalaukoa lehen parteko idazkeran. Baina ez hainbeste koplarien guduetan, eta XIX. mendeko bigarren partean.

4.2.5. Molde bereziak

a) **Estiloagatik.** Hau da, genero komikoa garatzeko erabiltzen dituzten baliabide tekniko-literarioengatik. Adibidez, bertso-lerroen errepikak, onomatopeiak, hotsak, sorginkeriazko esaldiak:

“Joan nintzen merkatura
Ai, zer fortuna!
Espalakoin eroatera,
burriko baten saltzera.
Ahahat! Ene plazera!”³⁴

b) **Moldeagatik.** Idazle bereziek dituzten arazoen ondorio dela esan liteke. Zer esan handia duten autoreak dira eta nola esan ere badakitenak, idazle trebatuak direnez. Eta kulturaz maila aparta dutenez, zailtasunak dituzte beren mezua kantuz adierazteko. Molde bereziko kantuak osatzen ahalegin berezia eskaintzen digute. Hala da J. Duvoisinek Urruñan, 1858an, aurkeztu zuen kantata, “Erramu eta haritz”:

“Gernikako haritza,
Erronkalgo urritza,
neguan hostatu!
Ezpel eta erramu
gaur dira loratu!
Jauz zaizte,
boz zaizte,

³³ PU/KG, 133 or.

³⁴ PU/KG, 109 or.

euskaldun zaharrak,
bota irrintzinak!
Haritzari erramu
baizaio xertatu!”³⁵

Esan liteke, horrelako berrikuntzetan agertzen direla gaurko poesiaren zantzu eta arrastoak. Esanahia eta esan beharra: kultura, irudia, sentiberatasuna. Eta aldi berean, kantuaren parametroetan errendi ezina; molde bereziak asmatzeraino. Honelatsuko zantzuak nabari dira koplarien gudueta, artista jakinetan.

4.2.6. B. Bordaren hexametroak (1854)

Arreta berezia eskatzen digu poema-sorta honek. “Virgilioaren antzirudiara egina da, ez bakarrik gaietan eta estiloan, baizik eta bertso-neurkeran ere bai, latinezko klasikoetan kalkatua delarik”.

Bordaren prosodiaz mintzatzen delarik, P. Lafittek erakusten digu haren sistema: zein diren silaba luzeak eta zein motzak, nahiz eta beti ez den argi ikusten zergatik den motz eta ez luze. Eta alderantziz. Bestalde, metrikaz hitzegiten duelarik P. Lafittek aditzera ematen digu, silaba luzeen eta motzen konbinaketak egiten duela metrika, silaba horiei oinak deitzen diegularik. Bordak ez omen du hexametroak besterik erabiltzen:

NERE XARAMELARI

(*Labor omnia vincit*)

“Nere xaramelari jadanik zuk, andre pulita,
lehen erakatsi zenbait kantore diozu,
noizta artzain baten almenak eta noiz-ta laburzki
uso samur baten iritziak, lan ezta, bilduz...”³⁶

“Něřě xǎ | rǎmě ľǎ | řĩ ěǎďǎ | ńĩk zũk | ěndřě pũ | ľĩtǎ
[daktilo] [daktilo] [daktilo] [espondeo] [daktilo] [trokeo].

P. Lafittek B. Bordaren merituez mintzatzen zaigunean, hala bukatzen du: “Eragozpen guztiak gainditu ez baditu ere, gutxienez saiatu da eta erakutsi ere bai, luzaz gainera, euskara ez dela egina oinetan neurtzen den bertso-gintza osatzeko”.

³⁵ PU/KG, 113 or.

³⁶ PU/KG, 77 or., 1978.

Arazo zaila, askotan planteiatua; eta praktikoki soluziobide bat bilatzen zaiona. Honek erakusten digu maila ona erakutsi zuela B. Bordak, eta prestaketa ona ere bai, bere garaiko poeta askoren irudi goitiarraren adierazpide¹⁷.

5. ONDORIOAK

5.1. Berritze baten zantzuak. Hala ikus daiteke koplari guduak sorta ugariak uzten duen zantzua. Kantuaren bidez ondutako poemak direlarik, eta noizpait gaia ere emana izateak¹⁸, asko baldintzatzen ditu kalitatearen aldetik Anton Abbadiaren lehiaketak. Hala ere, bertso-moldeek erakusten dizkigute poesia berriago baten zantzuak, gerora garatuko zirenak.

5.2. Pierre Lafitteri omenaldia. Luosoko maisuari eskainiak ditugu jardunaldiok. Bertso-moldeaz delarik mintzaldi hau, Pierre Lafittek baditu bi lan teoriko argitaratuak, Oihenarten “L’art poétique basque” eta “Les hexamètres de B. Borde (1854)”, literaturaz aski jakingarriak eta guretzat erabakiortzat jo daitezkeenak¹⁹. Gero, aipatu nahi dut Ithurralderen poemategia, kaier modura 1932an argitaratua: “Ithurralden kantuak”, Baiona, 1932²⁰, non azaltzen baita metrika-arloaz duen ezagutza sakona, praktikoki ezagutuz koplarien guduetako poetak, eta aditzera emanez bere lanekin XX. mendeko eredu preziagarriak ifarraldean.

¹⁷ P. Lafitte, 1978. Ikus 8. oharra.

¹⁸ “Hamaika gai (pilota, emigrazioa, laborantza, emazte edalea, herriko besta, euskaldunen gauzarik maiteena, Euskal Herriaren batasuna, Euskal Herriko historia, Madalena Larralde...”, PU/KG, 46 or.

¹⁹ P. Lafitte, “L’art poétique basque. (Un inédit d’Arnaud d’Oyhénart)”, *Gure Herria*, 39 (1967), 193-230 or.

²⁰ P. Lafitte, “Ithurralden kantuak”, Baiona, 1932.

BIZENTA MOGEL (1782-1854), EDO EUSKAL TRADIZIO LITERARIO ANDROZENTRIKOA PITZATU ZENEKOA

M. J. Olaziregi

EUSKAL HISTORIOGRAFIA BERRI BATEN BEHARRAZ

Lafitteren omenaldi honetarako Bizenta Antonia Mogelen ekarpen literarioaz hitz egitea bururatu zitzaidanean, betidanik errepikatu eta deitoratu dugun errealitatearen oinarrian dauden arrazoiak argitzea nuen helburu. Errealitate hori, noski, emakumezko idazleek euskal literaturaren historian izan duten urritasunarekin eta presentzia guztiz marjinalarekin zegoen lotuta. Jakina denez, euskal literatur tradizio hegemonikoa, hau da, euskal literatur instituzioak balekoa kontsideratu duena, gizonezkoek idatzitakoa izan da, eta Teoria Sistemikoen jarraitzaileek esango luketen moduan, sistemaren guneeetatik kanpo, hau da, periferietan kokatu da emakumezkoen ekarpen literarioa.

Azken urteetan egin diren zenbait lanek birritan deitoratu duten egia hori onartu ondoren (ikus, besteak beste, Linda White (1996); Gabilondo, J. (1998); Olaziregi, M.J. (1999); Nuñez Betelu, M. (2001)), pixka bat haratago joan nahiko genuke eta euskal literaturaren historian emakumezkoak ez direla existitu baieztatu. Probokatzailerak dirudien arren, baieztapen honekin ez dugu euskal emakumezko idazleen lanei buruzko ikerketa sinkroniko nahiz diakronikoen eskasia bakarrik salatzen, euren literatur lanek euskal literaturaren bilakaera orokorrari egindako ekarpen eskasa baizik. Eskasa diogu, ez derrigorrez euren lanen balio literarioa gutxiesten dugulako, euskal literatura historiagileek inflexio puntu gisara kontsideratu ez dituztelako baizik. Ikuspuntu literario hertsia batetik, interes handiagoa du, ezbairik gabe, *Ipui onaken* argitalpenak euskal literaturaren historian etengabe errepikatu eta aztertu diren hain-

bat katixima eta eliz liburuk baino. I. Sarasolak (1976:183) aspaldian argitara emandako datuak gogoratuz, 1545etik 1879ra argitara eman ziren 101 liburutatik lau bakarrik badira hertsiki literarioak, ez da inondik ere ulertzen, mugak muga eta arazoak arazo, Bizentaren lanaren inguruko azterketa urritasuna (azken urteotan X. Altzibarri esker nolabait konpondu dena); are gutxiago lan horrek gure literaturaren bilakaeran izan zuen lekuaren inguruko gogoetarik eza. Gure aburuz, bada garaia euskal literatura klasikoa deritzoguna, hau da, modernitate aurrekoa, berrirakurri eta irizpide literarioz berreskuratzekoa. Orain artean erabili izan diren irizpide filologikoez haratago, parametro kritiko gaurkotu eta onartuez begiratu beharko genieke iraganeko ekarpen literarioei.

Edonola ere, kontu hau ez da, inondik ere, berria gurean. Aspalditik entzun dira literaturaren historiografia berri baten aldeko aldarriak eta honi dagokionez, bada garaia elkarren ondoren zerrendatzen diren autoreen inguruko erreferentziak gainditu eta irakurketa zabalagoak proposatzekoa. Beharrezko dugun historiografia honek literatur sistemako elementu desberdinen (sortzaile, bitartekari, birsortzaile, hartzaile) bilakaera eta aldaketa-joe-rak baldintzatzen eta eragiten dituzten legeen araberrako diagnostikoak burutu beharko lituzke. Beste hitzetan esateko, aipagai dugun historiografiak euskal literatur sistemak euskal gizartearen bilakaeran izan duen lekua kokatu beharko luke.

Modu honetan ulertuta, literatur lanen irakurketa kritiko-historikoaz gain, euren sortu eta irakurri ziren testuinguruei erreferentzia egin beharko genieke, hau da, literatura bera testuinguru batean kokatzen ahalegindu beharko genuke. Eta halaxe egiten dute, hastapenetako *New Criticism* iparramerikarra gaindituz edo linguistikan testuinguru kontzeptuak izan dituen zehaztapen desberdinak egokituz, literatur teorian Pragmatikaren eta Historizismo Berriaren ekarpenak bereganatu dituztenek. Beraz, “Testuak idatziak eta irakurriak izan diren testuinguruak” (ik. Rylance, R. & Simons, J.: 2001) aztertzeak, besteren artean, honako alderdiok kontuan hartzea esan nahiko luke:

- Literatur lana kaleratu zen testuinguru historiko, politiko, soziala eta kulturala.
- Egilearen testuinguru biografikoa.
- Testu baten pasarte batek testu osoarekin edo egilearen obra osoarekin izan dezakeen erlazioa.
- Egile beraren beste lanekin duen testuartekotasuna (intertestualitatea).
- Garai, Poetika edo Genero literarioek zehazten duten testuingurua.
- Literatur lanaren harrera-testuingurua.
- Literatur lanaren azterketa estilistikoa garaiko joeren argitan.

Orain arteko zehaztapen guztiokin, Bizenta Mogelen lana aztertzeko erabiliko dugun prozedura argitu nahi genuen. Ikusiko dugunez, Bizentaren lanak orain artean izan duena baino arreta handiagoa merezi du, ez bakarrik XIX. mendean argitara eman ziren hainbat alegia-libururen erreferentzia bihurtu zelako, baita euskarazko haur eta gazte literaturari hasiera eman ziolako ere. Emakume batek bere garaian zituen muga eta ostopoak gaindituz, euskal literatur tradizio androzentrikoan pitzadura bat ireki zuen. Hortaz, hauxek izango dira gaurkoan gure solasaren helburu eta mugak: Bizenta Mogelen, eta batez ere, 1804ko bere *Ipui onaken* testuinguru sozioliterarioa aztertzea. Ondoko lerroetan ikusiko denez, salbuespen gisara aurkezten zaigun emakume idazle honen lanean, bere familiako giroa, emakumezkoak XVIII. mendean bizi zuen egoera larri eta zaila, euskal gizarte katoliko heretsiak ezarritako mugak, garaiko joera poetikoak... iragazten dira. Guztiaren osagarri, euskal kritikak eta historiografiak proposatu dizkigun irakurketak, hau da, harrera literarioa, baloratu eta kritikatuko dugu eta bere lanen ekarpena berretsiko.

BARKATUTA ZAUDE, BIZENTA

Koldo Mitxelenak dioskunez (1988:116), Bizenta Mogel “emakume ezohiki argia” izan zen (“mujer excepcionalmente despejada”). Ez dakigu inteligentzia hutsa izan zen Mitxelena harritu zuena edo, emakume izanez, hain inteligentea izatea (!). Argi dagoen gauza bakarra, garaiko emakumezkoen heziketa-mailarekin konparatuta, Bizentak erdietsitakoa nabarmen handiagoa izan zela, eta bera dugula, gainera, liburu baten egile gisara azaltzen zaigun lehenengo euskal emakumea, hogeita bi urteko emakume gaztea, hain justu, 1804an *Ipui onak* kaleratu zuenean.

Eta gertakizun honek, alegia, garai hartan idazle gisara aurkeztu izanak, badu benetako garrantzia, urte haietan emakume askok egin zutenaren kontra (hortxe dauzkagu, George Eliot, George Sand eta, beste batzuekin batera, Brönte ahizpak, 1846an poema-liburu bat ezizen batekin kaleratu behar izan zutenak) Bizenta bere izenarekin sinatzen ausartu zelako. V. Woolf harritu egiten bazen XVIII. mendea baino lehenagoko emakume idazlerik ezagutzen ez zuelako (ik. *Norberaren gela*), euskal kasuan berritasuna handiagoa zen, XV. mendean eresi desberdinen egile gisara azaltzen diren emakumezkoek gain (Milia Lasturko, Sancha Hortiz ...), Bizenta izan zelako denboran hurrengo emakumezko idazlea. Horregatik eskatzen du, ia, barkazioa liburuaren hitzaurrean, Bizenta jakitun delako emakumezko batek liburu bat argitaratzeak

zekarren berritasunaz. Modu honetan jokatzuz, balizko hartzaileen onarpena bilatu nahi du eta bere "ausardia" nolabait ulertarazi. Finean, garaiko alfabetatze-mailak ikusita, argidago hartzaile potentzialok gizonaizkoak izango zirela nagusiki eta horien harridurari (igurikimen horizonteari, esango lukete Harrera Estetikaren jarraitzaileek) egin behar ziola aurre:

Badakit, enzunaz beste gabe, neskatz gazte baten izena dagoala itxatsirik liburutxo onen aurkean, jardungo dutela siñuka ez gutxi, diotela beren artean, iñoren lumaz janzi nai duela bela-txikiak; au da, besteren bearrak artu nahi ditudala neretzat; dagokiola neskatz bati bururik ausitzea liburugiñen: asko duela gorua, naiz jostorratza zuzen erabiltzea. Nola nik siniserazoko diet askori, euskeratu ditudala erdarldun jakitunak argitaratu dituzten Ipuiak? Nolako arrotasuna berriz latinezko itzkuntzarekin liburu onen asmoa agertzea? Orretarako bear litzake jakitea euskera, gaztelania eta latinezko iru izkuntzak. Zein gauza sinisgaitza neskatz batengan!. (Mogel, B.A., 1991:27¹)

Kezkatuta azaltzen zaigu Bizenta, kezkatuta, irakurlea inoren lanaz baliatu dela pentsa ez dezan; kezkatuta, neskatz bati ez zegozkion lanetan sartua zelako. Bien oinarrian lotsa eta beldurra badaude ere, urrun daude kezkok bere eskuizkribua ezkutarazten buruhauste franko izan zituen Jane Austenekin, azken batean, *Harrotasuna eta Aurrejuzkuak* eleberraren egilea idatzitako istorioaren indar erromantikoaz kezkatzen baitzen, ez argitaratze-ra ausartu izanaz.

Edonola ere, bere izena darabil Bizentak liburuaren azalean eta horrela jokatzeko arrazoiaren artean (Bizentaren beraren izaera, egindako lanari zegokion onarpena...) badago bat, inondik ere, ahaztu ezin duguna: Bizenta, ezer baino lehen, mogeldarra zela, euskal literaturaren historian bere leku kanonikoak² duen Juan Antonio Mogelen iloba. Osaba da, hain justu, Bizentak *Ipuinaken* hitzaurreko bigarren paragrafoan aipatzen duena:

¹ Hemendik aurrera, *Ipuinaken* liburuari egingo dizkiogun erreferentzia guztiak 1991n Euskal Editoreen Elkarteak argitaratutako emandako edizioari dagozkie. Ikus: Mogel, Bizenta Antonia, *Ipuinaken*, Donostia, Euskal Editoreen Elkarte, 1991.

² Juan Antonio Mogelen *Ipuinaken* 1995eko edizioaren hitzaurre gisara datorren aurkezpenan (ik. "Berba aurrekoa"), Jean Haritschelharrek Unamunoren baieztapenak gogoratzen ditu, zeinen arabera, "*Peru Abarka* egundaino idatzi den libururik edo behintzat nobelarik onena den". Euskal literaturari gagozkolarik (literatura unibertsalaz aritzea pentsaezina baita), lausengu gehiegizkoak, dudarik gabe, Unamunorenak.

“Naiz sinistu, naiz ez, esan behar det, gaztetxo nintzala irakurri ta azaldu oi nituela Fedroren latiñezko ipuiak; artu oi nuela atsegin guziz andia enzunaz txakur, otso, aizeri, ollar... abere, lauoñeko, ta egaztien itzketa alkarren artekoak. Zortzi urte nituencan ekusirik nere neba edo anaia ikasten asi zala gure osabarekin latiñezko izkerea, jarri zitzatan buruan ikasi behar nuela nik ere.” (Mogel, B.A., 1991:27-28).

Ezin argigarriagoa da Bizentaren solasa: osaba izan zuen maisu, etxean ikasi zuen eta bere irakurketak egile klasikoan lanenak izan ziren, Virgilioz gain, alegiagile ezagunak ziren Esopo eta Fedroren lanak irakurri zituen txikitatik Bizentak.

JUAN ANTONIO MOGEL EN ITZALA BIZENTARENGAN

Mogeldarrei buruzko informazio eta ikerketa-lan osatuenak, Xabier Altzibarri zor dizkiogu. 1982an Bizenta Mogelen jaiotzaren bigarren mendurrena zela-eta Euskaltzaindiak egindako omenaldian aurkeztu zuen ikerlanaz gain (ik. “Bizenta Antonia Mogelen biziaz eta lanaz zenbait argibide”, *Euskera* XVII, 1982, 457-496), besteak beste, bere doktorego-tesiaren fruitu oparoa den *Bizkaierazko idazle klasikoak: Mogeldarrak, Astarloatarrak, Frai Bartolome: nortasuna, idazlanak, grafiak* (Bilbo, Bizkaiko Foru Aldundia, 1992) liburua aipa genezake, edo Juan Antonio Mogelen alegiak biltzen dituen *Ipuinak* izeneko liburuaren edizioa (Bilbo, Labayru-BBK-Eibarko Udala-Markina-Xemeningo Udala, 1995). Guztietan, mogeldarren inguruko datu ugari ematen du ikerlari markinarrak eta eskuizkribu desberdinak zehaztasunez deskribatzen.

Altzibarren ikerketa guztiotatik ondoriotu dezakegunez, mogeldarren artean Bizentaren bizitzari buruzko datuak dira ezezagunenak. Horretaz gainera, emakumezko idazleez mintzo garenean, askotan gertatu ohi den modura, Bizentaren izena bi gizonezkoren izenari lotuta azaltzen da: batetik, Juan Antonio Mogeli, aita hil zitzaionean Bizentaren heziketak arduratu zen idazle eta osaba ezagunari; bestetik, Eleuterio Basozabali, merkataria euskaltzalea eta Bizentaren senarra izango zenari. Eleuterioren aitaren inprentan argitaratu ziren J.A. Mogelen zenbait lan eta E. Basozabalenak dira, halaber, *Peru Abarkaren* kopia bat, zeinetan markinarraren ipuin-alegiak ere azaltzen ziren. Dakusagunez, noren iloba edo noren emaztea izan zen adierazten da Bizentaren kasuan ere, bien artean, ezberrik gabe, osabari egindako erreferentziak badute ere garrantzirik handiena.

Esandakoaz gain, Bizentaren famili ingurunea osatzeko, badira garrantzitsuak suertatzen diren beste datu batzuk. Esaterako, Mogeldarrak mediku eta apaizez osatutako familia izan zirela (Bizentaren ahizpa bat moja izan zen eta bere neba bakarra, Juan Jose Mogel idazlea, apaiza); ilustrazioa maite zutela (Astarloa bezala, J.A. Mogel ere Adiskideen Batzarreko kide izan zen) eta miresten zutela Adiskideen Batzarreko sortzailea eta lehendakaria izan zen Xabier Munibe, Peñafloardako Kontea (haren ilobari dedikatzen dio Bizentak *Ipui onak* liburua). Horretaz guztiaz gain, euskaltzaleak eta tradizionalistak gisara defini ditzakegu: *Peru Abarkaren* oinarrian ideologia atzerakoia bada go (baserritarren hizkuntza eta bizimodua eredugarritzat hartzen da euskaldun guztientzat. Ik. Sarasola, I.:1976:61), oroit dezagun Juan Jose, Bizentaren neba, Bizkaiko Aldundi Karlistan Diputatu Nagusi izan zela 1834-1837 urtetan. 34 urterekin Bilbora ezkondu ondoren, Bizkaiko Aldundian itzultzaile gisara aritu zen Bizenta eta Abandoko Ulibarrirekin San Fraiskuko gabon kantak ontzen. Orobat, Altzibarrek oroitarazi digunez, Bilbo aldean sasimediku gisa ere ospetsua izan omen zen. Bere argitalpenak honako zerrenda honetan laburbilduko genituzke: 1804an argitara eman zuen *Ipui onak* alegialiburuaz gain, 1820an itzuli zuen Luis Borbon Toledoko artzapezpikuaren gutuna, edo Bizentari egotzen zaizkion gabon kantak (ik., Altzibar, X.: 1982).

Esan daiteke ezohiko bizitza-baldintzak izan zituela Bizentak eta horri esker lortu ahal izan zuela maisu klasikoei buruzko informazio oparoa (besteak beste, Virgilio, Esopo edo Fedro), eta latina, frantsesa nahiz gaztelania ikastea. Esandakoez gain, Bizentaren zenbait irakurketaren berri ere izan dugu, hala nola, M. Rollin-en *The Method of teaching and studying the Belles Lettres, or An Introduction to Languages, Poetry, Rhetoric, History, Moral, Philosophy* (1773) liburuarena³. J. Garatek bere *La época de P. Astarloa y J.A. Moguel* liburu ezagunean dioskunez (aip. Altzibar: 1982), Bizkaiko Diputazioan zegoen M. Rollinen alea Bizentarena bide zen eta liburua aztertu besterik ez dago Bizentak jaso ahal izan zuen heziketaren berri izateko. Parisko Unibertsitateko errektore ohi izandakoa zen M. Rollin jaunak heziketaren onurak frogatu nahi izan zituen bere lan horrekin eta hasieratik argi utzi zuen zeintzuk ziren bere ahaleginaren helburu nagusiak: gazteen izpiritua heztea, jokabide eta ohitura "egokiak" irakastea eta erlijioaren inguruko eza-gutza egokia bermatzea. Horretarako, bere obra sei ataletan banatu zuen eta garaiko gazteentzat egokiak ziren arloak hurrenez-hurren landu: Gramatika (frantsesa, latina, grekoa); Poesia (Zizeron, Homero, Virgilio); Erretorika;

³ M. Rollin-en liburuaren jatorrizko izenburua honako hau izango litzateke: *De la manière d'enseigner et d'étudier les Belles Lettres*, 2 vol. Paris, Chez la Veuve Estienne, 1740.

Historia; Filosofia eta Gazteen Hezkuntzarako Aholkuak. Guztiaren osagarrri, emakumezkoen heziketan kontuan hartzeko alderdiak argi utzi nahi izan zituen Rolinek. Bere aburuz, komenigarria zen emakumezkoei latina irakastea, baita irakurtzen eta idazten irakastea ere. Horiekin batera, aritmetika, poesia, musika eta dantza kontsideratzen zituen emakumezkoaren heziketaren oinarri. Rollinek aholkatzen zituen irakurketa eta jardueren artean, literatura klasikoaren eta Racine-ren testuen irakurketak, historia-liburuaren azterketak (Historia Santua, Frantziakoa, mundu klasikoari dagokiona) edo eskulanean trebakuntza (jostea, brodatzea...) ziren aipagarrienak. Ezin esan Rollinen liburuaren azterketak Bizentaren ezagutza eta jakituriak argibiderik ematen ez digunik, egileaz daukagun informazio urria osatzeko eta bizi izan zuen giroaren irudi bat egiteko lagungarri suertatzen baita.

Beraz, esan daiteke ezohikoa izan zela Bizentak jaso zuen heziketa, XVIII. eta XIX. mendeko alfabetatze-tasak ikusiz gero, emakumezkoen gehiago nabarmena alfabetatu gabea zela jakina delako. P. Dávila eta A. Eizagirrek (1992) eskaintzen dizkiguten datuen arabera, 1816-1820 artean emakumezkoen % 13k zekien sinatzen iparraldean; hegoaldeari dagokionez, berriz, 1835-1860 urteetan, Antzinako Erregimenean gertatzen zenaren ildotik, emakumezko gehienak erdi alfabetatuak ziren, alegia, irakurtzen bazekiten baina idazten ez. Oro har, emakumezkoen % 15 bakarrik zen alfabetatua. Honako hau eranstu du P. Dávilak (1988) garai hari buruz: Adiskideen Batzarrak eta Bergarako Mintegiak ez zuela emakumezkoen alfabetatze mailan eragin handiegirik izan⁴, eta aurreko mendean bezala, emakumezkoak etxean edo komentuetan jarraitu zutela heziak izaten. Esparru pribatu horiek, gehienetan, ezkontzaren bidez soilik gaintitzen zituzten⁵, eta honi dagokionez ere, Bizentaren kasua ezin esan berezia ez denik: lehen esan bezala, 34 urterekin ezkondu zen, garai hartako emakume batentzat, berandu, emakumezkoen % 61 hogeita bost urte bete baino lehenago ezkondata baitzegoen XIX. mendearen lehenengo erdian.

Alabaina, familiaren egoera ekonomiko ona, Ilustrazioarekiko lilura, ezkontza berantiarra, lehenengo euskal emakume idazle honengan bildu ziren baldintza biografiko onuragarriak badira ere, bada hirugarren alderdi bat V.

⁴ Pentsamendu ilustratuak, berez, ez zuen emakumezkoaren heziketa gizonezkoarenaren parean jarri inoiz. Hona zer dioen C. Martín Gaitek (1981:263):

“En cuanto a la importancia que se le daba al detalle de que las mujeres volvieran a amamantar a sus propios hijos, costumbre que se había perdido un tanto en el XVIII, es tanta que deja bien patente la subconsciente relación entre maternidad y educación femenina que latía en el fondo del pensamiento ilustrado”.

⁵ Edo ihes eginez, Catalina Erausoren antzera.

Woolfek ere XIX. mendeko idazle ingelesez egiten duen diagnostikoan azpimarratzen duena (ik. *Norberaren gela*): amatasunari uko egin izana. Aurreko mendeekin konparatuz, XVIII-XIX. mendeetan emakumezkoarentzat gertatzen den aldaketa funtsezkoenetakoa “maitasun maternalaren” asmakuntzarena da. XIX. mendetik aurrera, batez ere Eliza katolikoaren eraginez, haurra-zen heziketa amaren esku geratuko da eta bera bihurtuko familiaren moral erdugarriaren zaintzaile eta bermatzaile. Ama entregatuari, etxe barruan haurrak hezten zituen emakumearen zamari ihes egin zion Bizentak eta segur aski, horregatik jarraituko zuen ezkondu ondoren ere testuak ere argitara ematen.

“EMAKUMEZKOEK GUTXI IRAKURRI BEHAR DUTE ETA, IRAKURTZEKOTAN, TESTU EGOKIAK SOILIK”

G. Duby eta M. Perrot-en (1993) liburu ezagunean jasotzen da baieztapen hori. Orain artean esan dugunarekin besterik pentsa badaiteke ere, heziketa-maila duina lortu zuten emakumezkoek ere muga ugari izan zituzten gizartean era buruaskian jarduteko XVIII-XIX. mendeetan. Horretaz mintzatuko gara jarraian eta, lehenengo, euskal emakumezkoek Erregimen Zaharrean izan zituzten murrizpenei erreferentzia eginez hasi beharko genuke, ikusiko dugun modura, Trentoko Kontzilioaren ostean, emakumeen kontrako erasoaldi bortitzari eman baitzitzaion hasiera Euskal Herrian. Lola Valverderen hitzetan (1988:45):

“Podemos decir que desde 1545, Trento, asistimos a una ofensiva en regla contra las mujeres en cuanto portadoras de la tentación. Estado e Iglesia tratan de controlarlas y reprimirlas”.

Valverderen ikerketan hainbat datu ematen dira Erregimen Zaharrean euskal emakumezkoak zuen egoerari buruz. Batetik, emakumea, ezer baino lehen, gauza gisara kontsideratzen zela, gizonezkoek (aita, senarra) “eduki” zezaketen objektu bezala. Fisikoki nahiz intelektualki gutxietsiak, izaki arriskutsuak kontsideratzen ziren, gizonezkoa tentatu eta galbidean jar zezaketen neurrian. Berebat, XVII. mendean edo XVIII.ean posible bazen ere alaba bat oinordeko izatea, normalean egoera hori saihestu egiten zen, eta beste aukerarik ez zegoen kasuetan soilik ematen zen. Emakumezkoak izan zitzakeen “lanen” artean, nekazari, inude, emagin edo serorarena aipa genitzake, baina berez, ezkondata bazegoen, senarraren esku geratzen ziren bere ondasun guztien administrazioa eta erabilpen-eskubidea. Bizentaren kasuan ere, senarra hil zitzaionean, ondorengorik ez zuenez, koinata baten semearen eskuetara joan

ziren Eleuterioren ondasunak. Hil baino bi urte lehenago soilik lortu zuen Bizentak, auzitan ibili ondoren, ezkontzara eraman zuen dotea eta senarrak emana (81000 erreale gutzira) berreskuratzea (ik. Altzibar, X., 1982:461). XIX. mendean oso berandu arte, feminismoaren hastapenen mendea ere kontsideratzen den horretan, emakumeari ukatu egiten zitzaion subjektu izaera edo bere soldata libreki erabiltzeko aukera. Arlo guztietako berdintasun politikoa zen, finean, emakumezkoari ukatzen zitzaiona.

Trentoko Kontzilioaren ostean, ezkontza klandestinoak edo jaiotza ez-legitimoak desagertuz joan ziren Euskal Herrian eta emakumezkoarekiko presio eta bidegabekeriak hedatzen. Edozein delitu, adulterioarena, kasu, irizpide oso desberdinez juzkatzen ziren sexuen arabera, eta bekatu bidetik babestu eta atera beharreko izaki ahul baina arriskutsu gisara ikusten ziren emakumezkoak. Aspaldian azpimarratu zituen K. Mitxelenak (1988:61) Trentoko Kontzilioak bizitzaren arlo guztietan Euskal Herrian izan zituen eragin funtsezkoak. Batetik, "euskaldun=fededun" berdintasuna finkatu zen orduan; bestetik, bereziki sexuari dagokionez, zentsura eta kontrol izugarriak nagusitu ziren. Mitxelenaren diagnostiko zehatzari gauza bat bakarrik gehitzea falta zaio: emakumezkoak izan zirela, ezbairik gabe, erlijio itsukeria hori gehien pairatu zutenak eta, ondorioz, ulergarria dela euskal literaturaren historian hain emakumezko gutxi egotea.

Herrialde protestanteetan, berriz, zentsurak zentsura, emakumezkoaren heziketari aukera gehiago eman zitzaizkion eta berdintasun politikoa lehenago iritsi zen herrialde katolikoetan baino (ik. DUBY, G. & M. PERROT, op. cit.). Horrek eta, beste arrazoi batzuen artean, irakurketa desberdinak egiteko izan zuten askatasun handiagoak⁶, esprikatuko luke zenbait literatur generotan, eleberrian, kasu, emakumezkoek Europako herrialde protestante batzuetan XVIII-XIX. mendeetan egin zituzten ekarpen funtsezkoak. Eta irakurketa kontuak aipatu baditugu, atal honi jartzen genion izenburura itzuli nahi dugulako izan da: herrialde katolikoetan (Frantzian eta Italian bildu diren lekukotzak guztiz argigarriak dira zentzu honetan) buruhauste bat baino gehiago eragin zuten emakumezkoek irakurtzen zituzten amodiozko eleberrien ondorio kaltegarriek. *Madame Bovary*ren kasua guztiz paradigmatikoa genuke zentzu honetan: Flauberten eleberri bikainean etengabe azpimarratzen da Emmaren irakurketa erromantikoek bere izaeran izan zuten eragin "suntsiga-

⁶ Estatu espainiarrean ere, irakurketa-kontuek izugarri kezkatzen zituzten agintariak eta hori dela-eta, emakumezkoek debekatua izan zuten XVIII. mendean Erret Liburutegira sartzea. Bestelako egoera, ezbairik gabe, 1790ean Erresuma Batuan bere aldarri ezaguna kaleratu zuen Mary Wollstonecraft-ena.

ria”. Horregatik egiten du Emmak bere buruaz beste eleberriaren amaieran, emakume adulteriogileak protagonista dituzten beste lan ezagunetan bezala (*Ana Karenina*, *Basilio nire lehengusua*, *La Regenta*), gizartearen arau matxistak apurtzen dituzten pertsonaia horiek gaizki bukatzen zutela frogatu behar zelako (ik. Ciplijauskaité, B.: 1988).

Bizentarengana itzuliz, argi dago bere irakurketak garaian zuzentzat jotzen zirenak zirela: lehenago aipatu ditugun idazle klasikoak maite zituen eta “ondorio onik ez zekarten [tradiziozko herri] ipuin eroak” gorrotatzen (Mogel, B.A., 1991:28). Baina irakurriz eta idatziz, hau da, emakume batengan berez gaizki ikusita zeuden ekintzak eginez, bizitza bertuosoa zen bilatzen zuena Bizentak: hitzaurrean aipatzen dituen santu izandako emakume askoren antzera, bertutetsuago izateko bidetzat baitzekusan jakituria (Mogel, B.A., 1991:32). Azpimarragarria da, guztiz, tradiziozko herri ipuinekiko erakusten duen distantzia eta zaletasunik eza. Gogora dezagun, jokabide moralen kontrol bortitza zegoen mende haietan, herri literatura izan zela zentsurari ihes egiten zion adierazpide bakarrenetakoa⁷. Herri literaturako hainbat generotan sexuak eta sexu-griniek duten presentzia esplizitua “lohiegia” irudituko zitzaion heziketa katoliko hertsia jasotako Bizenta bezalako emakume bati.

Eta berriro ere J. A. Mogelengana itzuli behar ditugu begiak, Bizentari heziketa eman zionak beldur baitzion “gehiegizko” instrukzioak emakumeari ekar diezaiokeen kalteari. Munibetarren adiskide eta Madrileko Historia Akademiako zuzendaria zen Vargas Ponce jaunak ere aurpegiratu zion J.A. Mogeli bere ilobari ez ziola behar bezala lagundu:

Vargas Ponce:

“Tolere Vm que salude a su bien aprovechada amanuense. ¿Por qué cortar los vuelos a esa águila? Créame y dé pábulo a esa llama tan brillante. Los espíritus privilegiados no se deben conducir por donde el común y aprovechése VM de mi sermón amén.” (aip. Altzibar, X., 1982:458)

J.A. Mogel:

“He de confesar mi ierro, o acierto, en no haver fomentado más los estudios de mi sobrina. La singularidad y genio de una muger me hicieron temer alguna altanería de espíritu. Las Gergas simulistas las

⁷ Tradiziozko herri ipuinen irakurketa psikoanalitiko, soziologiko, historiko... interesgarrien berri V. Pisantyk ematen du bere *Cómo se lee un cuento popular* liburuan (Bartzelona, Paidós, 1995).

entendia: formulaba sus argumentos arreglados. Conocía los silogismos en sus figuras, resumía muy bien, y se conocía su mucho talento.”

“Paré en esto por cobardía, o por temor. Podría haberla instruido algo en Física, pero no soy mathematico. (...) En cuanto a la inteligencia gramatical del Bascuence, apuesto a que en toda Vizcaya no hay solo (dexo a Astarloa) que sepa mejor las inflexiones multiplicadas de los verbos.” (aip. Altzibar, X., 1982:458-459)

Aurreko paragrafoetatik datu interesgarriak eskura ditzakegu J.A. Mogelen kezken inguruan. Euskal literaturaren historia gehienetan gizon on, errukior eta jakintsu gisara aurkezten zaigun hau, biziki kezkatuta zegoen bere eliztarren jokabide moralaz, baina batez ere, emakumezkoenaz. Altzibarrek oroitarazten digunez (1995), Etxabarrin arimazain izan zen urteetan, hau da, 30-35 urte zituenean, Inkisizioak epaitu eta zigortu egin zuen beata batengan konfiantza gehiegi jarri eta zenbait neska gazteren gidaritza izpiritualan erakutsitako indiskrezioagatik. Epaiilek “liluratu eta liluratzailer, harro eta buruiriztizat” jo eta konfesatzeko baimena kendu zioten. Hala ere, hori ez zen oztopo izan, urte batzuk beranduago, 1792an eta 1784an, Inkisizioan salatari eta liburu ikuskatzaile lanetan aritzeko⁸.

Esan daiteke, onerako eta txarrerako, mogeldarren moral katoliko zorrotzean hezia izan zela Bizenta eta, ingurune horretan, lehenago esan dugun bezala, emakumezko oro paradisuko Eva bekatariaren ondorengo ikusten zen. Ez gara gehiegi luzatuko honetan, izan ere, erraza, *errazegia* baita diogunaren lekukotzak topatzea, ez bakarrik J.A. Mogelen adiskide izan zen

⁸ J. A. Mogelen obsesio eta joerei buruz, oso argigarria da X. Altzibarrek dakarren pasarte hau (1992:144):

“Juan Antonio Mogelen autobiografia izpirituala ezagutzeko ezin utzizkoa dugu Mertzedeke komentuan sartu zen dama gazte baten biziaz 1797ko urtarrilaren 15a eta 1798ko maiatza bitartean idatzi zuen obra: *Vida Edificante de la sierva de Jesus Sor Doña María Ignacia de Santa María Magdalena, y Ubilla, Religiosa Profesora y de Cor oen el Convento de las Mercedarias de Marquina*.

(...) Liburuska honetan M^a Ignazia Ubilla Markinako handiki baten alabaren gazte denborako ibilera, onera bihurtzea (1788an gertatua), erlijioan sartzea (1790ean) eta hil arteko bizia kontatzen dira. Obraren zati bat onbideratzearen historia da, Maria Ignazia-k berak idatzi eta Mogel-ek hitzez hitz kopiaua. (...) Egilea andrezkoei bereziki zuzentzen zaie, batez ere inon diren txorakeria guztietan omen dabilzan damei. Gogora bedi Juan Antonio Mogel emakumeen instrukzioaz eta beraien bizitza idatz zezaten arduraz zebilela Inkisizioak epaitu aldian ere, eta hona hemen emakume bat onbidean bere bizia idazten. Joera honi dagokionez, Mogelek maisu gisa aipatzen duen (...) Luis Vives-en eragina nabari zaio, *Instrucción de la mujer cristiana* liburuarena, alegia. Gainera, ikuste, agerpen eta iragarpenetan ba omen da zerbait egia”.

Juan Bautista Agirre Asteasukoaren zenbait pasarte ezagun gogoratuz⁹, baita J. A. Mogelen beraren erlijio irakaskuntzarako liburuetan ere, *El Catequista Bascongado-Cristau Eracasle Euscalduna* izenekoan bezala:

“Ematen ere dute escandaloa nescach ez guchic beren arpegui ta beguietaco ascatusan, ta lotsa gabeaz. Icusico dituzu oen artecoac saltoca, deadarca, ta guizasemeai mocorcadacac ematen, tenta ditzen asmoz, edo igarri bearrean mutillac elduco diela. Eta cer besteric nai dute? Eztira aizartzen, eguia da, mutil gaiztoac bezala musuac ematera, guizon gauzari escuac egoztera, aitatu behar ez diran toquietara; baña ezarian, edo ecer eguiten ez dutelacoan ematen dituzte videac eraguiteco gauza charrac. (...) Baña dacustenean nescach mutilzale, bullazale, modestia gabe, ta arpegui jaiqui bat, beguien arintasunean, itzen nasaitasunean, ta bizimodu eroan aguertzen duena bere viotzean cer dagoan, agur mutilla, agur guizona; an dira esucac, an apa lactanac, an itz lotsagarriac, an cer ez? Berac emacumeac galtzen dituzte animasco beren nasaitasunaquin. Beraz erorten dira escandaloco becatu caltegarrian, ta dira deabruaen eizariac.” (Pagola, R.M (zuz.), 1993, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Gipuzkera-4*, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea-Euskal Ikaskuntzen Institutua, 2570.or.)

EMAKUMEAREN IRUDIAK

Bibliaz geroztik hain ezagun zaigun emakume bekatariaren irudi hau, irudi berriekin aberastuz joan zen XIX. mendeak aurrera egin ahala eta erre-presentazio perbertsoenetaraino iritsi XX. mendearen hasierako artelan ugaritan¹⁰. Batek baino gehiagok mendebaldeko tradizio literarioaren misoginiaren adibide kontsideratzen dituzten hauetan (ik. Bosch, E. & Ferrer, V.A., Gili, M.: 1993), emakumezkoa biologikoki, intelektualki edo moralki gutxietsi egiten da. Irudiok izango ditugu hizpide jarraian eta, horretarako, Txomin Agirrek Bizenta Mogelenean *Ipui onak* 1912an egin zion hitzaurreaz baliatuko gara. Ezin esan Agirrereren hitzaurre honek hizpiderik ematen ez duenik. Ikuspuntu feminista batetik, edonork aurkitu nahiko lituzkeen froga sexista guztiak kausi baititzakegu bertan. Eliza katolikoaren topikoak (*emakume*

¹⁰ Kulturaren arlo desberdinetan 1900 inguruan ugaritzen hasi ziren emakumezkoaren irudi perbertso (eta misoginoei) buruz, ikus, Dijkstra, B., *Idolos de perversidad. La imagen de la mujer en la cultura de fin de siglo*, Debate, Bartzelona, 1994.

zintzoa=ama birjina; emakume gaiztoa=Eva) gehi XIX. mendetik hedatuko den *emakume=aingeru* berdintasuna ere hortxe aurkituko du irakurleak. Jakina denez (ik. Gilbert, Sandra M. & Gubar, S.:1998), Dante, Milton edo Goetheren garaietatik indarrean zegoen emakume-aingeruaren irudia (ik. Beatriz), “Heriotzaren Aingerua” ere bihurtu zen prerrafaeliten garaian. Zailtasunez aurkituko dugu Txomin Agirreren testuan XIX. mendean mende-baldeko literaturetan ospetsuen bihurtu zen emakumezkoaren irudia: *emakume asegabea* deitu izan zena eta lehenago aipatu ditugun fikziozko adulterio-gile ezagunekin (Madame Bovary...) zuzenean lotzen gaituena.

Hona, laburtze aldera, Agirreren hitzaurrearen ideia nagusiak:

1. Emakumea gizaldiko lorea dela baieztatu ondoren, bere eleberri kostunbristetan pertsonaiak deskribatzeko¹¹ erabiltzen zuen teknikara jotzen du oraingo honetan ere: dikotomiak darabiltza emakumezkoak deskribatzeko. Horrela, emakumezkoa, lorea edo arantza, eroa edo zintzoa... gaizkilea edo aingerua izan daiteke.
2. Ez da gizona baino hobea edo okerragoa, baina errazago “zuzentzen” dena. Bere izaera biguna dela eta, emakumea hasieratik zaindu behar da. “Zeñek? Geuk, prakadunok; gurasoak, senarrak, anai nagusiak, dana dalakoak”. (18) (“prakadunok” hitza darabil Agirrek (!)).
3. Emakumezkoak badu gizonarenaren adinako burua, batzuetan hobea ere bai.
4. “Alegiñ guztiak egin bear dira emakumea zintzotzen, al degun guztia erakutzi behar ginioke; ori bai, berari dagokion mallatik erten gabe, bere gaiasunak eskatzen duan neurritan, samurki, garbiro, arreraz, animaren erdian ontasunaren azia boteaz, gazte dan bitartean jakintsu beziñ elizkoi egiñaz.” (18)
5. “Ikus gaitzabela ongille ta indartsu... Elizak laguntzen digu lanbide orretan, Elizak egin du andrazkoa gizonaren mendeko, Jesusen legea daukagu gure alde. (...) Etxekoandretzat nai genduke? Etxekoandre izango da, geuk nai degun guztia izango da, agintzen badakigu.”(19)
6. “Nerekiko, etxea da emakumearen bizileku ta lantegi aukerakoena. (...) Aitor dezagun: buru oneko ta biotz garbiko danean, emakumea bezelakorik eztago. Bakoitzari berea.” (19)
7. Bizentaren euskara garbia da baina erdal kutsukoa.

¹¹ Ikus honi buruz, Toledo, A., 2000, “El personaje femenino en la novela costumbrista vasca” in Iris M. Zavala (koord. gral) et al, *Breve Historia Feminista de la Literatura Española (en lengua catalana, gallega y vasca)*, Bartzelona, Anthropos, 2000, 332-346.

8. "Ia [emakume] hobeak ertetzen duten nunbaitetik, ia Andre Bizenta garaitzen duten asaba zarren izkuntza apaintzen." (21)

Denborarik pasa ez balitz bezala, alferrikakoak dira testu honetan XIX. mendea astindu zuten gertakari sozio-historiko bortitzen oihartzunak aurkitzeko ahaleginak. Dela emakumearen askapenerako eman ziren pauso ezagunak, dela gizarte nahiz kultur mailan eztanda egin zuten joera iraultzaileak, Txomin Agirrerren mundutik kanpo daude. Iraganean bizi baita, emakumezkoak idazleak izan ala ez, zuzendu egin behar direla pentsatzen zen garaietan. Zuzendu, zertarako? elizkoi eta ama on izateko. Honetaz gain, hitzaurregile batengan dotoreegi izan ez daitekeen kritika ere egiten du Agirrek: Bizentaren euskara, ez omen nahikoa garbia.

XIX. mendearen hondarreko Pizkundearekin lotzen gaitu Txomin Agirrek, euskal abertzaletasunaren jatorria finkatu zuen garaiarekin. Eta gogora dezagun urte horietan izugarritzko harrera ona izan zutela mogeldarren lanek. 1881ean *Peru Abarka* argitaratu ahal izan zuen Juan Antonio Mogelek, Juan Joseren lanek 70-80ko hamarkadetan berrargitalpen ugari izan zituzten eta Bizentaren *Ipui onak* liburuko alegiek *Beti Bat*, *Euskalzale* edo *Euskal-Erria* aldizkarietan argitaratu ziren. Aldizkari horietan eta 1876-1936 artean sortu ziren 140 aldizkarietatik askotan kaleratu zituzten euren lanak euskal literaturan gizonezkoen presentzia hegemonikoa urratu zuten emakumezko askok. M. Atxagak *Euskal Emakume Idazleak (1908-1936)* (Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 1997) lanean dakarren zerrendan, besteak beste, Rosario Artola, Katalina Elizegi, Sorne Unzueta, Tene Muxika, Julia Gabilondo, Maria Pilar Lekuona edo Julene Azpeitia.

Egile horien lanak aztertu ditu Missouri Unibertsitatean (Columbia-EEBB) Maite Nuñez Betelu donostiarrak berriki aurkeztu duen doktorego tesiak: *Género y construcción nacional en las escritoras vascas* (2001). Egileak tesiaren ondorioetan dioskun modura, erlijioak eta nazionalismoak zehazten dituzte euskal emakume idazleen lanetan jarraitu beharreko ildoak. Euskararen aldeko defentsa, erlijioaren defentsaren barnean kokatzen da eta Ama Birjina bihurtzen dute euskaldun ama zintzoentzako eredu. Horixe baita, hain justu, emakumezkoek ingurune honetan jokatzeko duten papera: fede katolikoaren eta abertzaletasunaren bermatzaile izatearena. Nazionalismoak amak goraiatu egiten ditu, euren eskuetan uzten baitu belaunaldi berrien heziketa. Ondorio hauen harira, gogora dezagun Joseba Gabilondok 1998an *Insula* aldizkarian argitaratutako artikulua interesgarria (ik. bibliografian), zeinetan egungo emakumezko idazleek euskal literatur sisteman duten gune ez zentrala aztertu ondoren, ideologia nazionalistak emakumezkoen onartzen dien rol bakarra salatzen duen: amaren rola, hain justu. Rol hori azken belaunaldietako idazleen lanetan antzeman badaiteke, are errazago da

lekukotzak lortzea denboran (pixka bat) atzera joanez gero. Gabriel Arestiren proposamenez, emakumearen urtea zela eta 1975ean Euskaltzaindiak Batzar bat egin zuen euskal emakume idazleen omenez. Urte horretan hiru ohorezko euskaltzain izendatu ziren: Julene Azpeitia, Madeleine Jaureguiberry eta Tene Muxika, eta Luis Villasantek gerora *Euskera* aldizkarian argitaratu zen “Emakumea euskal literaturan” txostena aurkeztu zuen (ik. *Euskera* XXI, 1976, 146-152). Bizenta Mogelek in batera zenbait emakume idazle aipatu ondoren, Luis Villasantek bi ideia nabarmendu nahi izan zituen: emakumezkoek mistikarako duten “berezko” gaitasuna (Avilako Teresa...) eta amek etxean egiten duten isileko lana (Garibay eta Azkueren amak gorai patzen zituen, besteak beste). Oraingoan ere, bistakoa da emakumezko idazlez hitz egin arren, euren gozten zaien funtzio nagusia nondik doan: amatasunarena.

Laburbilduz, esan dezagun, dela Eliza Katolikoaren aldetik, dela Nazionalismoaren aldetik, euskal emakume idazleak fedea eta abertzaletasuna hedatzeko baliabide interesgarritzat hartuak izan direla. Eta balio eta helburu ez-literario horiek izan dira, hain justu, egile horiengan ikusi izan diren baka-rrak. Euskal literatura gure gizartean jardura autonomo gisara instituzionalizatzen denean bakarrik lortuko du emakumezko idazleak parametro literario-etan seriozki kontuan hartua izatea. Baina orduan ere, L. Whitek (1996) frogatu duen bezala, literatur historia gehienetan ikusezin izaten jarraituko dute orain dela gutxi arte.

IPUI ONAK LIBURUKO ALEGIEZ

Jakina denez, berandu, ilustrazioak behea jo zuenean, iritsi ziren euskal-dunongana mogeldarren eskutik, alegiak. Ordurako, generoa bere onenak emana zegoen Esopo eta egile klasikoen ildo jarraitu zuten La Fontaine, Samaniego edo Ibañez de la Rentería bezalako idazleekin. 1804an, Bizenta Mogel izan zen euskarazko lehen alegia-liburua argitaratu zuena (*Ipui onak*). Bizentak eta J.A Mogelek hasitako ildoari, Fr. J.M. Zabala edo Iturriagak jarraitu zioten hegoaldean, eta J.B. Arxu, Goiherxe edo G. Adéma “Zaldubi”k iparraldean. *Ipui onakeko* alegiak gipuzkeraz daude eta J. A. Mogelen hitz neurtuzko zortzi alegi barneratzen ditu liburuak. Altxabarrek dioskunez (1997: 64), alegi guztien egiletza, nolabait, osaba-ilobei dagokie, jakina denez, alegi berak baitira –gehientsuenak- Juan Antonio (ik. *Ipuinak*) eta Bizentarenak. Edonola ere, Bizentaren testua, joskera kontu batzuk gorabehera, arinagotzat jotzen da. Alegilari gehienek bezalaxe, Bizentarenak ere itzulpenak dira, Esoporen 50 alegien itzulpenak.

Ipui onaken helburu didaktiko-moralizatzailea onartuz ere, A. Toledok (1989) testuaren garrantzia azpimarratu nahi izan du, ez bakarrik narrazio-mota berri baten adierazle delako, baita irakurketa literarioago baterako aukerak eskaintzen dituelako ere. Argi dago literaturaren ikuspegi neoklasikoa dela testuan garaile ateratzen dena eta hori onartuz, plazer estetikoaz haratago, irakurleengan eragitea bilatzen du Bizentak. “Irakurle euskaldunari” deritzon hitzaurrean argi uzten du norentzat idatzi duen liburua, hots, gaztetxo eta nekazariarentzat (Mogel, B.A., 1991: 29) eta zein helburuz idatzi duen: “ipui oek izango dirala guziz onak aztuerazotzeko nekazarien etxeetatik ipui oker, ta zatarrak...” (Mogel, B.A., 1991:29). Eta helburu hori lortzeko, balizko irakurleak kontuan hartzen dira alegiotan, jatorrizkoetan ez dauden hainbat elementu zirkunstantzial (garai haietako ohiturei dagozkien xehetasunak, abere nahiz landareen ezaugarriak...) erantsiz eta, modu honetan, irakurlearekiko gertutasun handiagoa erdietsiz.

Lessing eta bestek literatur genero gisara kontsideratu zutenetik, bi ezaugarri izan dira, gehienetan, alegiei egotzi zaizkienak: laburtasuna eta mezu morala. Intentzio moral hori, batzuetan desegokitzen jo bazen ere (J.J. Rousseauk bere *Emile* ezagunean pedagogikoki baztergarritzat jotzen du alegia), urteetan iraun duen ezaugarria izan da. Mogeldarren kasuan, alegien intentzio morala are nabarmenagoa suertatzen da, Esoporen jatorrizko alegien itzulpenei azalpen, batzuetan luzea, edo irakaspena gehitzen zaiolako. Aipatutakoaz gain, azpimarratzekoa da alegiotan guztiotan jarraitzen den eskema narratibo klasikoa: egoera konfliktibo baten aurkezpena, korapiloa eta ondorioa. Erritmoa oso azkarra izan ohi da eta denbora, espazio eta ekintza-batasunari dagokion erregela errespetatzen da. Helburu didaktikoaz gain, alegiek helburu satiriko edo kritikoa ere izan dezakete, baina mogeldarren kasuan, irakaspena, kristau jokabideren irakaspena da guztien gainetik gailentzen dena.

Esoporen eta Bizentaren liburuko alegiak konparatuz gero, berehala ohartzen gara greziarrarenak askozaz ere labur, arin eta sinpleagoak direla. Baina hori bakarrik ez, behin baino gehiagotan irakaspena aldatu egiten da, alegiak jatorriz adierazi nahi zuena goitik behera aldatuz. Halaxe gertatzen da, esaterako, “Azeria eta mahatsak” izenekoan. Esoporen azalpenak honako hau badio: “gizakiak bere ezgaitasuna egoera bati errua boteaz ezkututzen du”; Bizentarenak, berriz, “zuhurra izan behar da, ezjakinarena egiten jakinda”. Orokorrean, indartsuen eta ahulen arteko borrokak izan ohi dira alegietan kontatzen direnak, eta botere gehiegizkoa, nagikeria, gehiegikeriak... deitoratzen. Hala ere, Bizentaren alegi-etan ezer azpimarratzen bada, fede kristauaren gorentasuna da (“Gizona eta sugea” alegian, esaterako, mezua guztiz aldatzen da) eta La Fontaineren alegietan hain ezagun egin zen gizartearen ikuspegi

inmobilista: boteretsuak beti izango dira ahaltuak eta arrazoirik ez badute ere, ahulek, txiroek, amore eman behar diete (ik. “Zakurra eta ardia”). La Fontainek zioen moduan, indartsuenaren arrazoia da beti hoberena.

AMAITZEKO

Aurkezpen laburregi honetan, Bizenta Mogelen lana bere testuinguru biografiko, historiko edo literarioan kokatzen ahalegindu gara. Agiriek diotenez, emakume azkarra izan zen Bizenta eta ongi baliatu zituen osabarengandik jaso zituen irakaspen klasiko eta erlijioso guztiak. Horiexek izango dira, hain justu, bere lanaren xede eta molde neoklasikoak baldintzatuko dituztenak, horiexek bere lanaren mugak. Onerako eta txarrerako, bere garaiko idazlea izan baitzen Bizenta. Eta gaurko ikuspuntutik bere lanaren helburu hezitzaile eta moralkeriak testuen balio literarioa itzaltzen badu ere, ezin esan bere aportazioa garrantzizkoa izan ez zenik, euskal prosa literarioaren sorreran edo haur eta gazteentzako literaturaren sorreran izan zuen protagonismoarengatik. Baina horretaz gain, Bizenta Mogel dugu euskal literatur tradizio androzentrikoan pitzadura bat ireki zuen lehenengo emakumea eta, bere lanaren testuingurua kontuan hartuz, ez da gutxi.

BIBLIOGRAFIA

AGIRRE, TX. 1912. “Itzaurrea” in Mogel, B.A., 1991, *Ipui onak*, Euskal Editoreen Elkarte 17-21, Donostia.

ALTZIBAR, X., 1982, “Bizenta Antonia Mogelen biziaz eta lanaz zenbait argibide”, *Euskera* XVII, 1982, 457-496.

—, 1992, *Bizkaierazko idazle klasikoak: Mogeldarrak, Astarloatarrak, Frai Bartolome: nortasuna, idazlanak, grafiak*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.

—, 1997, *Euskal Literatura. Vox Eskola Gida*, Bibliograf, Bartzelona.

BOSCH, E. & FERRER, V.A., GILI, M., 1993, *Historia de la Misoginia*, Anthropos, Bartzelona.

CIPLIJAUSKAITÉ, B., 1988, *La novela femenina contemporánea (1970-1985)*, Anthropos, Bartzelona.

DÁVILA, P. 1988. "Mujer y educación en Euskal Herria: perspectiva histórica", in AA.VV., 1988, *Emakumea Euskal Herriko Historian/ La Mujer en la Historia de Euskal Herria*, IPES, Bilbo, 93-99.

DÁVILA, P. & EIZAGIRRE, A. 1992. "Alfabetización y euskaldunización en Euskal Herria", in Escolano, A. (dir.), *Leer y Escribir en España*, Fundación Germán Sánchez Rupérez, Salamanca, 187-211.

DUBY, G. & PERROT, M. 1993. *Historia de las mujeres. Vol. 4. El siglo XIX*, Taurus, Madrid.

GABILONDO, J. 1998. "Desde el exilio maternal a la utopía personal: Política Cultural en la narrativa vasca de mujeres", *Ínsula* 623, 32-36.

GILBERT, SANDRA M. & GUBAR, S. 1998. *La loca del desván*, Cátedra, Madrid.

MARTÍN GAITE, C. 1981. *Usos amorosos del dieciocho en España*, Lumen, Bartzelona.

MITXELENA, K. 1988 *Historia de la Literatura Vasca*, Erein, Donostia.

MOGEL, B.A. 1991. *Ipuinak*, Euskal Editoreen Elkarte, Donostia.

MOGEL, J. A. 1995. *Ipuinak*, Labayru-BBK-Eibarko Udala-Markina-Xemeningo Udala (X. Altzibarren edizio eta hitzaurrea), Bilbo.

NUÑEZ BETELU, M. 2001. *Género y construcción nacional en las escritoras vascas*, University of Missouri, doktorego tesi argitaragabea, Columbia (EEBB).

OLAZIREGI, M.J. 1999. *Intimismoaz haraindi: emakumezkoek idatzitako euskal literatura*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

RYLANCE, R. & SIMONS, J. 2001. *Literature In Context*, Palgrave, New York.

SAN MARTIN, J. 1978. "Emakumeak euskal literaturan", in San Martín J., 1978, *Gogoz, gure herriko gauzak. Cosas de nuestro país*, Gipuzkoako Kutxa, Donostia.

SARASOLA, I. 1976. *Euskal Literaturaren Historia*, Lur, Donostia.

VALVERDE, L. 1988. "Contexto social y situación de la mujer vasca en el Antiguo Régimen", in AA.VV., 1988, *Emakumea Euskal Herriko Historian/ La Mujer en la Historia de Euskal Herria*, 34-45, IPES, Bilbo.

VIA MAHOU, B., 2000, *La imagen de la mujer en la literatura occidental*, Anaya, Madril.

WHITE, L. 1996a. *Emakumeen Hitzak Euskeraz: Basque Women Writers of the Twentieth Century*, Nevadako Unibertsitatea, doktorego tesia. Argita-
ragabea. Reno (EEBB).

WOOLF, V. 1995. *Una habitación propia*, Seix-Barral, Bartzelona.

ETXEPARE ETA AXULAR LIZARDIREN OLERKIGINTZAN

L. Otaegi Imaz

Luis Villasantek, Pedro Agerre Azpillikueta “Axular” en *Geroko Geroren* seigarren edizioaren hitzaurrea idatzi zuenean, Pizkunde garaiko idazle eta hizkuntzalariaren ahaleginari buruzko hausnarketa egin zuen, hots, Arana, Azkue, Txomin Agirre, Lizardi, Altube, Orixe idazleak osatzen dutela dioen mugimenduari buruzkoa. Jarraian zehaztu egin zuen halako aro berri bat sortu zela euskal literaturan garai horretan eta bereziki zehaztu zuen ez zirela idazleak bakarrik, gramatikariak, irakasleak eta Euskaltzaindiko batzordeki-deak zirela.

Mugimendu horren emaitzaren balorapenari buruzko zalantza eta eztabaida nabari daiteke Villasanteren hitzetan, alegia, belaunaldi hartakoen ahalegina ez ote den Villasantek idatzi zuen garaian, hots, euskara batuaren sortze garaian, behar adina estimatzen. Izan ere, haien lanaren fruitua ez dela baztertzekoa eta are gutxiago gaitzestekoa dela esan orduko, iragartzen du belaunaldi haren emaitzetan halako “muga edo hertsikeria bat” nabaritzen duela eta hura osatzea duela helburu Axularren liburuaren inguruko lanok argitaratuz.

Aipatu duen “muga edo hertsikeria” horren jatorrizko diagnostikoa egiterakoan, deitura hauxe ematen dio Villasantek: *apartekotasun konplexua* izan dutela euskalariak azken mende honetan, baina gaitz horrek hegoaldeko idazleak bakarrik jo dituelakoan dago, eta iparraldekoek beren bidetik jo dutela. Hona hemen pasarte hitzez hitz harturik:

Garai hartako euskaltzaleek bada, ondoraino sartua daukate euskara zerbait apartekoa dela, berezia, arras diferentea eta beste hizkuntzak ez bezalakoa. Eta hortik etorri da lehenagoko euskal literatura tradizioaz -eta bai neurri batean herriko euskaraz ere- etena egi-

tea, lokarriak haustea. Bai herriko euskara eta bai literatura zaharra ere kutsaturik zegoen. Ezin har zitekeen zimendutzat. Dena behar zen berri, dena berezi eta besteen bideetarik aldendua. Baina jokaera hau laster ikusi zen gehiegizkoa zela eta hizkuntza bera inorarik gabe, besoz eta zangoz katigatua, uzten zuela. Batez ere literatura zaharra bazterturik uztean buruon eta hizkuntzaren kaltetan gertatu da.

Hain zuzen ere Villasanteren hitzetan mamitu den uste komun edo balorapen hedatu honi loturik egin nahi nuke nire gaurko solasaldia, izan ere, ez baitzait iruditzen balorapen orokor honetan ñabardurarik egiteak batere kalterik egingo ligukeenik.

Villasantek apartekotasun konplexua deitu duen gaitz horrek nire ustez oso joera eta sintoma ezberdinak eman zituen Villasantek Pizkundearen zaku orokor horretan sartu zituen batzuen eta besteen artean. Jakina den moduan, esate baterako, R.M. Azkue eta S. Arana-Goiriren apartekotasun konplexuak hiztegian izan zuen isla gehiena: euskararen hitz altxorren kezka handia izan zuten eta horri irtenbidea ematerakoan berriztatze epean sartzen diren hizkuntza guztien bezalaxe, bi bide nagusi ikusi eta hautatu zituzten:

- Aranak lexiko berria sortzera jo zuen hitz-elkartu eta eratorriak eratuz, bere jakitate morfologiko eta fonetikoan fidaturik. Halaxe heldu ziren XX. mendearen hasieran gotzonak, txadonak, yaupariak eta yaupalemeak, izadia, bultziak, izparringiak eta urrutizkinak: aspaldiko mailegu latinoak gaitzetsi eta ordezkatu ziren eta aro berriak sorturiko premia berriak ase zituen.
- Azkueren bidea bestelakoa izan zen, hiztegia egiteko buruturiko bilketa lanari esker, bazekien euskarak badituela hainbat hitz euskalkietan eta azpieuskalkietan zokoratuta geratuak eta haiek berreskuratu eta idatziz nahiz irrati eta eskola bidez berriro erabiltzen hasiz gero, euskararen lexiko gabezia handiak osatzen lagun zitekeela. Horrela, Unamunok salaturiko euskararen lexiko eskasia eta lexiko horren kamustasun handia eta ñabardurarako ezintasuna gaingitzen hasi zitekeela uste izan zuen. Hitz teknikoez esateko, berrezarpen lexikalaren bidea hobetsi zuen, nahiz eta tarteka Aranak bezala, hitz berriak sortzera ere jo zuen.

Bi bide nagusi hauek eragin handia izan zuten XX. mendearen hasierako euskal idazleen artean, esan liteke Azkue edo Aranaren eragin lexikala balorazterakoan Orixek *Euskal literaturaren atze eta edesti laburran* esan zuena neurri-neurrikoa dela:

*Azkueren Iztegia dugu euskera onaren iturri, ta euskera-lanak
niori ez diote egitez oni adina zor, eragitez Aranari zor badiote ere
(250)-*

Nabarmen da, bestalde, Pizkunde garaiko idazle gailentzat ditugunak bi itzal nagusi horien pean hazi zirela. Are gehiago zehaztu genezake, hots, Eusko Alderdi Jeltzalearen ideario politikoari atxikirik zeuden idazleek Lizardi lehen garaietan batez ere eta Lauaxeta beti, Aranaren garbizaletasunari eta haren ortografiari atxikirik zuedela eta biak aurrerago eta ahots pertsonalagoa eraikiz joan zirela.

Baina Azkueren eraginak, hots, berrezarpen lexikalaren bideak bereganatu zituen garaiko gainerako idazleak haren ikasle eta laguntzaile izan zen Orixeren bidez. Orixek guda-aurreko idazleetan izan zuen itzal handiaren zehaztasunak emango ditugu aurrerago, baina orain Villasantek hastapeneko aipamenean zerrendatzen duen Severo Altuberen joera definitzeari ere interesgarri deritzot. Orixek ere garrantzi berezia ematen zion puntu berean jartzten baitu arreta Severo Altubek, sintagma eta esaldiaren ordena eta taxuera jatorrean. Mende honetan zehar garatu da euskal gramatikagintzan gure hizkuntzaren joskera eta morfologia bereziari taxua hartu eta eusteko ahalegin handia, inguruko hizkuntza erromanikoen morfosintaxiaren kutsaduratik, egitura kalkatuetatik ihesi, eta erredukzio joera horri herri mintzairaren espre-sibitatearen bidera joz.

Gramatika alorreko ezinbesteko aipamenean atalari amaiera emateko, aipatu nahi nuke mende hasierakoetan nabaritzen dugun garbizalekeriak agian ez digula ikusten uzten gure garaietan haiek zuten kezka lexikalari Orixe eta Altuberen kezka morfosintaktikoa gehituz joan zitzaiola, Villasante beraren “Sintaxis de la oración compuesta” eta gisako lanen bidetik, euskara onaren/hobearren/eta ezin hobearren prontuarioak etengabe argitaratu direlarik. Gure garaian hizkuntzaren estandarizazioa areagotu ahala, erdal kutsuaren kezka semantikaren arlora ere iritsia dugu, Ibon Sarasolak salatutako “Euskararen ajeek” ongi islatzen duten moduan. Kontu hauek literaturaz atekoak dirudite, hizkuntzaren normalizazioari dagozkion auziak, baina guda-aurrekoen belaunaldian -eta gurean ere halatsu- auzi linguistikoak edo sozio-linguistikoak auzi literarioak bilakatzen dira, hein batean.

*Pizkundeaz eta bereziki bigarren Pizkundera edo 1926-36 artekoaz den bezainbatean, Lizardiri atxikirik egin dezakegu bidea. Gazte zarauztarrak idazle izateko lehen ahaleginak Eusko Alderdi Jeltzalearen publikazioak ziren *Euzko Deia* eta *Euzkadi* egunkarian egin zituen 1922 bitartean, eta haietan Aranaren jarraitzaile erakutsi zuen bere burua bereziki. *Biotz-Begietan* liburuan egin zuen hautaketan poema bakarra salbatu zuen garai hartatik *Jaun**

errukiorra izenekoa eta berak errepresentatzen du ongi hizkuntza garbizale haren zurruntasuna. Geroztik, Lizardiren poemek bide herrikoia goari atxiki zaizkio: 1925 eta 1928 bitarteko poemek Luis Jauregi Jautarkol eta Emeterio Arreseren *Nere bidean* eta *Txindor* poema liburuen ereduari lotzen zaizkio. Baina Lizardiren mintzaira literarioaren norabidea Orixek zedarritu zuen, hein handi batean.

Orixek eta Lizardik 1927-28 inguruan ezagutu zuten elkar. Lizardi eta Orixeren ezagun eta garaikideek bereziki azpimarratu zuten Orixek Lizardiren hizkuntzan izaniko eragin handia. Halere, esan liteke eragin hori ez zela denbora luzez bertatik bertarakoa izan, ez baitzuten harreman mota hori artean, eta Lizardik, garaiko beste euskaltzale askok bezalaxe, Orixeren *Euzkadi* egunkariako artikuluen bidez ikasiko zuen gehienik harengandik.

Hipotesi hutsa izan daitekeen honek bi bermatzaile baditu gutxienez: Orixek esanda utzi zuela zenbait artikulutan non eta nolako zuzenketa linguistikoak eta literarioak egin zizkion Lizardiren liburuari, eta bestetik, badugu beste frogat bat. Orixek aipatu zuen *Lizardi* izeneko artikulua batean (Olerti, 1963) Lizardi zenaren paperen inventarium egiten jardun zutela berak Aitzolek eta Joseba Markiegi. Eta haietan Lizardik egunkari eta aldizkarietatik guraizez moztu eta arretaz azpimarraturiko hainbat artikulua aurkitu zirela. besteak beste, "Gure herria"ko artikulua topatu ziren, baina bereziki Orixek *Euzkadi* egunkarian argitaraturikoak, euskal gramatikako morfosintaxi gaiez zihardutenak. Zehaztasunik ez dugu ordea zeri buruzko artikulua interesatu zitzaizkion Lizardiri.

Bestalde, berriz, Lizardi hil ondoren haren obraz idatzi zuten Aitzol, J. Markiegi, A. Labaien eta Orixe beraren kroniketan behin eta berriro jasota aurkitu dut aipamena Lizardik euskara lantzeko modu arretatsua eta oso metodikoa izan zuela, iparraldeko euskalkietan idatziriko argitalpenen jarraitzaile zela, batetik, eta bestetik bere idazle garaikideen (Kirikiño eta Orixe bereziki) lanak arreta handiz jorratzen zituela, oharrak ateratzen zituela bere lanetan sarbidea emateko. Horretaz gain, euskal idazle zaharrak aztertzeari ere lotu zitzaiola esaten dute aho batez Orixek, Markiegi, Labaienek eta Aitzolek, Axular eta Etxepare aipatu zituztelarik, bereziki.

Joseba Mirena Markiegi *Itz lauz* liburuaren hitzaurrean zera zioen:

Ekiña ekin, Axular ta Etxepare irakurtze ta zeatz aztertzeari eman zion aldi. Itz, esaldi, yoskera... an dituzu oro arretaz yasorik, ez erraz-bidez buru aztukor altzoan, arkatza erne ta errukigabe erabiliz, idazti-zokondo ta lerroazpietan piloturik baizik. (Itz-lauz, 1972, 12 or.)

Antonio Labayenek, *Itz lauz*-en bigarren edizioaren hitzaurrean, bide beretik jotzen du:

Lizardi, asko entzun ikasi ta irakurri ondoren euskera sakon jabetzera iritxi zen. Ekiñaren ekiñez, Axular, Etxepare, Mendiburu ta abar aztertu zituan. Markiegiak zer nolako bideetatik ibilli zan esaten digu. (Itz-lauz 1972, 2 orr.)

Aitzolek ere hilondoko omenezko iruzkin batean Etxepare aipatzen du Lizardiren poemetako baten ardatz gisa *Eusko Bidaztiarenaren* iruzkina egitean hain zuzen ere (El poeta Jose Maria Agirre, Yakintza 1933, 3. Zb.) baita beste batean ere haren sintaxiaren soiltasunaren eredutzat Etxepare hartua zuela aipatzen ere.

Orixek, berriz, J.M. Markiegiren *San Luisen Bizitza* liburuaren iruzkinean diharduela, zeharka Lizardiren *Itz-Lauz* liburua aipatzen du Markiegiren sarrera-hitzak komentatuz. Lizardi bezala ekialdeko euskalkien irakurlea eta zalea dela iragartzen du, bereziki *Gure Herria* aldizkariaren zalea, eta euskal idazle zaharrak eta iparraldeko bere garaikoak arreta handiz irakurri eta oharrrak jasotzen zituela.

Ohargarri da, bereziki hurbileko lagunak zirenek beti bi autore zaharrak eta haien estudioa aipatzea Lizardiz hitz egiterakoan. Pentsatu ere egin liteke kortesiazko aipamena izango zela: Lizardik horiek, euskal idazle kultura zenez, ezagutu egin behar zituela eta horrek prestigioa erantsi ziezaiokeela haren nortasun literarioari. Apaingarri hutsa balitz, ordea, ez zen Lizardiz soilik esango eta deigarria dirudi denak aho batez aipatzea Lizardiren obraz eta garai hartako gainerakoez Loramendi edo Lauaxetaz horrelakorik ez esatea, ez garai hartan eta ez gerorakoan.

Bestalde, Lizardiren obrari loturiko dokumentuetan Etxepareri eginiko erreferentziak ugariak dira eta konfirmatu egiten dute lagun guztiek jasotzen duten egile horrekiko zaletasuna eta atxikimendua. Dokumentuetako bat Lizardik berak igorritako gutuna dugu 1931ko urriaren 29koa, Eusko Ikaskuntzaren liburutegi-arduraduna zen Bernardo Estornes Lasari Etxepareren lexikoari buruzko bibliografia materiala eskatuz: Vinsonen *Bibliographie basque* eta *Vocabulaire dens mots contenus dans les poesies basques de Dechepare*.

Izan ere, Lizardi idazlana prestatzen ari baitzen Yakintzarako *Etxepareri buruz*, eta deitura horretxekin izendatu zuten “Lizardiren paperak” izenez jaso dagoen inventarium-ean. Aipaturiko lan hori galdua den arren, 1933ko Yakintzaren lehen alean, Etxepareri omenaldia egiten dion artikulua bat dator, J. Ariztimuño, Aitzolek izenpeturik: *El primer renacentista y poeta euskaldun*.

Beraz, Lizardik Etxepareren obra ezagutzen zuen eta Vinson-en bibliografiaz eta hiztegiak lagundurik haren hizkuntzaren katramilak askatzen ahaleginak ere egin zituen. Zein edizio erabili zuen ez dago argitzerik, Julio Urkixok RIEV-en argitaratu zuen *Linguae Vasconum Primitiaeren* facsimila

ez noski, 1933an argitaratu zelako, baina haren aurretik Victor Stempf-ek Vinsonen laguntzaz eginiko 1893ko edizioa izan zitekeen, P. Altunaren iritziz “ordura artean eginiko argitaraldirik hoberena izan zena” (Edizio kritikoaren hitzaurrea XVIII orr.).

Kontu ezaguna da bestalde, *Biotz-Begietan* liburuan *Eusko Bidaztiarena* (Euzkadi, 1931-XI-24) poema Miguel Unamunori eskaini ondoren, euskara noranahiko egite horren aldarrikapenetan lehena Etxeparek egina zuenez, Lizardik haren “Kontrapas”aren leloa aipatu zuela bere lehen ahapaldiaren aurretik:

Heuskara, ialgi adi kanpora!
Heuskara, habil mundu guzira

Baina ez da bidenabarrezko aipamen hutsa, aipaturiko datuetan fidaturik, badakigu Lizardik liburua argitaratu aurretiko urtean interes berezia izan zuela Etxepareren obrari buruz. Hainbestera, non bere inguruko guztiek aipatzen duten zaletasun hori adierazgarri gisa. Zaletasun horren azken zantzu modura, Orixek eginiko zirikaldua gogoratuko nuke orain. *Biotz-Begietan* atera zenean, Lizardiren poemei buruzko iruzkinak eginez zenbait artikulu idatzi zituen Orixek egunkarietan, propaganda modura, horietako baten amaieran, Orixerek zera esaten du *Bertzea bego*, Etxepareren *Potaren galdatzia* poemaren azken ahapaldiaren aipamena eginez:

Eta lelori bai lelo, pota franko, berzia bego
Andria mintza albatzinde berze aldian emiago

Gisa honetan Lizardiri adieraziz isilpean utziko dituela *pota* edo musuez gainerakoak, jende-aurrean esatekoak ez direnak. Etxepare-zaleen arteko txistea litzateke, Lizardik ukoa egin izan balio bezala Orixek bere poemak iruzkintzeari eta gorapatzeari.

Beraz, garaiko era bateko eta besteko zantzu hauek guztiak ikusita, *Biotz-begietan* liburuan Etxepareren liburuaren eraginik bilatzeak nolabaiteko zentzurik baduela pentsatu izan dut beti, izan ere, Lizardik 1930erako eginak zituen *Urte Giroak ene begietan* osorik eta *Asaba zaarren baratza*. *Eusko-bidaztiarena* ere idatzia zen ordurako, azken hau, esana dugunez Etxepareren kontrapasaren aipamen agerikoa eginez.

Hortik aurrera moldatu zuen testua, amaierarako *Gure Mintzo* poema burutuz. Libururako egin zuen propio, aldeztu aurretik beste inon argitara gabea baita. Berezik adierazgarria da, esaterako, Etxepareren *Sautrelak* eta Lizardiren *Gure mintzok* duten paralelotasuna. Biak liburu amaieran daude, hark Garaziko herria eta semea, Bernard Lehete, goستن dituz liburu atera-tzen lagundu ziotelako, euskarari bere tornua eman dion “Garaziko natura”ri. Lizardik aldiz, Sabino Aranari eskaintzen dio,

*Il-zaarki bizi dugun gizona!
Egunero berpiz lurpean dagona!
Bezatz onets aren izena,
Aberri ta mintzoz gu jantziarena* (Gure Mintzo 9-12,207)

Poema horrek borobildu egiten du liburuaren eitea eta egituraz Etxepareren *Linguae Vasconum Primitia*eren tankeran taxutzen ere du. Lizardi Pizkunde berri baten aldarrikapena egiten ari zen euskal literaturaren modernitate saio hau aurkeztuz eta Etxeparerena bezalako deia eginez euskarari mundura jaigitzeko.

Izan ere, Lizardik berritasuna ekarri nahi zuen euskal literaturara eta hitz arroak erabiliz aldarrikatu zuen: *Ensayo de modernidad en una de las lenguas mas viejas del mundo* idatziz liburua agertokietan aurkezterakoan liburuaren gerria inguratzen zuen “biltorrian”. Bere liburua modernitatearen *primitiae* izatea erdietsi nahi zuen.

Lizardiren irakurketatzat aipatzen zituzten Etxepare eta Axularren zantzurik bai ote zegoen bere obran ikertzeko asmoz, haren mintzaira literarioaren bereizgarri lexiko eta morfosintaktikoak aztertzeko saio zehatza egin nuen nire tesiaren oinarri gisa. Hala, Lizardiren ingurukoek eginiko oharrak, eta bereziki Aitzolek Lizardiren mintzairaren joerak idazle zaharren kutsua hartuz hizkuntzaren senera jo nahi izateak bultzaturik eragin zituela esatea, irizpide emankorrak gertatu ziren.

Izan ere morfologiaren alorrean aipagarri diren honako berezitasun hauek deskribatu ahal izan nituen:

- Izen sintagma mugagabeen erabilera poetikoaren ustiaketa berezia egiten du Lizardik: errima beharkizunetarako, edo esanahi indar enfatikoa erasteko espresioei, hitzaren zentzua orokortu eta abstraktu bihurtzeko edota, orokorrean hizketa esateratsua edo benazkoa, antzinako eta noblearen kutsua emateko funtzio estilistikoz. Sintagma mugagabeen erabilera horri buruzko azterketa zehatza argitaratu zuen Orixek (“Artikulu edo muga-itzez” El Dia 1933-4-16an nahiz Euzko-Gogoa II, 1950, 15-16 or.) eta olerkariak IS mugagabez egiten zuten erabilera poetikoari buruzko interesa piztu zuen Ibon Sarasolak “Lizardiren poemagintzaren alde formalen estudio baterako” (1978) artikuluz. Horien lanari esker, ageriko gaia da iparraldeko idazle zaharrenetatik hasita erabili izan direla molde horiek poesigintzan. Besteak beste, I. Sarasolak Etxepareren adibidea aurreratu zuen:

Zuhamuyek dakartela odolezko izerdi (Iudizio Generala)

Eta Orixek nahiz Lizardiren olerkigintzan lizentzia morfosintaktiko horrek erabilera zabala izan du:

*Kanta ditzagun nago gau luze,
ango ilunabar su gorritz bete* (Eusko Bidaztiarena)

- Aditzaren zenbait moldaera berezi topa daitezke testuotan, hala nola, aditzaren infinitiboa eta partizipioa ez bereiztea (goi nafarreraren ezau-garri fonetikoak: etor da, ikus du) gehienetan esaera bereziki espresiboe-tan, galdera erretoriko, esklamazio, eta atsotik modukoetan: *oro gizo-nak eiza* (Zuaitz etzana, *orra noizpait ere beeraño el!* (Gure Mintzo). Mugatzailea bezala, aditzaren partizipio amaiera ere ahal duen guztie-tan soiltzen du, errepikapena ekiditeko, hitzaren edukia edo “sema” bere zuntzetaraino soiltzeko. Honelako aditz laburketak erabili ziren garaiko poesian –tu amaieraz agertu ohi diren testuinguruetan: arki, eska, bultza, suma, biur, sor, sar, ikus, mintza, ibil... Honen iturria edo eredia dialektoa (BN) baino gehiago, hizketa esaeratsua dela esnago nuke, herri-jakintzaren espresio adierazkorrak, esaerak nahiz atsotit-zak:

artzainak samurtzuz direnean, gasnak ager (Duvoisinek aipatua).

- Aditz sintetikoetarako joera (*Done Mikel dotoigu/ damaigun indarra*)
- Aditz etikoaren erabilera (“ordi antzo sar nazu” (BMD) “Nor zaitut? (AZB)” gisakoak Orixek idazle zaharrak irakurrita ikasi zituela dio *Leizarraga eta olakoak* esaten du, baina iparraldeko idazle zainduak eta Orixek bera, Larreko eta Gure Herriako kolaboratzaileak Moulier “Oxobi”, Jean Barbier, Larreko... iturri seguruagoak dira.
- Arkaismo lexikoak, morfologikoak eta semantikoak ere erabiltzen ditu Lizardik: hala nola *dabilda, zakida, albaledi, albaleza, autua, mendea* (denbora zentzuaz), *igaz* (garai batean), *peitu, ireki doaz...*

Sintaxi eta morfosintaxiaren alorrean bere hizkuntza karakterizatzen dute:

- Aditzaren elipsiak
- Izen Sintagma eta IS Predikatibo ugaritasunak
- Herri hizketaren laburtasuna eta espresibitateak: *aspaldi ez eta mendi aldi* (SL)
- Atsotitzen egitura imitatuz osaturiko sintagmak: *Bidazti begiek sarri/ aidean baso ta iturri/ bertarañokoan ondarra gorri!* (OG)
- Alborakuntzarako joerak eta lokailu gabeziak

- Intziso eta etenak, esaldien monotonía eta taxuera zurruna hausteko asmoz eginak
- hiperbaton adierazgarriak: aditza eta laguntzailea bereziz:
baratz erdian dut arki (Altube iparraldekoen galdegaia dela zehazten du)
- Erlatibozko esaldiak: bait- aurrizkiaz eginikoak (*Entzun bezat inoizko olerkaria/ zelaian baitzun lur-yauregia* (OG) (Etxepare eta ekialdeko euskalkietan bakarrik erabiltzen dena)
- Erlatibozko itsatsiak: *lurrak irentsi-lagunak* (AZB), *joan-elurte gaitza* (BL) *ar maitez lerregin-arrotza* (BI) *loak-ar basoan ilargia baño* (Ag)
- Hiperbatona+printzadura barrokoa:
*Ezin oar txoroak zerk elkarrengana
darakarzkien. baiña, nerez dakidana:
zorion uts letsiken unerik
aien aldi laburrak eztizu besterik* (Maitale Berriak)

Hona hemen alderatzeko, Sarako Etxeberriren adibide bat:

*Hartarakotz ingura zak señalear erhian
bethi hautzaz oroitzeko bizi aizen guztian
eta pintazak begien aitzinean enea,
athal gain eta pareta txurietan legea*

- Bestelako hiperbatonak ugari dira esaldi barruan ere:
su itzaltzako zaarra gar gorri dabilda biur naiean (AZB)
- Sintaxi gogorra, lokailurik gabea, gehienetan, posposizioen aurreko eta ondoko deklinabide atzizkiak kimatuta...

Aurkezpen honen laburtasunaren kariaz, aipatu bakarrik egin ditzakedan ezaugarri hauen balorapen orokorra eginez ondoriozta daiteke Lizardik idazle zaharrengana jo zuela eredu bila eta bere baitan sortzen ari zen arrago propioan erabili zituela batzuen eta besteen ondaretik hautaturiko material linguistikoak.

Lizardik bezalako elaborazio linguistikorik ez zuten saiatu bere garaiki-deek, ez Orixek eta ez Lauaxetak, lehenak herri hizkeraren aberastasunari eta gipuzkera-lapurteraren eite moldatu eta pertsonalari atxiki zitzaizkion, bigarrenak aldiz, garbizaletasun aranazalearen eta hartan moldaturiko bizkaieraren mugen barruan jardun zuelako, esperimentalismo morfosintaktiko horretarako joerarik izan ez zuelarik, eta bai aldiz metaforaren eta bestelako baliabide erretorikoen berrikuntzarako.

Horretantxe dago nire ustez, ezertan izatekotan, Lizardiren abangoardismoa, bere molde propioan itsatsi zituen era bateko eta besteko materialez berritu nahi izan zuen euskal olerkigintza eta guregana klasiko moduan iritsi

den eredia sortzen asmatu zuen, horretan lagungarri izan zuelarik hitzen musikalitatea sumatzeko dohain berezia eta irudiaren erabileran aditzeko erraztasuna neurtzeko irizpide zorrotza.

Egun dokumentu eta froga gehiagoren babesaz hitz egin daiteke gai hauei buruz: Izan ere, Koldo Mitxelena kulturunean 1996ko erakusketa antolatzeko materialen eske joandakoan Xabier Agirrek, Lizardi zenaren semeak erakutsitako materialen artean, zenbait froga eta datu gehiago eman ziren ezagutzera bi idazle zahar hauen ekarriaren emankortasuna finkatzeko:

1) Alde batetik *Lizardiren paperak* izeneko zerrenda bat eskuratu zidan, arestian aipatu dudana. Lizardiren eskuarteko dokumentuen inventarium gisakoa osatu zuten hiru albazea literarioek, Aitzol, Orixé eta Markiegiak. Datu interesgarriak eskaintzen ditu zerrenda hark: batetik Etxepareri buruzko saio-lan bat idatzia zuela *Etxepareri buruz* izenburua zuena. Eta bestetik, eguneroko irakurketen artean *Geroko gero* erabilia zuela eta koaderno bat osatua zuela handik harturiko oharrez.

Ziurrenik, Lizardik *Geroren* hirugarren edizioa erabili zuen, 1864an Baionako hiri honetan inprimatua eta Itxaspe kalongea paraturikoa; hain zuzen ere, lehen eta bigarren edizioetan ez bezalako ordenan emana eta pasarterik gordinenak soilduta. Orixek *Euskal Literaturaren Atze edo Edesti Laburran* aipatzen duen edizioa, alegia. Orixé iturri gisa harturik jakin genezake Donostiako Argia argitaletxeak *Geroren* edizio bat prestatuko zuela iragarri zuela eta berak pozarren jaso zuela berria eta obra nagusi horren edizio berriaren beharrea sumatzen zuela euskal irakurlegoa. Halaxe du adierazia aipaturiko literaturaren historia horretan 1922an.

Pizkunde garaian idazle zaharrak zokoratuta utzi zirela, eta uste horri jarraiturik, Pizkunde aroko idazleek tradizio idatziari muzin eginik dena berrikotik egiteari ekin ziotela uste izan da eta uste horri atxiki zitzaion Villasante. Nire ustez, ez zen hain eten sakonik gertatu benetan euskal idazleen hoberenen artean eta belaunaldi bakoitzeko figurarik gailenak beti jakiten dute tradizio horretatik zukurik ateratzen, hala Orixek bere poesietan eta itzulpen nagusietan, nola Lizardik poesian bezala prosan, nahiz bere kabuz, nahiz Orixeren eskuz, ikasia. Gisa berean, Pizkundeko belaunaldi hartakoen emaitza berengantzen jakin zuen Koldo Mitxelenak saiakeran eta Mirandek olerkigintzan.

Beraz, honako datu hauek gehitu egiten zaizkio lehendik genituenei, iritzi honen frogagarri: *Lizardiren paperak* deritzan inventarium horretan dauden bi dokumentuek eskainiko ziguten argitasuna falta zaigu berez: *Geroko Gero koaderno* eta *Etxepareri buruzko* idazlana. Biak galduak ditugu, baina nolana ere haiek izan bazirela jakiteak berak berrindartu egiten du lehendik genuen informazioa eta Lizardiren oinarrizko material linguistikoan izan zuten presentziaren hipotesia finkatu egiten dute.

Bestalde, Lizardiren obran Orixeren lanek izandako eraginaren lekuko ditugu noski euren hizkuntzen artean euskal irakurleak zalantzarik gabe nabarrituko duen antzekotasuna eta haien ondotik Joseba Markiegi, Jokin Zaitegi, Nemesio Etxaniz Andima Ibiñagabeitia edo Jon Miranderen lehen lanetan... beti altxorren sakonean nabaritzen den kutsua. Orixeren gidaritza linguistikoaren lekukoak dira, zalantzarik gabe. Eredu garbizalea osatu zuten beren modura, ez Aranarena, ez Azkuerena, eta horietako inork aurreikusi zuena baino askoz gehiago hurbildu zena ekialdeko euskalkietara eta idazle zaharren eruedetara. Orixerengan mamitu zen "euskara ederraren kanon" edo eredia nortasun handikoa da, berehalaaxe identifikatzen da: prosa diskurtsiborako lehor eta malgutasun gutxikoa izan zen, lokailu, ilazio eta paragrafo egituraketarako nahiz testu kohesiorako beharrezko diren lokailu eta baliabide anaforikoez soildua; narratiborako, berriz, gihartsua eta ahozko narratibaren hizkuntza moldeari oso lotua, poesian aldiz, egile horietan onenak izan zirenen emaitza paregabearen adierazbide izan zena... Baina Orixek ez zuen eredu hori Orexa edo Huitziko euskaraz soilik elikatu, ondo baino hobeto ezagutzen zuen tradizio literarioan oinarritu zen eta bere gisako moldea eraiki zuen hartaz baliatuz.

Hitzaldia amaitzeko, Pizkunde garaian idazle zaharrekiko harremana zein-nolakoa ote zen auziaren argigarri, Lizardiren lan metodoaren lekuko ditugun beste bi material nagusi aipatu nahi nituzke hemen, Xabier Agirre, Lizardiren semearen eskuzabaltasunari esker ezagutu ditudanak: batetik Lizardik eskuartean oharrak arteko eta abar erabiltzen zituen bi agenda txiki, non eguneroko irakurketen oharrak eta abar jaso zituen, eta bestetik, Lizardirena izandako *Mireriores* alea dauden oharkizunak, biak ere oso adigarriak. Oraingoz bi esku-agenda soilik aztertu ahal izan ditut:

Lehenengoa 1929 hasierakoa da, Lizardi gaisorik Zarautzen egon zeneakoak dira oharrak gehienak eta hainbat sarrera lexiko jasotzen ditu. Besteak beste, marrazki, plater-errezeta eta bestelako oharrak ere bai. Tartean eginiko zenbait oharrek aditzera ematen dute agenda hauxe bera erabili zuela aurreko urteetan bestelako anotazioak egiteko. Esate baterako, Perot enpresako pisuan edo baskulan pisatu eta zehaztasun handiz jasotzen ditu bere emaztearen eta seme jaio berrien pisuen datuak; horietako zenbait bereak dira eta 1927an berak jantzita 62 kilo egiten dituela agertzen da. Ohargarri da era berean bi bertso lerro agertzen direla aipatuak, *Aldakeri* poemaren zati berritua osatuko dutenak *zutiturik ankatxoak/luzaturik errotxoak*, eta ez da deigarria, zeren Lizardiren poemen bertsiok gutxi ezagutzen badira ere, *Aldakeri* hauxe da bertsiok gehien dituenak, 1917, 1929 eta 1932koa. Ikusten denez, beraz, 1929ko Euskal Esnaleako bertsiok prestatzen ari zenekoa da ohar hauetan ageri dena.

Lehen agenda horretan, hiztegi gisakoa eratzen ari da. Sarreretakoz batzuk ingurukoei jasotakoak dira, emazteak esanikoak, Eibar parentesi artean dute-

la agertzen direnak, Zarauzko esneketariari edota pelukeroari hartutakoak, honen Dolorex alabari, edota “Kokodrillo” esaten zioten batenak, zenbait atsotitz ere bai... baina bereziki deigarriak dira Euzkadi egunkaritik jasotako oharrak, egileen izenez aipatzen ditu Otxolua eta Larreko, nahiz bestelako kronistei harturikoak.

Urtarrilaren 12tik aurrerako sarrera lexiko ugariak, hiztegi ongi antolatu baten tankera dute, baina ez dute iturri horren egilearen deitura jasotzen. Halere, data hori erreferentziatzat hartuta, erraz topatu ahal izan dut anotazio horien iturria: Nikolas Ormaetxea Orixek gaztelaniaz garaturiko gramatika artikulua luzea da hain zuzen ere: “Composición Gramatical del vascuence”. Urtarrilaren 10etik 23ra bitartean argitaratua *Euzkadi* egunkarian. Orixek, beti ohi zuen bezala, bere iturri nagusia herria dela aipatzen du artikulua sarreran, baina adibideak ematerakoan iturri nagusitzat hiru liburu hauek aipatzen ditu:

- *Geroko Gero*, 1864ko edizioa, zehaztuz hori erabili zuela, ez omen zuelako besterik eskura eta liburua berriz editatu behar litzatekeela...
- P. Joanateguiaren *Sainduen bizitza* (1890) eta
- *Uskaldunaren gutunak* izeneko debozio-liburu anonimoa.

Artikulu horretan bertan Orixek dioenez, ez du liburu berriagorik kontsultatu nahi izan inoren asmakizun eta berrikeria arriskugarriak ekiditeko eta, jakina, mende hasierako garbizaleen eraginetik jare egin nahi izan du.

Lizardiren esku-agenda txikian ikus daitekeenez, aldiz, hainbat ohar hartu zituen Orixek hitz konposaketa eta eratorketaz emaniko azalpen eta adibideetatik eta morfosintaxi alorreko hainbat ohar ere bai. Aipagarri dira, esaterako, erlatibozko esaldi itsatsiei buruzkoak; adibide hauxe kopia zuen: *erritik joangizona, abiatik egaltatu-txorria, itzuliren diren ezin segurta* (UGtik hartua). Horiek bezalako adibideetatik *Lurrak irentsi-lagunak* (AZB), *lurrari itsatsitantai arrizko* (OG) bezalakoak molda zitzakeela igarri zuen.

Orixek artikulua horien sarrera-atalean dioenez, hitz konposaketa euskaraz erruz erabiltzen den prozedimentu morfologikoa da lexikoa sortzeko, gaztelania aldiz eratorкета eta lokuzioez baliatzen da. Garai honetako bi idazle hauek konposaketari eman zioten garapen handiaren azpiko arrazoiak horixe da:

La lengua española es pobre en compuestos. En cambio el griego y el alemán manejan con extraordinaria flexibilidad este instrumento tan apto para enriquecer la lengua con términos propios e independientes. Cuantos más moldes de éstos tenga una lengua, será mayor la libertad de que goza para formar compuestos y será por tanto mayor su riqueza de vocabulario.

Hauexek dira Orixeren arrazoiak eta hauxe bera Lizardiren eskola.

Jakina denez, Lizardiren konposaketa bidea oso ugaria da eta hitz berriak edo kontzeptu berriak sortzeko baliatzeaz gain, zenbaitetan, metaforak gauzatu eta osatzeko baliabidea ere bada: *askatasun-eguna bezain ederra, giza-erlauntza, bidazti-begiek, maitetasun-azia inguma-atsegintoki, izotz-arnasa, zilar-begiak, garai-larreak, goi-muñoak oro-mintzo, zarpildu-itzalia, zabal-narrea, gose-nekeak...* saila luze eta oparoa osatzen dute, molde anitzetakoa gainera. Garaiko kritikoez nahiz geroztikakoez bereziki nabarmendu izan dute beti Lizardiren mintzaira trinkozalearen baliabide nagusizat.

Bereziki gogoangarriak dira, bestalde, maila sinbolikoa eta erreala ordezkatzan duten hitz-elkarketak, bereziki *Asaba zaarren baratza* poemakoan: *oroipen-txoriak, herri-baratzak* edo *Gure mintzo* poemakoak *bizitza-itsaso* edo *Maitale berriakeko maite-ardoa* edo *Andre Lurra* (Ondar Gorriñ). Edo bahuvihi erakoak: *morroi mantalzuriak, begi eder-goseok, gurdibide bakan-ibil ertzetan, eder-ametsik ezinena...*

Zenbaitetan iharturiko sintagmak biltzen ditu hitz bakarrera: *berriz-jaiopoz* (GM), *ezin-itzal argiruntz* (BMD), *yainko-muño-gañetara* (OG)

Lizardiren olerkietan eratorrita eta elkarketa prozedura morfologikoaren ustiaketak sorturiko hizkuntza poetikoaren arloan hizkuntzaren elaborazio jakin bat aurkitzen dugu, euskal idazleetan oso bakanka bakarrik aurki daitekeena: hizkuntzaren indar espresiboaren arloan etekinik gehiena atera nahi denean eginiko ahaleginaren ondorio dena. Kontzeptismoak Lizardiren olerkietan morfologia-ezaugarri nabariak ditu, azterketa eta azalpen osoa egiteko asmorik ezin izan artikulu labur honetan, baina nabarmendu behar da sorturiko hitz berri horiek ez direla eguneroko hizkuntza, hizkuntza poetiko elaboratu baten emaitza baizik, kontzeptu bakar batean bilduriko irudi baten espresara doi-doi baizik: *bizitza den poz-oinaze-katea*, edo heriotzaren osteko *Yainko muño-gainak* edo basoa den *atsedenaren eliz, zutoiz bete ...*

Orixek atzizkiz soilduriko lexemen gihartasuna goraiatzan du artikularen amaieran eta hain zuzen ere, Orixek Axularren adibideak aipatzen ditu artikuluan: *gaztean (gaztetasunean), asea, ordia aipatzen ditu asealdia eta ordialdia* ordez Lizardi ongi erreparatu zitzaion haren esanari etekin ugari atereaz hizkuntzaren sistemak eskaintzen dion soiltze aukera horri, atzizki eratorleak ekiditeari alegia: esate baterako, *itxaro* izen modura erabiliz: *batak itxaro eta besteak berpizte* (OG), *emeki duk itxaroz piztu* (IOI), *itxaro-kabi* (BMD) edota hurbiltasuna ordez *gau latzaren hurbil* (IOI), *hitz ori soilki dit zaarrak ondu* (AZB) (zahartzeak, zahartasunak), *zakartasuna* ordez *otsaren zakarrez izu-ikara nintzen*, edertasuna ordez, *Ederrez ain motza* (A), edertasuna ordez, *Ederrak su bera* (Ag), *zabaldia* ordez *zabala* (NUY), edo gihar-

tsua ordez, *irudimena uan giarra* nahiz *Beso giarrez yo* (ZE), *itzaltsu ordez, erbeste itzalera* (Ag), *geldiak gizendu/ egonak goza,/ nagiak noizbait yalkiaraz bitza* (OG)....

Hain emankorra den lehen esku-agenda horrek Lizardiren hizkuntza literarioaren oinarrietako batzuk jarri ditu agerian, hots, Orixeren irakaspena eta, honen bitartez, idazle zaharren transmisioa. Bigarren agenda aldiz, 1930ko lehen urte erdikoa da, eta epe laburrez soilik erabili zuela esan daiteke. Garai horretako bere poemen bertsio eta zatien gordeleku da, batik bat, beste zenbait anotaziorekin batean: 1930ko apirilaren 13an kopianuriko Aita Gurea lapurteraz, Paris eta Hendaia arteko trenen arratseko orduak, Bilbo eta Donostia arteko tren ordutegiak, *Otartxo utsa* poemaren ataltxoak, Urtaroak ene begietan poemaren lehen urratsak: *Negu*, maiatzaren 21eko *Udalenaren ahapaldi nagusia*, Parisen 1930ko apirilaren 14an dataturiko *El gorrion parisien* (Parisko txolarre)ren gaztelerazko bertsioa eta *Asaba zaharren baratzako* lehen bi ahapaldien bertsio bat.

Bigarren kaiera honetako orriak bereziki interesgarriak dira testu genetikaren alorreko lanetarako, eta Lizardiren olerki-lanen garai emankorrenaren lekuko bipilak dira. Hala, orriotan jasota dauden ahapaldi zatiak poema horietan musikalitate gehien duten atalak dira. Oso zalantza gutxi nabaritzen da hitzen hautaketan nahiz irudien inpresio plastikoaren definizioan. Baina bereziki, aliterazio, errepikapen, paralelismo eta gainerako egitura simetrikoko nahiz morfosintaktikoen erabilerak Lizardiren olerkigintzan duen sortzezko eta muin-muineko garrantziaren lekuko bizi dira. Baina hori hurrengo lan baterako ekaia izango litzateke.

MAITASUN MUNDUTIARRA ETXEPARERENGAN: “BASKOEN GAZTIGUIA”

A. M^a Toledo

“... eta baskoek, berzek bezala, duten bere lengoajian eskribuz zerbait doktrina, eta plazer hartzeko, solas egiteko, kantatzeko eta denbora iragaitzeko materia”¹ izan dezaten idatzi ditu Etxeparek koplak hauek, Bernard Leheteri eskaintzen dion hitzaurrean dioenez. *Linguae Vasconum Primitiae* bide, hitzaurrean ezarritako jomugari erantzun ziola onartuz, gaurko jardunaldi honen helburua honakoa litzateke: baskoak gaztigitzea bilatu zuela Etxeparek eranstea, alegia, bere garaiko euskaldunak aholkatzea izan zuela jomuga. Aholkua, abisua, berriz, gisa honetan laburbil daiteke: utz ezazu maitasun mundutiarra eta har ezazu Andre Mariarenganako jaidura.

Hala, “prodesse et delectare” horaziarrari bete-betean loturik atzeman ahal izango lirateke *Linguae Vasconum Primitiae*eko lehen hamabi koplak, doktrina eta maitasuna gaitzat hartzen dituzten haiek, hain zuzen ere. Bestela esanda: zentzu moralizatzailea hartzen duten koplak dira.

Hitzaurretik aipatu den pasarteak adierazten duen bezala, koplak hauekin bilatzen duen helburua ez da hartzailearen ongi igarotze soila. Ez ditu dibertimendu hutserako egin, entretenimendu hutserako. Aitzitik, besterik du jomuga: irakatsi modu entretenigarrian. Izan ere, modu entretenigarrian giza-kia abisatzea nahi du ongia bila dezan eta gaizkitik urrun dadin. Bere garaiko euskaldun mundutiarrari honako aholku hau igortzen dio: bazter ezazu haragizko maitasuna eta ordezkia ezazu Mariarenganako maitasunagatik.

¹ Etxepare, Bernard: *Linguae Vasconum Primitiae*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1995. Azterketa honetan zehar Etxepareren idazlanetik egindako aipamen guztiak argitalpen honetatik jasoko dira.

Itxura batean ez da erraz ikuspegi hau historikoki Etxepareri buruzko kritikak egindako epaiekin uztartzea. Esaterako, XVII. mendean Oihenartek honela zioen:

“eta besteak (bere kartzelatze auhenez aparte) amodiozko neur-titzak, aski errespetu gutxikoak eleiz gizon batentzat, eta batipat ari-mazain den apez bati ez dagozkionak”².

Jakina denez, Oihenartek bere *L'Art Poétique Basquen* (1665) bere neur-tizgintzaren aurretik euskaraz burutu den jarduera poetikoa epaitzen du. Balorazio horretan Etxeparek koplak egiteko erabilitako moduak gaitzetsi egiten ditu. Moduak, gaiak... guztia desegokitzat jotzen du. Ezin izan ziteke-en beste modu batean. Izan ere, Oihenartek bere gutun horretan, XVI-XVII. mendeetako poetikek bezala, jarduera poetikoa arautzea bilatzen du. *L'Art Poétique Basquek* euskal jarduera poetikoa gobernatzea du jomuga eta, labur samarra ez-ezik, behin-behineko idazketan gelditutakoa izan arren, bere garaiko poetiken ezaugarriak era nabarmenean azaltzen ditu: eredu en imita-zioan oinarritzen den ariketa izan behar du jarduera poetikoak, behar bezala-kotasuna (biensèance) zaintzen duena, jarduera teknikoak: arte poetikoa lanbi-de edo ofizio bezala ulertzen da, bere teknika duen lanbide legez; behin tekni-ka ikasiz gero, lanaren, pazientziaren eta saiatzearen bitartez menderatuko li-tzateke. Oihenartentzat Etxeparek ez du eredurik imitatzen, ez behar bezala-kotasuna zaintzen, ez erabili beharreko teknikak erabiltzen. Bi garaitakoak dira eta poesiaren ulerkuntza desberdinak dituzte. Alderdi teknikoetan egotzi zizkion hutsez harantza, ez da harrigarria Kontraerreforma ondoko Oihenartek begi onez ez ikustea Etxepare apaizak mundu sakratu eta profa-noaren artean egiten duen nahasketa edo, mundu profanoan kokatu zenean, dekoroa hain gutxi zaintzea, ezkutuan gorde beharrekoak oso modu gardene-an agerian jarri zituelako, sentsualitatea eta gozatzea zerien kopletan. Beraz, Oihenarti, kokatu zen ikuspuntuan kokatu zela, egin zuen balorazioa egitea zegokion. Poesia ulertzeko modu desberdinaren ondorio da.

Historian jauzia eginaz XIX. mendean lekutu eta, esaterako, Francisque Michelek Etxepareri buruz erakutsi ikuspegia azal daiteke. Gisa honetako pasarteak eman zituen:

² Oihenart, Arnaud: “L'Art Poétique Basque (1665)”. Patri Urkizuk euskaratua. Ik. *Hegats*, 7, 1992, 55. or.

“Il avait bien aussi brûlé quelque peu d’encens sur l’autel de l’Amour; mais l’aveu qu’il nous en fait doit nous rendre indulgent pour un péché vraisemblablement de jeunesse”³.

“La pièce intitulée *Ezconduyen Coplac* (Couplets des Mariés) est certainement inspirée par un épisode de la vie de Bernard d’Echepare. La plaie saigne encore: on le reconnaît à la vérité des sentiments, à l’énergie du style”⁴.

Oihenartek eginiko kritika utzi eta Francisque Michelena atzematean, Pizkundeko humanista baten poesiaren ulerkuntzatik Erromantizismo garai-ko poesiaren ulerkuntzarako jauzia burutzen da. Beste modu batean ikusten da poesia eta, ondorioz, beste modu bateko kritika egiten. Erromantikoentzat poesiak ez du izan behar eredu batzuen imitazioaren produktu, arau batzuk jarraitzearen produktu. Arte poetikoa ez da bere teknika duen lanbide bat, ez da ikasten: zeruaren dohaina da. Poema ereduaren imitaziotik askatu, arau batzuk jarraitzearen menpekotasunetik askatu eta jenio sortzailearen barnera darama Erromantizismoak. Poema poetak bere barnean ezkuta ezin ditzaketen sentimenduen, nahien, xedeen leherketa da. Teknika, berriz, ezin ikas daiteke. Estiloa norberarena da. Idazle bakoitzak bere-berea duen forma ematen dio sorkariari.

Poesiaren ulerkuntza honetatik beste kritika-mota bat eratorri zen. Epai erromantikoez barne-sentimenduak, sentimenduaren egiazaletasuna, “bihotzeko garrasiak”, adierazpen naturala... bilatu eta balioztatuko dituzte. Poesia barne-sentimenduen hustuketa legez jotzen denez, ez da harrigarria Erromantizismoaren garaian kritika biografikoa lantzea. Kritika erromantikok gogoko izan zuen eta landu ere landu zuen idazlana - idazlearen biografia harremana. Idazlanean agertuz doan “ego” literarioa eta idazlearen “ego” biografikoa bateratu egiten dituzte. Hori da, funtsean, Francisque Michelek egiten duena aipatu pasarteetan: Etxeparek maitasun mundutiarrak kantagaitzat hartzen duenean eraikitzen duen “ni” literarioa abiapuntu hartu eta “ni” biografikoa eraiki, “ni” literarioa mozorrotze hutsaren emaitza izan daitekeela alboratuz. Dena den, Francisque Micheli aitortu behar zaio beste gogoeta-moduren bat ere egin izana:

“Les poésies légères de Bernard d’Echepare sont charmantes; elles n’ont rien qui doive étonner si l’on réfléchit à l’époque de leur

³ Michel, Francisque: *Le Pays Basque. Sa population, sa langue, ses moeurs, sa littérature et sa musique*, Elkar, Donostia, 1983, (1857an argitaratu zuenaren faksimila), 440. or.

⁴ Michel, Francisque: op. cit. 450. or.

composition, époque où le sentiment des bienséances était à peu près nul, (...); si l'on réfléchit encore à la facilité de moeurs du prêtre dans les contrées méridionales, et à cette propriété, si commune chez les artistes, de se dédoubler et de séparer complètement le personnage de l'homme"⁵.

Pasarte honetan bi alderdi azpimarra daitezke. Batetik, idazlana garaian lekutuz ulertzeaz dihardu; bestetik, pertsonaia eta gizakia bereizteaz, alegia, "ni" literarioa eta "ni" biografikoa bereizteaz. Baina, berez ez zuen horrela jokatu. Beharbada "ni" literariotik "ni" biografikoa eraikitzea erromantikoa-goa zen eta biak uztartu zituen. Ez zuen ahaleginik egin garaian lekutzeko edo poesiaren zein ulerkuntza egon zitekeen atzemateko. Hats erromantikoak besterik eskatu zion, seguraski.

Nolanahi ere, hats erromantikodun kritika hau XIX. mendearen mugak gaindituz, XX. mendean barneratu zen. Aurki daiteke gisa horretako erakuskaririk. Baina, "ni" literario - "ni" biografiko harremanean oinarritzen den kritika hau utzi eta beste ikuspuntu batean koka daiteke kritika, hala nola testuaren azterketan bertan. Testua bera aztergune eraikiz, liburuaren egituratze-moduan erreparatzeak eman dezake beste irakurketa-modu baterako euskarririk.

1. EGITURA

Oihenartek, jadanik, atal desberdinak berezi zituen *Linguae Vasconum Primitiaen*; zehazki, bi. Geroztik, ñabardura gehiagorekin atzemanaz, lau ataletan banatu izan da. Hemen, jakina, lau atal horietako lehenbiziko biak dira jorragai; doktrina eta maitasun mundutiarra gaitzat dituztenak, lehen hamabi koplak, hain zuzen ere. Azter-eremua modu honetan mugaturik, hamabi kopla horiek erakusten dituzten ezaugarritan oinarrituz, beren jomuga didaktikoa azaltzea litzateke ondoko azterketaren xedea. Xederantz bideratzeko, abiapuntu legez, hona hemen Patxi Altuna irakasleak emandako datu bat:

"Hay 4 partes diferenciadas. *En la primera* están las dos poesías de tema religioso, las más extensas de toda la obra, pues ellas solas suman algo más de la mitad de todos los versos: 595 de un total de 1159".

⁵ Michel, Francisque, op. cit., 448-449. orr.

⁶ Altuna, Francisco: *Versificación de Dechepare: métrica y pronunciación*. Mensajero, Bilbao, 1979.

Datua ezin izan daiteke kasualitatearen fruitu. Altuna irakasleak berak beste leku batean dioenez, bada arrazoirik horretarako:

“Lehen saila, askozaz luzeena eta ugariena, erlijio gaiak osatzen dute eta hauen artean oso zati handia, handiena ez bada ere, dagokio Ama Birjinari. Badu honek arrazoi sendoa poetaren liburu plangintza osoan: Mariari poetak izan ziezaiokeen jaiduraz gainera, hamar olerkitan kantatuko dituen lurreko maitasun-maitakeriei kontrajartzen die Mariaganako maitasuna”.

Liburuak plangintza bati erantzuten dio. Luzeraren datuari koplen hurrenkerarena erants dakiok. Ez hori bakarrik, baita koplek maitasunari buruz erakusten duten planteamendua ere.

Helburu moralez idatzitakoa den ala ez erabakitzerakoan, hamabi koplak hauen egituratzea eta egituratze honen bidez maitasuna gaiari ematen zaion tratamendua elementu giltzarria izaki, maila honetan kokatuko da aztergaia.

Jakina denez, *Linguae Vasconum Primitiae* “Doktrina Kristiana”rekin hasten da. Bidenabar, gogora daiteke, zeinahi testutan mezua indartzeko ahalmena duten lekugune pribilegiatuak daudela eta lekugune pribilegiatu horietako bat liburuaren hasiera dela. “Doktrina Kristiana”ren jarraian, “Amorosen gaztiguia” eta “Emazten fabore” koplak eman ondotik, maitasun mundutiarrari eskainiko dizkio laugarrenetik hamabigarrenera bitartekoak.

Izenburu soiletik izenburu horietako bakoitzaren azpian datozen ahapaldiak irakurtzera igaroaz, honako laburpen hau egin daiteke:

1. “Doktrina Kristiana”ko lehen bost ahapaldietan Jainkoak sortu duela gizakia gogorarazten du eta honen eginbeharra dela hura zerbitzatzea. Hainbat otoitz eta doktrina-irakaspenen ostean lehen koplak hau Ama Birjinari zuzenduriko otoitz batekin amaitzen du. Salbazioa eskuratze-ko laguntza eskatzen dio.
2. “Amorosen gaztiguia”n Ama Birjinaren maitasun leiala, maitasun betegina da protagonista. Maitasun leial, ezin hobe hau, maitasun mundutiarrari aurkajartzen dio, maitasun mundutiarrak hau akatsez bete delako.
3. “Emazten fabore”: hezur-haragizko emakumearen laudorioa.
4. Maitasun mundutiarraren aurkitzen diren egoera desberdinak (IV -XII).

Argi samar gelditzen da konkretzio-bide bati heltzen diola. Lehen koplak da orokorrena eta IV.etik XII.era doazenak dira konkretuenak. Tartean, bi

⁷ Altuna, Patxi: “Etxepare herri poeta”, *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Deustuko Unibertsitateko argitarazioak, Bilbo, 1981, 324. or.

andre, modu orokorrean aurkeztutakoak, halaber. “Doktrina Kristiana” Ama Birjinari salbaziorako laguntza eskatuz bukatu eta, hurrengo koplari, bigarren, Ama Birjina dakar, Mariaren maitasunaren ezaugarriak eta ahalmenak azaltzeko; hirugarrenean, berriz, hezur-haragizko emakumearen ezaugarriak eta ahalmenak agertuko ditu, laugarrenetik hamabigarrenerarte maitasun mundutiarrean aurkitzen diren egoera desberdinak erakusteko. Abstrakzioetik (doktrina) konkretiorako bidea (maitasun mundutiarrean aurkitzen diren egoera desberdinak) hartzen du koplari segidak. Urratsez urrats darama prozesu hori, “Doktrina Kristiana”ko azken otoitza Mariari zuzentzen dio eta otoitz honek “iraganbide” bezala egingo luke, bigarren koplari, Pertsona hori, Maria, izango baita erdigune. “Andre” ezaugarri komunak iradoki izan balio bezala, zeruko Andrearengandik lurreko andrearengana igaroaz, hirugarren koplari, hezur-haragizko emakumeaz jardungo du.

1.1. Anplifikazio-teknika

Iraganbidezko zatia izan den “Amorosen gaztiguia” bigarren koplari lehen hiru ahapaldiak giltzarriak izan daitezke:

“Berzek berzerik gogoan eta nik andre dona Maria;
andre hona dakigula guzior, othoi, balia.

Amorosak nahi nuke honat beha balite;
hon lizaten gaztigurik agian enzun liroite,
amore bat hautatzeko konseilu bat nekie,
balinetan sekulakoz gogoan sar balekie.

Nihaurk ere ukhen dizit zeinbait ere amore,
bana hantik eztut ukhen probetxurik batere;
anhitz pena, arima gal, harena eta neuri’ere;
amoretan plazer baten mila dira dolore”.

Ez ote dira “Amorosen gaztiguia” bera eta maitasun mundutiarra gaitzat dituzten koplari guztiak hiru ahapaldi hauen amplifikazioa, zabaltzea? Ez ote gaude eskolastikoei hain gogoko izan zuten “amplificatio” deitu teknikaren erabileraren aurrean? Alegia, tesia ezarririk, ez ote du tesi hori amplifikatzen, zabaltzen “exenpluen” bitartez, IV. koplari XII.era doazen “exenpluen” bidez?

“Amorosen gaztiguia” horren gainontzeko ahapaldietan “bekhatuzko amoria” traidoretzat epaitzen du, leialtasunik gabekotzat, partitzen, banatzen ez den maitasuntzat. Honen aurrean Mariaren maitasuna leiala da eta aldi berean, partitzen, banatzen dena. Dikotomiara joz, Andre Mariaren maitasun

beteginari "bekhatuzko amoria" aurkajartzen dio. Aurkakotasuna den baliapide didaktikoaz baliatuz, maitasun betegina zein den eta zein ez den adierazten du, ezaugarri orokor batzuk atxikiz batari eta kontrakoak besteari.

Bigarren koplak hau osatzen duten gainontzeko ahapaldi guztien eta hauen jarraian etorriko diren koplak (III - XII) iturri-sortzailatzat jo direnez, "Amorosen gaztiguia"ko lehen hiru ahapaldi horiek astiroago atzematea eskatzen dute.

Mintzatzen ari den eta aurrerantzean ere mintzatuko den "ni"aren auke-raren eta nahiaren berri ematen du lehen ahapaldiak: "nik andre dona Maria" gogoan lehen bertso-lerroan esan ostean, hurrengo bertso-lerroan, berak egin aukerarekin guztiak bat etortzearen nahia azaltzen du.

Bigarren ahapaldiaren lehen bertso-lerroa hartzaileari zuzendua dago erabat, hartzaile jakin bati: amorosei. Mezuaren hartzailea mugatu egiten du; ez dio edonori zuzentzen, amorosei baino. Ohar bedi IV.etik XII.era doazen kopletan amorosez jardungo duela, egoera edo "exenplu" desberdinak aurkeztuz.

Erdi Aroko hainbat trobadorek bezala, irakurle-entzuleen borondatea eta arreta erakarri nahi du, zehazki "amorosena". Amorosei hurbiltzen zaie azaltzera doanera erakartzeko. Dei egiten die azaltzera doana begira dezaten, ikus dezaten, eta, ikusi ostean, ondorioak atera, eta bere abisua, aholkua, gaztiguia ontzat jaso dezaten.

Bigarren ahapaldi honetan laburtu eta aurreratu egiten du agertzera doana, "amore bat hautatzeko konseilu bat", amorosek betirako gogoan har dezaten aholku hori. Aurrerapen-sintesi bat da. Jadanik tituluak aurreratzen zuen sintesia: "Amorosen gaztiguia". Aurrerapen-sintesi honekin batera amorosen arreta eskatzen du: "Amorosak nahi nuke honat beha balite;" (II, 2).

Aipatu "Amorosen gaztiguia"ko bigarren ahapaldiak ez luke bilatuko bakarrik koplak horretan garatuko dena aurreratzea eta laburtzea, baizik eta IV.etik XII.era doazenean garatuko dutena ere aurreratu eta laburtuko luke; hots, amorosez diharduten koplak guztiek jorratuko dutena, maitaleen artean gertatzen diren egoera desberdinak dituztelako gaitzat, amorosen arteko gorabeherei eskainitako koplak direlako. Honela bada, II. koplak, "Amorosen gaztiguia"n, maitasun mundutiarrak orokorki dioena, gero, IV-XII horietan ejenplifikatu egiten du. Gauzak honela, anplifikazio-teknika hau hezurmamitzeko Etxepare aukera jakin bati lotzen zaio: ez du hautatzen Ama Birjinaren maitasun leiala, betegina ejenplifikatzea, maitasun mundutiarra ejenplifikatzea baino. Horrenbestez, "baskoak gaztigatzeko" darabilen metodoa honakoa da: izan behar ez duena erakutsi, izan behar duenera erakartzeko jomuga. Zinez, amorosak gaztigatzea helburu izanik, modu desberdinak zituen xede hori bideratzeko: hauta zezakeen maitasun betegina, Mariarena, exenpluen bidez

zabaltzea edo biak, maitasun betegina eta ez betegina (mundutiarra) zabaltzea... Maitasun mundutiarra bakarrik zabaltzea izan da bere aukera metodologikoa.

Maitasun leialari eskainitako berbaldia bigarren koplak modu orokorrean egiten duen azalpena mugatu eta ejenplifikatu gabe uzten du. “Amorosen gaztiguia”k maitasun mundutiarrak eta ez mundutiarrak ematen duen doktrinaren eta maitasun mundutiarreko esanpluak testuratzten dituzten IV-XII koplak artean, hirugarren koplak, “Emazten fabore” tartekatzen da. Hurrenkerak erakusten duenez, Andre Mariaren laudoriotan idatzitako “Amorosen gaztiguia”tik hezur-haragizko emakumearen laudoriotan idatzitako “Emazten fabore”ra igarotzen da, zeruko Andreamen dohainak azaltzetik lurreko andreamen dohainak azaltzera. Langaia oso modu ordenatuan antolatzen ari da Etxepare. Modu ordenatu honekin, gainera, egitasmo bati erantzuten dio. “Amorosen gaztiguia”n amorosak gaztigitu nahi dituela esan ostean, Andre Mariaren maitasunari buruzko lezioa ematen du, amorosen arteko maitasunari aurkajarriz. Amorosen arteko jokoak, jakina, gizon-emakumeen arteko jokoak da. Joko honetan, dirudienez, zenbait jokabidetan berdin ikusten ditu gizon-emakumeak Etxeparek, ez ordea guztietan. “Amorosen gaztiguian” tesi bat jarri badu -“amoretan plazer baten mila dira dolore” (II, 10)- orain, “Emazten fabore”n, beste tesi bat jarriko du -“gizonek utzi balitzate, elaidite faltarik” (III, 2)-. IV.etik XII. koplara doazen esanpluak frogatuko dituzten tesiak dira. Lehen tesia, orokorrena, bederatzi koplak horietan barrena zabalduz erakutsiko du, bigarrena, berriz, emakumearen ahotsa zuzenean jasotzen duten haletan, VIII.etik XII.era doazenetan, hain justu. Bigarren tesia nola frogatzen duen aurreragorako utziz, egokiago dirudi lehen tesia nola garatzen duen atzemanaz hastea.

1.1.1. “Amoretan plazer baten mila dira dolore”

Esaten zenez, “Amorosen gaztiguia”ko bigarren ahapaldiak lehen bertso-lerroan hartzaile jakin bat mugatzen du (amorosak) eta beren arreta galdegiten; hurrengo bertso-lerroetan dioenez, gaztigitzeko, kontseilu bat emateko eskatzen du arreta hori. Ematera doan aholkua hor bertan dago: amore bat hautatzerakoan zein amore hautatu. IVtik XIIra doazen koplek emandako esanpluetan amorosen arteko maitasunak sorrarazten dituen zorigaitzak ikusi ostean, maitasun honetatik urrutiratzea dela onena ondorioztatu behar dute amoresek. Izan ere, “esanplu” horiek agerian uzten dute, maitasun mundutiarrak ez dakarkiola zorionik gizakiari.

Amorosei kontseilu bat ematera doakiela esan ondoren bigarren ahapaldian, hirugarrenak lehen ahapaldian aurreratu duenaren oinarria, sakonean dagoen arrazoia dakar: lehen ahapaldian esan duenez, berak Ama Birjinaren maitasuna hautatu du. Orain, hirugarren ahapaldi honetan dioenez, bada arrazoirik horretarako: esperientziak esan dio maitasun mundutiarretik ez dela batere probetxurik ateratzen, "anhitz pena, arima gal, harena eta neuri'ere; / amoretan plazer baten mila dira dolore" (II, 9-10). Esperientziak berak esan dio. Eskarmentuak indartzen du mezua. Maila teorikoa utzi, maila doktrinala utzi eta esperientzia bera euskarri duen aholkua ematera doa.

Ukaezina da maila esperientzietik aholkatzera doala. Hala planteatzen du. XIX. mendeko kritikak, goian aipaturiko kritika biografiko horrek, Francisque Michelenak kasu, jarrera honetan aurkitu zuen Etxepareren gaztaroa bekatuez hitz egiteko oinarria. Irakurketa literala egitearen ondorio da. Baina, "ni" hori ez ote da baliapide erretoriko hutsa? Ez ote da, Etxeparek janzten duen mozorroa? Ez ote da "ego" liriko bat "ego" biografikotik erabat berezi behar dena?

Etxepareren bizitzaz ezer gutxi dakigu, ia ezertxo ere ez dakigula ez esateagatik. Beraz, "Nihaurk ere ukhen dizit zeinbait ere amore" (II, 7) horren ostean Etxepareren haragizko bekatuak ikustean, orain-oraingoz, Etxepareren bizitza asmatu besterik ez da egiten. Zentzuzkoagoa dirudi, baliapide erretoriko hutsa dela pentsatzea. Hala pentsatuz, gainera, literaturan idazleak mozorro desberdinak janzteko duen lizentzia onartu besterik ez da egiten. Erdi Aroko sermoietan, esaterako, egilearen "ni" a azaltzea erabat arrunta da. Sermoigileak berak darabilen baliapidea da.

Etxeparek maitasun mundutiarreko gorabeherak bizi izandako gorabehera bezala aurkezten dituenan, sinesgarritasuna irabazten du. Ez doa aholkua ematera Elizak hala erakusten duelako, doktrinak hala erakusten duelako bakarrik, baizik eta esperientzia hori bizi izan ondoren lezio hori ikasi duelako. Ematen duen aholkuak Elizak irakatsitakoari esperientziak irakatsitakoa gehitzen dio. Honela, aholkua indartu egiten da: besteren eskarmentutik ere ikas dezakete amorosek. Mezua indartzeko baliapide erretorikotzat jo daiteke "ni" esperientzial horren azalpena. Besterik ere erants daiteke. Etxepare elizgizonarentzat guztiok gara bekatariak:

"Kulpa gabe ehor ezta, haur da segur egia;
bekhatuiaz damnatzen du Jangoikoak munduia;" (II, 88-89).

Ez ote dio honek beronek eskatzen bekatari legez aurkeztea? Beraz, kopla hauetan barne-sentimenduak azaleratzen dituen "ego" liriko hori "ego" enpirikotik bereziz, "ego" liriko horretan Bernard Etxepare gabe, gizakia atzeman daiteke, gizaki guztion ordezkaria. Honela bada, bekatari garen gizakion ordezkari batek, gizaki legez duen eskarmentutik hitz egingo luke.

Etxeparek maitasun mundutiarreko gorabeherak bizi izandako gorabehera bezala aurkezteak eragin duen azterguneetik lerratzea itxi eta harira itzuliz, hona hemen aztergune hori: “Amoretan plazer baten mila dira dolore” tesiarren frogatzea.

Esan bezala, Ama Birjinarenganako maitasuna hautatu duen “ni” hori ibilia da maitasun mundutiarraren uretan, dastatuak ditu maitasun mundutiarraren plazer eta doloreak: ezagutu du hezur-haragizko emakumea eta eskarmentua duen “ni” horrek adierazten duenez, “bana hantik eztut ukhen probetxurik batere” (II, 8). “Amorosen gaztiguia”ko hirugarren ahapaldiko bertso-lerro honek maitasun mundutiar horretan egindako ibilalditik jasotako uzta neurtzen du, IV. koplatak XII.era bitartean bizi izandakotik ateratako irabaziak. Hona hemen koplaz-kopla “probetxu” horiek:

“Ezkonduien Koplak” deritzanean dioenez,

“Honestea berzerena erhogoa handi da,
plazer baten ukhenen du anhitz malenkonia:
begiez ikus, ezin mintza; han dakusat nekia;
beriareki datzanean enetako aizia” (IV, 11-14).

“Amoros sekretuki dena”z ari delarik, berriz,

“Ene gaizki penatzeko hain ederrik sortu zen,
gaoaz eta egunaz ere gaizki nizi penatzen;
harekila bat banadi, bihotza zait harritzen,
neure penen erraitera are eniz ausartzen” (V, 9-12).

“Amorosen partitzia” dela eta,

“Nik hargana hanbat dizit amorio handia,
harekila egoitiaz ezpaneinde enoia;
harganiko partitzia ene eihargarria;
berriz ikus dirodano, bethi malenkonia” (VI, 7-10).

“Amoros jelosia”z diharduelarik,

“Jende honak, bihotza daut bethi ere nigarrez,
neure amore xotiltua galdu dudan beldurrez;
gaoaz lorik ezin daidit haren gogoanbeharrez;
gogoanbehar handi dizit bethe nuien adarrez” (VII, 23-26).

Horra hor, IV. koplatak VII.era bizi izandako eskarmentuak erakutsi diona: *mila dolore* eta batere probetxurik ez.

Zinez, VIII. koplatak aurrera aldaketak daude, baina aldaketa horiek ez dute auzitan jartzen bere eskarmentutik hitz egiten duen “ni” horrek II.

koplan, IV.etik XII.era doazen koplen sortzailatzat jo den "Amorosen gaztiguia"ren hirugarren ahapaldian, ezarri duen tesia: "amoretan plazer baten mila dira dolore". Aitzitik, tesia osatzera datoz.

Tere Irastortzak dioen bezala, bi azpisail bereiz daitezke IV.etik XII.era doan koplak-multzo horretan. Lehen azpisaila IV.etik VII.era doazenek osatuko lukete eta bigarrena, berriz, VIII.etik XII.era doazenek. Tere Irastortzaren-tzat,

"Batean, poeta kexu da bere amoreari zor zaion erantzun-ezagatik. Kasu hauek baldintza ezberdinetan garatzen dira. Behin, esate baterako, dama 'berzerena' delako, hots, ezkondua delako"

Horrela da. Poetaren kexuek, koitek, negarrek betetzen dute lehen azpisail hau. Kexu da bere maitea ezkondua delako, kexu da bere penak azaltzera ere ausartzen ez delako, kexu da maitea "partitzian" malenkoniak harrapatzen duelako, kexu da jelsiak loa bera galerazten diolako. Begi bistakoa denez, kexua darie koplak horiei. Koplak batetik bestera aldatzen dena, kexu-eragile den zirkunstantzia da. Zirkunstantzi-tipoa gaineratu ahal izango litzateke; izan ere, Erdi Aroko errealista eskolastikoen ikuspegia azaltzen du: klaseak atzematen ditu, eta ez objektu partikularrak: maitea ezkondua denean, maiteaz sekretuki maiteminduta egotean, maitea "partitzian" eta abar.

Bigarren azpisail bat berezi zitekeela esan da, VIII.etik XII.era bitartean doazen koplek osatuko luketena, hain zuzen ere. Bigarren azpisail batez hitz egiteko beste alde aurki daiteke. Maila formalean, lehen azpisailean ez bezala, baliapide dramatikoaren erabilerara jo eta, eszenaren bitartez, emakumearen ahotsa zuzenean testuraten da. Lehen azpisailean ahots bakar bat dago, "ni" horrena bakarrik; bigarrenean, berriz, XI. koplak ezik, elkarrizketa bide, bi ahots daude. Dena den, aldea ez da horretara mugatzen: lehen azpisailean kexuak, negarrak, koitak agertu dituen "ni" horrek, orain, VIII.etik XII.era doazen koplak hauetan "medratzea" bilatzen du, probetxuren bat eskuratzea, irabaziren bat izatea.

Egiaz, lehen azpisailean itxuratzen den "ni" hori ez da maitasun platonikoaren erakuskaririk bikainena. Negarra, kexua darion "ni" horrek, beti ere, ordaina gogoan du. Ordaina, berriz, ez da begirada bat, keinu bat, irriño bat... Gisa honetako eskaera gutxi dago, hitz egin nahia azaltzen duen arren. Maitearekin mintzatu nahi horren lekuko dira, adibidez, VI. eta VII. koplak. Honela dio "Amorosen partitzia"n:

* Irastortza, Tere: "Emakumezkoa gizonezkoen literaturan: Euskal Literaturari errepassoa", *Jakin*, 45, 1987, 41. or.

“Minzatzeko zurekila gau bat nahi nikezi,
hilabete konpliturik hura luza baledi,
arranguren khondatzeko asti nuien frangoki,
ezein ere beldur gabe egoiteko zureki” (VI, 15-18).

Edo “Amoros jelosia”n:

“Sekretuki behar dizit harekila minzatu,
ordu hartan jagoitiko ezai ezpa baketu” (VII, 11-12).

Noizbait, oroitzearen ordaina askitzat jotzen du, hala nola “Amorosen partitzia”n:

“penak oro hon lirate, zu bazina orhitzten” (VI, 14).

Baina, horien ondoan aurki daiteke hitz egiteaz edo oroitzeaz harantz doan erreferentziarik. Besterik du gogoan, esaterako, IV.ean, “Ezkonduien Koplak” deritzanean, honakoa adieraztean:

“Alhor hartan hel badakit ereitera hazia,
eta ene bada ere lastoa eta bihia” (IV, 19-20).

“Ni” hori ez da sufrimenduari berezko balioa ematen diona. Ordaina gogoan du eta penak, kexuak agertzen dituen arren, “ezin hilez bizirik” dagoen arren, ez da pena horietan itotzen. Hori baino praktikoagoa da. Horren lekuko da, VII. koplako, “Amoros jelosia”ko seigarren bertso-lerroan “ezin hilez bizirik” zegoen “ni” horrek, azken ahapaldian dioena:

“Jangoikoa, edetazu amoria gogotik
eta haren irudia ene begietarik.
Hark nigana eztaduka unsa leialdaterik,
ni ere elikaturen niz orai hura gaberik;
sarioia da lohitu eta eztut haren beharrik;
nahi badut, ukhenen dut orai ere berririk” (VII, 27-32).

Hogei bertso-lerro aski izan ditu “ezin hilez bizirik” egotetik, hura gabe elikatzeke eta beste bat maitaletzat hartzeko.

Maitasun mundutiar horretan porrot egiten du. Ez ditu bere nahiak esku-ratzen eta hortik bere sufrimenduak. Ondorioz, sufrimenduari berezko baliorik ematen ez dion arren, doloreak, kexuak azaltzen ditu, *mila dolore*: maitea besterena delako, porrotaren beldur, bere maitasuna adieraztera ausartzen ez delako, jelsiak harrapatua duelako... Orain, berriz, VIII.etik XII.era *plazerra* eskuratzera abiatzen da. Jada ez du eskatuko hitz egite edo oroitze soila, bai-zik eta “pota”, edo “amoretan hartzea”, edo “bere nahia egitea” eta hartara behartuko du maitea... Ordaina behar du eta ordaina ez da begirada bat edo

keinu bat. Maitasun mundutiarrak eragindako penak kontatzetik maitasun mundutiarrak gozatzeraz igarotzen da "ni" hori. "Potaz" gozatzeraz, bortxaketa bide gozatzeraz, maitaletzat hartzeko eskatzeraz...

"Ni" horrek argi eta garbi penen ordaina eskatzen du: "nik zugatik dudan penek hura merexi dute" (4) dio VIII. koplari pota galdatzen duenean. Eta emakumearen ezezkoaren aurrean, behartu egingo du:

"nik zer orai nahi baitut, heben duzu egingen" (VIII, 18).

Berdin gertatuko da X. koplari, "Amorosen disputa"n:

"Hebetik joan gabe ene burua
egin behar duzu ene nahia" (X, 57-58).

Hurrengo ahapaldietan azaldutakotik ondoriozta daitekeenez, bete egingo du mehatxua.

Bi koplari hauetan bezala, penen ordaina eskatzen du elkarrizketa oinarritutako beste bietan. Hala dio IX. koplari, "Amorez errekeritzea"n:

"joan duzuna ekhardazu, ezpa eman ordaina" (IX, 4).

Honela, berriz, XII.lean, "Amore gogorraren despita"n:

"othoitze bat banegion larradala egia,
biderikan lizatenez ninzan haren grazian" (XII, 3-4).

Lehenbizi aipatutakoen eta bigarren aipatutakoen artean dagoen alde horakoa da: lehenbizikoetan, bere eskaerak jaso duen ezezkoari jaramonik egin gabe bere nahia asetzen du, bigarrenetan eskaera soilean gelditzen da.

Beraz, IV. koplari XII.era doan segida horretan bi azpisail atzeman daitetzke:

- lehen azpisaila IV.etik VII.era doana. Bertan "ego" baten kexuak entzuten dira. Zirkunstantzi desberdinak bide, bere maitasunak erantzunik jasotzen ez, eta *mila dolore* ditu. Mila dolore horiek kanporatzen ditu.
- bigarren azpisaila VIII.etik XII.era doana. Bertan elkarrizketa da nagusi. Eszenaren bitartez, "ego" horren ahotsa ez-ezik, bere maitearena ere zuzenean entzuten da. "Ego"ak *plazerra* eskatzen du eta ezezko erantzuna jasotzen. Erantzun honen aurrean, birritan behartu egingo du errekeritua, beste bietan eskaera soilean geratzen da.

Maitasun mundutiarraren "ni" honek bizi dituen egoera desberdinek sorrarazten dituzten sentimenduak bi azpimultzotan antolatzen dira: kexuak eta plazer-eskaerak. Areago oraindik, beste elementuren batek ere indar dezake bi azpisail atzematzen hori. Lehen azpisaila deitu dena, bere maitasunak

erantzunik jasotzen ez duelako *mila dolore* kanporatzen dituen azpiatala, gisa honetan amaitzen du, “Amorosen jelsia”ko azken ahapaldia bide:

“Jainkoa, edetazu amoria gogotik
eta haren irudia ene begietarik.
Hark nigana eztaduka unsa leialtaderik,
ni ere elikaturen niz orai hura gaberik;
sarioia da lohitu eta eztut haren beharrik;
nahi badut, ukhenen dut orai ere berririk” (VII, 27-32).

Bigarren azpisaila, berriz, plazer-errekeritzeari lotua dago. Errekeritu ez-ezik, egoera behartuz eskuratu egiten du. Azpisail honi bukaera ematen dion “Amore gogorraren despita” honako bi ahapaldi hauekin ixten da:

“Jangoikoa, mutha ezak, othoi, ene bihotza,
amoriaren, hark bezala, nik eztudan axola;
bortxaz ere gaizki bano hongia egitia hobe da;
nihaurk ere utziren dut hon ezteriztadana” (XII, 49-52).

“Andre faltaz eniz hilen balinba ni lehena;
oroz etsi behar dizit, non baitate hobena;
heki ezin medra naite, bai gal neure arima;
bategatik sarri niro diren oroz arnega” (XII, 53-56).

Eman dezake argitasunik lehen azpisailaren amaiera eta bigarrenarena erkatzeak. Bada hor berdintasun eta desberdintasun esanguratsurik. Biak Jaungoikoari zuzendutako erreguarekin bukatzen dira. Erregu bietan burutik edo bihotzetik maite horren irudia kentzeko eskatzen dio Jaungoikoari. Bietan “ni”ak utzi egiten du maitea: VII.ean dioenez, leial ez zaiolako; XII.ean dioenez, on ez zaiolako. Baina, VII.ena irekita gelditzen da, ez horrela XII.ena. VII.ena irekita gelditzen da, maite berri bat izan dezakeela adierazten duelako; aldiz, XII.ena itxita gelditzen da andre oroz etsitzea onena delako. Honela bada, *mila dolore* kantatu ostean, doloreak dolore, oraindik ez du etsitzen, aitzitik, plazer-eskaera soilen nahiz bortxaz plazer hau eskuratu ondoren, etsi egiten du. Beraz, VII.enean, “Amoros jelsia”n, abentura berrietara irekirik zegoen “ni”ak, abentura orori atea itxiaz amaitzen du XII.enean. Bukatu da maitasun mundutiarrean burututako ibilaldia. Maitasun mundutiarrean egindako ibilaldia helmugara iristean, etsitzeko arrazoiak ematen ditu: “ezin medra naite, bai gal neure arima”. VII.enaren amaieran ezin esan zezakeen “ezin medra naite”; izan ere, honaino doloreak bakarrik kantatu ditu, orain, ordea, erants dezake ez duela irabazirik atera. Aurrekoetan ez bezala, VIII. koplatik XII.erako tarte horretan “medratu” du edo “medratzen” saiatu da. “Medratu” duenean, bortxaz izan da; “medratzen” saiatu denean, frakasa-

tu egin du. Beraz, badirudi, "ezin medra naite" hori bizi izandakoaren ondorio dela, VIII. koplatak XII.era ko tarte horretan jasandako eskarmentuaren ondorio. Dena den, "ezin medra naite" ez da etsitzeko arrazoi bakarra. Bada besterik ere: "bai gal neure arima". Lehen azpisailean *mila doloreak* kantatu dituen "ni" hori, doloretan bizi izan da, plazer apurrik dastatu gabe. Orain, VIII.etik XII.era bitartean probatu du haragiaren xarma, erori da haragizko bekatuan. Haragizko bekatuan erortzeagatik gal dezake arima.

Aurrera jarraitu aurretik, honako ondorio hauetara bil daiteke egindako azalpena:

a) Honela zioen II. koplako, "Amorosen gaztiguia"ko hirugarren ahapaldian:

"Nihaurk ere ukhen dizit zeinbait ere amore,
bana hantik eztut ukhen probetxurik batere
anhitz pena, arima gal, harena eta neuri'ere;
amoretan plazer baten mila dira dolore" (II, 7-10).

Hirugarren ahapaldi honek tesia jarri eta IV.etik XII.era doazen koplek tesi hori frogatuko lukete egindako azalpenaren arabera. Etxepare amplifikazio deritzan teknikaz baliatzen da horretarako: tesia ezarri ondoren, tesi horretan adierazitako ideia zabalago emateko eta errepikatzekeko exenpluak darabiltza. Exenplu bakoitzak zirkunstantzia desberdina azalduko du: besteren emazteaz maiteminduz gero jasaten diren penak, porrotaren beldurraren eraginpean maiteari maite dela adierazten ez zaiolako pairatzen diren sufrimenduak, maitaleak elkarrengandik bereizteak sortzen duen egonezina, jelsiakiak dakarren ondoeza, musua eskatzea, amorez errekeritzia eta abar. Exenplu hauek, zirkunstantzi-tipo desberdin hauek, egoera-klase desberdin hauek frogatzen dute "amoretan plazer baten mila dira dolore". Beraz, ideia, doktrina, ejenplifikatu egiten da. Ideiaren abstrakzioetik exenplu konkretuetara igarotzen da.

b) Ideia abstraktu hori ejenplifikatzeko "ni" batez baliatzen da. Maitasun mundutiarraren ezagutu duela aitortuz, bizi izan dituen gorabeherak ekarriko ditu exenpluetara; izan ere, "Amorosen gaztiguia"ko "nihaurk" horrek bezala, exenpluetan datorren "ni"ak ez du batere probetxurik aterako maitasun mundutiarraren egindako ibilaldian. Beraz, eskarmentutik kontatutako exenpluak dira. Esperientziak emandako indarra daramate. Jadanik azaldu denez, esperientziatik hitz egiten duen "ni" horrek ez dauka zertan bat etorri Etxepare egileak bere bizitzan bizi izandakoarekin.

c) "bana hantik eztut ukhen probetxurik batere; / anhitz pena, arima gal, harena eta neuri'ere" dio "Amorosen gaztiguia"n, eskuratutako uzta neurtze-

rakoan. IV. koplatic XII. koplarteko ibilaldia egin duen “ni” horrek ondo-rio berbera ateratzen du: “heki ezin medra naite, bai gal neure arima;”. Biak, II. koplako “ni”ak eta XII.ekoak, irabazirik ez ateratzea eta arima galtzeko arriskua azpimarratzen dute ia hitz berberekin. Erakusten duten desberdintasun bakarra honakoa da: bigarrenean bi arimei egiten zaie erreferentzia –”harena eta neuri’ere”–, XII.enekoan bakarrari: “ni” horrenari. Baina, bigarrenak bi arimak hartu behar zituen gogoan, gizon-emakumeei zuzendua dagoelako, aurrerago ikusiko denez.

d) Beraz, IV. koplatic XII.era maitasun mundutiarreko gorabeherak zabal kontatu aurretik, “Amorosen gaztiguia”ko hirugarren ahapaldian maitasun honen esparrutik jasotako uzta baloratu duen bezala baloratu duelarik, has dezake II. koplak hau, honakoa esanaz: “Berzek berzerik gogoan eta nik andre dona Maria”. Maitasun mundutiarrak eman dion eskarmentuak eragindako aukera da, “indukziotatik” ateratako “dedukzioa”, zortzi exenpluetan bizi izandakoaren ondorioa.

2.1.2. “Gizonek utzi balitzate, elaidite faltarik”

Maitasuna gaitzat duten gainontzeko koplak guztien iturri-sortzailatzat jotzen “Amorosen gaztiguia” honetako lehen eta hirugarren ahapaldien artean, jakina, beste ahapaldi bat tartekatzen da. Bigarren ahapaldi horretako lehen bertso-lerroan “Amorosak nahi nuke honat beha balite” esanaz hasten da. Amoro sei zuzentzen zaie, amorosen arreta erakarri nahi du, jarraian adieraziko duenez, gaztigu bat, kontseilu bat emateko asmoarekin.

Lehen azpiatalean amoros horietako bati buruz jardun du -gizonezkoaz- eta bigarren azpiatalean osatu du jardun hori. Amorosen arteko gorabeherak bi lagun artekoak izaki, beste partaideaz jardutea falta zitzaion, hots, emakumeaz. Etxeparek ez du ahantzi. Esan denez, VIII, IX, X, eta XII. kopletan maitalearen ahotsa ez-ezik, maitearen ahotsa bera dator zuzenean. Ahots hori bide, emakumea kokatuko du amorosen arteko jokoan.

Jadanik azaldu den bezala, bigarren koplak, “Amorosen gaztiguia”n, maitasun mundutiarra ez-mundutiarrari aurkajarriz, Ama Birjinaren ezaugarriak ematen ditu. Jarraian, hirugarren koplak, hezur-haragizko emakumea ezaugarritzat zera igarotzen da.

“Emaztiak ez gaitz erran ene amorekatik;
gizonek utzi balitzate, elaidite faltarik (III, 1-2).

Anhitz gizon ari bada andrez gaizki erraiten,
arhizki eta desoneski baitituzte aipatzen,

ixilika egoitia ederrago lizate;
andrekin gizonetara bezi hutsik ezin daidite" (III, 3-6).

Amorosen arteko harremana gizon-emakumeen arteko harremana izaki, biek dute erantzunkizuna harreman horretan. Etxeparek, ordea, gizonaren gain jartzen du erantzunkizuna: "gizonek utzi balitzate, elaidite faltarik". Hala erakusten du VIII-XII koplak segidak: gizona da beti errekeritzailea eta inoiz ez emakumea.

VIII. koplak lehenbiziko aldiz elkarrizketaz baliatzen hastean, emakumearen ahotsa zuzenean dakar testura. Horrela, inolako bitartekotasunik gabe, ikus daiteke nola gizonetara musu-eskaerak, apartatzeko erantzuna jasotzen duen emakumearengandik, "enuek uste duiana" erantzen duela.

IX.ean amorez errekeritzen duenean gizonetara:

"Ene maite maitena, egidazu zuzena;
joan duzuna ekhardazu, ezpa eman ordaina" (IX, 3-4)

honakoa erantzuten dio emakumeak:

"Nik dakidan gauzarik ezta dukat zurerik;
lotsaturik jarri nuzu, ezpaitakit zegatik" (IX, 5-6).

X.ean damutua delako baztertzen du emakumeak gizonaren eskaera:

"Nihaurk ere gerthuz maite bazituz,
onerizte gabez uzten etzituz,
bana Jeinkoaren nuzu beldurtu,
sobera digizi egin bekhatu" (X, 11-14).

XII.ean, berriz, ohorea galtzen delako arbuiatzen du gizonaren errekerimendua:

"Gaizki egin dadinian, jendeak sarri dakite,
ene gaizki egitiaz enek laido lukeite;
zu eta ni elgarreki unsa ezin ginate;
zaude ixilik, zoaz horrat eta hobe baitate" (XII, 21-24).

Beraz, oraingoan ere, emakumeaz modu orokorrean diharduen III. koplak, "Emazten fabore"n, ezarri tesia -"gizonek utzi balitzate, elaidite faltarik"- eta VIII.etik XII.era bitartean, XI.ean ezik, anplificatioaren teknika bide frogatu egiten du. Exenpluen bidez erakusten du jarri duen tesia, ejemplikatuz errepikatzen, frogatzen, zabaltzen eta konkretatzen du ideia.

Exenplu horiek agertzen dutenez, gizonaren errekerimenduei ezekoarekin erantzuten die emakumeak. Musu-eskaera proposamen lizuna iruditzen zaio eta, "horietakoa" ez dela argumentatuz, uko egiten dio. Hitz batean,

VIII, IX, X, XII. kopletan argumentu desberdinak ematen ditu errekerimendu horiek arbuiatzeko. Tere Irastortzak dioen bezala:

“Arruntki, errefusatzeko emazteak ematen dituen arrazoiak erlijioso eta sozialak ohi dira, alegia, bere gogoari kanpotik ezarriak. Erlijiosoaren artean, gorputzaren gutuziak Jainkoaren gogoko ez direlako, edo burutuak direnean, damutua delako; besteetan, poetak eskatu bezala harremanak sekretuak izanagatik ere, ezagutuko balira, famaren kaltetan gertatuko liritekeelako (10;11,13); damaren ahotan jartzten dira gizartearen hesiak, askoz espazio gutxiago eskaintzen ziolako emazteari, ezbairik gabe. Gizonezkoari, poetari kasu hauetan, ez zaizkio asko axola kastotasuna eta fama; eta bi bider, behin bestean baino inplizituago agertzen da bortxaketa eta bortxaketa-mehatxua”.

Zinez, emakumezkoaren ahotsean ez bezala, gizonezkoarenean ez da agertzen arrazoi sozialik maitasun mundutiarretik urrutiratzeko: nola kastotasuna hala fama gutxi axola zaizkio. Besterik da etsitzera daramana: irabazirik atera ez izana eta arima galtzeko arriskua. Emakumeari dagokionez, ez da batere harrigarria gizonezkoaren errekerimenduak errefusatzeko arrazoi erlijioez gain sozialak ematea.

Beraz, gizona da beti eskatzailea eta emakumea arrazoi sozial edo erlijiosoetan oinarrituz eskaera horiei ezezkoa ematen diena. Gisa honetan frogatua gelditzen da hirugarren koplean, “Emazten fabore”n, ezarri duen tesia: “Gizonek utzi balitzate, elaidite faltarik”. VIII. kopleatik XII. koplara bitartean eman dituen exenpluek hala erakusten dute. “Indukzio” horiek bide argumentatu du hirugarren koplean modu orokorrean eman duen ideia.

Bi tesi jartzten eta frogatzen ditu Etxeparek. Lehena, “Amorosen gatziguia”n formulatzen duena -“amoretan plazer baten mila dira dolore”- eta bigarrena, “Emazten fabore”n formulatzen duena -“gizonek utzi balitzate, elaidite faltarik”-. Lehenbizikoa da orokorrena, gizon-emakumeen arteko maitasunaren izaeraz diharduelako. Bigarrena, bereziagoa da, partikularragoa. Tesi orokorrean amoreen efektu mingarriak adierazten ditu eta tesi berezian efektu mingarri horiek dituzten amoreen eragilea: gizonezkoa.

Dena den, “gizonek utzi balitzate, elaidite faltarik” badio ere Etxeparek eta, VIII. kopleatik XII.era doazen exenpluek, beti gizona errekeritzaille legez eta emakumea errekerimendu horiei uko eginaz aurkeztuz, tesi hori frogatzen badute ere, bada oinarri komunik jardulea den gizonezkoaren eta amoreez gozatzeko aurrerapausorik ematen ez duen emakumearen artean.

⁹ Irastortza, Tere: op. cit., 42-43. orr.

2. HELBURU DIDAKTIKOA: "AMOROSEN GAZTIGUIA"

Etxeparek gizon-emakumeak urrutiratu nahi ditu maitasun mundutiarretik. Helburu hori lortzeko arrazoi desberdinak jartzen ditu gizon-emakumeen ahotsetan. Gizonak dioenez, "ezin medra naite, bai gal neure arima", emakumeak, berriz, arrazoi sozialak eta erlijiosoak adierazten ditu. Baina, gizon-emakumeek emandako arrazoiek oinarri komun bat erakusten dute: guztiak kanpotik ezarritakoak dira, alegia, norberaren barne-grinatik kanpo gelditzen direnak. Kanpotik ezarritako arrazoi horietan biak bat datoz erlijio-soa aipatzean. Arrazoieta bata eta bestea bereizten dituen honakoa da: gizon-zezkoak "ezin medra naite" dioen lekuan, arrazoi sozialak ematen ditu emakumeak.

Honela bada, giza izaeratik hitz egiten du Etxeparek, gizakiaren barnean gertatzen dena kanporatuz eta irudikatuz. Badaki gizakiak burumuinetan daramala mundua eta haragia. Badaki gizakia prest dagoela deabruari bere burua eskaintzeko mundu eta haragi horren xarma gozatzeagatik. Hori horrela dela jakiteaz gain, badaki ezkontzaren oinarrian ez dagoela maitasuna, baidarik eta komenientzia: ezkontza tratu baten emaitza da. Beraz, gizakiaren izaeratik hitz egite honek daruma kanpo-arrazoietara jotzera eta hauen artean erlijiosotara. Bekatuak, arima galtzeko arriskuak bakarrik urrutira dezake gizakia maitasun mundutiarretik. Arrazoi honi maitasun mundutiarrek eragiten dituen oinazeak gehitzen dizkio gizon-zezkoaren kasuan eta emakumezko-arenean, berriz, ohorea galtzea.

Gizon-emakumeak berdin ikusten ditu Etxeparek beren barne-joeraren ikuspuntutik, ez batak, ez besteak, dio ez duela gogoko maitasun mundutiarra. Gizon-emakumeak maitasun honetatik urrutira daitezten arrazoiak bilatzerakoan barne-joerek eskatzen dutena alde batera utzi eta barne-joera horiek eragiten dituzten kaltetan erreparatzen du: gizona gaisotu egiten du; emakumeak ohorea eta ospea galtzen du eta biek arima galtzen dute: salbazioaren ordez zigorra lortuko dute.

Gisa honetan Etxeparek helburu moralizatzailea duela ondoriozta daiteke. IV. koplatak XII.era maitasun mundutiarrek sorrarazten dituen zorigaitzak izan ditu kantagai. Zorigaitz horiek ikusi dituen amorosak maitasun horretatik urrutiratzea du hoberena. Mezua gardena eta argi-ilunik gabea da: maitasun mundutiarrean ez dago batere irabazirik, galerak betirakoak izan daitezke.

Mezu hori emateko metodo jakin batetaz baliatu da Etxepare. Ikuspegi panoramikotik, "Doktrina Kristiana" eta honen azken otoitza -Ama Birjinari zuzendutakoa- iraganbide, ikuspegi monografikora, "Amorosoen gaztiguia"ra, igarotzen da eta "Emazten fabore"rekin osatzen du ikuspegi monografiko

hori. Monografiarako lezio jakin bat hautatzen du -maitasuna- eta tesi orokor bat ezartzen -“amoretan plazer baten mila dira dolore”-, partikularragoa den beste bat erantsiz -“gizonek utzi balitzate, elaidite faltarik”-. Jarraian lezioa garatzen du, tesiak frogatzen ditu exenpluen bidez. Edozein sermoigilek bezala ilustratu egiten du lezioa. Edozein sermoigilek bezala ideia berbera errepikatzen du, zabalduz ideia hori exenpluak bide. Edozein sermoigile bezala doktrinaz eta doktrina hori eskuragarriago egingo duten exenpluez baliatzen da, baina ez edozein sermoigile bezala. Zinez, ez edozein sermoigile bezala. Ez bakarrik sermoi hori edozein sermoigileren eskura ez dagoen egituratze-modu landuan dagoelako, baita sermoi hori taxutzeko darabilen bidearengatik ere. Honako bidea darabil Etxeparek: doktrina - doktrinaren atal bat, maitasuna: maitasun betegina, benetako maitasuna, IZAN BEHAR DUENA - maitasun ez betegina, maitasun faltsua, IZAN BEHAR EZ DUENA.

Etxepare elizgizona gizaki mundutiarra abisatzera, aholkatzera bideratzen da. Haragizko maitasunaren armiarma-sarean harrapatuta dagoen euskalduna gaztigatu nahi du sare horretatik irten eta Ama Birjinaren maitasunarengatik ordezka dezan. Honela bada, gaurko jardunaldiari jarritako izenburura itzuliaz, zilegi bedi berau errepikatuz amaitzea: maitasun mundutiarra Etxeparerengan: “baskoen gaztiguia”.

JUDIT ETA HOLOPHERMA PASTORALAZ ETA GAI BEREKO ANTZERKIEZ MENDEBALDEKO LITERATURETAN

P. Urkizu

*Judit*¹, *Judith*², *Judiq*³ edo *Judich*⁴, - lau modu ezberdin hauetan ageri zaigu literatura neolatinoetan eta euskaldunean-, hebraieraz *Yehudith* eta grekeraz *Ιουδιθ* dena, eta euskarara itzulita *Maite* litzatekeen heroinaren izena.

Judit izenak, nolazpait esatearren, pertsona zehatz, konkretu eta berezirik izendatzen ez duenez, bere herria salbatzearen sakrifikatze prest dagoen andere juduaren sinboloa lirudike. Haundia eta boteretsuaren aurka altxatzen den ttipiaren eta menpekoaren irudia da, beraz, eta beraxe da, hain zuzen, lantxo honen aztergaia.

Judit eta Holopherma-ren ixtorioak, -honelaxe idazten baititu pertsonaia nagusien izenak Baionako Euskal Erakustegiko eskuzkribuaren pastoralak-, Bibliako gai ezagun bat tratatzen du. Kontatzen digu nola Bethuliako hiria siriarrak setiatuak zeukatenean, bere pietate, aberastasun eta edertasunagatik ezaguna zen alargun batek, Juditek, haserre bere herritar kideek hiria etsaiaren esku uzteko prest zeudelako, hauen jenerala zen Holopherma liluratu ondo-

¹ Baionako Euskal Museoa. MS 63-2, *Moisa, Josue eta Judit*, f.21(Aurrerantzean Ba). Honela ere ematen du Elizen Arteko Biblia-k (Aurrerantzean EAB), Bilbo 1994, 1236.

² *Bible saindua*. Itz. Jean Duvoisin. Londres, 1859-65, 502.

³ Bordeleko Liburutegi Municipalak, MS 1692-18, *Oloferne eta Judiq*, f. 179. (Aurrerantzean Bo).

⁴ Jean Molinet (?) *Le Mystère de Judith et Holoférne*. Une édition critique de l'une des parties du *Mistère du Viel Testament*, avec une introduction et des notes par Graham A. Runnalls. Droz, Genève, 1995, 125.

ren, honen oihal dendan sartu zen, eta mozkortu ondoren galaia, ohorea galdu gabe lepoa moztu zion. Hiriko murrueen gain batean burua zintzilikatu eta erasora hirikideak bultzaturik, asiriarrak ihesari eman zion, bethuliarrek etsaien artean sarraski handia eta hauen ondasunez jabe eginez. Ixtorioa Juditen kantu batekin amaitzen da Jainkoari eskerrak emanez.

Testu orijinalaren egilearen berririk ez daukagu. Ez dakigu nork eta noiz zehazki idatzi zuen, baina EAB-ren arabera K.a. II. mendearen erdialdean biziko zen egilea, garai honetan Palestina arrotzen erasopean aurkitzen baitzen. Beste esejeta batzuen arabera, aldiz, Antiochus Epiphanoren pertsekuzio garaian K. a. (215-163), hau da, Jerusalemeko tenploa erasotu eta hustutakotan Matatias Makabeo eta honen seme Judas altxatu ziren denboretan idatzi zen obra hau, hain zuzen.

Lehenik arameoz edota hebraieraz idatzia izanzen zen seguruenik, baina orijinala galdua delarik, dakiguna da grekerazko itzulpenaren bidez iritsi zai-gula, alegia, Hirurogeita Hamarren testu ezagunaren medioz. San Jeronimok jaso zuen Vulgata delakoan zenbait aldaerez, eta Deuterokanonikoak deitu liburuetan kokatua eta erantsia izan da hebraierazko Bibliari, baina apokrifo-tzat joa izan da judutarren eta protestanteen artean.

Ixtorio hau hamasei kapitulutan idatzia da, eta bere helburua, ematen duen datu historiko eta geografikoen zehaztasun eza nabarmena izanik (Adi-bidez, Nabukodonosor Ninibeko erregea zela dio, baina izan, Babiloniako errege izan zen K.a. 604-562 urte bitartean, eta ordurako Asiriako inperioa hondatua zegoen jada, eta Holophermaren guda Ninivetik Damaskoraino geografari egindako desafioa da. Ezin daiteke Bethulia kokatu, zeinek hebraieraz *Jainkoaren atea* esan nahi duen, eta beste), diot, beraz, bere helburua otoitzaren indarra zein handia den agertzea, eta Moisesaren legeari leial izateak zenbat balio duen adieraztea dela.

Hau da, judutarrei une tragiko eta garratzetan kuraia eta indarra ematea dela ixtorioaren helburu, xede eta jomuga, eta bere egitura kontakizun miresgarrietakoena bezalaxe dela⁵. Setiatuak direlarik eta egarriaz erdi-hilik heroe bat agertzen da, - emakume eder, argi eta aberatsa-, laguntza magiaduna benetan, eta inolako arazorik gabe liluratzen du honek etsaien burua, zein ohean erortzen zaio ardoak erdi itota. Beraz, Judit heroinari alfanjea hartzea eta fatuei obeditzea besterik ez zaio gelditzen.

Ixtorioari darion ikaskizuna, ipuin anitzetako moralaren antzekoa da, hau da, herri literaturetan ageri dena konpentsazio moduan. Txikia garaile.

⁵ Marcelle Enderlé, "Judith", *Dictionnaire des mythes littéraires*. Sous la direction de P. Brunel. Ed. Du Rocher, Monaco, 1988, 848.

David eta Goliat. Eta testu osoa antitesi honetan eraikirik dago, ahula eta indartsuaren arteko kontrajartzean.

Lehen kapituluetan asiriarrak armadaren botere eta indarra ageri zaigu, eta bestalde bethuliarren eta Juditen ahultasuna. Baina indarren bideratze alde-rantzizkoa emango da, eta emakume judua indartsu bilakatuko bere edertasu-naren eta adimenaren poderioz, aldiz, Holophermari bere harrotasun eta balentria guztiak ahuleria eta ezdeustasuna bihurtuko zaizkio. Hona liburua-ren azken partean nola agertzen zaigun hau:

*Haien buruzagia ez zuten
gudari gazteek bota,
ez titanek zauritu,
ez erraldoiek garaitu,
baizik eta Juditek,
Merariren alabak,
zuen menperatu
bere aurpegi ederraz.
Alargun soinekoa erantzi zuen,
israeldar atsekabetuak
jaikiarazteko.
Usaingarriez igurtzi zuen aurpegia,
xingolaz lotu ile-adatsa
eta lihozko soinekoa jantzi,
etsaia liluratzeko.
Juditen sandaliek
begiak erakarri zizkioten
eta haren edertasunak txoratu.
Ezpataz lepoa moztu zion!⁶*

Mendebaldeko literatur tradizioak, - itxorioaz mintzo diren poema, narrazio eta antzerkiek-, esanahi hau ematen dio obrari bederen XIX. mende-rarte, eta hauen aldakizunak azkenerako utziko ditugularik, goazen aurkezte-ra zein nolako moduz agertu zen Judit testu hauetan.

Kristau sinbolismoaren munduarentzat Judit, Bethuliako alargun ausart, eder eta aberatsa, Elizaren irudia litzateke. Jesukristoren esposa moduan Satanen kontra borrokan, edota Ama Birjina antzera sugerean burua zapal-tzen. Erdi aroan, beraz, Juditek Jerusalemgo loria, Israelgo bozkarioa, eta Jainkoaren herriaren salbamendua irudikatuko luke.

⁶ EAB, kap. 16, 6-10; 1252.

Ingeles literaturako poesia zaharrea aurkitzen dugu, hain zuzen X. mendean idatzitako hirurehun eta berrogeita hamar bertsoerren dituen *Judit* izeneko poema, zein *Beowulf* poema epikoarekin batera iritsi zaigun British Museum-eko eskuzkribu batean. Batzuen ustez Caedmon delako batek izkribatu zuen. Konparazioak egiten hasi eta poematxoak balirudike anglosaxoiak bikingoen aurka egindakoen gerlen gertaldi bat loriatuko lukeela eta prezizki Alfredo erregearen alaba Aethelflaed-en azainak, zeinek 718. urtean kuraioski borrokatu zituen danesak, *Anglosaxoien Kronikak* dioskunaren arabera. Guillermo Malmesburyk *pavor hostium, favor civium*, hots, etsaien beldur eta hiritarren lagun, bezala deskribatu zuen emazte baliente hura. Eta arrakasta izan zuen pertsonaiak, zeren Geofrrey Chaucer-ek (1340-1400 ing.) berak *The Canterbury Tales*-eko *Monk's Tale*-n bertso hauek eskaini zizkion:

2571 *Judith, a womann, as he lay upright*
Slepyng, his heed of smoot and from his tente
Ful pryvely she stal from every wight
*And with his heed unto hir toun she wente*⁷.

[Judit andereak burua moztu zion lo zelarik, eta ikusi gabe handik desagertu zen, bere hirira eramanez jeneralaren burua zaku batean sartuta]

Alemaniko Renania aldean idatzi zuen ere Spielmann juglarrak XII. mendean, hamabi bertsoetako poematxo bat, *Die ältere Judit*, tituluduna, hots, *Antzinako Judit*. Eta Bibliaren arabera idatzirik izan arren, nola bestela, ageri dira zenbait puntu berri bertan, hala nola heroinari Jainkoak bidalitako aingerua, eta gaia germanizatu samarra. Ixtorio hau kontsideratu egin izan da gainera, Alemaniar herri baladen artean zaharrena, bertan agertzen zaigularik kristautasunaren eta paganismoaren arteko bataila eta Juditek haren alde hartzen duen parte.

Badira beste poema batzuek alemanez gaiaz, hala nola apaiz austriako batek idatzia 1140. inguruan, *Die jüngere Judith* deitu izan dena, hots, *Judit gaztea*, eta 2814 bertsoerren dituen poema mistiko-alegorikoa 1304. urtean idatzia, non teutonen ordenaren erlijio-gudetako heroina gisara aurkezten zaigun.

Sinboloa uneko beharkizunetara egokitzen da, noski.

Marko Maruli (1450-1524) Spliten jaiotako humanista, poeta eta historialari kroatak, *-Regnum Dalmatiae et Croatiae gestae-* liburuaren egileak, *Judit* tituludun poema epikoa sei kantu hamabisilabadunetan eta barne errimadunetan idatzi zuen eta 1521ean argitaratu. Egile honek ere bi helburu nahi ditu

⁷ Geoffrey Chaucer, *The Canterbury Tales*. II. Alhambra, Madrid, ed. 1983, 189.

batu, alde batetik erlijiosoa eta bestetik politikoa, bere aberriaren aldekoa, eta zehazki turkiar dominazioaren kontrakoa, ezagunena den *Molitva suprotiva Turkom* bere poemaren arabera.

Jean Molinet (1435-1507), Pas-de Calais-en jaio, Parisen ikasketak egin eta Bourgogneko Korteko kronista urte luzez izan zenak idatzi zuen, Runnalls kritikariaren arabera, 1500. urte inguruan argitaratu zen *Mistère du Viel Testament* delakoa. Misterio hau ez da batere laburra, zeren 49.386 bertsolerro besterik ez ditu, eta Pierre le Dru-k inprimatua izan zen Geoffray de Marnef-entzat Parisen, honen parte bat delarik *Judith et Holofernés* antzerkia, 279-299 orriak osatzen dutena eta Rothschild-en edizioan⁸ 41.856-44.325 bertsolerroak, beraz, 2470 bertsolerro.

Antza denez, zati hau besteekin batera jokatu izan zen Parisen arrakastaz, eta geroago, 1541ean berriro Pasioaren Kofradiak taularatu zuen *Mystères des Actes des Apostres*-ekin batera. Halaber, Le Puy en Velay-en 1585ean antzeztu zuten Mendekozte egunean, arrakasta handiz bi egunetan.

Jacques Morel-ek⁹ kontatzen digu ere nola 1549an Tournai-n (Belgika) Felipe II.aren aitzinean antzeztu zen *Judith* bat, non jokalaritza trabaestituak, hau da, emakume bezala jokatzeko antzezleak, egiantzekotasunaren izenean heriotzera kondenaturik zegoen eta Holopherneren papera une batez hartu zuena, hil zuen zuzen-zuzenean ikusle goaren aitzinean. Odola gogoko zuten, antza, ikusleek.

Dena den, Runnalls-ek dioskunez, Molinet-en 1500-go edizioan nabari da militarren aurkako satira, gerraren kontrako aldarrikatzea, eta bakezko erresistentziaren aldeko oihua bertso honetan bezala:

Il n'est tresor au monde que de paix (v.200).

Eta Omer Jodogne kritikariak modu anakronikoan obseso sexualtzat eta erotomanotzat hartu arren Molinet, balirudike Runnalls-ekin beti, haren obretan nahasten diren groteskoa eta sublimea garaiaren araberrakoa direla, eta kontsidera daitekeela antzerkigile eta kronista handi hura, Jean Molinet diot, Rabelais-en aitzindari.

Hartweg¹⁰ kritikaria Errenazimendu garaian protestanteen artean emandako eskola-antzerkiaren mintzo zaigularik, Sixt Birck-ek latinez 1536an idatzi-

⁸ Rothschild, le Baron James de, et Emile Picot, eds., *Le Mistère du Viel Testament*, SATF, 6 vols, Firmin Didot: Paris, 1878-1891.

⁹ Jacques Morel, "Le théâtre français. La Renaissance. Survivances Médiévales", *Histoire des spectacles*. La Pléiade, Tours, 1965, 738.

¹⁰ Frédéric Hartweg, "Le drame scolaire protestant en Allemagne: aspects généraux et épauouissement en Alsace", *Aspects du théâtre populaire en Europe au XVIème siècle*, par J.Cl. Aubailly et al., Société française des seizièmeistes. CNL, Paris, 1989, 119-141.

tako drama aipatzen digu, zein hiru urte geroago alemanez plazaratu zuen. Esaten digu ere, nola Luterok 1534ean *Liburu Biblikoak* lanean, Judit, Esther, Tobia, Daniel eta Susana obrak aurkeztean, pertsonai hauek hobesten dituen drama-gai gisara, eta nola Juditen aitzin-solasean hipotesi hau adierazten zuen, argi eta garbi, alegia, giriztinoen moduan eta Pasioko Jokoen eran juduek ere Judit taularatuko zuketela:

Und mag sein, dab sie [les Juifs] sölch geticht [Judith] gespielt haben, wie man bey uns die passion spilet und ander heiligen geschicht, damit sie yhr volk und die Jugent lehreten, als in einem gemeinem bilde, oder spiel, Gott vertrauwen, from sein, und alle hülff und trost von Gott hoffen, in allen nöten, wider alle feinde.

Eta nola Judit pertsonaia baitan tragedia gai benetan interesgarria ediren zitekeen bezala, Tobia baitan komediarena aurki zitekeen.

Lurralde ezberdinetan eskola protestanteetan antzertiak aldaerak izan zituen, daitezkeenak agian sustrato ezberdinen tradizioaren eraginez baldintzatuak. Hala, Saxe aldean Joachim Greff Zwickau-ko antzerkigilea aurkitzen dugu, zeinek batik-bat Magdeburgon lan egin zuen, eta 1536an Wittemberg-en *Judith* moldiztegiratu.

Aipatu dugun Birck-ek Suizatik, -non erdi aroko jokoak bizi-bizi eta indartsu kontserbatu ziren dotrina berriekin kontradikzioan erortzen ez ziren bitartean, eta non Zwingli aski kontserbatzaile agertu zen gaiarekiko-, Ausburgora iraganean testamendu zaharreko gaiak maiz plazaratu zituen.

Halaber Austrian Wolfgang Schmeltzl teatrogileak (1500-1560 ing.), *Judith* (1542), *die hochzeit Cana Galilea* (1543), *David und Goliath* (1545), *Samuel und Saul* (1551) eta beste gai bibliko taularazi zituen..

Drama protestanteak, beraz, lurralde ezberdinetan Biblian ageri gaiak maiz erabili zituen, eta adibidez, loraldi berantiarra ezagutu zuen Zittau-ko erretorea izan zen Christian Weise-rekin (1642-1708). Honek berrogeita hamabost obra bederen idatzi zituen, ikasleek antzez zezaten, hiru urtero: komedia bat, drama bibliko bat eta historia gai bat. Argien mendeko helburu pedagogikoen aitzindari gertatu zen gainera, zeren teatroaren medioz hizkuntza alemana bere dotoretasunean mantentzea bilatzen zuen, solasaren arintasuna lantzea, hiritar betebeharrak eta eskubideen heziketa, epai zuzena emateko gaitasuna, eta jakite praktikoa. Eta balio guzti hauek errealismorantz jotzen zuten antzerkien bitartez.

Frantzian Salluste du Bartas-ek (1544-1590), Henri IVaren adiskide eta hugonote sutsuari Joana Albretekoak, Nafarroako erregearen alargunak, Judith bat eskatu zion 1564ean, zeren iruditzen zitzaion Nafarroako erresumaren egoera Bethuliaren antzekoa, eta Joana bera Juditen pareko, François

de Guise dukearen aitzinean, zein Orléans-eko sitioan hil zen, Holofernesen moduan. Beraz, moralista gogor eta zorrotz zen du Bartasi bere dotrinakideen alde egiteko balio izan zion Bordelen 1574ean argitaratu zuen *Judith, La Muse chrétienne*, poema haundiak, zein anitz estimatu izan zuten, besteak beste, Tasso, Milton eta Goethe poeta handiek.

Mireille Herr-ek¹¹ ikertzerakoan Juditen ixtoriotik sortutako tragediak literatur frantsesean batik-bat, aipatzen dizkigu bidenabar Alemanian eta Italian izan zuen garrantzia oratorio eta opera bidez, eta Boyer-en tragedia (1695) agertu aitzineko hamartean bederen hiru lan italiar, hots, hiru *Giuditta* ezberdin plazaratuak izan zirela. Baina baita ere Juditen ekintzak, alegia, tiranoaren hiltzeak zalantza moral eta politikoak sortu zituela, eta Bayle-k bere hiztegian (1697) honakoa idazten zuela: *cette histoire une fois prise pour cano-nique encourage les assassins à tout entreprendre contre la vie des rois ennemis*. Hau da, kakonikotzat hartzen zen heinean ixtorioak bultza zitzakeela hiltzai-leak edozer gauza egitera etsaien erregeak hiltzeko.

Boyer-ek bezala Poncy de Neuville-k 1726an, eta Jean Baptiste Lacostek 1763an, beste askoren artean antzeztarazi zuten Judith frantses ikuskizunte-gietan, eta badirudi beti gerraren bat bizi zenean Frantzia, pertsonaiaren alde patriotikoak azpimarratzen zirela gehiago, beste Jeanne d'Arc balitz bezala.

Bestalde, obra batzuetan Holopherma pertsonaia tragikoa erakargarriegi edota atseginegia bezala ageri zen, eta hari honetatik tiraka aterako diote gai-ari beste ikuspegi eta etekina antzerkigile modernoek, hauen artean, Hebbel, Bernstein eta Giraudoux-ek.

Gaia beste ikuspegi ezberdin batetik, aldiz, jesuiten gogoko izan zen guz-tiz, latinez kolejoetan antzezten ziren obretan, batik bat ikasturtea bukatzen zenean ikasketa-sariak emateko unean.

Anatole le Braz, bretoi antzertiko kritikariak ere esaten digunez, Judit eta Holofermesen ixtoria bretoi literaturan kantu ispirital baten bitartez dago errepresentatua, zein era berean misterio galduren baten zatitxo bat izan dai-tekeen. Hona frantses bertsoak Holofernesen eskaintza agertuz:

*Entrez, Madame, entrez ici,
Venez voir mes trésors immenses.
Ce seront vos trésors aussi,
gardez la clef de mes finances;
Je m'en vais dresser un édit
Qu'on laisse aller partout Judith*¹².

¹¹ Mireille Herr, "Les tragédies tirées de l'histoire de Judith", *Les tragédies bibliques au XVIIIe siècle*. Champion-Slatkine, Paris-Genève, 1988, 165-195.

¹² Anatole le Braz, *Le Théâtre Celtique*, Reéd. Slatkine, Genève, Paris, 1981, 281.

Italian Federico Della Valle (1560-1628) Alfieri aurreko tragediagile handietarikoa da, eta estilo barrokoz idatziak diren bere obretan Kontrarreformako izpirituairen ideiak ageriz, tragedia titulu hauexek aurki daitezke: *Eskoziaiko erregina* (1594), *Judith* eta *Esther*(1627). Azken hauek Milanen argitaratuak.

Espainian Felipe Godinez¹³, dramaturgo sevillanoak XVII. mendean *Judit y Olofernes* tituludun obra idatzi zuen ere, eta izenik gabeko jenio batek, *El sitio de Betulia*¹⁴. Halaber ez dira falta erromantzeak gaia tratatuz, hala nola Juan Bautista Aguilarrek idatzitakoa, *A Judith en su glorioso triunfo*¹⁵. Ez eta *pliegos de cordel*, edo soka batez loturiko orritxoak, bertso paperak gaiaren inguruan, hala nola 1779an Madriden Joseph Manuelek¹⁶ plazaratuak.

Katalunyan bada ere antzerki bat katalanez idatzia, *Representació de Judit* deitua, 830 bertsolerro dituena, eta Ferran Huertak argitaratua¹⁷.

XVII eta XVIII. mendeetan opera eta oratorio anitz konposatu ziren gaia aitzakizat hartuz. Hala anonimo batek ingelesez (*Holofernes*, 1633), beste anonimo batek (*Siege of Bethulia*, 1732), Marc-Antoine Charpentier (*Judith sive Bethulia liberata oratorio*, Vulgatan oinarrituz), Opitz (*Judith*, Breslau, 1635, alemanez), Tomasini (*Giuditta guerriera*, 1701), Vivaldi (*Juditha Triumphans*, Cassettiren latinezko libreto batean oinarrituz, 1713), Orlandini (*Giuditta*, 1723), Cimarosa (*Giuditta, azione sacra*, 1770) eta Salieri-ren eskutik, azken hau Metastasioren libreto batean oinarrituz.

Vivaldirenak badu zati berezi bat, hau da, bukaeraldeko *carmen allegoricum* bat, non argi eta garbi adierazten den Bethuliak dituela menperatu paganoak (alegia, Veneziak turkoak) eta erasotutako Eliza errepresentatzen duela.

Gaia, beraz, ohi bezala eguneratzen saiatzen da.

Ixtorioaren kalitate dramatiko eta didaktikoeak argitzen dute zergatik hain erabilia izan zen kontraerreformako pintoreetan gaia. Gherardo delle Notti, Gidoti, Tiépolo, Mantegna, Piazzetta, Tintoretto, Vouet, Valentin de Boulogne, C. Allori, Caravaggio, Michaelo Angelo, Roselli, Rubens, Tiziano, Veronés, Gentileschi, Saraceni...izan ziren pintoretariko batzuek...

¹³ Cayetano Alberto de la Barrera y Leirado, *Catálogo bibliográfico y biográfico del Teatro Antiguo Español desde sus orígenes hasta mediados del siglo XVIII*. Tamesis Books limited. London, Reimpresión 1968.

¹⁴ *Comedias Nuevas de los más célebres Autores y realzados ingenios de España...* Amsterdam, David García, 1726.

¹⁵ *Varias hermosas flores del Parnaso...* Valencia, Francisco Mestre, 1680.

¹⁶ Joseph Manuel, *Historia Verdadera y sagrada de la gloria de Bethulia, Judith contra Holofernes*. Madrid, Manuel Martín, 1779.

¹⁷ "Representació de Judit", *Teatre Bíblic. Antic Testament*. A cura de Ferran Huerta Viñas, Barcelona, 1976, 201-235.

XIX. mendean bibliaren gaien erabileran aldaketa nabarmena ageri da.

Friderich Hebbel-k, adibidez, 1841ean plazaratu *Judith*-en, kontsideratzen du heroinaren jokaera ezin zela konprenitu arima guztiz birjina baten-gandik iritsita, honek bere indarra eta araztasuna ekintzarekin batera galduko zukeelako. Hebbel-en Judith-a alarguna da, baina bere ezkontza burutugabea duena, eta sentitzen duena Holopherma bakarrik dela duin, berarentzat modukoa, bere amodioa merezi duena. Hiltzen duenean, ordea, hogenik gabe eta Jainkoaren borondatea betetzen duelarik, honen etsaia hil duela dirudien arren, berak badaki bere barnean krimena burutu duenean arrazoi sakratuak ahanntzi dituela, eta soilik ofentsa pertsonala mendekatzen saiatu dela. Beraz, kulparen inguruan kokatu du gaia Hebbel-ek beste obretan legez, non Judith-ek luzaroan ama izatea bere buruari ukatu ondoren, zeruari eskatzen dion agor bilaka dezan, monstro bat erditu baino lehen, zeren monstroarekin etzan baitzen. Hemen, beraz, grinek eta sensualtasunaren arrazoinek justifikatzen dute psikologikoki ekintza, arrazoi erlijioso eta patriotikoak baino areago. Bere burua errudun aurkitzen du Juditek, Holopherma hiltzean lege naturalaren aurka jo duelako, arrazoi pertsonalengatik obratu duelako, eta beraren duin zen pertsona bakarra hil duelako.

Hebbel-en obrak arrakasta haundia izan zuen eta gaztelaniara ere itzulia izan zen Rikardo Baezaren eskutik¹⁸ XX. mende hasieran, zeinek hitzaurrean dioen Nietzschek ezagutu izan balu, dudarik gabe Holofernes pertsonaia supergizonaren aitzindari bezala hartuko zukeela.

Hona Judithen hitzak Mirza mirabeari hilketa burutzerakoan:

Eta bera lotan goxo-goxo, asmatu gabe bere kontra ari dela lanean herio bere ezpataz. Lo goxo-goxo... Ah, bihotz ahuleko andrea, haserretu beharko zintuenak konpasioz betetzen ote zaitu? Lo ezti hori, halako unearen ondoren, ez al da agian irainik handiena? Xinaurriaren antzeko ote naiz ni zanpa nazaten, eta gero, deusere gertatu izan ez balitz bezala, lasai lotara joan daitezen? Ez, ez naiz ni xinaurria!

(Ezpata maginatik ateratzen du)

Irrifarrez datza.... Ezagutzen dut infernuko irri hori. Halaxeko irria zeukan bere bularraren kontra ninderamanean.... Akaba ezazu, Judith, berriro ametsetan desohoratzen ari zaizu, eta bere amets maltzurrak zure lotsa handiagotzen du!... Mugitzen hasi da. Zalantzan

¹⁸ Federico Hebbel, *Judith, tragedia en cinco actos*. Estudio preliminar de Jacinto Grau y prólogo de Ricardo Baeza. Trad. De R. Baeza y K. Rosemberg. Atenea, Madrid, 1918.

*egon behar al duzu esnatu eta berriz desioaren suak harturik berriro-
ki berea egin zaitzan arte?...*

(Kolpe batez Holofernesi burua mozten dio)

*Ikusten duzu Mirza? Hemen dago bere burua! A, Holofernes!
Orain nitaz arduratuko ote zara?*

Hebbel-en antzerkia Juditen hitz hauekin bukatzen da, bere herriko agin-
tariengandik promesa lortu ondoren berak eskatzen duenean hil egingo dutela:

*Ez dut nahi erditu Holofernesen semerik! Jainkoak nahi beza
agorturik egon dadila ene sabela! Agian nitaz urrikituko da!*

George Kaiser-en *Die jüdische Witwe-n* (Alargun judua, 1911), tragedia
komedia bilakatu bide da, Freud-en eraginez. Honen arabera, bethuliarrek
Jainkoaren haserrea bereganatzeko egin duten hogena da, Judith, hamabi urte-
ko haurra ezkontzan eman diotela Manases zaharrari, zein birjina utziz hil
den. Orduan Judith Zaharrek bidaltzen dizkioten bi gazteek betetzen ez dute-
nez, etsaiengana doa, ez bere herria mendekatzeko, andere sentiarazi eta bila-
katuko duen gizon baten bila baizik.

Henri Bernstein-ek ere (1876-1953) ikuspegi moderno batetik helduko
dio gaiari, eta bai *Judith*-en (1922) bai beste antzerkietan intrigari psikologia
gailenduko zaio, eta azkenean bere antzerti osoa interpretearen nortasunaren
menpe utziko du. Juditengan anderearen hoztasuna, eta sensualtasun eza sala-
tuko du, eta amorantea hiltzen badu bere independentzia gordetzeagatik, eta
maitasunaren umiliaziotik aske izatearren izanen da. Bernsteinen helburua,
ordea, Kaiser-enaren kontrakoa da, zeren Lehen Gerla Handiaren ondoren
Juduek bizi zuten egoera tragikoa salatu nahi zion ikuslegoari.

Jean Giraudoux-ek (1882-1944) bere *Judith*-en (1931) ageri dituen gai
filosofikoak ez dute gauza handirik ikusteko Bibliakoekin. Judit hemen goi
burgesiako andere harro, argi eta liberatu bat da. Jainkoak abandonatutako
biktima lehenik, lotsak bentzututakoa giza-amodioak errejeneratu aurretik,
sutsua esaltzoraino, iraultzailea, bere barne-barneraino traditua, eta azken
finean saindutasunaren zamapean dagoen emakumea.

Hebell-en Judith bere burua hogenaren, kulparen pisuaren tragediarekin
bizi bada bere herria eta misioa traditzeagatik, Judith frantsesa harro eta boz-
karioz dago espreski ez duelako obratu arrazoi pertsonalengatik baizik, eta ez
dituelako kontutan hartu ez bere herria, ez eta bere Jainkoa. Judutar ahul eta
epel den bere senargaiari frogatu nahi dio Juditek, eta bere buruari ere bai,
bere gorputza Holofermari eskaintzean hain dela hau ekintza itsusi, ziztrin
eta gogaikarria, bera bezala neurritz kanpo eta aske den pertsona bati soilik
dagokion ekintza dela.

Giraudoux-ek Bibliako ixtoria desakralizatu nahi izan du, eta Judith ageri zaigu Holophermaren aurrean, - ez dena harroputz bat Hebell-en obran bezala, Don Juan kortes, esperimentatu, eta poeta denaren aitzinean baizik-, lilitaturik, seduziturik eta prest inolako gogoetarik gabe, zorion une haiek gozatzeko. Eta larrua jo eta gero hiltzen baldin badu, inolako aldaeretik bere amodio bete hura kontserbatzearren da, eternitateko balioa ematearren. Baina azkenean heroina bezala hartu nahi duen boterearen aurrean isildu egingo da eta indibiduoaren egiaren gainetik mitoa bizirik aterako da, onartzen baitu boteretsuek beren helburuetarako erabil dezaten .

Espanian gaztelaniaz Pedro Lain Entralgok gaia ukitzerakoan, *Judith 44*, izeneko lana burutuko du, non naziek okupatutako Frantzia kokatu duen tragedia. Hemen Judit Bloch industrial aberats baten alarguna izango da, eta bere koinata Estherrekin batera, juduak ez izanik hauen aldeko, heroinak bezala ageri dira, baina azkenean Judith eskuak odolez zikindu duenaren kezka, zalantza eta kulpa kontzientziarekin geldituko da¹⁹.

Halaber Pedro Salinasek badauka beste antzerki bat izen berarekin, *Judit y el tirano*, 1945. urte inguruan idatzia desterruan, Cuban 1951ean antzeztua eta 1992an argitaratua bere beste antzerkiekin batera²⁰. Unamuno eta Pirandelloren eraginez, pertsonaiak, tiranoak, bi nortasunen artean hautatu beharko du, gizon gizatiarrarena ala tiranoarena, eta lehenengoaren aldeko ahaleginak egin arren, bigarrena gailenduko zaio. Ekintza Europako lurraldean hiriburu batean gertatzen da eta aro garaikidean.

Rolando Steiner (1936), idazle nikaraguensea, beste zenbaitekin bere herrialdeko antzertia berritzen ahalegindu zen mito klasikoak eguneratuz eta egokituz, hala nola, *Judit* (1958) eta *Antigona en el infierno* (1959) antzerkiekin.

Josep Maria de Sagarra (1894-1961) idazle katalanak bere obra askoren artean 1929an bi obra ezberdin antzeztarazi zituen. Bata, *La filla del Carmesi*, arrakasta handiz, eta bestea, *Judith*, baina honek oso harrera eskasa izan zuen ikusle goaren aldetik, zeren, antza denez, soilik ongi erantzuten zion bertsoan idazten zuen antzerkiari eta ez hitz lauzkoari.

XX. mendean teatroan ez ezik beste mendeetan bezala operan ere arrakasta handia izanen du gaiak. Hala musikari vienesa den Emil Nikolaus von Reznicek (1860-1944) bi ekitaldiko opera sortu zuen *Holofernes* titulupean. Hemen Juditek aitortzen du Holofernes izan dela bere bizitzako amodioa, baina burua moztu eta betuliarrei erakutsitakoan eta hauek goraiatu eta oho-

¹⁹ Pedro Laín Entralgo, *Tan sólo hombres. Cuatro dramas*. Introducción Ricardo Doménech. Austral, Madrid, 1991, 89-153.

²⁰ Pedro Salinas, "Judit y el tirano", *Teatro completo*. Ed. De Pilar Moraleda. Sevilla, Alfar, 1992, 363-411.

ratu ondoren herriaren askatzaile bezala, bere buruaz beste eginen du, sabelean daraman Holofernesen semea ez erditzearren. Hau da, Hebbel-en eragina nabarmentzen da.

Arthur Honegger-ek halaberetsu René Morax-en libreto baten oinarriturik antzokiratu zuen 1925ean Suizan, eta hurrengo urtean opera bilakatua Monte-Carlon. Obra honetan azpimarraturik izan da bere lirikotasuna eta modernotasuna, hala nola abesbatzen indarra kantuetan: *Birjinen Kantua*, *Batailako Kantua* eta *Garaipeneko Kantua*-n.

Baina itzul gaitezen edo begira diezaiogun Juditek gurean izan duen oihartzunari.

Dakigunez, XVI. mendean Joanes de Larrumbide, oiartzuar organistak antzetzarazi zuen testamendu zaharreko zenbait gai, hauen artean Judith delako obra, baina Lope de Isastiren aipamenaz at ez dugu batere arrastorik.

Badugu, ordea, hasieran aipatu ditugun bi eskuzkribu, bat Bordelen eta bestea Baionako Euskal Erakustegiko liburutegian.

Bo bezala aurkeztu dugunak, Hérèlle-k²¹ esaten digun bezala, *texte réduit à quelques scènes, pour encadrer une farce charivarique*, oso bertso gutxi dauzka gaiarekin lotuak daudenak, hauen artean badu *Premier Prologue du general Oloferne et Judiq* delakoa, non ikus dezakegun grafien arabera Jean Molinet-en leinuruko dela, honek *Judich* idazten zuenez.

Hauexek dira, hain zuzen, honen aitzin pheredikiako bi bertso:

M1rch2 (Marche)
l2ch1p4 1l1 t2t2 (Le chapo ala tete)
Houra deitzen da Judiq
eta Oloferne haundia
çugneq setiatu beitician
Bethuliaco hiria.
Olofernaq ekharri cian
armada terrible bat berequi
arren hartcen du Bethulia
crudelitate handirequi²².

Saturno eta Venus, eta *Mehalçu eta Venus*²¹ astolasterretako koadro gisara agertzen dira, bada, bertsuok, eta bada testu barrenean, hain zuzen, frantsesezko zatitxo hau:

²¹ Georges Hérèlle, *Catalogue sommaire de toutes les pastorales connues à ce jour*. Paris, Imprimerie Nationale, 1922, 9.

²² Bo, f.13.

²³ Patri Urkizu (ed.), *Zuberoako Irri-teatroa. Recueil des farces charivariques basques*. Préface de Jean-Baptiste Orpustan. Izpegi, Baigorri, 1998, 267-269, 343-369.

*Fait à Gourse 24 mars 1824 par Pierre Linconnu. Si ce livre se perdoit / comme faire se pourroit / je vous prie de le rendre à son maître / qui n'est ni capussin ni prêtre / ni envie de l'être, mai s'appelle Linconnu, de la commune de Bon-garçons pour manger une cuisse de chapon / bien grasse, Dieu me fasse cette grasse*²⁴.

Nabarmena da egile ezezagunaren umorea, baina jakina denez arrunta eta ohikoa zen astolastergileak ez nahi izatea ezagutua izan zedin bere izena, horregatik Ezizena hartzen du deitura bezala.

Baionako eskuzkribuak Hérelle-ren arabera 893 bertso ditu, baina guk 984 kontatu ditugu, eta gure ustez ongi. Aipatzen du amaian nola parte hartzen duten hiru gai ezberdinetan bost konpainia ezberdinek, eta Juditen pertsonaiak hauek osatuko lituzkete:

Bigarren Konpainia:

Achior,	72 bertso
Judit,	97 bertso
Clarice,	32 bertso
Tiburce,	34 bertso
Bostgarren konpainia	
Holopherma,	70 bertso
Evariste,	17 bertso
Darieun,	16 bertso

Zerrenda honen arabera, hots, errejenta edo kopiagilearen arabera Juditek 338 bertso lituzke baina kontutan harturik Moise, Josue, Judit eta Holophermak 984 bertso dituela, eta guk beste era honetara kontatu ditugula,

Lehen prologoua: 22-42 bb;

Judit, Holopherme, Darieus, Evariste,... 358-367bb; 413-819 bb;

Asken peredikia, 968-984 bb,

honen batuketak orotara 454 bertso eta 1816 bertsolerro ematen ditu. Noski, hiru gaietatik tratamendu luzeena daukana.

Hérelle-k bere katalogoan aipatzen duelarik *Judith et Holopherne*-ren, -frantses eran idatzita-, Campan-Latsagueko eskuzkribua, esaten digu, kutsatuta dagoen testuan hiru historia ezberdin ageri direla, Moisesarena, Josuerena eta Juditena eta *Mistère du Vieil Testament*-eko bertsoekin konparatu behar-ko litzatekeela.

²⁴ Bo, f.84.

Konparatu dugularik Jean Molinet-en obrarekin, ixtorioaz aparte, ez dago ia ezertxoere berdunik, ez eta bertsolerro bat ere. Beraz, ondorioztatu beharko genuke pastoralaren iturburua ez dela izan misterio frantsesa, baizik eta izatekotan, honen moldaketaren baten eta ezagutzen ez dugun *colportage* deitu edota *Bibliothèque bleue* bildumako liburutxoren bat.

Hona Lehen Pheredikiako (harturik soilik Juditi dagokiona) eta Azken Pheredikiako solasetan dioena:

- 22 *Beste sujet batez orano
nahi nitçaicie mintçatu,
çoin cien satisfamentia
complituren beitu.*
- 23 *Houra deitcen da
Holopherma handia,
çointan assiejatu beitician
Bethuliaco hiria.*
- 24 *Holophermaq erouan cian
armada terriblebat bereki
assiejatcen du Bethulia
crudelitate handireki.*
- 25 *Eman cian combat
Bethuliaco hiriar
eta hiria defendatu
corage handireki.*
- 26 *Uthurriaq noula beicuten
erakharten hurruntiq
canetaq khentu
eta ebaki.*
- 27 *Bethulia errendatcen da
miseria handi batetara
gossiaq eta egarriaq
ekharten dutu accabatcera.*
- 28 *Hiri hartan barnen
andere saintu bat bacen
devotionereki ari beitcen
bethi Gincowaren othoitcen.*
- 29 *Hiri haren afflictionia
emaste hareq ikhoussiriq
Gincowari hasten da otoitcen
lurian belharicaturiq.*
- 30 *Andere haren prudentciaz*

- hanitz niz estonatcen,
herriti da jalkiten
eta Holophermagana jouaiten.*
- 31 *Noula Judit beitzen
eder eta charmagarri
Holopherma jarten da
pasiona handi bateki.*
- 32 *Behar diala goçatu
Juditen floria
declaratcen dayo berhala
bere passionia.*
- 33 *Juditeq dero berhala
passione hori laidatcen
Holophermaren bihotça
contentamentutan eçarten.*
- 34 *Arraxa gindenian
jouaiten dira algarreki
Juditeq du Holopherma
ordi erasten ederki.*
- 35 *Noula emastiaq gaisto beitira
nahi diren lekhian
haieq estiroyen gaiçariq
deus esta mundian.*
- 36 *Holopherma louaq hartucian
arraxa cenian
baita Juditeq trincatu buria
lothu cen mementouan.*
- 37 *Oihal batetan cian
buru houra unguratu
cota pian eçaririq
herrialat eramaiten du.*
- 38 *Infidel soldadoue q ikhoussi ondouan
naussia hilliq biharamenian
loxatu ciren ordian
eta consultan jarri ciradian.*
- 39 *Houraq ciralariq
consulta hartan mintçatcen
Bethuliaco gentia
jalki içan ceyen.*
- 40 *Holophermaren gentiaq
biciriq baratu ciradian*

- eta ihessi jouan
memento berian. (Erdian bara)*
- 41 *Gente hounaq banoua
ene discousaren finitcera
eta guero instantian
ene lagunen cherkhara.*
- 42 *Adio erraiten deitciat
coumpagna ouhouratia,
othoi parka içadaciat
hartu dudan libertatia.*

Hona pastoralaren hasierako beste zenbait bertso, bi zutabetan ezarritz hobeto konparatu ahal izateko Bo eta Ba-ko aldaerak:

Bo, f. 3

*Oloferne
Ho hou Bethulia,
hiri renomatia
hi ere bai Achiquor
fierritatez bethia.
Ni deitcen nuq Oloferne
cien destruiçalia,
khiristi ororen uçurria
eta debrien buruçaguia.
Banabilaq aspaldian
vitoriaz ungouraturiq
ceren lagountcen benaie
ene ginco haundieq.
Nabuchodonos erreguiaren
odrez niz ebiltcen,
chipiaq eta haundiaq dutinat
oro destruitcen...*

Ba, f.16

*Holopherme mintça
358 Oh ho Bethulia,
Hiri renomiatia,
eta hi ere Achior
fierritatez bethia.
359 Ni deitcen nuq Holoferma
cien destruiçalia,
khiristi ororen uçurria eta
Ene gincoen favoriçalia.
360 Banabilaq aspaldian
vitoriaz unguraturiq
ceren favoritcen benai
Mahoma ene ginco handiq.
361 Nabucodonosor erreguiaren
ordrez niz ebiltcen
chipi eta handi guciaq
Niq dutut destruituren...*

Maitemintzen delarik Holopherma Juditez, Bethuliako alaba eder, argi, xarmangarri eta aberatsaz, hona nola adierazten duen gertaera Vulgatak, eta nolako itzulpena ematen duten gaztelaniazko bertsoiak, Jean Duvoisinek eta euskal Elizen Arteko Bibliak:

*Sandalia eius rapuerunt oculos eius,
Pulchritudo eius captivam fecit animam eius²⁵.*

²⁵ Robert Weber, et al. (Ed.), *Biblia sacra vulgata*. Deutsche Bibelgesellschaft, Stuttgart, 1994, 710.

*Sus sandalias arrebataron los ojos del asirio
Y su belleza cautivó su alma*²⁶.
*Judithen oinetakoek miretsi diozkate begiak,
Haren edertasunak gathibu ezarri dio arima*²⁷.
*Judithen sandaliek begiak erakarri zizkioten
Eta haren edertasunak txoratu*²⁸.

Itzultzaile bakoitzak ikusten denez badu bere berezitasuna, doinua, musikalitatea, eta hitzen aukera, bitxia delarik nola EAB-ek *gathibu ezarri dio arima* ordez *txoratu* hautatu eta erabili duen. Testua antzerki bilakatu delarik hartzen duen bizitasuna ere bestea da, eta hona nola egiten dioten Juditi amodiozko deklarazioa Molinet frantsesak, anonimo katalanak eta euskaldun tragediagileak:

1904 *A vous regarder, il me semble
Que ravy suis oultre les cieulx,
Car, par le regart de voz yeux,
Je suis transi en tel maniere
Que plus n'en peux*²⁹.

Hona testu katalana bere antzez-ohar eta guzti:

*(Are posen las taules ab viandes, y menjant Olofernes, à de estar
Judich devant ell; y diu-li Olofernes):*

700 *Menge y beu alegrament,
que, cert, te dich en veritat
que lo meu cor me as robat
en veure t gentil y plasant.*

Frantses egileak batez ere begietan ezartzen duelarikan, katalanak aldiz, beste dohai batzuek baloratzen ditu, jentiltasuna eta atsegina, adibidez. Hona bada, zuzen-zuzen sexo harremanaren bila doan euskaldun zuberotarra azkenik:

702 *Madama, noula cirade,
erradaçut eguia,
nabi deiçut declaratu,
ene intentionia.*

703 *Cer den ene sendimentia,
jakin behar duçu,*

²⁶ Nacar Colunga, aip. lib., 516.

²⁷ Jean Duvoisin, aip. lib., 516.

²⁸ EAB, 1252.

²⁹ G.A. Runnalls, Aip. Lib., 207.

- 704 çoure lili ederraz
 ičan nandin cerbutchatu.
*Balimbaşunu hountarçuna
 favorableki responditez,
 mintçatcen nițçaiçu orai
 Madama claritatez.*
- 705 *Bethuliaco erreguigna
 çutudala eguinen,
 eta goure bici orotan
 algarreki ičanen.*

Errefrau zaharrekin harremanik izan dugunok ez gara harritzen, baina ageri zaigu ere nabarmen errejentarengan misoginia punttu bat, zein *proverbio çaharretan* (sic), esaera zaharretako jakiturian (?), oinarritzen den ixtoriotik ateratzen duen lezioa eta irakaspena. Hona bi eskuzkribuetako aldaerak:

- | | |
|--|--|
| Bo, f.173 Evariste
<i>Proverbio çaharretan
 ez obi duq gueçurriq
 emazter fidatçen direnaq
 baratcen direla trunpaturiq.
 Ah emazte arraça
 fineciaz bethia,
 trunpa cinioe segourqui
 ifernuco debria.</i> | Ba, f.37 Evariste
789 <i>Proverbio çaharretan
 ez obi da gueçurriq,
 emaster fidatcen dena
 baratcen dela trounpaturiq.
 790 Emaste arraça gaistoua(q)
 fineciaz bethia(q)
 trounpa cinioste seigurki
 Ifernuco debria(q)</i> |
|--|--|

Anitz dira noski herri kantetan ere amodioaren penak kantatzen dituztenak eta kexatzen direnak maitearen engainu eta mespretxuez. Hala, adibidez, honako tituluak eta lehen bertsoleroak dituztenak: *Amodio traidoria, bethi pena emailia*³⁰. *Amodioetan den presunak badu hainitz sofrikari / Ez naiz ez mintzo ni jakin gabe, baina frogaturik ongi. / Gaxoa hemen nago tronpaturik.* (LBNZ, I, 677). *Amoriua, gazten trunpagarria* (LBNZ, I, 680). *Amoriuak trunpatu nai nintzalarik haur gaztia* (LBNZ, I, 681).

Denetan, hau da, kantu hauetan pastoraleko bertsoetan bezala amodioa emazte tronpatzailearekin lotzen da. Baina entzun ditzagun Juditen bertsoak, zeinen ekintza Jainkoarena bezala aurkezten den:

- | | |
|---|---|
| Bo, f.179 Judiq
<i>Jincuaq eguin diçu hori</i> | Ba, f. 39 Judit
808 <i>Gincouaq eguin dereicu hori</i> |
|---|---|

³⁰ Patri Urkizu, *Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako bertso eta kantak. I. Anonimoak*. Etor, Donostia, 1991, 675. (Aurrerantzean LBNZ)

- | | |
|---|---|
| <p><i>niq beno hobequi,
hareq libratu guitiçu
Olofernaren esquti.
Deriqunez gueroz
miraqullu eracouxi
dugoun arren la(i)da
eguin ahalaz bethi.
Ceren cunxerbatu gutian
hain peril haunditi,
çerbutchatu behar dugou
ahal beçain leyalqui.</i></p> | <p><i>niq beno hobeki,
hareq livratu guitiçu
Hol(o)phermaren eskuti(q).
809 Dereicunaz gueroz
miracuillu eracouxi,
dugun laida eta ouhoura
Eguin ahalaz bethi.
810 Ceren conservatu gutian
hain danger handitiq
cerbutchatu behar dugu mundian
soin handi bateki.</i></p> |
|---|---|

Amaitzeko bada, Juditen aurkezpen hau, non ikusten den euskal pastora-
lak tradizioko bideari (Testamentu zaharra, misterioak...) jarraikitzen diola, -
anakronismo (Jesus eta Mahoma aipatzen dira), misoginia, batailak eta guzti,
hona dioena azken solasean:


Asken peredikia

- | | |
|-----|---|
| 968 | <i>Gente hounaq leignurubat
dugu representatu
eta arauz cieq
heben debeyatu.</i> |
| 969 | <i>Bena debeyatu ičanagatiq
othoitcen cutiet umilki
etcitiela gouretaco
gaiski erraiten ari.</i> |
| 970 | <i>Goure gaiski errana gatiq
ouhoureriq esticie ukhenen
hala noula betereicu
Salamoneq erraiten,</i> |
| 971 | <i>Besteri hedatu cepouetan
ihour iz atçamaiten
besteren gaiski eguiliaq
bere desouhouria du biltcen.</i> |
| 972 | <i>Çoumbat ere guq
espeitugu merechia
othoitcen çutiet umilki
ez goure gaiski erraiten aritcia.</i> |
| 973 | <i>Egunco tragediaq beraq
dereicu eraousten
gaiski eguiliaq noula diren</i> |

- 974 *mundu hountan eta bestian punitcen.*
Ikhoussi ducie Holophermaq
Bethuliaco hiria
noula etchekiten cian
assiejattia.
- 975 *Bena Judit ceyon*
aitciniala presentatu
Holopherma ordian
passionez alagueratu.
- 976 *Noula ginconaq beitut*
gaiski eguiliaq punitcen
Holophermaren brutalitatia
ecin cian soffritcen.
- 977 *Ikhoussi ducie noula cian*
Juditeq hordieraci
Buria trincatu eta
tradicionez attrapi.
- 978 *Içan eçaçie guero cieq*
gastetan fidatcia
guiçounaren estenez
erhokeria handia.
- 979 *Proverbio çaharraq*
çaicu arraportatcen
gastetan fidatiaq
troumpaturiq diradiala baratcen.
- 980 *Eskitian arren gu fida*
Holopherma beçala
troumpa eskitian
houra troumpatu cen beçala.
- 981 *Bena guitian conforma*
Ginçouaren maniala
egun batez içan guitian
celian algarrekila.
(Erdian bara)
- 982 *Gente hounaq banoua*
ene discousaren finitcera
eta bat bederari
gai houn souhetatcera.
- 983 *Othoi eguin içagucie*
plaser baducie ohouria

instant bat jiteko
gourekin dantçatcera.
984 Cien cerbutchari dateke
bethi ene persouna
eta accabatcen dut souhetatcez
orori gai houna.

Nik ere berdin agurtzen zaituztet goiz honetan, konpainia eder hori, Axularrek zioen bezala, edota kunpaina uhurablia Juditen errejentaren arabera, egun on bat desiatzen dizuet, literaturaren besoetan eta Pierre Lafitteren oroitzapenetan. Eta besterik ez, eskerrik asko arretarengatik eta ongi esanak onar eta gaizki esandakoak barka, edo hobeto litzatekena, zuzendu, ni ez bainaiz horrengatik bekaiztuko, anitz poztuko baizik.



Biltzarkideen argazkia Baionako Fakultateko atarian

Argazkia: P. Telleria



Biltzarraren irekiduran, ezkerretik eskuinera: J. M. Makatzaga,
B. Oyharçabal, J. Haritschelhar, A. Arkotxa eta L. Otaegi

Argazkia: P. Telleria



J. M. Lasagabaster eta J. M. Lekuona

Argazkia: P. Telleria